

# E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak  
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca  
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



## EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

2007, 3  
52. liburukia (2. aldia)  
BILBO

# EUSKALTZAINDIA

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo  
Telefona: 94 415 81 55 • Faxa: 94 415 81 44  
e.posta: [info@euskaltzaindia.net](mailto:info@euskaltzaindia.net) • web gunea: [www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net)

## Argitalpen batzordea / Comisión de publicaciones:

*Burua:* Andres Maria Urrutia Badiola

*Kideak:* Beñat Oihartzabal, Xabier Kintana, Jose Luis Lizundia, Henrike Knörr (†),  
Andres Iñigo, Adolfo Arejita eta Pello Salaburu

*Eragile eta idazkaria:* Ricardo Badiola Uriarte

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabearen dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoa edo mekanikoa, fotokimikoa, magnetikoa, elektrooptikoa, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, apaimenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

ISSN. 0210-1564

**Euskera**

ISBN. 85479

Lege-gordailua BI-1.244-58

Preinpresioa: Composiciones RALI, S.A.  
Particular de Costa, 8-10 - 48010 Bilbao

Inprimategia: Emfasis  
Gorbeia, 1 - 48004 Etxebarri (Bizkaia)

**Aldizkari** hau beste agerkeriekin trukutzen da. Otoi, idatz Zuzendariari.

Esta **Revista** admite el intercambio con otras publicaciones.

Rogamos dirigirse al Director.

# AURKIBIDEA

## ANDONI SAGARNA: sarrera-hitzaldia

Agurra, <i>Andres Urrutia</i> . . . . .	841
Euskara eta informazioaren teknologiak. Egungo egoeratik etorkizunera begira, <i>Andoni Sagarna Izagirre</i> . . . . .	843
Aizkolariak eta zizelkariak. Andoni Sagarna Izagirre Euskaltzaindian sartzeko hitzaldiari erantzuna, <i>Jean-Louis Davant</i> . . . . .	859

## MENDEURREN ETA OSPAKIZUNAK

### GRATIEN ADEMA «ZALDUBI»-REN MENDEURRENA (1828-1907)

Zaldubiren oroit-harria, <i>Christine Bessonart</i> . . . . .	873
Gratien Adema «Zaldubi»-ri omenaldia, <i>Piarres Aintziart</i> . . . . .	875
Iparraldeko euskalgintza, XIX. mendearen bigarren erdian: Zaldubi eta bere garaia, <i>Mikel Zalbide</i> . . . . .	877
Gratien Adema «Zaldubi»ren <i>Jeus</i> poemaz iruzkinak, <i>Patri Urkizu</i> . . . .	1009
Adema <i>Zaldubiyren</i> (1828-1907) prosa idazlanak, <i>Xabier Altzibar</i> . . . . .	1033
Gratien Adema «Zaldubi». Bere mendeko apez eta gizona, <i>Jean Haritschelhar</i> . . . . .	1061

**GRATIEN ADEMA «ZALDUBI»:**  
**SAINDU BATZUEN BIZIAZ**  
**«Euskaltzainak» bilduma: 1. zenbakia**  
*Aurkezpena*

Gratien Adema «Zaldubi»ri omenaldia, <i>Henri Duhau</i> . . . . .	1077
Liburuaren aurkezpenean, <i>Andres Urrutia</i> . . . . .	1085

**JEAN HARITSCHELHAR EUSKALTZAINBURU**  
**OHIARI OMENALDI-ARGITALPENA**  
***Iker* Bilduma: 21. zenbakia**

Jean Haritschelharren omenaldian, <i>Andres Urrutia</i> . . . . .	1089
Esker hitzak, <i>Jean Haritschelhar</i> . . . . .	1091
Jean Haritschelharren omenaldia, <i>Beñat Oihartzabal</i> . . . . .	1095
Jean Haritschelharren omenezko <i>Iker</i> liburukiaren aurkezpenean, <i>Jose Luis Lizundia</i> . . . . .	1099

\* \* \*

L'Euskaltzaindia et l'Office de la Langue Basque: un nouveau cadre de relations, <i>Max Brisson</i> . . . . .	1101
Euskaltzaindia eta Euskararen Erakunde Publikoa: hitzarmen baten atarian, <i>Andres Urrutia</i> . . . . .	1105
Euskaltzaindia y la <i>Office Public de la Langue Basque</i> : un nuevo marco de relaciones, <i>Andres Urrutia</i> . . . . .	1107
L'Euskaltzaindia et l'Office Public de la Langue Basque: un nouveau cadre de relations, <i>Andres Urrutia</i> . . . . .	1109

**NAFARROA OINEZ 2007**

Agurra, <i>Andres Urrutia</i> . . . . .	1113
<i>Recuperación del euskera en Navarra</i> . Liburuaren aurkezpena, <i>Andres Iñigo</i> . . . . .	1117

<i>Nafarroa Oinez 2007</i> , Ventura Gonzalez . . . . .	1121
Ikastola Erentzun Ikastola, Aritz Lizarraga . . . . .	1123
Presentación de: <i>Recuperación del euskera en Navarra</i> , Miquel Gros i Lladós . . . . .	1127

## **IKER SAILA**

### **ONOMASTIKA**

Irizpenak, Mikel Gorrotxategi. . . . .	1141
El entorno de la Puebla de Arganzón: notas históricas y lingüísticas, <i>Roberto González de Viñaspre</i> . . . . .	1143
Kosten izenak. Exonomastika Batzordearen gomendioa, <i>Exonomastika Batzordea</i> . . . . .	1157
« <i>Erice de Iza / Eritzebeiti</i> », <i>Onomastika Batzordea</i> . . . . .	1163
« <i>Irumberri / Lumbier</i> », <i>Onomastika Batzordea</i> . . . . .	1165
Acerca del nombre eusquérico de <i>Lumbier</i> , Patxi Salaberri . . . . .	1167
<i>Lukiano</i> , <i>Onomastika Batzordea</i> . . . . .	1173
<i>Urduña/Orduña</i> , <i>Onomastika Batzordea</i> . . . . .	1177

### **BIOGRAFIA**

Aphpatia. Lhande, Jean-Louis Davant . . . . .	1181
Aita Pierre Lhande-ren lanak, Jean-Louis Davant . . . . .	1191

## **JAGON SAILA**

### **EUSKARAREN LEGEA. 25 URTE EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN Euskaltzaindiaren XI. Jagon Jardunaldiak**

25. urteurrenean EAeko Euskararen Legea hizpide Euskaltzaindiak: kronika . . . . .	1223
---	------

Euskararen Legeak 25 urte Euskal Autonomia Erkidegoan, <i>Juan M<sup>a</sup> Atutxa Mendiola</i> . . . . .	1231
Euskararen Legea. 25 urte Euskal Autonomia Erkidegoan. Euskaltzaindiaren XI. <i>Jagon</i> Jardunaldiak, <i>Andres Iñigo</i> . . . . .	1233
Euskararen ofizialtasuna: zenbait aurrekari historiko, <i>Joseba Intxausti</i> . .	1235
Euskararen Legearen sorrera. Giro politikoa, koiuntura eta negoziaketa, <i>Jose Luis Lizundia Askondo</i> . . . . .	1251
* * *	
Hizkuntza-Zuzenbidea. Testu bilduma euskaraz. <i>Jagon</i> Bilduma 5, <i>Andres Iñigo</i> . . . . .	1259
Atarikoa, <i>Andres Urrutia</i> . . . . .	1261
* * *	
Euskararen Legea onartu zenetik hona, euskarak herri administrazioan izan duen garapenaz, <i>Gotzon Egia</i> . . . . .	1265
Euskararen Legeak esparru sozio-ekonomikoan izan duen eragina, <i>Anaje Narbaiza</i> . . . . .	1279
Euskararen Legeak hogeita bost urte eskola alorreko bilakaera: balioespene-saioa, <i>Mikel Zalbide</i> . . . . .	1283
Euskararen Legea eta hedabideak. 25 urteotako gorabehera batzuk, <i>Julian Beloki Guerra</i> . . . . .	1519
Euskararen Legea eta euskara informazio- eta komunikazio-teknologietan, <i>Andoni Sagarna</i> . . . . .	1531
EAEko euskararen Legearen garapenaz Nafarroaren ikuspegia. Nire sentimendua, <i>Sagrario Aleman</i> . . . . .	1545
Euskararen Legea. 1982ko oinarrizko legea, euskararen erabilpena araukotzekoa. Ipar Euskal Herriko ikuspegi bat, <i>Erramun Baxok</i> .	1553
Euskararen Legea: 25 urte Euskal Autonomia Erkidegoan. XI. <i>Jagon</i> Jardunaldiak: <i>ondorioak</i> , <i>Erramun Osa</i> . . . . .	1573
* * *	
<i>Jagonet</i> : 2007. urtean egindako lanen berri, <i>Joxe Ramon Zubimendi</i> . . .	1575

## **EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK**

### **BATZAR-AGIRIAK**

Bilbon, 2007ko uztailaren 20an . . . . .	1581
Vianan, Ageriko bilkura, 2007ko irailaren 21. . . . .	1583
Bilbon, 2007ko irailaren 28an. . . . .	1585
Donostian, 2007ko urriaren 26an . . . . .	1587
Bilbon, 2007ko azaroaren 30ean. . . . .	1590
Senperen, 2007ko abenduaren 21ean . . . . .	1593
Ageriko bilkura . . . . .	1595

### **EUSKALTZAINDIAREN 2008KO BATZAR-EGUTEGIA**

Euskaltzaindiaren 2008ko batzar-egutegia, <i>Pello Telleria</i> . . . . .	1601
---	------

### **EUSKALTZAINDIAREN ARAUAK**

151. Espainia-Frantzietako eskualdeen izenak . . . . .	1605
152. Hiztegi batua: <i>f - fuxina</i> . . . . .	1611

### **D-MAILAKO HIZKUNTZA GAITASUN AGIRIA**

D-mailako hizkuntza gaitasun agiria, <i>Piarres Xarriton</i> . . . . .	1627
D-mailako hizkuntza gaitasun agiria: 2007-VII-20 . . . . .	1629
D-mailako hizkuntza gaitasun agiria: 2007-VII-30 . . . . .	1631

## **BERRIAK**

III. Bartzelonako Liburu Azokaren (Salo del Llibre) errendapen-txostena, <i>Ricardo Badiola-Jon Artza</i> . . . . .	1635
--	------

Durangoko 42. Euskal Azokarekiko kontu errendapena, <i>Ricardo Badiola Uriarte-Jon Artza Bikandi</i> . . . . .	1637
Literatura sariak 2007 . . . . .	1641

## HIL BERRIAK

Jose Manuel Lasarte (1927-2007), <i>Patxi Zabaleta</i> . . . . .	1649
Jesus Atxa Agirre (1920-2007), <i>Jose Luis Lizundia Askondo</i> . . . . .	1667
* * *	
Aurkibidea / Índice / Index, <b>2007</b> . . . . .	1673



**ANDONI SAGARNA:**  
**sarrera-hitzaldia**

*Donostia, 2007-X-26*



## AGURRA

*Andres Urrutia*

Agintariok,  
euskaltzain kideok, ohorezko, oso zein urgazle,  
Andoni Sagarnaren etxekook nahiz senideok,  
jaun-andreok.

Arratsalde on.

*Informazioa, komunikazioa eta teknologia.* Horra hor hiru hitz esanguratsu eta adierazgarri.

Horra hor, modu berean, Euskaltzaindiak Etxalarreko jardunaldietan asmatu zuen batzorde berriaren izena. Batzorde horren arduraduna, zer esanik ez, egun Euskaltzaindira datorren laguna, Andoni Sagarna bera, hain zuzen ere.

Hizkuntza eta teknologia berriak uztartzen saiatu eta saiatzen dena bada-go, hortaz, gure artean, euskararen onerako eta onurarako. Hitz batez esateko, zubigintza-lana egiten, arlo bateko eta besteko osagairik azpimarragarrienak batuz eta diziplinartekoa egoki landuz.

Horretan etorri zaigu Andoni Sagarna euskaltzain oso berria, gogoratzera, besteak beste, alfer-alferreko dela teknika nahiz teknologia oro, artean espiritua eta arima ez bada. Arima, gogo euskaltzalea, ez zaio falta Andoniri, azken hogeita bost urtetan behin eta berriro erakutsi duen bezala. Hiztegiak, entziklopediak, artikulak, liburuak, unibertsitateko irakaskuntza ... euskal kulturaren Andonik izan dituen eta dituen militantzia eta jakituriaren kate-begi zorrotz eta agerikoak dira.

Niri ez ezik, Euskaltzaindiari eta hemen zaudeten adiskide eta lagun gutzietan, ere betidanik erakutsi izan dizkigu, berarekin izan garen aukera eta proiektuetan, kemena eta eragingarritasuna.

Eragingarritasuna diot, hitza bera Sagarnaren merezimenduak biribil-tzeko nahikoa izango balitz bezalaxe. Motz eta urri ibiliko nintzateke, alabaina, horrekin batera egun ugari ez diren beste ezaugarriak gogoratuko ez banitu, hots, ekimena eta jarraitutasuna, distira bera sortzen eta aldarrikatzen dutenak.

Eustazpi eta euskarri sendoa dator gaur Euskaltzaindira, XXI. mende honetan euskarari eta Akademiari beharrezko zaizkien tresna, lanabes eta proiektu berriak eskainiko dizkiona.

Izan bedi, hortaz, ongi etorria, gurekin batera lan egin dezan euskararen aitzinatze-bidean.

Lanak, hala ere, ez ditu ostendu eta baztertu behar pertsonaren nondik norakoak. Donostiatik Usurbilera, Usurbildik Euskal Herri osora, bihoaz, nire eta Euskaltzaindiaren izenean, zorionik beroenak, Mari Karmen, Ainara, Maider, Oihana eta etxeko guztientzat.

Ekar dezatela orain, arauzkoa denez, bi euskaltzainek Andoni Sagarna, eta egin dezagun, zuen etxean bezala, «gure» etxeko Andoni Sagarna bera.

## **EUSKARA ETA INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIAK. EGUNGO EGOERATIK ETORKIZUNERA BEGIRA**

*Andoni Sagarna Izagirre,  
Euskaltzaindiko sarrera-hitzaldia*

Ahaldun nagusi jauna, agintari agurgarriok, euskaltzainburu jauna eta euskaltzainok, etxekook, adiskideok, jaun-andreok: arratsalde on digula guztioi.

Hizkuntza eta teknologia, hara hor denok egunero erabiltzen ditugun bi gauza. Jende askorentzat, ordea, bata bestetik urrun dauden arloak dira. Behar bada mundu akademikoan letretako eta zientzietakotzat hurrenez hurren hartu ohi zirelako garai batean. Garai batean diot, zeren gaur egun urruntasun hori, neurri handi batean, desagertua baita.

Bi eremu horien atzoko, gaurko eta biharko hurbiltasunaz eta harremanez hitz egitera natorkizue hain zuzen ere.

Badakit zuetako askok *teknologia* hitza entzuten duzuenean, erreparatu moduko bat sentitzen duzuela eta batek baino gehiagok pentsatuko zuen honetarako: zer egiten ote du ingeniari batek Euskaltzaindian?

Horrela bada, harridura astintzeko asmoz, lehenik eta behin, ingeniari bat hizkuntza-arazoez arduratzea, euskara lantzen saiatzea eta are Euskaltzain oso izatea ere, hain gauza bitxiak ez direla agertzen saiatuko naiz.

Urruti samarretik hasiko naiz, pixkanaka gure artera hurbiltzeko.

XX. mendearen hasieran, Alemaniako ingeniariak arduratuta zebiltzan euren lanbidean behar zituzten hitz teknikoez. Batez ere itzulpen teknikoan egiten ziren okerrak saihesteko asmoz, 1900ean gutxi gorabehera, VDI (Verein Deutscher Ingenieure) erakundeak, hau da, Alemaniako Ingeniarien Elkarteak, Hubert Jansen filologo eta lexikografo ospetsuari *Technolexikon* izenburua izango zuen aleman/ingeles/frantses hiztegi tekniko bat zuzentzeko ardura eman zion. Jansen, besteak beste, Natur Zientzietako eta teknikako maileguzko hitzak alemanez izan behar zuten ortografiari buruzko lan baten egilea izan zen. Egitasmo handia zen *Technolexikon* hori. Bi mila enpresa eta lankide boluntario agertu ziren, hiztegiari ekarpenak egiteko prest. Dozena erdi bat urtetan 3.600.000 fitxa egin zituzten, lexikografian ohikoa izan den bezala, alfabetoaren hurrenkeraren arabera hitzak aztertuz. VDIn kontseiluak 1907an egin zituen kalkuluen arabera, *Technolexikon* hiztegia burutzeko, ordu arteko

metodologia erabiltzekotan, beste 40 urte beharko ziren. Gehiegi ari zen kopilatzen gauza eta noraezean zebiltzan.

Bitartean, 1906an, Alfred Schlomann (1878-1952) ingeniariak makina-atalei buruzko hiztegitxo bat argitaratu zuen, sistematikoki ordenatua, konzeptu-sistemaren arabera, alegia, eta irudiz hornitua, sei hizkuntzatan (alemana, frantsesa, ingelesa, errusiera, italiara eta espainiera). Lan honek harridura sortu zuen, hiztegi teknikoak lantzeko eta aurkezteko modu berri bat ekarri zuelako.

VDIk aholkua eskatu zion Koloniako Unibertsitatean filologia ingelesa irakasten zuen eta lexikografoa zen Arnold Schroer-i, Technolexikon-en garapenera buruzko erabaki bat hartu ahal izateko. Hark Schlomann ingeniariaren metodologia hobetsi zuen eta Technolexikon zelako hura bertan behera utzi eta Schlomann-en lana finantzatzen hasi zen VDI elkarteak. Ondorengo urteetan, 1932.a bitartean, 17 tomo lodi egin zituzten. Lanean jarraitu zuten, harik eta naziek lana gerarazi eta 1935ean Schlomann-ek Alemaniatik erbesteratu beharra izan zuen arte.

Dena esan behar bada, Schlomann-en aurretik, Heinrich Paasch itsasgizon jatorriz alemaniar baina belgikar nazionalizatuak, *De la quille à la pomme de mât* izenburupean, argitaratu zuen itsasontzien terminologia, antzeko metodologiak landua zen. Hala ere, Schlomann ingeniariak terminologia teknikoak lantzeko metodologiari bide berriak urratu zizkiola esan dezakegu.

Geroxeago beste ingeniari batzuek, hala nola Wüster austriarrak, Drezen letoniarak, Lotte errusiarrak eta Selander suediarak metodologia horri oinarri teorikoa ezarri zioten.

Aipatu ditudan ingeniari horiek, hiztegi teknikoak lantzen ibili ziren, euren lan-arlo propiotik hurbileko hizkuntza-arazotan beraz, baina beste batzuk izan dira Hizkuntzalaritzaren ur sakonagotan murgildutakoak ere.

Benjamin Lee Whorf 1918an Ingeniaritza Kimikoan graduatu zen Massachusetts-eko Teknologia-Institutu ospetsuan. Lanbide horretan lanean aritu zen aseguru-etxe batean, eta 1931n Hizkuntzalaritza ikasten hasi zen Yale-ko Unibertsitatean. Han Edward Sapir-en ikaslea izan zen lehenbizi eta lankidea gero. Bien izena darama, hain zuzen, Sapir-Whorf hipotesiak, alegia, pertsona batek hitz egiten duen hizkuntzako kategorien eta pertsona horrek duen mundua ulertzeko eraren artean erlazio sistematikoa dagoela dioen hipotesiak. Whorf-en ustez, pentsamendua hizkuntzak baldintzatzen du eta hizkuntza desberdinak hitz egiten dituzten pertsonen mundua ikusteko era desberdinak dituzte.

Whorf-ek Hizkuntzalaritzan ospe handia lortu zuen arren, inoiz ez zuen hartu Hizkuntzalaritza lanbidetzat eta esaten zuen, mundu akademikoaz kanpoko irabazpidea izateari esker, hobeto eta askatasun handiagoz ahalegindu zitekeela gai akademikoetan. Are gehiago, gauza jakina da aseguru-

-etxean egiten zituen lanek ekarri ziotela hipotesi famatu hori formulatzeko inspirazioa.

Industria-arloan gertatzen ziren suteak zerk eraginak ziren ikertzen ibiltzen zen Whorf, aseguru-etxearentzat. Sute bat gertatzen zenean, bertara joaten zen eta instalazio elektriko akastunen batek, baldintza txarretan metatutako erregairen batek edo beste eragile fisikoren batek sua piztu ote zuen ikertzen zuen. Ondoren txosten bat idazten zuen aurkitu zuena adieraziz. Alabaina, esperientziak irakatsi zion, gauza bat zela egoera fisikoa bera eta beste bat egoera horrek jendearentzat zuen esanahia. Esanahi hori, hain zuzen, istripua baldintzatzen zuen faktoreetako bat izaten zela, jendeak sutearen aurrean zuen portaeraren bitartez. Eta esanahiaren eragina argiagoa zen, egoera deskribatzeko erabiltzen zen hizkerarekin lotuta zegoenean. «Gasolina-bidoiak» zeudela esaten zen leku batean, arreta handiagoa jartzen zen «Gasolina-bidoi hutsak» zeudela esaten zen leku batean baino. Bigarrenean jendeak lasaiago pizten zituen pospoloak, esate baterako, nahiz eta bidoi hutsak, berez, arriskutsuagoak izan, lurrun lehegarria zeukatelako. Fisikoki egoera arriskutsua izan arren, «huts» hitzak arriskurik eza iradokitzen duela zioen Whorf-ek.

Hori bezala beste adibide asko erabiltzen zituen Whorf-ek, bere lanetan eta hitzaldietan, hizkuntzak pentsamendua eta portaera nola baldintzatzen dituen erakusteko.

Horretaz gain, Erdialdeko Amerikako hizkuntzak ikertu zituen.



Ikusi duzuen bezala, Whorf, ingeniaria izanik ere, Hizkuntzalaritzaren eta Hizkuntzaren Filosofiaren arloetan ibili zen.

Badira beste ingeniari batzuk, teknologia-arloko terminoak edo hizkuntza bera aztergaitzat hartuta lan egin ordez, hizkuntzak adierazpide den aldetik, ideiak zorroztasunez azaltzeko batzuetan eta jostatzeko beste batzuetan abilezia erakutsi dutenak.

Horietakoa izan zen Serafin Baroja Zornoza (1840-1912), Pio Baroja idazlearen aita. Meatzetako ingeniaria zen eta Huelvako Riotinton, Euskal Herrian, Valentzian, Madrilan eta Granadan lanbide horretan ibili zen. Gaztelaniaz eta euskaraz idatzi zuen. Liberala zen eta karlisten aurkako kantak idatzi zituen, Manterolaren *Cancionero Vasco* bilduman jasota daudenak.

Bere jaioterri Donostiari, ereserkiaren hitzak ez ezik, maitasunezko bertsoak ere eskaini zizkion.

Hark hizkuntzari etekina ateratzeko zuen gaitasuna ederki erakusten du behin Donostian «a» letrari buruz ordubetetik gorako hitzaldi umoretsua eman izanak.

Horrek ez du esan nahi, ordea, hizkuntzaren azterketa axola ez zitzaienik, gauza ezaguna baita Migel Unamunorekin batera izaten zela Bilboko tertulia batean eta biak euskal gramatikako gaiak eztabaidatzen zituztela.

Unamuno aipatu dudan honetan, hark bere adiskide ingeniari batekin bizi izan zuen pasadizoaz kontatzen omen zuena datorkit burura.

Behin batean, Unamuno eta Bilboko Ingeniaritza Eskolan Kimikako katedraduna zen adiskide katalan bat, industria-ingeniaria bera, Loiolako Santutegia bisitatzera joan omen ziren. Etxe hartako nagusiak lagundu omen zien bisitan eta, nobizio batzuk zeuden lekura iritsi zirenean, nagusi horrek, jesulagunek duten azkar-famaz harro, esan omen zien: ikus itzazue gazte horiek... hori da fintasuna, hori da arraza, hori da adimena!

Jakina, ba omen ziren han burutsu-itxura zuten ikasleak eta agian hain bizkorrak izango ez zirenak eta beste batzuk, alderantziz, hain argiak ez ziruditen arren, itxuraren kontrakoak izango zirenak, eta ba omen ziren beste batzuk motz-aurpegi nabarmena zutenak ere.

Haietako batengatik Unamunok galdetu omen zion jesuitari: «zuk uste duzu mutil horrek argia izateko itxura duela? Ezin dut esan hala ez dela, baina itxuragatik esaten dut.»

Unamunoren ateraldi horren aurrean, jesulaguna hitzak bilatu ezinda bezala hasi omen zen erdi totelka: *jakina ... baliteke ...* eta halako egoera go-gaikarri bat sortu omen zen.





Orduan, ingeniari katalanak, naturaltasun osoz, ezer gertatu ez balitz bezala, esan omen zuen: berdín dío, ez arduratu, hori Txinan martiri izateko edukiko dute.

Unamunok pentsatu omen zuen jesuitak gaizki hartuko zuela hura, baina hara non grazia egin eta barreka hasi zen.

Ingeniari katalan hura Pompeu Fabra i Poch zen, kataluniera estandarren aita. Ingeniaria zen eta baita filologoa ere. Berak esaten omen zuen uste zuela bere ingeniartzako formazioak ez ziola batere kalterik egin Filologian gauzak planteatzeko garaian.

1906an, Katalunieraren Nazioarteko Kongresua egin zenean, artean Fabra Bilbon Kimikako katedradun zen, baina kongresuan izan ziren hiru mila partehartzaileen arteko gogotsuenetako bat izan zen. Ordurako urteak zeramatzan katalana aztertzen. L'Avenç izeneko taldearen barruan katalanaren ortografia berritzeko kanpaina bultzatu zuen 1890-1891n eta 1904an *Tractat de ortografia catalana* argitaratu zuen Jaume Massó eta Joaquim Casas-ekin batera. 1912an *Gramatica de la llengua catalana* plazaratu zuen, aurreko urtean Bilbo utzi eta Bartzelonara aldatu ostean, hango Diputazioak sortu zuen katalunieraren katedradun eta sortu berria zen Institut d'Estudis Catalans-eko Filologia saileko kide gisa. Beranduago Institutetako buru izatera iritsi zen.

Institutek Ortografia-arauak 1913an ezarri zituen, 1917an Ortografia Hiztegia argitaratu zuen eta katalanaren gramatika ofiziala 1918an.

Hala ere, bere lanik ospetsuena eta mardulena, *Diccionari general de la llengua catalana*, Institutuen hiztegi ofiziala bihurtu zena, 1932an atera zuen.

Euskaldunok lan horietan hasteko Euskaltzaindia sortu genuen garai berrean, haiek oinarritzko lan gutzia egina zuten, gidari eta ardatz Pompeu Fabra zutela.

Euskaltzaindiaren lau fundatzaileen artean, berriz, hor genuen Luis Eleizalde, ingeniaria ez bazen ere, Zientzietan lizentziaduna eta Matematikako katedradun izan zena.

Inazio Maria Etxaide (1884-1962) ingeniari donostiarra, Gipuzkoako telefono-sareko zuzendari eta telefonia automatikoa ezartzen aitzindari izan zena, euskaltzaina izan zen 1942 ezkerotik eta euskaltzainburua 1952-1962 bitartean. Hainbat lan egin zituen euskal hitz eratorri eta elkartuez, aditzaz eta euskararen jatorriaz.

Louis Dassance (1888-1976) Laborantzako ingeniari ospetsua, *Gure Herria* aldizkariaren sortzaileetakoa eta bertako administratzaile izan zen, «Ikas» elkarte pedagogikoko ohorezko lehendakari eta euskaltzain oso 1949tik aurrera.

Pedro de Yrizar, (1910-2004) Industria- eta Geografia-ko Ingeniaritzan doktore zenak, euskal aditza, euskararen atlasari, Bonaparte printzeari, euskararen eta Kaukaso aldeko hizkuntzen kidetasunei eta euskalkiei buruzko hainbat lan egin zituen eta euskaltzain urgazle eta gero ohorezko izan zen.

Gaur bertan, nire aurretik izendatutako hiru euskaltzain oso dira ingeniariak: Jean-Louis Davant, Laborantzako ingeniariaren doktorea, batetik eta Ibon Sarasola eta Mikel Zalbide industria-ingeniariak bestetik.

Gaurko euskaltzain urgazleen artean hor ditugu Txillardegia, Martzel Ensunza, Joan Mari Irigoien, Ramuntxo Camblong, Manuel Ruiz Urrestarazu, Xabier Artola eta Jose Ramon Etxebarria, denak arlo bateko edo beste ingeniariak. Eta badira beste batzuk ingeniariak izan gabe zientzietako lizentziadunak eta doktoreak direnak

Ezin dut esan, beraz, bide-erakuslerik izan ez dudanez. Horrek, jakina, haien eredu jarraitzeko ahaleginak egingo ditudala agintzera behartzen nau eta halaxe agintzen dut.

Hizkuntza-arazoez hainbat ingeniari sortu dioten kezka eta eragin dioten lan egiteko bultzada ikusi ondoren, nire kezka eta interesgune batzuen berri eman nahi nizueke.

Aurreko belaunaldietako nire lanbidekideek izan ez duten aukera bat dut gaur egun: hizkuntza eta teknologia uztar ditzaket; bereziki hizkuntza eta informazioaren teknologiak. Ez daukat bata lantzeko bestea baztertu beharrik,

aitzitik, esan genezake bi arloak hertsiki lotuta aurkitzen ditugula hainbat esparru teoriko eta praktikotan.

Ikus dezagun begirada laster batean zein diren hizkuntzaren eta informatikaren arteko topaguneak:

Informazio-teknologiak eta hizkuntza uztartzen dituzten hiru lan-arlo zabal dira Hizkuntzalaritza Konputazionala, Hizkuntza Naturalaren Prozesamendua eta Hizkuntzaren-Ingeniaritza. Horretan bat datoz, baina definizio zabal horren barruan gauzak zehazten hasi orduko, zalantzak hasten dira. Hori beste esparru batzuetan ere sarri gertatzen da.

Ez da inoiz erraza izaten hurbileko eremuetako jakintzagaien arteko mugak zehaztea, eta, are gutxiago, horietan lan egiten dutenak tankera horretako auzietan ados jartzea. Hori jakinik abiatzen gara bereizketak egiteko ahalegin honetan eta, gainera, egia da arlo horietan egiten diren lanek bilbe tapituegia osatzen dutela, sinplekeriatan jausi gabe, behin betiko sailkapenak egiten hasteko. Nolanahi ere, gauzak ulertzen lagunduko duelakoan, termino bakoitzaren sintagma-burura joko dugu, haren esanahiaren oinarriaren bila:

**Hizkuntzalaritza** konputazionala: Hizkuntzalaritza arloko jakintzagaia da, sistema informatikoen bidez hizkuntza aztertzeaz arduratzen dena.

Hizkuntza Naturalaren **Prozesamendua**: Informatika arloko jakintzagaia da, hizkuntza naturala automatikoki sortzeaz eta ulertzeaz arduratzen dena.

Hizkuntzaren **ingeniaritza**: ingeniaritza den heinean, erabilera praktikoa duten sistemak eraikitzeaz arduratzen da eta kasu honetan hizkuntza da sistema horiek duten langaia.

Jakina, ez dago erabilera praktikoa izango duten sistemak garatzerik, hizkuntza naturala prozesatzeko tresna egokirik gabe, hauek ez dago lortzerik hizkuntza aztertu gabe eta makinek ulertuko dituzten hizkuntza-ereduak landu gabe, baina, bide batez, hizkuntzalariek tresna eraginkorrek behar dituzte euren ikerlanak burutzeko, etab., etab. Guztia guztiari lotuta dago.

Gaur egun beste jakintzagai askotan gertatzen den bezala, hauetan ere ezinbestekoa da hainbat arlotan trebatutako profesionalak lankidetzan jardutea: hizkuntzalarriak, informatikariak, fisikariak, elektronikan adituak, psikologoak, matematikariak, etab.

Agian, jarduerak zehazki zedarritzen saiatzea baino egokiagoa izan liteke hizkuntzalaritza teoriko hutsetik hizkuntzaren industriek ekoizten dituzten erabiltzaile arruntentzako produktuetara bitartean etenik gabeko langintza-kate bat badela esatea.

Teorikoenetatik praktikoenetara doan bide horretan, muturrik teorikoenean, Hizkuntzalaritza Konputazional Teorikoa dugu.

Jakintzagai hori Hizkuntzalaritzaren adar bat da, hizkuntzaren funtzionamenduari buruzko hipotesiak frogatzeko informatikak sortutako tresnez baliatzen dena, baina baita Psikologiaren adarra den Zientzia Kognitiboaz ere, gizakiok hizkuntza nola erabiltzen dugun aztertzea eta portaera horren eredu informatikoak sortzea beharrezkoa duelako.

Azken urteotan, ikerketa horiek hartu duten konplexutasunaren ildotik Psikolinguistika Konputazionala ere sortu da. Jakintzagai horrek hitzak, hitz konposatuak, perpausak, etab. ikusiz eta entzunez ulertzeko edota ahoz eta idatziz sortzeko gizakiok erabiltzen ditugun prozesuen eredu informatikoak lantzen ditu.

Teoria hutsaren eta tresna praktikoen artean Hizkuntza Naturalaren Prozesamendua dago.

Hizkuntza naturalezko informazioa sistema informatikoen bidez ulertzea eta ekoiztea da jakintza-arlo horren egitekoa.

Esan gabe doa oso arazo korapilatsuak aurkitzen dituztela jarduera horietan ari direnek. Izan ere, hizkuntza aztergai eta langai bihurria da makinentzat

1950eko hamarkadan hasi ziren, Amerikako Estatu Batuetan, ordenagailuak itzulpen-lanetan erabiltzen, bereziki errusierazko zientzia-aldizkariak ingelesera itzultzeko asmoz, pentsatuz makina horiek oso bizkorak direla kalkulua egiten, eta antzeko trebezia erakutsiko zutela hizkuntza prozesatzeko ere. Uste zuten algoritmo egokiak eta haiek exekutatu zitezkeen programa informatikoak garatzea zela kontua, Fisikako fenomenoak aztertzeko egiten denaren antzera, baina ustea erdia ustel gertatu zitzaizen. Lauzpabost urteko epean itzulpen automatikoa menperatuta edukiko zutela iragarri zuten adituek, baina agudo hasi ziren zailtasunak agertzen, porrota ez esateagatik. Besteak beste, hiztegi-mailako anbiguotasunei aurpegi eman ezinda aurkitu ziren berehala. Anbiguotasun-arazoak konpondu nahian gerora hainbat ikerketa-lerro garatu dira, hain zuzen: kategoria gramatikalak etiketatzea, hitzen adierak desanbiguatzea, desanbiguazio sintaktikoa, etab.

1966an aitortu zuten hamar urteko ikerketak ez zituela aurreikusitako emaitzak lortu, eta aurreko hamarkadan ikerketa-arlo horretarako diru ugari izan zen bezala, iturria itxi zen eta lehengo ahoberokeriak ezkortasun bihurtu ziren. Hizkuntza aztertzea eta fenomeno fisikoak aztertzea ez baitira hain antzekoak.

Hizkuntzalaritzak ikertzen dituen fenomenoak askoz konplikatuagoak dira. Ikusi besterik ez dago zenbat teoria desberdin agertzen diren hizkuntzalaritzan eta nola ez den askotan bat gailentzen: Saussure-ren estrukturalismoa, Amerikako estrukturalismoa (Bloomfield, etab.ena), Chomsky-ren gramatika sortzailea eta gramatika transformatzailea, testuingururik gabeko gramatikak, Mel'čuk-en eta kideen esanahi/testu teoria (Meaning <->Text Theory edo MTT), besteak beste.

Bidenabar, esango dizuet zientzia zehatzen eta teknologiaren esparruetan hezitakooi kosta egiten zaigula batzuetan lur mugikor horietan ibiltzea, ez gaudelako horrelako ikuspegi-aniztasunarekin lan egiten ohituta.

1970eko hamarkadan Adimen Artifizialak esperantza handiak ekarri zituen eta aurrerapen batzuk bai, baina iraultzarik ez. 1980ko hamarkadan, makina ahaltsuago eta aldi berean merkeagoen etorrerak metodo estatistikoetan oinarritutako itzulpen automatikoari zabaldu zizkion ateak. Bide horretatik ere ez da miraririk etorri, baina bai itzultzaileen lana arintzen duten tresnak. Arlo jakin batzuetako eta hizkuntza jakin batzuen arteko itzulpen teknikoak egiteko oso lagungarriak dira. Murriztapen horietatik pixka bat urrundu orduko, ordea, irristaka hasten dira. Alegia, tresna elektroniko baten eskuliburua itzultzea egingarria den bezala, eleberrri bat ondo itzultzea guztiz ezinezkoa da gaur-gaurkoz.

Metodo probabilistikoek duten abantailetakoa bat ikaskuntza automatikoaz baliatzeko aukera da.



Ikaskuntza automatikoa adimen artifizialaren adar bat da, ordenagailuei «ikastea» ahalbidetzen dieten algoritmoak eta teknikak garatzeaz arduratzen dena, oso datu-kopuru handiak erabiliz. Geroxeago ikusiko dugun bezala, horrek esan nahi du testu-corpus handiak erabiliz.

Esaldi batzuk eta are orrialde batzuk itzultzeko gai diren «jostailuzko» sistemak asmatzea ez da hain zaila. Askok izan dute bide horretatik abiatuta zerbait lortuko zuten itxaropenarekin lan egiteko tentazioa, eta baita hemendik oso urrutira joan gabe ere, baina, lehentxeago edo geroxeago, ez aurrera eta ez atzera gelditzen dira.

2007ko maiatzaren 1ean Berria egunkarian ederki islatuta agertu zen gai hau. Eusko Jaurlaritzak euskarazko itzultzaile automatikoa garatzeko prozesua abian jarri zuela eta, horren garapenean jardungo zuen enpresa hautatzeko lehiaketa publikoan parte hartuko zuten enpresetako adituei iritzia eskatzen zitzaien.

Zalantzan jartzen zuten haiek euskarazko itzultzaile automatiko orokor batek eskain dezakeen zehaztasuna. Hogei urte arlo horretan diharduten aditu euskaldunek zioten gaur egun ez dela posible edozein testuren itzulpen zehatzak egiteko sistema bat lortzea, baina posible litzatekeela arlo jakinetarako, arlo horietako testu corpus handiak egongo balira.

Aditu horietako batek zioen Jaurlaritzak euskarazko itzultzaile automatikoa garatzeko abiatu duen prozesua, baliatu beharreko aukera polita dela, ez jostailu bat sortzeko, ez dagoen azpiegitura bat sortzeko baizik. Nire ustez erdiz erdi asmatu zuen esan zuenean azpiegitura eta sarea direla beharrezkoak une honetan, euskararen eta euskararentzako teknologiararen ikerketan dihardutenen arteko lankidetzara bilatu behar dela eta corpusak biltzeak eta lantzeak lehenetsuna dutela. Ni ere bat nator iritzi horrekin eta uste dut Euskaltzaindiak baduela zereginik helburu hori lortzeko. Geroxeago itzuliko naiz puntu honetara.

Hizkuntzalaritza aldetik oinarri sendoak behar ditu hizkuntza naturalaren prozesamenduko sistema batek, itzulpen automatikoa baino askoz arazo sinpleagoak ere arrakastaz gainditzeko.

Arlo horretako mende-erdiko eskarmentuak zenbait irakaspen ekarri digu, hala nola:

- Hizkuntza Naturalaren Prozesamendua ez da gramatika- eta semantika-kontua bakarrik; gizakiok dugun munduaren ezagutza gabe ezinezkoa gertatzen da.
- Hizkuntzaren maila guztietako arazoak gainditu behar dira: fonologikoak, morfologikoak, lexikalak, sintaktikoak, semantikoak, pragmatikoak, testu-gramatikakoak, etab.

- Oinarrizko teoria sendorik gabe ezin da hizkuntza naturalaren prozesamendurik seriozki garatu eta hau gabe ezin dira tresna praktiko eraginkorrak lortu. Arlo horiek eraikin baten egituraren antzera antolatatu behar dira: teoria zimenduetan, prozesamenduko tresnak gainean eta erabiltzaile arruntentzako produktuak gailurrean. Hemen ere ez da bidezkoa etxea teilatutik hastea.

Zailtasunak zailtasun, ordea, hainbat tresna baliagarri presta daitezke arazo horiek gainditzen joan ahala.

Merkatuan arlo horretako hainbat produktu aurkitzen dira, esate baterako:

- itzulpen automatikorako lagungarriak
- zuzentzaile ortografiko eta gramatikalak
- informazio-bilatzaille aurreratuak
- testuen laburpenak egiteko tresnak
- testuak automatikoki sortzeko tresnak, adibidez eguraldi-iragarpenak egitekoak
- hizketa sintetizatzen eta ezagutzen duten sistemak
- ahozko hizketa testu idatzia bihurtzeko tresnak eta alderantzizkoak
- eskaneatutako testua ezagutzeko tresnak (OCR)
- eskuzko idazketa ezagutzen duten sistemak

Hainbat tresna berezitu daude hizkuntzalarientzat ere:

- Analizatzaile morfologikoak
- Analizatzaile sintaktikoak
- Kategoria gramatikalen etiketatzaileak
- Izen propioen ezagutzaileak
- Konkordantziak egiteko programak
- Azterketa estatistikoak egiteko programak, etab.

Une honetan Hizkuntza Naturalaren Prozesamenduan egiten ari diren aurrerapenak mehatxu eta aukera berriak dakarzkigute euskaldunoi. Alderdi bioi buruzko gogoeta egin nahi nuke orain zuekin batera.

Has gaitezen mehatxuak zein diren ikusten. Oso tresna baliagarriak daude dagoeneko, hedadura handiko hizkuntzentzat behintzat edo, hobeto esan, ia hedadura handiko hizkuntzentzat bakarrik.

Horixe da, hain zuzen, nire kezkarik handienetako bat. Informazio eta Komunikazio Teknogiekin azken hamarkadetan ekarri dizkiguten baliabide gehien-gehienak ederki baliatu ditugu euskaldunok: testu-prozesadoreak, kalkulurriak, datu baseak kudeatzeko sistemak, irudiaren eta soinuaren tratamendu digitala, etab. Eduki digitalekin lan egiten hasi aurretik oso gogaikarriak, garestiak edo ezinezkoak ziren lanak arras erosoak, merkeak eta bideragarriak bihurtu zaizkigu. Digitalizazioa benetako bedekazioa izan dugu orain arte.

Kontuz!, ordea, hemendik aurrera; hizkuntzaren prozesamenduko tresna asko hizkuntza jakinetarako bakarrik baitira. Zenbait adibidek argituko digu esan nahi dudana.

Gaur egun badira programa batzuk eskuz idatzitakoa testu editagarria bihurtzen dutenak, esate baterako. Arkatz berezi batez erabiltzaileak idazten duena digitalizatzen dute eta teklatuaz idatzitako testua balitz bezala gordetzen dute ordenagailuan. Programa informatiko batek arkatzaren muturrak jarraitzen duen ibilbidea interpretatzen du.

Sistema horiek interesa dute, esate baterako sendagileentzat: gaixoeekin dituzten topaketetan ordenagailu eramangarri baten pantailan eskuz idazten dituzte jasotzen dituzten datuak eta programak fitxa osatzen du.

Horrela esanda, badirudi ez duela horrek medikuak erabiltzen duen hizkuntzarekin zerikusirik, baina zoritxarrez ez da horrela. Sistema informatikoak ez du arkatzaren ibilbidea besterik gabe aztertzen; gainera hizkuntzaren prozesamendua ere erabiltzen du, idatzitakoa interpretatzeko. Edozein tresnak gutxienez hiztegi bat behar du eta euskararen kasuan, oso izaera eranskaria duelako gure hizkuntzak, analizatzaile morfologikoa ere bai. Sistema hizkuntza bakoitzerako prestatu behar da. Horren ondorioa da merkatuan hizkuntza jakinetarako bakarrik aurkitzen direla sistema horiek.

Medikuntza-arloan beste adibide batzuk aipa nitzake, esate baterako txostenen transkripzioarekin gertatzen ari dena. Garai batean, sendagileak magnetofono batean grabatzen zuen txostenaren edukia eta idazkari batek transkribatzen zuen. Gaur egun, ahozko azalpenaren grabazio digitala jaso ostean, hizketa ezagutzeko programa batek grabazioa testu editagarria bihurtzen du zuzenean eta idazkariak edo sendagileak berak aski du programak egin dituen interpretazio-akatsak zuzentzea, behar izanez gero. Sistema berria erabilia, produktibitatea %30 handitzen da eta batez besteko txosten bakoitzeko 1,5 € aurrezten dira eta denbora %50-%75 jaisten da. Hori guztia ingelesez, alemanez, suedieraz, danieraz, nederlanderaz, suomieraz, frantsesez, norvegieraz, portugesez, espainieraz, katalanez, italieraz, hungarieraz edo grezieraz egiteko, dagoeneko badira tresnak merkatuan. Euskaraz gaur-gaurkoz ez dago aukera hori.

Interneten edo dokumentu-biltegietan egiten diren bilaketak ere aldatzera doaz.

Jakinaenez, orain amaraunean bilaketak egiten direnean, esate baterako, hitzak eta esaldiak karaktere-katea gisa tratatzen dira eta ez haiek duten esanahiaz baliatuz. Web 3.0 edo web semantikoa deritzonenean, berriz, erabiltzaileek esanahian oinarritutako interakzioak izango dituzte ordenagailuekin. Orain, edozein bilaketa egiten dugunean, sekulako emaitza-mordoa lortzen dugu, baina zerrandan agertzen diren lehenbizikoetako batzuk baizik ez ditugu benetan ikusten eta ez dakigu interesatzen zitzaigunenean bat ez ote zegoen askoz beherago ezkutatuta.



Orain web orriak egiteko nagusiki erabiltzen den HTML lengoaiaren bidez, orriaren itxura besterik ez da zehazten, baina web semantikoan datuen izaera deskribatzen duen teknologia bat erabiliko da. Makina gai izango da zenbaki bat posta-kodea, fakturaren zenbatekoa edo telefonoa den bereizteko, adibidez.

Web semantikoak, partez behintzat, irisgarriago bihurtuko du informazio hori guztia eta gainera egiten den kontsultaren testuinguruan esanguratsua dena eskainiko du.

Enpresek eta erakundeek beren dokumentu-biltegietan duten jakintza ustiatzeko askoz baliabide aberatsagoak izango dituzte etorkizun hurbilean, dokumentu horietako eduki semantikoa bereizteko aukera izaten dutenean. Hizkuntzaren eduki semantikoa automatikoki tratatzeko, ordea, hizkuntza bakoitzerako eta lan-arlo bakoitzerako prestatzen ari dira tresna informatikoak.

Terminologiaren estandarizazioa garapen horretan funtsezkoa da. Datu-base batean gaur egun «beheko masailezur» terminoa baldin badago erregistro batean, ez dugu aurkituko kontsultan «behe-baraila» erabiltzen badugu. Web semantikoan ez da hori gertatuko, sistemak ulertuko du egiten zaion galdera eta erabiltzaileak ez du galduko informazio hori, baina jakina sinonimia horren berri eman egin behar zaio sistemari.

Teknologia horiek erabili ahal izateko, ez da izugarritzko aldaketarik egin behar, ez datu-iturrietan, ez tresnerian, baina bai programetan eta datuak etiketatzean, metadatuak ezartzean.

Langile batzuek trebakuntza berezia beharko dute eta ikasi beharko dute informazio-atalen arteko harremanez arduratzen. Ontologia-garatzailak behar dira, hau da lan-arlo jakinetako kontzeptuei dagozkien terminoak eta haien arteko erlazioak landuko dituztenak.

Jakina, terminoak hizkuntza jakinetakoak izaten dira. Nor arduratuko da euskarazko ontologiak lantzeaz makina erremintaren munduan, aseguruenean, finantza-zerbitzuenean, herri-administrazioarenean eta beste arloetan? Web semantikorako ez badugu euskara prestatzen, gizarte digitalaren Harri Aroan geratuko gara.

Antzeko zerbait gertatzen da beste hainbat arlo eta aplikaziotan ere. Esate baterako, biltegietan erabiltzen den «ahotsaren bidezko pikina» deritzon sisteman. Langileak biltegi bateko hainbat apaletan dauden produktuak bildu behar ditu, bezero baten eskaria osatzeko. Entzungailuak eta mikrofonoa ditu langileak. Biltegiko ordenagailuak irratia bidez galderak egiten eta aginduak ematen dizkio langileari eta honek esanez sartzen dizkio datuak ordenagailuari, mikrofonoaren bidez. Makinaren eta langilearen elkarrizketa gertatzen da. Hor programa informatiko bat ordenagailuko informazio idatzia entzungarri bihurtzen ari da eta langilearen ahotsezkoa idatzizko. Hori ere hizkuntza jakinetarako bakarrik aurkitzen da merkatuan.

Zer gertatuko da teknologia horiek hizkuntza batzuetan bakarrik erabil badaitezke? Jokoz kanpo geratzen diren hizkuntzak ez dira praktikokoak gertatuko eta hainbat esparrutatik kanpora geratuko dira.

Aipatu ditudan tresna horiek ez dira ez jostailuak eta ezta bitxikeriak edo zientzi fikziozko filmetako kontuak ere. Informatikaren eta hizkuntzaren ezkontzak eragin handia du gaur egungo gizartean eta askoz handiagoa izango du laster.

Pixkanaka, hizkuntza era batera edo bestera prozesatzen duen softwarea sartzen ari da ordenagailu pertsonaletan, telebistan, sakelako telefonoetan, bideojokoetan, etab.

Gizarte berri honek jakintza du garapenaren gakoa. Orain arte ez bezala, iraultza ekonomikoaren erroak ez daude materiaren eta energiaren erabileran soilik. Informazio-teknologiaren etorrerak garapenaren eragilea beste arlo batera eraman du. Materia erabili beharrean, ikurrak, kodeak, mezuak erabiltzen dituzte teknologia hauek eta substantzia ukiezin hau da gizartea mugitzen duen motorraren erregai berria.

Aldaketa hauek ez dute ekoizpenean eta ekonomian bakarrik eragina, bizitzaren arlo guztietan baizik, eta hizkuntzan bereziki, hizkuntza delako, hain zuzen, gehien-gehienetan, informazioaren euskarria. Informazioaren tratamendua eta jakintzaren transmisioa gero eta gehiago daude lotuta hizkuntzaren tratamendu informatikoarekin. Horrela bada, ekonomiak, informazioak, jakintzak eta hizkuntzak lotura estuak dituzte.

Mehatxuak nondik etor dakizkigukeen aipatu ondoren, abaguneez ere hitz egin nahi nuke, baina horren aurretik, bereziki aipatu nahi nuke arlo horretan corpusek duten garrantzia.

Ekoi izan diren testu-multzo handiak ikertuz aztertzen du hizkuntza Corpus-hizkuntzalaritzak. Azterketa horien bitartez, hizkuntza gobernatzen duten lege abstraktuak aurkitzen saiatzen da. Antzina arakatzeko-lana eskuz egin ohi zen, baina gaur egun lan hori modu automatikoan edo erdi-automatikoan egiten da gehienbat eta gero zuzendu egiten da.

Ordenagailuen ahalmena handitu eta haiek merkatu ahala, corpusak hizkuntzaren ikerketan erabiltzea guztiz hedatu da.

Corpusei esker, hizkuntzalariak datu enpirikotan oinarritu dezake bere lana eta ez aurreiritzitan edo hizkuntzaz duen ezagutza nahitanahiez mugatuan.

Corpusak erabiltzeak abantaila handiak ditu hizkuntzalariarentzat. Esate baterako, hitz jakin baten adierak eta erabilerak aztertu nahi baditu, erraz bilatuko ditu hitz horren agerpen guztiak eta ondoz ondoko lerro banatan jarri, ezkerretik eta eskuinetik dituzten testuinguruekin. Eskuineko testuinguru guztiak alfabetoaren arabera hurrenkeran jar ditzake, hitz horren kokapenak aztertzeko.

Gaur egun, Hizkuntzalaritza ez ezik, Hizkuntzaren Ingeniaritza ere corpusetan oinarritzen da.

Esan dezakegu, hortaz, corpusak eraikitzea beharrezkoa dela, bai hizkuntza aztertzeko eta baita hizkuntzaren ingeniartzako produktuak garatzeko ere.

Hainbat corpus-mota daude, baina estrategikoki funtsezkoena erreferentzia-corpora da.

Hizkuntza bati buruzko ahalik eta informaziorik osatuena emateko prestatuta dagoen corpusari erreferentzia-corpora esaten zaio. Hizkuntzaren ahalik eta aldaera gehienen berri emateko, behar den adinako tamaina izan behar du. Tamaina garrantzitsua da, baina, gainera, eredu egoki baten arabera hautatutako testuak eduki behar ditu erabileremu, genero, erregistro eta gainerako bereizgarriak kontuan hartu eta orekatua izateko. Hartara, erabil daiteke gramatikak, hiztegiak, tesaurusak eta beste hainbat tresna lantzeko.

Erreferentzia-corporusen xedeak hainbat izan daitezke eta izan beharko lukete, bai hizkuntzalarientzat eta baita hizkuntza-ingeniarientzat ere. Tamainaz oso handiak izaten dira, 50 milioi testu-hitzetik gorakoak, behintzat, eta 100 milioikoak badira, hobe.

Euskaltzaindiaren historian egin den gauzarik onenetako bat corpusak eratzeko erabakia izan da, zalantzarik gabe. Orotariko Euskal Hiztegiaren corpora eta EEBSrena garrantzi handiko bi altxor dira. Ederki ikusten ari gara hori Hiztegi Batuaren lanetan murgilduta gabiltzanok.

Hala ere, horiek ez dira erreferentzia-corporak, tamainagatik, hartzen duten epeagatik, duten lantze-mailagatik. Antzeko zerbeit esan daiteke ereduzko prosaren biltegiak. Elhuyar-en Zientzia eta Teknologiaren corpora, berriz, eredugarri izan daiteke erabili diren metodo eta tresnen aldetik eta baita, neurri batean behintzat, lortutako lantze-mailagatik, baina esparru mugatukoa da. Corpus berezituaren sailean kokatzen da.

Euskarak erreferentzia-corpora beharrezkoa du. Hori, jakina, ez da testuak euskarri digitaletan biltzea soilik.

Corpus bati benetako etekina ateratzeko, landu egin behar da, oharreztatuz. Hizkuntzaren maila guztietan jar daitezke ohar horiek: maila lexikalean, sintaktikoan, semantikoan, pragmatikoan, diskurtsuarenean. Horrekin, testuetan dagoen informazio inplizitua informazio esplizitua bihurtzen da eta horrela lasterrago eta aiseago aurkitzen eta aztertzen du informazioa bai gizakiak eta baita makinak ere.

Horrelako corpus bat prestatzea ez da txantxetako lana. Behar dugu, baina ez dugu berehala eskueran izango. Bitartean ez dugu, ordea, zertan geldi egon beharrik eta ez gaude geldi. Euskaltzaindiak badu dagoeneko bide hori urratzen joateko egitasmoaren lehen zirriborroa. Bertan corpus monitore bat eraikitzen joatea planteatzen da, alde batetik euskara idatzizko hedabidee-

tan ia unean-unean nola erabiltzen ari den jakiten lagunduko duena eta bestetik gorputza hartzen joango dena erreferentzia corpuseranzko bidean.

Abaguneei dagokienez, nire ustez, ikuspegi estrategiko zabal baten barruan bilatu behar dira. Estrategia hori marrazten hasteko, hasierako baldintzak izan behar ditugu gogoan eta nire ustez hauek dira:

1. Ez gara hutsetik abiatzen eta gutxiagorik ere. Baditugu euskal munduan beharrezkoak ditugun hainbat arlotan eskarmentua duten pertsonak eta erakundeak. Hizkuntza Naturalaren Prozesamenduan, esate baterako, ikerketa-proiektu asko garatu dira, hainbat doktoretza-tesi ere bai, kongresuetan lanak aurkeztu dira, tresnek praktikan erakutsi dute sendoak eta eraginkorrak direla.
2. Aurreko baldintza aldekoa dugun bezala, eta oso aldekoa gainera, orain aipatuko dudana ahulezia bat da: ez dugu lortu oraindik ustiapen industrial eta komertzial errentagarririk Hizkuntzaren Ingeniaritzan. Gehiago esango dut: zaila ikusten dut hori lortzea planteamendu batzuk ez baditugu aldatzen, baina zorionez uste dut gure eskuetan dagoela aldaketa hori eragitea. Geroxeago zehaztuko dut hau gehiago.
3. Euskara erabilera murrizteko hizkuntza izatea oztupo larria da. Honek, jakina, asko baldintzatzen du aurreko puntuan aipatu dudana errentagarritasunaren arazoa.
4. Mundu-mailan Hizkuntzaren Ingeniaritzako produktuen eta zerbitzuen merkatua interes handia sortzen ari da eta aplikazio-eremu berri asko ari dira agertzen.
5. Euskal Herrian euskaraz aparte, hedadura handiko bi hizkuntza oso ondo menperatzen ditugu: espainiera eta frantsesa.

Baldintza hauek kontuan izanda, esaldi batean laburbiltzen ahaleginduko naiz estrategia:

***Dagoeneko metatua dugun jakintzan eta praktikan oinarrituz, Hizkuntzaren Ingeniaritzako produktuen eta zerbitzuen industria bultzatzea, hedadura handiko hizkuntzen merkatuetan errentagarritasuna bilatuz, bide batez euskarak datorren munduan bizirik irauteko beharrezkoak izango dituen tresnak landuz.***

Mundu globalizatuan buru-belarri sartuta gaudelarik, jakintzan oinarritutako organizazioak behar ditugula esaten digute adituek. Hara hor bete-betean baldintza hori betetzen duen jarduera bat. Baliteke ni ameslari bat izatea, baina uste dut areto honetan bertan dauden dozenaerdi bat lagunek estrategia horretan sinetsiko balu, bideragarria litzatekeela.

Esker mila zuen arretagatik.

## AIZKOLARIAK ETA ZIZELKARIAK

### Andoni Sagarna Izagirre Euskaltzaindian sartzeko hitzaldiari erantzuna

*Jean-Louis Davant*

Donostia ezin izan da leku txarra jaiotzeko, eta zu Andoni hemen jaio zinen 1947an. Ezkontzeko ere nolaz daiteke toki desagokia, baina zu ez zinen hemen ezkondu, emaztegaiak eta biek lagun gehiegi zenutelako Donostian. Ni ere ez nintzen hemen egin, haatik eztei ondoko txangoa bai hiri exotiko honetan pasa genuen, exotiko diot ironiarik gabe, guretzat hala baitzen, eta geroztik Donostiari atxikimendu berezia diogu emazteak eta biok (1). Niretzat Donostia Euskal Herriko Rio de Janeiro da, tontor berdez eta talaia goraz inguratuak diren ondartza bikainez, baita Urguleko Jesukristoren estatua erraldoiaz. Brasilgo Rio de Janeiron ez naiz behinere izan, salbu argazkiz eta

---

#### (1) DONOSTIA

Gure Rio de Janeiro,  
golko bulartsua  
Sorgin maitagarria,  
sirena maltzurra.

Igeldotik Ulira  
esku harrapariz  
Itsasoa bildurik  
altzoan epela  
Xanguruak bezala  
tinki atxikitzen.

Orientetik uhina  
berriz ukaiten du  
Ekiaren oldarra  
xurgatzen aitzakiz.

Ni gabe mariñelak  
heda beza bela  
Tiranosa eztia,  
ez zaitut utziko,  
Arbasoen Oiaso,  
Donosti, Donosti.

IHESI, *Maiatz*, Baiona, 1990 (41. or)

irudimenez. Badut beldurra ez naizela behinere joanen. Baina funtsean horrela hobeki da, beti pentsatuko baitut Rio de Janeiro hau bestea baino politagoa dela, txikiago delako, eta niretzat goxoagoa ere bada, beroa ez baitut ongi jasaten. Erregeek zerbaiten gatik udako hiriburu egin zuten.

Baina gaur, Andoni, zu zaitugu hemen errege, gorte ona daukazu inguruan, eta euskara denon erregina. Segurki Usurbilen bizi zara, baina Usurbildarrak ezin dira kexatu: gipuzkoar asko bezala, gutienetik Realzaleak izango dira nahi gabe guzien gainetik, urtalde hobe batzuen esperantza bihotzean, eta gaur aita-amen etxera hurbiltzea barkatuko dizue noski. Eibarzaleek aldiz niri barka diezadatela behingo.

Zuk bederen, tanto bat ederra markatzen duzu gaur, gol bat esaten omen da. Ez zara honen bila ibili, baina hartze zenuen, zor zitzaizun. Horren lekuko naiz, hainbeste urtez elkarlanean ikusirik egun oso bat edo bi hilabetero, Hiztegi Batuko Lantaldean, UZEIko egoitzan. Halere harritu nau zure curriculumak, berriki eskuratu dudalarik, zure lan ezberdinen zerrenda hain da inpresionagarria: irakasle, ikertzaile, antolatzaile, arduradun lanak batetik, idazlanen joria bestetik, artikulu asko, mintzaldi franko eta sei liburu.

Euskaraz idazteko, ausardia behar da. Nork irakurtzen gaitu? Non ez dugun izen bikaina, hala nola Bernardo Atxaga, Itxaro Borda, Joseba Sarrinondia, Ander Lertxundi, eta norbait ahanzten duta? Zuk lehen liburua 1970ean agertu zenuen: «Soziologiaren historia». Zer kopeta! Orain asko gara, baina plomuzko urte haietan, euskaraz nork idazten zuen? Santu batzuek, dozena bat gizon testimonial, apostolu eta profeta bakartik. Zu mutiko normal eta formula izanki oraino itxuren arabera, hogeita hiru urteetan idazle agertu zinen, eta nondik hasi? Soziologiaren historiatik!

Zailagorik ezin aurkituz duda gabe... Olerkitik hasi bazine bederen, beste guziak bezala. Baina ez, inork ezagutzen ez zuen alor batetik, «soziologia» hitz bitxi hori erabiliz... Eta gero beste hiru liburu araberan, edo zubereraz diogun bezala «sordei» eta «pisago»: Energia (1978), Teknologia elektrikoa (1982), Ordenadoreentzako sistema eragileak (1987). Beste bi haatik «paxableagoak», lankidetzan: Hizkuntza minorizatuen soziologia (1987), eta Euskara-irakasleen eskuliburua (1989). Hizkuntzari lotuak daudenez, bi horiek barkatuko zaizkizu.

Halere, hori ote da euskaltzain izan beharra den idazle baten planta? Ez ote zenuen pentsatzen ahal noizbait Euskaltzaindian sartu beharko zenuela? Olerkitik hasiz, zergatik ez zinen beste guziak bezala teologian edo/eta literatura serioan sartu? Edo politikagintzan?

Haatik aipatu berri dudan zure dossierak erakusten dit ez zarela bakarrik goi-mailako industria ingeniaria, elektrizitatean eta elektronikan espezializatua (1971). Letretako doktorego bat ere baduzu (1988), eta hona Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan arrakastarekin aurkeztu zenuen tesiaren izenburua:

«Algunos aspectos de la modernización de léxico en diversas lenguas.» Erdiz erdi gure gaian gaude hor. Gainera frantsesez badakizu, «s'il vous plaît»! Hemen gaur oso arraroa. Asko balio du hiztegi batua egin behar delarik mugaren bi aldeetako.

Bestalde hiztegi-gintza horretan, ezin gara sail tradizionaletara mugatu. Teologian aspaldidanik hiztegi aberatsa dugu, eta literaturan ere zenbaitek uste baino hobea. Haatik euskaldunek ez dugu denbora gehiegi otoitzean pasatzen, ez eta olerkian. Politikaz ere gero eta gutiago axolatzen gara, agian ez daki-gulako politikarien hizkera non kokatu behar dugun, teologian ala literaturan. Aldiz egunero jaten dugu, eta horretarako lan egiten, beste askok bezala. Hor ere hitzak behar ditugu.

Autoa edonoiz hartzen dugu, edo treina, metroa, motoa, autobusa, hegazkina, itsasontzia. Gainera tresna, makina eta motor batzuk erabiltzen ditugu, baita irrati, telebista, ordenagailu, telefonoa, batzuk sakelakoa eta internet ere; argindarraz baliatzen gara etxean eta denetan. Pana edo matxura bat gertatzen delarik, araberako langileari dei egiten diogu, azalpenak ofizioko hitzez ematen dizkigu, eta hein batean bederen ulertu behar dugu, ahal delarik euskaraz.

Hots, teologiatik eta literaturatik at doan hiztegi bat behar dugu. Alor eta ofizio ezberdinetako adituek beren eremuetako hiztegi bereziak moldatzen dituzte, Euskaltzaindiaren arau eta aholku orokorren laguntza baliatuz. Euskaltzaindiak bere aldetik, hiztun eta idazle onaren kultura zabalean sar daitezkeen hitz tekniko eta zientifiko arruntenak bere hiztegi batura bildu behar ditu. Maiz hitz berriak dira.

Beraz Andoni Sagarna bezalakoak behar ditugu gaur Euskaltzaindian. Horrez dago gaur gutartean, euskaltzain osoen konpainian eta kideztan. Zure dosiera gogoan, baina lehenik eta oroz ginetik Hiztegi Batuko Lantaldean urtez eta urtez egin duzun lana ikusirik, hiztegi horri ekarri eta ekartzen diozuna gogoan, Euskaltzaindira deitu zaitugu duda izpirik gabe. Ez da ustekabea, eta ordu zuen.

## **HIZTEGIA ETA GRAMATIKA**

Badago halako moda eta joera bat euskaltzaleen artean hiztegiaren pixka bat gutiesteko gramatikaren izenean.

Ez ote dugu bien beharra ber heinean? Badakik, gainera nihauk ere zuzenean entzunik, Piarres Laffite zenak, adinean aurrera zoala, errepikatzen zuela Blaise Pascal frantses pentsalari handiak bere «Pensées» edo gogoeta sonatuak lau ehun hitz erabiliz idatzi zituela. Baina pentsu dut lau ehun hitz ongi hautatu eta behar den lekuan kokatu nahi dituenak, lau mila erabili behar dituela arruntean, eta berrogei milako bat nolabait ezagutu. Nonbaitik ere,

berrogei bat milakoa izango da moldatzen dugun Hiztegi Batuaren heina, tamaina. Eta Lafittek berak, gazteago zelarik, «français-basque» lexiko bat agertua zuen, Tournier batekin elkarlanean. Beraz gizon handienek erranak ere gure muinetako zetabetik pasa behar ditugu.

Hitzik gabe nola hitzegin eta hitzerran? Gehiago ere, Platonek zioen hitzekin, hitzez eta hitzen bitartez pentsatzen dugula. Beraz hizkuntza komunikatzeko tresna bat baino gehiago da: pentsakerak sortzeko behar duen emagina, hazteko behar duen esnea, ibiltzeko behar duen makoa. Zer litzateke hitzik gabeko mintzaira: aingeruena ote? Ala Jainkoarena? Baina hori ere ez. Eskritura Santuen arabera, aingeruek gizon eta emakumeei hitz egiten zieten hizkuntza eta hizkera normaletan, bai Itun Zaharrean, bai Testamentu Berrian, bai Alkoran liburuan. Usaian hitz gutiz mintzo ziren, eta gramatika motzean: «Aintza zeru gorenean...» kantatu zutelarik adibidez. Bestalde Jainkoa profeten ahoz mintzatu zen, hitz eta gramatika gehiagorekin, aingeruek baino ele jario joriagoa baitzuten profeta horiek. Azkeneko Jainkoaren hitza gizon egin zen, Jesus izenez, San Joanek dioskunez, baita Alkoran liburua frantses itzulpenaren arabera. Artetik ene kezka bat: Alkoran liburua euskaraz itzuli ote da? Behar luke. Egia da Jesus Jainkoaren «aditza» ere izan daitekeela, eta hor gramatikan sartzea genuke... Dena dela bizantinismo hutsa zait hiztegiaren gutiester gramatikaren izenean. Suaren baitan argia eta beroa nola bada zatitu behar dira? Eta arnasean eguratsa eta hatsa banatu?

Hiztegiak gramatika errespetatzen dugu gain gainera. Hitzak hautatzean, esaldietan hartzen ditugu. Esanahiaren argitzeko, frase batzuk etsenplutzat ematen ditugu. Gramatikari lotuak egoten gara beti.

## EUSKALTZAINDIAN IDAZLEAK BEHAR

Euskaltzaindian idazleak behar direla entzuten da barnetik eta kanpotik. Horrekin ados nago. Baina besterik zer gara gaurko euskaltzainak? «Idazle» hitzaren atzetik zer figura jartzen dugun zehaztu behar genuke. Literatura pertsonal eta lirikora mugatuz, haatik «lirika» hitza bere zabalenean hartuz, hona sail horretan liburu sorta bana sortu duten idazle zenbait, euskaltzain izendapen zaharrenetarik hasiz: aita Xabier Diharce «Iratzeder», Txomin Peillen, Ibon Sarasola, Xabier Kintana, Patxi Zabaleta, Jose Irazu (Bernardo Atxaga), Aurelia Arkotxa...

Baina literatura pertsonal horretarik at, besteren obrez asko idatzi dutenetan hor daude Haritschelhar, Zavala, Arana Martija, Sarasola, Charritton, Ana Toledo... Kazetaritza Haritschelhar, Larre, eta guti edo asko euskaltzain guziak... Gramatikako gaiez Goenaga, Arejita,, Miren Azkarate... Onomastikaz Iñigo, Salaberri...Linguistikaz Lakarra...Gai ezberdinez Knorr, Salaburu, Oihartzabal, Lizundia, Zalbide, Sagarna, Sagrario Aleman eta noski Andrés Urrutia euskal-



tzainburua...Gainera, batzuek luma ur edo ardo guzietan busti dute, zikindu gabe! Euskaltzaindian denetarik badago, haatik jende alferrik ez.

Literaturan orokorki geure buruaz mintzo gara, haurtzaroa gogoan: bizi guzian paradisu galdu horren atzetik gabiltza. Gramatikan hizkuntza bere buruaz mintzo zaigu, amore gatik eta hobeki balia dezagun, buruan duguna ederki erranez, Krutwig zenaren arabera hori baita literatura: «Buruan duguna ederki erratea», berak behin bota zizkidan hitzetan. Hori guzia egiten dugu nik uste hein bat ohorezki.

Orain hirugarren urrats bat eman behar dugu: gaurko munduaren izakera eta berri zehatzak euskaraz erran hitz egokietan. Eta hor zu bezalako adituak eta idazleak, idazle adituak eta aditu idazleak behar ditugu, Andoni, zubigile. Ez gara iduri bezain inozoak: lan horretarako hautatu zaitugu, eta ez domiña bat emateagatik. Hori kanpotik ez da beti ongi ulertzen: Euskaltzaindia ez dela jaun xaharren ohorezko klub elitista bat, ez eta idazle sonatuenen lorategia: Parnasoa hil ondoren izaten da, eta ez dugu presarik. Bitartean Euskaltzaindian lan itzela dago egiteko. Hau laneko talde bat da, euskararen alorrean talde nagusia, ez bakarra. Hemen beharrena, elkarlana da, eta horretan trebe zarela badakigu.

## **ELKARLANA**

Elkarlanean egin eta egiten duzun lana zinez azpimarratzekoa zait. Elhuyar Kultur Elkartearen sortaileetakoa izanik (1972an), gero elkarte horretako burua (1981-1992), UZEIko Zuzendari Teknikoa ere izan zinen, eta zuzenean eskua sartu zenuen hiztegi batzuetan: Fisika, Banka, Kirolkidea, Glotodidaktika, Teknologia mekanikoa hiztegietan, azken horretan arduradun nagusi bezala gainera.

Ondoren entziklopediagintzako Eusenor enpresan Zuzendari Tekniko karguan (1992-1999), Hiztegi entziklopedikoan parte hartu zenuen, baita 8 tomoko Euskal Hiztegi Entziklopedikoan, Gazteen Entziklopedian, eta Entziklotik CD-ROMean.

Bestalde Euskal Autonomia Erkidegoko Euskararen Aholku Batzordean egona zara (1989-1993), eta ez ustekabeen.

Gainera Plazagunea enpresan informatikako proiektu arduradun izan zara (1999-2004), eta esperientzia horrek asko balio du Euskaltzaindiak bere baliabideetan egin beharra duen berriztapenerako.

Ber denboran eta gisa berean, erakunde, elkarte eta enpresa horien ekarpen erraldoia ezkerrezkoa zait, baita beste batzuen, bereziki unibertsitariena. Euskaltzaindiak badaki euskararen alde korrika eta lasterka ez dabilela bakarrik, eta «maillot» horia soinean ekartzen badu, besteekin korrituz dela,

batzuetan bederen guzien aurretik, baina beti elkarlanean, bai kanpoan, bai barnetik, eta elkarlanerako gai direnak behar ditu bere baitan.

## **AIZKORAZ ETA ZIZELAZ**

Andoni, zure lan aratz eta oparoaz, hiztegegintzan bereziki, lehenago ere sartzea merezi zenukeen. Orain tokatzen zaizu Euskaltzaindiko araudi berriari esker. Duela urte pare bat, Lizundiaren sarreran, Euskaltzaindiaren garai berri bat iragarri zen. Egiaz, orduko hasten hasia zen, horrela esatea zilegi baldin bada, belaunaldi berrietako euskaltzain batzuk baitzeuden bulta honetan gutartean. Orain aldaketa areagotzen ari da emerituen sistemari esker. Eta zein da oinarrizko bilakaera hori ene ustez?

Adin bateko euskaltzainak, ni barne, idazle orokorrak izan gara, «jeneralistak», maiz poligrafoak, euskalki batean oinarrituak eta sustraituak, gero beste euskalki pare batera zabalduz joan garenak; salbuespenez kanpo, euskararen alorrean autodidaktak izan gara. Euskara batua moldatu dugu, edo hasi bederen, larri larria. Haritz enbor gogorrean estatua baten itxura eman diogu orokorki. Silueta marraztu diogu aizkoraz, Txillardegi eta Mitxelena maisuen diseinutik.

Orain, aizkolarien ondotik, zizelkariak behar ditugu, berezilari zorrotzak, euskara batuaren bozeto sendoari aurpegi fin eta gazte baten emateko, esku polit, arin eta trebean adelatzeko.

Nire ondotiko belaunaldia formakuntza bereziz eta ofizioz hornitua etortzen hasia zitzaigun bulta honetan, orain zabaltzen ari zaigu eta gaina hartuko digu. Horrela behar du, euskararen aberasteko, egokitzeko, berritzeko, puntako teknikak baliatuz. Gu lumaren arotik boligrafoa, idazmakina eta faxera pasa ginen. Nire ondotikoak informatikara igo dira trebetasun handiz, nor bere kaxa. Orain Andonik erakusten digu nolako abantailak eta probetxuak atera daitezkeen tresna horren erabilera sistematiko eta kolektibo eta publikotik.

Azken bi urteotan, zortzi euskaltzain berri hautatu zaituztegu, lehen lauak zendu diren lagunen ondoko, azken lauak emerituen lauzkatzeko. Zortzietarik hiru andreak zarete, ez arras erdia, baina berdintasunera joaiteko xedea hor dago. Euskaltzaindian, Eliza katolikoan bezalaxe, ez da gehiegi presatu behar, baina hasi gara, eta jo aurrera!

Akademia bat izanez, Euskaltzaindia nahiko gaztea da, bana beste hirurogei urtekoa, «Académie Française» famatuak laurogei dituelarik. Ez gara inolaz ere horren kopia txiker eta barregarri bat, iparraldean zenbaitek uste bezala. Bakoitzari bere fantasmak. Niretzat hau Akademia militantea da, euskararen egoerak horretara behartua.

Baina profesionala ere bada, eta zientifikoa izan nahi. Euskararen batasuna egin eta egiten du, euskalkiak ere landuz. Eta euskara batuan Akitaniako euskalkiek leku handia hartzen badute, eskualde guzietako euskaltzain guzien militantziari zor diogu, Akitaniako hiru euskal lurralde historikoek orain matematikaren arabera hartze luketenari baino askoz ere gehiago. Baina egia da halaber Akitaniako zazpi euskaltzainak beti euskara batuaren alde ari izan garela, eta garai batean horrela doi-doiatarik aurrera egin zuela boz baten gehiengoarekin. Goazen bada bakean aurrera. Euskararen zerbitzari bakezaleak gara, ez inoren etsaiak. Hemendik kanpo ere, entzun nahi dutenek entzunen dute. Bestenaz arabeek dioten bezala: «Les chiens aboient, la caravane passe!» Guk eginbidea bete dezagun. Beharra badago.

## ETA FAMILIA?

Mintzaldi hau ezin dut bukatu zure familiaz bi hitz erran gabe, iturrira iganez handik hasi beharrean. Baina garrantzitsuena bukaeran errateak bere indarra badauka.

Militantzia bat edo ogibidetik at gizarteko edozein elkarlan deraman gizonak bizitza orekatu bat bizi baldin badu, ez dago zalantzarik: horrek atzetik badu intendentzia eta zerbaite gehiago segurtatzen dion pertsona bat, edo fraidea delarik talde bat: intendentea izateaz gainera, bigarren kontzientzia, erizaina, lehenago idazkaria ere, baina gaur ordenagailuak azken hau ordezkatzeko du... Gutiz gehienetan Indiako jainko batzuen antzo, hiru esku pare dituen pertsona da, hots emaztea. Nahiko lasai ikusten zaitut ibileran, nihau bezalaxe. Beraz bizkarzain segurua badukezu, eta baduzu. Espioi barrandari batek salatu dit Mari-Karmen deitzen dela eta 1972an ezkondu zinetela Zegamako ermita batean, talde txiki baketsuan egotea gatik, Donostiako «Carnaval» horretarik bazter eta goitik, gaur bezalaxe, baina gaurko taldea ez duzu hain txikia.

Gainera, orduan ez bezala noski, hor daude zuen hiru alabak, Ainara (1973), Maialen (1976) eta Oihana (1977), baita biloba txikiak: Ainararen Nikole (hamabost hilabetekoa) eta Oihanaren Aritz (sei hilabetekoa). Zorionak Mari-Karmen, familia osoarekin. Eta zu, Andoni, «ez zaitugu plainitzen», Beñat Mardo barkoxtar bertsolariak «Arbotiko prima eijerra» kantuan zioen bezala. Zure adinean aitona izatea, munduko gauzarik onen, gozoen eta ederrera da nire jakinean, eta luzaz goza dezazula emeritu mailara igan ondoren, emaztearen konpainian.

Emaztea jaiotzez Olaberrikoa duzu, zeure amaren jaioterri Lazkaoren ondokoa, hain zuzen (1913-1999). Ama, beraz, Jesusa Izagirre Peña. Hari esker, Goierriko euskara zure ama hizkuntza da, amaren euskaltzale senarekin gainera. Goierriko neskei asko zor die nik uste Donostiako euskaldungoak, eta

orokorki Donostia guziak, handik asko etorri baitira neskame lanetara eta gero hemen familiatu. Aita, Ascencio (Asintxio) Sagarna Beristain donostiarra zenuen (1911-1997), mekanikan langile ikasia, eta nolabait ofizioan haren bide-tik aurrera joan zara. Euskara gaztaroan galduxe zuela erran didazu, eta gero ezkontzean erabaki familia bat euskalduna fundatu behar zuela zure ama izango zen andregaiarekin. Beraz aitak euskara berriz ikasi zuen eta horretan ongi moldatuz joan zen. Ondorioz gure hizkuntzan eskola ona izan duzu etxean aita-amekin.

Sail horretan egonez, zure birraitona, zapatagina, Avelino Barriola idazlearen langile izan zen. Bere aldian zure aitak Amorebieta/Zornotzan lan egin zuen «Izar» lantegian, hor buruetariko bat zelarik Federico Belaustegigoitia, Euskaltzaindiko idazkaria. Halako predestinazio bat bezala ez ote dago hor? Baina predestinazioan ez dut sinesten, eta genetikan ez gehiegi, hezkuntzan eta ikaskuntzan ordea bai. San Tomasek bezala, «ikusi eta sinetsi», egiten duzun lanean sinesten dut Euskaltzaindi osoarekin, eta instituzio honek geroan ere zure ahalmenez baliatzeko «fitxatu» zaitu, modako hitz hau barkatzen badidazu.

Zure aita-amen bizitza ez zen beti lasaia izan. Hogeita hamaseiko gerraren zama jasan behar izan zuten beste askok bezalaxe, ezkondu aurretik. Ama, Donostiako ostatu batean langile zegoela, 1936ko irailean frankisten aurrean ihes joan zen Abadiñora, bere ahizpa eta horren haur txikiarekin. Durangoko bombardaketa ikusi zuen, baita nola frankisten hegazkinek hilerrira gorpuak erematen zituzten pertsonak bidean metrailatu zituzten. Gero amak eta familiak Bizkaiko Zailara ihes egin behar izan zuten. Hirugarren aldian Zailatik Santander aldera. Laugarrena Santandertik itsasontziz Bordelera. Amak lortu zuen Donostiara itzultzea. Ahizpa Bordelen egon zen bere bi haurrekin. Alemanak etorri. Azkenean itzuli zen, senarra bitartean Ameriketara joanik.

Aitak Amorebieta/Zornotzan lan egin zuen beraz mekanikan, 1929tik 1936ra, soldadutza bitartean Errepublika denboran. 1936tik armak egiten zituen Euzko Jaurlaritzaren aginduz. 1937ko udaberrian, frankisten erasoaren aurrean, Bilbora ihes egin zuen lantegikoekin, makinak eremanez, eta hor segitu ber lanean. Eraso berri batek Bilbon harrapatu zituen, eta frankistek ber lanean jarri zituzten, baina jakina euren alde.

Aitak kontatu zizun bezala, publikoarentzat hona haren inguruan gertaturiko tragedia berezi bat. Laneko lagun bat zuen Jon Idigorasen aita, Federiko Belaustegigoitiaren kotxe gidaria. Frankisten hegazkinek Durango eraso zute-larik, berehala nagusiak manatu zion hango elizara ereman zezan autoz. Eliza hondatuan sartu orduko, Federikok emakume baten gorpua lurretik altxa zuen eta Idigorasi eman zion, hartu eta ereman zezan. Alaba zuen! Aitak bazekien alaba mezala joana zela...

Holako tragediarik Espainiako Errepublikaren eremu guzian gertatu zela, baliteke, baita gero zapalketa berdina denetara zabaldu zela. Haatik diferentzia

bat izan da euskaldunen kalteetan, eta badakizuen bezala hauxe da: Burgosen adibidez, gobernu berriak tokiko hizkuntza ez zuen arlo publikoan debekatu, kalean gazteleraz egiteagatik inor ez kondenatu, hil harrietarik ez hango idazkunik ezabatu, bataioan gaztelar izenik ez debekatu... Aldiz Euskal Herri-an hori guzua eta gehiago egin du tokiko hizkuntzaren aurka (2). Ondoriorik utzi duela begien bistakoa da, mugaren beste aldetik behintzat. Niretzat ageri da hemen oraindik bakerik ez dagoela. Haatik historiari begiratu, ikus daiteke bakea ez dela egoera naturala, ez dela berez datorren eta dagoen zerbait, bakea eginez egiten den oreka bat dela, bakeak prezio bat baduela beti, denean. Kontua da bidesaria zeinek ordaintzen duen. Iraun behar badu, badut ustea denek orainduz dela, horretan ere berdintasuna behar dela, eta berdintasuna ez da noski denak ni bezalako bilakatzea. Gehiago erratea, politikan sartzea litzateke, hots gure alorretik ateratzea, eta hemen ez zait komeni.

## JO AITZINA!

Bilkura honi buruz, kezka pixka bat izan dukezu, normal denez. Baina lasai, zailena joana duzu, eta zure gorteak ere, bukatzera bainoa. Zure Donostian gaude, Euskal Herriko Rio de Janeiron. Toki eder eta goxoa izateaz gain, bilgune dugu. Ezkerretik hurbil dago mendebaldeko euskalkiaren eremu nasaia. Eskuinetik Lapurdi hortxe, Bidasoan, maratoni erdi bateko bidean. Gure atzetik eta gibeletik, Nafarroako lurralde zabala eta euskal Pirinio katea, Zuberoraz bukatua.

Euskal Herriko erdigunean gaude hemen, euskara batuaren bihotz nagusian, nahiz Iruñea dugun hiriburua, baina itsasorik gabea. Egia da denbora batez Donostia Nafarroako portua izan zela, Iruñeko erregeen poderioz. Gaur holako zerbait gertatzen ari zaio berriz, politikaren gainetik, nafarren ondartzaren hurbilen eta maiteena delako. Haatik Donostiaz beste sei bihotz baditu euskarak. Gure lana zer den: zazpi bihotz horien sinkrono egitea, amoregatik eta bakoitzak bere doinua emanaz, euskararen urrats eta pauso berria ber taupadan marka dezaten, txalapartarena baino lasaiagoa, joaldunena baino arinagoa, horiek biak eta beste musika guziak ezabatu gabe. Hots orkestra buru baten lana da Euskaltzaindiarena.

Miramongo talaia gora eta berde honetarik, begien aurrean dugu itsaso ederra zabalik, zoragarria. Haize ona lagun, eguzkiaren bidetik, mundu zabalako euskaldunen gana, jo aitzina!

---

(2) Kasu konkretu bat, Bittor Kapanagak duela urteak kontatu zidana: 1936ko gerra ondoren, Bittorren ama Otxandioko karrikan euskaraz egiteagatik isun batera kondenatu zuten agintari berriek. Etxean zegoela, udaltzainak kaletik dei egin zion leihora ager zedin, eta isunaren berri eman zion, euskaraz noski, andreak besterik ez baitzekien, eta «alguazilak» agian ez askoz gehiago. Burgosko biztanleei, tokiko hizkuntzan mintzatuz gero, ez zitzaien holakorik gertatuko.



**MENDEURREN  
ETA OSPAKIZUNAK**





**GRATIEN ADEMA «ZALDUBI»-REN  
MENDEURRENA (1828-1907)**

*Senpere, 2007-XII-20*



## ZALDUBIREN OROIT-HARRIA

*Christine Bessonart,  
Senpereko auzapeza*

Bienvenue à tous dans notre petite ville, réunis auprès de l'église pour honorer la mémoire de Gratien Adema, un des enfants de S' Pée qui a marqué par son oeuvre littéraire le paysage culturel.

Né à S' Pée en 1828, il est mort voici 100 ans, en 1907, et est enterré dans le caveau familial à S' Pée.

Je ne suis pas la plus qualifiée pour parler de lui et d'autres après moi le feront avec précision mais je veux, en tant que maire, rendre un hommage à l'un des nôtres qui a marqué des générations d'enfants, avec la traduction des fables de La Fontaine, et ses concitoyens. Ses écrits sont maintenant étudiés dans le cadre de la licence de basque.

Il est le témoin d'une société proche de la nature, aimant et maîtrisant parfaitement la langue maternelle, l'euskara, dans une société imprégnée de religion, où le dialogue avec Dieu était quotidien.

C'est en raison de son engagement religieux que la stèle sera installée sur le parvis de l'église et je suis très fière aussi qu'un artiste local, Edouard Solorzano, ait tout de suite répondu à ma demande de création de sculpture et a si bien su retranscrire de manière harmonieuse la mémoire de cet homme de lettres et d'église.

\* \* \*

Denak oroit daitezela Gratien Ademaz, denek ezagun dezatela edo sakondu Zaldubiren obra, ohoratuz haren euskal hizkuntzaren laguntza, izan Jainkoari mintzatzeko edo jendeari.



## GRATIEN ADEMA «ZALDUBI»-ri OMENALDIA

*Piarres Aintziart,  
Euskaltzaleen Biltzarreko burua*

Hemen gaude beraz Senpereko seme Grazien Ademaz oroitzeko. Milesker herriari eta andere auzapezari arratsalde goxo eta ospetsu hau antolatzeko egin duten lanaz eta eman laguntzaz. Adema Zaldubiren obraz mintzatuko zaizkigu adituak ixtanteko aterbean. Elizaren paretean dagoen eskulturak idazlea digu agerian ezartzen, Solorzano artistak ederki zizelkatua digula. Eskerrak zuri ere jauna. Eta gaurko garaiak ez direla liburuari itzuliak guk ez dugu sinesten, begien aitzinean daukagun paretako itxura bezala irauten duen izakia baita gauza idatzia.

Hemen dagoen jende desberdinak Adema Zaldubi polifazetikoaren ilustrazio bat bezala dirudi. Hemen ere kantuak, edo kantikak, alegiak, gai erlijiozko edo profano, idazki serio eta irringarri maite dituen jendea. Aberriaren eta gure hizkuntzaren apologistak, gu ere, guti edo aski, bakoitzak bere historiaren edo zortearen eta ere nahiaren berri baitauka bere baitan.

Baina nola ez aipa maiatzeko Herri Urratsetik abenduko elgarretaratze honen artean, eta arte, euskararen zerbitzuko lanean ari diren senperrak. Herriko Etxea eta etxeokak, nik ezagutzen ez ditudan elkarteak, jende xehea, erraiten den bezala, eguneroko lanetan ari zerbait, eskolak, hiru sareetako hurrekin, Zaldubi zaharraren gaztetzen, kantatuz, eta hitz berak erabiliz, beti eta beti. Euskaltzaindia ere senperrak duzue bi egunentzat, Euskaltzaleen Biltzarra aldiz denbora gutxiagoretzat, funtsean bere xumetasunaren arabera neurri apal deliberatua. Ez ditzagun ahantz dantzariak, gorputzaren jestuak doinua eta hitza haragitzen baitu. Aipatu ere, eta are gehiago naski Senperen, Duhau Arana etxearen teilatuaren azpian orenak eta orenak arizan den, eta urteak ari nahi duen beneditano laiko suharra, kunkurtutik bezala Zaldubien kaligrafia finen deszifratzen, gero airatuko direlarik agian leihotik, Bilbon agerturik, eta Plaza Barritik igorriarik, gaurkoaren ondotik, bospasei liburu bederen. Beste senperrak ezagun bat ere gogoan daukat, hemendik ez urrun, Oxtikenean Hatsaren poesia eta Poesiaren hatsa zazpi probientzietan hedatzen baititu, sortarazi ondoan haurren inspirazioari esker (hatsa eta inspirazioa gauza bera baitira alabainan). Zaldubik hain maite zituen Herria eta Natura ospatuz. Bi langile hauek, sinboliko eta errealitatez, Zaldubiren iragana eta gazteen etorkizuna uztartzen ari zaizkigu. Eskerrak zinez.

Bururatzeko, ametsa askotan mentsa izanikan ere, omen eta utopia nahitez utopikoa, zertako ez dugu asmatuko egun batez jautsiko dela Senperera, uholde baten pare, ez gain haietako ur basek hantutako Urdazuriarena, ez eta, bereziki hemen, pentsa bekatuek metatua, baizik euskal hitzek Lapurdi literarioan berriz isuraziko duten ibaia nasaia? Milesker deneri.

## IPARRALDEKO EUSKALGINTZA, XIX. MENDEAREN BIGARREN ERDIAN: ZALDUBI ETA BERE GARAIA

Mikel Zalvide

### I. EUSKALGINTZAREN DEFINIZIO-SAIOA

XIX. mendearren bigarren erdiko euskalgintza eskaini zait aztergai: gutxi gorabehera 1850etik 1900era *Eskual herrian* (1) izandako euskalgintza. Horri heldu behar diot beraz, aldez edo moldez. Uste baino korapilo bihurriagoa du gaiak berekin. Zer da, izan ere, *euskalgintza*? Intuizio bidez ongi samar ententitzen da *euskalgintza* hori zer den edo zer izan litekeen. Besterik da, ordea, arrazoi-bide formalaz jardun nahi denean: luze-zabal onarturiko definiziorik ez du hitz horrek (2).

---

(1) Iparraldeko ebakera eta grafia ezagunenez baliatzen naiz hemen, gainerakoan ordezkarri. Egia osoa esateko *Uskal herria* terminoa ere sartu behar genuke ebakera aldetik, eta letra xehe-larrien zein marra kontuaren alternantzia-bideak jaso idazkerari dagokionean. Aski izango dugu ordea aldaera ezagunena erabiltzearekin, guztien ordezkarri gisa.

(2) Itxuraz XX. mendean asmatutako hitza da *euskalgintza*. Artikulu-bilduma sotil baina argigarria kaleratu zuen *Jakin* etxeak orain dela hogeita hamabost urte, *Herriaren Lekuko* izenpean. Rikardo Arregiren artikuluak jaso zituen liburuak (Arregi, 1972). Liburu horixe aipatzen du *OEHK*, *euskalgintza* hitzaren esenplu bi ematerakoan. 1972ko adibide horien iturria, berriz, *Anaitasuna* aldizkarian 1968an argitara emandako artikulu hau da: «Gu traketsok». Hor darabil R. Arregik, pare bat aldiz, *euskalgintza* hitza. Hitzaren azalpena «actividad cultural vasca» moduan ematen du *OEHK*. Besterik ere badio: antzeko aldaera erabilia duela, lehendik (1958an), Salbatore Mitxelenak: *euskeragintza*.

S. Mitxelenaren eta R. Arregiren lau esaldiok har ditzakegu, *euskeragintza* edo *euskalgintza* beraien ustez zer den jakiteko: a) «Nondik eta nora euskaltzaleok idoroko batasun ori euskeragintzan? Eta politikan?»; b) «Euskalgintzak lan zaratatsuak eta brillanteak baino gehiago lan iraunkorak behar ditu»; c) «Euskaldungoak irauten badu, gure belaualdiak ez du ondorio handirik utziko»; eta d) «Langile traketsak dira hauek; idazle zatarrak (...). Baina besteei falta zaien zerbat badadukate: *egiten* dutenak dira».

Hiru ohar atera litezke lau pasarte horietatik: batetik, Mitxelenaren ustean *euskalgintza* ez da politikagintza; ez, behintzat, politikagintza jakin-konkretua. Bestetik, euskaldungoa (euskal hiztun-elkarte) bizirik gordetzeaz dihardu euskalgintzak («euskaldungoak irauten badu»). Azkenik, «*egiten* dutenak» azpimarratzen ditu andoaindarrak: *-gintza* horretan dago euskalgintzaren gakoa.

Hortik aurrera ez dago, 1958an zein 1968an, definiziozko zehaztasun handirik. Erabilera lazo-intuitibo hori izan da nagusi geroztik ere, itxuraz. Kontzeptuak ez dirudi, oro har, aho batez onarturiko esangurarik eskuratu duenik: ez unibertsitate munduan, ez erakunde publikoetan eta ez hizkuntza-politikaren arauzko xedapenetan. Azken berrogei urtean «hor dabilen hitza» da *euskalgintza*. Hor dabil eta, baliagarri gertatzen den heinean, hainbatzen ezpain-lumetan ageri da aldian behin. Hori du bere ziurtagiria. Ibil badabil, baina definitzen ez da erraza.

Definizio posible ugarietako bat hautatu beharko dugu hortaz, lanari ekiteko (3).

Definizio bila hasi orduko, berriz, eragozpen jakin batekin egingo dugu topo: zerk definitzen du, batez ere, euskalgintza: asmoak (euskalgintzaren *aldeko asmoak*), ala benetan lortzen den emaitzak (euskalgintzaren *aldeko emaitzak*)? Bai asmoa eta bai emaitza euskalgintzaren aldekoak diren kasuetan, bistan da euskalgintzaz hitz egin litekeela lasai asko. Argi dago, era berean, ez asmorik eta ez emaitzarik duen jarduna ezin dela euskalgintzaren zakuan sartu. Badira ordea bestelako kasuak. Euskalgintza al da, esate baterako, asmoa bai baina emaitzarik ez duen saioa? Euskalgintza al da, era berean, asmorik izan ez arren aldeko emaitza lortzen duen jarduna? Ondoko koadroak emango digu asmoen eta ondorioen araberako konbinazio-taula:

		aldeko emaitzarik	
		bai	ez
aldeko asmorik	bai	<b>A</b>	<b>B</b>
	ez	<b>C</b>	<b>D</b>

Lau situazio posible eskaintzen ditu goiko taula honek: A, B, C eta D situazioak. Ikus ditzagun banan-banan:

<b>A</b>	Euskalgintzaren aldeko asmorik bai, eta aldeko emaitzarik ere bai
<b>B</b>	Euskalgintzaren aldeko asmorik bai, baina aldeko emaitzarik ez
<b>C</b>	Euskalgintzaren aldeko asmorik ez, baina aldeko emaitzarik bai
<b>D</b>	Euskalgintzaren aldeko asmorik ez, eta aldeko emaitzarik ere ez

Garbi dago D situazioa ezin sar litekeela euskalgintzaren alorrean: ez hartarako asmorik du, eta ez aldeko emaitzarik lortzen. Beste hiru situazioak hartu behar ditugu hortaz aztergai: A, B eta C gertakariak. Ak eta Bk gauza

(3) Egia da euskalgintzaren definizio jakin bat esplizitatu beharrik ez dela beti-beti antzematen, gai horretaz jarduterakoan. Hala ageri da, azken kasuetariko bat baizik ez aipatzearen, Euskaltzaindiaren XV. Biltzarreko akta-liburuan (Elkarlanean, 2008). Guztira 500 orrialdetik gorako gogoeta bideratua du Biltzar horrek XXI. mendeari buruzko euskalgintzaz, eta definizio-behar espliziturik ez da bertan ageri. Gehienik ere akta-liburuaren azpitoluak agertzen du, kontestu jakin horretan *euskalgintzak* zer alor biltzen dituen: hizkuntza ereduak, hiztegi-gintza eta hizkuntzaren historia. Hots, euskalgintzaren aski formulazio linguozentrikoa, hainbat aldetatik Salbatore Mitxelena-ren, Rikardo Arregiren eta abarren jatorrizko adieratik aski urrundua. Euskal hiztun-elkartea bizirik gordetzeaz ez da hor, izan ere, aurrez aurreko aipamen handirik egiten: ez handirik eta ez, gehienetan, inolakorik. Egia da, ordea, berariaz halakorik ez azaldu arren berekin duela bertako hainbat artikuluk, inplizituki bederen, elementu hori ere. Ikus, esate baterako, Zuazoren eta Miren Azkarateren bertako ekarpenak (Elkarlanean 2008: 3-13 eta 171-82 or.).



bat dute erkide: euskalgintzaren aldeko asmoz, berariaz horretarakoxe, bideratuak dira. *Berariazko euskalgintza* deituko diogu, hortaz, A eta B koadroetatik eratorzen den jarduerari. Aldiz C situazioari, asmorik izan ez arren aldeko emaitzarik dakarren jardunari, *bide batezko euskalgintza* esango diogu. Argitze-lan xume hori eginik, gatozen definizio operatibo zehatzetara (4).

## I.1. Berariazko euskalgintza

*Berariazko euskalgintzaren* definizio operatibo honetatik abia gaitzeko, hoberik ezean: soziokulturalki autorregulatzeke eta belaunez belaun transmititzeko indar faltaz euskal etnokultura (hizkuntza barne) gainbehera datorrela ikusirik (5), erabat galtzeko arriskuan dela uste izanik eta halakorik nahi ez delarik, etnokultura horri bizirik eusteko (6) giza artean (7) deliberatuki (8) egingandako saio multzoa, hori da *euskalgintza*. Hots, euskal kulturaren on beha-

---

(4) Benetako egoera errealean guztia ez da txuri ala beltz izaten; lau gelaxka horien tarte-bitarteko posizioak maiz samar ageri ohi dira halakoetan. Litekeena da, horrela, aldeko asmoa bete-betea ez izatea baina hutsaren hurrengo ere ez gertatzea. Litekeena da, era berean, euskalgintza-saio jakinak emaitza handi-handirik ez lortzea baina lortutako hori, bere mugatuan ere, ohargarria izatea. Tarte-bitarteko egoera horiek guztiak ere kontuan hartzeak dira noski, erraztasunaren amorez lau situazio alternatibotara mugatu bada ere goiko azalpena.

(5) Etnokultura bat «gainbehera etortze» horrekin bi gauza esan nahi dira, batez ere:

a) Gero eta herritar gutxiagok (zenbaki absolutuz edo portzentajez gero eta gutxiagok) ageri du bere uste-sinesmen, mundu-ikuskerara, balio-iritzi, eguneroko bizimodu eta jarduerara konkretuan aurreko belaunaldien jarraipen sendorik.

b) Belaunez belauneko jarraipen-zantzu horiei bizirik eusten dieten herritarrak ere albo-kultura nagusian indarrean dauden uste-sinesmen, mundu-ikuskerara, balio-iritzi eta jardueretara makurtzen ari dira, partez.

Lehenengo puntu-amaieran esandako «jarraipen sendorik» eza termino erlatiboetan ulertu behar da: egon ez dago munduan etnokulturarik, denik indartsuena eta egonkorrena ere, belaunez belauneko ibileran ezertxo aldatzen ez denik. Guztiak aldatzen dira eten gabe, gutxi-asko. Alde horretatik ez legoke euskal etnokulturaren «jarraipenik eza» aparteko gertakarizat hartu beharrik. Kontua besterik da ordea: aldaketa txikia (erlatiboki txikia) eta, hein batean, autorregulatua dute etnokultura batzuek. Ziztu biziko aldaketa, hainbat esparrutan frenorik ia gabea eta, bereziki, bestek (askotan auzo-kultura nagusiak) eragina, kontrolatua edo erregulatua, dute beste batzuek. Hor dago aldea. Gainbehera bizian datozen etnokulturek *eten larria* dute beren baitan, belaun batetik hurrengora, eta halako eten larririk ez duen (nabarmenki autorregulatuagoa den) auzo-kultura sendo baten gero eta mendekoago bihurtuz doaz. Bigarren puntuko transternizazio partziala ere, orotariko bezala, norabide bakarrean ari da gertatzen: kasu honetan, euskal etnokultura «jator»etik frantses kultura «moderno»ra.

(6) *Eusteko* eta, jardun-esparru berriak irabaziz edo galdutakoak berreskuratuz, ahuldutako etnokultura hori *irabazbidean jartzeko*.

(7) Euskalgintza ez da *bakarkako* jarduna, *talde-lanean* eztabaidatzen, adosten eta hezur-mamitzen dena baizik. Horrek ez du esan nahi, beti eta nonahi luze-zabaleko masa-fenomenoa denik euskalgintza. Jakin badakigu, elite eta protoelite batzuen eragina (zer esanik ez gidaritza) bereziki zabala dela bertan. Euskalgintzak gizarte-giro bat behar du, ordea, eratzeko eta elkar-lanean garatzeko (Fishman, 1973 eta 1991).

(8) Hots, etnokultura horri bizirik eustea izanik jakinaren gaineko xede bakarra, edo xede nagusietariko bat.

rrez hainbat eragilek, perspektiba soziokulturaletik eta elkar-lanean, eraturako ekimen-sortari esaten zaio euskalgintza (9). Berariazko euskalgintza da hori: etnokultura horri bizirik eusteko deliberatuki, *berariaz* egiten dena.

Esan berri denez kulturaz (bertako etnokultura tradizionalaz eta bere modernizazio-garapenez) dihardu euskalgintza horrek, ez hizkuntzaz bakarrik (10). Euskarari bizirik eusten eta hura zabaltzen saiatzea bada euskalgintza. Ez da hori bakarrik, ordea, bere zeregina: etnokultura osoa du euskalgintzak gogoan (11). Etnokultura osoari eutsi nahi dio bizirik. Hori gorde nahi du eta, ahal delarik, indarberritu.

## I.2. Bide batezko euskalgintza

Euskal etnokultura (hizkuntza barne) gainbehera datorrela jakinik, baina galera hori eragozteko berariazko asmorik gabe, etnokultura horri bizirik eusteko lagungarri gertatzen diren ekintzak bideratzea, hori da *bide batezko*

---

(9) Kontuan har bedi definizio zabal-lazoa dela goiko hori, saioaren azken helburu zehatzik, eragile nagusirik eta lotura-molde politiko-ideologiko jakinik aurrez markatzen ez duena. Hori da, nire ustez, XIX. mendearen bigarren erdian ipar Euskal herrian bizi izandako euskalgintzaren azterbiderako formulazio egokiena. Egungo *ethnicity* kontzeptuaren zenbait definizioetatik hurbilago dabil euskalgintza modu hori, nolabait esan, XX. mendeko *language planning* ezagunetik baino. Definizioaren zabaltasun hori, kalte-iturri ordez, mesedegarri dela uste dut aztergai dugun esparrua bere osoan jorratzeko. Loturarik badu kontzeptu horrek *euskaltzale* hitzarekin eta *euskaltzaletasunarekin*. Hain aspaldi ez dela azaltzen saiaturia naizenez (Zalbide, 2007: 69) ingelesezko *language loyalty* edo *language loyalism* terminoen euskal korrelatua da *euskaltzaletasun* hori.

Euskaltzaleen asmo-egikerak biltzen dituen kontzeptu abstraktua da euskaltzaletasuna. Euskaltzaleek diseinatu eta, partez edo osoz, aurrera daramaten langintza da, bestetik, euskalgintza. Euskalgintzaren atal linguistikoa, zehatzago esanik. Bada azken horretan, halaz ere, ñabardura argirik: euskararen aldeko jarduna erdaraz (iparraldean frantsesez, hegoaldean gaztelaniaz) bideratu izan da maiz. Erdarazko euskaltzaletasuna, askotxotan *bascofilie* (hegoaldean *vascofilia*) deitua, aski zabala izan da sektore batzuetan. Izendapen biak (batetik *euskaltzaletasuna*, bestetik *bascofilie* edo *vascofilia*) ez dira beti-beti gauza bera izan, orientazio nagusiz uztarkide izanik ere. Ez dira gauza bera izan 1890-1900 inguruan, neurritz edo intentsitatez bederen: une horretan *euskaltzale* eta *bascofile* (*vascófilo*) mota edo gradu-maila diferenteko izendapenak ziren. Hiriart-Urrutik honela zioen 1895eko maiatzaren 1ean, Louis Etxeberriri eginiko eskutitz batean: «Monsieur Broussain n'est pas seulement «bascofile», il est «eskualdun-phile. Je doute que nous ayons un lecteur plus assidu, plus fervent et meilleur juge basque-basquisant» (Charritton, 1985a: 67, 78). *Vascofile* eta *euskaltzale* kontzeptuen arteko berezitasunak (zenbaitetan gatazkak) aski ezagunak eta esplizituak izan ziren, orobat, garai hartako Hego Euskal herrian: ikus Azkueren 1897, 8 eta 9ko *Euskaltzale* asteakaria. Euskaldun-erdaltzalearen tipifikazioa aparte tratatzekoa da.

(10) «Kultura» diogunean, Tylor-ek (1871) antropologian entzutetsu egindako definizioaren ildotik gabiltza. Definizio horrek berekin ditu, hortaz, gizakiok gizartearen kide garen heinean geurekin ditugun uste-sinesmenak, jakite multzoa, baloreak eta iritziak, ohiturak eta jarduerak. Tradizio aleman zaharragotik hartua du Tylor-ek *Primitive Culture*-ko definizio hori: buru-bihotzen eta izpirituen berezitasun etnonazional jator, historikoki sakon eta beste inork ez bezalakoak adierazten ditu, besteak beste, kulturaren adiera aleman horrek (Fishman, 1987: 263).

(11) Egia da ordea, nolana ere, leku nagusia duela hizkuntzak euskalgintza horretan: kulturaren osagai izanik ere hizkuntza, bere osagai zentrala da euskalgintzaren esparruan.

*euskalgintza*. Ondorioetan oinarritzen da bide batezko euskalgintza hori. Ez, halere, ondorio guztietan: berariazko asmo positiborik gabeko emaitza positiboek definitzen dute berau. Emaitza positibo horien neurriari erreparatzen badiogu, oso kontuan hartu beharrekoa izan liteke bide batezko euskalgintza. Berariazko euskalgintza bezain garrantzitsua izan liteke, emaitzei dagokienez, bide batezkoa: garrantzitsuago ere bai (12), zenbait alditan. Kontuan har bedi, esate baterako, hizkuntza eta kultura nagusien aldeko plangintza eta jarduna bide batezkoa izan ohi dela maiz asko (13).

Azterkizun dugun epean eta lekuan, 1850etik 1900ra arteko Eskual herrian, jarduera biak aplikatu izan dira: bai berariazko euskalgintza, eta bai bide batezkoa. Bi bideok ez dira ordea elkarren pareko. Alde handia dago batetik bestera. Muga argiak ditu berariazko euskalgintzak. Bide batezko euskalgintzak, aldiz, ez: euskarari eta euskal kulturari mesede egin/egiten dion edozein gauza sartu behar bada bigarren zaku horretan, amaiera gabeko multzo baten aurrean gerta gaitezke. Kontzeptu lauso eta eztabaidagarriago baten aurrean. Egurketaria al da egur bila joan ez eta halere, kasik konturatu gabe, astokada egur berekin duela etxeratzen dena? Non dago egurketariaren edo egurketari ez denaren arteko muga? Noiztik hasten da egurketaria egurketari izaten?

Lausoa eta mugatzen zaila izanik ere, kontuan hartu beharrekoa da bide batezko euskalgintza (14). Nekez euskalgintzaren ikuspegi osatu eta orekatu eskura dezakegu, oro har, jarduera hori ere kontuan izan gabe. Aparteko garrantzia izana du gainera, azterkizun dugun epean, bide batezko euskalgintza horrek. Adibide bi emango ditugu, diogunaren argigarri: Luis Luziano Bonaparte printzearen euskalaritza batetik; *Eskualduna* aldizkariaren inplementazio-lana bestetik. Horrela,

- a) Luis Luziano Bonaparteren 1856tik 70era arteko asmo nagusi eta berariazkoa ez zen izan euskara eta euskal herri-kultura indartzea, are gutxiago etnokutura hura hondamenetik gordetzeko ekimen antolatutik eratzea. *Euskalari* zen printzea, asmoz eta ustez. Euskalari edota, nahiago bada, garai hartako euskalaritzaren sustatzaile, antolatzaile eta

---

(12) Kultura handi-nagusietan ez dago dudarik: telebista-kate ofizialak ez dira haietan bertako hizkuntza (nagusia) indartzeko xedez eratuak izaten, ez eskolak beren hizkuntza garatzeko asmoz definitzen. Hizkuntza ez da halakoetan berariazko xede deklaraten. Ondorioei begiratu bazeaie bistan da, ordea, kultura bizkortu, hedatu eta garatzeari begira eragin bizia izaten dutela «berez beste zerbaitegarako» hartu ohi diren erabaki horiek.

(13) Bide batezkoa eta implizitua bai, baina ez ustez uste gabekoa. Ez ezinbestean, behintzat.

(14) Gauzak azken muturrera eramanda, euskalgintzaren aldeko asmo argirik gabeko ekimenak, bestelako asmoz mamituriokak eta, are, kontrako asmoz eratuak bide batezko euskalgintzaren sailean sar litezke definizio lazo horren arabera: aski litzateke, zaku horretan sartzeko, ekimen horrek praktikan euskalgintzaren aldeko emaitzarik ekartzea. Bistan da euskalgintzaren adiera zentraletik oso urrun lerraturik geundekeela kasu horietan, eta hori ere euskalgintza den ala ez galdetzekoa litzatekeela. Asmorik (asmo argirik) gabeko baina emaitza ohargarriko ekimenak bide batezko euskalgintzat hartzea arrazoizkoa dirudien bezala, punta-muturreko beste kasu horiek zail da euskalgintza gisa aurkeztea.

mezenas (15). Euskalaritzan jardun bazuen ere nagusiki, euskalgintza sustatu zuen bide batez Bonaparte printzeak. *Bide batezkoa* izate hori ez da, noski, oharkabean pasea etxekoen buru-bihotzetan: hortik dator kio sona, *euskalaririk euskaltzaleena* izandakoarena.

- b) Gatozen komunikabideen esparrura. Berdoly errepublikarrak 1886an sortutako *Le Réveil Basque* eta Louis Etxeberri bonapartzaleak 1887an jalgiazarazitako *Eskualduna* aldizkariak ez ziren sortu euskarari eta euskal kulturari bizirik eusteko. Are gutxiago euskal etnokultura indartu, modernizatu eta hedatzeko, edota euskararen erabilera jaso-formala arautu eta garatzeko. Deputatu-gai «gorri»ari edo «xuri»ari hauteskundeetan laguntzeko sortu ziren, lehenik eta behin, astekari horiek. Gero ere, bizirik iraun zuten artean, alderdi- edo bloke-organo ideologiko argiak izaten jarraitu zuten. Frantziako III. Errepublikaren baitako eskeman jardunik botere politiko-operatiboa eskuratzeko, atxikitze edo zabaltzeko erreminta izan ziren berez, lehenik eta behin, *Le Réveil Basque* eta *Eskualduna*. Hori zuten berariazko xede, ez euskalgintzaren indargarri (are gutxiago gidari) izatea. Bistan da ordea euskararen eta euskal kulturaren lagungarri ere gertatu zirela, zein bere neurrian (16), bata eta bestea. Euskaldun-jendea, herritar-jende xehea bereziki, euskara idatziaz baliatzera eraman zuten. Hiztun arrunten errepertorio linguistikoa ama-hizkuntza xume zuten mintzaira xumeari, ordura arte ia ahozko jardunera mugatutakoari, idazlangintzaren erabilera-esparru berria eskuratu eta garatzen lagundu zuten. Aurrez aurreko interakzio berbal xumeetatik urrunago joaten lagundu zuten horrela, esperientzia soziokultural berri-zabalagoen mintzagaiez kargaturiko harreman-sareetan txertatuz. Eskualdun-jendea hiztun-elkarte zabalago baten partaide bihurtzen lagundu zuten. Hiztun-elkarte horren kezka, asmoak eta beldurrak era informatuagoan kontrastatzeko gai bihurtu zen horrela eskualdun-jende hura, euskalduntasunaren kontzientzia

---

(15) Itxuraz filologia huts-hutsezko ekimen ziren argitaratze-lanek ere bazuten bestelako gizarate-eraginik berekin: Intxausperen *Le verbe basque* argitara eman zuenean 1858an, adibidez, aditzaren berezitasunez ohartarazten laguntzeaz gainera euskararen dignifikazio ideologiko-intelektuala sustatu zuen Bonaparte printzeak. Dignifikazio hori foro akademikoetan, jende ikasiaren artean, egin zen lehenik. Esparru zabalagoetan gero: jaun handiek hainbateko atentzioz tratatzen zuten «gure mintzaira hori» baten zerbitu on eta balios, halako atentzio bereganatzen zuten. Behar-beharrezko pauso zen dignifikazio hori, Iraultza Handiaz geroztik bederen plano soziokulturalean, ekonoteknikoan eta politiko-operatiboan jasandako gaitzespen-bazterreratzeen ondorioz gainbehera zetorren konstelazio etnokulturalari (batez ere hizkuntzari) bizirik eustekotan. Berrikuntza nabaria zekarren Intxauspe-Bonaparten lanak: hizkuntzaren berezko doaiak, perfekzio(-ustezko)ak eta garapen-aukerak azaleratzen zituen lan horrek, inork gutxi aurrez aurre ezeztatu zitzakeen eran. Egin-kizun garrantzitsua zen hori: ez zen izan ere aditu edo aditu-ustezkorik falta han-hemen, euskararen gainbehera sozial hori bere bame-ezintasunen ondorio zela argudiatzen zuenik.

(16) Lagungarri bakarrik ez, halere: beren asmo nagusia (zenbaitetan bakarra) beste bat zelarik, aldeko eta kontrako ondorioak ekarri zituzten batak zein besteak, ez aldekoak bakarrik. Zentratutasun handirik (zenbaitetan inolakorik) gabea gertatu zen bertako euskalgintza, hainbat kasutan. Eragin bortitzezkoa, erlatiboki funtsezkoa, izan zen aldiz beste zenbaitetan. Bide batezko euskalgintza izan zen bertakoa, ez berariazkoa. Baina euskalgintza, nolana ere.

eta balio-indarra areagotuz beren baitan. Hori guztia euskalgintza denik nola uka? Bistan da Berdolyren asmo nagusia ez zela hori; Etxeberrirena ere ez; ezta Jean Hiriart-Urrutirena ere, hainbatean. Xedeak xede ondorio argia izan zuten, ordea, bi argitalpen horiek eta beste hainbatek (17): mendeetako tradizioak lejitimatua zuen eliz-esparruan ez ezik beste zenbait jardun-esparru berritan ere *eskualdun*-jendea euskaraz baliatzera bultzatzea, irakurmena zabalduz eta, neurri batean, euskaraz idazteko gaitasun-ohiturak indartzuz. Bide batezko euskalgintzaren erakuskari eta osagai argiak ditugu, beraz, bi aldizkari horiek.

Labur bilduz: Berariazko eta bide batezko euskalgintza, biak izango ditugu kontuan Adema-Zaldubiren garaiko asmoak, jarduna eta emaitzak aztertzerakoan. Euskalgintzaren etnokulturazko (ez hizkuntza hutsezko) definizio zabalari atxikiz, XIX. mendearen bigarren erdian Iparraldean izandako euskalgintza molde biak aztertzen saiatuko gara gaurkoan. Arrazoizkoa denez berariazkoari eskainiko zaio, halere, lekurik handiena.

## II. ADEMA-ZALDUBI ETA BERE GIZARTE-GIROA

Ehun urte bete berri dira, Gratien Adéma «Zalduby» hil zela (18). Lapurdiko Senperen jaioa 1828an, 1907an Baionan hil eta sorterrian ehortzia, bere garaiko idazleen eta euskaltzaleen artean begiramen berezia izana du Adema-Zaldubik (19). Hala izana du ipar Euskal herrian, frantses-euskaldunen artean. Halatsu, literaturazko eta literaturaz haraindiko kontuak direla medio, hegoaldean. Eliza-kantikak eta alegi-neurtitzak kontuan hartzekoak dira, bistan da, Adema-Zaldubiren balioaz eta famaz ongi jabetzeko. III. Errepublikaren hasiera-aldian egindako ziri-bertsoak eta une batetik aurrera, neurtitzez eta hitz lauz, euskalgintzaren goraiamenez ondutako idazlan sutuak ere bai (20).

Gizonaren esan-eginez gainera bere gizarte-giroa ere kontuan izan behar da, orduko amets-gorrotok, egitasmoak eta emaitzak xuxen jukatuko badi-

(17) Aurrerago aipatuko ditugun egunari-almanakek, adibidez.

(18) Bere deitura administratibo-ofiziala eta jendarteko izengoitia zorrotz bereizten zituen, antza, Adema-Zaldubik. Honela zioen berak 1896an: «Nik bi izen edo firma baditut: bat Adéma ene familiakoa gauza edo eskribu serioetan, eta apheza gisa Elizakoetan ezartzen dudana; bertzea Zalduby gauza profano edo politikako edo kantu irri egitekoetan agertzen dudana» (Onaindia 1974: 309).

(19) Monografia zabal-handirik ez badago ere senperetarraz, informazio ederrik bada hantzen jaso. Kontuan hartzekoak dira, bereziki, Daranatz (1908), Villasante (1979), Xarriton (Charriton, 1985b) eta Bengoetxea (1991). Informazio horien osagarri azter daitezke, bestalde, Etchepare (1910), Tazua (1973), Xarriton (Charriton, 1985a eta 1986), Goienetxe (Goyhenetche, 1993), Urkizu (1997), Zalvide (2003), Duhau (2007) eta Touyrou-Phagaburu (2007).

(20) Zazpi Euskal herrien batasun-asmozko kantua aipatu ohi da sarri, bere euskaltzaleetasun suharraren erakusgarri. Gogo-nahi hori zehaztekotan hitz lauzko zenbait lan ere kontuan hartzekoa da ordea, Piarres Xarritonek (1985, 1986), Manex Goienetxek (1993), Pierre Tauziak eta bestek argi asko azaldua dutenez.

tugu (21). Gogo-giro jakinean bizi izan zen Zaldubi, gizaki guztion moduan. Bere garaiaren fruitu da Adema, gogo-giro haren eragile eta zirikatzaile izateaz gainera. Zer gizarte-girotan bizi izatea suertatu zitzaion Senpereko semeari? Aldaketa handien garaia izan zen hura. Giro molde askotxotan bizi izatea suertatu zitzaion, horregatik, Ademari. 1851n, artean apaizgai zelarik, Baionako seminario handitik «ikusten» zuen gizarte-giroa gauza bat zen; handik berrogeita hamar urtera (1901-2an) Hendaia-Hondarribietan bizi izan zuena, aldiz, oso bestelakoa. Ipar Euskal herrian ere transformazio demografiko, ekonotekniko, politiko-operatibo eta soziokultural handiak gertatu ziren mende-erdi horretan. Horrela, eta datu-oinarriei dagokienez batez ere Manex Goihenetxeren azalpen ezagunera (Goyhenetche, 1993: 2-3) isuriz begiak, kontuan izatekoak ditugu Ademaren garaiko transformazio hauek.

## II.1. Transformazio demografikoa

Biztanlez hazi egin zen Iparraldea, alde batetik: 1850ean baino bizilagun gehiago zituen 1900ean. Hustu egin zen, ordea, aldi berean: Euskal herritik kanpora joan ziren bertako seme-alaba anitz. Beste eskualdun asko, azkenik, aldatu egin zen lan-lekuz eta bizigunez, bertako edo berrikitan kanpotik etorritako erdaldunekin nahastuz. Hiru fenomenoak gertatu ziren batera. Ikus ditzagun banan-banan:

- a) Jaiotza-tasa handiak izan zituen, dudarik gabe, garai hartako Eskual herriak. Egungo estandarretarako arras handiak. Biztanle-hazkunde ohargarria zekarkeen barne-hazkunde horrek berekin, kontrako galera azkarrik gertatu ezean. Itxaropen sendoa ematen zion jaiotza-kopuru zabal horrek, bestela esanik, eskualdun-jendearen eta bertako etnokultura jatorraren belaunez belauneko jarraipenari.
- b) Hazkunde horren ondoan bazen, ordea, etnokultura jatorraren kontrako elementu demografikorik: *Eskual herriaren* barnealdetik (ohiko etnokultura eta hizkuntza bera bizienik zeuden eskualdeetatik) lekualdatze bizkorra hasi zen gertatzen: ez noranahi, frantsesezko gizarte-bizitza zabalduenik zegoen Lapurdiko kostaldera eta Frantzia osora (22) baizik. Barneko *Eskual herri* jatorra husten hasi zen, eta Lapurdiko kostalde modernoa, trenbide berriaren alboko zenbait herri-gune bereziki,

---

(21) On litzateke, alde horretatik, bere adinkide zenbait gogoan izatea. Adema-Zaldubiren urte berean (1828an) jaio eta urte berean (1907) hil zen Wentworth Webster. Urte bertsuan jaiok dira, orobat, Jules Verne nobelagilea (1828-1905) eta Maria Eugenio de Montijo enperatriza (1826-1920).

(22) Deskribapen zehatz batek matizatu egin beharko luke esaldi hori: Frantzia osorako emigrazioaren zenbatekoa xeheago aztertu beharko litzateke, batetik. Maulera, Donapaleura eta Hazparnera gertaturiko jende-biltzea erantsi beharko litzateke bestetik. Badirudi, gainera, azken kasu horretan etnokulturazko jarraipen-bideak beste paradigma bati eutsi ziola.

zabalduz joan zen (23). 1875 ingurutik aurrera, bereziki, Baiona aldea (batez ere Miarritze), Donibane Lohizune eta Hendaia gogor hazi ziren: bai inguruko edo barnealdeko *eskualdun*ez, bai *kaskoin*-frantsesez eta bai, oro har, *Belle Epoque* haren erakarmen-liluraz batetik eta bestetik etortzen hasitako populazio hiritar-kosmopolitaz (24).

- c) Eskual herriaren barnealdetik kostalderako eta Frantzia osorako leku-aldatze hori bezain handia, edo handiagoa, izan zen, azkenik, Ameriketarako emigrazio-*joaira*. Eskualderik *eskualdunen*ak izan ziren emigrazio-iturri nagusi (25). Ameriketarako joaira hori funtsezkoa da, mende-erdi horretan *Eskual herriak* izandako transformazio demografikoaz xuxen jabetzeko (26). Ez da erraz esaten, fenomeno bi horietan (Kostalderako lekualdatzea batetik, Ameriketarako joaira bestetik) zein izan zen etnokulturalki eragingarrien. Bataren eta bestearen ondorio metatuak ez ziren, nolana ere, hutsaren hurrengo izan: erdaldunak nagusi ziren eta erdaraz jardutea ezinbesteko arau bihurturik zegoen ingurumenetan bizi behar izan zuen *eskualdun*-jendeak, handik aurrera, gero eta sarriago.

## II.2 Transformazio ekonoteknikoa

Batez ere laborariz eta artisau-langilez osaturiko Eskual herri tradizionala ahuldu egin zen, eta kargudun-enplegatu ugariko estruktura sozioprofesio-

(23) «Le Pays Basque intérieur se dépeuple fortement: entre 1851 et 1876, la perte es de 15%, pour retomber en 1901 à 6%. Par contre certains secteurs de la Côte connaissent la première vague d'urbanisation commencée à partir du Second Empire. Entre 1856 et 1901, la population de Biarritz augmente de 132%; à forte majorité d'étrangers, la ville devient cosmopolite. Pour la même période, Hendaye augmente de 121%.» (Goyhenetche, 1993: 2).

(24) Wentworth Webster kapelau anglikanoa, Julien Vinson oihanzain-hizkuntzalaria edo «Pierre Loti» marinako ofiziala mendearen bigarren erdiko berrikuntza-giro horren oihartzun ditugu, nor bere moldean eta neurrian.

(25) «La migration est très forte: en 1867, à titre d'exemple, 54% des appelés des cantons de Saint-Jean-Pied-de-Port, Baïgorry, Espelette sont portés absents, car partis en Amérique». (Goyhenetche, 1993: 2). Gertakari horien lekuko argia da Arbelbide bat, «Eskual-herritik kampo, hirietarat edo ameriketarat joaiteko ezin egona» (1895: 24) edo «hirietarat eta ameriketarat joaiteko duten errabia» (1895: 26) azaltzen duenean atsekabez.

(26) «entre 1876 et 1911 le déficit réel de la population pour le Labourd, la Basse-Navarre et la Soule est de 22,8%; il atteint même 30% en Arberoue et Ostabarret. Mais le taux de natalité pour la même période est de 25‰ et atteste donc un réel dynamisme démographique». (Goyhenetche, 1993: 2). Emigrazio horren kausak azaltzerakoan, honako azalpenok eman zituen Pierre Lhandek: «Causes de l'émigration des Basques vers le Nouveau Monde: 1.- l'horreur du service militaire. Indépendance et servitude militaires; 2.- agents et «rassembleurs»; 3.- le régime successoral, et 4.- l'inquiétude atavique». Bestek ere aipatu izan du, hizkuntza kontua erantsiz, l'horreur du service militaire hori. Ikus, esate baterako, Lamothe in 1997c: 281-2: «soldadoaren eta desobedientaren arteko dialoga edo errazoinamendua». Integrazioa vs. isolamendu etnokultural eta operatiboa du, itxuraz, beldur-izu horrek auzigai: «lenguaia ez dakienak laidoa pairatzen du. Hori bera dela kausa ihesi egiten du».

nala hazi (27): *farmazien* eta *buxer*, *mugazain* eta *soldadu*, *misionest* eta *erreient letrant*,...Bizkai-Gipuzkoetan baino astiroago gertatu zen transformazio hori, bistan denez. Baina Iparraldean ere aurrera egin zuen industrializazioak eta urbanizazioak. Transformazio horrek berekin ekarri zuen, jakina, lanbide-egitura berria (28). Ohiko status- eta rol-egituretan eragin bizia izan zuen behialako lan-munduaren zaharberitze horrek: baita mintzajardunaren gizarte-moldaeran ere. Frantses estatuaren egituratze bizkorak kargudun-funtzionarioen lanbide-sare zentralizatua (frantses hizkuntzan oinarritua) indartu zuen gainera, gero eta nabarmenago: errient-sare zabala, gero eta herri gehiagotara iristen zena, erdarazko progresuaren eta zibilizazioaren paradigma bihurtu zen hainbatean (29). Zenbait kargu publikotan *eskualdun* gehiago txertatu zen. Mugazainen artean, esate baterako, *eskualdun* (eta are *eskualtzale*) andanatxo ezaguna dugu: Duvoisin, Darricarrere, Joanes Otsalde (Bidarrain) eta abar. Frantses militarren artean ere, Intxauspe jeneralaren eraginez agian, bazen halakorik: Elizanburu dugu euskaltzaleen artean ezagunena, baina ez da bakarra (30). Bestelako lanbide «estatal» berrien gorabidea ere ez guke gutxietsi behar, garai hartako transformazio ekonoteknikoaz jabetzeko orduan: frantses-

- 
- (27) Zaldubiren 1872?ko bertsoz esateko,  
*«hainbertze bizi nahiz gure zergen gustuz, / oro bete zaizkiguk karguz et' enpleguz.*  
*Ai, ai, ai mutilla, karguz et' enpleguz.*  
*Oro soldado eta jende eskolatu... / Nork beharko dik gero haintzurari lotu?*  
*Ai, ai, ai mutilla, haintzurari lotu»*

(28) «A Ossés entre 1861 et 1891, 28 tisserands disparaissent. En 1875, les forges de Larrau, Licq-Atherey, Baïgorry et Mendive sont toutes fermées. Mais trois nouveaux foyers industriels sont en pleine expansion; Boucau avec les forges de l'Adour, Hasparren avec 3.000 travailleurs(euses) en 1908, Mauléon avec 1350 ouvriers et ouvrières à la veille de la Première Guerre mondiale. Ces deux derniers connaissent leur âge d'or entre 1890 et 1911» (Goyhenetche, 1993: 3). «Dans les parties les mieux conservées du Pays Basque» gauzak ez ziren, itxuraz, hain-hain bizkor aldatzen ari. Hala gertatzen zirenean, esate baterako, testamentua egiterakoan etxea oinordeko bakarrari uzteko ohiturarekin. Jokamolde zahar horrek aukera praktikoa eskaintzen zuen, zenbaiten ustean (gai horietan aditu ezaguna zen Louis Etxeberrirenean, esate baterako) antigoaleko testamentu moldea eta gizarte berriaren beharrak egokiro uztartzeko: «Créés pour assurer la stabilité des domaines patrimoniaux et des maisons-souches, elles assurent de même coup le maintien des traditions; mais, par surcroît, elles favorisent le progrès de la civilisation, la colonisation des pays lointains au moyen des émigrants qu'elles suscitent... Un seul conservera le foyer et ses traditions, un ou deux autres se marieront dans le voisinage et y consolideront d'autres foyers; le surplus fournira de précieuses recrues au clergé, à l'armée, aux colonies. De la sorte, la paix règne dans les maisons. Et l'harmonie règne dans tout le corps social». Kontua bestea da: «c'est la règle encore dans les parties les mieux conservées du Pays Basque» dioenean estabilizaturiko gizarte-egoera batez ari ote den hizketan, idazlanak itxuraz azaldu nahi duen gisa, edota (apurka edo ziztu bizian) gainbehera datorren fenomeno batez.

(29) Erdaldun huts edo erdal elebidun nabarmen ziren errient horietariko gehienak (1870etik aurrera, bederen, gero eta gehiago), eta euskaldun errientek ere erdara hutsezko (edo erdararantz orientaturiko) jarduna zuten lan-arau nagusi. Pasabideko hezkuntzaren (nazioarteko terminologian: *transitional bilingual education*-en) aldeko Archu eta gainerako eskola-maisu euskaldunak 1840tik 1870era arteko faseari dagozkio funtsean. 1870etik aurrerako fasean sartzekoa den Constantin aita, euskaldun eta euskaltzale argia, bere salbuespen-izaeragatik da deigarri.

(30) Ikus, adibidez, 1897ko Euskal Festen ohorezko presidente-lanean jardundako Derré-cagaix generala, 36. Dibisioaren komandantea. (Elkar-lanean, 1892).



funtzionario genituen, nor bere sailean, L. M. Julien Viaud «Pierre Loti» kostazaina eta Julien Vinson oihanzaina. Injeniarren zabalkundea ere ez da gutxietsi behar mendearen bigarren erdialdean (31): alor horretan sartzekoa dugu, bete-betean, Lewy-Abartiaga bat. Medikuen zabalkundea ere ohargarria izana da. Bada sail horretan ere andanatxo, euskaltzaleen alorrean sartzekoa: Pierre Broussain hazpandarra dugu garai hartako adibide argiena eta beste askoren aitzindaria (32). Indianoen lekua, azkenik, ez da inola ere ahaztekoa: Harriaga-Morroxkoren kasua ez da bakarra, paradigmatikoa berau izanik ere. Profesional berri eta indiano horiek kontu bat dute amankomunean: gazetetan kanpora (batzuek Frantziako hiriburu handi batera, besteak, Ameriketara) joan eta lanbide berria ikasi edo lanean aberastu, gizarte berriaren moldeetara ohitu eta (status ohargarriaz) herrira itzultzean mundu berriaren modernitatea bertako autentizitatearekin lotzeko saioa, euskaldun-fededunen ortodoxiatik ez beti oso ongi ikusia, berauek bideratu zuten indartsuen. Ohiko kategoria sozioprofesional zenbaiten statusen bortizki eragin zuen gizarte-moldaera berri horrek. Esate baterako, elizgizonen artean eta ordura arte herri-giroan aitzindaritzatza tradizionala berekin izandako jaun-jauntxo errentadunen bizibidean. Aldaketa horien guztien oihartzun argirik ez da falta Adema-Zaldubiren esan-eginetan.

Ekonomian eta lanbide-egituran gertaturiko aldaketa horiek XIX. mendeko (batez ere 1830-70 epealdiko) teknologia-berrikuntzan zuten iturburuetako bat. Teknologia alorrean, ez zientzia-esparru hutsean, ondotoxo aldatu ziren gauzak Ademaren garaian (Bernal, 1954 in 1973, 1. liburukia: 418). Beste zenbaiten ondoan albo-eskualdetzat har zitekeen Zaldubiren garaiko ipar Euskal herria, teknologia-berrikuntzei zegokienez (33). Ez zen erabateko bazter-gune, ordea: lurrunezko itsasontziak, telegrafoa eta burdinbidea, esate baterako, bizkor zabaldu ziren Iparraldean ere (34). 1860tik aurrera (35) trenbidea eratzen hasteak, eta urratsez urrats zabaltzeak, eragin zuzena izan zuen gizarte-berrikuntza horretan. Oinez astebetean eta zalgurdiz hiruzpalau egunean egin ohi ziren ibiliak

(31) Ikus Bernal 1954 in 1973, 1. liburukia, 420. or., «la aparición de los ingenieros» atala.

(32) Constantin semea eta Jean Etxepare midikuak, nolani ere, bide-urratzaile izanak dira 1900etik aurrera.

(33) Termino erlatiboetan oso ondorio diferenteetara irits liteke, ordea, albo-izaera hori juzkatzerakoan. Ikus, esate baterako, J. Vinson batek, Hendaian dagoelarik Hondarribira begira, Frantzia-Espainien arteko diferentziaz egiten duen balioztatzea. Vinson-en balioztatze hori Frantziako gizarte-giroan hain-hain aho batezkoa ez zela konturatzeko ikus halere, esate baterako, «Pierre Loti»-ren behin eta berriroko aitomenak.

(34) Eskual herriaren muga-bazterretan batez ere: Kostaldean lurrunezko itsasontziak, Kostaldean eta Aturri parean burdinbidea.

(35) Paris-Madril bidearen atal gisa Baionatik Hendaiara zabaldutako trenbidea izan zen, jakina, ordura arteko harreman-sare hurbil askoren eta urrutirako lotura-bide irekiagoen iraultza-iturri nagusi. Kostaldeko berrikuntza horrek jarraipen argia izan zuen barnealdean, handik hain markada gutxira: «Cette activité industrielle est soutenue et vivifiée par l'ouverture des lignes de chemin de fer: Puyoo-Saint Palais en 1884, Auteville-Mauléon en 1887, Bayonne-Saint-Jean-Pied-de-Port en 1899». Les mutations techniques de la campagne sont moins évidentes; les charres, les faucheuses, les batteuses mécaniques sont encore rares» (Goyhenetche, 1993: 2-3).

egun bakarrean egin ahal izan ziren une batetik aurrera. Ohiko harreman-sare hurbilak, aurrez aurreko mintzamoldean oinarrituak, ahuldu egin zituen bidegintza eta teknologia berriak, eta «egiazko eskualdunen» erdal hiztunekiko harreman-aukerak eta jardun-esparru heterolinguistikoak indartu.

Estratifikazio sozialak eragin bizia izan zuen berrikuntza horretan: *zezakeen jendea* baliatzen zen batez ere, hasieran, urrutiko joan-etorrien edo produktuen onurez eta pribilegioez (36). Gurasoek oinordetzan utzitako etxaldeak ikuskatze-ko, adibidez, oinez egiten zituen Anton Abbadiak gazteak, ia urtero, ehunka kilometro. Aldiz helduaroan eta zahartzaroan, Parisera eta noranahi, trenez egiten zituen joan-etorri gehienak. Jende xeheak ere laster ikasi zuen ordea, ez Abbadiak eta bere gisakoek bakarrik, teknologia berri horretaz baliatzen. Lourdeserako lehen pelegrin-ibilaldia, artean trenik ez zelarik, oinez egin zen Adema-Zaldubi tarteko eta bozemaile izanik: berrehun kilometro inguru oinez egin behar izan zuten horretarako *eskualdun* manexek, eta 150 kilometro inguru Zuberoako *uskaldunek*, zahar eta gazte (37). Aldiz hurrengoan, 1875ekoan, burdinbidez egin zuten bidaia bospasei mila eskualdun pelegrinek (38), trena Baionan, Puion edo Pauben hartuta (Adema-Zaldubi, 1877: 89). Alde handia izan zen jende-garraioaren berritze hori, urte gutxiren buruan. Beste horrenbeste gertatu zen produktuekin: teknologia berriaren laguntzaz bere produktuak lehen baino urrunago bidaltzen, eta besterena urrunagotik ekartzen, ohitu zen *eskualdun*-jendea. Eskualdunen arteko harreman-sareen ahulgarrri gertatu ziren, oro har, garraio molde berriok. Ez beti ordea: zenbait kasutan, lekuan lekuko *eskualdunak* urrutiegoko *eskualdunekin* (39) harremanetan jartzeko oinarri gertatu ziren.

Lurrun-makina eta trena, dinamoia eta argi elektrikoa, telegrafoa eta argazkia, altzairugintza modernoa (Bessemmer, Thomas) eta txerto molde berriko imunizazioa Zaldubiren bizi-denboran zabaldu ziren (40). Beste batzuk, *beribil-otomobila* (41) adibidez, bere azken urteetan hasi ziren agertzen. Nolanahi

(36) Produktuak ere lehen baino urrutiegotik eta lasterrago mugitu ahal izan ziren une batetik aurrera. Eugenia de Montijok, esaterako, une batetik (hots: 1864tik) aurrera trenez esku-ratu ahal izaten zuen goizero asteme-esnea, egun berean Donostiako asto-kalen jaitzia, Miarritze-ko bere uda-egonaldietan Kleopatren modura asto-esnetan bainatu ahal izateko.

(37) Itzuleran beste horrenbeste: informazio xehea eskuratzeko ikus *Eskualdun Pelegrina-ren bidaltzailea* (Adema-Zaldubi, 1877: 90).

(38) Hobe esanik, partez oinez eta partez trenez egin zuten horietariko zenbaitek joan-etorria. Horra Zaldubiren beraren azalpena: «Burdin bideec (...) ez dute ukhitzen Escualherriaren hegaltto bat beicic. (...) Baigorriar, Aldudar, Garaztar eta Zuberotar gutiz gehienec, beren oinez egin zituzten beren 60, 70, 80 kilometrac (...) gararaino heltceco». Bazen tartean oraindik oinez-ko pelegrinik, joan-etorri osorako trenik hartu ez zuenik: «oinezco pelegrin horietan baciren cembeit 70 urthez goiticoac. Adin hortaco batto Donapaleotic Lurdeserainoco jua-jinean oinez beicic ez cen ibili» (Adema-Zaldubi, 1877: 89).

(39) Urrutiagoko *eskualdunekin*, *uskaldun* zuberotarrak barne, eta aldi behin *euskaldunekin*.

(40) Ikus Bernal, 1954, 1. liburukia.

(41) *Beribil* hitza Hiriart-Urrutik asmatua da, antza (OEHren esanean 1908koa, *Eskualdun*-nekoa). Ez ote dator lehenxegotik?

ere den, eragin bizia izan zuten berrikuntza horiek garai hartako gizarte-bizitzan: bai eguneroko bizimoduaren antolamendu materialean, bai ikusmoldeetan eta bai mintzajardunaren giza arteko moldaera zabalean. Frantsesak zekarren aurrerakuntza multzo hori, ez euskarak, hamarretik bederatzietan. Bere burua modernizazio ekonoteknikoan murgilduz eratzen saiatzen zen eskualduna gero eta frantsesaren beharrago bihurtzen zuen, hortaz, bilakaera horrek.

### II.3. Transformazio politiko-operatiboa

Aldakuntza ohargarriak bizi izan ziren Frantzian, XIX. mendean, esparru politiko-operatiboan. Aldakuntza horien ispilu izan zen, aski neurri zabalean, Ipar Euskal herria ere. Errejimen zaharreko foru-agintea, eta aginpide hark berekin zekarren konpartimentazio soziofuntzional zaharra, gogor astindua (hainbat kontutan indargabetua) zuen 1789ko Iraultza handiak. XIX. mendeko Inperio bien eta hiru Errepubliken zaharberitze- eta bateratze-lana ez zen, bestalde, Iraultzarena baino txikiagoa izan integrazio eta transformazio sozio-politikoan alorrean. Frantsesezko eskolaren eta prentsaren zabalkundea, soldadutza orokorraren jeneralizazioa eta herritar xumeen hauteskunde bidezko aktibazio politikoa, besteak beste, berrikuntza nabariak gertatu ziren. Luzera begira ondorio sakona eragingo zuten berrikuntzak.

Kontuak ez ziren, bestetik, alor horietara mugatu. Era askotako aldakuntzak eragin zituen berez, gizarte-sektore gehienetan, transformazio horrek. Etengabeko prozesua izan zen Frantzian gizarte-berrikuntza (zenbaitetan iraultza), mende osoan. Berrikuntza horien eragile nagusia ez zen izan, oro har, beharrian larrian edo miseria gorrian bizi zen kanpañako jende xehea (42), bestelako hiritar-multzo mobilizatua baizik: hirietako ofizialeak eta estudianteak, artisauak eta burjes ttipiak izan ziren, luzaz, berrikuntza-eragile nagusi. 1848an, esate baterako, iraultzaren aldeko zen hainbat hiritar. Ez aldiz, kanpañako baserriar-jendea edota bertako herritar xumeak. *Desordrearen* kontrario ziren, oro har, kanpañarrak: bai Frantzia osoan eta bai *Eskual herri*-an, «egiazko eskualdun»en artean. Burjes handiei bezala lur-ondasunen banatzaile (hots: kentzaile) iruditzen zitzaien kanpañarrei ere hirietako aurrerazale-jende ausart hura: jende arriskugarria.

Xurien eta gorrien arteko zatiketa, 1830 inguruan eratzen hasia, izan zen handik aurrera batzuen eta besteen arteko muga-marra nagusi. Xurien eta gorrien arteko partiketa hori konstante argia izan zen mendea amaitu arte, Iparral-

---

(42) Miseria gorrizko giro hori arras nabarmendu ohi zen zenbait aldiunetan, hala nola 1846an. Ordukoa da Zaldubik eta bere lagun Elizanburuk paraturiko «Betiri Sants» («erran nahi baitako herri hautako aurthengo miseria». Ikus Touyarou-Phagaburu, 2007: 13). Honela dio bertsoarte batek: *Kanpuan kreditik ez, etxian miseria / Horra nekhatzalien bizitze tristia / Nihon ez da posible orai bizitzia / Jainkoak izan beza miserikordia.*

deko soziologia politikoaren espektro nagusian (43). Muga-marra horren alde batera, «zarrontzale» absolutisten alderdira, makurtu ziren Iparraldeko elizgizon gehienak. Beraiek makurtu bakarrik ez: aukera horren mesedeak azaltzen ere saiatu ziren, maiz aski, beren eliztarrei. Bazuten itzalik eta begirunerik eskualdun-jende xehearen artean, eta ez zuten itzal hori alferrik galdu nahi.

Eskualdun goa aski pasibo ageri zen halere: mobilizatzen zaila, baina mobilizatu beharra. Mendeak aurrera egin ahala, 1871tik aurrera bereziki, gero eta herritar gehiagok hartu zuen parte gizartearen kudeamenduan, asuntu publikoetan. Behinolako jaunen gainbehera zabalduz joan zen oro har, eta gizarte-sektore berrien pizkundea argitzen (44). Bake-giroa indartu eta nagusitu egin zen, azkenik, Pariseko Komunaz geroztik. Harrez gero ez zen gerrarik, Zaldubiren *Betiri Sants*-ik, izan 1914ra arte. Erreforma politiko-operatibo handien garaia izan zen azken hau: doako eskolaketa (1881), laikoa eta derri-gorrezkoa (1882); elkarrekin biltzeko askatasuna (1881), prentsa-askatasuna (1881), sindikatze askatasuna (1884) eta udal-eskubideak (1884) gizarteratu ziren urte gutxiren buruan (45).

Transformazio politiko-operatibo horiek bereziki nabarmenak izan ziren Zaldubiren bizi-denboran: hots, Zaldubiren beraren eta, oro har, garai hartako elizgizon eskualdunen garaietan. Frantziako Iraultzak eragin bizia izana zuen lehendik ere, jakina, Elizaren eta Estatuaren arteko harreman instituzionalean. Kontuak gogortuz joan ziren, ordea, 1871tik aurrera (46). Etsaigo bizia jaso zuen gobernamenduaren hainbat neurrik, hori zela medio, apez eskualdun askoren aldetik. Aita sainduaren 1892ko *Ralliement* bideak ez zuen etsaigo hori osorik indargabetu: konstante sendoa izaten jarraitu zuen, Zaldubiren bizi-denbora osoan, botere zibilaren eta erlijio-esferaren arteko ezin konponduak, injerentziak eta gatazkak (47). Garaiko status eta

(43) Historia-liburuetan argi jasotako gertaera hori zehatz aipatua du Michel Elizanburuk ere, bere idazkera polemikoan: «Jaun Mera Louis-Philiperen gizonetarik duzu. Errege hunen bandera badakizu ez dela *xuria*, bainan dela *gorri*, xuri, blu. Baldin badute ideia bat *xuria* edo huna, xuxena, badituzte bertze biga makhurrak, faltsoak edo *gorriak*». (Elizanburu, 1889: 79).

(44) Zaldubik penaz eta dolorez esango zukeenez (1991: 163): «Karguak ziren lehen goratik jin gauzak; / ematen ditik orai ziri baten bozak. / Ai, ai, mutilla, ziri baten bozak. Podoredu-na lehen handi behar zuan; / orai tiki'ta txarrak nausi tuk multzuan. / Ai, ai, ai! mutilla, nausi tuk multzuan.»

(45) Iturria Duroselle, 1983 (7. argitaraldia): 59. or.

(46) Zaldubik horrela agurtu zuen 1871ko Errepublikan laikoa, urte hartako *Betirisants* kantuan: «Betirisanstarren Jainkoa, da mundu huntako gozoa / erlisione libro eta lazoa, aphez gabekoa / erran gabe doa, gure xakurrarena bezalakoa.» Hurrengo urtean?, 1872?, honela zioen bere *Errepublika* kantu famatuan: «Jainko legerik gabe. Leg'egile berak / holakoz ziren lehen bethetzen galerak» «Zer-nahi haizu nahiz, berentzat lehenik, / erlisioneari dire aiharrenik / Ai, ai, ai! mutilla, dire aiharrenik!» Konstante sendoa izan zen (ikus A. Bengoetxea, 1991: 158-61 eta 162-5) tirabirazko giro hori Zaldubi hil arteko epealdi zabalean, 1902an goi-erpin jo zuelarik (ikus adibidez Hiriart-Urruti in Altzibar 2004).

(47) 1904koak dira bere bertso-zatiok: «Gure gobernamenduak Jainkoa hain higuin du, tribunaletarik baitu kurutzefika khendu. / Hainbertzenaz du Frantzian justizia aphaltu: kontzientzien beldurra du behinik bat galdu.» (ikus A. Bengoetxea, 1991: 188-9).

rol instituzional berri horretan bizi izatea suertatu zitzaion, hain zuzen, Adema-Zaldubiri (48):

#### II.4. Transformazio soziokulturala

Transformazio soziokulturala ere ohargarria izan zen. *Egiazko eskualdu-  
nen* uste-sinesmenak eta mundu-ikuskera, balio-iritziak eta eguneroko bizimodu konkretua (famili osaera, auzo-bizitzaren giza arteko arauak, jan-edianak (49), janzkera (50) eta orrazkera (51), erlijio-praktika (52), dantza-kantuak, kirola eta, oro har, aisialdiaren antolamendua) asko aldatu ziren. Horiek baka-rik ez: frantsesezko kultura idatzi laikoa (gai profanozko aldizkari eta liburu-etan gero eta maizago irakur zitekeena) hedatuz joan zen; etxeko diru apurra, orobat, «behar denerako» aurreztu orde zuten unean uneko kontsumora bideratu zen gero eta maizago (53). Atseginezko harat-honata eta beste hainbat modernizazio-arrasto ere indartzu joan ziren. Neska-mutilen, senar-emazteen eta seme-alaben arteko harreman-eskema tradizionalak nabarmen aldatu ziren horrela, ohiko rol-egitura zurrnak apurtuz eta eskema berri zabalagoak hedatuz.

Hizkuntzaren erabilera arruntean ere (HI/ZU elementuen ohiko erabilera diferentzian, adibidez) oihartzun argia izan zuen soziokulturazko status- eta rol-berritze horrek. Herritar xeheen eta nagusien arteko status-eskema zahar-  
rrak, orobat apaizen eta beren «kristau zintzoen» artekoak, zaharberritu behar-  
rean gertatu ziren. Ordura arteko zenbait kategoria hierarkiko gesaldu egin  
zen, eta giza arteko harreman-molde konplexuagoak eratu ziren han-hemen.  
Moda berriok frantsesez zetozen gehienetan. Gizarte-bizitza berrira egokitu

(48) Aparteko eragina izan zuen estatuaren eta elizaren arteko moldaera berri horrek, ordura arte euskaltzaleen harrobi nagusi izandako *apezen* artean: bai herriko apaiz xoilan artean eta bai eliza-hierarkiaren goraxeagoko aginte-guneetan ziharduten seminarioko irakasle, fraide-komentuko zuzendari eta katedraleko kalonjeen artean. Hortxe zegoen, bete-betean, Zaldubi.

(49) Nagusiki garian, artoan eta zekaleetan oinarritutako elikaduratik haragiak leku zabalagoa zuen alimentazio modu baterako pausoa eman zen aldi horretan. Egiantz handia duen bilakaeraz jabetzeko ikus, lehen hurbilpen gisa, Elizanburu 1889: 17-22.

(50) Michel Elizanbururen aipamenak dira honetan zehatzenak: ikus, adibidez, 1889: 23-9. Ez da bakarria ordea: ikus, esate baterako, J. B. Larralde 1864ean: «muthil-zaharra» bertsoetako zenbait aipamen (in *Anton Abbadiaren koplarien guduak*, Urkizu 1997c: 201): «Grisetek utzi dute mokanes pullita / Ustez hobeki dohan lore-dun boneta», edota «Sederian sarthuak, printzesak iduri / Fu! egiten diote soin telapintari». Antzeko kexu-oharrak irakur litezke, diogun bidenabar, urte-garai berean (60ko hamarkadan) Xenpelarek idatzitako zenbait bertotan. Aldaketa handia, oso handia gertatu bide zen jazki kontuan, 1850etik 1900era. Arbelbideren hitzetan «non dira leheneko jaunztura eta aphaundurak? Non dire egiazki herrikoak eta gureak ziren soineko hek? (Arbelbide, 1895, in Goienetxe 1993: 37).

(51) Emakumezkoen toaletetan eta etxeko altzarietan, esate baterako, alde handia antzematen du Elizanburuk (1889: 27-8). Ez da bakarria ordea: ikus, esate baterako, Arbelbide.

(52) Elkarren gainka datoz, erlijio-praktika zaharren epeltze-arriskuez eta, zenbaitetan, gertaera frogatuz ziharduten iturriak. Aski izan bedi, berriro, Elizanburu 1889 aipatzea.

(53) Ikus Elizanburu 1889.

nahi zuten gazteek lehen ez bezalako tentazioa, komenentzia eta, zenbaitetan, behar gorria sentitzen zuten translinguifikatzeko. Hartara iristen ez zirenak ere, hein batean bederen, pauta soziokultural berrietara transtnizaturaz zihozzen (54).

## II.5. Aldaketaren bereizbidea: Baserri/kale, kanpaña/hiri

Aldaketa demografiko, ekonotekniko eta soziokultural horiek ez ziren uniformeak izan, ez espazioan eta ez denboraren harian (55). Eskualde batzuk lehenago modernizatu ziren besteak baino. «Betiko bizimodua»k nagusi izaten jarraitu zuen luzaz eskualde batzuetan (batez ere barnealdeko herri-herrixka gehienetan), kultura materialean eta uste-balioetan berrikuntza askotxo bereganatuz halere. Aldiz beste zenbait ingurumenetan (Lapurdiko kostaldean, Donapaleun, Maulen,...) erdal gizarte berri-modernoak bizkorrago hedatu zen eta lehenago gailendu.

Gorago esan dugun *barnealde/kostalde* bereizkuntza hori indartuz joan zen, oro har (56). Ez zen hori izan, ordea, dikotomia nagusia. Mende-erdí horretako bereizbide larriena baserriarren eta kaletarren artekoa izan zen. Hots, Hiriart-Urrutiaren esanean kanpañaren eta hiriaren artekoa: beste hitzetan esanik, kanpañarren eta hirritarren artekoa. Askok baino zorrotzago adierazi zuen Etxenikiek Sarako Euskal Festetan, hiritarren ikuspegia nabarmenduz, funtsezko dikotomia horren zenbait ezaugarri: batetik baserriarren mundua zegoen, eta

(54) *Transtnizatzte* hitzak hemen duen esanguraz jabetzeko ikus, bereziki, Fishman 1985 eta 1987.

(55) Eskual herriaren barne-azterketa egiten ari garenez Frantzia-Espainien arteko kontrastea, J. Vinsonek hain nabarmen seinalatua (Vinson 1891, iturria 1984: XXV-VI), ez dugu hemen aintzakotzat hartuko. Gogoan izan, halere, kontrapuntu sendoa ezartzen zela Vinsonen bereizkuntza horiei bere garaiko zenbait kanpo-ikuslek (ikus Loti, 1892-XI-22 in 2000: 9).

(56) Ez da ahaztu behar, ordea, lehendik ere bazirela aldeak Kostaldearen (oro har Lapurdiren) eta barnealdearen (bereziki Nafarroa Behereko eta Zuberoako herrixka txiki ugariaren) artean. Ikus esate baterako Hourmat-en artikulua, 1833ko eskola-ikuskatzea oinarri hartuz egina (Ik. Lasa, 1968: 97-128). Bertatik jasoak dira, adibidez, azalpenok: Inspecciones hechas en el departamento de los Bajos Pirineos durante los meses de octubre, noviembre y diciembre de 1833; «panorama angustioso» para la enseñanza primaria en el campo de Francia, particularmente en el Midi. Iturri bat hartu zein bestea hartu, funtsezko ezaugarri soziolinguistikoa ageri da nabarmen: Iparraldeko barnealde horretan, hegoaldean baino hagitz zehatzago, diglosia tradizionala indarrean dago XIX. mendearen erdialdean. Bertako euskaldunentzat oso zaila gertatzen zen, diglosia-giro horretan, frantsesez irakurtzen ikastea: «si el vulgo habla gascón la dificultad es grande, pero la singularidad del idioma vasco la agrava» (Lasa in Hourmat, 105). En el cantón de Tardets no encuentra «más de cuatro alcaldes capaces de comprender el francés» (Hourmat in Lasa, 105). »Apenas se puede creer que hay varios pueblos en los que no es posible encontrar una sola persona, exceptuado el maestro, que sepa escribir pasablemente; otros donde los alcaldes apenas saben trazar una firma informe, y en fin, que hay también pueblos en los que un viajero, que no hablara sino francés, estaría en la imposibilidad de hacerse entender a menos que no recurriera al cura» (Hourmat in Lasa, 116)... «Gravedad de la situación en Zuberoa y Baja Navarra» (Hourmat in Lasa, 119).

bestetik hiritarrena: hirietan bizi zirena edo, gutxienez, beren bizimoldean hiriko pautetara bilduz zihoazena. Kanpañako baserritarrak ezjakinak ziren bere ustez, jauntxoek eta apezek esanekoak, sinestea erlijio sainduan (ez liburuetan) zutenak. Aldiz hiritarrak (baita hiriko langile pobreak ere) eskolatuak ziren gutxi-asko eta, horri eskerrak, «jakitsu handi». Beren izpiritua ez zuten zenbait apezek erranez eta ele ederrez xinpletua: kazetak eta liburuak irakurri asko gauza ikasten zuten eta, horrela, beren buruaren jabe(ago) ziren (Etchenic 1871; deskribapen osoaz jabetzeko ikus 2. eranskina). Bazekien Etxenikek zer esaten zuen: progresu-aurrerakuntzaren ideologia nagusiek ez zuten, ikertzaile eta pentsalari sakonago askoren kasuan ere, oso bestelako emaitzarik eskaintzen: ikus, adibidez, Reclus (1867) eta Vinson (1991).

Deskribapen horretan ez zen, hasiera batean behintzat, bereizbide linguistikorik ageri: hiritar horiek frantsesez mintzo zirenik, eta baserritarrak euskaraz, ez zuten Etxenikek ez esan eta ez iradoki. Biak mintzo ziren euskaraz, 1850-70 epean: baserritarrak erabat edo ia erabat, hiritarrak ere bai ordea, hein batean bederen. Etnokulturaren beste zenbait osagai ere dikotomia horretatik salbu zeuden artean, itxuraz. Posible zen, oraindik, kalean bizi eta euskaraz jardutea. Laster hasiko ziren, ordea, kontu horiek aldatzen: euskaldun jator eta hiritar moderno izatea bateraezin bilakatu ziren hainbatentzat. Bietako bat aukeratu beharko zen handik aurrera.

## II.6. Bilakaera soziolinguistikoa

Frantsesaren zabalkunde edo *language spread* (57) garaia izan zen, bate-tik, Zaldubiren bizialdia. Partez kaskoinaren bizkar egin zuen frantsesak zabalkunde-*spread* hori: gutxitan ageri da garaiko testuetan, frantsesaren sarbide horrek luze-zabaleko mintzaldatzea eragin zuenik eta ordura arte euskaraz (euskara hutsean, nagusiki euskaraz) jardundako hitzun-taldeek (erabat edo nagusiki) frantsesera makurtu zutenik beren mintzajarduna. Izan ziren ordea halako kasuak ere, aurrerago aipatuko denez. Nolanahi ere, mintzaldatze hori aski nabarmena gertatu bide zen jardun-esparru jakinetan (eliza-kantiketan, adibidez, Hiriart-Urrutiren hitzetan esanik).

Hainbat aipamen dago han-hemen, Zaldubiren bizialdiko eskualdunen euskarazko konpetentzia linguistikoak, konkretuki mintzagaitasunak, gora ordez behera egin zuela aditzera ematen dutenak. Euskaldun elebakar izandako asko euskal-elebidun bihurtu ziren, eta beste asko erdal-elebidun: errazago moldatzen ziren frantsesez eskuaraz baino. Erdi eta goi-mailako ikasketak egindako, eta gero beren lanbidez (apaiz, mediku, notario, irakasle,..) harreman-sare interlinguistikoen orbitan murgildutako eskualdun askok (Broussain

(57) Terminologia-kontuez (batez ere *language-spread* edo hizkuntza-hedapen horren adieraz) ikus, esate baterako, Robert Cooper 1989.

batek, esate baterako) argi aitortu zuen hori (ikus aurrerago, txostenaren IV. atalean). Eskualdunak asko ziren Zaldubiren heriotza-garaian ere, Ipar Eskual herrian. Eskualdun horien eskualduntasuna ez zen, ordea, laurogei urte lehenagokoaren pareko, trinkotasunez eta bizi-indarrez.

Hiztun horien produkzioan, ahozkoan bereziki, gero eta nabarmenago agertu zen hizkuntza-interferentziaren eragina. Idazle bat baino gehiago dira hori aitortzen dutenak. Hiriart-Urruti dugu, agian, esplizituena eta, diogenaren haritik, fidagarrien dirudiena. Franximantezko eskuara da, bere hitzetan esanik, 1890etik aurrera gero eta nabariago antzematen dena. Hala da eta hiztunak beraiek, hainbat kasutan, ez dira interferentzia horiez jabetzen edo, jabetzen badira ere, Hiriart-Urrutik ez bezala aski naturaltasunez onartzen dituzte. Txostenaren IV. atalean helduko zaio bilakaera soziolinguistikoaren gaiari, esan bezala, zehatzago eta xeheago.

### III. ZALDUBIREN GARAIO EUSKALGINTZA: ZENBAIT EZAUGARRI

Berrikuntza horiek guztiek, jakina, eragin bizia izan zuten garai hartako euskalgintzan. Erdaraz antolaturik zetorren modernizazioari aurre egiteko indar handirik ez zutelarik, jatoriasun etnokulturalaren elaborazio sinbolikoa eta defentsa praktikoa hartu zuten euskaltzaleek helmuga: gurasoen eta arbasoen bizimodua hainbat gauzatan eredugarri hartuz, azken urteetako aldakuntza-giro bortitzari aurre egin eta lehengo gizarte-moldeari bere hartan eusten saiatzea. «Bere hartan» eustea edo, halakorik nekez erdiets zitekeenez bere osoan, «ahal zen guztia ahal zen neurrian» bizirik gordetzea. *Bizirik gordetze* horren elaborazio sinbolikoa eta defentsa praktikoa ahalik eta neurririk zabalenean, garaiko *establishment*-eskema nagusia itzulipurdikatu gabe, antolatu eta aktibatu nahi izan zuten Zaldubiren garaiko euskaltzaleek (58). Apaiz-jendeak, Ademak eta beste hainbatek, leku seinalea izan zuen ohiko euskal etnokultura bizirik gordetzeko saiakera horretan.

Askotan leporatu zaie euskaltzale haiei, «Antzinako gizarte» idealizatuaz liluraturik (liluratuegi, nolnahi ere) bizi izan zirela (59): lehengo egoera «on» hari bere hartan eustea (edota, are, beren gizaldiko gizarte-ur arreak iturri garbietara itzultzea) jartzen zutela helburu. Nostalgiaeren paradigmantik asko

(58) Ez da egia, iparraldeko euskaltzaleek beti eta nonahi horrela jokatu zutenik: Diharas-  
arri baten kasua konfliktuaren paradigmaren sartzen da bete-betean, ez sistema barruko agente-es-  
kemen onarpen otxanean. Joera nagusia ez zen, ordea, konfliktu bidezko hori izan. Errepublikak-  
rekiko etsaigoa ez zen, oraingoz dakigun neurrian, errient publikoek goi-agintarien babespean (eta,  
jakina, kontrako norabidean) praktikatzan zutena baino gordinagoa. Erljio kontuan ere, kasuan  
kasuko agente-hierarkiaren ildora bildu ziren neurrian, apez euskaltzaleen postura-hartzea sistema-  
arauen barnekoa izan zen nagusiki.

(59) Ikus, besteak beste, Goyhenetche 1993.



kostatu zitzaizela aldentzea (60), bai xede-asmoen formulazio orokorretan eta bai, dakigun neurri mugatuan, eguneroko praktikan. Egia da hori, neurri ohargarrian. Gizarte berriaren erabateko gaitzespen mingotsa ageri zen, askotan, euskaltzale haien artean gidari: ikus Frère Innocentius/Elizanburu eta, bereziki, bere ikasle izandako Hiriart-Urruti. Gizarte berriarekin bateragarri gerta zitekeen formulazio soziokultural handirik ez zuten, dakigularik, ondu. Arrazoiz esan liteke, alde horretatik, atzerakoi-kontserbadore-«zarrontzale» zirela (61).

Beldur naiz, ordea, epai horrek ez duela egia osoa bere aldeko. Orduko jarduna ez zen nostalgia-lanketa huts. Euskalgintza garatzeko hainbat elementu praktiko sortu zuten euskaltzale haiek. Gizarte berriaren teknikez (kazetaritzaz, eskolaz, euskaldungoaren mobilizazioaz) baliatzen saiatu ziren horretarako; lortu ere bai, hein batean. Nostalgia ez erortzeko, geroak argi azaldu duenez. Ehun urtetik gora iraun duten formulak, belaunaldi gazteak behin eta berriro erakarri dituztenak, nostalgia hutsaz haraindiko zerbaiten adierazgarri dira. Egungo egunean ere, gizartea hain errotik aldatu delarik nonahi, indarrean dago orduko euskalgintzaren zenbait kontzeptu eta jarraibide. Balioegiak dira beren ekarpenak, horrexegatik, nostalgia-kutsuaren eta atzerakoitasun itsuaren izenean besterik gabe gutxiesteko. Euskaltzaleon, eta oro har euskal kontuak tentuz landu nahi izaten ditugunon begirunea eta azterketa pausatua behintzat merezi dute. Merezki du, horregatik, Adema-Zaldu-biren bizialdiko (batez ere XIX. mendearen bigarren erdiko) euskalgintzaren ezaugarriak hurbilxeagotik aztertzea.

Goiko atalean azaldutako transformazioak hainbaten gogoko ziren: gizarte berria zekarten berekin, eta berritasun hori termino positiboetan bizi eta sentitzen zuten hainbat hiritarrek. Gizarte irekiagoa, lehenaren kate-mugetatik libragoia, instruituagoa, igualitarioagoa, demokratikoagoa, progresuaren ondarenez hornituagoa, atzematen zuten, eta horren aldeko ziren hirietako eta are kanpañako eskualdun asko. Guztiak ez ziren, ordea, progresu molde konkretu horren aldeko: irabazien ondoan galera ere atzematen zuten, eta galera hori progresua bera baino pisuagoa zela uste zuten hainbatek. Hots, beren gizarte molde ereduak gogoan hartuz aurrera ordez atzera ari zirela, oro har. Baziren, horien artean, progresuaren aurka zeudenak erabat: kalte handiak ikusten zizkioten aurrerapenari, eta mesede gutxi edo batere ez. Guztiak ez ziren, ordea, horrelakoak: horietariko asko ez zeuden berez progresuaren aurka. Bai, ordea, progresu molde horren aurka. Euskal gizartearen nortasun-osagarri soziokulturalak (euskal kultura eta, ororen buru, eskuara bera) era autorregulatuan bizirik mantentzeko eta belaunetara belaunetara transmititzeko aukerak murriz-

(60) Egiazko eskualdunaren paradigma indartzen den garaia dugu XIX. mendearen bigarren erdi hau.

(61) «Zarrontzale» diodanean garaiko (baina Bizkaiko, ez nonahiko) terminoak ari naiz noski baliatzen. Ikus Pablo Zamarripa abadearen jatorrizko formulazioa, *zaha+on+zale* segidatik eratorria.

tuz zihoazen progresu molde *horrekin*, eta *beste* aurrerabide bat nahiago zuketzen beraiek: progresua eta euskal jatortasun etnokulturala bateragarri, ez bateraezin, zituzkeen aurrerabidea. Urrunago zihoan, halere, beraien arteko zenbait: progresua bera, den modukoa dela, kaltegarri iruditzen zitzaion halakori: hobereana, bere ustean, oso-osoa lehenari eustea, ezer ukitu gabe. Besterik badirudi ere gutxienak ziren, ordea, halakoak: feminismoaren defentsa eta ekologiaren aldeko jarduera proaktiboa, baita langileentzako gizarte-segurantzaz edota erretreta-bideen eztabaida, bizi-bizirik zeuden eskualtzale-giro horretan. Lehenari bere huts-hutsean eustea ez baina jatortasun etnokulturala berritasun ekonoteknikoarekin beste era batean berrantolatzea zekarren, funtsean, ikuspegi horrek. Hori ezin da kontserbazio-formula hutsera mugatuz ongi tipifikatu.

Bazuten eskualtasunaren aldeko horiek guztiak, batzuek eta besteek, gauza bat amankomunean: *zerbait* egin beharra zegoen beren ustez, gizarte-urak gero eta okerragoko bidean joango ez baziren. Gizarte-atal mobilizatuak ziren gizatalde horiek guztiak, beste hitzetan esanik: *beste* bide baten alde zerbait egin beharra zegoela uste zuten eta hartan saiatzeko prest zeuden eliteak edo, sarriago, protoeliteak (elite-nahiak, kontraeliteak) genituen horiek.

Zer egin, ordea? Nork egin eta nola egin? Zertaz baliatu, egin nahi den hori egiteko? Galdera multzo horri erantzuten diote XIX. mendearen bigarren erdialdeko eskualzaleek Ipar Euskal herrian. Sortzen duten uste-jarduera-antolamendu-ekarpen multzoak gerora jaso du izena: euskalgintza. Zaldubiren garaiko euskalgintza.

Zer formulazioz balia gaitezke, Zaldubiren garaiko euskalgintza modu integratu samarez aztertzeko? Galdera horrek ez du, bistan da, erantzun objektibo bateraturik: era askotara analiza litezke fenomeno, prozesu edo gertakari sozialak, eta azterbide guztiak dira berez aizu. Ba al dago, halere, kanpoko saioetan dagoeneko probaturik den eta itxura bateko emaitzarik eskainirik duen azterbiderik? Hala balitz, ez ote luke merezi azterbide horretaz baliatu eta Zaldubiren garaiko euskalgintza ildo horretatik analizatzea? Baiezkoan nago ni, eta horren aldeko saioetxoak izan nahi luke gaurkoak.

Gure artean aipamen handirik jaso ez badu ere (62), garrantziko liburua paratu zuten Christina Bratt Paulston-ek eta G. Richard Tucker-ek 1997an: *The early days of sociolinguistics* (63). Bidegileei egindako elkarrizketen bidez argi azaltzen da bertan soziolinguistika-jakintza noiz-nola eratu zen formalki, 1964 inguruan (konbentzionalki, Indianako Bloomington-en). Jakintza-esparru

(62) Ez da hori, zoritxarrez, salbuespen larria: hizkuntza-soziologiaren alorrari dagokionez, atzerriko ekarpen gehienek aipamen gutxi, oro har apalak eta normalean berantiarak jaso ohi dituzte gure artean. Askoren ustean «rollo teorikoak» dira ekarpen horiek, «gure benetako problemak» konpontzeko balio handirik (edo inolako baliorik) gabeak. Alferrik izango da, honez gero, ikuspegi horren funtsezko okerraz eta bere ondorio kaltegarriez jardutea.

(63) Funtsezkoa da iturri hori, Soziolinguistikaren sorburuak ulertzeko.

hori handiki-soineko akademikoz nola jantzi zen eta ordutik hona, batez ere lehen hamarkadetan, zer garapen teoriko-enpiriko izan duen ere ganoraz aztertzen du liburu horrek: gaur egun oinarri-oinarrizkoak ditugun kontzeptu zenbait noiz-nola, eta noren eskutik, plazaratuak ditugun azaltzen du besteak beste, aski era atsegin eta konkretuan. Itxuraz elkarrizketa hutsak baditu ere liburuak lehengai, kontzeptu-sare argia dago elkarrizketa horien oinarrian. Sare horrek ematen dio lanari, punta-puntako elkarrizketatuen erantzun biziez gainera, aparteko argitasuna eta beharrezko sakonera. Zortzi puntuotan bildurik dago, labur esanik, Christina Bratt Paulston-en eta G. Richard Tucker-en kontzeptu-sarea: 1.-*Major initial schools of thought*, 2.-*Major players, pioneers*, 3.-*Major organizations*, 4.-*Influential meetings, seminars, colloquia*, 5.-*Influential courses*, 6.-*Most important publications*, 7.-*Most important concepts*, eta 8.-*Most important terminology*.

Antzeko kontzeptu-sareaz balia gaitzke gu ere, hoberik ezean, Zaldubiaren garaiko euskalgintzaz jabetzeko. Puntu horien (guztien edo gehienen) argitan azter dezakezu garai hartako euskalgintza. Gogoan izan bedi, berriro esanik, euskalgintzaz jarduterakoan batez ere 1850etik 1900era arteko ipar Euskal herria izango dela saiotoxo honetan aztergai (64). Orduko *Eskual herria*, eta hango *eskualduntasuna* zein *eskuara* bera.

### III.1. Asmo nagusiak

Euskalgintzaren berariazko xedea ahuldutako etnokultura indartu eta bere autorregulazio soziokulturalerako oinarriak sendotzea baldin bada, berehala mahaigaineratzen da galdera nagusia: zer egin behar da, euskara eta euskal kultura indarberritzeko? Galdera nagusi hori bakarra izanik ere, erantzuna ez zen orduan (eta ez da gaur) beti bat izan: alde handia zegoen batzuen eta besteen erantzunetan. Aurrerago zehaztuko diren zertzeladen kaltetan gabe, eta

---

(64) Praktikan ez dago, garai hartako euskalgintzari dagokionez, ipar eta hego Euskal herriaren artean erabateko etenik egiterik. Erraz emenda litezkeen adibide xume bi baizik ez aipatzeren, hegoaldeko Pello Errota izan zen Donibane Lohizuneko 1881eko Euskal Festetan bertsolari-lehiaketaren irabazle (Guilbeau alkate-medikuaz eta Elizanburu poetaz gainera, Jose Manterola donostiarra zen epai-mahaiko; ikus guztia in EGIPV, Literatura 1: 489); era berean, Victoriano Iraola izan zen 1894ko literatura-lehiaketaren irabazle, euskaltzale errepublikarren Hazparneko Euskal Festetan; Donostiako *Euskal-Erria* aldizkariak argitaratu zituen, gainera, lehiaketa hartan saria jasotako idazle guztien lanak. Ez zen salbuespena, inondik ere, Pello Errotak bertsogintzan eta Victoriano Iraolak literatura idatzian iparraldeko sari-lehiaketan parte hartu izana: bertsolari eta euskal idazle gehiago izan ziren, garai hartan, batera zein bestera mugaz gaindi jardundakoak. Mugaz gaindiko lotura horiek ez ziren, gainera, bertsolarien eta euskal idazleen artekoak bakarrik. Bidasoaz alde bietako gazte-jendearen aisialdiko harreman-bideez, kantu-dantzak eta pilota-jokoak barne, ikus adibidez Pierre Loti (2000). Pilota-partidek berariazko tradizioa zuten horretan. Oso zaila genuke, hor, ipar eta hego zorrotz bereiztea: tradizio luzea du alde bietako pilotarien norgehiagokak. *Agur jaunak* kantua dugu, besteak beste, tradizio zabal horren oihartzun eta emari (ikus Mujikaren Oñatiko Kongresuaren akta-idazkien sarrera).

labur zurrean gabiltzanez, honako bost atalotan bilduko nituzke orduko euskalgintzaren asmo-atal nagusiak: euskaldun-jendea iratzartzea, euskararen corpus-plangintza, hizkuntzen status-plangintza, eskola bidez frantsesa irakasteaz bat euskaraz alfabetatzea eta, azkenik, Euskal herriaren nortasun-lanketa. Ikus ditzagun bostak, urratsez urrats.

### III.1.1. Mobilizazio-lana: euskaldun-jendea iratzartzea

Beste era batera esanik, aktibazio eta mobilizazio etnokultural eta politiko-operatiboa. Erlijioa, frantses-hiritartasuna eta «herri xehe» izatearen sentiera *eskualdun* askoren ikur-lokarri bihurturik zeuden (edo bihurtzen hasi berri ziren) unean, «laugarren bidea» aldarrikatu zuen zenbait euskaltzalek: euskaltasun-sentiera arrunta sozialki aktibatzea. Aktibazio horrek osagai historiko (historizista) nabarmena zuen berekin, alde batetik. Euskal herriak bazuen (zazpi eskual herriek bazuten) «great past» ukazina: bagenuen, izan, guztiok elkartzten gintuen «broader unity» preziatua. Jakitera eman behar zen altxor hori, lehenik eta behin. Martin Hiribarrenen xedea, 1853an *Eskaldunak* liburua argitaratzean, garbi dago zein zen: irakurtzen zekiten euskaldunak (65) (eta, haien bidez, gainerakoak) geure iragan «handi-eder-zabal» horrezaz jabearaztea. Euskaldunak beren herri-nortasunaz harro sentiaraztea. Ikus, adibidez, liburuaren sarrerako bertsook:

Populu guzietan lurreko lehena / ezin jasan diteke gutien jakina:  
Iharrus, eskaldunak, zuen ilhunbeak, / abia ordu luke argien mendeak.

Bagenuen «great past», bagenuen «broader unity» (Fishman, 1973). Gauza bakarra falta zen: mendeetako utzikeriak hautsez estalirik zeukan altxorra garbitu, edertu eta jendartean agertzea. Eskualdunon hizkuntza eta etnizitatea (janzkerak, joko-jolasak, kantuak eta bertsoak, atsotitzak eta herritar xumeen eguneroko bizimoduaren beste hainbat arrasto) ez ziren hutsaren hurrengo: altxor handia ziren horiek, beste herritarrengandik argi bereizten gintuztenak eta eskualdun egiten. Galtzen utzi ordez ongi bildu, zaindu, garbitu, eguneratu eta aktibatu beharreko altxorra osatzen zuten euskarak eta euskal kulturak.

Bertako hizkuntzaren eta kulturaren edertasun gorde horiek bilatzen eta azaltzen zailak baldin baziren honetan edo hartan, asmazio-bidea bera ez zirudien halakoetan hain bekatu larri. Ez zirudien hain larri eta batek baino gehiagok, oparo aski, asmazio-bide horri ekin zion (Juaristi, 1987). Ez al zuten beste herriek ere, akaso, hori eta gehiago egiten nork bere

---

(65) Larramendiren, Astarloaren eta beste hainbaten kasuan ez bezala, bere liburu hori ez zegoen erdaldunei (bertako zein kanpoko erdaldunei) zuzendua. Alde handia dago horretan, oro har, hegoaldeko euskaltzale askoren joera nagusiarekin. Ez erabatekoa, halere: Iztueta baten euskal dantzak eta, bereziki, bere kondaira-liburua euskarazko etnokulturaren beraren barne-kontsumorako prestatuak zeuden.

etxean? (66) Altxor-bilaketa horretan aparteko lekua eskaini zitzaion, espero izatekoa zenez, hizkuntzari berari. Xaho baten hainbat saio bide horretan barrena joan ziren. Ez nolana, halere, ebidentzia argia eta asmazio neurrigabea zaku berean sartuz baizik, behin baino gehiagotan.

Euskalgintza osoa ez zen, halere, asmazioaren morroi. Hizkuntzaren barne-egitura lantzeari dagokionean, adibidez, dokumentu-oinarri sendoan zentratutako altxor-bilaketa indartu eta nagusitu zen pausoz pauso. Halako bilatzailea genuen, esate baterako, Emmanuel Intxauspe euskal aditzaari zegokionez. Euskararen altxor-izaera azaltzeko orduan aparteko eragina izan zuen 1858ko bere ikerlanak (67). Hizkuntzaren ahalmen betea iradokitzen zuen bere azterketak: euskal aditza, eta horrenbestez aditz horretaz baliatzen zen hiztun-elkarte, ez ziren elementu xaharkitu-traskilak, abstrakzio-maila handiko, barne-logika oparoko eta garapen-aukera zabaleko konstelazioak baizik. Mobilizazio soziokulturalaren lagungarri gertatu zen aditz-morfologia harrigarri hura han-hemengo jakitunen forora agertzeak: baginen nor, eta bidezkoa zen geure ondare horretaz harro izatea eta harrotasun horren ildotik geure gauzak babesten eta onbideratzen saiatzea. Diskurtso-lanketa horretan gogotik saiatu zen Intxauspe, oso bere modura izanik ere, Iparraldeko beste hainbat euskaltzalerekin batera. Iritzi-lanketa hori ez zen euskalarien jakituriazko auzi-kontu huts. Bazuen horrek aski ondorio praktikorik gizarte-bizitza zabalean ere.

Zenbaitentzat hizkuntza elbarria zen euskara. Elbarritasun-ikuspegiari oinarritzen zirenen esanean, *bere baitako motiboek hartaraturik* zetorren eskuara gainbehera. Gizarte berriaren eskakizunetarako berez balio ezin zuelako ari zen hiztunen ezpainetatik galtzen. Horrelako ikuspegiak azaltzen hasia zen zenbait pentsalari edo aditu. Ahuldu ordez indartzen ari zen gainera irizpide hori (68), Euskal herrian ere. Ikuspegi horren aurrez aurre, euskararen bere baitako ahalmen eta perfekzio nabarmenen diskurtsoa eraiki zuen Intxauspe (69). Euskararen dignifikazio (zenbait aldiz magnifikazio) intralinguistikoa

---

(66) Galdera honen erantzuna badakigu, jakin, baiezkoa dela. Baiezko biribila, ez nolabait: guk baino dokumentu-oinarri aberatsagoa eta buru-langile akademiko ongi hornituriko *Establishment* zabala zuten hiztun-herri indartsuen kasuan ere bere lekua zuen asmazioak. Alde horretatik ez zitzairen arrazoirik falta, asmaziozko *lehenaldi ederraren* sortzailei. Oker zebiltzan, halere, funtsezko puntuan: besteen makurrak ezin du, izan ere, gure okerra zuzendu. Gertaera biak (asmazioaren izaera orotarikoa eta oinarri objektiborik eza) izan behar dira kontuan, itxurazko epairik eman nahi bazaio tradizio-asmakuntzaren kontuari. Iparraldeko euskalgintzak, dena den, hegoaldekoak baino leku murriztagoia eskaini zion asmatze-lan horri: joera nagusiaren salbuespenetik hurbilago dabil Xaho, iparraldeko asmatzaile gorena, arau nagusitik baino. Altabizkarko kantuaren kasuan bezala sasi-aurkikuntzarik egin zenean, gainera, bertako euskaltzaleen baitarik bertatik irten zen, berehala, gezurraren salatari irmoa: Abbadiak berak, ingelesez egindako oharrean, eman zuen berehala faltsifikazioaren berri (ikus Urkizu, 1997b: 436).

(67) Emmanuel Inchauspé, 1858.

(68) Kontuok perspektiba zabalagoan txertatzeko funtsezkoak dira, gure arteko lanei dagokienez, Beñat Oihartzabalen azken aldikook: Oyharçabal 2006a eta 2006b.

(69) Horretan ezin liteke, jakina, erabateko berritasunez hitz egin. Hegoaldean bederen bagenuen, Larramendiz geroz, euskararen bere baitako ondasun-edertasunen argudio-oinarri eta

eragin zuen horrela. Eskuara galduz baldin bazihoan ezin esan zitekeen, horra bere argudio-lerro nagusia, hizkuntzaren barne-eskasiagatik galtzen ari zenik; beste motibo batzuegatik ariko zen galtzen, ez elbarritasun horregatik. Barne-zintasanaren antitetikoa genuen, funtsean, bere duintasun-bilaketa hura (70). Honako hauek irakur litezke, horrela, Emmanuel Intxauseren *Le Verbe Basque*-ren hitzaurrean: «La langue des Basques, cette langue si étrange, si originale, si harmonieuse et si merveilleusement conservée (...): semblable à ces gigantesques Pyramides de l'Orient, témoins de la puissance passée d'un grand peuple» (cf. aurrerago *glorious past*). Mais ce n'est pas seulement son antiquité et la merveille de sa conservation; ce n'est pas seulement son originalité et l'harmonie de ses termes qui doivent recommander la langue basque à l'attention des savants. Sa beauté intrinsèque, la perfection de son organisme, l'unité et la simplicité qui ont présidé à sa construction; et en même temps les grandes et majestueuses proportions de son architecture, la richesse de ses formes et sa merveilleuse flexibilité, voilà les caractères dont elle s'enorgueillit, voilà les titres qu'elle présente au jugement du linguiste et du philosophe, pour réclamer son rang parmi les premières langues du monde». Bereak ditugu, aurreko argudio horiek aski ez bailiran, etnozentrismo zorrotzeko beste azalpenok ere: «Si on doit juger de la perfection d'une langue par la simplicité de son mécanisme et par les ressources qu'elle possède pour rendre avec clarté, avec justesse et avec facilité toutes les nuances de la pensée humaine, nous osons douter qu'aucune langue puisse entrer en comparaison avec la langue basque» (71).

Euskalarien eta euskaltzaleen iratzartze-asmo hori ez zen mugatzen, bestalde, euskaldunak beren izate bereziaz jakitun bihurtzera eta harro sentiaraztera. Iratzartze-lanean ari zen hainbatek bazuen, horrezaz gainera, aplikazio-asmo hurbilagorik: hauteskunde bidezko parte-hartzea zabaltzen ari zenez Frantzia osoan, herritarren parte-hartze hori norabide jakinera makurtu nahi zuen zenbaitek. Beltzuntzeko kondea eta Hiribarren apheza ez dira iratzartze-lan horren lehen orduko adibide okerrenak. Lehenengoaren 1852ko *Notice en*

---

tradizio zabal jakina. Tradizio horri egunean eguneko zurkaitz-elementuak erantsi zitzaizkion ordea, 1850etik aurrera, Iparraldean: bai atzerriko euskalarien eskutik eta bai, bereziki, Intxauseren 1858ko *Le verbe basque* delakoaz.

(70) Funtsezkoa zen hori, corpus-plangintzak eta, azken batean, euskalgintza osoak zentzurik izango bazuen: ezertarako balio ez duen tresna konpontzen eta zorrotzen jarduteak ez du ez buru eta ez hanka.

(71) Ulertzen (hots, bere asmo-unibertsoan kokatzen) hain errazak ez diren baina atentzio berezia zor zaien esaldiok ere bertakoak dira. Aditz-jainkoarekin hizketan ari delarik honela dio Intxauspek: «ô Verbe Eternel, (...) je vous adore. Est-ce à sa fidélité au culte du vrai Dieu que le peuple Basque doit de les avoir mieux conservés que tous les autres peuples du monde? Nous aimons à le croire. Verbe incarné, Lumière du monde, faites (...) que le peuple Basque, qui semble avoir conservé avec vous des liens plus étroits, soit constant à marcher à la lumière de votre parole; que toujours il garde sa foi et sa langue». *Euskaldun-fededun* paradigmaman txertatze-koak direnik ez dago duda handirik. Hori baino urrunagoko planteamendu baten aztarnak antze-man litezkeela bertan esango nuke, halere.

*faveur de la langue basque* eta bigarrenaren Euskal Festetako zenbait bertso (72), partez bederen, mobilizazio instituzionalaren orbitan koka litezke: euskarari eta euskal kulturari buruzko jakintza-sailean ez baina euskaldun-jendearen gizarte-bizitza arruntean eragitea zuten saio horiek helburu. Bazuten noski, bai Beltzuntzek eta bai Hiribarrenek, esparru horretan bide-erakusle argirik: Agosti Xaho. Zuberotarra dugu, erabilitako dokumentazioaren argitan, aktibazio-lan etnokulturala politikagintza jakinarekin (73) ezkontzen eta bateratzen berariaz saiaturako lehena. Lehena eta, oro har, 1870 ingurura arte nabarmenena (74).

Euskaltasuna gero eta maizago instrumentatu zen ipar Euskal herrian, hauteskunde-alorrean. Ez elementu nagusi gisa gehienetan, are gutxiago elementu bakar bihurturik. Bai, ordea, funtsezko osagai moduan. Euskara eta kristautasuna euskal etnokulturaren oinarri proklamatu ziren sarri, eta euskalgintzaren adar bat (gehienetan, baina ez beti, eskuinaldeko politika) bertako euskaltzale-jendearekin hertsiki loturik agertuz joan zen. Euskaldun-jendea gizarte-molde «jakin» baten alde iratzartzeko ekimen antolatua bihurtu zen horrela, gero eta nabarmenago, XIX. mendearen bigarren erdialdeko saioa. «Egiatzko eskualdunok» geure, ez besteren, on beharrez elkar hartuz «zerbait» egin beharra (75) argudiatu zen jendaurrean, eta argudio horren ondorio jakinak luze-zabal aplikatzen hasi. «Geure» on beharrez eta elkar hartuz «zerbait» egin behar hori ekintza-plan zabalagoan txertatu nahi izan zen. Planteamendu berria zen hori, berez: idazle bakan batzuen jardunetik jendartera hedatzen hasitako planteamendua (76).

Bete-betean sartu zen gure Adema-Zaldubi iratzartze-lan politiko-operatibo horretan. Leku zentrala izan zuen horretan Ademak, bai 1870 hamarkadan

---

(72) Ikus, esate baterako, 1862an Urruñako Euskal Festetan aipamena jasotako «Herriko Biltzarraren gainean» bertso-sail luzea (Urkizu, 1997c: 192-4). Zail gertatzen da orain, aparteko jakin-iturririk gabe, *Eskaldunak* liburuko iratzartze-asmu globala salaketa-bertso konkretu horiekin lotzea. Bistan da oraingoan ez dela «garai bateko kontu xahar maitagarri»ez ari, oso gertaera konkretuez baizik. Zailtasuna gurea da ordea, ez berea: hori onartzetik abiatu beharko genuke, gauzak bihar-etzi hobeto ententitu ahal izateko.

(73) Zail da Agosti Xahok aktibazio-lan etnokulturala politikagintza jakinarekin nola ezkondu nahi izan zuen hitz bitan esatea. Bistan da errepublika bidezko gizarte-berrikuntza zuela jomuga iparralderako, franko-konformismo aitortuaren orbitan; burujabetasun-asmoeekin errazago ezkontzen ziren, aitzitik, hegoaldeari buruz ageri zituen iritzi-jarrerak.

(74) 1848tik 1852ra arteko bere jarduna nekez esplikatu liteke atalbiko ikusmolde hori gabe. Lehendik ere euskal izatearen zentraltasuna aldarrikatzen jarduna zen Xaho, bere kazetari-lanaz batez ere, hainbat urtez. Hain orientazio operatibo hurbilik ez izan arren zentraltasun hori azpimarratzen zuten orobat Beltzuntzek, Hiribarrenek eta beste zenbaitek beren idazkietan.

(75) Zerbait egin beharra eta ustez oker dabilen kargudunari jendaurrean kontuak eskatzea. Gauza berria da hori: handik aurrera zabalduz joango den berritasuna. «Ancien Régime» delakoa etnokulturalki bizien diruditen herri-herrixketan bertan gainbehera datorren seinale.

(76) Hegoaldean iritsi zuen agian, 50eko hamarkada hartan, euskal izatearen kontzientzia jendartera hedatzeko joera horrek bere gailurra. Iparragirrerren *Gernikako Arbola* mobilizazio-tresna bildurgarria zen, orain harrigarri samarra iruditzen bazaigu ere. Iparraldean bertan bere oihartzuna izana du Iparragirre: Larresoron, besteak beste.

eta bai 1891-93 tartean. Konbentzituia zegoen bertako hizkuntza eta etnizitatea altxor preziatua zirela, altxor hori galtzeko arriskuan zegoela eta bizirik atxikitzeko saioak on zirela eta zilegi. Arriskuaren izaeran zegoen, bere (eta, bere ondoan, beste askoren) ustez, benetako gakoa: 1871tik aurrera eratu zen gobernamendu-moldea, Errepublikak, hori zen eskualduntasunaren benetako etsai. Eskualdun-jendeak, bertako hizkuntza eta etnizitatea ongien eta bizien atxikitzen zuenak, galera baizik ez zuen. Kaltegarria zen aginte molde hori Eskual herri(eta)rako, eta aurre egin behar zitzaion. Eskualdun-jendea iratzarri egin behar zen politikoki, kaltearen izaera eta izaria esplikatuz egin behar zitzaion. Berak ongien zekien bidea aukeratu zuen horretarako: irri-bertsuak egin zituen Errepublikaren eta, oro har, gobernamendu-sistema berriak berekin zekartzan aldaketa jakinen kontra. Sarkasmo handiz, halakoetan ohi den proportzio-falta nabarmenez, jokatu zuen behin baino gehiagotan. Horrek egin zuen Zaldubi, lehenaz gain, ezagun eta famatu: goraipamen biziak jaso zituen alde batetik, eta gaitzespen mingotsak bestetik.

Abbadiaren bertsu-guduak eta, oro har, Zubernoako jaunaren lore Jokoa edo Euskal Festak izan ziren bere ziri-bertso gehienek agerleku (77). Horrelakoak dira, esate baterako, *Betirisants* izeneko kantu poemikoak: miseriaren alegoria gisa erabilia zuen gaztaroan (1846an) *Betirisants* terminoa. Hitz hori berpiztuz, erabat adiera eta xede berria eman zion bertso hauetan: miseria gorriarekin identifikatu zuen III. Errepublika sorberria. Hona 1871ko *Betirisants*-en bostgarren, seigarren eta zazpigarren bertsoak (guztira hamar):

Betirisantsen politika./Bera laxo, bertzeak tinka;	Betirisanstarren Jainkoa / Da mundu huntako gozoa,
Gero «Bibe la liberté» errepika./ Jendea dabilka	Erlisione libro eta lazoa, / Aphez gabekoa,
Tiraka, purtzika./ Legar eta lege berri ukhaldika.	Erran gabe doa, / Gure xakurrarena bezalakoa,
Nagusi nahiz, oro gaindizka, / Bainan oro ezin aldzika.	Gerokotzat bego geroa:/ bainan damurik herioa
Diote hori dela Errepublika. / Diote hori dela Errepublika.	hoieri ere zaiote jin gogoa / hoieri ere zaiote jin gogoa.

Betirisantsen soldaduak, / Framazon beltzak deituak,  
 Non-nahi zaizkigu nagusi pharatuak./ Zer nahasmenduak,  
 Kalteak, gastuak, / Derakhartzken hoiern gobernamenduak!  
 Jainkorik ez nahiz munduak/ Jabe hoiek ditik hartuak.  
 Ez dik gaizki irri egiten debruak./ Ez dik gaizki irri egiten debruak.

Bazuen Zaldubik hori baino gogorragorik ere esanik, Errepublikaren hasiarri ideologikoen kontra. Honako hau, esate baterako:

Liberté, Egalité eta Fraternité  
 Ah! Hiru gezur hoiek egiak balite!  
 Ai, ai, ai mutilla, egiak balite!

Bere deliberamenduz, edo norbaitek espreski agindurik, alde batera utzi zituen irri-bertso kontuak une batetik aurrera. Uste izatekoa da, bazterretan

(77) Lore Jokoetara izengoitiz agertzen zen. Hona zenbait: *Hergaraya*, *Senperetarra*, *Uxaleguy*, *Zalduby Artzain Beltcha* (KN, 7).



harrotutako hautsak zirela medio emango zuela pauso hori. Produkzio idatzitari dagokionez Ademaren faserik klerikalistena zabaldu zen orduan, hegoaldeko (geroxeagoko) «Kristo gure errege»ren orbitara hegaldatuz nabarmen. Honela zioen 1877n: «Arren cer gozo secular ecin ahantcia, gur Aita Saindu miragarriaren icustea! (...) Non da erregeric bere manupecoez hala maitaturic?» «Cer canore luke, Aita Saindua balitz bertce munduco errege baten azpico?...Cer irriac ez lituzke merechi holaco majestate bat baino gorago jar uste lukeen printceac?» «Horra certaco aita Saindua ez diteken izan bere munduco bereco erregetasun bat gabe». (Adema 1877, 48-9)

Ez zegoen hitz lauuko horretan, ez eta prosaz zein bertsoz garai hartan kaleratu zituen horren antzekoetan, euskalgintzarekin lotuko zuen formulazio handirik. Jakin ere badakigu gainera, orduko bere gidaliburua irakurrita, Elizaren (batez ere Aita Santuaren) ongia eta lehentasuna zituela une horretan kantagai nagusi. Jakin ere badakigu, bestalde, Elizaren goi-agintean antolatutako peleginaia haietarako sortu zuela liburua, eta hartarako (enkarguz?) paratuak zituela antza, Zaldubik, hitz lau eta kantika haiek. Labor bilduz: elizgizon izanik, eta bertso-paratzaile iaio, Erromako elizak eta Estatu frantsesak une hartan eskuartean zuten eztabaida gordinean Erromaren argudio-bideen eskumutil fermu agertu zen Zaldubi. Zer-esan txikia zuen une hartan, agirien bederen, eskualtzaletasunak.

Bazuen ordea izan, orduan ere, zerikusirik: *euskaldun-fededun* binomio ezin-hautsizkoaren defendatzaile sutsu zen Zaldubi, eta fedea defenditzen zuenean euskaltzaletasuna ere defenditu nahian ari zen. Ez nolanhiko euskaltasuna, jakina, oso molde jakinekoa baizik: Frantziako postulatu erregetiar-eliztiar-«zarrantzale»-xurien markoarekin bateragarri, eta haren laguntzaile, izan zitekeen euskaltasuna. Eliza zen une horretan Zaldubiren bertso-idearioan nagusi. Eliza eta Frantzia katoliko ongilea.

1891-93 tartean hasi zen Adema, berriro, plazagizon polemiko gisa jendaurrera agertzen (78). 1892tik aurrera zabaldu zen halere bere fama, mugaz alde bietako euskaltzaleen artean, *Gauden gu eskualdun* bertso-kantuaz. Euskaltzaleen himnoa bilakatu zen berehala (79). Hori izan zen, dudarik gabe, euskaldun-jendea euskalgintzara iratzartzeko Zaldubik inoiz paratu izan zuen tresnarik bizkorrena. Ez, ordea, bakarra. Lehendik ere bazituen senperrak, ohiko bere modu grafikoan, euskaltasunaren bere ustezko kalte-iturri nagusiak seinatuak. Ondoko hauek, bereziki:

(78) *La Semaine de Bayonne* astekari eskuindarrean (Zaldubik?) plazaratu artikulu batek Atharratzeko hautetsia sutan eman zuen eta 1891ko-VII-17ko Eskualduneari ihardoki zion, pertsonalki laidoztatuz. Zahartzearekin, jitezko malgutasuna higatu ote zitzaion? Ala kanbiamenduen errotaren indarrari kontra egiteko asmoz, erradikalago bihurtu zen?

(79) Ademaren kantu ezagun horretan ere ukazina da *Gernikako arbolaren* eragina: «Haritz eder bat bada gure mendietan / Zazpi adarrez dena zabaltzen airetan / Frantzian, Espainian, bi alderdietan / Hemen hiru ta han lau, bat da zazpitan».

- a) *Hizkuntza-ukipenaren ondorioz mintzaldatzea*: eskualdunek beren odolari uko egitea zen hori (AB, 108):

eskualdunek arrotzekin / ahanztea eskuara,  
 odolari hori berdin / ukho egitea da.  
 Gauden erne sar ez dadin / ahalke hori gutara.  
 Ez bahu traba arrotzik / zer egin hiro? Errak (AB, 108).

- b) *Modernizazio soziokultural eta ekonoteknikoa*:

Lehengo denboretan ez zela deus onik, / maiz aditzen dena da gazte hoiengatik.  
 Xaharra naizelakotz erran gogo dut nik, / oraikoez badenez errenkuradunik.  
 Diote berthutea, fedea, odola, / oraiko jendeari guttito zaizkola.  
 Hobe omen da orai xikana, eskola, / bakhotxa bere eta bertzez ez axola.  
 Leheneko mendetan hau zen, hau, zuzena:/ denek ohoratzea berthute zuena.  
 Orai zer-nahi bidez gora heltzen dena,/ hainitzen agurretan omen da lehena

*Mende jende mendre (1882)*

- c) *Lanbide-egitura berria*:

Beren herritik asko doazi hor hara,  
 hiri 'ta gobernuko enplegu hoitara,  
 Hetan sartuz geroztik, zer beldur ikhara!..  
 Behar ordutan ere maiz ezin aldera.

**KN: 130**

- d) *Nolanahiko diru-gosea*:

Aspaldiko leloa zuen hau Zaldubik. Ikus, esate baterako, 1854ko *Ameriketarako bidean*:

Aberastu nahi naiz, bainan  
 zuzenez eta ohorezki:  
 Herrirat heltzen naizenean,  
 dirudun fama ez zait aski.

Bide beretik segitu zuen gero ere. Ikus 1880ko *Pattin dirudun ez fededun* (KN: 156):

Pattin aberasteak hola badu jaundu, Nola gerthatzen zaio ez baita gizondu? Gristino legea utzirik omen du;... Bihotza nekhez dio diru hutsak ondu. Pattiren balentria, herrirat jin eta, Gur'erlisioneaz maiz trufatzen baita. «jainko legea, Pattin, ez dirozu maita; Huni ihes baitzare ibili sokseta»	Eskola guttirekin joan bezala jinik, Bera beizik ez zaio nihor jakintsunik: «aphez hoiek bezenbat, dio, badakit nik; Ez zazuela sinhets hoikien erranik.» Urrundik jin hoieri gauden beha orai, Gu bezala fededun diren, ez edo bai; Eia gure agurren hartzeko diren gai, Zer othe dituzkegun, anai ala etsai
---	--

Gizarte-aldaketa (erlijio tradizionalaren indargaltze soziologikoa, *Gemeinschaft*-etik *Gesellschaft*-erako jauzia eta *status adskribatu/bereganatu* dikotomian gertatzen ari zen batetik besterako eskualdatzea) negatiboki balo-

ratzen zuen Zaldubik (KN, 1991: 149-50). Ikusmolde hori zuen Zaldubik, bere garaiko beste hainbatek bezala: gizarte immobilizatu, laborantzaren zentraltasunean sostengatua, bertutea eta apaiz-jendea goi-mailan atxikiko zuena, aldi berean frantses konbentzitu eta behinolako Euskal herri zabal-noblearen mirsle, fededun zintzo eta egiazko eskualdun. Ideia horien inguruan saiatu zen Zaldubi bere garaiko eskualdunak iratzartzen, ustez beren on beharrezko xedeen jakitun egiten eta, hartarako, bertsoa lagun politikoki aktibatzen. Aski beste bidetik joan ziren kontuak, aurrerago ikusiko dugunez. Gizonari bere itzala eta begirunea zor zaionez gauzak bere neurri horretan azaltzea komeni da ordea, nolana ere (80).

Izan zuen Zaldubik, mobilizazio-lan horretan, aurrez aurreko (nahiz ez, itxuraz, hain fama zabaleko) euskaltzale modernizatu(ago)rik. Hor sartzekoa da, esate baterako, Etxenik. Aski era pausatuan, xurien eta gorrien abiaburuak, ikusmoldeak eta oinarriak kantuz ematen ahalegindu zen bera. Idazki honen bigarren eranskinean azaltzen da bere saio hura. Oso kontuan hartzekoa da Etxeniken eta bere moduko jarrera, garai hartako esan-eginen balantze orekatua egingo bada. Gauza bat dago, nolana ere, argi: euskalgintzaren aldeko politikak (espultzatuak edo implizituak) hobesten, eta haien aldeko aldarrikapen publikoa egiten, hasi zen eskualdun-jendea mende-erdi horretan.

Jauzi hori ez da gutxiesteko pausoa (81), mende-erdi horretako euskalgintza ongi ulertu nahi bada. Ustez euskal etnokultura bizirik gordeko zuen politika-bideak hobesten hasi zen euskaltzale-jendea, ezker eta, batez ere, eskuin (82). Etnokultura horri bizia opa zitzaion etorkizunean, eta horren barruan «bere lekua» zuen euskarak. Ikur-proklama gehienak atzera begirakoak izan arren, gerora begira ari zen euskaltzale-jende hori, bere eguneroko ekine-

---

(80) Zaldubiz ari garelarik, bere mobilizazio-lana hartu dugu mintzagai nagusi. Ezin esan gabe utz liteke, ordea, beste hainbat euskaltzale ere nabarmendu zela alor horretan. Batez ere Laurent Diharasari, Jean Pierre Arbelbide eta Michel Elizanburu 1889-90 inguruan eta azken unean, mende bukaeran edo mende berriaren hasieran, Jean Hiriart Urruti. Luze hitz egingo dugu horiez gehienez, aurrerago.

(81) Anton Abbadiá baten eta beste hainbaten garrantziaz nekez jabe gaitzke, jauzi hori kontuan hartzen ez bada. Erraz da, nola ez, hartutako neurrien apalaz eta, inoiz, neurri sendorik hartzeko ausardarik ezaz jardutea: egiaren erdiaz ahazten gara, ordea, hala egitean. Ez da hori biderik hoberena gure aurrekoen azterketa pausatutik, ez egungo egunerako errezeta «prêt-à porter» merkerik, eskuratu nahi duenarentzat.

(82) Euskaltzaleen ezker-eskuin arteko tentsio hori Abbadiaren Euskal Festa «xuri»en eta Guilbeau medikuaren Euskal Festa «gorri»en artean konkretatu izan da maiz. Badago hartarako motiborik aski, 1872tik aurrera eta, bereziki, 1892tik 97ra bitarteko epean. Mende-erdiko perspektiba zabalari heldu nahi badiogu, aldiz, ez dut uste hori denik adibiderik argiena. Abbadiaren Euskal Festetan bertan, behin baino gehiagotan agertu izan ziren ikuspegi biak, alde batekoen ziri-bertso moduan edo, are, bertsogile beraren alde bietako ikuspegien norgehiagoka bizian. Idazlan honen 2. eranskinean datorren Etxenikeren 1871ko bertsoa (Jean Etchenic, 1871) da, agian, diodanaren adibiderik egokiena. Euskaltzaleen eta xurien arteko korrelazioa ez zen inoiz, dakigun neurrian, erabatekoa izan. Askok dio, ordea, xurien alde makurtzen zela oro har euskaltzale-jendea: euskaltzale buruzagiak bereziki. Azterketa sakonik ezagutzen ez badut ere gai horrezaz, irakurritatik badirudi egia dela baieztapen hori. Merezi luke, halere, sakonago aztertzea.

an (83). Aurrera begirako jarduera horretan, berriz, ahozko jardunetik idatziz-kora ere pasa beharra ikusten zen *eskuara*. Hizkuntza idatzia oinarri hartuz, aurrez aurreko harreman-sare ohikoetatik harantzagoko zabalkunde-zirkuituak eratzea. Ordura arteko eskual mintzaira arrunta, lekuan lekuko eta hitzezko jardunera mugaturiko aldaera-sorta, harreman-sare, jardungune eta eginkizun berrietarako egokitzea eskatzen zuen berrikuntza horrek, batetik, eta idatzizko zereginak berezkoa duten unformatze-bidera ekartzen hastea, bestetik. Hots, eskuararen *corpus-plangintza* egokia osatzea.

### III.1.2. *Hizkuntzaren corpus-plangintza*

XIX. mendearen bigarren erdian aparteko saioa egin zen hizkuntzaren barne-egitura jasotzen, aztertzen, ahoz eta idatziz lantzen eta bere kode idatzia gizarte-eginkizun berrietarako egokitzen. Lanketa literario zabala jaso zuen euskarak, mende-erdi horretan: idazle-kopuruz eta gaien aniztasunaz ordura arte baino hagitz zabalagoa. Idazle klasikoak (berr)argitaratzen ere lan handia egin zen (84). Urtero neurtitz-lehiaketak eratuz eta lan hoberenak argitara emanez irakurle-multzo zabala eratu zen orobat. Azkenik, eta hori dugu atal honetan aztergai nagusi, hizkuntza idatzia kodeztatze ahalegin handia egin zen: euskara eder-egoki-zuzenaren paradigma berria eraiki nahi izan zen, hartarako ortografia berria adostuz (85), hiztegiak paratuz (86), gramatikazko azalpen zehatz eta sakonak eratuz... Ezin ukatuzko pausoak eman ziren Iparraldean, mende-erdi horretan, corpus-plangintzaren *codification*-alorrean. Baita *implementation stage* delakoan ere, eliza-liburuak, urte-kari-astekariak, kantu-liburuak eta bestelako *Zweckprosa* xumea sortuz eta zabalduz (87). Iparraldeko corpus-plangintzaren atzetik ibili ginen hegoaldeko, hizkuntzaren batasun-lanei dagokienez, 1880 ingurura arte bederen (88).

(83) Erabateko kontraesana dirudien hori Fishmanek du, inork baino zorrotzago dakidalarik, aztertua. Ikus, bereziki, *Language and Nationalism* (Fishman, 1973) eta *Ideology, society and language. The Odyssey of Nathan Birnbaum* (Fishman, 1987).

(84) Edward Spencer Dodgson-i aparteko lekua dagokio eginkizun horretan. Ez zen bakarra izan, ordea, bere lanean.

(85) Ortografia bateratzeko ahalegin haien sintesi-azalpen hobereana Koldo Zuazorena da orain ere (Zuazo, 1988).

(86) Gutxitan ordea argitaratu ziren hiztegi-lan horiek, eta orduan ere ez beti osorik.

(87) *Zweckprosa* delakoaz ikus Heinz Kloss, 1952. *Escaldun cocinerra* modukoak betebetan sartzen dira, jakina, garai hartako *Zweckprosaren* alorrean.

(88) Jose Manterola izan zen hegoaldean, 80ko hamarkadaren hasiera-hasieran, desoreka hori berdintzen saio praktikorik handiena egin zuena. Jose Ignazio Aranaren zubi-lanaren ondoan, 90eko hamarkadaren erdialdean, hasi zen iparraldeko nagusitasun hori inbertitzen. Gero ere, 1930era arte, (*Eskualdunaren* tradizio luzezabalaz, 1911tik 14rako saio akademikoaz (*Cercle d'Études Euskariennes*), Euskaltzaindiaren hasierako eztabaidetan eta azkenik, Henri Gavel zela medio, 1919ko idaztaraueri eginiko egokitzapenetan, iparraldeko «jakituria» hura funtsezko osagai izan zen euskal ortografiaren bateratze-bidean.

Inon euskararen corpus-plangintzaren zantzuak bere osoan antzeman balitezke XIX. mendean, ortografia-lanketan egin liteke antzemate hori. Aurrez aurre, zehazki eta luzaro ikertu zen «euskal ortografia»: jendaurrean eztabaidatu, alternatiba konkreturik proposatu eta, zenbait kasutan, oparo landu. Lehendik zetorren kezka bizia, euskarari «bere» idazkera bilatu eta zabaltzekoa. Martin Duhalderen 1809ko *Meditacioneac*, Darrigolen 1827ko formulazio esplizitua, Agosti Xahoren (eta, dagokion neurrian) Anton Abbadiaren 1836ko gramatika eta Jauretzeren 1838ko saio praktikoa (89) aurrekari garrantzitsuak izanak ziren euskal idazkeraren batasun-bilaketa horretan (90). Proposamen horien oinarrian, era batera edo bestera, hiru irizpideok ari ziren nagusitzen: a) exonormatibismoaren gaitzespena (91); b) euskarazko letra-hotsen arteko biunibokotasuna lege-arau bihurtzea, eta c) euskal hiztun-elkarte osorako balio izango zuen ortografia-sistema bakarra hobestea.

Proposamen partikularretik jendaurreko eztabaidara eta jendarteko onarpen-mailara jauzi egin gabe ez da ordea, normalean, grafizazioaren alorrean kodeztatze-lan osaturik eskuratzen. XIX. mendearen bigarren erdialdean egin zen, batez ere, jendaurreko eta jendarteko jauzi hori. 1850eko hamarkada izan zen, dakigunez, pauso handi horren atariko: hori izan zen euskal ortografia lehen aldiz jendaurrean eztabaidatu, adituen artean adostu eta jendartean lantzen hasi zen garaia. Eztabaida-lekua, berriz, ipar Euskal herria izan genuen. Agosti Xahoz eta Martin Hiribarrenez aparte, eta bi horien gainetik, Bonaparte printzea eta bere lankide hurbilak (batez ere Emmanuel Intxauspe eta Jean Duvoisin) izan ziren protagonista nagusi (92). Aurkako joera defenditu zuten, bistan denez, batak (Intxauspek) eta besteak (Duvoisinek): ohiko grafia-sistemari eusten eta, eliza-liburuaren bidez, indartzen ahalegindu zen San Leon ospitale zibileko kapilaua, aurrerantzean Baionako elizbarrutiaren idazkari nagusi eta bikario jeneral izatera iritsiko zena (93). Grafia-sistema berria, euskararen bere baitako hots-egituraren sustraitua eta hots-grafemen arteko biunibokotasunetik hurbilagokoa, zabaltzen saiatu zen aldiz mugazain-ohia. Ezta-

(89) Ikus Jauretzeren 1838ko *Andre-dena Mariaren ilhabethea, edo Maiatza Jaincoaren amaren loriacotz consecratua*. Ikus, horri buruz, Zuazo 1988.

(90) Aizkibelen garai inguru horretako lana, hegoaldean egina, kontuan hartzekoa da orobat.

(91) Du Marsais hartu zen horretan bide-erakusle: «las reglas de la Lengua se han de buscar en la misma lengua». Ikus Duvoisin en argudioak hegoaldekoen (*Revista Euskara*, Arzak) aurrez aurreko eztabaidan. Ikus, bereziki, Zuazo, 1988: 245.

(92) Koldo Zuazok (1988) ongi azaldua du Agosti Xahok, Martin Hiribarrenek, Bonaparte printzeak, Anton Abbadiak, Jean Duvoisinek eta Emmanuel Intxauspe kalonjeak gai horretan izandako protagonismoa. Perspektiba kronologiko zabalago batetik helduz eta iparraldera mugatuz J. D. Salaberri herri-kantuen biltzaile-zabaltzailea eta, kontrapuntu gisa, Julien Vinson erantsi behar zaizkio noski zerrenda horri, Zuazok berak argi asko eginik duen moduan.

(93) Ezin ukatzeko arrakasta praktikoa bereganatzen jakin zuen Intxauspek bere eliza-liburuaren bidez, Xuberoan batez ere. Berziki azpimarratzekoa da, alde horretatik, 1851ko bere debozio-liburua: *Jincouac guizonareki eguin patoac*, argitaraldi berrietan (1866, 1872, 1885, 1902) *Uscaldunaren laguna* edo *Uscaldunaren guthunac* izenekoak. Hedapen handiko argitalpena izan zen hori; honela dio, behintzat, Gèzek (1875: 260): «Le Catéchisme ou le *Uscaldunaren guthunac*, deux livres entre les mains de tous les Souletins».

baida ez zen, jakina, euskalari edo euskaltzale biren artekoa, ondotxo inpliazio zabalagokoa baizik. Intxausperen atzean aldiz elizaren tradizio sakroklasikoa zegoen, alde edo molde berrikuntza-asmo grafikoei freno jartzen ziena. Ondo asko jabetzen ziren horretaz Intxauspe eta Duvoisin. Villasanteren esanean 1864an, Axularren *Gueroco Gueroren* lapurtera dotorezko *Aitzinsolhasean*, «Inchauspe reconoce que ha expurgado el texto de ciertas expresiones demasiado crudas y fuertes. Reconoce que en los últimos tiempos se ha difundido un sistema que se acomoda mejor a la lengua vasca; pero como este uso no se ha generalizado aún lo bastante ni es bien recibido del pueblo (porque obliga a dar a las letras un valor diferente del que tienen en francés) y por tratarse de una obra ya consagrada y venerable, le ha parecido mejor respetar la ortografía antigua» (Villasante, 1979).

Beste aldetik, eta Duvoisinen beraren hitzetan esateko, «par une crainte, assez peu fondée, de n'être pas bien accueilli, le clergé ne se hasarde pas encore à la réforme, dans ses petits livres d'église. Je pense que l'exemple d'une ou deux publications religieuses, répandues à bon prix, lui ferait franchir le pas. Je vais voir si je trouverai des adhésions à ce projet». Urteak behar izan ziren apezjendea, banakako aphezak lehenik eta eliza bere osoan gero, bide berri horretan barrena abiarazteko. Grafia zaharraren eta berriaren arteko iritzi-bitasunak aurrea jarraitu zuen, hainbatean, azterkizun dugun mende-erdi horretan. 1890 ingururako argi zegoen, halere, grafia molde berria bere bidea egiten ari zela eta 1850 inguruko eztabaidak ez zirela alferrikakoak izan. Kantu-paperak (Abbadiaren pertsulari-guduetakoak eta Salaberriren liburua bera) bidelagun sendoa izanak ziren, antza denez, bide-berritze horretan. Duvoisinen garrantzia, nolani ere, ez da gutxietsi behar corpus-plangintza haren grafizazio-alorrean (94): ortografia bateratzeko eta «on»tzeko orduan eragin praktikoa handia izan zuen berak iparraldean, luzera begira (95). Hegoaldeko irakinaldian ere, 1880 inguruan, idazmolde berriaren mezulari, eragile eta bide-erakusle izan zen Duvoisin.

(94) Hizkuntza-plangintza askoren atalik ahulena, deskuidatua eta gutxien zaindua *implementation* edo *cultivation* fasea izan ohi da sarri. Inplementazio horren zabalkunde atalak duen garrantziaz jabeturik Salaberriren kantu-liburua eta, nola ez, Anton Abbadiaren urteroko bertso- eta neurtitz-lehiaketak oso kontuan izatekoak dira. Lanik hoberenak argitara ematen ziren bertan, aski ortografia landuz. Urterik urteko jarduera linguistikoki zaindu eta sozialki baloratu horrek ohitura bat indartu zuen azkenik: handik gutxira *Eskualduna* astekari-kazetaren idazkera nagusira eramango zuen ohitura zabala, orain errazegi gutxiesten duguna.

(95) Batek baino gehiagok, eta Jean Hiriart-Urrutik oso bereziki, arrazoiz aipatu izan du Duvoisinen *Laborantzako Liburuaren* zentraltasuna corpus-plangintzaren alor ugartan: grafia kontuetan eta beste zenbaitetan. Gustura irakurri zuen liburua hainbatek (ikus Altuna, 1986: 24), eta arrasto zabala utzi zuen idazle gaztegoen artean. Grafizazio-lanaren arrakastari dagokionez kontuan hartzekoak dira ondoko hitzok, ortografia berriaren inplementazioa dela-eta Duvoisinek Bonaparte printzeari eskututzez esanak (1869-I-1): «la nouvelle orthographe, popularisée par des chants de nos poètes, commence à être employée par la classe des paysans qui savent écrire: j'ai entre les mains plusieurs lettres dans lesquelles le <z> remplit sa fonction, à l'exclusion du <ç>, où les <qui> et les <gui> ont entièrement disparu». Bere liburuetako idazkeraz gainera kontuan izateko da Eskualdunako estilo-zuzentzaile ere izan zela hainbatean, eta antzeko ardura izan zuela Abbadiaren urteroko jokaldietako saridun-lanekin ere (ikus Altuna, 1986).

### III.1.3. *Hizkuntzaren status-plangintza*

Hizkuntza-soziologiaren nazioarteko bibliografian *status planning* esan ohi zaion horretaz ari gara hemen. Hizkuntza jakin batek (96) gizarte alorrean (97) dituen arazoak (98) konpontzen saiatzeko berariaz hartzen diren neurriak ditugu gogoan. Ordura arte bereak izandako L (low) funtzioetan ohiko nagusitasuna galtzen ari zelarik euskara, nagusitasun horri eusten saiatzea eta, bidenabar, modernitateak gorabidean zekartzan H (high) funtzioetan zenbait esparru-gune irabaztea: hori izan zen, funtsean, iparraldeko euskalgintzaren mende-erdi hartako proiektua. Ez agian esplizitua: bai ordea benetakoa. Lau ataletan azter liteke ongienik jarduera hura: belanez belanezko transmisioan, erlijio-alorrean, komunikabideetan eta plaza agerian.

- a) *Euskararen belanez belanezko transmisioa*: Alferrik ziren ortografiak eta gramatikak, literatura-lanak eta sari-lehiaketak, olerki bihotz-altxagarriak eta ikerketa historiko handinahiak, hizkuntzaren belanez belanezko transmisioak herren egiten bazuen bere leku naturalenean: etxean eta auzoan, kalean eta lagunartean. Hori zen, orduko euskaltzale zenbaitentzat, une hartako arrisku-iturri nagusia: bere-berea izandako espazioa galtzen ari zen eskuara hainbat herri eta hiritan, gazte-gaztetxoan. Hori galduz gero alferrik ziren euskalgintza osoaren gainerako saio gehienak: odolusten ari den pertsonari alferrik da dioptria egokiko betaurrekoak prestatzea, egunkaria hobeto irakurri ahal izan dezan. Odolusten dena hil egiten da, eta hildakoak ez du egunkaririk irakurtzen. Funtsezkoa zen, erabat, hizkuntzaren etxe-giroko eta auzo hurbileko transmisioa. Lehentasunezko helburu bihurtu zen zenbaitentzat, horregatik, etxeko hizkuntzaren transmisio-lana saritzea: euskaraz ongien mintzo ziren neska-mutilak (edo, agian, haien gurasoak) diruz saritzea. Bide-urratzaile handia izan zen horretan ere Anton Abbadia. Hala dio eskuera dugun dokumentazioak: «Antoine d'Abbadie, lui, n'a pas cherché à empêcher les enfants d'apprendre le français: seulement il a cru devoir encourager ceux qui, après leur première communion, *parlent* le mieux le basque, en leur faisant distribuer des récompenses par des petites commissions constituées à

---

(96) Hizkuntza batek, edo gehiagok: hori da gutxiena. Arazo bat dagoela antzematea, arazo hori gizarte alorrekoa dela zehaztea (ez, corpus plangintzaren alorrean bezala, hizkuntzaren beraren baitakoa: ortografia finkatzea, morfologia bateratzea, hitz-altxorra eginkizun berrietarako zabaldu eta doitzea...) eta arazo horri elkar harturik (ez nork bere bidetik) erantzuten saiatzea: horiek dira status plangintzaren ezaugarri nagusiak, txosten honen egitekoari dagozkion heinean.

(97) Gizarte alorrean (ez norbanakoaren plano biografikoan) suertatu ohi diren hizkuntza-arazoez, eta arazo horien konponbide posibleez, arduratu ohi da hizkuntzaren status-plangintza.

(98) «Hizkuntza jakin batek dituen arazoak» diogunean badakigu noski zer esan nahi den: «begiz jotako helburuen argitan gizatalde jakinek sentitzen (sentitu uste) dituzten arazoak» dira horiek, lehenik eta behin. Objektiboak baino gehiago subjektiboak dira, hortaz, arazo horiek. Arazo subjektiboak ez dira, berez, objektiboak baino ahulagoak gizarte-bizitzan.

cet effet en dehors et avec exclusivement du clergé. (Petit, 1899: 551). Orain ere baluke lanmolde horrek bere erakarmena: bai praktikoa eta bai, bereziki, teoriko-kontzeptuala (99).

- b) *Euskara erlijio-alarrean*. *High* edo *H* funtzio gutxitan zuen euskarak leku sendorik: eliza (predikua, konfesioa, dotrina, kantika eta aurrez aurreko harreman-tratua) zuen euskarak, praktikan, presentzia zabaleko esparru instituzional bakarra. Hor ageri zen indartsu, jendaurrean eta *H* esparruan. Hori zen, oro har, euskarazko *H* jardunaren esparru instituzional «naturala» (100), mende askotako ohiturak eta etenik gabeko praktika eguneratuak sinbolikoki berezkoa eta sozialki lejitimatuak. Nagusitasun hori ahultzeko eta indargabetzeko saio antolatuarik ez zen falta izan, aginte-esparrutik bultzaturik, mende-erdi horretan (101). Goi-aginte zibilaren saioei aurre egitea bere eginkizun nagusizat hartu zuen, 1890etik aurrera bederen, iparraldeko euskalgintzak (102). Garai hartako euskalgintzaren fede-kontuekiko atxikimendua nekez esplikatu liteke, ene ustez, gertakari horien *Hintergrund* zabala osatzen zuten status-plangintzazko estrategia diferentzialak kontuan izan gabe.
- c) *Euskara komunikabideetan*. Denean ez zen euskarazko jarduna atzera joan: idatzizko jardunean, komunikabideen sailean bereziki, aurrerapauso ohargarririk egin zen garai hartan. Bidegile izana da iparraldeko euskalgintza, horretan ere. *H* esparrura daraman esfera idatzian garrantzi handikoa izana da bere langintza, euskarazko mintzajardun arrun-

(99) Asmoa oso zen ona: direktzio onean zihoan dudarik gabe. Baina *reward system* txiki-egia zekarren berekin. Beste ordain-sariak (erdararen aldekoak) erraz nagusitzen ziren, edo erraz nagusitu zitezkeen, hain saio mugatuaren aurrez aurre.

(100) Kontuz ibili beharko genuke honetan ere, gauzak bere neurrian hartuz: elizaren jardura instituzionalean (bereziki idatzizko dokumentazioan) frantsesa zen, oro har, jaun eta jabe. Bai eta apaizgai berrien prestaeran ere, Baionako seminario handian eta Larresoroko ttipian. Jendaurreko praktika instituzionalean leku seinalea zuen ordea euskarak herri-giroko eliz bizitzan, hitzeko jardunean eta kantuan. Nagusitasun horretaz ari gara hemen: nagusitasun konpartituaz edo, zehazkiago esanik, konpartimentatuaz; nagusitasun partzialaz baina nagusitasunaz, nolana ere.

(101) Ez da egia, halere, euskararen elizgiroko nagusitasun hura ahultzeko eta indargabetzeko ekimen guztiak aginte-esparrutik etorri ohi zirenik. Are gutxiago *top-down* ekimen guztiak herri-aginte zibiletik etorri ohi zirenik: eliz agintaritzak berak behin baino gehiagotan agertu zuen euskaraganako interes falta edo antipatia nabarmena (ikus Abbadiaren saioa eta desilusia, bere diruaz euskara-klaserik seminarioan sartu ezin izan zuelarik; ikus, orobat, 1897ko aipamen xotil baina argia, apezpikuari eskualdun tradiziozale zuriek egina). *Top-down* edo goitik beherako interes-falta edo etsaigo horri *bottom-up* edo behetik gorakoa erantsi zitzaion, une batetik aurrera (ikus Jean Hiriart-Urrutiren 1897ko abuztuaren 13ko artikulua *Eskualdun* kazetan, orain in Altzibar arg., 2004: 337-09).

(102) Ez dugu hemen 1902ko azarotik 1905era arteko gertakari politiko-erlijioso-soziolinguistikoa larriez jardungo, aztergaiaren esparrutik kanpora gelditzen baita hori hainbatean. Jakin badakigu, ordea, lehendik zetorren joera baten emaitza izan zela 1902ko azaroaz geroztiko jokamolde instituzionala, dotrina euskaraz irakastea zigor-mehatxuz debekatu zuena. Pierre Tauzia-ren ekarpena fuintsezkoa da, jakina, horren berri zehatza izan nahi duen edonorentzat.



tari bidea zabalduz, eta «leku bat» segurtatzen saiatuz (103). Eskualdun multzo ez hain txikiak irakurle profano bihurtu ziren, elizgiroko irakurgaien kontsumitzaile ortodoxo izaten jarraitzeaz gainera, 1850 eta 1900 bitartean. Urtekariak ugarituz eta urterik urte luzatuz joan ziren neurrian, eta kantu-paperak lau haizetara zabalitzen zirelarik, irakurtzaletasun basiko bat hedatuz joan zen eskualdunen artean. Ohitura basiko hori indartu egin zuten bozaldietarako paperek eta, azkenik, eskuarazko astekari txuri-gorriek. Ezin ahaztuzkoak dira, alde horretatik, bai Berdoly errepublikarraren 1886 eta 1894 arteko *Le Réveil Basque* «gorri»a, Prefeturatik beretik kudeatzen zena, eta bai *Eskualduna* «xuria», Louis Etxeberrri bonapartzale eliztiarrak 1887an sortua, 1890 inguruan eta 1901-03 aldirian apezpikuaren jardunaz kexu agertutakoa eta gero, 1907tik aurrera, elizbarrutiaren aginte-esparrura gero eta nabarmenago lerratu zena. Beste zenbait kazeta ere (adibidez 1910etik aurrerako *Argitzale* errepublikarra), kontuan hartzekoak dira (104). Hori du iparraldeko euskalgintzak mende-erdi hartako irabazirik handienetakoa, hegoaldean urrundik ere lortu ez zena (105): eskuaraz mintzo zen jende-multzo zabal samarrak eskuaraz irakurtzen ikasi zuen eta, hainbatetan, eskuaraz irakurri zuen. Zenbaitek, eskuaraz bakarrik zekien irakurtzen.

- d) *Euskara plaza agerian*. Hizkuntza oro hitzeko (ez idatzizko) gertakaria da. XIX. mendeko euskalgintzak ez zuen egia hori baztertu, ez eta gutxietsi. Aski kontuan izan zuten ahozkoaren zentraltasun hori orduko euskaltzale gehienek. Euskararen presentzia jendaurreko jardun-esparru arruntetan zurkaiztu eta indartu nahi izan zuen, horregatik, iparraldeko euskalgintzak. Pilota-lekuetako jende-biltzea, bertsolarien aurrez aurreko norgehiagoka, Lurdesko pelegin-bidaien euskalgiroko osaera eta, oro har, etxeko hizkuntza herriko festetan handikiro age-

---

(103) Ilun dago, oso, saio horren 1904ra arteko efektu praktikoak zenbaterainokoak izan ziren: bai salmenta-kopuruak eta bai, bereziki, irakurleen zenbatekoa eta nolako behar bezala aztertu gabe daude oraindik, guztion latsagarri. Baita 1904tik 1908ra arteko jauzi harrigarria ere. Besterik da hori, ordea. Hiriart-Urrutiaren odisea pertsonalarekin estuki loturik dagoen fenomeno horri orain arte (Mokoroa-Ibar, Orixe, Laffite, Intxausti, Charrinon, etab.) eman zaion atentzioa ongi justifikatua dago, eta emendiozko azterketen pizgarri ere bada.

(104) Aurreragotik has liteke zerrenda egiten: Xahok bideratutako *Ariel*-etik, esate baterako. Kaliforniako Goitinoren *Eskual Herria* ere hor dago noski.

(105) Zergatik batean (iparraldean) bai eta bestean (hegoan) ez? Baimen kontuak aparte, eta ez dut uste baimen-kontu hori hain erraz uztekoa denik alde batera, hizkuntza-soziologiaren kontsiderazio nagusietara itzuli beharko genituzke begiak, alde hori itxura batean esplikatua ahal izateko. Hipotesi partzial ugarietako bat honako hau izan liteke: 1840 ingurutik aurrera hegoaldean izandako transformazio ekonotekniko suharrak elebarkar hutsen fenomeno ahuldu egin zuen nabarmen; aldiz iparraldean, lehengo nagusitasun-moldaera soziolinguistikoak jarraipen sendoagoa izan zuen eta, kontestu horretan, herri-herrixketako masak mobilizatzeko ezinbestekoa ikusten zen, idatzizko jardunean ere, euskarari «bere lekua» ematea. 1902an edo 1903an, «sagarra zoritua zegoela» uste izan zenean, zenbait jauntxo-buruzagik euskarazko kazeta erdalduntzea hobetsi izana hipotesi honen alde, ez kontra, dagoela uste dut.

rraraztea status-plangintza inplizitu (baina ez horregatik apalago) baten adierazle ditugu. Euskararen jendaurreko eta jendarteko ekimen ugarien berri ematen dute, etengabe, orduko paperek. Gogoan izan behar da euskalgintzaren aieka hori ere, orduko status-plangintza ganoraz aztertzerakoan.

#### **III.1.4. Eskuratzeko-plangintza: eskola bidez frantsesa ikasi eta, bidez batez, euskaraz alfabetatzea**

Hexagonoa linguistikoki uniformatzea aspaldiko xedea zen: 1789ko Iraultza edo *Nahasmendu Handiaren* garaitik aurrera, bereziki, Frantziako iritzi-sortzaile nagusien artean eta jarduera instituzionalaren hainbat esparrutan klarki aldarrikatua (106). Orduan ere izan zen, egia da, asmo horren formulazio alternatiborik egindakorik (107), baina formulazio alternatiboa ez zen, itxuraz, asmo-fase hartatik aurrera eraman. Patois-ak gizarte-bizitzatik baztertu eta haien ordez frantsesa indartzea, hori izan zen helburu eta asmo nagusia. Asmoak asmo, lan zaila zen hori: eskuaraz baizik ez zekiten haur gehienek, eta haur haiei guztiei, bat-batean eta eskola-bidez hutsez, frantsesetik irakurtzen, frantsesetik idazten eta, batez ere, frantsesetik hitz egiten irakastea ezinezkoa zen ia. Are gehiago giza baliabideak mugatuak zirelarik (108), irakasle gehienak euskaldunak (are herri berekoak (109))

(106) Ikus, adibidez, 1793ko urriaren 21eko dekretua, 1794ko urtarrilaren 28koa eta 1794ko azaroaren 17koa. Lehenengoak horrela dio 7. artikuluan: «Dans toutes les parties de la République, l’instruction ne se fait qu’en langue française». Bigarren dekretuak honela dio 2. artikuluan: «Il sera procédé à la même nomination d’un instituteur de langue française dans les communes des campagnes des (...) et des Basses-Pyrénées, dont les habitants parlent des idiomes étrangers. Hirugarren dekretuak, azkenik, honako hau dio 3. artikuluan: «L’enseignement sera fait en langue française; l’idiome du pays ne pourra être employé que comme un moyen auxiliaire». Argi dago: Frantziako Iraultzaren hezkuntza-paradigman leku bakarra dagokio euskarari: neska-mutilak beren elebakartasun «arrotz»etik frantses-itsasora lehenbailehen eta neke txikienaz eramateko lagungarri izatea. Handik aurrera, ezer ez.

(107) Honela zioen Garatek, Euskal herrian Fenizia Berria eraikitzeko proiektua aurkeztu zionean Napoleon Enperadoreari eta, proiektu horren haritik, Euskal herri guziko lehen eta bigarren mailako ikastetxeetan irakasbide nagusia euskara izatea planteatu zuenean: „Il seroit difficile de dénombrer tous les avantages qu’on sera sûr de recueillir en faisant d’une telle langue le principal enseignement de toutes les écoles primaires et de tous les Lycées des Départements formés par la réunion de tous les cantons basques de la France et de l’Espagne. (...) Il ne sera pas très mal aisé, dès le premier instant, de trouver dans les sept cantons basques des hommes en état de bien traduire dans leur idiome les meilleurs traités d’hydrographie et de mécanique, les meilleurs éléments d’histoire naturelle et de chimie, tous les livres enfin qui deviendroient nécessaires à ces cantons destinés essentiellement à la culture des terres, au service de mer». (Garat, *Les recherches sur le peuple primitif de l’Espagne, sur les révolutions de cette Péninsule, sur les Basques Espagnols et français*, 1811, in Oiharzabal, 2006a).

(108) XIX. mendearen lehen partean, 108 udaletatik 99tan herriko idazkaria zen aldi berean erreiet-maisua.

(109) «La encuesta de 1833 daba fe de la armonía que reinaba en los pueblos del País Vasco entre el maestro, el cura y el alcalde. El reclutamiento de maestros era esencialmente local: eran numerosos los que enseñaban en su pueblo natal» (Hourmat in Lasa, 1968: 127).

eta lehendik, erlijio-kontuak tarteko zirela, eskuarak eskola-ajendan bere lekua egina zuelarik (110).

Zailtasunak zailtasun *Acquisition planning* argia, zabala eta iraunkorra zuen gizarte berriaren ajendak (111): hiritar guztiak frantsesez jakin eta frantsesez jardungo zuten estatu-nazioa eraikitzea. Oztopo zen horretarako euskara (112). Gainditu beharreko oztopoa: «il empêche les communications de tout genre entre nos concitoyens basques et nous, et si j'ose ainsi dire, leur annexion à notre civilisation moral. Leur langue nationale est à peu près la seule dont ils fassent usage; c'est la langue des besoins vulgaires et journaliers, ainsi que des sentiments de famille; c'est surtout celle de la religion, c'est-à-dire de tout l'ordre des croyances, des traditions morales, des règles de conduite, des hautes espérances et des plus intimes émotions. Là est évidemment le grand obstacle». (Pécaut, 1880: 69-77, in Castoreo, 1993: 22-7). Gogo-giro horretan kokatu behar dira, ezinbestean, Zaldubiren bizi-denboran euskaldun haur eta gazteak eskola bidez frantses-elebiduntzeko saioak (113).

Badirudi saio horren eragina aski mugatua izan zela 1890 ingurura arte. Garaiko testigantza ezagunek ez dute, behintzat, zalantza handirik pizten. Has gaitezen Beltzuntzeko kondeak 1852an esandakotik. Horra bere azalpena: «En 1842, j'avais été chargé par le sous-préfet de Bayonne de l'inspection de trois écoles primaires. Les instituteurs, basques de naissance, étaient élèves de l'École normale de Pau, et obéissaient aux ordres du comité supérieur(...) Les enfants savaient imperturbablement leur leçon, mais ne comprirent pas davantage quelques questions fort simples, mais en dehors de celles de leur livre, que je leur adressai. Ce fut un embarras plus grand encore lorsque je leur demandai, en basque, de me traduire ce qu'ils venaient de gazouiller comme des perroquets. Et on ne leur avait rien dit des règles grammaticales de leur langue, de la seule qu'ils entendaient, et sur laquelle je les interrogeais. Ces faits sont authentiques, et je fis même un article à ce sujet, qui

---

(110) Katiximarekin hasten zen eskola. Katixima hori, berriz, otoitz batekin hasten zen eta beste batekin bukatzen. Eskuarak ikasten zen, halako neurri batean, irakurtzen: ikus, adibidez, *Abecedeaa escuaraz iracurten ikhasi nahi dutenentzat* (Baiona, 1805). Hortik abiatu beharra zeukan, hortaz, eskola bidezko frantsese-lanak.

(111) Robert Cooper-ek 1989an sortutako adieraz darabilgu hemen, nagusiki, *acquisition planning* kontzeptua. Jatorrizko adiera hori zertxobait zabaldurik ematen da, dena den, euskarazko alfabetatze-bideari dagokionean.

(112) Hori bakarrik ez: garapen kognitiboaren eta aurrerapen intelektualaren behaztopa ere bai: La *Gazette de France* explicaba en 1828 «la inferioridad del País Vasco a causa de su población dispersa». *Le Mémorial des Pyrénées* rechaza esta explicación: es el «idioma nacional» de los vascos el verdadero responsable de este estado de cosas» (Lasa 1968).

(113) *Transitional bilingual education* edo pasabideko hezkuntza elebidun horren markoan sartzen dira Lapurdin Hiriartek 1840an argitara emandako *Introduction à la langue française et à la langue basque*, eta Zuberoan Archuk 1852an publikaturiko *Uskara eta franzes gramatika, uskhalerrietaco haurrentzat*. Baita Archuren 1848ko fabulak ere: honela zioen bertan eskolai-kuskari zuberotarrak. «Mon premier but a été de (...) leur inspirer le désir d'apprendre la langue française».

fut, je m'en souviens, inséré en 1843 dans le journal de Pau». Klaseak frantsesez ematen ziren, baina eskolak ez zuen erakusten frantsesez hitz egiten. Eskola ez zen aski.

Kontuak ez ziren oso diferenteak 1880an, F. Pécaut hezkuntza-ikuskarriaren esanean: «La situation scolaire y est exceptionnellement mauvaise; elle tient à la langue, aux traditions, à la religion, à l'état social, qui concourent à isoler cette charmante race de ses voisines; mais à son tour elle rend en quelque sorte incurable ce qu'il y a de mauvaise dans l'état moral et social. Les deux tiers, les trois quarts des enfants qui fréquentent nos écoles ne sont pas plus capables de parler le français usuel que de le comprendre; quand on les interroge ou qu'on leur donne une explication, on est tenté de se croire au milieu d'étrangers.» Bere hezkuntza-esparruko ikasleen bi heren edo hiru laurden ia-atzerritar iruditzen zitzaizkion, mintzairaz. Egoera horren esplikazio bila hasita, arrazoi handiz, eguneroko bizimoduan ikusten zuen motibo nagusia: «on parle, on sent, on pense en basque... On ne lit ni livres, ni journaux français, excepté dans les villes. Les curés prêchent et enseignent en basque. Beaucoup de garçons n'apprennent par cœur que le catéchisme basque et c'est le plus clair de leur instruction» (114).

Antzeko ondorioak atera litezke handik hamar urtera (1890ean) E. Gougèrek, Baionako eskola-ikuskariak, bere txostenean zioenetik: Eskual herrian bost edo sei urteko haurrei frantsesa erakustea, Frantziako ikasleei atzerri-hizkuntza bat (ingeleza, alemana, italianoa edo espainola) erakustea bezala omen zen. Argi dago kontua: eskolak ahalmen mugatua zuen, ikasleak elebidun funtzional bihurtzeko. Ingurumen hurbileko hizkuntza (etxekoa, auzokoa, kalekoa, herriko plazakoa, feria-egunekoa,..) nagusitzen zen han-hemen. Non zen ordea etxe- eta kale-giroa nagusiki euskaldun?: herri-herrixka gehienetan eta mendialdeko etxaldeetan. Herri-herrixketako eta etxalde bakartietako egoeraz ari ziren hor ikuskariak, bai 1880an eta bai 1890ean: ez, inola ere, gero eta jende gehiago erakartzen ari ziren (eta 1900 ingururako hazkunde bizia zuten) herriburu eta hiri nagusietako bizimolde berriaz. Eskualdun asko bizi ziren oraindik herri-herrixka txikietan eta mendialdeko etxaldeetan; bi heren edo hiru laurden 1880an, F. Pécaut-en esanean.

Ahalmen mugatukoa izanik ere, frantsesaren indargarri eraturik zegoen eskola-sistema. Hala zegoen eskola-sare publikoa, herri hazietan eta hiri nagusietan gero eta sarbide zabalagoa zuena. Hala egon gabe ere halatsu funtzionatu zuen praktikan, une batetik aurrera, eskola giristinoen sareak. Maiz aski euskaraz ez zekiten errientez gainera frantsesezko ikasmaterialez hornitu ziren herrietako eskolak, 1830 ingurutik aurrera (115). Katexima erakusteko orduan

(114) Ikus Tautzia 1973, 372.

(115) «En 1831 fueron distribuídos en Francia 500.000 alfabetos, 50.000 catecismos, 25.000 aritméticas y 10.000 historias de la Biblia». (Hourmat in Lasa, 123).

leku zabala zuen halere euskarak Baionako elizbarrutian: ahozkoan nagusia eta idatzizkoan konpartitua (116).

Teorizazio handirik ezagutzen ez bada ere garai hartako *acquisition*-plangintzak berekin zituen azken xedeez, bistan da arrisku-iturri zela eskola, gero eta nabarmenago, euskaltzaleen ustean (117). Gobernamentuko eskolasareari dagokionez Archu ikuskariaren eta beste zenbaiten ekarpenak dira, dakidalarik, euskarari eskola-munduan «leku bat» bilatzeko saio ezagun nagusiak. Ezagunak bai, baina inola ere ez sendoak: saio horietariko gehienak *transitional bilingualism* modukoak ziren, asmoz eta egitez. Herriko neska-mutilak beren *eskuar*atik Frantzia osoko hizkuntza *zibilizatura* ahalik eta emaitza hoberenaz eramateko bideak, hortaz. Pasabideko hezkuntza elebidun hori izan zen, gero eta nabarmenago, 1850etik aurrera *top-down* bultzatu zena: haur eskualdunen ezjakintasun-putzutik frantses hiritar osoaren statusera zera-makeen zubia. Eskola giristinoen ekarpena apenas, eskueran ditugun testigantza mugatuaren argitan, gobernamentuaren eskoletakoa baino hobea izan zenik euskalgintzaren ikuspegitik. Hiriart-Urrutiren 1897ko epaia nekez gerta liteke, kontestu horretan, susmagarri (ikus Altzibar arg, 2004: 337-9). Dotrina bera frantsesez irakasten hasiak ziren eskola giristinoetan bertan, gobernamentuaren 1902-03ko debeku zorrotza etorri aurretik (118).

Jakin badakigu pasabideko hezkuntza elebidun hori, arras bestelako xedez diseinatua izan arren, hizkuntza ahularen indargarri ere gerta zitekeela bide batez (119). Euskara idatziarekiko kontaktu-gune eta, horren

(116) «La enseñanza del catecismo permanecía en 1833 como base de las materias de enseñanza» (Hourmat in Lasa, 120). 1833ko ikasliburuak «los más numerosos eran los manuales de instrucción religiosa: el catecismo histórico en francés y el compendio de historia sagrada en las escuelas del distrito de Bayona se agregaban al catecismo diocesano en vasco y a la Imitación de Cristo en vasco» (Hourmat in Lasa, 122). Batez ere frantsesezko erlijio-testuek korritzen zuten, aitzitik, Oloroeko eta Akizeko esparruan.

(117) Arrisku-iturri zen haurren esparruan eta arrisku-iturri, gutxi batzuentzat, handik gorago mailetan: Larresoroko seminario tipiaren hizkuntza-politika egunen batean ganoraz azterten bada, gauzak argiago ikusi ahal izango ditugu. Kontu horiek behar bezala argitu gabe daudelarik esan dezagun, lehen hurbilketa moduan, «galdutako esparru»tzat hartu zuela iparraldeko euskaltzale askok, hamarkada luzez, dotrina-irakaskuntzatik haratagoko eskola-mundua. Jakin bazekiten euskararen aldeko lagungarri sendoa gerta zitekeela esparru formal hori, egoki eratuz gero, baina (dakidan neurri mugatuari) ez zuten horretan jendaurreko saio kolektiborik egin. Abbadiarena izan zen, horretan ere, deigarriena. Ez zuen ondorio praktikorik izan, ordea (ikus, aurrerago, txostenaren IV. atala).

(118) «Il paraît que, dans nos écoles libres même et surtout dans celles dirigées par des religieuses, le catéchisme est appris en français. L'Eskualduna, ce vaillant défenseur de nos moeurs et de nos traditions, et M. l'abbé Haristoy, le dévoué collaborateur de m. l'abbé Dubarat, ont fait entendre à ce sujet une éloquente protestation, qui a trouvé l'écho dans le coeur de tous nos compatriotes.» (Petit, 1899: 550).

(119) Oiharzabalek (2006a) argi dioenez, «liburu horiek euskara eta euskararen gramatika tresna didaktiko gisa baliatzen zituzten oroz lehen, egoera diglosiko arruntean eskolan erdarek zuten lehentasuna eta nagusigoa zalantzan jarri gabe. Euskararen indartzeko eginak ziren neurrian (eta ez da dudarik xede hori ere bazutela, hobekuntza pedagogikoaz gainera), etxeko eta herriko jendarteko hizkuntza gisa zuen estatutua atxikitzea eta gehienez ere zerbait bat hobetzea, zuten helburu».

bidez, lekuan lekuko mintzamolde itxiez haraindiko forma zabalen esku-raleku gerta zitekeen pasabideko hezkuntza. Litekeena da, seguru esaterik ez badago ere, iparraldeko jende xeheak euskaraz irakurri eta, zenbaitetan, euskaraz idazteko tradizio zabala (hegoaldean baino hagitx zabalagoa) eskolaketa horren ustegabeko ondorio izatea. Nekez esan liteke berariazko euskalgintzak presentzia sendoa izan zuenik mende-erdi horretako eskola-esparrian. Baina eskuaraz irakurtzeko ohitura hegoaldean baino zabalduago zegoen bertan, itxura osoz, Zaldubiren bizi-denboran. Aski bazter-fenomenoa izanik ere bere merezimendutxoaz zukeen, horretan, hainbat errirent eskualtzalaren eraginak. Constantin aita ez genuen, ausaz, bakarria izango.

Behar bezala aztertu gabeko gaia dugu iparraldeko eta XIX. mendearen bigarren erdialdeko hezkuntzarena, gezurra badirudi ere, eta zail da horrela ondorio irmoetara iristea. Eskueran ditugun datuek horretara garamatzate: eskola bidezko euskalgintza oso ahula izan zela esatera eta, inon mesedezko eraginik antzeman bazen, alor biotan antzeman zela ondorioztatzera: erlijio-liburuen erabilera didaktikoan eta horien bidezko praktika eskolarretan, bategatik; pasabideko hezkuntza zela medio eskuararen barne-egituraz eta frantsesarekiko analisi kontrastiboaz eskuratutako ezagutza metalinguistikoan, bestetik. Horri eskerrak liburu-etako eskuara, lekuan lekuko aldaeratik haranzkoa, ez zuten erabat arrotz. Alfabetatze-lanaren mesedeko gertatu ziren elementu biak, itxura denez. Alfabetatze-maila xumea, baina hortik aurrera egiten hasteko behar adinekoa, eskaini zieten batak zein besteak hainbat neska-mutili. Oinarri nagusia, euskarazko mintzagaitasun oparoa, etxeak eta lagunarteak ematen zien. Eskolak oinarri horren garapen formalak, goi-mailako esparrian jarduteko behar dena, osorik eman izan balie askoz hobea; baina hori gabe ere gai ziren eskuaraz (lekuan lekuko mintzamolde bereziaz) jarduteko, hitzez eta, hainbatetan, idatziz.

### ***III.1.5. Nortasun-plangintza eta jatortasun-lanketa***

Ongi zen euskaldunak, euskaldun izateaz harro sentitzeko, lehenaldi handi-ederra bilatzea, sortzea eta jendaurrean agertzea. Ongi zen euskararen barne-egituraren ederra mundu osoari agertzea, zernahi eginbeharretarako berez lanabes baliagarria zela erakustea eta idatzizko jardunerako landu, arautu eta egokitzea. Ongi zen euskarari jendartean, elizan eta bestetan «leku duin» bat segurtatzea. Ongi zen, azkenik, eskola bidez euskaraz poxi bat irakurtzen eta idazten erakustea. Hori guztia ongi zegoen: hori baino gehiago zen ordea euskalgintza, Zaldubiren garaiko euskaltzaleentzat. Ikuspegi zabalago horretan txertatu behar da, ene ustez, euskalgintzaren promotore eta jatortasun etnokulturalaren defendatzaile sendo izandako Anton Abbadia (1810-1897). 1851tik aurrerako euskalgintza ezin aztertu eta entendi liteke iparraldean, ez eta 1876tik aurrerakoa hegoaldean, bere nortasun-plangintza eta jatortasun-lanketa aintza-

kotzat hartu gabe (120). Hizkuntzaren azterketaz eta lanketa formalaz gainera, eguneroko (batez ere festa-giro atsegineko) bertsolaritza eta olerkigintza eragiten zuen, batetik, mezenas-lan horrek. Asmoz eta egitez beste adar askotara ere iristen zen bestetik: belaunez belaun hitzez transmititzen ziren ohiko lege-arauen defendatzaile sutsua zen Abbadia (121); «egiakzko eskualdun»en esatera zaharrak eta legendak biltzen (zehazkiago, hartarako laguntza eskaintzen) behin baino gehiagotan jardun izan zuen (122). Herri-kantu zaharren biltzaileak ere berariaz bultzatu eta babestu zituen. Hitzaren esparrutik soin-lanketara aldatuz beste horrenbeste esan liteke, funtsean: herri-kirolen indarberritze-saioan eragin zabala izan zuen Abbadiak, pilota-jokoa indartuz eta handiki-soinekoz jantziz. Literatura- eta kirol-alorretik kanpora ere eragin bizia izan zuen bere jardunak. Jatortasun etnokulturalaren prestijiatze-lana izan ohi zuen, horrelakoetan, helburu nagusi. Gizarte-berrikuntzak aurrera egin ahala ihes egiten ari zen kultura oso bat, euskara eta kristau-erlijioa osagai nagusi baina ez bakar zituen kultura jatorra, hondamenetik gorde nahi zuen. Galtzera zihoana maitekiro jaso eta, ahal zelarik, galbidetik babestu: hori zuen bere jatortasun-lanketak helmuga. Ez zen bizibide modernoaren etsai: lotura handia zuen bere garaiko zientzia-sail askotxorekin, eta Frantziako Zientzia Institutuaren burulehen izatera ere iritsia zen. Posible zen beretzat modernitatea eta jatortasun etnokulturala elkarren eskutik eramatea. Ez zuen bat ala beste hautatu behar izaterik nahi. Biak elkarren eskutik eramanez euskal jatortasunari mundu berrian ere bere lekua zego kiola uste zuen. Inperatibo moralizat hartzen zuen eginahal hori, eta gizarte berriarekin bateragarria egiten ahalegindu zen.

Anton Abbadiaren filosofia soziokultural zabal horren aldeko zen Adema-Zaldubi ere. Hori zuen bere bizi osoko ardatz, euskal hizkuntzari eta herrigintzari zegozkionetan. Urteen joanean indartu egin zitzaion ikuspegi hori, ahuldu orde. 1890eko bere azalpen hau, esate baterako, mundu-ikuskeraren horretan sartzekoa dugu: «Maintenant surtout où tant d'éléments dissolvants conspirent contre nos mœurs religieuses et la conservation de notre langue basque, il importe de défendre notre pauvre mais noble pays contre tout envahisseur étranger, soit de doctrine, soit de législation, soit même de modes, qui tendrait à enlever son noble cachet à notre nationalité». *Identity planning* zen Abbadiaren eta Adema-Zaldubi lagunaren soziokulturazko asmo nagusia. *Authenticity fostering* zuen plangintza horrek oinarri nagusietako bat. Ez ziren bakarrak izan langintza horretan. Berandu gabe sortu zitzaizkien jarraikitzaile sendoak: Resurrección María de Azkue, esate baterako (123).

(120) *Nortasun-plangintza* diogunean, J. A. Fishman-ek (1991) *Identity planning* terminoari eman izan dion adieraz ari gara. *Jatortasun-lanketa* diogunean, berriz, bere *authenticity fostering* dugu aipagai (Fishman, 1991).

(121) Zuzenbidezko kontsiderazioak ere oso barnean zeramatzen Abbadiak, herrigintzaren luzera begirako planteamendu esplizitueta oinarrituz.

(122) Ikus, horretaz, Urkizu 1997b.

(123) Abbadiaren oinordeko aski zuzen izana dugu lekeitiarra nortasun-plangintzan eta jatortasun-lanketan, 1900 ingurutik aurrera. Kantu- eta musika-bilketa, atsoitiz-bilduma, haurren

## III.2. Bidegile nagusiak

XIX. mendeko euskalgintzak, bigarren erdikoak bereziki, bidegile askotxo izan zuen ipar Euskal herrian. Nor izan genituen bidegile? Nor izan ziren bidegile nagusi? Zer formazio zuten bidegileok, eta zertan jardun zuten bereziki? Bidegile guztien (ezagunenak-edo direnen) zerrenda ematea izan liteke, jakina, galdera horri erantzuteko biderik errazena (124). Bide-urratzaileok belaunaldika sailkatzea izan liteke, bestetik, aztergaia gehixeago argitzeko modua. Emendiozko bide-urratsa egin liteke, azkenik, aurreko pauso horiei protagonisten status sozioekonomikoa, formazio akademikoa edota lanbide-jarduera erantsiz. Hori da, itxuraz, oraingoz eskura litekeen helbururik osatua. Azken bide horri helduko zaio hemen.

### III.2.1 Belaunaldi nagusiak

Esan dezagun, laburzki, hiru belaunaldi ageri direla XIX. mendeko euskalgintzan, bai iparraldean eta bai hegoan. Lehen belaunaldia 1810 eta 1815 artean (edo horren inguruan) jaiotakoek osatzen dute. Bigarren belaunaldia 1840 eta 1850 bitartean jaiotakoek. Hirugarren belaunaldia, azkenik, gutxi gorabehera 1860 eta 1865 artean jaiotakoek. Badira noski, sakabanatuago egonik ere, hiru belaunaldi horietatik kanpora gelditzen direnak: lehen belaunaldia baino zaharxeago direnak, lehen eta bigarren belaunaldien artekoak eta, azkenik, bigarren eta hirugarren belaunaldien artekoak. Zerrendatze-lana protagonista ezagunenetara mugatuz, eskuera ditugun datuen argitan badirudi honako hauek direla nagusi:

#### a) Lehen belaunaldia

Bidegile izanak ditugu Agosti Xaho (hasiera-hasieran, 1858an hil arte), Anton Abbadia, Bonaparte printzea eta, azken bi bide-urratzaile horien ingu-

---

joko- eta jolas-bilketa (ikus *Euskalerrriaren Yakintza*) aski era sistematikoan landuak ditu berak. Egia da bere langintza ez zela nortasun-plangintzaren eta jatortasun-lanketaren esparrura mugatu. Hortik kanpora ere lan handia egin zuen teatro zein opera berriak sortzen, euskal eskolak sortzen eta zabaltzen, alfabetatze-lanean, euskalduntze-metodoen prestaeran eta urtetako irakaskuntzan. Horretan guztian eta, nola ez, euskararen corpus-plangintzan. Ezaugarri aski berriaz egin zuen Azkuek hori guztia: aurreko gehienek ez bezala (edota haiek baino nabarmenago) birmoldatu egiten zuen sarri, hizkuntza on-ederraren paradigmaren (bere paradigmaren) arabera, herri xehearen ahotik edo dokumentu zaharretatik jasotzen zuena. Nortasun-plangintzak eta jatortasun-lanketak berriazko lekua zuten, gehienetan, hizkuntza on-ederraren paradigma horretan.

(124) Ez da, halere, dirudien bezain lan erraza: alde batetik arriskua dago, bidegile zintzo izandako hainbat kanpoan uzteko; arriskua dago, bestetik, bidegile nagusien sailean lekurik nekez izan dezakeen bati baino gehiagori sarbidea emateko. Euskalgintzaren izaera-kontuak eta, batez ere, euskalgintzaren intentsitate kontuak zerikusi handia du duda-muda horiekin. Hemen eskainiko dena ere, hortaz, hurbilketa soila baizik ezin izan liteke eta hala aurkezten da gaurkoan.



ruan, Jean Martin Hiribarren, Jean Duvoisin, Pierre-Michel Renaud, Jean B. Archu, Maurizio Harriet, Joanes Otsalde, Manuel Intxauspe eta Francisque Michel. Hamar-hamaika bidegile guztira, egindako aukera konkretu horretan. Hurrengo taulak ematen du bidegile horien osagarritzko zenbait xehetasun:

Lehen belaunaldia										
1810-1815 artean (edo horren inguruan) jaiotako euskaltzale eta euskalariak										
Zkia	Nor	Jaio/hil	Kazetari	Handiki	Elizgizon	Prof. lib.	Erri-ent	Kar-gudun	Atzerriko aditu	Agin-tari
1	Agosti Xaho	1810-1858	X							
2	Anton Abbadia	1810-1897		X						
3	Jean Martin Hiribarren	1810-1866			X					
4	Jean Duvoisin	1810-1891						X		
5	Pierre-Michel Renaud	1812-1885								X
6	Maurizio Harriet	1814-1904			X					
7	Joanes Otsalde	1814-1897						X		
8	Emmanuel Intxauspe	1815-1902			X					
<b>Multzo honetan</b>			<b>1</b>	<b>1</b>	<b>3</b>			<b>2</b>		<b>1</b>
9	Louis Lucien Bonaparte	1813-1891		X						
10	Jean B. Archu	1811-1881					X			
11	Francisque Michel	1809-1887							X	
<b>Multzo honetan</b>				<b>1</b>			<b>1</b>		<b>1</b>	
<b>Guztira, 1. belaunaldian</b>			<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>		<b>1</b>	<b>2</b>	<b>1</b>	<b>1</b>

Frantziako Iraultza-garaiaren amaieran edo justu horren ondoan jaiotakoak dira belaunaldi honetako euskaltzale eta euskalariak: «Nahasmendu handia»ren ondoko lehen belaunaldia osatzen dute (125). Europari dagokionez garai bertsuan jaiotakoak dira, besteak beste, musikan Frédéric Chopin (1810-49), Robert Schumann (1810-56), Franz Liszt (1811-1886), Richard Wagner (1813-83) eta Giuseppe Verdi (1813-1901); politikan Luis Napoleon Bonaparte (*Napoleon III*) (1808-1873) eta Bismarck (1815-1898); natur zientzien eboluzio-ulerkeran Charles Darwin (1809-1882); gizarte-pentsaeran garai horretakoak ditugu, azkenik, Pierre Joseph Proudhon (1809-65) eta Hiriart-Urrutiren iturburu izandako Louis Veuillot (1813-1883) batetik, Juan Donoso Cortés (1809-1853) eta Jaime Balmes (1810-1848) bestetik (126).

(125) Perspektiba zabalagorako, Eskual herriaz haraindiko bilakaera soziokultural edo historikoan finkaturiko perspektibarako, ikus Jacques Néré-ren *Historia Contemporánea*.

(126) Alde txikia izan arren belaunaldi horretako bidegileak baino zertxobait zaharragoak dira Alexis de Tocqueville (1805-1859), Louis Etxeberriren pentsaeran hain zentrala izandako Frédéric Le-Play (1806-1882) eta John Stuart Mill (1806-1873). Apur bat gazteago, aldiz, Karl Marx (1818-83), Lewis Henry Morgan (1818-81) eta Herbert Spencer (1820-1903).

b) *Bigarren belaunaldia*

Martin Guilbeau, Jean Pierre Arbelbide, Martin Landerretxe, Arnaud Abbadie, J. B. Darricarrère, Jean Ithurri, Jean Baptiste Constantin, Albert Goienetxe eta Laurent Diharasarri ditugu, besteak beste, bigarren belaunaldian kontuan hartzekoak. Hurrengo taulak ematen du bidegile horien osagarritzko zenbait xehetasun:

<b>Bigarren belaunaldia</b>										
<b>1840-1850 artean (edo horren inguruan) jaiotako euskaltzale eta euskalariak</b>										
Zkia	Nor	Jaio/hil	Kaze-tari	Handiki	Elizgizon	Prof. Lib.	Erri-ent	Kar-gud	Atzadi	Agin-tari
12	Martin Guilbeau	1839-1912				X				
13	Étienne Lapeire	184x-1893			X					
14	Jean Pierre Arbelbide	1841-1905			X					
15	Martin Landerretxe	1842-1930			X					
16	Arnaud Abbadie	1843-1916			X					
17	J. B. Darricarrère	1844-1927						X		
18	Jean Ithurri	1845-1896			X					
19	Jean Bapt. Constantin	1847-1922					X			
20	Laurent Diharasarri	1848-1902			X					
21	Albert Goienetxe	1848-1900				X				
<b>Multzoan</b>					<b>6</b>	<b>2</b>	<b>1</b>	<b>1</b>		
22	Hugo Schuchardt	1842-1927							X	
23	Julien Vinson	1843-1926							X	
24	Georges Hérelle	1848-1935							X	
25	J. Viaud «Pierre Loti»	1850-1923						1		
<b>Multzoan</b>								<b>1</b>	<b>3</b>	
<b>Guztira, 2. belaunaldian</b>					<b>6</b>	<b>2</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	

Bigarren belaunaldi honetako asko, bertan jaiotako gehienak, iritzi- eta eredu-sortzaile baino areago hezur-mamitzaila dira: bide berriak asmatzen baino gehiago lehenengo belaunaldikoei eraikitako euskalgintza-paradigma xuxen aplikatzen gogor saiatutakoak. Kanpoan jaiotako Schuchardt, Vinson, Hérelle eta Viaud «Pierre Loti», aldiz, bide-urratzaile (hainbat gauzatan elkarren aurkari) argiak izanak ditugu.

Atzerriko pertsona ezagun hauek euskalgintzaren bigarren belaunaldiko horien pareko ditugu adinez: gizarte-pentsaeraren sailean Francisco Giner de los Ríos (1839-1915), Gustav Ratzenhofer (1842-1904) (127), Gabriel Tarde

(127) Gizarte-gatazkaren teorigile handia, gizarte-darwinismoarekin lotura izandakoa baina funtsean handik kanpora ibilia.

(1843-1904) (128), Friedrich Nietzsche (1844-1900) eta Vilfredo Pareto (1848-1923); jokaera erreflexuaren alorreko Ivan Pavlov (1849-1936); musikaren alorreko Piotr Chaikovski (1840-1893), Edvard Grieg (1843-1907) eta Nikolai Rimski-Korsakov (1844-1908).

c) *Hirugarren belaunaldia*

Euskalgintzaren hirugarren belaunaldi horretan Jean Hiriart-Urruti, Pierre Broussain, Felix Larrieu, Frédéric Saint-Jayme eta Blas Adema sartzekoak ditugu besteak beste. Hurrengo taulak ematen du bidegile horien osagarrizko zenbait xehetasun:

Hirugarren belaunaldia 1860-1865 artean (edo horren inguruan) jaiotako euskaltzale eta euskalariak										
Zkia	Nor	Jaio/hil	Kazetari	Handiki	Elizgizon	Prof. liber.	Erri-ent	Kar-gud	Atzadi	Agin-tari
27	Pierre Broussain	1859-1920				X				
28	Jean Hiriart-Urruti	1859-1915			X					
29	Blas Adema	1861-1936			X					
30	Frédéric Saint-Jayme	1862-1938								X
31	Felix Larrieu	1864-1941				X				
<b>Guztira, 3. belaunaldian</b>					<b>2</b>	<b>2</b>				<b>1</b>

Posible da, hemen ere, euskalgile horien adin beretsuko europar bidegile ezagunak aipatzea. Atzerriko adinkide dituzte, horrela, gizarte-pentsaeran (berezi soziologian) hain arrasto sakona eragindako Max Weber (1864-1920), bai eta musikan gailendutako Gustav Mahler (1860-1911), Claude Debussy (1862-1918), Richard Strauss (1864-1949) eta Jean Sibelius (1865-1957).

Zaldubiren garaiko euskalgintzan nor izandako guztiak ez dira, halere, hiru belaunaldi horietan sartzen. Badira hiru belaunaldi horietatik kanpora gelditzen direnak ere. Horrela,

d) *Aurrekoak*

Lehen belaunaldia baino zaharxeago izanik eragin bizikoak gertatu ziren, *bottom-up* langintzan bereziki, Jean Etxeto (1801-1887) eta (Dr.) Jean Baptiste Larralde (1804-1870). Elaborazio sinbolikoaren eta defentsa instituzionalaren aldetik bere pisua izana du Charles Beltzuntzeko kondeak.

(128) Masa-kulturaren eta iritzi publikoaren kontzeptu-sorreran aitzindari izana.

Aurrekoak									
33	Charles Beltzuntze	1796-1872		X					
34	Jean Etxeto	1801-1887					X		
32	Jean Etxamendi Larralde	1792-1879							
35	Pierre-Nérée Dassance	1801-1858			X				
36	Jean Baptiste Larralde	1804-1870				X			

e) *Lehen eta bigarren belaunaldien artekoak*

Lehen eta bigarren belaunaldien artean jaiok ditugu honako bidegile hauek:

Lehen eta bigarren belaunaldien artean									
37	Martin Arrupe	1823-1887							
38	Michel Elizanburu	1826-1895			X				
39	Grazian Adema	1828-1907			X				
40	Jean Bapt. Elizanburu	1828-1891					X		
41	Basilio Joannategi	1837-1921			X				
42	Jean Domi. Sallaberry					X			
<b>Guztira, tartealdi honetan</b>									
43	Paul Broca	1824-1880						X	
44	Willem Jan Van Eys	1825-1914						X	
45	Wentworth Webster	1828-1907						X	
46	Élisée Reclus	1830-1905						X	

f) *Bigarren eta hirugarren belaunaldien artekoak*

Bigarren eta hirugarren belaunaldien artean jaiok ditugu, bestalde, honako hauek:

Bigarren eta hirugarren belaunaldien artekoak									
47	Louis Etcheverry	1853-1907		X					
48	Simon Durruty	1857-1915							
49	J. Viaud «Pierre Loti»	1850-1923							
50	Edward Sp. Dodgson	1857-1922						X	
51	Lewy d' Abartiaga	1857							

Alor honetako bidegileen europar adinkide ezagunei dagokienez hor daude, esate baterako, Ferdinand Tönnies (1855-1936) soziologian, Sigmund Freud (1856-1939) psikologian, Ferdinand de Saussure (1857-1913) linguistikan eta Giacomo Puccini (1858-1924) musikan.

Labur bilduz: berrogeita hamar bat bidegile antzematen dira, batez bestean, XIX. mendearen bigarren erdialde horretan. Guztiak garrantzitsu izanik ere ez ziren guztiak garrantzi berekoak izan: Batez ere lehen belaunaldiko bidegileek eman zioten, 1850 inguruan, iparraldeko euskalgintzari benetako abiada. Berai-ek izan ziren, orobat, iparraldeko euskalgintzaren luzera begirako joera nagusia finkatu zutenak: haiek markaturiko bidetik joan ziren gauzak, oro har, 1890eko hamarkadara arte. Lehen belaunaldi horrena izana da hortaz, aski neurri zabalean, XIX. mendearen bigarren erdiko euskalgintzaren gidaritza intelektuala.

### ***III.2.2. Zenbait bidegile***

Bistan da 50 bidegile horien bizi-zertzeladak ezin ditugula txosten hone-  
tan laburbildu. Beharrik ere ez, dugun helbururako. Honegatik edo hargatik  
pisuzkoenak izan zirenak, eta azaldu nahi dudana azaltzeko baliagarrienak  
iruditzen zaizkidanak, aipatuko ditugu hurrengo atalotan. Egindako lanengatik,  
izandako oihartzunagatik eta bere hurbilpen soziobiografikoengatik aberatsen  
direnetatik abiatuko gara besterik gabe.

#### *a) Anton Abbadia (1810-1897)*

Aparteko lekua zor zaio Abbadia-ri esparru askotan, ez euskalgintzarenean  
bakarrik: goi-mailako zientzia-ikertzaile (batez ere geodesian eta astronomian),  
Afrika izkutuenaren deskubritzaile eta berri-emaile sistematiko, antropologiaren  
bide-urratzaile, urrutiko hizkuntza ezezagunen biltzaile eta aurkezle, bere ga-  
raiko gizarte-pentsaeraren ebaluatzaile zorrotz, aberats diru-jestore zuhur, enpe-  
radorearen lagun eta herri xumearen hurbileko, jatortasun etnokulturalaren eta  
berrikuntza teknologikoaren zale, fededun handi eta pentsalari hotz, paremio-  
logo eta kirolari, herriko auzapez (129) eta bidaiari. Hori guztia izana da Anton  
Abbadia. Hori guztia eta guretzat, horrezaz gainera eta horren gainetik, irlandar-  
euskaldun eskualtzale. XIX. mendeko eskualgintzaren promotore nagusi.

Aztertzaile asko saiatu izan dira Abbadia-ri nortasun-printzak bil-  
tzen (130). Ezaugarri horietariko batzuk hartuko ditugu kontuan, euskalgintza-  
ren aiekari heltzerakoan.

(129) «Después de las leyes que rigen la vida privada, ninguna otra debe preocupar tanto como la cuestión municipal» (Abbadia 1880, in Urkizu arg., 297).

(130) Ikus, adibidez, I. Estornes (1997: 65-6): (Anton Abbadia) es consciente (...) de la «superioridad» europea. Habla de la «superioridad innata del europeo». En contraposición a otros pensadores y antropólogos de su época (Gobineau, H. S. Chamberlain, Pesche, Vogt, Penca, etc.), la unicidad

- a) Indar-biltzaile eta koordinatzaile izan zen Abbadia, batetik, euskalgintzaren alorrean: «Hizo engranar a su movimiento al profesor Darrigol, al príncipe Bonaparte, a Inchauspe, al capitán Duvoisin, a Campion, al padre J. Ignacio de Arana, a J. de Manterola, a Pierre Loti e indirectamente a todo el mundo intelectual vasco de su tiempo» (131).
- b) Ez hori bakarrik: irizpide jakinez eraturiko lehentasun-eskema zuen buruan, euskalgintzaren inguruan, eta irizpide horien argitan saiatu izan zen unean uneko ekimenak antolatzen, ondorioak ateratzen eta epe erdi edo luzera begirako helburuak definitzen. Bestela esanik, koordinatzaile baino lehen estrategia izan zen Abbadia.
- c) Azkenik, eta ez da hori ere gutxietsi behar, bere poltsikotik ordaindu ohi zuen Abbadiak beste inork nekez ordainduko zuen eta, bere ustez, euskalgintzarako beharrezkoa zen hainbat ekintza. Bazekien helburuak finkatzen, bazekien jendea bildu eta elkarlanean gidatzen eta, azkenik, euskalgintzaren mezenas nagusi izan zen 50 urtez (132). Gutxitan gertatzen dira hiru elementuak batera.

Bere irizpide nagusietako batzuk, euskalgintzaren alorrean, esaldi hauetan bil daitezke:

- a) Hizkuntza bakarrik ezin da salbatu; transetnizatzeiko arrisku bizian dagoen herri baten kultura bere osoan hartu eta jestionatu behar da, ezer lortzekotan.
- b) Horrek ez du hizkuntzaren zentraltasuna ukatzen: etnokultura baten eta bere hizkuntza asoziatuaren arteko harremanak gogoan izan behar dira beti. Eta

---

del género humano en su pensamiento está fuera de toda duda. Católico conservador (línea Chateaubriand), abierto al mundo (...), pero de berroqueña fe romana. En plena eclosión del darwinismo y del dogma de la desigualdad y jerarquización de las razas (Nott y Giddon, etc.) profesa un monogenismo inquebrantable. Actitud culturalista, opuesta a diferenciaciones radicales. Humanismo con intransigencia romana. Participa de la inquietud erudita de sus coetáneos por un pasado en rápidas vías de desaparición: «es el momento, ahora o nunca, de hacer la recopilación a fin de elucidar el gran problema del origen de las naciones». Cree en una supuesta debilidad de la capacidad generatriz de las ciudades. Ikus, orobat, Petit (1899: 554-7): Anton Abbadia «n'a connu que deux passions, celle de la science et celle de son pays. La simplicité des goûts et des habitudes; son éloignement des salons sans vue et des réunions bruyantes. Sa vie était réglée en deux parts», goizez (garrantzitsuena) estudioak; arratsaldez txapela zuria eta alpagata zuriak jantzita, ariketa fisikoak. Beste elementuok ere kontuan hartze-koak dira (Abbadia 1880 in Urkizu arg., 285-9): «La fiebre de la innovación, demasiado a menudo confundida con las sanas nociones del progreso. (...) La idea del censo ya es anticuada. Francia ha obrado sabiamente renunciando al censo electoral, porque la razón de un hombre no se esclarece más porque aumenten sus rentas: el sentido común no se mide por varas. (...) El despotismo de los monarcas ó el de las multitudes turbulentas no se acomoda á estas libertades municipales».

(131) Ikus EGIPV: Abbadie.

(132) Euskal Festetako ohiko ontza urreaz eta abarrekoetz gainera beste honelako xehetasunez ere bete samarrik dago, itxuraz, bere bizia: «M. de Nansouty (...) a révéle avoir reçu de lui (Abbadiak emanik), pour la publication de la Grammaire de Pierre d'Urte, une somme de 900 francs, avec recommandation expresse de n'en rien dire» (Petit, 1899: 554-7).

- c) Hiztun-elkarte bateko kide izateak inperatibo moralak ere ezartzen dizki-gu: gizalegea = f (hizkuntza). Bere ikurburuak ere badira nortasun berezi baten adierazgarri: «*plus estre que paroistre*», eta «*in labore felicitas*».

Bere herentzia ideologikoa, euskalgintzari dagokionez, 1892an Donibane Lohizuneko Euskal Festetan azaldu zuen argi: «En ces temps où la force des choses tend à mêler tous les peuples, à changer les moeurs, et, hélas! à amoindrir les belles choses du passé, il me plaît de croire que mes chers Basques se serreront les unes contre les autres pour résister, dans une sage mesure, à cet envahissement, pour conserver intacts leur langue, leurs moeurs, leurs coutumes séculaires, leur génie naturel, leur sentiment de l'honneur et de leur foi, autant de trésors! C'est là un faisceau sacré qu'ils devront garder avec jalousie. Et qu'ils se souviennent que si les grandes choses défendent les petites, celles-ci défendent aussi les grandes». Zazpi Euskal herrien defendatzaile sutsua zen Abbadia (133). Atsegina izateaz gainera, zorrotasuna eta zuzentasuna ziren Abbadiaren dohainak. 1859an, «Altabizkarko kanta» aipatzean, asmakizun hutsa zela salatu zuen ingeles aldizkari batean.

Bere testamentuan, besterik esaten badugu ere sarri, euskalgintzaz akordatu zen Abbadia. Testamentua idatzi aurretik, gero okerrik ez gertatzeko-edo, kontsultak egin zituen Parisen, Euskal Akademia sortzeko asmoz edota, errazago, bere ordura arteko euskalgintza-bideari eusteko asmoz. Nolanahi ere, ahuldutako hizkuntzak indarberritzen saiatzeari zer zeritzon galdetu zion *Société Linguistique* delakoari: Elkartea horren onespina jaso zuen, aho batezkoa jaso ere. Horra orduko dokumentazioak zer dioen: «M. Bréal donne lecture d'une lettre de M. d'Abbadie, l'un des fondateurs de la Société Linguistique, au sujet d'une donation qu'il se propose de faire à L'Académie des Sciences: une des clauses de cette donation étant relative à la préservation de la langue basque. M. d'Abbadie consulte la Société pour savoir s'il est, comme il pense, utile préserver les idiomes locaux. Après un échange d'observations, la Société charge à l'unanimité son secrétaire de répondre affirmativement à cette question». (Urkizu arg. 1997b: 446). Horren ondoren, honako klausula hau sartu zuen bere testamentuan: «L'Académie devra consacrer chaque année, comme M. et Mme. D'Abbadie le font actuellement, une somme de onze cent francs à des distributions des prix pour les joutes et surtout pour la langue basque, dans les pays avoisinants», in Pierre Gauja, 1917: 429-30 or.

#### b) Agosti Xaho (1811-58)

Aparteko lekua izan ohi du Agosti Xahok, euskal letren eta euskalgintzaren panoraman. Bide-urratzaile izana dugu bera ere, Eskual herriaren aldi jakin

(133) Euskal Festa horietako hitzaldia, esate baterako, honela amaitu zuen: «Chers compatriotes, disait-il en terminant, joignez vos voix à la mienne, déjà bien éteinte, et crions tous ensemble: Zazpiak bat!»

bateko gizarte-bizitzan: euskalaritzan egindako lanez gainera pentsalari eta ekintza-gizon moduan dugu Xaho ezagun. Baita kazetari eta kazetagine *uskaldun* gisa ere. Euskalaritzari dagokionez leku agiria izan zuen berak 1834tik 1858ra arte gramatika sailean, hiztegitantzan eta ortografia bateratzeko saioetan. Pentsaera alorreko lanean, berriz, Parisko gazte-garaitik zetorkion sonaz gainera hemen, ipar eta hego, egindako hainbat planteamenduk ere hauts ugari harrotu zuen. Agostik ez zuen bere burua *croyant* aitortzen, *voyant* baizik. *Voyant* izate hori, berriz, aski era markatuan definitzen zuen: ohiko *fedegabel/fededun* dikotomiaren baliokide-edo zen, beretzat, *voyant/croyant* zatibiketa. Xaho ez zen, ohiko adiera nagusian, fededun (134).

Atharratzen sortu zen Agosti. Bertako idazkari-uxerra zuen aita: Etxahun malerusaren konfiantzazko gizona, koblakariaren epai-gorabeheretan. Bazuen Agosti semeak etxetikako tradizio modu bat berekin: euskal kantu- eta letramundua atsegin zuen, eta *Establishment* nagusiarekin gutxitan bizi izan zen harmonia betean. Hogei urte zuelarik Parisera joan zen, primutasunari zegozkion hamabi mila liberaren zatiño bat harturik, zuzenbidezkoak ikastera. Handik gutxira, 1832 inguruan, Charles Nodier-ek Arsenaleko liburutegian antolatzen zituen festetara agertzen hasi zen. Han ikasiak edo landuak izango zituen bere pentsamolde korapilotsuaren hainbat zoko-moko. Batetik han, Arenaleko inguruan, eta bestetik frantses-pentsalarien liburu jakinetan (135).

Bere pentsaera trumiltsuak egin zuen Xaho ezagun. Obra-lan asko digu utzia, 1834tik 1858ra artean, batzuk argitara emanik eta erdi-ilunpean besteak. Obra horien sendoak baino areago aktibazio-lan soziopolitikoak eta, bereziki, oinarri-eraikitze ideologikoak egin du Xaho entzutetsu. Errealitatea eta asma-zioa uztarri berean loturik ageri dira, sarri, bere idazlanetan. Bistan da aski zuzen zebilela maiz, etimologiazko hainbat esplikaziotan: *eguerri* (*egun + berri*) edo *ekain* (*eki + gain*) modukoetan adibidez. Amets-irakite handiak paratuak dizkigu, aldiz, *Aitor*-en eta antzekoen jira-bueltan.

*Great past*-en sortzaile dugu Xaho: sortzaile ugarietako bat. Ohiko irudien ondoan aski elaborazio sinboliko pertsonala eskaini zuen berak, gure *asaba zaharren* alorrean (136). Sinbolo-ikur sagratuen elaboratzaile ere izana dugu. Horrelakoa da, bereziki, arbolaren kontua. Frantziako Errepublikaren kosmogonian eraikia zegoen begiramen hori, lehenik eta be-

(134) Gauza ezaguna zen hori, arras: honela izendatzen zuen Hiribarrenek, 1853an, bere lagun Xaho: «beira balu fedea, eskaldun lehena».

(135) Errebelazioaren eta erlijio konparatuen filosofian, esate baterako, Court de Gébelin (1725-84) eta Fabre d'Olivet (1768-1825) pentsalarien jarraitzaile zela esan izan da. J. C. Drouinek in Urkizu 1992a: 43.

(136) Lehen Aitzinatean mundua bi herritan zegoen banaturik: iparraldekoak batetik, hegoaldekoak bestetik. Aro hori K. a. 1200. urtean amaitu zen iparraldeko barbaroak, erraldoiak, hegoaldeko lur-sailetan sartzean. Jiganteok zeltak ziren European, eta Asian esitak. Hegoaldeko biztanleak, berriz, Europa-Asietan euskaldun-iberoak. Bi arraza kontrajartzen ziren hor: zelta-esitak batetik, euskaldun-iberoak bestetik.



hin (137). Bere hitzetan esanik «Errepublikaren izatiak, Populiaren erregetarzunak badu sekulaz-geroz bere potreta: zuhain gora bat, haritx eder bat. Eta haritx hunek hirur adar gehien: Libertatia edo zuzen justua, Lege bardina, Fraternitate irus bat» (Ariel IV, 5, 1851). Agostik ez zuen ordea errerepublikaren kosmogonia hori bakarrik gogoan, haritzaren miresmenez ziharduenean. Arbolarenganako begiramenak eta santu-sentierak bazuen euskalgintzaren oinarri ideologikoekin zerikusirik: «Le chêne de leur république solaire, qui rappelle la félicité des anciens jours, est, pour cette terre profondément déchue, un symbole de régénération» (*Voyage en Navarre*). Herria biziberritzeaz, indarberritzeaz ari zen hor Xahok: hots, euskalgintza ororen ardatz-ardatzeko xedeaz. Bere ikusmolde horrek eta Iparragirrearen Gernikako Arbolak zernolako harreman-lotura zuten ikuskizun dago. XIX. mendearen bigarren erdialdeko sinbolo-ikur handiena izan genuenez azkena (Gernikako Arbola), ez genuke lehenengoa inola ere gutxietsi behar (138).

Politikarekin uztartu zuen Xahok garai hartako euskalgintza: kausa dinastikoa ez baina herri baten bizinahia, eta nahi hori asetzeko zenbait neurri politiko-operatibo hartu beharra, planteatu zuen berak Hegoaldeari begira. Herriaskatasunaren aldeko interpretazioa egin zuen Agostik Lehen Karlistadaz, 1835ean Nafarroara eginiko ibilaldiaren haritik. Don Carlos-en alde lerrotu baziren lau probintzietako euskaldun asko (gehienak?), Espainiara iritsitako jakobinoen liberalismoak beren ohiko Foruak arriskuan ipintzen zituelako izan zen. Beren Foruak zaintzearen bihurtu ziren karlista. Politikaren (une horretan, gerra-ekintzen) esparruan jokatzeko ari zen etorkizun osoa, baita jatortasun etnokulturalaren geroa eta, oro har, Hegoaldeko euskaldunen ongi-izate kolektiboa. Zumalakarregi jeneralak zuen bere ustez, azken finean, giltza: hari zegokion euskal Foruei eustea eta, haien bidez, Euskal herriak Euskal herri izaten segitu ahal izatea. Ez zen bera bakarrik, inola ere, Zumalakarregirenganako miresmen bizia zuena iparraldean: miresmen horren partaide ziren hainbat zuri eta, kurioski, zenbait gorri (139). Beste bidetik jo zuen, arras, iparraldean. 1848tik aurrerako politikagintzan bide jakina hartu zuen Xahok: errepublikazale erradikalen bidetik ibili zen sutsu, harik eta Napoleonek kontu horietatik apartatzera behartu zuen arte. Gizarte berriaren bozemaile eta boto-biltzaile ozen izan zen atharratza. Ez aphez jendea zuen maite eta ez, bereziki, kargulant-kargudun-fun-

(137) Patri Urkizuren hitzetan beti birsortzen, eraberritzen ari den urtziaren, kosmos biziaren irudia dugu zuhaitza, alegia biziarena. Zuhaitz sagratu zenbaiten artean haritza da nagusi. Haritza indarraren, sendotasunaren, garaitasunaren eta bizitza luzearen irudia dugu. Ez biziberritzea, bizi luzea baizik, aditzera ematen du alde horretatik.

(138) Gauza jakina da *Gernikako Arbola*, eta bere egile Iparragirre, ezagunak eta biziki estimatuak zirela Iparraldean, zenbait esparrutan bederen: Larresoron egin zitzaion harreraz ikus, esate baterako, Xarriton.

(139) Zaldubik familiatik beretik zuen karlismoarekiko lotura: lotura episodiko hutsa, nahi bada, baina lotura hurbila, bizia. Ezin gauza bera esan liteke, jakina, Xahoren lagun Hiribarren aphezaz eta, bereziki, Elizanburu gazte, gero errepublikazale argiaz. Jakin badakigu, ordea, Zumalakarregiren miresle izan zirela hirurak.

tzionariorik: bestelako laguntzaz eskuratu nahi zuen Agostik herri xehearen zoriona. Horrek egiten zuen hainbat eskualdunentzat erakargarri. Aldiz beste hainbatentzat, ez Enperadorearentzat bakarrik, bazter-nahasle eta arrisku-sortzailer zen Xaho. Horrek egiten zuen beldurgarri. Saiatu zen elizaren eta *Establishment* nagusiaren orbitatik kanpora, are aurrez aurre, bestelako politikagintza eskaltzalea antolatzen: saio horren oihartzun dira, hein batean, ele biko edo eskuarazko lehen aldizkariak. Urkizuren ustez lau zutabe nagusik sustengatzen zuen Chahoren euskalgintzarako zaletasuna: geografia aldetik euskal lurraldeak berekin zuen batasunak; hizkuntzak berak; euskaldunen historiak; Euskal herri(eta)ko eskubideak. Lau ardatz horien jiran, euskal batasuna ezartzen zuen Xahok nagusi eta, zenbait kontestutan (ez, zenbaitetan errazegi esan izan denez, denetan) Zazpi Probintzien askatasunaren aldeko deia egiten.

Aparteko dedikazioa eskaini nahi izan zion hizkuntzalaritzari: dedikazio horren erakuskari ditugu, bereziki, 1836ko bere lanak: *Études grammaticales sur la langue basque* batetik, euskarak eta sanskritoak elkarrekin zituzten antzekotasunez eta latinaren jenioaz zihardutenak bestetik. Berariaz landu nahi izan zuen euskararen corpus-plangintza ere, 1846tik aurrera bereziki (140). Bere euskalgintza ezin liteke ordea, hasieran esan denez, euskalaritzaren eta corpus-plangintzaren alorrera mugatu. Zazpi Probintzien aktibazio soziopolitikoak zuen amets, ipar eta hego aski jarduera diferenteak (hainbatean bateraezianak) bultzatu nahi izan bazituen ere. Gizarte-berrikuntzaren zurrunbiloan murgil eginik (ez, beste askok bezala, zurrunbilo horretatik ihes egiten ahaleginduz) eratu nahi izan zuen euskalgintza hori: 1858ko herio goiztiarrak (47 urte zituen artean) agorturik utzi zuen bide hori: Berdolyk eta Guilbeauk, Elizanburu kapitainak eta Lewy-Abartiagak gero ekarriko zuten euskaltzaleatasun errepublikarrak ezer gutxi zuen Xahoren amets- eta ekimen-mundutik.

### c) Jean Duvoisin (1810-1891)

Bidegile guztiak ez dira buruzagi. Bestelakorik ere behar izaten da, gizarte-bizitzaren hainbat alorretan. Bestek markaturiko bidean barrena ibilbide zabala egingo duenik, tartean. Horietarikoa dugu Jean Duvoisin, 1810ean

---

(140) Oker dago, kontuok hizkuntzalaritza hutsezkoak zirela uste duena. Honela zioen Xahok Abbadiari 1836 inguruko eskutitzean (hots, *Études grammaticales sur la langue basque* bien izenean argitara eman zuten garai-inguruan): «Le basque a des ennemis implacables. Je le répète: c'est la lutte de Galibesne contre L'Empire romain; et nous faisons de notre pays la Judée de l'Occident sophiste». Zilegi da, beraz, 1836ko gramatika norentzat eta zertarako argitara zuten galdetzea. P. Urkizuk emana digu, partez, erantzuna: «Gramatika jeneralean aditu direnentzat, batik bat Pariseko hizkuntzalarientzat. Eta frogatua zuenez (Xahok) hizkuntza ezagun guztietako erroak bereganatzeko eta bere egituraren sarrarazteko euskarak duen ahalmena, ez ote zituen bere baitan desira daitezkeen baldintzak hizkuntza unibertsal bat eratzeko?» Lekutan zegoen uskaldun herritar xumeen ongi-izate arrunta zaintzeko interes hutsa! Corpus-plangintza orok bere-berea duen agenda izkutuarekin topo egiten ari gara hor, itxuraz.

Ainhoan sortua (141). Ezpeletan egin zuen ume-denbora gehiena (Villasante, 1979: 187), eta Larresoroko seminarioan (Xahok Paubekoan bezala) egin zituen gaztetango ikasketak (142). Han hasi omen zen, batez ere, euskara suharki maitatzen. 1830ean aita hil zitzaion, eta «uztaileko iraultza» lehertu. Unibertsitaterako bidea utzi egin behar izan zuen eta aitaren ofizio berean sartu: aduanako guarda (Altuna, 1986: 21). Handik aurrera, 1856ra artean, lanbide horretan jardun zuen. Eskalan gora eginez aduanetako kapitain izatera iritsi zen, Donibane Lohizunen bizi izanik. 1858an aduanetako kapitain-postua utzi egin zuen, eta urteko 1000 liberako soldataz Luis Luziano Bonaparte printzearentzat euskalaritza-alorrean hasi lanean. Hala jardun zuen hainbat urtez, Inperio-agintea erori eta Jules Ferry-ren Gobernu errepublikarrak soldata hori erretiratu zion arte. Ziburun egin zituen azken urteak. Singladura pertsonal horren baitan txertatu behar da Duvoisin euskalgintza (143).

Gizartegintza osoa zuen kapitain-ohiak buruan, euskalgintzaren ardatza finkatzerakoan. Gizarte molde oso bat zuen gogoan, eskuarazko langintzari ekiterakoan. Zer gizarte molde? Hori ez da esaten hain erraza. Tradizionalismoa?; preserbatibismo hutsa?; erreformismo regenerazionista? Dударik ez da, hasteko, asko zuela bere pentsaerak tradizionalismotik. Preserbatibismo hutsetik baino erreformismo regenerazionistatik hurbilago zebilen, ordea, oro har: laborantza indarberritu eta eraberritu nahi zuen Duvoisinek, eta laborantza bidez euskarazko jatorrasun etnokulturala zurkaiztu (144). Hori zen, oker ez banago, bere gizartegintzaren muina. Gauza bat dago, nolana ere, argi: Xahoren kasuan ez bezala urrun dabil Duvoisin nazionalismotik eta, batez ere, oso urrun nazionismotik (cf. Fishman 1989 eta 1973). Duvoisin ezin da abertzaletasunaren aitzindari edo bidegiletzat hartu. Badu gai honek garrantzia, Duvoisinen kasu hutsetik haraindikoa. Gisakoa da, hortaz, iparraldeko euskalgintza haren eta handik gutxira hegoaldean eraturiko abertzaletasunaren arteko harreman-bideez ohar bat edo beste egin dezagun.

Aspaldidanik egin izan da han-hemen saiorik, tradizionalismoa nazionalismotik (gure arteko terminologia baliokidean, abertzaletasunetik) argi bereizteko. Ondoko hau izan liteke, mundu zabaleko bibliografiari dagokionez, adibide

(141) Besterik esaten ez den bitartean Patxi Altuna 1986 dugu azalpen horien iturburu.

(142) Garai horri dagokionean esanak dira Jeanez: Fama de alumno indisciplinado. Kalifikazio onak. Larresoron zaletu historiaz, geografiaz, literaturaz eta han latinez eta griegoz idatziriko antzineko liburuez liluratu.

(143) Eskuartean dugun eginkuzerako merezi luke beste aipamenok ere kontuan izatea: «Duvoisin fue siempre un trabajador empedernido; se dedicó al periodismo, a trabajos históricos, etc. Dejó una ingente cantidad de trabajos inéditos: traducciones, diccionario, etc. Haristoy decía que nunca leía si no es con la pluma en la mano. Era hombre modesto y agradable. A su muerte, Haristoi vino a hacerse cargo de sus papeles y trabajos inéditos. Fué siempre cristiano de convicciones ardientes».

(144) Atzerriko berri ere bazuen horretarako: Ingalaterran, Frantzia, Suitzan eta Ameriketako idoro berriak ziren asmoen eta aurkikundeen berri ondotox zekien. Orobat salatzen zituen baserrietako usuario zaharkituak eta zenbait maizter-etxetiarren nahiz horien nagusien zabarkeria. Ez zen, beraz, preserbatibismo hutsa.

argia: «whereas traditionalisms of various kinds seek a return to or a preservation of the genuine past, nationalism seeks to «render the present a rational continuation of the past» (Bromage 1956), indeed, it seeks and creates a usable past» (Fishman, 1973: 8). Bai eta ondoko pasarte hau ere: «It is part of the specific nature of the nationalist (rather than any more generally reformist) stress on authenticity to find it in the lower classes and in the distant past». Orobat da gogoangarria beste ohar hau: «the lower orders are seen as being not simply primitive peasants, but as the source of national creativity... Salvation must come from below» (Minogue 1967: 60-1, guztia in Fishman 1973, 8).

Abertzaletasunetik hurbilago zebiltzan, irizpide horien arabera, Agosti Xaho eta Adema-Zaldubi (145). Nabarmenki urrunago, aldiz, Duvoisin eta, batez ere, Michel Elizanburu: preserbazio ia lausogabearen paradigmaren mugitzen zen azken hau. Ez ordea, Jean Duvoisin. Lehengo egoera eta lehendikako ordena zaharra defenditzen zituen hainbatean, berak ere. Ez osorik ordea: kanpañarren ordura arteko bizibidea ez zitzaion osorik gustatzen; zer aldatua ugari ikusten zuen bertan (146).

Duvoisinen mundu-ikuskeraz eta bere filosofia soziokulturalaz jabetzeko aparteko lekua zor zaio, nolana ere, 1858an argitara eman zigun *Laborantzako liburuari*. Familia-egitura tradizionalaren defentsa inplizitua egiten da, batetik, liburu horretan: aita-semeen arteko harreman elkor eta hotzen errainua ikusi uste zuen Altunak hizkera horietan (Altuna, 1986: 29). Garai hartako euskal nekazaritzaren argazki soziologikoa eta «betiko» euskal nekazaritzaren azterketa zorrotza ere bada liburua, bestalde. Etxetiar-maizterrak, aurtan bazterretxe batean eta datorren urtean non izango diren ez dakitelarik, «zertako nekha?» esaten omen diotelako beren buruari, nagusientzat eta berentzat kalte handiak erakarriz. Burjesak eta nagusiak ere bai, «guthartean zer egiten dute ongi direnek?» galderari honela erantzunez: «!o!», eta hutsik handiena «beren lurrak etxalde ttipitan ezarriz» egiten dutela aitortuz. Herrietako agintari eta buruzagiak ere gogor hartzen ditu, hauen eginbidea herriko larreak oihanez betetzea delarik (cf. gero Broussain auzapeza) ez omen delako «segurki gobernamentuaren hobena, baldin hori ez bada hola egiten; gure haurapezek badute hortaz aditurik aski, guti khexatzen badira ere gehienak». «Hainitzek ez dute haurapezgoa urguluz baizik bilhatzen. Kargu horrek badu errekesta. Eder zaku entzutea: Agur, jaun haurapez!» (Altuna, 1986: 29-31). Lanaren eta arretaren balio paregabea

(145) Hiru horiengan erraza da ondoko jarduera-arrastorik bilatzea: «The past is being mined, ideologized and symbolically elaborated in order to provide determination, even more than direction, with respect to current and future challenges» (Fishman, 1973: 89). Bai eta honelakorik ere: «While it is true that nationalism both seeks out and cultivates the Little Tradition of an ostensible past – with its folksongs, folktales, proverbs, folk dances, costumes, pastimes and expressions– it finds not only purity and authenticity in the past but also (and particularly) greatness. It is this greatness, rooted in authenticity, that can (it is hoped) inspire current masses to make new efforts, to overcome new dangers, and to achieve new (and even greater) greatness» (Fishman, 1973, 8).

(146) Higiene kontuan, esate baterako, alderik aldeko berrikuntza-hobekuntzen aldeko zen Duvoisin. Zail da aldiz, Elizanbururen baitan, horrelako berrizaletasun argi eta deliberaturik bilatzea.

goraipatzen du Duvoisinek hasieratik beretik. Hitz gutxi agertzen da liburuan *artha* baino maizago: «*artha da guzia*» (...) «lan arthatua (da) ontasun guzien ama» eta «lanak eta arthak sendatuko dute gure gaitza».

Bere argudio-ardatza, labor bilduz, honako hau da: Gaitzak jota dago Eskual herriko laborantza, gainbehera dator kanpaña. Hizkuntza bera baino areago *modus vivendi* osoa, behinolako bizimodu tradizionala, dator gainbehera. Konponbiderik jartzen ez bazaio behera egiten segituko du. «Zerbait» egin beharra dago, *modus vivendi* tradizionala gainbehera etor ez dadin. Ohiko bizimodu hori indarberritzeko saioa da berea: kanpañan, laborari-munduan, gorde da euskal bizimodua indartsuen. Aurrera ere bizirik eta emankor gordeko bada, segurta dezagun laborari-jendearen bizimodu duina. Egin dezagun bizimodu hori ekonomikoki, teknologikoki eta juridikoki bideragarri (147). Bideragarri eta, horrenbestez, belaunaldi berrientzat sozialki erakargarri (148). Kanpañako bizimodua berri eta eguneratu beharra ikusten zuen kapitain-ohiak, euskaltasun etnokulturalak etorkizunik izatea nahi bazen. Ikuspegi horren ildotik ulertu behar da bere saioaren oinarria. Baita euskara bera, azal eta mami, dignifikatzeko jarduna ere. Hizkuntza bizirik aterako bazen idatzizko finkapen modu bat beharrezkoa zuen, herritar xeheak gero eta hizkuntza idatziaren beharrago baitziren nonahi. Hizkera ederra, eguneroko praktika mintzatutik eta, horren osagarri, lehengo autore eredugarrietatik eratorri eta elaboratua, formulatu zuen berak. Ortografia propioa, ez ordura arteko menpekotasun konbentzionalekoa, defendatu eta indarrean jarri nahi izan zuen. Horretan saiatu zen bera, buru-belarri.

Arras langilea zen Duvoisin. Etengabeko langilea. Pertsona gutxi izan zen iparraldean, antza, bai corpus- eta bai status-plangintzan bera adina saiaturakorik. Jakin badakigu, azkenik, bere lan zabal hura ez zela gutziz alferrikakoa izan. Egindako lan asko argitara eman gabe gelditu bazen ere beste zenbait garaiz kaleratu zen, eta gustu handiz kontsumitu: askoren (tartean, Jean Hiriart-Urrutiren) ereduizko maisu bilakatu zen ainhoarra, hizkuntza on-eder-zuzenaren alorrean. Bazuen eskuarak, Duvoisinen ildotik, edertasun- eta egokitasun-norma inplizitua, mende joanetara nekez hegaldatu gabe eguneroko zeregin idatzietan aplikatzeko aski prest ageri zena.

#### d) *Michel Elizanburu eta Laurent Diharasarri*

Garai hartako aphez-jendea politikoki aski markatua zela esan izan da: denak edo gehien-gehienak xuri zirela, hitzez eta egitez. Hala zirela eta, pre-

(147) Ekonomia monetarioaz ere mesfidati ageri da Duvoisin: «dirua lerrakor da; eskuetan ere urtzen zaiku nola ez dakigula» (Altuna, 1986: 31).

(148) Ihes egingo du bestela jendeak, kanpañatik hirietara edo Ameriketara. Hori da Duvoisinen beldurra, eta ez berea bakarrik: denborak erakutsiko zuenez ez zebiltzan oker, beldur hori izaterakoan, Duvoisin eta bere irizkide asko.

diku-aulkitik ere, hala agerrarazi zutela maiztxo beren burua, batzuen atseginez eta beste zenbaiten haserre-biderako. Guziak edo gehienak halakoak izanik ere, guzti-guztiak ez ziren maila berekoak. Batzuek apalago ziren beren ideologia soziopolitikoak agerrarazterakoan, eta besteak nabarmenago. Azken hauetarikoak izan genituen Michel Elizanburu eta Laurent Diharasari.

1826an jaioa da Elizanburu, Nafarroa Behereko Heletan. Mugazain buruzagi baten seme zen Michel, eta Jean Baptiste Elizanburu poetaren lehengusu (149). Herrian bertan egin zuen Michelek haurtzaroa. Gaztetan, berriz, Baiona ondoko Saint Pierre d'Iruben izan zen, aita hara destinatutik. Baionako Salletarretan egin zituen ikasketak lehenik. Ordena horretan sartzekoak, berriz, Tolosan eta Akizen. *Frère Innocentius* izena hartu zuen Michelek, salletar egitean. Hazparneko ikastetxearen zuzendaria erdalduna zelarik, haren tokian euskaldun bat ezartzeko beharra nabaritu zuten salletarrek, eta 1848an *frère Innocentius* gaztea izendatu. Han ari izan zen Elizanburu, irakasle eta zuzendari, berrogeita lau urtez (1892ra arte, hortaz). Han idatzi zituen, orobat, 1889 eta 1891 arteko bere liburu garratzenak (150). Gizon zorrotz eta gogorren fama izan zuen bertan.

Pertsona garrantzitsua da Michel Elizanburu, garai hartako eskualgintza ongi ulertzeko. Bere perfil soziopolitiko zorrotzak ematen dio salletarrari garrantzi hori. Erregezale sutsu zen *Frère Innocentius* (151), xurien aldeko itsu eta gorrien etsai purrukatu. Ez zen horretan, ondo pentsatzen jarrita, hain lore bakar eta bitxi. Bazuen eredu argirik, han-hemen. Batez ere han, bere Frantzia maitean. Funtsezkoa da hori entenditzea, joera baitago gure artean uste izateko, xurien erro ideologikoak aski etxeko direla, eta gorrienak kanpoko. Egia da gorrien mundu-ikuskera nekez har zitekeela bertako sorkarizat. Hori bezain egia da, ordea, xuriena ere ez zela bertako ikusmolde eskusiboa. Kanpotik ekarria zen, hein handi batean, *Frère Innocentius*-en mundu-ikuskera klerikala ere. Berak aitortua digunez (1890b: 64), autore handitzat hartzen zuen Joseph de Maistre. Oso gogoan hartzea komeni da Maistre, iparraldeko eskualgintzaren argi-itzaletz jabetzeko (152). Haren bidetik ibili ziren bertako

---

(149) Michel baino urtebete gazteago zen Jean Baptiste Elizanburu (1828-1991). Mugazaina zuen aita Jean Baptistek ere, baina lehengusua ez bezala errepublikar gorria zen poeta.

(150) 1889 eta 1892 artean idatzi eta argitara zituen Elizanburuk bere liburu guztiak:

1889: *Lehenagoko eskualdunak zer ziren*

1890a: *Zer izan diren eta zer diren oraino framazonak munduan. Eskualdun gazetan argitaraturiko artikuluen bilduma.*

1890b: *Framazonak (bigarren edizioa) eta Frantziako hirur Errepubliken istorioa laburki*

1891: *Joanes Batista Dohatsuaren bizia*

1892: *Sakelako liburuchka edo girstino guzientzat on den esku liburu ttipia.*

(151) Luis XVI eta Jesukristo elkarren antzekotzat hartzen zituen.

(152) «El conde José de Maistre (1753-1821) es el pensador más influyente de la Restauración. La Restauración no es únicamente un movimiento político que desea frenar la marea liberal. Es también una corriente intelectual y una ideología. Frente a la divisa «Libertad, Igualdad, Fraternidad» Maistre consigue apelar a «trono y altar». Usa un lenguaje romántico, irracionalista,

eskualtzale xuri asko (153), jakinaren gainean edo ustez uste gabeen. Ondo jakinaren gainean ibilitakoa dugu Elizanburu.

Historiaren ikusmolde teologikoa zuen Maistrek. Bere xedea ez zen erlijio-kontua argitzea, klerikalismoa bultzatzea baizik: Aita santua zen beretzat gizarte osoaren goi-erpin (154), eta gizarte-molde horren bila zebilen bera. S. Giner-en esanean «(Maistren ustez) la Revolución ha sido la forma de purgar los europeos sus muchos pecados; los revolucionarios han sido guiados por Satán, pero Satán mismo es un instrumento de Dios. Lo que vendrá después será una restauración del mundo anterior a la revolución, pero renovado y virtuoso, organizado teocráticamente, sin que los vicios corrompan, como antes, las cortes reales». Ikusmolde hori bizi-bizirik dago Elizanbururen baitan. Bekatuak purgatzea tokatzen ari zaio giristino-jendeari, Eskual herrian eta are Frantzia osoan, ostera erlijioa eta ohitura onak nagusituko diren gizarte jatorra berreraiki ahal izateko.

Framazoi-harginbeltzen kontrario bizia zen salletarra, bere maisua bezala: «Maistre cree que existe un grupo reducido de personas, conocedoras de su oficio subversivo, dotadas de gran voluntad, que intenta cambiar el mundo. Considera que existe una conjura contra las fuerzas del orden llevada a cabo por unos pocos, sin participación popular auténtica. Desde la aparición de sus consideraciones en 1797, la idea paranoica de la conjura ha pesado sobre las mentes reaccionarias» (Giner, 1967: 358). Framazoi-harginbeltzen kontuari juduen aurkako aiherkundera erantsi zitzaion Elizanburuk. Fraileren hitzetan «juduak, ia Europa guztian lortutako askatasunaz baliatuz, gizartean parte hartzen hasi eta, haietatik zenbait leku gorenetera iritsi ziren. Altxatze honek aspaldian bizirik zegoen juduen kontrako aiherkundera areagotu zuen, Israelgo semeek mundu guztiaz jabetu nahi zutela askori pentsarazterainokoan. Aspaldidaniko ordena eta bizimodua, Erljioaren oinarri guztiak barne, hain laster suntsitzen ikustean, askok eta askok alde zurretiko egitarau bat zegoela uste

---

sentimental. El fundador del pensamiento reaccionario (tiene) algunas ideas no desdeñables: una primera crítica seria a la confianza en la razón que había establecido con aparente solidez el período de la Ilustración» (ikus *Ensayo sobre el principio generativo de las constituciones políticas*, 1810) Giner-en esanean Maistren ustez «la evolución histórica de la sociedad debe imperar sobre los actos decisorios que son consecuencia de unos principios morales abstractos. La desconfianza de Maistre en la razón es total. Con Maistre empieza la era del irracionalismo consciente. Aboga por el mantenimiento y desarrollo de sistemas sociales basados en el prejuicio. 'La cuna del hombre debe estar rodeada de dogmas, de modo que cuando se despierte su razón, encuentre que todas sus opiniones están ya hechas, por lo menos aquellas que atañen a su conducta. Nada más importante para el hombre que el prejuicio'» (Joseph de Maistre, *Études sur la Souveraineté*, I, x). (in Giner, 1967: 358).

(153) Eragin bizia izan zuen Maistren pentsaerak, bereziki, aphez-jendearen artean: «Por largas décadas, el pensamiento reaccionario y la religión irán unidas en las mentes europeas. La disociación es reciente» (Giner, 1967: 358).

(154) Ondo ezaguna dugu ikusmolde hori hegoaldean. Gogoratu urte-inguru haietan gure artean eraturiko integrismo politikoa, eta haren korrelato kantuzkoa: «Kristo gure errege, adora dezagun / zeru-lurren jabe, aitortu dezagun».

zuten. Nahaste honen eragileak masoiak ziren, Satanen beraren laguntzaileak, Antikristoren erresuma prestatzen zihardutenak» (Fraile, 1988: 22).

Gizarte-molde berriaren gauza asko, itxuraz gehienak, zituen Elizanburuk atsekabezko. Baita bozkatzere-bidea ere: «berrogoi gizon prestuen botzek baino indar gehiago izanen dute berrogoi eta bat gizon txar eta kanailenek. Bertzenaz behar litazke botzak, ez khondatu bainan phizatu. Pio IXen Aita saindu handiak erraten zuena: Bozkatzere yeneralak, gezur yeneralak» (Elizanburu, 1889: 47). Atsekabezkoa zuen bozkatzere-bide hori, baina ez zion muzinik egin hartaz baliatzeko planari.

Une batean, 1889 inguruan, eskola-kontuak alde batera utzi gabe bigarren lanbide bati heldu zion Elizanburuk, besteren enkarguz: eskualdun jendea «iratzarri» eta gizartegintza zuzenerako bidean jartzeari. Horrela sortu zituen *Lehenagoko eskualdunak zer ziren* (1889) eta *Zer izan diren eta zer diren oraino framazonak munduan* (1890). Liburu biak eskuaraz idatzi zituen: bideberritza handia zen hori: ez zegoen artean tradizio handirik, kontu horiek eskuaraz azaldu eta justifikatzeko (155). Elizanbururen saio hori euskalgintza al den galde dezake norbaitek. Erantzuna argia da oso. Ikus Elizanburuk berak liburuaren sarreran esana: «Eskual herriko aphez guziz argitu (batek) eskuara, gure lenguaia ederra, osoki maite duelakotz, eta hura luzaz kontserba dadientzat gure artean, nahi izan du (...) liburu hau emana izan dadin publikoaren eskuatarat, hala nola jadanik ager arazi baitu goraxeago aipatu liburuxka, *Framazonak*» (1889, in Treku eta Nazabal, 1993: 5) (156). Nor ote zen «Jaun errespetagarri» hura, horretarako dirua aski zuena edo eskuratze gai zena? Nornahi zela ere, argi dago garai hartako aphez klerikal-xuri haien politikagintza ez zela erlijioak bakarrik gidatua. Politikagintza hark bazuen berariazko xederik: «gure lenguaia ederra (...) luzaz kontserba dadientzat gure artean». Euskalgintza zen eta da hori, ehuneko ehun.

Elizanburuk paperean jartzen zuenak aplikazio praktikoa behar zuen, halere, eliz defentsa eta euskalgintza-saio osoa ipuin-kontatze hutsean geratuko ez bazen: hauteskondeetarako aplikazio organizatiboa eratu behar zen horretarako, lehen-lehenik; eta gero, bozketa bidez emaitza egokirik lortutakoan, etekinak atera behar ziren. Herrietako aphezek argi azaldu behar zuten horretarako, prediku-aulkitik, boza nori ez eman. Aphez horiei, hauteskunde aurre-

---

(155) Hori ere egin zuen berak, liburuaren sarreran: «Eskuarak ez du zorrik edozoin lenguaia horiei. Hain zalhua da non (...) dobla, plega baititazke nahi bezala, eta itzularaz norat nahi. Lenguaia guti da Eskuara baino gehiago gai denik koblatzeko edo poesiako. Orok badakigu Poesia dela khantuzko edo koblatzko lenguaia, hitz neurtuzkoa. Eskuara, erran nahi da, gure aitaamen besoetan lehen lehenik ikhasi dugun mintzaira ezta eta ederra maite duenak, gogotik erosiko du liburu hau eta hunen irakurtzetik atherako ditu gazeta edo berriketari phurtzil frantsezko batzuetarik athera ez lezazken abantail franko» (Elizanburu 1889: 34).

(156) *Intxauspe bikario jenerala?; Adema-Zaldubi?; Arbelbide? Laurent Diharasarri? Bistan da Louis Etxeberri ezin zela izan: «aphez» batez da hor kontua. Baliteke Diharasarri izatea. Nornahi zela ere, bistan da aphez haien politikagintza klerikala ez zela erlijioak bakarrik gidatua, ez eta erlijioa salbatzeko asmoz egina ere soil-soilik.*



tik, argi esan behar zien norbaitek bazutela hartarako eskubidea, eta komeni zela hala egitea. Laurent Diharasarrik heldu zion langintza horri. 1848an jaioa zen Laurent, Saran. Elizgizon saiatua zen, hiztun garbia eta, 1890ean, Kanboko erretor. Bi liburuxka edo idazki argitara zituen urte horretan: *Aphezen dretchoac eta eginbideac eletcionetan* (itzulpena) eta *Erlisionearen ichtorioa laburzki*. Kontua ez zen hor gelditu: hainbat aphezek gorrien aurkako edo xurien aldeko predikurik egin zuten, hauteskunde aitzinean. Aita santua aldeko zuten, ustez. Baionako suprefeta eta, handik gutxira, bertako apezpiku berria kontra atera zitzaizkien ordea. Aginte biek (batetik Parisek eta Baionako apezpiku berriak, Parisek izendatuak; bestetik Erromak) talka egin zuten aurrez aurre. Talka haren emaitza aski ezaguna da: beren elizetatik erauziak izan ziren hemeretzi aphez, Diharasarri tarteko. Gora jo zuen Kanboko erre-tore-ohiak eta, hainbat katramilaren ondoan, ohorezko trataera («Aita Santua-ren gelari») eskuratu zuen Erromatik. Sakon-sakonean Frantziako estatuaren postulatuak atera ziren ordea garaile: Intxauspe bikario jenerala etxera bidali zen, suprefetari obeditu ez izateagatik, eta Diharasarriren argi-distira itzalduz joan zen herritarren artean, 1902an istripuz hil arte (157).

Gutxitan esaten dena da, eta komeni da argi uztea, euskaldun-fededun paradigmatari oso-osoan eusten zion aphez-jende hori Maistreren eta bere ikasle Luis Veuillot (1813-83) hilberriaren arrastoan zebilela fede osoz (158), oraindik indar betean zegoen Pio IXren doktrina lagun. Ikuspegi horren arabera herritar xumeak ez ziren gai, zer zen on eta zer txar bere kabuz erabakitzeko. Esan egin behar zitzaien hori, ez nork bere arrazoibidez kontua argitu zezan libre utzi (159). Arrazoa alde batera utzi behar zen, alegia, eta gizarte-

(157) 1894ko bozketan galtzaile atera zen eta geroztik ez zuen, dakigularik, langintza horietan parte hartu.

(158) Baita, zenbaitetan, ikuspegi fisiokratikoz Le Play-rengandik hurbilago zegoen Luis Bonald (1754-1840) famatuarenean ere. Luis Bonald (1754-1840) «no creía que la religión laica de los revolucionarios debía ser contrarrestada con una teocracia, sino por un sistema monárquico autoritario y fuerte. Bonald es un heredero de la mentalidad fisiocrática y propugna una vuelta a la vida agrícola, fuente de toda moralidad. Se cierra de banda ante el ya considerable aumento del industrialismo. En Francia, Luis Veuillot (1813-83), discípulo de Maistre y amigo del reaccionario más descollante del siglo XIX, Juan Donoso Cortés, es la figura representativa de esta segunda fase. Veuillot fué ayudado por Pío IX (1846-78), que publicó su *Syllabus de Errores*: condenaba el racionalismo, el escepticismo científico y el liberalismo (cf. *liberalkeria bekatu da*). La declaración de infalibilidad papal en 1870 agravó la situación» (S. Giner, 1967-1975: 360). Kasu konkretu batzuetan oso garbí esana dago hori. Hiriart-Urrutiaren kasuan, esate baterako, gutxienez bitan aipatua: «Entre los escritores franceses sus preferidos eran Louis Veuillot y Sainte-Beuve» (Villasante, 1979: 199); «Bossuet, La Bruyère, Sainte-Beuve, Louis Veuillot zituen, diotenaz, maitenik; baina hetaz bertze asko eta asko idazlari gogoko zituen» (Lafitte, 1971: 20). Louis Etxeberriek Le Playrekin zuen harremana ere aski aipaturik dago lehendik. Beste askotan ahaztu bezala egiten gara, ordea, horretaz. Oker dihardugu horretan: euskalgintza ez da jarduera lokabea: gizakia bere ingurumen globalean kokatu gabe ezin ententitu litezke bere asmoak; are gutxiago bere motibazioak.

(159) Elizanburu ondo konturatzen zen horretaz: «Ez da dudarik, batere ez edo guti eskoletan ibili direnek, abantail gehiagorekin irakurtuko dutela ene liburu tipia» (1889: 34). Bere xedea hortik haranzkoa zen ordea: «Ene liburuxka berri hau nork behar du erosi? Hau erosiko

gintza osoa sinesmen-dogmetan oinarritu: aita santua infaliblea zen kontu horietan denetan. Doktrina horrek bultzaturik ziharduten eskualtzale xuriek, bizkarrak ondo zainduak zituztelakoan. Gauzak aldatu egin ziren ordea Erroman, 1891n *Rerum Novarum* entziklika atera zuenean Leon XIII aita santu berriak. Han bukatu ziren Elizanbururen eta Diharasarriren argitalpen politikoak, erlijioaz bat euskalgintza bultzatu nahi zutenak.

e) *Martin Guilbeau (1839-1912)*

Xahoz jarduterakoan zerbait esan dugu jadanik: eskualtzale guztiak ez ziren tradizionalista (preserbazionista zein erreformista). Bazen tartean euskara eta euskal kultura errepublikaren markoan, eta marko horren oinarritzko irizpideen arabera, babestu eta indartu nahi zuenik. Horietarikoa dugu Martin Guilbeau. Urruñan jaioa, haurtzaro zail baten ondoan eta bere merezimendu propioez ikasketetan aurrera egin eta, azkenik, mediku egina. Medikuntza horretan jardun zuen Donibane Lohizunen, 1869tik aurrera. Errepublikarren kandidatu ezagun izan zen maiz, 1871tik aurrerako panorama instituzionalean. Bertako auzapez-mera izatera iritsi zen 1878an, eta kargu horretan jardun zuen hamar urtez, 1888ra arte. Medikua eta gorri, «beste» eskualtzaletasunaren eredu dugu Guilbeau.

Oso gaztetatik agertu zen Martin euskal literaturaz arduratua. Abbadiaren lehiaketan parte hartua zen gaztetxotan (1859an), eta orduko eskualtzaleekin harreman onetan jarduna. Errepublika etortzearekin batera asko mindu ziren kontuak, ordea, iparraldeko euskalgintzaren esparruan. 1874an, bereziki, haserre agertu zen Euskal Festetako epaileekin: epaile horiek ez ziren, bere iduriko, ideologia aldetik batere neutralak. *Xurien* alde ari ziren nabarmen eta, horrenbestez, bera bezalako *gorrien* kaltean. Iparraldeko euskalgintza bidebanatzen hasi zen harrez gero. Ez zuen hurrengo handik aurrera elkartasun-giro zabalik berreskuratuko.

Guilbeau eta beste zenbait buru-jantzi (mediku eta notario, funtzionario eta, zenbaitetan, apaiz (160)) ez zeuden prest euskalgintza osoa estrategia klerikalaren orbitara eramateko. Errepublikak izango zituen bere gaitzak, nola ez: baina Europa gehiena eratzen ari zen *mundu berrira* egokitzeke mesederik ere ikusten zioten, ugari gainera, eta ez zeuden aurrerabide horiek alferrikaltzen uzteko prest. Errepublikaren marko politiko-operatiboaren barruan, ez haren kontra eta are gutxiago handik kanpora, jokatu nahi zuten beraiek.

---

dute unta bat izpiritu buruan, unta erdi bat zentzu kaskoan, eta hamabi sos sakelan izanen dituzten Eskualdun guziek. Norbaitek galdeginen daut oraino heya beren ixtudioak eginak dituztenek probetxurekin irakurtuko duten liburutto hau, ene errepostua izanen da: *Batere dudarik gabe*» (1889: 34).

(160) Berariaz aipatua da, aspaldidanik (Charritton, 1985a) harreman ona zuela Guilbeauk Donibane Lohizune inguruko zenbait aphezekin.

Abbadiaren Festetan xuriak nagusi zirela ikusirik berariazko kultura-emanki-zunak antolatu zituen Guilbeau mediku eta jaun merak 1881ean, herriko festetan. Hegoaldeko (batez ere Donostiako manterolatarrak) euskaltzale-mugimenduarekin harremanak izan zituen behin baino gehiagotan. Eta gero, 1890etik aurrera, iparraldeko xurien eta gorrien arteko etsaigoa arras gaiztoturik zegoelarik, aparteko elkarteak sortu zuen «bestelako» eskualgintza hori bideratzeko: *Association Basque* (161). Bertako burulehen izan zen Guilbeau 1893tik aurrera. Elkarte horren eskutik Hendaiaiko Biltzarraren antolatzaile izan genuen 1901ean, eta 1902an Hendaiaikoaren kontu-errendatzaile (162). Mende-amaiera trumiltsu hartako euskalgintza nekez uler liteke Guilbeau eta bere pareko euskaltzaleen saioa gabe. Jakin bazekiten minorian zirela euskaltzaleen artean, eta indar handirik ere ez zuten Iparraldeko ideario errepublikarrean: ez, bederen, ideario horretan euskal esparru burugainik eratzeko. Bizirik eutsi nahi zioten euskal hizkuntzari eta kulturari, eta lan gaitza zen gauza biak ezkontzea: oso bestelakoa zen, izan ere, Frantzia osoko errepublikaren oinarri ideologiko nagusia. Oinarri horren arrastoan mugitzea zegokien eskualtzale gorriek, beren mundu-berri promesari uko egingo ez bazieten. Hendaiaiko biltzar-kongresuaren 1901eko bere prestalaren berri duenak badaki, logistikazko ahuleziak momentuz alde batera utzita ere, zein egoera ahulean jardutea suertatu zitzaion Guilbeauri: xurien parte-hartzea gabe alferrik zen bere proiektua, han baitzegoen indar nagusia, eta parte-hartze hori segurtatu ahal izateko haien zenbait baldintza ezinbestean onartu beharra zeukan. «Bere aldekoak» (batez ere bere aldeko beligeranteenak, Julien Vinson buru) sakrifikatzea eskatzen zuen horrek, praktikan. Ezinezko konbinatoria gertatu zen buru biko uztartze-lan hori, eta hala lehertu ere ziren kontuak, Hendaian bertan ez baina bai handik hurrengo hilabeteetan eta azkenik Hondarrribian, 1902ko irailean. Azterkizun dugun epealditik zertxobait kanpora garamatza horrek, ordea, eta hobe izango dugu oraingoz alde batera utzi (163).

Guilbeauren eta bere inguruko iritzikide errepublikar-gorrien ideario euskaltzalea gutxi aztertuta dago oro har: xuriena baina hagitza gutxiago, nolana ere. Garbi dago distantzia handia markatzen zuela, batzuen eta besteen artean, Frantziako estatuaren eramolde politiko-operatibo berriak. Etorkizun oparago baten atariko zen batzuentzat eramolde hori; era askotako gaitzen,

(161) Ikus Charriton 1985a: 205: «Ayant perdue le Doctor Guilbeau la mairie de Saint-Jean-de-Luz en 1888, il avait constitué, avec quelques bascophiles de tendance libérale, comme lui, une Association Labourdine, devenue bientôt l'Association Basque. La première manifestation de la nouvelle Association eut lieu le 19 septembre 1893 à Ustaritz. L'Association nouvelle s'est donné une devise: «Bizi bedi Eskual Herria» et une bannière sur laquelle M. Zigarroa d'Urrugne a peint les armes des sept provinces basques» (L'Avenir, 22 septembre de 1893). Ikus, horren parez pare, Donibane Lohizuneko Euskal Festak 1892an (berezi Abbadiaren hitzaldi-amaiera) eta 1897an banderola eta erakusgarriak.

(162) Gero, XX. mendearan hasiera aldean, handik sortutako *Eskualtzaleen Biltzarraren* idazkari.

(163) Hartaz informaziorik nahi duenak ikus beza, esate baterako, Zalvide 2003.

eta azken batean euskaltasunaren gainbehera etnokultural eta soziologiko oso baten, eragilea askorentzat. Horretan bereizten ziren, garbi, xuriak etra gorriak. Zer nolako Eskual-herri zuten amets, ordea, Martin Guilbeauk eta bere kidekoek? Zer leku zegokien eskuarari eta eskual etnokultura zahar edo eguneratuari beren ametssezko etorkizun-proiektuan? Beren esan-eginei bagagozkie, zail da puntu horretan xuriak eta gorriak zorrotz bereiztea. Apaiz-jendeak ordura prominentzia sozial nabarmen hura galduko duen, baina ez horrenbestez, erlijio-esfera desagertzera eramango duen, proiektu soziokulturala dute buruan, batetik. Baserri-bizitzak eta ohiko lehentasun-eskema kulturalak ezaugarri asko indarrean izango dituen gizarte-bizitza hobesten dute gorriek ere. Errepublikazale Elizanbururen «ikhusten duzu goizean...» delakoa nekez har liteke baserri-bizitzaren gutxiespenezko aitormentzat. Kultura zaharraren eta bizi-baldintza berrien arteko konbinatoria diferenteak markatzen du argi, ezerk markatzekotan, bien arteko muga. Horrek eta, nola ez, bidegile gorri-errepublikar-aurrerazaleak zientziaren eta aurrerapen teknologikoaren ezin itzurizko ezinbestekotasun mugagabearen sinesle itsu bilakatu izanak. Berariaz heldu behar diogu gai honi, Vinson eta Viaud «Loti» aipatzean.

*f) Julien Vinson (1843-1926) eta J. Viaud «Pierre Loti» (1850-1923)*

Euskaldunak ditugu, funtsean, orain arte ikusitako bidegile guztiak: ia denak bertan jaiok eta gurasoak, biak edo bietariko bat, jatorriz eta hizkuntzaz euskaldun zitzutenak. Baziren bestelako bidegileak ere, ordea, gure artean. Adinez Guilbeau baino zertxobait gazteago ditugun bi hauek aztertuko dira atal honetan: Julien Vinson (1843-1926) batetik, eta Louis Marie Julien Viaud «Pierre Loti» (1850-1923) bestetik. Oso diferenteak ziren biak eta, aldi berean, amankomuneko hainbat ezaugarri zuten. Biak Frantzia jaiok, biak Euskal herriratu aurretik zenbait urtez Asian bizi izandakoak, biak funtzionario gisa Iparraldean luzaz kokatuak, biak euskal kontuez interesatuak eta, halako neurri batean, maiteminduak, biak hemengo gizarte-bizitzan nor bere modura eragiten saiatu zirenak. Labur-labur azalduko ditugu biak, euskalgintzaren ikuspegitik funtsezkoa dugun punturen bat edo beste azpimarratuz.

Baionako oihezain jeneral genuen Vinson. Hizkuntzalari eta euskalari. Parisko *Revue de Linguistique*-ren zuzendari (164). Euskal klasikoen argitaratzaile eta euskal hizkuntzaren gaineko bibliografiaren sortzaile nagusi. Bere garaiko euskalari gehienekin disputa mingotsak izandakoa, Europako linguis-

---

(164) Julien Vinsonek osoki bat egin zuen haste-hastetik hizkuntzalaritza naturalistaren ikusmolde eta hatsarreekin (Gómez 2006). Eskola hark ateratzen zuen aldizkariak ere (*Revue de linguistique et de philologie comparée*) euskalaritzaren historian garrantzi zerbait izan zuen, eta luzaz Vinson izan zen haren zuzendaria, baita artikulua egile emankorrena (aldizkari horretan orotara 710 artikulua argitaratu baitziren, 154 artikulua egile izanik, jakitekoa da Vinsonek berak orotara 237 datzi zituela, erran nahi baita hiruretarik bat (Oiharzabal, 2006b).

tikaren bide-berritze batzuk (ez guztiak) hurbiletik ezagutzen zituen aditua. Eskual herriari zegozkion gauza askotxoren (tartean eskuararen bizitza moder-norako baliaagarritasun sozialaren eta euskaldun-fededun idealaren) detraktore zorrotza.

Honako erdal aipamen labur honetara bilduko ditugu, aldiz, Pierre Loti-ren nortasun-zertzeladak: «oficial de marina, gran enamorado del País Vasco, que conoció en 1891 (Frantziako Akademian sartu zen urte berean) estando destinado a vigilar la desembocadura del Bidasoa. Se instaló en una casa en Hendaya. En 1897 publicó Ramuntcho. Elaboró también un cuaderno, en el que muestra su peculiar y melancólica visión de un pueblo que lucha desesperadamente, y de manera contradictoria, por abandonar viejos usos y adaptarse a los nuevos tiempos que traía consigo el siglo XX» (Roger, 2000: 6).

Euskal herria eta eskuara kanpotik ikusten dute biek, hein batean: atzerrik itorri dira, pertsona heldu gisa, eta *factum* soziokultural batekin egin dute topo: ahultzen eta gesaltzen ari den entitate etnokultural berezi batekin. Baita ahultze-bide horri aurre egin eta konstelazio etnokultural osoa (lanbide eta jolas, uste-sinesmen eta mintzaira, fede eta jakintza) galbidetik ateratzeko saioarekin ere. Euskalgintza martxan dago beraiek guregana iristean. Zer dio-te euskalgintza horretaz: zer balioespen etiko merezi die saioak? Zer bideragarritasun aitortzen diote saio horri? Egin al liteke, benetan, esukaltzaleek egin nahi dutena? Egiterik balego ere, merezi al du egitea? Euskalgintzaren gaineko gogoeta sendoa eginik dute biek, nork bere modura, funtsezko bi galdera horien inguruan.

Atzekoz aurrera hasita, diogun bideraezina iruditzen zaiola Vinsoni euskalgintzaren osabetezko helburua: XX. menderako hizkuntza noranahikoa eta kultura beregaina, eskualdunek eta, oro har, Zazpi probintziek amankomunean luketen oinarri soziokultural konpartitua, hala nahi izanik ere, ezin da berre-raiki. Helburu xumeagoez ere ez du azalpen argirik (165), baina bistan da osabetezko hori ez duela bideragarri ikusten. Zergatik hori? Euskal kulturak berezi-berezitik ezer gutxi duelako, batetik; eskuararen atzeramartxa bere baitarikoa delako, bestetik. Ari dira euskaltzaleak beren gramatikak, ortografia eta abar prestatzen, hizkuntza bera bizimodu berrirako egokitu nahirik besteak beste; baina ezinezkoa da hori: den bezalakoa da eskuara, eta ez du gizarte berriaren konplexutasun izugarriko balio. Frantsesaren aurrez aurre ahula da, indargabea, bere barne-egituraz. Ahula da eta, Schleicher-en darwinismo linguistikoak argi erakutsia duenez berrikitan, hizkuntza indartsua nagusitzen zaió halakoetan, ezinbestean, ahulari (166).

(165) Nik ez dut, bederen, halakorik lokalizatzerik izan.

(166) Argi zen Vinsonentzat, hizkuntza kondentatua zela: «*tout indique sa disparition complète dans un avenir plus proche qu'on ne le pense*». Beñat Oiharzabal dugu kontu horien berri-emaile zehatzena: «Euskara eta euskara bezalako hizkuntzak desagertzearen inguruko teorizazioa piska bat geroxeago eginen zen, hizkuntzalaritza naturalista deitua izan den

Beste horrenbeste esan liteke, bere ustez, bertako etnokultura tradizional osoaz. Gizarte berria dakar Europak, oro har, eta etorkizun horretan euskarak eta euskal kulturak ez dute lekurik, museoko pieza ikusgarri edo gizarte-bizitzako sinbolo beneragarri moduan ez bada. Aurrerapen teknologikoaren abangoardian doa Frantzia eta, horrekin batean, gizaki berriaren paradigma sortuz doa bere erraietatik. Ikusi besterik ez dago zer aurrerapen egin den Hendaian. Konparatu Hondarribirekin eta Irunekin: «À gauche, et derrière, s'endort la vieille ville espagnole avec ses maisons en ruines malgré leurs écussons armoriés, ses rues étroites et sordides, et son grouillement d'enfants qui mendient. À droite s'étend la pacifique Bidassoa, puis la rive française et cette grande gare d'Hendaye (...) où les hommes d'équipe courent et s'agitent, où les voyageurs et les touristes se pressent inquiets et avides. Ici, c'est la mort, le passé, la monarchie, la féodalité, la misère; là, c'est la fortune, la démocratie, la République, l'avenir, la vie» (Vinson, 1891, XXV-VI). Ez du merezi, hortaz, euskararekin neurritz gaineko ametsik egitea.

Badaki J. Viaudek ere Europako aurrerapen teknologikoa zer bide egiten ari den. Ez da alferrik mundu zabaleko kontinente gehienetan ibilia. Besterik ere ikusten du ordea «Pierre Loti»-k: gizonaren betea ez du aurrerapen teknologikoak ematen. Herrien ongi-izatea eta autorregulazio sozio-kulturala ere ez. Aurrerapenak ez du berez, ezinbestean, eskuararen galera eskatzen. Ez du euskal hizkuntzak, Vinsonen ustearen kontra, berezko tatxa-orbanik. Gai da euskara, XIX. mendearen amaiera horretan, eguneroko bizimoduaren poz-atsedenak, beldur-ikarak, nekeak eta itxaropenak adierazteko: gustura bizi dira euskaraz, Bidasoaz ezker-eskuin, alde bietako euskaldunak. Miresmenez ikusten ditu ingurutako neska-mutil gazteak beren erromeria alaietan, dantzan eta pilotan, kantuan eta lanean, baita sagardo-edaten ere. Hots, eguneroko biziaren gorabeherak adierazteko ez du aparteko eragozpen intrintsekorik euskarak. Atzera baldin badoaz hizkuntza eta etnokultura hori, ez da hizkuntzak bere baitariko ezintasun larria duela-

---

eskolaren lanei esker. Eskola hori 1860 hamarkadaren bigarren partean sortu zen. Lehen eragileak Honoré Chavée (1815-1877) eta Abel Hovelacque (1843-1896) izan ziren, nahiz August Schleicher (1821-1868) izan zen lehenago ikusmolde horren nolabaiteko aitzindaria eta eragilea. Hizkuntzalari hau garai hartako indoeuropearlari famatuenetarik bat izan zen, teoria oso bat eratu zuena hizkuntzen eboluzioari buruz. Neurri handi batean bat zetorren haren teoria, darwinismoak izaki bizidunen eboluzioaz sortu zuen teoriarekin (Darwin 1859, Schleicher 1863), zeren haren ikuspegiaren arabera hizkuntzak ere natura-izakiak baitziren, gaineratiko izaki bizidunak bezala garapen katea batean sartuak zirenak. Garapen desberdineko hizkuntzak eremu berean gertatuz gero hil-ala-biziko lehiaketa batean sartuak izanki, ahulenek desagertu behar zuten orduan nahitaez. Garapen mailak, hizkuntzen kasuan, geroztik tipologiako lanetako atxikia izan den partikamen hirukoitzaren arabera egiten zen: hizkuntza isolatzaileak > hizkuntza eranskariak > hizkuntza flexiodunak». Zuzen-zuzenean euskarari aplikatu zizkion Vinsonek naturalisten teoriak (Vinson 1874). (...) Guztiz bat egiten zuen Vinsonek hizkuntza-darwinismoarekin: «Les organismes phoniques sont des produits spontanés et inconscients des organes humains, soumis, en leur qualité d'êtres naturels à la grande loi de l'éternelle variabilité (...) Les êtres linguistiques sont soumis aussi à la loi terrible de la concurrence vitale qui a fait disparaître bien des langues inconnues» (Vinson 1874, in Oiharzabal, 2006b).

ko. Gizartean gertatzen ari diren transformazio demografiko, ekonotekniko, politiko-operatibo eta soziokulturalak dira, aitzitik, euskal hizkuntza eta euskal kultura ahultzen, baztertzen eta, azkenik, bideraezin bihurtzen ari direnak. Agian ezinbestekoak dira transformazio horiek (horretaz ez dirudi iritzi zorrotzik duenik Pierre Lotik), baina ez dira intrintsekoak. Are gehiago: beretzat behintzat ez dira miresgarri. Vinsonek aurreko pasartean azaldukoak idatzi eta handik urtebetera, leku beretik begira ari delarik, honako gogoeta hau egiten du Lotik (167): «Oyendo doblar las campanas de las iglesias y vibrar en la lejanía las viejas canciones, me doy cuenta exacta de todo cuanto este país ha guardado de particular y de absolutamente distinto en el fondo de sí mismo. Del conjunto de cosas y de seres ambientes se desprende a los ojos de mi espíritu, como una viviente esencia; por vez primera siento *existir* aquí un no sé qué aparte, misterioso –destruible, ¡ay!, pero aún impregnándolo todo y exhalando de todo– sin duda, el alma agonizante del país vasco... No obstante, allá a lo lejos, a mi espalda, feo, negruzco, estrepitoso, idiotamente apresurado, pasa, rápido, haciendo temblar la tierra, turbando la calma deliciosa con silbidos y ruidos de ferretería: el camino de hierro! El camino de hierro más nivelador que el tiempo, propagando la baja chapucería de la industria y de las ideas modernas, derramando, aquí como en todas partes, banalidades e imbéciles...» (Pierre Loti. *Cuaderno de notas*, 1892-XI-22).

Frantzia-Espainien kontrastea baino zerbait gehiago ageri da, zinez, Vinsonen eta Lotiren baitako ikusmolde diferentzial horietan. Modernitatearen eta jatortasun etnokulturalaren arteko uztardura-bide posibleen eta ezinezkoen arteko tirabira kontzeptual eta ideologikoa. Horixe da, funtsean, XIX. mendeko euskalgintzak iparraldean (baita hegoan ere, hein batean) bizi duen arazoa: egin nahi den hori egingarria eta komenigarria ote den ez dago argi. Gogoratu Abbadiak galdera bera egin diela, urte-garai horretan bertan, Parisko jakitun akademikoei: onargarria al da euskalgintza? (Urkizu arg., 1997b: 446. Ikus, orobat, txosten honetako III.2.2 puntuko a atala).

Hobea ote litzateke, eskuarazko Eskual herria? Ez ote da hobe, eskuara galdu eta guztiok hizkuntza handi, landu, doiaz baliatzea? Vinson ez zen tristatzen bertako hizkuntza xaharkituaren galeraz. Kaleko eta, batez ere, kanpañako herritarrak modernotasunean sartzetik gibelatzen zituen euskarak, eta zibilizazio-maila apal-apaleko antzinatasun batean atxikitzen: «*Nous croyons qu'il y a plus à se féliciter qu'à se plaindre de la mort d'un idiome dont l'âge nous reporte à une époque de civilisation très-inférieure*». Ona eta poztekoa zen gauzak horrela gerta zitezen: hizkuntza eranskaria izanik euskara, bere garapenean bide erdi gelditu zen eta ondorioz, nahitaez, hizkuntza flexiodunak zituzten zibilizazioen ondoan zibilizazio primitibo eta osatu gabe baten ekarle zela iruditzen zitzaion Oiharzabal 2006b).

---

(167) Gaztelaniaz ematen dut aipamena, erabilitako argitalpenean dagoen moduan.

Eskuartearen zuten langintzaren klarifikazio eta adostasun-lanketa ideologikoa erdi-eginik zeukaten Iparraldean, ez erabat osaturik, Zaldubiren bizi-denboran: galga-freno handia ezartzen zion horrek bertako euskalgintzari. Alde bietan zegoen arazoa, jakina: bai euskararen detraktore sinplifikatzaileen (arazoaren muina hizkuntza eta etnokultura honen barne-egitura defizitarioan zegoela uste zutenen) eta bai, nola ez, borondate onez eta dirubide egokiz horrelako lan bat onik atera zitekeela eta, beraz, nahi izatea eta hartan gogor saiazea aski zela uste zutenen artean. Hori baino askoz lan konplexuagoa zen ordea, eta hala da orain ere, euskalgintzak bere gibel-erraietan zekarrena. Gutxitan iritsi ziren batzuek (detraktoreak) eta besteak (euskaltzaleak) horretaz jabetzera. Euskalgintzaren dimentsio sozial osoaz jabetzea eskatzen zuen horrek eta gutxi egin zuen hartarako hurbilbide sendorik. Jean Hiriart-Urruti dugu, aski abiaburu eta ikusmolde markatuetatik ari izanik ere, horietariko bat.

g) *Jean Hiriart-Urruti (1859-1915)*

Hazparnen jaioa, esku-langile xumeen familia zabalean hazia eta 1882an apaiztua, funtsezko figura da Jean Hiriart-Urruti, XIX. mendeko bigarren erdialdearen Iparraldeko euskalgintzan. Funtsezkoa da, bereziki, eskualgintzaren 1890etik aurrerako klarifikazio-saio ideologikoan eta horren araberrako zabal-kunde-lanean. Apaiz izateaz gainera irakasle izan zen, luzaz, Hiriart-Urruti: Larresoroko seminario ttipian irakasle 1882tik aurrera. Hartan jardun zuen hogeitabost urtez, Abbadia jaun kalonjea buruzagi zuela (168). 1891tik aurrera, irakaslan horretan jarraitzeaz gainera, *Eskualdun* kazetaren erredaktorea izan zen, eta 1904tik aurrera astekari horren zuzendari. 1907an, Zaldubi hildakoan, kazetari-lanean jarraitzeaz gainera Baionako katedraleko kalonje izendatu zuen apezpikuak, eta handik jarraitu zuen bere eskualgintza berezia bideratzen.

Figura sendoa, zorrotza eta dinamikoa da Hiriart-Urruti garai hartako panoraman. Aski ezaguna bere ideologia xuria-eliztiarragatik, baina baita ere bere ekimen zabalagatik. Gregorio Mujikak esana da, Hiriart-Urrutiren dinamismoaz: «no era de esos vascófilos que se pasan el tiempo diciendo: habría que hacer esto o lo otro. El no decía lo que había que hacer, sino que lo hacía» (Villasante, 1979). Frantziako iturri jakinetatik edana zen. Seminarioko bere ikasleen aurrean ez zuen izkututzen, antza, bere ideologiaren iturburuak non ziren: «Entre los escritores franceses sus preferidos eran Louis Veuillot (169) y Sainte-Beuve» (Villasante 1979: 199). Panorama zabalxeagoa eskainia digu Lafittek, Hazparneko kazetagileaz ari delarik: «Bossuet, La Bruyère, Sainte-Beuve, Louis Veuillot zituen, diotenaz, maitenik; bainan hetaz bertze asko eta asko idazlari gogoko zituen» (Lafitte, 1971: 20)».

(168) Irakasle ona omen zen, baina oso despistatua.

(169) Louis Veuillot (1813-1883) nor den jakiteko ikus S. Giner, 1975: 360: «discípulo de Maistre y amigo del reaccionario más descollante del siglo XIX, Juan Donoso Cortés».



Eskualtzale suharra izan zen Hiriart-Urruti. Ez hori bakarrik ordea. Gizarte molde oso bat zuen gogoan, ez eskuara bakarrik, eta gizarte horren aldeko langintzan unatu zen bizialdi gehiengan. Unean uneko transformazio demografiko, ekonotekniko, soziokultural eta politiko-operatiboen oso jakitun zen bera: dokumentu-oinarriei kasu egin behar badiegu gutxi ziren, garai hartako eskualtzaleen artean, begiak hain zabalik zituztenak. Gertatzen ari ziren transformazio horiez jakitun zen, oso, eta horietariko hainbat (ez guztiak, inola ere) atsekabez ikusten zituen. Duvoisinen ikuspegiari atxikiz, baina neurri zabalagoan praktikara eramanez, gizartegintza zen bere xede nagusia. Larresoroko maisu-lanbideak emandako eskarmentutik, besteak beste, gazte-gintza kristaua (eskolaz kanpoko apezlana) zuen Hiriart-Urrutik amets (170). Ametsak amets zirela, beste alorretan jardutea suertatu zitzaion ordea: kazetagitintzan. Hor eman zuen Jeanek bere neurriaren betea. Euskalgintzari dagokionez lau aiekatatik analiza liteke Hiriart-Urrutiren *Eskualdun* kazetako langintza: euskal idazle orotarikoen sorrera eta haien aktibazioa (171), batetik; eskuarazko irakurle-masa zabal sortu eta astero-astero elikatzea (172), bestetik; eskuararen corpus-plangintza sendoa (173), hurrenik; eta euskalgintzarako

---

(170) «Ene buruaren jabe banintz, ez banitu bizkarrean etxeko zor batzu, (...) biziaren ondarra higa nezake ene sort-herriko gaztez arta hartzen. (...) Gaixo gazteak! Bai, jokoz gabetuak dira eta berdin maita lezaketen bertze asko gauzaz. Ez litake menturaz ezinezkoa, bihotz gose eta bizi huts horien betetzea! (...) Lehen bai lehen egiteko gauzatarik bat liteke, Baionan, Hazparnen, Donibane-Lohizunen, Hendaian, Donibane Garazin, herri jendetsu guzietan. Deusik ez! Deusik ez! Dantzaz bai, zer nahi zinkurina. Bertzerik ez! (Hiriart-Urruti in Altzibar, 2004).

(171) Ikusi besterik ez dago 1890az gero zenbat berrikerari eta zenbat parte-hartzaile Eskualdunaren nominara bildu zen. Iparraldean inoiz belaunaldi batean izan den parte-hartze zabalena, seguru aski. Ez ziren guztiak, bistan da, berak sortu eta ekarriak. Bera baino adinez zaharxeago ziren haietariko hainbat, eta lehenagotik luma-lanean hasiak: berak bildu zituen ordea, eta urte luzez idazketa-lan berrian atxiki.

(172) Hori da, dudarik gabe, Hiriart-Urrutiren euskalgintzak berekin duen merezimendurik handienetarikoa: milaka irakurle bildu izana, aski base egonkorrez, eskuarazko irakurtze-ahalegineri. Kontuan izan dezagun 1000 ale eskaseko tirada zuela Eskualdunak Hiriart-Urruti bertan lanean hasi zenean, eta urte gutxiren buruan 8000 aleko tiradara pasa zuela astekaria. Tirada handiak dira horiek, oso, Ipar Eskual herrira mugatzen zen astekari batentzat. Are nabarmenagoa da dimentsio hori, euskarak astekariaren baitan (kontrako asmo agiri eta ez hain agiriei aurre eginez Jeanek) gero eta presentzia zabalagoa izan zuela gogoan izaten bada. 1903tik 1907rako fasea izan zen, irakurle-masa zabal eskuratze horretan, erabakigarria. Gure gaurko azterketa-markotik zertxobait kanpora ateratzen da epe hori eta kontua bere horretan utziko dugu, beraz.

(173) Alde askotara neur daiteke corpus-plangintza horren eragina. Einar Haugen-en eta gainerako adituen ohiko terminologia teknikoari atxikiz gogoan izatekoa da, batetik, bertan egindako kodifikazio-lana: Ithurriren gramatika dugu, alde horretatik, plangintza-lanik egituratu eta sistematikoena. Hori baino ondotoz gehiago egin zuen Hiriart-Urrutik: batetik inplementazio-lana bideratu zuen, aski neurri zabalean. Azkenik, eta bera iruditzen zait lanik garrantzitsuenetarikoa, *stylistic cultivation* edo idaztanka propio bat sortu eta landu zuen Hiriart-Urrutik, urterik urteko jardunean. Berria eta egokia zen, batetik, estilo hori: eliza-esparruaz haraindiko problema biziak (politika, munduko gertakarien berri-ematea, osasuna, ekonomia, gizajendearen flakezien eta handitasunaren azalpenak) ohiko hitz-altxorretik ihes egin gabe era duin, jaso eta malguan azaltzeko aski baliagarria. Mintzaira landua zen, azkenik: frantses-eskuaren kontaktu jeneralizatua hitzun askoren ezpainetaraten ari zen interferentziatzko mintzamolde nahasitik bereizia eta eskuarak, hartara jarriz gero, bere baitan zuen potentzial handiaren erakusgarri bikaina. Oso urruti

(eskalgintza mota jakin baterako) programa-lanketa (174), azkenik. Lau puntu horietan bidegile nagusi izan zen Hiriart-Urruti. Horrexegatik da bere euskalgintza hain gogoangarria. Planteamendu ideologiko globalean aski leku zentrala aitortzen ez bazion ere euskarari, hizkuntzari atxikia zuen gizartegintzarako proiektu osoa: bere belaunaldiko beste inork baino eragin zabalagoa izan zuen praktikan, horrexegatik, Hiriart-Urrutiren euskalgintzak (175).

### III.2.3. Zaldubi bidegile

Pertsonaia agiria izana da Zaldubi, bere garaian. Bazuen hartarako motiborik (176): Senperen sortua; haurtzarotik kulturaren eta eleaniztasunean murgildua; Larresoron ikasle izana, Jean Baptiste Elizanburu poetarekin batean; Baionako seminario handian apaiz egina eta handik Larresora itzulia, irakasle; Hazparden apaiz laguntzaile izana eta garai hartan, sukar ustela sortu zelarik herrian, eriz eri kuraia handiz jarduna; Bidarrain erretore lehenik, eta Atharratzen gero; Baionako katedralean kalonje tituludun azkenik; bertan hil

---

gelditzen zen bere eskuara, alde horretatik, Michel Elizanbururenetik. Haren mintzaera-molde populista eta landu-arinetik urrun bezain Duvoisin-en elaboratutik gertu. Aparteko eragina izana zuen Laborantzako liburuak Hiriart-Urrutirengan, eta bizi osoan antzeman izan zen eragin horren indar beteak.

(174) Eskualdun-jende xehearen (ez, ezinbestean, euskaltzale eta euskalari «jaun»-en) gogo-beharren araberakoa. Eskualdun-jende xehea oso begien aurrean zuen Hiriart-Urrutik, eta bestelako bidetik zihoazkeen elaborazio ideologikoei (ortografia alorrean, esate baterako) aski atentzio mugatua eskaintzen zien. Ez zegoen bera horrelako kontuekin denbora galtzeko. Are gutxiago bide horietan barrena abiatuz eskuartearen zuen langintza arrisku bizian jartzeko. Hori kontuan hartzen ez bada ezin uler liteke bere hainbat posizionamendu. Euskalgintzak garai hartan izandako bururik soziozentrikoena da, askogatik, berea. Hurbilbide linguozentrikoak begirunez eta errespetuz aztertzen zituen, baina «hemen-eta-orain»go egoera soziologikoaren galbahetik iragazten beti.

(175) Gogoan izatekoa da, alde horretatik, Hiriart-Urrutiren euskaltzaleatasunaz Broussainek 1915ean (kazetageilea hil zenean) esana: «malgré ses défauts il lui sera beaucoup pardonné en faveur de son grand amour de la langue basque et des services signalés qu'il a rendus à l'eskuara au cours de sa très longue collaboration à l'Eskualduna. Il a beaucoup fait pour le prestige et le maintien de notre langue par ses innombrables articles, écrits en basque aussi pur que possible et (chose essentielle) pensés en basque, avec le minimum de gallicismes, que comporte l'eskuara actuel». Broussainen «pardonné» horretaz ikus Xarriton-en esplikazioa (Charriton, 1985a).

(176) Familiatik zetorkion Zaldubiri, hainbatean, agirikotasun hori: aita Jean-Bertrand Adéma (1782-1852) medikua zen ofizioz, kaskoia, gerlari ihes Lot-et-Garonnetik etorria; ama Catherine Goyeneche (1784-1829), Helbarrun Sugarreta etxalde handikoa, familia puxanteko alaba (TP, 10); Zaldubiaren aitatxi (amaren aldetik) Senpereko auzapez izana zen; beste familiakide zenbaitek ere kargu politiko eta erantzukizunak ukan zituzten: Gracian Goyeneche (idazlearen ugazaita) Donibane Lohizuneko auzapez-orde zen 1828an, Zaldubi sortu zenean, eta Michel Goyeneche, Mundutegi-berri etxearen jabea, Senpereko oihanzain brigadier; amaren anaia, J. Blaise Goyeneche, famatua izan zen XIX. mendean: 1816an Harispe marexalak kargu handia eman zion, buruzagi handiaren fama baitzuen (TP, 10); horrezaz gainera Jose Bonaparte eta Don Carlos aterbetuak zituen Senperen. Gero ere aski ezaguna izan zen familia Iparaldean. Adematarraren iloba, Célestine Adéma (1864-1931), Lexis Durisbore medikuarekin (1863-1931) ezkondu zen (TP, 5).

eta Senperen ehortzia. Bazukeen *cursus honorum* horrek berak, besterik gabe, bere garaiko pertsonaia agiri izateko motiborik aski.

Hori baino gehiagok egin zuen ordea Adema famatu. Are gehiago: bizitzelada horiezaz kanpoko motiboengatik dugu Zaldubi orain ere ezagun. Bere garaiko euskalgintzaren zutabeetako bat izan zen bera. Hori da bere famaren motibo nagusietako bat. Non kokatu behar da Adema-Zaldubi, XIX. mendearren bigarren erdialdeko euskalgintzan? Non kokatu behar da senpentera gainerako bidegileen artean? Zertan izan zen senpentera aitzindari, zertan destakatu zuen besteengandik? Zerk egin zuen berezi eta famatu? Ondoko lau ezaugarriok izan litezke, apika, Zaldubik euskalgintzari egindako ekarpena argien azal dezaketenak:

- a) ***Egintza xumeetan oinarrituriko bide-erakusle***. Orain arte ikusi ditugun bidegile gehienak ez bezala, teoriarako eta antolamendu handietarako joera txikia zuen Zaldubik (177): bera ez zen antolatzaile, ez behintzat Anton Abbadia baten edo Hiriart-Urruti baten pareko; ezta politikagintzaren teorizatzaile ere, Elizanburu salletarraren moduan. Eskualdun gisa bizitzea, eguneroko jardunean: hori zuen berak bereziki maite. *Ethnicity as doing* zen berea, *knowing* baino areago. Hori eta, nola ez, *being* (178). Eskualdun sentitzen zen bera, lau saihetsetarik, eta halakoxe Eskual herria zuen maite (179). Gaztetan (180) hasi zen euskal bertsoan edo olerkigintzan (181), eta luzaro eutsi zion bide horri: hogeita hamar bat urtez, hor nonbait (182). Bertso xume horiek onduz, finduz eta argitaratuz saiatzen zen bera, ekimen handien antolamenduan baino areago, eder-minezko bere euskal sena kaleratzen.

---

(177) Egunen batean bere ohar-koadernoaz ezagutzera ematen bada litekeena da hemen diogun hainbat gauza aski nabarmen aldatu behar izatea. Eskueran dugun informazioa hartu da hemen oinarri, ezinbestean. Gehigarritzko datuek, batez ere bere eskuz idatziek, aski bestelako gizona erakuts dezakete. Gerokoak gero, ordea, honetan ere.

(178) Hiru kontzeptu horien argitze-saiorako ikus Fishman in John Hutchinson eta Anthony D. Smith, arg., 1996.

(179) Garbikiago esanik, *Eskual herriak*.

(180) 1846an, Larresoron, J. B. Elizanbururekin batean, urte hartako gosetea zela-eta Berti-Sants paratu zuten. **Horren aurretik ere bazuten ele biko lantxo bat prestaturik.**

(181) Bien arteko muga argi al dago Zaldubiren baitan? Adituek dute hitza.

(182) «Il composa de très beaux cantiques d'église et sous le pseudonyme de «Zalduby» de nombreuses fables et chansons profanes» (Revue Internationale des Études Basques, II et III, 1908, 1909). Hori baino zabalagoa zen, berez, Ademaren kantu-prestatzaile fama. Hona zer gehiagok zekarkion fama: 1877ko hainbat bertso, *Eskualdun peleginaren bidaltzailean*, Lurdesen eta joan-etorrian milaka lagunek kantatzeko; 1891n departamendu osoko erregezaleen arteko bazkarian partaidea zen eta «Chenelon jaun senaturrari eta haren konpainiari Bazkal ondoko usaia xaharreko koplak» kantatu zizkien; bere kantu ospea, hortik kanpora ere bai: Ahurti herrian Belloc-eko komentua estrenatu zuten egunean, Adémak asmatu bertsuak xaramelatu zituzten; elizkizun berezietarako kantikak ere asmatuak zituen: apez gazteen lehen mezan edo «apez sartze» egunean kantatzeko adibidez, eta «misioetarako bertsuak egiten zekien bikarioa» famatua bilakatu zen kaximarako, beila egun eta elizkizun nagusietan kantatzeko kantika anitz ondu baitzuen» (TP, 16).

- b) *Lehen mailako plazagizon*. Aphez argi eta langilea baino ondotoxoz gehiago izan zen Zaldubi bere inguruko herritarrentzat: plaza-gizona. Elizatik kanpora ere asko aritzen zen, eta trebeki moldatzen. Gaizki-esalerik ez zuen falta izan inguruan, ahapeka bereziki, ohikoa denez (183). Jendaurrean jaun eta jabe zen ordea: plazagizon aparta (184). Alde zuen, horretarako, bertsutan (bertso-jartzen idatziz, eta entzuten sarri) jakitea, pilotan egiten jakitea, zenbait pilotari handiren (tartean Kaskoinaren) lagun (185) edo ezagun izatea eta, oro har, pilota-jokoa arras maite izatea, Lurdes eta Betharram-eko otoiz-lekuetara trenez eta (zenbait) oinez uholdeka joaten ziren beiliarien bidelagun eta bozemaile izatea, hartarako gidaliburu arrakastatsua paratuz (186), Iparraldean egungo egunera arte bizirik iritsi diren eliza-kantikak sortu eta hedatu izana, euskara eta euskal ohiturak ikertzen eta ezagutzera ematen saiatu izana (187), behin baino gehiagotan disputa politiko mingotsetan jardun izana eta, azken puntu horren ildotik, arras bertso polemikoak egin izana behin baino gehiagotan. Hori du bere nortasunaren zimentarri handiena: plazagizon zen Zaldubi, iparraldeko bizitza publikoan.
- c) *Euskalgintzaren ikur*. Adinean aurrera egin ahala, ordura arte euskalgintzan ibilitako bide luzearen esker-erakusgarri, lortutako ezagumendu zabalen aitortza gisa eta bere status sozialaren garrantzia aintzaketzat hartuz, euskalgintzaren ikur bihurtu zen Adema. Garbi hasi zen hori 1891n antzematen, Biarnoko Chesnelong jaun zenatur apeztiarri Baionako Guichenne deputatu-gaiak eskainitako bazkari-omenaldian: Zaldubi izan zen, ekitaldiaren bukaeran, buruzagi biei koplak kantatu ziena. Are nabarmenago gertatu zen hori Azpeitiko Euskal jaietan (1892an), euskal letretan itzal handia bereganatua zuelako berriazko omenaldia egin zitzaionean. Antzera gertatu zen 1897an, bai Euskal Tradizioaren Festetan izan zuen leku eta eginkizunean, eta bai aldi berean euskaltzale errepublikarrek Elizanbururen omenez Saran egindako ekitaldian izan zuen parte-hartzeaz. Hendaiako biltzarrean burulehen izan zen 1901ean, orobat Hondarribikoan hurrengo urtean.
- d) *Euskaltasun zabal eta jatorraren bultzatzaile pragmatiko*

---

(183) Hendai-Hondarribietakoez ikus, esate baterako, Zalvide 2003.

(184) Gorpuzkerak eta janzerak ere lagundu egiten zion, nonbait: «jauntzitik hiritar emaiten zuen, edo bederen etxeko seme handi». «Batuetan ezin athertua, xaharra baitzen eta xaharra baino gehiago... koblakaria. Zer nahi bazakien Eskual-herriaz» (KN, 8).

(185) «Ami du «pelotari» Gaskoina et du «pertsulari» Xetre» (RIEB, II et III, 1908, 1909).

(186) Liburuaren izena: *Eskualdun pelegriren bidaltzailea* (1877). Arrakasta handia izan zuen, antza.

(187) Jean Etxepare medikuak esana (TP, 22): «zernahi bazakien Euskal herriaz, Euskal herriko ohitzez, sinesteez, jaidurez, Euskal herriko xokoetan aditzen diren hizkuntza bereziez». Orobat mintzo da Touyrou-Phagaburu: «gure hizkuntzaren, kulturaren eta ohiduren ñabardura andana bereganatu eta aztertu zuen» (TP, 1).

Euskal batasun-gogo etnokulturalaren kantari dugu Zaldubi. Horregatik da, hainbat lekutan, ezagun. *Zazpiak Bat*-eko kontzeptua ez zen berea. Bai, aldiz, kontzeptu hori kantu bidez euskaldun askoren amets erakargarri bihurtzeko gaitasuna. 1892ko *Gauden gu eskualdun*, euskaltzaleen himnoa bilakatu zen. Batasun etnokulturala (aurrera, begira, soziokulturala) aldarrikatzen zuen senpenterak. Hizkuntzaz eta kulturaz ondare komuna genuen herritarrok aurrerantzean ere ondare hori konpartitzeko, aberasteko eta belaunaldi berriei transmititzeko aukera izatea. Abertzaletasun soziokulturaletik hurbilago zebilen horretan, nazionismo politiko-operatibotik baino. Beste nortasun- eta partaidetza-dimentsioak ukatu gabe, bertakoa, txiki-ahula, galtzeko arriskuan zegoena, azpimarratzen zuen berak.

Bazen bere proiektuan, horrezaz gainera, gutxitan azpimarratu ohi den eta, halere, euskarri ideologiko moduan iraupen luzea eta geroranzko proiektzio-ahalmen ukaezina izan duen osagaia: txikiak eta handiak elkarrekin bizi izateko nahia. Hori egia izango bada, printzipio etiko batzuk kontuan hartu beharra. Handiak eta txikiak elkarrekin biziko bagara, eta bizimodu hori *Oihaneko Legearen* pareko izango ez bada, aniztasun-marko soziokultural bat adostu eta eratu beharra. Horren aldeko zantzu argiak ditu Zaldubik, behin baino gehiagotan. Garbi ageri da hori bere zenbait bertso-lerrotan. 1873ko Sarako Euskal Festetan saria irabazitako «Bildotxa eta Otsoa»n, esate baterako, honela dio Ademak:

«Azkarrak duenean partida flakoa/  
hauzia zoinena den erran gabe doa.»

Horretan lotzen du berak aniztasun-gogoia jainko-legearekin. Kristautasuna gizalegezko jokabide-kodea da beretzat, ezer baino lehen. Euskaldunon neurri txikiari arras ondo datorción kode etikoa. Honela jarraitzen du Zaldubik Sarako bertso saridun horretan:

«Otsoak bildotxari egin zioena/  
jainkorikan ez balitz, nork liro kondena!  
Jainko legetik kanpo zertan da zuzena?/  
Galde zazu indarrez zoin den nagusi dena.»

(Urkizu arg. 1997c: 265)

Txiki izatea ez da bere ustez lotsagarri, ez da defektu. Kaltagarri ere ez, noiznahi eta nonahi. Baditu txikiak, muga-ezintasun agiriez gainera, berezko doai-abantailak ere. Doai horiez jakitun izatea dagokigu hiltun-herri txikieta-ko biztanleoi, eta haietaz ahal den zentzurik handienaz baliatzea. Haritza baino mila bider txikiagoa eta ahulagoa da ihia. Ez da, horregatik, norberaren argiak ere alde batera uztea komeni. Ez gara inor baino gehiago, eta neurri kontuan txikiak gara benetan, baina iraupen-gogoia eta bizirik irauteko ahalmena ez dira horregatik, ezinbestean, gutxiestekoak:

Ha(r)itz hura hedoiari hurbilago baitzen, / Ihurtziria zaio gainerat erortzen.  
Haize zirimolak du bihurriki jotzen, / Bai eta erroz gora krisk krask aurdikitzen.

Ihi gaixoa zagon hantxet ukhurtua; / gero ikhusi nuen berriz xutitua.  
 Bere mendretasunaz beraz salbatua, / hora, jende xehea, zure etsenplua.

*Ha(r)itza eta ihia* (1901, in KN, 1991: 133-4).

Joan den mendearen 60ko hamarkadan indarturiko *small is beautiful* slogana baino zerbait gehiago zen ikuspegi hori, Zaldubiren garaian, eta hala da orain ere. Horrek damaio Zaldubiri, hil eta handik ehungarren urtean ere, aparteko balorea. Egintza xumeetan oinarrituriko bide-erakusle, lehen mailako plazagizon, euskalgintzaren ikur eta euskaltasun zabal eta jatorraren bultzatzaile pragmatiko, badu merezimendurik aski Grazian Adema-Zaldubik bere bizi-denborako euskalgintzaren bidegile nagusien artean kokatua izateko.

### III.3. Antolamendu nagusiak

Ezer gutxi esango dugu honetaz, aurreko pasarteetan kontu gehienak aipaturik baitaude dagoeneko eta aurrerago ere berriz heldu beharko baitiogu gaiari. Berariazko antolamendu gutxi dago Ipar Eskual herrian, langintza horretara emana. Euskalgintzaren aldeko antolamendu espresuak gero etorriko dira: Fédération Litteraire Basque / Eskualzaleen Biltzarra (1901-2), Cercle d'Études Euskariennes (1911), Société d'Études Basques (1918) eta l'Académie de la Langue Basque/ Euskaltzaindia (1919). Espresuki hartarako eratuak ez izan arren bistan da horixe zuela garai hartako zenbait antolamenduk buruan eta gogoan: euskal hizkuntza eta euskal kultura osoa bizirik atxiki eta, ahal zen neurrian, eguneratu, aberastu eta garatzea. Halako helburu argirik izan gabe ere bere lan-agendan haren aldeko ekarpenik egin zuten beste batzuek, bide batez, eta horiek ere gogoan izango ditugu.

#### III.3.1. Abbadiaren Euskal Festak

1851n sortu zituen Anton Abbadiak, eta bera bizi izan zen artean indarrean eutsi zien festa horiei (188). Urruñean ospatu ziren festak, hasieran, eta beste zenbait lekutan gero. Ipar eskual herrirako pentsaturik baziren ere hasierako hartan, zazpi probintzietara zabaldu ziren gero. Ospatzeko lekuari dagokionez hiru fase bereiz litezke:

---

(188) Bera hil ondoko ere bizibidea utzi zien festei, bere herentzian. Inoiz hobeto aztertu beharreko gaia da hau.

Noiz	Non	Zenbat aldiz	Oharra
1851-63	Urruñan	13	1861ean, itxuraz, festarik ez. 1863tik aurrera beste lekuetan, trenbide berria zela-eta herriarekin gorabeherak izan ondoan (cf. Zubernoatikako guthuna)
1864-78	Saran	15	Salbu 1870ean (Prusiarekiko gerra (189)) eta 1877an (Donapaleun)
1879-97	Han-hemen, ipar eta hego	19	Iparrean 10: Baxenabarren 1, Lapurdin 6 eta Zuberoan 3 Hegoan 9: Bizkaian 3, Gipuzkoan 3, Nafarroan 3

Izen bat baino gehiago izan ohi zuten bertako ekitaldiek (190). Euskal Festen osagai nagusiak, urte askotan kontuan izandakoak, honako hauek izanak dira zenbaiten esanean: a) Txistularien alborada; b) Meza nagusia, agintariei ongi-etorria eginez; c) Pilota-partida; d) Herri-bazkaria; e) Bertsolariak; f) Kirol-jolasak; g) Abere- edo baserri-produktuen lehiaketa, eta h) Literatura-lehiaketa. Urte hartako saridun pieza koroak kantatzen zuen, zenbaitetan (ikus EGIPV: Abbadie). Era askotako jendea biltzen zen bertara, elite eskualtzaleetatik hasi eta bertsolari edota herritar xumeenetaraino (191).

Hasieran ez zen, antza, aparteko marka ideologikorik ageri festetan. Gero, ordea, bai: xurien bilgune bilakatu zen denboraren harian, eta errepublikazale gorriek beren antolamendua eratu zuten une batetik aurrera: Guilbeau-ren Euskal Festak (192). Abbadiaren Euskal Festak gertakari handiak ziren bere garaian: jendea erruz biltzen zen bertara, bai hurbileko ingurumenetik eta bai, zenbaitetan, aski urrundik. Etnokulturazko gorazarre-leku bihurtzen zen, eta bere oihartzuna aski jardun-gune eta esfera sozial diferenteetara hedatzen. «Eskualdunok

(189) Jaurgainez ari dela, honela dio Onaindiak: «Olerki-batzaldietan laguntzen zion Abbadia jaunari eta, hain zuzen, bera franko-prusiarren gerrara joan zenean ez zen horrelako poesijairik ospatu. Euskal festa eta antzekoak eratzen beti aurrelari agertu zitzaigun» (Onaindia, 1974: 327-8).

(190) *Pertsularien guduak* eta abar.

(191) *Horiatarikoa zatekeen Pierre Ibarrart, 1838an Jatsun jaioa eta 1919an Baionan hila, lanbidez zapataria*. 1882an Saran, 1888an Kanbon (1. saria hutsik) sariren bat eta 1892an Donibane Lohizunen 2. saria irabazi zuen. Lafittek *Piarres Ibarrart'en Koblak* liburuan bertsolariaren zortzirehun bertsotik gora jasoak ditu (ik. Elhuyar entziklopedia, 827).

(192) «Devant l'orientation «antirépublicaine» prise par le jury de ces fêtes, il semble que certains «républicains» se soient regroupés au sein d'une «Association Basque», sous la présidence du docteur Guilbeau (1839-1912). Cette Association organise ses propres «Fêtes Basques» à Ustaritz, (1893), Hasparren (1894), Espelette (1895), Cambo (1896) et Sare (1897).» 1893koan honako zuzendaritza-taldea zuen elkarte horrek: Guilbeau burulehen, Duhart Uztaritzeko mera, J. D. J. Sallaberry Mauleko notarioa eta Darricarrère kapitaina. 1894koan, pertsonalitate bereberekin, honako ekimenok eratu zituen: goizean pilota-partida, chirola, irrintzina, saut basque (jauzi-dantza), composition littéraire (Victoriano Iraola irabazle) eta improvisation-bertsolaritza.

hemen gira» esateko modu zibilizatua zen, bakezko eta ageria, xumea baina behin-eta-berrizkoa. Eskualtasunaren elaborazio sinbolikorako bilgune eta lekuan lekuko euskalgintza-saioen berri izateko truka-toki. Ez zegoen, orain errazegi ahazten badugu ere hori, bere parekorik ezer inguruan. Festa horiek zituen euskalgintzaren aldeko ekimenak bere arnasleku eta erakustazoka.

Arrazoibideaz gainera sentiera du euskalgintzak, ezinbestean, elikagai eta jardunbide. Sentieraren pizgarri eraturik zeuden festok, eta bere xedeari aurrez aurre erantzuten saiatzen ziren. Nor bere kulturaganako sentiera positiboan, euskaldun izatearen bihotz-berogarrizko argudio sotil baina eragingarrien, bilgune ziren Festa horiek. Hala izan ziren iparraldean, beren habitat nagusian, eta hala izan ziren hegoan ere, Abbadiak bere azken urteetan bertaratu zituen. Halako festa baten karga emotiboaz, oihartzunaz eta prominentzia sozialaz jabetu nahi duenak on izango luke, adibidez, Azpeitiko 1892ko Euskal Festen berri izatea (ikus Antonio Zavala in Auspoa bilduma).

### ***III.3.2. Bonaparte printzearen lan-programa***

1856an etorri zen Bonaparte printzea Euskal herrira. Lekuan lekuko euskal hiztun-elkarteen mintzajarduna dokumentatzeko hainbat lan eratzen hasi zen, berehala. Euskal hiztun-elkarte tradizionalen distribuzio geografiko-dialektalak aparteko garrantzia izan zuen bere saioetan. Baita hiztun-talde bakoitzaren bizitasun-egoeraren dokumentazioak ere. Landa-lan sistematikoa eskatzen zuen horrek, besteak beste. Han-hemengo solaskide autorizatuekiko harreman-sarea eratzeaz gainera bost ikustaldi egin zituen pertsonalki, xede hori gogoan zuela: «excursions linguistiques faites dans les sept provinces basques d'Espagne et de France pendant les années 1856, 1857, 1866, 1867, 1869» (Vinson, 1891: 323). Anton Abbadiaren arartekaritaz, bertako hainbat euskalarirekin bildu zen eta bere lan-programa eratzen hasi (193). 1857an (urriaren 14an) euskaltzaleen bilera baten mahaiburu izan zen Bonaparte (194). Handik gutxira bilerakite zenbait, Duvoisin bereziki, mugazain-lana utzi eta *full time* horretara (batez ere *cultivation* lanera) jarri zen. Euskalgintzaren episodio ohargarri bati eman zitzaion horrela hasiera. Giro jakinean Eskual herriratua zen Bonaparte, euskalgintzaren alorreko hainbat lan eta hainbat eztabaida kaleratu berririk zeuden unean (195). Bere lan-programa betetzeaz gainera, eztabaida horri irtenbide bat eman zitzaion, bide batez.

(193) 1856an ezagutu zuen Duvoisinekin Bonaparte printzea. «Bonaparte printzeak esaten dio utz dezala aduana eta berak ordainduko diola soldata oparao, baldin hark agindutako lanetan aritu nahi badu: urteko 1000 libera» (Altuna 1986: 22). Garai bertsuan egin zituen Intxausperekiko, Uriarterekiko eta gainerakoekiko harremanak.

(194) Badirudi ortografiaren batasuna izan zela bilera honetan erabilitako gaietariko bat (Koldo Zuazo, 1988: 239).

(195) Ortografiako kontuez ikus, adibidez, 1854 inguruko *Le Messenger de Bayonne* (Zuazo, 1986: 230. or).



Euskalaritza kontuez aparte garrantzitsua da Bonaparteren lan-programa, euskalgintzaren ikuspegitik ere. Gorago (ikus I.2 puntua) esan denez bere euskalari-, antolatzaile- eta mezenas-lanak mesede egin zion euskararen eta euskal kulturaren gizarte-alorreko bilakaerari. Hainbat euskaltzale landu eta buru-argi elkarretaratzea eta, zenbaitetan, soldata finkoz hartara jartzea lortu zuten, hizkuntzaren izaera eta barne-aldaerak ordura arte baino sistematikoago arakatu zituen, eguneroko euskalgintzarako gero eta beharrezkoagoa zen euskal ortografia finkatzen saiatu zen eta Euskal herriaren dimentsio soziogeografikoaz jabetzen lagundu zien garaiko euskaltzaleei (196). Euskararen prestigio-bide akademikorako urratsak egin zituen, horrezaz gainera. Eskualdun-jende xehearentzat bihotz-pizgarri gertatu zen, azkenik, ohiko joera itzulipurdikatu Frantziatik etorritako jaun handi batek bere hizkuntzari halako aprezio eta halako begirune ziola ikustea. Ekarpen ohargarria izan zen hori guztia, une hartan, euskalgintzarako. 1870-71ko motibo jakinengatik bertan behera erori bazen ere bere programa, bide ohargarria eginik zuen ordurako Bonapartek abiarazitako langintzak. Zazpi Probintzien ezagutzak eta formula-zio etnolinguistikoak ezin baztertuzko konkrezioa eskuratu zuten handik aurrera, lehen baino nabarmenkiago, bere programa haren ildotik.

### III.3.3. *Le Réveil Basque eta Eskualduna* astekariak

Aparteko lekua irabazi zuten, 1871tik aurrerako errepublika-giroan, euskarazko edo ele biko komunikabideek, hasi urtekari-almanak xumeetatik eta astekarietaraino. Azken horietan bi izan ziren, azterkizun dugun aldian, nagusi: batetik *Le Réveil Basque* errepublikar-gorria (197) (1886-1894), eta bestetik *Eskualduna* erregetiar-xuria (1887-1944) (198). Astekaria baino ondotoxoz gehiago izan zen *Eskualduna*, Xarritonek eta bestek ongi azaldua dutenez: *codification* (Ithurriren gramatikaz), *implementation* (Duvoisin-en-eta idazkera zabalduz) eta bereziki *cultivation* arloetan aitzindari izan zen astekaria (199). Funtsezkoa da hori iparraldeko idaztohitura trebatua, erraz itxurakoa baina hegoaldeko gehienek nekez imita dezakeguna, noiz-nola sortu eta garatu zen ulertzeko. Izana duen garrantziagatik ohar llabur batzuk eskainiko dizkiogu *Eskualduna* astekariari. Idazleak aipatuko dira batetik, eta irakurle-kopuruak azalduko bestetik. Horrela,

(196) Geolinguistika-lana ia aldi berean bideratu zuten L. L. Bonaparte printzeak eta Broca doktoreak (ikus Abbadia 1868b eta 1872). Hizkuntzaren jendarteko erabileraz hainbat argitasun eman zuen Bonaparteren azterlanak. Batetik «Lieux où le peuple parle encore la langue basque» aipatzen ditu Abbadiak (1872: 442), bestetik, «les villages où le basque n'est que partiellement en usage» (Urkizu arg. 1997, 442).

(197) Bere ikurritza honako hau zuen: «Dieu, Famille, Propriété – Jainkoa, Familia, Hontasuna». Martial Henri Berdoly errepublikarra zuen sortzaile. Ele bietako astekaria izan zen: euskaraz, %50 gehienez (Javier Diaz Noci 1994. Goienetxe, 1993: 18).

(198) 1887-III-15 ean sortua: lehen zenbakietan *Eskualduna* izan zuen idazkera (Lafitte: 25).

(199) Nafar-lapurtera ere bere sorkari da, partez: idatzizko jardunerako hizkuntza-aldaera berria eratu eta hedatu zen bertatik, euskalkitik harantzagoko bateratze-bidean.

- a) Idazleei dagokienez lan-talde zabala eratu zuen *Eskualdunak*. Lan-talde zabala eta aski bateratua. Herriz herriko berrikerari-saldo hutsa baino nabarmenki talde koherenteagoa, aldizkariaren asmoez eta bere bidezko euskalgintzaz ongi jakinaren gainean zegoena. Gorago azaldua dugun Hiriart-Urrutiz gainera berariaz aipatzekoak dira bertako beste partaideok (Lafitte, 1971: 26):

Hiru erriet: Daranatz, Curutchet, Irigoyen
Bi fraide: Juvénalet eta Innocentius
Zenbait apez: Jaret, Bidart, Ithurry, G. Berho, Larre, Giron, Dolhagaray, Oyhénart, bi Etcheverry, Etcheberri bat
Beste jaun batzuk: Duvoisin, Berdéco, Fourcade, Goyhenetche medikua, d'Etchandy, Ch. Minjonnet, Hiriart, Noguès, Ritou notarioa, Cabillon, Mendiburu, Agustin Etcheverry, Debibié

Argi ikusten da elizgizonek bertan izan zuten nagusitasuna. Linea editoriala, horrezaz gainera, eliz-agintaritzaren esparrura eskualdatu zen une batetik aurrera. Euskaldun-fededun paradigmaren sostengu eta defendatzaile sutsu izan zen *Eskualduna*, azterkizun dugun epealdi osoan. Zeharo eta erabat Frantziako aukera politiko kontserbadoreen-tan txertatzekoak ziren euskaldun-fededunen boz-emaile eta sostengu (200). Hori izan zuen bere indarra; hori bere ahulezia. Argiak argi eta itzalak itzal, euskalgintzaren eztabaidaleku kontzeptual gertatu zen behin baino gehiagotan. Bertan suertatu zen, esate baterako, *Zazpiak Bat* ikurritzaren inguruko eztabaida bizienetakoa (201).

- b) Astekariaren salmenta-kopuruaz (hobe, tiradaz) denaz bezainbatean, bestalde, honako datuok ageri dira han-hemen dokumentaturik:

1888	850
1889	950
1890	1.200
1891	1.300
1904	1.700
1905	5.000
1908	7.000

(200) Xarriton-ek esana da (1985a: 238): «Nous avons l'impression que le rédacteur du journal Hiriart-Urruty fait à ce moment un autre choix politique et que, rejetant l'option de Broussain et Constantin, il fait de son journal un organe nationaliste française d'expression basque».

(201) Are urrunago joan nahi zuen zenbaitek. Pierre Broussain medikuak (zenbait urtez Hazparneko auzapez izanak), konkretuki, hori baino gehiago zuen buruan: «Zazpiak bat eta libro» (in Jean Etchepare, «Pierre Broussain», *Eskualduna*, 14 mai 1920). Aldiz *Eskualdunako* jerenteak, Pochelou-k, «censure tout ce qui concerne le «Zazpiak Bat», et peut éveiller de dangereux espoirs dans l'esprit des lecteurs».

Begiratzan den aldetik begiratzan dela, oso zifra handiak dira horiek, Ipar Eskual herrirako eta orain dela ehun urte ingururako (202). Kopuruagatik bestegatik ez balitz ere, astekariaren inplantazio sozialaren adierazgarri eta bere elaborazio sinbolikoen hedadura iraunkorraren esplikazio-iturri.

### *III.3.4. Larresoroko seminario ttipia*

XVIII. mendean sortu zenez geroztik leku zentrala okupatua du Larresoroko seminarioak Lapurdiko eta are Iparraldeko panorama eskolarrean. Ikasketabidean gora zihoazen ikasleen (ez soilik apaizgaien) bilgune eta prestatzaile izana da Larresoro. Aparteko eragina izana du seminarioak XIX. mendeko eliteen eta protoeliteen prestaera preunibertsitarioan. Hor ikasitakoak dira, adibidez, J. P. Duvoisin, M. Harriet, J. B. Elizanburu, Gr. Adema, Ch. Becas, Jean Saint-Pierre eta Jean Etxepare medikua.

Ezin esan liteke, inondik inora, euskalgintzaren foko antolatu eta berriazko eragingune izan zenik Larresoro. Oso aitzitik, norma orokorraren ildotik bere burua lanbide eta gizarte-status jakinera bideratu nahi zuten gazte eskualdunen Frantziako goi-ikasbide araturako sarbide gertatu zen nagusiki, horrek berekin zituen baldintza eta eskakizun zorrotzez: leku meharra zegoen, ikasbide arautu horretan, euskarari eta euskal kulturari. Bertara etortzen ziren ikasle asko eskualdunak izanik ordea, eta irakasle-andana bat ere bai, ikasle-irakasleen eta euskal estudioen arteko afizio-lotura bat eratu zen hainbatean. Afizio-lotura, zenbaitetan, eta hortik aurrera egiteko asmoak, inoiz (203). Euskalgintzarako sortua ez izan arren hartarako antolamenduegituraren eragina izan zuen Larresorok, alor jakin batzuetan. Iparraldeko apaiz irakasle euskaltzaleen elkargune izan zen Larresoro, maiz asko (204). Euskalgintzak sorturiko zenbait materialen gordailu edo bilgune ere izan zen behin baino gehiagotan: Larresoroko seminarioari utzi zizkion Harriet-ek, 1904ean hiltzean, bere hiztegiaren eskuizkribua eta bere biblioteca. Beste zerbaiti zor dio Larresorok, ordea, bere sona eta omena: «Larresoroko eskola» antolatu zen bertan, XIX.mendearen azken hamarkadan. P. Xarriton-en esa-

---

(202) Inoizko salmenta handiena 10.000 ale-ingurukoa izana omen du astekariak. Zer pentsatua ugari ematen dio datu-multzo horrek, nolana ere, euskalgintzaren unibertsalei buruzko gogoeta egin nahi duen hizkuntza-soziologoari. Irakurle-masa zabala eskuratu izana ez da, askotan besterik uste izaten badugu ere, hiztun-elkarte baten bizi-iraupenerako salbokonduktu handia.

(203) Ikasle-ohiak urtean behin Larresoron biltzen ziren, itxuraz. Broussainek bazuen asmoa 1898an, beraiekin *Société patriotique basque* sortzeko. Apenas ezer egin zuen (Charriton 1985a, 277).

(204) Bertako irakasle izanak ditugu, Haranburu eta A. Abbadia seminario-buruez gainera, P. N. Azantza, P. M. Hiraburu, Simon Urruti, Gaston Larre, Blaise Adema, Barbier eta Jean Hiriart-Urruti (idazkeraz Simon Durruty, Pierre Nérée Dassance, Prosper-Michel Hiraboure, Arnaud d'Abbadie eta Jean Hiriart-Urruty frantsesezko iturrian).

nean «La aparición de la *Grammaire Basque* d'Ithurry et des questions d'orthographe unifiée, que soulèvent les premières pages de cet ouvrage, la préparation du *Dictionnaire de Harriet* et la fondation de l'*Eskualduna* marquent la mise en place de l'école littéraire basque de Larresore «Larresoroko eskola»: (...) brochette d'écrivains, originaires du Labourd et de la Basse-Navarre, qui autour du supérieur de Larresore, Arnaud Abbadie, de ses confrères Hiriart-Urruty, Adéma, Barbier et puis de leurs anciens élèves, Jean Saint-Pierre et Jean Etchepare, ont fait descendre la littérature basque du ciel sur la terre, en abordant en basque les mondes divers de la politique, de l'économie, de la médecine, des techniques et des sciences modernes, au lieu de s'en tenir aux domaines de la morale et de la foi». L'abbé Pierre Lafitte, qui préfère parler de l'école de l'*Eskualduna* pour désigner la même réalité, a fort bien décrit dans la préface de sa *Grammaire Basque* (Navarro-labourdain littéraire) la nature de ce basque littéraire commun aux écrivains réunis autour de l'*Eskualduna*, dans la dernière décennie du XIX. siècle» (Charritton, 1985a: 166-7).

Kontuz ibili behar da, halere, gauzari duen baino dimentsio handiagoa aitortzearekin. Euskalgintza mugatua, gehien-gehienetan Ipar Eskual herrira (zuzenago, zenbaitetan, Baionako eliz-barrutira) hedatzeko pentsatua zen bertako langintza. Zazpi Probintzietarako corpus- eta status-plangintza, esate baterako, aski bere helburutik eta irismenetik kanpora geratzen ziren. Azkue batek min handia hartu zuen, Larresoroko inork bere hiztegiaren ale bakar bat ere erosi ez zuela ikustean (205). Ez zegoen hor, bertako idazleentzat, aparte-ko kontraesanik: beste klabe batean mugitzen zen Larresoroko euskalgintza.

### III.3.5. Baionako kalonje-elkarte euskaltzalea

Zaila da, eskueran ditugun datu zatikatuen argitan, Baionako kalonje-elkarte euskaltzalearen eraginaz hitz egitea. Berariaz bideratutako euskalgintzaz jardutea ezinezkoa da, itxura guztien arabera (206), eta bide batezkoaz ez da beti-beti erraza. Bada ordea, bide batezko euskalgintzaren alorrean bederen, Baionako kalonje-elkarteari atxiki dakioken halako jardunik. Lau gai dira sail horretan, gutxienez, kontuan hartzekoak: euskarazko elizkizunak, lehenik eta behin; dotrina-erakusketa, horren ondoan; elizliburugintza hurrenik; beila edo pelgrinaiak, azkenik.

(205) «A varios he enviado gratis el diccionario. Nadie me ha escrito dos palabras de agradecimiento. Solo Mr. David, el de París, se ha suscrito... nadie más se ha suscrito: ni ayuntamientos, ni diputados, ni consejeros generales, ni vascófilos, ni bibliotecas, ni amigos... (...) yo creía que nuestra gente de Larresore, en agradecimiento al ejemplar que les he enviado, diría algo en *Eskualdun Ona*... Qué vamos a hacer? Paciencia» (Charritton, 1986).

(206) Badakigu bere saioak (halakorik egin zenean) alferrikakoak izan zirela. Euskararen H funtzioetarako sarbide kontuan ez zen deus askorik aurreratu: Baionako seminari handiak frantsesez eta latinez funtzionatu zuen, eskuara bazter batera utziaz, 1850-1900 epean.

Helburua besterik izan arren, dudarik ez da eskuarazko elizkizunek me-sede handia egiten ziotela euskalgintzari. Herritar gehien-gehienaren bizimodu-aren ardatzetako bat, fede-bizitza eta fede horren arabeko jokamolde-sorta, euskarazko mintzajardunean kokatzen zuen eskuarazko elizkizunak. Kanpoko behatzaileek berari aztertu izan zuten hori, eta xehe-xehe adierazi (207).

Antzeko zerbait esan liteke dotrina-irakaskuntzaz eta elizliburugintzaz. Euskalarien eta hezkuntza-aztertzaileen artean aski aztertutik dagoen kontua da hori: euskarazko liburu gehienak elizliburuak ziren, eta dotrina-irakaskuntzak leku zabala aitortzen zion eskuarari: iparraldean zabalagoa, itxuraz, hegoaldean baino. Esan dezagun, labur bilduz, 1890 ingurura arte dotrina- eta eliza-liburuak izan zirela, maiz asko, eskualdunen alfabetatze-bide nagusi: horien aldean eragin laburrekoak ziren azken hamarkadetako egutegi-almanak sotilak. Hedaduraz ere nekez izan zitezkeen maila berekoak bertso-paper solteak eta une batetik aurrera kaleratzen hasitako kantu-liburuak. Alfabetatze-lana, bere zentzu tradizionalen, elizarena izan zen nagusiki. Baionako elizbarrutia aurreratuago ibili zen horretan, besteak baino. Bada motiborik, hortaz, bertako kalonje-elkartearen garrantzia azpimarratzeko. Ez kalonje guztiak, jakina, baina bai bertako kalonje euskaltzaleen elkartea. Horiek gabe nekez eratuko zituzten apezpikuek garai hartako sormen-, produkzio- eta banaketa-lan gehienak. Bide batezko euskalgintza zen hori guztia, jakina: ez, ordea, bigarren mailakoa.

Gatozen, azkenik, beila edo peleginaia kontuetara. Lan handia egin zuen Baionako kalonje-elkartek horretan ere: saio biziak egin ziren apezpikutegetik bertatik, Lurdeko 1858ko agerraldiaren ondoan, eskualdunak bertaratzeko eta, horrela, eskualdun-fededun binomioa sendotzeko. Asmoa ez zen, berriro ere, euskalgintzazkoa. Ez hori bakarrik, bederen: eliztarren fedea pizteko eta elizaren (eta, horren bidez, elizgizonen) status soziala indarberritzeko ekimen antolatua ziren, besteak beste, beila edo peleginaia horiek: *top-down* plangintzaren eta *bottom-up* antolamenduen adibide ezin argiagoa (208). Milaka eskualdun (hasieran gizasemeak soilik, gero bietarik) biltzen zituen beila horrek, eta *ethnicity as being, knowing, doing* moduan definitzen (209).

Ademaren beraren hitzak dira: «Othoitz bakharca eginac, othoitz ichilac edo gordeac ez dire aski; multzuan eta osteca behar gare bildu tokiric saindu-enetarat, gure othoitcen batean ematerat. Peleginaietara horrela gohacinean, ez da batere gaichto mundua ohart dadin gu ere bagarela. Izan da dembora bat, zointan Fede gabeco mundutar cembeiten gatic: heien irrien edo trufen beldurrez; orobat heien handi-itxuraren errespetuz edo loxaz, fededun herabé batzu gordeca bezala baitzabiltzan beren Erlijioneco urrax sainduetan. Noizbeit hargatic fededun horiec aski ernatu ciren fedegabe balentrios hekieri hur-

(207) Sartu 1833 edo Pécaut.

(208) Terminologiari dagokionez ikus Adema bera: «Beila, peleginaia edo saindoraldea erratan zaio, toki saindu batera debocionez egiten den bidaiari» (Adema 1877: 5).

(209) Kontzeptu horri buruz ikus Fishman 1996, in Hutchinson eta Smith, *Ethnicity*.

bilchotic beha paratceco, eta gero heien gizotasunaren neurtceco. Orduan ohartu ginen guciac, ez cela ez girichtinoeri, halakoen aintcinean guciac, buruaren aphaltcea, eta deusetaz ere gizona ez dela mundu huntan berean hain gora altchatcen, nola Fede ongi praticatu batez. Geroztic gabilta nihoren ahalkeric gabe, ez choilki gure debocionezco urrax manatuetan, baina orobat beila bide horietan, gure arrosarioac escuan, eta gure pelegrin gurutceac papoan. Bertce-naz ere, bere tokico berri beicic ez dakien girichtino bati hainitz on egiten dio icusteac bertcetan ere badirela fededunac; ecic pelegrinai horietan usu haute-maten dire guc dugun sinheste berarekin hara joac, munduco jenderic handi-enac berac. Jaunen jaunac eta guciac halacoac ere numbeit badirela, badukete escualdun cembeitec beren begiz han icustearen beharra. Escuara beicic ez dakitenec, pelegrinai arrotz horietaraz geroz hurriscatcen dute han ecin cofe-satcea; beraz chuhur badute, bideari lothu baino lehen, cofesa beitez beren herrietaco apheceri» (Adema, 1877: 10-17).

Dударик ez da elizgintza berri bat ari zela hor gorpuzten, eta lan hori eskualtasunarekin lotu zela hainbatean. Baionako elizbarrutiaren ekimen horrek sortu zuen euskarazko zenbait argitalpen ere (210). Euskalgintza ohargarria zen hori guztia, dudarik gabe, garai hartako eskualdunentzat: eskualdun-fededunentzat lehenik eta behin, baina ez haientzat bakarrik.

#### III.4. Argitalpenak: *Zweckprosa*

Edermin hutsezko literatura zabalduz joan zen Iparraldean, ohargarriki, 1850etik 1900era. Abbadiaren Euskal Festak erabakigarriak izan ziren alde horretatik, kalitateari dagokionez nekez esan baliteke ere beti aurrera egin zenik esparru horretan. Bertsoa eta olerkia, muga argirik gabe hainbatean, ugaritu eta hedatu egin ziren oro har. Guztia ez zen ordea ederminezko edo (Lizardiren hitzetan esateko) olermen-irakitezko idazlangintza izan. Prosa arrunta, eliz esparrukoa zein, batez ere, profanoa, nabarmen ugaritu zen epealdi horretan. Hots, Heinz Kloss-en *Zweckprosa* famatuak bultzada ohargarria jaso zuen Zaldubiren bizi-denboran. Olabeaga izan zen, oker ez banago, horretaz lehen jabetu zena (211): «una característica de la literatura vascofrancesa, muy digna de ser puesta de relieve: su practicidad, el ponerse al servicio de los usos y necesidades reales, los vascofranceses saben mejor que nosotros que su lengua es lengua de hombres y no de ángeles, que debe tratar temas humanos y tratarlos al modo

(210) Batez ere Adema-Zaldubiren hiru hauek:

1875a: 1875<sup>an</sup> jubilau urte sainduan bazco biharamun eta hirugarrenean Lourdesen eta Betharramen Escual herritic pelegrin cirenen orhoitzapena. Baiona: Lamaignère.

1875b: *Escualdunen Lourdeco canticac*. Baiona: Lamaignère.

1877: *Escualdun pelegrinaren bidaltzailea*. Baiona: Lamaignère.

(211) Egia da, halaz guztiz ere, Mokoroa-Ibarrek bazuela lehendik, 1936ko *Genio y Lengua*, hori bera esan gabe ere horrekin erraz uztar zitekeen ideiarik jaurtirik.

humano, empleando el lenguaje corriente y moliente de cada día. (...) No es raro hallar obras o folletos que aborden los temas más varios: arte de cocinar, arte de criar a los niños, cartilla de primeras letras o información sobre supuestas apariciones de la Virgen en Saint-Palais (...) Así se sirve a la lengua, tomándola como vehículo de expresión de todas las necesidades y usos reales.» (Olabeaga, 1959, in Villasante 1979: 182). Xeheago aztertzen bada bost ezarpen-eremu nagusitan garatu zen *Zweckprosa* hori:

1. Erlijio alorrean: Elizgaiak (Kateximak barne), Pelegrinentzako eskuliburuak...
2. Politikan: batez ere 1889-90 inguruko argitalpenak, baina ez haiek bakarrik: Michel Elizanburu, Laurent Diharasari, Lewy Abartiaga, Harriaga-Morroxo.
3. Astialdiko kontsumoan: kantu-liburuak.
4. Lanbidezko prestaeran: *laborantzako liburua*, *Eskualdun kozinerra*, *etab* (212).
5. Komunikabideetan: urtekari-almanakak, batetik, hortik gorakoak bestetik (Xahoren *Ariel* gazeta, Berdolyren *Le Réveil Basque*, Louis Etxeberriren *Eskualduna*...).

1880tik aurrerako prentsa-askatasuna, ideia «okerrei» atea zabaltzen zielako zenbait euskaltzale xuri-muturrekok goraki deitoratua, aurrerabide gertatu zen euskarazko alor-zabaltze lanerako (xehetasunetarako, ikus hirugarren eranskina).

### III.5. Kontzeptu nagusiak. Terminologia

Kontzeptu jakinak kaleratzen, eta argiro izendatzen, lan handia egin zen mende-erdi hartan. Kontzeptu eta termino horietariko batzuk, ustez interesgarriak, azalduko dira atal honetan. Aparteko lekua eskainiko zaie, konkretuki, ondoko bost hauei: Broader unity (Zazpiak Bat), Glorious past (asaba zaharren gorai-pamena), Authenticity edo jatortasuna, Euskaldun-fededun binomioa eta, azkenik, Préservation (euskara eta euskal kultura gorde, artatu, ez galtzerat utzi).

#### III.5.1. Broader unity: Zazpiak Bat

Pluralezko *Eskual herriak* lehenik, eta singularreko *Eskual herria* gero, sarri agertuak dira liburu eta kantuetan, entitate etnokultural gisa normalean,

---

(212) Hor sartzekoak dira, orobat, Arnaud Abbadieren *Eskualduna* astekariko «Laborarier» saila. Sail horrek jarraipena izan zuen, 1900etik aurrera, Jean B. Althaberen eskutik: 1900ean *Ciberouko botanika edo lantharen jakitatea* argitaratu zuen azken honek, eta 1904an *Houn-kaillu berrien enthelegia Ciberouko laborarier*.

Zaldubiren bizi-denboran. Ez dago hor, berez, aparteko nobedaderik: aspaldi-aspaldidanik datorren kontzeptua da hori, eta etnonimo-izena bera (*Euskalerrria*, *Eskal herria*, *Eskual herria*, *Uskal herria*...) menderik mende iritsia da gugainaino, justu noiz sortua den jakiterik ez dagoelarik egungo egunean. Bada ordea etnonimo horrezaz gainera, garai horretan bertan, han-hemen gero eta maizago azpimarratzen den ideia: Euskal herri(ar)en etnokulturazko *batasuna*.

Batasun-asmu horrek konkezio jakina hartua du XIX. mende horretan, berariaz euskalgintzarako sortutako gogo-ikurrean: *Zazpiak Bat*. Ilustrazio garaiko *Irurac bat* eta 1865 inguruko *Laurak Bat* ikurriz politiko-operatiboen parekoa da, zenbait aldetatik, *Zazpiak Bat* hori. Bere genesisia Xahoren eta Abbadiaren 1836ko gramatika-liburuaren sarrerakoan ikusi uste bada ere, zail da gaurkoz ikurriz horrek XIX. mendean kurritutako ibilbide osoa zehatz markatzea. Garbi dagoena zera da: 1892tik aurrera, 1897an goi-erpina joaz akaso, izan zuela bere garapen-aldi nabariena. 1892an eta 97an xurien Euskal Festetan gogoz haizeratu bazen ere (213), eta handiki-soinekoz jantzi, beraien artean bertan bazuen detraktore argirik. Horren parez pare Eskual herriaren *bizitasuna*, *batasuna* ordez, erabiltzen zuten ikurriz gisa garai hartako errepublikazaleek. Orduan ere bateraturik eman ziren, hori bai, zazpi probintzien ikurrak: «Ayant perdu le Docteur Guilbeau la mairie de Saint-Jean-de-Luz en 1888, il avait constitué, avec quelques bascophiles de tendance libérale, comme lui, une *Association Labourdine*, devenue bientôt *l'Association Basque*. La première manifestation de la nouvelle Association eut lieu le 19 septembre 1893 à Ustaritz. L'Association nouvelle s'est donné une devise: «Bizi bedi Eskual Herria» et une bannière sur laquelle M. Zigarroa d'Urrugne a peint les armes des sept provinces basques. (L'Avenir, 22 septembre de 1893). Badirudi, beraz, halako onarpen-giro zabal bat eskuratzen ari zela kontzeptua (214).

### III.5.2. *Glorious past: asaba zaharren goraipamena*

Garrantzitsua da kontzeptu hori, garai hartako euskalgintzaren oinarri ideologikoak ulertzeko. Ez noski orduko euskalgintza osoa horretan oinarritu zelako, hartarako bultzakada emotiboa eta intelektuala eman zuelako baizik.

(213) Ikus Donibane Lohizuneko Euskal Festak 1892an (bereziki Abbadiaren hitzaldi-amaiera), Zaldubiren «Zazpi Eskual herriek bat egin dezagun» kantua, urte berean Azpeitian aurkeztua antza, eta 1897ko Euskal Tradizioaren Festetako banderola eta erakusgarriak.

(214) Batasun-bilaketa hori ez zen Zazpi Probintzietan amaitzen. Zenbaitek, Zaldubik bereziki, are zabalagoko *Eskual herri* zaharra zuen gogoan. Hona bere hitzak: «Sargoce-Pilharreco Ama Birjina Espainiaco aldetic; .Betharramecoa, Lurdecoa, Buglosecoa, Frantciaco bertce hiru bazterretaric; horra lauac zoin auzo ditugun, eta lauac naski Escualherriaren eremu ohietan» (azpimarra nirea) (Adema 1877: 7). «Escualherriac, diotenaz, dembora hartan Espainiaco aldean seguric, Sargoce barne hartcen delaric, hedatcen ciren orai baino hainitz haratago» (Adema 1877: 21). Ez da horrelako aipamen gehiago falta, han-hemen.



Eskualtasuna defenditzea eta euskal kultura indarberritzen saiatzea ez zen entitate zaharkitu baten aldeko apustu itsua egitea, oso urrundik zetorren eta loriazko aldia izana zuen altxor etnolinguistiko preziatua deskubritzea baizik. Deskubritzea eta, behinolako handitasun hari zegokion moduan, etorkizunerako gorabidean jartzea. Abertzaletasun etnokulturalaren eta, are, soziopolitikoaren oinarritzko elementuak biltzen ziren ikuspegi horretan.

Gogoan izatekoak dira, alde horretatik, Agosti Xahoren hainbat lan (ezagunena Aitor mitikoa, agian). Horietariko asko *glorious past* horren paradigmatik planteatuak dira. Aldiz autore beraren beste zenbait lan, Belaren atsotitzen bilketa esate baterako, mitogintzatik urrunago eta dokumentu-oinarri seguruagoz eginak dira: lehenaldi eder-balios baten testigantza eskaintzen dute horiek ere, eta *glorious past* kontzeptua zurkaizten. Martin Hiribarrenen 1853ko *Eskaldunak* ere orbita horretan sar liteke, zenbait aldetatik. Ez da halako saio handirik ageri, aitzitik, Abbadiagan, Duvoisinengan eta abar.

### ***III.5.3. Authenticity edo jatortasuna: eskaldun ona, egiazko eskalduna***

*Ethnocultural authenticity*-ren korrelato hurbila da, plano pertsonalean, *egiazko eskaldunaren* kontzeptua. Abbadiaren eta Zaldubiren garaiko idazle askoren luman ageri da kontzeptu eta termino hori. Ez da elementu finkoa ordea, dinamikoa baizik. Belaunaldi biren jiran gainbehera dator *egiazko eskaldunaren* hasierako paradigma: eguneroko gizarte-bizitzaren «fenotipozko miseria» behinolako «genotipozko edertasun»az kontrajartzen da, gero eta sarriago, euskaltzale eta azertzaile askoren ezpain-lumetan: ikus Michel Elizanburu batetik, Eliseo Reclus edo «Pierre Loti» modukoak bestetik. Formazioz, singladura pertsonalez eta posizio ideologikoz hain diferente izanik ere bat datoz hirurak, funtsean, *egiazko eskaldunaren* formulazio paradigmatikokan eta bere gainbeheraren deskribapen gordinean. Jatortasun etnokulturalaren erakusgarri da termino hori, ez huts-hutsean adierazle etnolinguistikoa.

Jatortasun etnokultural hori berekin duen hiztunari, hizkuntza kontura mugatuz, *euskaldun garbia* esan izan zaio hegoaldean. Euskaldun garbiak egiten duen hizkuntzari, berriz, *euskara garbia* esan izan zaio Bidasoaren alde bietan. Iparraldean, esate baterako, honelakoak irakur dakizkioke Hiriart-Urrutiri: «Frantses eta kaskoin solas bihurri batzu baizik ez duzu entzuten, asko eskualdunen ahotik. Nehor ez da gehiago eskuara garbiz mintzo». Edota beste hau: «Populuak ez daki izan ere eskuara garbia eta garbia ez dena bereizten. Ez da ohartzen eskuara garbiz mintzo den ala ez».

Ele bakarreko euskal hiztunari, azkenik, zirkunlokiozko izendapena emana diote garai hartako idazle eskualdunek: *escuara beicic ez dakitenac* (Zaldubi, 1877: 17). Ele bakarreko erdaldunei, aldiz, beste hau: eskuaraz hitzik ere ez dakitenak. Hiriart-Urrutirena da, berriro, aukeraturiko adibidea: «Ez naiz mintzo sortzez eskualdun ez direnez edo eskuaraz hitzik ere ez dakitenez».

*Eskualdun ona* ere esaten zitzaion garai hartan, oso antzeko adieraz, *egiazko eskualduna*-ri. *Egiazko eskualduna*-ren edo *eskualdun ona*-ren tipifikazioa orduko ekarpena dugu nagusiki (215). Gertatzen ari ziren transformazio demografiko, ekonotekniko eta politiko-operatiboen eraginez aldaketa sakonak ageri ziren gero eta eskualdun gehiagoren jarduera soziokulturalean. Transformazio sakon horiei frenoa jartzeko, eta eskualdun jatorraren eredia zabalkunde egokiz (liburuz, pulpitotik edo kofesionariotik) indarbertitzeko, eratusa dirudi *egiazko eskualduna*-ren kontzeptuak. Honela definitu zuen Michel Elizanburuk *egiazko eskualduna* (1889: 96):

- a) *erlijione sainduari bihotzez atxikia;*
- b) *federekin ditu erakusten, badituela egiazko berthuteak;*
- c) *bere ahotik ez da atheratzen ez solasik, edo elherik nihor ahalga edo gorri dezaketenik;*
- d) *jainkoari lehenik eta gero gizoner da leial egoten;*
- e) *bere hitzetan, bere egintzetan ez da nolana hikanbiatzen;*
- f) *lana maite du, eta behinere ez du utziko biharamunerat egun egin dezakena;*
- g) *arruntki bizitzea lakhet zaio, baitaki luzaz bizitzeko segretuetarik bat hura dela; gastu alferrik ez du egiten, ez janean, ez beztimendetan, ez eta etxeko hatu edo mubletan;*
- h) *bertzen ohorea ez lezake deusetan kolpa. Ez da ere bertzen egitekoe-tan behar gabe sartzen;*
- i) *bethi ekharria da bertzeri atsegin egitera, eta guziz erromesen laguntzera;*
- j) *ez zaio aski bera ona izatea; nahi du bertzeak ere onak izan dituen;*
- k) *aise lakhet zaio irri egitea eta egin-araztea.*

Idealizazio baten aurrean gaude dudarik gabe. Abstrakzio eta sinplifikazio askotxo duen idealizazio baten aurrean. Zaila da orde, kontuak horrela izanik ere, deformazio huts baten aurrean gaudela esatea. Garai bateko euskaldun-jendearen artean aski zabaldurik zeuden uste-sinesmen, iritzi-jarrera eta jokabide arrunten bilduma argia eskaintzen du definizio-zerrenda horrek, bere distortsio guztiekin ere. Argitasun eta benetakotasun horrexegatik izana du, hain zuzen, *egiazko eskualdunaren* edo *eskualdun onaren* kontzeptuak hainbesteko arrakasta eta hain iraupen luzea.

---

(215) Aurreraxeago aztertuko dugun *euskaldun fededun* terminoa baino zabalagoa da, hedaduraz, *eskualdun ona*. Jatortasun-marka etnokultural guztiak biltzen ditu *eskualdun onak, egiazko eskualdunak*: horren barruan sartzen da fededun izatea ere, garai hartako eskualtzale gehiengehienentzat. Ikus Zaldubiren beraren aipamena (1877, 94): «lekhu beretic mintzatu citzaicun escuaraz, aita Benedictino bat, sortcez eta suharrez egiazco escualduna».

### III.5.4. *Euskaldun-fededun: euskaltzale (xuri)en ezin hautsizko binomio*

Funtsezko kontzeptua dugu hau ere, garai hartako euskalgintza zuzen ulertu nahi bada. Fedea ez da apaiz-jendearen kontua soilik, aztergai dugun epean: gizarte-sail osoen ezin baztertuzko osagai da fedea (216), eta halaxe ere da lau saihetsetarik agertzen. Zaldubiren bizi-denborako eskualdun asko fededun dira, aski neurri zabalean. Fededun dira eskualdunak eta, sarritan, gozamenaz zelebratzen da binomio hori (217).

Oker geundeke, ordea, binomio hori unibertsaltzat emango bagenu. Adibiderik ez da falta ezker-eskuin, fede-bizipena gainbehera datorrela esaten diguna. Eskualdun asko ez direla fededun: ez, behintzat, lehen bezain fededun edo lehen bezalako fededun. Fedea berreskuratzea lehentasunezko helburu du, horregatik, hainbat aphez euskaltzalek. Ez dirudi, aldiz, lehen une hartako fede-galerak luze-zabaleko mintzaldaketarik (are gutxiago deseuskalduntze osorik) ekarria zuenik besapean. Fenomeno biak ez zihoazen, itxuraz, elkarren eskutik: «Lehengo Fede hura berriz pitz dakigun,/ O fededunen Ama, zuc gaitzatu lagun./ Bai! Escualdunec hemen hitz eman dezagun,/ Bethi cinez izanen garella fededun» (Zaldubi 1877: 153).

Gorabehera guztiakin ere bizirik zegoen 1900 inguruan, xurien artean eta *Leitmotiv* gisa bederen, binomio hori. Ikus, horren bermagarri, 1897ko Euskal Tradizioaren Festen aktagile Bernardou-ren esanak (1899: 11-87): «*Escualdun fededun*, basques et croyants, c'est tout un» (1899: 15). Itxuraz elkarren lagungarri eta zirikatzaile ziren kontzeptu horiek paradero larrian bukatuko zuten ordea, Iparraldean bertan, XX. mendean: biak bateragaitz pertzibitu ziren neurrian (Eskual herriaz gaindiko esferetan lehenik; bertako elite xuriaren baitan gero) bata ala bestea hautatu beharrean gertatu ziren euskaltzaleak. Horren ondorioak ezagunak dira, nahiz eta lan honen esferatik kanpokoak izan eta, beraz, horiei buruzko xehetasun handietan ez sartu: bistan da luzarora errazago eta osoago eutsi diola bere buruari binomioaren bigarren atalak, lehenengoak baino.

Bazuen *euskaldun-fededun* kontzeptuak, azkenik, zutabe etiko-moral argia: *konformidadea*. Ohiko fede-sinesmenaz, hizkuntzaz eta kultura materialaz gainera konformidade horrek definitzen zuen eskualdun-fededuna (218).

(216) Demagun Duvoisin 1858 (in Altuna, 1986: 41): «Jainkoarentzat izan behar da gure lehen hitza. Garenak, harek egin izan gaitu; ditugunak, harek eman izan darozkigu; bizi gareno, haren eskutik ditugu bizia eta bizitzekoa; hari zor diotzagu, beraz, gure esker guziak.»

(217) Ademaren beraren hitzetan esanik «icustecoac ciren bidean zohatcila;...beren fededun copeta hein bat goraric; (...) Bedere horiek ez zuten escualdun odolice ukhatcen» (Zaldubi, 1877: 89).

(218) «Ez daroku eman onthasuntze handi bat. Bainen bizia gozoki iragaitzekotzat ez da (askok uste duketen bezala) aberats izan behar. (...) Ez da onthasunetarik heldu dohatsutasuna, bainen bai eginbideak ongi bethetzetik, zeren bere eginbidea ongi bethetzen duen gizon prestua eroria baitago bethi Jainkoaren nahira. Eta Jainkoak emaiten dio barneko bakea. (...) Gauza jakina da presondegiatan eta galeretan laborari gutiago higatzen dela ezenetz tratulari, kargudun edo

Emana zegoen argi, azterkizun dugun epealdiaren hastetik beretik, ideal betea: orduan bertan hezur-haragizko gizaki gutxi osoki betetzen zuena eta denboraren harian gero eta idealago, eguneroko bizibidetik aldenduago, agertuko zena. Baina kontzeptu indartsua, onaren eta gaizkiaren arteko muga zehazten laguntzen zuena. Konformidadezko gizona zen, ooren gainetik, euskaldun-fededuna.

### **III.5.5. *Préservation (euskara eta euskal kultura gorde, artatu, ez galtzerat utzi)***

Iparraldean zein hegoaldean (Donostiako *Euskal Erria* inguruan bereziki) gogoz hasiak dira bertako protoelite euskaltzaleak, mende-erdi horretan, *préservation*, *preservación* hitza erabiltzen. Kultura osoaz baino gehiago hizkuntzaz ari dira, batzuek eta besteak, hitz horretaz baliatzen direnean. Ikus, adibidez, Anton Abbadiaren 1896ko «Sur la préservation de la langue basque (notice)» (219).

Aniztasun soziokultural eta etnolinguistikoaren paradigmaren eraikia da kontzeptu hori eta, izena izen, egungo egunera arte iritsia zaigu. Egungo *hizkuntza-normalkuntza*, zenbait kontestutan, preserbazio kontzeptuaren adar gaztea baizik ez da. Badu aniztasun horren defentsak, nola ez, ekologismoarekiko lotura argirik: bai orain, begian bistan denez, eta bai orduan ere. Orduko zenbait euskaltzalaren arbola-aldatze sistematikoa ez da, ezinbestean, kasualitate huts (220).

Preserbazio-artak, beste hainbat kontzeptu giltzarri bezala, modulazio eta zentraltasun diferentek onartzen ditu. Halaxe gertatu zen Zaldubiren bizidunboran: batzuentzat zentrala, are lehenetasun osozkoa, zen eskuara (eta eskual ohidurak) gorde, artatu, galtzerat ez uztea. Ez zen hori ordea, ezinbestean, eskualdunen berari interesgune nagusia. Eskuara galdutako (beren edo, sarrigo, bere gurasoen garaian galdutako) belaunaldiek errazago jotzen zuten kontzeptu horretara (beraz, bizirik zeuden eskualdun-multzoak etnolinguistikoki bizirik gordetzera), beren (eta bere haurren) buruak bide horretan barrena abiaraztera baino. Aho biko ezpata gertatuko zen inoiz, klarifikazio kontzeptual eta ideologikoaren faltan, preserbazioaren kontzeptu hori. Funtsezko elementua izan zen ordea, lehen-lehen unetik. Halaxe da orain ere, ahuldutako hizkuntza indarberritzeko edozein saio seriotan.

bertze ofiziotako gizonetarik. Ongi bizitzekotzat laborariak ez du baitezpadako jauntzi ederrik behar. Jan arronta ere aski zaio eta ez dabila hirietako atsegin erho galgarrien ondolik» (Duvoisin 1858 in Altuna 1986: 41-3).

(219) In *Bulletin de la Société de Linguistique*, 1895-1896, IX, LXXXVIII.

(220) Ikus Hiriart-Urrutiren eta Broussain auzapezaren langintza alor horretan, bai eta jende xehearen erantzuna.

#### IV. IPARRALDEKO EUSKALGINTZAREN EMAITZA NAGUSIAK

XIX. mendearren bigarren erdiko euskalgintzak osagai nagusi bat baino gehiago izan zuen. Ez da harritzeko gauza, kultura-esparru osoa baitzuen gogoan, hizkuntza barne, eta beste zenbait esparrurekin ere (erlijio-alorrekarekin eta mobilizazio politikoarekin, bereziki) harreman estuan baitzegoen. Euskalgintza zabal haren hiru osagai izango ditugu kontuan, emaitzak aztertzeko orduan: osaera soziokulturalaren atala, hizkuntzari bizirik eusteko saioa eta hizkuntza onaren, *eskuara garbiaren* aldeko jarduna.

Osaera soziokulturalaren aldetik asmo jakina izan zuen mende-erdi hartako euskalgintza *xuriak*, luzaro nagusi izandakoak: Zaldubi sortu zenean edo bere gaztaroan indarrean zegoen ohiko bizimoduari ahal zen heinean bizirik eustea. Anton Abbadia har liteke xede nagusi horren aitzindari, bidelagun zorrotzak izan zituelarik han-hemen: batez ere han, apaiz xuri-erregetiarren artean. Hizkuntzaren alorreko euskalgintzak, aldiz, xede bikoitza izan zuen: batetik, eskuarari bizirik eustea (hots, ahalik eta eskualdun gehienek ahalik eta usuen beren artean eskuaraz egitea). Bestetik, eskualdun horiek beren artean ahalik eta eskuara garbienean egitea hitzez eta idatziz.

Batean zein bestean «ahal zen heinean», «ahalik eta gehien» egiten saiatu ziren garai hartako eskualtzaleak. «Ahal» hori ez da eskualtzale haien ekarpenak berekin dituen muga-eskasien edergarri huts: bai *identity*-, bai *status*- eta bai *corpus*-plangintzan eramandako bidearen ezaugarri handia izan zen aldian aldiko mugen (benetako edo ustezko mugen) barnean mugitu nahi hura.

Goiko hiru xede horiek (preserbazio soziokulturala, euskararen erabilera bizirik atxikitzea edo indartzea eta hizkuntzaren erabilera garbia zaintzea edo garatzea) ez zetozen beti elkarren eskutik. Ez, behintzat, intentsitate-maila berberaz: behialako osaera soziokulturalari bizirik eustea zuen zenbait euskalgilek xede nagusi; beste zenbaitek, aldiz, euskarazko jardun-guneak, harreman-sareak eta aurrez aurreko erabilera hitzez eta, une batetik aurrera, idatziz bermatu nahi zituen ororen gain; beste zenbaitek, azkenik, euskara ona, euskara garbia indartu edo garatu nahi zuen (221). Goiko hiru helburu horiek ez

---

(221) Zenbaitek, «frère Innocentius» Elizanburuk esate baterako, euskaldun-fededun paradigmaren oinarritutako preserbazio soziokultural erabatekoa (eta horren barruan, ez hortik kanpora, euskararen erabilera) zuen helburu: haur-denboran bezalako bizimodua sendotzea edo berreskuratzea, eta horren haritik ohiko esparruetan betiko moduan *eskuaraz*, ez *frantsesez* edo *kaskoinez*, hitz egitea. Aldiz *eskuara garbiaren* kontuari, hagitz etxekotzen ari ziren interferentzia lexiko eta (s/z) fonetiko ugariak saihesteari adibidez, ez zion Elizanburu fraileak aparteko atentziorik eskaintzen. Beste zenbait euskaltzalek, Jean Hiriart-Urrutik bereziki, oso bestelako lehentasun-irizpidea aplikatzen zuen horretan: Hazparneko salletarrak baino xede apalagoak ezartzen zituen ohiko ondare soziokulturala bere osoan gordetzeaz (konbentzitu zegoen, hainbatean, ezinezkoa zela erabateko helburu hori), baina bigarren eta hirugarren helburuak oso gogoan izan ohi zituen. *Eskuara garbiaren* aldekoa zen Hiriart-Urruti, Elizanburu baino hagitz nabarmenago. P. Broussain

ziren noski ezin bateratuzko xedeak, baina bai bereziak eta beregainak. Bera-riazko gainbegiratu zor diegu, horrexegatik, hirurei.

#### IV.1. Eskual herriaren osaera soziokulturala

Abbadiaren merezimendu nagusia ez dago corpus-plangintzan, *identity*-eta *status*-plangintzan baizik. Bestek aipatua duenez «ce n'est pas par ces écrits qu'il a acquis les plus grands droits à notre gratitude: c'est par la persévérance qu'il a mise à faire conserver intacts notre langue, nos moeurs, nos jeux et nos traditions (Petit, 1899: 549). Geroako gero utzita «conserver intacts nos moeurs, nos jeux et nos traditions» dugu alor honen elementu nagusi. Hots, eskualdun-jendeak ordura arte berekin izandako hainbat uste-sinesmen, jakite, balore eta iritzi, ohitura eta jarduera bizirik atxikitzea, eguneroko bizimodu arruntean aplikatzen jarraitzea eta belaunaldi berriari osorik, ahalik eta osoen, transmititzea. Lortu al zuten halakorik, nor bere esparrutik jardunez, Anton Abbadiak eta Michel Elizanburuk, Jean Duvoisinek eta Louis Etxeberrik, Martin Guilbeauk eta Albert Goienetxek, Jean Pierre Arbelbidek eta Elizanburu kapitain-ohiak? Lortu al zuten halakorik Adema-Zaldubik?

Partez bai. Partez lortu egin zuten beren helburua, euskal etnokulturari bizirik eustekoa. Zuhurkiago esanik, jarraitasun etnokulturalaren xedea lortu egin zen partez beren bizi-denboran eta lorpen hori, hein batean, eskualtzale haiei zor zaiela pentsa liteke. Ez dago dudarik, adibide ezagunenak baizik ez aipatzearren, ohiko jan-edanak eta jolasbideak, janzkerak eta lanbideak, gura-soenganako errespetua eta hi/zu terminoak bereizizko trataera, kaletik etxera erretiratzeako ordutegia (gazteak, batez ere neskatxak, ilunabarrean garaiz etxeratzea), dirua nolnahi ez xahutzea, baita *euskaldun-fededun* binomioa ere, bizirik zirela 1900 inguruan.

Bizirik bai, baina nola? Zer jarraipen-moduz eta zer bizi-indarrez? Lehengo berberak al ziren kultura-ezaugarri horiek? Lehen (1830ean, 1850ean) bezain sendo ote zeuden? Ez: transformazio sakona izan zuen eskualdunen osaera soziokulturalak: azal beraren pean aski aldaturik zegoen Zaldubiren

---

medikuak ere, hizkuntzaren erabilera zabaltzen (ez soilik ohiko jardunguneetan mantentzen) sai-atzeaz gainera hizkuntza garbia zuen xede. Ez Hiriart-Urrutiren pareko eskuara garbia ordea, aski bestelakoa baizik: gizarte-berrikuntzaren ondorioz gero eta beharrezkoago bihurtzen ari ziren neologia ugariak eta, are, joan den mendeetako ibiliak eskuara xumeari erantsiak zizkion milaka maileguren ordezkotako hizperri «jatorrak» zituen berak amets; Eskualdunaren kazetari-buruak ez bezala zazpi herrialdeetarako idatz-hizkera batua lehenesten zuen berak, bestetik. Itxaropen handia zuen Broussainek, azkenik, euskararen barne-sorbideez osaturiko lexiko-berrikuntzan, nahiz eta gaiago zen, izan, *eskuara on* horren alde predikatzeko, prediku hori bere jardunean (batez ere ahozkoan) zuzen betetzeko baino. Hiriart-Urruti, aldiz, maisu zen helburutzat hartzen zuen esku-ara-eredu hura benetan aplikatzen. Ondorio praktikoa handirik gabeko *codification-stage* delakoan saiatu zen Broussain, sarritan, lexiko-berrikuntzaren alorrean. Inplementazio-alorrean jardun zuen Hiriart-Urrutik etengabe, estilo-lanketa jaso-argia berariaz garatuz.

haur-denborako hainbat uste-sinesmen, jakite eta jarduera, balore eta iritzi. Eskualdunak beste herrietatik gehien bereizten zituen ezaugarri soziokulturalak, batez ere, lehen baino nabarmenki ahulduago zeuden 1900 inguruan. Hori ageri da orduko testiguen beraien hitzetan. Horrela, eta euskal testuetatik (222) bertatik jaso litekeen neurrian,

- a) Pilota-jokoa bizirik zen noski. Haurren eguneroko solasbide izateaz gainera bere lekua eta erakarmena atxikitzen zuen igandez, festaburuetan edo feria-egunetan. Euskaldunon kirol nazionaltzat hartu berria zuten Zaldubik eta Goienetxe medikuak, eta aparteko balore sinbolikoa atxikitzen zitzaion oro har. Zaldubiren haur-denborako pilota-jokoa eta 1900ekoak ez ziren ordea gauza bera. Izen beraren pean aski errealitate diferenteak zeuden gorderik: «pilotan egitea» ez zen gauza berbera 1830ean edo 1850ean, batetik, eta 1900ean bestetik. Eskuz eskuko pilotariak (pilotari onak) ez ziren bestalde, Iparraldeari dagokionez, gero eta gehiago. Beheraldi batean eroria-edo zegoen bertako pilota-mundu hori mende-amaiera hartan: 1897an Donibane-Lohizuneko Euskal Festen kariaz eginiko pilota-partidetan, esate baterako, «les joueurs de paume ... sont dix, dont huit Espagnols et deux seulement (ô douleur!) de notre cher Labourd» (Bernadou, 1899: 24). Kasualitatezko gertakaria izan zitekeen hori, jakina. Donibaneko gertaera ez zen ordea, ezinbestean, kasualitate huts. Anton Abbadia aski kezkatuak agertua zen, hil aurreko azken urteetan, bere gogoko pilota-jokoaren beherdiaz (223). Eta ez zen bakarra: «es inminente la destrucción del frontón éste (...): los hijos de Euskaria abandonan, cada vez más, este juego de alta elegancia por el grosero foot-ball» (Loti, 1908ko otsaila, in Roger, 2000: 101). Egoeraren ahulaz jabeturik, haurren artean pilotaren eta harekin batera gainbehera zetozen beste zenbait ezaugarri soziokultural promozionatzeari ekingo zitzaion handik oso urte gutxira: «haurrak ikas zazue / eskuaraz mintzatzten, / pilotan egiten ta / onheski dantzatzten». Labur bilduz, 1850ean edo 1860an eguneroko bizimoduaren gertakari arrunt, ezin aldentuzko eta

---

(222) Michel Elizanburu salletarra dugu, motibo askorengatik, erreferentzia eskurakoena. Interes handia zuen berak kontuotan, aski interes «interesatua» nolabait esan, eta inork baino espreskiago idatzi zuen kontu hauen gainean. 1889ko bere *Lehenagoko eskualdunak zer ziren*, hiperbolazko eta interes ezin argiagoen eraginezko distortsio guztiak aintzakotzat hartuz ere, ezin alboratuzko iturria dugu kontuon gaineko informazio esplizituaz baliatzerakoan. Garai bertsuko beste zenbait idazle ere aintzakotzat hartzekoa da: Jean Hiriart-Urruti kazetaria, bereziki. Interes eta propaganda aldetik ez da aurrekoa baino makalago hazpandarra: hiperbolazko idazkerari badaki, ordea, neurriagoko azalpenak kontra-jartzen eta, batez ere, inor gutxi bezalako ikusmira soziologikoa eransten. Lan horiek (batez ere lehenengoa) hartuko ditugu atal honetan, maiz asko, lehen hurbilpeneko konparazio-gune moduan. Bertako balio-irizpenak alde batera utzita, datu gordinen deskribapenean badirudi kontu asko egiatik hurbil dabilzala: zenbaitetan, espreski egiazaturik daude beranduagoko historia-lan zabaletan.

(223) «Parmi tous les jeux qu'Antoine d'Abbadie s'est plu à encourager, il en est un qui a obtenu ses préférences. C'est celui du rebot. Il y a vu le jeu vraiment national. (...) Malheureusement, le souffle nouveau a passé sur nos campagnes» (Petit, 1899: 552).

jendetsu izandako jokaera, jai-egunari edo aldian behingo okasioei aparteko distira ematen ziena, ahultzen, bakantzen eta «bazterreko» bihurtzen ari zen 1900 inguruan, Lapurdiko kostaldean bederen (224). Galera hori ez zen kirol alorreko jatortasun etnolinguistikoaren kontua soil-soilik. Hori baino oihartzun zabalagoa zuten pilota-partida horiek euskaldunen harreman-sareen konfigurazioan. Nor bere herriaz, bailaraz eta are Probintziaz haraindiko elkarretaratzeak gertatu ohi ziren sarri pilota-partida horietan; bestela elkarrekiko kontaktu-aukera handirik ez zuten euskaldun-multzoak elkartzeko aukera eskaintzen zuten, ipar zein hego (225). Pilota-jokoak behera egitearekin batera eskualdun-euskaldunen arteko harreman-sare zabalago horiek ere ahulduz zihoazen.

- b) Dantza-jauziak eta kantuak ere beheranzko bidean abiatu ziren. Zabalduz eta indartuz ez baina ahulduz eta bakanduz zihoazen horiek ere. Kantuen ahoz ahoko transmisioa badirudi nabarmen ari zela galtzen, liburuxka bidezkoa gelditzen zelarik euskaltzale-multzo jakinen azken gordeleku. Batzuen ustez abiada bizian ari zen kantu-xaramelen galera hori gertatzen: «nehork kasik ez dazki gehiago gure aitzinekoek emaiten zituzten kantu zaharrak eta guziz kantika ederrak (Elizanburu, 1889: 97). Dantzen kasuan are fenomeno argiagoa dugu begien bistan: herri-giro arruntean ohiko jolasbide ziren izatetik atzerritarrei begira egindako folklore-azalpen exotiko izatera pasatzen hasiak ziren: hots, eskualdunen osaera soziokultural eguneratuaren ñabardura xahar-periferiko bihurtzen (226). Une batetik aurrera dantza *onak* esistituko ziren alde batetik, zenbaiten esanean, eta *txarrak*

(224) Elizgizonen jokaera ez zen horretan zeharo alde batekoa. Egia da haietariko askok, Zaldubi buru zelarik, estimu handitan zuela pilota-jokoa eta, oso begi onez ikusteaz gainera, bai pilotan egiten eta bai hartaz idazten jakitun handi zela (ikus, adibidez, Zaldubiren *1894ko Notice sur le Jeu de Paume au Rebot, jeu national des Basques*). Ez zuten ordea nolana hiko eta, batez ere, edozein momentutan eginiko pilota-partida begi onez ikusten. Meza nagusi garaian eta aste barruan egiten ziren pilota-partiden arras kontrario ziren haietariko zenbait. Ikus Elizanburu (1889: 101): «Hamar aldiz kondenagarriagoak dire partida horiek egiten direnean igandetan, ofizioetako denboran, zeren gisa hortan galtzen baitute, emeki emeki, bai jokhariek bai behatzailek beren fedea, duten erlijioa, eta hola baitzeie ezeztatzen bihotzean Jainkoaren beldurtasuna bera», edota Hiriart-Urruti in Altzibar 2004.

(225) Ikus, adibidez, Zaldubi eta Michel Elizanburu. Azken honen esanean «españolik balin bada plazan eta heien nazionekoek badute irabazten, aditzen dire oihuz, gehienak, beren mokanesak inharrosiz eskuan, beren bonetak edo xapelak altxatuz airean». Gogoratu, era berean, iparraldeko pilotariak hegoaldera ekarritakoa dela *Agur Jaunak* kantua (Mujika, 1919: 19).

(226) Ikus Pierre Lotik, 1897ko Euskal Tradizioaren Festetako dantza-jauziez idazten ari delarik, zer dioen: «son sulletinos bailadores (...) los hombres comenzaron a moverse gravemente a compás... No dejaron de oírse acá y allá algunas bestiales risas –que brotaron de debajo de sombreros elegantes-, pero la mayoría del público, hasta los excursionistas más vulgares, fué conquistada y prestaba atención». Honela jarraitzen du aurreraxeago: «para las cuatro estaba anunciada una danza de la antigüedad milenaria (la «danza de las espadas», por los jóvenes montañeses de Guipúzcoa), y, mientras se hacía tiempo, era preciso almorzar en el abarrotamiento de un hotel, entre viajeros de todas clases» (Loti, 1897-VIII-17, in Roger arg. 2000: 46-7).



bestetik (227). Koesistentzia hori ez zen egonkorra, ordea. Dantza *onak* bakantzen ari ziren, eta *txarrak* nonahi hedatzen. Eguneroko bizimoduaren aisialdian berezko jarduera *markatu gabe* izandakoa elementu *etnikoki markatu* bihurtzen ari zen. Bere-bereak zituen funtzioak galtzen ari zen, eta aski sinbolikoak eskuratzen. Antzeko ondorioak atera litezke, labur beharrez aipamen hutsean utziko baditugu ere, garai horretako bertsolaritzaz (228) eta janzkeraz (229).

- c) Familiaren osakerak hainbatean eutsi zion lehengo eramoldeari: kanpñan batez ere, etxondoaren herentzi neurriak lagun zituela, famili egitura basikoak berekin zituen 1900ean ere ohiko ezaugarri asko (230). Europako bilakaera nagusia antzematen hasia zen ordea hemen ere: familia zabala (231) ahulduz joana zen, eta nuklearra indartuz. Etxe barneko hierarkia-egitura zurruna, zu/hi elementuen eta antzekoen bereizketa menderik mende bizirik gordetakoa, ahultzen eta gesaltzen ari zen horrekin batera (232). Ezkontza-ezteien inguruko moldaera ere erro-errotik aldatu zen tarte horretan (233).

---

(227) Dantza onak eta txarrak bereizten iaioa genuen, nola ez, Michel Elizanburu (1889: 101 hurr.): «ez da erretorik, ez doktorik ez theologalik, dantza jauziak madarika detzakzenik. Horieta ez da gaizkirik, ez gaizkiaren egiteko hirrikurik. Aldiz, dantza txarrak dira kontra dantza guziak, bai eta oraino frantsez deitzen ditugunak les vales, le galop, la polka, la gavote allemande, etc. Erho itsusiak zauzkit anhitz dantza español. Hala nola el bolero, el saltarelo, el zapateado, el jaleo, el fandango, la jota, la malagüña, la gachucha, etc.» Halako ikuspegi hertsirik izan ez eta fandango aski bertakotzat hartzen zuen Pierre Lotik, bestalde, hona zer dioen Hendaialdeko egoeraz: «suena la alegre charanga, con notas, a veces, que indican un aire de fandango. En la orilla francesa se baila esto cada vez menos, durante los siete años que habito yo aquí. Esto se va reemplazando por las insulsas mazurcas y por los lanceros de las afueras» (Loti, 1898, in Roger, 2000: 76).

(228) Bertso-saioak bizirik dira 1900 inguruan, eta hegoaldeko bertsolarien parte-hartzea gero eta nabarmenago da bertan (batez ere Lapurdiko kostaldean). Anton Abbadiaren *perseguidetako* bertsoen kalitateaz eta freskotasunaz bada ordea kezurik, 1880 ingurutik aurrera. Kexugile nagusietako bat J. Vinson izanik kontuz hartu behar da balio-irritzi hori. Bertsogintzaren beraren osasun-indarrak bezainbat, gehiago ez bada, bertsogintzaren bidez transmititzen ziren iritziez (xurien aldeko iritzi politikoez batez ere) kexatzen zen oihanzain euskalaria.

(229) Zaldubiren haur-denboran etxean bertan egiten zituen herritar xume askok ohiko jantziak: berek egiten zituzten «beztimenda heien pharte bat edo anhitz, familiako linja guzia bezala». Beztimendetan izandako xinpletasuna galdutzat ematen da handik hirurogei urtera. Ikus, adibidez, Elizanburu (1889: 23-9). Soka luzea zuen jantzi-kontuak, eta emazteki urteko lanbidea eta bizimodua nabarmen markatzen: «etxe bakoitzean ereiten zuten lihoa, urthe guzietan. Lihoari behatzen ziren lan guziak, salbu ereitea, emaztekin eginak ziren».

(230) Ikus, adibidez pare bat baizik ez ematearren, Elizanburu 1889: 33-4: «alaba etxean sartu ilhuna baino lehen, are amak errandako orduan», edota 1889: 50: «Afalondoan errosario santua familian orok erran».

(231) 1830 inguruko familia tradizionala zentzu zabalean hartua, ez biologiko hutsean, agertzen du Elizanburuk (1889: 50): etxeko jendea, sehiak, bai eta parean diren auzoko pertsonak ere, familia horren partaide dira.

(232) Horren oihartzun xotila dugu, esate baterako, Elizanbururen aipamen hau (1889: 11): «artzain zahar guziek zu erraten zitoten Josep-i eta hark orori hi, to eta no».

(233) «Le mariage tel qu'il nous est décrit ne peut être vu qu'en reproduction folklorique organisée à titre de curiosité» (Berdéco 1899, in Lafitte, 1982: III).

- d) Euskal eta erdal kulturako nahas-ezkontzak ere aspalditxodanik indartzen hasiak ziren, kale-giroan eta erdi- edo goi-mailako gazteen artean batez ere. Elearteko nahas-ezkontzak errazago egiten ziren, itxura denez, erlijio diferenteko gazteen artekoak baino: «aujourd'hui, cependant, on se marie partout où l'on trouve son avantage; il n'y a guère plus de distinctions en ce sens entre Basques, Gascons, Béarnaises, etc. Malgré cela, très-difficilement, très-rarement, une jeune fille et ses parents consentiront à une alliance avec un protestant» (Francisque Michel in LGEV, IX: 210). Fenomeno hori zabalduz joan zen erabat, eta horren bidez etxe-giroa erdalduntzen: 1900 inguruan ez zen hain arraroa eskualtzale buruzagi zenbaiten hurrek eskuaraz egiten ere ez jakitea (234).

Oro har, eta labur bilduz, Europa osoko fenomeno zabala ari zen Eskual herrira ere iristen: *Gemeinschaft* zaharraren galera eta *Gesellschaft* berriaren garapena (235). Hori dela-eta, *Gemeinschaft*-giroan osasun betean izandako ezaugarri soziokultural batzuek gainbehera etorri ziren (236) eta, horiek behera egin ahala, gorantz egin zuten beste batzuek. Kontsumo-zaletasunak, adibidez, nabarmen egin zuen gora (237) (Elizanburu, 1889: 56 hur.). Baita kultura idatzi modernoak ere (238). Liburu arruntaren zabalkunde hori frantsesez egin zen,

(234) Kontu horrek garapen ezaguna izan zuen. Ikus, alde batetik, 1919an F. Saint Jaymek Broussaini idatzia: «Vous avouerez qu'il est décourageant de voir que les enfants nés à Bidart de notre président D(ecrept) de l'Eskualzaleen Biltzarra ne parlent pas le basque, ni ceux de notre ami d'A(rcangues), nés à Villefranque, quand leur père préside le Comité des Fêtes d'Abbadie!!! Ah si tout le monde faisait comme vous!!! (1919-VIII-8). PB, 284. Ikus, bestetik, Lizardik Iparraldera eginiko txangoaren berri-ematean bertako giroaz zer dioen. Bat datoz, funtsean, batzuen eta besteen azalpenak.

(235) *Gemeinschaft* horren erakusgarrietako bat auzolana izana dugu. Urte osoko mila gauzatan islatzen zen lehen auzolan hori: «belhar edo ogi sartzetan, edo bertze behar orduetan, aise zituen hatzematen, zenbait arnoetan truk, esku kolpe bat emanen zakotenak.» (Elizanburu, 1889: 13).

(236) Ezaugarri soziokultural horien adierazle argia dugu Duvoisin, 1850eko hamarkadan. 1900 inguruan nekez bilatuko dugu, are idazle tradiziozaleen artean, *Gemeinschaft*-en hain gorai-pamen argirik: «lagundu izan ditut hauzoak behar-orduetan. Hekin ganik laguntza berak izatu ditut ene aldian. Ez dezazula erran: «gaizki heltzen denarentzat hanbat gaixtoago; antola bedi». Norbait ateka txarrean ikhusten baduzu, erran zazu: «nire laguna laguntza beharrean da; goanen natzaio esku ematera». Eta ongi egingen duzu eta zure aingeruak ekharriko du zure egintza Jainkoaren aintzineria eta Jainkoari etzaio ahanztiko eta behar-orduan laguntzaileak igorriko darozkitzu. (...) Jainkoak erran zuen: «Elkhar lagunduko duzue».(...) Jornaltiarak jornaletik hazi behar ditu bere haurrak, baina hauzoak hauzoari esku ematea zor dio; sarizat izanen du bere aldian hauzoaren laguntza» (Duvoisin 1858 in 1986: 44).

(237) :«Gure egunetan nahiago dute asko jende xumek beren izate guziaz ekharri soinean, arropetan, ezen ez zerbait aldaratu urthe guziez, gero zer gertha ere.» Berea da, orobat, beste baieztapen hau: «eskualdunek maithatu izan dute garbitasuna. Kasu guti zuten egiten lehen edergailuez, bai eta moda berriko muble alfer edo iraupen gutikoez» (Elizanburu, 1889: 28).

(238) Gertaera horren testigantza ugari jaso liteke han-hemen: «hor sartzen da Erlande oihantzaina, prozeberbal bat eskuan»; «Jaun erretorak ukhan zizun meriatik paper bat»... Oro har, hitzean oinarritutako kultura batetik idatzizkora pasatzen ari da gizarte, zenbait esparrutan. «Tristanen hitzak balio zuen paper markatua»: hala dio Elizanburuk, lehenengo egoera idealizatuz

hainbatean (239); gazetak irakurtzeko ohitura zabalduz joan zen oro har (240). Higiene kontuan nabaritu zen, agian, aurrerapenik handienetakoa (241). Esfera profesionaleko aldaketek eragin bizia izan zuten osaera soziokultural horretan: bai status sozialaren birmoldaketan eta bai horren ondoriozko izendapenetan. Status sozialean, oro har, herriko aphezari lehiaketari berriak sortu zitzaizkion: bera bezain «ikasi-jakintsun»ak ziren gobernamentuaren eskoletako errientak batetik, eta medikuak bestetik. Rol-banaketa berrira egokitzea eskatu zuen horrek guztiak. Lehengo gidaritza argia konpartitu eta, zenbaitetan, bigarren plano batera pasa beharra gertatu zitzaizen aphezei. Michel Elizanbururen esanean, gidaritza-auzia sortu zen hainbat herritan, aphezen eta medikuen (beste batzuen esanean, errienten) artean: «Morde mediku, debalde prediku. Ez dira guretzat doktorrak, baina dira gure herrietako oilarrak». Antzera gertatzen hasia zen, lehenxeagotik, herriko aphez-jendearen eta gobernamentuko eskolamaisuen artean: «La gran mayoría de los maestros cultivaba «relaciones honorables», ciertos maestros hacían gala de una gran piedad y no alternaban sino con sacerdotes. Los conflictos entre maestro y cura eran una excepción. Sin embargo, en Hasparren un agudo conflicto oponía al clero y a los maestros (242)» (Hourmat in Lasa, 1968: 126).

Jan-edanean ere aldaketa nabarmenak gertatu ziren: kantitateari dagokionez aurrera egin zen, dudarik gabe (243). Azken gosete handia, arras ezaguna

---

baina oinarrizko zertzelada zuzen bilduz. Handik mende-erdira, emandako hitza ez da lehen bezain seguru; bai aldiz, sinaturiko dokumentua.

(239) Horrelakoak ziren, antza, *Mystères de Paris, Le Parfum de Roma* eta beste zenbait. «Irakurtzaiesak» ugaritzen hasi ziren horrela: «des lectrices». «Ez dezaketa begien bistan sofri neskato gazeta irakurtzaiesak eta gutiago oraino roman-ak leitzen dituztenak». Bestelako aldaketa ohargarrikerik ere gertatu zen, halere, Elizanburuk bere liburu hori argitaratu eman ondoan: esku-arazko astekari biak (batez ere *Eskualdun* kazetak: ikus aurrerago horien azalpena) irakurle-masa ohargarria eskuratu zuten.

(240) Badirudi (Pécaut ikuskariaren arabera) 1880ra arte oso bakana zela ohitura hori, herriburu eta hirietatik kanpora. Gauza bera dio Elizanburuk, handik hamar bat urtera: «Lehenago ez zen ikhusten jaunik baizik gazeta eskuan» Prentsa-askatasuna noizkoa den jakinik ez dago horretan zertan harritu. Kasu honetan, halere, mesederik ere ikusten dio lasalletarrak ohitura berriari: «Bizkitartean, zortzian behian haren leitzea, on dela, iduri zaut, bai eta abantailos. Jakiteko erresumako eta herri-inguruetako harat-hunata eta berriak, bai eta bihiaren, kabalen eta asko gauzen prezioa merkatuetan». Bere neurrian, ordea: «Bainan egun guziez berriketari bat eskuan ikhusten diren ofiziale eta nekhatzale batzuek, iduri dute gezurketa dabilzala, edo, lanean ez ari nahiz, ez dakitela nola denbora pasa».

(241) Aldaketa horren ifrentzua erakusten du Elizanburuk, beste zenbaitetan bezala (1889, 27): «Aita familiako batzuk ez (...) aski irabaz(ten), beren emazten eta alaben tualetarendako». Balorazio objektiboago baterako ikus Patxi Altuna 1986.

(242) Kasu horretan bazen, halere, rol kontuaz aparteko motiborik: «Versión del inspector Pasteur: «el influyente fanatismo de algunos ex-misioneros ya retirados (...) disuadía a los padres de confiar sus chicos a las que ellos llamaban «instituciones modernas» y de enseñarles el francés. La clase del maestro Roquelaure, que enseñaba desde hacía 22 años, estaba reducida a dos alumnos, bajo el pretexto de que no sabía el vasco para enseñar este idioma».» (Hourmat in Lasa, 1968: 126).

(243) Ikus, konparaziorako, Elizanburu 1889.

eta Zaldubik berariaz kantatua, 1846ko «Bethiri Sants» izan zen gure artean (244). Kalitateari dagokionean ere aldaketa ohargarriez hitz egin liteke: lehen baino haragijaleago bihurtu zen hainbat eskualdun (245), eta bere eguneko oturuntza dibertsifikatuz joan zen oro har. Barau-bijiliak ere apenas lehen bezain zorrotz errespetatzen ziren (246).

Puntu nagusietariko batera garamatza barau kontu horrek: *euskaldun fededun* binomiora. *Eskualdun fededunaren* eredura edo, nahiago bada, iparraldean sarriago aipaturiko *egiazko eskualdunaren* paradigmara. Lehen erreferentzia moduan Elizanburu (1889: 96) hartu behar bagenu oraingoan ere, bistan da bere *egiazko eskualdunaren* definiziotik urrun zeudela 1900eko gizon-emakume gehienak (247). Idealizazioa zen Elizanbururena, nola ez, eta han esandakoa ezin da hitzez hitz hartu. Jan-edanaz edo janzkeraz, dantza-jauziez eta abarrez ari denean aski datu materialak eskaintzen baditu, urrunago doa *egiazko eskualdunaren* alorrera pasatzean, karakteriologia kolektiboa tipifikatu nahirik. Erreferentzia horretatik aldendu beharra dago beraz, lehen hurbilpen gisa kontuan hartzeko baliozkoa baldin bada ere. Idealizazio eta guzti, bistan da erlijioak biziki inpregnaturiko balio-kodeetan eraikitako tipologia duela berekin *egiazko eskualdun* horrek. Kristau izaten jarraitzeko ez zegoen, jakina, balore-kode horri bere osoan eutsi beharrik. Hori gabe ere posible zen fededun izaten jarraitzea.

Hala gertatu al zen? Bizirik eutsi al zion eskualdun-jendeak, eta indar betean, aurrekoen kristau-fedeari? Gogor eutsi al zion XIX. mendeko (batez ere 1870etik aurrerako) laiotze-uholdeari?. Erantzun errazena badakigu zein den: indar betean ez, baina bizirik zirauen kristau-fedek. Bizirik eta, zenbait aldetatik, indarberriturik. Zer neurritan egin zuen eskualdunen fedekak behera, eta erlijio-munduaren zer esparrutan? Elizanburu kexu zen oso (1889), lehendik Zaldubi bezala (1877), eskualdunen fedea sofritzen ari zen erasoaz eta nozitzen ari zen gainbeheraz. Lehenengoaren ustean (1889: 78) *euskaldun fededun* binomioa ahultzen ari zen: «Jaun erretoraren nahigabea: eskualdunen fedea ttipitzen ari da eta erlijionearekin joan dire fidelitatea edo

(244) Gure artean bakarrik ez: 1846tik 49ra arteko uzta-aldi kaskarren eragina Europa gehienean antzeman zen eta zenbait lekutan, Irlandan bereziki, aparteko kalamitate-iturri gertatu.

(245) «Egungo egunean haragi franko iretsi nahi dutenak, gizenduko dire ederki, buxerian pikatuak izan behar balira bezala» (Elizanburu, 1889: 21. Ikus, orobat, 64). Haragijaleago bihurtu izanaren kontu hori historialari profesionalak egiaztaturik dute geroztik. Horrelakoetan ez zebilen oker Hazparneko salletarra.

(246) Asteroko barau-bijiliei garizuma-garaikoak erantsi behar zitzaizkien garai batean. Garizuma-aldi bi gainera, ez bat. Antzinako girstino onek «urthe guziez bi garizuma» zituzten: «bat guziek bezala, bazko aitzinekoa, eta bertzea abendoa, Eguberriko bestarat preparatzeko» (Elizanburu, 1889: 21; cf. *Advent*).

(247) Gogoratu *egiazko eskualdunaren* definizioa, Elizanbururen baitan, zein den: ikus txosten honen III.5.3. puntua. Ohartzekoa da, *egiazko eskualdun* horren ezaugarrien artean ez dela sartzen eskuaraz mintzatzea. Segurutzat eta duda guzitik at ematen zuelako agian (are gehiago eskuarazko argitalpen batean, irakurle guztiak ezinbestean eskualdun izan behar zutelarik. Ez da hipotesi posible bakarra, ordea.

leialtasuna bera ere». Guztiak ez ziren ordea iritzi bereko. Ikuspegi integratu eta orekatuagoa ageri zuen, esate baterako, Lapeire batek. Bere hitzetan esanik (1891 in 1982: 45-7) «bazter guzietarik entzuten (da): gure eskual herri maitean, bertzetan bezala, Fedea ilhuntsen, ttipitzen galtzen hari da. Lege zaharreko giristino eskualdun handi: horrela deitzen zituzten gure aitek. Orain entzuten dugu: «joan dire denbora horiek. Non da, eta zer bilhakatatu da gure Aiten fedea? Egunitik egunera, ilhunduz eta flakatur doha». Osoki egia othe da gauza hori?» Ezetz dio Lapeirek: arrosario saindua amodio handian da, Bihotz Sakratuaren aldeko debozio amultsua indartsu dago eta, batez ere, hor dago komunio sainduaren praktika usua (248) Badira halere, bere esanean, «tristeziako arrazoi handiak: fedea flakutzen ari da Eskual herrian. Hori egia da ainitzentzat, eta guzientzat bada hor mehatxua». Eguneroko berrikuntza sotiletan aspalditxo antzematen hasia zen, nolana ere, fede-ahultze hori: mirakuiluenganako sinesmenean, adibidez (249). Hiriart-Urrutik emango zuen handik urtebetera, ohi bezain begi ernez, laster etor zitekeen eszenarioaren berri (Hiriart-Urruti, 1892-VI-3, in Altzibar arg. 2004: 219-21).

Zer esan, azkenik, euskaltzaletasunaz beraz? Gora egin al zuen XIX. mendearen bigarren erdian? 1830eko edo 1850eko egoeran mantentzen al zen 1900 inguruan? Gainbehera etorri al zen? Ustez baino konplikatuagoa da galdera horiei erantzutea. Erantzun zuzenak «zer, non eta nork» bereiztea eskatzen du, nolana ere. Euskaltzaletasunaren kontzeptua bera transformatu egin zen, hasteko, mende-erdi horretan. Beste uste-sinesmenekin, bestelako jarrera eta jokabideekin uztartuz joan zen: lehen ez bezalako eskualtzaletasuna erakarri zuen horrek. Zail da, horregatik, euskaltzaletasunak izandako bilakakeraz ebaluazio bakarria egitea. Horretaz guztiaz seguru samar esan litekeena, ene ustez, honako hau da:

---

(248) Aldeko eta kontrako gertakariak ikusten zituen Esteban Lapeirek, ez kontrakoak bakarrik. Aldekoetan, apaizek beraiek eragin bizia zuten. Bere hitzetan esanik, «Eskual herrian, kharrik beroena aphezek ekhartzen dute. Hiru gauza egin dira azken urte hautan, predikatuz eta arimetan sarraraziz:

- a) aldareko sakramenduaren amodioa eta komunione sainduaren praktika usua: eskualdun giristino onak ikusi ditugu ardura mahai saildurat hurbiltzen;
- b) Bihotz Sakratuaren aldeko debozio amultsua: ez da orain etxerik eta familiarik, Bihotz Sakratuari kontsekratua ez denik. Aita beneditano eskualdun batek (Joanategik?) bere bihotz eta amodio guziaz lan horretan emana du; eta
- c) Arrosario Saindua. Amodio handian da eta errana egun oroz, osoa ez bada parte bat bederen, familia giristino guzietan».

Hiru debozio horietan, aphez eskualdun guziek khar ederrena agertu dute. Horretan aurrera egin da, itxuraz. Atzerapausoak eta arriskuak ere hor daude, ordea: «Eskual herrian, bertzetan bezala, Fedea kordokatua da; hemen ere sartzen dire liburu eta gazeta txarrak, Jainkoa ez deusentzat atxikitzen dutenak, Aita Saindua eta Eliza burlatzen, Erlijioneko gauzak eta Aphezak oinen pean emaiten. Nik ere, zuek bezala, ikusi ditut gure Eskual herri maitean, Jainkoa eta debrua, ongia eta gaizkia elgarrekin gerlan» (Lapeire, 1891).

(249) Elizanburuk berak planteaturik zuen jadanik, protagonista baten ahotan jarriaz, berrikuntza hori (1889: 54): «batzuen arabera, mirakuluak imposible dira».

- a) Eskualdun-jende xeheak ez zuen, XIX. mendearen lehen erdialdean, berariazko eskualtzaletasunik ageri. Eguna joan eta eguna etorri eskuaraz, eskuara hutsez ari zena ez zen ezinbestean, iritziz eta sentieraz, eskualtzale. Haur-denboran hori bakarrik ikasi zuelako eta frantsesez edo kaskoinez ez zekielako egiten zuen haietariko hainbatek eskuaraz (eskuaraz bakarrik), ez eskualtzaletasunak eragindako inperatibo moralaz edo deliberamendu ideologikoaz (250). Gutxi (eta aski bidenabar) ideologizaturiko eskualtzaletasuna zen 1850 inguruan, oro har, eskualdun-jende xehearena.
- b) Aski eskualtzaletasun ideologizaturik ageri zuen, aldiz, protoelitearen baitako zenbait bidegilek: Xaho batek, kasu (251).
- c) Harreman estua zuten elkarrekin protoelite horiek, 1850 inguruan, euskalgintzari dagokionean, nahiz eta gainerakoan oso konstelazio ideologiko diferentetan mugitu (252).
- d) 1900 ingururako, aldiz, aski aldaturik ageri ziren goiko kontu horiek. Protoelite jakinetatik aparte eskualtzaletasuna zabaldu egin zen, hein batean, klase hiritar berrietara eta, azkenik, herritar xumeen artera.
- e) Eskualtzale horiek ez ziren ordea guztiak eskualdun; eskualdun zirenek ere ez zuten, gainera, nagusiki eskuaraz egiten: ez etxean eta ez gizarte-bizitza zabalean.
- f) Eskualtzaletasunak alderdi bi eratu zituen, gero eta nabarmenago: xurien eta gorrien alorreko alderdiak. Zaldubiren gazte-denboran ez bezala, eskualtzale xurien eta gorrien arteko harremanak mingosturik zeuden oso 1900 inguruan. Eskualtzale-adar bakoitza nor bere bidetik zebilen askotan: Donibane-Lohizunen bildurik zirelarik xuriak, 1897an, biltzar paraleloa egin zuten gorriek Saran. Alderdi biak biltzar berean elkartzeari lortu zen kasu bakantetan ere (Hendaian 1901ean eta Hondarribian 1902an, bereziki) arras haserretu ziren xuriak eta gorriak (253).

---

(250) Ez da hain gauza zaila garai hartako egoeraz honelako aipamenik jasotzea «mintza zakizkigu eskuaraz: badakizu guk frantses arras guti dakigula» (Elizanburu, 1889: 68).

(251) Xaho ez zen bakarra, jakina. Beltzuntzeko kondea, esate baterako, multzo horretan sartzekoa genuke erabat.

(252) Harreman estua izateak ez du esan nahi, beti ongi elkar hartzen zutenik. Gauza jakina da, esate baterako, Xaho eta Duvoisin ez zirela elkarrekin ongi konpontzen. Patri Urkizuk (1992a: 67; azken iturria Lafitte) aspaldixko azaldu du, esate baterako, Duvoisin-en Xahorenganako gaiztakeria: «merkatu-eguna zen Heletan. Arratsaldea. Plaza guztia jendez betea, eta Xaho bere programa (politikoa) aurkezten ari zen unean Duvoisinekin ezin pairatuz haren hitzak eta ideiak herriko mutiko batzuek hartuz halako zarata eta istilua sortu zuten, kantuz eta irrintzinaka ez ziotela atharraztarrari hitz egiten utzi». Xaho kargulant-kargudun-funtzionarioen aurka ari ohi zen. Duvoisin, berriz, kargulant haietariko bat zen.

(253) Biziki haserretu ziren eta ia hankaz gora jarri zuten *Eskualtzaleen Biltzarra* sortzeko proiektua bera. Badakigu besteri, Sabino Aranari eta bere segidakoei, egotzi zaiela ehun urtez istilu haien ardura, osoa edo nagusia. Badakigu, orobat, topikoak eratzea ondotoz errazagoa dela ezabatzea baino. Ez dago ikusi besterik.

Alderdi bien arteko zubigilerik ez zegoen ia, adin batetik beherakoen artean: salbuespen ohargarria zen, alde horretatik, Zaldubi. Eta

- g) Lehengoa baino landuagoa zen ideologikoki, eta operatiboki aktibatua, 1900 inguruko eskualtzaletasuna: eskualtzale izateak eskubide eta eginbehar jakinak ezartzen zituen, hainbaten ustean.

Labur bilduz: eskualtzaleak askotxo ziren 1900 inguruan; 1850ean baino hagitx gehiago, kongresu-biltzarretan eta festetan ageri zen jendetza kontuan hartzen bada. Baina eskualtzaletasun berri horretan oso ikuspegi eta konpromiso-maila diferenteko jendea biltzen zen. Hortik ezin da ondorio handirik atera. Hasiera-hasierako galderari heldu behar zaio, kontu horiek ongi argitze-ko: transformazio soziokulturalaren baitan zer neurritan lortu zen mende-erdi hartan ohiko bizimodu tradizionalari, bizimodu haren ezaugarri nagusiei bereziki, bizirik eustea? Zer neurritan lortu zen transformazio autorregulatua, «zaharra eta berria» modu berezian uztartuko zituena? Galdera bi horien (batez ere bigarrenaren) erantzunean dago klabea, atal honetan zertxobait argitu nahi izan dena.

## IV.2. Hizkuntzaren erabilera

*Eskuara gorde, artatu, galtzerat ez uztea*: hori izan zen Zaldubiren bizi-denborako euskalgintzaren helburu nagusietako bat, nagusia ez bada, ipar eta hego. Lortu al zen halakorik Iparraldean? Lortu al zen, bereziki, eskualdun-jendea eguneroko jarduera arruntean euskaratik frantsesera (zenbait, kontestutan, kaskoinera) ez mintzaldatzea? Lortu al zen, horrezaz gainera, ordura arte bereak izandako jardun-esparru batzuetan (elizan, bereziki) eskuarak bizirik jarraitzea? Lortu al zuen eskuarak jardun-esparru, agerbide eta situazio berririk eskuratzea? Zein eskualdun-motak jarraitu zuen eskuaraz egiten, zer jardun-esparru eta zein harreman-saretan? Zein mintzaldatu zen? Balantzea gazi-gezakoa da oraingoan ere. Horrela,

Belaunez belauneko perspektiba zabalean atzera egin zuen, oro har, euskararen erabilerak. Hiriart-Urruti lekuko argi eta fidagarria gertatu zen (254). Ondoz ondoko hiru belaunaldien arteko *language shift*-en lekukotza zuzena eman zigan berak: «Gainez gain, oro hartuz, Eskual Herri guzia inguruan begiztatzen dugularik (...) aitorturen dautazue badoala eskuara galtzera tarrapatan. Arronkal eta Izaba: bertze orduz hango egoiliarrak oro eskualdun garbiak ziren. Orai aldiz ezin gehiago nahastikatuak dire. Aitaso-amasoek ez dakite eskuaraz baizik mintzatzten; berrogei urtetako burasoak erdizka mintzo

(254) Ez zen nolana hiko Hiriart-Urrutiren desesperazioa, hainbat jende ez baitzuen ikusten euskara (eta euskal kultura) galtzeko arriskuan zirenik. Ez jende arruntak jabetzen ziren gainbehera horretaz eta ez, antza, horretaz jakitun izateko motibo argia zukeen pertsona jantziago askotxo.

dire: zaharrekin eskuaraz, gazteekin españolez. Gazteak aldiz, eta bereziki haurrak españolez baizik ez dakite mintzatzen. Ene adiskideak zioen etxe berean ikusi zituela horrela mintzo, adin arau; zaharrak eskualdun, bitartekoak eskualdun-español, gazteak (eskuara utzi) español garbi.

Datozila español-eskualdunak mendiez hunaindirat: guk heientzat bezenbat erraiteko badukete heiek guretzat. Ezen gutartean ere ondikotz ikusgarri bera dugu begien aitzinean: zaharrak dire bakarrrik beti eskuaraz mintzo. Birtarte adinekoak erdi eskuaraz, erdi frantsesez. Gazteriak ere badauka oraino hein bat eskuara. Frantses hortan trebe dela erakutsiz gero, nahiago du eskuaraz mintzatu gutartean hogoi, hogoita hamar urtetako gizon gazteak. Handik beheitikoak lerrakorrago dire frantses hortarat. Bainan haurrak? Haurrak asko tokitan osoki frantseserat eroriak dire. Ala frantses polita derabilate mihietan! Zer nahuzue ordean, uste badute jaunago direla eskualduntasuna utzirik franximan bilakatuz? (Hiriart-Urruti in *Eskualduna* 477, 1896-8-7, «Eskuara Frantzian», eta «Pauvre basque!» in *Eskualduna* 182, 1896-9-11, in *Altzibar* 2004, 331-2 eta 335-7).

Batzuek ez dira atzerabide horretaz jabetzen. Aldiz, Hiriart-Urrutiren ustean argi dago baietz, eskuara galtzen ari dela: «batzuek irri, bertzek beltzuri dagigute, gure mintzai ederra eskuara galtzerat doalako beldurra erakusten dugun aldi oroz. Zer imintzio zazkigu, gizona? zauntan erraiten azkenik atzo adixkide batek. Eskuara galtzera doala, zer derasaguzu? Ez duzu bada ikhusten eskuara ez dela izan behin ere azkarrago eta garbiago? Ene buruarekin buruz buru eleketa nindagon: Pauvre basque! Gaixo eskuara! Nork, noiz arte, nola begiraturko hu, osoki galtzetik? Frantses eta kaskoin solas bihurri batzu baizik ez duzu entzuten, asko eskualdunen ahotik. Nehor ez da gehiago eskuara garbiz mintzo. Anitzi ederrago zaiote frantsesez mintzatzea, ustez frantsesa errotik badakitela. Alegia eskuaraz mintzo direnean ere, beti edo ardura franximant hitza dariozkate. Egiazki trufaz bezala mintzo direla iduri dute. Bainan ez da trufarik; zin-zinez ari dire; batzu ezazolakeriaz, bertzeak zozokeriaz, ustez ederrago den».

Hori baino gehiago ere egiten du Jean Hiriart-Urrutik (255). Hizkuntzaren galera zergatik gertatzen ari den galdetzen dio kazetariak bere buruari, eta erantzun zabal hau ematen du (256): «Eskualdunok geurok galtzen dugu eskuara, edo galtzen uzten. Arrotza orotaz emeki-emeki nagusitzen ari zaigu. Eskualduna ez da gehiago ez bere lurren, ez bere haurren ez eta ere askotan bere buruaren jabe Eskual herrian. Gure bideak, etxeak, bazterrak oro bizardun, kaxketadun...nork daki nor, eta zer, eta nondik hona etorritako batzuek beteak ditugu. Urrats bat ez dezakegu egin Donibane-Ziburuko itsasaldetik Santa Garaziko mendi-zokoetaraino, jaun eta andre franximant zenbaitekin topo egin gabe.

(255) *Eskualduna* astekaria, 1897-VIII-13.

(256) Hiriart-Urrutiren jatorrizko artikulua egungo idazmoldera egokitu da zertxobait (ortografiaz, hegoaldeagoko morfologiak eta abar), testuaren interpretazio-lana gehiegi ez eragozteko.



Egunotan Donibanen bilduak dira Frantzia guzitik gizon argitu batzuk, Eskual Herria ezagutu nahi dutenak. Nahi lukete jakin, beren begiz ikusirik eta beren belarriz entzunik, nolakoak diren eta ziren Eskual Herriko gizon eta emazteak; nola bizi ziren, nola mintzo, nolako egoitzetan eta nolako apainduran. Zerk duen edo zuen egiten bereziki eskualdunaren eskualduntasuna. Bazen ordua, benetan, jakintsuen bilkura hori Eskual Herrian egin zedin. Zeren eta, berandu gabe, beldur izatekoa da Eskual Herriaren itxura beste edozein lekuren antzekoa izango dela. Bizirik dirauen artean azter dezatela beraz, eta beren liburuetan ezarri .... oroipen moduan. Hemendik gutxira, beharbada, beranduegi izango da horretarako ere.

Bai, aitor dezagun: ohiko beste gauza on eta eder askorekin batera badoa, galtzera doa eskualduntasuna ere. Inon baino argiago antzematen da hori mintzaeraren gorabeheran. Ezin ukatuzko egia da. Itsu izan behar da ez ikusteko, nola eta zenbat burutatik galtzen ari den eskuara. Azken aldian aipatu duguna, bazter-herri erdi-eskualdun erdi-gaskoi direnetan gaskoia ari zaigu nagusitzen. Baina gaskoiaz aparte beste etsairik ere badugu. Nor? Gu geu. Eskualdunok geurok gara eskuararen etsai, eskuararen galtzaila. (...) Nor da beraz errudun? Eskualdun argituak, buruzagiak. Zerbait direnak eta zerbait dakitenak edo jakin behar luketenak. Batez ere eskola-arduradunak, maisuak eta maistrak, fraideak eta mojak barne. Mojak eta fraideak ere ba ote errudun? Bai horixe: mojak gehiena, gainera. Ez nuke noski haurren ongile handienez gaizki hitz egin nahi. Baina egia esan behar da beti: ez du eskuarak errudun handiagorik, Eskual Herriaren bazterretan zein erdian, herri handietan zein ttikietan, eskola-arduradun horiek guztiak baino. Denak dira berdintsu edota, izatekotan ere, eskuararen alde gehien egin behar luketenak dira (nola esango dugu?) eskuaragatik gutxien axolatzen direnak. Eskuara gal dadin, edo galdu ez dadin, *ça leur est bien égal* (beraiei bost axola).

Ez naiz mintzo sortzez eskualdun ez direnez edo eskuaraz hitzik ere ez dakitenez. Horiek traba edo eragozpen dute eskuara, eta ez dute ezkututzen ere traba eta higuin dutela: «lou Basque, la Bascouraille». Eskola-arduradun eskualdunetz mintzo naiz, Eskual Herrikoez. Utz ditzagun bazterreko gobernanduko eskoletan ari diren maisu-maistrak, nahiz balegokoen haietaz ere zer esan. Baina haiek behintzat badute aitzakia, eskuara baztertzeko. Goragoko buruzagiaren aginduz, frantsesa erakusten dute soil-soilik. Gaizki dago hori, berez: zer litzateke zuzenagorik, izan ere, Eskual Herriko haurrek eskuaraz irakurtzen eta izkribatzen ikastea baino, frantsesarekin batean?

Baina gobernamentuaren eskoletako maisu-maistrek egin ez dezaketena, fraideek eta mojek egin dezakete: mojek batez ere. Mutikoez baino frantses gutxiagorekin aski dute, izan ere, neskatxek. Mojak burujabe dira gainera, kasik erabat, eskola-liburuen kontuan: nahi dutena irakats dezakete, eta nahi ez dutena ez. Gobernamentuko buruzagiek ez dute han deus ikustekorik. Badirudi, beraz, moja eskualdunek eskuara zaindu behar luketela beren esko-

letan. Frantses pixka bat irakatsi bai, baina eskuara lehenik eta behin. Eskuaraz otoitzak, eskuaraz dotrina, eskuaraz elizako kantuak.

Deus ez da bitxiagorik, ez nardagarriagorik, baizik eta Eskual Herriko zenbait herritan igandez neskatxa gazteak elizan kantuz *frantsesez* aditzea baino. Eta zer kantuak! Eta non! Jainko maitea! Ce qui étonne le plus en ceci, ce n'est pas l'aberration de ses saintes femmes; c'est la patience ou l'indifférence de certains curés».

Goiko azalpenok irakurrita, ezin ukatuzko gertaera baten aurrean gaudela dirudi. Zer neurri eta zer dimentsio du ordea, benetan, gertaera horrek? Bere inguruko kasu jakinez ari da Hazparneko kazetaria, herri jakinak ditu gogoan, eskualde osoez dihardu edota Eskual herri osoko fenomenoak deskribatzen ari da? «Eskual Herriko zenbait herritan» dioenean non ari da justu-justu eskuara galtzen? Zein eskualde edo herritan? Zein gizarte-sektoretan? Zein agerbide eta hedabidetan? Zein jardungune, harreman-sare eta situazioetan? Gertatzen ari den mintzaldatze edo *language shift* hori zehazki ubikatu beharra dago Eskual herriko espazioan, bai fisiko-territorialean eta bai soziofuntzionaletan. Zail da eskuera ditugun datuen argitan, galdera horiei erantzun arteza ematea: informazio gutxi dago horretaz bildurik, eta are gutxiago kontzeptualki elaboreturik. Dagoen apurretik badirudi, halere, ondoko azalpenok baliozkotzat eman litezkeela.

a) *Eskuararen galera espazio fisiko-territorialean: non (zein lekutan) ari da eskuara galtzen?*

Galdera horri Pierre Broussainek emana dio, dakidan neurrian, erantzunik zehatzena (257): «Eskuara aiphatzen duanaz geoz enitake eon erran gaa galtzeko irrisküan dela, Espainiako Eskualherrietan bereziki. Nafarroan eta Bizkaian, lehen eskuaraz mintzo ziin anhitz oai españolez mintzo da. Frantziako eskualherrietan nahiz gue mintzaia zaharra oai artio aski azkar den, halee zombeit lekutan galtzen äi da, hala nola Endaian, Doniane-Ziburun, Donapaleun eta Maulen. Hiri horiitan badia haur franko aitamak eskualdunak tiuztenak eta eskuara eztakitenak». (Pierre Broussain, 1913, in Xarriton, 1985a: 219). Broussainen arabera baliteke eskuararen une horretako galera Hiriart-Urrutik uste zuena baino apalagoa izatea, intentsitatez edo erritmoz. Erritmo kontuak alde batera utzita garbi dago, ordea, galeraren gune nagusiak non diren: Lapurdiko kostaldean, Donapaleun eta Maulen. Informazio hori kontsistentea da, geroagoko faseez jasoa dugun informazio soziolinguistikorekin. Badago motiborik, beraz, oso oker ez dabilela uste izateko eta, horrenbestez, informazio hoberik bilatzen ez den artean ontzat emateko.

(257) Bere garaian Hazparneko medikuari egindako zinta-grabaziotik aterea da erantzun hori. Horregatixe dago hain era berezian emana.

b) *Eskuararen galera diferentziala gizarte-geruzetan: zer jende-moduren artean ari da eskuara batez ere galtzen?*

Pierre Broussain dugu berriro informazio-iturri: «Jende xehia beti jende handiâi jarraikitzen zako; ala beztitzeko maneran ala mintzatzeko maneran. Eskualherriko jende handiek miiku, aphez, notari, abokat aspaldian eskuara utzi dute frantsesez edo españolez artzeko eta hek bezala iteko jende xehiak ere âi dia frantsesez edo españolez mintzaten, ahal dutenean» (Pierre Broussain 1913, in Xarriton, 1985a: 219). Informazio hori ere aski kontsistentea da teoria soziolinguistikoarekin, batetik, eta beste zenbait iturritako datuekin bestetik. Handik sei urtera honela idazten dio, adibidez, Albert Constantin medikuak Broussaini: «beaucoup de nos curés trouvent plus commode de parler et d'écrire en français» (Charritton 1985a, 239, 279). Hots, goi-mailako jaunek errazago jotzen dute frantsesera, oro har, herritar xume askok baino. Euskararen salbazioa, hain zuzen, inondik etortzekotan goiko jaunek eskuaraz gehiago egitetik datorrela uste du bertako zenbaitek. Bai hitzez gehiago egitetik eta bai, bereziki, idatziz (258). Herritar xumeak goikoei begira bizi dira, izan ere.

c) *Eskuararen galera diferentziala espazio sozio-funtzionalan: zer jardun-gune, harreman-sare eta funtziotan ari da eskuara batez ere galtzen?*

Etxean eta lagunartean eskuaraz egiten segitzen zen 1900ean, aski neurri zabalean, Iparraldeko herri-herrixka txikietan, kanpañan eta are herrigune hazixeagoetan. Elizkizun gehienetan ere present jarraitzen zuten eskuarak, aurreko ingurumen horietan eta hitzezko jarduera ohikoenetan: eskuaraz egiten segitzen ziren nagusiki predikuak, kofesioa eta katexima erakastea ere (259). Harreman-sare supralokaletan ere bizirik jarraitzen zuen eskuarak, zenbait kasutan: Donibaneko eta Hazparneko merkhatuetan, baita Garruzeko eta Heletako ferietan ere, salmentarako tratu-hizkuntza izaten segitzen zuen eskuarak, bertara biltzen ziren eskualdunen artean. Hots, ohiko interakzio-esparru arruntetan edo informalenetan (etxean, auzoan, herrian, lanean, lagunartean, merkatuan) jarraitzen zuen eskuarak indartsuen.

---

(258) Broussainek Lacomberi (1903-X-3an): «Guk bertzek baino eskola gehiago dugunek eta eskuarari atxikiak garenek, behar ginuke usu eskuaraz izkiriatu, erakusterat emaiteko eskuara ez dela bazterrerat aurdikitzen ahal den mintzaira bat, piltzar baten pare» (in Charritton 1985a, 217).

(259) Ez, erabat: dotrina erdaraz irakasten hasiak ziren kristau-eskoletan bertan, 1902-3ko debekuren aurretik ere (Petit, 1899: 550): «Il paraît que, dans nos écoles libres même et surtout dans celles dirigées par des religieuses, le catéchisme est appris en français. L'Eskualduna, ce vaillant défenseur de nos moeurs et de nos traditions, et M. l'abbé Haristoy, le dévoué collaborateur de m. l'abbé Dubarat, ont fait entendre à ce sujet une éloquente protestation, qui a trouvé l'écho dans le coeur de tous nos compatriotes». Era berean, eliza-kantikak ere erdaraz egiten hasiak ziren zenbait elizatan. Berariazko debekurik etorri aurretik ere euskaratik frantseserako mintzaldaketa gertatzen hasia zen, beraz, elizaren alor horretan.

Besterik da H funtzioen alorrean zer gertatzen ari zen: koadro nabarragoa irudikatu behar da hor, eskuararen presentzia mugatua delarik onenean, eta hutsaren hurrengo beste zenbaitetan. Elizan, horrela, L mailan bizirik jarraitu arren nekez eusten zion eskuarak lehengo nagusitasun zabalari (260). Are okerrago joan ziren gauzak eskolan: atzera egin zuen hor, oro har, eskuararen presentzia ñimiñorik ñimiñoenak; pasabideko elebitasun frantses-alderanzkoak berak ere (261) ere atzerabidea hartu zuen. Aldiz prentsan eta bestelako zenbait argitalpenetan (alor erlijiosoan zein profanoan) «bere lekua» egin zuen eskuarak: leku meharra, oro har, baina ez hutsaren hurrengo. Handik gutxira, 1903tik 8ra batetik eta 1910etik aurrera gero (262), horrezaz gainera, goraldi nabarmena izango zuen astekari-munduak (263). Literaturan ere goranzko joneraz hitz egin izan da, nahiz eta perspektiba soziolinguistikoko batetik zer esanik balegokeen hor: eskual gaiak alde batera uzten badira, frantsesa nagusitu zen erabat garai hartako kontsumo kultural idatziaren esparruaz. Ikerketa eta estudio-lanak, denak edo ia denak frantsesez egiten segitu zen, bestalde. Korrespondentzia ere erdaraz (frantsesez) egin ohi zen eskuarki (264). H esparrua frantsesarena zen 1900ean, nagusitasun handiz.

Labur bilduz: eskuararen galera nagusia kalean, hiritar modernizatuaren arteko harreman-sare formal edo publikoetan ari zen gertatzen. Herri-herrix-

---

(260) Handik oso gutxira, 1902-03an, etorriko zen esparru horretako *top-down* eraso larria, esparru bertako atxikitze-saiociei ere freno gogorra jarri nahi izan ziena.

(261) Larresoroko seminario txikian eta Baionako handian, euskara debekatua-edo zegoen 1900 inguruan: «le basque est peut-être encore interdit (ce qu'ignore certainement le chef vénéré de ce diocèse et ce que je viens de savoir moi-même) au petit séminaire de Larresore et au grand séminaire de Bayonne. Le jeune clergé l'y désapprend; par suite, il ne le parle, après dix ou quinze ans d'études classiques et théologiques, qu'avec un odieux mélange de mots français, alors qu'au grand séminaire il devrait être préparé par de fréquents exercices, par des essais de sermons, à le bien prêcher» (Petit, 1899: 551). Eskoletan ere lekurik ez zuen eskuarak. Handik hogeit bat urtera ere honelatsu ziren kontuak: «Ce sera une innovation très importante, car jusqu'à présent on n'a pas encore enseigné l'euskara dans aucune école du Pays Basque Français, et l'exemple donné par l'abbé Lopez sera certainement suivi par d'autres» (Broussainek Apraizti idatzia, 1919-VII-14an).

(262) *Argitzaleaz* etab.

(263) Irakurleen leher-eztanda hori are deigarriagoa da, eliz kontuetaik kanpora euskarazko ezer gutxi irakurtzen zela kontuan hartzen bada. Honela zioen Hiriart-Urrutik Broussaini 1895ean: «Zuk, Jauna, bederen zuk ez duzu ahanzten *Eskualduna*, ez eta haren aldakak. Eskerrak zor daitzugu aurtengo Egunariarentzat, artoski berezirik igorri dauzkigutuz ateraldi politentzat. Pariseko berriak ere halaber helduko dauzkigutzu. Eta geroxago, Eskual Herrian kokatuko ziren herrikoak. Ez dea hala? Zu zira gure irakurtzaile eta laguntzaile, bizpahiru hoberenatarik bat. Asma zazu bertzeak zer diren, arauera» (Charritton, 1985a: 66, 73).

(264) Euskalaritza- edo euskalgintza-alorretan ere, euskaltzale eskualdun buruargiek elkarri idatzen zioten korrespondentzia erdaraz egin ohi zen maiz asko. Ez beti, ordea. Baziren horretan ere, hasteko, salbuespen argiak. Anton Abbadia zen haietariko bat: ehunka gutun gorde dira bereak, eskuaraz idatziak (zenbaitetan, agian, jasotzailea euskal elebakarra zelako; beste zenbaitetan, itxuraz, hegoaldeko solaskideak frantsesez ez zekiellako: baina ehunka gutun, eskuaraz). Abbadiaz kanpo ere, 1890etik aurrera, ipar-hegoetako elite baten korrespondentzia euskaraz egin zen gero eta maizago. Adema eta Azkue maisu izan ziren, gutun-idazketa horretarako erdibideko euskara bat itxuratzeko. Ademak gipuzkeraren ezaguera praktikoko ohargarria agertzen zuen halako zenbaitetan.

ketako eta kanpañako herritar xumeen artera ere indarrean sartua zen frantse-  
sa, eskola eta (berrikitan) eliza lagun zituela (265). *Language spread*-en garaia  
da 1900 inguru hori kanpañan eta herri-herrixketan. *Language shift*-ena, aitzit-  
tik, herriburu eta hirietan. Eskuararen *language loss* ari da, azkenik, bertako  
erdi- eta goi-klaseetan gertatzen. Atzeranzko bilakaera nabar horren aurrez  
aurre, idatzizko agerbide batzuetan irabazi xumea ari zen eskuara egiten: ira-  
bazi xumea baina ohargarria (266).

### IV.3. Eskualdunen hizkuntza-gaitasuna atxikitzea edota hobetzea

Erabilera gauza bat da: zenbatek egiten duen eskuaraz, noiz-non eta  
zertarako. Besterik da, aldiz, erabilera horren kalitatea: eskuaraz dihardute-  
nak zer-nolako eskuaraz mintzo diren (bakanago, idazten duten). Bigarren  
puntu honi heldu nahi zaio atal honetan. Atzera egin zen kalitate kontu ho-  
rretan ere, itxuraz, hiztun arruntan alorrean. Eskuaraz baizik ez zekiten he-  
rritarrak bakanduz joan ziren, elebidun bihurtuz, aski era ohargarrian. Esku-  
araz baizik ez jakitetik, edo eskuaraz frantses-kaskoinez baino hobeto  
moldatetik, erdaraz hobeto moldatzera pasa zen hainbat herritar. Elebidun  
horien nagusitasun-moldaera aldatu egin zen. Elite eskaldunak, nolana-  
hi ere, erdal-elebidun bihurtu ziren: erdal-elebidun, ez euskal-elebidun. Horre-  
zaz gainera, euskal debekuzko konpartimentazio funtzionalari firmo eusten  
zioten euskaltzaleek beraiek: Hiriart-Urrutiren eta Broussainen arteko esku-  
titz gehienak frantsesez idatzita daude: «Le Fds. B. possède 29 lettres de  
l'abbé Hiriart-Urruty à Pierre Broussain (1894-1906). La plupart d'entre  
elles sont en français, mais celles qui sont en basque (4) présentent (...) une  
valeur littéraire certaine».

Elite txiki-mugatu batzuen artean, aldiz, gora egin zen nabarmen: beren  
errepertorio linguistikoa hedatu egin zuten elite euskaltzale horiek, ahozko  
gaitasunari (entzumen-mintzamenei) idazmen-irakurmenak erantsiz eta, are,  
idatzizko produkzio garbi-txukun-zaindua landuz: Intxauspegandik hasi eta  
Hiriart-Urrutiganaino tradizio handia ageri da horretan, bereziki, garai hartako

---

(265) Kontestu horretan ulertu behar dira eskualtzaleen 1897ko ahaleginak, hizkuntza  
apalari goi-mailako funtzioetan sarrera emateko edo ordura arte bere mende izandakoa ez eragoz-  
teko. Urte hartako Euskal Festetan, azken bazkari nagusian, ohorezko hiru presidenteren aurrean  
(Jauffret apezpikua, M. le Préfet des Basses Pyrénées eta le Général commandant la division  
Derrécagaix), «M. Petit a surtout chaleureusement plaidé auprès de Sa Grandeur la cause de cette  
chère langue basque qui doit être pieusement conservée en nos écoles, en nos séminaires, en nos  
paroisses» (idazkera etzana nirea).

(266) Sorpresarik ere izaten da inoiz: laborari batzuek euskaraz idazten dute Hazparnetik  
Parisa. Zakurrak hortzaka egindako hazpandar bik Broussaini eskerrak ematen dizkiote eskuaraz,  
nork bere eskutitez, Pierre Parisen beraiekin izandako atentzio handia dela-eta. Horrelakoek  
ematen dute zer pentsatua, jakina, baina hortik ez dago jeneralizazio handirik egiterik: herriko  
aphezak idatzizko zizkien gutunak, agian.

zenbait elizgizonen artean (267). Joera nagusia bestea da ordea: elite deseuskaldunduak eta, hoberenean, partez berreuskaldunduak dira horiek. Inoiz gutxitan eskuaraz frantsesez bezain erraz moldatzen direnak. Adibide argia dugu Pierre Broussain bera: «hogoï urtetan euskara guti nakien, sei edo zazpi urteko haurrek ikasten duten poxi hura ikasirik, eta gero eskolan hoinbertze urtez egonik, eskuaraz batere mintzatu gabe. Ene amaren belaunetan ikasiriko mintzaia hainbertze nuen arrotua non ahalge bainintzen eskuaraz aritzeko. Orduan, buruan ezarri nuen eskuara behar nuela ikasi, eta emeki emeki hartan trebatu niz, ez ordean frantsesean bezenbat» (Lacombe, 1921, 52. or.)

Labur bilduz: atzeraka egin zen oro har, mende-erdi horretan, herritarren eskuarazko mintzamenean, gorantz egin zen irakurmenean eta oso neurri mugatuan aurreratu zen idazmenean (268). Aski modu jakineko *Language contact*-aren ondorioetako bat da hori, jakina (269).

#### IV.4. Eskuara bera

Interferentzia bidezko «euskalgaiztoa» ugaritzen ari zen nonahi, ipar eta hego. Hala zioen Champion-ek, jakinaren gainean, Donibane Lohizuneko Euskal Festetako txostenean: «D’aucuns l’appelleront décadence, puisque la langue va se dénaturant chaque jour de plus en plus, s’encombrant de mots ni français ni euskariens, puisque les moeurs d’antan ont été remplacées par celles d’aujourd’hui partout uniformes, que nos lois ont depuis longtemps aboli les Fors, que la valse et la polka font oublier le saut et le fandango!» (Champion, 1899: 456). Hala zioen orobat, justu aldi berean, Hiriart-Urrutik: «Jende xehea bera, kasik eskuara baizik ez dakiena, erdi-eskuara erdi-frantximan nahasiz mintzo da. Behin baino gehiagotan esan dugu. Baina ez dugu horregatik jende xehea, populua, erruduntzat hartzen. Populuak ez daki izan ere eskuara garbia eta garbia ez dena bereizten. Ez da ohartzen eskuara garbiz mintzo den ala ez».

Hizkuntzaren bestelakotzea ez da fenomeno autonomoa, hizkuntzaren beraren baitarikoa, gizarte alorreko transformazio demografiko, ekonotekniko, politiko-operatibo eta soziokulturalekin batera gertatzen ari den birmoldaketa

(267) Elizgizonez kanpoko beste alor sozioprofesionalez, aldiz, ezin liteke beste horrenbeste esan. Ez hain neurri zabalean behintzat: egia da 1850 inguruko Duvoisin baten eskuara landuari mende amaierako Etxepare medikuarena jar dakiokela parean. Kopuruz eta eraginez nekez esan liteke, ordea, maila bereko fenomeno denik bata eta bestea.

(268) Besterik da irakurmena: aurrera egina da horretan, eskuera ditugun datu desegitura-tuen argitan. Gehiago landu beharreko puntua da hori.

(269) Ikus, batetik, Uriel Weinreich 1953. Ikus, bestetik, Fishman 1966. Eta ikus, bereziki, mende erdi luze lehenago gauza bera esana duen Champion: «l’acquisition de mots étrangers ne suppose, à bien penser, que la cohabitation, le contact ou les relations de deux peuples» (Champion, 1899: 456).

baizik. *Language contact*-en ondorio linguistikoa da interferentzia, eta interferentzia horren agerkari dira Campionek hor aipatzen dituen *de mots ni français ni euskariens, dénaturant...* eta abar. Interferentziaren gertakari foniko, lexikal, gramatikal eta semantikoei atxiki ohi zaizkien balorazioak alde batera utzita, gauza bat dago argi: ordura arte ez bezalako hitzez, hitz-ebake-raz, joskeraz eta adieraz betetzen ari zen eskuara. Lekutan gelditzen ari zen Hiriart-Urrutiren *eskuara garbia*.

Gizarte-berrikuntza desorekatu (soziolinguistikoki desorekatu) horrek hitz-altxorrean eragindako mailegu-uholdea, esate baterako, ez da konprobatzen zaila (270). Michel Elizanbururen 1889ko liburuan ageri den mailegu asko eta asko garai-inguru horretako interferentziaren kume direla esan liteke, lehen hurbilketa moduan (271). Halakoak dirudite, esate baterako, kultura material modernoaren testigu ditugun *kolier* (Elizanburu, 1889: 56), *kontuarreko tiruar*, hatu edo *mubleak*; kultura hiritar-idatziaren isla izan litezke, era berean, *prozeberbal*, *biblioteca*, *letranta* (1889: 119), hirietako *zerkloak* (1889: 97), *imajeak* (1889: 118) eta *potretak* (1889: 118); elizako mailegu berri samarrak dirudite *beatifikazione* eta *kanonisatze*, *misione* eta *misionest* (1889: 133) (272); elikadurazko berritasunak, berriz, arroltze *moleta* (1889: 87) edo *desert* (*postre*); osasun-alorrekoak ditugu *erromatismo* (1889: 120), *kolika* (1889: 122) edo *estomaka* (1889: 118); egitura sozioprosesional berriaren ondoriozko mailegu berriak ditugu, antza, *farmazien* eta *buxer*; turismotik datoz, itxura osoz, *ostaler* (1889: 101) eta *alojatu* (1889: 121); garai horretako berrikuntza teknologikoak ekarriak dira, dudarik gabe, *telegrafa* eta *gara* (273), *fotografa* eta *telefono* (1889: 135); pisu-neurrien berrantolamendu zientifikoak erakarritakoak dugu, orobat, *kilometra* (274); egitura politiko-instituzional berriaren kargu-, instituzio- edo kontzeptu-izen dira, azkenik, *mera* (1889: 78) eta *ministro*, *prefet* eta *senatur* (*zenatur*), *deputatu* eta *kontseiler*, *Errepublikako gobernamentua*, baita *igualtasuna* edo *egalitatea* ere (1889: 80).

Bistan da bestelako biderik ere probatu zela garai hartan, gizarte-berrikuntza hori eskuarazko hitz «jator» eta garbiez islatzeko (275). Berrikuntza

(270) Kontaktu-egoera hark eskuararen (ez frantsesaren) hitz-altxorrean eragindako mailegu-uholde zabalaren aurrean bi bide hartu zituzten garaiko eskualtzaleek: Elizanburu Innocentius-ena batetik eta Hiriart-Urrutirena bestetik.

(271) Ez dut astirik izan hitz bakoitzaren miraketan jarduteko, ez OEHn eta ez beste inon. Azaldu nahi dena azaltzeko baliozkoak iruditzen zaizkit, halere, ondoko adibideak.

(272) D'Astros apezpikuak sortu zituen Hazparneko *misionestak*, Zaldubi eta Michel Elizanburu jaio ziren urte inguruan (1820-30). Orduan hasi ziren herriz herriko *misionek* Iparraldean (Haritschelhar, 2003).

(273) Esate baterako, «batzuec Baionaco gararaino heltzeco, bertceec Puyorat eta bertce cembeitec Paubera eta Lourdesera berera biltceco» (1877: 89).

(274) Ikus, adibidez, Zaldubiren aipamenok: «beren oinez egin cituzten beren 60, 70, 80 kilometrac» (1877: 89), edo «oinetz egin cituen bere 87 kilometrac Lurdesera berera»(...) «Baionaraco bere 55 kilometrac (...) harc ere oinez egin cituen» (1877: 90).

(275) Ez hori bakarrik: Duvoisinek eta Intxauspek, nork bere modura, *eskuara garbi* baten eredu hobetsia zuten gogoan, eta gogor saiatu ere ziren eredu horren alde. Intxausperi dagokionez,

teknologikoen alorrean, esate baterako, arrakasta handia eskuratu zuten Hiri-barrenen *burdinbide*-k (*Escaraz egia*, 1858) eta Hiriart-Urrutiren *beribil*-ek. Joera nagusia bistan da, ordea, zein izan zen: *Eskuara garbiaren* aldeko jardunak bidegile sendo eta saiatuak izan bazituen ere, saio horrek nekez aurre egin ahal izan zion kalean eta etxean gero eta sartuago zegoen eskuara *fraximantari*.

Kontua ez zen, izan ere, hizkuntzaren hitz-sorkuntzazko edo baliabide estilistikozko alorrean eztabaidatzen ari, plano soziologikoan baizik. Sozioketo (kasik, esatea haizu balitz, domolekto) bihurturik zegoen eskuara, gero eta nabarmenago. Eskuaraz ziharduten hiztun-taldeak, harreman-sareak eta jardunguneak gero eta mugatuagoak ziren kopuruz, laburragoak hedaturaz, uniformeagoak mintzagaiez eta murriztuagoak eskuararen barneko errepertorio linguistikoz. Hots: gero eta bazter-periferikoago bihurtzen ari ziren gizarte-bizitza modernoan. Gero eta bazter-periferikoago bihurtze horren eragina ezin konpon zitekeen, jakina, linguistika bidez. Zoragarri antzematen zuen hori Campionek (1899): «Les linguistes qui cherchaient à tort et à travers des affinités entre le basque et tous les autres idiomes connus, et les plus modérés, comme MM. Hovelaque et Vinson, qui abordaient l'étude du lexique basque sans cet amour qui est une lumière ajoutée à l'intelligence, et réduisaient l'emprunt étranger à ce qu'a pu fournir l'élément latin et roman, ont contribué à répandre ces idées inexactes et incomplètes que le vocabulaire basque est très pauvre et que par suite grande est l'infériorité intellectuelle des Basques et notoire l'inutilité du basque comme instrument de culture (cf. Urkixo 1819an). Mais les critiques de l'un et de l'autre parti n'ont raison que partiellement. Le basque est le langage habituel du *peuple*, c'est-à-dire des laboureurs, des pasteurs et des pêcheurs. Par conséquent, demander que son vocabulaire excède ses besoins, c'est demander un miracle. Est-ce que par hasard les villageois du centre de la France possèdent le lexique des poètes Racine et Victor Hugo, des philosophes Cousin et Taine, des savants Cuvier et Pasteur?» (Campion, 1899: 456). Bere kontuez ari zirenean aski eskuara jatorrez ziharduten eskualdun baserritar edo arrantzale horiek; ez zegoen han aparteko defizit linguistikorik. Aldiz, eskuarazko harreman-sare trinko handirik ez zegoen kasuetan, edo harreman-sare sinboliko urrunagoen bidez interaktuatu behar zenean (276),

---

adibidez, ikus Guero Guero-ren 1864ko edicione berrian zer dioen: «garbitua, chuchendua eta bere baithaco ordenan emana». Garbitasun paradigma lexikoak eta itzulpen beharturik gabeko joskerak ezartzen du, antza, bere eredu horretan. Honela dio bere hitzaurrean (in Haritschelhar, 2003: 575): «Eztu Axularek bere antçoraco euscar bat eguin; eztu bere mintçaia makhurtu, bihurtecatu, escarniatu eta escaçatu, erdaren aderetara edo erregueletara plegatu nahiz, bertce cenbaitec eguin eta eguiten duten beçala. Harc euscar euscaraz mintzatu du eta esquiribatu; euscar garbia mintçatcen den toquietan, Zugarramurdin bere sor lekhuana eta Saran bere erretorian erraiten den beçala».

(276) Hiztun-taldeen eta harreman-sareen interakzio-esparruak zabaldu egin ziren fisikoki, oro har, Zaldubiren bizi-denboran: 1830 inguruan normala-edo zen, kanpañako eskualdunen artean, honelako komentarioa: «urrundik jinak zireztea?; bai frango urrundik, Laphurditik ethorriak gare» (cf. *manexak*). Nekez halakorik asko entzungo zen 1900 inguruan.



erdal baliabideez osatzen zuten situazio horietako eskuara, beren beharrei erantzuteko: hots, maileguz. Hori ez zen eskuararen *berezko* pobrezia, situazio horiek eskuaraz mamituko zituzten harreman-sareen faltak edo urritasunak, beren arteko deskonexioak eta barne-lanketa eskasak ezinbestean zekarren ondorioa baizik.

#### a) *Ortografiaren kontua*

Aldaketa handia gertatu zen Zaldubiren bizi-denboran, euskararen ortografia kontuan ere (277). Aldaketa hori iparraldean abiatu zen, gorago azaldu denez (ikus, III.1.2.- puntua), eta aski umoturik zen 1900 inguruan. Aparteko babesa jaso zuen grafia molde berriak, bereziki, 90eko hamarkadan, *Eskualduna* astekarian: hori izan zuen, ene ustez, bere babesgune eta indargarri nagusia. Ez da inola ere egia, alde horretatik, iparraldeko euskal ortografiaren 1900 inguruko egoera 1850ekoa (edo haren antzekoa) zenik. Hendai-Hondarribietan 1901ean eta 1902an egindako «Kongresu ortografiko»en berehalako emaitzak gogoan izanik bada gure artean joera, 1850etik 1900era arteko corpus-plangintza hura, euskal ortografia bateratzeko saioa bereziki, alferlana-edo izan zela uste izatekoa. Ikuspegi okerra da hori, ene ustez. Ortografia bateratu osorik ez zen mende-erdi horretan eskuratu, egia da hori; Hendaiara hurbildu zirenen artean, iparretik eta hegoaldeetik, diferentzia argiak zeuden ortografia alorrean: bai sarrien erabiltzen zuten, eta bai gerorako nahiago zuketzen, ortografiaren aldetik. Baina urrats handiak eginak ziren, iparraldean, idazta-  
rauen bateratze-bide horretan. Nolabait esateko, *guiçonec* moduko idazkeratik *gizonek* moldera doan pauso handia, zenbaiten ustez (278) euskara «kakaz betetzera» eramán zuena, mende-erdi horren emaitza dugu funtsean (279). Iparraldeko euskalari eta euskaltzaleen emaria da hori, inorena baino gehiago. Benetako bide-urratzaile eta bidegile izan zen, horretan, iparraldea.

#### b) *Iparraldeko hizkuntza bateratua*

Transformazio guztiak ez ziren atzeranzkoak izan, ez gainbeherakoak eta ez bazter-periferiko bihurtze aldekoak. Joera zentrifugo horien

(277) Aldaketaren zenbatekoaz jabetzeko kontuan izan behar da abiaburua. Zaldubi sortu eta handik zortzi urtera, 1836an, honela zioten Abbadiak eta Xahok beren gramatikaren sarreran: «l'Eskuara ayant été peu cultivé comme parole écrite, son orthographe n'est pas encore fixée».

(278) Buruz ari naiz eta oker egon naiteke, baina zeharo nahasturik ez banabil ateraldi horren pare-parekoa izan zuen, handik urte gutxira, Martzelino Soroa donostiarrak. Ez da hori inola ere ahanztekoa, 1880tik aurrera Donostiako euskaltzaleen garrantzia alde bietako euskalgintza osoaren baitan zenbaterainokoa izan zen kontuan izanik.

(279) Jaurretxeren eta abarren aitzindari-lanaz eta han-hemengo gorabeheraz ikus Zua-zo 1988.

aurrez aurre jarduera zentripetorik eta goranzkorik ere agertu zen, eta (hainbatean) gailendu. Hizkuntza idatziaren planoan gertatu zen hori, lehenik eta behin. Hizkuntza idatziaren planoan *nafar-lapurtera* sortu zen iparraldean, inork berariaz planifikatu gabe baina eguneroko lanketa saiatuaz. Bilakaera nabarmena gertatu zen mende-erdi horren buruan, batez ere amaiera aldean eta gero, indar beteagoz, XX. mendearen lehen herenean (280).

Instantzia supradialektalezko jardungunek (Larresorok lehendik, Beloketik 1875tik aurrera, *Eskualdunak* 1887tik aurrera) beren eragina izan zuten, duarik gabe, *nafar-lapurtera* horren sorreran. Baita irakurle-masa supradialektal horretara eragin biziz iritsi beharrak ere: «Aussi la lecture du journal *Eskualduna*, de la revue *Gure Herria*, ou des oeuvres d'Abbadie, Barbier, Etchepare, Apestéguy, etc. révèle-t-elle la naissance d'une langue littéraire commune à presque tout le Pays basque continental et que l'on pourrait appeler «néo-labourdine», ou plus précisément «navarro-labourdine». Bere ajegebazia guztiekin ere euskara baturanzko urratsa izan zen hori: «C'est cette langue que nous étudions dans cette grammaire, avec le désir avoué de travailler à une certaine unité d'écriture chez les dirigeants de la pensée euskarienne de ce côté-ci des Pyrénées, et avec l'espoir que *cette unité ne sera qu'une étape sur le chemin d'une plus large unité des dialectes basques*» (Lafitte, 1944, in 1979: 6-7). Alde handia dago 1944ko baieztapen horren eta Hiriart-Urrutik 1901ean zioenaren artean: «courir après une seule et même orthographe, commune à tous les dialectes, fût-ce «ad usum eruditorum», c'est «une entreprise chimérique: ce serait absolument, ou peu s'en faut, comme si on voulait une orthographe commune pour le français, l'italien, l'espagnol, le gascon, le provençal, etc....*la plus grande unité possible* en cette matière, *n'est pas l'unité absolue*» (Charritton 1985a: 107-8). Ez dago zertan uste izan, argudio bi horiek elkarren kontrako zirenik ezinbestean: bata (Lafitte) bestearen (Hiriart-Urrutiren) ondorio logiko ere baziren, halako neurri batean.

---

(280) Joera berriaren muga 1880 inguruan ezarri zuen Pierre Lafittek: «Il existe chez nous un mouvement naturel vers un basque *meilleur* (azpimarra nirea) que le basque dialectal: il se révèle surtout dans la langue écrite et la prédication. L'idéal dans les arrondissements de Bayonne et de Mauléon, exception faite de la Soule, c'est d'avoir une morphologie d'allure labourdine et non contractée (...). On pourrait concevoir un autre idéal, par exemple de centrer la grammaire sur le bas-navarrais. Mais nous constatons un fait: le labourdin passe pour plus littéraire que les autres dialectes. Cela s'explique surtout par l'histoire de la littérature basque. Celle-ci, dans les Basses-Pyrénées, a été rédigée presque exclusivement en labourdin aux XVII<sup>e</sup>, XVIII<sup>e</sup> et XIX<sup>e</sup> siècles; étant donné le préjugé selon lequel bien parler c'est «parler comme un livre», quand *les Bas-Navarrais et même quelques Souletins* se sont mis à écrire, ils *ont pris les vieux auteurs comme modèles et ont «labourdinisé» avec entrain*. La tradition continue (1944an dio hori), d'ailleurs, imperturbable. Mais d'une façon plus ou moins inconsciente, les nouveaux écrivains ont, depuis soixante ans, dans le cadre d'une morphologie à peu près labourdine, introduit de nombreux éléments navarrais et même des vestiges de souletin».

## V. AMAIERAKO OHARRAK

Ikuspegi ezkorra eta balioespen etsia jaso ohi du sarri, erdal adituen (Tauzia 1973) eta etxeko hainbat euskaltzaleren artean, XIX. mendeko euskalgintzak. Ipar (Goienetxe, 1993) eta hego (Agirreazkuenaga, 2003), bat datoz aztertzailé gehienak funtsaren funtsean. «La nostalgie régressive» aipatu izan du Goienetxek, Eskualzaleen Biltzarraz ari zelarik baina zaku berean sartuz XIX. mendearen azken laurdeneko hainbat ekimen: «Le combat de la langue servant du conservatisme social et idéologique». Tauzia bera ez dabil ikuspegi horretatik batere urrun: «La fin du XIX<sup>e</sup> siècle est caractérisée par l'usage persistant, dans la France des campagnes et des petites villes, des langues et des dialectes locaux. Dans les plupart des cas, la défense des langues régionales est soutenue par les milieux conservateurs qui voient dans ces dernières un moyen d'opposition à la concentration jacobine dénoncée par Le Play et un instrument d'influence sociale ou politique – notamment en matière électorale – sur le monde paysan (Tauzia, 1973: 367). Ces parlers reçoivent également l'appui du clergé, pour des raisons voisines: lutte contre les idées libérales et laïques, véhiculées en français par l'école et la presse, volonté de conserver sur des populations rurales une influence qu'autorise la parfaite connaissance d'une langue à laquelle restent étrangers, le plus souvent, les agents de l'administration républicaine (281).

Besterik ere esaten du ordea Tauziak, aurreko pasarte horren jarraian: «Les préoccupations religieuses ou politiques n'expliquent pas seules, du reste, l'attachement du clergé pour les idiomes locaux, on peut y voir encore une réaction de lettrés, la plupart d'origine rurale, désireux de ne pas laisser tomber en désuétude un instrument linguistique dont ils apprécient les richesses grammaticales ou stylistiques, qui fut celle de leur enfance et aussi celle d'un «Ancien Régime» dont on sait combien les catholiques eurent tendance à idéaliser le souvenir, à la fin du XIX<sup>e</sup> siècle». Ingurumen horretan txertatzen da, erabat, Adema-Zaldubi. Erabat eta osorik dugu «représentative d'un état d'esprit très répandue en Pays Basque» (Tauzia, 1973: 367). Zer jokabide hartu zuen Zaldubik, bizi izatea suertatu zitzaion hainbat pasadizotan? Bere hautu horiek direla medio zertan izan zen giro zaharraren euskarri, eta zertan gizarte-berrikuntzaren eragile? Galdera horiei ere erantzun nahi genieke, azkenik eta gaingiroki, bere omenezko ekitaldi honetan.

Berriarazko ezaugarriak ditu Senpereko semeak berekin. Hizkuntza, herria eta fedea elkarren eskutik doaz bere baitan. Hala doaz eta, bere ustez, halaxe joan behar dute. «Euskaldun fededun» binomioa balore handiko elementua da Zaldubiren eta beste euskaltzale askoren, ez guztien, konstelazio ideologiko-

---

(281) Jean Etchenic-en bertsoak, Sarako Euskal Festetan, 1871n: Argitzen gaituk hiritarrak khazeta eta liburuz, / Ikasteiagu asko gauza, hoiek ongi irakurtuz, Zenbait legetan ez gaituk gu gidatzen bertzeren manuz, / Baserritarrak gaten zaizte, jaun aphezeri galdetuz.

intelektualean. Atxikimendu etnokulturala eta adskripzio politiko-hiritarra ez dira bestalde, Senpereko semearentzat eta beste hainbatentzat, uztarkide huts. Euskaltzaletasunak ez du, haietako askorengan, Frantziarekiko arbuio-kutsurik. Gutxienak dira, itxuraz (282), «lehenik eta behin euskaltzale, eta gero gerokak» diotenak (283). Zenbaitek, Hiriart-Urrutik kasu, halakorik ez proposatzeaz gainera ozenki aldarrikatzen du aski bestelako balore-hierarkia (284). Xurien eta gorrien arteko liskar-gatazkak bere mendean hartu zuen, aski neurri zaballean, euskalgintzaren zenbait aldarrikapen. Horren ondorioz, guztienak izandako xede-helburu euskaltzaleak batzuen eta besteen interesen arabera birmoldatu ziren urte gutxiren buruan. 1901ean eta 1902an hurrenez hurren Hendaian eta Hondarribian gertaturikoa ezin uler liteke, gehiegitan hala egin nahi izan bada ere, xuri-gorrien arteko zatibitze ideologiko hori aintzakotzat hartu gabe.

Eragin bizia du horrek guztiak, garai hartako euskalgintzaren nondik norakoa ongi zehazteko. Ezaugarri horien argitan aztertu nahi izan da, horregatik, XIX. mendearen bigarren erdian ipar Euskal herrian izandako euskalgintza. Zaldubiren lehen idazlanak 1850 ingurukoak (285) izanik, eta 1900. urte ingurura arte euskalgintzaren zenbait esparrutan parte-hartze zuzena izan zuelarik (286), aktore egokia izan dugu Senpereko semea iparraldeko euskalgintzak XIX. mendearen bigarren erdian izandako ibilbidea argitzen saiatzeko. Hartarako ekarpen xumea izan nahi luke, hain zuzen, gaurko saio honek.

Eskual herriaren muinguneko *language shift*-en atarian bizi izan zen Zaldubi: Donibane Lohizun eta Hendaia, Donapaleu eta Maule frantsesetan ikusi zuen, baina Iparraldearen muingune etnolinguistikoak bizirik zirauen oro har: ahulduz zihoan bertan ere eskuarazko harreman-sareen trinkoa eta ugaria, eta banakako hiztunen eskuara garbiari erdal interferentziaz horniturikoa gailentzen ari zitzaion leku askotan, batez ere gazte-jendearen eta erdi- eta goi-

---

(282) Beren euskaltzaletasuna hegoaldeko gogo-girora bilduena izateagatik orduan eta orain aipatuena, eta egiaztatzen errazena, badakigu zein diren (Broussain, Constantin semea,...). Euskaltzaletasun molde horren aldarrikapenak errazago ageri dira, dena den, mende berria hasi ondoren, eta ez aztergai dugun epean.

(283) Piarres Xarritonen doktore-tesia funtsezko iturria da horretaz jabetu nahi duenarentzat.

(284) Hain bestelako non, biziaren azken aldean, lehen mundu-gerra hurbildu ahala, Azkueren eta antzeko espainol-euskaldunen kontrako posiziozko punta-muturrenekoetara iritsiko zen. Bistan da Hiriart-Urruti punta bat zela horretan, ez batez besteko giro-aldartearen erakusgarri orekatsua. Baina datu hori ere kontuan izatekoa da: garai horren ekarpenik argienetakoa izandako «Zazpiak Bat» ikurra ahulduz juan iparraldeko hainbat iritzi-sortzaileren artean, indartu ordez, XX. mendeak aurrera egin ahala.

(285) Dakigun neurrian 1851koa da, beranduago argitaratua izanik ere, bere *Martin eta Kattalin*.

(286) Jakin badakigu 1902ko irailera arte, Hondarribiko Biltzarrera arte bederen, lanean ari izan zela euskalgintzaren alorrean. Hortik aurrerakoez ez dut argitasun handirik. Jasotako datuen argitan badirudi 1903tik 1905era arteko istiluetan, dotrina euskaraz irakasteko debekuaren ondorioz sortutakoetan, bestek izan zuela gidaritzat eta protagonismoa. Egunen batean argiago jakin ahal izango da hori ere, seguruenik.

mailako profesionalen edo jauntxoaren artean. Ez zituen ordea aldaketa gogorrenak ikusi. 1910etik aurrera hasi zen, behintzat, *language shift* horrek eragindako larri-samiña bertako idazleen artean nabarmentzen. Ikus, esate baterako, Moulier-Oxobiren 1913ko eta 1915eko bertsoak.

Lehen mundu-gerraz geroztik, zer esanik ez, gauzak nabarmen aldatu ziren: erdarak (frantsesak, ez gaskoiak) aurrerabide ausartak egin zituen euskararen espazio soziofuntzional barrenkoi-intimoenetan, eta belaunez belauneko transmisioa eten egin zen gero eta nabarmenago, herri xumeetan eta are kanpaiñan bertan. Fenomeno hori bizkor azeleratu da bigarren mundu-gerraz geroztik. Galera azkartzeaz bat, euskararen dohai osagarriak (etnizitate zaharjatorrarekiko lotura ezin hautsizkoa) baloratzen eta gorazarrez omentzen saiatu izan zen bertako hainbat euskaltzale: ikus, adibidez, Dihartze-Iratzederren 1953ko bertsoa. Gorazarreak ez du, ordea, atzerabidea eragotzi. Luze-zabaleko mintzaldaketak bide luzea eginik du dagoeneko, eta azken fasera iritsia ere da hainbat alorretan.

Egungo egoerak berak baldintzatzen gaitu sarri, orduko esan-eginak juzkatzerakoan. «Gero zer gertatu den badakigu»lako juzkatzen ditugu orduko gauzak, sarri asko, juzkatzen ditugun moduan. Itsua izan behar litzateke, jakina, gero zer gertatu den kontuan ez izateko. Ez da hori biderik zuzenena, ordea, kontuak erabat argitzeko. Gainbehera batean zetorren euskal konstelazio etnokultural zaharra, hego eta ipar, garai-inguru hartan. Iparraldeko aphez xuri-klerikalak bezain integrista ziren, garai bertsuan, hemengo (demagun, Urola aldeko) apaizak (Inazio Arana bat, esate baterako) eta bestelako hainbat euskaltzale. Iparraldeko euskalgintza hura ez zen aski izan, gainbehera hari eusteko: ondotoxoz hobeto eutsi zion, aldiz, Urola aldeak. Euskaltzaleak ez ziren, ezinbestean, hangoak baino begizorroztago; ideologiaz ireki-zabalago ere apenas. Zergatik batean hain atzendurik dago hortaz eskuara, eta bestean inon baino indartsuago? Ez ote da izango euskalgintzaren eta etnolinguistikazko bizitasunaren arteko kausa-efektu loturak errazegi ezartzen ditugula? Ez ote da izango kausa multifaktorial baten ondorio dela bilakaera etnolinguistiko eta soziokultural osoa, eta beraz faktore-aniztasun hori aintzakotzat hartu gabe alferrik dugula halako edo holako orientazio ideologikoren berezko argi-ilunez hitz egitea? Bai, dudarik gabe euskalgintzaren probaleku aparta izan zen Iparraldea, XIX. mendearen bigarren erdian. Bertako saioen balorazio kontuan asko daukagu ordea ikasteko, ondorio zuzenetara iritsi nahi badugu bihar edo etzi. Zaldubi eta bere garaia aztergune aparta dira, nolnahi ere, ikasbide horietan aurrera egiten saiatzeko. Gurea da txanda.

**LEHENENGO ERANSKINA**  
**Zaldubiren biografia eskematikoa**

Noiz	Zer	Iturria
1828-4-14 1828-I-12 (in TP, 1)	Senperen sortu, «Plaça chuhurrenea» etxean. Sei-garren haurra, etxeko azkena (TP, 1).	KN, 5-6
1829	Ama hil	
1842ra arte	Haurtzarotik kultura, ohidura eta eleaniztasunean murgildurik, hamalau urte bete arteko oinarritzko ikasketak Senperen egin zituen	(TP, 12)
1843-44	Larresoroko seminario ttipian sartu, apezteko asmoz	(TP,10)
1843-47	Larresoron ikasle, Elizanburrekin batean. Ele biko olerkitxo.	(TP,10)
1847-8	Baionako apezgaitegi nagusian, seminario handian, «Rhétorique» egiteko	(TP,10).
1948-1853	Iraultza-giro, nahasmendu eta Napoleon IIIaren buru-jasotze garaian, itxuraz, seminario handian. Konprobatzerik bai? Ikasketak ikasle hautu gisa burutu.	Bengoetxea, 1991: 6
1853-12-17 edo 1852?-12-17 (TP, 14)	Baionako apaizgaitegian apaiz egin. Handik Larresorora, irakasle (TP,14)	KN, 5-6
1853 (TP, 14)/1854	Larresoron irakasle	KN, 5-6
1853/1854tik 1860ra	Hazparnen apaiz laguntzaile (vicaire: batetik TP, 14; bestetik PB, 57) Bengoetxea, 1991, 6: 1854-60.	KN, 5-6
1853 (TP, 14)/1854	Mon premier sermon prêché à la fête locale de Hasparren 1853.	(TP, 14)
1858	Hazparnen sukar ustela (lau urte lehenago kolera): eriz eri, kuraia handiz. Pilota partida eder bat egin. <i>Kaskoina</i> orduan hil	
1859	Pierre Broussain bataiatu zuen Hazparnen	(TP, 14)
1860-72	Bidarrain erretore (curé: PB, 57), (AB, 6)	KN, 5-6
1872-90	Atharratzen erretore (Onaindiak apaiz-buru, TP 18k apez nagusi)(curé: PB, 57)(AB, 6)	KN, 5-6
1873	«Bildotxa eta otsoa», Sarako Euskal Festetan garaile	Urkizu1997c: 276-7
1874	«Betiri-Sants», Sarako Euskal Festetan, auzi-gai. Urte berean saridun izandako «Jaungoikua ta errija»-ren pare-pareko.	Urkizu1997c: 265

Noiz	Zer	Iturria
1875a 1875b	Ohorezko kalonje 1875 urtean, Jubilau urte sailduaren karietara beilarientzako liburu berezia: 1875ean <i>Jubilau urthe sailduan bazco biharamun eta hirugarrenean Lourdesen eta Betharramen escual herritic pelegrin cirenen orhoitzapena</i>	Onaindia, 1974: 304
1875	<i>Betiri-sants</i>	Onaindia
1876	Sarako lore-jokoetara «Errepublika» bertso-lerro sarkastikoa igorri zuen (TP, 18) «Biba Republika», Sarako Euskal Festetan garaile? Apenas saria eman zioten (Onaindia). TP, 18: Epaimahaikideek lehen sailkatu zuten, teknikoki hobereena zelako, baina ez zioten saria eman ozarregia kausiturik, arriskua ikusten zutelako. Epaiketa hori ez bide zuen Zaldubik onetsi publikoki adierazten baitzuen euskaltzaleen gehien-goia ez zela gehiago «xuria». Iskanbila ez zitekeen isilpean gelditu eta «gorrien» karra piztu zukeen, Xuberoan bezala, iparralde osoan.	Urkizu 1997c: 276-7
1876tik aurrera	Ordutik, dotrinari dedikatu zizkion indarrak, mistizismoan berebaitaratu balitz bezala.	TP, 18
1877	Lourdes, Betharram edo Sarrance-ko otoiz-lekue-tara joaiten ziren beilarientzako gidaliburua garatuz, <i>Eskualdun pelegrinen bidaltzailea</i> . 1877. urtean plazaratu zuen eta kantika andana asmatu.	TP, 18, 19
1890-1907	Baionako katedralean kalonje tituludun (1890-VII-10) (1875etik bazen ohorezko EHE) Diharasarriren arazoaren aurretik edo ondoren?	KN, 5-6 TP, 20
1890	Euskara eta euskal ohiturak ikertzen hasi: pilotariak bertso-lerro luzeari beste 11 bertso gehitu urte horretan.	TP, 20
1891	Itxuraz, disputa politikoa Atharratzeko hautetsiarekin	TP, 19
1891-X-13	Biarnoko Chesnelong jaun zenatur apeztiarrari Baionako Guichenne deputatu-gaiak eskainitako bazkari-omenaldian, Zaldubik bukaeran koplak kantatu bie, euskaraz.	
1892-3	Abadiaren herentziaren ildotik euskal akademia sortzeko dirua ezartzen saiatzen. Itxaropenik bai, baina itxuraz alferrik.	
1893 1892? (AB, 7)	Azpeitiko Euskal jaietan omenaldia egin zitzaion, euskal letretan itzal handia bereganatua baitzuen	Onaindia 1974: 304 TP,22

<b>Noiz</b>	<b>Zer</b>	<b>Iturria</b>
1894	Notice sur le jeu de paume au Rebot, jeu national des basques	TP, 20
1901	Hendaiako biltzarraren burulehen	
1902	Hondarribiko biltzarraren burulehen	
1907	Baionan hil eta Senperen ehortzi	
1873	Lore Jokoetan garaile	
1877	Lourdeserako eta Betharramerako erromesentzako gidak	(EHE, 12)
	Hil. Baionako katedraleko hileta-elizkizun edo ofiziotik landa, Senpereko hilerrian ehortzi zuten familiaren hilobi gotorrean.	(TP, 10)



**BIGARREN ERANSKINA**

*Kale / baserri dikotomia soziokulturala*, bertso-kantariaren azalpenean

Jean Etchenic-en bertsoak, Sarako Euskal Festetan, 1871n (287)

***Hiritarrak eta baserritarrak***

1. Urusa gaituk hiritarrak, jakintsun handi baikare / Eskolatuak garelakotz, langile pobriak ere.  
Baserritarrek etzakitek gizon bearrek deusere. / Bertzek erranak iten tiztek kaltetan izanik ere.
2. Urgiulutzarren gatik dituk kalte haundiak etortzen, / Zuen eskolaz hiritarrak sobera zaizte bantatzen.  
Zer dela khasu gaitutzue baserritarrak mendratzen? / Zenbait abantail on duzue guk ez dugunik agertzen?
3. Argitzen gaituk hiritarrak khazeta eta liburuz, / Ikasteiagu asko gauza, hoiek ongi irakurtuz,  
Zenbait legetan ez gaituk gu gidatzen bertzeren manuz, / Baserritarrak gaten zaizte, jaun aphezeri galdetuz.
4. Zenbait liburu eta khazet baituk ainitzen kaltetan, / Erlijione sainduaren galharazteko xedetan,  
Hoiek pozoinaturik zaizte asaldatzen hirietan, / baserritarrek eztiagu sin- hesterik holakotan.
5. Asaldatzen gaituk hiritan arrazoin haundiarekin, / Eztiagu deusikan nahi asko lege hertsirekin,  
Nahiago diagu bizi biba libertatiekin, / Baserritarrak ikaratzen zaizte adi- tziarekin.
6. Baserritarrek nahi diagu libertate zuzen ona, / Bainan ez lege injustuki maiz asaldatzen dena.  
Bandera krudel ifame bat agertu nahi lukena, / Zenbait hiritarrek bihotzez desiratzen duzuen.
7. Baserritar gehienak zaizte betiak ilusioneaz, / Arras itsutuak zagozte, jakita- tien eskasez,  
Izpirituak xinpletuak, zenbait aphezen erranez, / Ez gaituk ez enganatzen gu, jaun hoi en elhe ederrez.

---

(287) Errepublikazale definitzen du Santi Onaindiak (Onaindia, 1974: 340).

**HIRUGARREN ERANSKINA**  
**Euskarazko ALDIZKARIAK eta...**

Astekari informatibo-politikoak										
	izena	maiz	Hasi (buka)	norako	tirada	or.	Norburu	pentsum.	%	Hizkera
1	<i>Usual-Herrico gasete</i>	astek	1848 (2 ale)	Iparraldea		4	J. A. Xaho	Errepubl.	100	Z
2	<i>Le Républicain de Vasconie</i>	astek	1844-52	Iparraldea		4 (2)	J. A. Xaho	Errepubl.	0-100	Z
3	<i>Escualdun Gazeta</i>	astek	1885-6	Kalifornia		4	Martin V. Biscailuz	Demokr.	100	BN
4	<i>Le Réveil Basque</i>	astek	1886-94	Ip. bereziki Mauleko dist.	?	4	Martial H. Berdoly	Errepubl.	≤ 100	BN+Z
5	<i>Eskualduna</i>	astek	1887-1944	Iparraldea	750 ÷ 10.000	4	L. Etxeberri	Xuri- elizkoiak	90	BN-L
6	<i>California-ko Eskual herria</i>	astek	1893-8	Kalif + ing	1700	4	Jean Pierre Goytino	Errepubl.	100	L
Egunariak, almanakak										
	izena	maiz	noiz	norako	tirada	or.	nork	pentsum.	%	Hizkera
1	<i>Egunari berria</i>	urtek	1852	Iparraldea	?	?	É. Vignancour	(errep)	100	
1	<i>Almanaca berria edo egunaria</i>	urtek	1879-82	Iparraldea		38	Lespès soeurs	Errepubl.	100	BN-L
2	<i>Almanaca berria</i>	urtek	1884	Iparraldea	?	?	Goude-Dumesnil	Errepubl	?	?
	<i>Almanach des traditions populaires/egunaria eskuaraz emana</i>	urtek	1884	Iparraldea	?	25 / 125	Paris, Maisonneuve, Vinson	Errep?	20	?
3	<i>Almanaca berria edo eskualdun egunaria</i>	urtek	1885	Iparraldea	?	28	Berdoly + Vinson	Errepubl	100	BN-L

izena	maiz	noiz	norako	tirada	or.	nork	pentsum.	%	Hizkera
<b>4</b> <i>Escualdan almanaca edo egunari berria</i>	urtek	1884-7	Iparalde	?	48÷56	Duvoisin	Bonap. xuria	100	L
<i>Escualdan gazetaren almanaka</i> (aurrekoaren jarraipena)	urtek	1888-91 gehiago ez	Iparalde	?	48		Bonap. xuria	100	BN-L
<i>Escualdan laborarien adiskidea</i>	urtek	1848-1914	Iparalde	?	24÷64	J. B. Etxeberri apezta, Uzartitzekoa	Elizkoi- xuria	100	
<b>Erlijio-aldizkariak</b>									
izena	maiz	noiz	norako	tirada	or.	nork	pentsum.	%	Hizkera
<i>Fedearen propagacioneco urtecaria</i>	Bihil	1877-1936	Iparalde		+ 280	askok	elizkoi	100	L?
1890b: <i>Framazonak</i> (bigarren edizioa) eta <i>Frantziako hirur Errepublikaren ixtorioa laburzki</i> 1890a: <i>Zer izan diren eta zer diren oraino framazonak munduan</i> 1889: <i>Lehenagoko eskualdunak zer ziren.</i>									
<b>Hauteskunde-garaiko argitalpenak: politikazko propaganda-orriak edo liburuxkak</b>									
<i>Eletzionetaco catichina</i>		1889			8	izengabea			
<i>Botzkako katichina</i>		1889			8	izengabea			
<i>Catichina laburra hautuen edo electionentzat</i>		1889			8	izengabea			
<i>Boz emaitkearen eginbideak</i>		1889?			23	izengabea			
<i>Aphezac soldado</i>		1889?			15	izengabea			
<i>Aphezen dretchoac eta eginbideak eletzionetan</i>		1890:				L. Dihtasari			

<i>Lehenagoko eskuadunak zer ziren.</i>	1889					Elizanburu, frère Innocentius. Bultzazaille aphez bat: Diharasari?			
<i>Zer izan diren eta zer diren oraino framazonak munduan</i>	1890					Elizanburu, frère Innocentius. Bultzazaille aphez bat: Diharasari?			
<i>Frantziako hirur Errepublikaren itxorioa laburzki</i>	1890					Elizanburu, frère Innocentius			
<i>Uskalduner. Bethi atzina, chuchen chuchena dabila uskalduna.</i>	1889					Sallaberry, J. D. J. Bertoliren alde			
<i>Lehen eta orai. Errepublikaren ongiak.</i>	1896					Lewy Abartiaga			

**BIBLIOGRAFIA**

- ABBADIE, A. TH., 1836a: «Analyse du Voyage en Navarre de M. Chaho», in *Bulletin de la Société de Géographie* 5, 127-31.
- 1836b: «Prolegomènes», in Anton Abbadia eta Augustin Chaho, *Études grammaticales sur la langue basque*. Paris: A. Bertrand.
- 1838: «Études grammaticales sur la langue euskarienne (Basque-Berber-Silha)», in *Journal of the Royal Geographical Society*, VIII, 397-400.
- 1839: «Études sur la langue euskarienne», in *Journal Asiatique*, B, VIII, 253.
- 1854: «L'émigration», in *Le Messager de Bayonne*, 1854-XI-2.
- 1854 eta 1855: «Lettres sur l'orthographe basque», in *Le Messager de Bayonne*, 1854-V-27, 1855-I-12, 19, 25 eta 1855-IV-26.
- 1855: «Sur le Dictionnaire Basque, Français, Espagnol et Latin, d'A. Chaho», in 1997b: *Antoine d'Abbadie. Recueil de textes ethnographiques, géodésiques, linguistiques et littéraires*, 427.
- 1856: «Le Dictionnaire basque, français, espagnol et latin d'après les meilleurs auteurs classiques et les dictionnaires des Académies française et espagnole, par Augustin Chaho», in *Le Messager de Bayonne*, 1856-III-25.
- 1859: Travaux récents sur la langue basque. Paris Impériale, 7. orrialde, in *Journal Asiatique*, 1859, XIII, 88-93.
- 1864: *Zubernoatikako Gutun bat*. Parisen, A. Lainek eta J. Havardek inprimatua.
- 1868a: Parte-hartzea in «Extraits des séances de la Société d'Anthropologie de Paris. 1: Discussion sur les types basques», in *Bulletin de la Société d'Anthropologie de Paris*, 1868-I-23: 101-3. or. Erabilitako iturria Urkizu arg. 1997b: 182-4 eta Urkizu 2002, 401. or.
- 1868b: Parte-hartzea in «Extraits des séances de la Société d'Anthropologie de Paris. Sur la carte de la langue basque», in *Bulletin de la Société d'Anthropologie de Paris*, 1868-VII-2: 521-3. or. Erabilitako iturria Urkizu arg. 1997b: 441-2.
- 1872a: «Annonce de la publication des Cartes du prince L. L. Bonaparte» in *Bulletin de la Société d'Anthropologie de Paris*, III, 562-4. or.
- 1872b: «Sur la carte de la langue basque» in «Extraits des séances de la Société d'Anthropologie de Paris.» *Bulletin de la Société d'Anthropologie de Paris*, III, 521-3. or. eta 1872ko 311, 562-4. or. Orobat 1872-V-2: 562-4. or. Erabilitako iturriak Urkizu arg. 1997b: 442-3 eta Urkizu 2002: 400.
- 1874: «Sur la loi des successions chez les Basques français», in *Bulletin de la Société d'Anthropologie de Paris*, 18. or.

- 1878: «Légende du Tartarua ou Tartarua», in *Bulletin de la Société des Sciences et Arts de Bayonne, 1874-7*, 133-5. or. Erabilitako iturria Urkizu arg. 1997b: 443-5. or.
- 1880: «Carta sobre el fuero al presidente de la revista euskara», in *Revista Euskara II*, 193-7.
- 1882: «L'Orthographe des mots étrangers», in *Bulletin de la Société de Géographie*, III, 1-16.
- 1886: «Lettre à M. Camille Doucet (Secrétaire de L'Académie Française), «La science aimable» in *Euskal Erria* 1886, 431-2. or.
- 1889: «Idee per l'abolizione della schiavitù africana», *Bolletino de la Società Africana d'Italia*. Ano VIII, Napoli.
- 1895a «Propositions relatives à l'organisation d'un système international des stations sismiques».
- 1895b: «Lettre sur le prochain concours basque», in *Études historiques et religieuses du diocèse de Bayonne*, 48. or.
- 1895c: «Procès verbaux des séances du 6 avril au 22 juin 1895», in *Bulletin de la Société de Linguistique*, 40. zenbakia, LXXXVIII.
- 1896: «Sur la préservation de la langue basque (notice)», in *Bulletin de la Société de Linguistique*, 1895-1896, IX, LXXXVIII.
- 1898: «La reforma municipal. Los municipios rurales», in *Euskal Erria*, 1898, XXXIX, 74-82 eta 110-20. or.
- ABBADIE, A. TH. eta AUGUSTIN CHAHO, 1836: *Études grammaticales sur la langue basque*. Paris: A. Bertrand.
- ADEMA-ZALDUBI, GRATIEN, 1873: «Bildotxa eta otsoa». In *Anton Abbadiaren koplarien guduak*, Urkizu 1997c: 265. or.
- 1875a: *1875<sup>an</sup> jubilau urte sainduan bazco biharamun eta hirugarrenean Lourdesen eta Betharramen Escual herritik pelegin cirenen orhoitzapena*. Baiona: Lamaignère.
- 1875b: *Escualdunen Lourdeco canticac*. Baiona: Lamaignère.
- 1877: *Escualdun peleginaren bidaltzailea*. Baiona: Lamaignère.
- 1890: Euskara eta kristautasuna defendatzeko deia, in *Semaine de Bayonne*, 1890-V-21. Iturria: Tazua, 1973: 367-8. Ikus orobat TP, 20.
- 1894: *Notice sur le Jeu de Paume au Rebot, jeu national des Basques*. Bayonne, Laserre.
- 1908 eta 1909: «Oeuvres du chanoine Adéma», in *RIEV* 1 eta 2.
- 1991: *Kantikak eta Neurtitzak*. Ales Bengoetxea prest. Bilbo: Mensajero.
- 1896: Azkeri idatzitako gutuna, in *Euskera*, 1957: 337.
- 2007: *Predikuak Saindu batzuen biziaz*. Argitalpenaren paratzaile Henri Duhau. Bilbo: Euskaltzaindia.

- Ager, Pierre eta Piarres Charritton, 2003: «Manuel Inchausperen mendeurrena», in *Euskera* 2003-2, 506-48.
- AGIRREAZKUENAGA, JOSEBA, 2003: «Euskararen aldeko ideologia nagusiak, hiztunak eta eragileak: herri hizkeratik goren graduzkorantz, 1801-2001», in *Euskaltzaleen Biltzarraren Mendeurrena*, 145-161.
- AIZKIBEL, J. F. 1856: *De la lengua euskara o de los vascongados*. Madrid.
- ALTUNA, PATXI, 1986: «Duvoisin», in Jean Duvoisin-en *Laborantzako liburuaren sarrera*, 21-33. or.
- ALTZIBAR, XABIER, 2004: *Ni kazeta-egilea naiz. Jean Hiriart-Urrutiren hainbat artikulua, berri eta istorio*. Bilbo: Labayru eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa.
- ANONIMOA, 1864: «Burdin-bidea» in *Anton Abbadiaren koplarien guduak*, Urkizu 1997c: 205-6.
- ARANA, JOSÉ IGNACIO, 1882: «Ortografía Bascongada», in *Euskal-Erria*, VI.,109-11.
- ARANA, SABINO, 1896: *Lecciones de ortografía del euzkera bizkaino*. Bilbao: Tipografía Amortortu.
- ARBELBIDE, J. B., 1895: *Igandea edo Jaunaren Eguna*. Lille: Desclée de Brouwer.
- ARCHU, J. B., 1848: *La Fontainaren aleighia berheziak*. La Réole: Pasquie.
- 1852: *Uskara eta franzes gramatika, uskalherrietaco haurrentzat eguina. Grammaire basque et française, à l'usage des écoles du pays basque*. Baiona: Foré et Lasserre. Bigarren argitaraldia 1853an, hirugarrena 1868an.
- ARREGI, RIKARDO, 1968: «Gu traketsok», in *Anaitasuna*, 1968-V-15.
- 1972: *Herriaren lekuko*. J. M. Torrealdai prestatzaille. Arantzazu-Oñati: Jakin.
- AZKUE, R. M., 1896: *Proyecto de Ortografía, sometido a la censura de los que se dedican a cultivar el euskera*. Bilbao: Muller y Zavaleta.
- 1945: *Euskalerrriaren Yakintza*. Madrid: Espasa-Calpe.
- BELSUNCE, VICOMTE DE, 1852: *Notice en faveur de la langue basque*. Société des Antiquaires de l'Ouest. Séance du 27 mai 1852. Poitiers, Imprimerie de A. Dupré.
- BENGOETXEA, ALES, 1991: «Gratien Adéma», in Adéma Zalduby, *Kantikak eta Neurtitzak*, 5-23.
- BERDÉCO, M. 1899: «Coutumes morales du Pays Basque», in Elkar-lanean, 1982, 167-76.
- BERNAL, JOHN, 1954: *Science in History*. Londres: Watts & Co. Ltd. Erabilitako iturria, 1964ko argitaraldiaren gaztelaniazko itzulpena: 1973ko argitaraldia.

- BERNOVILLE, G.: *Le Pays Basque* (Jasotako iturria Joseba Intxausti, 1972: 101. or.).
- BONAPARTE, LOUIS-LUCIEN, 1858: *Canticum trium puerorum in XI vasconicae linguae dialectos ac varietates versum. Collegit et novae orthographiae accommodavit*. Editio altera, Londini.
- 1869: *Carte linguistique du Pays Basque*. (bi bertσιο).
- BORDES, CHARLES, 1899: «La musique populaire des Basques», in *Elkar-lanean* 1982 (erabilitako iturria 1989), 297-358.
- BROCA, PAUL, 1875: *Sur l'origine et la répartition de la langue basque; basques français et basques espagnols*. Paris: Leroux.
- CAMPION, ARTURO, 1899: «La langue basque», in *Elkar-lanean* 1982 (erabilitako iturria 1989), 413-59. or.
- CASNAVE-HARIGILE, JUNES 2003: «Emmanuel Inchauspe (1815-1902)», *Euskera*, 2003-2, 549-53.
- 2006: «Dominique-Joseph Garaten *Les recherches sur le peuple primitif de l'Espagne, sur les révolutions de cette Péninsule, sur les Basques Espagnols et français (1811)*. Transkripzioa eta oharrak». In *Lapurdum XI*.
- CASTOREO, PATRICK, 1993: *Langue Basque et Enseignement, en France, de 1789 a 1993*. (Annexes). Université de Pau et des pays de l'Adour.
- CHAHO, J. AUGUSTIN, 1834a: *Azti-Beguia. Agosti Chaho Bassaburutarrak Ziberou herri mañtiari, Pariserik igorririk, beste hanitchen aitzindari, arguibidian, goiz-izarra*. Paris: Dondey-Dupré.
- 1834b: *Paroles d'un voyant en réponse aux paroles d'un croyant de M. L'Abbé de La Mennais*. Paris: P. Dondrey-Dupré.
- 1836a: *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques (1830-35)*. Paris: A. Bertrand.
- 1836b: *Lettre à M. Xavier Raymond sur les analogies qui existent entre la langue basque et le sanscrit*. Paris: A. Bertrand.
- 1836c: *Génie de la langue latine dans ses rapports avec la synthèse grammaticale*. Paris: Mme. Ruzald.
- 1836d: Oihenarteren atsotitzen eta bertsoen eskuzko kopiak.
- 1837: Silvain Pouvreauren hiztegiaren esku-izkribuaren kopia. *Vocabulaire basque*: MS 1674 (336) (1659-61). Copie de 1837.
- 1845: *Ariel* aldizkarian euskal ortografiaz eginiko artikuluak.
- 1847: *Histoire primitive des Euskariens-Basques: langue, poésie, mœurs et caractère de ce peuple: introduction à son histoire ancienne et moderne*. Baiona: Jaymebon.
- 1854: «Lettre sur l'orthographe basque, en réponse à l'abbé Hiribarren», in *Le Messenger de Bayonne*, 1854, I, 19.



- 1856: *La guerre des alphabets. Règles d'orthographe euskarienne, adoptés pour la publication du Dictionnaire basque, français, espagnol et latin*. Baiona: Lespès.
- 1857: *Dictionnaire basque, français, espagnol et latin, d'après les meilleurs auteurs classiques et les dictionnaires des académies française et espagnole*. Baiona: P. Lespès.
- CHAHO, J. AUGUSTIN eta ANTON ABBADIA, 1836: *Études grammaticales sur la langue basque*. Paris: A. Bertrand.
- CHARRITTON, PIARRES, 1985a: *Pierre Broussain. Sa contribution aux Études Basques (1895-1920)*. Bordeaux: Centre Regional de Publication. Éditions du Centre National de la Recherche Scientifique.
- 1985b: «Gratien Adéma-Zalduby-ren bizia ta lanak», in *Mundaiz*, 29, 47-53.
- 1986: «Resurreccion Maria de Azkue eta Pierre Broussain-en arteko elkarridazketa», in *Iker-4*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- 1987: «Eskualdunaren mendeurrena Baionan», in *Euskera XXXII*, 245-52.
- COHN, NORMAN, 1983: *El mito de la conspiración judía mundial*. Madrid. *Courier de Bayonne (Le)*, 1853-IX-8; 1858-IX-17; 1859-VIII-5; -IX-17, 24; 1860-IX; 1872-IX; 1873-VII-17; 1876-IX-13; -XII-1; 1877-IX-3, 5; 1879-XII-17; 1881-VIII-3, 7, 17.
- CROUZET, JEAN 1987: *Bayonne entre l'équerre et le compas*. Baiona: Ed. Harriet.
- DANSETTE, A., 1965: *Histoire religieuse de la France contemporaine*. Paris.
- DARANATZ, J. B., 1908: «Le Chanoine Adéma», in *RIEV* 2, 121-4.
- 1923: «Le Prince Louis-Lucien Bonaparte au Pays Basque en 1857», in *Gure Herria III*, 361-4.
- 1929: «Correspondance du Capitaine Duvoisin», in *RIEV XX*, 152-81.
- DARRIGOL, J. P., 1827: *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque*. Baiona: Duhart-Fauvet (argitalpen faksimilea 1979, Toulouse: Eché).
- DERRÉCAGAIX, V., 1876: «Notice sur les Basques», in *Bulletin de la Société de Géographie*, avril 1876 (t. XI, 401-38. or.)
- DESMET, PIET, 1996: *La linguistique naturaliste en France (1867-1922). Nature, origine et évolution du langage*. Leuven/Paris: Peeters.
- DIAZ NOCI, JAVIER, 1994: *Euskarazko aldizkari, egutegi eta almanaken erroldea (1834-1959)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- DIHARASARRY, LAURENT, 1890: *Aphezen dretchoac eta eginbideak eletzionatean*. Baiona: Laserre.

- DIHARTZE-IRATZEDER, JEAN MARIE, 1953: «Eskuara, oi eskuara», in «Pindar eta lanho» in *Gure Herria*. Iturria: Labayru (mold.), 1999: *Euskararen gora-menak. Literatura hautapenak*, 52-3. or.
- DROUIN, JEAN CLAUDE, 1973: «L'ésoterisme d'Augustin Chaho; cosmologie, histoire et politique au XIX<sup>e</sup> siècle» in *Société des sciences, lettres et arts de Bayonne 1973*.
- DUBARAT, V. 1910: «Lettres adressées au capitaine Duvoisin», in *RIEV IV*, 125-8.
- DUHALDE, MARTIN, 1809: *Meditacioneac gei premiatsuenen gainean*. Baiona.
- DUHAU, HENRI (paratz.), 2007: *Adema-Zaldubiren Predikuak Saindu batzuen biziaz*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- DUVOISIN, JEAN, 1858: *Laborantzako liburua edo bi aita semeren solasak laborantzaren gainean*. Baiona, Andre Lamaignèren moldiztegia. Erabilitako iturria: 1986, Kriselu.
- 1878: «Observaciones sobre la ortografía vascongada», in *Revista Euskara 1*, 172-3.
- ELIZANBURU (ELISSAMBURU), MICHEL, 1889: *Lehenagoko eskualdunak zer ziren*. Erabilitako iturria: Axier Trekuk eta Iñaki Nazabalek Ibaizabalen eskutik paraturiko argitaraldia, 1993koa.
- 1890a: *Zer izan diren eta zer diren oraino framazonak munduan*. Eskualdun gazetan argitaraturiko artikuluen bilduma. 1890b: *Framazonak* (bigarren edizioa) eta *Frantziako hirur Errepubliken ixtorioa laburzki*. Baiona: Lasserre. Erabilitako iturria: Gabriel Frailek Donostiako Erein-en paraturiko argitaraldia, 1988koa.
- ELIZANBURU JEAN BAPTISTE, 1871: «Eskalduna» in *Anton Abbadiaren koplarien guduak*, Urkizu 1997c: 229.
- ELKAR-LANEAN, 1892: *La Tradition au Pays Basque*. Paris. Erabilitako iturria: Elkar etxearen bigarren berrargitalpena, 1989koa.
- 2008: *Euskalgintza XXI. mendeari buruz. Euskaltzaindiaren XV. Biltzarr*. IKER 19. Bilbo: Euskaltzaindia.
- ESTORNÉS, IDOIA, 1997: «Aurkezpen gisara. Presentación. Présentation», in Patri Urkizu (arg.) *Recueil de textes ethnographiques, géodésiques, linguistiques et littéraires*. Donostia: Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia.
- ETCHENIC, JEAN, 1871a: «Hiritarrak eta baserritarrak», in *Anton Abbadiaren koplarien guduak*, Urkizu 1997c: 247.
- 1871b: *Cantu berriac, bandera gorriaren gainian*. Baiona: XX.
- ETCHEPARE, JEAN, 1910: «Zalduby Aldudan» in *Buruxkak*.
- 1920: «Pierre Broussain», in *Eskualduna*, 14 mai 1920.
- ETCHEVERRY, LOUIS, 1886: «Les Basques et leur émigration en Amérique», in *Réforme Sociale*, XI, 491-515. or.

- 1892: *Les Basses-Pyrénées depuis soixante ans*. Pau: Association française pour l'avancement des sciences.
- 1899: «Les coutumes successorales du Pays Basque au XIXe siècle», in *Elkarren artean, La Tradition au Pays Basque*, 179-90.
- FISHMAN, JOSHUA A., 1965: *Language Loyalty in the United States*. The Hague: Mouton.
- 1973: *Language and Nationalism. Two Integrative Essays*. Rowley, Massachusetts, Newbury House.
- 1977: *Advances in the Creation and Revision of Writing Systems*. The Hague: Mouton.
- 1985: *The Rise and Fall of the Ethnic Revival*. Berlin, Mouton de Gruyter.
- 1987: *Ideology, society and language. The Odyssey of Nathan Birnbaum*. Ann Arbor: Kasoma Publishers.
- 1991: *Reversing language Shift. Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages*. Clevedon: Multilingual Matters.
- 1996: «Ethnicity as Being, Doing and Knowing», in Hutchinson eta Smith (arg.), *Ethnicity*, 63-9.
- FISHMAN, JOSHUA A., arg., 1993: *The Earliest Stage of Language Planning. The «First Congress» Phenomenon*. Berlin, Mouton de Gruyter.
- FONDATION 1893: «La Fondation scientifique Antoine d'Abbadie, le futur observatoire du pays basque», in *Revue des Pyrénées*, V, 621-2.
- GARAT, 1811: *Les recherches sur le peuple primitif de l'Espagne, sur les révolutions de cette Péninsule, sur les Basques Espagnols et françois*, in Oiharzabal, 2006a.
- GAUJA, PIERRE, 1917: «Les fondations de l'Académie des Sciences (1881-1915)». Imprimerie de l'Observatoire d'Abbadia. Hendaia.
- GÈZE, LOUIS, 1875: *Éléments de grammaire basque, suivis d'un vocabulaire*. Baiona: Lamaignère.
- GINER, SALVADOR, 1967 (erabilitako iturria, 1975eko argitaraldia): *Historia del Pensamiento Social*. Bartzelona: Ariel.
- GINER, SALVADOR, EMILIO LAMO DE ESPINOSA eta CRISTÓBAL TORRES (arg.), 1998: *Diccionario de sociología*. Madrid, Alianza Editorial.
- GOIENETXE, MANEX: «A. Abbadiaren nortasunaren atzetik», in *Elhuyar*, 73-4, 7-11.
- GÓMEZ, RICARDO, 2006: *XIX. mendeko gramatikagintzari buruzko ikerketak*. EHUko doktore-tesia. Gasteiz: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketa Saila.
- GOUGÈRE, E. 1890: «Aux maîtres basques», in *Bulletin officiel de l'Instruction primaire du département des Basses-Pyrénées*. Pau: Imprimerie Garet.

- GOYENECHÉ, DR. A., 1894: *Eskualdun Kantaria*. Baiona: Lasserre.
- GOYHENETCHE, J., 1993: «Les origines sociales et historiques de l'association Eskualzaleen Biltzarra», in *Bulletin du Musée Basque*, 135. zkia., 1-68.
- GRANJA PASCUAL, JOSE JAVIER, 1986: «Julien Vinson, el euskera y una polémica del XIX», in *ASJU* 20:1, 217-35.
- GRÉARD, M. 1890: *La législation de l'Instruction primaire en France depuis 1789 à nos jours*. Paris: Delalain.
- HARISTOY, PIERRE, 1899: «Eskualdun zuhur-hitzak (proverbes, sentences et dictiones basques)», in *Elkar-lanean* 1899, 281-93. orr.
- HARITSCHELHAR, JEAN, 2003: «Intxauspe Axularren zentsuraztaile? Gero-ren gaurkotztaile?», in *Euskera* 2003-2, 569-80.
- HARRIET, MAURICE. *Hiztegia*, bere garaian argitaratu gabea.
- HAUGEN, EINAR, 1966: «The Implementation of Corpus Planning: Theory and Practice», in J. Cobarrubias and Joshua A. Fishman arg., *Progress in Language Planning*. Berlin, Mouton, 269-89.
- HERNÁNDEZ MATA, AMELIA, 2007: *Piarres Lafitteren ekintzabideak (1920-1944) kultura jasoko euskaltzaleen sarearen baitan*. IKER 20. Bilbo: Euskaltzaindia.
- HIRIART, 1840: *Introduction à la langue française et à la langue basque*. Baiona: V<sup>o</sup> Cluzeau.
- HIRIART-URRUTI, JEAN, 1907: «Adéma apezta», in *Eskualduna*, 1907-XII-20. Iturria Hiriart-Urruty, 1971: 160-5. Orain in Adema-Zaldubi 2007: 1-3. or.
- 1971: *Mintzaira, aurpegia: gizon*. Oiñati-Arantzazu: Jakin.
- 1972: *Zezenak Errepublikan*. Oiñati-Arantzazu: Jakin.
- HIRIBARREN, JEAN MARTIN, 1853: *Eskaldunak. Iberia, Kantabria, Eskal herriak, Eskal herri baxhotxa eta hari darraikona*. Erabilitako iturria: *Klasiakoak* bildumako UEUren 1994ko berrargitalpena, P. Altunak, Aldabalde-trekuk eta A. Bonetak eginiko egokitze- eta kokatze-lanaz osatua.
- HOURMAT, P., 1968: «La Enseñanza Primaria en el País Vasco (Laburdi, Benabarra y Zuberoa) según la encuesta de 1833», in Lasa et al., *Sobre la Enseñanza Primaria en el País Vasco*, 100-128.
- HUTCHINSON, JOHN eta ANTHONY D. SMITH, arg., 1996: *Ethnicity*. Oxford: Oxford University Press.
- INCHAUSPÉ, EMMANUEL, 1858: *Le verbe basque*. Baiona.
- 1864: *Guero Guero*, «edicione berria»ren prestatzaile. Baiona.
- 1893: *Le Peuple Basque*.
- INTXAUSTI, JOSEBA, 1972: *Iraultzaren hildotik*. Oiñati-Arantzazu: Jakin.
- ITHURRY, JEAN, 1895-1920: *Grammaire basque. Dialecte Labourdin*. Baiona: Foltzer.

- IZENGABEA, 1889a: *Eletzionetaco catichima*. Baiona: Laserre.
- 1889b: *Botzkako katichima*. Baiona: Lamaignère.
- 1889c: *Catichima laburra hautuen edo electionentzat*. Baiona: Lamaignère.
- 1889d: *Boz emailearen eginbideac*. Baiona: Laserre.
- 1889e: *Aphezac soldado*. Baiona: Laserre.
- JAURETCHE, 1838: *Andre-dena Mariaren ilhabethea, edo Maiatza Jaincoaren amaren loriacotz contsecratua*. Baiona.
- 1840: *Meditazioneak urteko ebangelioen gainean*. Baiona: Cluzeau.
- 1854: *Andre dena Mariaren boterea*. Baiona: Cluzeau.
- JAURGAIN, JEAN DE 1898-1902: *La Vasconie*. Pau: Garet.
- JUARISTI, JON, 1987: *El linaje de Aitor. La invención de la tradición vasca*. Madrid: Taurus.
- KANBLONG, RAMUNTXO, 1969: «Gure ekonomiaren hiru pondu», in *Elkar lanean, Ipar Euskal Herria*, Jakin sorta, 1, 68-74.
- KLOSS, HEINZ, 1952: *Die Entwicklung neuer germanischer Kultursprachen von 1800 zu 1950*. Munich: Pohl.
- 1967: ««Abstand» languages and «Ausbau» languages», in *Anthropological Linguistics*, IX, vii, 29-41.
- LABAYRU (mold.), 1999: *Euskararen goramenak. Literatura hautapenak*. Eremu urriko hizkuntzei buruzko VII. Nazioarteko biltzarra. Bilbo: Eusko Jaurlaritza et al.
- LACOMBE, GEORGES, 1921: «Euskaltzainaren sarrera-itzaldia», in *Euskera* II-2, 52. or.
- LAFITTE, PIERRE, 1933: *Parmi les compositeurs de cantiques basques. M. le chanoine Gratien Adéma. M. l'abbé Jean Barbier*. Baiona, La Presse, 6-26. orr.
- 1941: *Le Basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*. Baiona.
- 1944: *Grammaire-Basque (navarro-labourdin littéraire)*. Erabilitako iturria, *Elkar-Ikas* etxeen 1979ko argitaraldia.
- 1971: «Aitzin-solasa», in Jean Hiriart-Urruty: *Mintzaira, aurpegia: gizon*. Oñati-Arantzazu: Jakin.
- 1982 (erabilitako iturria 1989): «Avant propos à une importante réédition», in *Elkar-lanean* 1982, I-VII. or.
- LANDERRETXE, MARTIN, 1905: *Aphurka zahar eta berri, ahurtara bat eskuararen alde*. Baiona.
- LARAT, JEAN, 1973: *La tradition et l'exotisme dans l'oeuvre de Charles Nodier (1780-1835)*. Genève: Slatkine Reprints (iturria Patri Urkizu, 1992a).

- LASA, JOSE IGNACIO ET AL., 1968: *Sobre la Enseñanza Primaria en el País Vasco*. Donostia: Auñamendi.
- LARRALDE, JEAN BAPTISTE, 1864: «muthil-zaharra», in *Anton Abbadiaren koplarien guduak*, Urkizu 1997c: 201.
- LATREILLE, A., 1962: *Histoire du Catholicisme en France*. III. liburukia. Paris.
- LÉCLUSE, FLEURY, 1826: *Manuel de la Langue Basque*. Baiona.
- LEWY D'ABARTIAGUE, 1895: *La question basque*. Bordele.
- 1896: *Lehen eta orai. Errepublikaren ongiak*. Pau: Garet.
- LHANDE, PIERRE, 1910: *L'émigration Basque*. Paris: Nouvelle Librairie Nationale. Erabilitako iturria: 1984ko berrargitalpena. Donostia: Elkar.
- LOTI, PIERRE, 2000: *Cuaderno de notas. País vasco. La visión de un mundo que terminó en el diecinueve*. Gaztelaniazko itzulpena, Vicente Clavelena. Donostia: Roger editor.
- MAISTRE, JOSEPH DE: *Études sur la Souveraineté*.
- 1810: *Ensayo sobre el principio generativo de las constituciones políticas*.
- MARX, KARL, 1931: *Oeuvres complètes*. VIII. liburukia. Paris. Iturria Urkizu 1992: 47.
- MAURY, ALFRED, 1857: *La terre et l'homme*. Paris: Hachette et comp.
- Messenger de Bayonne (Le)*: 1853-IX-13, 15; X-6 (346 zkia); 1854-II-10; III-13; IX-12; XII-30; 1855-XII-6; 1856-III-1; IV-17, 19; V-31; VI-15; VII-16; IX-4, 22, 18; XI-15; 1857-IX-22; 1859-X-13.
- MICHEL, FRANCISQUE, 1857: *Le pays basque, sa population, sa langue, ses moeurs, sa littérature et sa musique*. Paris: Didot frères.
- MICHELENA, LUIS, 1960: *Historia de la Literatura Vasca*. Madrid: Minotauro.
- 1984: Sarrera in J. Vinson *Bibliographie de la Langue Basque*, 1984ko berrargitalpena.
- MICHEU-PUYOU, J. 1965: *Histoire électorale du département des Basses-Pyrénées sous la III<sup>e</sup> et la IV<sup>e</sup> République*. Paris.
- MINOGUE, K. R. 1967: *Nationalism*. New York: Basic Books.
- MITXELENA, SALBATORE, 1958: *Unamuno ta Abendats*. Baiona: Imprimerie Darracq.
- MOREAU, R., 1970: *Histoire de l'âme basque*. Bordele: Taffard.
- MOULIER-OXOBI, JULES, 1913: «Gaiten eskuaraz mintza», in *Boz-oihu, Deidar! Nigar*. Baiona. Iturria: Labayru (mold.), 1999: *Euskararen goramenak. Literatura hautapenak*, 48-9. or.
- 1915: «Bizi bedi eskuara», in «Alegiak eta poemak», in *Euskal Erria*. Bilbo. Iturria: Labayru (mold.), 1999: *Euskararen goramenak. Literatura hautapenak*, 50-1. or.

- MUJKA, GREGORIO, 1919: Oñatiko Kongresuko akta-idazkien *Kronika* (7-33). Bilbo: Eusko Ikaskuntza/Bilbaína de Artes Gráficas
- NÉRÉ, JACQUES ETA BESTE: *Précis d'Histoire Contemporaine*. Paris: Presses Universitaires de France. Erabilitako bertsioa, gaztelaniazkoa, 1977: *Historia Contemporánea*. Bartzelona: Labor.
- NICOLAÏ, ALEXANDRE, 1899: «Basques d'autrefois. Pages d'histoire», in Elkar-lanean *La Tradition au Pays Basque*, 1982 (erabilitako iturria 1989) 141-64. or.
- OIHARZABAL, BEÑAT, 2006a: «Linguistique et anthropologie: la langue basque entre primitivisme et darwinisme linguistique dans la seconde partie du XIX<sup>e</sup> siècle». Baionako 2006/05/16-17ko kolokioa. *Bayonne: carrefour de langues et cultures*.
- 2006b: «Lardizabalen gramatikaren iturri, ezaugarri eta helburuak», in Gramática Vascongada. Frantzisko Inazio Lardizabalen 1856koa, 2006an Gipuzkoako Foru Aldundiak berrargitaratua. Baita in *Euskera* 2006, 1: 105-18.
- OLABEAGA, I. SALLETARRA, 1959: «Michel Elizanburu, anai Inozentio Salletarra», in *EGAN* 1959, 142-54.
- ONAINDIA, SANTI, 1974: *Euskal Literatura III*. Bilbo: Etor.
- PÉCAUT, FÉLIX, 1880: «Le Pays Basque», in *Rapport d'inspection générale sur l'académie de Bordeaux*. Bordeaux, Imprimerie nationale.
- PEILLEN, TXOMIN, 2003: «Errelijionearen etsaiak Intxausperen libürüan», in *Euskera* 2003-2, 555-68.
- PETIT, CHARLES, 1899: «Antoine d'Abbadie», in elkar-lanean *La Tradition au Pays Basque*, 1982 (erabilitako iturria 1989), 539-60. or.
- PHILLIPS, HOFRATH GEORG, 1870: *Über das baskische Alphabet*. Viena.
- RECLUS, ELISÉE, 1867: «Les Basques, un peuple qui s'en va», in *Revue des Deux Mondes*. Gaztelaniazko itzulpena M. Angiozarrena, in *RIEV* 1929, 57-83. or.
- RIBARY, F. 1871: *Essai sur la langue basque*. Paris: Vieweg.
- ROGER, arg., 2000: Pierre Loti, *El Pais Vasco*. Vicente Clavel-en itzulpena. Donostia: Bibliomanias.
- SALABERRY «D'IBARROLE», M., 1856: *Vocabulaire des mots bas-navarrais, traduits en langue française...* Baiona: Vve. Lamaignère.
- SALLABERRY, J. D. J. 1870: *Chants populaires du Pays Basque*. Ikus bereziki sarrerako «Quelques observations indispensables au sujet de l'orthographe employée dans ce recueil». Baiona.
- 1889: *Uskalduner. Bethi aitzina, chuchen chuchena dabila uskalduna*. (Mauleko kontseiluaren buru lehena Berdoliren alde). Pau: Garet.
- 1899: «Les mascarades souletines», in *Elkar-lanean* 1982 (erabilitako iturria 1989ko bigarren argitaraldia), 265-80. or.

- SCHLEICHER, AUGUST, 1863: «Die darwinistische Theorie und die Sprachwissenschaft. Weimar: Böhlau.
- Société de Linguistique, 1895: «Procès verbaux des séances du 6 avril au 22 juin 1895», in *Bulletin de la Société de Linguistique*, 40. zkia., XXXVI-II. Jasoia in Urkizu arg. 1997b: 446.
- TAUZIA, PIERRE, 1973: «La III<sup>e</sup> République et l'enseignement religieux en langue basque (1890-1905)», in *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, nouvelle serie*, 129. zkia, 367-84. or.
- : «Les difficultés entre l'Eglise et l'Etat, dans le diocèse de Bayonne, a la veille du Ralliement»,.
- TOUYROU-PHAGABURU, 2007: *Gracian Adema Zalduby (1828-1907)*, in *Bidegi-leak bilduma*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- TYLOR, EDWARD B., 1871: *Primitive Culture*.
- URKIZU, PATRI, 1992a: *Agosti Chahoren bizitza eta idazlanak, 1811-1858*. Bilbo: Euskaltzaindia-BBK.
- 1992b: «Antoine d'Abbadie y el resurgir literario vasco en la segunda mitad del siglo XIX», in *Jornadas de lengua y literatura catalana, gallega y vasca*, 85-99. or. Madrid, UNED.
- URKIZU, PATRI, arg., 1992: *Agosti Chaho. Azti-begia eta beste izkribu zenbait*. Donostia: Elkar.
- 1997a: *Antoine d'Abbadie. Pensées, études et voyages de 1835*. Donostia, Eusko Ikaskuntza-Euskaltzaindia.
- 1997b: *Antoine d'Abbadie. Recueil de textes ethnographiques, géodésiques, linguistiques et littéraires*. Donostia, Eusko Ikaskuntza-Euskaltzaindia.
- 1997c: *Anton Abbadiaren koplarien guduak*. Donostia, Eusko Ikaskuntza-Euskaltzaindia.
- 2002: *Anton Abbadia 1810-1897: Biografia* saioa. Bilbo, Bilboko udala.
- Urquijo, Julio, 1910: «Cartas escritas por el Príncipe L. L. Bonaparte...», in *RIEV* IV.
- URRUTIA, ANDRES, 2003: «Hitzak lege: euskara, XIX-XXI. mende artean», in *Euskaltzaleen Biltzarraren Mendeurrena*, 163-73.
- VAN EYS, W. J., 1867: *Essai de grammaire de la langue basque*. Amsterdam.
- 1873: *Dictionnaire Basque-Français*.
- 1879: *Grammaire comparée des dialectes basques*.
- VIARDOT, LUIS 1836: *Revue des deux Mondes*, Paris 1836-X-1. 82. or.
- VIAUD: ikus LOTI, PIERRE.
- VILLASANTE, FR. LUIS, 1979 (2. argitaraldia): *Historia de la Literatura Vasca*. Burgos: Editorial Aranzazu.




- VILLASANTE, FR. LUIS (prest.), 1982: (*Etienne Lapeyre-ren*) *Kredo edo Sinhes-ten dut esplikatua*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- VINSON, JULIEN, 1870a: «Premier essai sur la phonétique basque», in *RLPhC* IV, 118-27.
- 1870b: *Concours de poésie basque à Sare en 1869*. Paris: Maisonneuve et C<sup>e</sup>.
- 1874: «Sur la méthode de la science du langage et de ses applications à la langue basque», in *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres & Arts de Bayonne*, 37-43 & 49-57.
- 1882: *Les Basques et le Pays Basque*. Paris.
- 1883: *Le Folklore du Pays Basque*. Paris.
- 1891 (erabilitako alea 1984koa): *Bibliographie de la Langue Basque*. Paris: Maisonneuve.
- 1898 (erabilitako alea 1984koa): *Bibliographie de la Langue Basque Additions et corrections*. Paris: Maisonneuve.
- WEBSTER, WENTWORTH, 1877: *Basque legends*, (2. argitaraldia 1879an). Londres: Griffith & Farran. Erdal itzulpena, 1989an: *Leyendas vascas*. Madril: Miraguano ediciones. Euskal edizioa, Xipri Arbelbidek paratua eta Kriseluk gitara emana, 1993koa.
- 1883: «The national song of the Basques (with a letter from A. d'Abbadie)», in *The Academy*, 1883-VI-23, XXIII, 421-40. or.
- 1893: «M. d'Abbadie's gifts go to the Institute», in *The Academy*, 1893-X-21, 1120 zkia, 345-6. or.
- 1899 «Les Pastorales Basques» in *Elkar-lanean* 1982 (erabilitako iturria 1989), 243-61.
- 1900: Pierre d'Urteren *Grammaire Cantabrique Basque*. Bagnères de Bigorre.
- 1901: *Les loisirs d'un étranger au Pays Basque*. Chalons sur Saône.
- ZALBIDE, MIKEL, 1988: «Mende-hasierako euskalgintza: urratsak eta hutsuneak», in *II. Euskal Mundu Biltzarreko Euskara Biltzarra. Hizkuntza eta Gizartea*, 389-412. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- 2003: «Hendai-Hondarribietako biltzarrak: XX. mendeko hizkuntz plangintzaren iturburu», in *Euskaltzaleen Biltzarraren Mendeurrena, 1-134*. Bilbo: Sabino Arana kultur elkargoa.
- 2007: «Pedagogoa Batzar Nagusietan. Hizkuntzen azterbideak, Iturri-garen argitan», in *Euskera* 2007, 1, 61-157.
- ZALBIDE, MIKEL ETA ARANTZAZU MUÑOZA, 2006: «Lardizabal eta bere gramatika, perspektiba soziolinguistikoan», in *Lardizabal, Gramática Vascongada*, 2006ko berrargitalpena. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- ZUAZO, KOLDO, 1988: *Euskararen batasuna*. Bilbo: Euskaltzaindia.

**LABURDUREN ESANAHIA**

- AB:** Charritton, Piarres, 1986: «Resurreccion Maria de Azkue eta Pierre Broussain-en arteko elkarridazketa», in *Iker-4*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- EGIPV:** *Enciclopedia General Ilustrada del Pais Vasco*. Donostia: Auñamendi.
- KN:** Bengoetxea, Ales, 1991: «Gratien Adéma», in Adéma Zalduby, *Kantikak eta Neurtitzak*, 5-23.
- LGEV:** *La Gran Enciclopedia Vasca*. Bilbo: Retana editores.
- OEH:** *Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia-Desclée de Brouwer.
- PB:** Charritton, Piarres, 1985a: *Pierre Broussain. Sa contribution aux Études Basques (1895-1920)*. Bordeaux: Centre Regional de Publication. Editions du Centre National de la Recherche Scientifique.
- RIEB:** *Revue Internationale des Études Basques*.
- TP:** Touyrou-Phagaburu, 2007: *Gracian Adema Zalduby (1828-1907)*, in *Bidegileak* bilduma.

**GRATIEN ADEMA «ZALDUBY»ren  
JEUS POEMAZ IRUZKINAK**

*Patri Urkizu*



Jesus!

Asko gizon ezok uste dute munduan  
 ez dela seculan jesuskin serbait egini;  
 Hetaz trufateko, ni' eman dut berriari  
 serbait beren jullit egiten jesuskin

Jesu escezagorek! Don bat gairu berriari  
 Hara jesus gabe, egun diruz betea e!  
 Ez jesus sek ussual hitu dituz tenear,  
 Hara nik jesuskin egiten du berriari

Ez dute gaitenko jesus egiten ez badituz.  
 Jesus gabe nunkiena jesus gabe nait egiten.  
 Ditu behar ko: jesus eharri, gairu gaituz,  
 Baiman hitz egelek ez daituz jesus egiten.

Egiten badituz, zer zoria neretuz!  
 Jesusk ez dait lana, zena guziak jesusk;  
 Aipatu ko naitu gizon abil batentuz,  
 Hara munduan jesus amasagorek.

Zer da hitz orain? jesuskin behar bada  
 Ustia ta makia, daituz irabaziko.  
 - adia k nait naitu mientarai ten bostuz,  
 Baiman, eizez, ez da jesusin adateko.

Zehituzen nait. Ez dait jesus hituz gehiago,  
 jesus hantuzik ezan gabe dait abatean,  
 Baiman nise daituz ez badu jesus hituz,  
 Naitu berriari ez du naituz egiten.

Zorra, zer ditz!... Berran hantuz jesus hituz!  
 Jausa egun ta jesuskin egin daituz,  
 Bada nik ez nait jesus naituz gehiago:  
 Hara naituz jesus eslas ez orain.

ez jesus hituz!

## JEUS

1. Asko gizon zozok uste dute munduan,  
Ez dela sekulan *jeusekin* zerbait egin.  
Hetaz trufatzeko nik eman dut buruan  
Zenbait bertsu pullit egitea *jeusekin*.
2. *Jeus* errexagorik! Zenbat gaizo lurrean,  
Atzo *jeusen* jabe, egun diruz betheak!  
Ez*jeus* hek urreak bildu dituztenean  
Aise nik *jeusekin* eginen tut bertsuak.
3. Ez dut galduko *jeus* egiten ez baditut,  
*Jeus* gabe nintzena, *jeus* gabe naiz egonen,  
Aditu beharko: *Jeus* ehaiz, gaizo petut!  
Bainan hitz ergelek ez dautet *jeus* cgiten.
4. Egiten baditut, zer zoria neretzat!  
*Jeusik* ez zait lana, pena guziak *jeusik*.  
Aiphatuko naute gizon abil batentzat!  
Othe da munduan *jeus* arraroagorik?
5. Zer dakit oraino? *Jeusek* behar bada  
Untza ta makila ditut irabaziko.  
Nahiak nau naski mintzarazten horrela,  
Bainan zinez, ez da *jeuseri* fidatzeko.
6. Ixiltzen naiz. Ez zait *jeus* heldu gehiago.  
*Jeus* handirik erran gabe dut akabatzen  
Bainan nere kantak ez badu *jeus* balio,  
Nihori bederen ez dio minik eginen.
7. Zoroa, zer diot!... Bertsu hauk *jeus* balio!  
Gauza segura da *jeusez* egin tudala,  
Bada nik ez nuen *jeus* nahi gehiago,  
Urus nahietan *jeus* eskas ez duena!

Ez *jeus* bat.

Arratsaldeon denoi;

Duela aspalditxo, Salamankako Unibertsitatean Anaya jauregian ikasle nintzela, Pedro Agerre «Axular» baino lauhunbat urte geroxeago, Fernando Lazaro Carreter, Real Academia de la Lengua Española-ko Presidentea izango zenak, eta irakasle kuttun nuenak, Charles Baudelaire-ren *Les Correspondances* hamalaukoa komentatzen zigularik, non *Les parfums, les couleurs et les sons se répondent* bezalako bertsoez jakintsu mintzo zitzaigun honakoa zioen, alegia, poema bat ongi irakurria bada jada berez komentatutzat jo dezakegula.

Halaber, Koldo Mitxelenak hiri gogoangarri hartan ere irakasle izan nuenak, behin baino gehiagotan esaten zuen, testuak lehenik konprenitu egin behar direla zer dioten hitzez hitz, literalki, eta geroko komentarioa, batipat, *florituraz*, hots, hornimenduak zirela. Hau da, filologo klasikoek bezala, garrantzirik handiena testuaren ongi konprenitzeari ematen zion.

Badira ere beste bi hastapen nagusi literatur kritika tradizionalen. Bat, testu hori zein kontestutan kokatzen den eta hau ongi interpretatzen saiatzea, honek argi baitiezaguke dituen esanahietarik zenbait, eta bi, zein tradizioi darraikon nabarmentzea eta nolako lekua daukan tradizio horretan agertzea.

Lot gakizkion bada gaiari galdera horiei ahalik eta ihardespren zehatzenak ematen saiatuz.

**Gratien ADEMA «Zalduby»** -ren bizia eta lanak aztertzen zenbait euskal kritikari izan ditugu. Lehenetarikoa Jean Baptiste Daranatz (1) izan zen duela mende bat Julio de Urquijok zuzentzen zuen RIEV (Revista Internacional de Estudios vascos) errebistan.

Geroago datozkigu Pierre Lafitte (2), Piarres Xarritton (3) *Mundaiz* Donostiako jesuiten aldizkarian eta Alex Bengoetxea haren *Kantikak eta neurtitzak* plazaratuz (4). Azkenetarikoa Xabier Altzibar izan da hark 1899an *Eskualduna* astekarian *Art poétique basque* berrargitaratzean *Lapurdum*, Baionako errebistan (5).

Hona laburzki eta xumeki emana bertan diotena Ademaren bizi zertzeladei buruz.

Gratien Adéma Goyeneche 1828ko apirilaren 14ean sortu zen Senperen eta 1907ko abenduaren 10ean hil. Larresoroko apezgaitegian ikasle gisa ibili zen, bertan Jean Baptiste Elissambururen adiskide egin zelarik, biek bertsozale amorratuak izaki. Garai hortakoak dira bada, elkarrekin moldatu Zumalakarregiri eta Betiri Santsi buruzko bertsoak. Istudioak bikain igaro eta 1833ko abenduaren 17an apeztu zen. Urte bat eman zuen Larresoron irakasle, eta ondoren Hazparnen 1854-60ko epean apaiz laguntzaile.

Bertan kolera izurritea zelarik denen aldeko laguntzan nabarmendu zen. Bai, halaber sermoilari iaio eta umore handiko bezala. Garai honetako Ixto-

(1) Jean Baptiste Daranatz, «Le Chanoine Adéma», RIEV, 1908, 121-124.

(2) Pierre Lafitte, *Parmi les compositeurs de cantiques basques. M. le Chanoine Gratien Adéma (1828-1907). M. l'abbé Jean Barbier (1875-1931)*. La Presse, Bayonne, 1933, 6-26.

(3) Piarres Charritton, «Gratien Adéma-Zalduby-ren bizia ta lanak (1828-1907)», *Mundaiz* 29, 1985, 47-53.

(4) Gratien Adéma Zalduby, *Kantikak eta Neurtitzak*. Klasikoak 47. Alex Bengoetxearen edizioa. Gero, Zarautz, 1991.

(5) Xabier Altzibar, «Art poétique basque Adema “Zalduby”rena». *Lapurdum* III. Études Basques. Bayonne, 1998, 77-101.

riotxo bat kontatzen du *Eskualdunako* idazle batek hura hil ondoren. Alegia, herrian Jaun Gose eta andere Egarria, hots, Manex Tturia esposatu zelarik honako aholku hitzak zuzendu zizkiela esposatu berriei:

Jaun andere espos maiteak, egun hemen enekin duzue egitekoa. Bihar goizetik harat ukhanen duzue eiherazainarekin (6).

Hazparne utzi, –hemengo apez izango ziren ere urte asko beranduago Piarres Larzabal eta Emile Larre idazle bikainak– eta Bidarrain (1860tik-1872ra) eta Atharratzen (1872tik-1890era) erretore lanetan eman zituen urteak, eta azkenik Baionan kalonje tituluduna izan zen 1890etik 1907an hil zen arte.

Apez lanek uzten zioten nonbait idazteko astirik eta izkiribatzeari gogoz eta zentzuz heldu zion. Nor zen egilea estaltzearen erabili zituen alegiazko izen zenbait berak moldatu bertsoak izenpetzeko, eta pseudonimo hauek honakoak dira: *Hergaraya*, *Senperetarra*, *Piarres Uxaleguy*, *Ignazio Harambeltz* eta *Zalduby Artzain Beltcha*.

Bertsoez aparte idazten zituen, noski, bestelako lanak, eta bai batzuek eta bai besteak *Pabeko Revue des Basses Pyrénées et des Landes*, *Euskal Erria*, *La Semaine de Bayonne*, *Bulletin Catholique du Diocèse de Bayonne*, *Eskualduna*...aldizkari eta errebistetan plazaratzen joan zen, baina bertso paperetan ere bai, frantsesez deitu *feuilles volantes* delakoetan. Elizako gaiak ez zituen noski ahantziarik liburuttarik ere inprimatu baitzuen hala nola:

1875ean Jubilau urthe sainduan Bazco biharamun eta hirugarrenean Lourdesen eta Betharramen Escual herritik pelegrin cirenen othoitzapena. Bayonne, Lamaignère 1875.

Dena den, moldatzen zituen Alegiak zirela eta deitu izan zuten *le La Fontaine basque*, hots, La Fontaine euskalduna. Egiteko horretan aitzindari izan zituelarik Mogeldarrak, Juan Mateo Zavala, Jean Baptiste Archu, Martin Goyetche, eta ondokorik ere ez zitzaion faltatu, hala nola, Jose Artola, Karmelo Etxegaray eta Jean Moulier «Oxobi», besteak beste.

Hona Jean Etcheparek utzi zigun haren iduria, jada zahartuxea zelarik:

guti dugu ikusi adin hartako xahar hain lirain xut gorarik, ile xuri nasai batzuek bere begitarte arrai xuhaila eztiagotzen zakotelarik oraino eta iduri gaztetzen. Jauntzitik hiritar emaiten zuen, edo bederen etxeko seme handi. Ibilgunean bazuen Eskualdun menditarrek bakarrik daukaten halako zalhu arinkeriarik gabeko zerbeit. Eskuak hain eder eta gurbil zauzkan, non berehala ezagun baitzen zer tresna zerabilaten eta nola. Azken bizpahiru urtetarat bizkitartean adinak urritua zakon urhatsa, burua lurrerat ukurtu gabe hargatik. Gaitz zerbeit zintzurri lothurik, erlastua ere zen, haren entzutea orozbat goxo eta bitxi baitzitzeien orori (7).

(6) «Zalduby», *Eskualduna*, 1908-I-10.

(7) Alex Bengoetxea, aip ed., 8.

1908an RIEV-en argitaratu zirenean Adema kalonjearen bertsoak honako sailetan banatu zituzten:

- I Eskual Herriko Eliza Bestak.
- II Pilotariak.
- III Cantiques sur le catéchisme.
- IV Cantiques.
- V Fables.
- VI Autres poésies profanes.
- VII Chants patriotiques.

Bengoetxeak, aldiz, edizioa prestatzerakoan haren lan poetikoa hiru partetan zatitu du:

- I KANTIKAK (XXXI).
- II ARTZAIN BELTXAREN NEURTHITZAK (XVIII). Eta
- III BERTZE GISAKOAK (XXI).

Orotara 70.

Bengoetxeak burutu edizioko zenbait testu, adibidez, *Artzain beltzaren neurthitzak* eta III. Sailekoak, aspalditxo kopiatu nituen Pariseko Liburutegi Nazionalean eskuz, oraindik mikrofilmik ez zegoenean (FCB MS n° 106), eta konparatuz esan behar dut, ohi bezala kantez aldaera dezente dituztela, kome-niko lirakeenak edizio kritiko bat egitean biltzea. Adibide gisa hona nola dioen Bengoetxeak eman tituluak:

CHENELON JAUN ZENATURRARI ETA HAREN /KONPAINIARI /  
BAZKAL ONDOKO USAIA XAHARREKO KOPLAK./ Sei pondutako erdi  
laxotan G. Zaldubik pharatuak.

Eta hona daukadan eskuzkribuaren kopiak dioskuna:

1891.an, urriaren 13an, Hazparne Barrandegian, / Chesnelong jaun zenaturrari eta haren kompainiari, / Bazkal ondoko usaia chaharreko koplak / sei pontutako erdi lachotan Zalduby chaharrak emanak.

Bestalde, Julen Urkiza karmeldarrak jasorik ditu katalogo eder batean *Aldizkari eta Egunkarietako Euskal Bertso eta olerkien bibliografia* (8) eta bertan 111 poema ezberdin ageri zaizkigu zerrendatuak. Halaber Interneteko <http://urkiza.armiarma.com> sarrerak 226 bertso aipatzen dizkigu baina kopurua ez da kanta ezberdinei dagokiona, baizik argitarapenei.

Dena den, guk hemen gaur aipatuko eta komentatuko dugun poema eta bertsoak ez dira ageri zerrenda horietan, neronek argitaratu nuen Patxi Intxau-

---

(8) Julen Urkiza, *Aldizkari eta Egunkarietako Euskal Bertso eta olerkien bibliografia*. Markina-Xemein, 1999.



rrendietak kanten doinuekin eta Piarres Xarrittonek koplarien biografia laburrekin lagunduz *Anton Abbadiaren koplarien guduak. Bertso eta aire zenbaiten bilduma 1851-1897* liburuan baizik (9).

Baina zein izan zen Ademak erabili zuen Poetika bere bertsoak paratze-rakoan?

Euskal Literaturaren Historian Poetikaz eta bertso moldegintzaz iritzi ezberdinak izan ohi dira. Kontutan hartzen badugu Ademak berak *Eskualduna*-n frantsesez 1899ko urtean otsailetik irailera plazaratu artikuluetan eman zituela bere iritziak «Art poétique Basque» delako batean, horixe dugu aztertuko aurreko eta ondokoan iritziekin konparatuz.

Lehenetarik Arnaud Oihenart genuke 1665ean Lapurdiko apez bati bere iritziak gutun batean emanez. Piarres Lafittek plazaratu zuen lehenik 1967an (10) *Gure Herria* argitaletxean, eta geroxeago neronek Oihenarteren mendehurrenean euskaratu eta zenbait oharrez hornitu (11), hots, bertan aipatzen diren egile latinezko, frantses, italiano eta gaztelaniazkoen bibliografia emanez. Gutun horretan Oihenartek Beñat Detxepare kritikatu zuen, azpimarratuz amodiozko bertsoak, *assés mal seans a un ecclésiastique*, hots, aski errespetu gutxiak zirela apez batek emanak izateko. Eta bere mendekoa zen Joanes Etxeberri Ziburukoak, berriz, gehiegizko lizentziak zerabiltzala, *dautre licences exorbitantes*. Kasu honetan kritika ez zegokion moral arloari formari, estrofei eta errimari baizik

XVII. mendean bada bizkaitar bat mende erditsutan poesia egiten zen moldeaz eta antzeaz ere mintzo zaiguna. Rafael Micoleta apeza dugu, «Modo de la vizcayna poesia y sus versos» kapitulu prestatu zuena 1653. urtean (12). Bertan esaten digu bi poesia mota daudela, eta gaztelaniazko erromantzeen araberakoa, 7-6, et 10-8, silabakoak. Bigarren honi buruz dio: *El otro es más largo a modo de soneto; y se canta de ordinario por el son que llaman, las vacas, y aunque es a modo de soneto, también se compone por assonantes. Las vacas* delako doinu hori jadanik 1577an jasoa zuen Francisco Salinas (13) musikari itsu eta Salamankako irakasleak zenbait aldaerarekin batera.

XVIII. mendean, 1729an prezizki, Manuel Larramendik «De la poesía bascongada que está al uso» deitu kapitulu ere musikaren garrantziaz euskal poesian dihardu, modu honetan:

(9) Patri Urkizu (ed.), *Anton Abbadiaren koplarien guduak. Bertso eta aire zenbaiten Bilduma 1851-1897*. Euskaltzaindia-Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1997, 244.

(10) Pierre Lafitte, *L'Art poétique basque d'Arnaud d'Oyhénart. Gure Herria*, Bayonne 1967.

(11) Patri Urkizu, «Arnaud Oihenart: L'Art Poétique Basque (1665)», (Itz.), *Hegats*, 7, 1992, 34-59.

(12) Rafael Micoleta, «Modo de la vizcayna poesia y sus versos», *Modo de aprender la lengua vizcayna*. Bilbao, 1653. Ed. E.S. Dodgson, Sevilla, 1897, 33-34.

(13) Francisco Salinas, *De Musica libri septem*. Salamanticae, Mathias Gastius, 1577.

antes el poeta componía su metro con todos los primores y gracias del númen, con fantasía, con ingenio, con admirables pensamientos, y luego se le acomodaba el tono y la música en que daban mayor golpe los conceptos del metro, y así venía á ser el verso mejor y más estimable que la música. Ahora es al contrario, porque el compositor inventa a placer la armonía de la música, y después como para darla cuerpo en que subsiste tanta alma se compone la letra; y por eso es el verso lánguido y la música tan varia, airosa y divertida (14).

Argi dago ohitura hau izango dela nagusi ere XIX. mendean. Duela hogei urte plazaratu nuen Baionako Euskal Museoko 1798ko bilduman (15) honelakoak zieten poemen tituluei jarraituz, *A airean, Bertze aire berri batean E...* Halaberetsu Lafittek (16) ezagutarazten dizkigunean Salvat Monho (1749-1821) izturiztarraren bertsoak hauek ere honako aireetan daude moldatuak: *Ah! Vous dirai-je, maman; Dans cette étable...; Sur la marche du Régiment de Perche*, eta beste.

Ez da harritzeko, bada, Anton Abbadiak 1851ean hasten denean bere Koplarien Guduak antolatzen eta saritzen ezarri zituen baldintzek tradizioaren legeei jarraituz bazizkieten, eta honela A. de Larralde-Diustegui baldarapehazak sinaturiko deian Urruñako herriko etxean 1853ko agorriaren 29an honakoa zioen iragarkiak:

pilota partida baino lehen, izanen da goraki ezagutarazia phertsuetako gu-  
duan garaia eraman duena, eta hark egin phertsuak izanen dire kantatuak herriko  
gizon gazte hortarako berexi eta irakhatsiez, zoinekin aldizkatuko baita musikari  
gorphutz bat eta ondoan, phertsuetan garaitu duenari emanen zaizko, Antonio  
d'ABBADIE jaunaren partezko untzako urrea eta ohorezko makhila.

Eta parte hartzeko baldintzak plazaratu ziren ere Baionako *Le Messager*-  
ean hala nola Pabeko *Le Mémorial des Pyrénées*- ean, hots, abesbatz batek  
kantatu behar zituenez eta gizakiaren oroimen ahalmena laburra zenez, gehie-  
nez berrogeita hamar bertsoleerrokoa behar zuela izan kantak. Hau da, gutxi  
gora behera, 12-13 lauko (17).

Zaldubyk parte hartu zuen Abbadiak antolatu norgehiagoka horietan  
frangotan. Hona hemen urte eta aurkeztu kanten tituluaren zerrenda:

1853ean *Ameriketako bidean* deitu kantarekin.

1854ean *Ohore Laborantzari*, izenekoarekin.

(14) Manuel de Larramendi, *El Imposible Vencido. Arte de la lengua Vascongada*. 2ª Ed. I. Ramon Baroja, San Sebastián, 1886, 226.

(15) Patri Urkizu (ed.), *Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma (1798)*. Durangoko Udala, 1987.

(16) Pierre Lafitte (ed.), *Poèmes Basques de Salvat Monho (1749-1821)*. *Présentés, transcrits, traduits et annotés* par... Ikas, Bayonne, 1972.

(17) Patri Urkizu (ed.), *Anton Abbadiaren...*aip. lib., 15.

1859ean *Zenbat hitzuntzi!* kantarekin, zein *Hau da Ikhasketako mando-aren traza*, doinuaz moldatu zuen. Eta *Pilotaria gaztea*, biak aipamena merezi izan zutenak.

1867an *Amazo* eta *Mehetegiko xakurra* kantekin.

1869an *Ez du sosak egiten zinezko gizona* poemarekin eta

1871an *Jeus* poemarekin. Urte honetan 26 poema aurkeztu ziren, eta lehen saria Jean Baptiste Elissamburuk irabazi zuen *Xori berriketaria* kantarekin.

1873an *Bildotxa eta otsoa* alegiarekin, zeinak lehen saria merezi izan zuen. *Belea eta axeria*.

1874an *Bettiri Sants*.

1876an *Biba Republika!* kantarekin.

1887an *Beharra eta ahala*; eta *Mihizlariak* kantekin.

Eta, azkenik

1893an *Gauden euskaldun* kantarekin, Azpeitian eman zena, eta zeinen errepika aspalditxo ikasi genuen, arrakasta izugarria ukan baitzuen Euskal Herri osoan. Honela hasten zen:

Zazpi Eskualherriek bat egin dezagun

Guziak bethi, bethi, gauden gu Eskualdun (18).

Baina itzul gaitezten *Jeus* poemara. Ademak honako sarrera hitzekin igorri zituen bertsoak:

Monsieur,

L'auteur de la boutade suivante voudrait concourir pour le prix accordé par M. d'Abbadie à la meilleure chanson basque. Je vous prie de la faire passer aux messieurs du jury d'examen.

Jean Duvoisin kapitainak (Ainhoa 1810-1891), Emmanuel Inchauspe (Atharratze 1815- Omizegañe 1902) eta Maurizio Harriet (Haltsu, 1814-1904) apezekin parte hartzen zuen maiz epai-mahaian, eta Baionako *Le Courier* deitu gazetan ematen zuen Lore Jokoen gorabeheren berri. Aurkeztu bertso paperaren ertz batean honakoa irakur daiteke: *Morceau original, jeu de mots d'un bout à l'autre, bon à lire* (19).

Alegia, on zela irakurtzeko hasieratik bukaeraraino, baina ez zuten saritu Adema, eta bai Elissamburu. Beste zenbait bertso zokoratuak izan ziren *sans*

(18) Alex Bengoetxea, aip. lib., 166-168.

(19) Patri Urkizu, Aip. lib., 28.

*valeur* oharra ezarri zietelarik goi partean, hala Juanes Berges saratarrak burutu *Gerla* tituludunari, nola Jean Chetre Hazparneko zapatagileak bidali *Galde onari prest da bethi hescalduna* bertsoleerroaz hasten zenari, adibidez. Hurrengo urtean, 1873an aldiz, esan bezala, berriro saiatu zen Adema eta saria merezi izan zuen *Hergaray* ezizenez aurkeztu *Bildotxa eta otsoa* alegiatatik. Azkenean urrezko ontza eta makila lortu zituen, bada, eta hona Ademak Atharratzetik irailaren 20an Anton Abbadiari idatzi zion gutuna esker ona adieraziz

Monsieur,

J'ai été extrêmement flatté du cas que vous avez bien voulu faire de mes deux si petites et si simples pièces. J'avais cru devoir me voiler aux yeux du public surtout sous le pseudonyme de *Hergaray*, qui est la désignation cadastrale de mon quartier natal à St. Pée; mais Monsieur le chanoine Inchauspe m'a dit qu'il vous avait confidentiellement déclaré mon vrai nom. Votre visite ainsi que celle de M. le Capitaine Duvoisin me fut annoncée par mon frère pour mercredi à St. Pée. C'eût été de votre part plus que doubler et l'honneur et la récompense. Votre fidèle commissionnaire porteur du splendide makhila et de l'once traditionnels, m'expliqua l'erreur du volturier, qui nous avait fait manquer la voie de St. Pée. Il me dit aussi la bonne envie que vous eûtes de reculer quand même d'Ascain jusqu'à chez moi. Pour le coup, jamais été désolé d'avoir été cause de tant de peine. Voyez si je méritais tant d'attentions, puisque je suis homme à avoir différé jusqu'aujourd'hui l'expression de ma reconnaissance. Un devoir de coeur, un devoir d'honneur ainsi retardé m'embarasserait bien si j'osais alléguer la moindre excuse.

Recevez, Monsieur, les hommages bien respectueuses de votre humble serviteur

G. Adema (20).

Garai horretan bertan, XIX. mendea aitzinatua zelarik, Jose Ignazio Arana jesuitak idatzi zuen *Arte métrica de la lengua bascongada* (1872) delakoa Patxi Altunak ehun eta hogeitau urte geroago argitaratua. Eta bertan bertsomolde, estrofa mota ugari aurkezten zituelarik sarrerako hitzetan musikaren garrantziaz ziharduen, honelaxe hain zuzen:

Todo verso eúskaro propio es aplicable esencialmente a la música y especialmente a los aires y armonías nacionales del pueblo bascongado. No hay por consiguiente en bascuence, como en algunas otras lenguas, distinción alguna de versos musicales o meramente recitativos. Todos son cantables y por esto eminentemente recitativos y declamativos (21).

Eta ideia hauen ildo berari jarraikiko dio Ademak burutuko duenean bere Poetika eta *Eskualduna* astekarian argitaratuko 1899an. Hona dioena:

**quelques règles de la prosodie ou art poétique basque.**

(20) Patri Urkizu, Aip. lib., 266.

(21) Patxi Altuna (ed.), «José Ignacio Arana, Tratado de métrica vasca (1872)», *Fontes Linguae Vasconum*. Iruñea, 1992, 128.

1. Les Basques n'ont jamais fait de vers qu'en couplets réguliers destinés à être chantés ou même déclamés comme dans les pastorales (22).

Hots, betidanik euskaldunek moldatu izan dituzten bertsoak kantatzeko izan direla, edota deklamatzeko pastoraletan bezala. Baina aipatu betidanik hori zehazten saiatuko da, hurrengo artikuluetan eta hauxe esango digu:

il est bien à présumer que ces règles de la versification basque ne remontent guère au delà du XIIe siècle, et il est probable aussi que les chansons de geste de cette belle époque et particulièrement quelques hymnes rimés de l'Église leur servient de modèles (23).

Gesta kantak eta Eliza joko ditu, bada, aitzindari bezala eta kanten egitekin eredu gisara. Kantatzeko dira ere, besteak beste, poema txinar anitz, Egipto zaharrean moldatzen ziren poemak, hala nola Israelgo himnoak. Aurre-ragoxe dioen bezala, ordea, euskal poesian ematen ari ziren azken jaidurek ez zuten asebetetzen, eta tradizionalista erabatekoa zenez, honakoa salatu zuen, *il se manifeste une fâcheuse tendance vers un modernisme exotique*, hots, modernismo exotikoranzko joera agertzen ari zela azken lore jokoetan. Eta gaitz edo izurrite honen kontrako biderik hoberena, Oxalde Bidarraikoa imitatzea zela, hau baitzen bere hitzak errepikatuz, *le meilleur modèle*.

Jarraiki ote zion berak beti?

Zeren zer esan dezakegu *Jeusi* buruz? 1871an aurkeztu ziren beste guztiakin konparatuz gaiaren aldetik, argi eta garbi, nabarmenki ezberdina dela, ez baitu gaitzat hartzen, ez gerra, ez loreak, ez xoriak, ez donadoak, ez hiritarrak, ez baserritarrak, ez dantzariak, ez andereñoak, ez eliza, ez euskaldunak, ez..., hitz bat baizik: *Jeus*, eta honen inguruan moldatzen du poema.

Egungo Poetika modernoak arakutzen baditugu, ohartuko gara gehiena estimatzen dutena, orijinaltasuna dela, *l'originalité*, eta epai-mahaikoen hitzetan benetan orijinala eta on zen irakurtzeko 'bon à lire', eta kritiko zorrotzak ziren. Ademak atarikoan *boutade* bezala aurkeztu eta seigarren estrofan *nere kanta* gisa aipatu arren, argi dago kantatzeko ez zela moldatua. Ikusi dugun bezala *Jeus* hitzaren gainean moldatu zuen, hogeita hiru aldiz errepikatuz eta hogeitalaugarren aldian *ezjeus* bat bezala sinatzen zuelarik.

Baina orijinala bazen euskal poesiagintzan hala ote mendebaldeko tradizioan, frantses edo gaztelaniazko literaturan, adibidez?

*Ex nihilo nihil fit*, deus ez da deusetik sortzen ahal, hastapenak pentsamendu grekoan du etorkia. Parmenidesen gogoetetan du etorkia, eta Aristotelesen gauza berdintsua zioen, alegia, ezerezatik ezin zela ezer kreatu; eta hastapen hori epikureoek maiz aldarrikatu ohi zuten. Lukreziok ere bere *De natura rerum* obran ideia berari jarraiki zion.

(22) *Eskualduna*, 1899-II-19.

(23) *Eskualduna*, 1899-III-3.

Idazle kristauek, aldiz, Erdi Aroan eta geroago ere sustengatzen zuten, Jainkoak ezerezetik mundua zuela kreatu, eta ezin zezaketen delako hastapenaren alde egin. Hala bada, filosofiaren korronte nagusiaren kontra ez joatearren, bereizten hasi ziren hizkera teologikoa eta filosofikoa, eta bidenabar Santo Tomasek zioen (24), Izaki sortu orok ezin dutela deus sortu, baina berak Izaki direnez gero, sortuak izan direla.

Baina Ilustrazioarekin batera, batez ere, pentsalari modernoek eztabaidatzen eta ukatzen hasi ziren kristau tradizio hori.

Hala zer zioen Frédéric IIak d'Alemberti idatzi gutun batean:

quiconque a bien examiné cette matière (la création) conviendra que si l'on veut respecter les axiomes fondamentaux de la raison, il faut de toute nécessité admettre l'éternité de l'univers. Le système de la création entraîne des absurdités à chaque pas qu'on fait pour l'établir; il faut nier l'*ex nihilo nihil*, que toute l'antiquité respectait.

Hau da, arrazoinaren axioma funtsezkoak errespetatu nahi badira kreazioaren gainean unibertsoaren betikotasuna onartu beharrezkoa dela, zeren eta kreazioaren usteak bere baitan zeramatzan ondorio abstrudoak, eta beraz, antzinakoan lema hura ukatu behar zen.

Eta Argien mendetik aitzina zabaltzen joan ziren ideia berri hauen aurka altxatu zen Célestin Joseph Felix jesuita, erretorika eta filosofiako irakaslea, ospetsua bere hitzaldiengatik Frantzia eta Belgikako katedral nagusietan, sutsu baina era berean dialektika eta doktrina zuzen batez mintzo zena, zein Pariseko Nôtre Dameko hitzaldi batean 1856an honakoa zioen:

ceux qui entreprennent de fonder une doctrine du progrès rigoureusement anti-chrétienne, repoussent la production libre de l'homme par la puissance de Dieu: ils nient la création ex nihilo; ils sont résolument pantheistes (25).

Hots, progresoarean aldekoek ukatzen zutela deusetik sor zitekeela deus, hala jaidura antikristaua hartuz, eta aita Felixekin bat dator Zalduby, garaiko eztabaiden oihartzun ere egiten delarik berak sortu kanta.

Baina dena den, utz ditzagun teologo eta filosofoak eta azter ditzagun literatur tradizioak lehenik.

Berehala topo egiten dugu Louis Coquelet (1676-1754) idazle zirtolariarekin. *Écrivain facétieux*- diote frantsesez (26) zela, argitaratu baitzituen XVIII.

(24) Santo Tomas, *Summa Theologica*. I, q. XLV, art. 5.

(25) Célestin Joseph Felix (1810-1891), *Le Progrès par le Christianisme. Conférences de Nôtre Dame de Paris* 1856. A. Leclere, 1856.

(26) Louis Coquelet «Guy-Mathurin» (- Paris 1754), historialari eta saiogilea. Bere obrak pseudonimoz sinatzen zituen. Besteen artean honakoak aipa ditzakegu: *Critique de la charlatanerie* (1726), *L'asne* (1729), *L'éloge de rien* (1730), *L'éloge des paysans* (1731), *Le calendrier des fous* (1738)...

mendeko lehen partean gogoeta antzekorik, hala nola, *L'éloge de rien* (1730), non aurki dezakegun gure poemaren inspirazio zuzena. (Ikus facsimilea)

Honek bere aldetik latinez Jean Passerat (27) humanista eta poeta frantsesak (1534 – Paris 1602), moldatueta oinarritzen zen, adibidez, *Nihil, nemo, aliquid, quelque chose, tout, le moyen, si peu que rien, on, il* (1597) liburuttoan plazaratu zen batean eta zeini buruz honakoa zioen Postface edo epiloan:

sur le NIHL par lui tant vanté, d'autant plus volontiers que cette Pièce est rare, & qu'elle renferme **un jeu d'esprit** qui plaisoit beaucoup autrefois, & dont je crains fort qu'on ne se soucie gueres aujourd'hui, parce qu'on n'aime plus que les jeux qui apportent de l'argent, & que l'esprit & les belles Lettres deviennent tout à fait hors de mode (28).

Alegia, garai batean oso gogoko zituztela gogoeta jokoak zeuzkaten hitz jokoak, baina beldur zela ohitura hori galzorian ez zenentz. Halaberetsu, Démons, XVI. mende bukaeran Anvers hiriko kontseilari izan zenak konposatu zituen ere Passerat-ek moldatu bertsoen antzekorik, *La Demonstration de la quatriesme partie du rien...* deitu liburuttoan (29), non besteak beste, *rientifique* hitza asmatzen duen.

Gaztelaniaz ospetsuak ziren Quevedoren hamalaukoak, hala nola, *polvo será más polvo enamorado* bertsoleerroz bukatzen den hura, hots, hauts, baina hauts maitemindua, alegia deusaren adierazpen; edota *Vivir es caminar breve jornada / [...] Nada que, siendo, es poco y será nada*. Hau da, espainiar Barrokoaren «conceptismo»-aren aurrean gaude. Bi mende geroago, Juan Cristóbal Nápoles Fajardo (Las Tunas, Cuba, 1829-1962), El Cucalambé, bezala ezaguna den kubatar independentzia zaleak, 1856an *Rumores del Hormigo* pazaratu zuenak, moldatu zuen soneto bat **Nada** (30) titulua daramana eta molde berekoa. (Ik. Eranskina)

Itzul gaitezen gurera, ordea.

Jakina den bezala, *Jeus* hitzaz etimologiariek, Bonaparte, Gavel, Charencey, Corominas, eta Michelena jaunek etorki ezberdinak aipatzen dituzte, batzuek *deus*-etik eta besteek *genus*-etik datorrela esanez. Biak, noski, etorki latinezkoak (31).

(27) Jean Passerat (Troyes 1534-Paris 1602). Erregearen irakurle eta interpretea.

(28) Louis Coquelet, *L'éloge de rien dédié à personne avec une postface. Troisième édition, peu revüe, nullement corrigée, & augmentée de plusieurs Riens*. A Paris, Chez Antoin de Heuqueville, 1730, 42-43.

(29) I. Démons, *La demonstration de la quatriesme partie de rien et quelque chose et tout avec la quintessence tirée du quart de Rien & de ses dependances contenat les preceptes de la sainte Magie & devote invocation de Demons, pour trouver l'origine des maux de la France & les remedes d'iceux, dediee à la ville 'Amiens...* Paris, Chez Prevosteau. MDXCIII.

(30) [www.cervantesvirtual.com/servlet...](http://www.cervantesvirtual.com/servlet...)

(31) «DEUS (Or.) DIEUS (R) DEÛS (S): su homólogo latino perfecto, *deus* “dios” parece infinitamente remoto en cuanto a la significación. [...] Cita Lhande de, lat. *Deus*. Rechaza su

Eta *deus* gainean paratu zituen bertsoak, metafora gisara erabiliz, eta *Jenesa*-ren hasierako erreferentzia garbia egiten zuela, zein honela itzuli zuen Duvoisinek:

*Hastapenean, Jainkoak ezdeusetarik egin izan zituen zerua eta lurra (32).*

Maiz erabili zuten ere gure klasikoek, Detxepare eta Leizarragak, adibidez, *deus* hitza, ia beti *ez* lagun zuela eta jokatzeko Axularrek hitzarekin ere honakoa zioenean: *Eta ezta arrazoin deusagoak eztheusagoa zerbitza dezan (33)*. Allande Oihenartek ere bere erretrauetarik bat osatzen du hitz horrekin: *Deus eztuena, balu, emaila handi (34)*.

Hala bada, bertso irriarri horietan, trufa batipat sineskabe eta aberats berrien kontra doa, hots, *Atzo jeusen jabe, egun diruz betheak* (6. bertsolerroa) direnen aurka. Baina baita ere bere buruaz eta deusekin untza eta makila irabaz dezakeela pentsatzearen kontra. Eta amaitzeko kanta, aholku kontserbadore bat ematen du, zeinak laburbiltzen duen politika eta ideologia tradizionalaren muina: *Urus nahietan jeus eskas ez duena*. (28. bertsolerroa). Alegia, zoriontsu izanen direla gogoetetan ezer eskas ez duten haiek, gutxierekin konformatzen direnak, hots, aszeta direnak.

Gaiak direla eta Lafittek bere *Koblakarien Legea*-n honakoa zioen:

bai horiek dira lau gei nausienak: Jainkoa, mundua, heriotzea, amodioa; eta erran ditake nolazpait sartzen ez diren kobla moltxo batek ez duela deusik balio (35).

Baina ba ote da munduan gizona bezalakorik eta honek duen dohain handienaz, mintzairaz hitzegitea, irriarazteko bada ere, bezalako joko atseginik?

Joko hau *jeus* hitzaren gainean oinarritzen da (*jeus* egin, *jeus* gabe izan / egon, *jeus* heldu, *jeus* balio, *jeus*-ek ... irabazi, *jeus*-ekin egin, *jeus*-en jabe, *jeus*-eri fida, *jeus*-ez egin, *jeus*-ik ez zait...). Horra hor ia deklinabide osoa. Halaber alde baikor eta ezkorrak kontrajarriak daude. Batetik honako izenlagunak: *pullit, errex, abil, arraro, handi, urus*. Eta bestetik: *ergel, gaizo petut, eta zoro*. Gaizo petut-en kasuan, jakina da izenondoa hemen aurretik doala, erregela orokorraren kontra, irriarri dela pertsonaia adierazteko. *Petut*, aldiz,

---

opinión [...] relacionando ahora con occit. *Ges, gis* (bearn.ant.*gees*) cat. *Ge(n)s*) y fr. Ant. *Giens*, en definitiva lat. *Genus*, y expone dificultades [...]. Vacilación *deus / jeus* "algo", de *genus*, usado en frases negativas e interrogativas» (Juan José Arbelaiz, *Las etimologías vascas en la obra de Luis Michelena*. Kardaberaz bilduma 31, Gasteiz, 1978, 54).

(32) Jean Duvoisin, *Bible saindua*. Londresen. 1859, 1.

(33) Pedro Agerre «Axular», *Guero bi partetan partitu eta berecia...* Bordele, Milanges, 1643, 567.

(34) Arnaud Oihenart, *Les proverbes basques recueillis par... plus les poésies basques du mesme auteur*. Paris, 1657, 44.

(35) Patri Urkizu (ed.), *Piarres Lafitte, Euskal Literaturaz*. Erein, Donostia, 1990, 89.



ez dut aurkitzen inolako hiztegieta, eta halako hitz argotikozat daukat, jolas-tuz sortu duena *peu, petit* eta *tout* nahasiz, *baditut* bukaerarekin errimatze nahiak behartua.

Orohar eta bukatzen joateko iruzkin labur hauek hona nola epaitzen zituena Ademaren bertso lanok Piarres Lafittek (36),

on connaît les chanson-fables du prêtre-poète, si travaillées et si naturelles; mais sa maîtrise éclate dans les cantiques, tels que *Adora dezagun* ou *Kurutzea*, ou encore dans les hymnes patriotiques, comme le chant des Sept provinces. Peu de poètes donnet en basque l'impression d'une pareille force: il en est de plus gracieux, il n'en est pas de plus puisant.

Alegia, Kantiketan ageri dela gailen. Poeta gutxik diruditela hain indartsu, hain grazios, hain natural. Halere, Bengoetxearentzat, gai profanoetan, duelarikan bai edukiz eta bai formaz askatasun gehiago esan litekeela estilo baliabideak nabarmenago ageri zaizkiola. Bat gatoz gu ere.

Ez zuen euskal poesian jarraitzaile askorik bere poesia mota honek, baina, hor daukagu, adibidez Jon Mirande paristarrak 1950. urte inguruan moldatu zuen *Nihil igitur mors est*, honela bukatzen dena:

Gizendak eri zirelarik  
Bizi-min deithu minbiziaz,  
Mintzo zan, ixil, ez-jainkoa;  
«Deus ez da» zion «herioa:  
EZ dena Ezin daiteke hil».

Poema hau honela aurkezten zion Andima Ibiñagabeitiak 1952ko irailaren 14ean Parisetik Guatemalara igorri gutunean Jokin Zaitegiri:

... zure goraintziak emango dizkiot ikusten dudanean. Oraingotasunez beteriko olerki berri-berri bat idatzi du Mirandek *Nihil igitur mors est* Lukreti-ren izetan jaso. Oso sakon ta jaso. Egan Donostiko aldizkaritxora igorri dut argitara dezaten (37).

Eta amai dezadan, beraz, entzuleok, eskertuz izan duzuen arretea egun bota ditudan ene iruzkin eta deuskeriekin, eta kanta dezadan ozenki

Agur eta ohore Zalduby zenari,  
Senpertzar kuttun eta koplari finari.

(36) Pierre Lafitte, *Le Basque et la littérature d'expression basque en Labord, Basse-Navarre et Soule*. Aitzina, Bayonne, 1941, 53.



(37) Patri Urkizu (ed.), *Andima Ibiñagabeitita, Erbestetik barne-minez. Gutunak 1935-1967*, Susa Zarautz, 2000, 107.



Joannes PASSERATIUS (Jean Passerat, 1534-1602)

1697.

NIHIL.  
NEMO.  
ALIQVID.  
QVELQVE CHOSE.  
TOVT.  
LE MOYEN.  
SI PEV QVE RIEN.  
ON.  
IL.



A PARIS.

Chez Estienne Preuosteau, demourant au  
mont S. Hilaire, rue Chartiere.

---

M. D. XCVII.

## N I H I L .

**M**anus adest, festa poscunt sua dona Calendæ,  
**M**unus abest, festis quod possim afferre Calendis.  
 Siccine Castalius nobis exaruit humor?  
 Usque adeo ingenij nostri est exhausta facultas,  
 Immunem ut videar redeuntis janitor anni?  
 Quod nusquam est potius noua per vestigia quæram.  
 Ecce autem, partes sese dum versat in omnes,  
 Inuenit mea Musa NIHIL, ne despicere munus:  
 Nam NIHIL est gemmis, NIHIL est pretiosius auro.  
 Huc animum, huc igitur vultus aduorte benignos.  
 Res ea narratur quæ nulli audita priorum.  
 Ausonij & Graij dixerunt cætera vates:  
 Ausoniæ indictum NIHIL est Graiæque Camænæ.  
 E cælo quacunque Ceres mea prospicit arua,  
 Aut genitor liquidis orbem complectitur vlnis  
 Oceanus, NIHIL interitus & originis expers,  
 Immortale NIHIL, NIHIL omni ex parte beatum  
 Quod si hinc maiestas, & vis diuina probatur,  
 Nunquid honore Deum, nunquid dignabimur aris?  
 Conspectu lucis NIHIL est incundius almæ,  
 Vere NIHIL, NIHIL irriguo formosius horto,  
 Floridius pratis, zephyri clementius aura.  
 In bello sanctum NIHIL est Martisque tumultu:  
 Iustum in pace NIHIL, NIHIL est in fœdere tutum.  
 Felix cui NIHIL est! fuerant quæ vota Tibullo  
 Non timet insidias; fures incendia temnit,  
 Sollicitas sequitur nullo sub iudice lites,  
 Ille ipse inuictis quæ subijcit omnia plantis  
 Iunonis sapiens NIHIL admiratur & optat.  
 Socraticique gregis fuit ista scientia quondam.  
 Scire NIHIL, studio cui nunc incumbitur vni,  
 Nec quicquam in ludo mauult didicisse iuuentus?  
 Ad magnas quia ducit opes & culmen honorum.  
 Nosce NIHIL, nosces fertur quod Pythagorææ  
 Grano herere fabæ, cui vox adiuncta negantis.

## N I H I L.

Multi Mercurio freti duce viscera terræ  
 Dura liquefaciunt, simul & patrimonia miscent,  
 Arcano instantes operi, & carbonibus atris,  
 Qui tandem exhausti damnis fractique labore,  
 Inveniunt, atque inuentum NIHIL vsque requirunt,  
 Hoc demetiri non vlla decompeda possit,  
 Nec numeret Lybica numerum qui callet arena.  
 Vel Phæbo ignorum NIHIL est NIHIL altius astris.  
 Túque (tibi licet eximium sit mentis acumen,  
 Omnem in naturam penetrans, & in abdita rerum)  
 Pace tua, Memmi, NIHIL ignorare videris.  
 Sole tamen NIHIL est, & puro clarius igne.  
 Tange NIHIL, dicésque NIHIL sine corpore tangi:  
 Cerne NIHIL, cerni dices NIHIL absque colore:  
 Surdum audit, loquiturque NIHIL sine voce; volátque  
 Absque ope pennarum, & graditur sine cruribus vllis  
 Absque loco motúque NIHIL per inane vagatur.  
 Humano generi vilius NIHIL arte medendi.  
 Ne Rhombos igitur neu Thessala carmina tentet  
 Idalia vacuum traiectus arundine pectus,  
 Neu legat Ideo Dictæum in vertice gramen,  
 Vulneribus sani NIHIL auxiliatur amoris.  
 Vexerit & quanuis trans mæstas portitor vndas,  
 Ad superos imo NIHIL hunc reuocabit ab orco.  
 Inferni NIHIL inflectit præcordia Regis,  
 Parcarúmque colos, & inexorabile pensum.  
 O bruta Phlægræis pubes Titania campis,  
 Fulmineo sensit NIHIL esse potentius ictu.  
 Porrigitur magni NIHIL extra mænia mundi.  
 Diúque NIHIL metuunt. Quid longo carmine plura  
 Commemorem? virtute NIHIL præstantius ipsa,  
 Splendidius NIHIL est: NIHIL est Ioue denique maius.  
 Sed Tempus finem argutus imponere nugis,  
 Ne tibi, si multa laudem mea carmina charta,  
 De NIHILO, pariant NIHILI fastidia versus.

F I N I S.

~~Y 4779~~

LA DEMONSTRATION  
DE LA QUATRIESME PARTIE  
DE RIEN, ET QUELQUE CHOSE, ET TOVT.

AVEC

LA QVINTESSENCE TIREE  
du quart de Rien & de ses dependances  
contenant les preceptes de la saincte  
Magie & deuote inuocation  
De Demons.

*Pour trouuer l'origne des maux de la France & les  
remedes d'iceux, dediee à la ville d'Amiens.*

Magnificasti domine super omne nomen sanctum tuum.  
*Vous auez magnifié à Seigneur vostre saint nom par dessus T O V T.*

Pfal. 137.

PAR I. DEMONS CONSEILLER  
du Roy au Presidial d'Amiens.



PARIS,

*Chez Estienne Preuosteau, demeurant au  
mont S. Hilaire, rue Chartiere.*

M. D. XCIIII.

[ Louis COQUELET ]

L' E L O G E  
D E  
R I E N  
D É D I É  
A P E R S O N N E .  
A V E C U N E P O S T F A C E .

Troisième Edition, peu revûë, nullement  
corrigée, & augmentée de plusieurs  
R I E N S .



A P A R I S ,  
C h e z A N T O I N E D E H E U Q U E V I L L E ,  
L i b r a i r e , r u e G i t - l e - c œ u r , à l a P a i x .


---

M D C C X X X .

*Avec Approbation & Permission.*

12                    L'ÉLOGE  
 de RIEN, il reste toujours RIEN.  
 RIEN ne vient de personne; & tout ce  
 que nous voyons dans la nature vient de  
 RIEN. Ce soleil si lumineux, ces astres  
 si brillans, ces charmantes fontaines, ces  
 prairies si riantes, ces plaines si agréa-  
 blement diversifiées, ces lacs, ces mers,  
 ces montagnes, ces mines si précieuses  
 qu'elles cachent; tout cela a été fait de  
 RIEN. Ces viandes si succulentes que  
 nous mangeons avec tant d'avidité, ces  
 vins délicieux que nous buvons avec tant  
 de contentement, ces doux fruits, ces  
 excellentes liqueurs dont nous faisons  
 nos délices, viennent originairement de  
 RIEN. Bien plus; ces Princes redoutez  
 que nous servons avec tant de respect,  
 ces Beutez enchanteresses que nous ido-  
 latrons avec tant de complaisance, ces  
 tendres Amis que nous chérissions avec  
 tant de cordialité, sont issus en droite  
 ligne de RIEN. Que vous dirai-je da-  
 vantage? Notre Ame, cette glorieuse  
 portion de la Divinité qui nous distingue  
 si avantageusement des bêtes, a été faite  
 de RIEN. RIEN souvent nous paroît  
 quelque chose, & quelque chose sou-  
 vent nous paroît RIEN. RIEN se  
 trouve par tout. & ne réside nulle part.





Juan Cristóbal Nápoles Fajardo «El Cuculambé»  
(Las Tunas, Cuba, 1829-1862)

### NADA

**Nada** es todo en el mundo en que vivimos,  
**Nada** es todo en verdad lo que miramos;  
de la **nada** los hombres son formados,  
y en la **nada** después nos convertimos.

**Nada** son los pesares que sufrimos,  
**Nada** son los placeres que gozamos,  
y son **nada** los bienes que adquirimos  
como **nada** las glorias que anhelamos.

**Nada** es toda la tierra bien mirada;  
**Nada** es todo por Dios, y es mucho solo  
el Señor que nos hizo de la **nada**.

**Nada** el mundo del uno al otro polo  
y **nada** viene a ser este soneto,  
que sin decir más **nada** aquí completo.

**Gratien ADEMA «Zalduby»**  
(Senpere 1828- Baiona 1907)

### NADA

1. Muchos hombres hay en el mundo que creen que jamás se ha hecho algo de la **nada**, y para reírme de ellos he pensado componer unos bonitos versos con **nada**.
2. ¡**Nada** más fácil! ¡Cuántos infelices hay en el mundo que ayer no eran dueños de **nada** y hoy están rebosantes de dinero! Sobre esos don **nada** entrados en años con una **nada** haré mis versos.
3. No perderé **nada** si no logro **nada**, pues si no tenía **nada** quedará sin **nada**. Y tendré que oír no eres **nada**, ¡pobrecillo! Pero las palabras estúpidas no me importan **nada**.
4. Si logro componer estos versos, ¡qué felicidad! **Nada** me cansa y todas las penas son **nada**, y seré mencionado además como un hombre hábil. ¿Es posible **nada** más raro?
5. ¿Qué más? Tal vez con **nada** ganaré el bastón y la moneda de oro. Es evidente que el deseo me hace hablar así. Pero realmente no se puede uno fiar de **nada**.
6. Me callo. Ya **nada** se me ocurre. Sin decir nada importante acabo. Pero si mi canto no vale nada, al menos no hace daño a nadie.
7. ¡Insensato! Pero, ¿qué digo? ¡Suponer que estos versos valgan algo! Es evidente que los he hecho de **nada**. Pues no quería **nada** más. ¡Feliz aquel que en sus deseos **nada** echa en falta!

Patri Urkizuren itzulpena gaztelaniara

## ADEMA ZALDUBYREN (1828-1907) PROSA IDAZLANAK

Xabier Altzibar

### Sarrera

Zaldubi apaiz koblakaria *euskaldun zaharra* zen, tradizioaren aldekoa; politikan lege zaharrekoa, antierrepublikanoa. Euskaldun izatearen ohorea oihukatu zuen eta *Zazpiak bat* kantatu. J. Etxeparek dioenez, inork baino kartsukiago maitatu zuen Euskal Herria eta fede gehiago ukan haren etorkizunean (1). Koblakaria izanaz gain, euskal neurkeraren legez artikulua saila argitara zuen: *Art poétique basque* (*Eskualduna* kazetan atalka, 1899; berrargitaratua, Adéma, 1899; 1998, 77-101).

Lehenik, erran dezagun prosaz frantsesez eta euskaraz idatzi zuela. Euskarazko prosa-idazlan batzuk hein bat aipatuak dira: adib. Lurdeko beilarriendako liburuak edo erreboteko jokoari buruzkoa; ez, ordea, mintzaldiak eta artikulua. Horiek *Eskualdunan* argitara zituen baina kazeta hori aski ezezaguna izanez, lo egon dira; horietako 9 *Lapurdum* aldizkarian agertaraziak ditugu (bat baizik ez zuen argitaratu Daranatzek: Daranatz, 1908). Ordea, politika gauzak idazteko ez zuen astirik hartu, nahiz haren asmoa zen, 1888an Etxeberriri aitortu zionez (Adéma, 1888).

Hona Zaldubik bere bizian hitz lañoaz argitara zituenak, frantsesez edo euskaraz, genero eta gaien arabera sailkatuta eta kronologiari segituz: 1. Erlijio edo debozio liburuak (1875, 1877). 2. Mintzaldi eta artikulua ideologikoak tradizioaz, euskaraz eta euskalduntasunaz. 3. Liburuskak bat (1894) eta kronikak edo artikulua eliza besta, pilota eta bereziki erreboteko jokoaz. 4. Artikulu luze bat, atalka, euskara-japoniera sinonimia ustezkoari buruz. 5. Bestelako gai eta generoetakoak, argitaratuak eta gabeak. 6. Argitaraberriak (2007): Predikua sainduen biziaz.

Artikulu honetan Zaldubiren prosa idazlan horietako gaiak, ideiak eta testuingurua aztertuko ditugu bereziki; laburkiago, idazkera eta estiloa.

---

(1) «Zer nahi bazakien Eskual Herriaz, Euskal Herriko ohitzez, sinesteez, jaidurez. Euskal Herriko xokoetan aditzen diren hizkuntza bereziez. Ez dut uste nehorik maitatu duen Euskal Herria bihotz kartsuago batekin eta ukan fede gehiago gure etorkizunean» («Zaldubi Aldudan», Etxepare, 1992,121).

## 1. Lurdeko beilariendako debozio liburuak (1875, 1877)

Bi debozio liburu, formato ttikikoak, argitara zituen, Lurdeko Ama Birjinaren agertze eta mirakuluak kontatzen dituztenak, erromesendako kantika eta otoitzekin osatuak.

*1875an / Jubilau urthe Sainduan / Bazco biharamun eta hirugarrenean / Lourdesen eta Betharramen / Escual herritic pelegrin cirenen / orhoitzapena.* (Baiona, Andre Lamaignère alhanguntsa, 1875; ik. Vinson, 1991, 470). Liburutto ttikia da: 1-42 or.; «Escualdunen Lourdeco canticac», 43-70; «Othoitzza», 70-72.

*Escualdun / Pelegrinaren / bidaltzailea. Gr. Adéma aphezac egina* (Baiona, Andre Lamaignère alhanguntsa, 1877). Hona liburuttoaren (1875koa baino apur bat handixeagoa) edukia: «Aitzin hitzac iracurtzaileari», V-VIII; «Escualdun pelegrinaren bidaltzailea», 1-131; «Pelegrinen Canticac», 132-177; «Othoitz bat», 177-178; «Appendice à l'usage de ceux qui ne sont pas initiés à la prononciation du dialecte basque employé dans ce livre», I-IX. Beraz hitzaurrea eta ortografiatzko eranskina ere baditu, azken hau erdaldunek euskara zuzen ahoska dezaten.

1875ko liburuska apezpikuaren manuz egin zuen Zaldubik. Arrakastatsua gertatu zen eta ondoren egileak erabaki zuen zerbait osoagorik egitea; hots, pelegrinendako esku-liburu edo gida bat (2). Hortakotz osatu zuen 1877koa, ondoko gaiekin: pelegrinaiak zer eta zertako diren, nor eta nola behar den ibili; Andre dena Maria Pilarrekoa, Jaundone Jakobe Konpostelakoa; toki sailduak (Jerusalen, Bethleem, Loreto, Erroma, Betharram), Andre dena Maria Salhetakoa, Lurdekoa, 1875ean Lurde eta Betharramera eginiko beilak; otoitzak (meza santukoak, Ama Birjinaren bezperetako salmoak eta beste; Sakramendu sailduaren benedizonean; Birjina Sainduaren letaniak).

1877ko liburuskako kantika batzuek arrakasta handia izan dute, egun ere elizetan kantatuak eta ezagunenetarikoak baitira, adib., «Gurutze sailduari», «Amodio Birjina Mariari», «Uholde baten pare». Arrakastaren erakusgarri da ere ondoko lekukotasuna, Zaldubi hilda 8 hilabete gerogo *Eskualdunan* argitaratua, aldudarren Lurdeko beila kontatzerakoan.

---

(2) «Liburu escura bat escas ginuen debocione eta ibilgide hoieri zagocotena. / Escualdunec ere berbeit gure gureric beharrez, lehenbician hasi ginen Lurden cantatzeco cantica batzuetaric. Gero Jubilau urtheco gure pelegrinai handi haren orhoitzapenetan, Jaun Aphezpicuaren nahicariac liburu ttikitto bat zarotan eginarazi.

Icusiric liburu ttiki horrec izan zuen errekesta, eta hain laster denak enplegatu ondoan galde asco heldu zela oraino bazterretaric, hartu nuen xedea bertze hainbertceren eta gehiagoren ere berehala imprimarazteco.

Bainan hainbertcenarekin eman nion gogoari, hartaraz gero hobe nuela aldi huntan, aintzinecoan baino zerbeit gehiagoric eta compliagoric egin, amoreagatic eta escualdunec ere izan zezaten pelegrinai horietaco beren escu-liburua eta bidaltzailea.» (*Escualdun pelegrinaren bidaltzailea*, «Aitzin hitzac iracurtzaileari», 1877, VI-VII).

Bazen bertzela ikusgarriagorik, hala nola Eskualdunak zenbat kantuz nausi giren, otoitzez ez balin bagira ere, bertze garaitikoer. Ah! zer bulhar garbi airos ozenak! Egunaz ala gauaz ez dire ichildu, direla Aldudarrak, direla heien auzo herrietakoak; jana eta loa ahantzirik bethi kantuz: eskuaraz, bihotzez, orok betan, beren *Zalduby* maitearen koblekin Lurdeko harpea inharrosaten zutela. / Goretsi dute aurkitzen ziren lekua, beren sor-herria, beren sinhestea. / Bai, egun ederra zen Lurden iragan igandekoa, berrogoi ta hamar garren urthekari.

(«Alduda», *Eskualduna*, 1116, 1908-8-28).

Artetik errateko, 1877ko liburuko kantiken estrofa batzuk (Adéma, 1877, 147, 3 estrofa; 155, estrofa bat, VIII.a) ez dira ageri geroagoko edizioetan (Adema, 1908; 1991), agian egileak ez sarturik ediziorako prestatu eskuizkribuetan. Horietako batek Erromako auzia du hizpide, gai minbera zinez; Zaldubik espreski justifikatzen du Aita Sainduaren lurreko erregetza (3).

Zaldubiren arabera, mirakuluetan sinestea ez du fedea edo Elizak mantzen, zentzu komunak manatzen du (Adéma, 1877, 3); mirakuluetan sinestea-gatik jende anitzek sinestedunen fediaz irri egiten omen du (1877, 4). Penitentzia eta debozioa dira ideia nagusiak Zaldubiren liburu horietan, «Gallia poenitens et devota» goiburu edo dibisak adierazten zuenez. Zaldubik emozio handiz kontatzen du (1875, 1877) nola Aldude, Baigorri, Donibane Garazitik 70-80 kilometro oinez eginda gero, hartzen zuten tren Baionan Lurdera joateko; eta halatsu Zuberoatik joaten ziren anitzek:

Hourdesen guinen hamar bat mila pelegrin, Baionaco diosesaren bazter guziataric harat bilduac...denac guizonac...erdiac eta gehiaco Escualdunac. (...).

Iceustecoac ciren bidean zohatcila, nor nahiren bichtan Fedea hein bat gora copeta altharazten ciotela, beren kurutce gorriac papoan, arrosorioac escuan, eta haintzac, hamar, hogoi lekuen eguiteco oinez.

Puyoco edo Baionaco garara behin heltceco, Aldudetic baita laurhogoi bat kilometra, alderdi hartaco pelegrin gutiz guehienac, oinez ciren...eta Baigorri aldeco guciac heier juntatcen ciren. (...)

---

(3) «Cer hersturetan dagon gur'Aita Saindua! / Colpe berez Frantzia, nola minhartua! / Maria, entzun zazu hekien oihua.../ Hec althchatzen badire salbu da mundua...» Eta estribiloa: «Zuri gare Maria / Denac oihuz ari: / Emozu bitoria / Aita Sainduari.» (Adéma, 1877,155). «Cer canore luke, Aita Saindua balitz bertce munduco errege baten azpico? (...) / Horra certaco Aita Saindua ez diteken izan bere munduco bereco erregetasun bat gabe...Arren cembeitec hori diote sobera atcematen, eta ondicoz orai guciec badakigu cer egin dioten. / Gure Aita Saindu maitea miluci dute bere munduco erregetasunaren ontasun eta indar guziataric.» (Adéma, 1877, 49).

Halatsu neurtitz eta bestetan: «Munduko nausitasun guzien gakhoea, / Horra Aita Sainduak duen eskukoa: / Lurrekotzat emana zerutikakoa. / Hori hari khen eta nork duke dretxoa / Gizonak gizonari deus manatzekoa?» (Adéma, 1991, 95). «Halako egun batez Jesusec erraiten dio Piarresi: certaco hautatu duen apostoluen buruçagitzat, eta bere Eliçaren harroçaco cimendutçat. «Adi zac, Piarres: Ene burua erreguetçat mundu guciac eta erregueez berez ere behar diat erregue nausitçat eçagutaraci: eta hic bai hic behar darotac ene erresuma lurraren bazter guciatarat hedatu.» (Adéma, 2007,117).

Anhauztarrena da ederrena. Beren Yaun Errotor hain cara mendrecoa ainctineco, numbeit han herrico guizon guciac pelegin bide ciren, eta denac oinez, Puyoraino, 60 bat kilometretan.

Bai haracoan, bai hunacoan, bide gucian otoitcean edo cantuz ibiliric, asteazken arraxeco hamar orenetan, Ama Birjinaren letaniac errepicatu, heltcen ari ciren Anhaueco plazara. Jaun Errotoraren etche ainctinean oroc elgarrekin arraxeco othoitza eguin eta erretiratu ciren bakotcha bere etchetara. (Adéma, 1875, 24-28).

Lurdeko meza nagusiak eta Aita Bastres-en predikuak idazlea hunkitzen dute:

ez gare orhoit egundaino Meza baten hain gogotic, hain bihotzez cantaturic. Ez gare orhoit egundaino predicu batez orduan bezala inharrosiac eta ukhituac izanic. (Adéma, 1877, 94).

Bera cen bera aditcecoa, bai eta ere icustecoa! Haren bihotz barnetic suac iduri zuen phindarca atheratzen cela camporat. Azkenecotz gutiz guchienac nigarez guinauden haur batzu bezala. (Adéma, 1875, 39).

Penitentziaren beharra zuen hizpide Bastres-en predikuak, 1875ko liburuan kontatzen duenak; gizarte arazoei (laborantzaren krisia, emigrazioa) erlijioaren irtenbidea eskaintzen zien beneditar predikalari ospetsuak, Zaldubiren herritarrak (4). Penitentzia beraz, gurikeria edo aisien kontra: ideia hori Zaldubiren kantiketan ere ageri da, bai eta aldi hartako debozio eta erlijio liburuetan. Gurikeriaren kontra mintzo da «Betirisants» kantuan: «Betirisanstarren Jainkoa / da mundu huntako gozoa» (6. estr., Adéma, 1991, 159-160); bai eta «Mende jende mendre»n (4. estr., Adéma, 1991, 149-50). Bide beretik, A. Pheza delakoak (Diharasari?) Donibane Lohitzuneko patroinari egin kantika berrian penitentzia, aztura edo «jite tzarrak zapatzea», «guduan, nekean bizitzea» predikatzen zuen, bai eta erlijioaren aldeko gudua («Kantika Jon Doni Joani Batixtaren ohoretan», *Eskualduna*, 534, 1897-IX-10) (5). Ideia horiek guztiak ageri dira Zaldubiren idazlanetan; bada hor ideozia borroka bat euskal literaturan: xuriek ez dute biziaren gozoa kantatzen, horixe egozten diete gorriek.

Andredena Mariaren alderako debozioan, Mariaren rola azpimarratzen du Zaldubik, hots, arartekoa Jainkoaren eta gizakien artean: «Guizonen erreboltez / hasarre Yaincoa, / Bere azotearen higitcera doha. / Nor da iduc dironic / Yaunaren besoa? / Zu zare zu Maria / indar hartacoa» («Escualdunen Lurdeco canticac», Adéma, 1875, 60).

(4) «Cer erran cion Ama Birjinac Bernadetari? Penitentcia! Penitentcia! Fedea ez da aski Cerurat heltzeco, penitentzia da Ceruraco bidea, (...)» (Adéma, 1875, 37). «O Escual herrico laboraria, zu becein bide chuchenez, bide segurez, nor dohake Cerura?» (Adéma, 1875, 38). «O Escualdunac! ... maita, maita zazue Escualherria...Zaudezte hor berean Escualherrian...Nihun ez zaitezketete urusago, eta nihundic ez zohazkee Cerurat segurkiago!» (ibid.)

(5) «4. «Penitentzia du predikatzen, / Zeruan ez dela nihor sartzen, / Bere jite tzarrak zapatirik / Guduan, nekean, biziz baizik».

Zaldubiren liburuska horiek bere testuinguruan kokatu behar dira. Eliza katolikoak Ama Birjinaren debozioa indartu zuen aldi hartan. Betharram, Sarrantze, Salheta (1846) eta bereziki Lurdeko Ama Birjinaren (1858) agertzeen kariatara beilek lehia handia sortarazi zuten Euskal Herrian ere; aipatu leku gehienak aski hurbilak ziren, gainera. Urtero milaka joaten zen jendea, 1862tik aitzina: 1876an 100.000 kristau Frantzia guztitik; esan dugunez, 1875eko Jubileo urtean hamar bat mila Baionako eliz-barrutitik, gehienak euskaldunak.

Beila edo sentoraletako grina horren lekuko dira Zaldubiren kantikak eta aipatu liburuak: Adib., kantiken artean, «Ama Birjina Lurdekoari», «Lurdeko harpe sainduaren aintzinean kantatzekoa», «Andre dena Maria Betharramekoa», «Andre dena Sarrantzekoa» (Adéma, 1991, 63-68). Aipatu liburuak baino lehenago, kantikak orri solteetan publikatu bide zituen. Kantiken ondotik, liburuak ateratzeari ekin zion, kantikak ere sartuz.

Ama Birjinaren agertze eta erromesaldien lekukotasunak ez dira eskas aldi hartako euskal literaturan: adib., Etxahunen «Sarrantzeko sentoralak» (Haritschelhar, 1970, 388-394) edo Otxalderen 1883ko bertsoak, Lurdera joateko gonbita eginez («Kantu berriak burdin-bidearen gainean, agorrilean, 1883an», 1883, Markina, in Urkizu, 1997, 329). 1876an *Dona Phaleuco agertzeak* argitaratu zen (Pau, A. Menetière, 1876; ik. Vinson 1891, 483a, 483b). Intxauspek ere Lurde eta Sarrantzeko Andredena Mariaren alderako debozioa kontatzen digu (*Maria Birjinaren hilabetia*, 1894, 194-196, 208-211). Baina Zaldubiren 1875koa dateke lehena.

Ama Birjinaren agertze eta beila horiek kontrako erreakzioa sortarazi zuten errepublikanoen artean: Zolak bere *Lourdes* nobelan esanak lekuko (*Petit Gironde* kazetan atalka argitaratu zen nobela hura); hari erantzunez idatzi zuen J. Hiriart-Urrutik «Zola zikhina» artikulua, 1895ean (J. Hiriart-Urruti, 2004, 125-128); baita euskaldun errepublikanoek *Eskual-Herria* kazetan (1898-1914).

Bestalde, Eliza katolikoak Ama Birjinaren birjinitatearen dogma ezarri zuen aldi hartan (1854); dogma hori eta Inkarnazionekoa ageri dira Zaldubiren kantika batzuetan: «Inkarnazionea» (Adéma, 1991, 35-36), «Maria bekhatuic gabe kontzebitua» (Adema, 1877, 143-166; 1991, 57-59).

Estiloari dagokionez, Zaldubiren kontraera argi eta bizkorra da (esaldi laburak), euskara mintzatuaren edo ahozko estiloaren eragina nabaria izanik.

## 2. Mintzaldi eta artikuluko ideologikoak

Lau ezagutzen ditugu, ideologiak Zaldubiren idazlanetan duen pisuaren erakusle: *Les Traditions du Pays Basque* (1887); «Bibliographie» (1890); «Eskualdun bestak» (1894); «Eskualzaleen bilzarrean, 1903ko buruilairen

10ean, Adema Zalduby kalonjeak, eta bilzarraren buruzagiak egin duen hitzaldia» (1903)

**2.1.** Frantsesezko mintzaldi eta artikuluko ideologikoen artean lehena *Les Traditions du Pays Basque* mintzaldia da (1887), Atharratzeko Saint-François instituzio edo kolegioko ikasleei zuzendua, sarien kariatara (6). Ikasleak euskaldunak ziren, irakasleak ere bai batzuk, beste batzuk biarnesak. Hitzaldia behin eta berriz eten zuten esku-zartek. Daranatzan arabera 1887an Pauen argitaratua izan zen, Vignancour inprimatzailea baitan (Daranatz, 1908, 123); 24 urte berantago, *Eskualdunan* (1284/1285, 1911-11-11/24; ik. Adéma, 2006, 9-15). Ohargarri da Zaldubiren mintzaldiaren urte berean sortu zela *Eskualduna* kazeta, tradizioaren bandera altxatu zuena.

Zaldubiren arabera, euskaldunen tradizio zahar eta on guztiak aintzat hartu eta gurtu behar dira, eta arbasoen hatz beretik ibili (7). Aita Bordaxar, kolegioaren eta instituzioaren eraikitzailea, gizaki eredugarria da. Tradizioak dira: a) Historia eta oroitarriak, gizakien iraupen-moduak baitira. b) Ohitura zaharrak, usadioak, libertateak eta oroz gain erlijioa eta hizkuntza, arrotzen inbasioek galdu ezin izan dutena. c) Hizkuntza klasikoak: orain arte eskola katolikoak eta elizgizonak izan dira hizkuntza eta kultura klasikoa iraurarazi dutenak, baita frantsesa ikasteko bide gisa baliatu dutenak, eta gero ere hala izango da. d) Euskara. Europako jende ikasiak, euskararen miresmenez eta haren berri jakiteko minez daude. Parisen, Londresen, Kolonian, Vienan eta bestetan letretako eta zientzietako jendea, liburuak eta aldizkariak euskarari buruz harriduraz eta jakinminez mintzo dira. Euskalzarle arrotz batzuk autonomiaren alde agertu dira. Humboldt, O'Shea, Jaugain, P. Labrouche, Haristoi etab. bidegileak izan dira. Aldizkariak sortu dira: Berlineko *Euskara* eta Euskal Herriko *Irurac-Bat*, *Revista Eskuara*, *Eskualduna*. Ordea, Euskal Herriko buruzagi batzuek ez dute euskararen axolarik. e) Jauntziak, lerden izatea, urratsa (ibiltzean), euskaldun besta zaharrak –erlijioak manatuak–, pilota jokoa (gizonkien jokoa, gorputz- eta buru-trebetasun guztiak oro galde egiten dituenak, ez frantses gimnastika bezalakoa, emaztekientzat egina dirudiena). Ohore Biarnoko Ossaukoei, arbasoen jaintziak atxiki dituztelako, euskaldunek boneta baizik ez baitute begiratu. Beharrik, euskal besta zaharrak ere gordetzen ditugu, erlijioari esker; halaber pilota jokoa, gimnasiak baino trebetasun askoz gehiago garatzen dituenak.

Zaldubiren arabera, euskara erabili egin behar da, bakoitzak bere euskalkiko legeen arabera, lehiatuki, nor baino nor. H. Schuchardtek etsenplu eman

(6) Discours prononcé par M. le Chanoine Adéma (Distribution solennelle des Prix de l'Institution Saint-François, de Mauléon, le 18 août 1887).

(7) «Et moi, je viens, à mon tour vous proposer et vous recommander le culte du vieux: oui, le culte en noblissant de toutes les vieilles et saines traditions de votre race et de votre pays. (...). / Souvenons-nous, avant tout, des anciens et des ancêtres vénérés dont nous sommes issus. Notre vie doit reproduire leur vie et aussi leur honneur.» (Adéma, 2006, 10).



du, gutuna idatzi baitio (Zaldubiri) euskara oso onean. Igualarismoak oro uniformatu eta berdindu nahi du, hala-hala gure tradizioak. Kantabres hezigaitz haien ondorengoak garelako erakutsi behar dugu euskaldunok. Euskara ez da altxor bat huts-hutsik, erlijio katolikoaren laguna ere bada, maiz haren begiralea izan da; egun, inoiz baino gehiago, nazionalitatearen bizitza eta bermea da. Modernismoak euskaldutasuna galtzea dakar; hizkuntzaren galtzeak, euskaldunen endekatzea. Euskaldunak burua altxa eta euskaldun bezala ezagutarazi behar du bere burua. Erabil dezagun euskara maitetasunez, euskaldunen artean: elkar agurtu euskaraz, idatz euskaraz, eta, euskaldunen arteko lokarri gisa, zergatik ez eraman jantzita ikur bat elkar ezagutzeko? (Geroztik, zenbaitek pentsatu dute erkidetasun-marka bat erabiltzea: orratz edo iskilinba batetik zintzilikaturiko ezkur orfebreriazkoa edo zeta berdezkoa).

Euskara ez da poxolu ikasketetan; ez ditu tratatzen bertze hizkuntzak, laguntzen baizik. Irakasle bearnesei zuzenduz diotse: euskarari buruz errana, hala-hala biarnesari buruz dioela; biarnesaren ohorea susta dezatela tradizio zahar onak begiraturaz, euskaldunen tradizioen eite berekoak baitira.

**2.2.** «Bibliographie» (G. Adéma, ch(anoine). h(onoré), curé doyen de Tardets, *Eskualduna* 157, 1890-05-16; ik. Adéma, 2006, 18-20). Joanategiren *Sainduen bizitza* (1. lib., 1890) liburu argitaraberriaren kariatara idatzia. Artikulu ideologikoa da, erreseina kritikoa baino gehiago; *Eskualdunaren* editoreak dio, Adémaren gogoetak poesiaz eta sorterrizalatasunez beteak direla eta gogo onez argitaratzen dituela. Ohargarri da Adémak berak ere saindu batzuen biziaz predikuak idatzi zituela (Adéma, 2007). Ik. aitzinago.

Idea nagusiak laburbil ditzagun: Sainduen biziak etsenplu onak dira gurikeria edo ongi izate materiala eta progresoa jainko bihurtu diren aldi honetan. Sainduen bizi horiek herriko jendeak konprenitzeko moduko euskararen kontatzen ditu Joanategik, hitz garbiei eta adierazmolde jatorrei uko egin gabe. Erlijioaren eta euskararen kontra ari diren faktoreen aitzia, «gure herri gaixo noblea» defendatu behar da dotrina, lege, moda arrotzen kontra, gure nazionalitatea kendu nahi digutenen kontra. Elizgizonei, euskaldun ikasiei, familia noblei, ohorezko gizakiei, hots, egiazko euskaldun guztiei dagokie bai katolikotasuna eta bai euskara sustatzea.

Zaldubiren arabera, foruak eta gure nazionalitatea oso begiratzekotan federatu ginen bertze orduz, batzuk Espainiarekin eta bertzeak Frantziarekin, eta, azpiko izanez bortxa jasan badugu ere, gure nagusiekin leialagoak izan gara haiek gurekin baino, beren konpromisoak ez baitituzte bete. Haatik, euskalduna euskaldun da, lehen-lehenik. Ordea, ez dira egiazko euskaldunak fedeari eta euskarari uko egin eta kaskoinen ohiturak eta arak hartu dituztenak. Horregatik diote «Le Basque est un peuple qui s'en va!». Progreso modernoaren bideetatik gure endekatzea baizik ez da progresatzen ari, gure odola eta ohiturak beste odol apalagoetan urtzen ari dira, gure ohiturak galduz doaz, gure foruak galdu ziren bezala. Jainko gabeko eskola horretatik –bere errient-

-erriensa arrotz inposatuekin, bere txotxongilo-ariketekin eta gimnasiarekin, pilota joko ederrei urrundik ere hurbiltzekoak ez diren horiekin–, bere pedagogia-fabrika molde ofizial horretatik belaunaldi bat sortuko da fedegabea, euskaldun zaharren ezaugarririk gabea, frantses txar batean mintzatuko dena. Hala ere, gu desagertzen ari garen une honetan, gure arrazak eta hizkuntzak harridura eta miresmena sortarazten du jakintsuengan. Gilen Humboldt ez geroztik, Paris, Alemania, Londres, Austriako jakintsuek euskara jakintza handiko hizkuntzat hartu dute eta gure herriaren eta hizkuntzaren gainean gauza handiak eta ederrak erakutsi dituzte, gure azpiratzaileen inbidiagarri. Nork daki? Hemen, hainbat euskaldunek beren nazionalitatea desagertzen ikustera etsituak badira ere, beharbada aurki euskaldun herria Ameriketara arraberrikatuko da inoiz baino handiago bilakatuz. Nolanahi ere, defenda gaitzen geure buruaren suntsipenetik, gure burujabetzaren kontrako oro ezeztatu dezagun. Ohore gure gurasoen fede, ohitura, euskarari; ohore gure ondasun literarioa aberasteko lanean ari diren guziei.

Ohargarri da euskaldun herria Ameriketara arraberrikatuko delako ideia hori berriz agertzen dela 1903an Eskualzaleen Biltzarrean eginiko mintzaldian. Ameriketako Euskal Herri hori buru batzuen proiektua zela dirudi.

**2.3.** «Eskualdun bestak» (Zaldubi, *Eskualduna* 380, 1894-09-07; ik. Adéma, 2006, 20-23). Artikulua hau Donibane Garazi eta Lohitzuneko besten kariatara idatzia da. Euskaldun bestek, «euskalduna ia ezdeusetaratu den denbora huntan» zer xede duten azaltzen du egileak. Hau da, alde batetik, euskalduna pizaraztea, bere odol, aztura zahar, bereiztasunaren ohore, hizkuntza eta libertate guziei, hitz batez bere euskalduntasunari uko ez egiteko. Izan ere, azken 100 urtean Humboldt, Xaho, L.L. Bonaparte eta A. Abadiari esker euskaldunek badakite nor diren eta zer izan ziren bertez orduz: duela 350 urte, Frantziari eta Espainiari «eratzikiak izan ginenean, gure lur, lege eta usaia guziak gure, gure patu guzien zimendua zen gure fueroetan», gero kendu dizkigutenak:

Fueroak galduz geroz zer gelditzen zaiku gure eskualduntasunik?...Gure mintzaia eskuara, gure lehengo azturak, pilota jokia, irrintzinak, muxiko eta aurrerkuak, pastoralak eta bertez asko jei eta josteta gisa, gure herrietan beizik ikusten ez direnak. / Jende arrotzek, eta arrotz hetan guziz jakintsunenek diote nihun ez dela ederragorik. / Arere ederrago zaizkotenak dire, gure fede zahar eta azkarra, orai artio beti xutik atxiki duguna..., gure elizetako kantuak...gure etxetako jainkotiar ohitzak eta kostumak..., eta gure odol garbia. / Horiek,...bedere oraino gure gelditzen zaizkigun horiek, atxik eta begira detzagun tinki, amodio-rekin, suharki eta fierki, deus galtzerat gehiago utzi gabe..

A. Abadiak hasitako bidetik jarraituz, Goiheretxe Donibane Lohitzuneko auzapezak, euskaldun ohitura zahar guziak hedatzeko asmoz, besta horiei hadadura eta edertasun gehiago eman die. Bestetik, euskaldun bestak «Frantziako eta Espainiako eskualdun guziak, jendakia bat berbera garel» erakusteko dira.

Artikulu hau 1892ko Donibane Lohizuneko Euskal Besten eta 1893ko Azpeitiko Lore Jokoen ondotik idatzia da (orduko, Zaldubi ospetsua zen Hegoaldean). Hain zuzen, bere «Gauden gu eskualdun» (Eskualdun Besta eta Biltzarretako kanta) ospetsuaren hasierarekin bukatzen du artikulua, «Gernikako Arbola»en ondoan aipatua. Pizkunde giroaren eragina garbi ageri da.

**2.4.** «Eskualzaleen bilzarrean, 1903ko buruilaren 10ean, Adema Zalduby kalonjeak, eta bilzarren buruzagiak egin duen hitzaldia» (*Eskualduna* 847, 1903-09-18; Adéma, 2006, 15-18). Hitzaldia bilkura hartako euskalari eta euskazaleen aitzinean eginga izan zen, eta euskaraz, eskaldunak elkarri atxikitzeko xedez. Hortaz, genero epidiktikoari dagokio, eta horregatik, hizlariak «gu» darabil. Testuinguru jakinean kokatzen da: 1902an prefetak, Combesen politika aplikatuz, apezai katixima ez euskaraz baina frantsesez egiteko manatu zien eta ondorioz, protesta gisa, petizione bat eta sinadura-biltze kanpaina antolatu zen. Hitzaldiaren gaia: euskararen iraupena edo geroa eta Eskualzaleen Biltzarren egitekoak.

Sarreran, euskara zer den eta zer izan den azaltzen du Zaldubik:

eskuara da gure hizkuntza (...), ama bat bezala maite duguna.

Jakintsuen arabera, euskara da hizkuntza zaharrena, iraupen harrigarria izan duena:

«badu hiru mila urthe segurik, eskuara munduaren alderdi zaharretako mintzaia bide zela (...) Behinik behin Asian (...) Iberia zahar orai Georgia dartzonaren lurtean», hango mendi, ur, herrien izen euskarazko ugariak lekuko; bai Iberia edo Espainiako bai «Frantziaren alde huntako» toki-izen zaharrak eskaldunek emanak dira, «Frantzia oraino sortzekoa zelarik»,

eta agian euskara mintzo zen lurralde haietan; «Uropeko oraiko mintzaien hazia oraino eraitekoa zen». Bestalde, lehen bezal-bezala, aldatu gabe iraun du euskarak.

Baina irauenen ote du? Denbora laburrik barnean izanen da eskaldunik eta Euskal Herririk? «Guri dago horri ihardestea bilzar barne huntarik». Euskara galduz, eskaldunak ttikituz doaz: Araban eta Nafarroan, gibelka. Gipuzkoarrak eta bereziki bizkaitarrak, ordea, bermatzen dira beren eskuararen oso, eta menturaz bereizegi, atxikitzera. Diru-laguntzak behar lirateke –horretan Bizkaiak etsenplu ematen du– euskara begiratzeko; Azkue apaiza bezalako eskualzale kartsu bat behar litzateke gure zazpi euskal herrietarik bakoitzean. Iparraldeko euskara ere badoa:

dela burdin bide; dela jende arrotzekilako nahasteka; dela errient kaskoin eskuararik ez dakitenen eta eskuara hastio dutenen eskola; dela asko gazte frantses agertu nahiagoen ergelkeria; (...).

Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoan oraino euskarak gaina dauka, guziz jende xehearen artean. Mementoko gertakari lazgarriena:

arrotz kargudun batek debekatu die apezei, euskara baizik ez dakitenei eskuaraz mintzatzea.

Lirudi, Frantzia bera hastiarazi nahi leraukutela...

Prefetari eginiko petizioea eztiegia da,

hobe baitziteken ez baliote hainbertze ohore eta agur egin zen bezalakoari;

baina

gu eskualzale gaduzkatelakoetarik ainitz ere, ez ote gare hobendun gure ahulkeriaz eta gure iraupen eskasaz?,

denak behar gintezke sorkan bilduak hemen aurkitu, eskuarari egina zaion gudian, haren alde gure buruen agerian irakusteko.

Behiala jakintsu batzuen bilkuran galde egina ere ahantzia da, hain zuzen autodeterminazio eskaera:

aiphu izan baitzen gizon jakintsun batzuen bilkuran, eskualduneri beren berbertasunaren emaitiaz, berex beren gisa eta libro bizi zitezen, Andorreko Errepublikan bezala.

Beraz «Ordu da bihur gaizkion laido horri, eta egin detzagun egin ahalak gure eskuara amari bizi berri baten emateko». Hona nola jokatu beharko liratekeen euskalzaleak edo Euskalzaleen Biltzarra euskaldunei, haurrei eta liburuiei buruz:

hemendik aintzina, ez gaitezen mintza eskuaraz beizik, eskuara dakitenekin. Badakit ohitza hori ez zaiotela berehala errex izanen askori, eta nahitez eta uste gabe, erdararat lerraturen direla. Halere, huts hortarat ez erortzeko xede zina hartuz, *usu* usaia edo *usu-aria* laster hartua liteke eskualdunen artean beti eskuaraz mintzatzeko. Batek berzea huts egitean ohartaraziz, hala nola edo keinu batez, edo hobeki, eskuaraz erdarari pulliki ihardetsiz, usaia hori hobeki oraino finka liteke gure artean.

Hemendik aintzina, haurrei ttikitik eskuara, bereziki eskuara, irakutz (sic) dezotegun: ez sehirik har eskualdunik beizik, eta heieri ez utz eskuaraz beizik haurrei mintzatzea. / Zazpi edo zortzi urtetako haurrei, burasok frantsesez ere edo españolez elhe egitea ez liteke gaizki. / Frantsesa edo española ez dugu batiere arbuiazen; on eta eder ere zaiku bi erdara horietarik batean bedere trebe izatea. Mintzaia bat baino hobe dire bia; hargatik guretzat bego beti eskuara lehen eta nausi. Eskolak hor dire erdararen behar den bezala ikasteko. (...) Halere damurik errient kaskoin batzu igortzen baitauzkigute Eskualherrirat, ezen frantxi-mant bilhakatzeak ez dio on hanbatik egiten eskualdunari.

«Eskualdun hurrek, frantses katixima ikhasi behar badute, ikhas bezate; hargatik ez dadiela bihi bat izan eskuarazkoa ikhasi gabekorik, ez eta ere bere goiz-arratsetako otoitzak eskuaraz eginen ez dituenik.»; «Eskualdun fededunek ez bezate ereman elizarat, liburu latin eta eskuararik beizik. Bainan, elizatik kanpo ere, liburu eskuarak behar litezke bai ixtoriozkoak, bai jostatzeakoak, diren baino gehiago. Guri, orai hemen garen bezalako eskualzaleeri, lagoke liburu horien usu argitaraztea.» Baita kazeta onak («utziz hargatik bazterrerat eskualdunen fedeari

laido egin lezoketenak») eta Fedearen hedariaren gutunak («hain dire irakusgarri eta ukigarriak, nun guziek atseginekin behar baikintuzke irakurri agertzen diren aldi guzietz»).

Hortaz, Zaldubi ohartu zen ez zela aski sainduen liburuekin, ordura arte adierazi bezala («Bibliographie», 1890). Apez eskualdunei dei egiten die:

berma eta sustenga gure mintzaia sakratua, erlisionearen gure arteko begirale eta lagun maitagarria.

### 3. Erreboteko jokoaren aldekoak

Liburuska bat eta hiru artikulua dira: «Eskual-herriko eliza bestak» (1896); «Donibane Lohizuneko pilota-partida errebotekoa» (1896); «Donibaneko erroboteko partida» (1897). Azken biak pilota partiden kronikak bezainbeste edo gehiago, aipatu jokoaren goresmen eta argitasun emateak dira.

**3.1.** *Notice sur le jeu de Paume au Rebot, jeu national des Basques, le plus beau jeu du monde. Explication avec figures. Indispensable aux étrangers.* Bayonne, Lasserre, 1894.

**3.2.** «Donibane Lohizuneko pilota-partida errebotekoa» (Zaldubi, *Eskualduna*, «Eskual-Herria» saila, 1896-7-3; ik. Adéma, 2006, 24-26. Donibane Lohizunen jokaturako partida ederraren kronika da, alde batetik. Baina kronika bezainbeste, eztabaida-artikulua. Zaldubik dio ez dela Euskal Herrian inon Donibane Lohizuneko bezain besta ederrik, «hoin euskaldunki herriko besta bat arimatzen duten buruzagiek edertzen dute tokiaren fama eta itxura guzia». Eta «deusek ez du hala edertzen herriko besta bat igandez kanpo, nola erreboteko partida batek.». Hain zuzen, besten erdian astelehenean jokatu den partidak izan duela aldarte ederrik, bederatzi aldiz adostu baitute frantsesek (Otharre, Ganixon saratarra...) eta espainolek (Manco, Agustin...), azkenean frantsesek irabaziz.

Baina, Zaldubiren ustez, erreboteko partida horiek are ikusgarriagoak lirakeke, plazak bestelako kondizioakoak balira: luzetasunean 90 metroz azpikoak, bi burutako paretak 7-8 metroko goratasun berdinekoak eta pareta horiek pasatzea beti falta izatea:

oraiko xixtera jokoarekin, erran dugun zolako paretarik gabe, ez daite plazarik aski handirik.

**3.3.** «Donibaneko erroboteko partida» (Zaldubi, *Eskualduna* 532, 1897-8-27, 1. or., 1. Zerrendan; Ik. Adéma, 2006, 26-28). Artikulu hau ere aitzinagokoaren tankerakoa da: partida eder hori («Donibane Lohizuneko plaza handian, jokatu da, aspaldi ikusi izan den erroboteko partida ederretarik bat.») estakurutzat hartzen du Zaldubik erreboteko jokoaren alde egiteko. Eta partidako gorabeherak eta bitxikeriak («bi aldetako hoberenak

eta aitzindariak, biak beso motxak») kontatu baino gehiago apezpikuaren presentzia, haren autoritatea eta anjelusaren ohitura zaharra ohartarazi nahi die irakurleei:

erran behar da, gauza guziak jaun aphezpiku baten beraren gostukoak eta ohoratzekoak ziren. Lehenik, plazan sartzeko musika: Harispe jeneral zenaren xazur eskualdunen martxa. Gero Yaun Hauzaphezaren agur eta ongi ethorria jaun aphezpikuari bere kargudun lagunekin, eta harat bilduak ziren bertze asko jaun handiekin. Hamar pilotariak, plazan sartzearekin, presentatu ziren bi lerrotan, jaun aphezpikuaren aitzinera, agur egin zioten denek batean, eta jaun aphezpikuak benedikatu zituen. Bi tronpetek jo zuten sagarako airea eta jaun aphezpikuak, bera xutiturik, ikusi zuen plazako jende guzia, eta pilotariak ere, joko utzirik Anjelusaren erraten xutik eta buru-has... Ukhitua zen bihotzeraino; erran zioten bere aldekoek, hori zela eskualdunen usaia. Kasik uste izateko zen harentzat elizako ofizio batean zela.

Bertzalde, partida etsenplutzat hartzen du Zaldubik joko horren bikaintasuna –plekaren gainean– azpimarratzeko eta joko pitzarazteko:

Eskualduna indarrez, zalutasunez, antzez, eta buruz zer den irakusterat ematen duen joko...

Ordea, plekako joko:

bethi paretari handi bati jo eta jo eta bethi jo;...bethi paretari horri buruz, bethi elgarri gibebez edo saihetsez...Yokoaren erdia denek bethi paretari eginaraz; ... paretari jokoz nausi...eta gero bethi jo berak edo berdintsuak, guziz kintze iraukorretan; ...buruzko antze guti; ...oraiko asko zaharrek diotena; plekako joko, lehengo denboretako haur joko; kaskoin joko!...

Hala ere, erreboteko joko bere gisa utzia egon da zenbait urthe honetan, plekako joko anitzek nahiagoz. «Gure hondar errobotlariak zaharregitu dire eta heien ondokorik ez zaiku nihundik ageri...». Partida eder hori Goienetxe Donibaneko auzapezari esker jokatu da, nahiz hamar errebotlariarik biga baizik ezin atzeman frantsesik, bertze zortzi pilotariak espainolak izanik:

denek diotena hau da: asma ahalikakoak egin behar litezkeela Eskual-herri guzian, erroboteko edo laxoko jokoaren berriz pitzarazteko: bertzenaz eskualdunen ohoreak egin du.

Artikulu honek erreakzioa sortu zuen: irakurle batek Zaldubiri kontra egiten dio, erreferako joko (errebotekoa) zergatik ez den modan azalduz (Eskual Herria: «Pilotarier», *Eskualduna*, 1897-10-29).

Zaldubiren liburuskak eta artikulu hauek bat datoz zenbait tradizionalistak erreboteko joko berpizteko eta plekaren gainetik ezartzeko ahaleginekin; esaterako, Goienetxe auzapezak Donibane Lohizuneko 1897ko Euskal Tradizioaren Bestetan eginikoekin.

**3.4.** «Eskual-herriko eliza bestak». Artikulu hau 1899an *Eskualduman* agertu zen lehen aldiz (Zaldubi, E 626, 1899-6-16, 1. or., 1. zer.). Testua be-

rringinda, berriz 1908an, egilea hilda gero (E 1107/1108/1109, 1908-VI-25; VII-3, 2.a 1. or.; VII-10). *RIE*Ven ere bai, egileak 15 egun hil baino lehen aldizkariari emanik (*RIEV* 2 1908, 83-89; ik. Adéma, 2006, 28-33). Artikulu luzea da, lau partetan banatua. Parterik luzeena (4.a) erreboteko plazaren eta jokoaren erregelen deskripzioa da, bai eta nola behar litzatekeen sustatu gazteria joko horretan, zeren eta «egintza edo obra on beharrentarik da gazteriaren onheski libertiartztea».

Hona zer dioen, laburbilduz: igande bezperetarik lekora, lege da pilota partida bat bederen joka dadin. Jakintsu batzuek espantu handiak dituzte gure erreboteko pilota partidez. Baina Frantzia parteko Euskal Herrian aztura zahar guztiekin batera erreboteko jokia galduz doa; ordea, Espainia alderdiko eskualdunak azkarkiako atxikiak dira beren arbasoen denboretako ohitura guztiei.

Euskal-Herrian ez daiteke behar bezalako bestarik erreboteko partidarik gabe. Ordea, mutil gazte gehienak igande eta besta egunetan ostatuetan edo zokoetan sartuta egon ohi dira. Beraz mutikoak gaztedanik joko hori ikastera bultzateko neurri praktikoak hartu behar lirateke: ar-aldi bakoitzeko pilota eta xixterak utzi, ederka ararazi, sariak eman. Ez, ordea, pilotari ofizioa har dezaten bultzata, «bertze bizimodu eta irabazbide ohikoak lehen baitire». «Lehen ez zen pilotaririk pagatzen...partida handi batean agertzea orori eder zitzaien», nahiz apustuak baziren.

#### Plazaren gaineko eztabaidak

(«Diote zenbeitek, oraiko xixterekilako jokia errobotean gaitzegia dela») aintzat hartuta, gehienek iritzia azaltzen du, bai eta jokoaren lege eta gorabehera premiatsuak deskribatzen. Azkenik, joko horren miresle edo bultzagileen artean, Suediako erregea eta A. Abadia aipatzen ditu, azken honek sariak eratu baitzituen: «Sari horietan handiena erreboteko pilota partida batentzat zuen...»;

bere azken egunetan gaitzi zitzaion erreboteko jokia utzia izatea.

Aipatzekoa da Zaldubi pilotazale gisa famatua izan zela. Apaizek eta herriko buruzagiek erreboteko jokia eta pilotariak ohoratu behar zituztela zioen:

bezperetarik lekhora, lege da pilota partida bat bedere joka dadin herriko pilotari hobereenen artean: gisa ere da, apezetarik hasirik, herriko buruzagi, etxeko jaun, beren burua zerbeit daukaten zahar eta gazte guziak, dohazin orduan errebotera, eskualdun legezko jokoiari eta pilotarieri ohore egiteko.

Hala egiten omen zuen Zaldubik, Daranatzan arabera (1908, 123). Ez da harriztekoa beraz pilota partida bat kontatzen duten bertsoak «Musde Zaldubi koblakariari» eskainiak izatea (J-B Etcheberri, «Cambo», *Eskualdun Ona* 36, 1904-09-09; 6 bertso); Kanbon ospatu pilota partida bat, mugaz honaindiko eta haraindiko pilotarien artekoa, kontatzen dute 6 bertsoetan. Zaldubi Kaskoia Hazparneko pilotari famatuaren adiskide izan zen; Zaldubiren «Pilotariak» (1890) bertsoetako 7., 8., 9. bertsoak haren goresmenekoak dira (Adéma, 1991, 175-176).

#### 4. Euskara-japonieraren arteko sinonimia ustezkoak

«Curiosités de synonymie basque-japonais (Zalduby, *Semaine de Bayonne*, Variétés, 1906-09-19/26/29; 10-6/10/13/20; lehen atala ik. Adéma, 2006, 33-35). Zaldubik 1906ko uztailaren 1ean sinatua eta zazpi ataletan *Semaine de Bayonne* kazetan argitaratua da artikulu edo lan luze hau. Ingeles-japoniera hiztegi batez baliatuz, japonierazko eta euskarazko hitz eta toponimo ugari hotsez bat zetozela, ez esanahiz, ohartarazi zuen. Ikaslan edo bitxikeria jakin-garria da, zientzi asmorik gabekoa.

1905ko gerlaren ondotik japoniera eta euskararen arteko balizko kidetasunak jakingura sortarazi zuen (ik. G. Lacombe-ren «La langue Basque et le Japonais», *Eskualdun Ona* 24, 1905-6-23). Mugaburu, Tokyoko arzapezpiku euskalduna adiskide baitzuen, hark Japoni buruz emaniko eskola batzuen ondotik abiatu zen Zaldubi kidetasun bitxi horiek azterttera.

#### 5. Bestelakoak: argitaratuak eta gabeak

Laborariendako artikulu bat: «Laborariak! Ez oraino etsi! Irakurrazue hau!» (Adéma Zaldubi, *Eskualduna* 495, 1896-12-11; ik. Adéma, 2006, 23-24). Kaskoina pilotari ospetsuaren gertaldi baten kontakizuna da, laborariendako bihotz altxagarri (1896). Menturaz, beste artikulu eta idazlan batzuk ere argitaratu zituen Zaldubik aldi hartako kazetetan.

Alduderi buruzko liburuskak.

Argitaratu gabe utzitakoen artean: 1) Daranutzen arabera, euskaldunei buruzko historia ikaslan bat, euskaraz idatzia (8). 2) Egunkaria, Zaldubik 30 urtez idatzia eta Senpereko Dourisboure familiak oraino atxikitzen duena. 3) Sainduen biziak, argitaratu berriak. 4) Predikuak (aurki argitaratzekoak).

#### 6. Predikuak sainduen biziaz

Senperen, Euskaltzaindiak eskaini dion omenaldian (2007/12/20), H. Duhauk *Predikuak saindu batzuen biziaz* liburua aurkeztu du (Euskaltzaindia, 2007, *Euskaltzainak* bilduma). Iragarri du ere Zaldubiren eskuizkribuetarik beste bi prediku liburuki argitaratuko dituela. Beraz orain badakigu Zaldubi predikalari ere izan zela hainbat herritan. Irakurtzeko denbora izan baitugu, hemen *Predikuak saindu batzuen biziaz* obraz mintzatuko gara. Liburu honen edizioaz, ik. ERANSKINA.

---

(8) «M. Adéma est auteur d'une étude historique sur les Basques dont la mise au net s'arrête au XIIIe siècle, à la bataille de las Navas de Tolosa; elle est écrite en basque» (Darantz 1908, 123).



**6.1.** Hamar prediku edo sermoi dira: zortzi, santuen panegirikoak (jondoni Bixintxo, j. Joanes Batixta, j. Petiri, j. Julianano, j. Zipriano, j. Martine, Santa Luzia), bi Ama Birjinari buruzkoak (Andredena Mariaren Zeruratzea eta Maria Nota Gabea edo Sortzez Garbia, dogma hori azaltzen duena). Hemen laburduraz izendatuko ditugu: Bix, JBat, Pet, Jul, Zip, Mart, Luz, Andr, Que soy. Aipatu saildu edo Ama Birjina patroin ziren herri zenbaitetan Zaldubik predikatuak dira (zenbait bederen), eliza-besten kariatara.

Egileak ez dio, espreski bederen, noiz edo non predikatuak edo predikatzeoak izan ziren edo ziratekeen baina argitasun batzuk ematen ditu, eta horiei esker, uste dugu: jondoni Joanes Batixtarena Hazparden egin zela, hango bikario izendatua izan eta laster (1854), eta gainera Zaldubiren lehena izan zela; j. Petirirena, Senperen (1855); j. Julianorena, Ortzaizen (Duhauk dioskunez); j. Ziprianorena, Lekornen; Santa Luziarena, Atharratzen; Ama Birjina Nota Gabearena (Que soy era Immaculada Conceptiu) 1856koa dateke; j. Bixintxorena, 1870 edo 1871koa (data hau kalkula daiteke egileak hasieran ematen dituen argitasun zenbaitengatik); Andre dena Mariaren Zeruratzearena ez dakigu predikatua izan zenetz (edo soilki predikatzeo prestatua).

Beraz batzuk egilea apaiztu eta lehen urteetakoak dira (1854-1855-1856), Hazparden bikario egon zen aldikoak (1854-1860): JBat, Pet, Jul, Que soy. Zaldubiren lehen prosa idazlanak, dirudienez. Beste batzuk geroagokoak dira, Bidarraiko erretore (1860-1871) edo Atharratzen egon zen garaikoak (1872-1890): Bix, Luz, Zip, Andr, Ext; menturaz, oro Baionako kalonje izendatua izan baino lehenagokoak. Beraz I. eta II. Inperio garaikoak batzuk, Errepublikara garaikoak beste batzuk. Itxuren arabera, bi ez daude osorik (j. Julianano, Santa Luzia).

Jondoni Bixintxorenean egileak bere biziko xehetasun bat kontatzen digu: Erroman izana zela, katakunbak ikusten (Bix 70).

Zaldubik gogoko zituen sailduen biziak; ongi izate materiala eta progresoa jainkotu dituen mendearen kontrako antidoto direla esango du Joanategiren liburuari buruzko artikuluan (1890, ik. 2.2). Kantika batzuetan ere garbi adierazi zuen santuen eta, esan dugunez, Andre Mariaren alderako jaiera: «Jondoni Petiri edo Piarres Apostoluaren kantika», «Santa Luzia» (Adéma, 1991, 77-79, 91-92). Zaldubik sermoi moral gisa mamitzen ditu santuen bizitzak. Bestalde, pentsatzekoa da Zaldubik eta Joanategik elkar ongi ezagutzen zutela, Joanategi Altzain (Zuberoan) egon baitzen erretore eta han egin *Ehunbat sailduen bizitzea* (1876), Zaldubi Atharratzen egon zen denboran; menturaz Joanategik ezagutzen zituen Zaldubiren predikuak eta honek ere segurki haren liburuak, elkarren eite baitute hizkeran eta grafian Joanategiren aipatu liburuak eta *Sailduen bizitzeak* (1890) eta panegiriko hauek. Joanategiren 1876koak Zaldubiren santu guztiak hartzen ditu, baina irakurtzeko egina da; ordea, Zaldubirenak predikuak dira, elizan goraki entzunaraztekoak, ohiko erretorika eta teatraltasunarekin. Baina bai Joanategirenek bai Zaldubirenek kontatzen

ondotik irakaspena daukate; kontakizuna antzekoa da, eta irakaspena berbera (zenbait predikutan bederen): adib. kurutzeari edo penitentziari atseginez loztea (Bix); etsaiei barka eta maitatzea (Ext), karitatea edo maitasuna (Mart).

**6.2.** Zaldubiren arabera, sailduak giristinoentzat etsenplu dira eta ararteko; haien bertuteak, imitatu beharrekoak (Zip 211, Bix 69). Kristautasunaren lehen aldiak eta Erdi Aro goiztiarreko santu haien balentriak historiako gertakari nagusiak baino handiagokotzat dauzka egileak, gizarte paganoan lege berria ezarri baitzuten eta Eliza eraiki. Haiei esker, «Huna hemezortzi ehun urte Erromako hiriararen barnean badagola Jondoni Petiriren ondorioko gizon bat munduaren parte gehienari manatzen diona» (Pet 126/135).

Santu eta martirien panegirikoak tradizio handikoak baitziren, Zaldubik predikugai haien edukia bere aldiko gizarte-egoerara egokitu zuen. Bertuteen artean, adib. modestia (Luz), kastitatea eta birjinitatea (Jul) predikatzean, tokatzen zenez, jokabide moral zorrotza eta garratza –egungo begiez ikusita–, erakutsi zuen:

Dohatsu espos Jainkotiarrek, aldareen oinetarat, Sakramendu handi hartarat hurbiltzen direnak, bihotza garbirik, zeruko benedizioak nasaiki ardiesteko gisan, eta ez Jaunaren madarizoneak aintzinetik merezitu ondoan, eta ez bekatuan ihauska bekatua bera bezein deskustagarri beren buruak Jainkoaren begietan ezarri ondoan. (Jul 146/151).

Zaldubik etengabe dio mundua engainua dela, gizakiak naturaleza duela, naturalezaren gutuziak eta bizioak nagusi direla gizarte paganoan (Pet 130); horregatik askok erlijioa higuin dutela:

uste duzue pagano denbora hetan zirela bakarrik gure erlisioneari gerla egiteko arrosainak? Berdintsu da orai ere: ezen orai ere munduak naturaleza bera du. Gizonaren izpiritua orai ere egiari nekez behatzen da. Gure bihotzak orai ere pasione edo janiza berak ditu; bardin orai ere makurrerat, gaizkirat eta biziorat ekarria da (Bix 55/71).

Beraz aita familiakoei haurrak giristinoki hezteko eginbidea ezartzen die: «Zain gazte horiek, pendura suhar eta hezgaitz batzuek ez dezoten gaina har» (Zip 192/207). Funtsean, erlijioaren manuak predikatzen ditu; hau da, «Jaunaren legea» (Zip 211), edo «girstino legea» (Bix 72).

Zaldubik erlijioaren alde kartsuki jardutea dauka balio nagusizat:

arren munduaren izpirituak (...) ez du maite jainkotiarrik, bere gogorakoago ditu beren fedean hotz eta erlijioean lazo direnak. Nihor ez hil, deus ez ebasi, horra munduaren gogorako prestutasuna; ez da gaitz, bainan girixtino batentzat ez da aski. Jondoni Extebe bezala suhar izaitea fedean, kartsu erlijioean, Jainkoaren izpirituz betea, munduko goiti-beheiti guzietan, horra gutartean zeri behar ginioken eratziki estimurik eta ohorerik gehiena (Ext 272-273/287).

Bere mendea paganoen denborarekin parekatzen du: «Jadanik gure Aita Saindua preso dugu, paganoen denboran usaia zen bezala... Zertarat ote goa-

zi?» (Bix 56/72). «Lehen eta orai» topikoaz baliatzen da lehena –martirien sakrifizioko garaiak– goraiatuz: «Orduan girixtinoek arrozoinatzen zuten girixtino gisa, orai girixtinoek mundutar pentsatzeko manierak dituzte» (Ext 272/286).

Halaber bere aldiko euskaldunak lehenagoko euskaldun zaharrekin konparatzen ditu eta salatzen haien gizarte-jokamolde batzuk erlijioaren aldera, batez ere beranduagokoak diruditen predikuetan (Bix, Zip, Luz, Ext). Adib., «lekuan lekuko gisa» edo orekikoa egitea:

hots, eskualduna, altxa, eia, kopeta hori, girixtino bahaiz ez duk hiri kopeta horren apaltzea, bainan bai bertzeri apalaraztea. Errotek: «Ni, girixtino naiz, eta zueri behatuz, orduan aree nahiago.». Ez ordean, o, eskualduna, ez haiz eiki orai lehengo hura. Mundua kurrituz, ikasi duk lekuan lekuko gisa egiten. Han menturaz ahalke izan haiz fededun arrazatik hintzela irakustez...Ez huen menturaz hortako hemendik hanbat urrun ateratzearen beharrik...To! hurbileko hiri hortan; to! merkatu horietan; to!, herriko ostatu hortan...Arrotz baten ikustea aski, fedegabeekin fedegabe, juduekin judu, turkoekin turko...Harritu zaik hire girixtino odola...Ukatzen hau Eskual-herriak (Bix 61-62/74).

Ezen, girixtinoak, huna oraiko denboretan guziz, gutartean gertatzen den gauza desohagarri bat. Zoazte hulako konpainiarat: nor da han gehienik, ausarkienik mintzo dena? Hulako edo halako, orok dakitzagun arrozoin batzuen gatik, erlijionea eta bertutea begietan hartua duena (Ext 276/288).

Beraz martiriak protagonista direneko predikuetan, tonu gudukari, gora eta teatrazle zehatzen ditu erlijioari gerla egiten diotenak (Bix) edo «etsaiarekin gurekin baino akortago» direnak (Luz 265). Garaiko beste idazle batzuen ikusmolde bertsua darakus bere aldiko euskaldunak lehenagokoekin konparatzean (adib. Fr. Innocentius-ena), edo erlijioaren aldeko jarrera fermuan (adib. Hiriart-Urruti, Arbelbidek etab.ena). Tonu ezkorra nabari da prediku batzuetan, erlijioaren etorkizunaren kezkarekin batera (noiz arte libre izanen ote den praktikatzea, adib. Bix, Jul, Luz); bere aldiko denboren eta martirien aldikoen arteko analogia egiten du, orduko judu eta paganoen eta bere denborako erlijioari gerla egileen artekoa (Bix, Ext). Atsegin ez erakusten ditu santu martiri haiek etsaiei ihardokitzen: «Emazu hor, Saindu maitea; zu bezalako bat da eder ikustea erlijionearen etsaiei ihardokitzen; zu zare zu, Jesukristoren egiazko soldadua;» (Ext 275/288). Edo San Martin paganoen tenploak suntsitzen. Eta beti Zaldubik Elizaren (erakundearen) baitan fedea izatera deitzen du (Pet). Bestenaz, Zaldubik beti eskal gizarteko jendearen jokabidea du gogoan, irakaskizuna zehazterakoan; adib., auziei uzteko dei egiten du (Zip 207). Ezaguna da ere egileak Andredena Mariari dion debozioa; haren laudoriozko bi predikuetan bozkariozko tonua darabil, baita Hazparneko bere lehenean, Joanes Batixtarenean.

Beraz badirudi Zaldubik II. Inperioak eta geroago III. Errepublikak ekarri gaitzak kritikatzeko dituela. Horregatik maiseatzen ditu, adib., ohore eta kargu gose direnak (Zip 206). Ordea, bere denborako enperadorearen inperialismok

ekarri makurren kritikarik ez da ageri. Errusiarekiko gerla zeharbidez aipatu ondoan dio:

beti txarrenak amore maitea gauzetan den naturalena zait (Pet 128).

**6.3.** Eliz oratoriako genero jakinekoak izanik, erretorikoak dira erabat konposizioz, apainduraz, mintzairaz, deklamazioz (jestu, ahots etab.). Arruntki, egitura berekoak: exordio edo sarrera, gaiaren azalpena edo kontaera, eta ondotik irakaspena eta bukaera. Sarrerek luzeskak dira, topiko jakinez beteak (bereziki apaltasunaren simulazioa), eta Mariari otoitzarekin (Ave Maria) bukatuak. Gertaeren kontaera da forma nagusia panegirikoetan, azalpenak lagunduta; argumentazioa, Ama Birjinari buruzkoetan, dogma ezarri berriak baitziren (Que soy), edo geroago ezarriko zirenak (Pio XII.ak Andredena Mariaren zeruratzearena, 1950ean). Autoritateak, hots, latinezko latinezko zitazioak, ugariak dira (halakorik ez da Joanategiren aipatu liburuetan).

Apaindurazko figurak ere oparo darabiltza: alde batetik, ideiak azaltzekoak eta giroa sortzekoak, hipotiposi eta konparazio zenbaitek lagundurik; bestetik, entzuleekin bat egitekoak. Ideien amplifikazioa egitura paralelistikoen eta errepikapen figuren bidez lantzen du: paralelismoa (3 edo 2 osagaikoa), antitesia, anáfora, epanalepsia, sinonimia etab. Entzuleekin bat egiteko figurak ustiatzen ditu: *communicatio*, *exclamatio*, galdera erretorikoa, *dubitatio*, eztabaida simulazioa, *sermocinatio* eta *dialogismoa*, apostrofea...Gehienak sendimendua, emozioa adieraztekoak dira.

Ohargarria da apostrofearen eta bere aldaeren (irakurleari alokuzioa, inbokazio, exekrazioa, esklamazioa) erabilera ausart eta ausarkia. Bereziki hitanozkoa: hizlariak munduari (JBat 104), Piarresi (Pet 134), gizonari (Mart 231), jende basari (Mart 232), deabruari (ohi zaionez, hala Joanategik ere), lege «*madarizionezko*»ari (Que soy 251). Zuka bidezko apostrofea ere ageri da: hizlaria Mariari zuzentzean (Andr 178) edo j. Martini (Mart 232), j. Piarresi (Pet 134) edo Galileako gizonari (Andr 179). Hitanoa dialogismoan ere bada-rabil egileak, apostrofean ez eze: Jesusek Piarresi (Pet 131); aingeruek Martini (Mart 233), enperadoreak Martini (Mart 233), lapurrek Martini (Mart 234), pagano batek Martini (Mart 236). Zaldubik hitanoa arruntki erabili ohi du elizan; 1877ko liburuan apaizak hitanoz mintzatzen zaio bere buruari (ostia saildua haustean, 111-112), edo gaizkiari (ongiari, ordea, zuka, 74).

Hizlariaren kontaera eta azalpena oso teatralak dira (ez hala Joanategiren kontaera, bukaeran bereiz ezartzen baitu irakaspena). Kontatzerakoan, hizlariaren ahotsa dibertsifikatzen da: irakurlearenarekin bateratzen da edo santuari zuzentzen zaio (Zip 280); hizlaria suspentsea sortzen saiatzen da galdera bidez (Jul 150). Ahozko kontaera-estiloaren erabilera nabarmena da, entzuleekiko hurbiltasuna bilatuz: aditz nagusiaren elipsia (Mart 235), adierazpide enfatikoak, esklamatiboak: *Nor harritu, X harritu, (...), Bedere bedere, (...)* (Ext 291), *Iduritzen zaiku barkhatzea bainan xoilki barkatzea, (...)* (ibid. 292), *Hek ere bedur!* (Jul 150).

Kontaera eta azalpenean mintzaira enfatikoaz baliatzen da, irakaspenean hizkuntzaren funtzio konatiboaz (bereziki inperatiboa), baita sententzia estiloaz. Zaldubik euskara argia darabil, euskalkiz lapurtera, hiztegi zabala, ulergarria, ez garbiegia; lapurtera klasikoaren oihartzunak sumatzen dira, adib. mende-perpausetan, baita Axularren eragina pasarte batzuetan (Zip 206-207).

## 7. Ondorio batzuk

**7.1.** Euskaldunen artean euskara erabiltzearen aldekoa izan arren, frantsesez idatzi eta argitaratu zituen idazlan batzuk: neurkerari eta japoniera-euskara konparazioari buruzko ikerlanak, tradizioei eta erreboteko jokoari buruzko mintzaldi, artikulua eta liburuskak. Maila gorako diskurtsorako eta gai teknikoak garatzeko frantsesa erabili zuen Zaldubik; gainera, entzule edo irakurle zituen jende ikasi horiek, guztiak behintzat, ez ziren euskaldunak, eta euskaldunak ere ez zeudekeen gai ideologikoei buruz euskaraz entzuten edo irakurtzen ohituta. Hala ere, mintzaldi eta artikulua ideologiko batzuk, bai eta erreboteko jokoaren erregelen deskripzioa, maila hein bat gorakoak edo teknikoak dira, edo jakintza maila handiko euskaldunentzat eginak. Erlijio gauzak, ordea, beti euskaraz lantzen bide zituen.

**7.2.** Erran dezakegu prosa-idazlanetako gaiak bertsoetan ageri direnen paretsukoak direla. Ama Birjinaren debozioak Zaldubiri liburuskak eginarazi zizkion (lehen, apezpikuak manaturik), kantikekin osatuak. Hain artoski eta aratz kaligrafiatzen zituen predikuek haren predikalari alderdia agertu digute, ez baikenuen ezagutzen. Horiek guztiak Zaldubiren erlijio-pentsamoldea erakusten digute (baita hizkuntzamoldea, estiloa etab., noski). Baina sainduen biziak ez eze istorio eta jostatzeko liburuak ere behar zirela zioen.

**7.3.** Zaldubik argitaraturiko mintzaldi eta artikulua franko ideologikoak dira, erran nahi baita horietan egileak bere ideiak azaltzen edo garatzen dituela neurtitzetan baino naharoago, xeheago. Zaldubiren jarrera ohargarria da: etxe onekoa eta ikasia zenez, apeza eta jaun kalonjea, bere burua elite baten (elizgizon, jende ikasi, euskaldun etxe zaharretako noblezia) partaidetzat zeukan, eta alderdi baten (*xuriak* zeritzatenen) partaidetzat ere. Euskal Herriaren izenean mintzo zen, «egiazko euskaldunen» izenean, «euskalduntasunaren ohorea»ren izenean. Euskaldun izatea, euskara, Euskal Herria, euskal naziotasuna («notre nationalité») maite zituen, kenka larrian zirela uste zuen eta gai horiez mintzatzean tonu hein bat epikoa zerabilen.

Ideologiaz lege zaharrekoa edo tradizionalista zen: euskaldunek beren tradizio zaharrak fermuki atxiki zitatzela nahi zuen; arrotz lege, dotrina, moden kontra borroka ari zen, frantziar Estatuak sustatu uniformizazioaren kontra, horrek euskaldunen eta euskararen desagertzea ekarriko zuelakoan. Hegoaldeko Pizkunde giroak eta Donibane Lohitzuneko Euskal Bestek (1892, 1894,

1897) eta Azpeitikoek (1893) hats eman bide zioten borroka ideologiko eta politiko gaitzen egun haietan euskaldunen bereiztasuna eta beregaintasuna, bai eta batasuna (Zazpiak bat) oihukatzeke, ipar eta hego, neurtitzez bezala hitz lañoz ere; horregatik izan da ongi hartua euskaldunen artean. Ohargarri da ere euskaldunen historiarekiko zuen interesa; horretan urrats bat egin du agian, historia zerbait euskaraz idaztean.

**7.4.** Zaldubik bere ideien ondorio praktikoak bilatzen zituen. Euskara gizartean erabili behar zela predikatu zuen bere mintzaldi eta artikuluetan; ezagun da euskararen gizarte egoeraz kezkatua zela, batik bat Iparraldekoaz. Jokamolde batzuk ere proposatu zituen: elkartasunezko ezaugarri bat erabiltzea, adib. orratz bat («Les Traditions du Pays Basque», 1887); euskaldunen artean beti eskuaraz mintzatzea, eta, huts egitean, batak besteari ohartaraztea keinu batez, edo erdarari euskaraz erantzunez. Eta gero, euskara maitetasunez erabili behar zela zioen. Neurri praktikoak bilatzen zituen halaber erreboteko jokoak sustatzerakoan, mutiko gazteei nola lagundu azaltzen zuelarik. Haize kontra ari zen, noski.

**7.5.** Bere pentsamoldea labur, biribil eta graziaz kantatu zuen koblakaria eta euskal bertso-neurkeraren teorialaria ez ezik prosa idazle landua izan zen, baita frantsesez ere. Lapurteraz idatzi zuen eta idaztankera bere-berea du, beti argia eta jendearen ahoko mintzamoldearen eraginezkoa. Bere aldiko euskal idazleetan utzi duke aztarnarik (adib. Hiriart-Urrutigan). Euskal literaturak haren prosa-idazlanak aintzat hartu beharko dituela, uste dut.

## Bibliografia

- ADÉMA, GRATIEN (ZALDUBI), 1875, *1875an / Jubilau urthe Sainduan / Bazco biharamun eta hirugarrenean / Lourdesen eta Betharramen / Escual herritic pelegin cirenen / orhoitzapena*. Baiona, Andre Lamaignere alharguntsa. 72. or.
- , 1877, *Escualdun / Pelegrinaren / bidalzailea. Gr. Adéma aphezac egina*. Baiona, Andre Lamaignère alharguntsa. 178 or. + Appendice à l'usage de ceux qui ne sont pas initiés à la prononciation du dialecte basque employé dans ce livre, (I-IX).
- , 1894, *Notice sur le jeu de Paume au Rebot, jeu national des Basques, le plus beau jeu du monde. Explication avec figures. Indispensable aux étrangers*. Baiona: Lasserre.
- , 1899, *Art poétique basque. Eskualduna*, 1899 (atalka argitaratua).—Ik. Adéma (Zaldubi), Gratién, 1998.
- , 1991, *Gratién Adéma Zalduby. Kantikak eta neurtitzak*. EEE. A. Bengoetxearen edizioa.

- , 1998, «Art poétique basque Adéma «Zalduby»rena», *Lapurdum*, III, 1998, 77-101. Xabier Altzibarren sarrera eta edizioa.
- , 2006, «Adéma-Zaldubiren hitzaldi, artikulua eta kantu zenbait», *Lapurdum* XI, 2006ko azaroa. 7-39. X. Altzibarren sarrera eta edizioa.
- , 2007, *Predikuak saindu batzuen biziaz*. Bilbo: Euskaltzaindia. Euskaltzainak bilduma. Henri Duhauen sarrera («Bildumagilearen bizpahiru oharpen», 39-43) eta edizioa.
- ALTZIBAR, XABIER, 1998. Ik. Adéma, Gratien (Zaldubi), 1998, 2006.
- , 2006. Ik. Adéma, Gratien (Zaldubi).
- BENGOETXEA, A., 1991. Ik. Adéma, Gratien (Zaldubi), 1991.
- DARANATZ, J. B, 1908, «Le chanoine Adema». *RIEV* II (1908) 121-124.
- Dona Phaleuco agertceac*, 1876, Pau, A. Menetière.
- DUHAU, HENRI, 2007. Ik. Adema, Gratien (Zaldubi), 2007.
- ETXEPARE, JEAN, 1909, *Buruxkak*. Tours, Mame. –1992, EEE, Klasikoak 59, I. Arrigainen edizioa.
- HARITSCHELHAR, J., 1970, *L'oeuvre poétique de Pierre Topet Etchahun*. (Texte-Traductions-Variantes-Notes), *Euskera* (1970).
- HIRIART-URRUTI, J., 2004. *Jean Hiriart-Urruti. Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio*. Labayru Ikastegia-BBK Fundazioa. Bilbao. X. Altzibar-en edizioa.
- INTXAUSPE, IMMANUEL, 1894, *Maria Birjinaren hilabetia*. Paue: Vignancour.
- TOUYAROU-PHAGABURU, ELENA, 2007, *Gracian Adema Zalduby (1828-1907)*. Eusko Jaurlaritza, Bidegileak.
- URKIZU, PATRI, 1997, *Anton Abbadiaren koplarien guduak. Bertso eta aire zenbaiten bilduma*. 1851-1897.
- VINSON, JULIEN. 1991. *Bibliographie de la langue basque*. I. Paris. –1970, Oosterhout, Pays Bas, Anthropological Publications (aipamenetan beti 1970ko edizioko zenbakia ezarri dugu, ez orrialdea).
- XARRITON, P., 1985, «Gratien Adéma Zalduby-ren bizia eta lanak». *Mundaiz* 29 (1985).
- , 1992. «J.B. Elissamburu eta Gratien Adema», *Euskera* (1992-1), 55-63.

## ERANSKINA

*Gratien Adema Zaldubi. Predikuak saindu batzuen biziaz. Euskaltzainak bilduma. Euskaltzaindia. 2007. Argitalpenaren paratzailea: Henri Duhau.*

H. Duhauk paratu edizioa bikoitza da: Zaldubiren prediku bakoitza lehenik faksimil eran eskaintzen du eta ondoren jatorrizko testuaren egokitzapena egiten, bai eta ohar ugari hitzak errazago ulertzeko. Faksimilak Zaldubiren letra garbi eta zuzena agertzen du. Duhauren edizioa egokitua da ortografia eta puntuazioaren aldetik ere; ortografia modernoan ezarria da, Iparraldeko ahoskera batzuk gordez, bereziki *r* ondoko *h* zenbait (*orhoit* etab.). Baina ediziozileak Zaldubiren jatorrizko idazkera aldatzen du, haren ezaugarri diren hitz *eta* forma asko baztertuz. Hitzaurrean esaten duenez, «Hots, lan hauetan barna –eta orhoit zazpi liburuki izanen direla orotarát–aurkitu dugularik hitz bat hobeagotzat daukagun forma batean (batasunari buruz doalakat)z hura hautatu dugu eta liburu osoan jarri.» («Bildumagilearen bizpahiru oharpen», 40). Hitzaurre honetan Duhauk hitzen aldaketa askoren arrazoia ematen du, beste askorena ez. Ikus ditzagun, zehatzago, edizioaren aldaketa nabarmenak eta zein den Zaldubiren idazkera prediku hauetan eta gainerako idazlanetan (nahiz gainerako predikuak, argitaratzekotan direnak, ez ditugun ezagutzen).

**1.** Egia da, Duhauk eskuizkribuko huts franko zuzentzen ditu; puntuazioa ere gehienetan egoki jartzen, koma gutxi batzuk izan ezik; inprenta-hutsik ere gutxi uzten du zuzendu gabe. Hala ere, dozena bat hitz gutxienez eta hiru lerro edo esaldi oharkabean «irensten» ditu, ondokoak:

Bix 61, 19. ler. Cer? guirichtino arnegatu herbail lehertu hori?; Andr 174, 23-24. ler., hastia harc higuin cituenac; Zip 193, 24-25. ler. eta baquetceac eguin bidegaberie?; Ext 277, 17. ler. legue zaharreo eta bereciki Moïse profetaren goiti beheiti.

**2.** Batasunari eta egungo irakurleei begira Zaldubiren hitzen eta adizkien ordezkara batukoak ezartzeak bere alde onak baditu baina hartara testua ja ez da egilearena huts-hutsik edo ez osorik behintzat. Egia da, Zaldubiren idazkeran zalantzak ageri dira hitz askoren formetan, prediku hauetan ez ezik debozio liburuetan, neurtitzetan eta are kazetalanetan; beste hitz eta forma askoren idazkeran, ordea, erregulartasuna dago. Baina edizio honek ez dio horri begiratzen, ez Zaldubiren idazkeran zalantzen artean nagusi diren formei, baizik euskara batuari. Hartara, Zaldubiren idazkerako forma asko, euskalki edo herri-euskara konnotazio edo marka daramatenak, bestelakatuak dira:

**2.1.** Aditz eta adizkiei dagokienez, hona edizioaren aldaketak (geziak aldaketaren norabidea markatzen du): *gan* eta hartarikoak → *joan*; *erau-*, *-aror-* erroko adizkiak → *-au-* (adib. JBat 81 eracusten darocu → 100 erakusten dauku; Andr 175 «Eman cinerauzquidan → 183 «Eman zinauzkidan). Ordea, Zaldubik prediku hauetan, 1875 eta 1877ko liburuetan, neurtitzetan eta kazetalanetan ere gehien-gehienetan *gan* idatzi zuen; haren idazkeran *-erau-/aror-*



*/-au-* zalantza etengabe ageri da baina *-aro-* nagusi dateke. Onargarria iruditzen zaigu *dagoka* eta honetariakoak «*dauka*» → *dauka* aldaketa (Andr 161 ez ahal dagoca (...)) hemen cer dagocadan zuretzat → 178 ...*dauka*...(…) ...*daukadan*...), nahiz hasieran (1875, 1877) *-ago-* darabilen maizenik. Baina *-n* bukaerako adizkietan, bereziki aditz izenetan *-i-* artizkia beti ezartzeko arrazoi garbirik ez da ikusten, ezta ere *-te-* → *-ite-* bihurtzeko beti, zeren Zaldubik prediku hauez gainerako idazlanetan *emate*, *errate* idazteko ohitura erakusten baitu, *izaitte/izate* formen artean zalantza erakusten duen bezala, eta gainerako adizkietan, adibide gutxiagorekin, *igaitte*, *egoite*, *jasaite* idazteko joera.

Beste aldaketa batzuek ere ez dukete funts handirik: JBat 81 erran ahal netçazquenen → 100 erran netzazkeenen; Andr 156 beha dieçaguçu → 177 beha iezaguzu, baina Que soy 245 Iracuts dieçadaçue (2) → 251 Erakuts diezadazue; gaiten → gaitezen (Ext 285, 287), diten → ditezen (Luz 267), naite → naiteke (Ext 285), laiteke → liteke. Zaldubiren idazlanetan oro har *gaiten* da nagusi (nahiz *gaitezen* ere badarabilen prediku hauetan), bai eta *naite*, *laite* (*laiteke* ere badago prediku hauetan). Ezin uka, baina, beste aldaketa batzuek anbiguotasun posibleak garbitzen dituztela. Adib. zioen «zion (hark hari)» → zion, esanahi bereko bi forma horiek ageri baitira 1875ko liburuan eta neurtitzetan ere.

*Ibili* → *erabili* (*dabilca* → *derabilka* etab.) eta alderantzizko aldaketak, egungo erabilerari egokitzean, irakurketa errazten du. Adib. Pet 110 mundu hau noiz nahi horrela itçulica dabilcaten guerthacariac → 128 ... derabilaten gertakariak; Pet 110 bere herritic campo cerbeiten ikhasten (...) nihun ez erabilia → 128... ibilia. Baina komeni da azaltzea Zaldubik *ibili* eta *erabili* «*erabili*» nahiz «*ibili*» adierazteko darabiltzala beti, beste idazle batzuek bezala, bereziki lapurtarrek (Hiribarren, Duvoisin, Elizanburutarrak, Zerbitzari etab. Ik. OEH). Aldaketa horrek ez luke zentzurik neurtitzetan: (mihiaz) «Hark dabilka bethitik / Mundu hau dena» (Adéma 1991, 148).

Beste aldaketa batzuk, zuzentasuna edo batasuna bilatzen dutenak, ezta-baidagarri dirateke: Bix 55 Guizonaren izpiritua orai ere eguiari nekhez behatcen da → 71 ...izpirituak behatzen du. (Halaber Andr 180 behatzen balin bazioten herioari); (Que soy) 248 horra cer diagun guciec fermuqui sinhesten → 252 ...dugun...;

2.2. Ahoskera ukitzen duten aldaketa zenbait egiteko arrazoi garbirik ez dugu ikusten. Edizio honetan izen bereziak aldatuak dira: Batichta → Batista, Eliçabeth → Elixabet (JBat 100-105; Petiri → Petri 129, 135 (7 aldiz); Echtebe → Eztebe (beti). Ordea, Zaldubik prediku hauetan ez ezik neurtitz eta kazetalanetan ere gehienetan *Batixta* idazten du, eta *Petiri* nahiz *Petri*. Ondoko aldaketa ere ez dateke ulergarri: Bix 62 burdin behatz zorrotz → 74 ...behatz xorrotx...;

Bokal bilkuretan *-ia* → ea bihurtzen da edizioan (pare bat predikutan): Zip 190 etchian, jendiac, etchia → 206 etxean, jendeak, xehea; Zip 191 chehia

→ 206 xehea; Zip 196 Ordian → 208 Ordean; Mart 222 ordian (...) han berrian → 234 ordean (...) han berean; Mart 227 erortcen denian → 236 ...denean; Mart 228 picatu hurren dutenian → 236 ...dutenian.

2.3. Konparazioa adierazteko hitzetan, aditzlagun, lokailu etab.etan ondoko aldaketak ageri dira edizioan: *bezen* → *bezain*, *bezenbat* → *bezainbat*; *bedere* → *bederen*; *berritz* → *berriz*; *zenbeit* → *zerbait*, *nolazpeit* → *nolazpait* etab. Ordea, *bedere*, *berritz* (hauek ia beti), *bezein*, *beizik* dira Zaldubiren forma ugarienak (nahiz *baizik* eta *baizen* formak ere maizkara darabiltzan). Orobat ia beti *-beit* bukaeradunak ageri dira haren idazlanetan: *noizbeit*, *norbeit*, *nolazpeit*, *norapeit*, *nunbeit*, *zenbeit* (gutiago *zonbeit*), *zerbeit*.

Halaber ez dugu arrazoi garbirik ikusten ondoko kasuetan: *geroz*, *orainik* → *geroztik*, *oraino*. Adib.: Pet 114 Orduco mintzagaile çoragarrieri eta iscribatçaile famatuerei, gueroz ez çaiote nihor orainic nausitu → 130...geroztik (...) nehor oraino nausitu. Onargarria iruditzen zaigu, ordea, *bardin* (prediku hauetan beti) → *berdin* aldaketa, Zaldubiren geroko idazlanetan ere hori delako forma nagusia.

2.4. Beste aldaketa batzuek ere (izenordain, erakusle eta determinatzaile, *-rat*...) gure ustez ez dute funtsik: *nihor* → *nehor*, Zaldubik *nihor*, *nihun*, *nihola* idatzi ohi baitu bere liburu, neurtitz eta kazetalanetan. *Hek* → *heiek* eta *haukien* → *hauen*, *hoikien* → *horien*, *hekien* → *heien* aldaketez esan behar dugu: *hek* dela Zaldubiren idazkeran forma usuena liburuetan, neurtitzetan, kazetalanetan, nahiz *heiek* ere ageri prediku hauetan; *hauen* ez dela Zaldubiren idazkeran ageri, *haukien* baizik; *hekien/heien* artean zalantza dagoela (nahiz *heien* gehiagotan ageri den). Bestenaz *nork nahik* → *nornahik* (Ext 285) aldaketari dagokionez, ez dugu eragozpenik, idazleak bata nahiz bestea noiztenka eta zalantzan erabiltzen baititu; halaber *-ra* → *-rat* aldaketari dagokionez, biak erabiliak baitira eta biak usu, diferentziarik gabe, ustez.

2.5. Euskalki edo herri-euskararen konnotazioa duten hitzen formen aldaketak ugariak dira. Hona edizioaren aldaketen adibide batzuk:

Bix 62 khindacha → 74 gindaxa; Pet 109 Alainen → 128 Alabainan; Pet 124 gonbertitzen → 134 konbertitzen; Luz 262 hirur → 266 hiru; Andr 155 aingeruzco mintçaian → 177 ...mintzairan; Andr 163 autor saindu batçuec → 179 autore...; Andr 168 axeguineguingarriena → 181 atsegingarriena; Zip 193 Çueri galdeguiten dautçuet → 207...galdetzen dautzuet; Zip 187 errecibitcearequin → 205 errezebitzearekin; Zip 192 errecibituricaco → 207 errezebiturikako; Zip 187 iracuspenez → 205 erakaspenez; Zip 192 iracuspen salbagarriez → 207 erakaspenez...; Zip 188 curaye eta çucentasan → 205 kuraia...; Ext 280 Hauche da curayea → 290...kuraia; Zip 189 mespreciorequin baicen → 205 mespretxurekin baizik; Mart 225 mesprecioa → 235 mespretxioa; Zip 202 hain gurutzezcoa → 210 ...kurutzezkoa; Mart 213 gaitziru → 231 gaitzuru; Mart 229 mobimenduaren hartcen → 236 mogimenduaren ...; Mart 229 combidatu zuen → 237 gonbidatu...; (Que soy) 242 phoçoatu (...), phoçoatu-

ric (...), phoçadura (...) → 250 pozoindatu (...), pozoindatuak (...), pozoindu-  
ra (...); (Que soy) 243 colpe hortaric guericean → 250 ...gerizan; (Que soy)  
243 negurri gabeec → 250 neurrigabeek; (Que soy) 243 kizcailtcerat → 251  
kiskailtzerat; (Que soy) 245 hoin gora → 251 hain gora; (Que soy) 247  
eguilea, eta eguinaraztailea → 252 egilea eta eginarazlea; Luz 260 arroçoine-  
rat → 266 arrazoinerat; Luz 263 erresina → 267 errexina; Ext 274 adichki-  
dantzazco patu bat → 288 paktu bat; Ext 280 halaco indarric → 290 holako...;  
Ext 283 holacoc cernahi eguin daut → 292 ...holakoak...; Ext 284 exaiei →  
292 etsaieri.

Ordea, Zaldubik beti edo ia beti idatziko ditu geroago ere (liburuetan,  
neurtitzetan, kazetalanetan) ondokoak: *arrozoin, barraiatu, errezibi-, gurutze*  
(gutiago *khurutzefika/kurutzefika*, Adéma, 1991, 188-189), *iraku(t)s-, irakus-*  
*pen, jendaia* (ik. 6.3.4), *kuraie* (+ *-a* art.), *mintzai, mobimendu, negurri, patu*  
«paktu». Gainerako hitzetan ere forma aldatzeko arrazoirik ez dugu ikusten.

3. Edizioan, kasu guti batzuetan hitzak berak ere aldatuak dira: Bix 52  
basabreen griladac → 70 basabereen atepak; Pet 127 haren egin eder gucietan  
→ 135...egintza...; Ext 280 abituda zahar → 290 usaia zahar.

4. Aldaketa batzuk, gure ustez, ez dira zuzenak (okerrak diratekeenak  
azpimarratzen ditugu):

Bix 47 hemen orai bitoriaz aiphu!--> 68 ... *bitoria* aipu; JBat 85 Zakha-  
rias aphez hori funtzione handi batçueuz bere aldian cargatua → 101...apez hori  
*bere* funtzione handi batzueuz...; JBat 86 Ez dio bici deino bere gorputçari  
emanen den mendreneco mainaric → 101...bizi *deno*...; JBat eskuineko aldetik  
aguertcen zaion aingeru bat → 101...*ateratzen* zaion...; JBat 85 Aarondarreta-  
rik → 101 Aarontarretarik; JBat 86 populu gucia campotic othoitcean çagon  
→ 101 populu guzia kanpotik zagon; Pet 110 guiçon bat oficio ahul hortan  
salbu deusetan ere aitcen ez zaiona → 128...*aritzen* ez zaiona; Pet 116 Gali-  
leaco itsas bazterrean gaindi → 131 Galileako itsas *bazterretan* gaindi; Pet 116  
Ez bat, ez bia, hor uzten tuzte bere guisa → 131 Ez bat *eta* ez biga, hor uzten  
dituzte beren gisa; Pet 119 Guiçona cer den ocasioneac behar du eman eza-  
gutzerat → 132...*erakusterat*; Jul 140 bertuteac eremaiten dituen bitoriac →  
149 ...*emaiten* dituen bitoriak; Andr 161 profetaren hitz hauquien → 178  
*profeten* hitz hauen; Zip 187 Carthagoco hiri handian → 205 *Khartago* hiri  
handian; Zip 190 jendeen artean → 206 *jendearen* artean; Zip 191 ikharan  
baitçagocin beldurrez ez ičan harentçat amodioaren izarico erresetua → 206  
ikaran baitçagozin beldurrez ez izan harentzat (*zuten*) amodioaren izariko  
erresetua; Zip 192 bathaioac ez çuela balio → 207 ez zuela *baliorik*; Zip 193  
bakezco bideeri lotcea → 207...*bideari* lotzea; Mart 215 Jendaia basa → 232  
*Jendaira* basa; Mart 228 ez dadin ihesi abia → Mart 236 *ihesi* abia; (Que soy)  
240 contcebitua ičan cela ez (...) bertce egundainoco guciac beçala → 249  
...*guziek* beçala; (Que soy) 241 ez madaricionezco legue → 250 ez *madarizi-*  
*one* lege; (Que soy) 243 Bai, nahi badu → 250 Bai, nahi *bada*; (Que soy) 246

cer aparantzia → 251 zer aparantzia (*du*); Luz 255 Zuhurtciaren lib. → 264 *Zuhurtziar* liburutik; Luz 257 Perfet izan (...) prudent izaitea (...) → 265 *Perfeta* izan (...) *prudenta* izaitea; Ext 270 gutaric bakhotcharentzat → 285 gutarik *bat* bakotxarentzat; Ext 273 guizonbat, arras guizona, → 287 ...*arras gizon*; Ext 273 fedez eta fedearen sendimenduz bethea, ecen othe da eguiazco guizontasunic fedetu gabe? →...*fedea* gabe?; Ext 281 besoec eman ahala → 291 *besoak* eman ahala.

Beste kasu batzuetan ez dago zertan zuzendu, gure ustez: Mart 216 sorthu cen duela hamalau ehun urtheren ingurua Hongriaco herri batean → 232...*ingurua(n)*...; id. (Que soy) 247 cer guerthatu citçaican, duela hemeçortzi ehun eta hirur hogoi eta hamabi urtheren ingurua → 252...*hiru* hogoita hama bi urteren ingurua(*n*); (Que soy) 243 Jesus, Mariarenganicaco haur botheregu-cizcoaren amodio, (...) → 250 Jesus(*en*), Mariarenganikako haur botere guzizkoaren amodio, (...); Ext 279 Haren azken aiphatu ditugun hitz horiec → 290 Haren azken(*ik*)...;

Ondoko aldaketak ez dakarke esanahi aldaketarik (lilluratu → lilluratu): Ext 276 choro batec zagozca lilluratua? → 288 ...*lilluratua?* (testuinguruan adierazkorra dirudi, baina adierazkorra ez delarik ere *ll-* idazten du Zaldubik beste idazlan batzuetan ere).

5. Estilo aldaketa ugari dakartza edizioak; gure ustez, soberakoak dira (salbu hemen aipatuez kanpoko batzuk):

JBat 85 eta çuen icena Eliçabeth →101 eta izena zuen Elixabet; JBat 86 seme bat eta seme hura deituco duçu Joannes → 101 seme bat, eta hura ...; JBat 94 ahaideac eta eçagunac → 104 ahaide eta ezagunak; Pet 112 den gutiena loxaraci → Pet 129 den gutienik lotsarazi; Pet 115 mundu axeguinez ecin ase horri, → 130...*ezin* ase den horri,...; Pet 116 sare tchar batçuen urean hedatzen → 131 sare txar batzuek...; Pet 119 buru gogorreco gerthatu içan balitz → 132...*buru gogorrekoa*...; Jul 141 lotsatua naiz jada ceren hartu dudan...→ Jul 149 lotsatzen naiz jada zeren hartu dudan...; Andr 161 çu nahitua → 178 zu(*taz* ) nahitua; Zipr 200 hitz emana da Ceruco erresuma → 210 hitzemaña zaio...; Ext 272 Nundic heldu da othe → 287 ...heldu ote da; Ext 274 lehen comunione hartan nola bat eguin guinen Jesukristorekin → 287 ... bat egin ginuen...; Ext 275 exai haintz gabe → 288 ...*aintzik* gabe; Ext 279 Haren azken aiphatu ditugun hitz horiec izan ciren...→ 290 Haren azken(*ik*) aipatu...; Ext 280 jada berantexia → 290 jadanik...; Ext 284 eguiazco girichinoen seinalea → 292...*girixtinoaren*...

Edizioak errespetatu dituen perpaus bihurri batzuk tropo gramatikalak izan daitezke, nahiz Zaldubiren beste idazlanetan ez dugun halakorik ikusi, edo bestela kopiatzerakoan nahasketaren ondoriozko hutsak: Jul 140 Pentsa beraz guk bezalako mundu huntako gertakari hitsen erdian bizi diren batzueri! / Oi Juliano dohatua, hauxe da lanari lotzera noan!...(Jul 140/149).

Ondorioz: gure ustez, faksimileari esker ezagutzen dugu benetako Zaldubiren idazkera, ez hainbeste edizio egokituari esker; faksimilea, baina, Zaldubik letra ederra izanagatik, irakurtzeko askoz nekagarriagoa da. Edizio egokitu hau klasikoen orain arteko edizioez bestelakoa da: euskara batuari begira egina, dibulgazio asmoz egina; Zaldubi errazago irakurtzeko balio du, baina ez Zaldubiren jatorrizko testua edo idazkera ezagutzeko. Esan gabe doa, gu beste edizio mota baten aldekoa(goa)k gara: grafia modernoan ezarrita, egilearen testua guztiz errespetatuko duenarena, oharretan azalduz testuko forma zail samarrak (euskara batuko formen bidez) edo bestelako xehetasunak. Zaldubiren kazetalanen argitalpenean, behintzat, saiatu gara jatorrizko testua ez aldatzen (Adéma, 2006).



## **GRATIEN ADEMA «ZALDUBI». BERE MENDEKO APEZ ETA GIZONA**

*Jean Haritschelhar*

Bilduak garelarik egun Senperen Gratien Adema Zaldubiren heriotzaren mendeurrenean, argi eta garbi daukat gogoan bilduak garela idazle baten eta bereziki olerkari baten obraren aipatzeko, baita ere ospatzeko ez baita izan edozein idazle edo olerkari Senpertar apez eta gizon hau. Ez gara bilduak norbaiten jujatzeko ehun urteren buruan, ikertzeko ordea, ulertzeko ere zein izan den haren bizia, orduko munduan, apeza izanez nola baliatu duen bere ama-hizkuntza giristinoen laguntzeko beren urratsetan, nola jokatu den ere, herritar gisa, garai haietan gizarteak ezagutu dituen aldaketetan.

Jakina da jendea bizi dela eremu berezi batean, bere herriaren seme edo alaba dela, manera berezi batez hezia izana dela bai etxean, familian lehenik, etxetik urrun gehienetan, gizarte batean murgildua dela, gizarte horrek duela bere historia. Beraz, edozeinentzat kontutan behar da hartu non eta noiz deraman bere bizia: Gratien Adema Zaldubirentzat, Euskal Herria eta XIX. mendea. Hortakotz deitu dut ene mintzaldia: Gratien Adema Zaldubi, bere mendeko apez eta gizona.

### **APEZA**

Bere estudioak eginik Larresoroko seminarioan Ademak ezagutu ditu apez gisa Iparraldeko hiru probintziak. Lehenik Lapurdi, Hazparden zelarik bikario (1853-1860), bera ere Lapurtarra izanki, Baxe Nafarroa gero, Bidarrain zelarik erretor, han ezagutu zuela Otxalde bertsularia (1860-1872), ahantzi gabe Zuberoan iragan zituen hemezortzi urteak 1872tik 1890a arte, azkenik izendatuko dutela Baionako katedraleko kalonje, ohore hori ez baitzitzion edozein apezari eskaintzen. Han egonen da hil arte 1907an.

Pentsa dezagun berrogeita hamar bat urtez igandetan eman dituen predikuek zer balio handia ukanen duten publikatuko direlarik, hala nola egun Henri Duhau jaunak aurkeztuko duen Ademak idatzi dituen *Saindu batzuen biziaz*. Bainan ez da horretan gelditu. Bazakien, aspaldiko ohidura izanez, euskaldunek kantatzen zutela euskaraz meza nagusietan. Alabainan, Trentoko

kontzilioaren ondotik meza berri bat eskainia izan zitzaizen munduko giristinoei, latinez noski, latina zela Elizaren hizkuntza ofiziala. Zer gelditzen zitzaizen bertze hizkuntzei: predikua eta kantikak. Predikuak aipatu ditugu, kantikei buruz ariko gara.

Aski dut ene haurtzaroaz oroitzea. Baigorriko eliza mukurru betea, bereziki besta buru egunetan, emazteak beherean kaderetan, gizonak hiru galerietan, kantuz eta batzutan orroaz, bezperetan bereziki, bazkari on baten ondotik lehen komunioetan. Latinezko kantuak, izan ditezen mezakoak ala bezperetakoak gogoz bazazkiten eta apuñatik kantatzen, nahiz ez zuten deus ulertzen. Gauza berbera gertatzen zen mezako hitzekin, apeza aldarean zerbait marmarikatzen zuela epistola edo ebanjelioa, bizkarrez jendeari. Credo-ren ondotik eta Sanctus-era heldu arte den une luze hori betetzen zen euskaldun kantika batekin, hala nola komunione denbora eta meza bururatzean anjelusa.

Jakinik elizako kantikak egiazko otoitzak direla, Baionako eta Oloroneko diosesetan sortu dira meza bakoitzari zoazkon kantikak, ezagutuak direlarik XVII. mendekoak, Eliza katolikoak, protestanten eraginaren ezeztatzeko obratu zuelarik bere erreforma. Zenbat eta zenbat apez kantika egile geroztik, hasirik Joanes Etxeberriekin, haien artean sartzen dela Gratien Adema Zaldubi. Hogeita hamaika kantika idatzi ditu, fededunen gogo-bihotzen zaintzeko eta altxatzeko, Elizaren erakaspenaren hedatzeko. Haien tituluek salatzen dute zer izan den Adema apezaren xede eta helburua.

Ohar gaiten nola sailkatuak diren kantikak. Lehenbiziko hamarrak aipatzen dituzte Jainkoa, Trinitate saildua eta bereziki Jesusen bizitza gurutzeraino; segidan heldu dira bederatzik kantika Maria, Kristoren amari eskainiak, goraipatuz zenbait tokitan egin dituen agerraldiak Lurde, Betharrame, Sarrantza, Zaragoza; zazpi kantika sailduei buruz, haien artean San Josep, Jondoni Petiri edo Piarres apostolua, San Frantses Asisekoa, San Bernat, San Joanes Batixta Salhakoia, Santa Grazia eta Santa Luzia; orduko Aita Sainduari, Leon XIII-ri erakusten dio Euskaldunen atxikimendua hiru kantikatan eta azken biak aphez berri batentzat eta Aita Beneditanoeri eskainiak Beloken sartu direlarik 1875an.

Orotara, Elizaren erakaspena jende helduentzat egina, ez ditzaten ahantz katiximan ikasia.

Badira kantika horien artean oraindik kantatzen direnak Euskal Herriko elizetan. Biga dira Jesusen Pasionea aipatzen dutena, hala nola *Azken afaria*, bere errepikarekin:

*Adora dezagun menderen mendetan  
Jesus Jainko Jauna sakramendu huntan*

eta aste saindu guzietan kantatzen dena:

*Oi Gurutzea! oi Gurutzea!  
Gurutze saindu maitea*



Oroit gaiten XIX. mendean eta hain zuzen 1854ean Elizak, Pio IX.a zela orduko Aita Saindua, iragarri zuela Maria bekatuak gabe kontzebitua izana zela eta lau urteren buruan Lurdeko harpe batean agertu zitzaizola Bernadeta Soubirous neska gazteari eta, laster, hasi zirela beilak. Beila horiei buruz sortu zuen Ademak ezagutua den kantika:

*Amodio ohore  
Ama Birjinari  
Maria notha gabe  
Kontzebituari*

Denek errepikatzen dutela:

*Agur, agur, agur Maria  
Agur, agur, agur Maria*

*Uholde baten pare* elizan kantatzen den kantikak aitortzen du Mariaren arartekotasuna Jainkoaren hasarrearen aitzinean. Agertzen zaigu luzaz Elizak erakutsi duen urrikalkor ez den Jainkoa, ifernura kondena dezakena, juje bortitza, beldurrez betetzen duena:

*Uholde baten pare orai bekatuak  
Gaindiz bazter guziak ditu hondatuak  
Nun dire fededunak? Nun dire justuak?  
Azken eguna hurbil othe du munduak*

Lehenbiziko bertsuak jartzen gaitu beldurrez beterikako giroan. Mariaren arartekotasunak zerbait ardiets dezake Jainkoaren hasarrearen baretzeko:

*Gizonen arbuioek aserik Jainkoa,  
Bere azotearen higitzera doha.  
Nork orai atxik liro Jaunaren besoa?  
Zu zare, zu, Maria, indar hartakoa*

Hortakotz errepiketean, ez baita errepika bakarra, otoizten da Andre dena Maria:

*Othoi Ama maitea  
Urrikal zaizkigu.*

Ez du Ademak ahanzten euskalduna dela eta euskaldunentzat sortu duela kantika diolarik bertsu batean:

*Lehengo Fede hura berritz pitz dakigun,  
O fededunen Ama, zuk gaitzatzu lagun.  
Bai! Eskualdunek hemen hitzeman dezagun,  
Bethi zinez izanen garela fededun.*

Azken bi neurtitzak baliatzen ditu errepika gisa.

«Euskaldun fededun», hauxe da orduko leloa, hala nola Frantzian: «Catholique et français toujours» eta maiz aurkitzen dugu Ademaren kantika eta olerkietan.

Hain zuzen 1877an goraipatzen duelarik Maria bekaturik gabe kontzebitua, galdegiten dio geriza ditzan euskaldun jendea, Eliza eta Frantzia, hain ahuldua 1870eko gerlaren ondotik:

*Gure Ama maitea,  
Zuk othoi zerutik  
Eskualdunen fedea  
Idukazu xutik*

*Eliz'eta Frantzia  
Dagotzu nigarrez,  
Zure ganik Maria  
Laguntza beharrez*

*Lagun zazu Eliza  
Zure bothereaz  
Bothere berak beza  
Frantzia altzaraz*

Aita Sainduari idatzitako kantuetan eta, nahiz galduak izanak Erroma eta harekin zoan erresuma, atxikitzen du lehengo Aita Sainduaren itxura:

*Aphez eta Errege, bi bothere betan,  
Oi! zein ederki dauden haren eskuetan!  
Ez da sainduagorik buruzagietan:  
Nor da zuzenagorik, nor khorodunetan?  
Gaixtaginek hortako dute begietan.*

Azken bertsuaren eskainiko dio euskaldunen leialtasuna:

*Aita Saindu maitea, haur bihotzdun batzu,  
Eskualdunak gu ere zureak gaitutzu:  
Zurerik baizen ez da Eskualduntzat haizu.*

*Eskualdunek Aita Sainduari* deritzan kantuan, Baionako apezpikua baitoa Erromara Aita Sainduaren apeztearen berrogeita hamar urte karietara, berriz ere zein fededuna den euskaldun jendea errepikatzen du:

*Eskualdunen arima, o! Aita Saindua,  
Zuri bai zuri dago tinkoki lothua.  
Beti haren Fedea zutaz argitua,  
Garbirik dago eta ezin bentzutua.*

Aipatzen dituelarik Euskal Herrira jiten diren arrotzak erakusten du zein laket zaien ikustea euskalduna ohidurei atxikia, bereziki erlisioneari:

*Berak ez izanagatik ere oro gure erlisione berekoak, eder eta ohoragarri zaizkote elizan eta kanpoan gure Fedeaz ematen ditugun ageri guziak... Egurdiko Anjelus plaza bethean buruhas erraten dugun horrek berak goratzen beizik ez gaitu heien estimuan.*

Euskaldun fededun delakoaren itxura ematen du frantsesez ere bere *Notice sur le jeu de paume au Rebot, jeu national des Basques, le plus beau jeu du monde* (Bayonne, Lasserre, 1894)) diolarik anjelusa aipatzean:

*«Mais voici que du haut du clocher paroissial sonne l'Angelus de midi. Le jeu est immédiatement interrompu: joueurs, juges, chasseurs, spectateurs ne font qu'un coeur et qu'une âme pour prier la Mère de Dieu et manifester publiquement leur foi. Nous avons vu des dissidents, émus d'un pareil spectacle, se lever tête découverte et rester ainsi, respectueux et immobiles, jusqu'à la fin de la prière.»* (12. or.)

Zinez bere mendeko apeza izana da Gratien Adema Zaldubi. Bizi izan ditu Elizak ezagutu dituen aldaketak eta, bereziki, Ama Birjinari buruzko kartsutasun haundia, bizi izan ditu ere Elizaren gora beherak galdu dituelarik lur honetako botereak eta erregetza, III. Errepublikak 1875etik eta 1905 arte egin dituen urratsak laikotasunaren alde. Halere, nahiz eta borrokatuko den Errepublikaren eta orduko agintarien kontra, beti bere baitan dauka bere eginbidea dela euskalduna fededun atxikitzea.

## GIZONA

Nahasia izan balinbada Frantziaren egoera, zinez nahasia izan da XIX. mendean: 1789ko iraultzaren ondotik, sortu da Inperioa dena gerla, denbora berean Napoleon I.ak indartzen zuela boterearen zentralizazioa, erresuma zela osoki batua eta ezin zatitua, haren ondotik hiru erreinu, Luis XVIII.a, Xarles X.a, Luis Feliperena, II. Inperioa eta azkenik III. Errepublika, hau ez aise onartua Elizaren aldetik eta bereziki Iparralde honetan. Historia hau, gogoan zukeen, dudarik gabe, Gratien Adema Zaldubik, sortuz gero 1828an. Zinez nahasmendua da nagusitzen den ideia jendeen artean, ikusirik ere nola jokatzaren diren III. Errepublikako gobernuak, lege berriak bozkatzuz, laikotasuna aldarrikatzuz Estaduaren aldetik, eskoletan, justizian, filosofia horren helburu delarik Elizen eta Estaduaren arteko lokarrien haustea legearen bitartez 1905ean.

Horien aitzinean bi irakurketa mota izan daitezke, bi pentsa molde diferentak. Bata nagusitzen da Euskal Herrian, prentsaren bitartez bereziki, euskal astekari batetan hain zuzen. Alabainan, irakur daiteke *Eskualduna* astekarian artikulua luze bat «Lehen eta orai» duen tituluarekin. Euskal Herriaren, euskal jendearen itxurak aurkatuz, zer agertzen da: iraganaren gorai-patzea, oraiaren mendentzea. Lehen dena eder, orai dena itsusi, lehen dena ongi, orai osoki gaizki. Iritzi horrekin ez da onartzen ingurumena den beza-

la, bizi den mundua, hobesten delarik atzokoa dena lore, egiazko parabisua. *Eskualdunaren* irakurle izanez, ikuspegi horietan murgildua zitekeen Gratien Adema Zaldubi.

Denek badakigu pilotazale sutua zela Adema. Aski da irakurtzea pilotari eta pilotariei buruz idatzi duen kantu luzea, pilota ohoratua Euskal herrietan, ederrena joko guzietan. Aipatzen ditu lehengo pilotariak, Perkain, Azantza, hain famatuak eta gero XIX. mendeak ezagutu dituen hoberenak, izan ditezen Hegoaldekoak edo Iparraldekoak.

Bainan, hain zuzen XIX. mendean, pilotak ezagutu ditu aldaketa haundiak: esku larruaren luzatzea lehenik, xixteraren sortzea gero eta denbora berean goma sartzen dela pilotetan, Hegoaldean lehenik eta XIX. mendearen lehen zatian Iparraldean. Orduan sortzen da jokatzeko manera berri bat, *pleka* deitzen dena, ez *laxoa* edo *errabotea* bezala bi eremutan jarriz lau edo bosteko taldeak eta zuzenki jokatzuz, pareta baten kontra aldiz bi plekari bien kontra edo buruz buru. Alabainan, orduan, bi jokatzeko maneretan bat hobesten zen, zaharrena dudarik gabe, noblea zelakotz. Adibidez, Pasaia-Donibaneko plaza laxoko paretan irakur daiteke: «*El juego de ble cederá al de rebote – 1839*». Egiten zen jokolarien arteko sailkapena. Laxoan edo errabotean ari zirenak *pilotariak* ziren. Plekako jokoak ez baitzen hain noblea, *plekariak* ziren hala jokatzeko zirenak eta, dudarik gabe, pilotaria da hobetsi plekariaren aitzinean.

Hauxe da Ademaren iritzia:

*Askotan eder zaiku  
Plekako jokoak,  
Trinket partidatto bat  
Orobat laxoa...  
Bego hargatik nausi  
Errebotekoa  
Pilotako legea  
Hartan da osoa.*

Argi eta garbi dago, bainan plekako jokoak, laxoko edo erraboteko jokoren aurka doa, plekaria ez baita pilotari ona izanen, pleka ariz galtzen dituela ahal guziak:

*Gaztetik ez denean  
Pleka beizik hartzen,  
Pareta hari joka  
Besoa da galtzen;  
Bixta eta indarrak  
Guti han largatzen  
Zabaleko joari  
Nekhez gero jartzen.*

Beste kezkarik badauka Ademak. Orduko munduan pilota galtzen ari dela konparatuz lehengo munduarekin, ohidura zaharrak utziz, hain zuzen gero eta «estranjer» gehiago sartzen ari delakotz Euskal Herrian:

*Plaza bat izaki'ta  
Pilotaririk ez;  
Asko herritan hortaz  
Dagode ahalkez,  
Eskualdun aztureri  
Ukho hoi eginez  
Eskualduna da hola  
Kaskointzen nahi t'ez.*

Euskal Herriko Eliza bestak aipatzen dituelarik gogoratzen ditu «*Lapur-diko seme bat, gaztean pilotari eta plaza gizon eder izana urte luzez urrun toki arrotzetan egonik, Euskal Herrirat itzulia*» eman zuen lehen hitza zela Eliza bestei buruz: «*Debruak joan du Eskualduna*».

Eta segitzen du Ademak ikusten duela frantses hizkuntza gero eta gehiago sartzen ari dela denetan, frantses ohidurak halaber, idatziz:

*Eliza batean, kantika frantsesak... predikua ere frantsesez... Besta hiru egunetan nihun kasik erreboteko partidarik gehiago jokatzen; orotan pleka eta pleka baizik ez... Muthikoska batzu karta frantsesekin jokotan eta frantsesez mintzo; handiagoko batzuk kaskoin herrietan bezala girletan; bertze andana bat ostatuan frantsesez kantu errepikan. Herriko plazaren erdian, dantza frantsesik baizen ez; dela polka, dela machurka, dela eskotich, eta purtzilkeria, herri handietan hiriko musika batekin; tikiagoetan chirribika edo klarinet soinu; ... Eskualdunen leheneko thamburin eta chirola alegera hura nihun ez gehiago ageri... ez eta irrintzinarik ere kasik nihun.*

Lehen eta orai: oi! zen ederra zen lehen hura!

Bainan oraia hor dago III. Errepublikarekin, Ademak onartzen ez duena eta jadanik 1876an dakigularik Errepublika bozkatua eta onartua izana zela Lege-Biltzarrean Wallon emendakinari esker boz baten gehiengoarekin urte bat lehenago, idatziko du olerki bat zorrotza jorratuz Errepublika bera, agintariak eta errepublikazaleak, arabera aire edo doñu jauzikor eta alegera hautatuz...

Lehen eta orai da Ademak hautatu duen gaia Errepublikaren jorratzeko, gogoan daukalarik utzi duen fama txarra. Adibidez hona hirugarren bertsa:

***Lehengo denboretan Errege batto zen  
Orai denak errege hori da hori zuzen.***

Egitura bera aurkezten da seigarrenean:

***Bazterretan gizonik ez omen zen lehen  
Eta gizona orai beha zein merke den.***

Zinez olerkiaren ardatza hori da bi neurtitzetan emanez lehen eta orai eta neurtitz berean ere, hala nola:

VIII. *Lehen aitoren seme eta orai burjes*  
.....

XIII. *Lehen zerga eta orai kontribuzione*  
.....

XVI. *Lehen ez zen bezala da mundua orai*

Ikusten du mundua osoki aldatua, denek nagusi izan nahi, denek errege, indarrak dituela ziri baten bozak, ttikia handiari manatzeko gai dela, baina olerkiaren azken bertsetan trufatzen da Errepublikazaleaz, aldaketa izanikan ere, berdin asto egonen dela.

Nahiz olerki hoberena izan Sarako Lore Jokoetan ez zen nehor saritu 1876an. Hor daukagu lekuko Duvoisinek Inchauspe kalonjeari igorri zion gutuna:

«*Mon cher chanoine,*

*Je suis entièrement de votre avis, Biba Errepublika est la meilleure des pièces qui ont été présentées au concours de poésie de cette année, mais elle a une tache originelle; elle est politique et M. d'Abbadie a toujours mis la politique hors du concours. Je doute que cette année il soit plus tendre avec elle...»*

Iduriz, Antoine d'Abbadie jaunak zuen azken hitza eta Miarrizetik 1876eko irailaren 4ean igorria izan zen gutunak adierazten zuen argiki.

Bada *Biba Errepublikaren* bertze idazkera bat aise luzeagoa, Klasikoak sortan Ales Bengoetxeak paratua. Lore Jokoetako olerkiak 19 bertso dauzka, Klasikoetan agertu denak 35, kasik doblea. Horrek aitortzen du Adema berri duela osoki bere olerkia, emendatu duela. Noizkoa den azken idazkia, ez dakit, baina interesgarri liteke jakitea.

Lehenik aldatzen du errepika, baztertuz 1876koa, «Dugun errepika, biba Errepublika!» hautatuz aldiz kantu karlista batena: Ai, Ai, Ai, mutila, bigarren parteak errepikatzen duela azken neurtitzaren bigarren zatia.

Nahiz agertzen den noiztenka «Lehen eta orai» delakoa osoki aldatu du bere olerkia, xixtakoak eginez, umorearekin:

*Liberté, Egalité eta Fraternité*  
*Ah! hiru gezur hoeik egiak balite!*

Sakatzen du ziria «gezur» hitzarekin, baina beharrezkoa zuen «egia»-rekin kontrajartzeko. Ehun urteren buruan, noiz nahi aipatzen dira frantses politikan hiru hitz famatu horiek, amets hutsak dudarik gabe, mundu honetan sekulan gauzatuko ez direnak.

Errepublikaren jorratzeko baliatuko du bertze jokamolde bat, jendeaz trufatuz izengoitien bitartez: Alferromes, Koskarin, Krakkesku eta Triparno deitzen ditu errepublikazaleak. Argi dago nola eginak diren izen horiek: bi akats bilduz: alfer eta erromes lehenik, koska eta arin gero; ez dakit Krakkeskuk diru xahutzaile erran nahi duen, zer nahi gisaz heldu da lehenik «krak» hotsizena eta gero «esku» hitza. Triparnok, aldiz, erakusten du jale eta edale ona dela errepublikanoa.

Segituko du Kadet Astoputzekin, hala deitzen baita gizon zozoa, frantsez erraiten den bezala «l'idiot du village». Lau bertsutan hartaz nausutzen da bere ideien aldetik, apezten kontra jarri delakotz, lanbide hitsa duelakotz eta bertze guziak ikaran atxikitzen dituelakotz. Hona beraz «gizon berria»-ren marrazkia, agintari berria, zuzenen kontra doana, indarra eta bortxa nagusituz, urrunago aipatuko duen bezala.

Eskolan Jainkoa debekaturik eta halaber leku publiko guzietan, ikusten du mundu berri bat hitsa, haurrak «abretzen» ari, abere bilakaturik eta bereziki arrotzak Euskal Herriaz jabetuz.

Hobendunak salatzen ditu bertsu labur bainan adierazkor batean, lau izen lerrokatuz neurtitz berean: «Framazon, arnegatu, zirtzil, judu». Horiek dira egiazko etsaiak, Frantzia guzian eskuindarrek salatzen dituztenak, lehena Framazon eta azkena Judu, hain zuzen olerkietan neurtitzaren lehen eta azken hitzek hartzen dutela indar berezi bat, agerrian ezarriz. Bi jende mota eransten ditu Ademak, «arnegata» erran nahi baita erlisionea ukatu duena, elizatik kanpo bizi dena, elizaren kontra jokatzeko dena eta «zirtzila», hots, gaizki jauntzia bainan denbora berean gaizki ikasia, gizon gaixtoa, hitz batez frantsez erraiten den bezala: «la racaille».

Olerkiaren bukatzean beste gisa batez aurkatzen ditu iragana eta oraina «Ubi sunt» oihuarekin:

*Nun dire Eskualdunen lehengo Fueroak?*

ikusiz nola sartzen diren arrotzak Euskal Herrian, nola denetaz jabetzen diren eta nola galtzen ari den euskara:

*Gure eskuara bera galduz bagoazik  
Ai! nihoiz ez baginik ikhusi arrotzik!*

Euskararen galtzea sartzen da XIX. mendeko jendeen kezka nagusietan.

Baliatuko du ere «Betiri Sants» gosetearen itxura, erakusteko zein gaizki doan Euskal Herria. Ez du deus ikustekorik Elizanbururekin sortu zuen kantuarrekin. Gosetea berriz ere, bainan orai lanean ari da gaixto eta tzarren fagoretan eta denbora berean tronura igaiteko. Hona nola aurkeztua den:

*Betirisantsen politika,  
Bera laxo, bertzeak tinka;*

*Gero «Bibe la liberté» errepika.  
 Jendea dabilka  
 Tiraka, purtzika,  
 Legar eta lege berri ukaldika.  
 Nausi nahiz oro gaindizka,  
 Bainan oro ezin aldizka.  
 Diote hori dela Errepublika. (bis)*

Nola ez sala jadanik egina duena *Biba Errepublika* olerkian, atxikiz fra-mazonak bakarrik:

*Betirisantsen soldaduak  
 Framazon Beltzak deituak  
 Non-nahi zaizkigu nausi pharatuak.*

Arnegatak eta zirtzilak izanen dira Betirisantsen bozkazaleetan, ongi ze-haztuak Ademaren luma zorrotzean:

*Jaun xanfarin, xilodun kasko,  
 Edale, mandril, esku mako,  
 Hoién bozak Betirik ditu beharko.*

Eskuindarra dela Adema nehork ez dezake uka, eskuindarren politikari atxikia baitzaio, eskuindar agintariei ere. Lekuko dugu 1891n urriaren 13an Hazparne Barrandegian bildu zirelarik Chesnelong senadorearen inguruan euskaldun agintari batzu Adema paratu zituen bertsuak, dena ohore haien alde. Horiek ziren Labat eta Etcheverry deputatuak, Garroko barua, Goyhenetche Donibane Lohizuneko auzapeza, Juantchuto Kanbokoa, Guichenné abokata eta Sala jauna. Chesnelong senadoreari eskainitako bazkarian ez pentsa ezkertiar jenderik han zirenik.

Euskal Herriak ezagutzen duen politika borrokaren ondoan hedatzen ari da bertze kultur mogimendu bat, 1853an Urruñan hasia Antoine d'Abbadie-k sortu zituelarik Lore Jokoak. Badakigu ere aldi bat baino gehiagotan Gratien Adema Lore Joko horietan parte hartu zuela, lekuko dela *Ameriketarako bidean* olerkia, 1853ko Lore Jokoetako gaiari buruz. Badakigu ere saritua izana zela, hain zuzen alegia bat aurkeztu zuelarik 1873an Saran: *Bildotxa eta Otsoa*. Jadanik aipatu dut nola olerki hoberena izanikan ere 1876eko zein gehiagokan ez zuen saria lortu *Biba Errepublikarekin*, Antoine d'Abbadie-k ez baitzuen nahi politikan sartzerik. Bidarrain erretor zelarik ezagutu zuen Otxalde eta *Xantxundegiko xakurra*, Otxaldek asmatua, bilakatu zen *Mehetegiko xakurra* Adema eman zion orrazketei esker.

Euskaltzalea zen Gratien Adema eta euskal giroan bizi zen Hazparnen, Bidarrain eta Atharratzen, orduan, zinez, euskal mundua euskalduna baitzen. Bere Alegien *Aintzin hitzak* deritzan olerkian salatzen du euskarari eskaintzen dion ohorea:



*Jakintsunen erranetan  
Behar bada sinheste,  
Ederrena mintzaietan  
Eskuara da, diote,  
Eskualdunek arrotzetan  
Hortaz ohore dute.*

Denbora berean galdegiten du erne egoitea altxor horren atxikitzeko.

Nahi ala ez, Euskal Herriko Iparraldea beti Hegoaldeari atxikia izana da, bereziki mintzairaz. Ideiek ez dute mugarik ezagutzen eta alderdi batean sortzen diren gertakariak beren eragina daukate bertzean. XVIII. mendeko frantses filosofoen ideiak hazten dute Espainiako ilustrazioa. Frantses iraultzak, Napoleonen gerlak ondorioak utziko ditu Hegoaldean, hala nola karlistadek Iparraldean.

Lehen karlistadaren ondotik, foruen kontra jokatzeko baita espainiol gobernua, mogimendu berri bat sortzen ari da Hegoaldean, foruzaleen artean. Iparragirre nabaritzen da horretaz eta goraiatzeko du «Gernikako arbola» euskal libertateen sinbolo gisa. Ikaragarriko arrakasta ukanen du kantu horrek Hegoalde guzian, are gehiago egilea herbestera kondenatua delarik eta, azkenean, euskaldunen himnoa bilakatuko da. Iparraldean laster ezagutua izanen da eta berdin ohoratua Lore Jokoetako kantu batzuk haren doñuan eginak baitira.

1879an Antoine d'Abbadie-k erabakitzen du Lore Jokoak lehen aldikotz ospatuko direla Hegoaldean, Elizondon hain zuzen. Orduan bihurtu berri bat izanen da Lore Jokoentzat, alde batetik aldizkatuko baitira Iparralde eta Hegoaldearen artean, bertzetik gai berriak agertuko direlako, hala nola, adibidez, euskararena. Elizondon aurkeztu behar ziren olerkiak «Euskaldunen gauzik maiteena» gaia hauta zezaketen edo gai librea. Ez da dudarik gauzik maiteena euskara dela eta Felipe Arrese Beitiaren *Ama euskeriari azken agurra* olerkiak lehen saria irabaziko du. Geroztik euskara izanen da gairik hautatuena eta hedatuena Euskal Herri guzian, Maulen (1880), Irunen (1881) eta toki askotan.

Urrungotik datorren ideologia batek bere bidea segitzen du XIX. mendean. Jadanik XVIII. mendean Azkoitian, sortu zelarik «Real Sociedad Bascongada de Amigos del País» elkartearen 1767an, lema gisa hartu zuen «Irurac bat», bilduz Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa hiru probintziak. XIX. mendeko erditsutan agertuko da lema berri bat, Nafarroa gehituz bertze hiruei: hori da «Laurac bat». Iparragirre Ameriketarik sartu berriak bota zien Nafarrei:

*Zorionezko batasunean  
Nafarrak gure anaiak  
Bizi dirade lege onean  
Gaur gizon guziz ernaiak.  
Guregaitan esango badu*

*Etorkizunak, kondairak  
Laurak bat beti!... maite alkartu  
Izan Euskaldun leialak.*

«Irurac bat», «Laurac bat», «Zazpiak bat» izanen da XIX. mendearen azken laurdenean agertuko den lema. *Eskualdunak* deritzan olerkian, 1892an argitaratua, Ademak aurkezten du euskaldunen historia, orduko jakitatea azalduz eta zortzigarren ahapaldian hauxe aldarrikatzen du:

*Lapurdi, Nabarpe'ta Zibero,  
Eskual herriak Frantzian;  
Bizkai, Gipuzko, Alaba, Nabarro,  
Berdin dire Espainian.  
Zazpiak bat nahian  
Bagaude aspaldi handian.  
Zazpiek bat dute izan gogo  
Elgarren oneretsian.  
Oi! Zein litekeien ederrago  
Baldin, Eskualdun herrian,  
Eskualduna bere gain balago  
Bere zuzenen erdian.*

Hain zuzen, olerki hau sartzen da urte berezi horretan, Donibane Lohizuneko udalak eskaintzen diola Antoine d'Abbadie jaunari omenaldi eder bat Frantziako Académie des Sciences-eko buru izendatua delakotz. Besta horietan bilduak dira zazpi Euskal herriak d'Abbadie-ren ohoretan eta non nahitik oihukatzen da «Zazpiak bat», Antoine d'Abbadie barne, bukatzen duelarik bere esker mintzaldia erranez: «*Chers compatriotes, joignez vos voix à la mienne déjà bien éteinte et crions tous ensemble: Zazpiak bat!*». Aski da irakurtzea orduko prentsa konturatzeko zein lilluratua zagon Donibane Lohizuneko bildua zen jendea.

1893an Azpeitiako Lore Jokoetan Ademak aurkezten du *Gauden eskualdun* olerkia eta pixka bat birmoldaturik publikatzen du Donibane Lohizuneko euskal besten karietara. «Chant patriotique» dio prentsak, eta dudarik gabe halakoa da, bereziki bertsuen artean kantatzen delarik errepika famatua:

*Zazpi Eskual-herriek bat egin dezagun  
Guziak bethi, bethi, gauden gu eskualdun.*

Lehen bertsuak amesten duela zazpien batasuna besarkada amultsu batekin:

*Agur eta ohore Eskual Herriari,  
Bizkai, Nabar, Gipuzko eta Alabari,  
Lapurdi, Baxenabar eta Xuberori;  
Zazpiak bat lot beitez besarka elgarri.*

Berriz ere 1894eko giroa, 1892koaren parekoa da. Sekulan baino gehiago aipatzen da «Zazpiak bat» orduko agerkarietan, bereziki *Eskualduna* asteka-

rian. Hizkuntza da euskaldun guziak biltzen dituen, Antoine d'Abbadie-k amesten zuena jadanik 1853an sortu zituelarik Lore Jokoak, galdegiten zuela parte har zezaten euskaldun olerkariak izan diten Hegoaldekoak ala Iparraldekoak. Hizkuntzak eta kulturak sortzen dituzte lokarri sendoak euskaldunen artean mugaren gainetik.

Politikoki gauzatzen da euskaldun batzuen ametsa Arana Goiri anaiek sortzen dutelarik JEL alderdia, galdegiten duela Euskal Herriaren independenztzia, ideologia horrek bete duela XX. mende osoa eta segitzen duela oraino.

Gratien Adema Zaldubik bizi izan ditu XIX. mendeko, bere bigarren partean bereziki, Euskal Herriak ezagutu dituen aldaketak. Lekuko bat da, bai apez gisa, zintzoki Eliza zerbitzatuz, herritar gisa ere politikan, eskuindarra, Frantzia katolikoa izan den bezala, baina euskaltzale suharra, euskara sustatuz haundizki utzi digun altxorarekin.



**GRATIEN ADEMA «ZALDUBI»:  
SAINDU BATZUEN BIZIAZ  
«Euskaltzainak» bilduma: 1. zenbakia**  
Aurkezpena

*Senpere, 2007-XII-20*



## GRATIEN ADEMA «ZALDUBI»RI OMENALDIA

*Henri Duhau*

Andere Auzapeza, Jaun eta Andere hautetsiak,  
Euskaltzainburu Jauna,  
Euskaltzain eta Euskaltzale Jaun eta Andere guziera bihotzetik agur!

Lotsa izigarri batek hartu nau hitzaldi hunen idazten hasi naizenean: zer, halako hizlari jakintsunen ondotik, ni baino askoz ere gehiago dakiten hoinbertze ikerle begi zorrotzen erdian, zer behar dut atera?

Jo aitzina halere, galdatua zaiguna bete behar dut nolabait! Jadanik erran izan zaizuen bezala Adema-Zaldubiren lanik gehienak argitaratuak izanak dira bizi zelarik andana bat eta hil ondoko urteetan berriz, 1908tik goiti, *RIEB* edo *Revue Internationale des Études Basques* agerkari famatuan bai eta *Eskualdun Ona* deitu kazetan. Baina lan horiek guziak ez daude gehiago eskumenean, aspaldian agortuak dira.

Hortakotzat Euskaltzaindiak erabaki du denen edo gehienen berriz publikatzea, eskuizkribuak barne, zinez merezi baitute. Euskaltzaleen Biltzarrak eta Euskararen Erakunde Publikoak ere beren laguntza ekartzen dutela.

Lehen liburuki hau *Saindu batzuen biziaz* deitu dugu baina nola eta zertarik jalgia den erran aitzin behako labur bat bederen eman behar diogu obra osoari, eta lehenik nola erori zaizkigun Adema-Zaldubiren eskuizkribu hauek guziak altzorat...

Elena Touyarou-Phagaburu-k deitu ninduen behin, baizik-eta Xipri Arbelbidek galdaturik ari zela, *Bidegileak* bildumarentzat, lan baten egiten Adema-Zaldubi-z, eta ea lagunduko nuenez xehetasun zenbaiten biltzen eta artxiborik gelditzen bazen, haien bilatzen. Baietz bai, ihardetsi nion eta gogotik gainerat: Ademaren ondorengoak ezagunak baititut, eta ezagunak baino gehiago ere, berrogei urte huntan.

Holaxe joan ginen 2006ko azaroaren 22an, Elena eta biok, artxibo horien ondotik «Ademarenerat» eta han gure harritzea, mahai gainean ikusi genuelarik halako liburu eta paper meta, Pierrette Dourisboure adiskideak guretzat artoski bilduak! Hasten gara doi bat miatzen eta huna nun zer altxorra dugun

**GRATIEN ADEMA  
ZALDUBI**

**SAINDU BATZUEN BIZIAZ**

**Argitalpenaren paratzailea: Henri Duhau**



---

**EUSKALTZAINAK BILDUMA  
EUSKALTZAINDIA**



begien bistan: eskuizkribu miresgarriak, hainbertze eta halako estatu onean!  
Denak baliagarriak, izkirione xehea bezain bikainaz idatziak!

Elena eta biok, elkarri beha geunden, zozotuak bezala, ez genekien zer pentsa! Elenari erraten diot: zu literario alorrean trebe baitzara, har itzazu! Ez, zuk behar dituzu hartu, ihardesten dit, eta holaxe, eskuak ikaran bezala, bezazpian eraman nituen etxerat delako artxiboak, menturaz XIX. mendeko euskal eskuizkriburik ederrenak eta baliosenak.

Laster ikusi nuen, ordea, zer lan ikaragarria hartu nuen bizkarrean. Zerrenda bat egin nuen eta 80 dokumentutan banatu zen guzia. Orotarat 2200 bat orrialdeko lana osatzen dukete gaur.

Nork edo nork begiztatu nahi izanez gero, hortxe duzue lan hori, azpimarratuz eskuizkribuetarik abiatzen dela ene sail guzia.

\* \* \*

Errana dugu bartz, sei edo zazpi liburukiren gaia badela. Nola egin dugu bada lehenbiziko huntan argitaratu behar zenaren hautaketa? Gogoeta simple bat egin dugu: zertako ez publikatu, lehenik, behin ere argitaratuak izan ez diren lan batzuk? Gainerat, Adema-Zaldubiren neurtitzak eta kantikak ezagutuak dira, adituen artean bederen, baina Ademaren euskarazko idazki laxoez nehorik ez daki deus. Eta prediku hauek parada ederra emanen digute preseski Ademaren prosarako jainua ezagutarazteko.

Huna nola sortu dituen Ademak, hemen argitaratzen ditugun prediku horiek. Herrietako bestak zirenean usaia zen predikari handi bat gomitatzea egunari ospe, dirdira gehiago emateagatik. Eta Ademak hortarako zaletasun handia izanki, gonbidatu zuten zenbait herritarat beren patroin sailduaren goresten laguntzeko. Gisa hortako hamar bat mintzaldi aurkitu ditugu haren lanetan eta haiek ditugu sartu lehenbiziko liburu huntan, erran dena, Ademaren prosa ezagutarazteko asmoz, hots, euskararekin, hitz laxoz nola jokutzen zuen erakusteagatik. Hori da hautu hunen zergati guzia.

Ikusiko duzue hor zer artarekin preparatzen zituen bere mintzaldiak! Funtsa eta errateko manera, biak errotik lantzen zituen. Hots, azala eta mamia biak maitasun kartsuenaz artatzen zituen. Hor ditugu beraz bata bertzearen ondotik urteko egutegian agertzen zaizkigun bezala:

- Jondoni Bixintxo (Beskoitze? Hendaia? Uztaritze? Ziburu?);
- Jondoni Joanes Batista (Hazparnen);
- Jondoni Petri (Senperen);
- Jondoni Juliano (Ortzaizen);
- Andredena Maria (Ainhoa? Aldude? Ahurti?, Armendaritze? Arnegi? Azkaine? Bardoze? Baiona [Katedrala]? Bidarte? Heleta? Urepele?);

- Jondoni Zipriano (Lekornen);
- Jondoni Martine (Ahetze? Arrosa? Biriatu? Domartiri? Miarritze [St-Martin, bistan da]? Sara? Bada Akamarre ere baina han, gaskoieraz hitzegiten da);
- *Que soy era Immaculada Counceptiou;*
- Santa Luzia (Atharratzen);
- Jondoni Extebe (Baigorri? Donoztiri? Ezpeleta? Makea? Urketa? Zalgize?).

Aitzin solas gisa ezarri ditugun lerroekin ere, alta bada, ez zarete asper-tuko: beha otoi zeinenak diren:

- Andres Urrutia Euskaltzainburuak lehenik bere aurkezpenean salatzen digu *Euskaltzainak* liburu bilduma berri bat hasi dutela eta hain xuxen Adema-Zaldubiren liburu hau izanen dela lehen zenbakia.

\* \* \*

Gero datoz lau lekukotasun, hobeagorik nekez asma baitzitekeen:

- Jean Hiriart-Urruty «zaharra», bere begiz Adema-Zaldubi ikusi duena predikatzen, kantatzen bai eta beilak edo erromesaldiak animatzen ere...
- Jean Etchepare, gure idazle nagusia, Alduden zelarik mediku gazte, ezagutu baitzuen, hark ere, Adema-Zaldubi hango ur onetan ibilki zelarik osasun bila.
- Piarres Lafitte-k, 1933an egin hitzaldi bat, erdaraz hau, horrela begi keinu tiki bat egiten dugu, bidenabar, euskararik batere ez dakiten zenbaiti, haiek ere jasta bat bederen izan dezaten gure herritar handienarentzat daukagun gizonaren biziak eta lanez.
- Laugarren lekukotasuna, Piarres Charrittonena dugu, 1985ekoa, euskaltzain sartu zen urtekoa naski, bertze hirurek erranak osatzen ditu xehetasun anitzekin euskara bizi batean miresten dituela Adema-Zaldubiren lanak.

Zer nahi duzue gehiago entzule onak: Euskaltzainburuaren aurkezpena batetik eta bertzetik lau lekukotasun: iragan mende horrek, Iparralde huntan eman ote du lau jakintsu horiek baino handiagorik?

Horra beraz gertakari handiak burrustan datozkigula gainerat, Senperen, eta Euskal Herri guzirat zabaltzea merezi duten mailakoak! Jadantik Dufau bi anaiak liburuarekin loriatuak gelditu ginen dokumentu arras bereziak, eta adituek historikotzat jotzen dituztenak, eman baikenituen argitarat, hau da, notariozko kontratu ofizialak *République Française* zigiludun paperetan! Bi hizkuntzetan paratuak baitzituen, frantsesez eta euskaraz, hizkuntza bakoitzari leku ber-bera emanik.

Denak harriturik gelditu dira gure notario eta auzapez ohiaren balentria jakitearekin...

Bai, horra beraz, Dufautarrak azaldu zaizkigun urte berean Adematarrak!!! Zeren-eta, artetik errateko, baita bertze Adema bat ere, Gratien-en iloba, Monseigneur Blaise Adema (1861-1936), ez zena nor-nahi hura ere, *Eskualduna* astekariaren buru izan baitzen lehen gerla mundialetik lekora, 1918tik 1925erat.

Baina egun Gratien-ekin egon behar dugu.

*Saindu batzuen biziaz* liburu hunen ondokoa zein izanen den ez dakigu oraino. Biziki ontsa litzateke naski gaiak aldizkatzea, batean gai erlijiosoak, bertzean profanoak; honelaxe letozkiguke orduan:

- Bigarren liburukia: *Zaldubi Artzain Beltxaren neurtitzak* (gai profanoak); hau bide da Zaldubiren eskuizkriburik miresgarriena: hor daude 32 kantu, orotarar 324 neurtitz edo bertsotan. Ohargarrienak: *Pilotariak*, 33 bertsu; (*Biba*) *Errepublika*, 62 bertsu!!! *Eskualdunak* eta *Gauden gu Eskualdun*, 25 bertsu. Gai profano horiek badute beti zuhur gogoeta bat gibelean.
- Hirugarren argitalpena litzateke: *Kantikak* (gai erlijiosoak): hor badira 26 kantu, 260 bertsorekin. Arrakastatsuenak, *Oi Gurutzea*, *Adora dezagun*, *Amodio Ohore* eta *Uholde baten pare*. Azpimarratu behar da horietan *Santa Engrazi* edo *Santagrazi* sainduari Ademak bota zizkion 31 bertsuak!!!
- Laugarrena: *Alegiak eta bertze neurtitzak* (gai profanoak); alegiak 7 dira eta kantuak 36, 358 neurtitz edo bertsutan zabalduak.
- Bosgarren eta seigarrena: *Predikuak* lirateke, 25bat orotarar eta hor bada bertze bi libururen gaia.
- Zazpigarrena: *Gaineratikoak... edo*. Hor sartuko genituzke Ademaren lanetan dauden bertsio desberdinak, aurtan eginen diren hitzaldiak, gaurkoak barne, eta holako.

\* \* \*

Dena den, lehen liburuki huntan berean uste dut bakoitzak aurkituko duela Adema-Zaldubiren obran alhapide: batzuek haren literatura gisari behatuz eta hura arakatur; bertzeek erlijio eta fede begiz gogoetatuz; eta nik dakita bertze zenbatek oraino, zenbat begi motaz, behatuko dioten, alde guzietarik, jorra eta jorra, ariko zaizkiolarik?

Orain, egia da, ez dakigula beti nola izendatu gizon handi hau. Jadanik errana izan zaizue, berak idatzirik baitago, obra erlijiosoak «Adema» izenpezen zituela eta bertze gaietan «Zaldubi» izenordea erabiltzen zuela. Gizon hunen berezitasunetarik bat da, hain xuxen, bi alorretan berdin trebe eta suhar jokatu izana. Beraz, gizon osoaz ari bagara, Adema-Zaldubi deitu behar genuke, ene ustez, bertzela makur ibil gintezke eta ez genezake errespeta berak Azkue handiari idatzi ziona.

Alabaina Zaldubi-k ez du gizon osoa besarkatzen eta apeztasuna zerbait zitzaiola diosku, Jean Hiriart-Urruty zaharrak liburu huntan berean irakurriko duzue, euskalduntasunarekin batean biak gorenean baitzeuzkan! Apeztasuna biziki gora ezartzen bazuen, ez zuen haatik giristinoen eginkizun-maila apaltzen, ez ala fede!

Huna beharbada, haren obra guzian, ni gehienik harritu nauen ateraldi bat, Zipriano apezpikua goستن duen kapituluan da; huna, hitzez hitz:

aitamak, etxeetako aitzindariak, zuek ere zuen haurri edo azpikoeri buruz apezpikutasun batez bezala beztituak zarete!

Harritu naiz hori irakurtzean! Ez dut uste larderia galdez ari dela; iduritzen zait, izatekotz, biziki gora ezartzen dituela aita eta amatasuna. Iduritzen zait, izatekotz, «artzainaren» erantzukizun arduratsuz ari dela. Berak, bere buruarentzat ere, ez ote du erabiltzen, lehenik *Mendiko Artzain beltzaren neurtitzak* eta geroxeago, lan berarentzat, *Zaldubi Artzain beltzaren neurtitzak*? Ez da dudarik «artzaingoa», gisa guzietarat, gora zeukala. *Beltza*, izenlagun horrekin berri, zer erran nahi izan duen ez dugu argitu, baina, badirudi, hor ere, apez-artzainaren sotana beltza orhoitarazi nahi duela. Ohartu zarete, bistan dena, *beltza* ezarri duela eta ez *beltza*, Iparralde huntan segurik baita bien artean alde handia.

Adema-Zaldubik bere lanetan ez du nehoiz aipatzen Senpere-rik: iduri du ahalke dela bere sorterriaz. Jakin behar da haren denboran, gure herrian, apezzen etsai ziren «gorri» batzuk gaitzeko indarrean zirela. Senpere, 1789an, frantses Iraultza Handiaren alde jarri zen bere inguruko herriak, Sara, Azkaine, Ainhoa eta bertze, Lege Zaharrari leial zegozkiolarik. Eta ez zen epelki jarri gero! Notableak aitzindari Duronea notarioa, Loustau Senpereko jaunaren lurren kudeiatzailea (hau, itxura guzien arabera, bere nagusiaren kontra...), Marithurri, herriko erretora bera, bikarioak halaber! Iraultza horrek piztu suak iraun du Ademaren denboraldi guzia, eta geroago ere, bertze urte andana baten buruan itxindi eta pindar batzuk bizirik zeudela daukagu...

Badakigu karrika nagusiaren zabaltzeko, Adema-Zaldubiren sort-etxea ere aurdiki ziotela. Zer gatazkak «xurien» eta «gorrien» artean! Duela hirur-etan hogeit urte oraino, alde batetik Bernard Elissetche irakasle handia eta bertetik Dominique Dufau notario eta auzapez ohia, zeingehiagokoa ari ziren; lehena Senperen Errepublikaren alde egin zuen bidea laudatzen eta bertzea bide horren gehiegikeriak salatzen! Eztabaida horien lekukoak badira oraino gaur egun... Eta, ikusten duzue, ez gara hor merkatu ondoko bi basoren arteko ahapaldietan, Senperen bi jakintsu handienen arteko eztabaidarekin baizik!!!

Dufauen iritzi, doi bat leunduak, egia erran, *Dufau bi anaiak* liburuan dituzue. Bernard Elissetche-ren artikulua bikain bat ere irakur dezakezue 1954an *Gure Herria*-n agertu zuena eta deitua:

le gouvernement des etxeko jaun à Saint-Pée-sur-Nivelle.

Orain eskerren bihurtzea gelditzen zait. Lehen-lehenik Dourisboure fami-  
liari. Aspaldikoa da horiekin dudan harreman ezin hobea. Ikastola, horien etxe  
batean sortu genuen 1971n. *Zirikolatz*, Senpereko Dantzari taldeak ere badu  
hogeita hamar urte pasa horien borda batean kokaturik dagoela, leku egokia-  
gorik ez baitzezakeen aurki. Milesker handi bat artxiboak prestatu baitzigu-  
te, deplauki, konfidentzia osoz. Biziki hunkitu gaitu egitate horrek.

Milesker Senpereko kirol batasunari bozgoragailua prestaturik.

Milesker Christine Bessonart andere auzapezari eta Dominique Idiart  
kultura arduradunari, haste-hastetik sail huni buruz erakutsi duten begirunea-  
gatik.

Zorionak eta milesker Edouard Solorzano Jaunari Adema-Zaldubiren  
orhoit-irudiaren egileari.

Euskaltzaleen Biltzarrari ere eskerrak beti errotik laguntzaile izan baita,  
diruztatzean parte hartuz gainerat.

Milesker oraino Andiazabal Jaun Kalonjeari: egun Adema-Zaldubiren  
obra literarioa goraiapatzen badugu, igandean, etzidamu, haren kristau ekarpe-  
na goretsiko baitugu Piarres gure kalonje langile kartsuaren laguntzarekin.

Azkenik Euskaltzaindiari eskerrak, ohore handia egiten baitugu egun  
Senpererat etorritz biltzar ideki baten ospatzerat eta bihar bere hilabeteroko  
bilkura eginen baitu Herriko Etxean. Milesker zuri bihotzez, Andres Urrutia,  
euskaltzainburu jauna, zazpi eginahalak egin baitituztu egun huntako lehenbi-  
ziko liburu hau atera zedin, epeak arrunt laburtuak genituelarik, besoen puntan  
eraman duzu, kemen handiz, eta eskerrak dizkizugu bietan, jadanik indar ber-  
bera egina baitzinuen *Dufau bi anaiak* liburuaren alde eta hori ere ez baitugu  
ahantztekoa Senperen.

Eta egun Adema-Zaldubiren lehen liburukia zurekin ekarri duzu; ez zara  
Olentzeroren jantzitan jarri baina haren eginkizuna betetzerat zatoz Euskal-  
tzaindiak, urririk, eskainiko baitugu hemen gauden bakoitzari, bilkura ondoan  
liburu berri bedera!

Eta ez hori bakarrik: *Bidegileak*, hau ere Adema Zaldubiren biziaz eta  
lanez ari den liburuxka dohainik izanen dugu, zure bitartez, Eusko Jaurlaritzak  
eskainirik.

Gora beraz Dufau anaiak!

Gora Adema-Zaldubi!

Eta oraindanik Eguberri zoriontsuak guzieri.



## LIBURUAREN AURKEZPENEAN

*Andres Urrutia, euskaltzainburua*

*Zaharrak berri* esango du, ez bairik gabe, irakurle ohartuak, Zaldubi zezaren liburu hau esku artean hartzen duenean. Merezi al zuen?, gehituko dio beste norbaitek, adi-adi, aspaldikoaren sunda orrialde horietan atzematen duenean.

Egia esan, bata eta bestea aintzat hartu beharko ditugu, Gratien Adema kalonjearen lana berriro argitaratzen den honetan. Izan ere, aspaldikotasunaren doinuak ez dakartza, nahitaez, zahartasunaren ajeak eta ahuleziak. Bestela esanik, aspaldiko horrek, Zaldubiren kasuan, klasikotasuna jartzen digu agerian.

Modernotasuna! Horra hor askoren aldarria egunotan. Modernotasuna, hala ere, modu askotara uler daiteke. Ez maltzurrena, esan gabe doa, sustraiak eta erroak sendo ezarri eta gibelera behatu gabe, aitzina doanarena. Halakoetan datorkigu Zaldubi senpertarra. Hain zuzen ere, beste behin erakustera belaualdi baten maisutasuna, euskara dela eta. Nork baztertuko ote ditu euskal letretatik, egun ere, Jean Etxepare eta Hiriart-Urruty? Nork utziko du aldameanean Zaldubiren egina, euskarak ordurik beharrenak dituenen, euskarak berak daskurtso bilbatzaile eta duin baten jabe izan behar duenean?

Horra hor galdera. Erantzuna, aldiz, aspalditik eman zigun 1909. urteko Almanaka berriak, Zaldubi hilberriaz ari zela:

Ikhusgarri da zein ongi zakien Jaun Aphez horrek, Fedezko gauza ukigarrienen bertsu ederrenetan ematen, eta hori hain garbiki eta hain choragarriki, non fededunek adit baitetzaketan eta atchik ere den gutieneko nekherik eta uzkurta-sunik gabe.

Bertso eta kantikak nagusi, zergatik orain *Saindu batzuen bizitzaz* jardutea, hau da, eliza hitzaldiak abiaburu hartzea, gure egungo euskaldunei osterera ere Zaldubiren lana eskaintzean? Bi-bitakoa izan daiteke arrazoia, bi norabide gurutzatzen baitira haren eginahaletan: lehena, pulpitutik edo jendaurrean hitz egiteko molde eta manera euskalduna; bigarrena, idazteko orduan eliza-erretorika prosa egiten duena, prosa horretan euskaldunaren ispilu argia datorkigula.

Egia esan, erlijioaren egiek ez dute egun Zaldubiren garaikoan zuten hots eta arrabotsik. Hizkuntza eta esamoldeak, aldiz, bete-betean datozkigu, horien

premian baikaude euskaldunok. Prosa-molde indartsuak osatu behar ditugu, euskara izan dadin, erlijioaren eramaile ez ezik, literatura, zientzia, lege, ekonomia... hots, giza bizitzari dagokion ororen eramaile. Horretan lagungarri eta erakusgarri da Zaldubiren egitekoa, horretan ere oheergarri gaurko euskaldunentzat.

Aspaldikoa izateak berarekin dakar, bestalde, egunotako irakurketa-ohituretara alderatu beharra. Hala egin du, artez eta trebe, ohi duenez, Henri Duhau senpertarrak Zaldubi herrikidearen lanekin. Adi egon bekio irakurlea berak esandakoari eta adierazitakoari. Horregatik, Duhauren bidelagun izan gara, ibilbide horretan, Euskaltzaindia eta Euskaltzaleen Biltzarra, uste baitugu Euskal Herri euskaldun honetan, idazle klasikoak euskal kultura beregain baten zimentarri irmoak direla. Izan dadila, beraz, oraingo hau geroko batean elkarrekin egin daitezkeen lanaren seinale, Euskaltzaindiak behar duelako Euskal Herriaren lurralde bakoitzari berea ematea.

Hitzño bat ere gorde dezadan esateko, liburu hau Zaldubiren azkena ez dela izango Euskaltzaindiaren argitalpenetan behinik behin, segida ederra izan dezakeelako honen gerogarrenean etor daitezkeen beste batzuen aldetik. Hainbatez, *Euskaltzainak* izeneko bildumak, liburu honekin hasiera duenak, bere baitara bideratuko ditu Akademiaren historiaren barruan jokabide esanguratsua eta pisuzkoa izan duten kideen obrak nahiz ikerketak, eta, orobat, eurei buruzko azterketak, hizkuntzaren historia ere alboratu gabe.

Gratien Adema senpertarrak euskal lanaren aitzindaritze eraman zuen, eta halaxe jokatzeko erakutsi zigun. Geurea da orain txanda. *Axik dezagun eskuara!*



**JEAN HARITSCHELHAR EUSKALTZAINBURU  
OHIARI OMENALDI-ARGITALPENA  
«Iker» Bilduma: 21. zenbakia**

*Bilbo, 2008-I-24*



## JEAN HARITSCHELHARREN OMENALDIAN

*Andres Urrutia, euskaltzainburua*

Katea luzea bezain sendoa da, Euskaltzaindiaren historian, Jean Haritschelharrek osatu duena. Dela euskaltzain oso, dela kargu eta arduradun (euskaltzainburu zein euskaltzainburuorde), Jean Haritschelharrek betidanik eskaini dizkio Euskararen Akademiari bere ahala eta lana.

Bistan da, hortaz, ondo merezitako omenaldiari berea eman behar zaiola. Emok emaileari, egiok egileari, dio esaera zaharrak. Halaxe egin nahi izan dugu guk ere, zure euskaltzainkideok, zurekin batera Akademiaren egitekoetan ari garenok, omenaldi akademikoa antolatu dugunean. Helburua argi dugu: zuri itzuli, neurri txiki eta labur batean, liburu gisa, zuk zeuk Akademiari eskuzabal eman diozuna. Hartara, belaunaldi eta zeregin desberdinetako kideak gaituzu liburuaren egile, eta, erraz atzemango duzunez, badira hor tartean ere zure besarkada beroa jaso dutenak Euskaltzaindian lehendabizi sartzeko orduan.

Hitz bat ere kendu gabe, esan daiteke zu eta Villasante, Villasante eta zu, harako bikotea zaretela, Euskaltzaindiaren gobernuari molde berria ekarri diona, aldian aldiko eskakizunei eta premiei ateak ireki dizkiena eta gizartearen iritzia aintzat hartu duena, akademia orori dagokion jakituria-maila gutxietsi gabe.

Har itzazu, beraz, Jean Haritschelhar jauna, zure euskaltzainkideon omena eta aipamena. Hor dituzu gure ahaleginak, zuk zeuk maite dituzun alorretatik hainbatetan zertuak: euskal literatura, historia, pilota, euskara, euskal klasikoak... Horietan guztietan zara trebe eta iaio. Horietan guztietan ere, maisu eta bidegile, gobernu-gizonak behar duena baztertu gabe.

Ekin eta jarrai. Horra gure leloa, gure esanahi nagusia. Horrek eramaten gaitu, aurrenik, zuri eskerrak ematera eta ohore eskaintzera, bikain egindako lanarengatik. Hurrenik, horrek guztioi eskatzen digu, eginkizun ditugun horietan, halako adore eta kemena izatea, gu ere, zure antzera, euskararen eta Euskal Herriaren mesederako saia gaitezen.



## ESKER HITZAK

*Jean Haritschelhar*

Euskaltzainburu jauna  
eta euskaltzain kideak,

M. le Président de l'Office Public de la Langue Basque (E.E.P.)  
et représentants du Conseil d'Administration,

Agintari jaun-andereak.

Gaur hemen bildu zareten guziei:  
aratsalde on eta ongi etorri.

Hona non den etorria ohorezko tenorea, ohore euskaltzainburu ohiarentzat Euskaltzaindiak eskaintzen diolarik hemen Bilbon, bere egoitzan, hainbeste jenderen aitzinean omenaldi berezi bat, «eskerrak bihurtuz euskal Akademia-ren egitekoetan hainbeste parte harturik eta orokorkiango euskararen alde hain jarraituki jokaturik» gomitak dioen bezala.

Jakin zazue, zuk euskaltzainburu jauna eta, denbora berean, euskaltzain kide guziek, entzunik ere euskaltzainburuaren hitzaldia, senditzen dudala bihotzean holako ximiko bat laudorio zama horren pean. Ohore doblea, omenaldi hau egiten delakotz Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoko agintarien aitzinean, etorriak honara hitzarmen baten sinatzeko, horrek erakusten duela hizkuntzari buruz sekula baino gehiago sortzen eta sendotzen direla lokarriak Iparraldearen eta Hegoaldearen instituzioen artean, egiaztatuz aspaldi honetan euskaltzale ainitzen ametsa.

Hain zuzen ez zitekeen holakorik asma duela orain 46 arte, 1962an, berrikitan etorria nintzala Baionara euskal erakustokiko zuzendari, jin zitzaidalarik Aita Lafitte uztailaren azken egunean erraiteko bezperan izendatuak izan zirela bi euskaltzain berri, Aita Diharce-Iratzeder olerkaria eta ni. Berehala ihardetsi nion: «baina orain arte gauza guti egin dut euskararen alde!» Eta harek, irriño bat ezpainetan: «eginen dituzunak izanen dira lekuko.» Oroit naiz ere, urte baten buruan, Baigorriin egin nuelarik sarrera-mintzaldia bildu zirela orduko euskaltzainak, iparraldekoak dudarik gabe Aita Lafitte, Eppherre kallonjea, Dassance, beti gogoan dauzkadanak, bakoitzak bere eran egin bainaute izan naizen eta naizen euskaltzalea, eta ere Hegoaldetik jinikakoak pasapor-

tea zaukatekalotz Mitxelena, Irigaray, Arrue. Frankismo garaian bizi zen Hegoaldea, Iparraldea aldiz libertate eremu agertzen zen.

1968an Euskaltzaindiak hartu du bihurgune haundi bat, euskara batua finkatu lehenik eta bultzatu beharrez gero. Egitura berrituz, bide berri bati

**JEAN HARITSCHELHAR-I OMENALDIA**  
HOMENAJE A JEAN HARITSCHELHAR  
HOMMAGE À JEAN HARITSCHELHAR

**JEAN HARITSCHELHAR-I OMENALDIA**  
HOMENAJE A JEAN HARITSCHELHAR  
HOMMAGE À JEAN HARITSCHELHAR

**JEAN HARITSCHELHAR-I OMENALDIA**  
HOMENAJE A JEAN HARITSCHELHAR  
HOMMAGE À JEAN HARITSCHELHAR

**JEAN HARITSCHELHAR-I OMENALDIA**  
HOMENAJE A JEAN HARITSCHELHAR  
HOMMAGE À JEAN HARITSCHELHAR

**iker - 21**

lotzen zitzaion eta egiazki lanean jartzen. Hori izan da egiazko iraultza, denbora berean sortzen baitzen lan egiteko manera berri bat: elgarrekilako lana fagoratuaz batzordeen bitartez.

Lan sakonetan sartuz, euskara idatzia Orotariko euskal hiztegiarekin, euskara mintzatua, euskalkiak, Hizkuntza Atlasarekin, Gramatika azterketak Gramatika orokor bati buruz, Onomastikako estudioak eta arauak eskainiz, Literatura barnatuz jardunaldi eta kongresuen bitartez, Euskaltzaindiak lortu du onarpen osoa Euskal Herri guzian.

Frankismo garaia bukaturik, hasi da 1976eko otsailaren 26eko erret dekretoarekin, segitu gero 1979an Euskal Herriko autonomia estatutoarekin bere 6. artikuluan, Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek berretsirik, Nafarroa heldu zela geroxago 1986an euskararen foru legearekin bere 3. artikuluan.

Gogoan ditut egoitza honen eskaintza Bizkaiko foru aldundiaren ganik, barneko apaindurak Eusko Jaurlaritzak, hiru foru aldundiek eta Nafarroako gobernua ordainduak, kontutan hartuz ere Gasteizko, Iruñeako eta Donostia-ko ordezkariak, Baionakoa berrikitan Baionako udalaren eskutik. Gogoan ere Pauen egin zen bilkura oroitzagarria, zazpi Euskal Herrietako agintariek parte hartzen zutela, bilkura horrek erakusten zuela ofizialki kontseilu orokorraren ganikako ezagutza.

Urrats bat gehiago gaur, Euskaltzaindiak Euskararen Erakunde Publiko-arekin sinatu duen hitzarmenarekin, erakunde horretan sartuak direla frantses Estadua (Jaun prefeta gure artean dagoela), Akitaniako lurraldea (Frantxua Maitia lekuko), Kontseilu Orokorra (Max Brisson hitzarmenaren sinatzailea) eta Iparraldeko herrien sindikata (Vincent Bru buru duela).

Horiek guziak lortu ditu Euskaltzaindiak erakutsiz bere jokamolde profesionala, biltzen baititu bere batzordeetan Euskal Herri guziko Unibertsitateko ikerlerik hoberenak, haien lana errexten dutela Euskaltzaindiko enplegatu guziek, haiek ere parte hartzen dutela Euskaltzaindiaren egitasmo erraldoian.

Hona non den etorria eskertzeko tenorea. Barkatuko didazue eskerrik beroenak eskaintzen baldinbadizkiot lehenik hemen dagon ene espos-lagunari. Badu berrogeita hemezortzi urte ezkonduak garena eta beti ene ondoan egona da oposizioak preparatzen nituelarik Parisen, gero Agenen eta Baionan tesirako azterketak segitzen zituela, gordez beti ene lanen idazteko beharrezkoa nuen bakartasuna, onartuz ere etxetik kanpo ikerle, erakasle edo euskaltzainburu izanez, hartu ditudan egunak, asteak ere batzutan. Egiaz dirotzuet merezi duela omenaldi honen gozatzea enekin.

Eskerrak ere zuri euskaltzainburu jauna eta zuzendaritzari, aho batez onartu duzelakotz Beñat Oihartzabalek proposatu omenaldia, haren kudeaketa emanez Beñat berari eta Jose Luis Lizundiari. Ene adiskide haundiak diren biek artoski ereman dute beren lana, behar diren laguntzak bilatuz liburu honen burura eramateko. Eskerrik asko.

Azkenean eskertu nahi ditut opari honetan, paregabeko oparia baita enetzat, parte hartu duten guziak. Eskaini didazue zuen jakituria, eskaini ere ikertzeko eta idazteko hartu duzuen denbora, dakidalarik lanpeturik zaudetela denak. Zuen emaitzek erakusten didate enekilako daukazuen atxikimendua eta adiskidantza. Ekintza hunkigarri honen aitzinean, zer erran? Umilki eta zinez hunkiturik, bihotz bihotzez bihurtzen dizkitzuet eskerrik bizienak, eskerrak, bai, milaka.



## JEAN HARITSCHELHARREN OMENALDIA

*Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea*

Euskararen erakunde publikoko lehendakari jauna, Euskaltzainburua jauna, agintari jaun-andereak, adikiskideak, arratsalde on!

Nekez asma zitekeen egungoa baino parada egokiagorik euskaltzainek Jean Haritschelharri omenaldi honen egiteko. Izan ere, Euskaltzaindia abantzu 90 urteetara heltzen delarik, lehen aldia da mugaz harainditik hona, gure egoitza nagusira, bisitaz heldu zaizkigula euskararen ardura duten hango agintariak, modu horretan azken urteetan eta bereziki 2001ez geroztik izan diren erakunde loturei agerbide berezia emanez.

Honela, nolabait behar bezala bururatzen da Jean Haritschelharrek aspaldi honetan Iparraldean ere euskararen akademiaren ezagutarazteko egin lan luze, etengabea. Behar-beharrezkotzat zeukan lana, zeren baitzekien bi estaturen arteko mugaren gainean an ixtaklok bezala jarria den erakunde berezi honen ezagutzarekin lotua zela, sinbolikoki bederen, euskararen beraren eza-gutza publikoa ere.

Ez da oraino, zorigaitzez, euskaldunek nahi luketen bezalako ezagutza, zor zaiena eta Euskaltzaindiak aspaldi eskatu duen bezalako, oraindik ere ez baitu han euskarak legezko ezagutza beterik, ez ofizialtasunik. Bizkitartean, legearen isiltasun horretan, nola uka egiazko aitzinamendua egina izan dela Estatuaren, Eskualdearen eta Departamenduaren gerizapean Euskararen Era-kunde Publikoa eratzearekin.

Horregatik, pozgarri zait, eta uste dut, hori erranez euskaltzain guzien, eta bereziki mugaz haraindikoien sentimendua adierazten dudala, hemen, gure artean, Iparraldeko erakunde publiko ordezkariek baititugu. Presentzia horrek berak zerbait adierazten du, dudarik batere gabe, azken bi hamarkadetan izan den bilakaerari eta aldaketei buruz. Egiazki ez zen bide hoberik Jean Haritschelharrek euskararen alde egin lanaren omentzeko.

Orok dakigunaz, izanak ditu jadanik Jean Haritschelharrek omenaldiak Euskal Herrian: lehenik, *doktore Honoris Causa* egin zuen Euskal Herriko Unibertsitateak 1992an, eta mugaz beste parteko unibertsitate lankideek ere 1999an haren ohoretan biltzar bat antolatu genuen Baionan, ondotik aktak bildurik liburu bat argitara emanez. Eusko Ikaskuntzak ere omenaldi hunkiga-

ria egin zion Baigorri zenbait urteren buruan, 2005ean, eta garaitsu hartan ere naffarek Irujo saria emanaz.

Nehor ez da harrituko, haatik, Euskaltzaindiak ere omenaldi hau egiten baitio egun, ez baita dudarik Jean Haritschelhar Euskal Herriko erakunde batekin identifikatua bada, erakunde hori Euskaltzaindia dela.

Euskaltzainek, akademietan egiten ohi den bezala, lan akademikoak eginez omentzen dituzte beren kideak. Hala egina izan dute lehenago, Luis Villasante, Piarres Lafitte, eta Federiko Krutwigentzat, bai eta, unibertsitatearekin batean, Jose-Luis Alvarez Enparantza Txillardegientzat ere. Hala egina dugu oraingoan ere. Arratsalde honetan aurkezten dugun liburuan 33 euskaltzainek, izan daitezen osoak edo ohorezkoak, edo Jean Haritschelhar buru den Literatura batzordekoak, azterlanak eskaintzen dizkiogu beraz, liburu gotorra osatuz.

Gramatika, eta hizkuntza konparaketa, literatura, onomastika, gizarte eta historia solasak, gai guzietarik, aurkitzen da liburuan. Erran gabe doa ezin has naitekeela hemen ororen bederazka aipatzen. Ordea, batzuk argira ekarriz, besteak ilunpean uzten baitira, ez nuke nahi nehoi mingarri gerta dakizkion aurkezpen honetako solasak.

Halere, irakurle zenbaiten jakin mina zerbait gisaz pizteko asmoz eta salbuespen bat eginez, erran dezadan, Jean Haritschelhar gaztean pilotari ere izana baita, segur naiz, gogotik irakurriko dutela, guk bezala, Emile Larre haren herki-deak apaiz pilotariez idatzi artikulua, Orson Wellesek eginikako film hartako zenbait irudik bezala, Obaba galdu baten nostalgia zenbaiti ekarriko diena.

Ohi den bezala horrelako liburuetan, hastapenean, omenduaren lanak bereziki aipatzen dira. Bi partetan egina dugu Jose Luis Lizundiak eta biek lan hori: hark gogorarazi du zer izan den Haritschelharren ibilaldia gure akademian (eta gero aipatuko dizkigu berak hemen berean), eta nik, bestelako eta bereziki unibertsitateko haren lanak kontuan harturik, bildu dut haren bibliografia akademikoa, irakurleak ikusten ahalko duen bezala, 1960an hasirik 2006 arte 400 erreferentzia baino gehiago dituena.

Kopurua bera adierazgarria da eta aski klarki bere buruz mintzo. 2006 arte erran dut, ezen ez da bukatua, ez hetsia, zerrenda hori. Joan den astean Baionan idazkolarik atera den *Lapurdum* aldizkariaren azken zenbakian argitaratzen baita Haritschelharren ikerlan berri bat, urteetan antropologo batzuk hainbeste mintzarazi dituen etimologia misteriotsu bat argituz: *aitaginarreba* eta *amaginarreba* hitzena, hain zuzen.

Lan akademiko horien guzien artean bat bereziki hautatu behar balitz, nola ez, Pierre Topet Etxahun koblagileaz eginikako doktore ikerketa aipatu behar litzateke, nik uste. Zergatik? Bi arrazoirengatik:

- lehenik, luzaz hura izan baita literatura testuen ikerketarako euskalariak izan duten erreferentzia nagusia;

– bigarrenik, erakustera ematen baitu nola Eskola Normaleko gain-gaineko formazio klasikoa hartu ondoan, Jean Haritschelharrek jakin izan duen bere unibertsitate jakintza Etxahun bezalako eskolarik gabeko koblakari baten aberastasunak agerian ematen, eta manera horretan euskarazko herri koblak unibertsitateko estudioetan sarrarazten.

Bizkitartean, ez dira haren lanak, zerrenda bibliografiko horretan eta Euskaltzaindiko kargudun gisa eginikako lanetan gelditzen. Haietaz gain, hor ditugu, lehenik, urtez urte, astez aste *Herria* astekarian idatzi lerroak. Alde batetik, Gehexan Ponttoren ohar eta ateraldiak, batzuetan piko eta zimikoak, haietarik batzuk *Ponttokeriak* deitu liburu batean argitaratu zirenak, eta beste aldetik, *Telebista leihotik* saileko iritziak, kritika moduan eginak.

Hor ditugu gero Iparraldean euskararen aldeko ekimenetan egin ekarria, dela Euskal Unibertsitatearen lehenbiziko urratsak izan ziren biltzar haietan, Baionako Euskal Museoko Zuzendari izanik gerizatu zituenak, dela IKAS batasunean edo euskararen aldeko beste gisa bereko hainbeste ekimenetan.

Baina ororen gainetik hemen agerian utzi nahi nuke zenbat zor dioten Haritschelharri Baionan orain diren unibertsitate mailako irakaskintza eta ikerketa egiturek, berak eman baitzien lehenbiziko bultzada, horrelakorik egitea oso zaila zen garai batean. Euskal estudioentzat hetsiak ziren errepideak utzirik, bide xendra lerrakor batzuetan barna ibili zen euskal ikasketen aitzinarazteko, eta horrela sortu zen handik zenbait urteren buruan osoki ezagutuko zen Euskal estudioen saila Baionan.

Bururatzeko, Jose Luis Lizundiari hitza utzi baino lehenago, zilegi izan bekit omenezko hitz hauek esker oneko solasekin bururatzea. Bai, Jean, Euskaltzaindia bezala euskalaritzako beste egitura asko dira zure aldera zordun direnak, are gehiago erran nezake ni bezalako ikertzaileak, beti aurkitu baitugu zuregana jitean aholku eta sostengu. Orogen izenean, mila esker!



## **JEAN HARITSCHELHARREN OMENEZKO IKER LIBURUKIAREN AURKEZPENEAN**

*Jose Luis Lizundia, Zuzendaritza kidea*

IKER, Euskaltzaindiaren bildumako 21 zenbakia aurkezten dugu gaur. Baina ekitaldi akademiko honek, baditu ohiko aurkezpen batetik zenbait be-  
reizkuntza eta, hain zuzen, horixek azpimarra nahi nituzke. Hara hor:

Izenak adierazten duen bezalaxe bilduma hau 1981ean sortu zen Euskaltzaindiari dagozkion bi eginkizun nagusietariko bat: IKERKETAREN inguruko gai orokorrak argitaratzeko. Gero, horrek ez du esan nahi, gure IKER SAIL nagusiaren barneko batzordeen lan propioak ez dutenik bere bide edo bildumarik. Hain zuzen, Hiztegegintza, Gramatika, Dialektologia, Onomastika eta Literaturak badituzte bere esparruko bildumak. IKER bilduma Nazioarteko Euskalarien Jardunaldietan (*Rencontres Internationales de Bascologues*) aurkeztutako hitzaldi, txosten eta aktekin hasi zen 1981ean, Jean Euskaltzainburuorde zela. Baina bilduma honetako aurreko hogeitaz liburuetatik bik bakarrik dute gaurkoaren antza, hots, 6. *Luis Villasanteren omenaldia*, alegia, aurreko Euskaltzainburuaren omenez 1992an aurkeztua, oraingo eta 1996ean *Federiko Krutwig-i omenaldia* euskaltzain oso famatuaren omenezkoa, bildumako 10.a.

Omenezko liburua da, beraz, zeinetan parte hartu dugun 33 euskaltzain oso, ohorezko eta urgazlek gai desberdinak jorratuz. Omenezko liburu honetako jatorria zehazterakoan, oker zenbatu ez baditut honelako emaitza erakusten dute: 8 bizkaitar, 8 gipuzkoar, 4 lapurtar, 4 nafar, 3 baxenafar, 2 zuberotar, arabar 1, paristar 1, errusiar 1 eta poloniar 1. Beraz, Euskal Herri guztiko idazleek parte hartu dute.

Euskaltzainburuarekin eta Buruordearekin batera egin dut sarrerako artikulua, hirurok arduratu baiginen argitalpen honekin. Nireak «Haritschelhar 38 urte Zuzendaritzan» du izena, zeinetan azaltzen baitut hogeita hamazortzi urte luzetan, lehenengo hogeitalautan buruorde eta hamalautan buru, Jeanek Akademia honen gobernamentuan egindako ahaleginak. Irakur ezazue otoi nire lan xumea horren frogatzat. Ez luzatzeko hara hor, sarreratxoaren ondoren kapituluak: 1. Zuzendaritzan Iparraldeko ordezkari, 2. Zuzendaritzan buruorde, 3. Zuzendaritzan buru, 4. Batzorde arduetan eta 5. Haritschelhar herri gizon/plaza gizon.

Azken puntu bat azpimarra nahi nuke. A. Luis Villasante euskaltzainburuak, Arantzazun berarekin ohiko nuen despatxu batean azaldu zidan kezka bat, hots, orduko argitalpen urriek behar zutela zuzendari bat eta ez jasaten zuten sakabanaketa. Iradoki nion, ene ustez, Euskaltzaindiaren argitalpenen zuzendari orokorra, Euskaltzainburu zena izan behar zela. Hala onartu eta sartu zen Barne Erregeletan eta hala izan zen Jeanen garaian eta hala da, orain, Andresenean. Horrek ez du kentzen Euskaltzainburuak ezin dituenik bildumak delega. Bada, Jeanen garaian, oker zenbatu ez baditut, 105 liburuki kaleratu zituen Euskaltzaindiak, aurreko historia guztian baino gehiago: 39 *Euskera* Agerkari (boletin)ekoak; 12, IKER; Hiztegiak, *Orotariko Euskal Hiztegi* gehienak koedizioan aparte, 5; Gramatikak, 6; ONOMASTICON VASCONIAE, 21; Izendegiak, 6; Literatura, BBKko urteko lau sariak aparte, 14; EUSKARAREN LEKUKOAK, 9; P. Yrizarren, MORFOLOGIA DEL VERBO AUXILIAR, 13; ATLASaren *Antologia*, 1; argitalpen soltea, 1.

Labur bilduz, bere hurbileko edo urruneko batutapeko edota delegatutako uzta ederra. Amaieran, hau ere esatea nahi izan dut.

## L'EUSKALTZAINDIA ET L'OFFICE DE LA LANGUE BASQUE: UN NOUVEAU CADRE DE RELATIONS

*Max Brisson, Euskararen Erakunde Publikoaren lehendakaria*

Monsieur le Président Andres Urrutia,  
Madame la Conseillère à la Culture,  
Madame la Sénatrice,  
Monsieur le Préfet,  
Mesdames et Messieurs les Académiciens,  
mes chers collègues,  
Mesdames,  
Messieurs:

- Compte tenu de son objet : le soutien et la promotion de la langue basque par des travaux de recherche.
- Compte tenu de sa mission : fixer les règles et les normes d'usage.

Euskaltzaindia / l'Académie de la Langue Basque, est organisée depuis ses origines sur l'ensemble du Pays Basque.

Les académiciens sont, de tous temps, issus de **tous** les territoires de l'aire linguistique du Pays Basque.

Les provinces du Labourd, de Basse-Navarre et de Soule ont régulièrement fourni à votre prestigieuse institution des personnalités présentant par leurs remarquables qualités les conditions requises pour devenir académicien.

Pour autant, les relations officielles entre l'Académie et les pouvoirs publics français ne se sont consolidées que dans une période récente :

- L'association loi 1901 sur laquelle s'organise la présence juridique de l'Académie en Pays Basque de France n'a en effet été reconnue d'utilité publique qu'en 1995, étape essentielle de la reconnaissance juridique en France de votre institution.
- La convention spécifique Pays Basque, mobilisant des financements de l'Etat, de la Région et du Département en faveur de l'Euskara, a permis en 2000 de franchir un palier supplémentaire dans cette reconnaissance officielle, en dotant l'Académie d'un accompagnement financier pour l'ensemble de ses activités menées en Pays Basque de France. C'était une

nouvelle étape dans la voie de la reconnaissance. Certes la contribution des pouvoirs publics français reste bien sûr inférieure à celle des pouvoirs publics de la Communauté Autonome d'Euskadi mais elle devient alors pour la première fois significative, c'est une seconde étape importante.

- Au bout de quatre années de financement, concerté, au sein de la convention spécifique, les pouvoirs publics regroupés fin 2004 au sein du nouvel Office Public de la Langue Basque, confient à ce dernier le soin de relayer les aides de l'Etat, de la Région et du Département et d'honorer jusqu'à son terme, c'est-à-dire 2006, les engagements de l'Académie.
- En 2006, l'Office Public élabore et définit la politique publique qu'il entend mener au service de la langue basque. C'est une grande première en France.

Dans ce document adopté à l'unanimité par les Institutions membres de l'Office, l'OPLB désigne officiellement Euskaltzaindia comme son interlocuteur de référence sur lequel s'appuieront toutes les initiatives prises par l'Office Public dans le cadre de son action en faveur de la qualité de la langue : terminologie, adaptation de la langue aux usages multiples que génère son développement dans la vie sociale, fixation et adaptation des toponymes, procédures de certification... Vous êtes devenus l'interlocuteur de l'Office, donc des pouvoirs publics français.

L'Académie est ainsi devenue dans son domaine de compétence un partenaire majeur de la mise en œuvre d'une politique publique en faveur de la langue basque dans les provinces de Soule, Labour et Basse-Navarre. Cette évolution ne pouvait que se traduire par la formalisation d'une convention de partenariat propre à Euskaltzaindia, dont nous allons signer ensemble, Président, la version 2008.

Cette nouvelle organisation des rapports entre nous et vous s'avérait d'autant plus pertinente qu'elle s'inscrit aussi en cohérence avec le partenariat développé parallèlement avec la Communauté Autonome d'Euskadi et de manière plus particulière avec le Ministère de la Culture et le sous-ministère de la politique linguistique. Et je veux ici saluer le travail mené avec le Gouvernement Basque qui, en matière de politique linguistique, nous a permis de mettre sur pied une coopération transfrontalière efficace, concrète, partenariale et respectueuse des prérogatives de chacun.

Dans le prolongement de la convention signée aujourd'hui pour l'année 2008, peut être sera-t-il possible de construire pour les années à venir, un dispositif commun qui verrait l'ensemble des pouvoirs publics de part et d'autre de la frontière réunis dans une même convention autour d'Euskaltzaindia pour l'aider à remplir au mieux ses différentes missions.

L'Office Public y est quant à lui tout à fait ouvert, ses partenaires d'Euskadi aussi, et il conviendra donc de travailler dans les mois qui viennent à



l'examen des modalités pratiques de ce projet, qui symboliserait, par un acte concret supplémentaire la volonté des institutions de part et d'autre de la frontière, de coopérer, dans le plein respect du cadre institutionnel de chacun, à la promotion de la langue basque qui nous est commune et à un partenariat concerté avec Euskaltzaindia, aujourd'hui institution dont je veux dire également qu'elle nous est aussi commune.

C'est peut-être là, tout le sens, Monsieur le Président, de la présence de l'OPLB ce soir, au siège de l'Académie à Bilbao. L'OPLB, Monsieur le Président, y est représenté par une délégation importante :

- Monsieur le Préfet des Pyrénées-Atlantiques, représentant de l'Etat en Pyrénées-Atlantiques, Marc Cabane,
- Madame la Sénatrice Jarraud-Vergnolle, membre du Parlement français,
- Monsieur le Vice-Président du Conseil Régional, Vice-Président de l'OPLB, François Maïtia, représentant le Président Rousset,
- Monsieur le Président du Syndicat de soutien à la Culture basque : Monsieur Vincent Bru, Conseiller Général et Maire de Cambo, représentant tous les maires du Pays Basque français,
- Monsieur le représentant du Président Alain Lamassoure, Président du Conseil des élus du Pays Basque, Jakes Abeberry, qu'on ne présente pas ici,
- et permettez-moi de rappeler que je représente aussi au sein de l'OPLB le Président Lasserre, Président du Conseil Général.

Une présence forte qui signifie que les pouvoirs publics du Pays Basque de France sont aussi fiers de leur académie et souhaitent par leur présence ce soir à Bilbao rendre un hommage appuyé à tous les académiciens du Pays Basque, au Nord et au Sud de la frontière, Académiciens qui oeuvrent au service de la langue basque, qui l'accompagnent dans les adaptations nécessaires inhérentes au développement de son usage social, et qui l'inscrivent par là même dans la modernité.

Dans ces conditions, vous comprendrez, Président Andres Urrutia, que nous soyons particulièrement heureux de votre décision de choisir ce jour de signature entre l'OPLB et l'Académie pour honorer celui qui, parmi les siens, n'a jamais ménagé ses efforts, depuis de longues années, pour plaider auprès des pouvoirs publics français, la cause de l'Académie et de la langue basque. Je veux, bien sûr, parler de notre ami à tous : Jean Haritschelhar.

Je pourrais dire, mal, ce qui sera dit tout à l'heure avec talent et parler du Docteur es-lettres, du Professeur des Universités, du Responsable des études basques à la Faculté des Lettres de l'Université de Bordeaux, du Directeur du Musée basque, mais je ne saurais vous apprendre à vous Académiciens qui est Jean Haritschelhar, puisqu'il est des vôtres depuis 1962 et a présidé l'Académie

de la Langue Basque de 1985 à 2004, succédant au Père Luis Villasante avant de céder son fauteuil à Andres Urrutia. Je préfère donc dire plus simplement et personnellement que Jean Haritschelhar, et je ne le lui ai jamais dit, fait partie des personnalités fortes qui ont impressionné le jeune élu que j'étais encore voilà 15-20 ans et l'on conduit à mieux comprendre et à mieux aimer ce pays qui l'avait pourtant vu naître, sa langue, sa culture et ses habitants.

La fougue et la passion au service d'une cause juste, celle conduisant ce pays et ceux qui y vivent à ne pas oublier qu'ils sont dépositaires d'un trésor inestimable : l'EUSKARA et qu'ils seront redevables devant les générations suivantes s'ils le laissent disparaître à tout jamais, voilà ce que j'ai appris en écoutant Jean Haritschelhar. D'autres ont dit et écrit la même chose, mais lui l'a fait avec tolérance et respect, marquant ainsi les esprits. Et s'il y a aujourd'hui sursaut chez nous, en Pays Basque de France, c'est pour de multiples causes bien sûr, mais parmi elles, parce qu'il y a eu des hommes de parole comme Jean Haritschelhar, une parole forte, mais mesurée sur le fond, une parole passionnée mais attentive à l'autre, une parole portée par un homme de conviction, de passion et de tolérance.

Monsieur le Président, chez Jean si vous le permettez, si je suis ce soir à cette tribune, et permettez-moi de dire que j'en ressens avec émotion tout l'honneur, puisque j'y représente, devant Monsieur le Préfet, les institutions de la République, c'est parce que certaines de vos paroles et certains de vos écrits ont cheminé en moi.

Mais justement, et si vous autorisez cette facilité, depuis, bien du chemin a été parcouru et la convention signée ce soir regarde elle de l'avant, comme l'a toujours souhaité votre ancien président. Elle est précise et concrète, elle fixe des axes de travail pour avancer dans le champ de la qualité linguistique, de la graphie et de la toponymie et de la certification des compétences. Bref, une convention au service d'une langue plus belle, mieux stabilisée, et écrite et parlée par des locuteurs ayant une maîtrise encore plus grande de ses subtilités et de ses propres trésors.

Bref, dans cette convention, se retrouvent les combats du Président Haritschelhar. L'OPLB est donc heureux à Bilbao, d'œuvrer aux côtés de l'Académie, en faveur de la préservation et de l'amélioration de ce bien précieux qui nous est commun. En cette période de vœux, au-delà de ceux que je formule pour chacun d'entre vous, je souhaite que de nouveaux acteurs prennent davantage encore conscience de la mission irremplaçable de l'Académie de la Langue Basque et soient par là même davantage sensibilisés à l'enjeu stratégique de la qualité de la langue.

Le combat pour la qualité, c'est le premier combat pour sauver une langue, mais c'est aussi un combat pour que l'homme puisse avec justesse communiquer avec l'autre.

Merci à tous.

## **EUSKALTZAINDIA ETA EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA: HITZARMEN BATEN ATARIAN**

*Andres Urrutia, euskaltzainburua*

Gaur sinatuko dugu Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitza nagusian, Euskaltzaindiaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren arteko hitzarmena. Horra hor urrats berria, euskara bera Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan indartzeko. Bistan da horrek ekarriko dituela euskararentzat, Iparraldean, abagune berriak. Horretarako sortu da, sortu ere, Euskararen Erakunde Publikoa, bertara bildu dituztela Frantziako botere publikoek euskarari buruzko ahalak.

Aspaldikoa da Euskaltzaindiaren eta Frantziako agintarien arteko lankidetza. Hartara, soka luzea dakarren horrek emaitza esanguratsuak ahalbidetu ditu, hala nola, Baionan Euskaltzaindiak ireki duen bulego berria, euskal toponimia finkatzeko lana, eta, zer esanik ez, Iparraldeko euskaltzainek Euskaltzaindiaren zereginetan parte hartzea.

Ezin bazterrean utz, bestalde, berrikitan Andiazabal euskaltzain ohorezkoaren eskutik Euskaltzaindiak jaso dituen Lafitte zenaren agiria, hain zuzen ere horiek digitalizatzeko eta euskarri informatikoan jartzeko. Azkue Biblioteka Euskaltzaindiaren Zerbitzuak ondu du lan hori eta gaur egunean egina dago.

Bi-bitara datoz, beraz, hitzarmen honen emaitzak eta ondorioak: lehen-lehena, euskara bera indartzea bizitza publikoan eta jendaurreko jardunean; bigarrena, aldiz, euskal lanak sustatzea Iparraldean. Hainbatez, testu honek tresna-izaera du, hain zuzen ere, helburu horietan aitzinatzeko tresna baliagarria.

Tresna-izaera hori, hasteko, ideologia politiko orotik kanpo dago. Tresna honek azpimarratzen du, haatik, Iparraldeko botere publikoen erabakia, bertan, agerian eta biziberriturik ager dadin euskara.

Hasian hasi, tresna horrexek ixten du Euskaltzaindiaren ekina, beharrezko diren baliabide ekonomikoen katea bermatzeko. Aipa ditzagun, lehendabizi, 2005. urtean Euskal Autonomia Erkidegoarekin eta foru-herrialdeekin sinaturiko hitzarmenak. Jarrai dezagun Nafarroako Gobernuarekin indarrean dagoena gogoratuz. Eta alboan ere ezin utzi Espainiako Gobernuak ematen duen diru-laguntza azpimarragarria.

Hasi besterik ez da egin, baina hitzarmen hau bestelako pausoa da, Euskaltzaindia goi mailako erakunde moduan aitortzeko. Jada egina da hori

Euskal Autonomia Erkidegoan nahiz Nafarroakoan, eta oraintxe dator Iparraldearen oreana.

Esan gabe doa horrek Euskaltzaindiari berebiziko bultzada emango diola, Euskararen Akademia bera ere eraberritze-prozesu sakonean sartuta dagoelako azken urteetan. Kideak, baliabideak eta eginkizunak ari dira aldatzen, ezariezarian.

Berriztatze hori, dena dela, ezinbesteko zaio Euskaltzaindiari, batez ere, XXI. mendeko behar eta premiei erantzuteko. Honetan ari garenok, bestalde, argi dugu bide horretan Euskaltzaindiak batera jokatu behar duela, dela botere publikoekin, dela unibertsitate eta hizkuntza-industriekin, dela euskara eta euskal kulturaren arloko elkarte eta eragileekin.

Batera jokatzeko horrek, elkarlan horrek, aintzat hartu behar du Euskal Herriko lurralde desberdinen egoera politiko, sozial eta kulturala. Argi dago euskarak batzen gaituela; hor dugula bateratzen gaituen nortasunaren osagaia. Argi dago, halaber, batasunak, nahitaez, eraberekotasuna ez duela esan nahi, horrek euskara uhertu eta herdoildu baino ez baitu egiten.

Urtarrilaren 24an, Bilboko Plaza Barrian, Euskaltzaindiaren egoitzan, euskara eta frantsesa mintzatuko dira. Hor izango dugu aukera aparta berri ere bi hizkuntzak, gaztelaniarekin batera, herri honen errealitate bizi eta esanguratsuak direla aldarrikatzeko.

Era berean, Euskaltzaindiak beteko ditu, beste behin ere, azken laurogeita hamar urteetan egin duen bezalaxe, sorrerako helburua, alegia, euskara ikertu eta jagotea, euskararen herrialde guztietan.

## **EUSKALTZAINDIA Y LA *OFFICE PUBLIC DE LA LANGUE BASQUE*: UN NUEVO MARCO DE RELACIONES**

Hoy se firma en la sede de Euskaltzaindia en Bilbao un convenio de colaboración entre Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca y la *Office Public de la Langue Basque*, el organismo encargado de la política lingüística sobre el euskera en Iparralde. He aquí un nuevo paso en la institucionalización de la lengua vasca en los territorios de Lapurdi, Nafarroa Beherea y Zuberoa, y una colaboración que redundará, sin lugar a dudas, en el avance y desarrollo del euskera en Iparralde.

No es nueva la colaboración entre Euskaltzaindia y los poderes públicos franceses. De hecho, una colaboración sostenida entre ellos ha traído, entre otras, actuaciones relevantes como la inauguración de la nueva delegación en Baiona de Euskaltzaindia, el trabajo conjunto para fijar la toponimia vasca en Iparralde, y actividades de otro tipo, centradas en la participación de los académicos de Iparralde en los trabajos de Euskaltzaindia.

Institucionalización de la lengua vasca y trabajos que contribuyen al avance del euskera en Iparralde. Esos son los dos ejes de este texto que nace con vocación de ser un instrumento útil para profundizar en estos objetivos.

Un instrumento, en primer lugar, alejado de cualquier veleidad política e ideológica, pero que destaca la voluntad de los poderes públicos de Iparralde de dotar al euskera de un marco importante de actuación que visibilice y revitalice la lengua vasca en ese territorio.

Un instrumento, además, que cierra el círculo de convenios con los poderes públicos existente en los territorios de lengua vasca, en orden a garantizar la financiación de las actividades de Euskaltzaindia. Así, tanto el Convenio firmado el año 2005 con la Comunidad Autónoma del País Vasco y los Territorios Históricos, y el existente con el Gobierno de la Comunidad Foral de Navarra, así como la ayuda anual prestada por el Gobierno español, encuentran su refrendo en este último convenio objeto de firma.

Un instrumento que supone, asimismo, un paso más en el reconocimiento de Euskaltzaindia como la institución de referencia en materia de lengua vasca en todos los territorios donde aquélla se utiliza, reconocimiento que tanto la Comunidad Autónoma del País Vasco como la Comunidad Foral de Navarra realizaron hace tiempo en su legislación propia.

Todo ello trae consigo un importante espaldarazo a la actividad de Euskaltzaindia, una Euskaltzaindia que, todo hay que decirlo, se encuentra inmersa estos últimos años en un proceso de renovación tanto de las personas como de los objetivos y medios de actuación de la institución.

Esa renovación, imprescindible para poder responder a las necesidades del siglo XXI, se está haciendo con la plena conciencia de que Euskaltzaindia ha de colaborar en su actuación con los poderes públicos, universidades, industria de la lengua, asociaciones y operadores del mundo del euskera y la cultura vasca. Colaboración que se hace, evidentemente, teniendo en cuenta las diferentes circunstancias políticas, sociales y culturales de cada uno de los territorios de la lengua vasca, en la convicción de que el euskera nos une y de que lo compartimos como elemento cultural, de comunicación e identidad importante, pero en la idea también de que la unidad de la lengua no debe imponernos una uniformidad estéril y esclerotizante.

El día 24 de enero en la Plaza Nueva de Bilbao, en la sede académica de Euskaltzaindia, se hablará en euskera y en francés, no para contraponer ambas lenguas, sino para dar testimonio de que ambas, junto con el castellano, son parte de la identidad viva y enriquecedora del país.

Al hacerlo así, Euskaltzaindia cumplirá, una vez más, como lo ha hecho en estos últimos noventa años, con su objetivo fundamental: la investigación y la promoción del euskera en todos sus ámbitos y realidades.

## **L' EUSKALTZAINDIA ET L'OFFICE PUBLIC DE LA LANGUE BASQUE: UN NOUVEAU CADRE DE RELATIONS**

Aujourd'hui sera signée au siège de l'Euskaltzaindia à Bilbao une Convention de collaboration entre l'Euskaltzaindia / l'Académie de la Langue Basque et l'Office Public de la Langue Basque, l'organisme en charge de la politique linguistique concernant l'euskara en Iparralde (Pays Basque Nord).

Il s'agit d'une étape nouvelle dans l'institutionnalisation de la langue basque dans les territoires du Labourd (Lapurdi), de la Basse-Navarre (Nafarroa Beherea) et de la Soule (Zuberoa), et une collaboration qui se traduira, à n'en pas douter, par la progression et le développement de l'euskara en Iparralde.

La collaboration entre l'Euskaltzaindia et les pouvoirs publics français n'est pas nouvelle. En effet, cette collaboration soutenue leur a permis de mener entre autres, des actions pertinentes comme l'inauguration de la nouvelle délégation de l'Euskaltzaindia à Bayonne, un travail en commun destiné à fixer la toponymie basque en Iparralde et des activités différentes basées sur la participation des académiciens d'Iparralde aux travaux de l'Euskaltzaindia.

Une institutionnalisation de la langue basque et des travaux qui contribuent à la progression de l'euskara en Iparralde ; telles sont les deux lignes directrices de ce texte qui voit le jour dans le but de devenir un instrument utile à l'approfondissement de ces objectifs.

Tout d'abord, un instrument éloigné de toute velléité politique et idéologique, mais qui souligne la volonté des pouvoirs politiques d'Iparralde de doter l'euskara d'un cadre d'action important qui rende visible et revitalise la langue basque dans ce territoire.

Par ailleurs, un instrument qui parachève l'ensemble des conventions avec les pouvoirs publics, existant dans les territoires de langue basque, et dont l'objectif est de garantir le financement des activités de l'Euskaltzaindia. Ainsi, tant la Convention signée en 2005 avec la Communauté Autonome du Pays Basque et les Territoires Historiques, et celle en vigueur avec le gouvernement de Navarre, que l'aide annuelle apportée par le gouvernement espagnol, trouvent leur approbation dans cette dernière convention qui fait l'objet de signature.

Un instrument qui suppose, de même, un pas de plus dans la reconnaissance de l'Euskaltzaindia comme étant l'institution de référence de la langue basque dans tous les territoires où cette dernière est utilisée, une reconnaissance que tant la Communauté Autonome du Pays Basque que la Communauté Forale de Navarre lui ont accordée dans leur législation propre depuis longtemps déjà.

Tout ceci, par nature reconnaît implicitement la valeur de l'activité de l'Euskaltzaindia, une Euskaltzaindia qui, il faut le dire, est soumise ces dernières années à un processus de rénovation qui touche autant les personnes que les objectifs et les moyens d'agir de l'institution.

Cette rénovation indispensable pour pouvoir répondre aux besoins du vingt-et-unième siècle s'effectue avec la prise de conscience, pleine et entière, du fait que l'Euskaltzaindia se doit de collaborer dans ses actions avec les pouvoirs publics, les universités, l'industrie de la langue, les associations et les acteurs du monde de l'euskara et de la culture basque. Une collaboration qui s'opère, évidemment, en tenant compte des différentes circonstances politiques, sociales et culturelles de chacun des territoires de la langue basque, avec la conviction que l'euskara nous unit et que nous le partageons comme un important élément culturel de communication et d'identité, mais en sachant aussi que l'unité de la langue ne doit pas nous imposer une uniformité stérile sclérosante.

Le 24 janvier sur la Plaza Nueva à Bilbao, au siège académique de l'Euskaltzaindia, on parlera euskara et français, non pour opposer ces deux langues, mais pour souligner le fait qu'elles font partie toutes deux, conjointement avec le castillan, de l'identité vive et enrichissante du pays.

Ce faisant, l'Euskaltzaindia, une fois de plus, atteindra comme elle l'a fait durant ces quatre-vingt-dix dernières années, son objectif fondamental: la recherche et la promotion de l'euskara dans tous ses domaines et ses réalités.



***NAFARROA OINEZ 2007***

*Viana, 2007-IX-21*



## AGURRA

*Andres Urrutia, euskaltzainburua*

Agur-hitzak, ohore-hitzak. Halakoak egokitu zaizkit niri gaur zuen aurrean esatea Euskaltzaindiaren izenean. Gogotsu egin du lan Euskaltzaindiak Vianan. Are gogotsuagoa izan da zuen harrera abegikor eta zabala. Eskerrak, hortaz, eskaini diguzuen giro ederragatik. Eskerrak Ikastolari, eskerrak herriari eta herritarrei. Jakin ezazue beti izango dituzuela gure laguntza eta babesa, euskararen bide luzean gogaide eta bidaide gaituzuelako.

\* \* \*

Hoy renovamos el compromiso anual de Euskaltzaindia con el mundo de las ikastolas, y más concretamente con el *Nafarroa Oinez*, conscientes de que Euskaltzaindia, no «viene» a Navarra, sino que es «de» Navarra, es una institución cultural que comparte los afanes de los navarros en Navarra y en pro del euskera.

Gracias, por tanto, en nombre de Euskaltzaindia a la ikastola y a los vecinos de Viana, por vuestra magnífica acogida, la cual ha servido además como marco incomparable para la presentación del libro de Miquel Gros, a quien deseo también agradecer su esfuerzo, junto con el de Andres Iñigo, delegado de Euskaltzaindia en Navarra, para que esta publicación esté hoy en nuestras manos.

Este libro que se presenta contiene nuevos datos con los que enriquecer, junto con otras aportaciones de la sociedad, un trabajo serio y alejado de cualquier ideología política en torno a la vida del euskera en Navarra.

La canción del *Nafarroa Oinez* nos habla de que tenemos la llave, «giltza daukagu», esa llave es el euskera, la llave de todos, la que sirve para abrir la puerta de la cultura a un mundo de comunicación y entendimiento, de convivencia con otras lenguas y culturas.

A ese mundo os invita Euskaltzaindia, para que viváis el euskera como una lengua de comunicación, una lengua de identidad de Navarra, abierta a los restantes territorios de lengua vasca y respetuosa con las realidades de cada uno de ellos.





EUSKALTZAINDIA  
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE

NAFARROA OINEZ 2007

EUSKALTZAINDIA  
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

irailak 21 ostirala  
septiembre 21 viernes

VIANA





## EGITARAUA - PROGRAMA

**10:00**

**Euskaltzaindiaren Onomastika  
batzordearen bilera**  
Udaletxeko batzar aretoa

**13:30**

**Euskaltzainen bisita**  
Erentzun ikastolara

**16:00**

**Euskaltzaindiaren Sustapen  
batzordearen bilera**  
Udaletxeko batzar aretoa

**18:30**

**Ageriko bilkura**  
Vianako Kultura Etxea

- **Ongietorria:**  
GREGORIO GALILEA, Vianako alkatea.
- **Agurra eta aurkezpena:**  
VENTURA GONZALEZ,  
Ikastolako lehendakaria.  
ARITZ LIZARRAGA,  
Ikastolako zuzendaria.
- **Recuperación del Euskera en  
Navarra liburua**, Euskaltzaindiaren  
Jagon bilduma 4:  
**Aurkezpena:** ANDRES IÑIGO,  
Euskaltzaindiaren Jagon  
sailburua eta Nafarroako  
ordezkaria.  
**Hitzaldia:** MIQUEL GROS I LLADÓS,  
liburuaren gilea.
- **Kanta.** Ikastolako ikasleak:  
Giltza *daukagu*, Oinez 2007.
- **Azken hitzak:** ANDRES URRUTIA,  
euskaltzainburua.

**10:00**

**Reunión de la Comisión de  
Onomástica de Euskaltzaindia**  
Salón de Plenos del Ayuntamiento

**13:30**

**Visita de los académicos a la  
ikastola Erentzun**

**16:00**

**Reunión de la Comisión de  
Fomento de Euskaltzaindia**  
Salón de Plenos del Ayuntamiento

**18:30**

**Acto Público**

Casa de Cultura de Viana

- **Bienvenida:**  
GREGORIO GALILEA, alcalde de Viana.
- **Saludo y presentación:**  
VENTURA GONZALEZ,  
presidente de la Ikastola.  
ARITZ LIZARRAGA,  
director de la Ikastola.
- **Obra Recuperación del Euskera  
en Navarra**, Colección Jagon 4 de  
Euskaltzaindia:  
**Presentación:** ANDRES IÑIGO,  
director de Jagon y delegado en  
Navarra de Euskaltzaindia.  
**Conferencia:**  
MIQUEL GROS I LLADÓS,  
autor del libro.
- **Canción.** Alumnos de la Ikastola:  
Giltza *daukagu*, Oinez 2007.
- **Cierre del acto:** ANDRES URRUTIA,  
presidente de Euskaltzaindia.

## **RECUPERACIÓN DEL EUSKERA EN NAVARRA LIBURUAREN AURKEZPENA**

*Andres Iñigo, Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkaria*

Lehenik eta behin, zorionak eman nahi dizkiet *Erentzun* Ikastolaren sorzaileei eta orduz geroztik etengabe lanean ari diren guraso eta irakasleei. Zorionak eta eskerrak, aldi berean, aurtengo Oinez dela eta, Euskaltzaindia gonbidatu eta egin dituzten harreragatik.

Eskerrak, azkenik, Vianako Udalari, eta bereziki ekitaldi honetan gure artean dugun Gregorio Galilea alkate jaunari, eman dizkigun erraztasun guztiengatik. Udaletxea bera gure esku izan dugu gaur egin ditugun bi batzorde bileretan, han bildu baitira goizean Onomastika batzordea eta arratsaldean Sustapen batzordea. Eta Ageriko Bilkura honetarako ere gure eskura jarri digute Kultura Etxeko areto eder hau.

Bertzerik gabe, banoa lanaren liburuaren egilea eta edizioa aurkeztera.

\* \* \*

Hace un año más o menos, recibí en la delegación de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia en Pamplona un e-mail, firmado por Miguel Gros i Lladós que decía:

durante el último año he realizado un estudio sobre el euskera en Navarra, basándome en los datos derivados de los censos de población hechos cada 5 años desde 1986. El estudio muestra un aumento en el conocimiento del euskera, que parece mayor que el percibido por la población navarra... Creo que podría ser interesante darlo a conocer... Estaría interesado en saber si desde Euskaltzaindia o desde cualquier entidad cultural o del ámbito de la sociolingüística habría alguna posibilidad de difundir dicho trabajo, porque he estado consultando publicaciones y no he encontrado ningún trabajo parecido.

Rápidamente me puse en contacto con él manifestándole el deseo de conocer el mencionado trabajo, y a los pocos días recibí el texto inicial del mismo.

Ya desde las primeras páginas me llamó la atención el planteamiento del trabajo, su estructura, la metodología, la precisión de los datos, la presentación clara de los resultados, la exposición equilibrada de la realidad sociolingüísti-

ca de Navarra, las valoraciones comedidas y rigurosas, etc. Consideré que aquel trabajo tenía un interés especial para el euskera en general y para el euskera en Navarra en particular.

Aun así, me quedaron dos interrogantes por despejar: ¿qué motivo le habrá animado a realizar este trabajo sobre Navarra? y ¿cómo habrá adquirido un investigador de fuera de Navarra un conocimiento tan detallado y preciso de la realidad territorial y sociolingüística de la Comunidad Foral?

En el encuentro que mantuvimos a finales del pasado mes de enero, durante dos días en Pamplona, hablamos largo y tendido sobre el trabajo y rápidamente quedaron despejados ambos puntos.

Miquel Gros i Lladós es abogado, oficio que ejerce como profesión en Girona, pero es, a su vez, un competente sociolingüista, interesado en la problemática de las lenguas minorizadas y defensor de su dignificación y normalización. Aunque esta disciplina no la ejerce profesionalmente, es evidente que le dedica el máximo de su tiempo libre. Por razones familiares vivió en Pamplona durante 10 años, en la época de su infancia-adolescencia, años que dejaron una marcada huella en él, tal como se evidencia en el conocimiento y amor por Navarra plasmado en este libro. En sus años de universitario y siguientes, ya fuera de Navarra, en los ámbitos que le tocó conocer y vivir fue comprobando que la idea que circulaba sobre la realidad de la Comunidad Foral estaba basada en prejuicios y estereotipos, tales como Navarra nunca ha sido vasca, el euskera no es una lengua de Navarra ni se habla en Navarra, etc., que no se correspondían con la realidad que él conoció en sus años vividos en Pamplona.

Estas razones y otras le impulsaron a aplicar su competencia en materia sociolingüística al estudio y exposición de la realidad actual de Navarra, basándose en datos reales, objetivos y totales. Decimos que reales, porque se trata de las respuestas dadas por escrito a las preguntas que se formulan en el padrón municipal a partir del año 1986, es decir, desde que se tomó la decisión de preguntar a cada ciudadano el grado de conocimiento que posea del euskera. Objetivos, porque se trata de los impresos del censo cumplimentados personal y expresamente en cada hogar navarro. Totales, porque el autor ha procedido al análisis de todos los censos municipales de Navarra, con una fiabilidad del cien por cien en los datos correspondientes a los años 1986, 1991, 1996 y 2001, evitando, de entrada, toda sospecha de fiabilidad de datos e incluso la más mínima posibilidad de margen de error que, a veces, por unos intereses u otros, especialmente en determinados temas, se atribuyen a estudios, encuestas, etc. basados en muestreos.

La Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia, a través de su Comisión de Fomento de la Lengua, valoró positivamente el trabajo y consideró que su publicación tenía un gran interés para el conocimiento de la realidad lingüística de Navarra. Como delegado de Euskaltzaindia en Navarra,



tengo que decir que, al igual que en todos los temas relacionados con el euskera en Navarra, conté desde el principio con el firme apoyo del presidente de la Academia Andres Urrutia, para editar la obra en la Colección *Jagon* (de la Sección *Tutelar* de Euskaltzaindia), que precisamente con este libro estrena nuevo diseño y trata de emprender una nueva etapa que espera sea pródiga en resultados.

Y como no quiero que mis palabras resten tiempo a la exposición de la obra, sin más dilación, cedo la palabra a su autor Miquel Gros, agradeciéndole su aportación y su presencia hoy entre nosotros.



## **NAFARROA OINEZ 2007**

*Ventura Gonzalez, presidente de Erentzun Ikastola*

Estimados señores y señoras:

Buenas tardes y bienvenidos a este acto organizado por el *Nafarroa Oinez 2007* y Euskaltzaindia.

Recuerdo cómo el pasado noviembre, el día que presentamos la edición del *Nafarroa Oinez* de Viana, Andres Iñigo, delegado de Euskaltzaindia en Navarra, nos hablaba de un catalán que estaba recogiendo datos muy interesantes sobre la situación del euskera en Viana y en la zona.

Hoy ha pasado casi un año de aquella interesante conversación y tenemos entre nosotros a aquel catalán del que hablábamos, Miquel Gros i Lladós, que ha venido a presentarnos su libro *Recuperación del Euskera en Navarra*.

Qué duda cabe de que los temas que se elaboran en este libro son de interés especial para nosotros porque, entre otras cosas, nos recuerdan que el euskera es la lengua de Navarra.

*Erentzun* Ikastola y la organización del *Nafarroa Oinez 2007* quieren agradecer de corazón a Euskaltzaindia el haber hecho todo lo posible para celebrar este acto en Viana y por todo el trabajo que lleva haciendo durante años en la recuperación del euskera.

Eskerrik asko



## IKASTOLA *ERENTZUN* IKASTOLA

*Aritz Lizarraga, Erentzun Ikastolako zuzendaria*

Agur t'erdi:

Ia 30 urte pasa dira 1978. urtean *Erentzun* Ikastolak 17 ikaslerekin lehenbiziko urratsak eman zituenetik. Zalantzasz beteriko urteak ziren haiek, baliabide gutxikoak eta eguneroko borroka aurrera egin behar izatekoak. Gero 1992an antolatutako *Oinez* arrakastasuari esker gure proiektuak behar zuen bultzada lortu zuen: ezinbestekoa zitzaigun eraikina.

Gaur egun, *Erentzun* Ikastolak 133 ikasle ditu bere geletan. Urte hauetan gure Ikastola, zonaldeko erreferente bihurtu da gure hizkuntza, euskara, zabaltzeko lanetan. Urte hauetan kooperatibaren zati diren guraso, ikasle, ikasle ohi, irakasle eta proiektuarekin bat egin duten herritarren elkarlana benetan garrantzitsua izan da.

Aurten, legalizazioa lortu berritan, ilusio eta gogo handiz hartu du *Erentzun* Ikastolak *Nafarroa Oinez*-a bigarren aldiz antolatzearen erronka, izan ere, hasten hari garen etapa berri honetarako giltza izango baita. Honen guztiaren emaitza geure kulturaren eta hizkuntzan, aurreiritzi eta beldurrik gabe, hezitzea izanen da.

Gure ikastolaren ibilbidean, militantzia, elkarlana eta esfortzuak batzea izan dira gure proiektuaren arrakastaren elementu garrantzitsuenak. Honetaz gain, hemendik aurrera, azpiegitura egokiak behar ditugu euskarazko kalitatezko hezkuntza bermatzeko eta gure eskaintza ahalik eta familia gehienei zabaltzeko.

Mestizajea dugu etorkizuneko errealitatea, baina gero eta errespetutsuagoak, sentsibleagoak eta arduratsuagoak izan behar dugu gure ingurunean ditugun kultura desberdinekin. Horrela, guk geure arteko erlazioetan elkarbizitza aberastu eta askatasunez aukeratu behar dugu heziketa eredu desberdinen artean.

*Erentzun* Ikastolak, Vianako eskualdean euskararen atea irekitzeko, gure seme-alabek euskaraz ikasteko, kalitatezko euskara hezkuntza eskaintzeko... eta euskaldun guztiok geurea dugun hizkuntza zabaltzeko giltza daukala, esan nahi du.

*Nafarroa Oinez 07*-aren ekintzen artean, gaur Euskaltzaindiak antolatu duen ekitaldia aurkeztera goaz. Erakunde honen presentzia eta jorratu diren gaiak garrantzi berezikoak dira guretzat, bertan euskara Nafarroako hizkuntza dela oroitaraziko baitigute.

*Erentzun* Ikastolaren izenean, eskerrik beroena zabaldu nahi diogu Euskaltzaindiari aukera eder hau eskaintzeagatik eta euskararen berreskurapenean egiten ari den lan bikainarengatik.

## **IKASTOLA ERENTZUN IKASTOLA**

*Aritz Lizarraga, director de Erentzun Ikastola*

Buenas tardes:

Han pasado casi 30 años desde que en 1978 *Erentzun* Ikastola empieza a dar sus primeros pasos con 17 alumnos/as. Aquellos años estaban llenos de dudas, escasez de recursos, dificultades, superadas con la lucha y trabajo del día a día. Con el histórico Oinez del 92 nuestro proyecto tuvo el empuje que necesitaba para conseguir el edificio con el que contamos actualmente.

Hoy en día *Erentzun* Ikastola cuenta con 133 alumnos. Durante estos años la Ikastola ha conseguido ser referente de la educación en euskara en la zona y principal agente de euskaldunización de la misma. En estos años ha sido de vital importancia el trabajo de los padres, alumnos y profesores que forman parte de la cooperativa, así como de personas de distinta índole que han colaborado desinteresadamente en nuestro proyecto.

Este año, recién conseguida la tan esperada legalización, *Erentzun* Ikastola asume con ilusión y ganas el reto de organizar por segunda vez el Nafarroa Oinez, el cual será «la llave» de la nueva etapa que estamos comenzando. El resultado de todo esto será educar en y con nuestro idioma y cultura sin prejuicios y sin miedos.

En el recorrido de nuestra Ikastola, la militancia, el trabajo en equipo y el esfuerzo han sido las piezas más importantes en el éxito de nuestro proyecto. De aquí en adelante, necesitamos infraestructuras adecuadas para garantizar una educación en euskara y de calidad y para poder ofrecer dicha educación a todas las familias posibles.

El mestizaje es la realidad del futuro, y tenemos que ser cada vez más respetuosos, sensibles y responsables con las diferentes culturas. Así, en las relaciones del día a día tenemos que enriquecer la convivencia y tenemos que elegir con toda la libertad entre los diferentes modelos de educación.

*Erentzun* Ikastola «tiene la llave» para abrir la puerta al euskara en la zona de Viana, la llave para que nuestros hijos puedan aprender en euskara, la llave para ofrecer una educación de calidad en euskara y... la llave para poder difundir la *lingua navarrorum* de todos los vascos.

Entre las actividades del *Nafarroa Oinez 07*, hoy vamos a presentar el acto que ha organizado Euskaltzaindia. La presencia de esta entidad y los temas que se han trabajado son de una importancia especial para nosotros, ya que nos van a recordar a todos que el euskara es el idioma de Nafarroa.

En el nombre de *Erentzun* Ikastola, damos las gracias sinceramente a Euskaltzaindia por darnos esta oportunidad y por el gran trabajo que están haciendo en la recuperación del euskara.



**PRESENTACIÓN DE:**  
***RECUPERACIÓN DEL EUSKERA EN NAVARRA***

*Miquel Gros i Lladós*

Toda obra presentada en público requiere antes que nada una justificación de la misma. Es decir, antes de entrar en el qué, en la obra en sí, es necesario un por qué de la misma. Y este hecho es aún más evidente en una publicación como la presente, una obra sobre sociolingüística que tiene por objeto un tema, como mínimo discutido, como es el euskera en Navarra, hecha además por un autor catalán. Aún teniendo tal condición, soy de Pamplona, ciudad donde me crié y viví con mi familia durante diez años, amén que Navarra es una tierra que desde entonces he visitado continuamente y por la que profeso un sentido aprecio.

Es evidente que dicha razón no justifica ni mucho menos la realización del libro que hoy presento. Podríamos decir que aquel motivo es necesario, pero no suficiente. La razón añadida que ha posibilitado la obra publicada por Euskaltzaindia es mi pasión por la sociolingüística, y en especial por las lenguas minorizadas. Dichas lenguas se erigen en una especie de desheredadas de la fortuna, en víctimas inocentes de procesos históricos que las han situado en una posición que comprometen su presente y su futuro. Si tomamos como referencia el marco europeo, en el mismo actualmente conviven unas 65-70 lenguas, de las cuales aproximadamente la mitad son minorizadas, frente a la otra mitad que no se encuentran en esta situación, aunque aquéllas no sean más imperfectas, ni menos cultivadas históricamente, ni ningún informe objetivo haya nunca demostrado su imposibilidad para ser utilizadas en cualquier campo de actuación humano. Pero para su desgracia, aquellos procesos históricos de los que hablaba las han hecho carecer de poder, elemento absolutamente necesario para dotar a la lengua de prestigio y de los resortes legales que hagan necesario su conocimiento en la sociedad.

En este momento inicial de la presentación me permito hacer una pequeña digresión. Estando como estoy ante un público sensible desde el punto de vista lingüístico, presupongo que todos los presentes conocen la diferencia entre minoritario y minorizado, dos términos que desde antiguo y con claras intenciones tergiversadoras han sido interesadamente entremezclados. El término minoritario es absolutamente subjetivo y para nada interesa a la socio-

lingüística, ya que cada uno situará en un número diferente de hablantes el límite entre minoritario y mayoritario.

En cambio el término minorizado sí que interesa y mucho a la sociolingüística. ¿Cómo podríamos definir qué es una lengua minorizada? Buscando una idea que resuma las diversas definiciones existentes, y que sea lo más directa y sencilla posible, podríamos decir que lengua minorizada es aquella que no se encuentra representada en todos los principales campos de expresión y desarrollo normal de una lengua. Un ejemplo nos ayudará de forma elocuente: Islandia, aún teniendo una población inferior a 300.000 personas, realiza en islandés todas las actividades cotidianas, desde la enseñanza, hasta las que afectan a la esfera administrativa, la de justicia, la comercial, ...

Como ya apunto en la introducción de mi libro, dichas lenguas suelen tener una segunda característica. Son lenguas no estatales, y el hecho que ningún estado las reclame como propias las ha situado en ese proceso de minorización que dificulta notablemente su uso. Por supuesto que en esta presentación no se pretende defender ningún tipo de estatus político determinado. La existencia en Europa de estados administrativamente multilingües, como Bélgica o Suiza, o determinados entes territoriales, como el Tirol Sur, las Islas Feroe o las Islas Aland, demuestran hasta qué punto lo único que las lenguas minorizadas necesitan para poder salir de su estado, es un poder que las prestigie y las dote de los resortes legales necesarios para romper con la minorización.

Es por ello que en mi doble condición de navarro de crianza y apasionado de la sociolingüística, no pude por menos que fijar mi atención en el euskera, en cuanto lengua propia (y muy minorizada) de Navarra. Llegados a este punto de la presentación, tengo que confesar que, en origen, nunca tuve en la cabeza la idea de hacer un libro. Mis intenciones, mucho más modestas, eran simplemente el conocer la realidad exacta del euskera navarro, y ello básicamente por dos motivos:

Por un lado, me encontré con la inexistencia de una obra que compendiasse una visión de conjunto del euskera, su estado actual y su evolución última; por otra parte, mis estancias en diferentes lugares de la península me habían hecho darme cuenta de la imagen absolutamente distorsionada que del euskera en Navarra se tiene fuera de ella. Así, para una mayoría de la población, el euskera es algo muy minoritario en Navarra, que puede ser hablado por una población equivalente al 10% de la total, y a la cual se la sitúa exclusivamente en su sector más noroccidental y cercano a Guipúzcoa, presentando a aquélla como una población en cierto modo influenciada o asimilada por la presencia inmediata de la CAV.

Ante dicha distorsión, y la imposibilidad de conocer hasta qué punto el euskera progresaba o no en Navarra, me lancé a recoger datos de conocimien-

to de la lengua, basándome en los censos de población que, desde 1986, inquirían a la población navarra por su grado de competencia lingüística. Dicha elección no fue casual, ya que quise contar con los datos del 100% de la población navarra, para evitar las desviaciones y/o errores que pueden contener sondeos y encuestas. En un primer momento me limité a recontar los datos de la zona vascofona, entendiéndolo plausiblemente que allí sería donde se concentraría el grueso de la mejora, pero al alejarme de la misma me encontré con la sorpresa que los datos eran igualmente positivos, hasta el punto que de municipio en municipio, acabé por cubrir el conjunto del mapa navarro.

Es por ello que, aprovechando la ocasión que me brinda esta conferencia, no quiero pasar por alto un aspecto que me parece oportuno aclarar rotundamente. Fueron los datos que fui almacenando los que finalmente posibilitaron la realización del libro, y le dieron su título, no al revés. En ningún caso me propuse demostrar como fuese una recuperación del euskera en Navarra, sino que fue la realidad mostrada por los datos censales la que me llevó a dar título a la obra resultante. Desgraciadamente y a diferencia de otras ramas de la ciencia, la sociolingüística ha sido históricamente un campo abonado para la manipulación, aquello que vulgarmente denomino la parasociolingüística. Son abundantes los libros que sobre una pretendida base científica no muestran más que una interpretación sesgada, y a menudo interesada, de la realidad de la lengua dentro de un grupo social. No es este el caso del presente libro.

Ello justifica totalmente que en los agradecimientos previos al libro, ofrezca el mismo y cite como protagonista de dicha recuperación al pueblo navarro, autentico autor del libro que finalmente ha visto la luz.

Adentrándonos en lo que sería el objeto de esta presentación, el libro en sí, el mismo recoge exhaustivamente los datos censales de carácter lingüístico, desde el censo de 1986 hasta el último de 2001, aportándonos por tanto de cinco en cinco años la evolución del euskera. Además en el último censo de 2001, y para intentar averiguar en lo posible la expectativa de futuro del mismo, se aportan dos censos parciales, uno englobando a la primera edad (menores de 25 años) y un segundo que incluye a la infancia (menores de 15 años). Por último, reseñar que la cadena de datos que nutría este libro se quebró en el año 2006, en el cual y al parecer por motivos económicos, el Instituto Nacional de Estadística decidió no llevar a cabo ningún censo de población.

Sobre las respuestas de la población navarra a las preguntas sobre conocimiento lingüístico, el presente trabajo ha presentado dos categorías sociolingüísticas, por lo demás comúnmente aceptadas en la sociolingüística, los hablantes y los usuarios. Así por un lado, tendremos a aquellos que han afirmado hablar bien el euskera, o euskaldunes, y por otro los que han declarado tener cualquier habilidad, sea hablar bien o con dificultad, sea sólo entender bien o incluso con dificultad, entendiéndolo que el que responde así ha

MIQUEL GROS i LLADÓS

# Recuperación del Euskera en Navarra



*Jagon*  *Saila*

EUSKALZAINDIA

alcanzado un nivel de desarrollo en el aprendizaje del euskera que le permite esa comprensión, aún con dificultades. Esta segunda categoría la denominaremos *vascófonos*.

Teniendo en cuenta que en la obra se contemplan dichas dos categorías, referidas a los seis censos mencionados –los cuatro de 1986 a 2001, más los dos subcensos en este último–, y alcanzando a un total de 271 municipios, ello nos da un libro con casi dos mil datos. Como quiera que el libro pretende en todo momento parecerse a un manual de sociolingüística, y no de contabilidad, he pensado en la manera de hacer más atractivos a la vista la cantidad ingente de porcentajes resultantes. Así, adoptando una parrilla de colores y asignando a cada color (desde el violeta hasta el blanco) un porcentaje decreciente, ello permite que una rápida ojeada a un determinado municipio revele tanto su grado de vascofonía o euskaldunidad, como su evolución. Dichos porcentajes decrecientes nos establecen una triple clasificación: mayoritaria (superior al 50%), fuerte (entre el 30 y el 50%) y apreciable (entre el 10 y el 30%), situándose todos los municipios por debajo del 10% en categoría débil.

Además, en mi trabajo propongo un mapa zonal y comarcal de Navarra, dividiendo a la misma en 44 comarcas, de tal manera que estableciendo los porcentajes de conocimiento en cada categoría y año (y eventualmente, grupo de edad), y representándolas con su correspondiente color en el citado mapa, ello permite ver una foto fija del estado del euskera en cada momento, que resume perfectamente el objetivo del trabajo. La mayor parte de mi trabajo lo componen los estudios individualizados de cada una de dichas comarcas, el cual se extiende en tres direcciones: pasado, presente y futuro.

Así las cosas, se presenta un primer apunte sobre el pasado vascófono de la comarca, si lo hubo o no, en qué medida, cuándo y cómo desapareció el euskera, si aún perdura, en qué estado se encuentra, etc. A éste le sigue un segundo apartado sobre la situación de presente, basada en los cuatro censos modernos ya citados. En un tercer punto se intenta hacer una previsión de futuro del euskera comarcal, en base a los datos que nos dan los dos subcensos de 2001, referidos a la primera edad y la infancia de aquélla. Como evidentemente sería muy largo el hacer una recensión, ni que sea mínima, de cada comarca en esta conferencia, pasaremos directamente a mostrar algunos de los mapas que cierran el libro, y que nos permitirán una percepción mucho más rápida y visual de la recuperación que justifica el título de la obra.

En primer lugar, pasamos a mostrar el mapa de comarcas navarro, reflejando los porcentajes de euskaldunes en el año 1986. Como hace ver dicho mapa, primeramente advertimos seis comarcas mayoritarias, las cuatro de la vertiente atlántica, más el extremo noroccidental de la vertiente mediterránea (*Mendebaldeko ibarrak*) y *Aranatzaldea*, situada en medio del corredor de Sakana, un caso aparte por su fidelidad que la convierte en una auténtica «isla»

lingüística. Se trata de las únicas comarcas navarras que habían conseguido retener el euskera como lengua vehicular de sus sociedades, y aún así, ya en aquella época se dejaba sentir un inicio de erdaldunización en sus núcleos más habitados, por ello Bortzirriak –donde se encuentra Lesaka y, sobre todo, Bera– en aquel año era simplemente mayoritaria, habiendo caído por debajo del 75%. En las restantes cinco comarcas que superaban el 10% de euskaldunes se distinguen dos grados diferentes de sustitución del euskera, medio en Erdialdeko ibarrak y Aezkoaldea, y muy avanzado en Arakil ibarra, Burunda y Ekialdeko ibarrak. Nos encontramos, sin duda, ante el peor mapa de la historia del euskera en Navarra, con un porcentaje total declarado de euskaldunes del 10,2%, que, además con toda seguridad, se situaba por debajo del diez por ciento, ya que en determinadas comarcas (básicamente en Tierra Estella y plausiblemente en la Cuenca) hubo, según toda verosimilitud, una alteración voluntaria de las respuestas de una parte de sus habitantes.

Transcurridos los quince años que cubren los cuatro censos estudiados, observamos el mapa de euskaldunes de 2001. Aparentemente no hay grandes mejoras, y si a ello le añadimos que el porcentaje total apenas sube del 10 a 12%, todo ello podría parecer muy poco, pero la realidad es que en ese corto espacio de tiempo se ha conseguido detener una caída de cinco siglos, que parecía conducir el euskera navarro a su desaparición a una generación vista. No contenta con ello, la población navarra ha conseguido la inversión total de la dinámica, empezando ya a sumar ganancias, lo cual quiere decir que ya se ha conseguido absorber la tercera edad euskaldun con una primera edad más vascoarlante, con mayor competencia y más alfabetizada.

De acuerdo con lo que se decía anteriormente, se presenta seguidamente el mapa de euskaldunes de 2001, referente a aquella primera edad, menor de 25 años y nacida toda ella ya en democracia. El mapa nos muestra ese rejuvenecimiento del euskera navarro, así la zona mayoritariamente vascofona se amplía en esa franja de edad, y se extiende a zonas insospechadas en franjas de edad anteriores, así la mayor parte de la Zona Media de Navarra supera el 10% de euskaldunes en esta franja de edad.

Pero si importante es el salto cuantitativo del euskera entre la juventud nacida en democracia, aún más lo es entre la infancia. Así nos lo hace ver el mapa de euskaldunes de 2001 referido a la población menor de 15 años. Se produce una mejora en la Zona Pirineo, y en el noroeste de la Cuenca y Tierra Estella, mientras que en el resto de Navarra cuesta más mejorar, ya que la presencia social y el apoyo institucional del euskera es imperceptible. La importancia de este apoyo se nota en la zona legalmente vascofona, donde apenas Irurtzun es el único núcleo de población que, 15 años después de ser declarado zona vascofona, no llega al 50% de euskaldunes en la franja infantil.

En todo caso, la evolución mostrada por los últimos cuatro mapas es geográficamente progresiva, de más a menos, y siempre en dirección sureste,

la opuesta a aquélla que fue erdaldunizando Navarra durante los últimos siglos. Como excepciones a dicha progresión escalonada, se advierten en los mapas de primera edad e infancia dos subzonas que suponen extremos opuestos en dicha recuperación. Por un lado, los valles de Etxauri y Mañeru, con una aceleración de la reuskaldunización entre la población infantil que supera el 40% de euskaldunes. Por otro, Izaga y la Cuenca sur, con porcentajes por debajo del 10%, muy débiles, y comparables a los obtenidos en la Ribera Alta. En su conjunto, podemos definir el aumento de la euskaldunidad en Navarra, en el periodo estudiado, como moderado.

Por el contrario, entre los vascófonos, aquellos que declaran tener cualquier habilidad en euskera, el aumento es considerable, al ser más fácil acceder a dicha categoría que dominar oralmente el euskera, sobre todo en amplias zonas de Navarra donde el euskera tiene un muy difícil acceso a la vida pública. En la presente categoría sólo se va a mostrar el último mapa, correspondiente al año 2001 y a la población menor de 15 años. A la vista, el mismo puede parecer excesivamente optimista, pero no hace más que mostrar cuál puede ser la realidad del euskera a una generación vista, ya que la población en él representada, hacia 2031 se situará entre los 35 y los 45 años, serán la segunda edad y padres de la nueva generación de navarros, que plausiblemente poco o mucho continuarán mejorando el nivel de vascofonía de sus progenitores, un nivel que en el año 2001 se situaba en casi el 35% de población vascófona. Es por ello que dicho mapa se encuentra en constante avance.

Con lo dicho hasta ahora, la situación de recuperación lingüística en Navarra puede parecer difícil de mejorar. No obstante, aún hay cierto margen para un mayor optimismo. El siglo XX nos ha traído un fenómeno nuevo, el de las lenguas en recuperación, aquéllas que invirtiendo el proceso de pérdida que ha llevado a otras a desaparecer o estar en trámite de desaparición, son capaces de generar un movimiento amplio de escolarización en su favor. En todas ellas, una vez consolidado el proceso, nos encontramos con una mejora gradual de las prestaciones lingüísticas, a medida que uno va descendiendo por la pirámide de edad social, hasta llegar a la «generación estrella», evidentemente la de la edad escolar –5/15 años– que presenta los mejores resultados, dejando de lado a los menores de 5 años, que en esas edades únicamente suelen dominar la lengua materna.

Pues bien, aprovechando este acto les presento un mapa que supone una novedad, ya que no se encuentra en mi trabajo. Supone el mapa de vascófonos de 2001 de la población escolar (5/15 años). Aunque dicho mapa suponga un nuevo avance en la recuperación del euskera, el mismo me parece que les va a dejar una cierta sensación agridulce. En él se aprecia cómo la mitad de las 44 comarcas navarras superan el 50% de población escolar vascófona, situando el índice de la misma en casi el 37,5% del total. Pero aún así, viendo este mapa uno no puede evitar desviar la mirada hacia la izquierda del

mismo, donde he situado una comparativa con las comarcas de la CAV. Y es que en el mismo censo y misma franja de edad, la práctica totalidad de sus comarcas superan el 75% de vascófonos (y la gran mayoría, el 85%). Sólo dos comarcas fronterizas de Álava no llegan a dicho margen, y una por tan sólo dos personas. Incluso el Condado de Treviño, delante del impulso reeuskaldunizador en la CAV, supera el 50% de vascófonos entre su población escolar. Este mapa nos pone una vez más ante el hecho capital del trato legal y el apoyo institucional como verdaderos aceleradores de la recuperación lingüística.

Una vez constatada la recuperación del euskera en Navarra, y a la vista de todas las consideraciones anteriores, me detuve en el tratamiento legal actualmente existente, y concretado en la Ley Foral del Vasconce de 1986, que establecía la consabida zonificación. La misma no deja de ser una *rara avis* en España, convirtiéndose en la única comunidad autónoma que tiene una lengua propia con presencia apreciable sin tener reconocida la cooficialidad en todo el territorio. La voluntad de mi obra no es posicionarse ni a favor ni en contra de la misma. Acertado o no, es el criterio que se siguió en su día, y ese es el partido que le toca jugar al euskera navarro hoy en día. Pero lo que sí que es reclamable son unas reglas para dicho partido.

Estudiando la situación de 1986, parece ser que el criterio seguido por el legislativo navarro a la hora de dividir Navarra en zonas lingüísticas fue la presencia que el euskera tenía en una u otra zona, entendiendo dicha presencia como un criterio subjetivo. Lo que se ha procurado por parte del autor ha sido fijar de algún modo, objetivamente, aquel criterio. Para ello, he procedido a crear una nueva categoría lingüística, la de la Presencia del Euskera, obteniendo la media entre vascofonía y euskaldunidad. Es obvio que no fue éste el criterio utilizado en 1986, al ser una creación de la presente obra, pero ni que sea apriorísticamente, por aproximación, fue el seguido por el legislativo navarro, como muestra la tabla que se hace ver en este momento. En la misma se presentan las 44 comarcas en orden descendente según su porcentaje de presencia del euskera. Pues bien, se observa cómo todas aquellas comarcas con una presencia como mínimo apreciable del euskera, fueron incluidas en zona vascófona (la Comarca de Estella daba una presencia superior al 10%, pero es debido a la alteración voluntaria en las respuestas al censo, ya comentada anteriormente, no a una presencia real); las que tenían una presencia entre el 10 y el 5% fueron adscritas a la zona mixta (la sola excepción es el Valle de Roncal, quizás debido a que su euskera se perdió con gran celeridad en los anteriores 100 años), y las que tenían una presencia por debajo del 5% fueron calificadas como no vascófonas.

Pasadas dos décadas, cabía preguntarse cuál era la presencia actual del euskera en las comarcas navarras, ya que evidentemente si esta presencia había aumentado, correlativamente también tendrían que aumentar las zonas vascófona y mixta. En todo caso, y para aquellos que pudieran considerar que



la Ley de 1986 fue excesivamente generosa con el euskera, decidí endurecer los criterios de entrada en cada zona, aumentando al doble los límites mínimos de acceso tanto a la zona vascofona (20%) como a la mixta (10%). Pues bien, de acuerdo con las previsibles presencias del euskera a día de hoy, estas zonas se encontrarían claramente desfasadas, siendo así que la mitad aproximada de las comarcas navarras tendría que mejorar su calificación lingüístico-administrativa, como muestra el mapa.

Quizás sea por deformación profesional, como abogado que soy, pero antepongo la justicia y la igualdad ante todo. Si un navarro de las Améscoas, de Val de Etxauri o de Salazar, que tiene una presencia de su euskera rayana, si no superior, al 20%, solicita que se le califique en zona vascofona, cómo se le puede decir que no, cuando a la *Burunda*, a *Arakil* o a *Esteribar*, con el mismo porcentaje, sí se les incluyó en 1986. Y cuando además dicho porcentaje no se nutre de una población de la 3ª edad, como podía ser el caso de estas segundas, sino de una primera edad (lo que supone el futuro de aquellas comarcas, y unos porcentajes de presencia cada vez más crecientes) alfabetizada y dominadora de un estándar lingüístico que le permite la intercomprensión con toda la comunidad vasco parlante.

Ante el evidente aumento de la vascofonía en Navarra, se ha querido aportar un criterio científico, objetivo, que pueda resituar el debate del tratamiento legal del euskera en Navarra; no se quiere aportar una mera opinión más, tan subjetiva como las demás, y que sólo seguirá situando el debate sobre el euskera navarro en parámetros fuera del ámbito puramente lingüístico.

En definitiva, lo que he querido mostrar en mi obra es hasta qué punto el trato legal de una lengua puede marcar su destino. Las lenguas minorizadas (y el euskera en nuestro caso concreto) son una buena prueba de ello. Es por ello que el gran reto actual del euskera en Navarra es aumentar su protección legal, para asegurar que la recuperación del mismo iniciada ya por la sociedad, sea ratificada y alentada por los órganos de poder. En todo caso es innegable que a día de hoy, y la ciudad que hoy nos acoge, Viana, es buena prueba de ello, el euskera en Navarra cuenta con unos instrumentos apenas pensables hace veinte años. Como muy bien dice el lema del *Nafarroa Oinez '07, Giltza daukagu*, Tenemos la llave. Ha costado tiempo y esfuerzo a muchos navarros y navarras, pero se ha conseguido esa llave que es un euskera en vías de recuperación. En todo caso, y si tenemos la llave, *Non dago atea?*, o mejor *Nolako atea nahi duzue?* Hago votos por que la gente de Viana, igual que la gente de toda Navarra, sepa utilizar esa llave para abrir nuevas puertas, para marcarse nuevos retos y superarlos, para seguir avanzando hacia la plena normalización del euskera *beti aurrera. Zorionak eta eskerrik asko!*



***IKER SAILA***



## **ONOMASTIKA**



## IRIZPENAK

Atal honetan udalek eta administrazio batzordeek, baita beste administrazio desberdinek Onomastika Batzordeari egindako irizpen eskaerak biltzen dira. Gogoan izan behar dugu EAEn herri edo kontzejuaren izena aldatzeko irizpena eskatu behar zaiola Euskaltzaindiari. Irizpenak eskatutako hizkuntza edo hizkuntzetan ematen dira.

Mikel Gorrotxategi,  
Onomastika Batzordeko idazkaria





## EL ENTORNO DE LA PUEBLA DE ARGANZÓN: NOTAS HISTÓRICAS Y LINGÜÍSTICAS

*Roberto González de Viñaspre*

### 1. PRIMERAS NOTICIAS HISTÓRICAS DE ARGANZÓN

El desfiladero de Arganzón ha sido zona de paso desde épocas remotas. Cuando los romanos construyeron la calzada Asturica-Burdigala su trazado salvaba la cadena montañosa que conforman la Sierra de Tuyo y los Montes de Vitoria, pero, al parecer, no lo hacía directamente por el cañón, sino que, debido a motivos de seguridad, ascendía por el portillo de Villanueva de Oca. Ese itinerario enlazaba importantes núcleos de población como Iruña-Veleia y la ciudad autrigona de Deóbriga, en Miranda de Ebro, en una zona próxima a la confluencia de los ríos Zadorra y Ebro (1). Durante siglos ha sido una vía de comunicación de primer orden, el «camino real de Madrid a Bayona» al que se refería Pascual Madoz a mediados del XIX y que hoy tiene continuidad en el trazado de la N-I.

Esa antigua calzada ha sido transitada desde antiguo por gentes de distinta procedencia, que no siempre venían guiadas por motivos pacíficos. Así, a principios del siglo V, el pueblo germánico de los suevos, que venía huyendo del empuje de los hunos, atravesaría la garganta de Arganzón en su camino hacia Galicia. De mayor trascendencia serían las frecuentes aceifas musulmanas de los siglos VIII, IX y X contra la Llanada Alavesa (2). Sin duda, esas reiteradas acometidas fueron una notable dificultad para el asentamiento de la población. Saturnino Ruiz de Lóizaga recuerda que, a consecuencia de la inseguridad que sufría el occidente de Álava en aquella época, «los obispos valpostanos, prelados de vanguardia, trashumantes, no tendrán una sede fija y definitiva en Valpuesta» (3).

---

(1) Hasta ahora se venía situando en Cabriana, frente al pueblo alavés de Comunión, pero ha sido recientemente identificada por el arqueólogo Rafael Varón con el yacimiento de Arce-Mirapérez.

(2) RUBIERA, M<sup>a</sup> Jesús (1984): «Álava y los alaveses en los textos árabes medievales» in *La formación de Álava. 650 Aniversario del Pacto de Arriaga (1332-1982). Ponencias*, p. 389: «desde comienzos del s. IX hasta la subida al trono de Alfonso III se producen campañas contra Álava en los siguientes años: 801, 803, 816, 823, 825, 838, 848, 854, 863, 865 y 867».

(3) RUIZ DE LÓIZAGA, Saturnino (1989): *Repoblación y religiosidad popular en el Occidente de Álava (siglos IX-XII)*, pp. 21-22.

Con motivo de la aceifa del año 801, el ejército del califato de Córdoba sufrió en el desfiladero de Arganzón una cruenta emboscada en la que perdió muchos hombres, entre ellos sus mejores oficiales. Esta campaña militar sólo es conocida por el *Muqtabis* del cronista andalusí Ibn Hayyan, citado, pero no transcrito, por el arabista Evariste Lévi-Provençal (4). El manuscrito original se daba por perdido tras su muerte, pero ha aparecido al catalogar los papeles del arabista Emilio García Gómez (1905-1995). Hoy se guarda en la Real Academia de la Historia y ha sido publicado por esa institución (5).

En aquel período convulso la influencia de un orden supralocal como la monarquía astur-leonesa también se manifestó en la política de repoblación (no necesariamente con una total despoblación previa) y de ocupación del territorio que se desarrolló en el occidente de Álava. Se documenta, por ejemplo, a principios del siglo IX, la presencia de pobladores de origen leonés en Estavillo, al sur de La Puebla de Arganzón, en el actual municipio de Armiñón. Se trata de una carta por la que varias personas donan a San Vicente de Ocoizta y al abad Pedro las iglesias de Santa Gracia y San Martín, que habían recibido en herencia de sus abuelos venidos de León (6). Precisamente en ese documento se menciona «Sancta María de la Foce de Arganzone», la primitiva iglesia de Arganzón, población preexistente a la villa de La Puebla de Arganzón.

## 2. ACERCA DEL ORIGEN DE LA VOZ ARGANZÓN

Es opinión bastante común entre los especialistas que ese nombre es un miembro más de la extensa familia de topónimos europeos contruidos con la raíz prerromana indoeuropea *\*arg-*, «brillante, blanquecino». Estaría presente, entre otros, en idiomas como el sánscrito (*árjuna*-«luminoso») y el hitita (*harki-* «blanco, claro»), además de en la palabra vasca *argi* «luz, claro» (7). De esa raíz deriva también el nombre de la «plata» en varias lenguas (cf. latín *argentum*).

En cuanto a la extensión de la raíz *\*arg-* en toponimia, Francisco Villar relaciona una serie de hidrónimos como *Arga* (Navarra), arroyo de *Arganza*

(4) CAÑADA, Alberto (1984): «Álava frente al Islam» in *La formación de Álava. 650 Aniversario del Pacto de Arriaga (1332-1982). Comunicaciones*, t. I, p. 139.

(5) VALLVÉ, J. y RUIZ, F. (2003): *La primera década del reinado de Al-Hakam I, según el Muqtabis II, I*, de Ben Hayyan de Córdoba. Real Academia de la Historia.

(6) UBIETO, Antonio (1976): *Cartulario de San Millán de la Cogolla (759-1076)*, 874, doc. 10: «offerimus et donamus ad honorem Sancti Vincenti de Ocoizta et tibi abba domno Petro ecclesias Sancta Gratia et Sancti Martini, in villa Stabellu ... cum terminos et pertinentia ... quia istas erencias de nostros avus habemus de Legione venerunt ibi»

(7) MITXELENA, Koldo (1985): *Fonética Histórica Vasca*, 3ª edición, p. 220, nota 32: «anoto, por si alguien quisiera remontarse tan lejos, que en los términos vascos prelatinos que han sido considerados de procedencia indoeuropea, pueden compararse las iniciales de vasc. *argi* «luz, claro», hit. *harki-* «blanco, claro»

(León) y río *Arganza* (Asturias). Esos dos últimos, a su juicio, «con una correspondencia exacta en Francia (Aquitania): Argence (de una forma más antigua *Argantia*)» (8). Siguiendo a Hans Krahe, considera que hace referencia «a la limpidez o transparencia de las aguas». En cambio, Martín Sevilla considera que algunos topónimos con raíz \**arg-* no tienen «motivación hidronímica clara», y postula una explicación más amplia, no solamente vinculada a corrientes de agua. En efecto, entiende que igualmente pueden aludir a lugares «en los que se hallara plata en proporciones importantes. Con este motivo era fácil que el nombre del metal precioso se fijara al lugar de su hallazgo y explotación» (9). Por su parte, Álvaro Galmés de Fuentes, considera que «los topónimos formados sobre la raíz *-arg* «brillar» hacen referencia a terrenos calizos, con abundancia de yeso», sin descartar que asimismo puedan aludir a la existencia de minas de plata» (10). De las opciones mencionadas, la hidronímica es la que nos parece más ajustada a la realidad geográfica y geológica de La Puebla de Arganzón.

Hay otros topónimos de la geografía alavesa que, a juicio de diversos autores, pueden contener también la raíz *arg-*:

- Uno de ellos es el pueblo de *Argandoña* (*Argendonia* en la Rreja de San Millán), sito en el municipio de Vitoria-Gasteiz, a medio camino entre esta capital y la población de Alegría-Dulantzi. Existe un pueblo homónimo en Cuenca que Ramón Menéndez Pidal explicó a partir de «la forma céltica Argentonía, que como nombre de mujer aparece en una inscripción de Austria» y que, en su opinión, presenta «igual derivación que el (nombre) del legendario rey de los tartesios, Argantonius» (11).
- Gerardo López de Guereñu recogió el nombre *Arganzubi*, arroyo de Alegría-Dulantzi, al pie del castro de Henayo (12). Ese topónimo permanece en la toponimia actual (13). M<sup>a</sup> Lourdes Albertos (14) lo incluyó entre los nombres prerromanos de raigambre indoeuropea. Con todo, no cabe duda que el último elemento es la voz vasca *zubi* «puente».
- M<sup>a</sup> Lourdes Albertos menciona en la misma obra un barrio llamado *Arganzón* en Bóveda, en el municipio de Valdegovía. El dato está tomado de la obra *Toponimia alavesa* de Gerardo López de Guereñu. Sin

(8) VILLAR, Francisco (1996): *Los indoeuropeos y los orígenes de Europa*, p. 98.

(9) SEVILLA, Martín (1980): *Toponimia de origen indoeuropeo prelatino en Asturias*, pp. 31-32.

(10) GALMÉS DE FUENTES, Álvaro (2000): *Los topónimos sus blasones y trofeos* (la toponimia mítica), p. 23.

(11) MENÉNDEZ PIDAL, Ramón (1968): *Toponimia prerrománica hispana*, pp. 215-216.

(12) LÓPEZ DE GUEREÑU, Gerardo (1989): *Toponimia alavesa*. Onomasticon Vasconiae, 5.

(13) GONZÁLEZ SALAZAR, José Antonio (1987): *Cuadernos de toponimia. Toponimia menor de Salvatierra*, p. 83.

(14) ALBERTOS, M. Lourdes (1970): «Alava prerromana y romana. Estudio lingüístico» in *Estudios de Arqueología alavesa*, 4, p. 181.

embargo, tal topónimo no aparece en la sistemática recogida oral de José Antonio González Salazar (15), por lo que es cuestionable la existencia cierta de un *Arganzón* en Valdegovía.

### 3. FUNDACIÓN DE LA VILLA DE LA PUEBLA DE ARGANZÓN

Su fuero data del año 1191, pero no se conserva el texto original. Únicamente nos ha llegado una copia hecha en 1565, mediante una confirmación de Felipe II. Dicha copia presenta unos anacronismos que hacen dudar de su autenticidad y apuntan a una posible manipulación cuyo fin sería ocultar la autoría navarra del fuero y presentarlo como un privilegio concedido por la monarquía castellana. En efecto, ya en el escatocolo se muestra a Alfonso VIII, rey privativo de Castilla, reinando en León, cuando es sabido que dicho monarca jamás ejerció su autoridad en ese reino. La argumentación del historiador Gonzalo Martínez no deja lugar a dudas sobre la naturaleza de la falsificación:

todavía hay otras disonancias en el diploma, pues se dice otorgado el año 1191 a los pobladores de Arganzón por Alfonso VIII, rey castellano, cuando según todos los datos históricos la frontera castellano-navarra por esas fechas corría a partir de Oca por las aguas del Zadorra, y Arganzón en la ribera oriental pertenecía al rey de Navarra (...) En el mismo documento se pone en boca del rey castellano «illus idem forum habeatis quod mei populatores de Trevinno habent» y Treviño quedó en 1163 en el realengo del rey de Navarra y no pasó a poder de Castilla hasta 1201. También resultan geográficamente ininteligibles los límites que se asignan a Arganzón: «et sint termini vestri usque ad Sanctum Romanum et usque ad Corres et usque ad Pipahon» ya que dentro de ellos queda englobado el propio Treviño, que el mismo diploma supone existente y diverso de la nueva puebla (...) Esto nos sugiere una hipótesis, para nosotros altamente verosímil, que en este fuero de Arganzón lo único retocado, por conveniencias políticas hoy ya indecelables, ha sido el nombre del monarca en el protocolo y escatocolo, y consecuentemente en este último también los lugares donde reinaba. (...) Si cambiamos cinco palabras (...) todo el documento hasta la última sílaba coincide con los diplomas brotados de la cancillería navarra por esos años de Sancho el Sabio (16).

En la conocida carta de 1257 del obispo de Calahorra se menciona, dentro del Arcedianato de Álava, en el Arciprestazgo de Treviño, *La Población* (se trata de La Puebla de Arganzón) con sus aldeas de *Villanueva*, *Coscollo*, *Verantevilla* y *Argançon*. Esa aldea de *Verantevilla* no debe confundirse con la población homónima perteneciente al Arcedianato de Nájera, en el Arciprestazgo de Miranda, puesto que son poblaciones diferentes. Es esclarecedor un documento del archivo de la parroquia de La Puebla de Arganzón, datado en

(15) GONZÁLEZ SALAZAR, José Antonio (1989): *Cuadernos de toponimia. Toponimia menor de Añana*, p. 49.

(16) MARTÍNEZ DÍEZ, Gonzalo (1974): *Álava medieval*, pp. 157 y ss.

1264, que trata de los conflictos surgidos entre La Puebla de Arganzón y sus aldeas, con motivo de los diezmos y el servicio de las iglesias de las aldeas. Según consta en el texto, «viniero[n] los cl[er]igos de la Puebla de la una parte. e los Parrochianos de Villanueva de Coscoio. de Verantevilla. de Arganzón de la otra» (17). A continuación, especifica las advocaciones de las iglesias de dichas aldeas: «la iglesia de Sant Peydro en Villanueva (...) Sant Yago de Coscoio (...) la iglesia Sant Roman (...) Santa María en Arganzón». A la luz de esos datos, Ildefonso M. Rodríguez concluye que «no es acertado creer que el actual Berantevilla, tan alejado, pudiera ser aldea de La Puebla de Arganzón, existiendo de por medio otras villas y lugares». De la misma opinión es César González Mínguez (18).

Igualmente, la historia y la toponimia de La Puebla de Arganzón revelan que las iglesias de Arganzón, Berantevilla y Coscollo pasaron a ser ermitas, tras despoblarse esas aldeas en el transcurso de los siglos. Por ejemplo, la aldea de Arganzón existió hasta mediados del siglo XVIII. Hay partidas de difuntos que así lo demuestran y es conocido, como asegura Atanasio Vergara, antiguo secretario municipal de La Puebla de Arganzón, que «la mayor parte de las piedras del poblado fueron aprovechadas para levantar y reformar casas en Villanueva de la Oca» (19). Aún pervive el topónimo *Arganzón* a poco más de un kilómetro de La Puebla de Arganzón, en la ladera de ascenso a los castillos. También consta documentalmente la ermita de Santiago, antigua parroquia del despoblado de Coscojo, situada al sur de la villa y hoy desaparecida. En 1701 fue objeto de una profunda obra de restauración por parte de la Junta General de Caballeros Hijosdalgo, que celebraba en ella sus reuniones (20). En cuanto a la aldea de Verantevilla, Micaela Portilla considera que su templo parroquial sería la ermita de San Román y recoge el dato de que «reclamaba el obispo en su visita de 1510 los cien maravedís donados a la ermita por un feligrés de la villa» (21).

#### 4. ALGUNOS APUNTES SOBRE TOPONIMIA VASCA EN EL ENTORNO DE LA PUEBLA DE ARGANZÓN: EL CASO DEL NOMBRE ANÚCITA

La toponimia histórica del entorno de La Puebla de Arganzón muestra un número muy reducido de topónimos de filiación vasca, y los pocos que se

(17) RODRIGUEZ, Ildefonso M. (1948): «Una aclaración al comentario de Hergueta a un documento geográfico del siglo XIII del obispo de Calahorra don Aznar» in *Berceo*.

(18) GONZÁLEZ MÍNGUEZ, César (2000): *Berantevilla en la Edad Media. De aldea real a villa señorial*.

(19) VERGARA, Atanasio (1977): *De La Puebla a Villanueva pasando por Arganzón*, p. 10.

(20) VERGARA, Atanasio, *Ibidem* pp. 10 y 21.

(21) PORTILLA, Micaela (1991): *Por Álava, a Compostela*.

apartan de esa generalidad se hallan circunscritos al área nororiental de su jurisdicción, cerca de las aldeas treviñesas de Ocilla y Ladrera, donde la densidad de topónimos eusquéricos es notoriamente mayor, e incluso hoy alcanza en torno al 36 % de los términos.

Por ejemplo, en una visita de mojones de 1536, transcrita y publicada por Atanasio Vergara (22), tan sólo parecen de formación eusquérica los siguientes topónimos:

«E de alli a otro mojon grande que dizen de **Vasahondo**» (< baso «bosque» + ondo «lado, cerca»).

«De alli a otro que esta enzima la pieza de **Vizcaia**, cabe la senda que ban a Ladrera.»

«Y de alli fuimos ha ver otro moxon que esta en **Guentezaballa**.»

«E dende al mojon de **Guzialde**, cave la Cruz enzima Mataquete» (posiblemente, compuesto de gu(r)utze «cruz» y alde «lado», con disimilación *ea > ia*).

El primer nombre y el cuarto todavía permanecen en la toponimia actual con las formas *Basondo* y *Gucialde* y son términos lindantes con los pueblos treviñeses de Ocilla y Ladrera (23). Además, en dichos pueblos se mantiene el topónimo *Villabidi*, que corresponde al término del que partía el antiguo camino a Villanueva de Oca. Contiene la voz *Villa*, con la que los vascoparlantes de Ocilla y Ladrera se referían a Villanueva de Oca. Son escasos testimonios que, no obstante, atestiguan que este espacio geográfico ha sido secularmente zona de contacto entre la lengua vasca y la castellana.

En cambio, la realidad lingüística parece haber sido diferente al sur de la jurisdicción de La Puebla de Arganzón, al igual que en la ribera occidental del río Zadorra y en la vertiente meridional de la Sierra de Tuyo. En efecto, los nombres de esos pueblos son de formación romance, de la misma manera que lo es, salvo muy pocas excepciones, su toponimia menor. Sin embargo, a esta aparente homogeneidad romance escapa el nombre de Anúcita, pequeña localidad cercana a Pobes.

El testimonio más antiguo del nombre *Anúcita* parece hallarse en la Reja de San Millán (1025), pero las distintas versiones de este documento presentan problemas de transcripción acrecentados por la falta de la fuente original. En efecto, como indica J. Ángel García de Cortázar, el documento original de la Reja, que se hallaba en el Becerro Gótico, desapareció junto con el tomo completo, a principios del siglo XX. La versión que se ha conservado es el denominado Becerro Galicano «en el que, a fines del siglo XII, se copió la documentación original antigua, incluida gran parte de la que conservaba el

(22) VERGARA, Atanasio, *Ibidem* p. 97 y ss.

(23) GONZÁLEZ SALAZAR, José Antonio (1985): *Cuadernos de toponimia. Toponimia menor de Treviño*, p. 13.

Becerro Gótico» (24). Asimismo, existe la llamada Colección Minguella, reunida en el siglo XVIII, que recoge la totalidad de los documentos comprendidos entre los años 759 y 1545. A través de esa Colección se han transmitido algunos documentos del Becerro Gótico que no fueron copiados en el Becerro Galicano. Entre las diferentes transcripciones realizadas, Landazuri (1799) dio la lectura *Anuzkita*, Llorente (1802) *Anuzquita* y Serrano (1930) *Amuzquita*. Más recientemente, Antonio Ubieto (1976) (25) ha transcrito *Anitzquita* y Julio Caro Baroja (26) (1983) *Anuz/qta*. He comprobado personalmente una fotografía digitalizada de dicho documento y, en efecto, se lee *Anuz/qta* de forma nítida. Sin duda, una hipotética evolución *Anuzq(ui)ta* > *Anúcita* parece fonéticamente improbable. Se explica de manera más sencilla a partir del testimonio *Anuncieta*, que Julio Caro Baroja lee en la carta de 1257 del obispo de Calahorra. Con todo, hay que recordar que esa última fuente también es indirecta, puesto que el original se perdió y sólo nos ha llegado una copia de 1596, transcrita por Narciso Hergueta y publicada póstumamente en 1907.

En definitiva, se constata la disparidad formal que presenta el topónimo *Anúcita* en los documentos más antiguos conservados, testimonios en todo caso que son fuentes documentales secundarias, y no textos originales.

Afortunadamente, estos últimos años se están publicando nuevas colecciones documentales que aportan interesantes testimonios para el estudio de la toponimia medieval. Una de ellas es la colección diplomática de Santa María de Bujedo, monasterio próximo a Miranda de Ebro (27), transcrita y publicada por Saturnino Ruiz de Lóizaga. Este corpus documental contiene varias menciones del nombre antiguo de Anúcita, tanto en referencia a la población como en forma de apellido. En total, se documenta diecisiete veces en el período 1168-1210, con algunas variantes: *Anunceta* (13), *Annunceta* (2), *Anunceta* (1) y *Annuncita* (1).

#### *An(n)unceta:*

«Ego Mari Munoz de Anunceta vendi y robre sex marcnas de tierra (...) Et de hoc sunt fiadores de redrar y vengar a fuero de tierra: Lop Fortunnones de Annunceta» (1168-1204, doc. 85)

«... fil de Urti Urtiz de Anunceta» (1194, doc. 65)

(24) GARCÍA DE CORTÁZAR, J. Ángel (1969): *El dominio del monasterio de San Millán de la Cogolla* (siglos X al XIII), pp. 41-43.

(25) UBIETO ARTETA, Antonio (1976): *Cartulario de San Millán de la Cogolla* (759-1076), doc. 180.

(26) CARO BAROJA, Julio (1983): «Álava en la llamada «Reja de San Millán» in *Historia General del País Vasco*, p. 111 y ss.

(27) RUIZ DE LOIZAGA, Saturnino (2000): *El libro becerro de Santa María de Bujedo de Candepajares* (1168-1240).

«Ego P(edro) Martinez, el cavallero, vendi y robre una tierra cerca las viñas de Annuçeta» (1168-1204, doc. 87)

«Ego Ochoa de Anunceta vendi y robre toda la mia hereditat que ovi de mio padre en Anunceta» (1168-1204, doc. 88)

«...damus et concedimus omnem hereditatem et omnia quae habemus in Anunceta et in Salinas ... (...); de Anunceta sunt isti (...) et concilium de Anunceta (...) Et in Anunceta dieron fiadores de la hereditat (...) que ovieron dado el padre y la madre de Ennego Ortiz en Anunceta (...) Julian de Anunceta ... et son testigos: don Sancho, el clerigu de Anunceta» (1197, doc. 89)

«Enneco Fortunones de Anunceta; Pedro Martinez, el cano de Anunceta» (1200, doc. 98)

***Annuceta:***

«Lop Fortunnonnes de Annuceta» (1168-1204)

***Annuncita:***

«De hoc sunt testes: (...) M. Martinez de Annuncita» (1210, doc. 137)

Los dos últimos testimonios apuntan hacia la evolución del actual *Anú-cita*. En los demás casos se mantiene la forma originaria con alternancia *-n- / -nn-* en la nasal intervocálica, aunque es claro el predominio de la primera de ellas en esos testimonios a caballo entre el XII y el XIII. Ya señalaba Koldo Mitxelena (28) que en los documentos de los siglos XI y XII la *-n-* conservada se escribe con la grafía *-nn-*, y mencionaba, a modo de ejemplo, el antropónimo «*Enneco*, cast. *Íñigo*, vasc. *Eneko*, patr. *Enecoiz*, vizc. ant. *Enekoix*». Añadía su impresión de que «la grafía *-n-* por *-nn-* empieza y se generaliza en documentos navarros referentes a la zona de habla vasca antes que en los procedentes de Aragón, Castilla y La Rioja». En el área occidental de habla vasca, por tanto, la grafía geminada *-nn-* se mantuvo por más tiempo mientras que al este los ejemplos son cada vez más escasos. Así, el único ejemplo que se encuentra en la Colección Diplomática de Iratxe es un documento del año 1062 que, en palabras de Koldo Mitxelena (29), «aparece, no por casualidad claro está, en el nombre de dos alaveses: *Garçia Garçeiz de Gaunna*, repetido, y *Santio Nunoiz de Eguinno*», cuyos elementos toponímicos se corresponden con las poblaciones de Gauna y Eginno, respectivamente.

Los testimonios de *Anú-cita* citados remiten a un compuesto *\*anuntz + eta*, cuyo primer elemento puede ser una forma precedente de la voz vasca *ahuntz* «cabra». Así lo sugirió Koldo Mitxelena, a la vista del topónimo *Anun-*

(28) MITXELENA, Koldo (1985): *Fonética Histórica Vasca*, 3ª edición, p. 306.

(29) MITXELENA, Koldo (1969): «Notas lingüísticas a Colección Diplomática de Irache», *FLV*, I.



*cibay* de Laudio (30). Esa razonable hipótesis ha sido asumida por Joseba Lakarra (31) para la reconstrucción interna de la voz *ahuntz* «cabra» mediante un análisis *\*(h)an-(h)untz* «con el segundo elemento referido al (tipo de) los cuernos y el primero al (tipo de) animal».

En conclusión, el nombre antiguo de *Anúcita* es *Anuntzeta*, escrito con la grafía vasca actual, y su filiación eusquérica hace de él, como hemos dicho, una excepción dentro de la generalidad de nombres de población de origen romance existentes en esa área geográfica. Su etimología parece clara, y es explicable como un compuesto de *\*anuntz* > *ahuntz* «cabra» más el sufijo *-eta*, con el significado de «lugar de cabras». En la toponimia vasca hay algún otro ejemplo donde el sufijo *-eta* está añadido a un nombre de animal. Tal es el caso del pueblo de Akerreta, en el valle navarro de Esteribar, que Koldo Mitxelena (32) ya explicó a partir de la voz *aker* «macho cabrío». Con todo, es cierto, como apunta Mikel Belasko (33), que se trata de una forma de composición infrecuente.

## 5. NOTICIAS DE LA SUPUESTA PRESENCIA DE LA LENGUA VASCA EN LA ZONA

De algunos datos publicados podría concluirse una mayor presencia histórica de la lengua vasca en La Puebla de Arganzón, pero considero que está por probar la verosimilitud de esos testimonios. Una de esas informaciones la dio a conocer Jesús María Sasía y hace referencia a un fraile carmelita «vizcaíno» del siglo XVI:

... al Padre Lino de Aquésolo –quien me lo refirió hace ya años– le intrigó sobremanera este gentilicio de «vizcaíno» aplicado a uno de los primeros frailes de la Reforma Descalza teresiana. Consultando los archivos de esta Orden religiosa para dar con el pueblo del «vizcaíno» vio con sorpresa en las actas de

---

(30) MITXELENA, Koldo (1949): «Notas de gramática histórica vasca» in *Homenaje a D. Julio de Urquijo II*, pp. 483-487: «La pérdida de la *n* intervocálica en *vasc.* nos es conocida, principalmente, por la forma que presentan en esta lengua los préstamos románicos. Tratándose de voces cuyo origen nos sea desconocido, nos vemos obligados en muchos casos a presumir simplemente esa pérdida, sin que dispongamos de medios para verificar las hipótesis. Pueden ser útiles, sin embargo, en algún caso, los topónimos y onomásticos (...) El apellido Anuncibay podría dar pie también a suponer que el *vasc.* actual *a(h)untz* deriva de *\*anuntz*».

(31) LAKARRA, Joseba A.: «Protovasco, munda y otros: Reconstrucción interna y tipología holística diacrónica» in *Lingüística Vasco-Románica*, Oihenart 21, p. 237. Anteriormente este autor ya expuso ese análisis en otro trabajo en el que refutaba algunas propuestas de Theo Vennemann: «Adar, *ahuntz*, *handi*: sobre la identificación de sustrato y morfología de la protolengua» in Veleia (2002), *Anejos Series Minor*, 17.

(32) MITXELENA, Koldo (1955): *Apellidos vascos*, 2ª edición, p. 42.

(33) Belasko, Mikel (1999): *Diccionario etimológico de los nombres de los pueblos, villas y ciudades de Navarra*, p. 54: «Con todo extraña sobre manera que un nombre de animal venga sufijado con *-eta*».

profesiones –donde siempre se hace constar el pueblo natal– que el tal «vizcaíno» era natural de La Puebla de Arganzón (...) (34).

Con todo, se trata de un testimonio indirecto, conocido únicamente por transmisión oral, que carece hoy por hoy de soporte documental verificable.

Otra fuente es el mapa de François de Beauharnais (1807), embajador del Imperio francés en Madrid, en el que se da noticia de la extensión geográfica de la lengua vasca en la Vasconia peninsular (35). En el caso de Álava existen diferencias muy llamativas, en comparación con los mapas de Louisa-Lucien Bonaparte (1863) y de Paul Broca (1874-1875), ya que el área supuestamente vascófona queda comprendida en el interior de un amplio triángulo cuyos vértices son Orduña, Salvatierra-Agurain y Lapuebla de Labarca. Tan desmesurada extensión es atribuible a la confusión de La Puebla de Arganzón con la población ribereña del Ebro. Aún así, en el mapa de Paul Broca (1874-1875) La Puebla de Arganzón queda algo lejos del límite suroccidental de la lengua vasca, ya que llega junto a Mártioda. A nuestro juicio, la gran escasez de toponimia eusquérica en La Puebla de Arganzón a mediados del siglo XVI, indica que desde antes la lengua vasca tenía reducida presencia entre la población de la villa. Por supuesto, también habría vecindario vascófono, pero sería minoritario. Un ejemplo del XIX es el del guerrillero contra las tropas bonapartistas Francisco Longa, que tenía una herrería en La Puebla de Arganzón, donde vivía. Su verdadero nombre era Francisco Anchá y nació en 1783 en el caserío Longa, en el término municipal de Mallabia (Bizkaia), por lo que necesariamente había de ser vascoparlante.

En un documento redactado después de mayo de 1803 (36), cuyo título es «Pueblos de Álava por vicarías, repartidos sus vecinos en cinco clases», se dice que «hablan el idioma bascongado muchos pueblos de la Vicaría de Victoria». Téngase en cuenta que dicha Vicaría comprendía pueblos como Nanclores de Oca y Subijana de Álava, próximos a la vertiente norte de las Conchas de La Puebla de Arganzón. ¿Quiere eso decir que dichas poblaciones todavía eran vascófonas? Carecemos de datos suficientes para establecer conclusiones sólidas, aunque sí sabemos algo más de la situación lingüística a mediados del XVIII un poco más al norte, en las cercanas localidades de Mendoza y Trespuentes, gracias a un texto hasta ahora inédito.

(34) SASÍA, Jesús María (1981): «El viejo euskera alavés» in *Homenaje a Odón de Apraiz*, pp. 315-316.

(35) OYHARÇABAL, Beñat (1992): «Euskararen mugez egin lehen mapak (1806-1807), in *Luis Villasanteri omenaldia*, Iker-6, pp. 349-366: «... irudi luke, bildu informazioak gaizki ulertu zituela Madrilgo enbaxadoreak. Alabaina mapa ikusirik, ez da dudarik harentzat La Puebla, La Puebla de Labarka dela, erran nahi baitu Arabako hego aldean azken herria, Ebro ibaiaren bazterrean. Neke da sinestea nehork holako informaziorik eman ziola enbaxadoreari. Ordean, uste izateko da, La Puebla aipatzean, La Puebla de Arganzón gogoan zuela informazio emaleak».

(36) IBISATE, Ángel (2001): «El euskera en Álava a fines del siglo XVIII. Un artículo de Don José Miguel de Barandiarán de 1926. Anotaciones actuales sobre el documento publicado» in *Euskera*, XLVI.

## 6. EL MOLINERO VASCONGADO DE LA RUEDA DE MOMARIO, EN TRESPUENTES

El documento ha sido hallado y transcrito por el archivero Pedro Urribarena, gran conocedor de la documentación histórica alavesa. Se trata de un pleito criminal (1742) seguido por el hallazgo de un cadaver con signos de violencia en la jurisdicción de Mendoza (37). El escribano toma declaración al molinero «natural de la antteyglesia de Yurre en el noble señorío de Vizcaia y residentte en la rueda de Momario», entre Mendoza y Trespuentes (38). El molinero, «de edad de quarenta y dos años poco más o menos», es vascoparlante monolingüe y debe ser asistido por Juan Fernández de Gamboa, vecino de Mendoza, en labores de traducción.

Posteriormente el escribano toma declaración a María de Jáuregui, viuda, y cuñada del molinero, quien «mediante a ser bascongada», también tiene necesidad de intérprete, con el fin de que éste «explique a la testtigo en su lengua las pregunttas y repregunttas que se devieren y manifiestte a su merced en la castellana las respuesttas que diere». En cambio, la hija de María de Jáuregui, de nombre Manuela, declara en castellano, sin necesidad de intérprete, así como el criado Bautista de Asteguieta, natural de Nanclares de Gamboa, por lo que cabe pensar que eran bilingües.

No obstante, sabemos que en 1742 la lengua vasca estaba en recesión en la zona y que ya no era hablada por una parte de los vecinos de Mendoza. Tal es el caso de Jerónimo Díaz de Sarralde, alcalde y juez ordinario de Mendoza, quien dice «no entender este lenguaje».

Con todo, queda atestiguada la presencia de vascoparlantes bilingües como el intérprete, e incluso monolingües, en Mendoza y Trespuentes. Es cierto que eran naturales de otros lugares, pero estaban allí establecidos y, por tanto, necesariamente habían de tener trato con sus vecinos y, en el caso del molinero, también con sus clientes.

Sin duda, este documento es una aportación al conocimiento de la geografía histórica de la lengua vasca, pero también es de interés por la cuidadosa descripción que realiza de la vestimenta del finado, además de detalles de carácter forense. Por ello, se reproduce a continuación el contenido literal del documento, según la transcripción hecha por Pedro Urribarena:

Mendoza, año de 1742. Nuº 14. Criminal de ofizio

(37) Archivo Histórico Provincial de Álava. Signatura 3106. El escribano es Joseph Francisco de Larena.

(38) En la actualidad se mantiene el término conocido como Mamario en la ribera del Zadorra, aguas arriba de Trespuentes. GONZÁLEZ SALAZAR, José Antonio (1989): *Cuadernos de toponimia. Toponimia menor de Añana*, p. 107.

(folio 1) «En la villa de Mendoza a veinte y quatro dias del mes de Henero de mill settezientos y quarentta y dos años, el señor Jerónimo Díaz de Sarralde alcalde y juez hordinario de esta dha villa por testimonio de mi el escribano, dijo que por cierto eclesiastico de ella se le a dado nottizia siendo como a cosa de las ocho de su mañana como en mittad del ttermino llamado Sologorria en esta jurisdiccion que distta de la de el lugar de Traspuentes, que es de la Exma Señora Duquesa de el Ymfantado, se hallava un hombre muertto ... paso a dho sittio y paraje y hallo en el a un hombre no conozido, bien porttado boca abajo, caido en tierra y muertto al parezer con un pisttolettazo, que le paso parte de su cuerpo, como ttambien otra herida a modo de puñalada, parte (f 1v) de sus besttidos quemados como suelttos rasgados y faldriqueras sacadas afuera ajadas a fuerza. Y bistto por su merced mando poner este autto de ofizio y caveza de prozeso, al tthenor de el qual se le rezivia su declarazion jurada a Martin de Gamiz, zirujano y vezino de esta dha villa, ... y ejecutado lo referido el dho cadaver mando lo condujesen a la parroquia de San Martin de esta dha villa, donde este con la guarda y custtodia nezesia .... Ante mi Joseph Francisco de Larena».

(f 2) «Declarazion del zirujano.

En dha villa el rreferido dia mes y año ... a Martin de Gamiz maestro zirujano .. y reconocido en el a un hombre que se hallado echado boca abajo muertto, el que segun segun (sic) demuestra (f 2v) la fisonomia de su cadaver tendria de quarenta y seis a zinquentta años, besttido con su camisa de lienzo bueno, una almilla de cordellate encarnado usado sus mangas de baietta del mismo color con bottones de estaño blanco pequeños, chupa y casaquilla de mangas que llaman perdidas suelttas de paño de Chinchon o Navas con su forro de sempiterna atusca (sic), calzones de tripe azul, bottines de paño obscuro, medias de esttambre color de pasa, calzetas y zapattos con sus ebillas diferentes ttodo bien tttratado, sin montera ni sombrero, su pelo crespo casttaño obscuro, su corona echa a modo de zapattilla, attado dho pelo con una cintta negra, sus zejas algo blanquiscas y basttante copiosas, ojos azules, basttante ampollar de cara color enzendido, barba negra no mui copiosa, fornido de miembros y de basttante esttatura, que según su bisttuaje haze juicio ser de la provinzia de Guipúzcoa, y ttiene (f 3) en dho su cuerpo segun anottomia y a echo de cada uno de sus miembros dos heridas de cabidad bittal, la una enzima de la ttettilla yzquierda la que se manifiesta ser penetrante hassta dha cavidad y con daño de sus biseras internas; y la otra en la parte posterior i inferior de dha cavidad en mittad de la espinal medula, asi mismo penetrando a la misma cavidad con daños en las mismas biseras internas y ambas a dos de su naturaleza morttales, echa la de parte anterior con instrumento corttante quadrado, y la otra de la parte posterior con boca de fuego disparada con bala menuda (*al margen «violentas»*), según demuestra la señal que en ropa y carne hizo por haverle ttirado a boca de cañón, lo que dijo ser quanto puede y deve dezir para el juramento que fecho lleva en que se afirmo, rrattifico y firmo junttto con su merced dho señor alcalde ...»

(f 9) «Auto.

... y que se haga reconocimientto publicamente del besttuario con que se halla dho cadaver por ber si en el se encuentra alguna otra cosa y solo se hallaron asi en el suelo como en uno de sus bolsillos algunos pimentones pequeños como los que suelen benir de Bizcaya basttantes marchittos ...»

(f 11) «En la villa de Mendoza a veinte y seis dias del mes de Henero de mill settezientos y qua-(f 11v)-rentta y dos años ... continuando en la haberiguazion en que esta enttendiendo .... hizo comparezer ante si a Rafael de Usualberto natural de la antteyglesia de Yurre en el noble señorio de Vizcaia y residentte en la rueda de Momario jurisdizion de las Hermandades en Alava de la Excma Señora Duquesa de el Ymfantado ... y haviendole echo como se requiere y prometido dezir verdad de lo que supiere y le fuere pregunttado y mediante a ser bascongado y no enttender este lenguaje, su merced ni yo el ymfraescritto escribano nombro por yntterprete a Juan Fernandez de Gamboa vezino de esta dha villa que hallandose presente hazeptto este encargo y juro savidor (f 12) de lo a que se reduce, de ejerzerlo bien y fielmente sin añadir ni quitar cosa alguna de lo que se le dijere y pregunttate al dho Raphael de Usualberto y de lo que este respondiendiere en su lengua esplicando en la castellana ... Dijo que el dia miercoles que se conttaron veinte y quattro del corriente mes, siendo como cosa de las siete de su mañana salio de la dha rueda de Momario con un acha en la mano y un saco bazio al ombro con animo y detterminazion de pasar a la de esta dha villa a efecto de picar sus piedras por ser su obligazion, en virttud de combenio y pacto echo con sus bezinos, y conttinuando su camino y biaje recttamente por el Real sin separazion (f 12v) de disttanzia de ocho esttados con cortta diferencia, diviso que se hallava en dho camino Real, aunque no save si se llama o no el paraje Sologorria, un hombre echado boca abajo que lo ttubo por muertto ...»

(f 14) «...que aunque algunas bezes a acosttumbrado recojer de noche en dha su rueda algunas personas suministtrandoles luz y otras cosas, suele ser (?) como guardas carretteros, arrieros conozidos y otros bezeros suyos y no sospechosas ... todo lo que por manifesttazion del dho yntterprete declaro juntto con el ser la verdad ... y no firmo el deponentte por no saver, declaro ser de edad de quarenta y dos años poco mas o menos ...»

(f 21) En dha villa el mismo dia mes y año ... izo parezer ante si a Maria de Jauregui biuda de Francisco de Usulaberto difuntto vezino que fue de el valle de Aramaiona, que al presentte havita y reside alternattivamente en el lugar de Traspuenttes de la jurisdicion de la Exma Señora Duquesa del Ymfantado y en la rueda o molinos de Momario de la misma jurisdicion en compañia de Rafael de Usualberto su cuñado y de Manuela de Usualberto su hija de que su merced rezivio juramento en forma devida de derecho y haviendole echo como se requiere y prometido dezir verdad de lo que supiere y pregunttado le fuere y mediantte a ser bascongada y a no enttender en devida forma esta lengua ni dho señor alcalde (*borrón*) ni yo el ymfraescritto escribano y nesezitar de yntterprete que explique a la testtigo en su lengua las pregunttas y repregunttas que se devieren (f 21v) y manifestte a su merced en la castellana las respuesttas que diere, por lo que su merced nombro por ttal a Juan Fernndez de Gamboa vezino que fue de esta dha villa que hallandose presente hazeptto el encargo de tal y savidor del en que se constituuie juro en forma devida de derecho de ejerzerlo bien y fielmente no añadiendo ni quittando cosa ninguna que mude la susttanzia en dhas pregunttas y respuesttas...»

*(Informe presentado a la Comisión de Onomástica de Euskaltzaindia en la reunión celebrada en Argantzun el 15 de junio de 2007)*



## KOSTEN IZENAK

### Exonomastika Batzordearen gomendioa

Espainia, Frantzia eta beste estatu batzuetan, hainbat izen erabiltzen dira kosta-tarteak izendatzeko, hala nola *Costa del Sol* edo *Côte de Lumière*. Euskaraz izen horiek nola esan eta idatzi behar diren galdetu zaio Euskaltzaindiari. Galdera horri erantzuteko prestatu du Exonomastika Batzordeak gomendio hau.

\* \* \*

1. Kosten izenak, gehien-gehienetan, irizpide turistikoaren arabera hautatutako edo asmatutako izenak dira; nolabait esateko, ez dira benetako toponimoak: ez dira ohiko mapa eta atlasetan agertzen, ez dira benetako unitate geografikoak eta ez dira tokian tokiko ondare toponimikoaren osagai. Gehienak XX. mendearen bigarren erdian asmatutako izenak dira. Erabilera mugatuko toponimoak dira, turismo arlora murriztua, eta, asmatutako sasitoponimoak direnez, edozein izendapen da zilegi. Adibidez, Galiziako kostak izendatzeko, *Costa do Marisco* izendapena, edo *Côte d'Amour* izendapena Loire-Atlantique departamenduko kosta izendatzeko. Badira, nolana ere, turismoa ez den beste jatorriren bat duten kosta-izenak ere, hala nola Galiziako *Costa da Morte*. Egia da, nolana ere, izendapen horietako batzuk aski ezagunak direla.

2. Izendapen batzuk errepikatu egiten dira, hizkuntza desberdinetan baina. Adibidez:

*Côte d'Argent* Frantziako kosta baten izena da, *Costa da Prata* Portugalgo kosta baten izena da, eta *Costa d'Argento* Italiako kosta bat da. Orobat, *Côte de Lumière* Frantziako kosta bat da, eta *Costa de la Luz* Espainiako kosta bat da. Halaber, *Côte basque* erabiltzen da frantsesez Lapurdiko kosta adierazteko, eta *Costa vasca* gaztelaniaz Bizkai-Gipuzkoetako kosta adierazteko.

3. Kosta-izen gehienak erraz itzul daitezke hizkuntza batetik bestera, baina itzultzea ez da ohikoa. Hala ere, nabari da halako joera bat hizkuntza-lurralde baten inguruko kosta-izenak itzultzeko. Adibidez, nederlandera, *De Opaalkust* itzultzen dute Frantziako *Côte d'Ópale*, ondoan baitute.

Hizkuntza-distantzia txikia denean, handiagoa da itzultzeko joera. Adibidez, gaztelaniaz, normala da Britainiako *Costa de granito rosa* (*Côte de granit rose*) edo Akitaniako *Costa de plata* (*Côte d'argent*) esatea eta irakurtzea, frantsesetik gaztelaniara itzultzea alegia. Hala ere, ingelesez edo alemanez, adibidez, nekezago itzultzen dira Frantziako eta Espainiako kosten izenak.

#### 4. Euskaraz nola jokatu?

Euskaraz, *Bolikosta* estatu-izena (*Côte d'Ivoire* / *Costa de Marfil*) itzuli-ta dago, baina, estatua den aldetik, normala da euskaratu izana. Kosten izenak, berriz, ez dira maila bereko toponimoak. Hau da, beraz, irizpide nagusia: kosten izenak ez euskaratzea eta jatorrizko hizkuntzan ematea. Adibidez:

*Costa del Sol-era joango gara.*

*Costa Bravan bizi da*

*Côte d'Argent-en euria ari du.*

Izendapenaren atal generikoa ere ez da euskaratzekoa. Honelakoak, beraz, ez dira gomendatzekoak:

– *Sol kostara joango gara.*

– *Brava kostan bizi da.*

– *Argent kostan euria ari du.*

Eta osorik euskaratuta ere ez:

– *Eguzki(-)kostara joango gara.*

– *Kosta Arroksuan bizi da.*

– *Zilar(-)kostan euria ari du.*

Kostaren lurraldean hizkuntza ofizial bat baino gehiago dagoenean, toki-ko berezko hizkuntza erabiltzea komeni da (Katalunian, Valentzian, Galizian). Hala, *Costa Dorada* izendapena gaztelaniazkoa da, baina katalanez *Costa Daurada* forma erabiltzen da, edo gaztelaniazko *Costa del Azahar* delakoa *Costa de la Tarongina* / *Costa dels Tarongers* da katalanez.

Frantziakoetan, berriz, hizkuntza ofizialak ez badira ere, tokian tokikoak erabil daitezke bigarren aukera moduan: *Côte de Jade* (frantsesez) / *Aod ar Vein Jed* (bretoieraz); *Côte de Granit Rose* (frantsesez) / *Aod ar Vein Ruz* (bretoieraz).

Nolanahi ere, ez itzultzeko joera izendapenean benetako toponimorik ez dutenetara mugatu behar da. Kostaren izendapenean benetako toponimoren bat dagoenean edo toponimo batetik eratorritako adjektiboren bat dagoenean, gainerako toponimoetan bezala jokatu behar da. Adibidez:



erdaraz	euskaraz
<i>Costa cantábrica</i>	<i>Kantabriako kosta</i>
<i>Costa del Maresme</i>	<i>Maresmeko kosta</i>
<i>Costa del Garraf</i>	<i>Garrafeko kosta</i>
<i>Costa de Valencia</i>	<i>Valentziako kosta</i>
<i>Costa de Almería</i>	<i>Almeriako kosta</i>

*Costa Vasca* / *Côte basque* izendapenak ere ez dira euskaratzekoak, jakina. Euskal Herri osoko kosta aipatzeko, aski da *Euskal Herriko kosta* edo *euskal kosta*, besterik gabe. Gaztelaniaz *Costa Vasca* esaten zaiona *Bizkai-Gipuzkoetako kosta* da; eta frantsesez *Côte basque* esaten zaiona *Lapurdiko kosta* da.

Salbuespenak: antzintasunagatik eta garrantziagatik, salbuespena egin daiteke Frantziako *Côte d'Azur* delakoarekin. Hizkuntza askotan exonimoa baita. Adibidez:

gaztelaniaz, *Costa Azul*

italieraz, *Costa Azzurra*

katalanez, *Costa Blava*

alemanez, *Azurblaue Küste*

errumanieraz, *Coasta de Azur*

polonieraz, *Lazurowe Wybrzeże*

Horregatik, onargarria da euskaratzea eta *Kosta Urdina* izendatzea (baita *Frantziako Riviera* izendatzea ere); behin baino gehiagotan, hala erabili da gaur egungo euskal testuetan. Nolanahi ere, kontuan izan behar da Frantziako eskualdearen izena *Provence-Alpes-Côte-d'Azur* dela, hau da, eskualdearen izena ezin da aldatu eta *\*Provence-Alpes-Kosta Urdina* egin.

*Costa da Morte*, orobat, turismo-sustapenarekin zerikusirik ez duen izena da, eta onargarria da euskaratzea *-Heriotzaren kosta-*, beste hizkuntzetan ere egin ohi den moduan (gaztelania: *costa de la Muerte*; katalana; *costa de la Mort*; frantsesa: *côte de la Mort*; alemana: *Todesküste*; italiara: *Costa della Morte*,...).

## 5. Zerrenda

Zerrenda honetan Espainia eta Frantzia estatuetako kosta-izen nagusiak ageri dira. Euskaratzekoak ez direnean, euskarazko esanahia ageri da parentesi artean.

<b>Erdaraz (non)</b>	<b>Euskaraz (esanahia)</b>
Costa Cálida (Murztzia)	<b>Costa Cálida</b> (Kosta Epela)
Costa Blanca (Alacant)	<b>Costa Blanca</b> (Kosta Zuria)
Costa Brava (Girona)	<b>Costa Brava</b> (Kosta Arrokatua)
Costa Daurada / Costa Dorada (Tarragona)	<b>Costa Daurada / Costa Dorada</b> (Urre Kosta)
Costa del Garraf (Tarragona)	Garrafeko kosta
Costa Tropical / costa granadina (Granada)	<b>Costa Tropical</b> (Kosta Tropikala / Granadako kosta)
Costa del Sol (Málaga)	<b>Costa del Sol</b> (Eguzkiaren kosta)
Costa de la Luz (Huelva eta Cádiz)	<b>Costa de la Luz</b> (Argiaren kosta)
Costa de la Tarongina / Costa del Azahar (Castelló)	<b>Costa de la Tarongina / Costa del Azahar</b> (Laranja-loreen kosta)
Costa da Morte (Coruña)	Heriotzaren kosta / Costa da Morte
Côte d'Amour (Loire-Atlantique)	<b>Côte d'Amour</b> (Maitasunaren kosta)
Côte d'Argent (Landak)	<b>Côte d'Argent</b> (Zilar Kosta) / <b>Akitaniako kosta</b>
Côte d'Azur (Itsas Alpeak)	<b>Kosta Urdina / Côte d'Azur</b>
Côte d'Émeraude (Bretainia)	<b>Côte d'Émeraude</b> (Esmeralda Kosta)
Côte Fleurie (Normandia)	<b>Côte Fleurie</b> (Lore Kosta)
Côte de granit rose (Manche)	<b>Côte de granit rose</b> (Granito Arrosa Kosta)
Côte de Jade / <i>Aod ar Vein Jed</i> (Loire-Atlantique)	<b>Côte de Jade / Aod ar Vein Jed</b> (Jade Kosta)

<b>Erdaraz (non)</b>	<b>Euskaraz (esanahia)</b>
Côte de Lumière (Vendée)	<b>Côte de Lumière</b> (Argiaren kosta)
Côte de Nacre (Normandia)	<b>Côte de Nacre</b> (Nakar Kosta)
Côte d'Opale (Pas-de-Calais)	<b>Côte d'Opale</b> (Opalo Kosta)
Côte Vermeille (Ekialdeko Pirinioak)	<b>Côte Vermeille</b> (Kosta Gorria)

Exonomastika Batzordea  
(Bilbon, 2007ko irailaren 25ean)



«ERICE DE IZA / ERITZEBEITI»

Iruñean, 2007ko azaroaren 22an  
Pamplona, a 22 de noviembre de 2007

D. Julen Calvo Jimenez jauna  
Hizkuntzaren garapen, programazio eta ikerketa zerbitzuko zuzendaria/  
Director del servicio de programación, investigación y desarrollo lingüístico  
Nafarroako Gobernua / Gobierno de Navarra

Jaun estimatua:

Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak, azaroaren 16an, Altsasun egindako ohiko bilkuraren eguneko gaien 2.1. puntuan, gaztelaniaz *Erice de Iza* deitzen den herri izenaren euskal ordainaz egin zenigun eskaria tratatu zuen.

Eskaria aztertu ondoren, Batzordeak honi atxikirik doakizun txostena onartzea erabaki zuen.

Dagokion, lekuan hala ager dadin izenpetzen dut, Iruñean 2007ko azaroaren 22an.

\* \* \*

Estimado Sr.:

La Comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia en la reunión ordinaria celebrada el pasado día 16 de noviembre en la localidad de Alsasua, incluyó en el punto 2.1. de su orden del día la solicitud remitida por usted acerca de la denominación eusquérica de la localidad conocida en castellano como *Erice de Iza*.

Tras estudiar la solicitud, la Comisión tomó el acuerdo que se adjunta al presente escrito.

Lo que, a los efectos correspondientes, firmo en Pamplona a 22 de noviembre de 2007.



Andres Iñigo

Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeburua eta Nafarroako Ordezkaría.  
Presidente de la Comisión de Onomástica de Euskaltzaindia y delegado en Navarra.

Gaztelaniaz *Erice de Iza* deitzen den Nafarroako herriaren euskal ordaina dela eta, Euskaltzaindiak 1988an, bi izen proposatu zituen, hurrenkera honetan: 1. *Eritze (-Itza)*, 2. *Eritzebeiti*. Ondoren, Euskararen Nafar Kontseiluak proposamen hori berretsi zuen.

Lehenbizikoak, gaztelaniazkoak bezala, herriaren izenaz gain kokatua dagoen ibarrarena ere adierazten du. Horren lekuko dira, bertzeak bertze, *Etxarri Aranatz*, *Hiriberri Aezkoa*, *Lizarraga Ergoiena*, *Uharte Arakil...*

Bigarrenak Nafarroan zenbait kasutan izen bereko bi toponimo bereizteko dagoen joerari jarraitzen dio (erraterako *Berriogoi* eta *Berriobeiti*, *Mutiloagoi* eta *Mutiloabeiti*, *Urraulgoi* eta *Urraulbeiti...*). *Eritzebeiti* forma ahozko ikerketan jaso zen eta, horregatik, hurbileko *Atetz* ibarrean dagoen *Eritzegoi* herritik bereizteko, bigarren aukera baliagarri gisa proposatu zen.

Bere garaian bi aukeren artean hurrenkera bat proposatu bazen ere, Euskaltzaindiak bata zein bertzea baliagarri eta zuzentzat jotzen du gaztelaniazko *Erice de Iza* izenaren euskal ordain ofiziala izateko.

Egun indarrean dagoen Euskaltzaindiaren arautegiaren arabera, euskal ordain horiek *Eritze Itza* eta *Eritzebeiti* idatzi behar dira.

Acerca de la denominación eusquérica de la localidad navarra conocida en castellano como *Erice de Iza*, la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia en 1988 propuso dos denominaciones en este orden de preferencia: 1. *Eritze (-Itza)*, 2. *Eritzebeiti*. Dicha propuesta fue ratificada posteriormente por el Consejo Navarro del Euskera.

La primera, al igual que el nombre utilizado en castellano, añade a la denominación del pueblo la del valle al que pertenece. Es el caso de pueblos como *Etxarri Aranatz*, *Hiriberri Aezkoa*, *Lizarraga Ergoiena*, *Uharte Arakil...*

La segunda se debe a la tendencia observada en Navarra en muchos casos, cuando se quiere distinguir entre dos topónimos homónimos (véase *Berriogoi* y *Berriobeiti*, *Mutiloagoi* y *Mutiloabeiti*, *Urraulgoi* y *Urraulbeiti...*). La forma *Eritzebeiti*, recogida como testimonio oral, fue propuesta como segunda opción válida para distinguirla de la cercana *Eritzegoi* del valle de *Atetz*.

Aunque en su día se propuso un orden de preferencia, Euskaltzaindia considera que cualquiera de las dos opciones es válida y correcta para la denominación oficial en euskera de *Erice de Iza*.

De conformidad con la normativa vigente de esta Academia, la grafía correcta de ambas denominaciones es *Eritze Itza* y *Eritzebeiti*.

«**IRUMBERRI / LUMBIER**»

Iruñean, 2007ko azaroaren 22an  
Pamplona, a 22 de noviembre de 2007

D. Julen Calvo Jimenez jauna

Hizkuntzaren garapen, programazio eta ikerketa zerbitzuko zuzendaria/  
Director del servicio de programación, investigación y desarrollo lingüístico  
Nafarroako Gobernua / Gobierno de Navarra

Jaun estimatua:

Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeak, azaroaren 16an, Altsasun egindako ohiko bilkuraren eguneko gaien 2.1. puntuan, gaztelaniaz *Lumbier* deitzen den herri izenaren euskal ordainaz egin zenigun eskaria tratatu zuen.

Batzordeak, idazki honi atxikirik doakizun Patxi Salaberri euskaltzain oso eta batzordekidearen txostena aztertu ondoren, onartzea erabaki zuen.

Dagokion lekuan hala ager dadin izenpetzen dut, Iruñean 2007ko azaroaren 22an.

\* \* \*

Estimado Sr.:

La Comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia en la reunión ordinaria celebrada el pasado día 16 de noviembre en la localidad de Alsasua, incluyó en el punto 2.1. de su orden del día la solicitud remitida por usted acerca de la denominación eusquérica de la localidad conocida en castellano como *Lumbier*.

La Comisión, tras analizar el informe, elaborado expresamente por el académico de número y miembro de esta Comisión Patxi Salaberri, acordó aprobarlo, el cual se adjunta al presente escrito.

Lo que, a los efectos correspondientes, firmo en Pamplona a 22 de noviembre de 2007.



Andres Iñigo

Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeburua eta Nafarroako Ordezkaría.  
Presidente de la Comisión de Onomástica de Euskaltzaindia y delegado en Navarra.





## ACERCA DEL NOMBRE EUSQUÉRICO DE *LUMBIER*

*Pamplona / Iruñea, 13-XI-2007*

*Patxi Salaberri*

El nombre eusquérico de la localidad llamada en castellano *Lumbier* ha sido y sigue siendo en euskera *Irunberri*, denominación aprobada en su día por la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia y más tarde por la Comisión de Toponimia del Consejo Navarro del Euskera.

El topónimo *Irunberri* se documenta como nombre de una casa de Donazaharre / Saint-Jean-le-Vieux en la Baja Navarra entre 1350 y 1353: «Item en la casa de Per Arnalt Yriverri moran el dicho Per Arnalt, su yerno, et an bienes conoçidos et Arnalt es pastor de la Sala de Yrumberri» (Zierbide, 1993: 54). Casualmente tal vez, el señor de dicha sala tenía bienes en Valdeaiabar: «...nuestro bien amado don Guillem Arnalt, seynnor de Yrumberri, cauallero [...] sobre la nuestra pecha de los nuestros lauradores de la villa de Eslaua [...]» (Ruiz, 1998, 451, pp. 135-136).

*Irunberri* se convirtió en apellido (pervive en la Vasconia continental, según nos indica H. Knörr, escrito *Irumberry*), y así en la obra del conocido escritor vasco suletino Juan de Tartas encontramos a *D. Irunberri*, que a la sazón era «Utziatoko Prioria, eta Akizeko bik. jenerala, eta ofiziala Basanabarrren», es decir, «prior de Utziate, vicario general de Dax y oficial en la Baja Navarra». Por otro lado, E. Munarriz (1923: 402) dice que en 1753 *Irunberri* era el nombre de una casa de Falces.

En cuanto a la denominación misma de la localidad llamada *Lumbier*, la primera noticia que tenemos nos la proporciona el escritor e historiador suletino del siglo XVII Arnaut Oihenart, en su obra *Notitia utriusque Vasconiae*, que en la página 90 dice así: «Sunt quoque & aliae vrbes antiquitate celebres, vt *Lumbier*, Vasconicè *Irunberri*, vnde *Ilumberitani* populi apud Plinium lib. 3. Cap. 3». Es decir, y según traducción de Javier Gorrosterratzu, «existen además otros pueblos famosos por la antigüedad, como *Lumbier*, en vasconce *Irunberri*, de aquí los pueblos *ilumberitanos*, en Plinio, lib. 3, cap. 3».

Entre los testimonios literarios del nombre, se puede destacar el del escritor navarro Fermín Irigarai «Larreko», natural de Auritz / Burguete, quien en la obra escrita durante la guerra civil y publicada por su nieto y académi-

co correspondiente de Euskaltzaindia José Ángel Irigarai en 1993 (pág. 109) dice lo siguiente:

egun Buruillako 25 garrena, goizeko zortzi irian Irunberrin aeroplanok bonbak bota dituzte, zenbeit etxe lurreratu, sei jende il eta bospasei zauritu.

Es decir:

hoy 25 de septiembre, hacia las ocho de la mañana en Lumbier los aeroplanos han arrojado bombas, han derribado algunas casas, han matado a seis personas y herido a cinco o seis.

Continúa así:

irunberritik iragaiten da Nabazkotzeko aldera bide zabal bat eta diote bide ori ebakitzeagatik egin ote duten; badaiteke, bide ori Erronkari aldetik Aragon aldera sartzen da.

Lo que en castellano quiere decir:

por Lumbier pasa un camino ancho (¿«una carretera»? ) hacia Navascués y dicen que si lo han hecho para cortar ese camino; es posible, ese camino entra de la parte de Roncal hacia Aragón.

*Irunberri* es, claro está, el nombre empleado durante las últimas décadas en la literatura vasca y en los textos escritos en esta lengua.

*Irunberri* es también la variante utilizada popularmente en euskera en los valles pirenaicos que mayor contacto han tenido con la zona, es decir, en Roncal (convertido en el habla local en *Urunberri*, como *iturri* > *uturri*; véase K. Mitxelena, 1983: 446), Salazar y Aezkoa especialmente, tal como se recoge en la obra de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia titulada *Nafarroako Herri Izendegia / Nomenclátor Euskérico de Navarra* y publicada por el Gobierno de Navarra, que ha servido de base para la normativización de la toponimia mayor de la Comunidad Foral.

Tenemos también testimonio de otras zonas de Navarra; así por ejemplo, el académico correspondiente Damaso Intza (1974: 42) recoge en el valle de Larraun el dicho «Iruñe(a)n baño Irunberrin kontu gehiago» es decir, «(hay) más cuentos en Lumbier que en Pamplona» y añade el siguiente comentario: «Irunberri, erderaz Lumbier», que se traduce por «Irunberri, en castellano Lumbier».

En cuanto a su etimología, el topónimo *Irunberri* está relacionado, entre otros, con el nombre de la ciudad guipuzcoana de *Irun*, con el de la capital navarra, con la *Iruña* o *Veleia* alavesa, y con *Irunbe*, despoblado de la misma provincia. Es un compuesto de *Irun* más *berri*, y significa algo así como «Irun nuevo», estando el primer elemento, según la *communis opinio*, relacionado con el vasco *hiri* «núcleo de población», «pueblo», «ciudad» (véase Mitxelena, 1997 [1953], 332), que ha salido a su vez de una forma con lateral (/l/)

intervocálica (*Ili*), presente en otros topónimos de fuera de la zona histórica de habla vasca.

No está claro sin embargo, si *Irun-*, procedente de *Ilun-* como puede verse en la forma *Ilumberitani* o *Ilumberritani* del escritor romano Plinio mencionada más arriba, es un compuesto de *hiri* más *-un* «lugar» como quería Achille Luchaire (1874-75: 21) y defiende últimamente Henrike Knörr (2006), si se trata de *hiri* más *on* «bueno, buena» con un significado semejante a *Villabona* en Gipuzkoa como querían Henri Gavel (1931: 459) y Koldo Mitxelena (1990 [1977]: 500 y 509), si es el equivalente vasco del castellano *castro* (Alfontso Irigoien, 1986: 193; *Irunberri* sería entonces «castro nuevo»), o, finalmente, si se trata de una adaptación de una forma *\*ilV* (*\*il* + *vocal*) a la flexión con nasal, tal como piensa Joakin Gorrotxategi (2000: 148).

Julio Caro Baroja (1945: 189) dice que *Irun* es un aumentativo de *iri*, pero no lo justifica. No se puede aceptar la propuesta de Jürgen Untermann (1976: 125), autor que al tratar del nombre de Pamplona, *Pompaelo* en las fuentes clásicas, ve en la segunda parte del topónimo el ibérico *iltu*, el cual, según Mitxelena, se habría escrito *\*iL+V* en latín, de donde sería imposible que saliera *Iru-*, ya que esta forma exige una lateral suave o *lenis*, es decir, un étimo *\*il* + *V*.

El étimo u origen del que parten tanto la forma vasca *Irunberri* como la romance *Lumbier* es *\*Ilunberri*, que parece estar en la base del étnico *Ilumber[r]itani* «los de Ilunberri» mencionado por Plinio hace dos milenios. La evolución ha sido la siguiente: *\*Ilunberri* > *Irunberri* en euskera, con paso de la lateral (*l*) intervocálica a vibrante (*r*), es decir, con paso *VIV* > *VrV* habitual en esta lengua. En romance, en cambio, el topónimo ha evolucionado como sigue: *\*Ilunbéri* > *\*Lunbéri* (con pérdida de la vocal inicial, normal, como dice Mitxelena [1956: 172], en «zonas romanizadas o en la forma romance de nombres de poblaciones vascas cercanas al límite lingüístico: *Lumbier*, vasc. *Irunberri*; *Libarrenx*, vasc. *Iribarne*». Cf., además, *Libarren* en Gallipienzo, de un anterior *Iribarren* «el barrio bajo») > *Lumbiér* (escrito *Lumbier*), con diptongación de la *e* tónica y pérdida de la vocal final postónica como en *Javier*, que procede en primer lugar de *Saverri*, *Xauerri*, formas ambas documentadas en Leire (*NHI*, 182).

## Bibliografía

CARO BAROJA, J. (1945): *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*, Salamanca. Existe una edición más moderna de Txertoa, San Sebastián, 1990.

EUSKALZAINDIA (1990): *Nafarroako Herri Izendegia / Nomenclátor Euskérico de Navarra (NHI)*, Gobierno de Navarra, Pamplona.

- GAVEL, H. (1931): «Du nom de Bayonne et de quelques autres noms de lieux aquitains ou espagnols», *Bulletin Trimestriel de la Société des Sciences, Lettres, Arts et d'Études Régionales de Bayonne*, nº 7, 37-47.
- GORROTXATEGI, J. (2000): «Ptolemy's Aquitania and the Ebro Valley», in *Ptolemy. Towards a linguistic atlas of the earliest Celtic place-names of Europe*, D. N. Parsons y P. Sims-Williams eds., Aberystwyth, 143-157.
- INTZA, D. (1974): *Naparroa-ko euskal-esaera zarrak*, Príncipe de Viana, Pamplona.
- IRIGARAI, F. «Larreko» (1993): *Gerla urte gezur urte*, Pamiela, Pamplona.
- IRIGOIEN, A. (1986): «Cuestiones de toponimia vasca circumpirenaica», in *En torno a la toponimia vasca y circumpirenaica*, Universidad de Deusto, Bilbao, 173-259.
- KNÖRR, H. (2006): «Iruña-Veleia y las primeras palabras en vascuence», *Piedra de rayo*, 21, 90-95.
- LUCHAIRE, A. (1874-75): «Du mot basque iri et de son emploi dans la composition des noms de lieux de l'Espagne et de l'Aquitaine antiques», *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Pau*, II<sup>e</sup> Série, Tome 4<sup>me</sup>, 18-27.
- MITXELENA, K. (1956): «Introducción fonética a la onomástica vasca», *Emerita* 24, 167-186 y 331-352.
- (1983): «Iruñea», *Piarres Lafitte-ri omenaldia*, Iker-2, Euskaltzaindia, Bilbao, 445-451.
- (1990 [1977]): *Fonética Histórica Vasca*, Seminario Julio de Urquijo, Diputación Foral de Gipuzkoa, San Sebastián, segunda edición.
- (1997 [1953]): *Apellidos Vascos*, Txertoa, San Sebastián, quinta edición.
- MUNARRITZ, E. (1923): «El cambio de apellidos en la vieja Navarra», *RIEV* 14, 401-493.
- OIHENART, A. (1637): *Notitia utriusque Vasconiae, tum Ibericae, tum Aquitanae*, París. Hemos utilizado el facsímil de la segunda edición de 1656 realizada por el Parlamento Vasco, Vitoria/Gasteiz, 1992. Contiene una larga introducción de R. Zierbide y la traducción del texto latino de J. Gorosterratzu.
- RUIZ, M<sup>a</sup> T. (1998): *Archivo General de Navarra (1349-1387).II. Documentación Real de Carlos II (1362-1363)*, Fuentes documentales medievales del País Vasco 82, Eusko Ikaskuntza, San Sebastián.

- TARTAS, J. (1975 [1666]): *Ontsa hiltzeko bidea*, edición de A. Eguzkitza, Jakin, Arantzazu.
- UNTERMANN, J. (1976): «Pompaelo», *Beiträge zur Namenforschung* 11-12, 121-135.
- ZIERBIDE, R. (1993): *Censos de población de la Baja Navarra*, *Patronymica Romanica* 7, Niemeyer, Tübingen.



Mikel Gorrotxategi Nieto, secretario de la Comisión de Onomástica de esta Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia,

#### CERTIFICA:

Que la Comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, en su reunión celebrada en Bakaiku el día 19 de enero de 2007, estudió la petición de la Junta Administrativa de *Luquiano* del municipio de Zuia.

Visto el contenido de dicha petición, esta Comisión académica ha estimado necesario realizar las siguientes aclaraciones:

1. La Real Academia de la Lengua Vasca es por Real Decreto 573/1976 de 26 de febrero y por el artículo 6.4 de la Ley Orgánica 3/1979 de 18 de diciembre del Estatuto de Autonomía del País Vasco, la institución consultiva oficial en lo referente al euskera y, por lo tanto, es su competencia, entre otras cuestiones, dictaminar la forma eusquérica de los nombres de lugar.
2. En cumplimiento de la citada competencia en materia de lengua vasca, esta Real Academia, a través de su Comisión de Onomástica, publicó en 1986, junto con el Gobierno Vasco, el libro titulado *Relación de las poblaciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco* y en 2001, en coedición con EUDEL, el libro *Entidades de Población de la Comunidad Autónoma Vasca*. En ambos se documenta **Lukiano** como equivalente eusquérico de *Luquiano*. En fecha de octubre de 2002 se emitió, a petición de la Junta Administrativa, un certificado sobre la denominación eusquérica del concejo refrendando la misma.
3. Este topónimo vasco se documenta como *Luquiano* en su primera cita en 1257, tal como se recoge en la obra de Gerardo López de Guereñu *Toponimia Alavesa seguido de Mortuorios o Despoblados y Pueblos Alaveses*, editada por esta Real Academia.
4. La forma recomendada es *Lukiano*, porque la falta de estudios pormenorizados de la toponimia de la zona impide saber a ciencia cierta cuál era la forma utilizada oralmente por los habitantes de la misma antes de la pérdida del euskera. Cabe recordar al respecto que la pérdida de la consonante *n lenis* (débil) entre vocales es una de las características

de la fonética vasca, tanto en palabras de origen eusquérico (por ejemplo, *ardoa* y *gazta* han salido de *\*ardano* y *\*gaztana*), como en préstamos latinos (*catena* y *arena* han dado *katea* y *area* en euskera). En toponimia es un fenómeno habitual. Así lo confirman, por ejemplo, los casos de las localidades de *Aramaio* (Alava), *Argomaiz* (Alava), *Dorrao* (Navarra) *Galdakao* (Bizkaia), *Lazkao* (Gipuzkoa), *Miñao* (Alava), *Otxandio* (Bizkaia) y *Uzkio* (Treviño), entre otros. No obstante, en el caso de *Lukiano* está por confirmar que se usase la forma *\*Lukio*. Por ello, ante la falta de testimonios, se recomienda la forma *Lukiano*.

La Comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, con base a lo anteriormente considerado y en conformidad con el Artículo 6.4, del Estatuto de Autonomía del País Vasco y el Artículo 10 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera, ratifica el acuerdo tomado anteriormente, haciendo constar que tal decisión pertenece sólo al ámbito normativo-lingüístico y no al político-administrativo. Por lo cual, nuevamente,

#### HA ADOPTADO LA SIGUIENTE RESOLUCIÓN:

Que el nombre de la Junta Administrativa de *Luquiano*, del municipio de *Zuia*, en su forma eusquérica académica actual, es **Lukiano**.

Por lo que toca al gentilicio o nombre del habitante, hasta ahora no se ha hallado constancia. Sin embargo, la Comisión cree que sería *lukianoar*.

Y para que conste y surta efectos, expide la presente en Bilbao, a veintidos de enero de dos mil siete.

Vº Bº



Andres Iñigo Ariztegi,  
Presidente de la Comisión



Mikel Gorrotxategi Nieto Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordearen idazkariak,

#### EGIAZTATZEN DU:

Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeak Bakaikun 2007ko urtarrilaren 19an izan zuen bilkuran, Zuia udalerrian dagoen *Luquiano* kontzejuko Administrazio Batzordeak eginiko eskaera aztertu zuela.

Eskaera hori ikusita, Batzordeak hurrengo azalpen argigarriak egitea erabaki du:

1. Euskaltzaindia, bai otsailaren 26ko 573/1976 Errege Dekretuaren, bai abenduaren 18ko 3/1979 Euskadiko Autonomia Estatutuaren Lege Organikoaren 6.4 artikulua araberaren arabera, euskarari dagozkion gaietan erakunde aholkularia ofiziala da eta, ondorioz, bere eskumena da, besteak beste, lekuen euskal izen egokiak ebaztea.
2. Euskara alorreko eginkizun hori betetzeko, Akademia honek, bere Onomastika Batzordearen bidez, 1986an, Eusko Jaurlaritzarekin batera, *Euskal Herriko Autonomia Elkarteko herrien izenak* liburua eta 2001ean, EUDELekin batera, *Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle-entitateak* izeneko argitaratu zituen. Bietan *Luquiano* herri-izenaren euskal ordaina **Lukiano** zela ebatzi zuen. 2002ko urrian, Administrazio Batzordeak hala eskatuta, kontzeju honen izenari buruz egin zen ebazpenean ere izen hau berretsi zen.
3. Toponimo euskaldun honen izena 1257. urtean dokumentatzen da lehendabiziko aldiz *Luquiano* moduan, Akademia honek argitaratu eman-dako Gerardo Lopez de Gereñuren *Toponimia Alavesa seguido de Mortuorios o Despoblados y Pueblos Alaveses* liburuan ageri den bezala.
4. Gomendatutako aldaera *Lukiano* da, inguruko toponimiaren ikerketa egiten ez den bitartean ezin delako zehatz-mehatz jakin zein zen euskaldunek erabiltzen zuten izena inguru horretan euskara desagertu aitzinetik. Gogoan izan behar da bokalen arteko *-n-*ren galera euskal fonetikaren ezaugarri bat dela eta gertaera hau ohikoa dela, bai jatorrizko hitzetan (*ardoa* eta *gazta* ezagunak \**ardano* eta \**gatzana* hitzetatik sortu ziren), bai kanpotik hartutakoetan (*catena* eta *arena* euska-

raz *katea* eta *area* bihurtu ziren). Toponimian ere gertaera hau oso arrunta da. Horren adibide dira, besteak beste, *Aramaio* (Araba), *Argomaiz* (Araba), *Dorrao* (Nafarroa), *Galdakao* (Bizkaia), *Lazkao* (Gipuzkoa), *Miñao* (Araba), *Otxandio* (Bizkaia) eta *Uzkio* (Trobiñu) herri izenak. Hala ere, oraingoz egiaztatu gabe dago euskaldunek \*Lukio erabili ote zuten Lukiano izendatzeko. Horregatik, lekukotasunik aurkitzen ez den bitartean, *Lukiano* gomendatzen da.

Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeak, gorago aipatu bezala, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 6.4 artikulua eta azaroaren 24ko 10/1982 Euskararen erabilera arautzeko oinarrizko legearen 10. artikulua kontuan izanik, lehendik hartutako ebazpena berretsi du, jakinaraziz erabaki hori hizkuntzaren araudi arlokoa dela eta ez arlo politiko-administratiboari dagokiona. Hori guztia kontuan izanik,


#### HONAKO HAU EBATZI DU:

Zuia udalerriko *Luquiano* Administrazio Batzarraren euskal izena **Lukiano** dela.

Herritar izenari dagokionez, ez da orain arte lekukotasunik aurkitu. Dena dela, Onomastika Batzordeak uste du *lukianoar* izanen litzatekeela.

Eta hala adierazteko eta bertako kontzejuari bidaltzeko, izenpetzen du, Bilbon bi mila zazpigarreneko urtarrilaren hogeita bian.

Ontzat emana



Andres Iñigo Ariztegi,  
Batzordeburua

Mikel Gorrotxategi Nieto, euskaltzain urgazlea eta Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordearen idazkariak,


### ZIURTATZEN DU:

Urduñako udalak *Urduña/Orduña* izendapenarekin eginiko eskari-proposamena bat datorrela Euskaltzaindiak erabakitakoarekin.

*Urduña/Orduña* izendapenak betetzen ditu bai bi milagarreneko martxoaren zazpian herri izenaz Euskaltzaindiak emandako ebazpena (ikus *Euskera* 46, 2001-1, 201-202), bai bi mila eta lauko azaroaren 26an, Akademiak onartutako 141. Araua: *Herri-izenak: hurrenkera eta zeinu grafikoen erabilera* izenekoa. Arau honetan zehazten da, besteak beste, herri batek euskaraz izen bat eta erdaraz beste bat duenean eta biak elkarrekin erabili behar direnean, zehar-marra (/) baten bidez bereizirik jarriko direla, adibidez, agiri, izendegi, zerrenda, seinale eta antzekoetan; beraz, *Urduña/Orduña*. Euskarazko testu jarraituetan, ordea, emandako bi izen horietatik euskarari dagokiona soilik hartuko da; hortaz, *Urduñan dago aduana zaharra*.

Eta hala adierazteko, eta bertako Udalbatzari bidaltzeko, izenpetzen du Bilbon bi mila eta zazpiko maiatzaren hamaseian.

Ontzat emana

A handwritten signature in black ink, appearing to read 'Andres Iñigo', written over a horizontal line.

Andres Iñigo Ariztegi,  
batzordeburua



## **BIOGRAFIA**



## APPHATIA

### Lhande

*Jean-Louis Davant*

Zalgizeko Apphatia, Lhande familiaren etxea izan zen. Baionan sortua 1877an, Pierre Lhande etxe horretan kokatu zen zortzi urteetan, ama alarguna eta haurrideekin. Hiru anaietarik gehiena baitzen, «Apphatia» deitzen ahal genuke euskal ohituraren arabera. Geroztik Lhande familiak eraikina Zalgizeko udalerriari utzi zion. Orain erosi berria du Pariseko RENAUD-COULON bikoteak. Honek Lhande zenaren menderdiurrena (1957an zendu baitzen Atharratzeko ospitalean) ospatu nahi izan du 2007ko irailaren 14an eta 15ean. 14an, ostirale arratsez, Zalgizeko elizan, Coulon andereak mintzaldi erraldoi bat egin digu, informatikazko proiektagailua lagun, jesuita sonatuaren bitzita eta obraren berri emanez. Jakinik Euskaltzaindikoa izan zela, eta hor Harek estrenaturiko zuberotar alkiari nagoela (Guillaume Eppherre apeza bitartean egonik), bere laguntzera deitu nau, eta Lhandek euskaltzain bezala burutu zituen lan handienez mintzatu ahal izan naiz tarteka. Biharamunean, ondarearen eguna baliatuz, Haren obren erakusketa bat ikusi dugu Apphatian. Gero, arrastiri apalean, Zalgizeko elizan, Renaud jaunak *L'Inde sacrée* filma proiektatu du, Lhandek han eginiko itzuli baten ondotik idatzi zuen liburuan oinarritua, baina ni ez naiz izan.

Oroitaraz dezadan Pierre Lhande lehenbiziko hamabi euskaltzainetarik izan zela 1919tik, urte horretako irailaren 21ean izendatua Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregian. Idazkari kargua bete zuen bi urtez, *Euskera* Agerkaria paratuz.

Zalgizen egin zaion omenaldi horren kariara, Lhanderen bizitzako gertaizun berezi baten aztertzen hasi naiz: nola eta zeren Espainiako Gobernuak Hegoaldean egotea debekatu zion 1920-1922 irian. Eta hona nire lehenbiziko ikerketen emaitzak.

Luis VILLASANTEK hau dio bere *Historia de la literatura vasca* liburuko 309. orrialdean:

El decenio 1811-1921 residió en el país vascoespañol ... La estancia del P. Lhande en España acabó con la expulsión, por orden del Gobierno, a causa de un DISCURSO que pronunció. Incidente parecido tuvo años después en Bélgica, donde fue prohibida una novela suya, porque en ella la familia real belga quedaba malparada.

Azken esaldi horretarik batzuek ateratzen dute Villasantek egiazki erran ez duena: Espainiako erregearen erasotzea gatik haizatu zutela.

Bidegileak Bildumako 12.a den *Pierre Lhande Heguy (1877-1957)* liburuttoan, 15. orrialdan, Patri URKIZUK beste hau dio:

Literaturaz aparte, politikagaiak ere astindu zituen eta 1919an idatzi eta argitaratu zituen saio batzuek eztabaida franko sortu zuten: *NOTRE SŒUR LATINE: l'Espagne, Etudes politiques et morales* –Gure ahizpa latinoak, Espainia. Politika eta Moral Ikerketak–. Hitzaurrean diogenaren arabera, Frantzia eta Espainia arteko ulertezinak gainditu asmoz eta elkar batzeko esperantzan egin zuen lan hori.

Tamalez, bere borondate on hori ez zen oso ongi ikusia izan –Urkijori idatzi gutunean zioen bezala (1919-1-10)–. Alde batetik, editorearen aginduz ezarritako tituluak abertzaleak asaldatu zituen eta Ziburuko Iñaziok astindu egingo omen zuen, eta ez arrazoirik gabe. Beste aldetik, irrigariago zena, Madri-dik iritsi agindu batez Espainiatik erbesteratua izan zen, Euskal Probintziak Frantziaratu nahian zebilela aitzaki gisara hartuz.

Dirudienez, Patri Urkizuk Lhanderen kanporatzea *Notre sœur latine* liburuan oinarritzen du.

Beste arrazoin bat ematen du Guillaume EPPHERREk 1958an, Lhandek 1957an hutsik utziriko alkira igaitean, Euskaltzaindian sartzeko hitzaldian:

Aita Lhande-n khar handia sobera ezagütirik zen: Eüskal-Herriaren alde egin zian MINTZALDI baten ondotik, gobernuak jakin-erazi zian Aita Lhande etzela haboro untsa ikhususik Bidasoaz bestaldian.

Etzeion baliatü agert-arazi berri zian libria, «Notre Sœur latine, l'Espagne».

Ber aldera doa Pierre LAFITTE, Serge Monier jaunarekin eginiko elkar-rrizketa batean (1):

Parce qu'il a été chassé d'Espagne, par le Roi. Pour avoir fait un ARTICLE dans lequel il se plaignait de l'attitude de Madrid à l'égard du Pays Basque. Alors il a été mis à la porte de l'Espagne.

1982ko urriaren 2tik 1984ko martxoaren 31ra grabatuak izan ziren elkar-rrizketa horiek. 1901ean sortua, 1985ean zenduko da Lafitte. Badirudi notarik gabe mintzo dela, eta urteak lagun, batzuetan zehaztasun falta bat nabarian uzten du, bereziki Lhanderen afera horretan:

Heureusement que le Roi a foutu le camp, avant lui, et ça fait que, quand le Roi est mort, la République l'a accepté très bien, au Père Lhande. Il a pu venir là-bas.

Alphonse XIII 1931an Espainiatik bizirik joan zela badakigu, eta 1941ean Erroman hil.

---

(1) Serge MONIER, *Entretiens souvenirs avec le père Lafitte*, Elkar, 1992 (p.576).



Bere aldetik Joel LARROQUE mauletarrak, bertako Saint-François (d'Assise) ikastetxe katolikoan historia irakasten duenak, interneten idazten du:

...il se fait expulser d'Espagne pour avoir critiqué la politique de Madrid à l'égard du Pays Basque...

Ez du zehazten Lhandek Espainiako agintea ahoz ala idatziz kritikatu zuen, ezta noiz eta non. Azken puntu hori (noiz eta non?) beste autoreek ere ez dute argitzen. Baina Larroquek baieztatzen du kanporatzeko arrazoina gobernuaren euskal politika izan zela, eta ez erregeari eginiko ez dakit zein laido, edo *Notre sœur latine, l'Espagne* liburua.

Lekukotasun fidagarrienak zaizkit, logikaren arabera, Eppherre eta Villasanterenak. Eppherrek bere aitzinekoaren berri bazakikeen, eta sarrera hitzaldiaren prestatzeko, zokokan ibili daiteke, denok geure sailean egin dugun bezalaxe, Euskaltzaindian sartzea ez baita txantxetako urratsa. Villasante berriz, toki onean zegoen Euskaltzaindiko artxiboen ikertzeko, eta orokorki, Haren zehaztasunaren berri badakigu. Badirudi beraz Lhanderi Euskal Herriaren aldeko mintzaldi baten ondotik etorri zitzaiola kanporatzeko zigorra. Zein mintzaldi? Norbaitek horren berririk baldin balu, zinez eskertuko nuke. Artikulu bat izan bazen, lan errezagoa nuke ...

Kanporatzea noiz gertatu zen? Autoreen artean, data zehatzik ez dut aurkitu, ezta urterik ere. Beraz toki egokienera joan naiz: *Eusker*a Agerkarira. Eta hona zer dudatan hor aurkitu.

*Eusker*a 1922» delakoan, argitalpen berriko 2. liburuko 9. orrialdean:

Donosti'n, Gipuzkoa'ko Aldundi Jauregian, 1921'ko Urrilaren 28'an.

(...)

1. Aita Lhande euskaltzainaren gaztigu (mezu) bat dator, Euskaltzaindia'ri naigabez adierazorik, ez diyotela Bidasako mugetan onuntza igarotzen laga. Españako gobernuaren gebentza (debekua) da noski.

Irakasle lanetan zabilan batetik Hernanin, bestetik Frantziako Tolosan, eta duda gabe azken hiri horretarik zetorren Donostiarantz, muga geldiarazi dutelarik. Hernanitik *manu militari* botatzea baino hobe izan zitzaielako pentsa dezakegu.

Bizkitartean Joel Larroque Mauleko historia irakasleak 1922an kokatzen du «Agirre irakurgaikina» hitzaldia, Lhandek Donostian egin zuena. Hori urte zuzena baldin bada, karia horretara mugaren pasatzeko baimen berezia erdie-tsi duke Lhandek.

Berriz 2. liburu horren arabera, 11-12.orr:

Donosti'n Gipuzkoak'ko Aldundi-Jauregian, 1921'ko Azaroa'ren 24'an:

3. Aita Lande'k (sic) España'ko mugazayakin darabilkieyen jardunari Euskaltzaindia'k ez diyo jaramonik egingo; euskaltzañak ordea, bakoitzakiko alpediak aita Lande-ren (sic) alde jarri dezazkitek.

Oraino 2. liburu horretarik, 15.or., ber bilgunean:

1921'ko Lotazila'ren 29'an:

6. Euskaltzain Lhande jaunaren alde Urkijo jaunak egin dituen jardunak, onek azaldu ditu. Oraindik ordea dasa; Luis Miranda jaunarekin egongo dala; bañan jaun onek, ezin ezer dezakela esatekotan, len *Ministro de la Gobernación* izandako Goikoetxea jaunarengana joko duela.

Beti 2. liburuan, 18.or.:

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1922'ko ilbeltza'ren 26'an.

3. Maipuruak (Azkie Euskaltzainburuak) Urkijo jaunaren idazki bat irakurri du: idazki ortan dasa Duke de Miranda jaunarekin egon dala, Lhande euskaltzainaren (sic) alde zerbait atontzeko; bañan *Ministro* batengana jotzea obe litzakela. Maipuruak Maura jaunari idatziko diyola agertzen du, ta Euskaltzaindia'k bayetz erantzun diyu.

1922ko liburu horretan, hilabeteko bilkuren berriak 1922ko ekainekoan burutzen dira, Lhanderen beste aipamenik gabe. Ondoko bi liburuetan ere (1923 eta 1924koetan) ez da aipatzen.

Urkijoren ahaleginek zer ondorio izan zuten ez dakit momentuko. Haatik Pierre Lafittek haxe dio Serge Monier jaunarekin eginiko elkarrizketa liburuan, 576. orrialdean:

Il (Lhande) a essayé de faire intervenir quantité de gens, lui-même a écrit une lettre, qu'il croyait charmante, au Prince, mais ça n'a eu rien à faire, ils l'ont foutu dehors. Bon. Bien. Ça a marché comme ça. Heureusement que le Roi a foutu le camp...

Azken esaldi hau osoan ikusi dugu gorago.

5. liburuan, 1925ekoan aipatzen dira 1922ko bigarren zatiko bilkurak, 1923koak eta 1924ko lehen erdikoak.

1922ko urriaren 27an, Donostiako Aldundian, Lhande aipatzen dute osoko bileran:

6. Aita Lhande euskaltzainaren idazki bat Maipuru jaunak (hots Azkuek) irakurri du. Nai luke Aita Lhande'k Bidasoatik aruzko euskaltzain ta urgazle jaunak alde aietan bildu ta batzar artako erizpideak gero Euskaltzaindiaren Batzar nagusitara ekarri. Euskaltzaindiak aruzko euskaltzain ta urgazleen biltzako (sic) eskubidea ezin uka dezake. Auxe euskaltzain guztiak, aho batez, aitortuko dute.

Aita Lhande'ren idazkia ondo aztertu da ta Euskaltzaindiak auxe erabaki du: Aita Lhande'k, urrengo batzarraldirako, bere asmo ta naiaren idazki zeatzagoa bekar (ekar beza) ta orduan, asti geyagoz, erabaki oso bat artu liteke.

Ber lekuan, 1922ko azaroaren 27an:

5. Aita Lhandek Euskaltzaindiaren idazkiari ez ez (sic) dio erantzupenik orainarteraño eman. Orregatik, ez da gai onetzaz erabakirik artu.

Beti, Gipuzkoako Aldundi Jauregian, 1923ko martxoaren 26an:

I. Euskaltzaindiak Zubero-aldeko euskaltzain gabe ez luke batzarraldirik aurrerantzean egin nai, ta Aita Lhande etorri ezin dalako, egoki litzake, ango urgazle bat batzarraldietarako aukeratzea. Izan liteke edo Urresti (Ürrüstoi), edo Irigoyen edo Moix (Foix), edo Orabe Maulengo (sic) irakaslea. Auxe erabaki da: Aita Lahnderi (sic) galdetu oyetatik bat zein izan liteken, edo berak deritzana bidali dezala.

Erantzunik ez dut ezagutzen.

Lhanderen aipamenik ez dut aurkitu ondoko lau liburuetan: 1926, 1927, 1928, 1929 delakoetan, hots 6, 7, 8 eta 9.etan. Azkeneko agertzen da 10.ean (1930), 1928ko abenduaren 19ko bilkuran Donostian, Eusko Ikaskuntzako gela nagusian. Hamar euskaltzain oso bildu dira, horietan LHANDE! Lehen aldia du, ene jakinean, 1921eko irailaz geroztik:

II.- Aita Lhandek dio, erri euskaldun askotan, bederatziruarenak erderaz egiten direla. Lenago ere ibili zuen Euskaltzaindiak arlo auxe, ta orduan bezela erabaki da. Apaiz jaunai galdetzea zer bederatziruaren bear duten Euskaltzaindiak igorri dezaien. Erabaki au ere Gotzai jaunari itzez-itez egingo zaio.

1928ko abenduaren 20an, ber bilkurako bigarren egunean:

II.- Larrusquet (sic) apaiz jauna, berak egin duen oraingoxe lan eder bategatik Euskaltzaindik bere urgazle izendatu du.

Duda barik, urgazle berri hori Jean LARRASQUET barkoxtar apezta du. Hizkuntzalaria, linguistikako doktore igan zen «Faculté des Lettres de l'Université de Paris delakoan» zubererak duen azentu tonikoa ikertuz, eta horren tesia 1928an agertu zen titulu honekin:

*Action de l'accent dans l'évolution des consonnes étudiée dans le basque souletin – Etude expérimentale, avec 81 figures dans le texte et trois cartes hors texte – Thèse complémentaire pour le Doctorat ès Lettres – Paris, Librairie Vrin, 6 place de la Sorbonne.*

Lhande bere aldetik fonetikari zinez etxekia zen, eta Euskaltzaindiari hastetik eskatu zion fonetikako laboratoriora bat eraiki zezan.

Bestalde Lhandek eta Larrasquetek elkarrekin lan bat eginen dute Etxahun-Barkoxeren biziaren eta obraren. Eskualzaleen Biltzarrak 1946an agertuko die, titulu honekin: *Le poète Pierre Topet dit Etchahun (1786-1862) et ses œuvres.*

Ipuinetik historiara igaiteko lehen urrats bat izan zen, eta gero Jean Haritschelhar zinez urrunago joanen da, «Etxahun xaharraren» pausoak eta idazlanak zorrozki aztertuz leku askotako paper zaharretan.

Baina itzul gaitezen Euskaltzaindiko Batzar Agirietara, Lhanderen presentzia fisikoaren ala bestelakoaren bila:

Andoain'go Udal-etxean 1929'ko agorrilaren 22an.

I.- Aita Lhande-ri eskatu bear zaizkio, eman albalezazke bere iztegirako bildu ta gertu dituen gaiak.

Bera ez zegoen bileran.

Aipurik ez dut ediren ondoko lau liburutan (1931, 1932, 1933, 1937).

1935eko liburuan, aipamen hunkigarri hau:

Iruñan, KANPION jaunaren etxean, 1934-ko Orrilaren (maiatzaren) 23-an:

V.- Aita Lhande gure euskaltzainkide maitea, gaxo dagola jakin degu. Zinez atsegabetzen gaitu berri onek, eta beretzaz geiago jakin bear degu.

Lhande egun haietan, (apirilaren 27an), zinez eritua zen, ezin mintza, hitzak ahantzirik. Emekiño elestan ikasiko du berriz, euskarari esker. Gorabeherak ukanen ditu, baina orokorki ez du gehiago bere maila distiranta erdietsiko.

57 urteetan erdi ezindurik gertatzen da, behar bada Indian jasaniko eguzki kolpe baten ondorioz, eta beste 23 urteak ahal bezala biziko ditu; azken hamarrak, Atharratzeko ospitalean.

Halere Euskaltzaindiko bilkura batera berriz agertuko da behin: 1949ko irailaren 30ean, Donostian. Euskaltzain osoen kopurua hamazortzitara igaiten da. Berriak: Dassance, Lafitte, Lafon, Manuel Lekuona, Saint-Pierre.

1921eko irailaz geroztik, Lhandek bigarren agerraldia du Euskaltzaindian, bestea 1928koa izanki, eta 1949ko hau azkena ere. 1950ko urrian, ezin etorria adierazten du, Dassancerekin batera. Hor urgazle berrien izendapenetan agertzen dira Pierre Charriton eta Guillaume Eppherre apezzen izenak. Gero txintik ez.

\* \* \*

Hor naizeno bigarren gai bat aipatuko dut, Aita Lhanderi lotua: euskal fonetikarena, horretan ere sudurra sartu baitzuen. Jarraian eragin baten hastapena erdietsi zuen, baina beste segidarik gabe orain arte. Agian pilota teilatutik aterako dugu, sake berri baten emateko, merezi baitu.

*FONETIKAZ LHANDEREN* artikulu bat:

*ESKUALDUNAK* Astekarian:

1717.zenb., 1920-III-19.

L'ABBE ROUSSELOT

et la Langue Basque

Le distingué celtisant et éminent écrivain qu'est Charles Le Goffic, présentait hier aux lecteurs de la LIBERTE «un grand savant méconnu», un travailleur acharné et modeste pour lequel il revendique à juste titre une chaire officielle en Sorbonne: l'abbé Rousselot, l'inventeur de la méthode nouvelle de la phonétique expérimentale.

L'auteur de DIXMUDE a dit les services rendus par l'humble abbé, au cours de cette guerre, dans l'étude du repérage des sons, et ses applications immédiates. Il a mentionné l'extension pratique de ces découvertes au domaine même de la pathologie. Enfin il a indiqué l'apport insoupçonné de lumières qu'est venu offrir à la linguistique moderne l'invention de l'obscur préparateur au Collège de France.

Or, il y a dans l'œuvre de l'abbé Rousselot un point espécial qui est de nature à intéresser vivement nos lecteurs basques, landais, gascons, bigourdans, etc. et plus encore ceux qui s'attachent à l'étude approfondie de nos dialectes romans d'une part, à l'étud du basque de l'autre.

C'est que seul l'abbé Rousselot, avec sa méthode objective d'enregistrement et l'inscription automatique des sons, est parvenu à trancher irréfutablement les controverses qui s'élevaient à tout instant au sein des académies locales, sur la nature de tel ou tel son, le signe orthographique à choisir pour distinguer tel phénomène phonétique de tel autre, sur le caractère dental, labial ou palatal de telle ou telle variété de prononciation.

En Catalogne en particulier, quand se fonda l'Académie de la langue catalane, à la faveur du mouvement de renaissance littéraire et linguistique créé par l'apparition, et bientôt les foudroyants succès du grand parti nationaliste ou autonomiste, il y eu d'abord entre académiciens des deux versants des Pyrénées de belles batailles. On inclinait à faire choix d'une orthographe non point conventionnelle, comme il arrive dans toutes les langues, mais rigoureusement phonétique, c'est-à-dire exprimant par un signe spécial et réservé chacune des nuances de prononciation. Ce fut la bouteille à encre. Les variétés employées de Perpignan à Barcelone s'échelonnaient en files aussi nombreuses que les crêtes, les gorges et les vallées de toutes les Pyrénées. On ne serait pas sorti de l'imbroglio si M. Meillet, le savant professeur de grammaire comparée à la Sorbone n'eut conseillé de remettre l'arbitrage entre les mains – et les appareils – de l'abbé Rousselot. «Vous voulez, dit l'abbé, savoir si votre son chuintant de la vallée de Prades est un s ou un j? Faites-le passer par un cornet enregistreur de mon appareil et mon appareil vous donnera la réponse.» Et en effet, tous les cas de litige tenant de la phonétique furent ainsi tranchés au moyen de l'ingénieuse méthode.

Les Catalans n'ont pas tardé à donner de leur admiration et de leur reconnaissance pour l'abbé Rousselot un témoignage éloquent. Dès que leur Académie eut obtenu d'avoir à Barcelone un local vaste et spécialement aménagé en vue de ses travaux, elle y fit réserver un corps de logis qui serait exclusivement destiné au laboratoire, au cabinet et aux archives de phonétique expérimentale. Aujourd'hui l'œuvre est achevée: les appareils de l'abbé Rousselot sont installés et fonctionnent, on peut le dire, continuellement. Toutes les variétés dialectales des plus insignifiantes vallées pyrénéenes sont inscrites, fixées, puis classées et conservées, reproduites au besoin pour des échanges avec des laboratoires de Hambourg, de Koenigsberg ou de la Havane ou des communications aux sociétés savantes.

Le Pays Basque pourtant possesseur d'un trésor encore plus rare que les langues romanes, puisque son ESKUARA contemporain du mammoth et de la hache de pierre pour employer l'expression d'un savant allemand, a vu naître probablement toutes les langues parlées aujourd'hui en Europe, le pays basque, lui, est en retard sur les Catalans d'une vingtaine d'années environ.

C'est l'an dernier seulement au mois de septembre que fut créée à Bilbao cette académie de la langue basque, dont le congrès d'Oñate en 1918, sous la présidence effective de S.M. Alphonse XIII, avait voté la fondation. Douze académiciens, neuf représentant les quatre grandes provinces transpyrénéennes, trois pour représenter les trois petites provinces du pays basque-français.

Avec une magnificence vraiment royale, les DIPUTACIONES et AYUNTAMIENTOS de Biscaye, de Guipuzcoa, d'Alava et de Navarre dotèrent la jeune académie qui, à sept mois de sa fondation, se voit pourvue d'une jolie rente annuelle d'environ cent trente mille pesetas pour subvenir à ses besoins, payer les frais de réunions, des déplacements, des jetons de présence, des missions, des prix littéraires etc. De plus Bilbao lui fit bâtir dans son nouveau musée des Beaux-Arts un corps de bâtiment qui sera aménagé selon les exigences du goût le plus moderne. En attendant, les DIPUTACIONES lui ouvrent pour ses séances les salons de leurs magnifiques palais à Bilbao et à Saint-Sébastien.

Une des premières préoccupations de la nouvelle académie fut de s'assurer le concours de l'abbé Rousselot. Dans une langue comme le basque, qui n'a été conservée à travers les siècles sans doute innombrables que par la tradition orale, il importe souverainement de saisir avec la plus scrupuleuse et objective fidélité au moins ce dépôt presque entièrement phonétique et vocal. Aussi l'Académie a-t-elle inscrit à la base même de ses travaux la création d'un laboratoire et d'archives de phonétique expérimentale. Pressenti (Pressenti?) par l'un des membres de l'Académie, M. Julio de Urquijo, le savant directeur de la *REVUE INTERNATIONALE DES ETUDES BASQUES*, l'abbé Rousselot a marqué son désir pressant d'apporter son concours le plus actif à la fixation phonétique de l'ESKUARA. De fait, lui seul pourra trancher le différend créé au début même des travaux de l'Académie par certains procédés orthographiques qu'ont introduits récemment les nationalistes: en particulier l'usage du Z à la place de l'S chuintante forte, prononcée jusqu'à ce jour par la presque totalité des Basques, dans leur nom même et celui de leur langue: ESKUALDUNAK, ESKUARA. Quand on aura fait défiler devant les appareils enregistreurs de l'abbé Rousselot une centaine d'illettrés dépourvus d'esprit de parti et choisis en divers points des pays, le problème sera résolu.

Aussi, en vue (au vu?) des services déjà rendus par l'abbé Rousselot à la linguistique romane et à la linguistique basque, nous n'hésitons pas, nous les Basques, et aussi nos amis gascons, béarnais, catalans, etc. à appuyer de toute notre force la réclamation faite ici même pour M. le Goffis, pour que cesse le «scandale» de la quasi disgrâce dont M. l'abbé Rousselot est l'objet et à demander pour lui, avec les plus vives instances, non point des décorations – il n'en a que faire – mais son élévation à une chaire officielle en Sorbonne qui lui permettra de donner enfin à son invention tout son éclat et tout son essor.

Pierre LHANDÉ  
de l'Académie de la langue Basque.

## R. M. AZKUEREN XEDEA

Hortik laster R.M. Azkue euskaltzainburuak Jean Etchepare euskaltzain urgazleari, 1920ko maiatzaren 17an, gutunez harrigarriko proposamen ederra egiten dio/ zion, hitz hauetan, alegia:

«...1° Pozik irakurri duela zure ezkutitz (*lettre*) 13-koa – 2.en Madrid-ko Menendez Pidal izkeltzain andiari oraintxe idatsi (izkribatu) diola: zuretzat an, sei bat ilabeterako, bizibide egokiren bat (quelque emploi digne) ediren dezan, zuk bitartean PHONETIQUE EXPERIMENTALE nola erabili bere CENTRO DE ESTUDIOS HISTORICOS-en ikas dezazun – 3.en Gero alegin eginen degu, zuk, PLAZA ori utzi-orduko, inguru auetan sendalarigo (mediku-plaza) bat izan dezazun – 4n Euskaltzainez (academiko-gisa) besteak bezela izanen dezu zuk ere: batzaldi (séance) bakoitzeko 25 peseta (...) eta yoan-etorri ta HOTELetako txanpon (gastu) guziak Euskaltzaindiaren gainera izango dira.– 5n Menéndez Pidal-en erantzunarena artuta batera ezkutitz berri bat igorriko dizut.

Berriz artio zure agindupean

Azkue

(...)»

Baina Menéndez Pidak ezin izan zuen toki egokirik aurkitu Madrilen Jean Etchepare medikuarentzat, eta horretan gelditu zen Azkueren xedea.

R.M. Azkueren gutun hori eta Etchepareren erantzun batzuk ageri dira Kepa ALTONAGAREN *ETXEPARE ALDUDEKO MEDIKUA* liburuan, 149-152. orrialdeetan.

## LARRASKETEN LANA

P. Lhandek bere Zubero xokoan arrakasta zerbait erdietsi zuen euskal fonetikaren alde. Horren aholkuei jarraikiz, zubererak duen fonetika ikertu zuen **Jean Larrasquet** barkoxtar apezak, bereziki azentu tonikoa, lan honi esker linguistikako doktoregoa merezituz, gorago ikusi dugun bezala.

Dena dela, euskara baturako bidea idatzitik hasi dugu, eta hola behar zen, bereziki grafia bakarrarekin.

Azkenean dator ahozko euskararen landu beharra, hala nola irakaskuntza eta irrati-telebistetako hizlariantzat.

Horretan anitz balio duke atlasgintzan bilduriko ekei jori eta nasaiak.





## AITA PIERRE LHANDE-ren LANAK

*Jean-Louis Davant*

### LEHEN PEREDIKÜA

Eüskaldün famatü batek / biltzen gütü heben egün  
Pierra Lhande izan beitzen / mündü güzian ezagün.

Aita züan atharraztar, ama berriz mendikotar  
Baionan sortü zen eta / gero handitü zalgizar.

Loiolatar Lagündian / sartürük apeztü beitzen  
Gipuzkoako probintzian / eskolemaile sartü zen.

Hamalauko gerlala / gobernüak züan deitü  
Erizain bezala Pierrak / Italian parte hartü.

Lehen euskaltzainetarik / izentatürük izan zen  
Haren hiztegi handiaz / orano gira baliatzen.

Espainiako gobernüak / hegoaldeetik ohiltü  
Izkiribüz eta mintzaldiz / eüskaldünegi zela(a) agertü.

Paris aldean izan zen / Abbé Pierrereren aitzineko  
Zernahi obra eginez / jente xeheen lagüntzeko.

Notre-Damen et(a) irratiz / peredikü harrigarritz  
Ebanjelioko mezüa / hegatzan gainez ekarri.

Mündü güzitik zabilan / misiolari lanean  
Bereziki Ameriketean, Madagascarren, Indian.

Eki kolpe batez goizik / ezintürük agitü zen  
Eta ümilki bizia / ützi züan Atharrazten.

\* \* \*

### 1. JELKALDIA

*1886ko barantailan (otsailan), Baionan jelki maletekin Pauline Heguy-Lhande, Janpierra Lhanderen alargüntsa gaztea. Harekin ahizpa eta senar zenen*

*bi alabak (Stéphanie eta Valentine) eta bere hiru seme gazteñiak: Pierre (Pio), Jean eta Marcel.*

Pauline

Ene hiru semettoak / eta bi loba maiteak  
Ahültürrik ützi gütü / züen aitaren joaiteak.

Aita züena bizi zeno, Baionan goxoki ginen  
Orai sosa xühürtürrik, Zalgizen gira egonen.

Alokaidüa kentürrik, hein bat bizi gaiteke han  
Maite düzüen etxean, gurea den Apphatian.

Pierra

Ihiztekan ariko niz / üngürüko harixtoian  
Eta meza emanen düüt / arrebekin selaürüan.

Stéphanie

Meza emaiten laket niz / ez balin bada lüzeegi  
Zü tai gabe ari zintake, sekülan ez zaizü aski.

Pierra

Ihizteka denboran phürü, mezarik ez dikezügi  
Eta debeiatü baiko, honttoak emanen deitzüt.

Pauline

Han antzakiko ziraie, bazterrak zabal beitira  
Orai abia gitean, ülüneko erretira.

*Badoatza.*

\* \* \*

## 2. JELKALDIA

*Zalgizen jelki Pauline eta lehen aüzoko etxekoanderea.*

Pauline

Ene aüzo maitea, hona ene istoria  
Llabürra eta tristea, bena bost haurrez joria.

Gazteñirik esposatüz / ahizparen alargüna  
Berehala galdü nüan / zühürtziatzko lagüna.

Aüzoa

Haur eijerrak hor dütüzü, arraheinki eraikiak  
Bi ahizpa, hiru anai, ezinago adelüak.

Pauline

Bena batek arrenküra / hanitx emaiten ditazü  
Pierra dohainez beteak / segürtamenik ez dizü.

Apeztü nahi lükezü, eta hori dit ametsa  
Pena handia nikezü / bide hori gal baleza.

Bortüko hur gaitza düzü, nekez antzokatzen dena  
Beldür nüzü sentokeriaz / ito dakion ahalmena.

Aüzoa  
Bena Pauline gaixoa, abantxü düzü heltürrik  
Seminario handi hortan / kasik erdia beterik.

Pauline  
Ateka gaitzetan dela / bihotz oroz dit senditzen  
Ama baten üsno barna / hein hortara deia tronpatzen?

Aüzoa  
Otoitzeginen dit züen, hau bederen ahal beitüt  
Esperantxa ez otoi gal, Pierrak indarra badizü.

Pauline  
Eskerrik hanitx aüzoa, herritar honak ditizüt  
Bena zü aüzo lehena, beharrik ondoan zütüt.

*Badoatza.*

\* \* \*

## **KANTA 1**

### **AMA**

Maitatüa sobera nintzalarik haurra  
Ez nakian nik zer zen amaren beharra  
Hiri batetan orai niz ni bakar bakarra  
Amaz orit ordüko, horra zait nigarra!

Hegalñiak azkartzen senditüz geroztik  
Beitoatza txoriak ohantze goxotik  
Halaber joan nüdüzün amaren altzotik  
Ahatzerik benaie herrian engoitik!

Haatik ama gaixoak ez naü ez ahatze  
Üsü deit Xiberorik igorten goraintzi  
Hautse neion bihotza nüanean ützi  
Enetzat baizik ez da / halere han bizi.

**Aho batek eztiki diolarik «Ama»**

Hitz goxo bakoitx horrek mündü bat derama

Ama beno hoberik zer daiteke asma

Horren maitatzen arren gitean oro tema!

*Hitzak: Jules MOULIER «OXOBI» bidarraitar apez euskaltzaina (1888-1958)  
Antzerki honen idazleak zübereraz egokitürrik.*

*Ahairea: Urrundik ikusten dut, ikusten herria (11)*

\* \* \*

**3. JELKALDIA**

*Baionako apezgeitegi handian, borta urdinetik jelki Pierra Lhande.*

*Lhande (koblakaz, «Maria Solt eta Kastero» kantorearen ahairean)*

Baionako apezgeiak, bizi gira zerratürrik

Arren koblakan hasten niz, ene borta zabaltürrik

Lagünak entzün ezazüe, libürüa baztertürrik

Libertatearen aizea, sorleküak buhatürrik!

*Erditik jelkitzen da seminario handiko бүрүзagia eta Lhande gaizkitzen dü:*

Pierra Lhande jaun gaztea, heinetik elkitzen zira

Isil zite berehala, eta borta hori tira!

Lhande

Jauna debeiatzen nüzü, presontegian bezala

Ontsa jasaiten düanak, ederki goza dezala

Mendi aldeko txoria niz, ez zait gustatzen kaiola

Lana hobeki egin niro, libertate harekila!

Bürүзagia

Ez düzü lehen aldia / kanpixki bazabiltzala

Zerrailüaren gainetik, ergi ñapürra bezala.

Pazentzia higatürrik, kexatü behar dit

Etxe hontako legea / betarazi zure despit.

Leküa Zalgizen düzü, geroari pentsatzeko

Harat idatziko deizüt, zedarrien finkatzeko.

*Bürүзagia erditik badoa.*

Lhande: Ai, ei, eta, gaixo ama!

*Borta urdinetik badoa.*

\* \* \*

#### 4. JELKALDIA

*Zalgize Apphatian jelki Pauline eta Pierra Lhande, hau seminarioko letera esküan.*

Pauline

Pierra seme malerusa, gütün horrek eho nizü  
Mintzatü behar dizügü, orai zer egin gei düzü?

Apeztekoa zinela / uste nizün aspaldian  
Berri horrek üzten nizü / etsipen izigarrian.

Pierra

Apezteko xedeari / ez diot ez egin üko  
Bürüzagien hersikeriak / ez ditazü baztertüko.

Pauline

Arren zerbait bila zazü / beste diozesa batetan  
Apentziala segürrenik / apez ordena horietan.

Paueko Aita jesüitek / erretreta bat gisala  
Antolatüririk beitiüe, deititzazü berehala.

Pierra

Ütz nezazü pentsatzera / denbora buxiñi batez  
Asperra egotxiko dit / ihiztekala joaitez.

*Ama badoa.*

*Pierrak ihiztekako arma hartzen dü, eta letera txilintxau ezarten.*

Lhande

Basihieza hiltzen dü / pena buxi bat kolkoan  
Harek ez beitiü ogenik, bizitza bai gogoan  
Letera tzar honek aldiz, hartze dü tiro ederra  
Eta xüxen har dezala / ene armaren üzkerria!

*Tirutzen deio eta badoa.*

\* \* \*

#### 5. JELKALDIA

*Jelki Pierra Lhande eta bi satan: Eskandala eta Ttentamentü.*

Ttentamentü

Pierra gazte lerdena, sotanaz ez troza  
Tristüra baztertüririk, bizitza goza.

Eskandala  
 Eliza katolika / zaharkitürük da  
 Gazteria galdürük, non düke segida?

Lhande  
 Hala da zahar dela, gibeloi gogorra  
 Sotiltü behar lüke / mintzajen idorra  
 Teologia ere / zolatik berritü  
 Diziplina torpea / heintto bat arintü.

Ttentamentü  
 Denbora galdüko dük / hire ametsetan  
 Ützak eliza beltza / bere komedietan.

Eskandala  
 Hire fedea ere / üztarri latza dük  
 Jinkorik ote baden / ezin da probatü.

Lhande  
 Jinko honik ez balitz, non zinatekeie  
 Güdükatzerik gabe, zer lan zünükeie?  
 Etsai bako armada, zer ezdeüskeria  
 Bakean ütз nezazü, «janfutre» pare!

*Satanak badoatza.*  
*Bi aingürü erditik jelki, Lhanderekin dantza-jauzi baten emaitera.*

\* \* \*

## KANTA 2

*Jelki Lhande eta Kreatiüren kantika kantatü aitzin erran:*

Paueko erretreta hark / hon handia egin beiteit  
 Jesüiten Lagündi hortan / berehala düт sartü gei.

### KREATÜREN KANTIKA

Jinko Jaun ahaltsü hona  
 Zuri laüdorio, aintza  
 Ospe (e)ta esker hon oro  
 Zuri bakoizki zor zaitzü  
 Eta zur(e) izentatzeko  
 Hon den jenterik ez dago.

Laüdatüa bai zü Jauna  
 Kreatüra güzietan  
 Lehenik eki anaiaz

Harez argitzen gütützü  
Ederra da, distiranta  
Goikoa zure miraila.

Laütorio zuri Jauna  
Aize anaiaz, aireaz  
Odei eta zohardiaz  
Eta denbora güziez  
Haier esker bizi gira  
Zure kreatürak oro.

Laütorio zuri Jauna  
Arreba hur balios, apal  
Prezios eta xahüaz  
Ber heinean sü anaiaz  
Gaüaz ekiaren orda(r)i  
Eder, argi, bero beita.

Laütorio zuri Jauna  
Ama et(a) arreba lürraz  
Hazten et(a) azkartzen gütü  
Zer nahi früta emanaz  
Lili koloredünekin  
Eta belhar honekilan.

Laütorio zuri Jauna  
Zure maitez et(a) amorioz  
Parkatzen düenen beitan  
Nahigabeak jasanez  
Zorihontsü baketiarrak  
Ko(ro)ha emanen deiezü.

\* \* \*

## 6. JELKALDIA

*Jeiki Aita Longhaye irakaslea eta Lhande apezgeia.*

Lhande  
İñigotar Lagündiala / Jinko honak nizü deitü  
Ene jaidüra ñapürra / zedarritü nahi beitü.

Ühaitzaren indar basa / barreatüz ahültzen da  
Bazter azkarren artean, sortzen zaio argindarra.

Longhaye  
Dohain ontzi bat zirade, aberats izan ahala  
Senteria gida zühürki, zamari hona bezala.

Jesükristen hitza dügü / jenteer helarazi behar  
Ahal bezain klarki mintza, hor gatz eta piper ezar.

Idea gogor elibat / builtaka borogutzen deitzüt  
Jansenisma Eüskal Herrian / orano azkar zitazü.

Lhande

Iparraldeko fedea / barnoia bezain azkarra  
Hein bat bortitza da eta / badü zabaltü beharra.

Longhaye

Ohartzen hasirik zira, bide hona hartzen düzü  
Lot arren Jinko honari / eta entelegüari.

Entelegüaren berme, Jauna da gotorleküa  
Aterpe hau aski zaizü, ene ikasle haütüa.

Lhande

Eskerrak errejent hona, lazgarriko zorra deizüt  
Hola fededün egonez, apezgoala beniz heltü.

\* \* \*

## 7. JELKALDIA

*Zalgizen 1910eko agorrilan, Pierre Lhanderen lehen mezako, jelki apez berria, familia, serorak, eliza gizonak eta herritarrak.*

*Denek kanta, «Magnificat» kantikaren ahairean:*

**Goresten düit, goresten düit / bihotz oroz Jinko Jauna.**

Lhande

Neskatoxe bat hartürik / güartean amatako  
Gizaseme zinen egin / jentearen libratzeko.

Oro

Odola isuri düzü / denentako kürütxean  
Hanitx maite gütüzüla / erakutsirik hiltzean.

Lhande

Zure hitzen aragian, odol bizi emailean  
Biltzen eta hazten gira / mahainaren ützülian.

Oro

Zur(e) Ezpiritü Saintüaz / bizi zira gure beitan  
Argitzen eta berotzen / gütüzüla nekezietan.

Lhande

Heben ere ama hon bat / zuri esker nizün üken  
Eüskal Herria ber gisan / amatako dügü züzen.



Oro

Jauna salba zazü arren / gur(e) Eüskal Herri maitea  
Benedikatüz halaber / hebenko ama kentea.

Lhande

Aitak ber gisan prefosta / benedikatzen düütüzü  
Egiatzko aiten beharra beita, behinere bezain segür.

Oro

Goresten dü, goresten dü, bihotz oroz Jinko Jauna!

\* \* \*

### KANTA 3

#### IÑAKI

Iñaki

Jinkoak igorria

Lürrean izatera

Jesüsen

Güdarrien

Bürüa!

Biltzarrak

Hartü zütü

Begirale

Saintützat!

Zü zira

Nausi lehen

Hoberena

Guretzat!

Iñaki,

Otoi entzün gitzatzü

(E)ta begira gitzatzü.

Bai denek

Eüskaldünek

Hari gure

Bihotzak

Harena da

Herria,

Ibar, oihan

Mendi gora!

Zelütikan

Saintü hona

Etxek bat

Zazpiak!

Etxekazü

Jaungoikoa

Eta lege

Herrikoa.

Etsaiaren garaitzeko,

Zük mana

Eüskaldüna!

Güdükan sartürük

Ezpata esküan

Eüskaldünen alde

Zelüko indarraz

Zük begiratürük!

Eüskal Herria

Dohatsü biziko da,

Zük, Iñaki,

Zaintürük!

*Pierre Narbaitz apezak egokitürük (1910-1984).*

\* \* \*

## 8. JELKALDIA

Hernaniko kolegioan, jelki Lhande, ikasle talde batekin.

Lhande – Jinko honak deizüela egün hon!

Ikasleek – Bai zuri ere, jauna, parte hon!

Lhande – Galto bat zuri, Antton: zonbat Jinko dira?

Antton – Ez da bat baizik!

Lhande – Egia diozü, bat baizik ez beita.

Eta orai dener: zoin da Jinkoaren manu handiena?

Ikasleek:

– Ez eho!

– Ez ebats!

– Ez gezürrik erran!

– Ez gaizkirik erran!

– Ez ama tronpa!

– Ez aita ere!

– Igantea errespeta...

Lhande – Ontsa! Bena manü bat bada horien gainetik, horien ütürri, eta hau da:

Jinko hona maïta bihotz oroz, güzien aita beütügü.

– Eta bigerren manü handia, lehenaren üdüria:

Jente oro maïta gure büürüa bezala, denak haurride beigira.

– Algar lagünt, algarri parka, Jinko honak egiten deigün bezala.

Bi manü horik bete balite, gerlarik ez lizateke mündüan...

Jelki Mikel postaria.

Mikel

Berri gaiztoz horra nüzü, gerla delarik Frantzian

Gobernüak manü deizü / armadalat hel zitean.

Lhande

Sei urtean heben nago, erdia niz Gipuzkoako

Agur arren haur maiteak, agian ez sekülako!

Badoalarik, ikasleak jeiki dira:

– Agur Aita Lhande!

– Zorte hon gerla hortan!

– Kasü zure büürüari!

– Bertan ützul zakigü!

## 9. JELKALDIA

*Italiako Alpetan, alemanen aitzia, italianoen lagüntzera joanik da Frantziako armada.*

*Jelki bi armadak (alemana eta frantsesa).*

*Güdüka.*

*Gizon bedera erorten zaie kolpatürik.*

*Bi armadak erretira, Alemaniakoa «türk» aldetik, Frantziakoa bestetik.*

*Erditik jelki Aita Lhande frantses soldado arropan, kürütxe gorriaz markatürik, ber gisan aleman bat eta bi erizain andere.*

*Aita Lhandek bi zauritüak benedikatzen dütti.*

*Erditik eramaiten dütti: frantsesek alemana, alemanek frantsesa.*

\* \* \*

## KANTA 4

*Jelki frantses soldado bat kolpatürik eta kanta «Mündüan malerusik» kantoreraren ahairean.*

## GERLA ZIBILA

Eginbide torpea bete dü gazteak  
Bena zer erauntsi dü büri den jenteak  
Abürü püblikoen gidari kenteak  
Apez, errejent ala politikariak?

Gazteria eder hori handiek ehortzi  
Ehaiterat igorri beste gazteen aitzia  
Kosia kosiari ganibeta bertan  
Sabeletik sartzera lohitze batetan.

Hiru Estatü handik, ürgüilüz hantürik (1)  
Zibilisazionea zinez ükatürik  
Basakeria hütsean ütsüki sartürik  
Gerla zibilean da Europa gardürik.

Gure masakreala hürüntik bildürik  
Gizonez koloniak ausarki hüstürik  
Mündüa lanjerean holaz ezarririk  
Enetako ziraie kriminal deitürik.

(1) Alemania, Britainia Handia eta Frantzia, Romain Rolland frantses idazlearen arabera (1866-1944). Kantore honen ütürria, haren idazlan bat da, «Au-dessus de la mêlée» (1915).

\* \* \*

## 10. JELKALDIA

*Jelki Pierra Lhande, Piarres Lafitte, Philippe Aranart apezak.*

Lhande

Egün hon züer Jinkoak, esker mila jin beitzide  
Hiztegi bat züekilan / adelatü nahi nüke.

Aspaldian hasirik düt / zalgizarren hitzak biltzez  
Eta gaineala Londresen / paper zaharrak ikertzez.

Lehen hiru hizkiena / orai artino düt bete  
Haatik aitzina joaiteko, züen beharra banüke.

Lafitte

Ene partetik ni ere, hitzen ihizlari nüzü  
Bena holako lan baten / agertzeko sosa pezü.

Lhande

Püntü hortan ez axola, jesüiten diharüz date  
Eta ene idazkaria / züen hitzen troxazale.

Aranart

Nik ez dit hüllanik ere / züen jakintzaren heinik  
Lafitteren kopiazale / nükezüe arraheinik.

Lafitte

Lan handia dikezügu, haatik ez da bühürria  
Ibilbidea beitükezü / hastetikan ezarria.

Lhande

Eskerrik hanitx oraidanik, goatzan ildoan aitzina  
Eüskararak merexi beitü / bürütü gei dügün lana.

Aranart

Eni güti zor beiteiket, erranen düt lotsa gabe:  
Eüskaldünen argitzeko, libürü handia date.

\* \* \*

## 11. JELKALDIA

*1919eko setemerez, jelki Azkue bizkaitar apeza (euskaltzainburua), Urkijo bizkaitarra, Eleizalde gipuzkoarra, Campion nafartarra eta Lhande zuberotarra.*

Azkue

Aita Lhande badakizü / gure talde honen berri  
Eüskararen Akademia / nola dügün hasi berri.

Hastapeneko lau kideek / lehen lana egin dügü  
Euskaltzainen zionea / hamabietan finkatü.

Gure eüskalki güziak / heben entzünik dirate  
Zuberoako jargian / zihau jarriko zirade.

Lhande

Esker mila bihotzetik, ohore sobera düt hor  
Ez beitüt entelegatü / zer balentiari düdan zor.

Azkue

Ohore bat beno haboro, euskaltzaingoa kargüa da  
Euskararen artzain gaude, izenaren arabera.

Zure lanak ikusirik / haütatü zütügü segür  
Ez zirela baratüko / pentsatzea beita zühür.

Lhande

Akademiako lanari / ez dit orano pentsatü  
Zük abantzüa beitüzü, zer ote düzü asmatü?

Azkue

Hernanin bizi beitzira, gipuzkera ikasirik  
Egiten ahal deiküzü / zerbütü hanitx handirik:

Idazkaria züntükegü, eta kargü horren beitan  
«Euskera» aldizkaria / ikusten deizüt esküetan.

Lhande

Oi jesüiten Lagündian / sinestera niz üsatü  
Presidentaren erraner / behar dizügü behatü.

\* \* \*

## **KANTA 5**

### **AMERRI BAKOITZA**

Alderdien gainerik, etsaien artetik  
Popülü zühür honen hizkuntza zügüna  
Europako lehena, denen hontarzüna  
Jelki hadi plazala Bernaten hitzetik.

Berozan familia lano güzien petik  
Süsta berriz Herria, bila batarzüna  
Eta presontegitik ekarran lagüna  
Bakean bizi hadin haurren ezpainetik.

Hirekilan gjaudela lümaz, obraz, elez  
Eskola, telebista, libürü, kasetan  
Irratian, karrikan, herriko etxetan.

Goretsiko haüñagü lanez eta legez  
Ofizialki deitüko mündütar dantzara  
Bai Amerri bakarra, hi haüñat eüskara.

\* \* \*

## 12. JELKALDIA

*1921eko ürrietaren 28an, Frantziako Tolosan izanik, Gipuzkoalat ützüli nahi da Aita Lhande. Hendaiaiko mügan jelki guardia zibil elibat.*

Guardia  
Norat ari zira jauna, ez bagira küriosegi  
Zeren mezü bat zureztat / gobernüak deigü jaulki.

Lhande  
Üsatzen düdan bezala, banoazü Donostiala  
Euskaltzaindiko jüntala, Aldundiko Jauregiala.

Guardia  
Jauna badüzü epantxü, gobernüaren dekretü  
Espainian egoitea / jagoiti zaizü debetü.

Lhande  
Hamar urte badü orai / ene heben plantatzeak  
Debetü horrek holatan / zer ote dü apentzia?

Guardia  
Gobernüa politikan / jüdikatu omen düzü  
Ni gaisetiko manüen / ekarle baizik ez nüzü.

Lhande  
Iholaz ere ni ez niz / Espainiaren etsaia  
Aski probatürük deiot / etxekimentü guzia.

Eüskal Herriaren alde / mintzatzea dü pakatzen  
Bena honat ützültzeko / esperantxa begiratzen.

*Lhande badoa.  
Guardia zibilek üngürü zombait egiten düe arrapikatüz:  
«Una, grande, libre...»  
eta gero «hablando cristiano!»*

\* \* \*

**13. JELKALDIA**

*Tolosako Üñibertsitate publikoan, jelki Aita Lhande eta Piarres Lafitte.*

Lhande

Üñibertsitateko büria / eskertü behar dizügü  
«Institut Catholiquetik» / publikoalat benaü deitü.

Eüskal literatüraz da / ene mintzaldi andana  
Uste beno nasaiago / beita eüskal idazlana.

Lafitte

Literatüra praubea / omen da zonbaiten ustez  
Eta hala izan daite / generoen zombakiez.

Lhande

Haatik ontsa erauntsi dü / fedez eta moralaz  
Hamaseigerren mentetik / idazle honen eüskararak.

Orai zabaltzen ari da / genero güzietara  
Eta diren geiak oro / eüskaraz aipatzen dira.

Literatüra nazional bat / hasi züen nafartarrek  
Bena bidea moztü zeioen / erresumaren porrotek.

Lafitte

Hamazazpigerrenean, Lapurdik eta Zuberoak  
Segida hartü zeioen, ondokoan Gipuzkoak.

Lhande

Bizkaia gero hasi zen, hemeretzügerrenean  
Gure literatürako / laugerrena den eüskalkian.

Gaur zinez florean dago / gure zazpi lürraldeetan  
Aberasten ari zaigü / bere zentzü güzietan.

\* \* \*

**14. JELKALDIA**

*Ligiko bortüan den Tintüra Bordan, jelki Aita Lhande, eta kanta bi bertset.  
Ahairea: Xarmagarria zare.*

Lhande

Tintüra Borda beita / zelüko leihoa  
Ene arrenküretan / heben dit gogoa  
Gora baratzen dira / batetik hegoa  
Eta larrazkenean / bestetik ürzoa.

Ermita txipi hontan / zütüt hüllanena  
 Heben aipatzen deizüt / üsü zorihona  
 Zonbait aldiz tristüra, bekanago pena  
 Heben errezebitzen / plazerez artzaina.

*Artaldearekin hel artzainak eta kanta.*

\* \* \*

## KANTA 6

### TINTÜRABORDA

Tintürabordan ere, hur honak osoki  
 Jende hanitx beitüe lagüntü sanoki  
 Ahüzkiren gisako lekü bilgarrian  
 Eta han bezalako bista ederrean.

**Arrapika:** Heben gure ardiek alhagia güti  
                   Bedatse, larrazkenez, bizpahiru buxi  
                   Gain hartarik halere, noiztara bisitan  
                   Artzaina laketzen, bai Tintürabordan.

Orhi, Bostmendieta, Arbaila bizkarra  
 Mauleko sargiala badoan ibarra  
 Eta bi bazterretan, hegien gidari  
 Hebentik Maidalena, hantik San Gregori.

Üngüruan oihana, ürzoen haidürü	Azkorrian gorarik, izar bat üdüri
Basabürü güzia bere hoinetan dü	Zure ttaka xuria hürrüntik ageri
Bertan Ibar Exkerra, hor Esküin aldea	Gain hortara heltzea, ibilte nekea
San Mitxelen gerizan, heben aterbea.	Bena bortala baiko, hor oi zer bakea!

*Hitzak: J.-L. Davant*

*Müsika:*

\* \* \*

## 15. JELKALDIA

*Jelki Pariseko «türk» andereak, «look branché» batetan.*

Lhande jesüita hori, ai zer kokillota  
 Zinez burratzen gitin, ezarten dehota.

Ama Eüskal Herritik / hürrüntü behar dü  
 Hortan indar sobera / hartzen ari beitü.



Jesüiten argi hori / beittüü partida  
 Jansenismaren beltza / gibeltzen hasi da.

Errelisioe bortitza / egokiena zaigü  
 Zaharrak lotsan bizi, gaztek hori hüü.

Jansenismari esker, gazteak ihesi  
 Gisa horrez behar da / paganoarazi.

Eüskal Herri eijerra / dezagün izorra  
 Lan hortan gü girade / Troiako bohorra.

Lhande bertan doala / «banlieue» batetara  
 Miseria gogorrenak / han goza ditzala.

Pagano, komüniste, zorriak, hetika  
 Intzestü, pedofilo, lapur eta kaka!

\* \* \*

## 16. JELKALDIA

*1925ean Paris üngürüan, jeiki Lhande eta Mortier ontsa deitü apeza, egiazkoa, ez idazleak asmatüa. Hau pallota esküan, Lhande plan batekin.*

Mortier  
 Pariseko «banlieue» hontan, izigarri da miseria  
 Eta manera bereziz, alojatzeko nekezia.

Ahal bezala niz ari, lagüntzaleak bil eta  
 Egoitza berri egiten, herri etxeekin prefosta.

Lhande  
 Miseria latza ber gisan / hanitxen osagarrian  
 Izan dadin korpitzean, halaber ezpiritüan.

Mortier  
 Korpitza sendo lehenik, eta ondotik arima  
 Eri baten aitzinean, hola(a) ari zen Jesús Jauna.

Lhande  
 Biak batean egin zütüan, biak batetan sendotü  
 Hortan imita dezagün, korpitz-arimak artatüz.

Jesüsen deia oihüsta, ez dezagün ützeroko  
 Horren indarra balia / güzien arrapizteko.

Irratiz dei eginen dit / güzien bihotz honari  
 Eta denen soser esker, «banlieue» hau dezagün berri.

Mortier

Arrazu düzü lagüna, sü hori pitz dezagüla  
Etxe berriekin batean, praubea jeiki dadila.

\* \* \*

## KANTA 7

### MAITATZEA = LAGÜNTZEA

Jeik hadi fededüna, jeik hadi jentea  
Lürra peza oso dük, eta güzien ama  
Hor akortean daude / Jinkorik gabea  
Filosofoak eta / Bibliak errana.

Historian ezin da / berriz gibel egin  
Eta geroan ere /miraküülü güti  
Zerbait ahal dükegü / politikarekin  
Potere buxi hori / ez dezagün ützi.

Beharrünanta lagünt, norik bere heinean  
Bakoitxak egin diro / noiz nahi bizian  
Hortako ez da behar / eskola handirik  
Ez eta fortünarik / Burtsan jokatürük.

Alargüntsa praubeak / zerbait eman züan  
Haboro balin badüt, ahal düit haboro  
Hein bat ontsa parteka, bizi jüstizian  
Lür hau biziaraziz / orai eta gero.

\* \* \*

## 17. JELKALDIA

*1927ko barantailaren (otsailaren) 2an, «Poste National Radio-Paris» irratian, jelki Lhande eta kasetalari bat.*

Lhande

Otsoaren basakeria / noiz ützi dü gizonak?  
Jesüsen Berri Honari / beha ziteie lagünak!

Jinko honak maite gütü, bai eta libratü nahi  
Horrez dü bere semea / gütardealat igorri.

Jinkoaren erresuma / Jesüsek erein mündüan  
Erier eman sendotzea, bihotzer ezpiritüa.

Kasetalaria

Gük zer egin dezakegü / erresuma berri hortan?  
Jinko Jaunak ez ote dü / aski ahal bere beitan?

Lhande

Jinkoa ezpiritü da, hortarik emaiten deigü  
Ezpiritüak ez dü eskürrik, gureak peresta ditzogün.

Beharrünant hanitx bada / non nahi gure mündüan  
Lagüntü behar dütügü, lehenik gure kantüan.

Kasetalaria

Mündü hontakoa ote da / Jinkoaren erresuma?  
Uste nizün hil ondoko / zatekeala zorihona.

Lhande

Jaungoikoaren erresuma / gure lür hontan da sortzen  
Lantare baten ber gisan, dügularik hureztatzen  
Maitarzüñaren ekian / hanitx ederki handitzen  
Eta Jesükristi esker, zelü gainean lilitzen.

\* \* \*

## 18. JELKALDIA

*1930ean Buenos Airesen, jelki Lhande, Irigoien Argentinako Presidenta eta beste jente elibat.*

Lhande

Amaren sorleküari / agur deiot bihotzetik (1)  
Amerikar eüskaldüner / goraintzi Eüskal Herritik.

Zortzigerren probintzia, heben dügü Amerikan  
Parte bat Kalifornian, lehenikan Argentinan.

Ene herritar maiteak, azkar ditzagün lotürak  
Eta züek haurrideak, etxek eüskal ohidürak.

Irigoien

Ohore handia zaigü / zure bisita goxoa  
Arbasoen herrialat / ützüil dezagün gogoa.

Europaren etsenplüa / behar dügü Argentinan  
Gure jentarte osoa / laster joan dadin aitzina.

Lhande

Bi aldeetarik badügü / algarrekin ikastea  
Züek bil demokrazia, gük etxek züen fedea.

---

(1) Pierra Lhanderen ama Montevideon sortürrik zen, Uruguain, Rio de la Platako beste leihorean.

Elizako бүрүзәгiek / хүррүнтү naie bekaitzez  
 Зүен артеан lan emaitез / hirur urtez beren ustez.

Jaun horiek ez dakikee / zoin irus nizan зүекин  
 Maleruski fini diket / hiru hilabeterekin.

\* \* \*

## KANTA 8

### EUSKAL ARGENTINA

**Esperantxa gogoan**

**Hartüz itsasoa**

Argentinako zelai gozoan  
 Sartü arbasoa.

**Arrapika:** Bai, bai, bai, bai, bai,  
 Eüskal Argentina  
 Bi aberrien oritzapena  
 Eta batarzüna!

Arbasoaren haurrak  
 Hanixkatü dira  
 Laboraritik jin diktatürra  
 Eta Che Guevara.

Popülü bat girela  
 Besteak bezala  
 Ülün-argiekila normala  
 Ezagüt dadila.

Itsaso güti denez  
 Oraiko egünez  
 Gainti dezagün oi harremanez  
 Esküak emanez.

*(Bertset güziak bi aldiz eman)*

\* \* \*

## 19. JELKALDIA

*1933an Indian, jelki Mgr de Castro (Goako apezküüia) eta Lhande.*

Lhande  
 Frantses Xabierren ondotik, Indialako bidea  
 Hartü dit ustez hau zela / jinkotiarren lürraldea.

Ikusi dit berehala / heben dagoen miseria  
Eta bereziki nolaxe / bazter etxeki den «paria».

Horrez mintzatü behar dit / Mahatma Gandhirekila  
Horren aitzi sentorale / hartürik beitü makila.

Castro  
«Ezin hunkien» eskandala / Elizan ere badügu  
Kiristien artean ere / nahi dütüe baztertü.

Bestalde Mahatmaren gain / misionetako ez konta  
Ezpiritü zabala dü, bena zolaz hinduista.

Lhande  
Ikusten dit zoin neke den / hebenko elizalana  
Nihauk apür dit egiten, halere ahal düdana.

Beroa ez dit jasaiten, ez eta züen janaria  
Bena jo beti aitzina, gora Jaunaren loria!

Goatzan Xabierren hobiala, Jatsu hau zer eüskaldüna  
Iñigo handi da bena, Xabier dügu jaunen jauna!

\* \* \*

## 20. JELKALDIA

*Erditik jelki Gandhi eta Lhande, hau txapel koloniala esküan.*

Gandhi – Ez otoi bürühasik egon!  
Lhande – Zihau hala zira.  
Gandhi – Ni hebenko eki bortitzari üsatürik nüzü.  
Lhande – Bürüa gogor dit, eüskaldüna beniz...

Gandhi  
Indiaren libratzea / ez dizügu lan sinplea  
Ingalaterra bezain etsai / beitü barneko praubezia.

Korpitzentako gabezia, gogoentako ahülezia  
Egoisma, bortizkeria, kasten arteko nekezia!

Lhande  
Jesükristen Berri Honak / India berri dezake  
Jente güziak bardintüz, eman argi eta bake.

Gandhi  
Ber Jinko hona dizügu, gure sinesteak jünta  
Jesüs eta Mahometen / mezüa gurean txerta.

Indiaren altxatzeko, denen beharra badüğü  
Hinduisma zabal beita, hartan bat egin dezagün.

Sintesia bat ardietsiz, haren beitan bil gitean  
Kiristien propaganda / zatizale zait Indian.

Lhande  
Ber Jinko hona dizüğü, ez beita Jinko bat baizik  
Bena hinduista zira, eta ni aldiz kiristi.

Errespetü hanitx deizüt, bena ez dago indarrik  
Jesüsen oihüstatzetik / epantxatüko naüanik.

Gandhi  
Heinaren etxekitzea, hori düğü heben giltza  
Algarren errespetüan, denak aitzina gabiltza.

Lhande – Hortan akort nüzü  
Gandhi – Eiñherik ikusten zütüt.  
Lhande – Xüxen zinen, txapela ezarri behar nikezün: ekiak min egin ditazü...  
Gandhi – Ez ziteala hola egon, arta zite berehala!  
Lhande – Zaude bakean, behar dena eginen dit.

*Algar besarkatürrik, erditik badoatza.*

\* \* \*

## **KANTA 9**

### **FRANTSES XABIER ETA JATSUKOA**

Etxeberriko torreak / Leire zaintzen dü fidelki  
Joan de Jatsu, so egizü / etsaia denez ageri  
Oi Albret errege jauna, horra zizküzü gaiztoki  
Ordü deno goatzan arren / iparraldeat ihesi.

Joan de Jatsu zentü baiko, bi semeak dira jeiki  
Gaztelako lür armada / nafarrek Iruñean jaulki  
Bürüzagia kolpatü, Loiolako jaun Iñaki  
Erdi hilik Gipuzkoalat / eraman düe ximenki.

Hirugerrena den Xabier / Nafarroari nigarrez  
Parisera ikastera, Espainiari bizkarrez  
Han Iñakirekin bakez, Lagündi berrian apeztez  
Misioniste joanen zaigü / portüges kolonien trebes.

Japonian et(a) Indian / Ebanjelioa zabaltüz  
Eüskaldünen estimüa / ber gisan züan hedatü

Txinako mügetan hil zen / eüskaraz otoitzeginez  
Nafarroako patrua, eüskararena ber lanez.

\* \* \*

## 21. JELKALDIA

*1934ko bedatsean Radio-Luxembourg irratian, jelki Lhande eta kasetalari bat.*

Lhande

Fede güzien gainetik, denena dügü bakea  
Borontate honeko den / jente ororen xeda.

Etxe(a)n hasiko da bakea, bena nork ekarriko dü?  
Entzüle maitea zihauk / ereinetik jinen zaizü.

Kasetalaria

Kanpoko lanetik landa, non ediren behar dügü  
Ez balin badago etxe(a)n, erdia gihauren frütü?

Lhande

Kanpoan ere bakea, pazentziaren haurra da  
Bihotz eztien ezta, parkamenaren segida.

Bortizkeria bazter ütüz, lanari lot iraünkorki  
Nausikeriaz mesfida, hegalak ez ditzan ebaki.

Kasetalaria

Ürgüülüak astotzen dü, bürüngürüz ütsützen  
Ber gisan edanak eta / besta zozoak zozotzen.

Lhande

Iratzarri behar dügü, oi behazale maitea  
Kontzientziaren ehaile da / hotzean lo egoitea.

Laster Bazkora gütüzü ...

*Hitza galdürük, Lhande jargiatik erorten da hedailo. Eramaiten düe.*

\* \* \*

## 22. JELKALDIA

*Jelki Lhande jargia ibilkari batetan, serora batek egaririk.*

Lhande – (Eskü bat büriüala eraikiz)

Zer düt heben? Ezin mintza...hitzik ez horra...

**Serora – Orit zite, haurra zinen...**

Lhande – Bai ... ama...ama...Zalgize...Apphatia...Baiona...aita...Atharratze...  
(*Beso bat eraikiz*) Tintüra Borda!

Serora -Soizü, horra zaizü!  
Lhande - (*Esküa tinkatüz*) Esker mila!  
Serora – Ametsa lagün nezak...  
Lhande – ni Atharratzera  
Serora – Urte andana baten...  
Lhande – han igaraitera  
Serora – Orhiko txoriaren...  
Lhande – kantan behatzera  
Serora – Parka ditzan...  
Lhande – nik egin nigarrak  
Serora – Oi xiberotarrak...  
Lhande – aitzinean gora  
Biak – eüskaldün bandera!

Serora - Ikusten düzü, salbü zira!  
Lhande - Santa bat zira!  
Serora - Eta zü trüfale bat!  
Lhande - A hori ez!

*Biak erriz. Lhande emekiñi jeikitzen da, eta jargia lagün., badoatza.*

\* \* \*

## KANTA 10

### ENE SEMEA

*Jelki Lhande eta serora. Jargia ibilkarian etzanik, Lhande lo dago. Serora erditik badoa. Hortik jelki, xuriz bezi, Lhanderen ama zena, eta kanta.*

Ene semea, ützi züntüdan apezteko mezperetan (1)  
Ene ametsa bete zünüan, eta gaintitü ber builtan  
Eskerrik hanitx erraiten deizüt, berant handi batekilan  
Bena denbora zer izan daite betiereko bizitzan, betiereko bizitzan?

Ene beharra badüzü berriz eternitateko bortan  
Süstengatzera horra nitzaizü Holtzarte lazgarri hortan  
Franko sofritzen ikusten zütüt pena handiz bihotzean  
Kontsola zite, zurekin nüzü, beti zure saihetsean, beti zure saihetsean.

Bai Jinko honak gogoko zütü, zure hütsak ahatzerik  
Sofrikarioa jasan behar da, ezin baztertü delarik  
Bena Jesüsek zütü salbatü, sakrifizio bakoitxaz

---

(1) Pauline Lhande-Heguy 1909an zentü zen, Pierra 1910ean apezgoala heltü.



Hari lotzea baizik ez düzü, fedez, maitez, esperantxaz,  
fedez, maitez, esperantxaz.

Laster artino, seme maitea, lanoaren haraintian  
Argi betean jeikiko zira, herioaren bestaldean  
Han ez dükezü eki bortitzik, bena zohardi sotila  
Aita-amekin, haurriedekin, adiskide güziekila, adiskide güziekila.

*Ama badoa erditik. Berriz jelki serora. Lhande jarten da.*

Serora – Pausatü zira?

Lhande – Hanitx ontsa! Amets bat egin dit, ezinago ederra...

Serora – Biba zü!

Lhande – Ama jin zitazü kontsolatzera kantore hunkigarri batez.

Serora – Eta egiazki agertü bazaizü?

Lhande – Ber gaüza zitazü, ber gaüza, ama ikusi beität, eta kantan entziün...

*Badoatza.*

\* \* \*

### 23. JELKALDIA

*1948ko üztailaren bederatzüan, Mauleko Saint François (d'Assise) ikastetxean. Ostirale arrastiri hortan, ikasturtearen ürrentzea handizki ospatzen da, ikasle hoberener sariak emanez: libürü eder elibat bereziki. Zeremoniaren büriü dago Aita Lhande, 71 urteetan, lerden, bilo xuri, begi urdin, ümoretsü. Mintzaldi eijer eta hunkigarria egiten dü hor bildirik dauden ikasle, irakasle, familier.*

Lhande

Atharratzeko herria / nekez dizüt üzten

Bena Lextarre-Maulera, gogo honez nüzü jiten.

Saint François ikastetxean / egon nüdüzün ikasle

Haatik behin ezkapü, amaren gana joaile.

*(Ikasleek eskü-zartak)*

Amak beste gisaz hartü, eta zaharoa bildirik

Presaka gibel ekarri, bi zankoak berotürik.

Ez zazüela ihes egin, arrazu ükenik ere,

Ahal dena oro ikas, ez zaizüe dolütüren.

*(Aita-amek eta irakasleek txaloak)*

Ikasturte hau joanik, goretzi nahi zütuet

Sari elibat emanez, eta «opor hon» erranez.

Hortan üz-ziko zütüet, ele hütsez ase gabe

Aisa eifñhatzen niz eta / horrez dit hanitx herabe.

\* \* \*

## 24. JELKALDIA

*1949an, jelki Lhande makilari bermatüz, eta serora jargia ibilkaria erabiliz. Lhande laneko mahainari бүрүз jarten da, paper andana baten artean.*

Lhande

Süperriürak lan(a) emaiten deit, ausarki ene indarren  
Franko aitzinatürük düt, haatik ez düt ürrentüren.

Iñigo Loiolakoa / segürki süjet ederra

Bena ez nüzü heltüko / amets horren betatzera.

Hainbeste paper belztürük, eta ez jakin nola bil

Üko egin beharko düt, ezpiritüa zait erdi hil.

Serora

Aita Lhande zaude bakean, deitüko dit süperriürra

Ürgazle bat igor dezan / zure paperen biltzera.

Zure lan izigarria / laster ürrentüko dizü

Beharrena egin ondoan, orai pausatü behar düzü.

Lhande

Eiñherik nüzü lazgarri, eta kasik ezintürük

Betiereko paüsüa / zinez beitüt hüllantürük.

Jargian ützü.

\* \* \*

## 25. JELKALDIA

*1957ko apirilaren 14an Atharratzeko ospitalean, jelki Aita Lhande jargia ibilkarian etzanik, serora talde bat, Atharratzeko erretora, familia, aingürüak.*

Aingürüak

Haur maitatü bat izanik, dohain güziak ükenik

Zure ñapürra goitürük, hanitx badüzü emanik.

Jinko hona et(a) eüskara / zerbütatüz arraheinki

Mail gora bat hunki düzü, beti sinetsiz ümilki.

Beharpen lüze hori / pazentziarekin hartüz

Etsenplü bat eman eta / bihotza hunki deigüzü.

**Lhande**

Gurekin egon, gurekin Jauna

Orano dügün hitzegin ...

*Azken hatsa eman dü.*

*Serorak begiak zerratzen deitzo. Erretorak benedikatzen dü.*

*Jelki saldoa eta kanta (11.a).*

*Kantatü ondoan, Aita Lhande jargia ibilkarian etzanik eramanen düe.*

\* \* \*

## KANTA 11

### KANTÜZ

Kantüz sortü niz eta kantüz nahi bizi  
 Kantüz igorten düüt nik penak ihesi  
 Kantüz üken düdano zerbait irabazi  
 Kantüz gustüan düüt güziak iretsi  
 Kantüz ez düta beraz hiltzea merexi?

Kantüz igaran düüt gaü eta egünak  
 Kantüz ekarri düüt griñak eta lanak  
 Kantüz biltzen nütüan aldeko lagünak  
 Kantüz eman deiztaie obra gabe famak  
 Kantüz hartüko näia zelüko Jaun honak!

Kantüz eman üken (dü)tüt zombaiten berriak  
 Kantüz atseginekin erranez egiak  
 Kantüz egin beütüt üsü afruntüak  
 Kantüz aitortzen düüt ene bekatüak  
 Kantüz eginen düüt nik penitentziak.

Kantüz eginez geroz mündüan sortzea  
 Kantüz egin behar dü onsalaz hiltzea  
 Kantüz emaiten badeit Jinkoak grazia  
 Kantüz idekiko deit San Pierrek atea  
 Kantüz egin dezadan zelüan sartzea...

Kantüz ehortz nezaie, hiltzen nizanean  
 Kantüz ene lagünek hartürik airean  
 Kantüz ariko zeitzat lürrean sartzean  
**Kantü franko ütziako deiet mündüan**  
 Kantüz has ditean (ditin) beti nitaz oritzean.

*Hitzak: Jose Mendiague (Aldude 1845 – Montevideo 1937)*

*Müsika: G. Lerchundi, Belokeko beneditarra.*

\* \* \*

**AZKEN PEREDIKÛA**

Miraküilü bat izan zen / Pierra Lhande zalgiztarra  
Hastapenez Baionako, heltzean atharraztarra.

Bere jite aberatsa / zapatü gabe goitürik  
Zinez emankortü züan, indarrak artzainkatürik.

Ezin kontatüiak dira / haren obra bereziak  
Gütün, libürü, kazeta, peredikü, mintzaldiak.

Delako «banlieue» praubetan, obra honen aitzindari  
Horrek berak ezagüpen / ekar zeikeon Lhanderi.

Bere lanez eta famaz, txipi-handien gogoan  
Eüskara ezarri deigü / hartze düan handigoan.

Mahatma Gandhirekilan, bardinez-bardin mintzo zen  
Hein hortan ikus giniro / Indian ehortzi bazen.

Gazterik eritü beitzen, baratü zen gütitürik  
Gora-beheren artean, üsü kasik ezintürik.

Hogeita hiru bat urte / igaran züan sofritzen  
Hamahiru pe horietan, gero hamar Atharratzen.

Gizon handienen artean / lizateke hau non nahi  
Ülünpetik argialatzen / orai behar lüke hasi.

Eginbide hau beterik, züekila gozatürik  
Ützi behar zütüegu, bihotz oroz agurtürik!

\* \* \*

**KANTA 12****AZKEN KANTOREA: HERRIKOA**

*Üsantxaren arabera, antzerki hau emanen düan herriko norbaitek hontzeko  
üzten da.*

AITA LHANDE  
(Antzerkia)

***JAGON SAILA***



**EUSKARAREN LEGEA. 25 URTE EUSKAL  
AUTONOMIA ERKIDEGOAN**

**Euskaltzaindiaren XI. *Jagon* Jardunaldiak**

*Bilbo, Euskaltzaindiaren egoitza, 2007-XI-23*





## 25. URTEURRENEAN EAeko EUSKARAREN LEGEA HIZPIDE EUSKALTZAINDIK: KRONIKA

### KRONIKA

Euskaltzaindiak XI. *Jagon* Jardunaldiak egin zituen 2007-XI-23an Bilbo-ko bere egoitzan. «Euskararen Legea, 25 urte Euskal Autonomia Erkidegoan» izenburupean egindako jardunaldia izan zen, Sabino Arana Fundazioarekin batera antolatuta. Besteak beste, lege hori ondu zutenak omendu zituen bertan Akademiak. *Hizkuntza-zuzenbidea. Testu bilduma euskaraz* liburukia ere aurkeztu zen bertan.

Sabino Arana Fundazioarekin batera antolaturiko Jardunaldi horretan, eta 10/1982 Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legearen 25. urteurrenaren kariatara, arlo ezberdinetako hausnarketa bultzatu nahi izan du Akademiak: legea onartu zeneko giro historiko, sozial eta politikoa, bai eta ordu-tik hona euskarak izan duen garapena ere aztertu ziren. Azkenik, Euskal Herriko beste lurraldeen ikuspegia ere adierazi zuten Ipar Euskal Herriko eta Nafarroako ordezkariak.

Horrezaz gain, beste bi ekitaldi burutu ziren: batetik, Akademiaren *Jagon* Bildumaren 5. liburukia aurkeztu zen, hots, *Hizkuntza-zuzenbidea. Testu-bilduma euskaraz* izenekoa. Eta bestetik, Euskararen Legea ondu zutenei omenaldia eskaini zitzaien.



## **XI. JAGON JARDUNALDIAK**

«Euskararen Legea, 25 urte Euskal Autonomia Erkidegoan» Jardunaldiaren baitan parte hartu zutenek adierazitakoaren laburpentxoak dira jarraikook, alegia.

### **Jose Luis Lizundia**

Euskararen Legea onartu zeneko garaia gogora ekarri zuen Lizundiak bere hitzaldian: tramitazioa, alderdien jarrera, protagonistak. Legeak akordio zabala lortu zuela nabarmendu zuen. Era berean, prozesu hura bere testuinguru politikoan kokatu zuen. Legearen baitan aipatzekoak, Lizundiaren ustez,

euskararen normalizazioa alorrez alor garatzeko irizpideak, Nafarroarekin eta Ipar Euskal Herriarekin hizkuntzarekiko hitzarmenak egiteko adostasuna, Euskara Aholku Batzordearen oinarria, edota justizia arloaren ahulezia.

### **Joseba Intxausti**

Euskara ofizialtasunaren eremu historikoan kokatu zuen Joseba Intxaustik, legezkoa dela edo praktikoa dela. Ibilbide horretan, ofizialtasun erreala mugatu duten baldintza historiko sozialak aipatu zituen. Batetik,

«botere bateratzaile baten faltan, administrazio ezberdinek gobernatu dute euskal lurraldea; agintari zibilak bezala eliztarrak, bakoitza bere gisara ibili da hizkuntzarekiko». Bestetik, «euskara beste hainbat hizkuntzaren artean aurkitu da, eta lehia zailean».

Euskararen garapenaren mugarriak gogora ekarri zituen Intxaustik, XIII. mendean erromantzearen erabilera nabarmentzeko ahaleginetatik hasi eta 80ko hamarkadako instituzionalizazioraino. Tartean kokatu zituen ere Joana Albretekoaren hizkuntza-politika, Trentoko Kontzilio ondoko erreformak Iparraldera ekarri zuen euskara mintzatuaren nolabaiteko ofizialtasuna, XVIII. mendean larramenditarrek eta Euskal Herriaren Adiskideek aurreratutako lana, edota 1931ko Errepublikako Konstituzioak euskarari eskainitako babes juridiko gorena.

### **Gotzon Egia**

Gotzon Egia azken 25 urteotan zer nolako urratsak eman diren administrazioaren euskalduntze-prozesuan saiatu zen argitzen. Argi utzita ere, aipatu prozesua ez dela oinarritu duela 25 urteko Legean, 1997ko apirilaren 15eko Dekretuan baizik, administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.



## Anaje Narbaiza

Euskararen aldeko legeriak lanaren esparruan ere eragina baduela aitortuta, Anaje Narbaizak bere mintzaldian nabarmendu zuenez, horren gainetik ere eragileen borondate kolektiboa izango dela motore nagusia euskara sendotuz joango bada. Hori, kontuan hartuta, gaur egun oraindik gairiditzerik ez dauden oztopoak: legeria bera aintzat hartuta, euskararen lurraldea hiru eremu administratiboetan zatitua dagoela; eta euskararen garapena motela dela gaztelaniaren indarraren ondoan.

Dena den, aurrerabiderako pausoak eman direla adierazi zuen. 2007an, 150 enpresa aurkeztu dira (48.500 langile) Euskal Autonomia Erkidegoan euskara planak garatzeko deialdira. Ehuneko 1 baino ez dira, baina oinarri hori erdietsita, bere ustez, «une garrantzitsua da euskara laneko hizkuntza bihurtzera».

## Mikel Zalbide

Mikel Zalbidek hitzokian laburbildu zuen Euskara Legeak irakaskuntzan izan duen garapena:

urrun dago elebitasun funtzionaltetik. Horrek ez du esan nahi Legea agortuta dagoenik. Are gutxiago, euskararen aldeko emaitza hobekak ekartzeko formula adosturik eskueran dagoenik. Legezko zehaztapenez gainera bestelako adostasun-bilaketa soziokulturalak, bestelako konpartimentazio soziolinguistikoak eta bestelako aplikazio operatiboak behar dira horretarako. Azterkizun eta eginkizun dago hori, mende berri honen atarian. Hori gabe alferrik da EEN Legearen bertuteez eta berezko ezintasunez jardutea.

egitaraua	
10:00	Agurra Andres Urrutia, euskaltzainburua Juan Mari Atutxa, Sabino Arana Fundazioaren lehendakaria
10:00	Jardunaldiaren aurkezpena ANDRES INIGO, Jagon sailburua
Lehenengo zatia: <b>Legearen ikuspegi historiko, sozial eta politikoa.</b>	
10:20	JOSEBA INTXAUSTI, Euskararen Legearen aurreko euskal gizarteaz
10:50	JOSE LUIS LIZUNDIA, Euskararen Legearen sorrerako giro politikoa Moderatzailea: Andres Iñigo
11:20-11:30 Etenaldia	
11:30	Jagon Saileko V. liburukiaren aurkezpena
11:45	Euskararen Legea ondu zutenei omenaldia
Bigarren zatia: <b>Legea onartu zenetik hona, euskarak izan duen garapenaz.</b>	
12:30	GOTZON EGIA, Administrazioan
13:00	ANAJE NARBAIZA, Arlo sozio-ekonomikoan Moderatzailea: Manuel Ruiz Urrestarazu
13:30-16:00 Etenaldia	
Bigarren zatia (jarraipena)	
16:00	MIKEL ZALBIDE, Hezkuntzan
16:30	JULIAN BELOKI, Hedabideetan
17:00	ANDONI SAGARNA, Teknologia berrietan Moderatzailea: Ana Toledo
Hirugarren zatia: <b>EAEko Euskararen Legearen garapenaz Euskal Herriko beste lurraldeen ikuspegia.</b>	
17:30	SAGRARIO ALEMÁN, Nafarroarena
18:00	ERRAMUN BAXOK, Euskal Herri kontinentalarena Moderatzailea: Jean-Baptiste Coyos
18:30-19:00 Elkarrizketa	
19:00-19:10 Amaiera Ondorioak: Erramun Osa Agurra: Andres Urrutia eta Juan Mari Atutxa	

Beroren agerpenean, egindakoak eta oraindik bete gabe daudenak aipatu zituen. Maila formalean, bere ustez, ezagutza eta erabilera bultzatzeko arautegien onarpena aipatzeko da, eta hutsen artean, Irakasle Eskolaren trataera jorratu ez izana mahairatu zuen. Maila operatiboan, eredu bilakaera, irakaslearen prestakuntza, ikas-materialak, erabilera indartzeko ekimenak azpimarratu zituen, eskola-jardunak gizarte-jardunean txertatzeko beharra gogora ekartzeaz batera. Bere ustez, bada, egin Euskararen Legean jasotzen diren helburuak betetzea, ez da eskolaren erantzukizun bakarra.

## Julian Beloki

Julian Belokiren aburuz, Gernikako Estatutua mugarri izan zen baita euskarazko hedabideentzako ere. Aurretik gizartean agerikoa zen horren aldeko eskariari erantzunez, bere babespean sortu ziren *Euskadi Irratia* eta *Euskal Telebista*. Handik aurrera izan den garapenaz mintzatu zen bere berbaldian:

hogeita bost urteon buruan, ibilbidean, sustapenaren aldeko ekimen eta baliabideak nabarmendu dira, inolako zalantzarik gabe. Publikoak hein handi batean, baina baita pribatuak ere. Nolanahi ere, utzikerien, ezintasunen eta bete gabeko eginkizunen zakuak ere badu bere karga.

## Andoni Sagarna

Andoni Sagarnak azaldu zuenez, 1982an, hain zuzen, Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKTak) gure gizartean zabaltzen hasiak ziren, lehenbiziko ordenagailu pertsonalen bitartez. Orduetik hona bazter guztietan sartu dira eta bizitzaren arlo guztietan izan dute eragina. Denbora horretan

ehunka produktu sortu dira euskaraz, bereziki irakasmundurako eta gutxieste-koa ez den presentzia hartzen joan da euskara Interneten. Herri Erakundeek diru-laguntzen bidez bultzatu dute produktuen garapena. Aurrera begira, ordea, azertu beharra dago eredia. IKTetan euskarak duen lekua ez da Hezkuntza eta Kultura sailetako kontua soilik eta ezta diru-laguntza bidez soilik konpon daitekeena ere. Sail guztiek parte hartu beharreko gaia da, bereziki Industriak. Zenbait arlotan oso erronka gogorak datoz, esate baterako Osasun arloan, osasun-txartel digitalarekin eta historia kliniko digitalekin.

### Sagrario Aleman

Sagrario Alemanek Nafarroatik ikusten du Euskararen Legea. Berak esan bezala, «legea bera eredugarri ikusi izan dut Nafarroakoa egiteko. Zoritxarez, ordea, Nafarroakoa, hobetu ez, baina, txartu egin zuten, eredu izan zitekeen Lege honetatik urrundu, zonifikazioa ezarri. Ofizialtasuna Nafarroan eskualde euskaldunetan bakarrik izatea delarik normalizaziorako zailtasun eta oztoporik handiena».

Legearen garapenaz, hauxe azpimarratu zuen:

zerbitzu guztiak euskaraz eskaini nahi eta zerbitzu horietako lanpostuak betetzeko euskara ez dela derrigorrezkoa ikusi dudana bakoitzean amorrazioa sentitu dut.

Bestalde, Legearen garapenak zenbait jenderengan sortu duen ezinegona ikusita, kezkatu egin dela aitortu zuen.

Labur esanda, baina, onuragarria iduritzen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Euskararen Legea Nafarroan ere:

bai hizkuntzaren prestigioa eta balioa handitzean, bai euskarazko komunikabideak ikusi eta entzun ahal izateko aukeran, eta baita ikasketak euskaraz egin ahal izateko erraztasunean ere, Lege honek onura ekarri du Nafarroara.



## Erramun Baxok

1982ko Oinarrizko Legea Iparralderentzat eredu izan bazen, harez geroztik esparru mugatuagoan garatu dira euskararen aldeko aginpide publikoak. Koofizialtasuna bera onartzeke, aurrerapena beste bide batzuetatik etorri da, hala nola, mugaz gaindiko lankidetzatik.

Baionako Tratatuaren itzalean, baina, Erramun Baxoken esanetan:

badugu erakunde publikoen artean, mugaz-gaineko hizkuntza politika bateratua.

Xede nagusiak,

euskararen transmisioa, erabilera, kalitatea eta euskararen aldeko motibazioa.

Etorkizunera begira,

uste dut, eta azken inkesta soziolinguistikoak holako zerbait erakusten omen du, 1982ko legeak bermatzen duen lankidetzari esker, irabazten ari garela Euskal Herri Kontinentalean ere.

\* \* \*

## **HIZKUNTZA-ZUZENBIDEA. TESTU-BILDUMA EUSKARAZ LIBURUAREN AURKEZPENA**

Euskaltzaindiaren *Jagon* Sailaren Sustapen Batzordeak paratu du *Hizkuntza-zuzenbidea. Testu-bilduma euskaraz* liburuia eta Euskaltzaindiaren *Jagon* bildumaren 5. liburukia da. Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren laguntzarekin argitaratu da.

Hizkuntza-zuzenbidearen arloan nazioarteko testu garrantzitsuen bilduma eskaintzen du liburuak. Andres Iñigo *Jagon* sailburuak esan zuenez, «euskara ukitzen duen corpus juridikoa biltzea izan da lan honen xedea eta, ondorioz, han-hemenka eta hainbat hizkuntzatan sakabanatuak dauden gure hizkuntzaren erreferentzia juridiko guztiak euskaldunen eskura euskaraz jartzea».

Liburuaren atarikoan Andres Urrutiak, Argitalpen buruak, esaten duen legez,

ahots desberdinak, hizkuntza desberdinetan. Horregatik, hain zuzen ere, berebiziko ahalegina egin du oraingoan Euskaltzaindiaren *Jagon* Saileko Sustapen Batzordeak ahots eta mezu horiek, hizkuntza-zuzenbidearenak, euskaraz batzen eta biltzen, euskaldun orok eskura izan dezan hots horiek barruratzten dituen mezua.

Bilduma batera ekarri ditu Euskaltzaindiaren Sustapen Batzordeak egun euskarari bere herrialde guztietan aplikagarri zaizkion testu nagusiak. Ipar zein Hego Euskal Herrian, osterantzeko antolamendu juridikoen gainera, hizkuntza-zuzenbidea helburu duten eta aplikagarri diren arauak eta bestelakoak dira honen eramaileak.

Testu-bildumarekin batera, eranskin gisa, aurkibide analitikoak eta iturrien zerrenda ere eskaintzen dira liburukian.

\* \* \*

## **Omenaldia**

Aipatu liburuaren aurkezpenaren ostean, gorazarrea eskaini zitzaien duela 25 urte Euskararen Legea ondu zutenei, diploma bana emanaz. Andres Urrutia euskaltzainburuak, Juan Mari Atutxa Sabino Arana Fundazio-ko lehendakariak eta Patxi Baztarrika Jaurlaritzako Hizkuntza sailburuordeak, banatu zituzten egun horretarako berariaz eginiko diplomak. Diplomak hau dio:

Euskararen erabilera normalizatzeko 10/82 Oinarrizko Legeak 25 urte bete dituen honetan, lege hori ontzen aritu ziren andre-gizonak omendu nahi ditugu. Har ezazu diploma hau, egin zenuen lanaren aitortpen eta esker onez. Bilbon, 2007ko azaroaren 23an.

Hauek dira omenaldian izan zirenak: Inmaculada Boneta, Ramon Labayen, Jose Luis Lizundia eta Jose Antonio Maturana.

Ekitaldira etortzerik izan ez zuten Pedro Miguel Etxenike, Alberto Ansola, Alfredo Marco Tabar eta Jon Olabarria ere aipatu zituzten omenaldi horretan.

Azkenik, Joaquin Maria Aginaga, Santiago Griño y Rabert eta Jose Antonio Zaldúa zenduak ere gogoan izan zituzten.





## **EUSKARAREN LEGEAK 25 URTE EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN**

*Juan M<sup>a</sup> Atutxa Mendiola,  
Sabino Arana Fundazioko presidentea*

Eusko Legebiltzarreko Lehendakari-ohi jauna,  
Euskaltzainburu jauna,  
euskaltzain andreak,  
euskaltzain jaunak  
eta gure gonbiteari erantzun diozuen jaun eta andre guztiak.  
Egun on.

*Euskal Autonomia Erkidegoko Euskararen erabilera normalizatzeko Oinarrizko Legeak 25 urte beteko ditu bihar, azaroak 24. Sabino Arana Fundazioak argi izan du mende laurdena igaro ondoren geldiuene txiki bat egin eta atzerantz begiratzeko une egokia zela, gure fundazioaren leloak dioenez, «Atzokoan finkatuz gaur biharkoa bultzatzeko». Eginkizun horretan, berriaz, Euskaltzaindiarekin egin dugu bat, Erakunde honen jakituria eta esperientzia lagun, Legearen hogeita bosgarren urteurren oparoa ospatu guran.*

Legea onartu zen garaiko gizartea eta orduko giro politikoa aztertuko ditugu, lehenengo, eta, Legea eztabaidatu eta adostu zuten legebiltzar eta gobernuko kideei aitortza umil bezain hunkigarria egin ostean, Legearen babespean euskarak arlo desberdinetan izan duen garapenari begiratu arina emango diogu.

Lan-jardun oparoa gaurkoa. Mende laurdena, batzuentzat denbora asko izango da beharbada –Legearen babespean hazi diren gazte elebidunentzat, esaterako–, beste batzuentzat, berriaz, denbora gutxi, kontuan izanik gurea bezalako hizkuntza gutxituak berreskuratzeko, euskararen ezagutza zabaldu ez eze, euskararen transmisioa bermatu eta euskararen erabilera areagotu ere egin behar ditugula.

Euskararen Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-politikaren abiapuntu eta euskarria dugu; ondoren, arlo desberdinetan garatu diren dekretuen garapenerako oinarria, alegia. Euskararen normalizaziorako ezinbestekoa da erakunde ofizialen ekimena, duda barik, baina ez da bakarra; izan ere, ekimen ofizialarekin batera, ekimen soziala eta ekimen pertsonala ere behar

izan ditu. Gaurko saio honetan, hortaz, ekimen ofizial, sozial eta pertsonal ugari zehatzago ezagutzeko aukera izango dugu; erakunde publikoen lana, talde-lana eta pertsona bakan askoren lan isilaren emaitza. Hiru lan motak beharrezkoak, zein baino zein beharrezkoagoak.

Aurreratu zaizuenez, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparrua izango dugu aztergai, baina ez ditugu Iparralde eta Nafarroa ahaztu. Lurralde baterako eraginkorra den Legea ondoko lurraldeetan ere eraginkorra izan daitekeelakoan, euskararen lurralde eremu guztietako ahotsak entzun gura izan ditugu hemen; eta eraginkortasunik izan den eta, izan bada, zenbaterainokoa izan den, bertoko adituek adieraziko digute.

Gaur, ostera, bakoitza bere zereginetan euskararen alde lan egin dutenak dira benetako protagonista; sarreratxo hau egin ondoren Jardunaldion aurkezleari ematen diot hitza, beraz. Eskerrik asko, bertoratu zareten guztioi.

## **EUSKARAREN LEGEA. 25 URTE EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN**

### **Euskaltzaindiaren XI. *Jagon* Jardunaldiak**

*Andres Iñigo, Jagon Sailburua*

Hogeita bost urte edo zilarrezko ezteiak epe seinalatua izaten dira ospakizunetarako batik bat. Bihar 25 urte beteko dituen Euskal Autonomia Erkidegoko Euskararen Legeak ere halako ospakizun baterako motiboa ematen digu, zer erranik ez. Hala eta guztiz ere, festa algaran ospatzeko arrazoiak izanagatik, bertze gisa bateko ospakizuna egitea erabaki du Euskaltzaindiaren *Jagon* Sailak Sabino Arana Fundazioarekin batera antolatutako egun osoko ekitaldi honetan, alegia, 25 urte hauetako ibilbidearen inguruko hausnarketa, gogoeta eta balorazioa egitea.

Euskaltzaindiaren *Jagon* Sailaren zioetako bat euskararen inguruko gogoetak egitea da. Horretan aritu da azkeneko urte hauetan, erraterako, 2002tik 2005era egindako lau jardunaldietan *Eliza eta Euskara* gaiari eutsi zionean, eta iaz *Europar Batasuneko hizkuntza aniztasuna eta euskararen hizkuntza politikak* gaiaren inguruan egindako hausnarketan, eta horretan aritu nahi du gaurko ekitaldi honetan ere.

Erran bezala, 25. urteurrena aprobetxatu nahi izan dugu Jardunaldi honetan parte hartzen duten guztien hausnarketaren bitartez Euskararen Legearen eragina aztertzeko, gogoeta denen artean eginez, hemendik aitzina egin beharkeoa ere denen artean ahalik eta hobekien asma dezagun.

Hasi aurretik, Euskaltzaindiaren *Jagon* Sailaren eta Sabino Arana Fundazioaren izenean eskerrak eman nahi dizkizuet, gure gonbita gogotik onartuz, bai prestatu dituzuen txostenak denen aitzinean aurkeztera etorri zaretenoi, bai eta Jardunaldi hauetan parte hartzera hurbildu zareten guztioi.



## **EUSKARAREN OFIZIALTASUNA: zenbait aurrekari historiko**

*Joseba Intxausti*

**0.** Beren adiera zabalean, hizkuntzen ofizialtasunek historia luzea izan dute munduan, batzutan legezatasun osoz aitortuta, bestetan halakorik ezagutu gabe baina ofizialtasun praktikoa dutela. Euskararen iraganak ere bi molde horietako ofizialtasunak bizi izan ditu: adiera zabaleko zenbait izaera ofizial mintzatu eta idatzi, eta XX. mendean, bere adiera hertsian, baita legezko ofizialtasun funtzioan itza ere (Euskadi 1936; Euskadi 1979, Nafarroa 1982).

1979ko Euskadiko Estatutuak aitortu eta 1982ko Erabilpen-Legeak garatutako ofizialtasuna da gure hizkuntzaren historian izan dugun legezko ofizialtasun-esperientziarik aberatsena; horregatik ere, ez dago batere lekuz kanpo *Euskararen erabilpena arauzkotzeko Legea*-ren 25. urte hau ospatzea.

Hizkuntzaren ofizialtasunaren hau botereen eta gizarteko hitzunen arteko elkarrizketa-esparrua da, usarioz edo legez bideratu izan dena, betiere hizkuntzen presentzia soziala arautzeko. Erakundeek beren baitan nahiz beren eskutik dituzten eremuetan hizkuntza jakin bati zein erabilera-eskubide eta betebeharrak aitortuko dizkioten legez erabakita uzten du ofizialtasunak. Ofizialtasun-aitorpenak, gutxienik, estimu- eta sinbolo-balioa du, baina jeneralean Erakunde ofizialetarako erabilpen-eskubideren bat behintzat ezagutu eta eman ohi zaio hizkuntzari, holakoetan. Dena den, ofizialtasunak gisa anitzetako aurpegi juridikoak har ditzake, eta era bertsean, ondorio praktikoa guztiz ezberdinak izan, arrazoi historiko, sozial, erlijioso, politiko edo kulturalengatik.

Hemen orain oroitzen gabilzanek, zilegi bedi azken urteetako horren aurrekari historiko zenbait gomutaraztea. Nik zortzi une edo abagune historiko hautatu ditut, aski esanguratsuak direlakoan:

1. XIII. mendea.
2. Ernazimentua, Erreformak.
3. XVII.eko zenbait gertakari.
4. Euskal Herriaren Adiskideak.
5. Frantziako Iraultza eta ondokoak.
6. Karlismoaren eskea.
7. Eusko Pizkundea.
8. Frankismoko parentesia.

Saiatuko naiz albiste gutxi ezagunak biltzen, baina, bistan da, euskararen historian oso ezaguna den eta neuk ere bestetarako erabili izan dudana hainbat

datu ere lagungarri izango da ofizialtasunaren hau ikusteko. Barka bekit, beraz, errepikapenik balego.

**1.** Hizkuntzen ofizialtasunaren hau gaurkotasun handikoa da munduan, Europan bezala Afrikan, Asian bezala Amerikan, Estatu Batuetan bezalatsu Txinan, frankofonian legez anglofonian edo arabofonian. Eta gisa ezberdinetan, eta egoera desberdinei erantzunez ari da hori gertatzen.

Elebakartasun ofizios edo ofiziala erabat nagusia zen zenbait Estatutan, norabide kontrajarriko erabakiak hartzen ari dira, batzuetan lehengo egoera zurruntzeko (Frantzia: Konstituzio osaketa frantsesa ofizial bihurtuz, 1992an, eta Toubon Legearekin blindatuz, 1994an), edo historia luzekoren batean egoera berrietara moldatzeko (Txina, 2000), eta inoiz edo beste, hizkuntzagutxiengoekiko estimua agertuz (partez Brasil, eta tentuz, Argentina). Bere garai berrietara egokituz, Hego Afrika dugu, beharbada, irekitasunik handiena erakutsi duenetako bat (11 hizkuntza ofizial). Europar Batasunean 23 omen ditugu jada, Estatu ezberdinetan lehendik ofizialak zirenak, eta gehiago izatekotan omen gara.

Hau dena oso berrikitan gertatzen ari den zerbait da.

Kasuan kasuko lehenengo ofizialtasunak eta ondoko egokitzapen berriak eten gabe ari dira gertatzen. Inoiz ofizialtasun finkatu hertsi batetik hasita malgutasun eta eleaniztasun berrietara pasatzen ari dira lege-politika hauek. Eta, bada kasurik, garai batean legezko ofizialtasunik ezagutu gabeko herrietan hain zuzen, hizkuntza nagusiaren mesedetan legezko ofizialtasun elebakarraren bandera hartu nahi dutenena edo hartzen ari direnena (Iparramerikako ingelesaren kasua).

**2.** Labur-beharrez esateko, euskararen ofizialtasuna estaturik gabeko hizkuntza baten historia izan da. Horretan, ez du antzik, adibidez, XIII-XVIII. mendeetako katalanaren historiarekin, edo Portugalen bere Estatua aurkitu zuen galizierarekin, Penintsulako bi kasu ekartzeko.

Bere iragan ofizialean/ez-ofizialean baldintza ezagunak izan ditu euskarak, zinezko ofizialtasun posiblea edo erreala baldintzatu dutenak. Mota ezberdinetako baldintza sozio-historikoak ezagutu ditugu gurean.

- Botere bateratzaile jakin baten faltan, Administrazio ezberdinek gobernatu dituzte euskal lurraldea eta gizartea: horretan, ez dugu batasunik izan, agintari zibilak bezala eliztarrak, bakoitza bere gisara ibili da hizkuntzarekiko honetan.
- Batetik, Nafarroa, Hiru Probintziak eta Iparraldea beren Herri-Erakundeekin; bestetik, Eliza, gutxienez 10 Diozesitan banatuta, bere Ordena eta Artzapezpikuteגי ezberdinekin; eta ezin da ahaztu Eliza Erreforma-tua (XVI-XVII. mendeak).

- Euskara beste hainbat hizkuntzaren artean aurkitu da, eta lehia zailean: latina eta erromantzeak batez ere, bertakoak eta ingurukoak, bakoitzak bere botere-antolamendua duela, hiztun-indar eta kultur baliabide ezberdinekin.

**3.** Mendeak iragan ahala, abagune historiko ezberdinak sortu zaizkio euskarari, erromatartzetik hasi, kristautzea bizi, Erdi Aroko mundu erromani-koa (erromantzeak) ezagutu, Aro Modernoko une jasoenak ikusi (Ernazimenua, Erreforma erlijiosoak, Argiak), eta Aro Garaikideko arazo hurbilagoetan murgildu arte.

**3.1.** Hasteko, gure oroimen bizian nahikoa isilik pasatu izan den XIII. mendea gogorarazi behar dut, hizkuntzen ofizialtasunarekin zerikusi zuzena izan zuen aldakuntzaren lekuko izan baitzen mende hura.

Penintsulan, Herri-Administrazioek erromantzeak hobetsi zituzten bere zereginetarako, eta erortzen utzi lehendik indarrean zegoen latina. Egokiera hartan, ordea, bazterrean geratu zen euskara, bizitza idatzirik gabe. Errazagoa izan zen, nonbait, latinetik erromantzerako jauzia, euskarara egin zitekeena baino.

Hala ere, gogora daiteke hemen, ordukoa dugula Merino Urrutiak Errioxa Goieneko Ojacastron aurkitutako lekuko hura, hango herritar euskaldunei epailearen aurrean euskaraz hitz egiteko eskubidea aitortzen zien epaia (c. 1237). Fernando III.a Gaztelako Erregeak onartu zuen epaia.

Hain zuzen, Fernando III.aren urteetan (1217-1252), Erret Gantzileriak biziki lagundu zuen gaztelania Administrazioan sartzen, latina utziz zihon bitartean. 1240.ko hamarkadan erret bulegoko agiritako %60ren bat idatzi zen gaztelaniaz. Erromantzearen aldeko ahalegin hartan, Alfontso X.ak, Fernandoren semeak, eman zuen urrats erabakigarria (1252-1284), Gantzileriako dena eman baitzuen gaztelaniaz, eta beste Erreinueterako agiriak bakarrik idatzi ziren latinez handik aurrera.

Euskal Herria ez zegoen erabaki politiko haietatik urrun; alderantziz, hemengo herrietara zetozen erret agiriak gaztelaniaz etortzen hasi ziren, kasik bat-batean (1252-1256). Gure udal artxiboetan gorde diren paperen artean ikus daiteke hori. Elgetan, adibidez, 1217an latinez gorde zen Gasteizerakoa zen erret agiri bat (bide-sariei zegokiena), baina 1254an gaztelaniara itzulita ageri zaigu hori Elgetan bertan. 1237an Erreneriako Forua latinez berretsi baldin bazen, Artxibo hartako hurrengo agiri denak gaztelaniaz aurkituko ditugu, eta abar.

Gure herritarrak ohartu ote ziren Administrazio idatzian gertatutako aldakuntza hartaz? Zer pentsatu eta erabaki ote zuten horren berri izandako esbri- bauek? Eta herrietako handikiek? Badakigu, erret Gantzileriaren aldakuntza-erabakia Gaztelako zenbait herrik halaxe eskatuta ere gertatu zela. Ez dakigu hemengoek ezer eskatu zutenik.

Eta Nafarroan, Erreinu beregaina eta aski euskalduna zen hartan nola joan ziren urak? Garaiz hasi ziren Erregeak erromantzeak erabiltzen. Antso Azkarrak (1194-1234) bere agirietako %20 erromantzez eman zuen. Tibalt I.ak (1234-1253), ostera, 1244tik aurrera dena idatzi zuen erromantzez, bere aurreko urteetan erdiak bakarrik eman zituen arren (1234-1244). Artean, ohitura hau ez zen erabat iraunkorra gertatu, baina bidea erakutsita geratu zen geroagoarako.

Gaztela eta Nafarroako politika ofizial praktikoa, ondoko mendeetako kultur garapen idatzirako eta euskal Administrazio osoarentzat, kontrako erabaki larria gertatu zen, euskararen ofizialtasun idatziari apenas lekurik utziko ziona.

**3.2. Hurrengo abagunea Europako haize berriek ekarri zuten: **Ernazimenuak** eta **Erreforma erlijiosoek**.** Hark ernaldurik, euskal literatura jaio zitzaigun Etxeparerekin, baina Administrazioaren «plazara»sobera begiratu gabe. Elizan, gure ofizialtasun-arazorako garrantzizkoagoak izan zitezkeen eliz agintari erreformazaleak (Zumarraga, Luku, Ignazio Loiolakoa), Erreforma protestantea, Nafarroa Beherean berorrekin lotuta ageri zaizkigun Joana Albretekoaren hizkuntza-politika eta Eliza Erreformatu kalbindarrarena (1560-1572).

1530-1570. etako urteetan gure euskal gizartean hizkuntzarekiko ageri zaizkigun gertakari adierazgarri batzuk azpimarratzeko aukera ez nuke galdu nahi. 1539an Iruñeko Kalonjeek Gotzain euskalduna eskatu zuten; bi urte lehenago Zumarraga Gotzaina etxekoei euskaraz idazten zebilen; 1545ean Etxepareren mirari bibliografikoa dator, eta urte berean ama euskaldun baten semea Kalahorrako Gotzain izendatzen dute: ordurarte ez bezalako ardura jarri zuen J. B. Lukuk, Diozesian predikua euskaraz egin zedin. Gotzainaren eta San Ignazioren artean izandako gutun-harremanetik ezagutu ahal izan dugu euskarari Elizan zein leku eman nahi zioten Luku eta Ignazio Loiolakoak (1545-1552): jesulagun euskaldun ugari (*vascongados* bezala aipatuak) bidaltzeko eskatu zion behin eta berriz Lukuk Ignaziori, «para que se pudiesen enviar predicadores y confesores por la Provincia y por el condado de Vizcaya» (1551). Lazarraga ere sasoi hartakoa dugu (1567).

Trentotik etorri bezain laster Sinodo bat bildu zuen Lukuk Gasteizen (1553). Zoritzarrez, Sinodoko Arauak argitara eman (1555) eta berehala hil zen Gotzain erreformazalea (1556), luzaroago bizi izan balitz, agian Kalahorrako Diozesian hizkuntza-politika berria bideratu ahal izango zuen kanonista handiak.

Ordena erlijiosoek ere arduratzeko arazoa gaia zuten, nonbait, euskararena, zeren eta –gaia oraindik aztertzeko badago ere– badirudi bi aldeetako elebakartasunak (Gaztela/gaztelania, EH/euskara) zerikusiren bat izan zuela frantziskotarrek beren Probintzia erlijioso berria eratu zutenean (1551). Eta, nolanahi ere, Gipuzkoako komentu berriak eraikitzean, predikari euskaldunak egotea izan zen fundaziorako baldintzetako bat (Arrasate, 1582), edo batez ere fraidegai euskaldunak hartzea (Zarautz, 1747). Dena den, Kontrarreforma Katolikoa mantso ibili zen bere euskalgintzan.



Egoera hartan, beste Eliza batek hartu zuen erreleboa Iparraldean euskalgintza sustatzen: Eliza Erreformatu kalbindarrak. Kasu honetan, gainera, agintari zibilek eta eliztarrek bat egin zuten euskarari leku idatzi berria emateko. 1560ko Gabonetan, eta Th. Bèze-koarekin hitz-aspertu luzeak izan ondoren, Nafarroako Erregina Joana Albretekoak Erljio Erreformatu kalbindarrean eratu izan zuen Erreinuko Eliza. Erabaki horrek berarekin zekartzan eskakizun linguistiko batzuk ere.

Jada, 1556an, Joana Erreginak, Europan garaiko hainbat Erreinutan bezala, herritarren usuario zaharra gordez herritarren hizkuntzari bere zeregin administratiboa berretsi zion, hiru Estatuen eskeari erantzunez. Biarnon berria ez izan arren, zinezko aukera politikoa izan zen Joana Erreginarena. Frantziako Frantses I.ari, Joanaren osaba honi, Villers-Cotterêts-eko Ordenantzaren bidez frantsesaren erabilera ofiziala segurtatzea suertatu zitzaion bezala (1539), Joanak bere Nafarroako Erreinuaren biarnesari heldu zion, herri-hizkuntzari ofizialtasuna aitortuz. Erreformara pasatzean, indartu baizik ez zen egin erromantze biarnesaren hautapen hori. Eta euskararena ere logika berean etorri zen.

Erreginak eta Eliza Erreformatuko Sinodoek (Paue, 1563; Oloroe, 1565; Salbaterra, 1565, Nay, 1566; Lescar, 1569; Paue, 1573) erabaki eta lagundu zuten *Testament Berria* eta gainerako idazkien euskal itzulpena. Erabat ofizialki egindako lana izan zen Leizarraga eta lankideena.

Aurrera baino lehen, aipa dezadan –bide batez eta gehiago gabe– euskararen aldeko apologistika, erdarazko lanetan hain emankorra eta euskarazkoetan hain antzua, ideologia sozial jakin baten zerbitzuan eraiki zela (J. Mada-riaga). Oro har, ez dirudi ofizialtasunaren hau euskararen apologistei burutik pasatu zitzaienik.

**3.3. Hamazazpigarren mendeak** baditu, ofizialtasunaren eremuan, une interesgarriak: Trento ondoko Erreforma dago Iparraldean (Donibane-Sara), Eliza katolikoaren Sinodoak Hegoaldean, baina Elizatik kanpo, begiratzekoak dira Iparraldean Foru eta Erregelamenduetan emandako arauak, euskarari ofizialtasun mintzatua bederen aitortu ziotenak. Ordutik ezagutzen dugu, gainera, Bizkaiko Batzarretako zenbait gatazka-une, debeku-arau ofizialaren kontrakoak (1613-1633).

Euskal Literaturan ez ezik ofizialtasunari dagokion bide honetan ere Iparraldea da XVII.ean une interesgarrienak eskaintzen dizkiguna. Literaturaren loraldia ez zen gertatu boteredunek euskararen alde egindako saiorik gabe. Honetan, alde batetik Eliza eta eliz agintariak daude, eta bestetik batez ere Nafarroako Erreinuak indarrean dituen hizkuntza-politikarako arauak.

Donibane-Sarako idazle-taldea Diozesiko Gotzainaren laguntzaz eta, segur aski aginduz, ariko da euskarazko predikua eta idazlana oztzen. Bertrand Etxauz (1556-1641) da lehenik aipatu behar dena, Axularren adin berekoa

(j. 1556). Baionako Apezpikua izan zen mende hasieran, hogeitaz hamar urte luze (1598-1618), hainbat Gotzain erdaldun hutsen artean euskalduna bera. Izpegi Elkartek eskaini zizkion orain urte batzuk bere ikerlanak Etxauz-i (Baigorri, 1999), eta Villasantek gogorarazi zigun *Axular* liburuan Gotzain honen lekua.

Baionatik 1618an alde egin zuen Etxauz Apezpikuak, Tours-eko Artzapezpiku izendatu baitzuten, baina bistan da haren oroitzapena ez ezik itzala ere sumatu eta bizi izan zutela hemengo Lapurdiko apaizek. Irakurri besterik ez dago nolako estimuz mintzatzen zaion *Gero* liburuko sarreraren autoreak, hogeitabost urte geroago ere (1643).

Garai zailak izan ziren herrialde hartan Etxauz Baionan zegoela (sorginen pertsegizioan De Lancre hura, morisko etorri berriak,...). Nabaria zen bizitza pastorala indarberritzeko premia; orduan ekarri zituzten Ziburura frantziskotar errekoletkoak (gogora Materre), inguruko apaiz jantziaren bilera-leku eta beharbada eskola ere izango zena.

Pedro Agerre Axular-ek Etxauz-i eskaini zion bere «Gomendiozko Karta»: «Neure iaun maitea, ioan zatzaizkit lurretik, baiña ez gogotik, eta ez bihotzetik. Ez derauztazu iguriki», diotsa, hain zuzen *Gero* agertu baino bi urte lehenago hil baitzen Etxauz (1641), eta ondoko urtean Axular bera.

Jakina da halako aitzin-solas haiek aurreko mendeetan zer esan nahi zuten. Ohoratu nahi zenarekiko estimua, noski, eta sarritan ohoratuarengandik espero edo hartutako laguntza ekonomikoa, argitalpenak bere bidea egin zezan. Galde daiteke, hortaz, ez ote zion Etxauz-ek diruren bat jarri, Axular-ek luzaro eskuetan izandako obra kalera zedin? Esker ona dario alde guztietatik *Gero*-ko hitzaurreari, esker on pertsonala eta idazle-inguru oso batena:

eta iragaiten naizela aitzina, derradan hutsik egin gabe: Zer ere izkiriatuko baita euskaraz, hura guztia, euskaldunen buruzagi bezala, zuri dagotzula, zuri zor zaitzula.

Zalantzarik gabe apaizarte idazle saiatu baten esker ona da hau, Axular-ek aipatu zuen «konpainia on» harena, Sara-Donibaneko Eskolakoena. Talde honek Hierarkiaren laguntzaz baliaturik burutu zuen hain laudatua dugun idazlanketa hura. Baionako Elizak belaunaldi hartan emaitza onak eman zituen, euskara idatziaren tradizio oso bat abian jartzeraino.

Bestalde, Hegoaldean eta betiere erreformen bidean, XVII.eko Kalahorra-ko Diozesiko Sinodoen arauak (1600, 1621, 1700) zerikusituz zuzena izan zuten ofizialtasun berriekin, euskara mintzatuarekin (predikua), eta baita hizkuntza idatzi eta inprimatuarekin ere (*Que los Prelados hagan imprimir...*). Arau horrek gure ofizialtasunean berritasun bat zekarren, euskara ofizial inprimatua (aurreko dotrinaren bat ahaztu gabe: Eltso, 1561). Laster jakingo dugu zer bait gehiago handik aitzina Hegoalde-Iparaldeetako dotrina eta katiximen historiak, hori aztertzen ari baita Arana-Martija jauna.

Sinodoko hiru Arauren izenburuek zera zioten:

X. *Que los Prelados hagan imprimir cada año Doctrinas Christianas, en language acomodado à las Provincias.*

XI. *Dase forma de como se han de hazer los Cathecismos de Doctrina Christiana en Vazquence, para que pueda aprovechar en las Provincias Vazcongadas.*

XII. *Que en la tierra Vazcongada los sermones sean en Vazquence.*

Beraz, Kalahorrako Sinodoek lortu zuten, hasteko behintzat, hizkuntza mintzatu eta idatziaren arteko murru kasik zeharka ezina haustea. Alde horretatik, beste hainbat erabaki txiki eta handiagoren gainera jarri behar da Diozesi honen hizkuntza-politika hau.

Euskararen eliz erabilpena ez zegoen, ordea, garaiko Hierarkiaren ardurapean bakarrik. Izan ere, Ipar Nafarroako Foru-arauetan agertu zen Hierarkia katolikoari eskatzen zitzaion beste hau ere (1691): «Apezpiku jaunak, bere Diozesiko barrutian, euskara dakien Bikario Jeneral bat jarriko du». Hegoaldeko Diozesietan nik ezagutzen ez dudan araua da hau, nahiz eta agian hemen ere antzekorik egin izan zen (*receptores* edo «hartzaileak» hor egon ziren, behintzat, beste zeregin batzuetarako).

Bitartekari euskaldunen kezka hori bera are biziago ageri da Administrazio zibilar dagozkionetan (ikus Nafarroako Foruaren 1645eko edizioan). Notario eta epaitegietako funtzionario izateko ezinbestekoa zen, Foruaren arabera, herriko hizkuntza ulertzea. Lege ondoko erregelamenduek ere berretsi egin zuten hori: «Argibide-itaunketak, inkestak eta prozedurak euskara dakiten funtzionarioek egingo dituzte», dio arau batek (1691).

Euskaldunei (elebakarrak zirenak, izan ere, gehienak) euskaraz entzun behar zitzairen. Eskubide hori defendatu zuen A. Oihenart politikari, idazle eta historialariak Luis XIII.ari Donapaleun Senaskalia edo Epaitegia jarri zedila eskatu zionean (1639), izan ere «batez ere pobreek euskara baizik ez baitakite eta ez baitute besterik ulertzen». Esaldi hau (Oihenartek bere eskarian emandako arrazoia, noski) Erregek bere agirian jaso zuen hitzez hitz, Epaitegia Donapaleu-ra lekualdatzeko argudio bezala.

**3.4. Hegoaldeko XVIII.lean** bi gertakari nagusi izan ziren ofizialtasun idatzi eta mintzaturako bidea irekiz ezaketenak: *corpus*-aren gain larramenditarrek egindako lana (1728...) eta euskararen alde hedatutako ideiak, alde batetik (Kardaberaz, 1761), eta Euskal Herriaren Adiskideak, bestetik, behar bada ofizialtasunen bat lortzeko abagunea izan ezaketenak, nork jakin (1765...).

Euskal Herriaren Adiskideena erakargarria gertatzen da hemen, ofizialtasunerako historia honetan.

Adiskideen artean, euskarari buruzko jarrera eta burubide pertsonal ezberdinak suma ditzakegu: hasteko, batzuk euskaldunak ziren hizkuntzaz, besteak ez; batzuek hizkuntzen eta euskararen balio kulturala aintzakotzat hartuta zeukaten (Munibe), baina egon zen horretan bestelako iritzirik izan zuenik ere (Foronda); kasuren batean edo bestean, euskal idazle ere izan ziren (Munibe, Ubillos, etab.). Horrela, bada, burubide pertsonal horietan ez zen egon Elkartean batasun eta berdintasunik.

Adiskideek leku eskasa eman zioten euskarari beren agerpen publikoetan; baina horrek ez du esan nahi Adiskideen Elkarreak, jaiotzean (*Reglamento para los Alumnos* hartan, 1766) euskara gogoan hartu ez zuenik, irakas-egitarauan baitzegoen euskara eta euskal literaturarena ere. Baina asmo hori ahulduz joan zen ondoko urteetan, segur aski desagertzera.

Dena den, gauza bat zen Bergarako Mintegiko lana, eta bestelakoa oso Euskal Herriko eskoletarako Adiskideek bultza zezaketen plangintza. Horrek hizkuntzaren ofizialtasunaren arazoa ukitzen zuen, horrela izendatu ez bazen ere.

Arazo honen inguruan eztabaida garrantza lehertu zen Adiskideen artean: espresuki egon zen arazoa mahai gainean, eta iritzia oso kontrajarriak gertatu ziren. Eskoletan euskal gramatikaz irakastearen kontrako jarrera erakutsi zuten Munibe, Narros eta Samaniego-k, adibidez, eta asmo horren alde agertu zen zenbait Adiskide arabar (Landazuri eta Egin, beharbada) eta Bergaran Oxirondoko Erretorea. Elkarteko zuzendaritzak hagitz gogor hartu zuen arbarren proposamena (1772), eta ez batere ondo Garitano Erretorearena (1775).

Adiskideek arrakasta ofizial eta sozial handia ezagutu zuten Espainian, eta Koroaren politikari lotu zitzaion Elkarrea. Euskararen eskolako ofizialtasunaren alde ez zuten jokatu nahi izan, edo ezin izan zuten horrelakorik egin; irabazitako estimu eta itzalak eraman zituen, beharbada, Koroak abiarazita zeukan hizkuntza-politika «argiztatuari» men egitera.

Erregimen Zaharreko ideologia linguistiko ofiziala ezaguna da (Frantziako eta Espainiako Bourbondarren jokabidea dut batez ere gogoan), eta era berean baita Despotismo «argiztatuak» Monarkia ezberdinetan ezarritako hizkuntza-politika ere. Izenak hor daude, aski hurbil: Pombal (1757), Aranda (1766), Lorenzana/Karlos III (1772), Campomanes, etab.

Testuinguru hartan, Adiskideek ez zuten indarrrik eta/edo gogorik izan euskararen aldeko ofizialtasun-borrokari heltzeko, eta ofizialtasun posible bakarra (Eskolari zegokiona, alegia) horrela ito zen. 1775eko *Proyecto de una Escuela Patriótica* delakoak ez zuen aipatu ere egin euskara, baina bai gaztelania, latina, frantsesa, italiara, alemana eta ingelesa (K. Larrañaga).

Etxeko gogo eta asmoa baino indartsuago agertu zen Despotismo Argiztatuaren egitasmo politiko-kulturala, Frantziako Iraultzaren bezpera hartan.

**3.5.** Hegoaldeko euskal literaturak (hizkuntza idatziak) bere urratsak eman zituenetik, **Frantziako Iraultzan** eta ondoko **Liberalismoan**, hizkuntzaren ardurak eske berriak ekarri zituen. Hori ageri zaigu Hegoaldeko Herri-Erakundeetan, zenbait politikari eta idazleren burutan, gure lehen liberalen artean bezala karlisten egitarauetan.

Frantziako Iraultzak bata bestearen segidako bi kapitulu kontrajarri izan zituen hizkuntza-politikan: herri guztiekiko adiskidetasun eta propagandarena, bata (1789-1793), eta boteretik herriak ongi lotzearena, bestea, horretarako eragozpen izan zitezkeen hizkuntzak baztertuz (1794...).

Frantzian Iraultza lehertzean (1789ko maiatza), burgesia eta herritarrek hartzen dute boterearen gidaritza. Hexagonoko eskualde eta herrietan ongi errotuta bizi zen diputatu askok, Parisera *Etats Généraux*-etara joandakoek beren eskualdeetako herritarrak ezagutzen zituzten, eta bazekiten hainbat hizkuntza erabiliz bizi zirela, diputatuak berak bezalaxe. Frantzia ez zen elebakarra, eta 1792an Errepublikak zituen 27,5 milioi bizilagunetako 12 milioi eguneroko bizitzan frantsesa ez beste hizkuntzez mintzatzen zela.

Horregatik ere, lehenengo epealdi hartan hizkuntzei leku ofizialen bat eman zitzaien: itzulpen-bulegoa jarri zen, agiri ofizialak itzuli eta zabaltzeko, eta herrietan eginkizun horretarako lankide trebatuak bilatu ziren. Horri esker, ezagutzen dugu euskarazko Iraultza-literatura. Horrela, bada, une hartan gure hizkuntzak, Hexagonoko besteek bezalatsu, ofizialtasun idatzi maila bat eza-gutu zuen, inprimatu ere egin zena (lege-testuak, afixak eta abar).

Baina Iraultzaren politika orokorra nahasten eta zitaltzen joan zen, arrazoi antizengatik: Frantzia barruko gatazkak, kanpoko erasoak, eskaintza iraultzaileen aurrean herritarrek erakutsi zituzten erresistentziak, borroka ideologikoen gogortzea, iraultzaileen arteko botere-banaketak, etab. Bestalde, Pariseko Komunak eta hiriburu hartako klub iraultzaileek beren hizkuntzaren bidez gidatu eta kontrolatu nahi izan zuten Frantzia, frantsesez .

Hortaz, hizkuntza-politika aldatu egin zen. Egia esan, bihurtune horretan Erregimen Zaharreko Bourbondarren hizkuntza-politikaren ildoari heldu zitzaion berriro. Frantzian frantsesak izan beharko du hizkuntza nagusia, bera da Iraultzaren hizkuntza, eta kontra-iraultza da herritarren *patois* horiek erabiltzen dituen...

Erregimen Zaharrean sekula ez bezala, Iraultzaren ideologia politiko-linguistikoak bere formulazio landua aurkituko du bigarren epealdi honetan, eta guztion oroimenean bi izen geratu zaizkigu batez ere: Abbé Henri Baptiste Grégoire (1750-1831) eta Bertrand Barère (1755-1841) jaun diputatuak. Txosten bana aurkeztu zituzten (1794). Lehendik, Grégoire-k ongi ezagutzen zuen Errepublikako hizkuntza-egoera, 1790-1792an egindako inkestaren bidez.

Zer pentsa daiteke gaur egun azken boladako hizkuntza-politika hartaz? Dagoeneko eginda dago aspalditxotik haren historia kritikoa (Certeau, 1975)

eta berrikitan eman zaio beste begiratu bat (Julia/Revel, 2002). Orain, frantzesaren historialari batek, Alain Rey-k, kupidarik gabe laburtu du Grégoire-ren inkestak eta politikak izan zuten xedea:

Hizkuntza-ugaritasunaren ezagutza berritua bizi izan zen Iraultzakoan, hain zuzen XXI. mendearen hasiera honetan «Frantziako hizkuntzak» deitu izan den horiena, baina berorien merituak goraiatzen ziren aldi berean zera ikusi ahal izan zen: botere-baliabide guztien bidez –botere politiko, ekonomiko eta kulturalen bitartez...– nola bilatzen zen hizkuntza horiek berak itoaztea, erasotzea, umiliatzea, deserrotzea...

Hizkuntza-politika hori izan zen ondoko urteetako Iraultzarena, eta, oro har, Argien eta Liberalismoaren arrastoan Frantzian bezala Espainian nagusitu zena, sarritan Boteretik errealitate soziolinguistikoa ukatzeraino (errealitate ezkutatu eta isilarazi), eta komeni zenean zigortuz ere (debekuak eta punizioa), ofizialtasunerako lekurik utzi gabe.

Politika hark, molde batez nahiz bestez, eraginik franko izan zuen gure artean ere, Gipuzkoan bezala Bizkaian, eta Bilbon ere (J. Agirreazkuenaga). Euskal gizartean norabide haien aurkako erresistentziak gero eta gehiago agertuz joan ziren XIX. mendean, eta ez kontra-iraultza bezala ikus zitekeen karlismoaren barruan bakarrik; aitzitik, gaztelaniazko elebakartasun ofizialaren aurka azaldutako **euskal liberalismotik** ere.

Horren adibiderik onena Foruen etorkizunaz eta Eskolaz arduratutako gure liberal moderatuena da. Badago aipatzeko izenik: ezagunena beharbada J. I. Iztueta (1767-1845: «euskara hilez gero, Foruak ez dira biziko»), baina baita bi eskola-gizonena ere: Luis Astigarraga, pedagogo eta politikaria (1767-1840) eta Agustin P. Iturriaga, apaiza eta pedagogoa (1778-1851). Eskolan euskarari leku ofiziala aitortzea da bi hauen guraria, eta horretarako beren Eskolak sortu zituzten eta eskola-lanetarako laguntza ofiziala eskatu eta lortu zuten Gipuzkoako Erakundeetatik. Ez luzatzearren, bien biografiez egin berri diren idazlanetara bidaliko nuke irakurle interesatua (Intxausti, Zalbide).

Liberal horien ondoan edo ondoren, partez bederen eskueran dugin Bizkaiko Batzarren XIX.eko berritasunak aipa daitezke hemen. Gaia eta berorien aurrekariak A. Urrutia, C. Gallastegi eta taldeak aurkeztu dizkigute, horretaz lekukoek diotena, Batzarretako Araudiak eta urtez urte izandako euskararen erabilera aurkeztuz (1833-1876). Euskarazko testuak ere eskueran daude orain, testu-bilduma zabal batean (1846-1872), azterketa juridiko eta filologikoak lagungarri dituztela. Uste dudanez, urte haietara arte ezagutzen den euskarazko testu-bilduma aberatsena da Bizkaiko Batzarren hau ofizialtasunen historian, eta Batzar liberalen eskutik datorkigu.

**3.6.** Esperientzia horren paretsuan edo, Hegoaldeko kontra-iraultza (J. P. Uribarri (1775-1845) eta **karlismoa** ere gomutarazi behar ditugu hemen. Euskal kulturaren bere lekua izan zuen karlismoak (López Antón), eta egon zen tradizio karlista horren barnean hizkuntza-politikarako unerik ere.

Zenbait karlistak iradokita, eskuetan zituzten Herri-Erakundeetan agertu zen proposamen ausartik, kasu batean behintzat ofizialtasunaren arazoa zuzen-zuzen aurkeztu zuena. Azken gerrate karlistan, Gipuzkoa eta Bizkaiko Herri-Erakunde karlistetan agertu zen hizkuntza-politika aldatzeko gogo nabarmenagoa (1874, 1875). Gipuzkoan eskola-eginkizunei begira batez ere, eta Bizkaian politika orokor zabalago baten proposamenarekin.

Bizkaiko Herri-Irakaskuntzako Batzordeak ofizialtasunaz zioena bereziki azpimarratzekoa da (1875). Testuak ez du ispliatzen beharbada karlisten pentsamendurik orokorra, baina balio du haietako batzuen irizpide politiko-linguistiko ausartak ezagutzeko. Ez da mugatzen eskola-kontuetara, eta begiratu zabalago batekin hizkuntzaren gizarteaz, euskararen ofizialtasun-mailaz eta hizkuntza-politika berriaren azken xedeaz ari da hitz egiten (V. Garmendia-ri zor diot aipua):

*De suma importancia bajo todos los conceptos es el cultivo del idioma que como el más rico de los tesoros tradicionales nos legaron nuestros mayores. En el honor de Vizcaya está el conservarla, cultivarla y perfeccionarla, generalizándola además por todos los ámbitos de su jurisdicción y haciéndola extensiva a todas las clases sociales, hasta elevarla a idioma oficial, en sustitución o al menos al igual del castellano que ha invadido hasta las últimas aldeas relegando al olvido y aun hasta el desprecio de ciertas gentes, la veneranda lengua euzcara, arrinconada y abandonada al uso rutinario de las últimas clases.*

*Por eso la enseñanza simultánea e igualmente esmerada de ambos idiomas entra en las patrióticas miradas de esta Junta.*

Ez dago esan beharrik garrantzi teorikoa eta politikoa izan zitzaketen ideia eta asmoen aurrean gaudela testu honetan. Nolanahi ere, hizkuntzarekiko kontzientzia politiko berri baten aurrean aurkitzen gara, nik uste; ausaz, euskararen ofizialtasun orokorraren arazoa mahai gainean jartzen duen horrelako lehenengo testua da berori, nik dakidanez.

**3.7.** Hizkuntzaren kontzientzia sozialak gora egin zuen, beraz, eta hizkuntza-abertzaletasuna gertatu zen hurrengo pausua, Arana-Goirik hizkuntza balio nazional bezala begiratzean, eta aitoren horretarako euskara hautatzean. Ideia hori gertatu zen euskaltzaletasun berrien motore azkarra, **Eusko Pizkundean** garatu eta hedatuz joan zena (1876-1936), ez noski erresistentzia eta kontrakorik gabe, eta betiere bakoitzak hizkuntza-politikarako asmo eta egitarauak bere gisara nabartuz.

S. Arana-Goirik (1865-1903) bere abertzaletasuna aldarrikatzean, pentsamendu eta zaletasun horretan txertatu zuen euskara ere. Euskara ikasi egin zuen, hainbat lan idatzi zuen euskarari buruz (*Gramática elemental del euskera bizkaino*, 1888, etab.), berari zor diogu neurri handi batean euskal pertsonaizen zerrenda berria (*Egutegi bizkatarra*, 1897; *Deun-ixendegi euzkotarra*, 1910: Iñaki, Jon, Joseba, Alazne, Miren, Jokifne...), herritarrek berentzat hartu dutena eta Euskaltzaindiak ere onartua.

Abertzaletasun sabindiarrak ez du izango, beharbada, bere nazio-balio nagusitzat hizkuntza; baina segurua da Arana-Goiriren euskararen aldeko grina bizia. Begira hogeita bat urterekin idatzitako pasarte hau (1886):

*El euskara es, pues, elemento esencial de la nación euskaldun; sin él, las instituciones de ésta son imposibles. La desaparición del euskara causaría irremisiblemente la ruina de aquella nación, que moriría como muere la hoja en otoño al ser privada por la naturaleza de la savia nutritiva.*

Azken karlistadaren ondoren, inoiz baino biziagoak ageri zaizkigu hizkuntza galduko denaren susmoa eta mina. Horren lekuko literario onak dira bata Bizkaitik datorrena eta beste bi Nafarroakoak: Arrese Beitiaren «Ama euskeriari azken agurra» (Elizondo, 1879), Campi3n-en biak, *Blancos y negros* eleberrian eman zuen Martiniko-ren historia (1896) eta Erraondoko danbolinteroarena.

Gerrate-ondo latz hartan (1876...) kulturari eta hizkuntzari eman zitzairen lehenetasuna, Euskal Herriaren nortasuna indartu nahiez edo. Horren emaitza izan ziren hainbat aldizkari (erdaraz lehenengo, euskaraz ere bai geroago), berorien inguruko taldeak, eta, azkenik, Erakundeak berak. Goraldi horrek bere urte jasoena 1918an izan zuen, hain zuzen lau Aldundiek Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia sortu zituztenean.

Euskal Herrian hizkuntzaren aldeko (edo kontrako) asmo politikoak gora eta gora eginez zihozzen bitartean, Espainiak ere nahitaezkoa zuen gaiaz iritzi eta jarrerarik izatea, XVIII. mendetik honako arrasto zurrun berean gaztelania bakarrik defendatzeko, edo alderantziz, Penintsulako hizkuntzei eta elebitasunei bide emateko.

Bi korronte hauen topaketaren historian katalanismoa izan zen gureari aurrea hartu ziona, eta Madrileko Kongresu eta Senatuan eztabaida bortitzena sortu zuena (1916), F. Camb3 *Lliga*-ko diputatu moderatuak katalanaren ofizialtasuna eskatzen zuelarik. Gaztelanismo linguistikoa historia egiten hasi gabe ere, gogora dezadan pasadizo hori.

Ez zen hura hizkuntza katalanaren arazoa Espainiako Gorteetan lehenengo aldiz eztabaidatzen zena, baina bai, uste dut, halako oihartzunarekin eta egitarau politiko oso baten barruan Espainiari hizkuntzaren ofizialtasun-arazoa aurkeztu zitzaion lehenengo parada. Katalanaren ofizialtasunerako Lege-proposamen bat aurkeztu zen orduan. Handik gutxira, 1918 aurreko euskal mugimendu politikoaren giroan, Camb3-k Donostian eta Bilbon ere bere egitarau politiko horren berri eman zuen.

Euskararen ofizialtasunarena bete-betean ageri zaigu handik aurrerako euskal autonomismoaren historian (1918-1936): jada isildu ezineko gaia zen, eta alderdi eta erakundeak berorren inguruko eztabaidara deituta aurkitu ziren. Arazoa ez zen jada isildu ahal izan ez-ikusiarrena eginez, eta gaia ondoko Estatutu-Proiektu guztietan agertu zen.



Aukera zegoen bakoitzean agertu zen urte haietan euskararen ofizialtasunaren hori: Euskal Herriko eskariei erantzunez Gorteetan aurkeztutako Estatutu-Proposamenean (1918), Gipuzkoako Aldundiak «Directorio Militar» delakoari bidalitako Mezu luzean (1923), Eusko Ikaskuntzaren Estatutu-Egitasmoan (1931), Lizarrako Estatutu-gaian (1931), Iruñean udalek bozkatutako testuan (1932), Hiru Probintzietan plebizituz onartutako Estatutu-Proiektuan (1933).

Errepublika aldarrikatu ondoren (1931), Espainiako Konstituzionalismoaren historian lehenengo aldiz eraman zuten maila horretako Gutun Nagusira hizkuntzen arazoa; aurreko beste hamaika Konstituzioetan ez zen sekula horrelakorik egin, eta Penintsulako hizkuntzek aukera berri bat izan zuten II. Errepublikarekin. Kataluniarrek beren hizkuntzaren ofizialtasuna kendu eta bi mende geroago berreskuratzeko abagunea zuten, eta euskaldunek, berriz, euskararen historia luzean inoiz ezagutu gabeko ofizialtasun-maila izan zeza keten.

Gerra lehertuta gero, azkenik, hilabete batzuetan indarrean egon zen Euskal Estatutua (euskaraz, *Euzkadiren Berjabetasun Araudia*: 1936-1937), eta lehen artikulutik bertatik arautu zuen modu orokorrean hizkuntzarena. Erdarazko testuak (Espainian ulertu zutenak, alegia) hauxe zioen:

[...] *El vascuence será como el castellano, lengua oficial en el País Vasco, y, en consecuencia, las disposiciones generales de carácter general que emanen de los poderes autónomos serán redactadas en ambos idiomas. En las relaciones con el Estado español o sus autoridades, el idioma oficial será el castellano.*

Oinarrizko artikulua horren ondoren, ofizialkidetasun hori euskal gizartera moldatzeko arau-saila eman zuen Estatutu honek bere 7. artikuluan: «El País Vasco regulará la cooficialidad del castellano y el vascuence con arreglo a las siguientes normas», dio izenburuan. Azpimarratzekoa da nola Hiru Probintzietan Aldundien egitekoa zen eremu euskaldun / erdaldunen lurraldeak izendatzea, euskaldunek hizkuntzetan bata nahiz bestea libreki aukeratu ahal izango zuten, eta abar.

Bistan da 1936ko Estatutuak ez zuela legeztatu Euskal Herri osoko ofizialtasuna, ezta euskararen lurralde eta hiztun guztiena ere, baina aro berria ireki zion euskararekiko hizkuntza-politikari, berehala eten zena eta, hala ere, geroko belaunek berreskuratu dutena, Hiru Probintzietan eta Nafarroan (1979, 1982).

**3.8. Gerra ostean,** lehen hamarkadako deuseztapen ofizialaren ondoren (1939-1949), gizarteak burua jaso ahala (1950-1970), zirrikitu praktikoak behartuz edo joan ginen; baina hizkuntzekiko aldeko lege-izpirik izateko 1970a arte itxaron behar izan zen.

Gerrateak eta ondoko urteek ofizialtasun oro ezabatzeaz gain beste hainbat errealitate ezabatu zuen, erro-errotik gainera: 1930. urteetan euskararen alde ziharduena lagunarte kultural bizkorra preso edo erbestera joan zen, hemen gelditutakoek isilpera pasatu behar izan zuten. 1940an liburu bakarra

eman zen argitara Hegoaldean, dotrina bat, eta erdal ortografiara itzulia: *Cristau-Dotriña* (Gasteiz, 1940).

Hizkuntzaren aldeko Erakundeak (Eusko Ikaskuntza...), elkarteak (Jaungoiko-Zale, Kardaberaz...), aldizkariak (*Zeruko Argia*, *Euzkerea*, *Yakintza*, *RIEV* bera...), astekariak (*Argia*, *Ekin*...), euskarari lekuri ematen zioten egunkariak (*Euskadi*, *El Día*...) edo egutegiak isilaraziak izan ziren Hegoaldean, eta Euskaltzaindia bera ere negualdi luze batean sartu zuten.

Kultura idatzi eta ofizialtasunen ametsik gabe ere, nahikoa lan zuen euskaldunak bizitza arrunteko euskarari berean eusten. Ezagunak dira erreprezio hartako modu zail eta zitalak, hain zuzen ofizialtasun guztien kontrako bidea eraman zutenak. Pertsonen, enpresa eta kaleetako euskal izenak debekatu egin ziren, eta badago «agur» esatea bera ere debekatu nahi izan zuen tokiko ebazpenen bat (R. Sainz Iturria komandantea: Lizarra, 1936-09-25).

Bide batez gogorarazi behar dut, gainera, gerra gorrian geundela (1938ko abendua) estropezu txar bat egon zela Gobernu frankistaren eta F. J. Lauzurika Gasteizko Administrazio Apostolikoaren artean, hain zuzen elizako euskararen erabilera agintari zibilek beren gisara arautu nahi izan zutelako. Diozesiko hizkuntza-tradizio betidanik onartua eta Erregimen militar-falangistaren hizkuntza-proiektua aurrez aurre aurkitu ziren, Elizan indarrean zeuden ohituren aurka Gobernu eskua sartzen ausartu zelako.

Hiru hamarkada joan ziren ofizialtasunen bati legezko bidexka bat ireki zitzaion arte. Bien bitartean, bide praktikoa ibilgarriagoak bilatzen ibili zen euskal kultura (ikastola, irriariak, aldizkariak, liburugintza, kanta berria, bertsolariak...). Azkenik, 1970eko *Ley General de Educación y Financiación de la Reforma Educativa* delakoak zera jaso zuen bere testuan:

**Tit. I. Cap. II. Art. 14.** *La educación preescolar comprende juegos, actividades de lenguaje, incluidas en su caso las lenguas nativas [...]. Art. 17. 1.* *Educación General Básica. Las áreas de actividad educativa en este nivel comprenderán: el dominio del lenguaje mediante el estudio de la lengua nacional, el aprendizaje de una lengua extranjera y el cultivo, en su caso, de la lengua nativa [...].*

Bost urte geroago, erregimen frankistaren azken orduko bi Dekretuk (1975eko maiatzean eta urrian onartuek) ireki zuten bidea bestelako zabaltasun batekin lanean hasteko. Lehenengoak zioenaren arabera, xedea zera zen (*Decreto 1433/1975*, 30 de mayo): «la incorporación de las lenguas nativas en los programas de Educación Preescolar y General Básica», 1975-1976.eko ikastarotik aurrera. Eta bigarrenaren arabera (*Decreto 2929/1975*, 31 de octubre), «se regula el uso de las lenguas regionales españolas»: hauek espainiar ondare kulturaltzat hartzen dira, eta Estatuak babestekoak dira, hedabide eta argitalpenetarako legezko zilegitasuna aitortzen zaie, gaztelania da Estatu eta Herri-Erakundeetako hizkuntza ofizial bakarra, eta, azkenik, inor ezingo da baztertu eskualdeko hizkuntza bat ez jakin edo ez erabiltzeagatik.

Nabaria zen garai berrien atarian geundela 1975eko udazken hartan.

4. Zenbait azpimarraketa ofizialtasunaren historia honi egitea ez da guttiz lekuz kanpo egongo, nahiz eta honelako saiakera-lan batek behin-betirako ondorio asko ateratzeko lain indarrik ez duen.

Lehenik esan dezadan euskara hizkuntza ofiziala ere izan dela aurreko mendeetan, XX.aren aurretik. Hori bai, halakorik izan den bakoitzean galdetu beharra dago zenbateko ofizialtasuna izan duen, garai ezberdinetan, betekizun sozialetan, jarduera-sektoreetan, bere molde idatzi/mintzatuan, lurralde eta Erakundeetan, betiere aldakorra izan baita berori aipatu alde guztiotan.

Euskararen ofizialtasuna sakabanatua izan da, mundu zibilean bezala eliztarrean, gure gizarteetako Botere ezberdinak bezala. Ofizialtasun ezberdinen bidez, Aginte-Erakunde bakoitzak euskal hiztungoa bere gisara hartu izan du.

Botere horiek kanpotik baldintzatuak ageri zaizkigu beren hizkuntza-hautapenetan, sarritan iraunkorki gainera, eta oso zaila gertatu da hizkuntza-politikan ofizialtasunerako erabakiak erabat beregainak izatea, halakorik nahi izan den gutxietan ere.

Begiratzekoa da euskal gizarteko talde sozialak eta interesak nola mugitu diren hizkuntza balioestean, beroni betekizun ofizialik ematean, edo albara uztean. Aztergai argigarria gerta daiteke agintari eta agintearen zerbitzariak bitartekari-zeregina nola bete duten jakitea, Botere ezberdinen artean (Koroa, Batzarrak, etab.) ez ezik klase sozial ezberdinen artean ere.

Beti ondoan izan dituen beste hizkuntzekiko harreman sozialean lekutu izan da euskararen ofizialtasuna, hain zuzen ofizialtasunean aurrea hartu dioten hizkuntzekin lehian alegia; ofizialtasun hori ez da izan sekula ezer beregain isolatua, inguruak baldintzatu eta mugatua baizik.

Historia honetan galdetu beharra dago, gainera, nola sortu, garatu eta bizi izan diren euskal gizartean hizkuntzarekiko kontzientzia apalenetik aurrera agertutako sentiera, jarrera eta ideologiak, itxura guttiz garrantzia baitute ofizialtasunaren bilakaeran.

Nabaria izan da mendez mende hizkuntzarekiko oharpena eta gogoeta nola joan den loratzen, klase zuzendariengan lehenengo eta herritar arruntengan gero, azkenik abertzaletasunak balio nazional bezala eta autonomismoak arautu beharreko balio kultural bezala definitu eta egitarau politikotaraino eramane arte.

Ofizialtasunaren hau gai zabala da, eta ikerlan arretatsua beharko luke iraupen luzeko historian lekututa, Botere, politika, gizarte eta mentalitateen bidegurutzetik begiratuta. Lerro hauek horrelako zerbait iradokitzeak soilik balio izan dute, gehiago gabe. Etorriko ahal dira lan osoago eta helduak.



## **EUSKARARAREN LEGEAREN SORRERA**

### **Giro politikoa, koiuntura eta negoziaketa**

*Jose Luis Lizundia Askondo*

Eusko Jaurlaritzak 1981eko maiatzaren 11ko bilkuran onartu zuen Euskararen Erabilpena Oinarrizko Lege egitasmoa eta Eusko Legebiltzarrari aurkeztea, erakunde parlamentarioak azter zitzan. Esan behar da, Legebiltzarrean jadanik proposamen bat izan zela Talde Mistoaren izenean, Roberto Lertxundik aurkeztua baina, egia esan, beronen arreba Isabel euskaltzale eta irakasle trebeak prestatua, lozorrotan zegoen Lege Egitasmo hori bizkortzeko. Legebiltzarreko hurrengo hilabetean, hots, ekainaren 10ean, Parlamentuko Mahaian onartu genuen Lege Egitasmo horren tramitazioa martxan jartzeko prozedura, Talde Parlamentarioei zuzenketa eta aldaketak proposatzeko 15 astegun emanaz.

Ondorioz, sei zuzenketa izan ziren, kronologikoki honela banatuak: Alianza Popularrak bi osoko zuzenketa, Egitasmoa Gobernura berriz itzultzea eskatuaz. Euskadiko Ezkerrak 60 zuzenketa aurkeztu zituen, baina artikuluz artikulua eta ez Egitasmo osoari. Socialistas Vasco taldeak 26 zuzenketa. Euskadiko Partido Komunistako Juan Infante parlamentariak 11 zuzenketa. Esan behar da garai hartan Herri Batasunak ez zuela bat ere parterik hartzen Legebiltzarrean. Hamabostaldia igaro eta gero Hezkuntza eta Kultura Batzorde Parlamentarioak Lege hau aztertzeko ponentzia bat izendatu zuen, boskote honek osotua: Alberto Ansola Maiztegi (PNV), Hezkuntza eta Kultura batzordeburua; Jose Luis Lizundia Askondo (EE), Hezkuntza eta Kultura batzordeburuordea; Joaquin Maria Aginaga Torrano (UCD), batzorde idazkaria; Jose Antonio Maturana Plaza (SV) eta Juan Infante Escudero (Taldea Misto). Azken hau, Talde Misto eta EPK utzi eta EEra pasatu zen, handik lasterrera, ondorioz, Santiago Griñó, hau ere Talde Mistoko, baina APkoa, sartu zelarik ponentzian.

Prozedura guztia nola joan zen zehaztea astunegia litzateke, oso luze joan baitzen. Tartean Eusko Jaurlaritzako Carlos Garaikoetxea Lehendakariagandik Legea negoziatzeko agindua hartu zuen PNV talde parlamentarioak. Lehendabizi, EE taldearekin eta, gero, beste biekkin. Hala egin zen eta gogoratzekoa da eta horretan Pedro Miguel Etxenike Hezkuntza sailburuak eta Ramon Labaien Kultura sailburuak, nik baino gehiago jakin dezakete, nola atzetik «Izpiritu

Santu» bat izan zen, Koldo Mitxelena euskaltzain osoa, garai hartan beraien alderdikide zena. Beharrezko ikusten zuen erreteriar euskaltzain-irakasleak Lege hori ezin zela atera egitasmoa Gobernuak aurkeztuta zegoen bezalaxe, baizik eta ahal zenik eta akordio handi batera iritsiz. Esan behar dut horretaz nirekin behin baino gehiagotan hitz egin zuela, ondo konpontzen baikin, ez bakarrik Euskaltzaindikoko lanetan, baita ere horrelako arazoetan, alderdi diferentziak mantendu arren. Urrun ikusten zuen gizona zen Mitxelena jauna eta euskalari ospetsua izatetik landa, bazeukan abertzale gutxik zeukaten nazio-gintza zentzu argia. Laster heldu zen bilera eta hain zuzen Legution, billerlar gudari-ohi baten Bekostatuan izan genuen bilera eta lan bazkari luzea. 1982ko maiatzaren amaieran izan zen.

Akordio osora iristeko asmo sendoa hartu genuen han bildutakoak. Ez zuen esperantza hori ekarri nonbait Etxenike jaunak, bezperan Ajuriaenean izandako bileran, Labaienek han esandakoaren arabera. Lege egitasmoa %100ean negoziatzeko asmoa hartu genuen bi talde abertzaleok eta %100 lortu ere. Geroago, negoziaketak jarraitu zuen Maturana jaunarekin –gibelean Ramon Jauregi bozeramailea zuen– eta horrekin ere %60-70ean esan genezake adostu genuela. Baita ere jadanik krisian sartuta zegoen UCDko taldearekin ere. Gehitu behar dut Joaquín Aginaga ucedista, Bilboko Ingeniari Eskolako zuzendari izandakoaren jarrera ere nahiko onargarria izan zela. Bera altsasuarra zen, baina euskara jakin ez arren, gurasoak nafar euskaldunak zituen. Santiago Griñó i Rabert Talde Mistoko APkoak ere bere ideologia alde batera utzirik bere katalan burgesiaren zentzua erakutsi zuen puntu batzuetan. Oroitzen naiz nire alde jarri zela Euskaltzaindiaren zeregin akademikoa hizkuntza arazoetan 10. artikuluan, zeren eta bazekien, Institut d'Estudis Catalansek gauza bera egin zuela gerra aurreko autonomia garaian. Bistan zegoen bera ez zela, inondik nora ez euskaltzalea, ez abertzalea, baina bazuela horretan kultura maila bat, bere alderdikide Florencio Arostegi Zubiaurre frankista bilbotarrak, inondik inora ez zuena.

Lehenago esan dugu martxa oso geldoa izan zuela legegai honek, zeren eta ia urtebete, maiatzaren bukaeratik hurrengo urteko maiatzararte, tramitazioa lozorroan egon baitzen.

1982.eko martxoaren 17ko IV. Batzorde Parlamentarioaren, hots, Hezkuntza eta Kulturakoaren bilerako gai ordenean hau zioen deiak:

informe de la ponencia sobre el proyecto de ley de Normalización Básica del Uso del Euskara»: Expirado el plazo de enmiendas, el 15 de octubre de 1981 se constituye la Ponencia que estudiará el Proyecto de Ley Básica de Normalización del Uso del Euskera, y que está compuesta por los limos. Señores Parlamentarios: D. Alberto Ansola Maiztegui (Nacionalistas Vascos), D. José Antonio Maturana Plaza (Socialistas Vascos), D. José Luis Lizundia Askondo (Euskadiko Ezkerra), D. Joaquín M<sup>a</sup> Aguinaga Torrano (Centristas Vascos), D. Juan Infante Escudero (Mixto-PCE-EPK).

Txosten horretan legelariak ezartzen zituen zehaztاپen batzuen ondorioz, ikusten zen bigarren oharra:

remitir a la Mesa del Parlamento Vasco las enmiendas formuladas por el Grupo Parlamentario Euskadiko Ezkerra al Proyecto de Ley Básica sobre Normalización del Uso del Euskera, al objeto de su posible recalificación.

Ez bakarrik ez genuen bertan legelariak dioena onartu, nahi bai zuen gure emendakin edo zuzenketa mordoa, 60, «enmienda a la totalidad» bezala kalifikatzea, ez eta sinatu ere. Gure asmoa legea hobetzea eta egitasmoa negoziatzea zen, ez kontra bozkatzea.

Lozorrotik ateratzeko esan behar da 1982.eko otsailaren 3ko IV. Batzordearen Hizkuntza eta Kultura Batzorde Parlamentarioaren agiria interesgarria dela, bere azken puntuan honako hau baitio:

el Sr. Presidente agradece a los representantes del Gobierno su presencia y comunica que se va a pasar al último punto del Orden del Día, ruegos y preguntas. En este punto se establece un debate en el que toman parte todos los miembros de la Comisión y en el que se plantean algunos problemas relativos al funcionamiento interno de la misma, frecuencia de sus reuniones y aspectos relativos al retraso de un tema tan importante como es el Proyecto de la Ley de Normalización del Uso del Euskera, concluyendo el Sr. Presidente indicando que la Ponencia se reunirá a la mayor brevedad posible.

Maiatzaren 21eko osoko bilkuran interpelazio bat egin nion Gobernuari Euskararen Aholku Batzordearen garrantzia zela eta. Ramon Labaien Kultura sailburuak erantzun beharrean, Pedro Miguel Etxenike Hezkuntzakoak erantzun baitzidan. Erantzunean, harrigarria gertatu zen, alegia, Etxenike jaunak Euskararen Legea kontsentsuatzeko eskaintza egin baitzidan eta handik denbora gutxira egun gutxitara gertatu baitzen Legutioko bilera gogoangarria. Bezperan, prentsan, zenbait egunkaritan artikulu bat egin nuen:

en memoria del amigo Juan Bautista Merino Urrutia, ilustre investigador vascoriojanista

deritzana, zeinetan euskaltzain ohorezko errioxar hau gorai patzen nuen eta haren hitzak jarri, euskaltzaletasunaren aniztasunaren lekuko.

Ekainean, eten gabe, jardun genuen Lege berriari buruzko negoziaketan, hasiera batean, Gobernuaren aldeko Talde Parlamentarioa eta biok eta geroztik, beste bi taldek, ekainaren 22an, jadanik sinatuak genituen «Enmienda transaccional» deitzen zirenak banan-banan eta beraien zenbaitzuk eranskin gisa jarri ditugunak. Kontu berri hau onuragarria etorri zen eta zenbaitetan oposizioa izan, aipamen batzuk egitearren, esate baterako, Hezkuntza arloko zenbait artikulutan adostasun osora iristeak ekarri zuen, besteak beste, ondorioetariko bat 1983ko 118. Dekretua, uztailaren 11koa izan zena, Legea Auzitegi Konstituzionaletik zenbait artikulutan igaro eta gero. Dekretu hau, Euskal Herriko irakaskuntza ez unibertsitarioen hizkuntza ofiziala erabileraren arautzea izan

zen eta klase emankizunetan ondorioz bi eranskin ziren Eskolaurrean eta Oinarrizko Hezkuntza Orokorrean: A eredia, B eredia eta D eredia deituko zirenak, eta bigarren eranskin bat BBB, UBI eta LH, alegia, gaztelaniaz, BUP, COU eta FP deritzanak erregulatuko zituen. Aukerarik oparoena baliatu da Legearen bigarren atalburu edo kapituluaz, hots, euskararen irakaskuntzako erabilpenaz (ikus, «X Barne Jardunaldietako» nire txostena: *Euskera, LI, 2006-2, 1009-1013, orr.:*

orduko egoera politikoa oraingoa baino ahaltsuagoa zen, indar politikoek korrelazioa halakoxea zen eta, legearekiko negoziaketa, **lanean geunden talde parlamentarioen artean zen posible**. Gure bizkar dugu bakoitzaren euskara eta hizkuntza politikarekiko erantzukizun historikoa, bai partaideona eta baita parte hartu ez zutenena ere. **Oinarrizko legea denez**, Euskal Herriaren historian inoiz ez bezalako aukerak ematen ditu frankismo garaian ez bai genuen hainbeste amesten. 24 urte geroago (jaz esandako berbak dira) Oinarrizko Lege karakteristika duen garapena jorratzea...).

Hori iazko gaia zen, ez, gaurkoa.

Egia esan, Justizia arloan badu legeak ahultasuna. Justizia administrazioan ez zuten balio izan guk egindako 10., 11., 12. eta bereziki, 16. eta 17. artikuluek. Are gehiago, Maturana jaunak ohartarazi zien Eusko Jaurlaritzakoei eta baita talde parlamentarioei, Justizia Administrazioan ez zeukala ezer erregulatzerik Eusko Legebiltzarrak. Ez zen hori egia edo egia osoa behintzat. Besterik da, aukera gutxi izatea. Agian, Gobernuak eta Talde Parlamentariak ausardia falta izan genuen nolabait adbertentzia zen horri erantzuteko eta zerbait bederen ezartzeko, zeharka bederen, nahiz eta gero, osorik edo zati bat, Konstituzionalak ukatuko bazuen ere.

10. artikulua, gero, azkenean, 8.geldituko zenak, bazeukan hirugarren lerrokada bat bi taldeen artean onartua. Honako hau zioena:

no obstante lo preceptuado anteriormente los poderes públicos podrán hacer uso exclusivo del euskara para el ámbito de la Administración, Local, cuando en razón de la determinación sociolingüística del municipio, no se perjudiquen los derechos de los ciudadanos.

Hasiera baten honela zegoen jarrita:

salvo que los interesados exijan la lengua no empleada.

Alderdi estatalistek ez zuten onartu, gehiago oraindik, Ramon Jauregik nolabaiteko mehatxua egin zigun Etxenike sailburuari eta bioi, Auzitegi Konstituzionalean ikusiko genuela elkar. Hala gertatu zen eta galtzaile atera. Une batez kontseilaria prest agertu zitzaidan kentzeko ere, baina nik esan nion, beraiek Madriletik uka dezatela eta ez hemendik, guk. Hau esan beharra dago, zeren eta badirudi, zenbait Udal Ordenantzak lekuko, geroago, ordenantza maila eskasekin soluzionatzea inbentatu dela. «Diario de sesiones» delakoan bilduta izango da nola adierazi genuen udal administrazio zenbaitetan hizkun-



tza bata, gaztelania edo euskara soilik erabiltzea. Oker ez banago, adibidetzat jarri nuen, Urolaldeko edo Lea-Artibaiko zenbait herritan euskara hutsez edo Arabako Errioxa edo Enkarterriko udalen baten erdara hutsez, halan egiten baita bestalde, eta ez elebitasunez gaur ere. Eta baita ere Administrazio Lokalean sartzen baitira mankomunitateak, amankomunean zenbait eskualde, eta berriz aipatu nituen Lea-Artibai eta Urola, euskararen erabilpen soilerako eta Enkarterri eta Arabako Errioxa gaztelania soilerako.

Transazioak egindako beste zenbait artikulua interesgarri izan daitezke, alegia: 2. artikulua, komunikabideena, 18., 18.bis eta 18.ter deritzanena, baita ere euskararen zabalkundea, telebista-irratietan, egunkari eta aldizkarietan, zinematan, antzerki eta ikuskizunetan, irudiaren eta hotsaren iragarpidetan.

Hurrengo akordioa ere interesgarria izan zen, alegia, 26.3. gero izango zena, transazioan 20. ter, alegia, aisialdietako, merkataritza, kultura, bazkun, kirol eta beste nolana hiko ekintzetan euskaraz ari daitezkeeneko bideak eskaintzeko, alegia, orain Biziberritze planean dagoen aisialdi deritzanerako.

27. artikulua izango zena, alegia, publizitate alorrekoa eta merkataritza, atsedezko kultura, eta bazkun ofizialez erakundetako iragarki edo publizitatekoa.

29. artikulua ere eztabaida interesgarria izan zen, zeren eta hasiera batean 51.zuzenketa zena, hots, H artikulua berrian, Euskararen Kontseilu Gorena proposatu bagenuen ere, bere bi lerrokada eta bost azpillerokadarekin, gero, akordioaren ondoren, 29. artikulua izango zena, zeinetan euskararen topagune erakunde bat sortzea erabaki baitzen, hots, gero, Euskararen Aholku Batzardea lege garapenez berritua izango zena.

Erabaki gehigarrietako bat, lehena hain zuzen, akordioaren bidez gauzatu zen eta hara hor zer dioen testuak:

el Gobierno en el ámbito de sus competencias establecerá vínculos culturales con aquellas instituciones o poderes que actuando fuera del ámbito territorial de la Comunidad Autónoma realicen actividades de investigación, confección y fomento del euskara.

Noski, hau, Nafarroaz eta Iparraldeaz pentsatuta zegoen, bai hizkuntzaren Akademiagatik, Euskaltzaindiagatik, baita unibertsitate eta sor zitezkeen beste erakundeengatik. «Instituto Cervantes»-en antzera. Legeak, horretarako oinarria ematen zuen eta du, besterik da, beste bi eremu politiko-administratiboe-tatik zer korrespondentzia izan duten, baina ez da gaurko gaia, nahiz eta mereziko lukeen espreski jorratzea.

\* \* \*

Eta norbaitek galdetuko du ea zer giro zegoen lege gintza aldi horretan. Hasteko 81etik 82ra, Tejeroren eraso eta LOAParena segidan jasango genituen. Baita ere Sozialistak 82ko urriko hauteskunde ondoren, agintean hartu zuten beraiek, bai euskararekiko, bai katalanarekiko eta bai galegoarekiko,

Gasteizko, Bartzelonako eta Santiago de Compostelako Parlamentuetan alde bozkatutako zenbait artikuluko ere, alderdi bereko Gobernu Zentralak Auzitegi Konstituzionalera eramane zituen. Ez dugu izan astirik ez materialik eskura, banan-banan konfrontatzeko zeintzuk artikuluko, gure Legebiltzarrean, aho batez edo beraiek alde bozkatutako artikuluko zenbait, gero, Auzitegi Konstituzionalera joan ziren. Esaten da Tejero, Armada eta konpainiak, zorionez, irabazi ez bazuten ere, zoritxarrez, eragina izan zutela gauza askotan. LOAParena izan zen horietako bat, zeinetan ordurarte agintean izandako UCD eta sartu berri zen PSOEk, García de Enterría, Euskal Herriaren mugakide (Lanestosa eta Karrantza) den Ramalesko seme antieuskaldun administratibista famatua bai zen lege neozentralista horren zuzendaria. LOAParen aurkako talde bat osatu zen: Partido Comunista (Carrillo eta Curiel), estatu eremuko alderdi bakarra; PNV eta EE, Euskal Herriatik; CiU, ERC eta PSUC, Kataluniatik eta Partido Andalucista, Andaluziatik. Madrilen izan zen lehen bileran ez nintzen izan, baina beste hiruetan: Bartzelona, Bilbo eta Sevillan, bai eta informazio ugari jaso nituen, besteak beste, gaztelaniaz beste hizkuntza propiodun nazionalitateen kompetentziez: hezkuntza, kultura, «cuerpos nacionales» delakoan iraute eta bestez. Ez ziren bakarrik errudun militarren jarrerak eta ETaren atentatuak, baizik eta zenbait, horien aitzakiaz, autogobernuen murrizketak. Hala eta gutiz ere, Auzitegi Konstituzionalera Gobernu Zentralak eramandako zenbait artikulutan arrazoia guri eman ziguten, ez ordea, 6., 8. eta 12. artikuluetako hiru letroradetan.

Dena dela, gaur egun baino indarren korrelazio askoz ere hobea genuen une hartan, atera zen moduan Legea ateratzeko. Uzta onuragarria izan zen dudarik gabe. Hainbestera, zeren eta geroztik HBko Mahaikoek eredutzat jarri baitziguten gure Legea Nafarroarako bereziki eta amets gisa Iparralderako. Indar abertzale guztiek parte hartu izan balute seguru nago Legea oraindik hobea aterako zela. Orduan ahulago baitzeuden indar estatualistak, gaur, askoz indartsuago. Azkenengo unean, harroago, bereziki eskuina, gaztelar nazionalismo hegemonista ideologiara, berriz lerratua. 1981-82an, diktadorea hil da sei-zazpi urtera, frankismoarekiko koldar, ostenduta eta zentralismo elebakar zapaltzaile hurbilagatik lotsati. Gogora dakart, besteak beste eta, bat aipatzeraren, Joan B. Culla i Clarà historiagile katalanak, hil honen 2an, *El País* egunkarian idatzitakoa, hizkuntzei buruzkoa soilik aipatuko dizuet:

... refuerza... España.

Komunikabide gehienak ondo aritu ziren, gaiari garrantzia eta jarraipen ona eginez, salbuespen bat izan zelarik, zeinek ponentzia parlamentarioan genbiltzala, lehen hiruetan testua nola finkatu zen informazio zehatza eman bai zuen zintzoki kazetariak, goitik kontrako agindua hartu arte, hots, ezer gutxi argitaratzea. Euskaltzale asko ezjakinean gelditu ziren. Horrela, handik urte gutxira, adiskide dudan irakasle batek ez zekien Euskararen Legerik zeonenik ere. Oraindik beste ikerketa zehatz asko egiteke daude. Norbaiten tesia partziala da, apriorismo ugarirekin eta ez da neutrala.

Akordioan partaide izan edota lan egin zuten batzuk aipatzearen, sailburu biez gain, Ramon Labaien eta Pedro Miguel Etxenike, Alberto Ansola, Jose Antonio Zaldua Legebiltzarreko idazkari kidea, istripuz, Itziarren hil zena; Inmaculada Boneta, Begoña Amunarriz, Jose Antonio Maturana, Ramon Jaurerri, Joaquin Aginaga, Alfredo Marco Tabar eta nire parlamentari taldekide Jon Olaberria aipatuko nituzke. Olaberriaz landa, nire orduko alderdikide ziren eta etxe barruko «sukaldaritzan» lagunak aipatzea ere zilegi beizkit Xabier Gurrutxaga, Josu Zabaleta eta hemen dugun Patxi Baztarrika.



## **HIZKUNTZA-ZUZENBIDEA. TESTU BILDUMA EUSKARAZ**

### ***Jagon bilduma 5***

*Andres Iñigo, Jagon sailburua*

#### **Aurkezpena**

Jardunaldien aurkezpenean aipatu dut Euskaltzaindia aspaldixko ari dela lanean eta gogoetak egiten eta, bertzeak bertze, euskarak Euskal Herritik kanpoko paisaian duen lekua ikusi nahian eta, aldi berean, mundu zabaletik euskararen mesedeetarako zer baliabide berri datorren arakutzen.

Ildo horretatik, *Europar Batasuneko hizkuntza aniztasuna eta euskararen hizkuntza politikak* gaiari ekin zion iaz, Sustapen batzordeak antolatuta, izandako X. *Jagon* Jardunaldietan.

Ildo beretik segituz, bertze urrats bat egin nahi izan du Sustapen batzordeak, oraingoan Hizkuntza-zuzenbideko testu garrantzitsuen bilduma argitalpen batean eskainiz. Izan ere, euskara ukitzen duen *corpus* juridikoa biltzea izan da lan honen xedea eta, ondorioz, han-hemenka eta hainbat hizkuntzatan sakabanatuak dauden gure hizkuntzaren erreferentzia juridiko guztiak euskaldunen eskura euskaraz jartzea.

Liburu hau *Jagon* Bildumaren 5. zenbakia bada ere, aditzera eman nahi dut, *Jagon* Sailak, orain dela urte bat, hemen bertan 3. zenbakia (*Euskaltzaindiaren adierazpenak*) aurkeztu ondotik, bere bilduma berritza erabaki zuela, formatu berri bat diseinatzea. Orain dela bi hilabete Vianan aurkeztu genuen 4. zenbakia, hots, *Recuperación del Euskera en Navarra* Miquel Gros jaunaren ikerketarekin estreinatu genuen formatu berri hori. Berehala etorri gara 5. zenbaki honekin. Hartutako abiadura ikusita, espero dezagun hemendik aitzina bilduma berrituarekin batera emaitzak ere emankorra goak izanen direla.

Amaitu baino lehen, eskerrak eman nahi dizkiet lan hau burutzen parte hartu duten Sustapen batzordekideei eta bereziki lan honetan antolaketa eta koordinazio gidaritza izan duen Andres Urrutia batzordekideari. Eskerrak, halaber, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari argitalpenerako emandako laguntzagatik.



## ATARIKOA

*Andres Urrutia, Sustapen batzordekidea*

### 1. HIZKUNTZA-ZUZENBIDEA ETA EUSKARA: TESTU-BILDUMA BATEN ZERGATIA

Begi-bistakoak dira azken urteetan eremu urriko hizkuntzen inguruko kezak eta ardurak. Sarritan bizirautea dute helburu horiek, hamaikatxo oztopo eta arazoren aurrean.

Funtsezkoena, ahalegin horietan, halako hizkuntzak eurak gizartean erabiltzea eta zabaltzea, eremu berrietara heldu nahian, lehendik berezkoak dituenak alboratu gabe. Beharrezkoena, ordea, hizkuntza horietarako berme juridikoa izatea, zuzenbideak eremu jakinak babes ditzan horientzat.

Hizkuntza-zuzenbide esan ohi zaio horri, horretara bildu baitira, bateko, hizkuntza gutxituen araubidea osatzen duten xedapenak. Besteko ere, araubide horrek ekarri du, lege-munduan ohikoa den bezala, eskubide eta betebeharren multzoa, hizkuntzaren inguruan moldatua.

Hortaz, kontzeptu berria ere sortu da, alegia, hizkuntza-eskubideena, gizabanakoaren eskubideen alorrean, lehendik ezagunak direnen aldamenean (hots, politika-, ekonomia-, gizarte-arlokoak...), hizkuntza gutxituen hiztunak bere baitara biltzen dituenak.

Zuzenbideak hitzetan adierazten du bere edukia: *ius semper loquitur*. Hartara, euskaldunoi ere zuzenbideak hitz egiten digu ahots desberdinekin: batzuk, mundu-mailakoak, beste batzuk, Europa-mailakoak; ukatu gabe, Euskal Herrian bertan, euskararen araubidea dela eta, indarrean ditugunak.

Ahots desberdinak, hizkuntza desberdinetan. Horregatik, hain zuzen ere, berebiziko ahalegina egin du oraingoan Euskaltzaindiaren Jagon Saileko Sustapen Batzordeak ahots eta mezu horiek, hizkuntza-zuzenbidearenak, euskaraz batzen eta biltzen, euskaldun orok eskura izan dezan hots horiek barruratzten dituen mezua.

Bilduma batera ekarri du Euskaltzaindiaren Sustapen Batzordeak egun euskarari bere herrialde guztietan aplikagarri zaizkion testu nagusiak. Ipar zein Hego Euskal Herrian, osterantzeko antolamendu juridikoen gainetik, hizkuntza-zuzenbidea helburu duten eta aplikagarri diren arauak eta bestelakoak dira honen eramaileak.

## 2. BILDUMAREN NONDIK NORAKOAK

Araubide baten bildumaz denaz bezainbatean, egitura jakineko argitalpena da hau. Izatez, piramide baten antzera jokatu da kasu honetan, maila geografiko eta inoizkorik gehien duten testuetatik abiatu, eta egun Euskal Herriko herrialdeetan aginduzkoak direnak zehaztu arte.

EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA  
Sustapen Batzordea

# Hizkuntza- -zuzenbidea

Testu-bilduma euskaraz



*Jagon*  *Saila*

EUSKALTZAINDIA



Piramide horren mugarriak honetara daude sailkatuak:

§1. *Nazio Batuak*; §2. *LANE*; §3. *UNESCO*; §4. *Hizkuntz Eskubideen Aderazpen Unibertsala (Bartzelonakoa, 1996ko ekainaren 6koa)*; §5. *Europar Batasuna*; §6. *Espainiako Erresuma*; §7. *Frantziako Errepublika*.

Bide horretatik eskura dezake liburu honen erabiltzaileak halako ikuspegi orokorra, egun Euskal Herrian ez eze, mundu osoan hizkuntza-eskubideen nondik norakoak egoki barruratzen dituena.

Hizkuntza-araubidea emateko orduan, bestalde, arreta eta harrera bereizia eskaini zaio euskarari berari. Izan ere, testu guztiak euskaraz eman dira, uste izanik, nazioarteko testuen jatorrizko bertsioari muzin egin gabe, behar ditugula euskaldunok halako testuak euskaraz eta argitalpen fidagarri baten bidez bildurik izatea.

Berehala sortu du horrek egundoko arazoa, testuak, kasurik gehienetan, euskaraz besteko hizkuntzetan emanak baitziren, aginduzkoa eta araubidezkoa dutena barruratzeko. Horren jakitun izan gara, eta, hala eta guztiz ere, euskaraz eman izan dira horiek, sakabanatuak baino, estekatuak eta lotuak izan ditzaten euskaldunek.

Badakigu, horrela jokatuta, gure testua ez dela hainbat kasutan (batez ere, nazioarteko testuen kasuan) aginduzko letrak bilduko dituena. Badakigu, orobat, horrek behartu egiten gaituela hainbat testu itzultzeraz.

Hala egin da liburu honetan. Dena den, baziren lehendik ere liburu honetara bildutako testuetatik zenbaiten euskaratzeak. Horiek ere baliatu izan ditugu erreferentzia gisa, nahiz eta euskararen estandarizazioak azken urteetan izan duen bilakaera arinak beste bidetik eraman oraingo testugintza hau.

Hautua egin behar izan da. Hala nahita, gainera, hizkuntza-legeriaren multzoan modu askotara joka daitekeelako. Sustapen Batzordearen aburuz, testu nagusiak bildu beharrekoak ziren, hots, lege-maila edota nazioarteko hitzarmenarena dutenak. Eduki horietaz landa ere, ukaezinak dira jurisprudenzia eta gainerakoen zereginak. Azkenak, esan gabe doa, lan honen egitasmoetik baztertu ditugu, gerogarreneko jorraketa baten esperantzan.

Bada, alabaina, azpimarratu beharreko puntua halakoetan, bizpahiru salbuespen egin baititugu. Lehena, eta agian nabariena, egun arauzkoa izan ez arren, aipagai den *Hizkuntz Eskubideen Aderazpen Unibertsala*, Bartzelonakoa, 1996ko ekainaren 6koa. Hurrena, Europan hizkuntza-eskubideetan berebiziko oihartzuna izan duten ebazpenetatik zenbait (Kuijpers Ebazpena, Pasquale Ebazpena eta Kililea Ebazpena). Eta, azkena, egun indarrean ez diren lege-testuak, nahiz eta garai batean oinarri sendoa izan mota horretako hizkuntzen garatze-bidean.

Euskarari gagozkiola, bidenabar agertzen da euskarak duen araubide linguistiko nagusia. Jakina da, bestalde, araubide horretan Hego Euskal Herrian

(Euskal Autonomia Erkidegoan nahiz Nafarroako Foru Komunitatean) duen ofizialtasuna, gaztelaniarekin batera. Ofizialtasun horrek ekarri du, besteak beste, testu ofizialak ere herrialde horien aldizkari ofizialetan agertzea. Hartara, testu ofizial horiek barruratu dira bilduma honetara, euren horretan, behinola aldarrikatu ziren modu berean.

Esan beharrik ez dago erabaki horretan pisu erabakigarria izan duela zuzenbidearen ikuspegitik testuen «ofizialtasunak», guztiok jakin arren, hainbat urteren buruan, orduko euskarak zuen itxura eta erabilerak, batez ere arlo juridikoan, alde handia duela egun, euskararen bilakaeran, estandarizazioak eta erabilera juridikoak izan duten aurrerakada esanguratsuekin.

Jakin beza, hortaz, irakurle eta erabiltzaile horrek, halako zorra ordaindu behar izan duela bilduma honek, nahiz eta aringarri moduan azaldu, halako kasuetan eta oin-oharren bidez, ezinbesteko gaurkotze laburrak, batik bat toponimiaren alorrean egin izan direla.

Lege-bilduma egituratu baten barruan usu gertatzen da testu-metatze zabalak, zer non aurkitu zailtzen duena. Erabilera errazteko asmoarekin, testuen aurkibide analitikoak du erabiltzaileak, kontzeptu-sarrera pisuzkoenak zein testutan eta testu-barruan zein lekutan idoroko dituen argituz eta zehaztuz.

Lagungarria da, halaber, horien ondoren ematen den hurrenkera, berorrek lotzen baititu testu-bilduma horren iturri nagusiak.

### **3. SUSTAPEN BATZORDEA: BILDUMA HONEN BIDEA**

Aspalditik izan du Sustapen Batzordeak bilduma hau egiteko asmoa. Iturriak bildu, testuak antolatu eta egitura baten barruan eman, iaz hasi zuen lanari segida emanez. Izan ere, Sustapen Batzordeak du horretarako agindua Euskaltzaindiaren barruan, batzordekide baititu euskararen gizarte-kezka duten adituetatik hainbat: soziolinguistak, juristak, irakasleak, funtzionarioak... hau da, egunero euskararekin bizitzaren hainbat esparrurekin harreman estuak dituztenak, euren lanbideak direla eta. Hori aski ez balitz, gogora bedi Euskal Herriko herrialdeetan Euskaltzaindiak dituen ordezkariak ere kide direla, horretan ere Euskal Herriko ikuspegi osoa biltzen dela.

Batzordearen barruan, Andres Iñigoren burutzapean eta Erramun Osa idazkariaren gidaritzapean lan egin da, Andres Urrutia kideak koordinatu dituelarik beste kide guztien ekarpenak. Kide horiek dira bilduma honen eragile eta egile, hauspo eta eduki-ekarleak.

Horretara jarriak, tresna lagungarria eskaini nahi izan die Jagon Saileko Sustapen Batzordeak Euskaltzaindiari eta euskaldunei, euskararen aitzinatze-bidean, protagonistak ez ezik, hainbat testu juridikoren eramaile ere izan dadin euskara, gure eguneroko bizitzan hizkuntzaren nondik norakoak erro-errotik markatzen dituzten testuena, hain justu ere.

## **EUSKARAREN LEGEA ONARTU ZENETIK HONA, EUSKARAK HERRI ADMINISTRAZIOAN IZAN DUEN GARAPENAZ**

*Gotzon Egia*

### **SARRERA**

Hogeita bost urte joan dira, Euskararen Erabilera Arauzkotzeko 10/1982 Oinarrizko Legea onartu zuenetik, 1982ko azaroaren 24an, Eusko Legebiltzarrrak. Denbora luzea da, ez agian hizkuntza baten eskalatik begiratuta, bai ordea giza jardueraren ikuspegitik ikusita; izan ere, euskararen legeak xede nagusi bat izan baitzuen: gizakion jokabidea arautzea, euskarari –Mitxelenaren hitzak gogoratuz– «handikeriazko menturarik gabe, iraupena eta hazkuntza segurtatzeko behar adina tokia» aurkitzeko gure gizartean.

Gauzak asko aldatu dira euskal gizartean ordutik hona, mundu zabalean aldatu diren bezainbatean. Euskarak ere ez du bide makala egin 25 urteotan, alderdi guztietan: adierazgarria da, esate baterako, legearen jatorrizko izena «Euskararen Erabilera Arauzkotzeko Legea» izatea; horretan ere, ez dira hogeita bost urte alferrik igaro, nekez izendatuko baikenuke gaur egun legea «arauzkotzeko» horrekin.

Euskararen legeak nolako eragina izan du, hogeita bost urte hauetan, EAEko herri administrazioetan? Lehen baino gehiago egiten ote dute euskaraz herri administrazioek gaur? Zenbatean eta nola? Herri langileen jardun profesionala euskaraz izaten al da? Nolako eragina izan du itzulpengintzak? Zenbateraino daude egokiturik gure herri administrazioak gizartearen hizkuntza eskakizunetara?

Galdera horiei erantzuten ahaleginduko gara, euskararen legeak 25 urteotan egin duen bidean mugari izan diren gertakariak eta datuak azaltzearekin batera.

Administrazioaren esparruan, euskararen legeak ez du berariazko garapen luzerik izan; garapen urriak ez du esan nahi, baina, herri administrazioetan plangintza lanik egin ez denik, euskararen erabilera aitzineratzeko eta hedatzeko. Aitzitik, euskararen legeak arautu zituen beste gai-esparru batzuen aldean (hezakuntza, esate baterako), esan daiteke herri administrazioetan gehiago izan direla plangintza saioak, araugintza ahaleginak baino, euskararen erabile-

raren alde. Euskararen legea gauzatzeko jardunbide ugariena izan denez, plangintza lan horren ebaluazio labur bat ere egiten saiatuko gara.

## **LEGE-ARAU BIDEA**

Lege xedapenen aldetik, herri administrazioen esparruan euskararen legeak izan duen garabide nagusi bakarra izan da 1997ko apirilaren 15eko 86/97 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzekoa (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 72. zk., 1997ko apirilaren 17koa).

Dekretu horrek herri administrazio hauek hartzen ditu bere eragimen esparruaren barruan:

- Euskal Autonomia Elkarteko Administrazio Orokorra eta bere erakunde autonomoak.
- Herri Kontuen Euskal Epaitegia.
- Lan Harremanen Kontseilua.
- Foru- eta toki-administrazioak eta beren erakunde autonomoak.
- Lurralde Historikoetako Batzar Nagusiak.
- Euskal Herriko Unibertsitateko administrazioan eta zerbitzuetan diharduten langileak.

Esan genezake, beraz, dekretuak arautzen duela herri administrazio «klasikotzat» jotzen dena, maila guztietako administrazio zentralak, alegia. Aitzitik, eragimen esparru horretatik kanpo gelditzen dira:

- hezkuntza
- osasuna
- Ertzaintza
- epaitegiak eta justizia administrazioa
- Estatuaren administrazio zentrala.

Esan beharrik ez dago, jakina, dekretuaren esparrutik kanpo gelditzen diren alor horietan euskararen erabilera sustatzeko plangintza lanak ez direla, beste gabe, maila berekoak izan, ez trinkotasunez, ez indar eragimenez, ez asmo-xedez: zer konparaturik ez du, esate baterako, hezkuntza sistemak 25 urteotan egin duen ahaleginak, Estatuaren administrazioko erakundeek euskarara aintzat hartu eta erabiltzeko egin duten eginahal apurraren aldean.

## **LANPOSTUAK ETA HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK**

Labur esanda, 86/97 Dekretuak oinarri hauen arabera antolatzen du herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua:

- Hizkuntza jakintzaren mailak ezartzen dizkie lanpostuei, *hizkuntza eskakizunak* (HE), hain zuzen.
- Lau maila bereizten dira, ahozko nahiz idatzizko hizkuntza trebetasunen gaitasun mailaren arabera: *HE1, HE2, HE3, HE4*.
- Derrigortasuna: lanpostuari ezarritako HEren eskakizunetara langile bakoitzak egokitu beharra ote daukan definitzen du.
- Administrazioaren zerbitzuak edo unitateak sailkatu egiten ditu, hizkuntza helburuetan: *administrazio-atal elebidunak* eta *euskarazko administrazio-atalak*.

Oinarri horien gainean, beraz, EAEko herri administrazioetako lanpostu guztiek esleiturik dute HE bat. Kasu bakoitzean bete beharreko eginkizunak aintzat harturik, eta azterketa xehatu bat eginik, lanpostuari maila jakin bateko HE ezartzen zaio.

HEk ezartzen duen maila hori betetzea, hau da, une bakoitzean lanpostuan den langileak maila hori azterketa baten bitartez egiaztatu beharra ezinbestekoa da batzuetan, ez besteetan. Dekretuak erabaki hori zentzuzko neurrietara biltzeko irizpide zehatzak ematen ditu, eta, oro har, administrazio erakunde bakoitzak gutxienik izan behar duen HE derrigorrezkoen portzentajea finkatzeko oinarriak xedatzen ditu: herri administrazio bakoitzaren eskumen esparruko euskaldunen ehunekoak dira, labur beharrez, HE derrigorrezkoen portzentajea erabakitzeko irizpidea.

Bestalde, herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesuaren sistema osatzeko, 86/97 Dekretuak zehaztasun handiz xehatzen ditu zein diren zerbitzua bi hizkuntza ofizialetan emateko prest egon behar duten administrazio atalak (*administrazio-atal elebidunak*), eta, horrez gain, lanaren zati bat bederen euskaraz sortzeko prest egon behar dutenak (*euskarazko administrazio-atalak*). Biztan denez, herri erakunde baten barruan administrazio atalen banaketa horrek eragin sakona du lanpostuen HE erabakitzekoan eta, jakina, derrigortasunak ipintzerakoan.

## **DEKRETUAREN BESTE ALDERDI ESANGURATSU BATZUK**

Halaber, 86/97 Dekretuak garrantzi handiko beste xehetasun batzuk ere arautzen ditu, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesuari dagokionez, besteak beste:

- Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko bideak eta baliokidetzak.
- Salbuespen egoerak: HEren beharkizunaz salbuetsita dauden egoerak.

HEk egiaztatzea ezinbesteko betekizuna da lanpostuan derrigorrezko HE duen herri langile ororentzat; horrenbestez, egiaztatze bideak, hau da, azterketak egin eta HEren «titulua» aitortzeko jardunbidea, ez da kontu hutsala, batik

bat aitorpen horri loturik baldin badago langilearentzat dena delako lanpostu horretan jarraitzea ala, nahitaez, lanpostuz aldatu beharra edo, areago, kale gorrian gelditzea.

Baita ere, HEN aitorpenaren baliokideak jasotzen ditu dekretuak, administrazioaren beste esparruetan balio ofiziala duten tituluaren aldean (hezkuntza sistemako HEk, EGA). Dekretuaren asmoa ulergarria izanagatik ere, hizkuntza gaitasunaren esparruko aitorpen ofizialen esparru hori nahasbide gertatu izan da zenbaitetan, «bi norabideko» sistema batean oinarritzen baita. Zorionez, badirudi laster elementu nahasgarri guztiak desagertuko direla, hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzi Marko Bateratua izango baita era guztietako hizkuntza titulazioen baliokidetza neurria.

Azkenik, HE derrigorrezkoak betetzeko beharkizunaz salbuetsirik dauden langileen egoerak arautzen ditu 86/97 Dekretuak. Langilearen adina, hizkuntzak ikasteko gaitasuna eta mendekotasun fisikoak nahiz psikikoak ezartzen ditu salbuespenaren oinarritzat. Ez modu aratz eta zalantza gabekoan, ordea: interpretaziorako tarte zabalegia lagatzen dio, nire iritziz, herri administrazioetan euskararen erabilera indargabetzen saiatu nahi lukeen orori; eta jakina da nahikunde hori, aurreiritziz beteta egon arren, ez dela inolaz ere urria, ez herri administrazioen barnean, ez kanpoan.

## LANGILE KOPURUA

Dekretuaren eragimen esparrua ez da, inolaz ere, ahuntzaren gauerdiko eztula: hurrengo taulan ikus daitekeenez, 90.000 bat langile dira, batez beste, 86/97 Dekretuaren eraginpean.

### Herri administrazioetako langileak - 2006

	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Guztira	105.372	22.772	51.294	31.306
Estatuaren herri-administrazioa	14.418	3.271	6.922	4.225
Autonomia-erkidegoen administrazioa	59.425	12.271	29.245	17.909
Tokiko Administrazioa (Foru-aldundiak eta Udalak)	29.033	6.850	13.594	8.589
Unibertsitateak	2.496	380	1.533	583

*Iturria:* Ministerio de Administraciones Públicas.

Kopuru horiez bi ohar egin behar dira:

- Alde batetik, esan behar da ez dagoela guztiz garbi Estatuaren herri administrazioetako zenbat langile dagoen, legez, 86/97 Dekretuaren eraginpean.

esparruaren mende; den-denak ez, noski, baina horietako batzuk bai (esparru batzuetako ikuskaritza zerbitzuak, gobernuaren ordezkarietzako langileak...).

- Bestetik, unibertsitateari dagokionez, taulan ageri diren kopuru apal horiek AZP edo administrazio eta zerbitzuetako langileenak dira, ez, jakina, irakasleenak.

Nolanahi ere den, estimazio murriztena eginda ere, argi dago EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua erakunde askotako langile multzo handi bati dagokiola.

### EMAITZAK, 10 URTE ETA GERO...

Modu sintetikoan esanda, eta sinplifikazio handi samar bat eginez, esan genezake 1997ko apirilaren 15eko 86/97 Dekretuak eragindako plangintza helburu guztien erdibidera iritsia dela EAEn:

- HE derrigorrezkoa duten langileen erdiek lortu dute eskatutako maila.
- Herri erakundeen % 48 euskara plan baten barruan ari da.

Zehazkiago eta xehetasun handiagoz ikus daitezke datuak hurrengo taula honetan:

### Hizkuntza eskakizunen egiaztatze maila - 2007

Erakunde mota	egiaztaturik	deus ez	HE1	HE2	HE3	salb.	l. hutsik
Batez beste	51,61	4,51	4,04	0,64	0,03	5,53	33,64
Udalak	53,03	8,17	7,07	1,13	0,16	6,64	23,8
Mankomunitateak	37,43	6,29	3,43	1,14	0	20	31,71
Foru aldundiak	53,91	6,22	5,66	1,02	0	6,42	26,76
Jaurlaritza	46,5	5,39	4,28	0,79	0,08	8,55	34,42
Herri Kontuen Euskal Epaitegia	70,97	3,23	9,68	0	0	6,45	9,68
Lan Harremanen Kontseilua	75	0	0	0	0	0	25
Datuak Babesteko Euskal Bulegoa	28,57	0	0	0	0	0	71,43
Eusko Legebiltzarra	67,8	10,17	5,08	1,69	0	0	15,25
Euskal Herriko Unibertsitatea	31,32	1,13	1,13	0	0	1,7	64,72


*Iurria:* Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.

Datu «ofizial» horien esanahia ongi ulertuko bada, lerro artean irakurtzen jakin behar da. Izan ere, langile kopuruaz udalak, foru aldundiak eta Eusko

Jaurlaritza dira, luzaz, herri erakunde indartsuenak; esan daiteke portzentaje orokorrak eremu horietan erabakitzen direla.

Deigarria da, hain zuzen, Eusko Jaurlaritzaren egiaztapen maila izatea, hiru esparru handienetan, apalena.

Bestalde, adierazgarria da baita ere dekretua eman eta handik 10 urtera EAEko herri erakundeen erdia soilik izatea euskara plan antolatu eta berariaz onartutako baten barruan. Hurrengo irudiak azaltzen du egoera orokorra eta herrialdez herrialdekoa:



*Iturria:* Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.

Herrialde batetik bestera dauden alde nabarmenak direla eta, hizkuntzaren soziologiak erraz esplika dezake, esate baterako, Arabako zenbait eskualdetako udaletan zail izatea euskararen erabileraren aldeko planak eratzea, euskarazko zerbitzurik eskatuko duen herritarren kopurua benetan urria baita.

Aldiz, nekez azal dezake Bizkaiko zenbait eskualdetan hamar urteotan izan den utzikeria politikoa, biztanleriaz, langile kopuruz eta bitartekoz indartsu diren udalerrri batzuetan euskara plan baten arrasto xumerik ere egon ez dadin. Hain gutxi azal dezakete, ez hizkuntzaren soziologiak, ez euskara bizi-berritzeko estrategia orokorrak, Gipuzkoako herri erakundeen heren bat (!) oraindik euskara plan zentzuzkorik gabe egotea.

## BESTE INDIZE LAGUNGARRI BATZUK

EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko planetan esparru asko jasotzen dira, administrazio erakunde batek gaur egun bere gain dituen eskumen ugari eta, batzuetan, konplexuen araberakoak. Esparru




horietako bakoitzak behar luke, ziurrenik, azterketa xeheago bat, 86/97 Dekretuak eragindako plangintzaren emaitzak luze-zabalean arakatzeko.

Alor horiek, baina, adierazgarri bezain lagungarri izan daitezke EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko egindako plangintzaren emaitzak neurtzeko eta balorazio orokor bat egiteko. Horietako batzuk azalduko ditugu jarraian.

### Arduradun politikoek euskara maila

Hizkuntza trebetasunen artean aldeak badaude ere, oro har arduradun politikoek erdia da, gutxi gorabehera, euskaraz egiteko gai, hurrengo irudiak erakusten duen gisan:




*Iturria:* Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.

Datuaren egiazkotasuna guztiz zalantzan jarri gabe, argitu beharra dago, nolahi ere den, herri administrazioetako arduradun politikoak ez daudela 86/97 Dekretuak araututako gaien artean. Beraz, besteak beste, arduradun politikoek ez dute egiaztapen ofizialik frogatu behar hizkuntzaren aldetik. Pentsatu beharra dago, beraz, aurreko irudiak erakusten dituen datuak herri administrazioen erantzule politikoek autoebaluazio batez sortuak direla. Datu baikorregiak ote dira? Ez dago zehatz esaterik, baina beratasun handi samarrekoak direla begi-neurriz ikus daiteke: nekez zenbatu daitezke gure herri erakundeetan hautetsi eta arduradun politikoek ia % 47 euskarazko ongi idazteko gai direnak.

## Herri erakundeen barne errotulazioa

Batez beste, EAEko herri administrazioen mende dagoen errotulazioa (bulegoak bezala herriko kaleak edo bideak) euskaraz egiten da % 36,2; gaztelera % 10,2; eta ele bietan % 53,7:




*Iturria:* Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.

Aitortu beharra dago errotulazioaren alderdi hau izan daitekeela, alde askotatik ikusita, «euskararen alde» lerratzen errazena: errotuluak behin ipintzen dira, irauteko, ez dira egunero aldatu edo landu behar, testu luzerik ez dute izaten...

Zernahi den gisaz, berriro ere, herrialde batetik bestera aldaerak badira, ez nolana hikoak: Gipuzkoan euskara hutsez dira herri erakundeetako % 62 errotulu; Araban, gaztelera hutsez % 26,5.

## Tresna informatikoak

Batez beste, EAEko herri administrazioek darabiltzaten tresna informatikoetatik, % 34 daude euskaraz lan egiteko prestatuak; % 66, berriz, gaztelera hutsez. Nekez pentsa daiteke, gaur egun, administrazioak funtsezko langintza edo zerbitzurik egin dezakeenik tresna informatikoak, era batera nahiz bestera, erabili gabe. Hala ere, luzaz dira euskaraz lan egiteko egokitu gabekoak:

**Tresna informatikoak herrialdeka - 2007**

*Iturria:* Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.

Herrialdeen artean aldeak izugarriak dira alor honetan: Arabako herri erakundeetan, informatika tresnetan % 92 dira gazteleraz hutsez, Bizkaian % 64, eta Gipuzkoan % 42.

**Herri erakundeen webguneak**

Informazioaren eta jakintzaren aroan murgildurik bizi garelarik, herri erakundeen jarduerak gero eta alderdi pisutsu eta esanguratsuagoa du Interneten: gero eta gehiago, administrazioaren webguneak ez dira informazio leiho soilak, baizik herritarrari zerbitzu zuzen eta garrantzizkoak emateko bitartekoak ere.

Adierazgarria da webguneak sortzeko eta erakusteko erabili ohi den hizkuntza jokabidearen arteko alde nabaria:

Herri administrazioen webguneak - 2007	euskaraz	gazteleraz	ele bietan
Sortzen dira...	11	83	6
Erakusten dira...	12	17	71


*Iturria:* Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.

Gehien-gehienetan gazteleratik abiatuta sortzen dira gure herri erakunde-etako webguneak, egia da, baina jendaurrean plazaratzeko gutxienik bi hizkuntza ofizialetara jotzen da maizenik.


## Jendaurreko adierazpenak

Batez beste, EAEko herri erakundeek jendaurreko adierazpenetan jokabide arras desberdina dute, adierazpen idatziz ala ahoz den:

Jendaurreko adierazpenak idatziz - 2007



Jendaurreko adierazpenak ahoz - 2007



*Iturria:* Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.

## ETORKIZUNARI BEGIRA

EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeke plangintza lanetan aurrera egin nahi badugu, ibilitako bidearen irakaspenak aintzat hartu behar genituzke, nire irudiz. Orobat, esango nuke 1997ko apirilaren 15eko 86/97 Dekretua eman zenetik igarotako hamar urteotan herri erakundeen hizkuntza politikak izan duela emaitza adierazgarririk, baina ez duela *nahiaren* muga gainditu.

Euskararen legeak herritarrari aitortzen dizkion hizkuntza eskubideetan urrats esanguratsurik eman nahi baldin bada, *irauli* bat beharko dugu, euskara izan dadin, lehendabizi, administrazioaren zerbitzuak emateko hizkuntza normala; eta, bigarrenik, administrazioaren lanaren tresna.

Etorkizuneko lan horri begira, jarraian azalduko ditut, nire ustez, aintzat hartu beharreko puntu batzuk.

### Lana, euskaraz

Herri administrazioek euskaraz gehiago eta maizago lan egin behar dute. Udaletan, foru aldundietan, Jaurlaritzaren bulego eta ordezkarietetan, lanean euskaraz jardungo duten guneak eratu behar dira, uhin biderkatzaile izan daitezzen.

Besteak beste, belaunaldien ordeztearekin batera, heziera euskaraz jasoa duten gazteei aukera, bitarteko eta ingurune egokiak eskaini behar dizkiegu


herri erakundeetan euskaraz lan egin dezaten. Alferrik da administrazioan sartzeko hauta-probetan euskaraz jakin beharra aldarrikatu eta eskatzea, lanaren eremu guztiak erdaraz eratuak eta antolatuak baldin badira.

### Itzulpengintzaren eragimena

Maiz entzun ohi dugu administrazioaren esparruko itzulpenaren kalitatea auzitan ipintzen. Nago kritika horiek ez ote duten, askotan, kritika egilearen ezintasuna edo, gutxienez, nagia ezkutatu nahi: administrazioak ematen dituen xedapen gehienak, gaiez nahiz estiloz, lehor samar izan daitezkeela aitorturik ere, ez du uste euskarazko bertsioak (halaxe izaten baitira euskarazko administrazio testu gehienak: itzulpenak) gaztelera-koak baino baldarragoak eta ulergaitzagoak direnik.

Aitzitik, nire irudiz oso kontuan hartu behar genuke hogeita bost urteotan euskararako itzulpengintzak ezarri dituela administrazio eta lege esparruko estandarraren oinarriak. Urte luzeotan, herri erakunde askotan egin den itzulpen lan jarraitu, etengabe eta saiaturik gabe nekez uler genitzake egungo administrazio eta lege esparruko euskararen erabilera gehienak.

Hori alde batetik. Bestetik, herri erakundeetan lanean euskaraz jardungo duten guneak sortzen eta indartzen diren heinean, orekatu daiteke pixka bat gaur egungo itzulpengintzaren norabidea:



*Iturria:* Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.

### Euskararen eskaera urria

Aitortu beharra dago herritar gehienek erdaraz jotzen dutela herri erakundeetara:



*Iturria:* Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.

Baldintzapen psiko-sozial asko egongo dira, ziurrenik, herritarrek administrazioaren aurrean duten hizkuntza jokabide hori arrazoitzeko, eta baldintzapen horietan eragiteko tresnak edo bideak bilatu beharko dituzte herri erakundeek.

Nolanahi ere den, ez zait iruditzen administrazioari zerbitzu egokiak euskaraz eskatzeko joera larregi goratuko denik: % 26k eskatzen du gaur egun zerbitzua euskaraz EAEko herri administrazioetan. Kontuan izanik 15 urtez gorako EAEko populazio euskalduna % 29,16 dela... Horretan, bizitza sozialaren beste esparru askotan bezala, herri administrazioak urrats bat aitzinetik joan behar du.

### **Eta beste hainbat alorretan...**

- Lanpostuen ezaugarriak eta eskakizunak egungo egoerara egokitu behar dira.
- Profesional gazteei euskaraz lan egiteko aukera, lanabes eta ingurune egokiak eskaini behar zaizkie
- Kontratazio publikoan hizkuntza irizpideak aintzat hartu behar dira ezinbestean.
- Prestakuntza planetan euskarazko hezierari jarraitzeko bideak zabaltu behar dira.
- Kudeaketa tresna informatikoak elebi(aniz)tasunaren ikuspegiarekin sortu eta landu behar ditugu.

### **AZKEN HITZA**

Orain del hogeita bost urte legebiltzarreko indar politikoek asmatu zuten, denon artean, euskararen oinarritzko legea onartzeko adostasun nahikoa.

Gauzak asko aldatu dira ordutik hona, baina ez nuke esango orduko giro politikoa gaurkoa baino bareago eta errazagoa zenik: mutur askotako hariak bildu behar izan zituzten legearen eragileek, Pedro Migel Etxenike orduko sailburuaren zuzendaritzapean, euskararen inguruan adostasun gune zabal bat lortzeko.

Egun, herri administrazioetan euskararen erabileran urrats bat aitzinera eman nahi badugu:

- Ez genuke inoiz ahantzi behar euskararen garabideak adostasun politiko eta sozial handia behar duela, eta une honetan euskarak leku zentralagoa behar duela.
- Euskararen legea onartu zeneko adostasuna, gutxieneko mailatzat hartu behar genuke. Herri administrazioaren eta zerbitzuen esparruan, euskararen erabilerak aitzinera egingo du, lehenik, euskaldunen ekimenez, baina, bigarrenik, euskararik ez dakitenen adostasunez. Izan ere –eta berriro Mitxelena parafraseatuz–, «erdara ere gurea da».





## **EUSKARAREN LEGEAK ESPARRU SOZIO-EKONOMIKOAN IZAN DUEN ERAGINA**

*Anaje Narbaiza*

Euskararen legea onartu zenetik euskararen garapena alor sozioekonomikoan aztertzea tokatu zait hurrengo artikuluan. 1992an *Elay* Taldean Euskara Plana bultzatu genuenetik zorionez euskara planak beste lantegi askotara hedatu dira. Administrazio, enpresa eta langileen elkarlana derrigorrezkoa da aurrera egiteko. Orain gauzak ondo egiten baditugu, urte batzuren buruan, aurten 25 urte betetzen dituen legea aldatzeko moduan izango gara, Euskal Herrian hitzegiten diren beste hizkuntzei erabiltzeko eskubidea aitortu ondoren Euskara hizkuntza propio eta ofizial bakarra bezala aurkezteko Euskal Herrian.

Euskarak lan-munduarekin harremana izan du historian zehar eta bitxiak badira ere, balio digute euskarak ekonomian duen eraginaz jabetzeko. Gasteizek Gaztelarekin eta Bilbok Londresekin harreman komertzial garatuenak dituzten garaien testuinguruan, euskal hiztegia eta gramatika agertu ziren. 1562an N. Landuchiok idatzitako hiztegia *Dictionarium Linguae Cantabrigicae* eta mende bat beranduago 1653an R. de Mikoletak idatzitako gramatika «Modo breve de aprender la lengua Vizcaina», Ingalaterran azaldu zen. Hipotesia bada ere suposa dezakegu harreman komertzialetan aukera gehiago izateko sortu zirela. Beranduago eta gure garaietara hurbilduta aipatu XX. mende hasieran Eibarren ALFA sortu zenean langileak euskaraz mintzatzen zirela. Geroztik euskarak atzera egin du eta desagertzeaz zegoenean berreskuraketa prozesuari ekin zaio XX. mende bukaeran.

### **HIZKUNTZA POLITIKA EZBERDINAK EUSKAL HERRIAN**

Euskal Herriak hiru administrazio ezberdinek osatzen dute eta hizkuntzari hiru trataera ezberdin ematen diote 80ko hamarkadan, hots:

- Iparraldean, euskarak ez du ofizialtasunik eta izaera bereziko hizkuntza bezala aurrikusten da.
- Nafarroan euskara ofiziala izan arren, iharduna hizkuntzaren araberako eremuetan oinarritzen da, euskalduna, mistoa eta ez euskalduna.

– Erkidegoan berriz Euskararen legea sortzen denetik 1982an, euskara ofiziala da.

Hizkuntza politika bateratu eta sendo bat ez izateak eragina izan du guztiongan. Iparraldean eta Nafarroan hizkuntzak ez du garapenik izan lan-munduan. Erkidegoan, berriz, 1982an Euskararen Legea sortzen denean lan mundua urruti samar geratzen da. Garai hartan askoz aldarrikapen ozenagoak entzuten dira, Administrazioa, Komunikabideak eta Ikasketa ereduak euskalduntzearena: Lan- mundua ezezaguna da. Sindikatuak hasi berriak Hitzarmenetan euskararen gaia sartu behar zela planteatzen. Enpresa aitzindarietan euskara ikasteko matrikulak ordaintzen eta ohar elebidunak tauletan ipintzen hasita.

## **EUSKARAREN LEGEAK EZ DAKAR DERRIGORTASUNIK EUSKARARENTZAT**

Egoera sozial honetan, Euskararen legeak Erkidegoan erabiltzen diren hizkuntzak definitzen ditu:

Euskara, hizkuntza propioa eta Gaztelania hizkuntza ofiziala. Definizio honek bere barnean ezina dakar euskararentzat, izan ere legea aipatzen dugunean derrigorrez bete behar den zerbait etortzen zaigu burura, baina kasu honetan ez dago derrigortasunik euskararentzat, beraz, legea bera baino gehiago da euskaraz bizitzeko borondate kolektiboa eta eskubidea.

Gauzak horrela eta legeak sortutako esparru horren barnean, 1990ean HPINek (Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak) eta ELAYko zuzendaritzak, langile batzordearen adostasunarekin, lehen euskara planaren diseinua egiteko proiektua adosten dute eta 1992an Elhuyarrek diseinatutako plana martxan jartzen da:

Urtea	Enpresa kopurua	Langile kopurua	Dirulaguntza HPS	Dirulaguntza Udalak + Diputazio + HPS	Euskara planen inguruko ezagutza
1982	–	–	–	–	–
1992	1	165	12.000 €	–	–
2007	150	48.500	2.300.000 €	69.000 € + fondo propioak	Ertaina

Langile-kopurua eta dirulaguntza publikoen bilakaera 1982-2007.

Euskaraz bizi izateko borondate kolektibo horretan aldaketa asko eman dira azken 25 urte hauetan eta gizarteko hainbat eragilek legea edukiz osatu dute. Euskara planak enpresetan gauzatzeko enpresak sortu dira *Elhuyar*, *Artez*, *Emun*, *Ahize*... euskara planen berri eman eta martxan jarri dituzte. HPStik

1800 enpresengana hurbildu dira euskara planen berri emateko eta zenbait kasutan lehen diagnosa egiteko. Euskararen kontseilutik urtean behin hainbat erakunde komertzio eta enprekin duten harremana euskararen ziurtagiriaren inguruan. Herrietan burutzen ari diren ekimenak lan-munduari zuzenduta, Euskara Elkartek egiten dituzten erabilera areagotzeko ekimenak eta beste hainbat sustapen lanei esker esan dezakegu, «Lana euskaraz egitea geroz eta ezagunagoa dela gure gizartean» beraz, gizarteak hurrengo urratsa ulertuko du: **Euskara eskolako hizkuntza izatetik laneko hizkuntza izatera pasatzea.**

### **ELAY TALDEKO NEURRIRIK GARRANTZITSUENAK. EREDU SINESGARRIA**

Une garrantzitsua euskara laneko hizkuntza bihur dadin. 150 enpresa lagin txikia izan daiteke kontuan hartzen baditugu Euskal Herrian dauden enpresa guztiak (2006ko datuen arabera Erkidegoan bakarrik 14.321); aldiz, indarrean dauden planak ondo bideratzea ezinbestekoa da eredu sinesgarriak zabaltzeko.

ELAYko eskarmentutik ikasita horrela laburbiltzen dira hartutako neurri-rik garrantzitsuenak:

- Hasiera-hasieratik zuzendaritza eta langileek adostutako proiektua.
- Euskaraz lana egiteko borondate kolektiboa izan du helburua.
- Euskara ikasi nahi ez zutenentzat hizkuntza eskubideen bermea.
- Enpresak hizkuntza ildo estrategikoaren barnean sartzeta.
- Zuzendaritzaren/langileen inplikazioa.
- Egunean eguneko kudeaketa sistemetan oinarritutako sistematizazioan txertatzea.
- Enpresaren aldetik Finantziazioa onartzea.
- Euskara beste edozein proiektu lez kudeatzea.
- Ikaste /erabiltze erritmoak errespetatzea, eta helburu pertsonalizatuak gainditzea.

Dena den hizkuntzak badakarkio enpresari modu zorrotzean neurtezinak, baina ekonomian eragina duten gaiak. Boterea duten hizkuntzek eragina duten bezala botererik gabeko hizkuntzek ere ekonomian eragina dute:

- Enpresako komunikazioa eta kohesioa hobetzen ditu.
- Langilegoaren parte hartzea areagotzen du.
- Lana egiteaz gain hizkuntza bat ikasi eta erabiltzeak motibazio berezia sortzen du langileengan.
- Motibazio bera sortzen du harreman komertzialetan ere.

Urtea	Langile kop.	Oinarizko maila ez dutenen %	Erabilera %
1992	165	%35	0
2007	238	%7	%90

*Elay* taldeko bilakaera ulermenean eta idatzizko erabilera %.

Oraindik era badira gainditu beharreko erronka batzuk. Langileek hizkuntza aldaketari dioten beldurra uxatzea. Hizkuntza batean lana egitetik bestera pasatzeak prozesu luzeak dira, ez dira urte batetik hurrengora lortzen. ELAY-ko kasuan Antzuolan kokatuta eta euskara ez zekitenen kopurua %35ekoa izanik, 15 urte pasa dira eta oraindik %10 falta da %100 erabilera lortzeko.

Euskara ulertzen duenari, errespetuz Gaztelaniaz egiteak modu onen eredu izan beharrean, egin behar ez denaren eredu izatea. Euskal Herriko enpresen arteko harreman komertzialak euskaraz burutzen hasteak, modu egokiena da euskaraz egiteko beldurra galtzeko, horrek ez du produktua garestitzen eta.

## **SINDIKATU, ENPRESA ELKARGO ETA ERAKUNDEEN PARTE HARTZEA EZINBESTEKOA**

Enpresa batek, barnera begira euskararen plana gauza dezake borondatean oinarrituta, ez da ezinbestekoa derrigortzea, baina lagungarriak dira inguruan dituen erakundeen babesa eta bultzada, batez ere Administrazioetik, Sindikatuetatik eta Enpresa Elkargoetatik. Bultzada handia hartuko luke Sindikatu eta Enpresa Elkargoetatik euren sustapen planak bideratuko balituzkete euren partaideen artean eta nola ez, Lan eta Industria sailek euskararen planak inbertsio modura aurreikusi eta babestuko balute. Administrazio Zentralarekin dauden hainbat erregistro eta komunikazio euskaraz bete ahal izateko baliabideak garatuko balira. Baina batez ere Enpresek, eguneroko harreman naturaletan administrazioko edozein sail edo departamenturekin euskaraz egiteko ohitura ikusiko balute askoz lehenago normalizatuko genuke lan-mundua.

Gaur egun gauden egoera soziolinguistikoan, Gaztelania, hizkuntza boteretsuena, legez ofiziala izateak, euskararen garapena moteltzen du. Baina gaia sakon alda zitekeen Sindikatuok eta Politikook gutxiago begiratu bagenio botoari. Euskara dela eta, botoen batuketak eta kenketak egiten ditugun bitartean ez dugu urrats handirik egingo. Euskararen inguruan apustu eta helburu garbiek sinestaraziko digute euskara gure hizkuntza propio dela eta berreskuratzeke premia etikoa dugula. Urrats horiek eman eta urte batzuk pasatu ondoren izan gintezke lege aldaketaren atarian, Euskal Herrian hitzegiten diren beste hizkuntzei erabiltzeko eskubidea aitortu ondoren, Euskara hizkuntza propio eta ofizial bakar bezala aurkezteko Euskal Herrian.

## EUSKARAREN LEGEAK HOGEITA BOST URTE ESKOLA ALORREKO BILAKAERA: BALIOESPEN-SAIOA

*Mikel Zalbide*

### SARRERAKOAK

Hogeita bost urte egin ditu *Ley Básica de Normalización del Uso del Euskera* edo *Euskararen Erabilera Normaltzeko Oinarri Legeak* (1). Berariazko jardunaldiak eratu ditu Euskaltzaindiaren Jagon Sailak, *Sabino Arana Fundazioa* lagun duela, mende-laurdeneko urte-muga hori dela-eta. Balantze moduko azteraldia egin nahi zaio legeari, Jagon-jardunaldi honetan. Lege horren sorrera, hezkuntza alorreko ibilera eta eskola-emaizak azalduz ibilera horren balio-irizpena egitea eskatu zait Jagon Saitetik. Baiezkoa eman diot gonbita prestuari. Ez beldurrik gabe, ordea: zuzenbidezkoetan ez naiz aditua. Eragozpen larria dut hori, jasotako mandatua zuzen betetzeko orduan. Lege kontuan espezialista ez denak beti du zail eta konplikatu, horrelako balio-irizpenik egitea. Are gehiago EAeko gizarte-bizitza osoa, ez esparru hau edo hura, arautzen duen goi-mailako lege bat aztertu nahi denean. Ibilera horren ikuspegi jurilinguistiko hutsa azaldu nahi izatekotan badira noski adituak eta jakitunak, gure artean eta are kanpoan, lan hori mila aldiz kunplituago bete dezaketanak (2). Ez dagokit niri, jakina, aditu horien esparruan sartzea.

Eskatu zaidan balantzea ez da, ordea, zuzenbidezkoa. Jurilinguistikoa edo glotopolitikoa ere ez, kontua estu-estu hartu nahi bada. EEN legeak euskal

---

(1) Jatorrizko idazkuntzan, *Euskararen Erabilera Arauzkotzeko Oinarri Legea*. Labur beharrez, *Euskararen Legea* esan ohi zaio askotan. Laburtzapen-siglaz *EEN legea* esango zaio idazki honetan.

(2) Ikuspegi horretaz zein glotopolitikoaz jabetu nahi duenak aditu ezagunak ditu Euskal herrian bertan: aspalditxo gure artean joana dugun Jose A. Obietaz gainera, eta alfabeto-ordenari narraikiola, hor ditugu Iñaki Agirreazkuenaga (2001 eta 2003) eta Ander Bergara (1996), Jose Manuel Castells (1985, 1990) eta Edorta Cobreros (1989, 1990), Josu Mezo (1996) eta Urrutia biak, Andres eta Iñigo (2005). Espainiako hainbat adituk ere badu kontuokin harreman zuzenik. Hor daude adibidez R. Gómez-Ferrer (1990) eta J. A. González Casanova (1982), V. Martín Sanz (1998), Antoni Milian i Massana (1983, 1984, 1988, 1994, 1995, 2006) eta Santiago Petchen (1990). Mundu mailako jakin-iturriak ere ez zaigu, azkenik, falta: aspaldiko Lukas eta Kloss moduko bidegile zaharrez gain, erdi-etxeke dugun Juan Cobarrubiasgandik hasita (1983, 1988) hor ditugu, bakar batzuk baizik ez aipatzearen, Shirley Brice Heath (1976, 1983) eta Lo Bianco (1997), McRae (1975, 1983, 1986, 1992 1997) eta Plourd (1970).

gizartean oro har, eta EAEko eskola-munduan bereziki, izan duen gizarteragina aztertzea izan da antolatzaileen asmo nagusia. Legeak begiz jotako xedeak zenbatean hezurmamitu diren, eta helburu nagusiak zer neurritan bete: hori da jardunaldiak landu nahi duen auzia. Antolamendu-arduradunaren beraren hitzetan esanik, «Legea onartu zenetik hona euskarak izan duen garapena» aztertu nahi da. Lasaixeago hel diezaioket gaiari, alde horretatik. Hogeita bost urtez lege horren hezkuntza-atala aplikatzen eta garatzen parte hartu izanak bere edukiaren eta mugen, ondorio soziolinguistikoen eta argi-itzal operatiboen ezaguera praktikoa eskaini dit hainbatean (3). Ezaguera horren laguntzaz, eta han-hemengo bibliografia teknikoaren informazio osagarriaz (4), EEN legearen ibileraz eta orain arteko emaitzez dudana iritzia ematen saiatuko naiz beraz. Hezkuntza-mundura mugatuko dut, esan bezala, azalpen-saioa: irakasmila ez-unibertsitarioetara nagusiki. Hartan zentratuko da nire irizpena, hizkuntza-normalkuntzaren esparruan ezinbestekoa den perspektiba soziolinguistikoa begien bistan izanik beti.

Hizkuntza eta hezkuntza kontuak ordutik hona nola aldatu diren ikusi nahi bada, oraingo egoera aztertzea ez da aski. Legea onartu aurreko garai hartan gauzak nola ziren jakin behar da lehen-lehenik: EEN legea prestatu eta onartu aurretik, demagun 1970-80 epean, euskara eta hezkuntza kontuak nola zeuden oso gogoan izan behar da: hori gabe ez dago ezer konparatzerik, eta konparaziorik gabe lausoak dira, oso, garapen-datuak. Konparazio-beharraz gainera ezinbestekoa da orduko egoera berariaz aztertzea, mende-laurden honetan izandako aldaketaren perspektiba historikorik eskuratu nahi bada: hori ere jardunaldi honen xedea dela uste dut, eta are beharrezkoa da hortaz garai hartako egoeraren arakatzeko itxurazko bat egitea. Hel diezaiogun beraz, atzera-aurrera handiagorik gabe, EEN legea onartu aurreko egoera linguistikoren eta edukatiboaren azteraldiari.

## I. ABIABURUA: NONDIK DATOR EEN LEGEA?

Bilakaera bizia izan du eskola-munduak, gure artean, azken berrogei urtean. Bilakaera hori oso nabarmena izan da, bereziki, hizkuntza kontuan. Egungo eskola-egoera eta orain dela berrogei edo berrogeita hamar urtekoa

(3) EENren beste zenbait gorabehera ere aski hurbiletik ezagutzeko aukera izana dut, horrezaz gainera, lege-asmoaren sorrera-garaitik beretik hasita.

(4) Beste dokumentu askorekin batean lagungarri gertatu zaizkit, alde horretatik, Quebec-eko *Charte de la Langue Française*-ren 25. urteurreneko argitalpena (Bouchard eta Bourhis, 2002) eta, bereziki, bertako bi lanok: batetik Marie Mc Andrew-ren *La loi 101 en milieu scolaire: impacts et résultats*; bestetik Michel Paillé-ren *L'enseignement en français au primaire et au secondaire pour les enfants d'immigrants: un dénombrement démographique*. Europako hiztun-herri txikietarako ikus Ó Riagáin-en *Voces Diversae* 2006. Katalunyarako ikus, adibidez, *20 Anys* liburuxka (Generalitat de Catalunya. Departament d'Ensenyament, 1998). Bertako balorazioei dagokienez, azkenik, ikus esate baterako, beste askoren ondoan, 1990eko gure *Euskal Irakaskuntza: 10 urte* eta, berrikitanago, *Hik* Hasiren 1998ko *Euskal Eskolaren azken 20 urteak* izeneko ale monografikoa.

oso diferenteak dira, bilakaera horren ondorioz. Ele bakarrekoa izana da, funtsean eta urte luzez, EAEko eskola: gaztelaniaz ikasten ziren orduan asig-natura guztiak. Hori dela medio gaztelania hutsez (5) alfabetatzen zituen eskolak, oro har, bertako haurrak: bai etxetik erdaldun huts zirenak, bai nola-halako elebidunak eta bai euskaldun garbiak. Euskarak eta euskal kulturak ez zuten leku irmorik orduko eskola molde ofizialean: ez publikoan eta ez pribatuan (6). Egoera hori zen nagusi, zertxobait aldatzen hasia bazen ere tartean, 1975ean, aurreko agintekera politikoa amaitu zenean.

Hortik abiatu behar da beraz, nondik gatozen eta EEN legeaz zer lortu den aztertu nahi bada. Irakaskuntzaz gainera gizarte-bizitza osoa zein egoera soziolinguistikotan zegoen gogoratu behar da, eskola bidez lortutako emaitzak bere testuinguru naturalean kokatu ahal izateko. Zer egoera soziolinguistikotan zeuden euskara-erdarak 1970ean, 1975ean edota 1980an, euskararen normalkuntza-legea indarrean sartu aurretik? Zenbatek (eta nork) zekien euskaraz hitz egiten, eta zenbatek irakurtzen edo idazten? Nolakoak ziren hiritar batzuen eta besteen euskara-erdare buruzko iritziak eta jokabideak? Zer egoeratan zegoen hemengo hezkuntza-sistema, euskarazko irakaskuntza martxan jarri ahal izateko? Zer aurrelan egin ziren horretarako, Gobernu Zentralean eta Eusko Kontseilu Nagusian, EEN onartu eta aplikatzen hasi baino lehen? Puntu horiek aztertu nahi ditugu berariaz, labur-labur izango bada ere, txostenaren lehen parte honetan.

## **I.1. Euskararen egoera soziolinguistikoa**

Euskararen 1975 inguruko egoera soziolinguistikoa azaltzeko orduan hiru atal ditugu, batez ere, kontuan hartzekoak: batetik euskara-erdaren erabilera gizarte-bizitzan; bestetik EAEko hiritarren euskara-erdare buruzko iritziak eta jokabideak; azkenik, bertako hiztunen konfigurazio linguistikoa.

### ***I.1.1. Euskara-erdarak gizarte-bizitzan***

Nondipait hasi behar eta, galdera honi erantzuten saia gaitzke lehen-lehenik: EEN Legea onartu aurretik, 1975ean edo 1980 inguruan, zenbatek zekien euskaraz eta zenbatek gaztelaniaz? Iturri bi erabil ditzakegu horretarako, bere-

---

(5) Gaztelania hutsa ez zenean latina edo beste hizkuntza handi bat (frantsesa, ingelesa, alemana) izaten zen, normalean, idazten eta idazten ikasitako bigarren (Ipar Euskal herrian lehenengo) hizkuntza.

(6) Salbuespen txikia, eta azken ordukoa, ziren ikastolak: batez ere Eskolaurrean eta OHOn ziharduten hauek. Aurrerago hitz egingo da honetaz, xeheago. Handik hona izan duten ibileraz informazio zabalago dago han-hemen. Hogeitazko ibileraz etxe barrutik egindako gogoeta-lanari dagokionez ikus, bereziki, Iñaki Etxezarreta 1998.

ziki: Siadecoren 1975eko datu-multzo zabala batetik (7), eta 1981eko biztanle-entsua (eta, horrekin batera Eusko Jaurlaritzako GALen inkesta-lanketa sendoa) bestetik. Datu batzuetatik besteetara aldea dago, eta ez txikia. Demagun, emaitza apalenetan oinarriturik, EAEko euskaldunak (benetan euskaraz hitz egiten zekitenak) %25 zirela gutxi gorabehera (8). Gauza bat da ordea hizkuntza-gaitasuna, eta beste bat erabilera. Gaitasunaz gainera oso kontuan izan behar da bigarren elementu hori, orduko egoera soziolinguistikoa zuzen azaltzeko: zenbatek egiten zuen euskaraz, noiz-non eta zertarako? Zenbatek gaztelaniaz? Hizkuntza bien erabilerak zer distribuzio espazial zuen orduko gizarte-bizitzan, eta zer inplantazio soziofuntzional? Egonkorra al zen hizkuntza bien ezarpen-espektro hori, edota aldatzen ari zen? Hala izatekotan, nor ari zen besteren esparrua irabazten, eta nor berea izandakoa galtzen? Galdera-multzo zabal horri heldu behar diogu hemen. Hori dugu ezinbesteko abiaburua, EEN Legearen hasierako gizarte-egoera ongi ulertu nahi bada. Ez dezagun ahaztu euskararen *erabilera* (ez *eza-guera*) normaltzeko legea dela EEN.

Ahuldurik iritsia zen euskal hitzun-elkartea hogeigarren mendearen bigarren erdira: eremuz urritua (9) eta espazio soziofuntzionalaz aski mugatua (10). Etxean eta kalean, lanean eta jolasean euskaraz egiten zuten euskaldunak gero eta gutxiago ziren proportzioz. Gero eta lurralde-eremu txikiagoan bizi ziren, eta erdaldunekin gero eta nahastuago. Lehendik zetorren bideari eutsiz ahuldu egin zen Euskal hitzun-elkartea, mende-hasieratik aurrera. Ahultze hori azeleratu egin zen, gero azalduko diren motiboengatik, 1955etik aurrera. 1975 inguruan eskualde jakinetara mugaturik iritsi zen, horregatik guztiagatik, euskarazko bizigirotan oparota: arnagune (11) jakinetara mugatua. Urola bailara (12)

---

(7) Siadecoren datuak 1975ean egindako inkestan oinarritu ziren nagusiki. Ipar Euskal herriko datuak Pedro Irizarren lanetatik jasoak ditu, halere lan zabal hark.

(8) Sinesgarriago dira 1975eko datuak, motibo bategatik baino gehiagorengatik, besteak baino: euskaldun alfabetatuaren kopuru-estimazioak, bereziki, erabat neurritz kanpokoak dira 1981eko zentsoan. Datu guztiak ere aski nolabaitekoak dira ordea, eta kontuz erabiltzea komeni da. Euskaldun izatearen eta ez izatearen kontua ez da, edonork dakienez, txuri eta beltz arteko dikotomia. Mugaz alde batera ala bestera gauden juzkatzea zail da neurtzaile trebatuarentzat, eta are zailagoa kasuan kasuko zentso-erantzulearentzat. Xehetasun gehiagotarako ikus txosten honen 5. eranskina.

(9) Azken berrehun urte luzeko prozesu soziokultural, demografiko, politiko-operatibo eta ekonotekniko konplexuen emaitza da, funtsean, euskararen eremu-urritze hori. Ez da gaurko hau horretaz jarduteko lekua, eta bego horretan.

(10) «Espazio soziofuntzionalak» diogunean, hitzun-elkartek hizkuntza baten edo bestearen bidez eratzten dituen jardun-esparruak aipatu nahi ditugu: familia, lan-mundua, lagunartea, eliza, eskola,...

(11) «arnagune» hitzari hemen eta, oro har, txostenean ematen zaion esanahiaz jabetzeko ikus Zalvide 2001. Labur esanik, Joshua A. Fishman-ek *Reversing Language Shift*-en (eta beste hainbat lanetan) aipatzen duen (*undisputed*) *breathing space* eman nahi da aditzera «arnagune» hitzaz (Fishman, 1991).

(12) Demagun lan honetan, arnagunearen definizio operatibo gisa, zera hartzen dugula: udalerriko biztanleen %80 edo gehiago euskaldun izatea. Horren arabera Azpeitia eta Azkoitia, Errezil, Bidagoian eta Beizama, Zestoa eta Aizarnazabal, Getaria eta Aia arnagune genituen 1975



eta Tolosaldeko hainbat herri-herrixka (13), Goierriko albo-herri gehienak (14) eta Deba ibarraren hiruzpalau bazter-herri (15), Lea-Artibai (16) eta Busturi-alde gehiena (17), Uribe-Butroeren ekialdea (18) eta Arratia gehiena (19). Horiek ziren funtsean, 1970-80 epean, euskararen EAEko arnasgune nagusiak. Lanbidez eta bizimoduz, gizarte-molde zaharraren errainu ziren, hainbatean, arnasgune horiek. Urola aldeko Azpeitia eta bere gerri-buelta alde batera uzten bada, industriak sarbide handirik egin gabeko herri-herrixkek osatzen zuten nagusiki, ez osorik, arnasgune hori. Oinarri sozioekonomikoari dagokionez, beraietan zirauen baserri-bizitzak indartsuen. Demografiak gero eta pisu gehiago zuten, bestalde, herri-herrixka horietariko gehienek. Arnasgune horietatik kanpora ere bazen euskal giro jatorrik Bizkaiko eta, bereziki, Gipuzkoako beste hainbat udalerritan (20): udalerrri horietako bizigune berezietan, batez ere. Etxean eta auzoan, baserri-giroan bereziki, euskaraz egiten zen

---

inguruan. Ez, aldiz, Urola garaiko Zumarraga, Urretxu eta Legazpia. Erdibidean gelditzen ziren, gero eta erdaldun-kopuru zabalagoaz, Kostaldeko Zumaia eta Zarautz.

(13) Aduna eta Asteasu, Larraul eta Alkiza, Albiztur eta Legorreta, Elduain eta Hernialde, Belauntza eta Berastegi, Leaburu eta Gaztelu, Legorreta eta Ikaztegieta, Alegi eta Altoz, Lizartza eta Oresa, Baliarrain eta Abaltzisketa, Amezketeta eta Bedaio. Hortik kanpora zeuden dagoeneko, aldiz, biztanle gehieneko Tolosa herriburua alboko Ibarra eta Berrobirekin, eta N-Ieko Anoeta, Billabona, Andoain eta Zizurkil.

(14) Inguru horretatik kanpora zegoen, garbi-garbi, Ordizia-Beasain-Lazkao bilgunea: hots, Goierriko biztanle gehien biltzen dituen kale-giroa. Olaberria (behe)ak eta Zegamak ere utzia zioten arnasgune izateari. Kontzeptu horren barruan sartzekoak ziren, aldiz, Itsasondo eta Arama, Zaldibia eta Ataun, Idiazabal eta Segura, Zerain eta Mutiloa, Gabiria eta Ormaiztegi, Itsaso eta Ezkio.

(15) Hor sartzekoak dira Oñati, Leintz-Gesaltza eta Elgeta. Arabakoa izan arren multzo horretan sartzekoa genuke osorik, ikuspegi geolinguistikotik, Aramaio. Goien-barren harturik Deba bailararen bizkarrezurra osatzen duten udalerrri industrialdu ugariak, aldiz, arnasgune horretatik kanpoan zeuden dagoeneko. Bergarak eta Antzuolak bakarrik eusten zioten aski euskaltasun-maila ohargarriari. Egia da, aldiz, udalerrri horietako zenbaitek (Debak eta Elgoibarrek, Eskoriatzak eta Aretxabaletak kasu) nekazari giroko auzo euskaldun petorik bazutela. Udalerririk berak, bere osoan hartuta, galduta zuen ordea arnasgune izaera hori.

(16) Ondarroa eta Berriatua izan ezik udalerrri guztiak hemen sartzekoak dira: Izpaster eta Lekeitio, Mendexa eta Gizaburuaga, Amoroto eta Murelaga, Markina eta Etxebarria, Mallabia eta Ziortza.

(17) Bermeo, Forua, Gernika, Kortezubi eta Arratzu arnasguneetik kanpora gelditzen ziren, halere. Barruan, aldiz, Mundaka eta Sukarrieta, Elantxobe eta Ibarrangelu, Ea eta Murueta, Arteaga eta Ereñu, Errigoiti eta Nabarniz, Muxika eta Mendata, Gorozika eta Ibarri.

(18) Sopela eta Lemoiz, Maruri eta Bakio, Laukiriz, Gatika eta Maruri, Mungia eta Meñaka, Arrieta eta Fruiz, Gamiz-Fika eta Morga. Kanpoan ziren, aldiz, Plentzia eta Gorliz, Barrika eta Urduliz.

(19) Areatza-Villaro kanpoan gelditzen zen, bere ingurumen gehiena barruan ordea: Zeberio eta Arantzazu, Gaztelu Etxabeitia eta Dima, Orozko eta Zeanuri. Barruan zeuden, baita ere, Ubidea eta Otxandio alde batetik, eta Mañaria bestetik.

(20) Demagun, adibidez, Legazpia: udalerrriaren erdi- eta behe-aldea zeharo industrialdurik zuen bertako enpresa nagusiak, 50eko hamarkadatik aurrera, eta langile-auzo trinkoaz horniturik. Industrializatze bizkor horren eraginez etorkin asko iritsi zen herrira Nafarroatik eta, batez ere, Gaztela aldetik. Erdal giroa nagusitu zen, horren eraginez, kaskoan eta langile-auzo handian. Aldiz udalerrriaren urrutia egokiko baserri-eremuetan, batez ere Telleriarten eta Brinkolan, euskal-giro tradizionalak nagusi izaten jarraitu zuen.

bizigune horietan ere. Udalerria bere osoan hartuta, ordea, gero eta nekezago kaleratzen zen halakoetan euskarazko jardun bizia.

Kalea bere mende hartua zuen erdarak, arnagune nagusietatik kanpora. Hartara iritsi gabe ere, arnaguneetan bertan bietariko bizimodua gailentzen ari zen. Gero eta normalagoa zen, halakoetan, ohiko lanbideari eusteaz gainera baserriar jendeak fabrika lan egitea. Baserrian, baina ez baserritik, bizi izatera pasa zen arnagune horietako euskaldun asko (21). Ahultze-lan hori bortitzagoa izan zen, bestalde, arnagunetik kanpoko baserri-eremuetan. Gero eta maizago bigarren edo hirugarren sektorean (industriar edo zerbitzuetan) lan egiten hasteaz gainera, bizi izatera ere kalera jaisten hasi zen euskaldun horietariko asko. Antzina-antzinatik euskararen gotor-leku izandako baserri-giroa, bizigune eta lanleku integratu gisa, ahulduz joan zen horrela (22). Kaletartu egin zen euskaldun-jendea, oro har, Bizkaian eta Gipuzkoan. Kaletartzearekin batera, jakina, bizimoduz aldatu zen: bestelako etxebizitza, bestelako lanbidea, bestelako lagunartea, bestelako familia-giroa eta bestelako harreman-sareak eratu zituzten baserritik kalera jaitsitako euskaldun horiek eta beren seme-alabek. Modernizazio ekonotekniko eta soziokulturalaren zurrumbilano sartu ziren bete-betean, eta ondorio jakinak ekarri zituen horrek: euskal arnaguneak mehartzten hasi ziren, eta bizitza urbanoa zabalduz joan zen han-hemen. Demografiar, oinarri sozioekonomikoz eta pautar soziokultural berriz gero eta indartsuago bihurtu ziren industria-herri nagusiok. Are nabarmenago hazi ziren zerbitzu-sektore sendoeneko Bilbo Handia zein Donostialdea: hots, hiriburuak eta beren hamar hamabost kilometroko gerribuelta. Probintzia bi hauen bilakaera ez zen, dena den, parez parekoa izan. Euskarari indartsuago eutsi zion Gipuzkoak. XX. mendeak aurrera egin ahala bera bilakatu zen EAEn, gero eta nabarmenago, euskal hiztun-herri osoaren muin-gune (23). Berak gorde zuen euskaldun-portzentajerik altuena; euskaldun horien kontzentrazio espazial biziena ere bai.

Baserritik kalera jaitsi beharrak ahuldu egin zituen euskarazko harreman-sare tradizionalak. Erdaldunak nagusi ziren jardun-guneetan txertatu behar izan zuen, normalean, euskaldun-jendeak. Erdara jaun eta jabe zen, edo hala bihurtzen ari zen, ingurumen berrira egokitu behar izan zuen hainbat euskaldunek. Hizkuntzazko egokitze-lan handia eskatu zuen horrek, besteak beste. Erdaraz ahalik eta ondoen ikasi, euskara alde batera utzi eta gaztelaniarazko kale-giro horretan murgil egin zuen zeharo, hori dela-eta, batek baino gehiagok (24).

(21) Aurreko baserriar gehienak, horra hor aldear, baserrian eta *baserritik* (bakarrik) bizi zirela esan nahi da horrekin.

(22) Arrantzale-munduak ere aldaketa sakonak izanak ditu: gutxitan gertatu izan dira berrikuntza horiek euskararen onerako.

(23) Gipuzkoan ere aurrerabide handia egin zuen kale-bizitzak. Adibide gisa ikus Aguirre Elustondo 1969, 257-87.

(24) Giroak beharturik egin zuen hainbatek translinguifikazio hori. Izan zen ordea tartean, orduko zenbait testigantzar kontuan hartzen bada, ezinbesteko beharrik gabe ere hala egitea nahiago izan zuenik. Hobeto aztertu beharreko gaia da hori: inor gutxi saiatu da, gure artean,

Euskaldun aktibo izaten jarraitu ahal (eta nahi) izan zuen beste zenbaitek. Jatortasun etnokulturalari eta euskaltasun linguistikoari bizirik eutsi zion halakok, erdarazko bizimodu berriaren hainbat ezaugarri soziokultural bereganatuz bide batez. Osorik translanguifikatzea edo ele biko nahas-moldaera berria osatzea: bietako bat aukeratu behar izan zuten euskaldun gehienek. Aukera ez zen gozoa: galera eta eragozpen ohargarriak zekartzan bide batek zein besteak. Aukeratu beharra zegoen ordea, gogoz zein gogoz kontra. Halaxe egin zuen euskaldun-jendeak 1900etik 1975 ingurura oro har, eta 1955etik 1975era artean bereziki. Euskara-erdaren aski konfigurazio soziokultural berezia eratu zen, horrela, euskaldun-jendearen bizileku eta bizimodu berrian.

Gizarte-aldaketa zabalago baten altzoan gertatu zen euskaldun-jendearen birmoldatze hori: immigrazio-kontestu bortitzean. Espainiako (batez ere Gaztela aldeko) etorkin-masa zabalak iritsi ziren Bizkaira (bigarren aldiz) eta Gipuzkora 1950etik aurrera (25): ia 700.000 lagun. Ondoko taulan ikus daitekeenez, 1975eko udal-padroiaren arabera EAEko biztanleen herena inguru etorkina zen. Hots, EAEtik edo Nafarroatik kanpora jaioa (26). Euskararen presentzia demolingüistikoa nabarmen ahuldu zuen bigarren immigrazio-aldi horrek: euskara aski ahuldurik zegoen etorkinon harrera-leku askotan, eta besteetan gizarte-bizitzaren esparru formal, gora-bidezkoetatik baztertuta, eta ez zuten beraz euskaraz egiten ikasi beharrik izan. Etorkin horietariko gehienek, eta haien ondorengo askok, erdaldun elebakar izaten segitzen zuten (27).

Lurraldea	Biztanleak	etorkinak (28)	etorkin %
Araba	238.262	83.320	%34,97
Bizkaia	1.152.394	410.943	%35,66
Gipuzkoa	682.517	189.535	%27,77
EAE	2.073.173	683.798	%32,98

1. taula. EAEko biztanleak 1975ean. Kanpoan jaiotakoak zenbat

*language shift* edo luze-zabaleko mintzaldaketaren konkomitante psikologikoak eta soziokulturalak zor zaien arduraz azterten. Kasu batean zein bestean, Joshua A. Fishmanek egokiro azaldutako gertaera bikoitza ageri da oinarrian: a) «Es más probable que se vean alterados los repertorios verbales de las comunidades o retículas experimenten el cambio sociocultural de más entidad»; b) «Es más probable que quienes ven la oportunidad de cambios deseables en su status propio social (alterando sus repertorios sociales) adopten o copien los repertorios de aquellos que descuellan más en lo económico, político u otro tipo de status sociocultural». (Biak in Fishman, 1982)

(25) Baita lehendik ia zeharo erdaldundua zegoen Arabara ere: batez ere Gasteiz hazi zen populazioz, Arabako biztanleez eta Arabaz kanpoko etorkinez, 1960tik aurrera. Bazen tartean, halere, Bizkai-Gipuzkoetako euskaldun-jenderik, industria-alorreko eragile ezagun zenbait besteak beste.

(26) Hor ez dira kontatzen lehen etorkin-fluxu handiaren ondokoak, Bizkaian bereziki kopuru ohargarria osatzen zutenak.

(27) Ikus, adibidez, Gaur S.C.I. 1971.

(28) «Etorkinak» esaten denean esan nahi da hemen: EAEtik edo Nafarroatik kanpora jaiotakoak zirela biztanle horiek.

Immigrazio handi horrek batetik, eta bertako familien haur-ugaritasunak bestetik, populazioaren hazkunde demografiko azkarra ekarri zuten berekin. Hogei urteko hazkunde larri horretan 60ko hamarkada izan zen deigarriena. Demografiak ez ezik ekonomiaz ere gora ari ziren hiru Probintziak eta Nafarroa. Bertako *per capita* errenta (Madrilekin eta Bartzelonarekin batean, eta horien aurretik) Espainiako altuena zen hiru Probintzietan (29), eta Nafarroa ez zebilen oso atzetik. Ekonomiako alde nabarmen horiek ere bazuten zerikusirik populazioaren bilakaeran (30). Industrializazio eta immigrazio bortitz horrek, bestalde, hirigintza indartu zuen leku askotan. Etxeak eta etxaldeak ez ezik auzo osoak ere eraiki ziren denbora gutxian. Kalea eta fabrika zeharo nagusitu ziren.

Kale-giro modernizatu horretan, lantegietan eta auzo-bizitza arruntean egin zuten topo lehendikako kaletar erdaldunek, azken orduko etorkinek eta berrikitan kalera jaitsitako euskaldunek. Ingurumen horretan eratu eta zabaldu zen hizkuntza bien arteko *modus vivendi* berria, behinolako diglosia egonkorra gero eta alborago uzten ari zena. Tirabira horretan euskaldunek egin behar izan zuten, oro har, soziolinguistikazko egokitze-lan nagusia. Lehendik zetorren joera indartzu eta zabalduz, EAEko euskaldun gehienak (ia guztiak) elebidun bihurtu ziren une batetik aurrera (31). Erdaldun gehien-gehienak, aldiz, ez ziren euskaldunak: ez zuten beharrik izan (32). Ondorio nabarmena izan zuen horrek, batzuen eta besteen gizarte-bizitzan: euskara-erdaren mendez mendeko konpartimentazio soziofuntzional tradizionala ahuldu egin zen nabarmen, eta hainbat lekutan erabat apurtu. Euskarak ordura arte bere-bereak izandako funtzio-esparruak erdarak bereganatu zituen, partez edo osoz. Hori dela-eta, bere-berea zukeen jardun-gune eta funtzio-esparru nabarmenik gabe gelditu zen euskara, sarri asko, kale-giro berri horretan.

Labur-bilduz: batzuetan partez, eta besteetan osoz, lehendik aski ahuldua zetorren diglosia zaharra ahulduz eta apurtuz joan zen XX. mendean zehar,

---

(29) Oraingo EAE (eta, oro har, hego Euskal herria), 60ko hamarkadan, lehenengoak ziren *per capita* errentan. Ikus, Espainiako orduko 50 probintzien artean, lurralde bakoitzaren ranking-lekua 1960an eta 1969an. Iturrria Banco de Bilbao-ren *Renta nacional de España y su distribución provincial* (1969, 50-51).

(30) Ikus bosgarren eranskinen bi taulak, diogunaren erakusgarri.

(31) Joera zaharra (Larramendiren eta Iztuetaren garaitik dokumentatua) da gure artean *code-switching* delakoa, kale-giroan eta goi-mailako (edota, gutxienez, erdal formazio zabaleko) solaskideekin gertatu ohi zena. Euskaldun guztiak elebidun bihurtzeak hedatu eta jeneralizatu egin zuen *code-switching* hori. Aski zen sei-zortzi solaskideren artean bakar batek euskaraz (ondo) ez jakitea, guztiak erdaraz jarduten hasteko. Gertaera horren jeneralizazioak, jakina, ondorio larriagoa izan zuen epe ertainean: *language shift* edo luze-zabaleko mintzaldaketa.

(32) Gipuzkoako hainbat herritan, euskara kalean aski bizirik zegoenetan, etorkin erdaldunek (batez ere etorkinen seme-alaba gazteek) euskalduntzen jarraitu zuten 1960-65 ingurura arte. Handik aurrera, aldiz, ditugun datu apurren argitan nabarmen ahuldu zen joera hori: baita Azpeitian bertan ere. Etorkinek euskaraz ikasteko joerak bizirik iraun zuen halere, parte ohargarri batez, arnagune «bizi» eta «babe»-enetan.

euskal hiztun-elkarte gehienez (33). Ahuldu (hainbatetan ezabatu) egin ziren euskarak ordura arte bere-bereak izandako espazio soziofuntzional nagusiak: etxea eta familiartea, auzoa eta hurbileko lan-mundua, lagunartea eta aurrez aurreko gizarte-bizitza. Diglosiaren ahultze edo galera horren haritik zabalkunde ohargarria izan zuen erdarak. Gaztelaniaren *language spread* edo zabalkundea, mende-hasieratik aski garaturik zegoena, ia erabatekoa bihurtu zen gerra ondoan hasi eta 1980ra arteko lau hamarkada horietan. Lehen ere bereak zituen goi-mailako funtzioetatik (administratibotik, eskolatik, prentsatik eta, oro har, hizkuntza idatzian oinarrituriko jardun-gune eta harreman-sare formaletatik) euskararenak izandako jardun-esparru eta harreman-sare arrunt, barrenkoi-intimo informaletara zabaldu zen erdara, gero eta indartsuago: herriko plaza eta lan-mundu arrunta bereganatu zituen lehenik; hurbileko lagunartea eta auzo-giroa ondoren; etxe barrura iritsi zen azkenik, elearteko nahas-ezkontzak lagun. Guraso euskaldun (zer esanik ez ele biko) asko bietara, edo nagusiki erdaraz, egiten hasi ziren etxean, gero eta maizago. Senar-emazteak erdaraz egiten hasi ziren, bai beraien artean eta bai, adin batetik gora, seme-alabekin. Lehen ez bezala etxean ikasiko zuten haurrek, aurrerantzean, erdaraz egiten (34). Komunikabideen (bereziki irrati-telebisten) 1960tik honako leher-eztanda gehitu behar zaio horri: gero eta aukera zabalagoak izan ziren irratia lehenik, eta telebista gero, etxeratze eta hartaz baliatzeko. Agintearen erabakiz ia erdara hutsean antolatu zen irratia eta, eskolaren pare, erdara huts-hutsez telebista. Irrati-telebisten eta eskolaren eragina ohargarria izan zen lagunarte arrunta eta etxea, euskararen azken gotor-lekuak, erdalduntzeko orduan (35). Garrantzitsuak izanik ere transformazio ekonotekniko, demografiko eta soziokultural horiek, ez ziren horiek bakarrik izan euskaldun-jendearen luze-zabaleko mintzaldaketa eragin zutenak. Aginte-egitura osoak ahalegin

(33) Bizkai-Gipuzkoetako hiri nagusietan eta hainbat herriburutan nabarmena zen, lehendik, diglosia-galtze hori. Gero eta herri «euskaldunago»etara zabalduz joan zen deskonpartimentazio soziofuntzionala, mendeak aurrera egin ahala. Azelerazio hori bereziki azkarra izan zen 1955 ingurutik aurrera.

(34) Etxean batez ere euskaraz ala erdaraz egiten zuten galdetu zitzaizen etxeoandreei, 1970 inguruan, eta erantzun hauek jaso ziren gure artean (2. taula):

Etxeko mintzaera nagusia	erdara	euskara
Baserrian edo herrixketan	%31	%68
Kalean, herri hazietan	%74	%26
Hiriburuetan	%96	%4

Ikus 1970eko *Informe FOESS*aren 18.54 taula. Informe haren «cuestionario extra de regionalismo» delakoan «no sabe» edo «no contesta» erantzunak alde batera utzita ateratako datuak dira goiko horiek (iturria Ninyoles, 1977: 190-1).

(35) Eragin horren zenbatekoa ez dago, dakidala, inon zehatz neurtua. Bere zernolakoaren apenas inork argi deskribatu duen. Adostasun zabala dago han-hemen, ordea, muin-muinean: komunikabideen eta eskolaren eragin hori garrantzizkoa gertatu zen 1900etik 1975era arteko epealdian, EAeko eta Euskal herri osoko kale-bizitza eta etxe-giroa erdalduntzeko orduan. 1960tik aurrera gero eta eragin biziagoa izan zuten, gainera, komunikabideek.

berezia egin zuen 1937tik aurrera, komunikabideen eta hezkuntzaren alorrean bereziki, euskaltasunari gizarte-molde berrirako garapen-aukerak mugatzeko, oztopatzeko eta, hainbatetan, zorrotz debekatzeko.

Transformazio ekonotekniko, demografiko, soziokultural eta politiko-operatibo horien guztien ondorioz, ez erdal eskolaren eragin hutsez, gero eta eragozpen larriagoa izan zuen euskaldun-jendeak bere artean euskaraz jarduteko, gizarte-giro urbano berrian euskarazko bizi-esparru propioa osatzeko eta esparru hori hurrengo belaunaldiari bizirik transmititzeko. Ama-hizkuntzaren belaunez belauneko transmisio arrunta, osasun-egoera oneko hiztun-elkarteetan etxe-barneak eta auzo-giro hurbilak, eskolak eta eguneroko gizarte-bizitzak behar adina segurtatu ohi dutena (36), nabarmen ahuldu zen euskaldunen artean XX. mendeak aurrera egin ahala (37). Ahuldade hori larritu egin zen XX. mendearen bigarren erdialdean. Dena ez zen galera izan, ordea, gizartearen moldaera berri horretan. Arnasguneak ez ziren erabat desagertu, batetik, eta kale-giroan euskara indarberritzeari ekin zitzaion, bestetik. Ikus ditzagun, banan-banan fenomeno biak. Horrela,

- a) Ohiko herri-herrixkak eta baserriak, eta bertako euskal giroa, ez ziren erabat desagertu. Erdarari gero eta leku zabalagoa eginaz ere, aski bizirik zirauen euskarak ingurumen horietan: bizirik zirauen, bereziki, euskarazko familia-bizitzak eta hurbileko lagunarteak. Bizirik jarraitzen zuen euskarazko mintzajardun informal arruntak, etxean eta etxetik kanpora: euskaraz egiten zen ostatuan eta plazan, meza nagusiko sarrera-irteeretan eta bataio, ezkontza edo hileta gehienetan, etxe-inguruko lanean eta herriko jai-ospakizunetan. «Betiko bizimodu»ari bere osoan eutsiz edo, maizago, kale-bizitzarekin konbinatuz (senarrak fabrika jardunez eta andrea merkatura joanez, adibidez) moderno eta jator bizi izaten segitzeko oinarri sozioekonomikoa eratan asmatu zuen arnasgune askok. Oinarri horri eskerrak, eta immigrazioak zein hirigintzak inpaktu minimoa zuteneg ingurumen horretan, euskaldun-belaunaldi berriak sortuz jarraitu zuten arnasgune horiek. Familia zabalak izanik askotan, eta etxerako seme edo alaba bakarra gelditzen zenez, kalera jaisten ziren gainerakoak eta bertako euskaltasunaren indargarri bihurtzen (38).

---

(36) Hala egin ohi dute eta, horrezaz gainera, emendiozko gizarte-indargarriak izan ohi dituzte sari eskuera: administrazioa, lan-mundua eta komunikabideak, besteak beste, Europako kontestu nagusian.

(37) Gipuzkoa izana da, eskuera ditugun datu guztien arabera, ama-hizkuntzaren belaunez belauneko transmisioari XX. mendean ongien eutsi izan dion lurraldea. Hor ere nekez, ordea: umetako hizkuntzari bizirik eusten zioten euskaldunak ez ziren, hasteko, adinez bereziki gazte. Eskolaketaz ere ez ziren, oro har, prestatuenak. Kategoria sozioprofesionalen aldetik ezin esan zitekeen, orobat, diru-sarreraz oparoenekoak zirenik. Labur bilduz: gizarte-molde berritik urrun (gero eta baztertuago) gelditzen ari zen euskaldun asko. Ikus horri buruzko bibliografia espezializatua.

(38) Kaleko harakin eta tabernari, fabrika-langile eta kamiolari asko horrelakoak ziren etorkiz. Are nabarmenagoa zen fenomeno hori apaizen eta fraideen artean: kale-giroko «euskaltasun-harrobia» osatzen zuten horiek guztiek, hainbatean

- b) Arnasgune horietatik kanpora ere bizirik jarraitzen zuen euskarak, han baino ahulduago egon arren. Hala gertatzen zen, hasteko, udalerrri erdaldunduetako hainbat auzo eta baserritan. Baita hiriburuan ere: Donostia bere mendean hartua zuen erdarak, zeharo; baina Altxan eta Aieten, Añorgan eta Igeldon euskarazko jarduna aski bizirik zegoen. Antzera gertatzen zen Bizkai-Gipuzkoetako hiri eta herriburu industrializatuen gerri-bueltako baserrietan eta zenbait auzotan: etxean eta auzoan bere lekua izaten segitzen zuen euskarak. Euskarazko bizimodu horrek bere eragina zuen gainera, kasuan kasuko herriburuan eta, are, hiriburuan bertan. Aski da bertako merkatu-azoketan zer gertatzen zen ikustea (39). Euskarak bizirik jarraitzen zuen, oro har, han-hemengo feria-egunetan ere: bai asterokoetan (Hernanin, Tolosan, Ordizian,..) eta bai aldian behingoetan: (Zumarragan, Santomasetan han-hemen,..). Bere lekuari eusten zion euskarak, orobat, ohiko elizkizunetan, festa-giroan eta hainbat herri-kiroletan. Bizirik jarraitzen zuen kale-girotik hurbilagoko auzo eta baserri askotan. Euskaldun-jende horrek kale-kalean zituen jardungune eta harreman-sare tradizionaletan ere bai: merkatuan eta tabernan, behinik behin, «bere lekua» zuen euskarak. Leku mugatua baina ohargarria: hainbat tabernatako zerbitzari izateko euskaraz jakin behar zen, *de facto*, Donostiako Parte zaharrean.
- c) Kaleko euskara-erdaren kontua ez zen jardungune horietara mugatu. Euskara-erdaren gizarte-moldaera tradizionalan «bereak ez zituen» esparruetan ere burua jasotzen hasi zen euskara, une batetik aurrera. Goian azaldutako diglosia-galtzeaz eta luze-zabaleko mintzaldaketaz gainera hori izan zen, alde askotatik begiratuta, 1955etik 1975era arteko berrikuntza nagusia. Bilbon eta, bereziki, Donostian eta bere jira-bueltan, gero eta erdal giroan murgilduago bizi arren gogor eutsi nahi izan zion bere lehen hizkuntzari bertako hainbat euskaldunek. Kale-giro horretan euskara galduko ez bazen, jatoriasun etnolinguistikoaren «azken hondakinei» eustea ez zela aski ikusi zuten euskaldun kaletar horiek. Zegoenari eusten saiatzeaz gainera bizi-esparru berriak irabazi beharra zegoela, alegia, erdarak itoko ez bazuen euskara. Euskaltzasetasunak indar bizia hartu zuen kaletar horien artean, euskalgintzaren gurgilari molde berriz eragiten hasiz. Euskara ahaztu samarrik edo aurreko belaunaldi(et)an galdua zuen erdal (elebi)dun askotxo (40) bildu zen, gainera, euskalgintza horretara (41). Jatoriasun

(39) Donostiako Bretxa, esate baterako, euskara-erdaren parez pareko jardungune aparta zen, astean sei egun. Euskaraz egiten zuten tratuan baserritar saltzailleek eta kaletar euskaldunek, eta erdaraz egiten zen euskararik ez zekiten «señorekin». Antzera, baina ahulxeago, gertatzen zen arrandegian.

(40) Baita azken orduko hainbat etorkin ere, une batetik aurrera.

(41) Askok aitortu izan du euskaltzale-giro horren izaera «transbertsala». Ikus, esate baterako, Aguirre Elustondo (1969), GAUR taldea (1971) eta Siadeco-Euskaltzaindia (1979). Garai hartako ikuspegi zabalaren sintesi modukoa delakoan honako hau eman liteke adibide gisa: «Sin caer en la

etnokulturala eta modernizazio ekonoteknikoa uztartuz, ez «bat ala beste» aukeratuz, euskarazko bizibide berria eratu eta elkarlanean zabaldu nahi izan zuen (42) euskalgintza horrek. Euskarazko harreman-sare berriak eratu zituen horretarako, hizkuntzari hainbat aplikazio-gune bilatuz etxetik kanpora: musika eta kantua, dantza-taldea eta mendi-irteera, poesia eta eleberria, luze-zabaleko alfabetatze-saioa eta, bereziki, eskola: ikastola. Hizkuntza bera ere eszenario berri horretarako egokitzen saiatu ziren euskaltzaleok: urrats handiak egin zituzten egokitze-lan horretan, bereziki, euskal idazle eta euskalari batzuk. Dedikazio horren fruitu dugu, aski neurri zabalean, egungo euskara batua: batez ere bere arkitektura nagusia (43).

Ekimen horiek guztiak, eta beste asko, erne ziren 1955etik aurrera, euskara eta euskal kultura indarberritzeko saio osoaren altzoan. Esparruz eta eraginez aski mugatuak ziren ekimen horiek: gizartearen ordainsari nagusien aurrean ezer gutxi zezaketen, epe laburrera begira, desoreka interlinguistikoa berdintzeko eta euskarazko *habitat* babestua eratu eta zabaltzeko. Momentuko odol-isurtze etnolinguistikoari freno jartzen zioten ordea ekimen horiek, partez behintzat: euskarazko harreman-sare berriak eratzen zituzten kale-giroan, eta belanez belaneko transmisio-bidea indartzen zuten nonahi. Euskaltzaletasun modernoaren bideragarritasun faktuala erakusten zuten aldi berean, garai bateko zenbait aurreiritzi euskal-galgarri ekinaren ekinaz indargabetuz eta belaualdi berriaren euskal hazia ereiten lagunduz.

- d) Kale-giroan, oinarritzeko edo hortik gorako eskola-maila baten jabe ziren herritarren artean, indartu zen batez ere euskalgintza hori. Hizkuntza zaharra eta kultura modernoa uztartu nahi izan zituen euskaldun-jende horrek. Europako eta munduko gertakarien berri bazuen, hainbatean, eta berrikuntza horien ildotik eratu nahi izan zuen bere ahalegina. Euskara indarberritzeko saio urbano berriak ez zuen, bestalde, gerra aurrekoarekin lotura zuzen handirik: jende gaztea zen gehienbat, 1955etik aurrera euskalgintzan katigatua; aurrekoen esaneginak aski neurri mugatuan ezagutzen zituena (44) eta, batez ere, aurrekoek egindakoaz aski iritzi etsia zuena (45).

---

metafísica afirmación del euskera como esencia nacional (...) es creciente hoy, como lo ha sido en otras épocas, un cerrar filas del pueblo –de los que lo hablan y de los que no lo hablan– en la lucha por salvarlo y por desarrollarlo (J. Ramón Recalde 1976, in Ninyoles 1977: 86).

(42) Benito Lertxundik kantuz esango zuenez: «bizi berri bat eman» nahi zitzaion «mendian, lahar artean, ezin bizirik» zegoen loretxoari.

(43) Saio horren nondik norakoaz jabetzeko ikus, adibidez, Larresoro (1974).

(44) Joxe Azurmendiren esanean, «gure gazterientzat *de facto* mundua berekin edo beren gurasoekin hasi balitza bezalatsu zegoen: herbesteak bakarrik zirudien lehenagokoa» (Azurmendi, 1972: 36).

(45) Oro har etsia eta, zenbaitetan, gutxiespen nabarmeneko. Aurreko belaualdiak egin dako gehiena okerra iruditzen zitzaion euskaltzale-multzo horri. Mitxelenaren aitormen mingotsez esateko, «exkaxtatz hartu gaituzte, eta kitto».



- e) Bizkaian eta, batez ere, Gipuzkoan gertatu zen kale-giroko buru-jasotze etnokultural hori (46). Bertsolaritza berriro zabaltzen eta asentatzen ari zen unean *kanta berria* sortu eta zabaldu zuen, bestelako asmoz eta bestelako bezeria batentzat, kaleko euskaltzale-jendeak. Euskara indar-berritzeko saioa ahozko jardunera mugatu gabe gazte-jendearen alfabetatze-lana hartu zuen xede, bestalde. Alfabetatze horretan oinarrituz literatura berria, azalez eta mamiz berria, indartu zuen. Aldizkako prentsa eta, bereziki, euskal eskola (bir)sortzen, zabaltzen eta garatzen saiatu zen. Euskarazko gizarte urbano berri bati atek zabaldu nahi izan zizkion ekimen horrek guztiak, sinbologiaz eta egitez. Ez zen batere lan erraza, eskuartean zuena. Euskara-erdarei buruzko iritziak ogor polarizatuzatzen zuden oro har. Euskaldun-jende horrek bere lan-leku eta garapen-gune aukeratu zuen kale-giroan, bereziki, erro zabalak zituen euskal detraktoreen ikuspegiak. Giro-aldarte nahasi horretan hasi zitzaion, 1955 ingurutik aurrera, euskalgintzaren gurgpilari berriro eragiten.

Erdararen erreinu zen kale-giroa, oro har. Aldaketa handiak gertatu izanik ere azken hamarkadetan, tarte edo eten handia zegoen euskara-erdaren erabileran mendi-zokondoetako baserrietatik hasi eta hiriburuetara. *Etendura* hori bat zetorren, gorago azaldu dugunez, kale-baserri dikotomiak berekin zuen oinarri demolinguistikoarekin, euskaldun-jendearen kontzentrazio- edo dispersio-mailarekin eta urbanizazio berriak eragindako pauta soziokulturalekin. Horrek guztiak eragin bizia zuen mintzajardunaren lekuan lekuko gizartemoldaera nagusian. Leku batean euskaraz egiten zuenak erdaraz egiten zizun bestean, solaskide euskaldunik eskuera ez zuelako edo «halako lekutan halako solaskiderek halako kontuak astintzeko» gaztelania ezinbestekoa edo «berezkoa» zelako. Ezinbesteko edo berezko izate horretan, euskara-erdarei buruzko iritziak, jarrera nagusiak eta gizarte-bizitzan luze-zabal onarturiko jokabideak ere kontuan hartzekoak ziren.

### ***1.1.2. Euskara-erdarei buruzko jarrerak***

Iritzi eta jarrera, ikuspegi eta balio-irizpen diferentek sortzen zituen euskara-erdaren egoera horrek. Iritzi diferentek eta, zenbaitetan, aurrez aurre kontrajarriak. Hiru jarrera edo ikuspegi nagusi aipatuko dira hemen, berez hori baino konplexuagoa zen gogo-giroaren oinarritzko ardatzak nolabait laburbildu nahirik.

a) *Euskaltasun xaharkituaren kale-ikuspegi estereotipatua*. Erdarazko kaletar euskaldunak, nolabait esateko *vasco*-ak, kopuruz eta posizio sozialez nagusi ziren EAeko hiriburuetan eta herriburu askotan. Erdarazko jardunaren

---

(46) Rikardo Arregiren figura paradigmaticoa da, hainbaten ustean, buru-jasotze soziokulturalaren gai honi dagokionez. Ikus Torrealdy 1972.

nagusitasun numeriko eta status-mailako horrek ikuspegi ezkorra erantsia zion han-hemen, euskarazko jatortasun *residual*-hondakinezkoari. Bai hemen, EAEko kale-giroan bereziki, eta bai (lehenagotik) Espainia osoan. Estereotipo jakina osatua zegoen Espainian euskaldun «leial baina gizagaixo»z. Estereotipo hori aski barneratua zeukaten bertako *vasco-euskaldunek* ere, ez beti baina bai sarri. Erdarak mendean hartu gabeko euskaldun jatorra *Pello Kirten*, *Chomin del Regato* eta antzeko irudiekin lotzen zituen ikuspegi horrek. Bai batzuen eta bai besteen artean baserritar ez-jakinaren ikur bihurturik zegoen euskara: defizit nabarmenez markaturik ageri zen, hori dela-eta, euskaldun jatorren eguneroko hizkera (eta hizkera horren bidezko kultura) (47). Bazegoen estereotipo horretarako oinarri objektiborik. Adinez zaharrenak, formazioz arloteenak, diruz eskasena eta bizimoduz zaharkituenak ziren askotan, batzuen lotsagarri eta askoren irri-eragile, erdaraz ondo egin ezinik kalean eta lantokian nabarmentzen ziren euskaldun gizagaixoak (48). *Pellokirten*-en eta *Chomin del Regato*-ren antzik ez zitzaien falta, askotan, euskaldun elebakar edo euskal elebidun horiei: beraiek ziren, sarri, kale-giro erdalduneko pobre-arlote-xahar-ezjakin nagusiak (49). Bestelako euskaldunek, bizian aurrera (eta gizarte-staturean gora) egiten asmatu zutenek, erdaraz ikasia zuten aspaldi (50).

---

(47) Kontua oso atzetik zetorren berez: gogoratu Cervantes-en *vizcaíno* famatua eta irakur, oro har, Legardaren *Lo vizcaíno en la literatura castellana*. Joera hori indarberriturik plazaratu zen Errestaurazio garaian, 1880tik aurrera. Kontuan hartzekoak dira, adibidez, Pedro Laín Entralgo baten 1955ko azalpenok: «¿Cómo olvidar la tan degradante y reiterada aparición de la provincia sobre las tablas de la escena madrileña: el catalán, el gallego (...) y el vasco de guardarropía, que durante medio siglo han hecho reír, gruesa y envilecedoramente, al público medio del sainete y el género chico? El día en que se acierte a utilizar como documento sociológico el teatro español de los cincuenta años que transcurrieron entre 1880 y 1930, es posible que descubramos la raíz de muchos episodios de nuestra historia» (in Ninyoles 1977, 180). Ikus, orobat, Vicente Alonso Zamoraren 1966ko aitorenak (in Ninyoles 1977, 181): «Se acostumbraron (...) a considerarse superiores. Meta que se perseguía, no exaltando las virtudes del madrileño, sino destacando los desaciertos del provinciano. De ahí esa nutrida procesión de gallegos (...), catalanes (...), que salen entre los muy acicalados versos, para hacer reír al auditorio a base de estúpidos prejuicios».

(48) Aski fenomeno ezaguna da hori, hemendik kanpora ere. Ikus, adibidez, Ninyolesen azalpenak (1977): «Las dificultades para utilizar el idioma superior (H) por parte del campesinado o del pequeño burgués que cambian de lengua resultan, lógicamente, un objeto constante de burla para las clases castellanizadas autóctonas y para las capas populares alienadas». Hortik eratorria dirudi, zenbaitetan, *autoodio* delakoak ere. Aldiz beste zenbaitetan, Siadeco-Euskaltzaindiak (1979: 52) aipatzen duen kasuan adibidez, burla ez baina beldur fisikoa izana omen da autogorroto horren motibo nagusia.

(49) Egiaren erdia zen hori, eta beste erdia hori bezain kontuan hartzekoa zen noski. 1880 ingurutik aurrera bertara etorritako erdaldun etorkin asko ere aski maila apalekoa zen, eskala sozio-profesionalari eta estratifikazio sozialari zegokionez. Baserritar euskaldun peto horiek bezain maila apalekoa, edo apalagokoa, Bustintzak eta abarrek argi azaldua zuten. 1950etik aurrera, batez ere 1960tik 1970era, etorritako inmigrazio masiboa ere nekez esan zitekeen oso goi-mailakoa zenik. Zenbaiten esanean Katalunyakoa baino formazio-maila handiagokoa zen, oro har, EAEko inmigrazioa. Eskueran dauden datu apurrek argi erakusten dute, halere, hizkuntza-erabileraren eta estratifikazio sozialaren arteko harreman-bidea aski konplexua zela.

(50) Ondo asko ikasia zuten horiek, deskuidoz ere «tu ya sabes-pues» edo «ontze cosas para ver hemos nasido-y» modukorik ez esaten. Lortu ere lortzen zuten hainbatean, saiatuaren saiatuz, euskal *deja* ere estaltzen.

Euskararen (eta euskal kulturaren) estigmatizazioa eragiten zuen asoziazio horrek, ezinbestean (51). Mundu markatua zen euskaldun horiena: kaletar *vascoek* beren seme-alabentzat hobetsirik zuten bihar-etziko gizarte-eredutik (kale-giroan nagusiturik zen irudi kolektibotik) oso urrun gelditzen zen. Marjinalia etnokulturalaren sinbolo bihurturik zegoen euskara, hiritar erdaldun(du) horientzat. Baserrria eta, horrenbestez, euskarazko jardungune jatorra kanpotik ikusten zuten, errespetuz aipatzen zutenean ere, kaleko *vasco gehienek*. *Maitechu mia* modukoak erdaraz, kaletar erdaldunen gozagarri, kantatzen ziren: kantuko baserri-bizia ez zetorren bat beren bizi-proiektuekin. Kanpotik, banalerro etnokulturalaren beste aldetik, eratua zegoen *vasco*-en mundu-ikuskerara. Etxerako, norberaren proiektu familiar eta kolektiborako, ez zen hiritar *vasco* gehienen artean euskararen beharririk ikusten: «Se diga lo que se diga, el vascuence no es ya, hoy en día, una necesidad. Debemos conservarlo porque es algo nuestro, algo querido, una herencia sagrada de nuestros padres y un gran tesoro cultural no sólo para nuestro pueblo, sino también para los demás. Pero necesario, por suerte o por desgracia, no lo es. Hay que ser realistas» (aipamena, eta horren kontrako argudio-bidea, in Aguirre Elustondo, 1969: 205). *Vasco*-euskaldunak ez zeuden euskararen kontra, baina beraien eguneroko mintzajardunak gaztelania zuen ardatz.

*b) Euskara arrisku-iturri.* Bazen han-hemen, goiko ikuspegi horrezaz gainera, euskara eta euskal kultura are urrunagoko perspektibaz juzkatzen eta gaitzesten zuenik. Nazio-estatuaren batasun politiko-operatiboa erabat lortua zelarik, horren pareko batasun soziokulturala lortu ahal izateko eragozpen larria zen euskara, hainbat norbanako eta instantziarentzat. Integrazio politiko-operatiboaren ikuspegitik arriskugarri sentitzen zen euskara (52): arrisku potentzial edo erreal, baina arrisku. Gerra-garaian eta gerraondo bizian agertu zen gaitzespen-ikuspegi hori gordinen (53). Kaltegarri jotzen zuen halakok euskal hizkuntzari eta bertako kultura bereziari eustea (54). Zenbat eta euskara ahulago, galduago eta itoago, hobe. 1955 ingurutik aurrera, hainbaten esanean beste giro bat hasi zen han-hemen

(51) «Uno de los procesos psicológicos a que va unido el cambio de idioma como expediente del ascenso social»(Ninyoles, 1977: 181-3)

(52) euskara eta, oro har, gaztelaniaren hizkuntza edo «dialekto» lehiakideak.

(53) «En la utilización de los dialectos por la gente rústica hay una exaltación de la aldeanería, es algo así como pasear por el asfalto con una zamarra o limpiarse las manos en una sopera. Es decir, todos los actos que las personas educadas tienen proscritos (...). Por lo tanto, ha de ser la ciudad (castellanizada) quien en escuela, púlpito y bando imponga a la montaña una manera ilustre de expresarse, pues no sería admisible más que bajo una influencia separatista y masónica, como ha ocurrido en (...) Vizcaya, que fuera el monte quien pretendiera imponer a la ciudad su ruda y agria expresión (...)» (L. Antonio de Vega «Idioma, dialecto y jergonza», in *Domingo*, 1937-VIII-15, 5. or.

(54) Parisen, 1956ko Euskal Mundu Batzarrean, aurrez aurre eta hoztasun handiz analizatu zen *nazionismoak* (Fishman: 1968) berekin zekarren eragozpen larri hori. Hernandezora baten eta beste hainbaten (tartean Monzon-en) orduko lekukotasuna oso kontuan hartzekoa da.

zabaltzen (55). Giro lasaiagoa, euskara eta katalana (berdin gainerakoak) errazago onartzen zituena. Gaztelaniaz aparteko hizkuntzek halako egonezin bat sortzen zuten ordea, gero ere, hainbatengan (56). Erdara zen, funtsean, probetxuzko *vasco* modernoaren komunikazio-tresna egoki naturala. Naturala eta, hainbatentzat, komenigarri bakarra.

c) *Euskaltasunaren defentsa esplizitua*. Zabal zebiltzan goiko bi iritzi horiek, baina ez gero eta zabalago. Zabalduenak zirenik ere ez zirudien, une batetik aurrera. Ongi aztertu gabe dagoen prozesu batez, 1955 inguruan hasi eta 1975era bitartean euskararen eta euskal kulturaren aldeko jarrerak azaleratuz joan ziren gizarte-bizitzan: azaleratuz eta, itxura osoz, hedatuz. Euskaltzale-jendearen zati ohargarri bat (57) gero eta esijenteago agertu zen bere jarrera eta jokabideetan. Intruso moduan bizi zuen erdara, nagusiki, euskaltzale-jende horrek. Euskara bizirik aterako bazen Euskal herritik kanpora erauzi beharra zegoen gaztelania: hala ikusten zituen kontuak euskaltzale-jende horren sektore mobilizatuenak. Erdal-etsaigo erabateko horren esplikazio posibleak asko izanik ere, honako hau behintzat ondo kontuan hartzekoa da. Familian eta auzoan, herrian eta aurrez aurreko bizitza arruntean euskara nagusi zela haziak ziren euskaldun horietariko asko, umetan. Gero, kalera jaitzita (edo jaiotako herrian bertan) euskara baztertzen eta erdara nagusitzen ikusia zuten, atsekabe handiz; halaxe ikusten zuten geroztik ere, egunero (58). Erabat ahultzen ari zen euskara: hori ez zen beraiek asmatutako ipuina (59). Arrisku bizian, ezintasun nabarmenez inguratutik zegoen euskaltasun etnokultural osoa, hizkuntza barne.

---

(55) Idazle batek baino gehiagok matizatu ditu, halere, «giro-xuabetze» horren neurriak. Badago motiborik uste izateko, termino operatibo hutsetan gerraondo gordina baino «emankorrago» izan zela 1955etik 1975erako epea, erdararen zabalkundea eta euskaratik gaztelaniarako mintzaldaketa bultzatzeko orduan. Estatu indartzuz joan zen tarte horretan, barne-merkatua trinkotzen eta, komunikabideen eraginez besteak beste, elarteko harreman-sarea sendotzen. Hori guztia dela medio gerraondoan baino baliabide ugariago izan zuen eskueran gizajendez, dirubidez eta antolamenduz, erdararen zabalkundea eta euskaratik gaztelaniarako mintzaldaketa indartzeko. Aurrerago esango da zerbait, adibidez, irakasleen hizkuntza-osaeraz jarduterakoan. Badakit besterik dela nagusi dabilen ikuspegia, baina ez dut uste erabat oker dagoenik kontrako azalpen modu hori.

(56) Aztertzen ari garen garaiko gogo-giro horretaz ikus, adibidez, Pedro Laín Entralgo (1972: 148): la «mera existencia de la diversidad lingüística peninsular suscita en el alma de los españoles cierta desazón afectiva, susceptible de mutación rápida en problema o conflicto políticos cuando (...) llega a hacerse intensa y pública. (...) La existencia de las lenguas vernáculas poco o nada inteligibles para quienes sólo hablan el idioma común es el primero y más notorio de los elementos tensionales de nuestra diversidad».

(57) Ez da erraza esaten, «ohargarri» hori zenbaterainokoa zen. Lehen hipotesi moduan ontzat eman liteke Josu Mezo-ren tipifikazio-saioa, eta euskaltzale-multzo hori bere «minoría movilizada»rekin konparatu: multzo biak ez datoz bat, seguruenik, baina ez dabilta oso urruti ere (Mezo, 1996: 519-40).

(58) Ikusi eta nozitu: nork bere ama-hizkuntza (edo berea ez izan arren, bertako «betiko» hizkuntza) herrian baztertzen eta galtzen ikustea ez da, ezinbestean, jarrera ebaluatibo neutrala eragiten duena. Are gutxiago galera hori aginpidezko asmo argiz zurkaiztua datorrenean eta aginpide horrek herritarren gogo-nahia kontuan hartzen ez duenean.

(59) Etxean bertan lan izaten zen, kalearen eta eskolaren eraginari aurre eginez norbere seme-alabek euskarari bizirik eusteko. Eusten zitzaion, baina kostata.

Arrisku eta ezintasun hori guztia adierazten zuen erdarak, euskaldun (eta erdal-dun) euskaltzale horientzat: «gauzak bere bidetik joan izan balira» inoiz gertatu behar ez zukeen kaltea adierazten zuen erdararen zabalkundeak, lehenik eta behin.

Euskararen aldeko herritar guztiak ez ziren hain ikuspegi zorrotzekoak. *Continuum* zabala zegoen euskaltzaleen artean ere, euskara-erdare buruzko jarretan (60). Euskaltzale guztiak ez ziren hizkuntza bakarraren aldeko. Herritar askok ez zuten euskararen defentsa erdararen galerarekin lotzen. Hizkuntza bietan, ez bakarrean, oinarritutako bizimodu berria nahi zuten euskaltzaleen beste multzo horrek. Hala nahi zuten iritzi moduan eta, batez ere, hala ziharduen eguneroko bere praktikan: euskaltzale elebidun gehientzat atributu baliotsua bihurturik zen gaztelania, eta horietariko hainbatek halaxe baliosten ere zuten esplizituki. Begien bistako etorkizunean (ez, ezinbestean, urrun-urruneko formulazio idealetan) ezinbesteko tresna zuten gaztelania: hizkuntza horretan alfabetatua zegoen beti, eta kosta egiten zitzaion euskaldunekin ere hainbat jardun-esparrutan euskaraz egitea. Erdaraz errazago moldatzen zen bertako jardun-gune eta harreman-sare horietan. Gaztelaniak ate zabala irekitzen zion, gainera, estatu osorako eta munduko hainbat lekutarako. Hori ere *plus*-a zuen, ez nolana hiko gainera, eta *plus* hori hipotekatzeko ez zegoen prest. Euskara indartu egin behar zen, konforme; baina euskara-erdaren *modus vivendi* berria eratzea zen helburu, ez euskara hutsezko Euskal herria (berr)-eraikitzea. Baterabilduzko euskaltzaleen elebiduna zen berea, ez euskal elebakartasun territorial zorrotza.

*d) Jarrera nagusi berriaren adostasun-puntua: euskal eskolaren beharra.*

1975etik 1980ra artean, aginte-molde zaharra biologiaz amaitzearekin batera, irakinaldi politiko, soziokultural eta linguistiko bizia izan zuen Euskal herriak. Ordura arteko ikusmolde nagusiek konfrontazio eta adostasun-bilaketa nabarmena bizi izan zuten. Euskaltasun xaharkituaren kale-ikuspegi estereotipatuak («euskara berdin *Pellokirten*» zioenak) atzera egin zuen nabarmen (61). Euskal hizkuntza *per se* arrisku-iturri definitzen zuen ikusmoldea ere ahuldu (edo isildu) egin zen jendaurreko azalpenetan. Ikuspegi horiek ahultzearekin batera aparteko ikusgarritasuna eskuratu zuten era bateko eta besteko planteamendu euskaltzaleek: bai elebakar zorrotzak, bai baterabilduz-

(60) Oker legoke, ordea, euskararen aldeko jarrera agertu zuten herritar guztiak hain ikuspegi zorrotzekoak zirela uste lukeena. *Continuum* zabala zegoen euskaltzaleen artean ere, erdararekiko jarrean: zabalero horretaz jabetzeko aukera paregabea eman dute hurrengo urteek eta hamarkadek. Euskara-erdare buruzko jarreak *aldeko/kontrako* dikotomietara biltzen dituzten galdeketa gehienak ahul gertatu ziren (eta orain ere ahul gertatzen dira), EAEko hizkuntza-jarrean eta *commitment*-mailen benetako errealitatea artez jasotzeko.

(61) Euskararen gizarte berrirako bideragarritasuna aldarrikatzen saiatu zen, batetik, *language loyalty* hura. Bertako protoeliteak, berriz, *ezina ekinez egiten* ahalegindu ziren. Orduantxe sortutako UZEI baten proiektua, Ferguson-en terminoz *intertranslatability*-ren esparruan sar litekeena bete-betan, bideragarritasun-irizpidea zurkaiztera zetorren bide batez.

ko elebidunak eta bai tarte-bitarteko konpromisozkoak. *Language loyalty*-ren adaska horiek (62) nagusituz joan ziren gizartean, euskararen berezko duintasuna seinatuz eta neurri konkretuen aldeko asmoak aldeztuz. Gizartean oro har, eta protoelite jakinetan berariaz: idazleak, artistak, intelektualak eta profesio liberaletako buru-langileak, kultura-eragileak eta iritzi-sortzaileak *modus vivendi* berri bat diseinatzearen alde agertu ziren, era batera edo bestera (63). Aginte-molde zahar-joanaren ordeztzekoa zen gizarte-moldaera berrian euskarari «bere lekua» berreskuratzeko nahia nagusitu egin zen oro har. Galdeketa zabalek ere argi azaltzen zuten gogo-giro hori. Euskararekin zer egitea komeni zen galdetu zenean (1981-2an), hona EAEko biztanleen erantzuna (iturria: Eusko Jaurlaritzako GAL, 1983: 163).

		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
1	Gal dadila piskana-piskana	0,3		0,3
2	Ezer ez: doala bere martxan	3,7	2,0	0,8
3	Euskaldunek behintzat euskaraz segi dezatela	3,7	1,2	1,2
4	Ikasi nahi duenak ikasi ahal izan dezala	33,7	18,5	19,2
5	Guztiok ulertu behar genuke euskara	19,2	15,2	8,5
6	Erdaraz bezain ondo jakin behar genuke	23,5	27,7	25,7
7	Euskaraz egin behar genuke guztiok, egunero	15,7	35,2	44,2

**3. taula.** euskararekin zer egitea komeni da? Jendearen erantzuna

Inor gutxi zegoen euskara galtzearen (edo galtzen uztearen) alde: bizirik gordetzeko eta gizarte berrian garatu ahal izateko «behar adinako lekua» bilatu eta segurtatu behar zitzaion euskarari, gehienen ustean. Lehenbailehen egin behar zen, gainera, bilatze eta segurtatze hori: horretan ere bat zetozen gehienak. Galdeketa ororen (eta bereziki garai trumiltsu haietako inkestean) fidagarritasuna auzipean egon liteke, jakina. Arrisku hori onartuz ere sendo-egiak dira datuak, ezikusia egiteko: EAEko (are Arabako) biztanleen zati ohargarri batek estimu handitan zuen euskara. Bizkaian eta, batez ere, Gipuzkoan oso nabarmena zen hori: azken bi erantzunetako bat aukeratu zuen gehiengo zabalak lurralde horietan. Euskararen aldeko giro horretan erne eta osatu zen EEN legea.

Gogo-giro horretan aparteko lekua aitortu zitzaion, hasieratik, euskal eskolari. Ikuspegi horren argudio-bidea ez da antzematen zaila: «Zerbait egin

(62) Batez ere bigarrena eta hirugarrena nagusitu ziren oro har. Lehenengoak pisu nabaria zuen, dena den, hainbat eskualdetan (batez ere Gipuzkoan) eta sektore mobilizatu jakinetan. Herri-ikastetxeetako ikuspegi aski esanguratsuz ikus Otano 1978. Ikus orobat Arpal, Asua eta Dávila 1982.

(63) Jendaurrera plazaratu berriak ziren arduradun politikoen artean antzera gertatu zen, batez bestean, handik hurrengo lauzpabost urtean.

beharra dago eskolan, euskara betiko galduko ez bada. Eskolak eman biezagu, eskolak kendu ziguna eta kentzen diguna» (64). Euskal eskolaren aldeko gogonahi hori gogor indartu zen, bereziki, bertako elite edo protoelite jakinetan. Ez ziren protoeliteak bakarrik, ordea, iritzi eta jarrera horretakoak. Euskararen transmisio efikaz baterako laguntzak zein ote ziren galdetu zitzaionean jendeari, «eskola» izan zen (era batera edo bestera) %86ren erantzuna (ikus Siadeco-Euskaltzaindia 1979: 94). Gurasoen deliberamendua, beren haurrak eta seme-alabak gero eta proportzio zabalagoan euskarazko ikasbideetan kokatzea, funtsezko elementua izan zen giro-berritze horretan (65). Hori gabe nekez uler liteke eskola-munduan azken 25 urtean gertatu dena. Legea onartu aurreko giro-berotze eta amets-egite kolektibo hura oso kontuan izatekoa da, beraz, gauzak bere osoan entenditu nahi badira.

### *1.1.2. EAEko hiztunen elebitasun-moldaera*

Galduak zituen Euskal herriak, 1975 ingururako, euskaldun elebakarrak. Galtzeko arrisku bizian dauden hizkuntzen *club*-ean sarturik zen, horrenbestez, euskara. Sei-zortzi urtetik gorako neska-mutilen eta azken mendi-zokondoetako bizilagun zaharrenen artean izan ezik, nekez bila zitekeen elebakarreko euskaldunik. Erdaldun elebakarrak, aldiz, asko ziren: gehiengo zabala. Euskaldunak (euskaraz zekiten eta gutxi-asko hala egiten zuten hiztunak) elebidun ziren oro har. Batzuek euskal-elebidun: euskaraz erosoago moldatzen ziren erdaraz baino; arnaguneetan askotxo zen halakorik. Beste zenbait hiztun, berriz, elebidun «orekatu»tzat har zitekeen: parez pare moldatzen ziren hauek hizkuntza batean zein bestean, eguneroko jarduera arruntean. Eta beste batzuk, azkenik, erdal-elebidun: bazekiten euskaraz, eta egin ere halaxe egiten zuten hartarako beharra edo komenentzia suertatzen zitzaionean, baina maizago eta errazago egiten zuten gaztelaniaz. Azken hauek ziren nagusi, erdaldun elebakarren ondoan noski, Bizkai-Gipuzkoetako hiri-giroan. Hori zen EAEko hiztunen elebitasun-moldaera nagusia, aztergai dugun 1970-80ko epealdi hartan.

(64) Ikuspegi hori oso aurretik dator: hego Euskal herriari dagokionez XVIII. mendearen erdialdetik, gutxienez. Jakin badakigu, horrezaz gainera, aski aplikazio-bide bereziak izanak zituela ikuspegi horrek XIX. mendean zehar. Badakigu, orobat, XX. mendearen lehen herenean bereziki, loratze-aldi bizkorra izana zuela euskal eskolaren aldeko saioak. Pasatako gauzak ziren ordea horiek. Hirurogeiko hamarkadan ia hutsetik bezala, lehenaldi horren ezagutza xehe handiegirik gabe, ekin zion hainbat herritarrek euskal eskolagintzari. Lehen aldiarekin lotura handirik gabeko ikuspegi hori zabaldu zen gizartean, 1975etik 1980 ingurura bitartean.

(65) Han-hemengo hainbat inkesta soziologiko oker ez badago gogo hori izan dute euskaldun gehienek, eta halatsu ikusi izan du kontua bertako erdaldun askok: horietariko askok ere euskalduntze-xedea erantsi nahi izan dio bere seme-alaben eskola-agendari. EAEko biztanleen %25 bakarrik izanik ere euskaldun, ondotoz gehiago izan dira mende-laurden honetan beren seme-alabentzat irakaskuntza elebiduna nahi izan duten gurasoak: hasiera hartako egoerari dagokionez ikus, besteak beste, Aguirre Elustondo 1969 eta Siadeco-Euskaltzaindia 1979.

Elebidunen moldaera nagusi hori dela-eta, beste hau ere kontuan hartu behar da: euskal-elebidunen eta elebidun orekatuen artean ere, hizkuntza-osaera aski berezia zen: gizarte elebarkarreko *standard*-en argitan aski atipikoa. Eskola-garaiko (zer esanik ez unibertsitateko) formazioa erdaraz jasoa zuten euskal-elebidunek eta elebidun orekatuek (66). Eguneroko gai arruntez ondo asko hitz egiten euskaraz, baina hortik aurrera inor gutxik zekien azalpenak euskaraz erraz eta zehatz ematen. Hots, euskal-elebidun eta elebidun orekatu haietako gutxi zen gai, kontzeptu-dentsitate handiko azalpen landurik euskaraz agertzeko. Haietako gutxik zekien euskaraz erraz irakurtzen, eta are gutxiagok zehatz eta zuzen idazten (67). Hartarako aukera fisikorik ere ez zegoen praktikan: eskola, lan-mundua, dokumentazio administratiboa eta produkzio kulturala erdarazkoa zen ia ehuneko ehun.

Aldi berean, aski bestelako fenomenoak hasi zen gizarteaz zabalitzen. Une batetik aurrera *euskaldun berriak* sortzen eta ugaltzen hasi ziren han-hemen (68). Hiriburuetan (edo hiri nagusien inguruan) antzeman zen berrikuntza hori argienik, lehen hamarkada haietan, eta alde askotara zabaldu zen gero. Hiriburuetako eta unibertsitate-esparruko panorama soziokulturalaren osagai ezagun eta gorantzkoa bihurtu zen euskaldun berri landua, une batetik aurrera (69). Elebidun aktibo ziren, oro har, euskaldun berri horiek: ahoz ez ezik idatziz jarduteko ere euskarari beldur handirik ez ziotenak. Beren ekarpena gogoan izatekoa da,

---

(66) Zehatzago esanik, hala jasoa zuten hogeita bost urtetik gorako euskaldunek.

(67) Zentsoko erantzun-emaitzak (bai gaur egun eta bai, bereziki, orduan) kontu handiz hartzekoak (eta are kontu handiagoz interpretatzekoak) dira, irakurmen-idazmenei dagokienean bereziki. Badago zerbaiten oinarririk, ordea, erantzun horietan: gogora dezagun gazte euskaldunen zati bat (Gipuzkoan batez ere) euskaraz alfabetatzen hasia zela hirurogeiko hamarkadan. Euskal liburugintza, hori dela-eta, gorantz ari zen 1970erako eta, batez ere, handik aurrera (ikus EIMA leko lehen koadroa in 58. or).

(68) Euskaldun berrien fenomenoak ez da, berez, batera berria. Mendeetako tradizioa dago horretan. Horrela, XVII. mendearen hasiera-aldian (Isasti lekuko) aski gertaera arrunta zen Gipuzkoan, kostaldean bereziki. Materre eta Pouvreau iparraldean handik gutxira, aita Meagher donostiarra XVIII. mendean, eta Arturo Campion, Sabino Arana, Miguel Unamuno eta Julio Urkixo XIX.enean euskaldun berri izanak dira orobat. Atzerriko euskalarien kontua (Wilhelm von Humboldt, Bonaparte printzea, Van Eys, Schuchardt, Vinson, Webster, Dodgson, Uhlenbeck, Norbert Tauer...) alde batera utzita ere euskaldun berriak ditugu, XX. mendearen hasieran bertan jaiotakoei dagokienez, Piarres Lafitte, Bernardo Estornés-Lasa eta Karlos Santamaria adibidez. Bide horretan barrena ibilitakoak dira, orobat, aurreko horiek baino hogeit bat urte beranduago jaiotako Federiko Krutwig, Jon Mirande, Txillardeggi, Txomin Peillen eta Gabriel Aresti. Horiek izan ziren, gazteagoko Karmele Rotaetxe eta beste zenbaiten konpainian, euskaldun berrien garrantzi soziokulturala plazaratu eta euskaldun hiritar berriaren paradigma modukoa eratu zutenak gerraondoko urteetan. Paradigma horretatik abiatuz, azkenik, arras multzo zabala euskaldun berri zen aztergai dugun epealdian: euskaldun berri soziokulturali aktiboen multzokoak ditugu, horrela, Juan Antonio Letamendia eta Joseba Tobar, Xabier Kintana eta Borja Barandiaran, Henrike Knörr eta Arantza Santamaria, Asun Zuloaga eta Natxo de Felipe, Isabel Lertxundi eta Jon Juaristi, Roman Basurto eta Adolin Eguzkitza besteak beste.

(69) *Euskaldun berrien* hainbat zertzelada jaso nahi duenak jakin-iturri bat baino gehiago du egungo egunean eskuera. Aztertzen ari garen garai hartako euskaldun berriez informatzeko, honako liburu hau izan liteke orain ere argigarrien: *Euskaldun berriekin euskaraz* (Xabier Kintana eta Joseba Tobar arg. 1975. Bilbo: Ekin)



kulturgintzaren esparruan bereziki. Bai ekarpen faktikoa, milaka pertsonatara zabaltzen zena, eta bai sinbolikoa: euskal hizkuntza eta euskal kultura biziberritzeko ametsaren lehen fruituak ziren euskaldun berriok, herritar askorentzat. Horiek ere aski aipatuak ziren gizarte-bizitzan, EEN legearen sorrera-garaian. «Halakok edo holakok euskaraz ikastea lortu badu, nola ez dugu lortuko eskola-sistema on batez belaunaldi berria osorik euskalduntzea?». Ez dakit esaldi hori orduko paperetan inon idatzirik dagoen hitzez hitz, baina garai hartako ikuspegi kolektiboan aski oinarri zabala eskuratu zuela uste dut.

## I.2. Hezkuntza elebidunaren egoera operatiboa

Gizartean ikusi dugu, gutxi gora behera, gauzak nola ziren. Eta eskoletan? Zer trataera zuten euskara-erdarek eskola-munduan? Esana dugu, labur-labur bada ere, giza arteko moldaera nagusiaren errainu zela eskola-munduko mintza-eta idatz-jarduna. Hizkuntza formal bakarra gaztelania zen gizartean; *Nation-building language* delakoa indartzea, bestalde, agintearen politika-oinarri nagusietako bat zen. Bi motibo horien ondorioz, erdara zen praktikan EAEko eskola-hizkuntza bakarra (70). Hain bakarra non, euskaldun askoren esanean, eskolan ikasi zuten erdaraz. Erdaraz non ikasi zuten galdetu zitzaieanean euskaldun zaharrei, «eskolan» erantzun zuten %73k, eta «kalean» %12,9k. Lanean %5,9 bakarrik erdaldundu omen zen, eta etxean %4,7. Soldadutza-garairako elebidun ziren ia euskaldun guztiak: %1,6 bakarrik erdaldundu zen han (71). Lautik hiruren (%73ren) esanean, hortaz, eskolan ikasten zuten euskaldunek erdaraz (72). Eskola zen, euskaldun haien ustean, jendea masiboki erdalduntzeko fabrika. Hain fabrika indartsua non euskaldun elebakarrik ia gelditzen ere ez zen (73). Sentimendu eta ikusmolde zabal hori oinarri izanik ekin zitzaion, gogo esanenez, euskal eskola eraikitzeari. Ikastolen hasierako esperientzia

(70) Horrek ez du ukatzen, jakina, hizkuntza sakro-klasikoei (latin-grekoei) eta modernoiei (batez ere frantsesari) bere lekua eskaintzea, batxiler mailan bereziki, L2 edo Ln moduan.

(71) Azkenik, populazioaren %1,4 euskaldun elebakarra zen. Datu zehatzagoetarako ikus Eusko Jaurlaritzako GAL, 1983: 12.

(72) Horrela al ziren gauzak? Inola ere ez, kontua bere osoan hartuta. Bai ordea, itxuraz, askoren sekuentzia biografikoa. Han izan zuten neska-mutil euskaldun zahar gehienek gaztelaniarekiko lehen kontaktu finkoa eta egituratua. Hizkuntzaren dimentsio formal-idatzia gaztelania hutsean jaso zuten, gainera, eskolan. Bistan da norbanakoaren hizkuntza-gaitasunean beste faktore askok eragiten dutela, formaltasunaren plano horrezaz gainera. Beste plano horiek eskola bera bezain garrantzitsuak dira, edo garrantzitsuago. Eskolan zentratu zen, ordea, euskaldun askoren umetako eta gazetako kontaktu formal nagusia eta kontaktu formal horri egozten zioten, nagusiki, beren L2ko biografia linguistikoaren zatirik handiena.

(73) Inkesta egin zenean, euskaldunzaharren 1,4k bakarrik zioen ez zekiela erdaraz. Gainerako guztiek bazekiten dagoeneko gaztelaniaz. Aitormen hutsezko inkestean fidagarritasuna dudazkoa izanik ere, emaitza hori ezin da alde batera utzi: hartzen ditugun prebentzioak hartzen ditugula, garbi dago eskolaren garrantzia euskaldun haien iritzian. Eskolaren garrantzia lehenik, eta kalearena ondoren. Etxea, aldiz, euskararen babesgune moduan ageri zen erantzule horien artean. Erdalduntze-lana ez zen, ia inorentzat, etxean gertatu izan.

(1960 ingurutik aurrerakoa) garrantzi handikoa izana zen: hainbat alorretan bide-urratzaile gertatua zen, bereziki, ikastolen hogeitun bat urteko esperientzia. Garrantzitsua izanik ere minoritarioa zen, ordea, kopuruz. Ikasleen %10 inguru eskuratua zuten ikastolek 1976-77an. Nahiz eta proportzio hori (Gipuzkoan bereziki) goranzko bidean zihoan, Eskolaurrean eta Lehen Hezkuntzan (geroko OHOn) zentratuak zeuden ikastolak, hasiera hartan.

Bestalde, «lengua nativa» edo gaztelaniaz aparteko beste ama-hizkuntzen aipamena eginik zuen 1970eko *Ley General de Educación*-ek. Oso era murritzean izanik ere, lehen onespenezko edo aitormen-modu bat zekarren horrek estatuen filosofia sozioedukati-bora. Filosofia horren ildotik 1433/1975 dekretua eman zuen Gobernuak aditzera (74), handik lau urtera. *Transitional Bilingual Education*-en filosofia zaharrean oinarritzen zen dekretu hori, Frantziako 1951-46 «Deixonne» legearen pare (75): haur euskaldunak lehenago eta oso-ago erdalduntzea zuen dekretuak xede nagusi. Hautazko asignatura bihurtu zuen dekretu horrek euskara, ematekotan ere astean ordubetez emateko aginduz eta eman edo ez eman, beti ere, eskolan euskaraz zekien irakaslerik egotearen mende utziz. Bere muga guztiekin ere, garai berrien atariko usaina zekarren dekretu hark berekin. Labur bilduz, eta ikuspegi orokorrari eutsiz, honako hau esan liteke agintealdi zaharra amaitu eta berria eratzeko garai hartako eskola-munduaz:

- a) 1975-78 tartean EAeko eskola-mundua ez zegoen prest, marko politikoa aldatu hutsaz euskal eskola zutitu eta ezker-eskuin zabaltzeko. Eragozpen politikoa nabarmenak zeuden horretarako. Hasieran, ikastolen 1960tik 1975era arteko sorreran eta lehen hazkundearen, lau elementuok ziren eragozpen larriak: martxan zeuden eskoletan euskara edo euskaraz irakasteko baimen ofizialik eza, ikastola zabaltzeko baimenik eza, ikasleak atenditzeko eraikuntzarik eza eta andereñoen soldata eta gainerako gastuak ordaintzeko diru-laguntza publikorik eza (76). Eskola-etxerik ez izatea, eta halakorik zabaltzeko baimenik lortu ezina, oztopo larria zen noski. Dударik ez zen egiten, ordea, marko politiko berriarekin herri-ikastetxeak bederen hor izango zirela, herri-aginteen esku. Baimena ere bai, lehenxeago edo beranduxeago. Eta baimenarekin, azkenik, diru-bidea. Lau eragozpen horiek, hortaz, benetakoak baina harian-harian gainditzekoak ziruditen 1975etik aurrera.

(74) Decreto 1433/1975, por el que se regula la incorporación de las lenguas nativas en los programas de los centros de Educación Preescolar y General Básica (B.O.E., 1975-VII-1).

(75) *Transitional Bilingual Education* delakoaren definizioaz ikus Fishman eta Lovas, 1970. Kontzeptu horren gure arteko erabileraz eta aplikazio posibleez ikus, besteak beste, Iñigo Urrutia (2005: 199) eta Mikel Zalbide (1990).

(76) Hiru ezintasun horiez ere hasieran bertan jabeturik zen zenbait euskaltzale: bada horren testigantzarik, 60ko hamarkadan eta are lehenago. Ikus 1956an Eusko Jaurlaritzak Parisen egindako *Euskal Mundu Batzarra* batetik, eta Euskaltzaindiak urte berean Arantzazun egindako *Euskaltzaleen Biltzarra* bestetik. Bietan landu ziren, halako neurri batean, euskal eskola eratu eta hedatu ahal izateko giza baliabideen, baliabide materialen eta hizkuntzaren beraren prestaera-mailaren eskasia-kontuak.

- b) Arazoak ez ziren ordea hor amaitzen: aurreko ezintasun politiko horien ondoan, izan ere, oinogiturazko beste hiru eragozpen ere agertuak ziren plazara: batetik, kontratatu nahi eta ahal izanik ere ez zegoen behar adina irakasle, euskaraz irakasteko gai zenik. Bestetik, behar bezalako eta behar adinbat ikasmaterial ez zegoen euskaraz, ez ikasleentzat eta ez irakasleentzat. Azkenik, hizkuntza bera irakaskuntzan erabiltzeko behar bezala prestatu eta landu gabe zegoen. Ikus ditzagun hirurak, zertxobait xeheago.
- b1) Irakasleei dagokienez, EAeko (berdin Nafarroako) ikastetxe publiko eta pribatuak ia maisu-maistra guztiak erdaldunak ziren. Siadecok 1976an egindako azterketaren arabera Eskolaurreko eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan ez ziren %5era iristen, euskaraz bazekitela aitortzen zuten irakasleak (77). Datu zehatzik ezagutzen ez bada ere, uste izatekoa da ikastetxe pribatuak egoera, Batxilerraren edo Lanbide Heziketa mailakoa bezala, ez zela arras diferentea izango.
- b2) Irakasle-eskoletan ez zegoen irakasle euskaldunak sortzeko planik. Ez planik eta ez modurik. Irakasle erdaldunak sortzeko diseinatuak zeuden irakasle-eskolak, eta halaxe jardun zuten, oro har, 1979ra arte (78).
- b3) Euskara edo euskaraz ikasteko ikasmaterial gutxi zegoen eskuleran. Bai ikasleentzat testu-liburuak falta ziren eta bai, oro har, irakasleen formaziorako erreferentzia-material gutxi zegoen (79). Euskara-metodoak ere 70eko hamarkada hartan hasi ziren kalera-tzen: gutxienak zeuden, hasierakoetan, zuzen-zuzenean eskola-umeentzat pentsatuak. Hiztegiak ere orduantxe hasi ziren prestatzen: bai orokorrak eta bai eskola-mundura zuzenduak.

---

(77) Ikus, besteak beste, Siadeco-Euskaltzaindia 1979: 171. Datu deigarria da hori: batetik, bere neurri ia absolutuagatik. Bestetik, badakigulako Gipuzkoan bederen ondotoz irakasle euskaldun gehiago zegoela Lehen Hezkuntzan, hamar bat urte lehenago (cf. Aguirre Elustondo 1969 eta GAUR S.C.I. 1971). Honek gauza bat esan nahi luke, inkestak (bietako bat, edo biak) oker ez badaude: irakasle-kidegoa erdaldundu egin zela eskola horietan, euskaldundu ordez, 1967-77 epean. Esandako iturrietatik kanpora konprobatu gabeko datua da hori: konprobatzen gero eta zailagoa, gainera. Litekeena da, ordea, egia izatea: 1965etik 1975era arteko jaiotza-kopuruen igoera nabarmenak eta irakasle zaharrenen erretiroa erdal irakasle berriz atentituko ziren normalean, eta hori dela medio baliteke irakasleen hizkuntza-tipologiaren azken balantzea negatiboa gertatu izana.

(78) Irakasle-eskola «paralelo» baten moduko saiorki izan zen Donostian, 60ko hamarkadaren amaieran. Saioa bakarrik ez: aplikazio praktikoa ere bai. Jakin badakigu, lehen une batean aparteko eragina izan zuela saio hark. Pakita Arregiren eta Feli Etxeberriaren ekarpena funtsezkoa gerta liteke, langintza hura behar bezala argitu eta bere dimentsio egokian kokatu ahal izateko.

(79) *Gordailuren* eta *Saiokaren* ahalegina bereziki nabarmena izan zen lehen une hartan. Ez ziren bakarrik izan, halere, bi horiek. Beste zenbaitek ere indarrez heldu zion eginbeharrari: Ikastola Elkarteak, esate baterako, buru-belarri jardun zuen une batez Espainiako erdal testu-liburuen euskal bertsio gintzan eta zabalkundearen. *Elhuyar* ere testugintzan hasi zen aski goiz; beste zenbait ere (*UZEL*, esate baterako) horretan saiatu zen.

- b4) Hizkuntzaren idatzizko erregistro formal-espositiboa eta hainbat alorretarako terminologia teknikoa, azkenik, inor gutxi menderratu zituen artez. Autoalfabetatzeko abentura batean sartzea zen, irakasle gazte gehientzat, euskal irakaskuntzaren langintzari heltzea. Etxetik zekarten erregistroa ez zen askotan ontzat ematen: dialektalismoz kargatuegia zen hainbatean, erdararekiko interferentziez beteegia zenbaitetan eta, goragoko ikasmailetan jarduteko bereziki, dentsitate kontzeptual handiko azalpenetarako behar baino gordinagoa. Euskara batu eta, hainbatean, «landu» bat eskatzen zuen eskola-munduak (80).

Muga-gabezia estruktural horiek guztiak tartean zirela heldu behar izan zitzaion hortaz, 1978-79tik aurrera, marko politiko berrian euskal eskola eraikitzeke saioari. Lan gaitzak ziren horiek: denbora gutxian, trebakuntza handirik gabeko giza taldeen bidez eta ia inolako finantzabiderik gabe egin beharreko lanak. Errazegi ahanzten dira orain orduko nahi eta ezinak, argi-ilunak eta lorpen-porrotak: ez da jokabide zuhurra, kontuak artez atera nahi dituenarentzat.

### **I.3. Aurrelanak, autonomia aurreko epealdian**

Aurreko aginte-era amaitzean, Estatuari molde berria ematearekin batera konponbideren bat bilatu nahi izan zitzaion bertako irakas-sistemari. Ordura arte indarrean egondako eskola moduaren alde ez zen inor asko mintzo, ez hemen eta ez Espainian oro har. Etorkizunerako eredu hobetsia zehazterakoan alde ohargarriak zeuden, ordea, batzuen eta besteen artean. Legebiltzarrean bildutako joera gehienetako indarren oinarritzko adostasunez, irakaskuntza elebiduna ezartzea erabaki zen. Gizarte-sektore askoren elebitasun-eskea hain ozena zela kontuan izanik, Autonomia Estatutua prestatu eta botazioz onartu aurretik ere (Autonomia aurreko epealdian hortaz) hainbat pauso eman ziren, bai Estatuaren Gobernu Zentralean eta bai bertako erakunde sorberrietan. Horrela,

#### ***I.3.1. Aurrelanak, Gobernu Zentralean***

Apirilaren 20ko 1049/1979 Errege Dekretua onartu zuen, batetik, Gobernu Zentralak. 1979ko abuztuaren 3ko Agindua kaleratu zuen, bestetik, apirilko dekretu horren garapen gisa. Arauzko erabaki bion bidez, aspaldiko ibilbide instituzionala aldatuz sarbide zuzena eman zitzaion euskarari bertako

---

(80) Etxeko eta lagunarteko hizkuntza arrunta eskola-girorako egokitu beharraz bibliografia zabala dago han-hemen. 1975 aurreko saioei dagokienez ikus, paradigmaticoena bera delako, 1968ko Arantzazuko bileran, euskararen batasunekoan, Mitxelenaren txosteneko lehen pasarte (ikus Larresoro 1974: *Euskara batua zertan den*. Ikus bereziki 22. orrialdea, II.1.1 puntua).

irakas-sisteman. Sarbide mugatua, hori bai (81): EEN legeak handik gutxira emango zuen aukeratik oso urruti gelditzen ziren dekretu-agindu horiek. Berrikuntzen artean bi aipa litezke, aldi batean garrantzitsuak izan zirelako: Batzorde Mistoa eratu zen, batetik, MECen eta Eusko Kontseilu Nagusiko ordezkari-kopuru berberaz, lehen pausoak ematen hasi ahal izateko: irakasleen hizkuntza-prestaera bideratzea, aurreraxeago aipatuko den *Euskararen Irakasle Diploma* nori eman proposatzea, euskarazko ikasmaterialen onspen-azterketaz arduratzea, eta abar.

Irakasle Eskola publikoetan ere lehen sarbide arteza aitortu zitzaion euskarari, asignatura gisa, 1978an. Euskal Filologiatik aparte, «euskal adar»ik ez zen aukeran: edozein espezialitatetako ikasketak euskaraz egiteko biderik eratu gabe zegoen artean.

### ***1.3.2. Aurrelanak, Eusko Kontseilu Nagusian***

Autonomia Estatutua onartu gabe (edo onartu berri-berria) zegoenez, eta eskumen nagusiak Gobernu Zentralarenak zirenez artean, Batzorde Mistoa eta MECekiko beste lotura instituzionalen bidez jardun zuen une hartako Eusko Kontseilu Nagusiak. Formalki bienak baziren ere neurri berriak, Kontseilu Nagusitik bultzatuak ziren haietariko asko. Gogoan izatekoak dira, horrela,

- a) *A, B eta D ereduak moldatzea*. «Irakasteredu elebidunak» esaten zaie hauei, hizkuntza ofizial bietan oinarritzen direnez beti eta nonahi (82). Eredu bakoitzak begiz joak zituen helburuen, kasuan kasuko ikasleei eskuratu nahi zitzairen euskara-mailaren eta berauen artean bultzatu nahi zen erabileraren arabera bereziak ziren ereduak (83). Eusko Kontseilu Nagusiak eraturiko lan-batzordea aski eragingarri gertatu

---

(81) Zonalde soziolinguistikoei garrantzi handia aitortzen zitzairen une horretan eta, lehen-tasun nabarrienak kontuan izanik, zonalde euskalduneko Eskolaurreko eta OHOKo ikasleei A eredu moduko ikasbidea ezarri zitzairen lehenik. Askoz gehiagotarako aukerarik ez zen izan, lehen une hartan. Xehetasun handiagoetarako ikus Iñigo Urrutia, 2005: 448-50.

(82) 1978-79 inguruan egin zen, funtsean, ereduaren diseinu-saio sendoena. Mikel Lasa, Karmele Atutxa, Lontxo Oihartzabal, Mari Carmen Garmendia, Xabier Mendiguren, Feli Etxeberria eta Tomas Uribeetxebarria eman litezke, oker ez bagaude, diseinu-lan horren arduradun tekniko nagusizat. Hasierako diseinu-lan hartan lau eredu eratu ziren, eta ez hiru: A, B, C eta D ereduak. Horretaz informazio gehiago nahi duenak, ikus beza 3. eranskina.

Eredu horien aplikazioari heldu zitzaionean, aldiz, lau eredutako formulatik hirukora jo zen berehala: A, B eta D ereduetara. Hiru eredu horiek dira, praktikan, mende-laurden batez aplikazio operatibo zabala izan dutenak. Hainbat modulazio praktiko izan dute bidean, baina hasierako seinale-markak agerian dituzte orain ere.

(83) Ordutik honako aldaketa bakarra ez da eredu-kopurua lautik hirura murriztea izan. Eredu bakoitzaren orduko eta oraingo definizio operatiboak aski diferentek dira, horrezaz gainera, puntu batean baino gehiagotan: eredu bakoitzaren xede-ikaslegoan eta eredu barneko hizkuntza-trataeran, besteak beste.

zen eginbehar horretan, eta Estatuko MECek berak langintza horren lehen oihartzun xehea jaso zuen bere argitalpen ofizial batean (Ministerio de Educación 1979).

- b) *Euskararen Irakasle Diploma*. Euskaltzaindiarekin elkar hartuz *Euskararen Irakasle Diploma* sortu zuen Eusko Kontseilu Nagusiak (Kontseilu Nagusiaren Hezkuntza Sailak). Eskoletan euskara(z) irakasteko beharrezko hizkuntza-gaitasuna finkatu zuen diploma horrek, bere oinarritzko zertzeladetan.
- c) Idoneoak eta espezifikokoak. Irakasle idoneoak eta espezifikokoak eskoletaratzeko neurriak hartu ziren, bide batez, urtealdi hartan: egon ez zegoen, urrundik ere, behar adina irakasle-gai titulatua euskaldun; horien faltan irakasletza ikasten ari zirenetara jo zen lehen aldi hartan.
- d) *Irakasle-eskola publikoen birmoldatzea*. Eusko Kontseilu Nagusiko Hezkuntza Sailaren eta Euskal Herriko (orduan Bilboko) Unibertsitatearen arteko elkarlanean irakasle-eskola publikoen birmoldatze-lan sakonari ekin zitzaion, 1979-80an. Eskolaurrean edo OHOn euskara(z) irakasteko formazio profesional egokia izango zuten irakasle-gai euskaldunak sortzea izan zen birmoldatze horren xede nagusia. Gipuzkoako irakasle-eskola pribatu sorberriak buruzagi gertatu ziren euskarazko irakasbideen eratze- eta mamitze-lanean. Ikastolen titulartasun ofizialeko araudia onartu zuen, azkenik, Eusko Kontseilu Nagusiak (B.O.C.G.P.V. 1980-I-24).
- e) *Batxilergorako (eta Lanbide Heziketarako) irakasle-gai euskaldunak prestatzea*. Irakasmaila Ertainetarako (Batxilergorako eta Lanbide Heziketarako) irakasle-gai euskaldunak prestatzeko ere berariazko plana eratu zen unibertsitate publikoarekin: 4. eta 5. kurtsoetako alfabetatze teknikoak asinaturak eratu ziren horrela.

Pauso horiek eta gehiago eman zirelarik ere, falta-gabezia nabarmenak izan zituen autonomia aurreko epealdiak. Era guztietako medioak falta ziren, izan ere, ele biko hezkuntza bere luze-zabalean eratu ahal izateko. Gizajendea falta zen, hasteko: ez zegoen apenas irakasle euskaldunik. Medio materialak falta ziren, bestalde: eskoletan euskaraz (eta euskara bera) ikasteko ikasmaterial gutxi zegoen eskueran. Antolamenduzko baliabiderik ez zegoen ia, eta behar horiei guztiei erantzuteko diru-bideak ere hutsaren hurrengoak ziren hasieran. Gizarte-alor desberdinek euskararen koofizialtasuna lau haizetara aldarrikatzen zuten une hartan, aski mugatuak gertatzen ziren medio edo baliabide-apur horiek. Eskea, berriz, nabarmena zen nonahi. Gizarte-eskari zabal horri erantzun betea emateko lehen pausoak bideratzen hasi baizik ezin egin izan zen abialdi hartan. Gabezia guztiekin ere funtsezko fasea izan zen hura, ordea. Orduan plazaratu ziren eungo hezkuntza-moldearen oinarri sozioedukatibo gehienak. Bada hori zerbait.

#### **1.4. EAeko lege-marko nagusia, hezkuntza alorrean**

EAeko hezkuntza-moldeak Espainiako Konstituzioa eta Euskal Autonomia Estatutua ditu marko-arau gidari. 1978ko Espainiako Konstituzioak ofizialtasun-*statusa* aitortzen die gaztelaniaz aparteko beste hizkuntzei, zeini bere lurraldean (3. artikulua, 2. eta 3. pasarteak). Horretan oinarrituz, Euskal Autonomia Estatutuak zera dio bere seigarren artikuluan: 1.- Euskara, Euskal herriaren berezko hizkuntza, gaztelaniarekin batean hizkuntza ofiziala izango da Euskadin. Bertako biztanle guztiek dute hizkuntza bata zein bestea jakiteko eta erabiltzeko eskubidea. 2.- Euskal Autonomia Erkidegoaren amankomuneko Erakundeek, leku batetik besterako desberdintasun soziolinguistikoak kontuan izanik, hizkuntza bien erabilera garantizatuko dute, beren izaera ofiziala arautuz eta beren ezaguera ziurtatzeko behar diren neurri guztiak hartuz eta bideratuz.

Hori da, funtsean, 1978az eta 1979az geroztik indarrean dagoen lege-marko nagusia. Lege-marko horrek ezarritako helburuei eta gizarte-eskari jakinari erantzuteko neurriak hartzea eta baliabideak eskuratzea: hori izan da, hein handian, Eusko Jaurlaritzak 1980tik aurrera ele biko hezkuntzaren alorrean eraman duen bidea. Hala egin du herri-ikastetxeetan, aurrez aurreko ekimenez, eta halatsu ikastegi pribatuetan, arauak eta laguntza-bideak ezarriz.

#### **1.5. EEN legea, Legebiltzarrean eta Konstituzio Epaitegian**

*Oinarri*-legea da EEN. Euskal Autonomia Erkidegoak inoiz eman duen oinarri-lege bakarra, oker ez banago (84). Garrantzi bereziko legea egin nahi izan zuten EAeko herritarren ordezkari demokratikoek, EEN prestatu eta onartu zutenean. Dakidala, «oinarri-lege»rik ez da geroztik egin (85). Trami-tazio luze samarreko legea izan zen, bestalde, EEN. Denbora hartu zen legea idazten, berridazten, eztabaidatzen, zatiz zati adosten eta erdibideko adostasun-formulak asmatzen, berriro eztabaidatzen eta, azkenik, onartzen. Horretarako hartu zen denbora, eta prozesu osoari eman zitzaion errespetuzko trataera, lege «berezi»-ren baten seinale dira nolazpait. Bere edukian sartu gabe ere, azaletik beretik badu EEN legeak aparteko izaera berezia (86).

---

(84) Konstituzio Epaitegiak indargabetu egin zuen, oker ez banago, «oinarri» termino hori. Zehazkiago esanik, eta legetariek zuzen nazate oker banabil, hartarako eskumena zukeenik ukatu egin zitzaion Legebiltzarrari. Terminologia kontu huts izan ote zen indargabetze hori? Ez dut uste. Epaitegi Gorenak hartara jo zutenean, uste izatekoa da detaile hutsaz haraindiko gertaera baten aurrean gaudela. Nolanahi ere, ez naiz kontu horietan espezialista eta legetariek argituko digute gaia, lehendik argitua ez badute.

(85) Espelikazioa garbia da: hartarako ahalmena espreski debekatu bazitzaion Legebiltzarrari, bistan da eragin zuzena zukeela horrek handik aurrerako bere jardunean.

(86) Liburu bakarrean zehazki jasota daude orduko joan-etorri eta gorabehera gehienak. Ikus Eusko Legebiltzarra 1991.

Gobernu Zentralak errekurritu egin zuen legea, Eusko Legebiltzarrak onartu eta handik gutxira. Ez lege osoa, bertako zenbait artikulua edo pasarte baizik. Artikulu eta pasarte horiek ez ziren, funtsean, hezkuntzakoak. Bai, ordea, EAEko euskara-erdaren konpartimentazio territoriala edota soziofuntzionala bideratu ahal izateko aparteko garrantzia zutenak, alde batetik, eta EAEko esparru osoan hizkuntza alorreko erabakimena zein aginteri (zentralari edo bertakoari) zegokion eztabaidatzen zutenak bestetik. 1986an etorri zen Konstituzio Epaitegiaren erantzuna. Eusko Legebiltzarrari eman zion arrazoi errekurritutako puntu gehienetan: EAEren bertako aginteari zegokion Erkidegoko hizkuntza-politika zehaztea, estatuak ezarritako marko nagusiaren baitan. Aginte zentralaren mendeko instantziak ere Eusko Legebiltzarrak esandakoa bete behar zuten, hortaz, EAEn. Aldiz, kontrako epaia eman zuen puntu batzuetan. Batek zuen garrantzi nabaria: euskara hutsezko jardunbide elebakarrik (euskara hutsezkorik) ez zuen onartu zonalde euskaldun itxietan (arnasguneetan alegia) (87). Aldaketa eta berrespen, EENren izaera berezi hura indarrean dago orain ere, onartu zenetik mende-laurdena bete den honetan. Epaia epai eta azalak azal gatozen, ordea, mamira. Zer du EENren mamiak berezirik?

## **II. EEN LEGEAREN EZAUGARRI NAGUSIAK, HEZKUNTZAREN IKUSPEGITIK**

Inoiz esan izan denez buru biko formulazioa du, funtsean, Euskararen Erabilera Normaltzeko 10/1982 Oinarri Legeak, azaroaren 24ak. Ikasle guztientzako elebitasun-maila bereko azken xedea ezartzen du, batetik; euskara-erdarek ikasle bakoitzaren eskola-bidean enfasi diferentea eskaintzeko aukera ematen du, bestetik (eskola-hizkuntza aukeratzeko orduan, gurasoei edo ikasleei beraiei ematen zaie azken hitza). Xede horiek beregainak dira eta, hainbatetan, ez dira erraz ezkontzen. Ez dira bi horiek, halere, EEN legearen hezkuntza alorreko ezaugarri nagusi bakarrak. Ondotxoz ezaugarri gehiago ditu EENk. Ikus ditzagun:

### **II.1. Legearen azken xedea, denentzat berdina**

Derrigorrezko eskola-aldia amaitzean (demagun, 16 urterekin), EAEko ikasle guztiek euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiten, irakurtzen eta idazten jakin

---

(87) Aurreraxeago azalduko ditudan kontzeptuetara hurbilduz, diogun hizkuntza-eskubideen norbanako irizpidearen aldekotzat, EAE barneko lurralde-irizpidearen murrizgarri hortaz, uler litekeela sententzia hura: hori da nire irakurketa, bederen. EAE osoko hizkuntza-politikaren erabakimena (euskarari dagozkionetan) EAEko aginte-organoena dela berretsi izana, bestalde, funtsezko aitormena da. Geroztik (espreski, behintzat) gutxitan aintzakotzat hartu izan den irizpidea, oker ez banago. Beti harritu izan naiz ikusteaz, epai hura zein gutxi baliatu izan den eskumen-auziai erabakitzerakoan.



behar dute: elebidun funtzionalak izan behar dute hizkuntza ofizial bietan. Hori da EEN legeak, eta harrez gerozkoek, diotena. «Un conocimiento práctico suficiente de ambas lenguas oficiales» edo «bi hizkuntza ofizialak benetan erabiltzeko» gaitasuna transmititu behar die eskolak EAeko ikasle guztiei (88). Erabateko eskakizuna dakar baldintza horrek bertako eskola-mundura. Hartzen den bidea hartzen dela, azken xedea komuna da sistema osoarentzat: euskaraz eta gaztelaniaz jarduteko gai diren gazteak (parez pareko elebidun funtzionalak, nolabait esanik) sortu behar ditu eskolak.

Hizkuntza biko eskola-moldea eratzea esijitzen du, horretarako, EEN legeak. Euskarak eta gaztelaniak, biek izan behar dute eskola-hizkuntza: ikasbide-hizkuntza (*lengua vehicular*), ikasgai-hizkuntza (*lengua curricular*) edo, B ereduaren kasuan, partez bata eta partez bestea. Ez da posible, EEN legearen arabera, hori baino gutxiagoko presentzia eskolan: ez euskararentzat eta ez gaztelaniarentzat. Bai euskarak eta bai gaztelaniak jakintzagai izan behar dute, gutxienez, eskola-aldi osoan.

Beharrizan hori jenerala da: EAeko ikastetxe eta ikasle guztiek bete beharreko xedea. Ororentzakoa izanik ere bistan da, ordea, oso aplikazio-aukera diferenteak dituela, eskola-hizkuntza nagusiari dagokionez. Denentzat berdina den azken helburuak aski aplikazio diferenteak ditu, segun eskola-hizkuntza nagusia euskara den, edo gaztelania.

## II.2. Nork du eskola-hizkuntza erabakitzeke eskubidea?

Nori aitortzen dio EEN legeak, funtsean, ikaslearen eskola-hizkuntza zein izango den aukeratzeko eskubidea? Nork erabakitzen du, azken-azkenean, ikaslearen eskola-hizkuntza nagusia euskara izango den, gaztelania edo biak? EAek bere osoan? Lurralde historiko bakoitzak edo kasuan kasuko zonalde soziolinguistikoak? Hezkuntza Sailak berak? Kasuan kasuko ikastetxeak? Ikasleak berak? Bere gurasoek? Kenneth D. McRae-ren terminologiaz eta bere formulazio dikotomiko famatuaz baliatuz (89) non kokatzen da EEN legea, hizkuntza-eskubideen norbanako eta lurralde-irizpideen artean?

(88) Antzeko gauza dio otsailaren 19ko Euskal Eskola Publikoaren 1/93 Legeak, hizkuntza kontuez ari delarik. Honela dio, konkretuki, bere III. idazpuruan: «Euskara eta gaztelania nahitaez sartuko dira euskal eskola publikoan gara daitezen irakaskuntza-programetan, bi hizkuntzen ahozko zein idatzizko ulermena eta adierazmena benetakoa izan eta gutxienez ohizko harremantarako eta erabilerako hizkuntza gisa erabili ahal izan daitezen.» Milian i Massana irakaslearen esanean badago, halaz ere, alderik 10/82 oinarri-legearen eta 1/93 legearen artean. Batek «la enseñanza» dioenean besteak «enseñanza» dio; berak dioenez, «la enseñanza» eta «enseñanza» ez dira gauza bera, ondorio praktikoei dagokienez.

(89) Jatorrizko definiziorako ikus McRae 1975. Harrez geroztik eginik dituen Europako (Suitzako, Belgikako eta Finlandiako) aplikazio konketuetarako, berriz, ikus McRae 1983, 1986 eta 1997. Hor dago azkenik, horiezaz guztiez gainera, Kanadarako egindako bere ekarpena. McRaeren Austriako aurrekari zaharrez jabetzeko ikus, besteak beste, Lukas 1908.

### **II.2.1. Hizkuntza-eskubideen norbanako eta lurralde-irizpideak, EENren arabera**

Lehenengo bi kasuetan bageunde (eskubidea EAEk balu bere osoan, batetik; Lurralde historikoek edota zonalde soziolinguistikoek, bestetik) McRae-ren lurralde-irizpidea genuke gidari. Aldiz azken bi kasuetan (eskubidea gurasoek izanik, batetik; ikasleek, bestetik) norbanako irizpidea gailentzen da. Bai norbanako eta bai lurralde-irizpidetik kanpora daude azkenik, halako neurri batean, hirugarren eta laugarren kasuak (eskubidea Hezkuntza Sailak izatea batetik, ikastetxeek bestetik). Non dago EEN legea, abaniko zabal horren barruan? Nori ematen dio azken hitza?

Has gaitezen errazenetik. Ikus dezagun nori ez dion EEN legeak eskubide hori berariaz aitortzen. Ez dago lege-xedapenik, EAEko ikasle guztiak eskola-hizkuntza bakarra izatera behartzen dituenik. Beste horrenbeste gertatzen da Lurralde historikoen (90) edo zonalde soziolinguistikoen (91) kasuan. Era berean, ez eskolari eta ez Sailari aitortzen dio lege horrek ikasleek (EAEko ikasleek) euskaraz ala gaztelaniaz ikasi behar duten erabakitzeo eskubidea. Bai Sailak eta bai ikastetxeek hainbat neurri har ditzakete, eta hartu behar izaten dituzte, legez aukeran dauden erduei buruz. Indarrean dauden aukeran artean, partez behintzat, eredu baten edo besteren alde egin dezakete. Baina gurasoak edo ikasleak ez daude legez behartuta, Sailak edo lekuan lekuko ikastetxeak aukeratutako euskal edo erdal eredu jakin batera joateko. Legea argia da, funtsezko puntu honi dagokionez:

Artículo 5	5. artikulua
2. Se reconocen a los ciudadanos del País Vasco los siguientes derechos lingüísticos fundamentales:	2. Euskal Herriko herritarrei honako funtsezko hizkuntza-eskubide hauek aitortzen zaizkie:
b) Derecho a recibir la enseñanza en ambas lenguas oficiales.	b) Irakaskuntza hizkuntza ofizial biotan izateko eskubidea.
Artículo 15	15. artikulua
Se reconoce a todo alumno el derecho de recibir la enseñanza tanto en euskera como en castellano en los diversos niveles educativos.	Ikasle guztiei aitortzen zaie irakaskuntza euskaraz zein gaztelaniaz jasotzeko eskubidea irakasmaila guztietan.

(90) Ezin erabaki liteke, adibidez, «Arabako haur guztiek A ereduan ikasiko dute, Bizkai-guztiek B ereduan eta Gipuzkoako guztiek D ereduan».

(91) Ezin erabaki liteke, adibidez, «euskaltasun-tasa %30 baino txikiagoa duten zonaldeetako haur guztiek A ereduan ikasiko dute, %30 eta %70 arteko zonaldeetakoek B ereduan eta %70etik goragoko zonaldeetakoek D ereduan».

Artículo 16	16. artikulua
1. En las enseñanzas que se desarrollen hasta el inicio de los estudios universitarios, será obligatoria la enseñanza de la lengua oficial que no haya sido elegida por el padre o tutor, o, en su caso, el alumno, para recibir sus enseñanzas.	1. Unibertsitate-hezkuntza hasteraingo egiten diren ikasketetan derrigorrezkoa izango da ikasketok hartzeko guraso edo kuradoreak edota, hala denean, ikasleak berak, aukeratu ez duen hizkuntza ofiziala irakastea.

Askotan esan izan denez, hizkuntza-eskubideen norbanako irizpidean oinarriturik dago funtsean Euskararen Erabilera Normaltzeko 10/1982 legea. Zonalde soziolinguistikoa eta ikasleen ama-hizkuntza, planifikazio-beharren egokiera eta irakasleen hizkuntza-osaera faktore garrantzitsuak izanik ere, EEN legearen arabera gurasoek edota ikasleek beraiek dute azken hitza. Gainerako faktore horiek kontuan hartuko dira, baina azken hitza gurasoek edo ikaslek dute. Mila ñabardura eta eragozpen konkretu izan ditzake irizpide horrek praktikan, baina hori da irizpide nagusia. McRae-ren definizio famatuaren arabera, *the principle of personality of the linguistic rights* da EENren oinarri, ez *the principle of territoriality*. EAeko ikasleen gurasoek edota, adin batetik gora, ikasleek beraiek dute eskola-hizkuntza (nagusia) aukeratzeko eskubidea. Hots, irakaskuntza nagusiki euskaraz, nagusiki gaztelaniaz edo erdibana jasoko duten aukeratzeko eskubide legala gurasoek edota ikasleek beraiek dute. Eskubide legala nola aplikatzen den aurrerago ikusiko da, eta aplikazio horrek dituen zenbait eragozpen faktual azalduko. Irizpide nagusia goiko hori da ordea, edozein kasutan.

Beste hitzetan esanik, arkitektura jakina du EEN legeak: hizkuntza-eskubidea hiritarrak du. Eskubide hori betetzeko obligazioa, berriz, kasuan kasuko administrazioak. Hala gertatzen da eskola-esparruari dagokionez, eta halatsu EEN legearen beste zenbait esparrutan. Ez da harritzekoa, hori dela medio, Legearen lehen atalburuak izen hau eramatea: «de los derechos de los ciudadanos y de los deberes de los poderes públicos en materia lingüística / Herri-tarren eskubideak eta herri-aginteen betebeharrak hizkuntzaren alorrean».

Irizpide nagusia hori izanik ere, gauzak ez dira zeharo zuri eta beltz: McRae-k berak (eta beste hainbatek) argi seinalatu izan duen moduan, ustez formulazio bereziak (zeharo diferenteak) diren irizpide dikotomiko horiek ez dira, praktikan, hain erabat berezi. EEN legeak dioen xede nagusia, hasteko, Autonomia Erkidego osoan aplikatzekoa da: ez Lurralde Historikoen Batzar Nagusiei edo Foru Aldundiei, eta ez Udalei, dagokie EAeko lurralde-esparruaren aplikazio-ahalmen jenerala aldatzea edo mugatzea, are gutxiago indargabetzea. Garbi esana dago EAeko erakunde amankomunei dagokiela eskola-munduko hizkuntza-politika nagusia definitzea. Norbanako irizpidea izan arren gidari, hortaz, EAE mailako lurralde-osagairik ere badu lege horrek berekin (92).

(92) Lurralde- eta norbanako irizpideen kontu hori osatze aldera ikus, bestalde, Plourd 1970. Europako (batez ere ekialdeko Europako) perspektiba historiko zabalagoaz jabetzeko ikus

Norbaitek esan dezake, hori dela medio, lurralde- eta norbanako irizpide horiek ez direla txuri eta beltz moduko zati bi, *continuum* baten bi puntamutur baizik. Honako hau ere esan dezake halakok: *continuum* baten puntamuturrak direla irizpide horiek eta, beraz, ez dutela irizpide posibleen espektro osoa estaltzen. Urrunagorik ere esan liteke noski, hartara jarriz gero: formulazio juridikoen alorreko konstruktua dela, soil-soilik, *lurralde/norbanako* zatiketa hori eta, lege kontuetarako egokia izanik ere, beste zenbait alorretako zehaztapenak ez dituela aintzakotzat hartzen. Esate baterako, psikolinguistikaren alorreko *ama-hizkuntza* eta hizkuntza-soziologiaren alorreko *zonalde soziolinguistikoa* ez dituela behar bezala kontuan hartzen. Egia da formulazio jurilinguistikoa dela, lehenik eta behin, hizkuntza-eskubideen norbanako- eta lurralde-irizpideen zatibanatze hori. Horrek ez du esan nahi, ordea, bestelako hizkuntza-ezaugarrien alor osoak alde batera uzten dituenik. Ikus dezagun zergatik. Has gaitezen ama-hizkuntzaren printzipioarekin, eta ikus dezagun gero zonalde soziolinguistikoaren irizpidea.

### ***II.2.2. Ama-hizkuntza eta hizkuntza-eskubideen norbanako irizpidea***

Maila berean mugitzen dira formulazio biok, partez: norbanakoaren alorrean mugitzen dira bata zein bestea. Pertsona baten atributua da, lehenik eta behin, ama-hizkuntza. Egia da hiztun-herri homogeneousan posible dela hiztun-talde osoen eta, are, «hiztun-elkarte osoaren ama-hizkuntza»z hitz egitea. Baina formulazio deribatua da hori, berez. Pertsona bakoitzaren atributua da, lehenik eta behin, ama-hizkuntza. Alde horretatik, norbanakoaren planoan mugitzen dira irizpide biak. Partez plano berean mugituz ere, irizpide biak ez dira gauza bera. Bi alde nabari antzematen dira, batez ere, irizpide horien artean.

- a) Eskubideei dagokienez, ama-hizkuntzaren printzipioa baino zabalagoa (inklusiboagoa edota oro-hartzaileagoa) da norbanako irizpidea. Nor bere ama-hizkuntzan eskolatua izateko eskubidea bere baitan du norbanako eskubideak. Hots, ama-hizkuntzaren printzipioa bere baitan du norbanako irizpideak. Hori eta gehiago eskaintzen du berez: norbaitek bere ama-hizkuntza *ez* den beste hizkuntza ofizialean eskolatua izan nahi badu, hori ere osorik errespetatzen du norbanako irizpideak. Ama-hizkuntzan eskolatua izateko eta ama-hizkuntza *ez* den batean eskolatua izateko eskubideak, biak errespetatzen ditu norbanako irizpideak. EAEko guraso erdaldunek partez edo osoz euskaraz eraturako hezkuntza moldea nahi badute beren haurrentzat, hartarako eskubide

---

Friedrich 1971. Oro har, Inperio austro-hungaroari dagokionez Otto Bauer-en eta Karl Renner-en garaitik datozen kontzeptuak ditugu horiek. Gurean ez dute, ordea, hizkuntza-soziologiaren aldetiko analisi akademiko handirik izan. Rafael Ninyoles dugu, oker ez banago, kontuok gure artean lehenik landu zituenak. Ikus, orain ere probetxugarri izan litekeen neurrian, irizpide bien arteko kontuez diharduen zenbait artikulua. Besteak beste Ninyoles 1977: 235-58.

osoa aitorzen die norbanako irizpideak. Ama-hizkuntzak, aldiz, ez die hartarako aukerarik ematen. Aukeratzeko askatasunaren aldetik ama-hizkuntza baino zabalagoa, oro-hartzaileagoa da norbanako irizpidea.

- b) Bien arteko bereizkuntzak ez dira hor amaitzen. Norbanako irizpidea eskubide da beti. Ama-hizkuntzaren printzipioa, aldiz, ez: obligazio moduan aplikatu ohi da, zenbaitetan, ama-hizkuntzaren irizpidea. «Haur bakoitzak bere ama-hizkuntzan eskolatua izan *behar* du»: hala dio ama-hizkuntzaren printzipioaren bigarren formulazioak. Ama-hizkuntzaren printzipioak *beharra* du bigarren adiera horretan, ez *eskubidea*, formulazioaren muin. Horren arabera, esate baterako, EAEko haur erdaldun (etxetik ama-hizkuntza erdara duten haur) guztiek erdara izan *behar* lukete, nahi eta ez, beren eskola-hizkuntza bakar edo nagusi. Bistan da zein urrun dauden, alde horretatik, murgiltze-biderik onartzen ez duen ama-hizkuntzaren printzipioa eta murgiltze-bidea osorik segurtatzen duen norbanako irizpidea.

### ***II.2.3. Zonalde soziolinguistikoa eta hizkuntza-eskubideen norbanako irizpidea***

Lurralde-irizpidearen kasu partikularra da zonaldearen hau. Hizkuntza-eskubideen aplikazio-gunea esparru fisiko-geografikoak, espazio horren kanpo-mugak bereziki, definitzen du lurralde-irizpidearen kasuan. Aplikazio-aukera posible asko ditu lurralde-irizpideak, eta aplikazio posible horietariko bat, ez bakarria, zonalde soziolinguistikoarena da.

Hemen ere gauza bera esan liteke. Eskubide-aukeren aldetik sendoagoa da norbanako irizpidea, bere hutsean hartuta, eta obligazio-baldintzen aldetik irmoagoa zonalde soziolinguistikoa. Askotan esan izan da lurralde-irizpideak garantia sendoagoak ematen dituela, euskara indartze aldera. Ez dut uste kontuak horrela direnik: ez ezinbestean, behintzat. Hizkuntza-eskubideak bermatzeko bezainbat, ahuldutako hiztun-elkartea egungo muga-barrutirik hertsienean gelditzera behartzeko formulatu ohi da sarri lurralde-irizpidea. Halaxe egin ohi da, konkretuki, zonalde soziolinguistikoaren irizpidearekin. Horren adibide sendorik ez da falta, han-hemen. Askotan ahaztu egiten bada ere hori, malguagoa da berez norbanako irizpidea. Arrisku handiak ditu berekin, ez dago dudarik: legezko segurtasun-bermerik ez du eskaintzen, «hemen euskaraz bizi(ko) gara» baieztatze eta bai-etapen horretatik ondorio eragile sendoak erartzeko. Malguagoa da ordea, eta larri ahuldutako hizkuntza indarberritzeko hainbat eskubide-aukera praktiko eskaintzen du norbanako irizpideak. Konstruktua honen arabera herritar-hiztunei dagokie, zinez hala nahi badute, eskubide-aukerak hezurmamitzea (93).

---

(93) Aurrerago, txostenaren amaiera aldean, helduko zaio berriro gaiari, atzerriko zenbait adituren balioespenak erantsiz.

### II.3. Pausoz pauso eta epe-muga jakinik gabe garatzekoa

Ez naiz legelaria, eta huts egin dezaket ondoren azaltzera noan honetan. Azpimarratu beharreko ezaugarria iruditzen zait, ordea, esatera noana. Pausoz pauso garatzeko legea da EEN. Euskara-erdaren elkar-bizitzako hainbat esparrutan bihar-etzi nora iritsi behar dugun esaten du legeak, eta hartarako hartu behar den zenbait neurri adierazten. Are gehiago: neurri horiek hartzea eta harraraztea Herri-aginteen egitekoa dela aitortzen du espreski:

TÍTULO PRIMERO. CAPÍTULO ÚNICO	LEHEN TITULUA. KAPITULU BAKARRA
3. Los poderes públicos garantizarán el ejercicio de estos derechos, en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma, a fin de que sean efectivos y reales.	3. Herri-aginteez eskubide hauen erabilera ziurtatuko dute Autonomia Erkidegoaren lurraldean, eraginkorrak eta benetakoak izan daitezten.

Legeak ez du esaten, ordea, neurri horietariko bakoitza beranduenik noiz hartu behar den. Are gutxiago, legea argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hiritarren eskubideak eta herri-aginteen betebeharrak indarrean daudenik erabat. Legearen ezarpen efektiboari dagokionez, EEN legeak ez du epemuga zehatzik ezartzen. Helburu horietariko asko «hurrengo egunean» bete ezin direnez, helburu horietara pausoz pauso hurbildu behar dela eta pauso horiek hartu egingo direla agintzen du legeak. Hezkuntza-munduari dagokionez, honako formula honetan konkretatzen da EEN legearen pausoz pausoko eta epemuga jakinik gabeko garapen-irizpide hori:

Artículo 15	15. artikulua
Se reconoce a todo alumno el derecho de recibir la enseñanza tanto en euskera como en castellano en los diversos niveles educativos.	Ikasle guztiei aitortzen zaie irakaskuntza euskaraz zein gaztelaniaz jasotzeko eskubidea irakasmaila guztietan.
A tal efecto, el Parlamento y el Gobierno adoptarán las medidas oportunas tendentes a la generalización progresiva del bilingüismo en el sistema educativo de la Comunidad Autónoma del País Vasco.	Horretarako, Legebiltzarrak eta Jaurlaritzak neurri aproposak hartuko dituzte Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko irakaskuntzan elebitasuna gero eta orokorragoa izan dadin.

«Medidas tendentes a la generalización progresiva» edo «irakaskuntzan elebitasuna gero eta orokorrigo izateko neurriak» hartzera beharurik daude EAEko herri-agintek. Ez, ordea, legea jakinarazi eta hurrengo egunean, hiritarren eskubideak burutik burura betetzera. Hertsiki inperatiboa baino gehiago deklaratihoa eta progresiboa da EEN legea (legearen zenbait alor), oker ez

banago. Berriro diot: ez naiz legelaria eta ez dakit deklarazio-asmu eta, bereziki, progresibitate-ezaugarri hori noraino den lege kontuan gauza arrunt, eta noraino EENren ezaugarri berezi. Nolanahi ere, EENren ezaugarriak aipatzerakoan pausoz pausoko filosofia esplizitu hori kontuan hartu beharreko elementua iruditzen zait.

#### II.4. Hezkuntzari dagokionez, jeneralista

Xehetasun gutxi dakar legeak, hezkuntza kontuez diharduen 2. kapitulu-an. Lege jeneralista da EEN, eskola-munduari dagokionean. Printzipio nagusiak adierazten ditu, baina garapen operatiborako ez du xede konkretu askorik markatzen. Hori dela-eta, legeak dioena inspirazio-iturri izan da geroko langintza osoan, helburura joateko norabide jenerala markatzen du, baina ez du esaten justu-justu zein bidetatik joan behar den hara iristeko. Hutsetik abiatuz jardun behar izan da hainbat kasutan, hezkuntza-alorreko lan-programa operatiboak eratu eta kudeatzerakoan.

Hori bakarrik ez. Xehetasun konkreturik eskaini zuen kasu bakanetan, handik aurrerako irakasleen hizkuntza-tipologian adibidez, oso motz gelditu zen legea bere zehaztapenetan. EEN legeak Irakasle-eskoletan oinarritu zuen, *de facto*, irakasleen euskalduntze-lana. Ez Bigarren Hezkuntzarako irakasleen prestaera-bideez egin zuen zehaztapenik eta ez, batez ere, lehendik irakasletzan ari ziren milaka profesionalen hizkuntza-prestaeraz egin zuen aurreikuspenik. «In-service training» moduko IRALE bidez, alegia, ez zuen ezer esan. Azken mende-laurdeneko ibilera praktikoa hiru bideak erabili behar izan dira, ordea, luze-zabal: bai Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasle euskaldun berrien kontratazioa (horretarako aurreikuspen zehatza egina zuelarik legeak), bai Bigarren Hezkuntzarako irakasle euskaldun berrien kontratazioa eta bai lehendik lanean ari ziren edo euskara-eskakizunik gabe eskoletaratu ziren irakasleen euskalduntzea.

Beste horrenbeste esan liteke euskarazko ikasmaterialgintzaz, euskarzko gaitasun-agiriez eta hizkuntza-eskakizunez: mende-larden luzean hain lan zabalak eskatu duten esparru horiek aipatu ere ez ditu legeak egiten. Ez da «xehetasun» horietan sartzen (94).

#### II.5. EENren ezaugarriak, laburbilduz

Hezkuntza-munduari dagokionez lau ezaugarri nagusi ditu EEN legeak, esan berrienez: izaera jeneralekoa eta helburu bakarrekoa da hiritar guztien-

---

(94) Besterik da, partez, eskola-giroa euskalduntzeko xedapena. Labur bada ere, badu EEN legeak horri buruzko prebisio argirik: ikus 17. artikulua bigarren zatia.

tzat; norbanakoari (ikasleari berari, edo bere gurasoei) uzten dio/e eredu aukeratzen; pausoz pausoko ezarpena planteatzen du (95) eta, azkenik, jeneralista da. Hori dela-eta,

Kasuan kasuko ama-hizkuntza eta zonalde soziolinguistikoa direnak di-rela ere, EAEko *ikasle guztiek jakin behar dute euskaraz eta gaztelaniaz*, derrigorrezko eskola-aldia amaitzean (96). «Behar adinako gaitasun-maila praktikoa» eskuratu behar dute. Maila hori zer den ez dago inon zehatz definitua, baina jomugaz argia da.

Xede nagusi hori betetzeko ez da eskola-molde bakarra ezartzen, aukera diferenteak eskaintzen baizik. Esan ere ez da esaten, helburu hori betetzeko (zehazkiago, helburu horretara hurbiltzeko) eredu egokiena zein den aztertuko denik, eta hura jeneralizatuko. *Gurasoek edo*, adin batetik aurrera, *ikasleek beraiek dute eskola-hizkuntza* nagusia (euskara, gaztelania edo erdibana) *aukeratzeko eskubidea*. Eskola-hizkuntza nagusi gisa aukeratzen ez den beste hizkuntza ofiziala, berriz, derrigorrezko ikasgai izango da ikasmila guztietan.

*Pausoz pauso aplikatzeko legea* da EEN: legeak ez du espreski esaten, Herri Agintek bertako obligazioak noiztik aurrera beren gain hartu behar dituzten osorik. Askatasun-marjina ohargarria ematen die EENk Herri Aginteei, beraiek egin beharreko gauzak *noiz egin* erabakitzeko. Hiritarrak *tempo* horretara makurtzera behaturik daude, hainbatean.

*Jeneralista da EEN*. Hezkuntza/hizkuntza alorrean nora joan behar den adierazten du legeak, nagusiki. Hortik aurrera, aldiz, zehaztasun gutxi dakar berekin. Hori dela-eta, askatasun-marjina handia ematen du EENk, egin beharreko gauzak *nola egin* erabakitzeko. Eskuak libre samar uzten dizkie jestore publikoei, iritsi beharreko helmugara iristeko zein bide hartu eta zein ez aukeratzeko.

### III. EEN LEGEAREN APLIKAZIO NORMATIBOA

Hogeita bost urte bada denbora aski, lege baten araubidezko garapena eta aplikazio modua perspektiba historikoz baloratzen hasi ahal izateko. Balora-

---

(95) Ikustekoa litzateke hezkuntza-munduari dagokionez esandako lau ezaugarriok ez ote diren EEN legearen berezkoak: hots, esparru guztietarako jeneralak. Ez da hori nire esparrua, dena den, eta ez noa horretan sartzera.

(96) «Euskera voluntario» moduko *sloganak*, eskola-munduari begira inoiz edo behin entzun izan direnak, EEN legetik (eta, are, Autonomia Estatututik) kanpora gelditzen dira. Euskararen eskola-presentziari dagokionez A eredutik beherako hezkuntza-modurik ez da posible Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

«Euskera(z) eta kitto» moduko *sloganak* ere antzeko bateraezintasunak ditu egungo legermarkoarekin, esparru instituzionalari dagokionez eta bere esangura hitzez hitz hartzen baldin bada. Errazegi ahaztu ohi da bigarren puntu hori ere, zenbaitetan.



zio-lan horri ekin nahi zaio atal honetan. Zenbat lege berri eman da 1982az geroztik, EEN osatzeko, eguneratzeko edo aldatzeko? Zenbat dekretu eman ditu Eusko Jaurlaritzak, eta zenbat agindu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, EENk dioena zuzen betetzeko? Esana dago, goraxeago, aski lege jeneralista dela EEN. Xede nagusiak markatzen dituela oro har, zehaztapen konkreturik ere baduela tartean, baina eskola-munduko jardunari dagokionez xehetasun handiegirik ez duela eskaintzen. Ez da hori kasualitatea. Legebiltzarrari eta Jaurlaritzari aitortzen dio, izan ere, xehetasun handiagoetan sartzea: garapenezko legeak emanaz Legebiltzarrak; dekretu eta agindu bidez osatuz Eusko Jaurlaritzak. Honela dio EEN legeak, konkretuki, atariko tituluaren 1. artikuluan:

TÍTULO PRELIMINAR	ATARIKO TITULUA
Artículo 1.º	1. artikulua
El uso del euskera y el castellano se ajustará, en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a lo dispuesto en la presente Ley y demás disposiciones que en desarrollo de esta Ley dicten el Parlamento y el Gobierno Vascos.	Euskararen eta gaztelaniaren erabilera lege honetan xedatutakoari eta lege hau garatzeko Legebiltzarrak eta Jaurlaritzak eman ditzaten gainerako xedapenei lotuko zaie Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren lurraldean.

Honako galdera honi erantzun nahi zaio, beraz, hirugarren atal honetan: zer neurri hartu dituzte Herri-aginteez, azken hogeita bost urtean, EEN legea arauzko xedapenez osatzeko? Zer neurri hartu dira Madrilen, Gorteetan eta Gobernu Zentralean? Zer neurri hartu dira Legebiltzarrean, eta zer neurri Eusko Jaurlaritzan (batez ere Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean), euskara eskola-munduan normaltzeko?

### III.1. Lege bidezko arautze-lana

Lege bidez zer arautu da EAEn, 1982az geroztik, EEN osatzeko edo eguneratzeko? Nola legeztatu da eskola-munduko hizkuntza-normalkuntza, ordutik hona? Bi maila bereiz litezke hor, legea nork sortu duen kontuan izanik: Zer egin dute Madrilgo Gorteek? Zer egin du Legebiltzarrak, bere aldetik? Has gaitezen lehenengotik.

#### III.1.1. Madrilgo Gorteen legeztatze-lana

Oro har eta aurrez aurre ezer gutxi esan eta egin dute Madrilgo Gorteek, EAeko eskola-munduaren hizkuntza-normalkuntzari dagokionez.

Konstituzioak eta Autonomia Estatutuak garbi diote, Estatuak ezartzen dituen oinarrizko baldintza jakinen barnean jardunez gero bertako (hots, EAEko) herri-aginteei dagokiela hizkuntza-politika erabakitzea, ez Madrilgo Aginte zentralari. Gauza bera esana du, funtsean, Konstituzio Epaitegiak (97). Hori dela-eta ez da estatuaren aginte zentraletik berariazko legerik sortu, hizkuntza-normalkuntzaren alor hori aurrez aurre osatu, eguneratu edo aldatu duenik. Horrek ez du esan nahi, Madrilgo Gorteek lege orokorrik (minimoen legerik-edo) eman ezin dezaketarik gaztelaniari dagozkionetan, ez eta Gorteetako hainbat legek zeharkako eraginik izan ez duenik EAEko eskola-munduaren hizkuntza-politikan. Bistan da eragin ohargarria izan duela zenbait legek, eta zenbait artikuluk erabatekoa (98) Printzipio nagusia bestea izan da, ordea, mende-laurden honetan: konstituzio-marko nagusiaren baitan Eusko Legebiltzarrari dagokio euskararen ofizialtasun-kontuak legez arautzea.

### *III.1.2. Eusko Legebiltzarraren legeztatze-lana*

Legebiltzarrean ere ezer gutxi egin da, oro har, 1982ko EEN legearen hezkuntza atala lege berriz garatzeko, osatzeko edo birmoldatzeko. 1/1993 Legea izan da bere garapen nagusia: hots, Euskal Eskola Publikoaren legea (99). Berrikuntza hori ere ez da, gainera, alderik aldekoa: bizkarrezur nagusiari dagokionez hamaika urte lehenagoko EEN berresten du, funtsean, 1993ko EEP legeak. Horrela, 1993ko legeak ere bi elementuok ditu ardatz: a) derrigorrezko eskola-aldia amaitzean EAEko ikasle guztiek gai izan behar dute euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiteko, irakurtzeko eta idazteko; b) gurasoek edo ikasleek beraiek erabakiko dute, horretarako zer eredu-bide erabili. Beraiei dagokie, eskola-hizkuntza nagusia euskara ala gaztelania izango duten aukeratzea. 1982ko EEN legerari eusten dio hortaz 1/93 Legeak, puntu horretan ere (100). Beste hitzetan esanik, oinarrizko arkitektura jurilinguistikoari dagokionez 1982ko EEN-ren ildotik doa 1993ko EEP.

---

(97) Azken puntu hau funtsezkoa da, gorago esan denez. Ikus 1986ko ekainaren 26ko 82/1986 sententzia (B.O.E., 159. zkia., 1986ko uztailaren 4koa).

(98) Ikus, esate baterako, ikasmaterialen onespentarekin gertatu dena. Ondo ulertzen badut EAEko erabakimen esklusibo zena aginpidez hustu da, nabarmen, azken urteetako hezkuntza-legeria estalarekin.

(99) Irakaskuntza ez unibertsitarioko irakasle-kidegoen 2/1993 Legea ere kontuan izatekoa da, horrekin batera.

(100) Gauzak horrela dira nagusiki, ez ordea erabat: ikus 1/1993 legearen 20. artikulua (bigarren atala bereziki), eredu kontua ebaluazio-emaitezkin lotzen duena. Harrigarria bada ere, hanka-punttaka pasa ohi da bibliografia teknikoaren puntu zentral horretatik. Beste aldetik, ez da ahaztu behar ordura arte dekretu maila izandako xedapenak lege-mailara jaso zirela, eredu-sistema konkretua berretsiz.

## **III.2. Dekretu eta agindu bidezko arautze-lana**

Bi esparruak bareiz litezke hemen ere, legeen alorrean bezala Ikus ditzaugun biak, hurrenez hurren.

### **III.2.1. Madrildik**

EEN legearen aurrekoak dira, ez bere ondokoak, Gobernu zentralaren esparru honetako dekretu eta agindu nagusiak. Garrantzi handia izana dute, alor horretan, honako bi hauek: batetik Decreto 1433/1975, de 30 de mayo, por el que se regula la incorporación de las lenguas nativas en los programas (de los centros de Educación Preescolar y General Básica (B.O.E., 1975-VII-1); bestetik Real Decreto 1049/1979 de 20 de abril (B.O.E., 1979-V-10), que regula la incorporación de la lengua vasca al sistema de enseñanza en el País Vasco. Azken dekretu horren gehigarri gisa agindu hau jakinarazi zen handik berehala: Orden del Ministerio de Educación, de 3 de agosto de 1979, de desarrollo del Real Decreto 1049/1979, de 20 de abril, de incorporación de la lengua vasca al sistema de enseñanza (B.O.E. de 22 de agosto).

Trantsizio-aldi politikoan, eta trantsizio-fase baterako, emanak izan ziren dekretu-agindu horiek. Gerora ez dute balio-indarrik izan. Autonomia Estatu-tuak Legebiltzarraren (edo EAeko erakunde amankomunen) eskumen bihurtu zuen gai hori eta, horregatik seguruenik, Gobernu zentralak ez du berariazko garapenik eragin hizkuntza-marko nagusi horretan (101).

### **III.2.2. Gasteiztik**

Hemen ere, Madrilgo kasuan bezala, EEN onartu aurreko fasearen aipamen labur batetik hastea komeni da. Jaurlaritzaren aurreko fasean, Eusko Kontseilu Nagusiaren garaian, ikastolen titulartasuna arautzeko erabaki inportantea hartu zen: «Normativa de titularidad oficial de las ikastolas, aprobada por el Consejo General del País Vasco» (B.O.C.G.P.V., 1980-I-24). Gero, EEN legea onartu ondoren, 1983ko «elebitasun-dekretu»ak ekarri zuen bere garapen sendoena: Hezkuntza eta Kultura Sailaren uztailaren 11ko 138/1983 dekretuak, hizkuntza ofizial biek EAeko irakaskuntza ez-unibertsitarioan izango zuten trataera eta gutxienezko garapen planifikatua zehaztu zuenak

---

(101) Maila konkretuagoan, eskumen konpartituak direla medio, dekretu edo agindu bidez jarduna da Gobernu Zentralaren MEC: ikus adibidez 1987ko irailaren 10eko Agindua (Petchen 1990: 466) eta, bereziki, Real Decreto 955/1988, de 2 de septiembre, del Ministerio de Educación y Ciencia, que introduce el euskera en las pruebas de aptitud para acceso a la Universidad del País Vasco (BOE, 1988-IX-8)

(E.H.A.A., 1983-VII-19). Beste arauzko erabaki asko ere kontuan hartzeakoak dira, ordea. Horrela, eta besteak beste, gogoan izatekoak dira honako hauek:

Noizko EHAA	ZERTAZ ZER
1981-VI-25	1981eko maiatzaren 25eko Agindua, Eskolaurreko eta OHoko hasiera-zikloko ikasketak arautuz eta helburuak ezarriz.
1982-III-25)	1982ko martxoaren 8ko Agindua, OHoko irakasle-postuak hornitzeko oposizioak jakinaraziz
1982-III-27	1982ko martxoaren 9ko Agindua, Batxilergoko agregatu-postuak hornitzeko oposizioak jakinaraziz
1982-V-4	1982ko apirilaren 22ko Agindua, Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) sortuz.
1982-VII-1	1982ko maiatzaren 11ko Agindua, OHoko erdi-zikloko ikasketak arautuz eta helburuak ezarriz.
1982-VI-26	1982ko ekainaren 7ko Agindua, euskara edo euskaraz irakasten duten ikastetxeentzat laguntzak ezarriz
1982-IX-10	1982ko abuztuaren 10eko Agindua, Batxilergoan euskara eta euskal literatura nola irakastekoa den arautuz.
1982-XI-8)	1982ko irailaren 20ko Agindua, Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) arautuz
1983-VII-19	uztailaren 11ko 138/1983 dekretua, hizkuntza ofizial biek EAeko irakaskuntza ez-unibertsitarioan izango zuten trataera eta gutxie-nezko garapena planifikatuz
1983-VIII-19	1983ko abuztuaren 1eko «elebitasun-agindua», uztailaren 11ko «elebitasun-dekretua» garatuz
1983	1983ko urriaren 13ko Agindua, euskara edo euskaraz irakasten duten ikastetxeentzat laguntzak ezarriz
1984-I-27	1983ko abenduaren 26ko Agindua, irakasleak alfabetatu eta euskalduntzeko IRALE programa arautuz.
1985	1985eko maiatzaren 10eko Agindua, euskaraz argitara emandako ikasliburu unibertsitarioentzako laguntza-deia eginez.
1986-VII-9	«4/4 dekretua»: 1986ko uztailaren 10eko Agindua, B eredia ezartzeko euskara aldetik bete beharreko baldintzei buruz.

**4. taula.** Eusko Jaurlaritzak EEN legea garatzeko lehen urteetan egindako arautze-lana

Ikusten denez garapen zabala izan zuen EEN legeak, dekretu eta agindu bidez, lehenengo hiruzpalau urtean. Ez gara hemen puntuz puntuko eta puntuz puntuko xehetasunetan sartuko, lekuz kanpora bailegoke hori. Ondoko aplikazio-puntuok ez genituzke, haatik, aipatu gabe utzi behar:

*a) Hiru ereduaren arauzko zehaztapena*

Eredu-sistema hirukoitza arautu zen 1983an, uztailaren 11ko 138/83 dekretuaz (EHAA, 1983-VII-19), unibertsitate aurreko ikasmaila guztietarako. Arautze-lan hori are xeheago osatu zen hurrengo hilean, abuztuaren leko aginduaz (EHAA, 1983-VIII-19). Dekretu-agindu horiek dira, askogatik, EEN legeak hezkuntza-esparruan izan duen arauzko aplikazio-oinarri eragingarriena. Harrigarria da, ondo pentsatzen jarrita, beraien irismena norainokoa izan den. Eredu-sistema zehazteaz gainera eredu-bide horien gutxienezko progresio-bidea definitu zuten 1983ko dekretuak eta aginduak, eta irakasmaila bakoitzean osorik aplikatzeko azken epemuga ezarri (102). Hori bakarrik ez: gero azalduko den beste hainbat alorretarako ere, uztarri edo engantxe-gune praktiko izan dira, ia mende-laurden batez, 1883ko dekretu-agindu horiek. Arauzko xedapen asko emana dute, geroztik, Jaurilaritzak eta Sailak. Eragin sozioedukatioari dagokionez gutxi dira, ordea, dekretu-agindu horien parekoak. Are gehiago: beste xedapen horietariko askoren iturburua 1983ko dekretu-agindu horietan dago orobat. EEN legearen garapena ez ezik beste arau-xedapen askotxoren abiaburua ere izan dira 1983ko dekretua eta agindua (103).

*b) Euskal plazak definitzeko arautze-lana*

Funtsezko puntua izan zen hori, hasieratik beretik. Irakasle euskaldun gutxi zegoen sisteman, publikoan zein pribatuan, eta gutxi horiek ahalik eta ongien baliatzea zen kontua. Euskarazko irakaspostuak zentzuz kokatzea, ahalik eta ikasle gehienek euskara(z) ikasi ahal izateko. Hala jokaturia ere ez zegoen une hartako eskea osorik betetzerik: bai, ordea, hartara hurbiltzerik. Erantzun posibleetan egokiena emateko baldintzak jarri nahi izan ziren sektore publikoan, euskal eta erdal plazak banan-banan definituz. Garaiko jerga burolektikoan «plazas a euskera / plazas a castellano» izenez bereiztu ziren batzuek eta besteak, sektore publikoari zegokionez. Tentsio-iturri gertatzen zen, halere, plaza-banaketa hori: gero eta eskola publiko gehiagok A eredutik B eredura (zenbaitek Dra) pasa nahi zuten, eta horretarako irakasplaza guztiak edo gehienak euskarazkoak izatea eskatzen zuten. Aukera egin beharra zegoen: euskarazko (B eta D ereduko lerro gutxiago zabaldu, eta lerro horietan irakasle guztiak edo gehien-gehienak euskaldunak izatea bermatu, edo euskal plazen portzentajea oinarri-opinarrizko beharretara egokitu eta, horrela, B eta D erduko lerro gehiago zabaltzeko autorizazioa eman. Eztabaida horren emaitza

---

(102) EEN legeari aurpegiaratu izan zaion tatxa, ezarpen-datari dagokionez epe-mugarik gabea izatekoa, dekretu eta agindu bidez modulatu zen beraz, aski hasieratik. Kaltea ez baina mesedea ekarri du horrek: dekretu eta agindu bidez bideratu da hezkuntza-alorreko hainbat epe kontu, EEN legea alde horretatik indargabetzeko edo zaharkitzeko arriskutik babestuz.

(103) Gutxitan aitortu izan da espreski, ez dakit justu zergatik, dekretu-agindu bi horien zentraltasun normatiboa EAEko hezkuntza-munduan. Ez da ahaztea komeni, ordea, mende-laurdenaren balantze orekatua egitekotan.

1986an estabilizatu zen aldi baterako, «4/4 dekretu»az: hots, B eredia ezartzeko euskara aldetik bete beharreko kopuru-baldintzak zehaztu zituen 1986ko uztailaren 10eko Aginduaz (104). Gero, 1993-94tik aurrera, birmoldaketa ohargarria izan zuen kontu horrek. Ez erabatekoa ordea: lehendik indarrean zeuden proportzioak mantendu egin ziren hainbatean.

*c) Euskara(z) irakasteko behar den euskara-maila arauz definitzea*

Oso puntu garrantzitsua zen hori ere. Gauza bat zen A, B edo D eredu-ko ikaslerro batean zenbat irakaslek euskaldun izan behar zuten definitzea, eta beste bat irakasle horiek zer euskara-maila izan behar zuten zehaztea: zer euskara-maila, eta maila hori nola ziurtatua. Hasiera batean Euskaltzaindiaren «D titulua»rekin lan egin zen (105). Gero, 1982tik aurrera EGA agiria bihurtu zen nagusi. EGA eta bere baliokideak edo parekoak. Uztailaren 11ko 138/83 dekretuak 1983ko abuztuaren 1eko aginduak zehaztu zuten alor hori ere, gehienbat. Irakasmaila ertainetarako, halere, osagarrizko agindua eskatu zen. Euskara-maila ziurtatzeari dagokionez, ohiko bidez gainera IRALE bidezko IGA aldi baterako habilitazio-bidea izan zen. Gero, 1993an, martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuak (EHAA, 1993-IV-2) eta 1994ko urtarrilaren 10eko Aginduak (EHAA, 1994-I-26) egungo eramoldearen oinarria ezarri zuten HE1 eta HE2 mailak definituz. Hori da, funtsean, egungo egunera arte indarrean dagoena.

*d) EAeko eskola-curriculuma zehazteko arautze-lana*

Hainbat dekretuk eta aginduk zehaztu izan dute bertako eskola-curriculuma, mende-laurden honetan. Curriculumaren zati bat Estatuak ezartzen du, eta gainerakoa Eusko Jaurlaritzak. 80ko hamarkadaren lehen erdialdean egin zen EAeko eskola-curriculumaren lehenengo zehazte-lana. Orduan heldu zitzaion espreski, arauzko xedapen mailan, euskal hizkuntza eta literaturaren ikasketa-planari Eskolaurrean, OHOn eta Batxilergoan. Curriculum-lan horren berrikustapen sakona egin zen laurogeita hamarreko hamarkadaren bigarren erdialdean, garaiko ikuspegi konstruktibistari aparteko lekua eskainiz filosofia jeneralean. Hezkuntza-edukiak zehazteko ahalmen-eskuduntza zein neurritan Estatuak bere esku gordeko zuen (%55), eta zer neurritan Eusko Jaurlaritzaren esku utziko (%45), garai horretan definitu zuen Estatuak berak.

*e) Garapen-programa jakinen arautze-lana*

Berariazko arautze-lana egin da mende-laurden honetan, hezkuntza-alorreko zenbait sektoretan, EEN legea pausoz pauso garatzeko. Xehetasun handiegitan sartu gabe, eta ekimen nagusietara mugatuz, honako arautze-lanok

(104) Ez zen dekretua, agindua baizik, eta euskal/erdal plazen proportzioa ez zen 4/4. Horrela deitu zitzaion ordea, eta horrela zirkulatu zuen han-hemen.

(105) Baliokiderik ere izan zuen hasiera batean: Labayruko gaitasun-agiria, esate baterako.

bederen aipatzekoak dira: *Glotodidaktika* eta *HGA* programa batetik, *IRALE* programa bestetik, *EIMA* program hurrena eta, azkenik baina ez azken, *NO-LEGA* programa eta *ULIBARRI* proiektua. Ikus ditzagun laurak.

e1) *Glotodidaktika* eta *HGA* programa. Ikasleen, irakasleen eta, oro har, hiritarren euskara-maila neurtu eta ziurtatzeko mekanismo akademiko-administratiboa sortu zuen Hezkuntza Sailak Euskara Zerbitzuan, 1982an, Euskaltzaindiak ordura arteko «D titulua» emateari utzi (106) eta langintza hori Eusko Jaurlaritzari eskuratu zionean. EGA agiria izan zen, urte luzez, arautze-lan horren lehen emaitza (107). Bera da orain ere, kopuruz (108), lurralde-hedaduraz eta homologazio-ahalmenez, euskarazko gaitasun-agiri nagusia. Etengabeko eguneratzea izan du HGAREN alor horrek, euskaltegien eta HABEREN jarduna bertan txertatuz aspaldiko urteotan. Hizkuntza Eskola Ofizialen lana ere alor horretakoa da. HGA programa osatzera etorri da eskola-esparruan, 1994tik aurrera, irakasleen HE1 eta HE2 azterketen alorra: ikus 1994ko urtarrilaren 10eko Agindua (EHAA 1994-I-26).

e2) *IRALE* programa

Lehendik eskola-munduan lanean ari ziren irakasleak euskaraz alfabetatzeko edo euskalduntzeko sortu zuen Sailak *IRALE* programa, 1981ean, eta 1883an arautu (abenduaren 26ko Agindua, EHAA 1984-I-27). Programa horrek birmoldatze sakona izan zuen 1994an (EHAA, 1994-II?-12?), eta etengabeko eguneratze-prozesuan murgildurik dago harrez gero. Lehenengo hamabost-hogeita urtean herri-ikastetxeetako (eta, maila apalagoan, ikastetxe pribatuetakoa) irakasle erdaldunak euskalduntzea izan du *IRALE* eginkizun nagusi. Azken hamarkadan, aldiz, EGA edo HE2 eskuratua duten irakasleen euskara-maila hobetzea du eginkizun nagusi. Ikastetxe pribatuentzako eta euskaltegiertzako deialdiak, urtero argitara eman ohi direnak, izan litezke arautze-lanaren emaitza argiena (109).

e3) *EIMA* programa. Euskarazko ikasmaterialgintza babestu, indartu eta garatzeko eratu zen *EIMA* programa. 1981-82an ekin zitzaion langintza horri, aurrez (Autonomiaurrean, batzorde mistoan) emandako lehen pausoen garapenez. Pausoz pausoko prozedura izan

---

(106) Konkretukiago, hasiera hartan EAEn utzi zion Hizkuntza Akademiak «D titulua» emateari. Eskualdatze hori Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari egin zion zuzenean, 1981eko abenduaren 29ko eta 30eko erabaki-multzoz. Nafarroan beranduago egin zuten transferentzia, eta Ipar Euskal herrian (nori transferitu ezaz-edo) bere hartan jarraitu izan du Akademiak orain arte.

(107) Ikus 1982ko apirilaren 22ko Agindua, Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) sortuz, eta 1982ko irailaren 20ko Agindua, Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) arautuz.

(108) Urtean 15.000 eta 16.000 azterketari inguru EAEn.

(109) Urteroko arautze-lan horren adibide moduan ikus, esate baterako, 2007ko bi aginduok: martxoaren 30ekoa (EHAA, 2007-IV-4) eta apirilaren 23koa (EHAA, 2007-V-6).

zen EIMA programaren osatze-lan hori, eta urteroko agindu-ebazpenez mamitzen da geroztik. Agindu bidezko deialdi bakarraz hasi zen programa, 1983an. Eskola-munduaren beharrak kantitatez eta kalitatez gora egin ahala, eta ikasbideen aldakuntza teknologikoen ildotik, sofistikatuz joan da EIMA deialdien urteroko osaera. Sei agindu atera ohi dira urtero, azken hamabost urtean-edo, esparru hori arautzeko. Garrantzizkoa da, horrezaz gainera, 1998ko azaroaren 3ko 295/98 dekretua (EHAA, 1998-XI-27).

e4) *NOLEGA* programa eta *ULIBARRI* proiektua. Ikasleen euskarazko mintza- eta idaz-jarduna indartze aldera *NOLEGA* programa eratu zuen Sailak, 1983an. Akronimoa bera arras argigarria da: *N*ormalizazio *L*Egea *G*aratzeko programa da *NOLEGA*. Bere sorreraz geroztik etengabe osatu eta zabaldu izan du Sailak programa hori. Agindu eta ebazpen mailako xedapen asko eman ditu horretarako, batetik. *ULIBARRI* proiektua eratu du bestetik, 2000. urtean, eskola-munduko hizkuntza-erabilera indartzera datozen ekimenei babes-estaldura juridikoa eskainiz. XX Dekretuaz egin izan da, batez ere, *ULIBARRI* proiektuaren arautze-lan hori.

Hori da, labor bilduz, EEN legea garatzeko lehen urteetan sortu zen programa-egitura eta egitura horren arautze-lana. Bada azkenik, horrezaz gainera, Eusko Jaurlaritzatik kanpora egon arren hezkuntza alorreko hizkuntza-normalkuntzan eragiten duen beste zenbait aginte-organo. Foru Aldundiek eta, azken aldean, udalek, nork bere alorrean, ekarpen ohargarriak eginak dituzte oro har Jaurlaritzaren ekimena osatze aldera. Ekarpen horiek ez dira ordea, hitzez hitz, EENren hezkuntza alorreko garapen huts, eta ez gara beraz berorien azalpenean sartuko.

#### IV. EEN LEGEAREN APLIKAZIO OPERATIBOA

Honako galdera honi erantzun nahi zaio hemen: arauzko-xedapenez gainera zer neurri hartu dituzte EAEko Herri-aginteez, azken hogeita bost urtean, EEN legea hezurmamitzeko? Zer aplikazio operatibo (ez normatibo) izan du EEN legeak eskola esparruan? Batez ere EEN legearen bigarren kapitulua, hezkuntzari buruzkoa, hartu behar da kontuan aplikazio operatibo hori aztertzeko (110). Zer egin da hezkuntza alorrean, EEN legea aplikatu eta garatzeko? Zer egin da, batez ere, gurasoek beren seme-alaben eskola-hizkuntza aukeratu ahal izateko, ikasleek hizkuntza ofizial bien ezagutza praktikoa eskuratu ahal izateko eta eskola-giroa euskaldunduz euskararen erabilera indartzeko? Funtszko hiru puntu horiei helduko zaie, beraz, atal honetan.

---

(110) Bigarren kapitulu horri eskola-munduarekin ere zerikusirik duten xedapenak eranstea komeni da, bestalde. Txosten honen lehen eranskinean ematen da hori guztia, labor bildurik.



#### IV.1. Gurasoek seme-alaben eskola-hizkuntza aukeratu ahal izatea

Aurreko agintealdian ez bezala, euskaraz, gaztelaniaz edo bietara ikas dezakete EAEko neska-mutilek. Seme-alaben eskola-hizkuntza euskara, gaztelania edo biak izan daitezten aukeratzeko eskubidea dute gurasoek. Aurreko ataletan azalduta dago hori, behar den xehetasunez. Ikus dezagun orain, esku-bide hori bermatzeko zer neurri hartu diren aginte-esparrutik. Hiru neurri hartu dira, nagusiki, alor horretan: ereduak diseinatu eta aktibatu dira, batetik; irakaslegoa euskaldundu da, bestetik; euskarazko ikasmaterialgintza arautu eta bultzatu da, azkenik. Ikus ditzagun hirurak, hurrenez hurren.

##### IV.1.1. A, B eta D ereduak eratu eta zabaltzea

Ikusia dugunez eredu bakarreko sistema zen, funtsean, 1975era artekoa: X eredukoa. Eredu bakarraren ordeztu hiru zabaldu eredu programa diseinatu zen gure artean, hizkuntza bateko edo beste ikasbideak jeneralizatzeko. Hori du EAEk bere ezaugarri berezietakoa. Ez Espainian eta ez Europako beste hiztun-herri txiki gehienetan dago eredu-aniztasun hori hemen bezain zehatz definitua (111). Zehaztapen hori ez zen bat-batean osatu: EEN Legea onartu zenerako egin zegoen, funtsean, A, B eta D ereduak diseinu-lanaren parterik zailena. 1978tik 1983ra arte iraun zuen batez ere, eskueran ditugun datuen argitan, diseinu-lan horrek. Jakin badakigu diseinu-lan horretan bidegile nor izan ziren. Biderakusle gisa kanpoko adituak (batez ere William Fr. Mackey, Renzo Titone eta erdi-etxeko dugun Miquel Siguan) kontuan izan zirela gauza jakina da orobat. Eredu bakoitza zein jatorritako ikasleentzat pentsatua zegoen, eredu bakoitzarekin zer euskara-maila eskuratzea espero zen eta lerro batera edo bestera joateko zer aurrealdintza eskatzea gomendatzen zen: hori ere ezaguna da (112).

Ereduak diseinua hasiera hartan egin zen, nagusiki. Hasiera hartako jomugak, aurreikuspenak eta gomendio-baldintzak gogor aldatu dira ordea, urteen buruan. Orduko dokumentuak patxaraz erreparatu badira, argi dago hori. Eredu-kopurua bera, eredu bakoitzaren edukiaz gainera, aldatu egin da. Lau eredu ziren hasieran (A, B, C eta D), ez hiru, eta ama-hizkuntzari orain baino leku zabalagoa aitortzen zitzaion diseinu-fase hartan (113). Eguneroko

---

(111) Horrek ez du esan nahi, beste hiztun-herrietako praktika linguo-edukatihoa zurrun-monolitikoa denik erabat. Hori ez da egia, ez eguneroko praktikan eta ez, zenbaitetan, lege-markoan bertan ere. Nafarroako euskal eremuko hezkuntza-moldea, esate baterako, ez dabil EAEkotik batere urrutik. Valentziakoak ere aldaera bat baino gehiago du, eta abar. Diferentzia bat dago, halere, kanpoko kasu askoren eta EAEko lege-markoaren artean: EAEko eredu-aniztasun edukatihoa esplizitua da, besteetan baino esplizituagoa. Aniztasun horren arbitro ez da, gainera, aginte-egitura bera: aitzitik, *bottom-up* plangintzari atek zabaltzeko dizkio hainbatean eta horrek, praktikan, hizkuntza-helburu argia eskuratzeko *modus operandi* jakinera bideratu ditu eskolak eta hezkuntza-administrazioa.

(112) Xehetasun gehiagotarako, ikus txosten honen 3. eranskina

(113) Oraingo B ereduak orduko C eredutik hurbilago dago berez.

ibiliak bultzatu ditu irakasleak, eskolak, aholkulari pedagogikoak eta, azkenean, hezkuntza-administrazioa beraharian-harian aldaketa horietriko gehienak (ez guztiak) egitera. Gizarte-bizitzaren altzoan gertaturiko aldaketak izan dira, oro hark, irakastereduen diseinu-berritze horren abiaburu: familia askoren izaera heterolinguistikoak, zonalde soziolinguistikoen gesaltzeak eta, bi faktore horien ondorioz, gela barruko ikasleen izaera soziolinguistiko nahasiak aparteko garrantzia izan dute horretan. Ibilian-ibilian, 1980 ingurutik 1990 ingurura artean gertatu ziren eredu-egokitze horietariko gehienak, goitik behe-rako aginduz baino areago. Lekuan lekuko aukeren eta komenentzien arteko tentsioak, konpromisoak eta nolabaiteko orekak (oreka dinamikoak) bere parte izana du azken emaitzan. Une batetik aurrera, estabilizatutzat eman izan da ereduaren sistema eta harrez geroko legeek eta dekretu-aginduek bere horretan mantendu izan dute EAEko eredu-markoaren osaera hirukoitza (114).

Diseinatzeaz gainera aktibatu egin dira eredu horiek, mende-laurden honetan. Aldaketa handiak ekarri ditu aktibatze-lan horrek EAEko eskola-munduan. Aldaketa horietan gauza bat dago argi: hasieran aski hedadura mugatua zuten A, B eta D ereduak zabalkunde ohargarria izan dute mende-laurden honetan: bakoitzak bere hedadura-modua, baina hirurek ohargarria. Hori dela-eta, ordura arte nagusi izandako «X eredu» salbuespen huts bihurtua dago derrigorrezko eskola-aldian, 16 urtera arteko ikasleen artean. Aurrerago, idazlan honen V. eta VI. ataletan, ikusiko dugu eredu bakoitzak zernolako eta zenbaterainoko bilakaera izan duen. Gurasoak, irakasle-klaustroak eta ikastetxeak bidegile artez izan dira ereduaren bilakaera horretan. Hiru ereduak aktibaturik daude gaur egun, oro har, EAEko irakas-sisteman: ikasmaila gehienetan aukera erreala dute gurasoek, beren seme-alabentzat A, B edo D ereduko ikasbidea aukeratzeko (115).

#### *IV.1.2. Irakasleen hizkuntza-osaera egokia segurtatzea*

Hasierako hamarkadan, askotan gertatu zen B edo D ereduko ikasbideen eskabidea eskaintzaren aurretik joatea. Horrexek ekarri zuen, besteak beste, hainbat ikastetxek bere ikaslerroak A eredutik Bra, edota Atik zein Btik Dra, aldatzea. Aldaketa horietariko gehienak ez ziren bat-batean gertatu. Motibo sendorik izan da horretarako. Irakasleen hizkuntza-osaera izan da, bereziki, urratsez urratzeko bilakaera-modu horren giltzarri: ikastola-mundua alde batera utzita (116) ez zegoen irakasle askorik euskaraz zekienik eta, beraz, klase-

(114) Ikus, konparazio moduan, batetik 1983ko elebitasun-dekretua eta agindua, eta bestetik 1993ko Euskal Eskola Publikoaren Legea.

(115) Xehetasun gehiagorako ikus txosten honen VII.2.- eta IX.1.1. atalak.

(116) Hor ere gauzak ez ziren orain bezala: ikastoletako irakasle guzti-guztiak ez ziren euskaldun, are gutxiago euskaldun alfabetatu (EGAdun). Egia da, ordea, konparatiboki «euskal uharte» argi, gazte eta goranzkoa osatzen zuela, garai hartan, ikastoletako irakasle-jendeak.

ak euskaraz eman zitzakeenik. Irakasle euskaldun horien falta izan da, hainbat urtez, hezkuntza-administrazioaren (beste neurri batean, ikastetxeen) buru-hauste handienetakoa. Lehenengo bi hamarkadak, bereziki, arrunt delikatuak izanak dira alde horretatik. Ikastetxe publikoetan lehenik, eta pribatuetan gero, irakasleen hizkuntza-osaera bertako plan askoren giltzarri izana da mende-laurden honetan. Bi bide erabili dira, nagusiki, eskola-mundua irakasle elebidenez hornitzeko: Irakasle-eskolak, fakultateak eta goi-eskola teknikoak eginbehar horretarako egokitu dira alde batetik. Bestetik, berriz, lehendik lanean ari ziren irakasleak, edota euskaraz jakin gabe eskoletaratu direnak, IRALE bidez euskaldundu eta alfabetatu dira. Asmo horri begira hainbat neurri hartu dira, alor batean zein bestean. Horrela,

- a) Irakasle-eskola gehienetan euskarazko ikaslerroak («euskal adarrak») sortu dira. Normalkuntza-legearen aurretik ekin zitzaion euskarazko ikaslerro horiek osatzeari, eta aurrera egin dute geroztik (117). EHUko hainbat fakultatek eta goi-eskola teknikok ere neurri egokiak hartu zituen une batetik aurrera, eginbehar horri erantzuten hasi ahal izateko: ordukoak (1980ko ingurukoak) dira, oro har, 4. eta 5. kurtsoetako alfabetatze zientifiko-teknikozko asignaturak.
- b) Lehendik eskoletan lanean ari ziren irakasleak, edota 1981az geroztik euskaraz jakin gabe eskoletaratu diren ugariak, IRALE bidez euskaldundu eta alfabetatu dira hainbat kasutan. 1981-82 ikasturtean ekin zion IRALE programak bere lanari, eta urte luzez goranzko joera izan du erdal irakasleen (edo irakasle euskaldun alfabetatu gabeen) oinarritzko prestaerak. Goi-mailako prestaerak hartu du azken urteotan, gorago esan denez, lehentasuna. Milaka irakasle dira, oro har, une batean edo bestean IRALE programaz baliatu direnak. Aurrerago (V.2. atalean) ikusiko dira kontu horiek, xeheago.
- c) Hainbat irakaspostutara sartu ahal izateko euskaraz jakitea esijitu da hasieratik. Kontuan hartzekoak dira, horri dagokionez, hasierako «plazas a euskera / plazas a castellano» formula administratiboa eta, 1983tik aurrera, EGA edo 8aldi baterako, IGA) eskatzen zeneko prozedura. Gero, 1994tik aurrera, hizkuntza-eskakizunen formulazioa izan da nagusi: Hezkuntzako HE2 eskatzen da euskaraz irakatsi beharreko lanpostuetarako (zehazkiago esanik HE2, EGA edo bere balio-kideren bat). Gainerako lanpostuetarako, aldiz, HE1eko eskakizuna (berehalakoa edo diferitua) da arau.

---

(117) *Euskal Hizkuntza eta Literatura* sartu zen lehenik, asignatura moduan, Donostiako (eta, oker ez banago, Bilboko) irakasle-eskola publiko(et)an. Donostiako Elizbarrutiaren eta Eskoriatzako irakasle-eskola pribatu sorberriek bultzada sendoa eman zioten, handik berehala, euskal adarrei. Azkenik, 1980-81ean eratu ziren Donostiako eta Bilboko irakasle-eskola publikoetan euskal adarrak (bai formalki eta bai gizajendez), Eusko Kontseilu Nagusiaren eta Bilboko Unibertsitatearen elkarlanean. Orduan eratu ziren, eta urterik urte garatu.

Hiru mekanismo horien laguntzaz, gero eta irakasle euskaldun gehiago eskuratu ahal izan dute EAEko eskola publikoek eta pribatuek. Funtsezkoa izan da neurri hori, bertako eta kanpoko aditu gehienen ustean: irakasleen hizkuntza-osaera egokia segurtatu gabe alferrik dira gainerako saio gehienak. Nire jakinaren gainean ez dago hemendik kanpora, Europako hiztun-herri txikietan, irakasleen hizkuntza-osaera bermatze aldera hain neurri zabaleko ekimenik egin izanaren testigantza asko (118).

### *IV.1.3. Euskarazko ikasmaterialgintza*

Irakasteredu elebidun-euskaldunez gainera beste zerbait ere behar zen (eta behar da) euskarazko irakaskuntza aurrera ateratzeko: ikasmaterialak. Irakasleentzako gidaliburuak eta, batez ere, ikasleentzako testu-liburuak, lan-koadernoak, eskola-hiztegiak eta gainerako material osagarriak sortu, argitaratu eta eskoletaratu beharra zegoen. Behar gorria, eskueran zer gauza gutxi (eta askotan zer zaharkitua) zegoen ikusita. Oso maila apaletik abiatu behar izan zen alor horretan ere. Administrazioak sortu izan du inoiz, eta argitaratu ere bai, EAEko eskola-mundurako materialik: bai euskaraz eta bai erdaraz egin du halakorik. Ez da hori izan, ordea, administrazioaren bide nagusia euskarazko ikasmaterialen prestaera, produkzioa eta zabalkundea bultzatzeko orduan. Iniziatiba pribatuak leku zabala izan du eginbehar horretan. Erdarazko materialak euskaratu dira zenbaitetan, eta eskoletarako prestatu. Gehienetan ez da, ordea, horrela jokatu: bertako irakasle-taldeen berriaz sortutako (eta, gero, bertako edo estatuko argitaletxeek argitara emandako) materialez hornitu da nagusiki, azken mende-laurdenean, gure eskola-mundua. Euskarazko ikasmaterialgintza arautu egin du Sailak, batetik, eta diruz lagundu bestetik. Edukiz eta kalitate tekniko onargarria, hizkuntza aldetik egokia eta prezioz erdarazkoaren parekoa izango zen materialgintza bultzatu du administrazioak. Aurrerago zehaztuko den EIMA programaren bidez egin du hori, batez ere.

Labur bilduz: hiru eratako neurri operatiboak hartu dira nagusiki, hogeita bost urteotan, gurasoek seme-alaben eskola-hizkuntza aukeratu ahal izateko. A, B eta D ereduak diseinatu eta aktibatu dira batetik, irakasleen hizkuntza-osaera egokitu da bestetik, eta euskarazko ikasmaterialgintza bultzatu da azkenik. EEN legearen hezkuntza-alorreko bi atal nagusietako bat gero eta neurri zabalagoan betetzea lortu da horrela. Zer egin da, aldiz, EEN legearen beste hezkuntza-atal nagusia hezurraitzeko? Zer egin da EAEko ikasleak, gurasoek aukeratzen duten eredu aukeratzeko dutela, derrigorrezko ikasketen amaieran benetako elebidun izan daitezeko?

---

(118) Beharrik ere ez, zenbaitetan: ondotoz egoera erosoagotik abiatu ziren Katalunyan, eta katalana ikastea ez da euskara ikastea bezain lan malkarra.

#### IV.2. Ikasleek hizkuntza ofizial bien ezagutza praktikoa eskuratu ahal izatea

EAEko belaunaldi berriek elebidun izan behar dute: euskaraz eta gaztelaniaz jakin behar dute. Hala dio EEN legeak: hori du beste atal nagusia, hezkuntza-esparruari dagokionez. Luze-zabaleko elebitasunaren helburu hori ez du, askotan ahazten bazaigu ere, EEN legeak ezarria. EEN legea bera baino goragoetik eta lehenagoetik erabakia dago hori: Autonomia Estatutuak espreski agindua. Honela dio Estatutuak bere 6. artikuluan, 2. pasarteak: «EAEko erakunde amankomunek, egoera soziolinguistikoaren ñabardurak kontuan izanik, bi hizkuntzen (..) ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituzte». Autonomia Estatutuaren agindu espresua da beraz, ez EEN legearen berezitasun huts, EAEko hiritar guztiak euskaraz jakitea. Konstituzio-aginduz, gaztelaniaz jakin behar dute hiritarrek. Estatutuaren erabakiz, euskaraz jakingo dutela segurtatu behar da. Euskaraz eta gaztelaniaz jakin beharra, ez jakiteko eskubide hutsa, begiz joa dauka EAEn indarrean dagoen lege-markoak. Ez hori bakarrik: EAEko erakunde amankomunek, ez estatuak edo beste norbaitek, dute helburu hori lortzeko ardura.

Bide horretan aurrera egiten du EEN legeak, hiritarren euskalduntze-xede orokorrak eskola-munduan eta helduen euskalduntze-alfabetatze-sailean zentratuz. Estatutuaren euskalduntze-helburu hori betetze aldera, eta hezkuntza-munduari dagokionez, honela dio legeak 17. artikulua lehen pasarteak:

El Gobierno adoptará aquellas medidas encaminadas a garantizar al alumnado la posibilidad real, en igualdad de condiciones, de poseer un conocimiento práctico suficiente de ambas lenguas oficiales al finalizar los estudios de enseñanza obligatoria	Jaurlaritzak, derrigorrezko ikastaldia bukatzerakoan ikasleek, aukera berdinetan, bi hizkuntza ofizialak benetan erabiltzeko adina menperatuko dituztela ziurtatzera bideratutako neurri guztiak hartuko ditu;
---	--

Gaztelaniaren ezaguera *factum* soziala da, konstituzio-aginduz halaxe ezarria egoteaz gainera. EAEko gazteek gaztelaniaz hitz egiten jakitea segurtatua dago praktikan, ia kasu guztietan (119). Belaunaldi berriek euskaraz egiten jakitea, aldiz, inola ere ez. Gaztelaniaz gainera EAEko hiritarrek euskaraz jakingo dutela segurtatzea: hori da Autonomia Estatutuak eta EEN legeak hizkuntza kontuan berekin dakarten berritasun handiena (120). Zer neurri

(119) Mendi-zokondoetako azken baserri galduetako seme-alaben euskal elebakartasuna ere joanik da erabat, bizpahiru urtekoak alde batera utzita. Gaztelaniaz (momentuz) ez dakiten baka-rrak, gaur egun, gaztelaniaz besteko hizkuntza egiten den herrialderen batetik iritsitako etorkinak edo beraien seme-alabak dira normalean.

(120) Horrek ez du esan nahi, inoiz entzutea tokatzen denez, ikasleen erdarazko pretaera-alor horretan dena egina dagoenik: gaztelaniaz ongi irakurtzen eta zuzen idazten erakustea EAEko eskola-munduaren eginbehar zentrala da, beste ezein erakundek egin ezin duena. Hori

hartu dituzte EAEko herri-aginteeek, bertako ikasle guztiek hizkuntza ofizial bien ezagutza praktikoa eskuratu ahal izango dutela segurtatzeko? Bost alor hauetan saiatu da eskola-mundua, funtsean, helburu horri erantzuten: ikasle guztien asignatura bihurtu da euskara; hizkuntzen trataera bateratua bultzatu da eskoletan; irakasleen prestaera glotodidaktikoa sendotu da irakasleen artean; ikasleen hizkuntza-maila neurtu eta aditzera eman da eta, azkenik, euskararen erabilera indartzeko neurriak hartu dira. Banan-banan ikusiko ditugu bost puntuok:

*a) Euskara, ikasle guztien asignatura*

EAEko ikasle guztien asignatura bihurtu da euskara, Lehen eta Bigarren Hezkuntza osoan (121). Etxetik erdaldun diren haurrek L2 moduan eskuratzeko, eta etxetik euskaldun direnak L1 horretan alfabetatzeko, nahitaezko asignatura bihurtu da (122). Garrantzi handiko pausoa da hori. Euskarak sarbide zuzena jaso du, horrela, EAEko ikastetxe guztietan eta ikasle guztiengana iritsi da. Etxetik euskaldun diren haur guztiek euskaraz irakurtzen eta idazten ikasteko aukera praktikoa ematen du horrek, batetik. Ez zen gure historian hainbateko aukerarik izan inoiz (123). Etxetik erdaldun diren haurrek ere aukera dute, hamar urtez edo gehiagoz, astero-astero euskara ikasten jarduteko bizpahiru ordu. Hori ere ez da gauza txikia: are gutxiago ezereza, sarri entzun behar izaten denez (124). Bistan da, euskara asignatura huts bihurtzeak ez duela Autonomia Estatutuak eta EEN legeak ezarritako helburua lortzen. Hemen eta orain, A ereduko klase-emankizun hutsak ez du garantizatzen EAEko ikasleak, batez ere etxetik erdaldun direnak, parez pareko elebidun

---

bezain egia da, ordea, EAEko neska-mutileen euskalduntzea eta, are, alfabetatzea erdarazko eginbehar hori baino zailagoa dela. Hizkuntza bien eskola bidezko lanketa-alor horretan ez dago parekotasun osorik.

(121) Hori ez da egia oso-osoa: Lanbide Heziketan, hainbat eta hainbat kasutan, ez dago euskara (ez eta gaztelania) asignaturarik. Hortik aparte osorik betetzen da, legeak aurreikusitako salbuespen-kasuetan izan ezik, goiko arau hori.

(122) Errazegi utzi ohi dugu kontu hori alde batera, azken mende-laurdeneko aldakuntzak aipatzerakoan. Ez dugu zuzen jokutzen, halakoan. Berrikuntza ohargarria da, berez, euskara ikasle guztien ezinbesteko asignatura bihurtu izana. Europako hitzun-herri ahul askok lortu ez duen moduko aurrerapausoa.

(123) Esaldi horri ñabardura askotxo erantsi beharko litzazkiokio, egia osoa esateko. Lehengo eta oraingo alfabetatze-bideen diferentzia nabarmenez hitz egin beharko litzateke, besteak beste, «lehen halakorik inoiz gertatu ez dela» baieztatu ahal izateko. Ez da hau, ordea, horretarako lekua. Besteetan egina dut halako saiorik: horren gogoia duenak bertara jo beza. Ikus, esate baterako, Zalbide 1990. Nolanahi ere, ñabardurak ñabardura ezin ukatzeko datua da berritasun historiko hori.

(124) Hamar urtez edo gehiagoz astean bizpahiru orduz euskara ikastea hutsaren hurrengo baldin bada, zertara datoz AEK, HABE eta abarreko euskaltegiak? Zertara datoz Hizkuntza Eskola Ofizialak? Zertara datoz munduko ingeles-akademia guztiak? Ondotxo ordu gutxiagorekin moldatu behar izaten da horietan, normalean, eta halere ez du inork hain erraz esaten ekimen horiek ezertarako balio ez dutenik. Errazegi ari gara errealitatea distorsionatzen, L2 ikasteko edo eskuratzeko orduan eskola-orduez gainera gizarte-ingurumenak, motibazioak eta beharrianak duten eraginaz ahaztuz.

aterako direnik eskolatik (125). Hori ez da lortzen. Baina ez da egia, ezer lortzen ez denik: aurrerapauso bat da hori, lehengo egoerarekin konparatuta, eta horrela seinlatu behar da.

*b) Hizkuntzen trataera*

Euskara-klaseek probetxurik izango badute garrantzitsua da, besteak beste, klaseak nola ematen diren ongi zehaztea eta irakasbide hori ahal den neurrian hobetzea. Nola erakutsi gaztelania, nola euskara eta nola, une batetik aurrera, atzerri-hizkuntza: erronka handia da hori EAeko milaka irakaslerentzat. Nola irakatsi eta, batez ere, irakasbide hori nola sekuentziatu. Bereziki eskola-orduetako klase-emankizunei (bai euskara-klaseei eta bai euskarazkoei) probetxurik hoberena nola atera, ikasleak elebidun aktibo bihurtzeko. Hainbat pauso eman dira EAEn, mende-laurden honetan, hizkuntzen trataera hori hobetu nahirik. Irakurtze- eta idazte-trebetasunak nola landu, nola sekuentziatu eta nola integratu: hori izan da adituena eta irakasleen eginkizun handietako bat. Ahozkitasuna nola bideratu: hori da, bestalde, gero eta buruhauste gehiago sortzen duen alorra. Hizkuntzen trataera bateratua bideratzen saiatu da, horretarako, bertako hainbat espezialista, ikastetxe eta irakasle-multzo. Aparteko eragina izan dute, hizkuntzen trataeran, unibertsitate alorreko irakasle eta ikertzaile adituek. Lan handia egin da horretan, azken mende-laurdenean. Langintza hori guztia arautzen, diruz eta bestelako baliabidez osatzen, bideratzen eta, zenbaitetan, gidatzen saiatu da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (126).

*c) Irakasleen prestaera glotodidaktikoa*

Aurreko puntuan esandakoa aplikatzeko, jakina, irakasle trebeak behar dira eskoletan. Espezialista adituek dioten hori eguneroko jardunean aplikatzen jakingo dutenak eta hartan saiatuko direnak. Aparteko zeregina izan da hainbat urtez, horregatik, EAeko irakasleen prestaera glotodidaktikoa. Bai Haur eta Lehen Hezkuntzakoena eta bai, beste neurri batean, Bigarren Hezkuntzakoena ere. Oker egon naiteke, baina gai honek 1975etik 1985 ingurura artean gero

---

(125) 1977 inguruan ez genekien halakorik, edota kontua ez geneukan orain bezain argi. Euskara asignatura moduan ematearekin belaunaldi gazteak euskaldun (praktikan, elebidun funtzional) izango zirela pentsatzen zen sari, orain dela 30 bat urte. Ikus, esate baterako SIADECOn txosten famatua (Siadeco, 1978). Eztabaida nagusia honako hau izan ohi zen hasiera hartan: zenbat ordu behariko ote ziren, euskara-asignaturaren bidez ikasle euskaldunak alfabetatzeko eta, batez ere, ikasle erdaldunak euskalduntzeko.. Egia ere da, bestalde, 1977 inguruko ez jakite hura urte gutxiren buruan uxatu zela eskoletan, administrazioan eta hainbat gurasoren ikusmoldean. Egoskogorregia zen eguneroko praktika, gertaera horri ez ikusia egiteko.

(126) Badago motiborik, lanketa-bide horrek orain arte emandakoaz kritiko sentitzeko. Ez, aldiz, lanketa hobe batek askoz emaitza sendoagoak ekarriko dituela uste izateko: erdal ikasleak euskaldun sendo bihurtzearen giltzarria ez dago gela barruan: are gutxiago hizkuntzen trataera bateratuan. Bistan da, halere, zer hobetua franko dagoela alor horretan, irakasleen (irakasle gutzient) prestaera glotodidaktikotik hasita.

baino su biziagoa izan zuela esango nuke (127): B eta D ereduko murgiltze-bideak zabaltzarekin batera irakasleen glotodidaztikazko trebetasun kontu hori bigarren plano batera pasatu izan dela uste dut. Behar-beharrezko trebetasuna da hori ere, ordea, euskara-klaseei (eta, are, euskarazkoei) probetxurik aterako bazaie. Ez da harritzekoa Hezkuntza Administrazioak Glotodidaktika Atala sortu izana hasieran bertan, Sailaren egoitza nagusian, eta geroztik gai hori lantzeko hainbat plaza sortu izana Berritzeguneetan.

*d) Ikasleen hizkuntza-maila neurtu eta aditzera ematea*

Emandako pausoeekin zer lortzen ari garen, eta zer ez, jakitea behar-beharrezkoa da edozein alorretan. Are gehiago eskola-munduan. Eredue sistema ezarri eta berehala, horregatik, hizkuntzako emaitzen neurketa-lanari ekin zitzaien Saitetik beretik, Hizkuntza Politikarako Idazkaritzarekin batera. Horrela sortu ziren EIFE azterlanak, esate baterako. Geroztik beste neurketa-lan asko egin da. Unibertsitate-munduak sortuak dira ikerlan horietariko asko, Hezkuntza-administrazioak (hartarako eraturik duen institutuaz) eginak edo argitara emanak beste zenbait. Hezkuntza-administrazioak bultzatu, egin edo argitara emandako hainbat ebaluazio- edo neurketa-lanen berri ematen du ondoko taulak, ebaluazio horietako zenbait materialen edo irizpideren azalpen-lanak erantsiz. Administrazioaren beraren eraginez zer ebaluazio egin diren, eta noiz-nork argitaratuak dituen, adierazten da bertan.

<b>EAEko ikasleen elebitasun-maila: zenbait ebaluazio-lan</b>	
– EIFE 1 Euskararen Irakaskuntza: Faktoreen Eragina (OHO 2 eta 5)	HUIS Euskara Zerbitzua 1986
– Zortzi-A hizkuntza testa (OHO 8. maila -A eredu)	HUIS Euskara Zerbitzua 1986
– PIR-5 Hizkuntza Testa. (Eskolaurea)	HUIS Euskara Zerbitzua 1987
– EIFE 2 Euskararen Irakaskuntza: Faktoreen Eragina (OHO 5. maila)	HUIS Euskara Zerbitzua 1989
– EIFE-3 Euskararen Irakaskuntza: Faktoreen Eragina (OHO 2. maila)	HUIS Euskara Zerbitzua 1990
– HINE. Hizkuntza idatziaren neurketa eskolan (OHO 8. maila)	HUIS Euskara Zerbitzua 1991
– Lehen Hezkuntzako 6. mailaren ebaluazioa 1999	ISEI-IVEI, 1999
– DBHko ebaluazioaren txostena 2000	ISEI-IVEI, 2000
– Hizkuntzak eta bere ikaskuntza euskal hezkuntza-sisteman. Lehen Hezkuntza	ISEI-IVEI, 2004

(127) Glotodidaktikaren eta metodo onen garrantzia orain baino sarriago azpimarratzen zen orduan. Saiatu ere irakasle-talde bat baino gehiago saiatu zen urte-inguru haietan, ikasle gazteak (eta ez hain gazteak) euskalduntzeko metodo egokiak sortzen eta eskola-munduan zabaltzen. Errazegi gutxiensten da orduko saio zabal hura, egungo egunean



– Probaren hizkuntzak ebaluazioen emaitzetan duen eragina	ISEI-IVEI, 2004
– PISA 2003. Ebaluazioaren lehen txostena	ISEI-IVEI, 2004
– Euskararen B2 maila derrigorrezko irakaskuntzaren amaieran	ISEI-IVEI, 2005
– Lehen Hezkuntzako ebaluazioa 2004. laburpen exekutiboa Ondorioak eta hobetzeko proposamenak	ISEI-IVEI, 2006
– Euskararen B1 maila Lehen hezkuntzan	ISEI-IVEI, 2007

**5. taula.** Hezkuntza-administrazioaren eraginez ikasleen elebitasun-mailaz egindako hainbat ebaluazio

Ikusten denez, ikasleen hizkuntza-maila neurtu eta aditzera ematea herri-aginteen agendan egon da hasieratik, eta orain ere leku jakina du. 1980ko hamarkadan batetik, eta azken zortzi urtean bestetik, kaleratu dira emaitza gehienak. Aldiak eta aldiak izan dira, datuak eskuratu eta argitara emateko ahalegin instituzional horretan. Gorago esan den moduan gogoan izan behar da, azkenik, unibertsitate esparruan eta beste zenbait eremutan ere lan handia egin dela ebaluazio kontuan.

*e) Euskararen erabilera indartzea, gela barruan eta handik kanpora*

Mende-laurden honek garbi erakutsi du, goian esandako ebaluazio horien ildotik, lehen ez genekien bizpahiru gauza: a) euskara asignatura bihurtze hutsarekin ez da lortzen, EAeko ikasle erdaldunak elebidun sendo bihurtzea; b) partez edo osoz euskaraz ikasiz hizkuntza-gaitasun hobea lortzen dute ikasleek euskaraz, oro har, nagusiki erdaraz ikasita baino. Horrekin ere ez da lortzen, ordea, euskara ikasleen mintzo gozo, erraz eta lasai bihurtzea. Lagun-garria da, dudarik gabe, baina bere hutsean ez da aski ikasle-jendearen (batez ere etxetik eta kale-girotik erdaldun edo erdal elebidun diren ikasle ugarien) hizkuntza-gaitasun sendorik bermatzeko; c) euskaraz hobeto dakite, ahoz zein idatziz, egunero (edo sarri) euskaraz egiten duten neska-mutilek eta gazteek. Eskola-orduetan eta, bereziki, handik kanpora dauden ordu ugarietan beti, gehienetan edo sarri euskaraz egiten duten ikasleek hobeto dakite euskaraz, egiten ez dutenek baino (128). Hartarako aukera praktikoa eta, hainbatetan, hartarako beharra edo interes objektiboa duten ikasleek gaitasun-maila hobea izan ohi dute euskaraz, oro har.

Hortik etorri da hainbat irakasleren eta guraso askoren saioa, ikasleek euskaraz egin dezaten: bai eskola-giroan, eta bai eskolaz kanpoko zenbait

(128) Behin eta berriro agertu den emaitza da hori, orain arte egindako ikerketa-lanetan. Bertako eta atzerriko formulazio teorikoekin zeharo bat dator emaitza hori, gainera, eta hainbat irakasleren urterik urteko esperientziak horixe bera dio. Eskola-orduetako erabilera garrantzitsua da, hizkuntzaren erabilera formaletik hurbilagoko jarduera moldeei (batez ere idatzizko jardunari) dagokienez. Eskolaz kanpoko erabilera garrantzitsuagoa da, aldiz, ahozko trebetasun jeneraletarako.

jardun-esparrutan (kirolean, txangoetan, bestelako ikasbideetan, etxean, lagun artean eta abar). Horretan saiatu dira Herri-agintek ere: Hezkuntza Saila, Foru Aldundiak eta hainbat udal, besteak beste. Hurrengo atalak ematen du, gain-giroki, saio horren berri.

### IV.3. Eskola-giroa euskaldunduz euskararen erabilera indartzea

Eskola-orduak mugatuak dira. Askotan besterik uste izaten bada ere, eskolatik kanpora pasatzen ditu ikasleak bere ordu gehienak. D ereduan dabilen ikasle batek, esate baterako, esna edo iratzaririk dagoen orduen %14 inguru pasatzen ditu ikasgelan, ez gehiago, euskararekin kontaktuan. B ereduaren kasuan %8 ingurura jaisten da kopuru hori, eta A ereduarenean %3 ingurura (129).

Horrek ez du esan nahi, eskolaren eragina hutsaren hurrengoa denik. Eskolak badu eragina, baina «bere neurrian». Neurri hori ez da gutxiestea komeni, hizkuntzaren errejistro formalei eta irakurketa-idazketei dagokien alorrean bereziki. Beste hizkuntzetan ere, eskolak ematen die ikasleei errejistro jaso-formal horren lehen ezagutza (130). Ahozko jardunean ere, nahiz eta etekin mugatuagokoa izan, kontuan hartzekoa da eskola-ordu horien eragina: ordu asko pasatzen du ikasleak, urtearen buruan, irakaslearen azalpenak entzuten, hari erantzuten edo ikaskideekiko jardunean (txutxu-mutxuka zein talde-hizketa zaratatsuan). Jarduera horiek guztiek indartu egiten dute ikaslearen gaitasuna, hitzez eta idatziz.

Zer egin da EAEko eskoletan, azken mende laurdenean, ikasleek euskaraz gehiago egin dezaten? Zer egin da, bereziki, ikasleen (eta, oro har, ikastetxearen) euskarazko jarduera-orduak areagotzeko? Erantzunak bat baino gehiago dira, eta guztiak dira aintzakotzat hartzekoak. Erantzun horietariko bat, gero eta eskola, irakasle eta guraso gehiagok (espreski edo bide batez) hautatu dutena, honako hau izan da: euskara, asignatura moduan emateaz gainera, ikasbide bihurtzea. Partezko ikasbide, B ereduan; ikasbide bakar edo nagusi, D ereduan. Etxetik euskaldun diren haurrak, gehien-gehienak, D ereduan dabilta (131). Etxetik erdaldun direnen artean gertatu da, dena den, aldaketarik handiena. Murgiltze-bideak gero eta ikasle gehiago bereganatu du, eta urtetik urtera haziz doa. Esna-orduen %3 ordez %8 edo %14 euskarazko interakzio-

(129) Horretaz informazio zabalagoa nahi duenak jo beza iturri honetara: «Hasi-masiak» in Mikel Zalbide, 1991, *Eskola hiztun bila*.

(130) Zenbaiti, hemen eta nonahi, lehena eta ia bakarra.

(131) Ez dago, dakidala, gai horri buruzko ikerketa monografikorik. Zehar-datuak seguruk dira ordea: ikus, hasteko, euskalduintasun-tasa handiko herri-herrixketan D ereduak bertan duen nagusitasun ia erabatekoa. Kontuan izan, bestalde, hiru hiriburuetan eta Bizkai-Gipuzkoetako herriburuetan D eredu zein garatua dagoen: azterketa demolingüistikoen arabera euskalduintasun-portzentajea baino askoz garatuago. Ondorioa nekez egon liteke deskuidatua, hortaz.

kontestuan pasatzen ditu, horrela, EAEko hainbat ikaslek (132). Hori da, se-guru asko, ikasleen artean euskararen erabilera indartzeko eskola-munduan hartu den neurririk zabalena.

Euskararekiko kontaktu-orduen igoera hori ohargarria da kopuruz. Bere zernolakoa ere kontuan izan behar da, ordea. Eskola-ordu gehienetako jardura, euskaraz zein erdaraz, interaktibo-bizia baino sarriago jasotzaile-pasiboa izan ohi da. A ereduko ikasleek baino ordu gehiago pasatzen dituzte euskararekin B eredukoek, eta are gehiago D eredukoek. Ordu horietariko asko entzuten edo irakurtzen pasatzen dituzte ordea. Eskola-ordu gehienak ez dituzte euskaraz hizketan edo idazlanean pasatzen, entzuten eta irakurtzen baizik. Horren ondorioz, gaitasun ekoizleak (mintzamina eta idazmina) baino ondotoz landuago dituzte gaitasun hartzaileak (entzumen eta irakurmen).

Horrek ez du esan nahi, gela barruko jardunak eman dezakeen guztia pasibo-hartzailea denik ikaslearentzat, ez eta ikaslearen eskolako *input-output* guztia gela barrura mugatzen denik. Gela barruan ere posible da ikasleen hizkuntza-jardura ekoizle(g)oa indartzea, batetik. Gelaz kanpoko eskola-orduak ere ondo balia litezke, bestetik, euskarak presentzia zabala (ahaliz eta zabalena) izan dezan ikasleen hizkuntza-jardueran. Lan handia egin da eskoletan, eta eskoletatik kanpora, bi xede horiek indartze aldera. Azken mendelaurdeneko balantze batek oso gogoan izan behar ditu bi ekimen horiek. Ikuspegi instituzionalari dagokionez, NOLEGA programa eta ULIBARRI proiektua etorri dira ekimen horiek aurautu, bateratu eta babestera. Aurrerago hitz egingo da horretaz. Kontuan izatekoa da, nolnahi ere, NOLEGAK eta ULIBARRIk zuzen-zuzenean erantzun diotela hasieratik (1983tik lehenengokak, 1996tik bigarrenak) eskola-giroa euskaldunduz euskararen erabilera indartzeko xedeari. Zerbaki xoil batzuk aski izan litezke, esaten ari garen saio horren zabaleroaz jabetzeko: 400 ikastetxetik gora dabil ULIBARRIn; 13.000 irakasle eta 175.000 ikasletik gora, nolnahi ere. Aplikazio zabaleko ekimenaz ari gara, hortaz.

Besterik ere erakutsi du denborak: eskola-munduan euskarak presentzia normaldua izango badu, ikasleen gela barruko eta gelaz kanpoko jarduna ez dela kontuan hartu beharreko bakarra. Eskolak bere osoan, eta hezkuntza-administrazioa oro har, eragile sendoak gerta litezke euskarazko jarduna babestu, zabaldu eta aberasteko. Normalkuntza legeak dioen ildotik, posible ez ezik beharrezkoa ere bada azken xede hori. Euskararen lekua, zerbitzu-hizkuntza moduan, aski neurri zabalean ziurtatzen da administrazioan. Ez, ordea, lan-hizkuntza moduan; hizkuntza-kalitateari ere ez zaio, hainbat kasu-

---

(132) Ez dago dudarik igoera ohargarria dela hori: ohargarria kopuruz eta ohargarria, batez ere, ikasle-jendearen hizkuntza-input eta -output horren zernolakoari dagokionez. Ikasgaia esku-ratuko badu, euskararen ezagutza sendoagoa lortu beharra sentitzen du murgiltze-bideko ikasleak; saiatu ere horretan saiatzen da eta, oro har, A ereduko ikasleak baino euskara-maila jasoagoa lortzen du 16 urtera iristean.

tan, dagokion ardura eskaintzen. Horretarako eratu da HAE programa: hezkuntza-administrazioa euskalduntzeko. Pauso bat baino gehiago eman da alor horretan. Ondotxo pauso eman beharko da ordea, euskaraz esparru horretan normaltasunezko erabilera modua eskuratu ahal izateko. Orain arte ikusi denaren argitan erabilera hori nekez areagotuko da aginte-erabakimen argirik hezurmamitzen ez bada, batetik, eta euskarazko jardunguneen eta harreman-sareen gutxienezko dentsitate bati eta oinarritzko kalitate maila bati eusten ez bazaie, bestetik.

## V. OINARRIZKO LAN-PROZEDURA TEKNIKOAK

EAEko irakas-sistema urratsez urrats euskalduntzen joateko Euskara Zerbitzua sortu zuen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, 1981ean. Zerbitzu tekniko berariazkoa sortu zuen Sailak, Eusko Legebiltzarrak handik gutxira onartuko zuen EEN legea hezkuntza-esparruan pausoz pauso aplikatzeko. Lau programa edo lau atal nagusiren bidez jestionatu du Euskara Zerbitzuak, azken 25 urtean, EEN legearen aplikazio tekniko hori: HGA, IRALE, EIMA eta NOLEGA-ULIBARRI deitu ohi zaie, labur beharrez, lau programa edo atal horiei (133). Saileko Euskara Zerbitzua ez da langintza horretan bakarrik ari. Aitzitik, lankidetzan estuan ari izaten da hiru lurraldeetako Hezkuntza-Ordezkaritzekin, Berritzeguneetako Hizkuntza Normalkuntzako teknikariek, IRALEren lau irakastegiekin, Euskal Girotzeko bost barnetegiekin eta beste hainbat lan-talderekin. Horren guztiaren koordinazioaz lortzen da lau atal nagusi horien eguneroko jectio teknikoaren hezurmamitzea. Ehun eta berrogei bat lagun dira guztira, langintza horretan buru-belarri ari direnak. Administrazioaz kanpoko lankidetzak ere badira tartean. Unibertsitate eta ikerketa alorreko aholku-elkarteak bidelagun ditu Euskara Zerbitzuak jectio-lan horretan, lau programa horien hainbat eginkizunetan. Euskalgintzaren alorreko eta Jaurlaritzaren esparruko beste hainbat entitaterekin (HABE, IVAPEko IZO, euskaltegiak, argitaldaria eta abar) lankidetzan jardun ohi du, orobat. Ez da hau lekua, jakina, xehetasun horiek guztiak zehatz-mehatz azaltzeko. Gain-gainetik aipatuko ditugu, hortaz, jectio-maila teknikoan Euskara Zerbitzuak koordinatzen dituen lau atal edo programa nagusi horiek. Horrela azalduko da argien, EEN legearen oinarritzko lan-prozedura teknikoak nolakoak diren.

---

(133) Bestelako eginbeharrik ere izan du Euskara Zerbitzuak, bere ibilera luzean: lehen hamabost urtean, esate baterako, bera izan zen eskola-munduko ebaluazio-lan askoren sortzaile edo bultzatzaile. Ezagunenak EIFE eta HINE dira agian; ez dira, ordea, bakarrik. Euskara batuak eta bizkaierak eskola-munduan behar lukeen lekuaz ere hainbat gogoeta eta proposamen konkretu egin zuen Euskara Zerbitzuak, 80ko hamarkadan. *Eskola Hiztun Bila* moduko azterketa-proiektua eta argitalpena ere bertatik eraman zen, burutik burura, 1990-2 inguruan. Atzerriko adituekiko harreman teknikoaren sailean ere aspaldidanoak dira bere lan-saioak. Orain ere jarraipen argia du bere jardunak, alor horretan. Hori guztia horrela izanik ere egia da goian esandakoa: HGA, IRALE, EIMA eta NOLEGA-ULIBARRI dira bere lan-programa edo atal nagusiak.

## V.1. Gaitasun-agirien jestioa (HGA)

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila da euskara-mailaren neurtzailer eta agiri-emaile ofizial handiena. Bera da EAEn, askogatik, hiritarren euskarazko gaitasun-maila neurtu eta egiaztatzeari dagokionez erakunde publiko nagusia. Bai nagusia eta bai zaharrena, autonomia-aldiari dagokionez (134). Ezaguna da, alde horretatik, 1982tik aurrera daraman lana EGAREN alorrean. Kontuan hartzekoa da, orobat, berak eratuak dituela, eta 1994tik aurrera urterik urte aplikatzen dituela, hezkuntzako hizkuntza-eskakizunen azterketak. Euskara Zerbitzuaren atal nagusietako batetik jestionatzen dira, azken mende-laurdenean, hizkuntzazko gaitasun-agiriak (HGA) (135). Horri guztiari, bestalde, HUISen menpeko hizkuntza-eskola ofizialen langintza erantsi behar zaio. Ekintza horien berri ematen da, labur-labur, hurrengo lerroetan.

### V.1.1. Euskararen Gaitasun Agiria (EGA)

*Euskararen Gaitasun Agiria* 1982an sortu zuen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak (136). «Euskaltzaindiaren D titulua» esan ohi zitzaion euskara-agiriaren oinordeko gisa sortu zuen (137). Erreferentziatzakoa da EGA, harrez gero, euskara-agiri guztietan (138). EAEn eta Nafarroan parez pare

---

(134) Autonomia aurrean Euskaltzaindia izan zen alor horretan, kopuruz eta oihartzunez, nagusi. Beste zenbait ere, Bilboko Hizkuntza Eskola eta Labayru adibidez, orduan hasitakoak dira.

(135) Zortzi dira funtsean, hezkuntza-sistemaren mailaz mailako edo aldi behingo neurpide arruntak eta (garai batean) lanpostuetarako lehiaketak alde batera utziz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak mende-laurden honetan antolatutako neurpideak: HE1, HE2, HBLEM / (orain) HLEA, EGA, B titulua (1985era arte), GUMA (1993ra arte), IGA (1996ra arte) eta EIT. GUMA eta IGA neurpideak IRALAREN alorretik bideratu zan ziren beti. Hortik kanpora gelditzen dira, aldiz, Hizkuntza Eskola Ofizialek jestionatzen dituzten hizkuntza-agiriak.

(136) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren 1982ko bi aginduok dira horretan funtsezko: batetik apirilaren 22koa (EHAA, 1982-V-4); bestetik irailaren 20koa (EHAA, 1982-XI-8).

(137) EGAK hizkuntza-plangintzan izan behar zuen egitekoa ez zuen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, hasiera hartan, zehatz eta argi definitu. Orduko dokumentuak eta esperientzia pertsonalak aintzakotzat hartuz argi dago, halere, ondoko kezka hauek bederen mahai gainean izan zirela: gizartearen neurpide-eskea; Euskaltzaindiak bere D tituluaren bidez lortutako ondasuna jaso beharra; izaera irekia gorde beharra; euskararen batasuna bultzatu beharra; agirien bateratasuna bultzatu beharra; agiri berriaren kalitatea ziurtatu beharra; helduentzako euskararen irakaskuntza hobetzen lagundu beharra, eta unibertsitatearekiko harremana arautu beharra.

(138) Erreferentziatzko izaera horri dagokionez, honako pauso hauek bederen garrantzitsuak izanak dira:

- a) 1982ko irailaren 20ko Aginduak (EHAA, 1982-XI-8) Bilboko Hizkuntza Eskola Ofizialeko agirien, ordura arteko Labayru ikastegikoen eta Euskaltzaindiaren ordura arteko agirien EGAREkiko baliokidetzak finkatu zuen;
- b) 1983an, Euskal Filologiako lizentziatuak eta diplomadunak, irakasle-eskola baten bidez zein Fakultate batean espezializatuak, EGADuntzat jo ziren uztailaren 11ko dekretuz (EHAA: 1983/7/19);

bideratzen dute bertako Hezkuntza Sailek EGA, nor bere eskumen-esparruan. Iparraldean Euskaltzaindiak bideratzen du, aspaldidanik, EGAREN pareko agiria. Hamasei urte baino gehiagoko herritar guztiei irekia dago EAEn. Hona EGAREN zenbait ezaugarri:

- a) Harrera ona izan du EGAK, sortu zenetik beretik. Agiria lortzeko matrikula-kopuruen urtez urteko bilakaerari dagokionez, ezaugarririk handienetarikoa bat bere hazkuntza izan da. Euskaltzaindiko *D titulua* 1.500etik 2.500era arteko matrikula izan ohi zituen bere azken urteetan; EGA, aldiz, urtean 16.000 matrikula izatera iritsi da.
- b) Hazkunde horrekin batera azterketariaren nolakoa ere aldatuz joan da: Euskaldunzahar euskaltzalea eta sarritan euskal kulturaren hone-tan edo hartan aditua eta aritua adierazten zuen Euskaltzaindiaren *D* titularen urteetako azterketarien erretrato-robotak, neurri on batean. Gaurko azterketarien artean, aldiz, kontuak ez dira horrela. Hasteko, oraingo egoeran multzo jakin bat nagusitu da erabat: EGAREN hasierako urteetan, matrikulatuen artean bere lanpostua lortu, gorde edo hobetzeko hizkuntza-agiria behar zuen irakasle euskaldunberri ugari zegoen ere. Gaur egun, aldiz, eskola-adineko ikaslea da EGARA datorren azterketari ugariena: oraindik unibertsitate-ra iritsi gabea, sarritan B edo (batez ere) *D* ereduan ikasten ibilia, gizarteak gutxi-asko onartua duen euskara-agiri baten bila doana.
- c) Aldaketa horiek euskara-mailaren aldetiko jaitsiera ekarri dute. Oro har, gazteak, nahiz askotan etxetik euskaldun eta euskaraz eskolatuak izan, ez dira hizkuntzari dagokionez 1975 inguruko euskaltzale multzo suhar hura bezain jantziak, alde batetik; bestetik, azterketara aurkezten direnean duten adina dela-eta, ez dira hasierako haiek bezain helduak ere. Hori guztia gainditze-tasan islatzen da. Euskaltzaindiaren *D* titularen garaian gainditze-tasa lehenengo zortzi urteetan %57 inguru izan bazen, gaur egun %20-30 inguruan dabil.

---

c) 1984an, berriz, Euskaltzaindiak Nafarroan eta Iparraldean arestian aipatutako bigarren Agindu horretatik aurrera eman zitzakeen agiriak ere homologatu egin ziren (EHAA: 1984/3/23);

d) Urte berean, EAeko bi irakasle-eskolatan osorik edo nagusiki euskaraz egindako maisu-ikasketek EGAREKIKO balio-aitormena lortu zuten (EHAA: 1984/7/9);

e) berdin handik urtebetera beste bi irakasle-eskolatakoek (EHAA: 1985/5/8)

f) 1986an, elkarrekiko adostasunez, Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak nor bere agente-esparruan bestearen EGA baliodun definitu zuten eta, horrekin batean, besteak bere agente-esparruan onartutako baliokidetzak orobat onartu (EHAA: 1986/3/10).

g) 1990ean Madrilgo (EHAA: 1990/10/2) eta 1991ean (EHAA: 1991/12/4) Donostiako, Eibarko, Gasteizko eta Getxoko. Azkenik, 1997an, Barakaldoko eta Durangoko Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako gaitasun-mailari EGAREKIKO baliokidetzak aitortu zitzaizkien (EHAA: 1997/3/24).

Urtea	Matrikula	EGAdun	Urtea	Matrikula	EGAdun
1982	3.740	1.396	1996	12.874	2.941
1983	7.391	2.770	1997	13.956	3.531
1984	7.055	2.843	1998	14.864	3.670
1985	9.979	2.705	1999	16.506	3.558
1986	11.200	3.181	2000	16.230	3.659
1987	10.350	3.208	2001	15.257	3.605
1988	9.895	2.892	2002	14.496	3.506
1989	9.429	2.505	2003	14.808	3.478
1990	9.680	2.551	2004	14.565	3.346
1991	9.695	2.556	2005	15.673	3.669
1992	10.607	2.780	2006	16.073	4.130
1993	11.686	3.266	2007	15.350	3.785
1994	12.755	3.142	<b>Guztira</b>	<b>317.365</b>	<b>81.707</b>
1995	13.251	3.034			

**6. taula.** EGAKo azterketari- eta agiridun-kopuruak, 1982-2007

Azken aldian hamabost edo hamasei bat mila pertsonak egiten dute urtero, deialdi irekiz zein itxiz, EGA azterketa (139). Guztira 300.000 azterketa inguru egin da 1982tik hona. 82.000 hiritar inguruk gainditu du azterketa, eta EGA agiria erdietsi.

2000. urteaz gozotik, EGA agiria dela medio ALTE (*Association of Language Testers in Europe*) erakundeko kide oso da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Europako hizkuntza-azterketa ezagun askoren kalitate-parametro nagusiekin homologatua dago EGA agiria, eta bertako jokabide-arauak betetzen ditu. ALTERen eta Europako Kontseiluaren C1 maila aitortua du EGAK: EGA agiriak *Gaitasun Operatibo Eraginkorra* eskuratu izana adierazten du hortaz.

### ***V.1.2. Irakasleen hizkuntza-eskakizunak (HE1, HE2, HLEA)***

Eusko Legebiltzarrak eta Eusko Jaurlaritzak sortu zituzten irakasleen HE1 eta HE2 eskakizunak, 1993 urtean. Irakasleen Kidegoei buruzko Legearekin hasi eta handik gutxira argitara emandako 47/1993 Dekretuarekin

(139) Zehazki esanik matrikula-kopuruak dira horiek: benetako azterketari-kopuruak zer-txobait txikiagoak izaten dira: matrikula egindako zenbait pertsonak, motibo bat edo beste dela medio (gaixotasuna, norabait joan beharra, azken orduko beste konpromisoren bat..) ez da azterketara aurkezten.

sortu ziren hizkuntza-eskakizun horiek (140). Gaur egun hiru eskakizun-maila aitortzen dira:

*HE1*: irakasleen behe-mailako hizkuntza-eskakizuna. Ez da behar adinbateko maila, euskara edo euskaraz irakasteko. Bai, aldiz, eskolako ikasle eta irakasle-kide euskaldunen euskarazko jarduna ulertzeko eta beraien jardun hori ez oztopatzeko. Eskola-giroan euskara zerbitzu-hizkuntza legez erabili ahal izatea garantizatu nahi du gaitasun-maila horrek.

*HE2*: Euskara edo euskaraz irakasteko hizkuntza-gaitasuna bermatu nahi du: hori da bere xedea. EGAREN parekoa da legez: C1 mailakoa hortaz, Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren eskalan. Hori da, normalean, irakasle erdaldun gehienek beren euskalduntze-bidean azken helburutzat hartu ohi duten agiria.

*HLEA (Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria)*: irakaslanean ari ez den eskola-esparruko hainbat langilerentzako agiria, 66/2005 Dekretuaren bidez sortua. HE1 eta HE2 eskakizunen arteko gaitasun-maila da. Hala ere, mintzamenari dagokionez, gaitasun altu samarra eta hitz-jario egokia eskatzen da, langile hauek aho-hizkuntza behar baitute, batez ere, beren lanerako.

Hizkuntza-eskakizunen azterketak deialdi irekiz nahiz deialdi itxiz egiten dira. Deialdi irekien azterketari-kopurua handitu egiten da oposizioak izaten diren urtean, harik eta 3.000 pertsona inguru bildu arte. Deialdi itxietan, aldiz, azterketari-kopurua txikiagoa izaten da eta, horrezaz gainera, urtetik urtera jaisten ari da eten gabe: irakasleen oinarriko (HE2rainoko) euskalduntze-prozesua osatzen eta amaitzen ari denez, hartarako kandidatuak gero eta gutxiago dira.

Lehenengo bi taulek HE1eko eta HE2ko deialdi irekien urterik urteko emaitzak azaltzen dituzte. Hurrengo biek, berriz, deialdi itxikoak.

*a) Deialdi irekiko emaitzak, urterik urte*

Milaka irakasle edo irakasle-nahi (141) aurkeztu da HE1eko eta HE2ko deialdi irekita:

- 
- (140) Hizkuntza Eskakizunen arauzko erabaki nagusiak ondoko hauek dira:
- Martxoaren 9ko 47/1993 Dekretua, 1993ko apirilaren 2ko EHAAn: sorrera
  - Urriaren 6ko 263/1998 Dekretua, 1998ko urriaren 23ko EHAAn: baliokidetzak
  - 1994ko urtarrilaren 10eko Agindua, 1994ko urtarrilaren 26ko EHAAn: irizpideak etab.
  - 1995eko apirilaren 10eko Agindua, 1995eko maiatzaren 11ko EHAAn: kalifikazio-sistema deialdi itxietan
  - 1996ko azaroaren 14ko Agindua, 1996ko abenduaren 5eko EHAAn: HBLEMEN sorrera
  - 1998ko urriaren 22ko Agindua, 1998ko azaroaren 5eko EHAAn: kalifikazio-sistema irekietan

(141) Berez, hori baino konplikatuagoa da kontua: ez irakasle diren, eta ez irakasle izateko asmoa duen, beste zenbait hiritar ere aurkeztu ohi da (batez ere, aurkeztu izan da) deialdi irekietara. Egungo egunean lehen baino gutxiago dira halakoak, deialdiek beraien aski baldintza argiak jartzen baitituzte irakasleen (edo irakasle-nahien) multzoan zentratzeko.



noiz	aurkeztu	gainditu	%
1993*	3.685	657	17,8
1994*	1.513	439	29,0
1995	1.619	784	48,4
1996	1.953	1.019	52,2
1997	2.389	1.328	55,6
1998	2.667	1.205	45,2
1999	2.457	1.035	42,1
2000	2.572	1.030	40,0
2001	2.538	663	26,1
2002	2.688	681	25,3
2003	1.938	481	24,8
2004	2.294	698	30,4
2005	2.515	682	27,1
2006	3.334	965	28,9
2007	1.342	414	30,8
<b>Guztira</b>	<b>35.504</b>	<b>12.081</b>	<b>34,0</b>

7. taula. HE1, deialdi irekia

noiz	aurkeztu	gainditu	%
1993*	1.554	204	13,1
1994*	1.119	99	8,8
1995	1.412	469	33,2
1996	1.851	410	22,2
1997	2.633	755	28,7
1998	1.162	259	22,3
1999	1.043	137	13,1
2000	1.236	224	18,1
2001	1.010	108	10,7
2002	1.441	142	9,8
2003	2.046	229	11,2
2004	811	90	11,1
2005	891	108	12,1
2006	602	69	11,4
2007	850	129	15,1
<b>Guztira</b>	<b>19.661</b>	<b>3.432</b>	<b>17,5</b>

8. taula. HE2, deialdi irekia

## b) deialdi itxiko emaitzak, urterik urte

noiz	aurkeztu	gainditu	%
1994	490	316	64,5
1995	434	272	62,7
1996	665	424	63,8
1997	634	440	69,4
1998	589	364	61,8
1999	533	280	52,5
2000	470	232	49,4
2001	402	194	48,3
2002	317	114	36,0
2003	308	159	51,6
2004	208	88	42,3
2005	211	112	53,1
2006	192	74	38,5
2007	134	65	48,5
<b>Guztira</b>	<b>6.120</b>	<b>3.414</b>	<b>55,8</b>

9. taula. HE1, deialdi itxia

noiz	aurkeztu	gainditu	%
1994	792	452	57,1
1995	506	286	56,5
1996	663	383	57,8
1997	730	420	57,5
1998	786	382	48,6
1999	794	366	46,1
2000	683	284	41,6
2001	520	165	31,7
2002	456	154	33,8
2003	534	177	33,1
2004	366	171	46,7
2005	319	127	39,8
2006	375	167	44,5
2007	265	107	40,4
<b>Guztira</b>	<b>7.789</b>	<b>3.641</b>	<b>46,7</b>

10. taula. HE2, deialdi itxia

Deialdi itxiko azterketak bi proba ditu, ez hiru: idatzizkoa eta ahozkoa; hor ez dago, beraz, alde zurretiko Aukera Anitzeko Galdekizunik. Azterketa gainditzeko bi zatiak gainditu behar dira: idatzia eta ahozkoa. Deialdi itxian,

bestalde «etengabeko ebaluazioa» edo irakasleen «balioespena» ere kontuan hartzen zaie. Horrela, idatzizko azterketa suspenditu, baina gainditzeko puntuaziotik hurbil gelditzen direnei «etengabeko ebaluazio» hori begiratzen zaie. Horrela, dagokion Hizkuntza Eskakizuna lor dezake azterketariak, baldin eta ahozko proba gainditua badu. Era berean, ahozko azterketan ere egiten da horrelako erkaketa zenbait kasutan, zalantzazko kasuetan hain zuzen ere, baldin eta azterketariak proba idatzia gainditu badu. Sistema hau aplikatzearen ondorioz, zalantza-kasuan dauden gehienek lortzen dute Hizkuntz Eskakizuna, «etengabeko ebaluazioa» gaindituta izaten baitute.

### V.1.3. *Hizkuntza Eskola Ofizialen (HEOen) gaitasun-maila*

EAEko Hizkuntza Eskola Ofizialak ere euskara-erakusle dira, alde batetik, eta euskara-mailaren ziurtatzaile bestetik. Euskara-maila bat baino gehiago ziurtatzen dute Hizkuntza Eskolek: garrantzitsuena, eskuartearen dugun ikuspegitik, bertako 5. maila edo «gaitasun-maila» da. Bi eratara egiten dira HEOetan euskara-maila hori ziurtatzeko azterketak: deialdi ofizialez (kurtsua bertan ikasiz) batetik, eta deialdi librez bestetik. Ondoko taulek erakusten dute azken hamar-hamabi urtean zenbat jende matrikulatu izan den bide ofizialek edo libretik, eta bide bakoitzetik zenbatek *gaitasun-maila* egiaztatu duen (142).

urtea	matrikula	gainditu	%
1996	384	138	
1997	369	148	
1998	409	169	
1999	541	170	
2000	610	173	
2001	714	292	
2002	750	290	
2003	808	353	
2004	878	310	
2005	982	327	
2006	977	324	
2007	914	296	
<b>guztira</b>	<b>8.336</b>	<b>2.990</b>	<b>35,9</b>

**11. taula.** HEOko deialdi ofizialak, urterik urte

urtea	matrikula	gainditu	%
1998	2.014	493	
1999	2.811	506	
2000	3.548	585	
2001	3.631	651	
2002	4.153	737	
2003	4.330	689	
2004	3.810	538	
2005	3.883	711	
2006	4.223	747	
2007	4.569	876	
<b>guztira</b>	<b>36.972</b>	<b>6.533</b>	<b>17,7</b>

**12. taula.** HEOko deialdi libreak, urterik urte

(142) Lehendik hsiak ziren EAEko Hizkuntza Eskola Ofizialak euskara-azterketak egiten: Bilboko HEO, konkretuki, askoz lehenagotik. Egia da, halaz guztiz, azken hamabost urtean ugaritu direla HEOak eta, bereziki, urteotan zabaldu direla bertako euskara-azterketak: azterketa ofizialak eta, nagusiki, libreak.

***V.1.4. Hizkuntzako Gaitasun Agirien baliokidetzaren sistema berritzea***

Hasierako baliokidetzaren panoramara aldaketa bortitza ekarri zuen Hezkuntzako Hizkuntza Eskakizunen (HHEEen) sorrerak batetik, eta administrazio-langileentzako bost (gero lau) hizkuntza-eskakizunen eramoldeak bestetik. Aski denbora gutxian, euskal munduko hizkuntza-eskakizun bakar izatetik askotariko bat izatera pasatu ziren EGA eta bere baliokideak. Baliokidetzaren arkitektura berrian, 1993/4/2ra arte emandako EGA agiriak (eta parekoak) irakasleen HE2ko mailaren pareko hartu ziren, baina handik aurrera luzatutakoak ez. Kopuruz nagusia, tradizio historikoz ezagunena eta ezarpen-eremuz zabalena zen agiria jokoz kanpora gelditu zen horrela, urtero-urtero EGA egitera aurkeztean ziren hiritarrak balio ofizialaren hainbat alorretatik baztertuz. Arazo larria zen hori. Urteetan ahalegindu behar izan zen administratibotik eta Legebiltzarretik, lehengo sistema eta berria elkarrekin lotzeko (143). Prozesu horren azken urratsa 263/1998 dekretuaren bidez egin zen: EGA eta bere baliokideak behin betiko izaeraz hezkuntzako HE2rekin parekatu ziren. Horrez gain, beste hainbat puntu argitu ziren baliokidetzari begira,

- a) Ordura arteko arautegia baterabildu eta eguneratu egin zen;
- b) Administrazioeko HE3 EGAREN pareko hartu zen;
- c) Euskal Filologiak EGAREKIKO duen balio-aitormena argiago jarri zen, eta
- d) EAEKO Hizkuntza Eskola Ofizialetako (HEOETAKO) laugarren maila HE1EN baliokidetzat hartu zen.

Puntu bat gelditzen zen, panorama horretan, argitu gabe: HABEREN lekua HGAREN barruan. Hainbat pausoren ondoan, 1983an bertan bi aginduren bidez<sup>1</sup> garatu zuen Hezkuntza Sailak lotune hori, HABEREN bidezko EGA azterketak egiteko bidea irekiz. Lotune hori ez zen behin betiko konponbidetzat eman. EGAREN eta HABEREN arteko harremanez iritzi ugari azaldu ziren hainbat urtez, eramolde berririk indarrean jartzera iritsi gabe. Eztabaida horiek, gainera, albora utzi behar izan ziren une batez, EGAK hizkuntza-eskakizun berriekin izatekoa zuen harremana argitu artean, demagun 1990-1998ko epean. EGAK hizkuntza-eskakizunen sistema berrian zuen kokagunea argitu ondoren, EGAREN eta HABEREN arteko harremanak argitzeari ekin zitzaion berriro (144).

(143) Hona funtsezko urratsak: lehendabizi, Jaurlaritzaren zenbait dekreturi jarraiki, HAAE-IVAP zenbait baliokidetzaren egiten hasi zen, EGA eta irakasleen HE2 administratibotik HE3rekin parekatuz; Hezkuntza Sailak, 1996/1/5eko bere aginduan, EGAREN baliokidetzat hartu zuen irakasleen HE2; alderantziz egin ahal izateko, dena den, EAEKO Irakaskuntza ez-unibertsitarioko irakasleen Kidegoei buruzko Legea aldatu behar zen. 1998/2/6an hala egin zuen Eusko Legebiltzarrek, 1993/4/2tik aurrerako EGA agiriak eta baliokideak irakasleen HE2rekin parekatzea eragozten zuen 53.3 artikulua ezabatuz; hurrengo urratsa, aldi baterakoa, 1998/3/10eko dekretua izan zen. Horren bidez, EGA eta bere baliokideak irakasleen HE2ren pareko hartu ziren 1998ko bukaerara arte.

(144) Marko horretarako oinarritzako funtzionamendu-arau zenbait finkatu zen, eta beste oinarritzako disfuntzio bat konpondu: HABEK erabiltzen zuen euskaltegi-sailkapena (publiko homologatuak, pribatu homologatuak eta pribatu libreak) eta EGAK erabiltzen zuena (azterleku homologatuak eta onetsiak) bateratzea. Oinarritzako irizpide horiei jarraiki honako neurri hauek

Neurri horiek guztiak bi agindutan gauzatu ziren 1999 urtean (EHAA: 1999/7/21; 1999/9/30).

Aldaketa handien atarian gaude une honetan, itxura denez, hizkuntza-agiriari marko-berritzea dela-eta. Mende-laurdeneko ibilera dela-eta goian esandako horiek dira kontuan izatekoak: gerokoak gero.

## **V.2. Irakasleen hizkuntza-prestaera (IRALE)**

Gorago esan denez %5 baino gutxiago ziren 1976-77an, EAEko sektore publikoan, euskaraz (zerbait) bazekiten Lehen Hezkuntzako irakasleak (145). 1980tik aurrerako irakasle berri asko (ez ezinbestean gehienak) euskaldun izanik ere, lehendikako irakasleak ziren irakas-sistema elebiduna osatzeko ahaleginen abiaburu. Horiek euskaldundu beharra zegoen, euskarazko irakaskuntzak aurrea egingo bazuen (146). IRALE programa eratu zen horretarako: IRakasleak ALfabetatu eta Euskalduntzeko programa. Hori izan da, ezaguna denez, Euskara Zerbitzuaren mende-laurden osoko atal edo programa nagusietako bat. Helburu bi bete nahi izan ditu Sailak programa horren bidez. Batetik, irakasle erdaldunak (EAEko irakasle gehienak, hortaz) euskalduntzea: irakasle multzo zabal hori erdal elebakar izatetik elebidun izatera pasatzen laguntzea. Bestetik, lehendik euskaraz bazekiten irakasleen hizkuntza-gaitasuna osatu eta aberastea: euskaraz idazten ez zekitenak alfabetatzea eta aurrez hartara iritsitakoei hortik aurrerako trebetasunak eskaintzea, hitzekoan zein idatzizkoan. Urteroko aurkezpen-txostenetan emanik datoz, nolana ere, IRALE programaren 25 urteotako ibileran hain ezagunak izan diren ikastaro mota guztiak.

### ***V.2.1. IRALEren oinarri-oinarrizko ezaugarriak***

Labur-labur azaldu behar bada IRALEren mende-laurdeneko jarduna, bere ezaugarri nagusiei dagokienez zera esan liteke:

---

hartu ziren: HABEk proposatutako bi lurralde-arduradun ABOKo Zuzendaritzan sartu ziren; onespren-homologazio sistema kendu egin zen, horren ordez HABEko eroldako euskaltegi homologatu guztiak HABEren bi lurralde-arduradun horien menpe jarri, irekietako azterketariak beste lurralde-arduradunen menpe dauden modu berebean (Labayru ikastegiak soilik gorde zituen lehengo eskubideak); bertako aztertzaileren figura (hots, lan egiten zuen euskaltegian soilik azterketak zuzentzen zituenarena) kendu egin zen; ABOKo kideak bost (irekietako hiru eta HABEren bidezko itxietako bi) lurraldeen artean birbanatu ziren; azterketa itxietako eta irekietako aztermaterialak ABOKo Zuzendaritzan bertan finkatuko ziren guztiak eta, ahal zen neurrian, aztertzailen batek ez zituen bere ikasle izandakoen azterketak zuzenduko, zoriz ez bazen.

(145) Datu kontrastaturik ez dago eskuera, sektore pribaturako: ordena erlijiosoen mende-ko ikastetxe pribatueta nekez izan zitezkeen gauzak, dena den, oso diferente. Ikastolak ziren, huts-hutsik, erdal espektro ia-elebakar horretatik nabarmen aldentzen ziren ikastetxe bakarrak.

(146) Alde horretatik zeharo diferentea izan da, adibidez, Hezkuntza-administrazioaren eta Herrizaingo Sailaren joku-esparrua. Bai joku-esparrua eta bai jokabidea: ikus aurrerago, txostenaren azken ondorio modukoetan, kontu horretaz esaten dena.

- a) Bi eratako ikastaroak eskaini izan ditu IRALEk: irakastorduz kanpoko ikastaroak batetik, eta irakastordu barnekoak bestetik. Lehenengoak, irakastorduz kanpokoak, liberaziorik gabeak dira: bere eskola-orduak emateaz gainera euskara ikasten du irakasleak, nahi duen euskaltegian, eta ikastaro horren matrikula-kostua IRALEk ordaintzen dio. Bigarrenak, irakastordu barnekoak, liberaziodunak dira: klaserik eman behar izan gabe, eta soldata osoarekin, hainbat hilabetez (147) euskara ikasten jardutekoak. Berariazko irakastegiak eratu zituen IRALEk eginkizun horretarako: hiru hiriburuetan egon izan dira irakastegiok oro har (148), eta hor daude orain ere.
- b) Ikasketa-mailari dagokionez, bestalde, bi multzo nagusi izan dira IRALEren mende-laurdeneko ibileran: oinarritzko edo behe-mailako ikastaroak batetik, eta goi-mailakoak bestetik (149). Oinarritzko ikastaroak hutsetik hasi eta EGA edo hezkuntzako HE2 mailara artekoak dira. Goi-mailako ikastaroak, berriz, EGA edo hezkuntzako HE2tik hasi eta hortik gorakoak.
- c) Sektore publikoa eta pribatua, biak atenditu izan ditu IRALEk. Liberazio gehienak sektore publikoan gertatu izan dira: urtean 1000 liberaziotik gora izatera iritsi izan da IRALE sektore publikoan. Sektore pribatuko liberazio-kopuruak, aldiz, gutxiago izan dira beti: urtean ez dira 200etik oso gora pasa izan, eta askotan gutxiago izan dira. Irakastorduz kanpoko ikastaroetan, aldiz, sektore biek antzeko (antzeagoko) neurrian hartzen dute parte.

### ***V.2.2. IRALEren dimentsioa, urteen joanean***

Honako deskribapen hau egin liteke IRALEren dimentsioaz eta urterik urteko bilakaera kuantitatiboaz. a) Ikastaro-eskabideei eta ikasketari-kopuruei dagokienez irakastorduz kanpoko ikastaroak izan dira, hainbat urtez, IRALEren lan-esparru nagusia. Jende askok besterik uste badu ere irakastorduz kanpoko ikastaroak izan dira IRALEren historian, lehen hamabost urtean-edo,

---

(147) Hasieran trimestre bat; hiru urtera arte, gaur egun.

(148) Lehen urtean bi irakastegi zirenak hiru izan dira urte luzez, eta 1994tik aurrera lau: Bilbon bi, eta Gasteiz-Donostietan bana. Horrezaz gainera barnetegirik eratu izan zen Zarautzen, berariazko irakastegirik Errioxan eta egonaldi berezietarako aukerarik han-hemen. Bergaran ere izan zen Debaibarrerako zerbitzu berariazkoa, zenbait urtez, eta Zornotzako zein Lazkaoko barnetegien laguntzaz ere eskaini izan da hainbat aukera berezi. Kanpo-euskaltegiek atenditzen dituzte, gaur egun, irakastordu barneko hainbat ikastaro. Konkretuki, oinarritzko mailako ikastaroak: urte osokoak eta urte erdikoak.

(149) Bai irakastorduz kanpoko ikastaroetan, eta bai irakastordu barnekoetan, eskaintzen dira oinarritzko eta goi-mailako ikastaroak. Horretan ez dago alderik. Goi-mailako ikastaroen artean H modukoak dira arrakasta handienekoak irakastorduz kanpoko aukeretan, eta R300 zein R600 motakoak irakastordu barnekoetan.

ikasketari gehien atenditu dutenak. Motibo bat baino gehiago zeuden horretarako: kasuan kasuko ikasketariaren agenda profesionala, ikastetxe pribatueta zuzendaritzen ahalmena eta lehentasun-eskema eta abar. Besterik izan zen ordea, lehen hamar urtean bereziki, motiborik ezagunena: plaza gutxi (eskabi-deekin konparatuz gutxi) eskaintzen ziren liberazioz, irakastordu barnean. b) Irakastordu barneko plaza-aukera horiek ugarituz joan ziren 80ko hamarkadan sektore publikoan, eta 90ekoan pribatuan. Sektore biak elkar hartutako, plaza-kopuruak oso igoera handia izan zuen 1995-2000 epealdian: urtean 1000 irakasle baino gehiago liberatzera iritsi zen Saila. c) Oinarrizko edo behe-mailako ikastaroak izan ziren askogatik, lehen hamabost-hogei urtean, gehien eskatuak eta gehien eskainiak. Irakasle gehien-gehienak erdaldun izanik, eta B zein D ereduak zabalduz zihoazenez, luxua ere bazirudien begiak gorago, urrutiago jartzea. Azken zortzi-hamar urtean gogor aldatu da kontua, halere. Goi-mailako ikastaroak dira, gaur egun, eskabide eta eskaintza gehien eskuratzen dituztenak sektore publikoan zein pribatuan: bai H ikastaroak (liberaziorik gabe, irakastorduz kanpora) eta bai R ikastaroak (hiru hilabeteko liberazioz, irakastordu barnean).


Ondoko bost irudiek ematen dute, era grafikoan, orain arte azaldutako gertaera horien berri. 6., 7. eta 8. irudietan irakastorduz kanpoko ikastaroen bilakaera azaltzen da. 9. eta 10. irudietan, aldiz, irakastordu barneko (liberaziozko) ikastaroek izandako eboluzioa islatzen da labur-labur.

Has gaitezen irakastorduz kanpokoekin. Lehenengo irudian (6.ean) ikastaro horien lehen hamahiru urteetako bilakaeraren berri ematen da (150). Liberaziorik gabeko matrikulazio-kopuruen datuak azaltzen dira bertan. Hurrengo irudiak (7.ak) behe-mailako ikastaroetan (hutsetik hasi eta EGAr arteko ikastaroetan) 1994-95etik hona izandako bilakaera agertzen da: irakasle gehienak EGA edo HE2 eskuratuz joan dira eta, beraz, behe-mailako eskabideen kopuruak beherantz doaz. Hirugarren irudiak (8.ak), azkenik, goi-mailako R ikastaroetan (HE2 edo EGAtik hasi eta hortik gorako ikastaroetan) izandako bilakaera agertzen da: EGA edo HE2 eskuratua duen irakasle askok osagarriko prestaeraren beharra antzeman du eta goi-mailako (liberaziorik gabeko) ikastaro horien matrikula-kopuruak gorantz joan dira oro har.


Ikus ditzagun, besterik gabe, irakastorduz kanpoko ikastaroen berri ematen duten 6., 7. eta 8. taulak:

---


(150) Urterik urte aldatuz joan izan dira IRALeko matrikula-kopuruak, lehenengo hamahiru urte horietan. Irakastorduz kanpoko ekintzak faktore askoren mende egon izan dira, eta faktore-aniztasun horrek gorabehera ohargarriak ekarri izan ditu berekin: izan da urterik, 2000 ikasketari hutsekorik. Baita 6000korik ere, ordea. Batezbestean, urtean 3500 ikasketari inguruk parte hartu izan du lehen hamahiru urte horietan IRALEn, irakastorduz kanpoko ekimenetan.



1. irudia. irakastorduz kanpoko ikastaroen matrikula-kopuruak, 1981-82tik 1993-94ra



2. irudia. irakastorduz kanpoko behe-mailako ikastaroen eskabide- eta matrikula-kopuruak, 1994-95etik 2007-08ra




3. irudia. irakastorduz kanpoko goi-mailako ikastaroen eskabide- eta matrikula-kopuruak, 1994-95etik 2007-08ra


Gatozen orain irakastordu barneko ikastaroetara. Hots, liberaturik egiten direneta. Alor honetan ere bi eratako ikastaroak bereiz litezke: behe-mailakoak, hutsetik hasi eta EGAr (hasieran IGAr, gero HE2ra) eramatekoak; bestetik goi-mailako R ikastaroak, EGA edpo HE2 eskuratua izanik hortik gorako prestaera landu nahi dutenentzat.

Has gaitez bez behe-mailakoekin. Liberaziozko ikastaro horiek izan dira, urte askoz, IRALEko ikastaroen artean ezagunenak. Irakasleak trimestre baterako liberatzen ziren hasieran (1981-82an) beren eskola-lanetik, HE2 edo EGA (hasieran, iraganbideko IGA) eskuratzeko eta, horrela, eskolara itzultzean klaseak euskaraz ematen hasi ahal izateko. Trimestre horrekin gutxi zela ikusirik, liberaturik egoteko epea zabalduz joan izan da urteen buruan. Urterdian, urtebete, urte t'erdian, bi urte... Azken aldian hiru urtez liberatzen dira irakasleak, HE2 edo EGA eskuratzeko.

Milaka irakasle pasa da ikastaro horietatik. Mende-laurdeneko bilakaerak garbi azaltzen du, batetik, oinarritzko ikastaro horien kasuan bi fase nagusi izan direla: 1981-82tik 1998-99ra artekoa lehena, eta 1999-2000tik honakoa azkena.



#### 4. irudia. irakastordu barneko behe-mailako ikastaroak: matrikulak



#### 5. irudia. irakastordu barneko goi-mailako ikastaroak: matrikulak

Irudi bi horiek argi azaltzen dute fenomenoak: ia hogeitaz, 1999ra arte, gora eta gora joan izan dira, oro har, behe-mailako ikasketari-kopuruak (151). 1999-2000tik aurrera, aldiz, behera datoz kopuruok etengabe. Gertaera nabarmen horren esplikazio bat emana dago aurretik: gero eta irakasle erdaldun gutxiago dago sisteman, bai ikastetxe pribatuetan eta, bereziki, publikoetan, eta beraz ikastaro hauetarako kandidatuak ere gero eta bakanagoak dira. Beste motiborik ere erantsi behar zaio horri: adin kontua, bereziki. Euskaraz ez dakiten irakasle gehienak 50 urtetik gorakoak dira, asko 60ra hurbiltzen ari dira, eta zailago gertatzen da irakasle erdaldun horiek HE2 edo EGA maila eskuratzea. «Bere lana» egina du IRALEK, hein handi batean, oinarritzko prestakuntza-ikastaroetan. Hala dirudi, behintzat, goiko bi irudiei begiratuta.

(151) Igoera hori ez da, halere, uniformea izan: bultzada bereziko hiru kurtso izan ditu (1985-86, 1991-92 eta 1996-97), eta barealdi zenbait.



Aldiz, oso bestelakoa da goi-mailako prestakuntza alorrak ageri duen panarama: EGA edo HE2tik aurrera erazten diren goi-mailako ikastaroetan gora doaz, oro har, ikasketari-kopuruak. Ikus 5. irudia, ondoren eskaintzen dena. Gogoan izan ikastaro hauetan ez dela nahi duen edonor liberatzen, Sailak urtero-urtero ezarritako kupo bat baizik. Oinarrizko mailetan ikasketari-kopuruek behera egin ahala, goi-mailakoetan gorantz doaz liberazio-kupoak, bai sektore publikoan eta bai (neurri apalagoan) pribatuan. 700 liberazio trimestral pasatxo egiten da urtean, une honetan. Hona R ikastaroen goranzko bilakaera global horren emaitza grafikoa:

EGA edo HE2 eskuratua izanik hobekuntza-ikastaro trinkoren bat egiten duten irakasleon beharrak benetakoak dira: batzuk euskara bera aberastera etortzen dira, dela ikuspegi globaletik (R300 ikastaro mota) edo dela praktikotik (R400). Beste batzuk, aldiz, curriculumaren euskal dimentsioa lantzerako (R600) (152). Batean zein bestean behar handia dago, aldian behingo ebaluazio-saioek argi adierazten dutenez.

### **V.3. Ikasmaterialgintzaren jectioa (EIMA)**

Ikasmaterialak funtsezko osagaia dira edozein eskola-sistematn. Funtsezko osagai horren beharrei erantzuteko, EIMA atala sortu zuen Sailak hasieran bertan. Euskal ikasmaterialgintza bideratzen, zabaltzen eta diruz laguntzen saiatzea: hori da EIMA programaren eginkizun nagusia. Edozein lekutan antzekoak diren arazoak sortzen ditu, batetik, euskarazko ikasmaterialgintzak. Berariazko ezaugarriak ditu, bestetik, bere neurri txikiagatik, erdal munduarekin batera jardun beharrak dituen baldintzengatik, curriculumaren euskal dimentsioaren lanketak berekin dituen korapiloengatik eta euskarak berak bere egituran (fragmentazio dialektalaz, grafia aldetik, terminologia teknikoan eta azalpen-prosa landuan) dituen argi-itzalengatik.

Berariazko ezaugarri horiek kontuan izanik, hiru neurri operatibo eratu ditu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikeketa Sailak EIMAREN alorrean: batetik kalitatea ziurtatzeko mekanismoak; bestetik material-sorkuntza eta -produktzioa indartzeko laguntza-deialdiak; azkenik, material horien zabalkunde-lana laguntzeko bideak. Banan-banan ikusiko ditugu hiru neurri operatibo horiek:

#### ***V.3.1. kalitatea ziurtatzeko mekanismoak***

Legez esana dago kalitatezko materialak eskaini behar zaizkiela ikasleei, euskaraz zein gaztelaniaz. Aparteko atentzioa eskatzen du materialgintza horrek, euskaraz. Lau eratako kalitatea zaindu nahi izaten da ikasmaterialetan:

---

(152) Gutxi dira, aldiz, euskalkia lantzerako joaten diren R500eko ikasketariak.

edukiaren kalitatea, hizkuntzazkoa, teknikazkoa eta, azkenik, aurkezpen-lanketari dagokiona. Edukiaren kalitatea, hizkuntzazkoa eta teknikazkoa berariaz lantzen dira, ikasmateriala kaleratu aurretik. Ikasmaterialen kalitate-kontrola eraturik du, horretarako, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak. Onesp-en-azterketen bidez egiten da kalitate-kontrol hori, hiru kasu horietan. Sari-emankizunez jarduten da, aldiz, laugarrenean. Honako hauek dira euskarazko ikasmaterialen kalitatea ziurtatzeko lau bideak:

*Edukiaren onesp-en-azterketa.* Legez, dekretuz edo arauzko erabakiz finkatua dago, kasuan-kasuan, EAEn erabiltzekoak diren eta Sailaren diru-laguntza jaso nahi duten ikasmaterialek eduki aldetik zer baldintza bete behar dituzten. Baldintza horiek egoki betetzen direla segurtatzeko, edukizko azterketa gainditu behar izaten dute. 1998koa da Eusko Jaurlaritzak onesp-en-azterketa horretaz argitara emana daukan azken araua. Konkretuki 1998ko azaroaren 3ko 295/98 dekretua (EHAA, 1998-XI-27). Curriculumaren euskal dimentsioa ongi aplikatzen dela bermatzeko bidea da, besteak beste, edukiaren onesp-en-azterketa hori.

*Hizkuntzazko onesp-en-azterketa.* Sailaren diru-laguntza jaso ahal izateko hizkuntzazko onesp-en-azterketa pasa behar izaten dute, bestalde, euskarazko ikasmaterialek. Euskaltzaindiaren zuzentasun-arauak ongi betetzen direla eta eskola-mundurako egokitasun-kontuak artez zaintzen direla segurtatu nahi izaten da azterketa horren bidez. Berariazko lan-taldea eraturik du Sailak horretarako, koordinatzaile baten gidaritzapean. Irizpide nagusiei dagozkienetan nondik nora jo behar den jakiteko, berriz, Ikasmaterialen Aholku-batzordea dago eratu: Euskaltzaindiak, Euskal Editoreen Elkarteak eta Euskadiko Interpretari-itzultzaileen Elkarteak ordezkari bana dute batzorde horretan. Prosalanketa egokirako hainbat xehetasun (ortotipografia, erdal kalkoen kontua, toponomastika eta abar) ongi aplikatzeko bideak eskaintzen dira, besteak beste, Aholku-batzorde horren bidez. Berariazko estilo-liburua osatzen ari da horretarako.

*Teknikazko egokitasun-azterketa.* Oinarri tekniko berria (ikus-entzunezkoa, softwarea, internet,...) duten materialetan, goiko zaintze-lan horrezaz guztiaz gainera, ikasmaterialek teknikoki ongi erantzuten dutela, eta eskoletako tresneriarako egokiak direla, segurtatzen da egokitasun-azterketa horren bidez. Ikus-entzunezkoen eta CD-ROMen hots-irudiak, bai eta arauzko funtzionamendu teknikoak, ongi daudela ziurtatu nahi izaten dira horretarako.

*Orotariko kalitate-saria.* Ikasleen eta irakasleen eskuetara iristen diren materialak bere osoan egokiak izatea komeni da: edukiz eta hizkuntzaz bezala aurkezpenez eta enkoadernez, irudi-lanketaz eta abarrez ere egokiak. Aurrerago aipatuko diren *Ixaka Lopez-Mendizabal* eta *Migel Altzo* sarien bidez erantzuten dio Sailak orotariko eginbehar horri, urtero-urtero.

Ikasmaterialen kalitatea ziurtatzeko mekanismoak dira goiko horiek guztiak, esan bezala. Kalitatea zaintzeaz gainera besterik ere egin behar izaten

da ordea: euskaraz ematen diren ikasmaita guztietarako ikasmaiterialak sortu, produzitu eta garaiz eskoletaratu direla bermatzea, batetik. Eskoletaratzean, horrezaz gainera, beren merkatu-prezioa erdarazkoaren pareko izan dadin neurriak jartzea (153). Hots, hurrengo pasartean aipatzen diren diru-laguntzak ematea.

### V.3.2. Ikasmaiterialak sortzeko eta produzitzeko diru-laguntzak

Euskarazko ikasleei gaztelaniaz ikasten ari direnei adinako ikasmaiterial-  
-aukera eman nahirik, eta Euskararen Erabilera Normaltzeko Legeak hartarako ematen duen babesa oinarri harturik, euskarazko ikasmaiterialen laguntza-bideari ekin zion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hasiera-hasieratik: horretarako sortu zuen batez ere, hasieran, *EIMA* programa. 1983ko elebitasun-dekretuaren eta bere garapenezko aginduaren ildotik, urteroko laguntza-deialdiak egiten ditu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak. *EIMA* programaren xede nagusia horixe da berez: unibertsitate aurreko mailetarako euskarazko ikasmaiterialak sortu, argitara eman eta zabalkundea izateko sustatze-lana egitea. Diru-laguntzak ematen ditu beraz Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, euskarazko ikasmaiterialgintza bultzatu eta zabaltzeko. Lau deialdi egiten ditu HUISek, urtero: EIMA1, EIMA2, EIMA3 eta EIMA4 deialdiak. Ondoko hauek dira *EIMA* deialdien esparruak:

EIMA I	Ikasmaiterial inprimatuak argitaratzeko diru-laguntzak.
EIMA II	Ikus-entzunezko ikasmaiterialak argitaratzeko diru-laguntzak.
EIMA III	Hezkuntza-softwarearako, hau da, euskarri informatikoan ateratzen diren ikasmaiterialerako diru-laguntzak.
EIMA IV	Mintegien bidez ikasmaiterialen prestakuntza-lana egiten duten egile, mintegi edo egokitzaileentzako diru-laguntzak (alegia, argitaratu aurreko fasea).

Horrezaz gainera, gorago esan denez bi sari-lehiaketa egiten dira urtero euskal ikasmaiterial hobereen artean. Ikus ditzagun biak:

<i>Ixaka Lopez-Mendizabal</i> sari-lehiaketa, ikasmaiterial inprimatu hobereenak saritzeko.
<i>Migel Altzo</i> sari-lehiaketa, ikus-entzunezko eta hezkuntza-software hobereenak saritzeko.

#### 13. taula. urteroko EIMA-deialdiak

(153) Sailaren etengabeko asmoa izan da, euskarazko ikasmaiterialen prezioa erdarazkoen parekoa, ez garestiagoa behintzat, izatea, era horretan euskarazko ikasbidea aukeratzen zuten gurasoei emendiozko diru-kargarik ez eranste. Urtero ematen diren diru-laguntzen funtsezko xedeetako bat da hori.

Ehunka material sortzen da euskaraz, urtero-urtero. Zenbaki soiletara bihurtuz azalpena, diogun adibidez 2000. urtetik 2007.era artean 4000 ikasmaterial inguru sortu dela euskaraz. Lau mila horietariko gehienak ikasmaterial inprimatuak dira, baina badira tartean ikus-entzunezkoak eta (gero eta sarriago) hezkuntza-softwarezkoak ere. LMH edo Lehen Hezkuntzarako sortu ohi da, askogatik, material inprimatu gehiena. Horren ondoren, kopuruz, DBHrako materialak datoz. Lanbide Heziketako material gehienak, ehunka, «on-line» daude: digitalizatutako liburuak dira, PDF edo antzeko formatoetan internet-en daudenak.

Neurri zabalak hartu izan dira, ikusten denez, euskarazko ikasmaterialen alorrean. Beste alorretan baino nabarmenago kultura-industria bat sortu, garatu edo egokitu da mende-laurden honen jira-biran. Ikasmaterialgintzaren eragile nagusia industria-ekimen hori izan da: bertan sortua eta hazia da, partez; estatutik gure koordinatuetara moldatua da, beste zati batean. Ekarpene sendoa egin diote biek euskal ikasmaterialgintzari. Sorkuntza eta produkzio hori arautu, bultzatu eta babestu egin du Sailak, EIMA programaren laguntzaz batez ere. Langintza horren eragile nagusiak irakasleak izan dira, sorkuntzari dagokionez, eta argitaldari eta produkzio-etxeak materialok ikasle-irakasleen eskueran jartzeaz denaz bezainbatean. Produkzioaz gainera zabalkundea eta salmenta-bidea ere kontuan hartzea eskatzen du kate horrek. Gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da, izan ere, ikasmaterialen zabalkunde- eta kontsumo-bide hori. Ikus dezagun hortaz, gaingiroki izango bada ere, ikasmaterialen zabalkundea eta kontsumo-bidea nola eratua dagoen EAEn.

### ***V.3.3. Ikasmaterialen produkzioa***

Bere bidea eginaz joan da, 1980tik aurrera bereziki, euskal ikasmaterialgintza. irakasteredu elebidunen parez pareko hedapen-zabalkundea ezagutu du epealdi honetan: bai ikasmaterial inprimatuei dagokienez, bai ikus-entzunezkoetan eta bai (berrikitanago eta neurri apalagoan bada ere) hezkuntza-softwaregintzan.

#### *a) Ikasmaterial inprimatuen produkzioa*

Hurrengo irudiak eskaintzen du, lehen hurbilketa gisa, ikasliburuen zenbakizko bilakaera konparatiboa: hots, urtero-urtero euskarazko zenbat liburu argitara den adierazten da bertan eta, horrekin batera, liburu guzti horietatik zenbat diren ikasliburu. 1982tik aurrera ez dira berez argitalpen-kopuruak eskaintzen, EIMA programaren bidez urterik urteko laguntza-deialdietan dirukopuru jakina agindurik izan duten unitate-aleak baizik. Perspektiba zuzenago bat eskuratu nahirik 1970etik honanzko datuak eskaintzen dira bertan, eta ez 1980tik aurrerakoak bakarrik. Hona emaitzak, urtez urte xehekatuak:

Urtea	Liburuak	Ikaslib	%
1970	71	22	30,1
1971	78	22	28,2
1972	89	32	36,0
1973	88	26	29,5
1974	93	33	35,5
1975	154	87	56,5
1976	107	45	42,1
1977	150	92	61,3
1978	191	75	39,3
1979	247	89	36
1980	209	116	55,5
1981	200	95	47,5
1982	316	111	35,1
1983	401	133	33,2
1984	421	223	53
1985	523	204	39
1986	602	185	30,7
1987	606	255	42,1
1988	774	192	24,8

Urtea	Liburuak	Ikaslib	%
1989	732	217	33,7
1990	828	305	31,6
1991	966	272	28,2
1992	980	400	40,8
1993	1.193	312	26,2
1994	1.109	189	17
1995	1.305	175	13,4
1996	x	197	x
1997	x	322	x
1998	x	184	x
1999	x	206	x
2000	x	187	x
2001	x	187	x
2002	x	229	x
2003	x	298	x
2004	x	269	x
2005	x	205	x
2006	x	170	x
2007	x	192	x

14. taula. ikasliburuaren produkzioa eta ezarpen-proporzioa

b) *Ikus-entzunezko ikasmaterialen produkzioa, 1982-2007 epealdian*

1982an eman zion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eskola-bi-deogintzari hasiera: berariazko produkzio-plan baten inguruan eratuz eta zerbitzu publikoaren ikuspegizko banaketa-formulaz eman ere zion, eman, hasiera. Luze-zabalean ezartzen ari ziren irakasteredu elebidunetako haurren hizkuntz gaitasuna hobetu asmozko programazio bati ekin zitzaion, horrela, urte biko iraupena (hots, 1982 eta 1983) izan zuen lehen fase hartan. Gero, 1984tik aurrera, EIMA programaren bidez jakintzagai, material-mota eta irakasteredu desberdinetara zabalduta izan da ikus-entzunezko ikasmaterialen langintza. Ondoko taulak eskaintzen dizkigu, labor bilduz, ihardunbide horren arrasto nagusiak.

Urtea	Guztira	Bideo	Audio	Beste
1982	42	42	0	0
1983	28	28	0	0
1984	50	21	18	11
1985	66	49	10	7
1986	51	35	11	5
1987	157	137	14	6
1988	131	120	8	3

Urtea	Guztira	Bideo	Audio	Beste
1989	136	115	19	2
1990	84	76	6	2
1991	94	84	8	2
1992	87	80	7	0
1993	103	70	33	0
1994	76	67	9	1
1995	73	67	6	0
1996	151	115	36	0
1997	104	91	13	0
1998	100	90	10	0
1999	92	81	11	0
2000	113	98	15	0
2001	70	55	15	0
2002	62	53	9	0
2003	63	46	17	0
2004	44	32	12	0
2005	44	32	12	0
2006	61	54	7	0
2007	35	24	11	0
Guztira	1.592	1.330	256	7

**15. taula.** ikus-entzunezko ikasmaterialen bilakaera, 1982tik 2007ra

*c) Hezkuntza-softwarearen produkzioa, 1982-2007 epealdian*

Urtea	Guztira	Jator	Itzulp
1985	14	12	2
1986	37	20	17
1987	39	24	15
1988	48	16	32
1989	64	31	33
1990	52	40	12
1991	83	39	44
1992	87	70	17
1993	74	66	8
1994	28	22	6
1995	43	39	14
1996	47	21	26
1997	31	25	6

Urtea	Guztira	Softw. arrunt	CD-Rom	Inter-net
1998	28	24	4	0
1999	26	20	6	0
2000	49	20	18	11
2001	50	2	31	17
2002	49	25	24	0
2003	40	4	22	14
2004	38	5	18	15
2005	41	4	20	17
2006	32	2	16	14
2007	52	1	29	22

**16. taula.** hezkuntza-softwaregintzaren oraindainoko bilakaera

### ***V.3.4. Ikasmaterialen zabalkundea eta kontsumoa***

Sortzea eta produzitzea ez da aski. Materialen zabalkundea egin behar da horrekin batera, testu-liburuak eta atlasak, hiztegiak eta metodoak, bideoak eta CD-ROMak ikasle-irakasleen eskuetara iritsiko badira. Material horien era bateko edo besteko salmenta antolatu behar da bestetik, doakotasuna aplikatuz edo ohiko salmenta-bideari eutsiz. Kontu horiek ongi bideratuko badira aukeran dauden materialen informazio-eskaintza eta katalogazioa eta erabilera funtsezko puntuak dira alor horretan.

#### *a) Ikasmaterialen katalogazioa*

Aukeran zeuden ikasmaterialen katalogoa prestatu izan zuen Sailak, urte askotan, eta EAEko eskola guztiera bidali (154). Berariazko katalogoak prestatzen ziren ikasliburuentzat, ikus-entzunezkoentzat eta hezkuntza-softwarearentzat. Liburu lodiak izan ohi ziren katalogo horiek: gero eta lodiagoak, materiala ugaritu ahala, eta zenbait aldetatik (prezioa, ikasmaila, ..) nahi baino lehenago zaharkitzen zirenak. Sistema informatizatura pasa da katalogazio hori, azken urteotan. Datu fidagarriak emateko epea 2000-2007koa da, nahiz eta 1996. urtetik aurrera ere dokumentu dexente dagoen katalogatuta. Guztira, 2000-2007 epean katalogatutako material-kopurua 4318koa da. Katalogoan sailkatutako material-kopurua 5497koa.

#### *b) Aukeran dauden materialen informazio-zabalkundea*

Informazio-zabalkunde handia egin izan da urte askotan, ikasleek euskara(z) ikasteko eta irakasleek euskara(z) irakasteko eskueran unean-unean izan duten materialaz. Hamar katalogo baino gehiago argitara eman izan ditu horretarako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Euskara Zerbitzuaren bidez. Azken aldian web-orri bereziaz egiten da informazio-zabalkunde hori, Sailak Eibarko Hezkuntza-esparruan (bertako Jaizkibel etxean, geroko IRATI izatekoa-edo den atalean) eraturik duen unitate teknikotik. Ikus, konkretuki, honako web-helbide hau: [www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/euskal\\_ikasmaterialen\\_katalogoa](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/euskal_ikasmaterialen_katalogoa).

#### *c) Materialen erabilera-azterketa*

Asmo mailan gelditu da, oraingoz, ikasmaterialen erabilera-azterketa. Funtsezko egitasmoa da hori, benetako datuak eskuratu ahal izango baditu Administrazioak. Garrantzia are handiagoa da orain, ikasmaterialen doakotasun-bidea eratu eta indartzeko orduan.

---

(154) Nafarroara eta Ipar Euskal herrira ere bai, hala eskatzen zutenei.

#### V.4. Erabilera indartzeko eskola-ekimenak (NOLEGA eta ULIBARRI)

Euskararen *erabilera* normaltzeko legea da EEN, ez euskararen *ezagutza* normaltzekoa. Euskararen erabilera indartzeko eskola-ekimenak eratu ditu horregatik, euskara eta euskaraz ikasteko aukerak emateaz gainera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak. Berariazko programa eratu zuen horretarako Sailak 1983an, EEN legea onartu eta handik gutxira: NOLEGA atala. Hots, NOrmalakuntza LEgea GARatzeko atala.


Aspalditxotik ikusia zuten irakasleek, eskolako ordu mugatuekin bakarrik nekez lor zitekeela belaunaldi gazteen, batez ere erdal giroan bizi ziren neska-mutilen, mintzajarduna aldatzea. Eragin betea izango bazuen eskolak euskara indarberitzeko orduan, argi ikusi zen fanerogamoak, arte gotikoa eta Rufiniren teorema euskaraz azaltzearekin ez zela aski. Gaztejendearen eguneroko mintzajardunarekin lotura zuzenagoa, harreman estuagoa eta iraunkorragoa duen beste zerbait bermatu behar zen. Neska-mutilentzat beharrezkoak, komenigarriak edo desiragarriak diren harreman-sareetan indartu beharra zegoen euskarazko jarduna. Nola lortu, ordea, eskolak indartze-lan horri aurrez aurre hel-tzea? Nola lortu eskola-giroan euskarazko jardun-guneak, harreman-sareak eta situazioak eratu, garatu eta sendotzea? Langintza hori ez zitaien erakutsi irakasleei, beren prestaera-garaian. Ez irakasle-eskoletan eta ez unibertsitatean zegoen langintza horri buruzko ezagutza-*corpus* metatu eta kontrastaturik. Egin beharra zegoen ordea. Asmatu egin behar izan zen, hortaz, nondik nora ekin. Hutsetik hasi behar izan zen ia, proba eginez, hutsegiteak zuzenduz eta, urratsez urrats, jakite-eremu propioa osatuz. Horretan ari izan da NOLEGA atala, beste zenbaiten parean, hainbat urtez. Eskola-umeen ahozko adierazmena indartzera zetozkeen ekimenak eratu ziren horretarako, lehenik eta behin. Ez noski idazmen-irakurmenak alde batera utziz, bai ordea ahozkotasanaren garrantzia azpimarratuz eta ikasleen mintzajarduna indartzera zetozkeen ekimen arruntak, eguneroko eskola-bizitzarekin lotuak, indartuz. Ahozko adierazmena lantzeko ekimen konkretuak identifikatu ziren horretarako, arauzko erabakiz zehaztu eta hartan jardun nahi zuten ikastetxeentzat diru-laguntzak ezarri. Horrela sortu ziren 1985-86an, esate baterako, eskola-antzerkigintza, eskola-bertsogintza eta euskal girotze-barnetegiak (155). Eskola-kantagintza etorri zen handik gutxira, aurrekoen osagarri, gaztetxoan jarduna ahozko euskal literatura aberatsaren lantoki bihurtuz. Baita TINKO (euskara zine-aretoetara) eta IKABIL ere (156). Beste hainbat ekimen etorri dira gero: eskola-irratigintza eta kontalaritza izan dira azkenak (orain dela zortzi urte jarri dira azken horiek abian).

(155) Hasieran barnetegi bat eratu zen, eta azken urteotan bost dira: 57.000 ikasletik gora pasa dira dagoeneko bertatik.


(156) Ikastetxeen binakako loturak dira IKABILen xedea: han-hemengo ikasleek elkarren berri izateko sortuak dira.




Ondoko sei irudiek (6, 7, 8, 9, 10 eta 11) ematen dute deialdi bidezko ekimen horien berri. NOLEGAko laguntza-deialdiok noiz sortuak diren, eta ordutik hona parte-hartzaile aldetik zer bilakaera izan duten, adierazten digute zehazki. Deialdiek gora egin dute, oro har, parte-hartzaile aldetik. Ehunka ikastetxek hartzen du urtero parte, eta zenbait ikastetxek ekimen batean baino gehiagotan parte hartzen du aldi berean. Eskolak berak du hitza, beti, parte hartu ala ez (eta, baiezkotan, zertan) erabakitzeko orduan. Funtsezkoa da borondatezko izaera hori, NOLEGA osoan. Ekimenaren xedea, parte hartzeko egitura, aholkularitza teknikoa eta diru-laguntza Sailak jartzen du. Hortik aurrera, ordea, eskolaren eta bertako hainbat irakasle saiaturen jardunaren fruitu da urterik urteko saioa. Ikastetxeena, irakasleena eta, halako neurri batean, ikasleena beraiena.




**6. irudia.** Eskola-antzerkigintza.  
Urtero zenbat ikastetxe




**7. irudia.** Eskola-bertsogintza.  
Urtero zenbat ikastetxe




**8. irudia.** Eskola-kantagintza.  
Urtero zenbat ikastetxe



**9. irudia.** Eskola-irratigintza.  
Urtero zenbat ikastetxe



**10. irudia.** Eskola-kontalaritza.  
Urtero zenbat ikastetxe




**11. irudia.** Euskal Idazleak Eskolara.  
Urtero zenbat emanaldi

Ekimen horiek, denek edo gehienek, ikasleen mintzajarduna indartzea dute xede: mintzajarduna eta, horren bidez, mintzamena bera. Ahozko jardunaz gainera idazmen-irakurmenak ere landu egin behar dira, ordea, bihar-etziko gazteek zuzen eta erraz egingo badute euskaraz. Beharrian hori kontuan izanik *Urruzuno* eta *Barriola* sariak eratu ziren batetik; EIE (*Euskal Idazleak Eskolara*) programarekiko lankidetzat sortu zen bestetik: azken puntu honi dagokionez 11. irudiak ematen du *EIE* ekimenaren berri.

Mintzajarduna eta mintzamena, idazlangintza eta jendaurreko irakurbideak lantzen dira hortaz, berariaz eta luze-zabal, NOLEGA eta ULIBARRI bidez. Irudi horietan ikusten denez aski zabala da eskolen jarduna: zabala kopuruz, eta kronologiari dagokionez aspaldi hasia. Jardun hori egituratu nahirik ULIBARRI programa eratu zuen Sailak 1996-97 ikasturtean. Hezkuntza-proiektuaz eta curriculum-proiektuaz gainera hizkuntza-proiektua izatea on dute ikastetxeek. Hori bakarrik ez: hizkuntza-proiektu horren barruan, hizkuntza-normalkuntzako proiektua eratzea mesedegarri da, ikasleen euskarzko mintzajarduna eta ikastetxe langiro-euskalduna indartu nahi badira, EEN legeak dioen moduan. Ikuspegi hori du ULIBARRI programak abiaburu. Ikastetxe askoren asmo eta jardun partikular zena, horrela, ageriko xede amankomun bihurtu du ULIBARRI.

Aurreko NOLEGA ekimen guztiak bezala borondatezkoa da ULIBARRI. EAeko ikastetxe guztiak dute bertan sartzeko aukera, hartarako baldintza oinarritzko batzuk betez gero. Beraiek erabakitzen dute ordea, beti ere, ULIBARRIn parte hartu ala ez. Bertan parte hartzen duten ikastetxeek hizkuntza-normalkuntzako arduradun tekniko bana dute, teoriarik (praktikan ez beti) ordu-liberazio jakina duena: kasu batzuetan astean hiru ordu, besteetan sei eta askotan, gehienetan, bederatzi. Baita Hizkuntza Normalkuntzako batzordea ere, ikastetxe bakoitzak «bere neurriko» plana egiteko aukera ematen duena. Ondoko irudiak eta zenbaki-zerrendak adierazten digute zenbat ikastetxek ULIBARRI programan parte hartzen duen, 1996-97 ikasturtean hasi eta egungo egunera arte:



12. irudia. ULIBARRI programan urtero zenbat ikastetxe

Ikusten denez, gorantz joan da oro har ikastetxe-kopurua: 23 ikastetxe hasi ziren ULIBARRIn 1996-97 kurtsuan, saiakuntza moduan, eta forma egonkor-zabaldua izan du 1997-98tik aurrera. Guztira 290 ikastetxe bildu ziren 1997-98an ULIBARRIra, eta 310 hurrengoan. Urte-sorta batean kopuruak bere horretan iraun zuen, Sailak ez baitzuen deialdi berririk egin. Berriro aukera eman zenean, orain dela hiruzpau urte, gora egin zuen kopuruak berriro: 408 ikastetxelk hartzen du parte, gaur egun, ULIBARRI programan. NOLEGA eta ULIBARRI programek nabarmen lagundu dute eskola-giroa euskalduntzeko bideak indartzen. Zenbaki xoil batzuk aski izan litezke, esaten ari garenen zabaleroaz jabetzeko: 400 ikastetxetik gora dabil ULIBARRIn, 17.000 irakasle eta 177.000 ikasletik gora. Aplikazio zabaleko ekimenaz ari gara, hortaz.


Diogun, azkenik, Hezkuntza-administrazioaren beraren euskalduntzea ere jomuga izan duela NOLEGA programak, hasieratik beretik. Aurrerago azalduko da, labur-labur, alor horretan orain arte zer lortu den.

## VI. EREDUEN BILAKAERA: IKASLE-KOPURUAK

Legea betetzeko zer neurri hartu diren aztertu da aurreko atalean. Neurri horien ondorioz gauzak nola aldatu diren begiratuko da oraingoan. Hiru eredu bilakaera ikusiko dugu horretarako, lehenik eta behin: mende-laurden honetan zenbat ikaslek estudiantu duen eredu batean edo bestean. Puntu horri dagokionez nabarmena da B eta, batez ere, D ereduak izan duten hazkundera. Berariaz aztertuko da hazkunde hori, eta A ereduaren gainbehera, seigarren atal honetan. Aski atzetik hasi behar da, ereduaren azterketa hori egiten: urterik urteko haur-jaiotzak eta ikasle-kopuruak hartu behar dira kontuan, lehenengo eta behin.

## VI.1. Haur-jaiotzak eta ikasle-kopuruak


1970etik hona, haur-jaiotzen bilakaera berezia izan du EAEk. Aldakuntza handiak gertatu dira alor horretan, eta aldakuntza horiek oso garrantzitsuak gertatu dira eskola-munduaren bilakaeran. Haur-jaiotzei dagokienez: jaitsiera handia bizi izan du EAEk, oro har, 1978tik aurrera, ia hogeï urtez. Ikasle-kopuruak, hori dela-eta, nabarmen jaitsi izan dira EAEko ikatetxeetan. Lehen irudian garbi ikusten denez: a) 1970-1977 tartean, jaiotza-kopuru handiak izan ziren EAEn: urtean 40.000 haur inguru. b) 1978tik 1995 ingurura arte, jaiotza-kopuruek etengabeko gainbehera izan zuten (157); unerik apalenean, 16.000tik behera ibili ziren jaiotza-kopuruak; c) 1996tik hona, azkenik, jaitsiera hori inbertitu egin da zertxobait eta indarberritze edo buru-jasotze apal bat gertatu da azken urteotan (158).



13. irudia. Jaiotza-kopuruak EAEn, 1970-2005

(157) Hogeï urte eskaseko epean haur-jaiotzen jaitsiera horrek izandako tamainaz eta lasterraz behar bezala jabetzeko, gogoan izan 1976tik 1996ra bitartean jaiotza-kopurua %61 jaitsi zela EAEn (hots: 100 jaiotzatik 39ra).

(158) Atzerriko etorkinen bertaratzeko zabalak eragina izan du: eragin hori biziagoa da oraingoz eskolatzeko datuetan, azken urteotako jaiotza-datuaren goranzkoan baino. Badago motiborik, azkenik, hemendik urte gutxira jaiotza-datuaren kurbak berriro behera egingo duela aurreikusteko. Baina ez da gauza segurua: atzerriko etorkinen fenomenoak faktore berria eransten du panorama demografikoan; horrezaz gainera, bertan jaiotako emakumeen ugalkortasun-tasak gora egin dezake berez.



14. irudia. Ikasle-kopuruak EAEn, 1982-83 tik 2007-08ra

Gero eta haur gutxiago jaiotzen direnez denbora-tarte luzean, eragin zuzena izan du horrek EAEko eskoletan: bai eskola publikoetan eta bai pribatuetan. Hainbat urtez, ikasle-kopuruak murriztuz joan izan dira (159). Unibertsitate arteko ikasmaila guztietan urterik urte ibili diren ikasle-kopuruak 2. irudian ikus daitezke. Funtsezko ondorioa nabarmena izan da: 1982-83tik 1997-98ra bitartean unibertsitate aurreko ikasleria %35 inguru gutxitu izan da EAEn. Azken urteetan, 2000tik hona bereziki, ikastetxeek eutsi egin diote matrikula-kopuruari eta, zenbaitetan, ikasle-kopuruak gora egin dute zertxobait (160). Ondorio nagusia, dena den, oso argia izan da: gero eta ikasle gutxiagoko irakas-sistema izan da EAEkoa, oro har, azken mende-laurdenean. Eragin sendoa izan du kontrakzio-hertsitze horrek, bestelako hainbat faktoretan. Baita eredu bilakaeran ere.

## VI.2. Ereduen bilakaera, oro har

Legeek eta gainerako arazko erabakiek finkatua duten marko nagusi hori ezin izan da, hasieran esandako motiboengatik, kolpean eta bat-batean hezurramitu. Pausoz pauso gertatu dira aldaketak. Legeek beraiek transformazio-aldi baten beharra aldarrikatu zuten (161), eta trantsizio-bide etengabe jarraitu du


(159) Txosten honen 4. eranskinak ematen du sare bietako ikasle-kopuruaren bilakaeraren berri.

(160) Ez goi-mailetan, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa lehenagoko jaiotza-joeren zordun baitira gaur egun; baina bai Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza.

(161) Argiak dira, alde horretatik, bai Euskararen Erabilera Normaltzeko 1982ko Oinarri Legea eta bai, bereziki, 1983ko Elebitasun-dekretua eta Elebitasun-agindua. Pausoz pausoko aplikazio-bidea markatu zuten baita eta besteek, eta pausoz pausoko bide hori arau bihurtu da, oro har, ordutik honako ibileran.

oro har, urterik urte eta mailaz maila, EAEko irakas-sistema osoak. Oinarrizko zenbakiak eskaintzeaz gainera koadro-taula sintetikoetan emanik dator bilakaera horren azalpena (162). Esan bezala unibertsitate aurreko ikasmaila guztiak, hiru Lurraldeak eta bi ikastetxe motak (publiko eta pribatu) biltzen dira atal honetan, emaitza globalak azalduz. Aurrerago emango dira datu xeheagoak, irakasmaila-ka, ikastetxe motaka edo lurraldeka. Gatozen, beraz, ikuspegi global horretara.

Ikasle-kopuruei dagokienez zer bilakaera izan dute A, B eta D ereduak, EAEko unibertsitate aurreko ikasmaila guztiak eta ikastetxe mota guztiak kontuan hartuta (163)? Ondoko bi irudiek (15.ak eta 16.ak) ematen dute bilakaera global horren berri (164). Lehenengo irudiak EAEko unibertsitate aurreko ikasle-kopuruen bilakaera azaltzen du. Bigarrenak, berriz, bilakaera portzentuala.




**15. irudia.** Ereduen bilakaera globala (maila guztiak: HH, LMH, DBH, BATX eta LH).  
Zenbaki absolutuak, «X eredu» barne

(162) Ohartxoren bat edo beste egingo dugu datuak ematen hasi aurretik, ondoko taula-koadroak errazago ulertu ahal izateko. Honako ohar hauek, besteak beste, kontuan hartzea komeni da:

- Hasiera batean, ikastetxe gehienetan euskarak ez zuen inolako presentziarik (ez eta asignatura gisa ere). Hasierako egoera hari, nolabait deskribatzeko, X «eredua» esan izan zaio aspalditxodanik, eta halaxe esango zaio hemen ere.
- Txosten honen asmo nagusia ez da eskola-munduko estatistika-datuak ematea, eredu inguruko gogoeta-lana eskaintzea baizik. Hori dela-eta, hemen aurkezten diren datuak handik edo hemendik jaso eta lan honetarako egokituak izan dira. Litekeena da, bere izatera hori dela-eta, hemen eskainiko den zenbait datu estatistika ofizial eta zehatz osoekin bat ez etortzea. Hala gertatuko balitz, barkamena eskatzeaz gainera datu ofizialelara bideratu nahi genuke irakurlea.

(163) Datu estatistikoei dagokienez «Haur Hezkuntza (HH) eta Lehen Mailako Hezkuntza (LMH) sartzen dira, batetik. Bigarren Hezkuntzari dagokionez, bestalde, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH), Batxilergoa eta Lanbide Heziketako Prestakuntza Zikloak hartu dira kontuan. Horrezaz gainera, bai herri-ikastetxeetako eta bai ikastetxe pribatuetako ikasle-kopuruak bateratu dira irudi horietan.

(164) Bilakaera horren datu numeriko zehatzak jaso nahi dituenak, txostenaren 2. eranskinera jo dezake.



**16. irudia.** Ereduen mende-laurdeneko bilakaera portzentuala (maila guztiak: HH, LMH, DBH, BATX eta LH). Portzentajeak, «X eredia» barne

A (eta «X») ereduari zebiltzan ikasle guztien %80, 1982-83an EEN legea indarrean jarri zenean. Orain, handik 25 urtera, A ereduko ikasleak %20 inguruan dabilta. Euskal eredu ahulenek (ikasle erdaldunak euskalduntzeko eta euskaldunak alfabetatzeko ahalmen mugatuena dutenek) atzera egin dute beraz, eta eredu indartsuenek aurrera (165). Bide batez, X «eredua» desagertu egin da ia: legeak begiz jotako salbuespen-kasuetan bakarrik aplikatzen da (166). A eredia, hasiera batean (X ereduko ikasleen kontura, besteak beste) asko hazi eta hegemonikoa bihurtu ondoren, atzeraka doa etengabe; B ereduak aurrera egin zuen 80ko hamarkadan eta, 1990 ingurutik hona, aurreko hamarkadan eskuratutako hedapen-mailari eutsi egin dio; D ereduak, azkenik, iguera nabarmena izan du urterik urte: azken urteotan bera da eredurik aukatuen eta bere inplantazioa zabalduz doa urtetik urtera.

Funtsezko datuak dira horiek, EEN legearen hezkuntza-munduko garapena ganoraz ebaluatu nahi bada. Ez dira kontuan hartu beharreko datu bakarrak, inola ere. Ereduek garapen-erritmo diferenteak izan dituzte irakasmaila desberdinetan, eskola-sare bietan eta lurralde bakoitzean (167), eta hori ez dute

(165) 2007-08ko azken datuen arabera, A gehi «X» ereduaren presentzia totala % 21,12koa da.


(166) Hor ere balegoke, ordea, zer matizaturik: Lanbide Heziketako A eta D ereduak ez dira ez A eta ez D, hitzez hitz harturik. LHko A eredia X eredia da praktikan, eta antzekoa (baina justu kontrakoa) gertatzen da D ereduarekin. Tradiziozko deitura-bideari eusten zaio hemen, ordea, gauzak gehiago ez nahasteko.

(167) Hurrengo orrietan xeheago aztertuko dira, hutsune horiek argitze aldera: lehendabizi, Lehen Hezkuntzaren egoera azalduko da eta Bigarren Hezkuntzarena gero. Irakasmaila bakoitzean, gainera, bereiz aztertuko dira herri-ikastetxeen alorra batetik, eta ikastetxe pribatuena bestetik.

irudi biok azaltzen. Muga horiek eta beste zenbait kontuan izanik ere, EEN legeak hezkuntza munduan eta mende-laurden honetan izan duen garapenaren adierazle arginetakoak dira.

### VI.3. Ereduen bilakaera Haur Hezkuntzan (HH) eta Lehen Hezkuntzan (LMH)


1982-83tik 2007-08ra doan mende-laurdenean Haur Hezkuntzako (hasieran Eskolaurreko) eta Lehen Hezkuntzako (hasieran, OHOk) ikasleak zer eredutan ibili diren azalduko da atal honetan. Haur Hezkuntzan eta Lehen Mailako Hezkuntzan inon baino bizkorragoa izan da ereduaren bilakaera (168). Bi erataria ikusiko dugu bilakaera hori: zenbaki absolutuetan batetik, eta porzentualki bestetik.



17. irudia. Ereduen bilakaera EAEko HHn eta LMHn (hasieran EAn eta OHOn), zenbaki absolutuetan

(168) Gauza bat kontuan izan behar da, halere, ereduak irakasmaila jakin batean izan duten bilakaeraz hitz egiterakoan: irakasmaila baten gaurko hedadura eta orain dela hogeita bost urtekoa ez datoz beti bat. Lehengo OHO eta oraingo LMH ez dira urte kopuru berekoak. 1995-96 ikasturtean amaitu zen OHOk 8. Maila 14 urtera arte iristen zen OHO. Hurrengo ikasturteak aurrera Lehen Hezkuntzak (LMH)bi ikasturte gutxiago ditu, lehengo OHOk azken bi kurtsoetako ikasleak Bigarren Hezkuntzara (konkretuki, DBHra) pasatu direlako. Handik honako ikasturteak ez dira, aldaketa hori dela medio, erabat konparagarriak. Berdin gertatzen da lehengo eta oraingo Batxilergoarekin: urte-kopuruz ez dira gauza bera.





**18. irudia.** Ereduen bilakaera portzentuala EAeko HHn eta LMHn (hasieran EAn eta OHOn).

Goiko bi irudiotatik ondorio nagusi hauek atera litezke:

- 1980ra arte jaun eta jabe izandako X «eredua» desagertu egin zen, ia, 80ko hamarkadaren hasieran. Desagertze-prozesua abiatua zegoen EEN legea kaleratu aurretik. Urte gutxiren buruan etorri zen egungo salbuespen-egoerara, EEN legearen eta 1983ko dekretu-aginduen ildotik.
- A ereduak hazkunde ohargarria izan zuen 80ko hamarkadaren hasieran: EEN kaleratu aurretik aplikatzen hasia zegoen, eta 1984-85 urtera arte gogor hazi zen, bai kopuruz eta bai portzentajeaz; 1985-86ra arte hazten jarraitu zuen portzentajeaz, ez ordea kopuruz (169). Ordutik hona jaitsiera etengabea izan du A ereduak (170).
- B eta D ereduak bere aurretik ditu gaur egun (171). Bi eredu horietan dago, kurtso honetan, HHko eta LMHko ikasle guztien %91. «X» eta A ereduak, elkar harturik, ez dira % 10era iristen EAeko Haur eta Lehen Hezkuntzan.

(169) B eta D ereduaren batura baino handiagoa izaten jarraitu zuen A ereduak, 80ko ia hamarkada osoan.

(170) 1990-91 ikasturtean utzi zion beste bi ereduaren batura baino handiagoa izateari, eta 1995-96ko ikasturtean irakasteredurik handiena izateari.

(171) D ereduak aspaldi hartu zion A ereduari aurrea, ikasle-kopuruz. B ereduak, aldiz, aurrean jarri da lehenengoz A ereduaren aurretik.

- d) B eredia nabarmen hazi zen, urtez urte, lehenengo hamar bat urtean (172): Zenbaki absolutuetan, 1991-92 izan zuen B ereduak punturik altuena: urte hartan ia 73.000 ikasle aritu ziren eredu horretan. Handik aurrera, B ereduak behera egin du ikasle-kopurutan. Portzentajeari eutsi egin dio, halere: HH eta LMHko ikasleen %28 B ereduan dabil 2007-08 ikasturtean;

D eredia, azkenik, etengabe hazi da. Hazkunde nabarmena izan du, urtez urte, bai portzentajeaz eta bai zenbaki absolutuetan (173): Aldaketa-joera hori ez da, gainera, amaitu (174). Oraingo joerak bere horretan iraungo balu, D ereduak gorantz egingo luke hurrengo urteotan (175). Aurrerago, VI.5 atalean, ematen da eredu-garapenaren izaera dinamiko horren berri.

Aldaketa ohargarria da goiko hori. Aski aldaketa bizkorra, irakas-sistema gehienak egiturazko hainbat arrazoiengatik geldo samarrak izan ohi direla kontuan hartzen bada.

*HH eta LMHko bilakaera, sektoreka*

HH eta LMH bere osoan hartu dugu orain arte. Jakin badakigu, ordea, egoera ez dela uniforme: ikastetxe publikoen eta pribatuen artean bada aldeirik; lurralde batetik bestera ere bai. Egin dezagun, une batez, sektoreen arteko konparazioa. Ikus ditzagun, horretarako, hurrengo bi irudiak: ereduak HHko eta LMHko herri-ikastetxeetan izan duten bilakaera adierazten da batean, eta ikastetxe pribatuetan izandakoa bestean (176).

---


(172) ikasle guztien %10 osatzen zuen B ereduak 1982-83an; 1997-98an, aldiz, %29.

(173) Eskolaurreko eta OHoko ikasle guztien %15 osatzen zuen 1982-83an; Haur Hezkuntzako eta LMHko ikasle guztien %46 D ereduak ziren 1997-98an; 2007-08 ikasturtean, berriz, HHko eta LMHko ikasle guztien % 63 pasatxo D ereduan dabil. Zenbaki absolutuetan ere, bilakaera hain nabarmena ez izan arren, etengabeko hazkundera izan du D ereduak: 1982-83an EA+OHoko 58.751 ikasle ari ziren D ereduan, 1995-96an 82.000 ikasle pasatxo eta 2007-08an HH+LMHko 123.234 ikasle.


(174) Batetik HHko datuak hartzen badira, eta bestetik LMHkoak, HHko ikasleen artean D ereduak portzentajea LMHn baino handiagoa da. Gauza bera gertatzen da LMHko eredu-banaketa DBHko datuekin konparatzen bada, eta abar. Hots, barne-gradiente bat dago hor, normalean D ereduaren alde diharduena.

(175) Oso kontuz ibili behar da, halere, horrelako prognosiek: faktore askok eragiten du gurasoen hautapen-bidean, eta faktore horiek aski emaitza diferentea eman dezakete kontestu batean edo bestean.

(176) Grafiko horiek ongi ulertzeko, kontuan izan: a) 1993-94 ikasturtean D ereduetan gertatutako ohiz kanpoko hazkuntza hainbat ikastola publikatzeari zor zaio; b) 1996-97 ikasturteari aurrera bi kurtsu gutxiago zenbatzen dira, lehen OHoko azken bi urteak zirenak orain DBHra pasatu direlako.



19. irudia. Ereduen bilakaera EAEko HHn eta LMHn: sektore publikoa



20. irudia. Ereduen bilakaera EAEko HHn eta LMHn: sektore pribatua

Ondorioa nabarmena da: aski bilakaera diferentea izan dute ereduak, sektore publikoan eta pribatuan. HH eta LMH mailei dagokienez, diferentzia hauek bederen kontuan izatekoak dira:

- a) D erdua lehenago zabaldu zen herri-ikastetxeetan, pribatuetan baino. Azken hauetan, D erdua txikia eta aski egonkorra izan zen lehenengo hamar urteetan. Batean zein bestean (batez ere pribatuan) 1993an ageri den jauzia, ikastola-sarearen desagertzeak eragina da: ordura arte aparteko sektorea osatzen zuten ikastolek, eta sektore hori ez da 1993ra arteko datuotan ageri);

- b) Sektore bien bilakaera diferentea izanik ere, A eredia asko murriztu da sektore pribatuan ere: alde horretatik konbergentzia modukoa ageri da sektore bien artean;
- c) Konbergentzia horren alde dago beste hau ere: sektore publikoan zein pribatuan, D eredia ari da etengabe hazten;
- d) B eredia zertxobait jaisten ari da sektore publikoan, eta zertxobait igotzen pribatuan.

Bilakaera diferente horren oinarrian dauden faktoreen azterketa seriorik egin gabe dago, dakidan neurrian: bistan da giza baliabide berriak hartzeko aukera diferentea, gurasoen konfigurazio soziokultural desberdina eta irakasle erdaldunak IRALE bidez (irakastordu barnean) euskalduntzeko Ikastetxe pribatuak izan duten aukera mugatuagoa tartean egongo direla. Baina ez du zergatik faktore bakarrak izan.

#### **VI.4. Ereduen bilakaera Bigarren Hezkuntzan**


DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa sartzen dira atal honetan. Maila horietan ere bilakaera jakina izan dute ereduak, mende-laurden honetan. Bilakaera diferentea, ordea. Hasteko, eredu-kopuruagatik beragatik. DBHn ere indarrean daude hiru ereduak (A, B eta D), baina hortik gora ez. Batxilergoan bi eredu daude legez (A eta D) (177). Azkenik, Lanbide Heziketan ere bi eredu daude nagusiki, baina eredu horien izaeraz ohar jakinak egin behar dira kasu honetan (178). Gatozen, orain, harira.

1982-83tik 2007-08ra doan mende-laurdenean Bigarren Hezkuntzako ikasleak (DBHkoak, Batxilerrekoak eta Lanbide Heziketakoak) zer eredutan ibili diren azalduko da atal honetan. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan baino apalago aldatu da eredu kontua Bigarren Hezkuntzan. Hor ere nabarmena izan da ordea. Ondoko irudiak azaltzen du hiru (edo bi) ereduak EAEko azken mende-laurdenean izan duten bilakaera globala. EAEko ikastetxe guztiak (publiko+pribatu) eta irakasmila guztiak (DBH+Batxilergoa+Lanbide Heziketa) hartzen dira hor kontuan.

---

(177) Praktikan badago, halere, B ereduaren parekotzat har litekeen «A indartua». Euskararen presentzia, ahul samarra da normalean (baina ez beti) «A indartua»horretan: gutxitan iristen da B eredu estandarren %50era.

(178) Hasteko, LHko A eredia ez da gehienetan A eredia, X eredia edo antzeko zerbitu baizik. Era berean, D eredia ez da gehienetan D eredia, erdal hizkuntza eta literatura ez baita ematen bertan. «A indartua» indarrean dago gainera LHn, halako neurri batean; B ereduaren parekotzat eman ohi da, zenbaitetan, «A indartu» eredu hori.



21. irudia. Ereduen bilakaera, EAEko Bigarren Hezkuntza osoan


Haur eta Lehen Hezkuntzan baino bilakaera lasaiaxeagoa izan dute ereduak Bigarren Hezkuntzan. Ez oso motela, halere. Lau ohar egin litezke, besteak beste, ereduak Bigarren Hezkuntzan izandako bilakaeraz:

- A ereduak indar handia izan du Bigarren Hezkuntzan, urte luzez. Orain ere eredu sendoa da, ikasle-kopuruz. Dударik gabe, bera izan da mende-laurden honetako eredu hegemonikoa, Bigarren Hezkuntzan. Badu horrek, alde batetik, bere barne-logika: Bigarren Hezkuntzako «oraingo» eredu-banaketa, HHn eta LMHn «lehen» izandakoaren jarraipena da (179). Hasierako ikasleen %80 X eta A ereduan zeudenez, oihartzun zabala izan du abiaburu hark Bigarren Hezkuntzako eredu-bilakaeran (180).
- Nagusi izan arren beherako bidea hartu zuen A ereduak, aspaldi, Bigarren Hezkuntzan ere. D ereduak gora egin du, aldiz, etengabe, mende-laurden osoan. 2007-08an, gutxigatik bada ere, D ereduak gaintu egin du A eredua ikasle-kopuruz.
- B ereduak presentzia numeriko mugatua du Bigarren Hezkuntzan: HHn eta LMHn baino ondotoz mugatuagoa. Batxilergoan eta Lanbide Heziketan legez esistitzen ez delako du hain presentzia mugatua. DBHn aski zabala da B eredua: LMHko goi-zikloan bezalatsukoa.


(179) Sei urterekin LMHn sartzen diren ikasle-taldeen eredu-osaera handik sei bat urtera iristen da, ez lehenago DBHko lehen kurtsoa. Eta handik beste lau urtera (beraz, hamar urteko atzerapenaz) Batxilergora. LMHtik DBHrako jauzian ez da eredu-aldaketa handirik gertatzen: ordura arte etorritako eredu berean jarraitzen dute ikasle gehien-gehienek.

(180) LMHtik DBHra, jarraipen handia dago eredueta. Aldiz, DBHtik Batxilergora (are gehiago Lanbide Heziketara) pasatzean eredu-birmoldatze ohargarriak gertatzen dira: ordura arte D ereduan ibilitako zenbait ikasle ez du D ereduan jarraitzen, eta ordura arte B ereduan ibilitako ikasleak D edo, nagusiki, A eredura joan ohi dira Batxilergora eta, bereziki Lanbide Heziketara pasatzean.

Alde horiek ohargarriak izanik ere, HH eta LMHko bilakaeraren oso antzekoa joera dute ereduak DBHn, eta antzekoa (baina ez hainbat) Batxiler-goan (181). Bestalde, hemen ere bada alderik sektore publikotik pribatura. Ondoko bi irudi konparatiboez ematen dute alde horren berri:



**22. irudia.** Ereduen bilakaera, Bigarren Hezkuntzako herri-ikastetxeetan



**23. irudia.** Ereduen bilakaera, Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuetan


(181) Lanbide Heziketako bilakaera, azkenik, aski diferentia izan da mende-laurden honetan. Berezitasun hori nabarmena izanik ere, Lanbide Heziketan ere gorantz ari da D erudia azken hamarkada honetan.

Ondorioa nabarmena da oraingoan ere: aski bilakaera diferentea izan dute ereduak, sektore publikoan eta pribatuan. Bigarren Hezkuntzari dagokion zertzelada bat, A ereduaren nagusitasuna, antzekoa da sektore bietan. Ez erabatekoa ordea: sektore publikoan, D ereduak aurrea hartu dio Ari, nabarmen; pribatuan, aldiz, ez. Horrezaz gainera, B ereduaren bilakaera aski diferentea da sektore bietan: sektore publikoan mugaturik dago; pribatuan, aldiz gora ari da. D ereduari dagokionez, azkenik, sektore publikoan bizkor ari da gora; pribatuan oso apurka. Kontuan hartzeko bereizgarriak dira horiek guztiak, mende-laurden honetan gertatu denaren balantze itxurazko bat egitekotan.

## **VI.5. Eredu-banaketaren izaera dinamikoa**

Aldaketa handia gertatu da ereduaren hedaduran, urteen harian. Urte berean ere alde handia dago ordea, ikusi berri dugunez, maila batetik bestera. 2007-08 ikasturteari dagokionean, adibidez, eskolara lehenago hasi ziren ikasleak daude goi-mailetan (Batxilergoan eta, batez ere, Lanbide Heziketan). Irakasle euskaldun gutxiago eta, beraz, eskolara sartzeko orduan D ereduko aukera txikiagoa zegoen garaiko ikasleak dira horiek. Orduko aukeren ildotik A (zenbaitetan B) ereduari hasi ziren orduko ikasle asko, eta A ereduari ari dira orain, normalean, Batxilergoan edo Lanbide Heziketan.

Aldatzen ari da egoera hori, ordea, esan bezala. Gero eta maizago B edo, batez ere, D ereduari eskolaratutako ikasleak datoz goi-maila horretara, eta D ereduari zabaltzen ari da hor ere. Ondoko irudi-multzoan, lehen bi irudiek Lanbide Heziketan azken hamar urtean gertatu den aldaketa eta une honetako egoera azaltzen digute. Era berean, hurrengo bi irudiek erdi- eta behe-mailako ikasleen artean ere aldaketa martxan dagoela azaltzen digute: HH-LMHko ikasleen artean portzentaje zabalagoa du D ereduak DBHkoen artean baino. Oro har, zenbat eta ikasleak gazteago izan ordan eta presentzia txikiagoa du A ereduak. Gertaera horrek aparteko izaera dinamikoa ematen dio EAEko irakaskuntzari. Inolako aldaketarik gertatuko ez balitz hasiera-mailetan, orain baino ondotoz D eredu gehiagoko irakaskuntza izango litzateke hemendik hamar urtera. Ondoko irudi-multzotik ezin da estrapolazio itsurik atera, baina azken hamarkadaren azalpen kontrastibo horrek dinamika nagusiaren nondik norakoaz jabetzeko argibide zehatza eskaintzen du.



**24. irudi-multzoa.** Ereduen bilakaera, mailaz maila. Azken hamarkadaren azalpen kontrastiboa.

Labur bilduz: aldaketa ohargarria izan du EAEko hezkuntzak, eskola-hizkuntzari dagokionez. Aldaketa hori ez dago, bestalde, amaitua. Bere horretan aurrera jarrai dezake oraindik, erdi eta goi-mailetan B eta, batez ere, D ereduari gero eta leku zabalagoa eskainiz. Hori ez da prognosi segurua ordea. Urak oraingo bidetik joango balira ereduaren hazkunde begetatiboak norantz joko lukeen esaten digu, soil-soilik, prognosi horrek. Gizarte-urak gutxitan egon ohi dira geldirik ordea: batera edo bestera mugitzen dira sarri, aitzitik, eta ereduaren garapen kontua mugimendu horren emari izan liteke maila batean edo bestean. Hala izan da azken hogeita hamar urtean, eta aurrerantzean ere hala izango dela (edota, gutxienez, hala izan litekeela) pentsatzea da arrazoizkoena.



## VII. EMAITZAK: NOLA DAUDE KONTUAK 2007-08AN?

Ikusia daukagu gorago, txosten honen VI. atalean, 1982-83tik aurrera zernolako bilakaera izan duen EAEko eskola-munduak hainbat alorretan. Atentzio berezia eskaini diogu ereduaren bilakaerari. Beste zenbait alor ere kontuan izan dugu V. atalean: irakasle elebidunak lortzeko hartu diren neurriak, ikasmaterialen prestaera bultzatzeko zer egin den, euskararen erabilera bultzatzeko eraman den bidea eta abar. Zein da, ordea, gaurko egoera konkretua? Nola daude kontuak 2007-08 ikasturtean? Bete al dira Euskararen Erabilera Normaltzeko oinarri-legeak agintzen zituen xede nagusiak? Ba al dago, gaur egun, euskaraz zein gaztelaniaz ikasterik? Ikasleek lortu al dute hizkuntza ofizial bietan behar adinako ezagutza praktikoa? Zabaldu al da euskararen erabilera, eskola-munduan eta, azken batean, gizarte osoan? Galdera horiei erantzun nahi zaie atal honetan.

### VII.1. Ereduak hartu duten hedadura

Galdera biri erantzungo diogu hemen, funtsean: a) zer hedadura dute hiru ereduak 2007-08 ikasturtean?; b) hedadura hori zenbat aldatu da EEN legea onartu zenetik hona? Galdera bi horiek adierazten dute argien, ereduaren garapen kontuan zer gertatu den. Biak ikusiko ditugu hortaz, hurrenez hurren.

#### VII.1.1. *Ereduen hedadura 2007-08 ikasturtean*

Ereduen banaketa ez da uniforme: ez ikastetxe motaz, ez lurraldez eta ez ikasmailaz da uniforme. Ikasmaila guztietan ez dute ereduak, hasteko, hedadura bera: B eta D ereduak garapen zabalagoa izan dute behe-mailetan eta txikiagoa goi-mailetan. Badakigu, era berean, garapen-maila diferentea lortu dutela ereduak ikastetxe publikoetan eta pribatuetan: publikoetan zabalduago dago D eredia, eta pribatuetan Askok hedatu da B. Lurralde kontuari dagokionez, azkenik, D eredia nagusitu da Gipuzkoan eta hori baino garapen banatuagoa izan dute ereduak Bizkaian eta Araban.

*Ereduak ikasmailaka, 2007-08 ikasturtean.*

Lurralde batetik bestera dauden diferentziak eta publiko/pribatu bereizketak geroko utziaz, zentra gaitzean ikasmaiten kontuan (182). Ikasmaita nagusiei

---

(182) Gogora dezagun horretarako, berriro ere, ondoko tauletan eta azalpen laburretan erabiliko ditugun siglen esanahia: **HH**: Haur Hezkuntza bi edo hiru urtetik sei urtera arteko ikasleak; **LMH**: Lehen (Mailako) Hezkuntza (sei urtetik hamabira arteko ikasleak); **DBH**: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: hamabi urtetik hamaseira arteko ikasleak; **DBHO**: hamasei urtetik gorako ikasleak.

dagokienez, EAEko ikastetxe publikoak eta pribatuak osorik hartuta honako hedadura dute A, B eta D ereduak 2007-08 ikasturtean (183):

Ikasmaila	X		A		B		D		Guztira
	ikasleak	%	ikasleak	%	ikasleak	%	ikasleak	%	ikasleak
HH	426	0,49	4.782	5,49	21.795	25,00	60.168	69,02	87.171
LMH	826	0,77	10.541	9,85	32.625	30,49	63.015	58,89	107.007
HH+LMH	1.252	0,61	15.665	8,05	54.440	27,98	123.234	63,33	194.591
DBH	504	0,73	14.947	21,61	18.139	26,23	35.556	51,41	69.156
HH+LMH+DBH	1.756	0,67	30.612	11,61	72.579	27,52	158.790	60,20	263.747
Batxilerra	194	0,65	14.949	50,15	390	1,31	14.275	47,89	29.808
Lanb Hezik	0	0	20.002	76,84	697	2,68	5.333	20,49	26.032
DBHO	194	0,35	34.951	62,59	1.087	1,95	19.608	35,12	55.840
GUZTIRA	1.950	0,61	65.563	20,51	73.666	23,05	178.408	55,82	319.587

17. taula. A, B eta D ereduak hedadura 2007-08an

Atzekoz aurrera hasiko gara datuok azaltzen. Hots, jeneraletik kokretura joko dugu. Horrela, EAEko ikastetxe publiko eta pribatu guztiak batera hartuta, honako emaitza hauek dira 2007-08an nagusi:

- Guztira, unibertsitatera arteko mailetan, ikasleen %55,82 D ereduak dabil, %23,05 B ereduak eta %20,51 A ereduak. D ereduak da beraz nagusi. B ereduak dator hurrena (ez da, ordea, D ereduaren erdira iristen). Azkenik, ikasleen %20 dabil A ereduak. Hori da 2007-08ko datu-azalpen osoa. Xehetasunetara pasatuz,
- Derrigorrezko eskola-aldia amaitu arteko ikasmailetan (HHn, LMHn eta DBHn) D ereduak dabil hamar ikasletik sei (%60,20). Nagusitasun handia du beraz D ereduak derrigorrezko eskola-aldian (hots, bi eta hamasei urte arteko ikasleen artean). Bere ondoren B ereduak dator: hor ere ez da Dren erdira iristen (%27,52). Eta A ereduak, azkenik, %12 inguruan dago (zortzi ikasletik bat, X ereduak barne hartuta).
- D ereduaren nagusitasuna oso deigarria da Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza: bi eta hamabi urte arteko ikasle guztien ia bi heren (%63,33) D ereduak dabil, eta A (+X) ereduak ez da %10era iristen (ikasle guztien hamarretik batera ere ez).

(183) Taula honetan araubide orokorreko irakaskuntza jaso da, Hezkuntza Berezia barne (Hezkuntza Bereziko datuak (HH+LMH) azpitotalean eta hortik aurrerakoetan sartu dira, ez ordea HHko eta LMHko lerro berezietan. Taulatik kanpora utzi da, bestalde, Helduen Hezkuntza. Zerreginen Ikaskuntza, azkenik, Lanbide Heziketaren multzoan sarturik dago.

- d) Nagusitasun hori are deigarriagoa da Haur Hezkuntzan: ikasle guztien %69 D ereduari dabil HHn (184). A ereduak berriz, «X» barne harturik, HHko ikasleek %6 biltzen du soilik.
- e) DBHn ere nagusi da D ereduari. Nagusitasun hori ez da, ordea, behe-mailetan bezain nabarmena (%51,41). HHko eta LMHko orain dela sei-zortzi urteko datuen errainu da, nolabait, gaurko DBHko egoera.
- f) DBHOn, aldiz, A ereduari da gailen. Gutxigatik Batxilergoan (%50,15 A, %47,89 D), baina askogatik Lanbide Heziketan (%76,84 A, %20,49 D). Jakin badakigu, behe-mailetan orain dela hamar-hamalau urte ageri zen egoera islatzen dela egungo Batxilergoan, D ereduari dagokionez. Diferente da kontua, aldiz, Lanbide Heziketari dagokionez: bestelako azalpena du bilakaera horrek.

*Ereduak ikastetxe-motaka, 2007-08 ikasturtean.* Esan dugu, bestalde, ikastetxe publikoen eta pribatuen bilakaera diferentea izan dela EAEn. Ikus sare bien 2007-08ko egoera, hamabi urtetik beherako ikasleak hartuz batetik eta hamabi urtetik gorakoak bestetik.

2007-08	% X	% A	% B	% D
HH+LMH publ	0	4,65	14,11	81,24
HH+LMH prib	1,29	11,44	41,81	45,47
DBH+DBHO publ	0	35,81	6,96	57,23
DBH+DBHO prib	1,08	43,76	23,25	31,91

**18. taula.** Ereduen portzentajea sare publikoan eta pribatuan, 2007-08an

Funtsezkoa da bereizkuntza hori: txostenaren VI. atalean bilakaera aldetik esandakoa bizi-bizirik dago egungo kurtsoan ere: D ereduari askoz garatuago dago sare publikoan, eta pribatuan askoz hedadura zabalagoa du B ereduari. Diferentzia hori ulertu gabe ez dago ezer asko entenditzerik, nire ustez. Are diferentzia nabarmenagoak ikusiko genituzke, gainera, sektore pribatu bitan banatuko bagenu: hots, alde batean ikastolak jarriko bagenu eta bestean ikastolak ez diren ikastetxe kontzertatuak (185) (*Kristau Eskola* eta gainerakoak). Oso kontuan izan behar da hori guztia, egungo egoera eta aurrera begirako garapen-bidea perspektiba minimo batez ulertu nahi bada (186).

(184) Garrantzitsua da datu hori, etorkizun labur-ertainen iragarle zuzenena HH izan baita orain arte. Orain arte hala izanak ez du bermatzen ordea, gorago azaltzen saiatu naizenez, hemendik aurrera hala izango denik. Urak nahasten direnean, eta oso nahastu dira azken aldian, zail da predikzio zentzuzkorik egitea. Ur nahasten dabilenak inork baino gogoanago izan behar luke hori.

(185) Ikastetxe pribatu-kontzertatuak ikasle-multzo zabalena biltzen duen parte, hortaz.

(186) Ereduen gaineko xehetasun handiagorik nahi duenak txostenaren 2. eranskinera jo dezake.

### VII.1.2. Legea onartu zenetik honako aldaketa

Tentazioa izan dezake irakurleak, goiko puntuan esandakoak irakurrita, ereduaren garapen guztia EEN legeari zor zaiola uste izatekoa. Horri zor zaiola edota, gutxien-gutxienez, EEN onartu zenetik hona lortu dela hori guztia. Gauzak ez dira horrela. Legea onartu zenean, 1982-83 ikasturtean, euskarazko irakaskuntza ez zegoen hutsean: gogoratu txosten honen I. atalean esandakoak. Ez da egia, beraz, ereduaren egungo garapen-maila EENren eraginpekoa denik osorik. Legearen benetako eragina zenbatekoa izan den baloratzeko, orduko eta oraingo datuak konparatu behar dira, eta kenketa egin. Hots, 1982-83tik 2007-08ra hiru ereduaren hedadura zenbateko aldaketa gertatu den analizatu behar da. Ondoko bi taulak ematen dute 25 urteko transformazio horren berri.

HH + LMH	1982-83		2007-08		DBH + DBHO	1982-83		2007-08	
	Ikasleak	%	Ikasleak	%		Ikasleak	%	Ikasleak	%
X	73.404	19	1.252	0,64	X	24.300	19	698	0,56
A	222.744	56	15.665	8,05	A	95.017	75	49.898	39,92
B	41.270	10	54.440	27,98	B	3.188	2	19.226	15,38
D	58.751	15	123.234	63,33	D	4.948	4	55.174	44,14
<b>Guzt</b>	<b>396.169</b>	<b>100</b>	<b>194.591</b>	<b>100</b>	<b>Guzt</b>	<b>127.453</b>	<b>100</b>	<b>124.996</b>	<b>100</b>

**19. taula-bikotea.** Ereduen neurri-aldaketa, EEN onartu zenetik

Hamabi urtetik beherako ikasleen datuak begiratu batetik, eta hamabi urtetik gorakoak bestetik, zera ikusten da:

- a) Haur Hezkuntza (HHn) eta Lehen Hezkuntza (LMHn), oro har (187), transformazio handia gertatu da 1982-83tik hona. Hasieran A ereduaren zeuden ikasle gehienak (%56), eta ondoren X ereduaren (%19) zetorren (bien artean %75). D eta B ereduak beste %25 osatzen zuten bien artean, adin-tarte horietan. Orain, berriz, A ereduaren (X eta guzti) %9 azpitik dago, eta B+D ereduak %91 baino gehixeago dira. Bada, beraz, aldea.
- b) Antzeko transformazioa gertatu da DBHn eta DBHOn. Hots, gutxi gorabehera lehengo Irakasmaila Ertaintetan. Horrela, A (+X) ereduaren %94tik %40,48 jaitsi da, B ereduaren %2tik %15,38ra igo eta D ereduaren, azkenik, %4tik %44,14ra igo. Bada aldea, beraz, ikasmaila hauetan

(187) Bi eskola-sektoreak (publikoa eta pribatua) eta hiru lurraldeak (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) biltzen ditu kontu-errendatze honek, HH eta LMH hartuz konparazio-gai. Kontuz, halere: 1982-83an ez zegoen Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzarik, Eskolaurrea eta OHO baizik. Orduko eta oraingo segmentazioak ez datoz bat, ehuneko ehun: orduan hiruzpalau urtetik hamalaura arteko neska-mutilak zebiltzan EAn eta OHOn, nagusiki. Orain, berriz, bizpahiru urtetik hamabira artekoak dabilta batez ere HHn eta LMHn. Konparazioa ez da funtsik gabea, halere: argazkia ez dago oso distortsionatua.

ere: B+D ereduak %6 izatetik %59,5 izatera pasa dira Bigarren Hezkuntzan, EEN legea onartu zenetik.

Taula-bikote honek gauza bat baino gehiago erakusten du, labur bilduz: B eta, bereziki, D ereduak hartu duten pisua eta hedadura, lehenik eta behin. Hori baino gehiago ere ondoriozta liteke, ordea, datu horietatik: bilakaera horren izaera dinamikoa. Behe-mailetan urrutirago iritsi da D eta B ereduaren ezarpena, eta eskema hori gorantz hedatuz doa urtetik urtera. Aurrerago helduko zaio berriro gai honi.

Gorago esan denez, bestalde, ereduaren bilakaera ez da uniforme izan sektore publikoan eta pribatuan. Ikastetxe publikoetan aurrerago iritsi da D ereduaren ikastetxe pribatuetan, aldiz, leku zabalagoa eskuratu du B ereduaren. Bietan ere, A ereduaren asko murriztu da (188). Hurrengo bi taulak ematen dute horren berri:

	1982-83		2007-08	
	Ikasleak	%	Ikasleak	%
X	60.796	31,10		
A	106.403	54,42	4.522	4,65
B	19.699	10,08	13.714	14,11
D	8.612	4,40	78.946	81,24
<b>Guz</b>	<b>195.510</b>	<b>100</b>	<b>97.182</b>	<b>100</b>

**20. taula.** Ereduen bilakaera EAEn, HHko eta LMHko herri-ikastetxeetan

	1982-83		2007-08	
	Ikasleak	%	Ikaslea	%
X	12.608	9	1.252	1,28
A	109.572	77	11.143	11,44
B	11.113	8	40.726	41,81
D	8.746	6	44.288	45,47
<b>Guz</b>	<b>142.039</b>	<b>100</b>	<b>97.409</b>	<b>100</b>

**21. taula.** Ereduen bilakaera EAEn, HHko eta LMHko ikastetxe pribatuetan

Datu horiek ikusita, gero eta leku gehiagotatik hasi da entzuten: «egia da D ereduaren asko zabaltzen ari dela. Baina ez nolana: gurasoak behartu egin dira, beren seme-alabak B eta, bereziki, D ereduaren gelara bidaltzera. Horregatik ari dira eredu horiek zabaltzen». Egia al da hori?

## VII.2. Euskaraz edo gaztelaniaz ikasteko aukera

Euskaraz ikasi nahi duenak euskaraz ikasi ahal izango duela dio EEN legeak, eta gaztelaniaz ikasi nahi duenak gaztelaniaz. Ba al dago benetan aukerarik, euskaraz edo gaztelaniaz ikasi nahi duenak euskaraz edo gaztelaniaz ikas dezan? Zer neurritan errespetatzen da gurasoen aukera, beren haurrek hizkuntza ofizial batean edo bestean ikasi ahal izatekoa? Erantzun erraza du galdera horrek eta,aldi berean, zaila.

(188) Hemen ere kontuz ibili behar da, hasierako (hots, 1982-83ko) datuekin. Orain sektore bi direnak, hiru ziren orduan: publikoa, pribatua eta ikastolak. Azken hauen osara, urte-inguru hartan, 4. eranskinetara zeto.

Erraz da galdera horri erantzuten, baiezko biribila emanaz. Inoiz ez da izan, jakina denez, azken 25 urteotan bezain aukera zabalik ikasketak euskaraz edo gaztelaniaz egiteko. Segurtasun handiz esan liteke, inoiz baino aukera zabalagoak daudela horretarako, gaur egun. XVIII. mendetik hona (dotrina kontua alde batera utzita) euskararen zokoratzea izan da eskola-munduan arau, lautatik hirutan. Gutxitan izan du euskarak eskola-hizkuntzaren statusa, eta gutxi horietan ere maizago kokatu izan da pasabideko hezkuntza elebidunaren altzoan (hots, *transitional bilingual education* gisa: cf. Fishman eta Lovas, 1970). EEN legeak ofizialtasun bete eman dio euskarari, gaztelaniaren pare, EAEko eskola-munduan. Hori bakarrik ez: euskaraz ikasteko aukera zabaldu egin da, oro har, azken mende-laurdenean. Orain dela 25 urte, beren seme-alabentzat euskarazko ikasbidea nahi zuen hainbat gurasok ez zuen hartarako aukerarik izan. Ez zegoen irakasle eskaldunik, eta irizpide murrizkorrez jokatu behar izan zen, hainbat kasutan, bai B edo D ereduko lerroak zabaltzeko eta bai lerro bakoitzean (batez ere Bn) euskarazko irakaspostuak definitzerakoan. Irizpide murrizkor horrek eraginik kaleratu zen adibidez 1986ko uztailaren 4ko Agindua, jendeak komunzki *4/4 dekretua* deitu izan zuena. Gerora ere zuhur jokatu behar izan zen maiz, B edo D ereduko gela bat irekitzeko orduan. Inoren eskubideak urratzekotan B eta D ereduak eskatzen zutenen gurasoen eskubideak urratu ziren hainbat urtez (189). Eredua hautatzeko eragozpenak B eta D ereduaren aldekoek izan zituzten nagusiki, ez A ereduaren aldekoek. Urteen harian, lehen hamarkadako muga-ezintasun hura arinduz joan izan da: gero eta irakasle gehiago elebiduna da eta ikastetxeek beraiek, motibo bategatik edo bestegatik, merkatuaren eskabide nagusira egokitu ahal izan dute beren eskola-eskaintza. Ez dago dudarik, alde horretatik, neurri zabalean segurtatzen dela gaur egun, derrigorrezko ikasmailetan bereziki, euskaraz ikasteko eskubidea.

Eta gaztelaniaz ikasteko aukera? Bermatzen al da gaztelaniaz ikasteko eskubidea ere?. Hasieran, 80ko hamarkadan ez zegoen horretarako arazorik: hiri eta herriburu gehienetako ikastetxeek erdaraz funtzionatzen zuten, erdi- eta goi-mailan bereziki, eta seme-alabentzat erdarazko eskolaketa nahi zuen hiritarrak aukera zabala zeukan eskueran. Euskarazko eskola nahi zuenak baino askoz zabalagoa normalean. Urteen joanean, ordea, aldatu egin dira gauzak eta egungo egunean, ikasmila eta eskualde jakinetan bereziki, zail da erdara hutsezko aukera handirik topatzea (190). Hortik ezin ondoriozta daiteke, jakina, gurasoek aukera hori izan

---

(189) Ez dut uste, halere, erabateko lege-urratzerik gertatu zenik normalean: legeak garbi zioen pausoz pauso, «progresivamente», aplikatu beharrekoa zela, eta egin ere halaxe egin zen oro har. Jakin badakigu, bestalde, lege-urratzearen kexa gutxi iritsi zela epaitegietara.

(190) Zenbaitek esan izan du, A ereduaren *marginalia* sozialarekin identifikatu izanak ekarri duela A ereduaren gainbehera bizia, ez gurasoen nahiak. Zail da horrelako baieztapenei erantzun biribilik ematea, alde batera zein bestera. Dudarik ez da A ereduko hainbat ikastetxerentzat kaltegarri gertatu dela, luzera begira, une batean salbamen-taula zirudikeena. Ez da egia, ordea, estratifikazio sozialaren ikuspegitik A ereduaren unibokoa denik. A ereduko hainbat ikastetxe, sektore pribatuan bereziki (eta sektore horretan daude A ereduko ikastetxe edo ikasle gehienak), gizartearen goi-geruzetako ikasleen bilgune da. Hots, justu *marginaliaren* antipodetan dauden ikasleen bilgune. Sinplifikazioekin kontuz ibili behar da, beraz.

ez dutenik azken mende laurdenean eta, beraz, eskola-munduan gertatu den bila-kaera beren gogoz kontrakoa, goitik inposatua edo induzitua alegia, izan denik. Ez dago motibo argirik hori baieztatzeko. Bai aldiz, inoiz azaldua dudanez (Zalbide, 1999), gauzak aski berez bere joan direla uste izateko.

Mende-laurdeneko balorazio globala gauza bat da, dena den, eta oraingo (2007-08 ikasturteko) egoeraren deskribapen zehatza bestea. Gero eta zailagoa da gaur egun, bere haurarentzat A ereduko eskola nahi duten gurasoei aukera hori eskaintzea. Are zailago etxetik hurbil eskaintzea. Hasieran B eta D ereduekin pasatzen zena A ereduarekin pasatzen da orain, Haur (eta, gutxiago) Lehen Hezkuntzan. EEn legea ez al da beraz betetzen. Ez nuke nik halakorik esango. Datuak behar dira, eta ez dut halakorik, A eredia eskatzen duten gurasoak (kopuru adierazgarrian, ez salbuespenezko kasu bakanen batean) B edo D eredura joatera behartzen direla esateko. Zailtasuna hor dago, dena den: itsuenak ere ikusten du hori.

Ez dago dudarik eredu-aukeraren printzipio handi horrek, gizarteko printzipio handi gehienek bezala, beren eragozpenak eta muga-arazoak dituztela paperetik praktikara pasatzean. Euskaraz ikasteko aukera-murritzapenei dagokienez, goi-mailetan eta arauz kanpoko ikasbideetan daude gaur egun arazo nagusiak. Lanbide Heziketan, esate baterako, ezinezkoa da orain ere edozein espezialitate euskaraz ikasi ahal izatea (ezintasun kronikoa da hori, zenbait gaitan aurrera egin den arren mende-laurden osoan erabat konpondu ez dena). Beste horrenbeste gertatzen da musika-kontserbatorio eta musika-eskoletan. Batzuetan euskarazko taldea egiteko zailtasuna izan ohi da eragozpen larriena. Besteetan, berriz, irakasle euskaldunik eza. Erdaraz ikasteko aukera-murritzapenei dagokienez, aldiz, justu alderantziz dira kontuak: behe-mailetan eta arauz kanpoko ikasbideetan daude arazo nagusiak. DBHn, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan ez dago inolako arazorik A ereduko ikasbidea hautatzeko: bai, aldiz LMHn eta, bereziki, Haur Hezkuntzan. Horrelako kasuetan ez dago, jakina, erdaraz dakiten irakasleen faltarik. Gela osatu ahal izateko, (hots, A ereduko taldea osatzeko) zailtasuna izan ohi da eragozpen larriena. Gutxienezko ratioetara ezin iritsi izatea.

Kontuak termino erlatiboetan hartzen badira, ondorioa argia samarra da: hezkuntza-mundua da, askogatik, zerbitzu publikoa euskaraz edo gaztelaniaz antzeko neurrian jasotzeko garantiarik handiena eskaintzen duen esparrua. Hezkuntzatik kanpora ez dago, urrundik ere, neurri horretako aukera-berdintasunik. Hel diezaioگون, konparaziorako, kultura-esparruari: EAeko hiritarroi bertatik eta estatutik eskaintzen zaigun oferta kulturala (egunkari-astekariak, irratsaioak, telebista, musika, zinea,..) nabarmenki txikiagoa da euskaraz, gaztelaniaz baino. Administrazioaren zenbait ataletan ez dago zuzenean eta osorik euskaraz atenditua izateko ia inolako aukerarik. Hizkuntza aukeratzeko eskubideari dagokionez, hortaz, erraz da ondorio hau ateratea: esparru gutxitan lortu du EEN legeak hezkuntza-alorrean bezainbateko betetze-maila zabalak. Salbuespenik eta frikzio-punturik ez da han edo hemen falta izan mende-

laurden honetan. Orain ere bada han-hemen halakorik: batzuetan irakasle euskaldunik ez dagoelako, eta besteetan gutxienezko ratorik ez dagoenean aukerabidea konplikatuta egiten direlako. Mende-laurden honetan dokumentaturik dagoen neurrian salbuespen izan dira, ordea, frikzio horiek. Arau nagusia aski bermatua dago, itxuraz, EAEko irakaskuntza ez-unibertsitarioko kasu eta maila gehienetan: seme-alabentzat euskarazko/gaztelaniazko eskolaketa nahi duten gurasoek badute gaur egun, oro har, hartarako aukera. Ez ezinbestean beren gogoko eskola konkretuan, ez eta beren auzoan edo (zenbaitetan) herrian, ratioen edo irakasle euskaldunen eskasia kontuengatik. Baina eskubidea badute, oro har, ikasle gehienek.

Zaila da, beste aldetik, galdera horri hain baiezkoko erantzun biribila ematea. Zergatik aukeratzen dute gurasoek A eredu, B edo D? Zergatik nabarmendu da mende-laurden honetan, hain era uniforme eta etenik gabe, D ereduaren aldeko joera? Gurasoak gero eta euskaltzaleago direlako? D ereduak emaitza akademiko hobeak segurtatzen dituelako oro har (ez hizkuntza kontuan bakarrik)? Ez dago motibo sendorik, ene ustez, ez lehenengo galderari eta ez bigarrenari baiezkoko biribilez erantzuteko. Ez baiezkoko biribilik eman dakieke galdera horiei, zenbait uste ohi duen moduan, eta ez, beste hainbatek aldarrikatzen duenez, goitik beherako erantzun ezezkorrik eman liteke oro har, datu ezagun, kontrastatu eta behar bezala metatuen gainean. *Wishful thinking* delakoak pisu handia du, iruditzen zaidenez, gure jardunean. Are handiagoa, nik uste, horrelako argudioak mahai gaineratzen ditugunean. Gutxiegi da, zinez, kontu horietaz dakiguna, eta gutxi horretatik nekez atera liteke hain ondorio sakonik.

Non dago hortaz gako, gurasoen D-ranzko joera-lerrakuntza handi hori azaltzen lagun dezakeena? Ez litzaidake hain funsgabea irudituko, hipotesi moduan bada ere, guraso askoren buruan etorkizun-prognosi pragmatiko batek eragin eta eragiten duela esatea. Hizkuntza ofizial biko Autonomia Erkidegoan bizi garela jakinik, eta lege-marko horren barruan euskara ondo jakiteak hainbat lanpostutarako (batez ere esparru publikoan: Udal eta Aldundi, Jauriaritza eta komunikabide publiko, Osasun Zerbitzu eta irakasletza,..) sarbide-aukerak zabaldu egiten dituela (edo ezinbesteko baldintza dela) ikusirik, etorkizun-prognosi horrek zera leharke bidelagun: probableena dirudien etorkizun-eszenario horretarako ahalik eta ongien ekipatu nahi izatea beren seme-alabak, eta ekipamendu hobereana, alde horretatik, D ereduak eskaintzen duela sentitzea. Hipotesi hori egia izatera, han-hemen indar betean funtzionatzen duen fenomeno baten aurrean geundeko: gizartean nagusi diren pautak soziokulturaletara moldatzeko (eta etorkizun nabar baten aurrean beharrezkoa gerta litekeen irteera-aterik seme-alabei ez ixteko) jarrera kolektiboaren aurrean. Pautak nagusietarako egokitze-saioak mila dira gizartean, gurean eta beste edozein lekutan. Baita hizkuntza kontuan ere, oro har. Eskola-mundutik aldentu gabe fija gaitzen, adibidez, atzerri-hizkuntzen azken mende-laurdeneko eskola-hedapen zabalean. Beren seme-alabek atzerri-hizkuntzak ondo ikas ditzaten saiatzeko dira Espainiako eta Europako gurasoak,



gero eta sendoago. Guraso horiek ez dituzte ordea atzerri-hizkuntza guztiak neurri eta maila berean eskatzen beren seme-alabentzat. Unibertsitate aurreko eskoletan eta Hizkuntza Eskola Ofizialetan, oro har, gutxi dira beren seme-alabek polakoa, estoniao, grekoa, hungaroa, norvegiera(k), finlandiera, eslovakoa, ukrainiera, txekoa, irlandera, servioa, albaniera, suediera, maltesa edo portugesa ikastea eskatzen dutenak. Asko, aldiz, ingelesa, (Frantziatik kanpora) frantsesa, alemana edo (Espainiatik kanpora) espainiera ikas ditzaten eskatzen eta gogor saiitzen direnak. Azken multzo horretan, ez lehenengoan (191), kontzentratzen da gurasoen eta 16 urtetik gorako ikasleen eskabideen %90 baino gehiago. Horietan eta, beste maila batean, munduko LWC handietan (192). Beste hizkuntzen kontra ez daukate ezer, guraso horiek. Espainiako gurasoei dagokienez ez dira bereziki frankofoniaren zale, ez eta anglofilo edo germanofilo itsu. Baina hiru hizkuntza horietako bat eskatzen dute seme-alabentzat hamarretik bederatzik edo gehiagok. Are gehiago: eskatu-eskatu ingelesa eskatzen dute guraso gehienek (askogatik gehienek), gero eta nabarmenago, beren seme-alabentzat. Hori eskatzen diote eskolari, txiki-txikitatik hainbatean, eta prest daude atzerriko egonaldia ordaintzeko ere, poltxikoak hartarako aukera ematen dien neurrian. Horren guztiaren oinarrian dagoena ez da ingeles hizkuntzarekiko zaletasun anglofilo neurrigabea, oso bestelako mekanismo soziala baizik. Etorkizuneko gizartean ingelesa beharrezkoa (edo oso komenigarria) izango dela uste dute guraso horiek, eta beren seme-alabak begiz jotako etorkizun horretarako ahalik eta ongien ekipatzen saiitzen dira. Mekanismo horren parekoak (xede-hizkuntza euskara izanik) bere pisua izan du EAEn, ene ustez, mende-laurden honetan. Etorkizuneko Euskal herrian (zehazkiago, EAEn) euskara beharrezkoa edo komenigarria izango dela ikusi (eta, orain arte, ikusten jarraitzen) du hainbat gurasok eta, horregatik, seme-alabak elebidun «orekatu» bihurtzeko aukera zabalena eskaintzen duen eredura, D-ra alegia, bidaltzen ditu.

Badago hautapen-kontu honetan guztian, azkenik, gogoan izan beharreko beste faktore bat ere, eredu bat edo beste aukeratzeko orduan bere eragina izan dezakeena: kasuan kasuko eskolaren irudia eta erakarmena. Zergatik aukeratu dute gurasoek eskola hau, eta ez beste hori edo harako hura? Irakasteredu elebidunagatik bakarrik? Beren seme-alabek hizkuntza ofizial batean edo bestean ikastea nahi dutelako, soil-soilik? Ez dut uste. Eskolaren idearioak, bere irudi publikoak, etxetikako hurbiltasunak, eskaintza osagarriak (193), konfiantzazko irakasle ezagunik tartean izateak, lehendikako esperientzia familiarak edo oroitzapen pertsonalak eta, gero eta maizago, ikastetxea konfliktu-iturri ez izateak *plus* nabarmena ematen dio eskola bati, ereduak berak ematen dionaz gainera. *Plus* partzialak dira horiek guztiak: partzialak baina

---

(191) Lehen multzo horretako hizkuntzak eskaini ere ez dira egiten, normalean. Ez dago hor kasualiterik, gizarte-mekanismo jakinak eragindako eskaera-eskaintzen ohiko jarduera baizik.

(192) LWC: *Languages of Wider Communication* (terminologia teknikoan, mundu zabaleko komunikazio hizkuntza nagusiak).

(193) Jangela, informatika, atzerri-hizkuntza, kirolgunea,...

eragingarriak eta, zenbaitetan, eredia bera bezain garrantzitsuak. *Plus* horien guztien baturak erabakitzen du, askotan, seme-alabak zein ikastetxetara bidali (194). Familia bakoitzak ponderazio-irizpide bereziz egiten du osagai horien batuketa, ereduari zentraltasun handiagoa edo txikiagoa asignatuz eta, azkenik, batura horren arabera lehentasun-ordena ezarriz. Egokiagoa da beraz, alde horretatik, ereduaren hautapen-askatasuna bere hutsean baino areago beste hainbat lehentasun-irizpiderekin batera hezuramaitzen dela esatea. Lehentasun horiek ez dute hizkuntza-eskubideen norbanako irizpidea ezabatzen: modulatu egiten dute, ordea, hein batean (195).

### VII.3. Zonalde soziolinguistikoa kontuan hartzea

Euskal Autonomia Estatutuak zera dio bere seigarren artikuluan: Autonomia Erkidegoaren amankomuneko Erakundeek, leku batetik besterako desberdintasun soziolinguistikoko kontuan izanik, hizkuntza bien erabilera garantizatuko dutela, beren izaera ofiziala arautuz eta beren ezaguera ziurtatzeko behar diren neurri guztiak hartuz eta bideratuz. Antzeko gauza dio EEN legeak: zonalde soziolinguistikoa ere kontuan izango dela. Hala egiten al da? Has gaitezen errazenetik: lurralde arteko konparaziotik (196). 2006-07ko ikasturteari dagozkion datuetan aldea dago eredu-banaketan, lurralde batetik bestera (197). Badirudi, hortaz, lurralde mailan bederen zonalde soziolinguistikoa kontuan hartzen dela, urterik urteko praktikan: ez espreski, baina bai praktikan. Zenbatekoa da zonaldearen (kasu honetan lurraldearen) eragin hori? (198) Ondoko irudiak lagungarri gerta litezke:

---


(194) Normalean, zein ikastetxetara *bidaltzen saiatu*. Beren gogozkoena den ikastetxean lekurik ez da hainbatetan izaten.

(195) Badago motiborik, hizkuntza-aukeren benetako izaera sinbiosi modu horretatik hurbilago dagoela uste izateko. Seme-alaben eskola-aukera faktore linguistikokoak bakarrik motibatuko balu, beste zenbait alorretan halatsu litzateke. Ez da hala, ordea: irrati-telebistetako kontsumoan adibidez, D ereduko kontsumoa eskoletakoa baino nabarmen txikiagoa da: bai helduen artean eta bai, dakigun neurrian, neska-mutilen eta gazteen artean. EAEko telebista kontsumoan X eredia da, askogatik, nagusi. Irratietan, berriz, X, A eta B. Faktore asko sartzen dira tartean, hizkuntza-aukera egiterakoan. Hori ez da ahaztea komeni. Liburuaren eta aldizkari-egunkariaren kontsumoan ere erdara da nagusi.


(196) Badakigu lurralde bakoitzean ere (Bizkai-Gipuzkoetan bereziki) aldea dagoela zona batetik bestera. Zonaldez zonaldeko azterketak oso luze joko liguke ordea: txosten honetan ezin diogu gai horri hainbateko tarterik eskaini. Lurraldekako emaitzak aski adierazgarriak dira, gainera, zonaldeen arteko gorabeherak esplikatzen.

(197) Hipotesia da hori, halere, ez argi frogatutako emaitza. Eskola-maparen arabera mekanismo konplexu samarez loturik egon liteke zonalde soziolinguistikoa *de facto* kontuan hartze hori. Mekanismo horiezaz gainera, jakina, azken berrogei urteko galdeketa soziologikoek eta zentso-azterketa demolinguistikoez behin eta berriro azaldu duten fenomenoak kontuan hartu behar da: partez edo osoz euskaldun diren gurasoen artean zabalagoa da euskarazko eskolaren eskea, erdaldunen artean baino.


(198) 2006-07ko ikasle-kopuruaren zenbaki absolutuak ematen dira irudi horietan, ez portzentualak.




25. irudia. Haur Hezkuntzako ereduak, lurraldeka




26. irudia. LMHko ereduak, lurraldeka



27. irudia. DBHko ereduak, lurraldeka



28. irudia. Batxilergo ereduak, lurraldeka



29. irudia. LHko ereduak, lurraldeka

Ondorio batzuk argi samarrak dira. Ereduen presentzia ez da berdina Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan: ez zenbaki absolutuetan eta ez, bereziki, portzentajeetan. Zonalde soziolinguistikoaren eragina hor dago beraz. Beste

zerbait ere esan behar da, ordea: orain dela hogeita bost urte baino txikiagoa da, oro har, zonalde soziolinguistiko batetik besterako aldea (199). Beste horrenbeste gertatzen ari da eskola-munduan. Eredu-banaketaren tarteak txikitzen ari dira lurralde batetik bestera. Baina ez da egia diferentziarik ez dagoenik, edo diferentzia hori hutsaren hurrengo denik. Soziolinguistikoki eragingarria den faktore horrek eskola-munduan ere badu bere oihartzuna. Hori dela-eta,

- a) Gipuzkoan, lurralderik euskaldunenean, erabat murrizta da A eredu, HHn eta LMHn bereziki. Hori bakarrik ez: DBHn eta Batxilergoan ere nagusitasun argia du D ereduak Gipuzkoan, eta Lanbide Heziketan bertan presentzia nabarmena eskuratu du.
- b) Araban eta Bizkaian ere asko murriztu da A eredu, D eta B eredu en atzean gelditu delarik HHn eta LMHn. Baina Bigarren Hezkuntzan gauzak aski diferente dira. Bigarren Hezkuntzan A eredu da Bizkai-Arabetako eredurik zabalduena: beherantz dator hor ere, baina nagusi da gaurkoz.
- c) Bizkaiko datuak eta Arabakoak ez dira, gainera, portzentualki berdinak. D ereduak pisu handiagoa du Bizkaian.

Lurralde mailatik eskualde mailara pasako bagina beste horrenbeste ikusiko genuke: zonalde euskaldunenetan indar handiagoa du D ereduak, eta besteetan ahulagoa (200). Askok matizatu behar da kontu hori, halere, egungo egoera zehatz azaldu nahi bada. Zonalde soziolinguistikoaren arteko diferentzia ahultzen ari da, gorago esanenez: orain dela gutxi arte baserri-giroan murgilduta zeuden herri-herrixkak auzategi eta banakako landetxe «hiritar» berriez betetzen ari dira; industrialdeak nonahi zabaltzen ari dira, orobat, eskolagarrarioaren irismena zabaltzen ari da eta bide-sareen berrikuntzak birrindu egin ditu zonalde batzuen eta besteen arteko tarteak.

Bestetik, euskaldun asko hirietara joan da bizi izatera eta familia euskaldun ugari dago hiriburuetan. Bilbo batean, hori dela-eta, Durangon baino euskaldun gehiago bizi da egungo egunean. Horregatik, euskaltasun-maila handiko eskualdeak (Urola aldea, Lea-Artibai, etab) alde batera uzten badira zail da gaurko zonalde soziolinguistiko gehienetako mintzajardunean Lehen bezalako bereizkuntza zorrotzik egitea. Gertaera horrek, eta elearteko nahas-ezkontzek, lehen baino ahulduago utzi dute zonalde soziolinguistikoaren orain dela ehun urte inguruko banaketa argi hura. Azkenik, eta berrietasun gisa, gero eta guraso erdaldun edo nahas-eledun gehiagok mur-

---

(199) Askok nabarmena da batetik besterako aldean murriztapen hori: konparatu, esate baterako, 1981eko eta 2001eko datu ofizialak, soziolinguistika-mapakoak. Zonalde (batez ere udalerririk) euskaldunenak zertxobait apaltzen ari dira euskaltasun-mailari dagokionez, eta erdaldunenak igoten. Tarte-bitarteko berdintze-modu bat ari da hortik sortzen.

(200) Ez dago zonaldeka prestatuturiko datu-multzorik, eta beraz zeharbidez eskuratutako informazioez baliatzen ari naiz atal honetan.

giltze-bidea aukeratzen dute beren seme-alabentzat: gurasoen nahia zonaldearen irizpidearen gainetik dago EAEko hezkuntza-legerian, funtsaren funtsean.


Faktore batek baino gehiagok eragiten du eskola-munduko eredu-banaketan. Zonalde soziolinguistikoak badu bere eragina, ikusi dugunez, eta ez txikia. Baina faktore geografiko hori beste askorekin batera hartu behar da kontuan, egungo errealtatea xuxen deskribatzeko. Bere hutsean hartuta kamuts gertatzen da. Gero eta kamutsago, gurasoen aukera-eskubideak duen lehentasun operatiboa kontuan hartzen ez bada.

#### VII.4. Irakasleen hizkuntza-osaera

EEN legearen aurreikuspenetan, EAEko irakasleek elebidunak izan behar dute. Ikus zer dioten 19. eta 20. artikuluek:

Artículo 19	19. artikulua
Las Escuelas Universitarias de Formación del Profesorado, adaptarán sus planes de estudio para conseguir la total capacitación en euskera y castellano de los docentes, de acuerdo con las exigencias de su especialidad.	Irakasleen prestakuntzarako unibertsitate-eskolek beren ikasketa-planak egokituko dituzte, irakasleek euskara eta gaztelania erabat menperatu ditzaten, nork bere espezialitatearen eskakizunen arabera.
Artículo 20	20. artikulua
1. El Gobierno, a fin de hacer efectivo el derecho a la enseñanza en euskera, establecerá los medios tendentes a una progresiva euskaldunización del profesorado.	1. Jaurlarizak, euskarazko irakaskuntzarako eskubidea gauzatzeko, irakasleria gero eta euskaldunagoa lortzeko bitartekoak jarriko ditu.


Irakasle guztiak elebidun izan behar dutenik ez da legean espreski esaten, baina agintzen diren neurriek helburu argi samarra dute: EAEko irakasleak euskaraz zein gaztelaniaz irakasteko gai izatea, oro har. Lortu al da helburu hori, handik 25 urtera? Irakasle-eskolen kontua hurrengo atalerako utzita, lortu al da EAEko ikastetxeetan lanean ari diren irakasleak (guztiak edo gehienak) euskaldun (eta, beraz, elebidun) izatea? Erantzuna badakigu zein den: den-denak elebidun/euskaldun izatea ez da lortu. Milaka irakasle dira, EAEn, gaitasun hori ez dutenak. Aldi berean, ordea, legeak dioen «progresiva euskaldunización del profesorado» edo «irakasleria gero eta euskaldunagoa» izate hori aski neurri zabalean lortu da. Gero eta irakasle gehiago da, EGA edo HE2 maila eskuratua duena. Gatozen emaitza numerikoen azalpen grafikora: irakas-sistema osoko azken datu erabilgarriek, 2006-07 ikasturtekoek, ondoko emaitza eskaintzen dute:



**30. irudia.** EAEko irakasleen osaera, hizkuntza-gaitasunari dagokionez

Irakasleen ia hiru laurdenek bazuten EGA edo HE2 maila 2006-7 urtean (201). Horrezaz gainera, beste %6 inguruk bazuen HE1 maila. Transformazio handia gertatu da, beraz, irakasleen artean. Transformazio hori bat dator, gainera, sektore bietako eredu-banaketaekin, irakasmaila diferenteetan ereduak duten presentziarekin eta irakasleen adin-gradientearekin. Horrela.


- a) sektore publikoaren eta pribatuaren artean aldeak daude irakasleen hizkuntza-osaeran. Sektore publikoan aurreratuago doa irakasleen euskalduntzea, pribatuan baino. Bietan aurrerapen nabarmena egin da ordea.
- b) D ereduak zabaldutako dagoen mailan, Haur Hezkuntzan, irakasle euskaldun gehiago dago bestalde. Aldiz D ereduak presentzia laburragoa duen mailan, Bigarren Hezkuntzan, irakasle gutxiagok du EGA edo HE2. Ondoko irudiak ematen ditu gradazio-eskala horren berri.




**31. irudia.** Irakasleen hizkuntza-osaera, irakasmailaka

(201) Horrela ziren portzentaje kontuak pasa den ikasturtean eta, ohiko joerari eutsiz, are zabalagoak izan litezke kurtso honetan.


- c) Kontuan izan behar da, azkenik, irakasle gazte gehienak euskaldun direla. Beste hitzetan esanik irakasle erdaldun elebakarrak zaharrago dira adinez, oro har. Ikus ondoko irudiak: lehenengoak datu globalak ematen ditu, hurrengoak sektore publikoari dagozkionak eta hirugarrenak sektore pribatukoak.



32. irudia. EAEko irakasle guztien hizkuntza-osaera, adinaren arabera



33. irudia. Herri-ikastetxeetako irakasleen hizkuntza-osaera, adinaren arabera



34. irudia. Ikastetxe pribatuetako irakasleen hizkuntza-osaera, adinaren arabera

Labur bilduz: Aldakuntza nabarmena gertatu da irakasleen euskalduntze- edo alfabetatze-alorrean, eta euskalduntze-lan hori ongi ezkontzen da ereduaren garapen-joera nagusiarekin. Gehiago egin zitekeela egia da. Irakaslea EGAdun edo HE2ren jabe izateak ez du, gainera, euskaraz ongi irakasteko gai denik ziurtatzen beti. Goiko zenbaki horiek ez dute, beraz, inor liluratu behar: asko dago oraindik egiteko, euskarazko irakaskuntzak kalitate osoko mailari eutsiko badio. EGA edo HE2tik gorako hizkuntza-prestaerak horrexegatik du, besteak beste, hain arrakasta zabala. Jartzen diren erreparoa jartzen direla bistan dago, ordea, pauso handia eman dela legeak dioen bidean. Sektore publikoan, OHO mailan, irakasle euskaldunak ez ziren 1977an %5era iristen. Ehuneko laurogei baino gehiago dira orain. Badago aldea, eta ez nolana hiko.

Irakasle-eskolak euskaldundu al dira? Bai eta ez. Saio handia egin da, hasieratik beretik, irakasle-eskoletan euskal adarrak eratzeko: hots, hasi eta buka euskaraz ikasi ahal izateko lerroak antolatu dira, ikasle euskaldunak irakasle-gai euskaldun (berez, elebidun) trebe bihurtzeko. Zenbait irakasle-eskola hori baino urrutiago joan da eta legeak dioena hitzez hitz betetzen du: ikasketa guztiak euskaraz eskaintzen ditu oro har eta, normalean, bertako ikasketak amaitzen dituzten ikasleak euskaraz irakasteko gaitasun-agiriaren jabe izaten dira (202). Pauso handiak eman dira alor horretan, baina helburua ez da osorik betetzen: ez osorik eta ez %75ean. Hutsune objektiboa dago hor, beraz. Hutsunea are nabarmenagoa gerta liteke, 2007-08ko (eta, batez ere, etorkizuneko) irakasle-gai berri guztiak irakasle-eskoletan sortzen ez direlako: 0-3 alorrerako kandidatu berrien leku naturaletako bat Lanbide Heziketa da, eta behar bezala atenditu gabe dago alor hori. Era berean, DBH eta DBHOrako hainbat profesional ere beste fakultateetan eta goi-eskola teknikoetan prestatu ohi dira eta ez dakit zer neurritan hartzen den prestaera-behar hori kontuan.

## VII.5. Hizkuntza ofizialen ezagutza praktikoa

Eskola bidezko euskalduntzeak helburu jakina du (203): EAEko belaunaldi berriak elebidun bihurtzea. Ez da hori orain dela 25 urteko berrikuntzen xede bakarra. Bai, ordea, nagusietarikoa (204). Honela dio, hain zuzen, EEN legeak bere 17. artikulua lehen pasartean:

---

(202) Egoera horretan dago Mondragon unibertsitateko irakasle-eskola. Donostiako irakasle-eskola publikoa ere oso hurbil dago egoera horretatik. Bilbon ere hala dira kontuak, %70ean. Gasteizen, euskaraz ikasten dutenen proportzioa %60tik gorakoa da baina bertako euskal adarretako ikasle guztiak ez dute gaitasun-agiririk. Bizkaiko irakasle-eskola pribatua, aldiz, datu ezagunak egiazkoak izatera oso urruti dago EEN legeak dioen egoeratik.

(203) Eskakizun hori ez da EEN legearena bakarrik. Autonomia Estatutuak ere argi asko dio, azken helburua zein den.

(204) Espezialista gehienak bat datoz puntu horretan: eredu aukeratzeko eskubidearekin batera hau da, dudarik gabe, EEN legeak hezkuntza-alorrean duen agindurik zorrotziena.



Artículo 17	17. artikulua
El Gobierno adoptará aquellas medidas encaminadas a garantizar al alumnado la posibilidad real, en igualdad de condiciones, de poseer un conocimiento práctico suficiente de ambas lenguas oficiales al finalizar los estudios de enseñanza obligatoria (..).	Jaurlaritzak, derrigorrezko ikastaldia bukatzerakoan ikasleek aukera berdinetan, bi hizkuntza ofizialak benetan erabiltzeko adina menperatuko dituztela ziurtatzera bideratutako neurri guztiak hartuko ditu (205) (..).

Argia da, alde batetik, artikuluan hori: eskola-munduak zer norabidetan arraun egin behar duen seinatzen du. Euskaraz eta erdaraz, bietan jakin behar dute gazteek. Hori da asmo nagusia; horretan ez dago interpretazio-auzirik. Hortik aurrera, aldiz, gauzak konplikatu egiten dira. «En igualdad de condiciones» delako hori, hasteko, nola ulertu behar da: «ikasle guztiak aukera berdinak» izango dituztela elebidun izateko, edota «hizkuntza bietan maila berean» jakingo (jakiteko aukera izango) dutela? Bistan da interpretazio bat ala beste aukeratzea ez dela hutsaren hurrengo erabakia: aski ondorio diferenteak ateratzen dira, segun bidegurutze horretan bide bat ala beste aukeratzen den. Lehenengo kasuan, «ikasle guztiei aukera bera» eskaintzea da kontua. Elebidun izan ahal izateko aukera bera eskaintzea ikasle guztiei. Bigarren interpretazioa aukeratzen baldin bada, aldiz, hizkuntza ofizial bien *parez pareko* ezagutza praktikoa ezartzen da helburu (206): interpretazio horren arabera erdararen pareko hizkuntza-gaitasuna behar dute euskaraz EAEko ikasleek, derrigorrezko eskola-aldia amaitzerakoan. Gaitasun-maila hori eskuratu behar dute edota, gutxienez, gaitasun-maila hori eskuratu ahal izateko bidea jarri behar zaie eskueran.

Ez da hori interpretazio-auzi posible bakarra: hizkuntza bietan «poseer un conocimiento *práctico suficiente*» nola ulertu behar da, izan ere? Hizkuntza batean zein bestean jarduteko behar adinako gaitasun praktikoa, ez ezagutza teoriko hutsa, eskuratu behar dute ikasleek: argi esana dago hori. Definizio operatiboa eskatzen du ordea baieztapen horrek: zer da hizkuntza baten «behar adinako ezaguera praktikoa»? Zer da hizkuntza bat «benetan erabiltzeko adina menderatzea»? Nola defini liteke gaitasun-maila praktikoa hori? Nola neurtu behar da, 16 edo 17 urteko ikasle batek «benetan erabiltzeko adina» mende-

(205) EEN legearen jatorrizko itzulpenak zera zioen: «bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko adina ezagutuko ditueneko segurantza emateko xedezko neurriak hartu»-ko zituela Jaurlaritzak.

(206) Itzulpen Zerbitzu Ofizialaren idazkuntza eguneratuak lehen interpretazioa du, itxura osoz, oinarri. Bigarren interpretazioak ere badu, ordea, aldekerik: interpretazio horri ere argudio-oinarriz eutsi dakioke, horretan aditua den legetariren batek (edo, hobe, EEN legea adostu zutenek) besterik ez dio(t)en artean. Nābardura horiek garrantzitsuak dira, jakina, eta dudamudazko puntua ez da isilpean uztea komeni. Dudamuda hori ez da erabatekoa ordea: ematen den interpretazioa ematen dela, «un conocimiento práctico suficiente de ambas lenguas» hori aski norabide argikoa da. Edozein interpretazio ez da aizu.

ratzen dituela euskara eta gaztelania? Esaldiari iruzurrik egin nahi ez bazaio, argi dago edozein gaitasun-mailak ez duela balio. Zein maila da, ordea, «behar adinakoa»? Non dago «conocimiento práctico suficiente» horren benetako langa, «pasa» eta «ez pasa» artekoa? Azken urteotan irteera bat baino gehiago eman zaio galdera horri. Ezagunena, agian, Hezkuntza Sailak aurten (207) adierazitakoa da: HUISen esanean Europako erreferentzia-marko bateratuaren B2 maila har liteke, operatiboki, hizkuntza batean zein bestean jarduteko «behar adinako gaitasun praktiko»tzat.

Gatozen, ordea, harira. Hamasei urte inguruko ikasle oro «ele biko gaitasun praktiko» horretara iritsi ahal izateko neurriak hartu behar ditu Jaurlaritzak. Hartu al dira neurriak? Lortu al da helburu horretara iristea? Lehen baino hurbilago al gaude helburu horretatik? Zenbat gaztek egiaztatu du mende-laurden honetan, hitzez eta idatziz, euskaraz txukun (txukun samar) jarduteko gaitasuna? Ikuspegi zabalenetik hasiko gara, urratsez urrats informazio teknikoagora hurbilduz. Zabalenetik hasita, berriz, honako bi baieztapenok egin litezke huts egiteko arrisku handiegirik gabe.

- a) Bere osoan hartuta, elebitasun praktiko jeneralizatuaren helburua ez da bete. Are gutxiago parez pareko elebitasun jeneralik. Neurri eta molde askotako elebitasun-mailak lortu eta lortzen dituzte EAEko ikasleek. Ikasle guztiak ez dira ordea elebidun praktiko: are gutxiago parez pareko elebidun funtzional. Bada noski parez pareko elebidun funtzionaltzat har litekeen gazterik: hitzez, idatziz edo bietara berdintsu moldatzen dira halakoak, hizkuntza ofizial batean zein bestean. EAEko gazte gehienak ez dira ordea horrelakoak. Hizkuntza batean bestean baino errazago moldatzen dira gehienak. Badira euskaraz (hitzez, agian idatziz) gaztelaniaz baino erosoago moldatzen direnak: gutxi dira horrelakoak. Badira, bestalde, euskaraz baino erosoago moldatzen direnak gaztelaniaz: ahoz, idatziz edo bietara gaztelaniaz erosoago edo askoz erosoago egiten dute horiek. Eta badira, hainbat daturen arabera, euskaraz hitz egiteko gaitasun praktikorik ez dutenak. Labur bilduz: euskara-mailari dagokionez aniztasun zabala dago EAEko gazteen artean, eta aniztasun zabal horren barnean asko dira euskaraz ahul dabilzanak. Legearen ezinbesteko lausotasun kontzeptuala aintzakotzat hartuta ere, ezin esan liteke ikasle guztiek «benetan erabiltzeko adina» dakitenik euskaraz. Erdaraz bai, salbuespen bakanak salbuespen; euskaraz ez.
- b) Horrek ez du esan nahi, azken aldian halakorik entzuten bada ere maiz, EAEko eskolak porrot egin duenik belaunaldi berrien euskalduntze-alfabetatze alorrean. Are gutxiago, ezer lortu ez duenik. Gauza asko lortu du eskola-munduak azken mende-laurdenean, lege horren

---

(207) Ikus Hezkuntza sailburuak martxoaren 8an Legebiltzarrean aurkezturiko dokumentua (HUIS, 2007).

babesean. Honako bi gauza hauek, besteak beste: batetik, etxetik eraldun diren neska-mutilak (adin horretako populazioaren %75 edo %80) neurri batean euskalduntzea lortu du; bestetik, etxetik euskaldun edo (gero eta sarriago) elebidun diren haurrak euskaraz (ere) alfabetatzea (208).

Zertan konkreta liteke beraz, urterik urteko praktika arautuan, eskola bizko euskalduntze eta alfabetatze horren *output*-a? Ikuspegi zabal-lausoenetik zehatz-kontrastatuenera joaz, hiru neurpide ditugu eskueran: galdeketa soziolinguistikoen ondorio globala erabil daiteke, batetik; aldian behingo ebaluazio-lanen emaitzetara jo liteke, bestetik; hamasei urtetik gorako ikasleek egiten dituzten hizkuntza-azterketak eta lortzen dituzten hizkuntza-agiriak kontuan izan litezke, azkenik. Ikus ditzagun hirurak, hurrenez hurren.

### ***VII.5.1. Galdeketa soziolinguistikoen ondorio globala***

Zenbat gaztek daki orain euskaraz? Lehen baino gutxiagok, mundu zabal-leko hiztun-herri txiki-ahuldu gehienetan gertatzen ari den bezala? Lehen bezainbatek, gutxi gorabehera? Lehen baino gehiagok? Aurrera egin da jakite kuantitatibo horretan, ala atzera? Erantzuna argia da: lehen baino gazte gehiagok daki orain euskaraz. Lehen baino ikasle gehiago dira orain, bai portzentajez eta bai kopuru absolutuz, euskaldun.

Aski da, horretarako, 1981eko datuak 2001ekoekin (hots, eskueran dauden azken datu publikoekin) konparatzea: 1981ean baino ondotoxoz gehiago dira, proportzioan zein zenbaki absolutuz, euskaraz badakitela dioten gazteak. Ikus, esate baterako, III. mapa soziolinguistikoaren 1981-2001 aldiko emaitza konparatiboak (Kultura Saila, 2005: 38-41 or.) Argi ikusten da 5 eta 24 urte arteko (eta, beste maila batean, 25 urtetik 44ra arteko) biztanleen euskarazko hizkuntza-gaitasunak gora egin duela nabarmen. Hortik aurrerako adin-tartee-tan, aldiz, beheranzkoa da kurba Bizkai-Gipuzkoetan. Gazteen elebitasun-gorakada horren atzean, besteak beste eta aski neurri ohargarrian, azken mende-laurdeneko eskolatzeko sistema dago.

Hori da, beraz, galdeketa soziolinguistikoetatik atera ohi den lehenengo ondorio globala. Erabateko baikortasuna piztu ohi du gertaera horrek zenbaitengan: «bide onetik goaz; denbora kontua da guztia». Ondorio okerra da hori: gauzak gehiegi sinplifikatzen ditu ikusmolde horrek eta sinplifikazio horrek ez du ondorio sendorik ateratzeko aukerarik ematen (209). Hizkuntza bat dakiten

(208) Euskaraz eta gaztelaniaz alfabetatzen ditu oraingo eskola-sistemak, baina euskararena azpimarratu nahi da, hori baita *plusa*: erdaraz, aurreko sistemak ere alfabetatzen zituen.

(209) Gauza jakina da, hemen eta nonahi, norbanakoen jakite-aitormenak muga handiak dituela hiztun-elkarte baten bizi-indrira neurtzeako orduan. Are gehiago hiztun-elkarte horren etorkizuna iragartzeari dagozkionetan. Hizkuntza bat jakitetik hizkuntza hori erabiltzera tarte handia egon

hiztunen kopurua garrantzitsua da, oso, hizkuntza horren osasun-egoera analizatzeko; baina hori bakarrik ez da kontuan hartu behar.

Jakite kontuari dagokionez, hasteko, beste lau aldagai hauek ere kontuan izan behar dira (210): a) hiztun horien kontzentrazio espaziala (hiztun horiek leku askotan sakabanaturik dauden, edota leku gutxitan edo bakarrean kontzentratuak); b) dentsitatea (bizi diren lekuan populazioaren %14 diren, %34 edo %84 osatzen duten); c) beraien adin-banaketa (hiztun gehienak zaharrak diren, edo adin guztietan banaturik dauden) eta, d) beren ezaguera maila (euskaldun diren horiek ahoz eta datiz zer-nolako euskaldun diren: euskaldun huts, euskal-elebidun, elebidun orekatu edo erdal-elebidun).

Guztia ez da, bestalde, jakite-kontua. Hizkuntzaren erabilera eta hizkuntzei buruzko iritzi-jarrerak ere kontuan izan behar dira. Erabilera da, hasteko, hizkuntzen osasun-termometrorik zorrotzena. Jakin bai baina erabiltzen ez den (edo gutxi erabiltzen den) hizkuntza nekez osasun onean egon liteke. Erabilera-kontuak ere neurtu eta aintzakotzat hartu behar dira, hortaz, bide onetik goazen edo ez esan ahal izateko. Demolinguistikazko inkestak jakite-azalpenak oso onuragarriak dira, egungo egoeraren neurri modu bat eskuratzeko laguntzen digutelako. Lagungarri izanik ere ez dira, ordea, aski. Are gutxiago gurea bezalako ingurumenetan, hizkuntza jakitetik hizkuntza hori erabiltzera hain jauzi nabarmena dagoen kasuetan (211). Galdeketa soziolinguistikoen jakite kontuei buruzko datuetatik atera ohi den ondorio baikor hori ez da beraz aski, ahuldutako hizkuntza baten osasun-diagnostiko zorrotziki egiteko. Pista batzuk ematen ditu, eta oso baliagarriak dira; baina argitasun horiek ez dira aski osasun-diagnostiko globalik egiteko.

Euskaraz jakitearen hazkunde kuantitatiboaz galdeketa soziolinguistikoei eskaintzen duten testigantza metatua huskeria iruditu ohi zaio gure arteko hainbati. Esan berri ditugun beste faktoreak gogoan izanik, eta faktore horien

---

ohi da, batetik. Fishman-en hitzetan esateko (1985: 156), «the attrition rates between non-English mother-tongue claiming and use claiming (speaking) are substantial». Bestetik, hizkuntza bat dakitenean kopurua bakarrik ez da aski, hiztun-elkarte baten bizirik iraun ahal izateko neurpidea zehazteko orduan. Ikus Giles, Bourhis eta Taylor-en 1977ko *Ethnolinguistic vitality*-ren formulazioa (objektiboa zein subjektiboa) batetik, eta Fishman (1985, 1989, 1991, 2001) bestetik.

(210) Demolinguistika aldetik, eta jakite-mailari dagokionez, dakitenean kopuruez gainera kontzentrazioak eta dentsitateak duten garrantziaz ikus, adibidez, Mackey 1983 eta Fishman 1991.

(211) Euskaraz jakitetik euskaraz egitera dagoen jauzian faktore batek baino gehiagok eragin ohi du. Honako faktoreok, besteak beste: a) gizartean luze-zabal onarturiko (gizarte ez-demokratikoetan aginte-indarrez ezarritako) arauak, hizkuntza bat jardungune eta situazio baterako egokia eta beste baterako deserosoa (kasurik larrienean debekuzkoa) bihurtzen dutenak; b) hiztunak bere hizkuntza hori ingurumen hurbilean (eguneroko harreman-sareetan, bereziki) benetan erabili ahal izateko aukera objektiboak, eta c) hizkuntzaren ezagutza-mailak. Erabilerari buruzko informazioa ere jasotzen dute, gero eta zehatzago gainera, galdeketa soziolinguistikoei: jardungune jakinetan (etxean, lagunartean, lanean) euskaraz egiten den, erdaraz edo bietara jakitako aukera ematen dute galdeketo. Aurrerago helduko diogu gai horri, X. atalean.

garrantzia eta lehenetasuna azpimarratuz, jakite-aitormen hutsezko emaitza soziolinguistikoei apenas ematen diete aparteko garrantzirik. Euskararen osasun-diagnostikoa egiterakoan eta EEN legearen gorabeherak zehazterakoan hanka-punttaka pasa ohi dira, hori dela-eta, hazkunde demolinguistiko horren esparrutik. Ez da zaila beren argudio-bidea asmatzen: «kalean lehen adinbat erdara entzuten da, lehen baino gehiago ez bada. Hori da benetako neurria. Hortik aurrerakoak kontu merkeak dira». Ez dabil zeharo oker halakorik dioena: eguneroko jardun arruntaren zenbatekoak eta zer-nolakoak garrantzi aparta du hizkuntza baten osasun-diagnostikoa eratzekoan. Baina zuzen-zuzen ere ez dabil, soziolinguistikazko inkesta-datuak alboratzerakoan. Jokabide okerra da hori: partzialak eta (deklaratibo huts diren neurrian) subjektiboak izanik ere, emaitza demolinguistikoak ez dira gutxiestekoak. Gogoan izan behar dira horiek ere, balorazio globala egiterakoan. Ezaguera kuantitatiboaren adierazle horiek ere kontuan hartu beharra dago, hizkuntzaren osasun-egoera eta, ondorioz, EEN legearen balantzea egiteko orduan.

Adierazle demolinguistiko horiek kontuan hartzen baldin badira, argi dago emaitza: ezagueraren ikuspegi kuantitatiboari dagokionez aurrera egin du euskarak EAEko neska-mutilen eta gazteen artean, EEN legea onartu zenetik hona. Eskola izan da aurrerapen horren lehen eragilea: horretan ez dago duda handirik (212). EEN legeak ezer lortu ez dueneko balioespen muturrekoa baliogabetzera dator emaitza hori.

### ***VII.5.2. Aldian behingo ebaluazio-lanen emaitzak: B2***

Aztertu berria dugun ikuspegi kuantitatibo-global hori ez dugu aski, gogo esanenez, hizkuntzaren osasun-egoera eta eskolaren mende-laurdeneko ekarpena neurtzeko. Zenbatek dakiten euskaraz, euskaraz dakiten horiek kontzentratu edo sakabanaturik dauden eta bizi diren parajeetan zer dentsitate duten garrantzizko informazioa da, baina ez da aski. Datu kuantitatiboak edo estentsiboak eskuratzear gainera informazio kualitatiboa edo intentsiboa behar dugu jakite kontuen esparruan: euskaraz dakiten ikasle horiek zer neurritan elebidun diren, eta bereziki zer neurritan euskaraz egiteko gai diren, jakin behar dugu. Jakite-esparrutik erabilera-alorrera pasa beharko dugu gero, jakina, balorazio osatua egin ahal izateko (213).

---

(212) Euskaltegien eragina, garrantzitsua izanik ere oro har, 20 urtetik gorakoetan antzematen da batez ere eta, kopuru aldetik, mugatua da eskola-datuen ondoan. Etxea eta kalea, berriz, ez dira alderatzeko neurrian ere euskaldundu. Eskolaren emaitza da beraz, lehenik eta behin, gorakada hori.

(213) Kontua ez da denbora-pasako detaile-zaletasun alferra. Jakin badakigu, euskara-maila apaleko elebidunek erdaraz egitera jotzen dutela sarri. Erdal elebidun makurtua (eguneroko mintzajardun arruntean erdarara oso makurtua) eta euskal elebiduna (euskaraz erdaraz bezain erraz edo errazago moldatzen dena) bi gauza dira oso. Gaitasun-mailaren ikuspegi kualitatibo hori nahi eta nahi ez erantsi behar diogu, hortaz, hiztun-kopuruaren ikuspegi kuantitatibo jeneralari.

Gatozen beraz jakite-mailaren alderdi kualitatibora, intentsibora. Zer neurritan ditugu euskaldun, euskaldun direla dioten EAEko neska-mutilak eta gazteak? Lehen baino euskaldunago? Euskaraz ulertzeko, hitz egiteko, irakurtzeko eta idazteko lehen baino trebeago? Gauza batzuetan trebeago eta besteetan motelago? Oraingo (2007-08ko) eta orduko (1982-83ko) datu konparagarriak behar genituzke hori jakiteko: EEN legeak derrigorrezko eskola-aldian lortu beharreko hizkuntza-gaitasuna aipatzen duenez espreski, orduan eta orain 16 urte inguruko gazteen lau trebetasunen berri izan behar genuke, bietan bateratsu neurturiko emaitzak konparatu ahal izateko.

Ez dago halako neurketarik. Hasieran ez zen halakorik egin eta gero ere ez dira urtero-urtero egiten. Konparazio hertsirik egin ezin baliteke ere, orain zer maila duten jakiteko argitasunik badago han-hemen. Zentra gaitzean argibide horietan, eta birformula dezagun hasierako galdera beste era honetan: zer mailatan dakite euskaraz, eta zenbatean gaztelaniaz, 16 urte inguruko gazteek? EAEko ikasleen hizkuntza-maila aztergai duten ebaluazio-lanez balia gaitzeko, besteak beste, galdera horri erantzuten saiatzeko. HUISen ebaluazio-lanei dagokienez, esate baterako, bibliografia luze samarra dago eskuan (gogoratu, adibidez, txosten honen IV.2 ataleko 5. taulan azalduakoa). Har dezagun ebaluazio horietako bat: aukera dezagun, azken urteotan aipatuena bera denez, ISEI-IVEIren B2 ebaluazioa. 2004-05 kurtsuan DBH4ko (16 urte inguruko) gazteei B2 proba pasa zitzaien (214) eta proba-pasatze horrek ekarri duen emaitza jasotzen du ebaluazio-lan horrek. Proba ez zitzaien ikasle guztiei pasa, B eta D eredukoei baizik (215). Egindako ebaluazioaren arabera, DBH4ko B eta D ereduko ikasleen proportzio honek gainditu zuen B2 proba:

- a) *Lagin orokorraren emaitzak (lau trebetasuneko emaitzak)*. B eta D ereduko 1191 ikasleri trebetasun hauek neurtu zitzaizkien: irakurmena, idazmena, entzumena eta hizkuntzaren ezagutza. Mintzamina ez zitzaien neurtu. Ikasleen hizkuntza-gaitasuna horrela neurturik, honako emaitza hauek lortu ziren DBH4n: B ereduko ikasleen %27,5ek gainditzen zuen proba hori, eta D ereduko %57,2k. Guztira, B eta D ereduko ikasle-lagin horren %47,3k gainditzen zuen mintzamenik gabeko B2 proba.
- b) *Bost trebetasunen emaitzak*. Goiko horrezaz gainera B2ko mintzamen-proba pasa zitzaion 1191 ikasle horien azpilagin bati; konkretuki 243

---

(214) Proba hori zer modutan diseinatu, aplikatu eta kalifikatu zen jakitea inportantea da, emaitza numeriko konkretu horien atzean justu zer dagoen ulertu ahal izateko. Diogun, horrela, idatzizko alorrean galderen %60 edo gehiago gainditu zutenei aitortu zitzaizela B2 maila. Beste konbentzio bat aukeratu izan balitz (esate baterako, gainditze-langa %70ean edo %50ean ezarri izan balitz) diferentea izango zen emaitza. Mintzamen-proba azpimultzo bati bakarrik pasa zitzaion, gainera. Kontuan izan behar dira datu horiek, ateratako emaitzen balio-indarra zehazteko. Xehetasun horietarako eta beste hainbatetarako ikus, nolana ere, ISEI-IVEI 2005.

(215) Proba pilotua egiterakoan A ereduko ikasleak ere kontuan hartu ziren: ustez A eredu hobereneko ikasle hoberenak. Garbi ikusi omen zen, A ereduko ikasle «hoberen» horiek ez zutela B2 maila gainditzen (ISEI-IVEI, 2005: 23).

ikasleri. Bost trebetasunak (hasierako lauak gehi mintzamen) kontuan izanik, DBH4ko B ereduko ikasleen %32,6k eta D ereduko ikasleen %68k gainditzen zuen B2 proba. Guztira, mintzamen-neurketa kontuan izanik B eta D ereduko ikasle-lagin horren %53,7k gainditzen zuen B2 proba.

- c) Besterik ere ikusi ahal izan zen neurketa horretan: neskek errazago gainditzen zuten proba mutilek baino (sari gertatzen da hori), zonalde euskaldunetakoek zonalde erdaldunetakoek baino errazago gainditzen zuten (espero izatekoa zen hori ere), maila sozioprofesional altuagoko gurasoen seme-alabek maila bajuagokoenek baino puntuazio hobea lortzen zuten (hori ere espero izatekoa zen), ikastetxe publikoetako ikasleek pribatuetakoek baino errazago gainditzen zuten proba (hori ez zen aurreikusten erraza) eta etxean euskaraz egiten zuten gazteek errazago (askoz errazago) gainditzen zuten B2 proba (216). Azken puntu horri dagokionez, nabarmena da aldea. Etxean erdaraz egiten zutenak harturik batetik, eta etxean euskaraz egiten zutenak bestetik, diferentziok agertu ziren: B ereduan, gainditze-portzentajea %26,6koa zen etxean erdaraz egiten zutenen kasuan, eta %47,5ekoa etxean euskaraz egiten zutenen artean; D ereduan, berriz, %47,6 (etxean erdaraz egiten zutenak) eta %74,1 (etxean euskaraz egiten zutenak).

Beste hainbat ebaluazio-lanek ere zabaldu eta zehaztu ditu EAEko ikasleen hizkuntza-gaitasunen emaitzak. Era askotako ondorioak ageri dira ebaluazio-lan horietan. Ez da hau lekua, xehetasun horiek guztiak banan-banan ikusteko. Merexi du, aldiz, ebaluazio-lan horietan antzematen den zenbait ñabardura azpimarratzea. Zer diote, funtsean, han-hemengo ebaluazio-lan horiek?

- a) Gaztelaniaren ezagutza bermatua dago, oro har, EAEko ikasleen artean. Bertan jaiotako neska-mutil guztiek dakite gaztelaniaz, adin batetik aurrera (217). Etxetik euskaldun huts izan, herri euskaldun sendoetan bizi eta D ereduan ikasten ari diren gazteek ere bai. Hain da gaztelaniaren gizarte-eragina eta ingurumeneko harreman-sare informetarrainoko sarbidea sendoa, non gizarte-eragin horrek beste elementuak (ama-hizkuntza, lagunartea, auzo-giroa eta D eredia) kontrarrestatu egiten dituen eta, adin batetik aurrera, haurrik euskaldunenak ere gazte elebidun bihurtzen. Horrek ez du esan nahi, gazte euskaldun horiek inolako hobetu beharrik ez dutenik beren gaztelaniazko trebe-

(216) Beste zenbait aldagaik ere ageri zuen emaitzen aldakortasunarekin loturarik, baina ondotoz lotura ahulagoa zen hori.

(217) Atzeritik berrikitan etorritako neska-mutil alofonoek ere errazago eta lehenago ikasten dute gaztelaniaz, normalean, euskaraz baino. Etorrinen hurrengo belaunaldiko seme-alabak ere laster iristen dira, oro har, gaztelaniaz ikastera. Euskaraz jakitea, aldiz, aski lotua dago eskola-hizkuntza nagusiarekin eta, batez ere, bizi diren ingurumen hurbilarekin. Azpeitian Donostian baino lehenago eta osoago ikasten dute etorkin horiek (edo beren seme-alabek) euskaraz, nahiz batean zein bestean eredu berean ikasi.

tasunetan (218). Esan nahi duena da hemengo ikasle batek eta Gaztelako edo Andaluziako batek antzeko trebetasun-pautak ageri dituztela batezbestean. Hots, hangoak bezain erdararen jabe direla hemengo gazteak, aldeak alde eta ñabardurak ñabardura.

- b) Horren parekorik ez da euskararekin gertatzen. EAeko ikasle guztiak ez dira elebidun: ez, behintzat, hizkuntza batean zein bestean hitzez eta idatziz antzera-edo jarduteko gai. Alde handiak, oso handiak, daude euskarazko trebetasunean: alde horiek handiagoak dira hizketan eta idazketan, ulermenean eta irakurmenean baino. Lau trebetasunetan daude, ordea, alde nabariak.
- c) Parez pareko elebidun «orekatu» gutxi dago EAeko gazteen artean. Errazago moldatzen dira, normalean, euskaraz edo gaztelaniaz. Euskal-elebidunik (erdaraz baino euskaraz hobeto moldatzen denik) ez da falta gure artean, gorago esan denez. Ikasle elebidun gehienak beste era batekoak dira ordea: erdal-elebidunak. Euskaraz baino hobeto (ondotxoz hobeto edo askoz hobeto) moldatzen dira erdaraz, eta erdarazko *bilingual dominance configuration* horrek berak erdaraz jardutera bultzatzen ditu sarri: bai beraiek eta bai beren ingurukoak (219).
- d) Ereduak badu eragina ikasleen euskara-mailan: D ereduko ikasleak elebidunago dira, oro har, B eredukoak baino, eta B eredukoak euskaldunago A eredukoak baino. Faktore garrantzitsua da hori. Autonomia Estatutuak eta EEN legeak euskarazko gaitasun kontuaz diotena betetzeko orduan, ez dago dudarik D eredia dela eragingarriena. Gaztelania mailan ere badu eragina ereduak: D ereduko ikasleak baino hobeto egiten dute gaztelaniez A eta B eredukoek. Halere, gaztelaniaren jakite-mailan eredu batetik bestera ageri diren aldeak euskararen jakite-mailakoak baino nabarmenki txikiagoak dira.
- e) Eredu batetik bestera ageri diren aldeak ez zaizkie, beti eta osorik, ereduei zor. Eredu batean euskara (edo gaztelania) gehiago baldin badakite ikasleek, diferentzia hori ez da ezinbestean ereduagatik. Ikusi dugu gorago, etxeko hizkuntzak zer eragin duen: eredu berean dabilzan ikasleak arras euskara-maila diferentea dute, etxeko hizkuntzaren arabera. B ereduari dagokionez, etxean euskaraz egiten ez duten ikasleen artean %26,6k gainditzen du B2; etxean euskaraz egiten dutenen artean, aldiz, %47,6k. Beste horrenbeste gertatzen da D ereduarekin: etxean euskaraz egiten ez dutenen artean %47,5k gainditzen

---

(218) Hasiera bateko ustea, D ereduko ikasleak Akoak eta Bkoak bezain trebe zirelako gaztelaniaz, ez da gaur egun besterik gabe ontzat ematen. Alderik badago egon, batez ere lehen eskola-urteetan, batzuen eta besteen artean. Kontua zera da: alde hori eta euskarazko jakite-mailan ageri diren aldeak oso bestelakoak direla intentsitatez.

(219) *dominance configuration* delakoaz ikus, bereziki, Weinreich (1953) eta Fishman (1982 eta 1991). Gure arteko aplikazio konkriturako, aldiz, ikus Zalbide (1994, 2000 eta 2004).



du B2, eta etxean euskaraz egiten dutenen artean %74,1 k. Etxeko hizkuntzari kaleko, lagunarteko eta gelako ikaskideekiko hizkera informalararen eragina erantsiko balitzaio, are matizatuago geldituko litzateke ereduaren eragimena.

Labur bilduz: aldian behingo ebaluazio-lanek argitasun garrantzitsuak eskaintzen dizkigute EAEko ikasleak lortzen ari diren euskara-mailaz (eta, beste neurri batean, gaztelania-mailaz). Bistan da parez pareko elebitasun praktikoaren helburutik urrun dagoela eskola-errealitatea. Bistan da, orobat, pauso garrantzitsuak eman direla elebitasun-xede horretarantz eta, bide horretan aurrera egin nahi bada, eskola-esparruko saio isolatuak gaindituz gizarte-alor desberdinen interazkizio-eskema zabalagoetan oinarritu beharko dela herri-agintean eta gizartearen jarduna. Jakite kontuak egite kontuarekin lotu beharko dira, bereziki.

### ***VII.5.3. Hizkuntzako gaitasun-agiriak: urtean zenbat gazte EGAdun***

Zenbat dira, azkenik derrigorrezko eskola-amaieran euskaraz «ondo» edo «oso ondo» moldatzen diren ikasleak? Nola neur daiteke, gazte batek euskaraz «ondo» dakien ala ez? Galdera erraza da, itxuraz. Erantzuna, aldiz, zaila (220). Era askotako erantzuna eman badakioke ere galdera horri, bat da oraingoz segurua. Hizkuntzako gaitasun-agiriak ditugu, gaur-gaurkoz, eskola-amaieran ikasle bat euskaraz «ondo» moldatzen den jakiteko neurpide artezenak. Pertsona baten hizkuntza-gaitasuna neurtzeko bide formalizatu segurua, kontrastatua eta urterik urte errepikatua hizkuntzako gaitasun-azterketak dira. Azter ditza-gun EAEko euskarazko gaitasun-azterketak eta gaitasun-agiriak, beraz.

Hamasei urtetik gorako ikasleek egiten dituzten hizkuntza-azterketen sailean eta lortzen dituzten hizkuntza-agirien alorrean oinarri zabala dago ikusgai. Hizkuntza Eskola Ofizialetako azterketa ugariak hor daude, adibidez: milaka gaztek eta helduk egiten du urtero, EAEko hizkuntza-eskola ofizialen batean, maila bateko edo besteko azterketarik: bai euskara-azterketa, bai atzerri-hizkuntza batena eta bai, berrikitan (etorkinak direla-eta) gaztelaniazkoa ere. Euskarazko gaitasun-neurketa kontrastatuei dagokienez hor dago, bereziki, 25 urtetik gorako traiektozia luzea duen EGA agiria, Europako C1en parekoa. Urtean 15.000 azterketatik gora egiten dira EGAn. Azterketa horietariko asko, ez denak baina bai gehienak, 17 eta 25 urte arteko gazteenak dira. Dagoeneko 300.000 bat herritarrek eginga du azterketa hori azken mende-laurdenean eta, horietarik, 80.000 pasatxok eskuratua du EGA agiria (221). Euskaldun alfabetatu horiek ez ditu eskola-sistemak bakarrik sortu. Askok bai ordea.

(220) Erantzun probisonal posibleetako bat gorago azaldutako B2 probaren emaitza da.

(221) Kopuru horri, jakina, EGARA aurkeztu ez diren baina alfabetatze-maila egokia lortu duten gazteak erantsi behar zaizkio, batetik. Bestetik, EGA gainditu ez duten arren hitzez edo

Norbaitek esan dezake emaitza ahula dela hori. Horren arabera urruti, oso urruti gaudela EEN legeak markatzen duen elebitasun praktikotik. Are gehiago parez pareko elebitasun funtzionaletik. Arrazoi al du halakok? Bai eta ez. Zer mailatako hizkuntza-azterketak neurtzen du zehatz, gazte batek hizkuntza bat (kasu honetan euskara) ondo dakien? Maila hori Europako C1en (gure kasuan EGAn) jartzen baldin badugu, badakigu maila hori gutxi gorabehera zenbat gaztek gainditzen duen: mende-laurdeneko esperientzia etengabea daukagu horretan, EAEn. Badakigu euskaraz ongien moldatzen diren ikasleak aurkezten direla bertara, maiz asko, eta horietarik laurdenak inguruk gainditzen duela hiru zatiko azterketa (222). Aldiz EGAtik behera jartzen baldin badugu «behar adina» jakitearen langa, ikasle gehiagok gaindituko du maila hori: zenbat eta langa beherago jarri, orduan eta gehiagok.

Labur bilduz: atal honetan orain arte azaldutakoak ez du esan nahi, zenbaitetan entzutea suertatu ohi den moduan, azken mende-laurdeneko euskal eskolak ezer lortu ez duenik. Gauza asko lortu du. Honako bi gauza hauek, besteak beste: batetik, etxetik erdaldun diren neska-mutilak (adin horretako populazioaren %80 inguru) neurri batean edo bestean euskalduntzea; bestetik, etxetik euskaldun edo (gero eta sarriago) elebidun diren haurrak euskaraz (223) alfabetatzea. Harritzea da, zer aitormen txikia jaso ohi duten aurrerapauso bi horiek hainbaten ezpain-lumetan. Harrigarria da, hedadura handiko eta prezedente argirik gabeko berrikuntzak baitira bata zein bestea: bai gure artean, mendeetako perspektiba sozioedukatioan, eta bai Europa osoko hiztun-elkarte ahuldu askoren artean (224).

## VII.6. Hizkuntza ofizialen erabilera, eskola-munduan

EEN legearen asmoa euskararen *erabilera* normaltzea da. Halaxe du izenburua ere: Euskararen *Erabilera* (ez *ezaguera*, *jarrerak* edo *besterik*) Normaltzeko oinarri-legea. Bai ekola-munduari dagokionez, eta bai gizarte-bizitza bere osoan hartuta, hona EEN legeak erabiltze kontu horretaz zer dioen:

---

idatziz hainbatean moldatzen direnak. Ez baita egia azterketa edo ebaluazio bat gainditu ez dutenek, denek edo ia denek, euskaraz ez dakitenik. Hori guztia ere kontuan izan behar da, mende-laurden honetan lortutako emaitzen balantze pausatuta eta errealista egitekotan.

(222) Agiri jakin bat gainditu ez izanak ez du esan nahi, hartara aurkeztu den ikasleak euskaraz ez dakienik. Zenbat gaztek badu ahozko gaitasuna, baina idatzizkoan kamuts dabil. Bada alderantzizkorik ere: idazten hor-nonbait moldatzen den aren hitzezko jardunean du hainbat gaztek benetako traba. Gazte horiek ere, halako neurri batean, euskaraz jarduteko gai dira: ez dira inola ere ahaztu behar, balantze orekatu bat egiterakoan.

(223) Euskaraz eta gaztelaniaz alfabetatzen ditu oraingo eskola-sistemak, baina euskararena azpimarratu nahi da, hori baita *plusa*: erdaraz, aurreko sistemak ere alfabetatzen zituen

(224) Ez da kasualitatea, hiztun-elkarte horiek (eta, oro har, atzerriko adituek) euskal hezkuntza elebiduna hain ahotan izatea behin eta berriro.

Artículo 17	17. artikulua
El Gobierno (..) asegurará el uso ambiental del euskera, haciendo del mismo un vehículo de expresión normal, tanto en las actividades internas como externas y en las actuaciones y documentos administrativos (de los centros escolares).	Jaurlaritzak (..) euskal giroa ziurtatuko du, euskara [ikastetxeetako] barnenahiz kanpo-jardueretan eta administrazio-ekintza eta -dokumentuetan ohiko tresna bihurtuz.
Artículo 26	26. artikulua
Los poderes públicos vascos tomarán las medidas oportunas y los medios necesarios tendentes a fomentar el uso del euskera en todos los ámbitos de la vida social, a fin de posibilitar a los ciudadanos el desenvolvimiento en dicha lengua en las diversas actividades mercantiles, culturales, asociativas, deportivas, religiosas y cualesquiera otras.	Euskal herri-agintek neurri egokiak hartuko dituzte eta beharrezko bitartekoak jarriko gizarte-bizitzako alor guztietan euskararen erabilera sustatzeko, herritarrek salerosketako, kulturako, elkarteetako, kiroletako, erlijiozko edota beste edozein motatako jardura guztiak euskaraz garatu ahal izan ditzaten.

Lortu al da ikasleek eskolan, eta eskolatik kanpora, euskaraz (ere) egitea? Zer neurritan? Lehen baino gehiago egiten al dute? Batez ere zein kontestutan? Hizkuntza-gaitasunaren puntua konplexua baldin bada, honako hau ez da sinpleagoa. Badakigu, hasteko, jardun-esparruak eta rol-harremanak hizkuntza batera edo bestera makurtzen dutela sarri elebidunaren hizkuntza-hautua: nork ez du ikusi amari eta irakasleari eskaraz egiten dien haurrak edo gazteak bere lagunei (lagun euskaldunei), handik hamar segundora, erdara hutsean egitea? Badakigu bestelako elementu asko ere badirela tartean, eta horiek ere nabarmen eramaten dutela eskola-umeen mintzajarduna alde batera edo bestera: lagun-taldearen praktika lingustikoaz gainera funtsezkoa da, itxuraz, solaskiduen euskaltasun-maila: lagunok euskal-elebidun dira, elebidun orekatu edo erdal-elebidun?) Ez da batere erraza, hori guztia dela medio, EAEko ikasleen egungo mintzajardunaz, beren eguneroko eskola-bizitzan bereziki, zer hizkuntzaz norekin, noiz-nola eta zertarako baliatzen diren zehaztea. Hori guztia horrela izanik ere, argitasunen bat nahi litzateke.

Batzuetan batera egiten dute ikasleek (ikasle askok), eta besteetan bestera: hori da egungo egunean gero eta maizago antzeman litekeena. Noiz ordea batera, eta noiz bestera? Eta, batez ere, zergatik? Honako galdera honi erantzutea komeni da, horretarako: ikasleen ezaugarri pertsonal eta mikrosoziologikoak (situazio sozialen alorrekoak) eta makro-mailako ingurumen-baldintzak kontuan izanik, zein elementuk iragartzen du ongien EAEko ikasleen eskola-alorreko hizkuntza-erabilera antzematen den aldakortasun handia? Galdera horri erantzun artea bilatu nahian ari da Soziolinguistika Klusterra, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin hitzarturik. ARRUE proiektuaren

asmo nagusia horixe da: aldakortasun hori ongien iragartzen duten elementuak identifikatzea. Laster izatekoak dira ARRUE proiektuaren orain arteko emaitzak jendaurrean; hartara jo beza, hortaz, datu zehatzen egarri denak. Oraingoan, lehen hurbilpen gisa, honako ondorio (probisional, baina kontrastatu) hauek eskain daitezke.

Diferentea da ikasle gehienen (B eta, batez ere, D ereduko ikasleen) gela barruko eta gelaz kanpoko mintzajarduna. Gelan euskaraz egiten duen ikasle askok bietara (segun norekin ari den) edo erdaraz egiten du ikasgelatik kanpora. Situazioak (kontestuak, solaskidetzak eta gaiak) zehatz samar definitzen du gaur-gaurkoz gela barruko mintzajardnaren moldaera nagusia. Askozaz *context-free* edo berez berekoago da, aldiz, jolas-lekuko mintzajarduna. Hots, eskolako atsedean-aldietan ikasleek beraien artean ageri duten erabilera. Ikasleek eskolako jolas-lekuan euskaraz, gaztelaniaz edo bietara egiten duten neurtzerakoan, eta erabilera horren aldakortasuna goiko faktore guztiekin uztartzerakoan, orain arte ikusi denetik badirudi ondoko datuok kontuan hartze-koak direla:

- a) ikaslearen hurbileko harreman-sarea da, askogatik, bere jolaslekuko hizkuntza-erabilera ongien iragartzen duena. Orain arte egindako azterlanaren arabera hori da ikasleak jolaslekuan euskaraz edo gaztelaniaz egingo duen iragartzeko elementurik sendoena. Ikaslearen jolaslekuko mintzajarduna oso lotua dago bere taldearen hizkuntza-erabilerarekin.
- b) Taldeko erabilerak duen pisua aski ezaguna izanik, adierazle hori erregresio anizkoitzetik kanpora utziz zera ikusten da: hurbileko harreman-sareetan euskara erabiltzen duten ikasleak direla, maila indibidualean, euskaraz gehien egiten dutenak. Hurbileko harreman-sare horien artean herriko lagunetikiko erabilera, eta anai-arrebekikoa, dira ikaslearen jolaslekuko erabilerarekin lotuenik ageri diren aldagaiak.
- c) Maila indibidualean, ikaslearen hizkuntza-ezaugarrietan, bere euskarazko erraztasun erlatiboa da jolaslekuko erabilerari ongien egokitzen zaiona. Erraztasun erlatiboa, bestalde, lehen hizkuntzari lotua dago aski neurri handian. Ikaslearen idatzizko gaitasuna, berriz, bere eskola-errendimenduari eta gela barruan euskara erabiltzeko ohiturari lotua dago. Gaitasun honek berak ere, ikaslearen erraztasun erlatiboak azaltzen duenaz gain, ikaslearen jolaslekuko erabileraren zati garrantzitsu bat azaltzen du.
- d) Azterketa D ereduko ikasleen artean egin da gehienbat (beraiek osatzen dute laginaren %78). Eredua ez da, beraz, aztergai nagusi izan. Hala ere, jolaslekuko erabilerarekin duen lotura begien bistakoa da aztertutako datuetan: A ereduko ikasleen batez besteko erabilera, jolaslekuan, %0koa izan da. B eredukoena %12koa izan da eta, az-

kenik, D eredukena %68koa. Kontuz, ordea, lotura kausal errazegiak egitearekin: etxetik eta kaletik euskaldun garbi diren neska-mutilak, denak edo ia denak, D ereduan daude. Horiek beren artean euskaraz egiten dutelarik jolaslekuan, ezin liteke esan, besterik gabe, ereduagatik egiten dutenik euskaraz. Faktore biren edo gehiagoren arteko harremana gauza bat da, eta beraien arteko kausa-ondorio izaera bestea.

Gauza argi-argirik, erabateko aurkikuntzarik, nekez esan atera liteke oraingoz ikerlan zabal horretatik. Baldintzapen asko ditu orain arteko lanak, eta gaurkoz ezin da jeneralizazio handiegirik egin. Gehiago (zabalago eta, bereziki, tresneria kontzeptual sofistikatuagoz) analizatu beharrak daude ingurumen-baldintza guztiak. Pausoz pausoko lana eskatzen du horrek. Oso berrikitan hasi gara gure artean alor hau zientzia-arauz arakatzen eta urteetako lana dago aurrean, seguru asko, halako ondorio seguru samarretara iritsi ahal izateko. Lortutako emaitzak atentzio handiz aztertzea komeni da eta, azkarregi ondorio definitiborik atera gabe, zuhur jokatzuz ahalik eta informazio enpirikoki kontrastatuena eta kontzeptualki landuena osatzea.

Bere ahuldade guztiekin ere, argitasun-printzak eskaintzen hasi da ARRUE. Orain badakigu, 1977-82 urtealdian ez bezala, eskola-bide hutsak ezin duela bere baitarik eta bere hutsean, eredurik euskaldunenaz ere, belaualdi berriaren mintzajarduna nabarmenki modifikatu, are gutxiago itzulipurdikatu. Hizkuntza ahula indarberritzeko aurrebaldintzak jar ditzake eskolak, eta oso kontuan hartzekoak dira horiek. Eskola-saio horren ekarpena baino mila bider konplexuagoa da ordea mintzajardunaren gizarte-moldaera, eta konplexutasun horretan jokatzeko da gure neska-mutilen eta gazte-jendearen euskarazko jardunaren atzera-aurrera. Politago litzateke, jakina, besterik esan ahal izatea. Baina horrela dira gauzak, dakigun neurrian, hemen eta hemendik kanpora: atzerriko oinarri teoriko eta enpirikoei dagokienez ikus J. A. Fishman (1990 eta 1991), J. Edwards (1993), N. H. Hornberger (1988), N. H. Hornberger eta K. A. King (1996). Gure arteko egoeraz ikus, adibidez, J. Aldekoa eta N. Gardner (2002), J. M. Iraola (1994), P. Jauregi (2003) eta M. Zalbide (1991, 2000 eta 2002). Ebidentzia enpiriko horretatik abiatu behar da, aurrera begirako planak egiterakoan.

## **VII.7. Euskara batua eta kasuan kasuko euskalkiak eskola-munduan**

Badu EEN legeak, orain arte aipaturikoez gain, eskola-munduarekin harreman zuzena duen bestelako punturik. Euskara batuaren eta euskalkien eskola-erabilera, besteak beste. Corpus- eta acquisition-plangintzekin hain harreman hurbila duen kontu hori ere gogoan izan zen 1982an. Honela dio EEN legeak, horretaz ari delarik:

Del uso del euskera como lengua escrita oficial	Euskararen erabilera hizkuntza idatzi ofizial gisa
Artículo 30	30. artikulua
El Gobierno velará por la unificación y normalización del euskera en su condición de lengua escrita oficial común en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, sin perjuicio del respeto a los diversos dialectos, parte esencial del patrimonio cultural del País Vasco, en las zonas en que son hablados.	Jaurlaritzak euskararen batasuna eta normalizazioa begiratu du, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan idatzizko hizkuntza ofizial komunenez, Euskal Herriaren kultura-ondarearen funtsezko zati diren euskalkiei bizirik diren tokitan zor zaien begirunea gora behera.

Bistan da eskola esparruaz gainera ari dela hor legea, hitzez hitz hartuta: euskara batuaren eredu-finkapena batetik, eta lekuan lekuko aldaerei zor zaien begirunea bestetik, horiek dira artikulua horren xede nagusiak. Kontu horiek ezin dira ordea, praktikan, eskola-mundutik hain erraz disoziatu. Arauzko hizkuntza-ereduen finkapen hutsa ezer gutxitarako izaten da, hasteko, jendeak eredu hori ikasten eta, idatziz bederen, erabiltzen ez badu. Idazteredua ikasteko orduan, nahi eta nahi ez, hor dago eskola: ez da hartarako leku bakarra, inondik inora, baina bai beharrezkoa eta garrantzitsua. Nola daude beraz hezkuntza-kontuak, euskara batuari eta kasuan kasuko euskalkiei dagokienez? Nola daude idatzizko zereginetan, artikulua? xedapenak berariaz aipatzen duen moduan, eta nola hitzezko jardunean? Ikus ditzagun puntu biak, gaingiroki bada ere. Euskarazko irakaskuntza Bizkaian. Arazoak eta zenbait proposamen.

Leku egokia da hezkuntza, alde batetik, corpus-plangintzaren gai horri aurrez aurreko trataera duin, sakon eta argia emateko. Hamalau bat urte (gutxienez) eskolan daudelarik ikasleak, non hor baino aukera ederragorik euskararen idazteredu bateratua erakusteko, lantzeko eta erabiltzeko? Non leku hobirik, orobat, lekuan lekuko aldaera bizien ezaugarriak eta berezitasunak era egituratuan azaldu eta ikasleen errepertorio linguistikora hurbiltzen saiatzeko? Egin al da halakorik, mende-laurden honetan? Egiten al da? Zer bai eta zer ez?

- a) Euskara batuaren zabalkunde-lan ohargarria egin du eskolak, hogeita-bost urteotan. Ez dago dudarik, hasteko, euskara batua eta eskola-mundua oso elkarren eskutik ibili izan direla hasieratik beretik: ikus, urrutirago gabe, K. Mitxelenaren Arantzazuko txostenaren sarrerako esaldi ezaguna: «Ezinbestekoa, hil edo bizikoa, dela uste dugu euskara batasun bidean jartzea. Haur eta gazteei euskaraz irakasten baldin bazaie, eta euskaraz irakatsi behar euskara biziko baldin bada, premiazkoa da guztiei batera edo bateratsu irakastea». Aparteko lekua izan du hezkuntzak, ikuspegi hori dela-eta, euskara batuaren sorreran eta zabalkundeetan. Orain ere ez dago dudarik: euskara batuaz idazten dakiten profesional gehienak, askogatik, irakasleak dira. Irakasleak

edo, nola edo hala, hezkuntzarekin lotura profesionala dutenak (liburu-prestatzaileak, argitaratzaileak,..). 22.000 irakasle daude une honetan, EAEko irakasmila ez-unibertsitarioetan, HE2, EGA edo baliokideren bat dutenak. Horiek guztiek, normalean, kontaktu zuzena izan dute hizkuntzaren aldaera jaso, formal, idatziarekin. Eta kontaktu hori, hamarretik bederatzietan, euskara batuaren bidez edo euskara batua kontuan hartuz gertatu da. Eskola-liburuetan ere hedadura handia du euskara batuak. Pierre Broussain-en eta R. M. Azkueren garai bateko ametsa neurri zabalean bete da: badugu belaunaldi berri bat, etxeko edo eskualdeko hizkera-moldeaz gainera orotariko eta orotarako aldaera jaso-neutroa ikasi duena eta, hainbatean, erabiltzen dakiena. Ez dira ikasle guztiak (ez eta hurrik eman ere, gorago esan dugunez) egoera horretan daudenak. Milaka dira, ordea. Lehenengo aldia da gure historia ezagunean, halakorik gertatzen dena.

- b) Guztia ez da txuri-gorritzko egoera, ordea. Irabaziarekin batera, agian konturatu ere gabe, asko ari gara galtzen. Eguneroko eta lagunarteko hizkera-molde fresko naturalak berekin izan ohi duen gatza eta piperra, sinpleziaren erakarmena eta lilura, «beti honela» entzundakoaren eta «beti horrela» esandakoaren bizitasuna eta zaporea, bihotz-hunki-garrizko berba-zartada eta amets gozoenen ihes-kabirako arintasuna, indartu ordez ahultzen ari dira oro har. Galera handia da eguneroko eta lagunarteko hitz-aspertu xume, bizi eta zirrargarrien galera. Galera hori ez da konpontzen bina euroko hitz potoloak erantsiz hanhemen, hizkera-molde aseptikoaren erdian. Galera hori ez da berdintzen, orobat, orain gutxira arte hitz-labur baina sarkorrez esan izan dena jira-buelta aspergarriz «dotoretuz»: hori ez da konpontzen «Durangon» esan ordez «Durango hiri bizkaitarrean» esanaz behar denean eta, bereziki, behar ez denean. Erakutsi egin beharko luke eskolak, hitzek eta hitzartek beren lekua dutela eta hitz-forma bakarra izatea (are gutxiago hitzarte konplikatuen hautatzea) ez dela aberastasun-seinale. Eskola leku zarpaila da ordea, inon zarpailik bada, aldaeren aberastasunaz jabearazteko, hizkera sinplearen abantailak nabarmentzeko eta berba-egikera gozoa indartzeko. Ikasgelan sortzen den jardunak, gaiak hartaraturik batetik eta irakasle-rolak bultzaturik bestetik, euskara jaso (edota, gutxienez, jaso ustekoa edo jaso-asmokoa) indartu ohi du sarrien: ikasleen arteko txutxumutxu bihurri eta bihozkorretik urrutien dagoen erregistroa. Ez da konpondu ezineko kontua, baina bai konpontzen zaila eta, dakidan neurrian, orain arte ahul atentitua.

Euskaltasunaren batasun-zatikatzaille sentitu izan da euskalkia, ehun urte luzez. Euskaldunon erreperitorio linguistikoaren funtsezko osagai dela errazegi ahaztu dugu gehienok, zatikatze-arriskuaren sentiera horrek bultzaturik. Egia zentral hori ahaztu izanak, berriz, hobera ordez okerrera eraman du auzia.

Asko gara horretan errudun: ez daukagu ezinbestean ezker-eskuin begira hasi beharrik. Kostatzen ari zaigu entenditzea, «bertako euskara»-z jarduteko erraztasunik ez duen gazteak gaztelaniaz kanalizatuko dituela normalean bere baitako ametsak eta gorrotoak, ilusioak eta beldurrak. Eta hori dena gaztelaniaz kanalizatzen duen gazteak, zertarako behar du euskara? Ruffiniren teorema buruz ikasi, azterketa-egunean nola edo hala azaldu eta lehenbailehen ahazteko? Horretarako behar al genuen euskal eskola?

Hori dela-eta, hasiera-hasieratik eta aurrez aurre heldu izan zaio euskalkiak eskolan behar duen gaiari, zenbait esparrutan. Horren fruitu da, esate baterako, Euskararen Aholku Batzordearen oniritziz Hezkuntza Sailak 1982anargitara emandako gomendio-dokumentua, eskola-munduan hainbat aplikaziotarako ate praktikoa zabaldu zuena. Geroztik ere, administrazio-alorraz kanpotik besteak beste, hainbat ekarpen baliotsu egin da kontu hori oreka handiagoz lantzeko (225).

Kodifikazio aldetik aski definitutzat ematen zuen Mitxelenak, 1982an, euskara batua (Mitxelena 1982: 74-5). Kode idatzi horren zabalkunde-lana izan da, oro har, ordutik honako eginkizun nagusia. Ez dago dudarik asko egin dela euskara batua (eta, bere neurrian, bizkaiera bateratua) eskola bidez ezaugarazteko, hedatzeko eta indartzeko. Asko da ordea, oraindik, soziolinguistikaren hasi-masietatik bertatik ikasi beharra daukaguna, eskuartean dugun saioak (kasu honetan, geure erruz) porrot egingo ez badu. Behar-beharrezkoa dute gazteek euskara batua. XXI. mendean ez du euskarak bizi-esperantzarik, orotarako aldaera hori gabe. Lanean eta astialdian, supermerkatuko etiketajean eta kultura-kontsumoan, informatikako aplikazio gero eta ugariagoetan eta errotulazio publikoan, dokumentazio idatzian eta ikerketa-lanean, «denontzako» moduko aldaera bat ezinbestekoa dugu. Horrekin bakarrik jai du ordea euskarak: eguneroko mintzajardun xumeak, lekuan lekuko moldera egokituak, ehoten du hiztun-elkarteari belaunez belauneko etorkizun-aukera eskaintzen dion berba-sare posible bakarra. Horretaz jabetzen eta jabeazten jakin behar genuke guztiok, aspergarrizko produkzio «korrekto» bezain antzuan itoko ez bagara. Egia da, orobat, bai azalpen-prosaren estilo-lanketan eta terminologia teknikoaren finkapenean aurrera egin dela oro har (226). Garo-usainik eta kresal-zaporerik gabeko euskarak ez du ordea hiztun trebearen mihia nekaten, ez eta hiztungai berriarena zorrotzen. Bata eta bestea, biak behar ditugu eta bie lagundu behar lieke eskolak bidea egiten. Asko egin da, dudarik gabe, EEN legeak 30. artikuluan agindutakoaren bidetik. Baina asko dago egiteko: geure burua argitzea eta errepertorio linguistikoaren izaeraz eta garrantziaz jabetzea, hori dugu lehen eginkizuna.

(225) (Juan Martin Elexpuru, 1996; Agurtzane Elordui, 2006; Iñaki Esnaola, 2002; Juan Luis Goikoetxea, 2003; Julian Maia, 2000, 2001a eta 2001b).

(226) Eskola-munduko terminologia teknikoaren kontuaz ikus, adibidez, Zalbide 1993.



Are gehiago: dibertsifikatzen ari da erreperitorio hori, soildu ordez, azken mende-laurdenean. Euskalkiez eta euskara batuaz gainera ez euskara batutik eta ez behialako euskalkitik edaten duen bestelako euskara modu bat ari da guztion ezpain-belarrietara hedatzen, eskola-munduan eta hortik kanpora. Batez ere hizkera-molde informalean, eguneroko mintzajardunaren bizkarrezur barrenkoi-intimoena osatzen duen horretan, ari da beste euskara modu hau zabaltzen. Irakasleen eta adin batetik gorako ikasleen artean, esate baterako, erregistro formalaz kanpokoetan oso maiz entzuten dira honelakoak: «hire erantzuna *pasada* bat iruditu zaidan», «*atope* ari gaituz azterketak zuzentzen baina gaizki ibili behar diagu garaiz iristeko», «zure proposamena *enprincipio* ontzat emango nuke» eta abar. Baita beste honelakoak ere: «datorren astean ez dela eskolara agertuko esan du Txominek, *komokienokierylakosa*», «buruz argia da baina badu erabakirik ez hartzeko ohitura bat *kemetienefrito*» eta abar. Erdal makulu berrien gero eta beharreanago gara, euskara-erdaren gure arteko kontaktu-moldeak eta gure arteko *bilingual dominance configuration* nagusiak hartaraturik, eguneroko mintzajardun arruntean. Maileguzko hitzen esparru hutsetik arras urrunago doa joera hori, interferentzia modu guztiak (hotsezkoak, gramatikalak, semantikoak eta lexikalak: ikus U. Weinreich 1953) bereganatuz. Garrantzi handiko fenomeno da hori, eskola-esparruko azalpen jaso baino maizago hizkera-molde arrunta izan ohi baita gizartean zabaldu eta hurrengo belaunaldira transmititzen dena. Orain artekoan baino atentzio handiagoa eskaini beharko diogu hortaz aldaera berri «benetako» horri, EEN legeak horretaz ezer ez badio ere, euskara biziak eta euskararen biziak kezkatzen baldin bagaitu lehenik eta behin. Euskara-molde hori gutxietsi eta ez ikusiarena egitea ez da bidea. Ia huts-hutsik eskola-giroan erabiliko litzatekeen eta onenean ere eskola bidez L2 gisa transmitituko genukeen euskara ederraren miresmenetan ito nahi ez badugu, Joan Argenter-ek (2000: 111) katalanari begira iradokia duen gisa, atentzio handiagoa zor diogu *euskañol* modu horri.

## VII.8. Nafarroarekiko eta Ipar Euskal herriarekiko hezkuntza/hizkuntza harremanak

Orain arte esandako guztia EAE barrukoa da, funtsean (227). Hortik harrantzago zabaltzen da ordea Euskal herria. Gogoan izan zen funtsezko gertaera hori legea egin zenean, eta gogan izatekoa da orain ere. Honela dio 1982ko EEN legearen lehen xedapen gehigarriak:

---

(227) Hiru hizkuntza-esparru edo zonaldetan banatua dago Nafarroa, eta zonalde bakoitzak hizkuntza-trataera propioa du eskolan. Aldeak alde, lau eredu daude Nafarroako eskoletan indarrean: EAeko hirurak (A, B eta D) eta, horiezaz gainera, erdara hutsezko G (EAEn salbespen gisa aplikatzen den X). Informazio zabalagoa dago horretaz guztiaz. Ikus, adibidez, Eduardo Aldasoro 2003, M. J. Goikoetxea 1994 eta Pakita Zabaleta 2006.

DISPOSICIONES ADICIONALES	XEDAPEN GEHIGARRIAK
Primera.–El Gobierno, en el ámbito de sus competencias, establecerá vínculos culturales con aquellas instituciones o poderes que, actuando fuera del ámbito territorial de la Comunidad Autónoma, realicen actividades de investigación, protección y fomento del euskera.	Lehenengoa.–Jaurlaritzak, bere eskumenen esparruan, Autonomia Erkidegoaren lurraldetik kanpo jardunik, euskararen ikerketan, babesean eta sustapenean lan egiten duten erakunde edo agintekiko kultura harremanak bideratuko ditu.

Nafarroarekiko eta Ipar Euskal herriarekiko hezkuntza/hizkuntza harremanak azertu nahi dira, berariaz, ataltxo honetan. Hezkuntza/hizkuntza alorrean egin eta egiten al da ezer? Bai, zerbait egiten da: Hezkuntza-munduari dagokionez hogeitaka urteko harremana izan da EAEko eta Nafarroako EGA agiri-arduradunen artean. Boletinean ezarria dago lotura horren oinarria, eta normaltasunez funtzionatu du mende-laurdenez. Hain harreman espliziturik ez badu ere, EAEko NOLEGA edo ULIBARRI proiektuek batetik eta Nafarroako parez pareko ekimenek bestetik harreman zabal eta lagun-girokoa dute, orobat, aspaldidanik. Hizkuntza-trataeraren alorrean ere izana da, hain aspaldi ez dela, alde bateko eta besteko goi-arduradunen eta arduradun teknikoaren arteko lan-bilerarik. IRALeren esparruan ere izana da horrelako harreman konkreturik, behar puntualen arabera.

Goian esandako harreman horiek lotura esplizitu-formalak dira. *De facto*-zko harreman-lotura inplizituak eta informalak erantsi behar zaizkie, bestetik, erlazio formal edo instituzional horiei. Harreman-lotura inplizituotan hiru dira, nire ustez, guztien buru: a) antzeko eredu-moldaera dute Erkidego biek (A, B eta D), nahiz eta eredu bakoitzaren pisua aski diferentea izan EAEk, batetik, eta Nafarroako eskualde euskaldunak eta mistoak bestetik (228). Uste baino lotura-bide trinkoagoa dakar horrek, ele biko hezkuntzaren ikuspegi operati-boari dagokionez; b) EAEko irakasle-gai askok Nafarroan bilatua du lan-lekua, eta alderantziz; c) batean eta bestean antzeko testu-liburuak eta ikasmaterialak erabiltzen dira oro har (material berberak zenbaitetan); c) irakaslen prestakuntzarako jardunaldi askotan batera ibili ohi dira EAEko eta Nafarroako Foru Komunitateko irakasleak. Autonomia Erkidego bien arteko harreman faktuala ohargarria da beraz, hori guztia dela medio. Horrek ere bere eragina du alde bietako hezkuntza/hizkuntza harremanei dagokienez. Handia oro har, eta uste dena baino handiagoa hizkuntza-normalkuntzaren ikuspegitik: xedez eta lan-moldez, aplikazio operatiborako baliabidez eta emaitzen neurpidez aski antzekoak dira alde bateko eta besteko saioak.

Badakit zer esango zaidan: kontua bestea dela. Lege-agindua ez dela jardunaldi batean kointziditu eta, kafe-orduan, «hemengo» Jokinek «hango»

(228) Nafarroako B ereduak baditu, gainera, berariazko ezaugarriak EAEkoaren aurrez aurre.

Idoiari hau eta hori komentatzea eta, beraz, hango eta hemengo profesionalen artean nolabaiteko harreman informala *de facto* esistitzea. Beste maila bateko harreman eta adostasun-maila ofiziala eskatzen duela EEN legearen xedapen gehigarriak. Egia da hori. Alde horretatik, EEN legeak begiz jotako harremanak (gure herri honetako beste hainbat esparrutan bezala) normaldu gabe daudela esan liteke. Besterik da, jakina, normaltasun-falta horren iturburuei buruzko pertzepzioa, batzuen eta besteen artean. Are gutxiago, kausa-efektu loturabide objektiboa bilatu nahi izatea. Alferrik da, horrelakoetan, balioespen zorrotzagorik egitea.

Eta iparraldearekiko haremanez, zer? Harreman horiek ez dira, dakidan neurrian, Nafarroarekikoak bezain estuak. Izan badira, ordea, kasu honetan ere. EAEko EGA agiria eta iparraldekoa baliokide dira, esate baterako. Horrela izan dira azken hogeitabost urtean eta horrelaxe dira orain ere. Hortik gora-koetan, eskola-munduko harreman instituzional zabalagoen alor horretan, ezer gutxi dut esatekorik. Badago gure artean, ordea, kontuok argituko dizkigunik. Erramun Baxok-ek du gai horri buruzko hitzaldia, jardunaldi honetan. Bere azalpen argigarria jo dezake, beraz, gai horretaz informazio zabal eta zehatzagorik nahi duenak.

### **VIII. GIZARTE-BERRIKUNTZA, GARAPEN-NEURRIEN EZINBESTEKO HINTERGRUND**

Eskola-esparruan egin denaz eta egin gabe edo oker eginik geratu denaz balio-iritziren bat eman nahi nuke, jasotako enkargu-gonbita ere horixe bainu-en, txosten honen amaieran. Horretara pasa aurretik, gure gizarteak 1982tik hona izan duen bilakaera analizatu behar dugu. Ezinbestekoa da analisi hori, EENren garapenean egindako lana bere kontestuan situatu ahal izateko. Kontestu baterako egokia den jarduera, izan ere, desegokia gerta liteke beste baterako. Hartutako neurriak egokiak edo desegokiak izan diren juzkatzen hasi aurretik, neurri horiek zer kontestutan hartu diren jakin behar da: horixe aztertu nahi da zortzigarren atal honetan.

EEN legea ez da *vacuum* sozial isolatu eta egonkor baten gainean garatu, «hemen eta orain» aldatuz doan gizarte-moldean baizik. EAEk bizi izandako transformazio sozialen altzoan aplikatu da legea, urratsez urrats. Transformazio horien nondik norakoa, baita zenbatekoa ere, funtsezko datuak dira mendelaurden honetako garapen-neurriak ondo situatzeko. 1982ko ezaugarri demografikoak, ekonoteknikoak, soziokulturalak, politiko-operatiboak eta lurralde-antolamenduzkoak aldatuz joan dira hogeita bost urteotan: ezaugarri batzuk gutxiago aldatu dira eta besteak nabarmenago; guztietan gertatu da ordea aldaketa nabaria. Eskuarlean dugun analisirako gogoan izatekoak dira, besteak beste, 25 urteotako gizarte-berrikuntzaren ezaugarri hauek.

### **VIII.1. Bilakaera demografikoa**

1982tik honako bilakaera demografikoak hiru ezaugarri nagusi izan ditu, eskola-esparruko hizkuntza-normalkuntzaren ikuspegiari dagokionez: haur-jaiotzen erabateko jaitsiera, gazte euskaldunen emigrazioa eta atzeritarren immigrazioa. Ikus ditzagun hirurak, gain-gainetik bada ere.

#### ***VIII.1.1. Haur-jaiotzen erabateko jaitsiera***

Haur gutxi jaiotzen izan da azken hogeitabost urtean EAEn. Bikote-moldae-ran eta familia-giroan gertatu den iraultza handiaren seinale da hori (ikus goiko VI.1 atala eta beheko VIII.1.3. puntua). EEN onartu baino lehenxeago (1977-78an) hasi ziren jaiotza-kopuruak urritzen: 40.000 haur inguru jaiotzen ziren orduan eta, zenbait urtez 16.000 jaiotza eskasera jaitsi ondoan, 20.000 haur inguruan gabilta orain. Erabateko jaitsiera da hori. Ondorio zuzenak izan ditu bilakaera horrek esparru askotan. Baita hezkuntza-alorreko normalkuntza-saioan ere. EAEko populazioa zahartuz joan da oro har, eta gazteak (eskola bidez alfabetatzen eta euskalduntzen ari diren gazteak) lehen baino multzo txikiagoa bihurtu dira. Eskolaren euskalduntze-eragina, horregatik, jaiotza askorekin gerta zitekeena baino motelagoa bihurtu da gizartean (229).

#### ***VIII.1.2. Gazte euskaldunen emigrazioa***

Hamarkada luzez immigrazio-gune izan da, batez ere, EAE. Orain, aldiz, indartzen ari da emigrazioa. Gazte guztiak afektatzen ditu emigrazio horrek: bai erdaldun hutsak, bai erdal-elebidunak eta bai euskal-elebidunak. Gatozen azken multzo honetara: euskaldun gazte, alfabetatu eta erdi- edo goi-mailako ikasketak egindako asko EAetik edota Euskal herritik kanpora doa lanera: Madrilera edo Espainiako beste hainbat lekutara, Europara edo mundu zabalera. Motibo nagusia badakigu zein den: bere alorreko lan egokirik ez du hemen aurkitzen, edo hemen bilatu duen lanbideak denbora batez (normalean urtetarako) EAetik kanpora joatea eskatzen dio. Emigrazio horri EAE barruko lantoki- eta bizigune-aldaketak ekarri duena erantsi behar zaio (aurrerago, VIII.5 puntuan, helduko zaio gai horri). EAEko euskaldunen kopurua, kontzentrazioa eta dentsitatea ahultzera dator fenomeno hori. Eskola bidez hamabost edo hogeitabost urtean egindako esfortzua neutralizatu egiten du hainbatean, gauetik goizera, emigrazio ho-

---

(229) Egia da, horrekin batera, jaitsiera demografikoak erraztu egin duela, batetik, normal-kuntza-legearen aplikazioa: haur gutxiago euskaldundu eta alfabetatu behar izan denez, baliabide gutxi(xe)ago behar izan da horretarako. Beste aldetik, ordea, zaildu egin du prozesua: euskaraz ez zekiten irakasleen lanpostu-asignazioak okerrera egin izan du hainbat urtez. Horretaz guztiaz gorago hitz egin da, eta han esandakoak ez goaz hemen berritza

rrek. Doan lekuan nekez jardun ahal izango du euskaraz gazte-heldu horrek, pareja mailan edo familia-giro itxian ez bada. Ele biko eskolaren eragina ahuldu egiten du, ezinbestean, emigrazio horrek: eskolak egindakoa asko edo gutxi izan liteke (iritziak ez datoz horretan bat), baina egindakoaren zati bat «galdu» egiten da, eskola (askotan unibertsitatea) amaitu eta berehala. EEN legearen balantze orekatua egin nahi duenak kontuan izan behar du hori ere.

Fenomeno zabalago baten altzoan koka liteke, azken batean, modernizazioaren orbitako hitzun-elkarte txikien indargaltze etnolingüistiko hori: irispidez urrunagoko, jardun-esparru transetniko eta formaltasun idatzian zentratuagoko harreman-sareen indargarri izan ohi dira goi-mailako ikasbideak, oro har. Horien indargarri eta, beraz, jatoritasun etnolingüistikoaren eragozle. Ez dago hor «kanpoko etsai gaizkilearen inposizio»rik, hizkuntza-soziologiak ongi deskribatua duen *social dependency relation* delakoaren «berezko» eragina baizik. Hiritar gehienok nahi dugu gure seme-alabek ahalik eta ikasketamaila altuena eskura dezaten. Ikasketa horiek euskaraz izatea desio dugu, horrezaz gainera, gutako hainbatek. Horrela jokatzuz, seme-alaben etorkizun sozioprofesionala bermatzearekin batera hizkuntza ahulari berari mesede egiten ari garela uste izan ohi dugu eskuarki. Ebidentzia enpirikoak eta dokumentazio soziolingüistiko solbenteenak besterik dio ordea, aspaldidanik (230): aho biko ezpata da goi-mailako ikasbidea, gurea bezalako hitzun-herrien bizi-iraupenerako. Mesedegarrizko efektuez gainera kontra-eraginik ere badu bide horrek. Ez da beti erraza aurrez asmatzea, bi efektuon artean zein gertatuko den indartsuena. Interesatuena egon behar genukeenok ez gara funtsezko gertaera horretaz hain erraz konturatzun. Baina hala da, hemen eta nonahi.

Bere ondorio mingarrietako bat, guri dagokigunez, goian esandakoa da: euskaldun gazteen, bereziki ongien formaturikoen, emigrazioa eta, beraz, euskal harreman-sareekiko eta euskal hitzun-elkartearikiko deskonexio partzial edo totala. Beste ondorioetako bat honako hau da: emigratzera iritsi gabe ere gazte horietariko askok gero eta interakzio-sare erdaldunagoetan txertatu behar izatea edo, hainbaterako behar objektiborik ez izan arren, ingurumen-baldintzek gazteon jarduna erdarazko interakzio-sare horietara makurtzea. Kasu batean zein bestean, ondorioa nabarmena da: euskal eskolaren (eta, bere neurrian, euskal unibertsitatearen) hamar, hamabost edo hogeituroko esfortzua nabarmenki ahultzen eta, zenbaitetan, zeharo hutsaltzen du emigrazioak zein euskal harreman-sareekiko deskonexio domestikoak. Berrito hutsetik-edo hasi beharko dute,

---

(230) Hizkuntza-soziologia modernoaren abiaburuetako bat dugun *Language Loyalty in the United States* famatuan bada, urrutirago gabe, gertaera horren gaineko gogoeta mamitsurik (Fishman et al 1965). Geroztik ere izan da ildo horri sendo eutsi dionik: batez ere J. A. Fishman bera (ikus 1982, 1989 eta 1991; Fishman et al 1985). Hemengo egoera berria koordinatu global horietara zenbaiten hurbiltzen ari den konturatzeko ikus, bereziki, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoaren 2007ko *Programa de Contexto Económico y Reformas para el Crecimiento y el Progreso Social de Euskadi 2006-2009*. (Viceconsejería de Economía, Presupuestos y Control Económico, 2007).

kasurik hoberenean, egoera horretara iritsitako gazteek, beren bikote-bizitzan eta familia-eraketan euskal-girorik berreraiki nahi badute. Hori ez da berez euskal eskolaren porrota, euskal eskolaren emendiozko ahalmen-mugen seinalea baizik. Muga horretaz jabetzeko dugun zailtasuna ez da, orobat, gutxiestekoa.

### *VIII.1.3. Immigrazioaren goraldi berria*

1975 inguruan etenik-edo geratu zen immigrazioa, hainbat motibo zela medio. Egonkorturik-edo zirudien giroak 1982an, EEN legea onartu zenean. Aldatu egin dira kontuak, berriro: inarrosaldi sendoa izan du immigrazioak EAEn, azken hamar urtean (231). Espero izatekoa zen hori: haur gutxi sortzen denez bertan, eta koiuntura ekonomikoak lan-eskalaren beheerenerako edo esfortzu gordinenerako mailetatik aldentzeko aukera eskaini digunez bertakooi, kanpotik etorri dira bertakook bete gabe utzitako zuloa estal dezaketanak. Kanpotik etorriko dira eta, itxura guztien arabera, hala egiten segituko dute begien bistako etorkizunean.

Zer esan liteke immigrazio horretaz, hizkuntza-normalkuntzaren ikuspegi hutsetik? Balorazio bikoitza egin liteke hemen ere, argi-itzalak azpimarratuz. Immigrazioa arrisku-iturri da, batetik, euskararentzat. Aukera berria dakar berekin, bestetik. Gatozen lehenengo alorrera: arrisku erantsia izan ohi da etorkin-uholdea, hamarretik bederatzietan, euskaldunon moduko hiztun-talde ahulduentzat. Arrisku ukazina da immigrazio hori, batez ere, euskal arnasguneetako mintzajardun arruntarentzat: horrelako ingurumenetan antzematen da argien, erdaldun bat edo bi bertaratze hutsaz nolako aldaketa eragiten den ordura arte euskaraz ziharduen tabernan, harategian edota, oro har, herri-bizitzan. Samaldan etortzen badira erdaldunak, eragina nabarmenagoa da. Lehendik aski delikatu den panorama are delikatuago bihur dezake etorkinen uholde masiboak. Beste aldetik, eta hor dago immigrazioaren alde positiboa hizkuntza-normalkuntzarentzat, biharko elebidun edo eleanitz potentzialak dira egungo etorkinak eta, batez ere, beren seme-alabak: jakin ongi dakigu etorkinen euskalduntzea ez dela ezinezko fenomeno. Behin baino gehiagotan gertatu da hori lehen, gure historian, eta gero ere gertatu ezinik ez du. Euskaldun-jendearen autorregulazio soziokulturalaren neurria eta modua da, batez ere, arrisku ukazina aukera eder bihur dezakeena.

EEN legeak ez du atzerriko etorkinez aurreikuspen espresurik. Hurbile-neko kontua, euskara ikasi beharrik izango ez duten ikasleen salbuespen-klausula da: badakigu ordea klausula hori ez zela atzerriko etorkinentzat pentsatu, oso bestelako situazio trantsitorioei irteera modu bat emateko baizik.

---

(231) Errioxako, Gaztelako, Galiziako, Estremadurako edo Andaluziako etorkinei beste multzo batek hartu die oraingoan txanda: Latinoamerika, Afrika (Magreb zein Saharaz beheitia), Europaren ekialdea edo Asia: hori dute jatorria oraingo etorkin gehienek.

Hori baino trataera globalagoa, eta luzera begiragokoa, eskatzen du immigrazioak: trataera globalagoa bai eskolan, bai lan-esparruan, bai auzogintzan eta bai herri-giroko langintza gehienetan. Hanka bakarreko (eskola-bide hutsezko) interbentzioak ezin du desoreka nabarmena berdinu: gaztelania mila bider probetxugarriagoa du etorkinak, eskolak eskaintzen dion euskalduntze-saioa auzogintza bizi-emakorrean eta aurrez aurreko harreman-sareetan txertaturiko herri-langintzan oinarritu ezean. Aparteko eskakizun-baldintzak dakartza berekin, gainera, kanpotik etorri berriei edo haien seme-alabei hezteak. Eskakizun horiei eta beste hainbati erantzun nahirik ari da hezkuntza-sistema. Aurrez inork definitu gabeko ibilbidea eratzen eta osatzen ari dira EAEko eskolak, irakasleak, aholkulariak eta hezkuntza-arduradunak azken hamar urteotan. Aniztasun soziokulturala onartzen, kudeatzen eta euskarari bere lekua egin nahirik ari dira saio horretan, askotan aski era esperimentalean. EEN legeak dioenez gainera beste hainbat kontu mahai gaineratu ditu, azken urteotan, etorkinen eskolaratzeak. Horien hizkuntza-trataerak dimentsio berria erantsi dio hizkuntza-normalkuntzaren jatorrizko formulazioari.

Labur bilduz: 1982an ez bezalako koiuntura du EAEk demografia aldetik, eta koiuntura berri horrek eragin nabarmena du EEN legearen aplikazioan. Orduko egoera demolinguistikoa ahula eta zatikatua baldin bazen euskararen aldetik, nekez esan liteke oraingoa ondotoz sendoagoa denik. Egia da euskaraz (zerbait) dakitenak orduan baino gehiago direla nabarmen, baina hori ez da guztia. Orduan ez bezala aski adin-piramide itzulipurdikatua du oraingo populazioak; gazte euskaldunen emigrazioa eta atzeritarren immigrazio-uhin berria erantsi zaizkio horri. Eszenario demolinguistikoa berria eratu da mendelaurden honetan, eta eszenario horretan jardun beharko da, itxuraz, begien bistako etorkizunean. Eszenario horretan ari dira, dagoeneko, EAEko eskolak: aitzindari ere badira, hainbat kasutan, beren jarduera sozioedukatioa egoera berrira egokitzeko orduan.

## VIII.2. Bilakaera ekonoteknikoa

Labur-labur helduko diogu gai honi ere, eskola-esparruko hizkuntza-normalkuntzaren aldetik pisuzkoenak-edo diruditen elementuak azpimarratuz. Industriaren birmoldaketa sakona jasan zuen EAEk, ezaguna denez, EEN legea onartu eta handik gutxira. Bizkai-Gipuzkoetan izan zuen birmoldaketa horrek eraginik biziena. Harrez gero aurrera egin du transformazio horrek, etengabe, hiru lurraldeetan. Nolabait esateko, burdingintzaren eta burdin lanketaren jardueratik ezagutza teknologiko berrien aplikaziora bidean jarri da bertako lan-mundua. Lan-trebezien eskakizuna goitik behera aldatu da bien bitartean (232), eta eskola-munduak kontuan hartu behar izan du aldaketa sakon hori.

---

(232) Lehen ez bezala, informatikazko ezagutzak aparteko garrantzia du orain.

Lantegien (lantegi-multzoen) kokagune berriak sortu dira han eta hemen, berrikuntza ekonotekniko horren haritik: industrialdeak. Beste lan-kultura bat, beste harreman-sareak eta beste hizkuntza-konfigurazioa dakarte lan-inguru berriok berekin: gaztelaniaren presentzia jeneralizatzeaz gainera atzerri-hizkuntza bat (ingelesa) eta, zenbaitetan, beste bigarren bat osagai arrunt bihurtzen ari dira industrigune horietariko hainbat lanpostutan. Aski neurri fragmentario eta oro har periferikoan izanik ere, leku bat eskuratzen ari da euskara kontestu berri horretan. Horrekin guztiarekin kontatu beharra du eskolak, lekuz kanpo gelditu nahi ez badu.

Industria-sektorea berritzeaz gainera zerbitzu-sektorearen zabalkundea gertatu da, aski era ohargarrian, azken mende-laurdenean. Batez ere alor publikoan (Jauriaritza eta hiru Foru Aldundiak, Estatuaren Ordezkaritzak, hantemengo udalak eta erakunde autonomo publikoak zein ofizialak). Hortik kanpora ere *factum* bat da, salbuespena baino areago, zerbitzu-sektorearen zabalkundea. Jendeak ez du lehengo ofiziorik ikasten: mahai batean lan egiten dugu gero eta sarriago, ordenagailuaren aurrean. Ordenagailua, telefonia mobila, e-posta, internet eta, oro har, komunikazio-teknologia berriak leher-etzanda bizian etxeratu zaizkigu denbora gutxian: EEN legeaz geroztikako berrikuntzak dira horiek, ia ehuneko ehun. Lan-inguramendu berriaren oinarri nagusietako bat bihurtu dira berrikuntzok. Euskarari dagokionez, jarduera molde tradizionalari (aurrez aurreko mintzajardunari) harreman-bide birtual, hitzezkoaz gainera idatzizkoa, erantsi diote.

Lan-inguramendu horretan era malgu eta aldakorrean jardun ahal izateko prestatu behar du eskolak gazte-jendea. Gaztelaniazko, ingelesezko eta, zenbaitetan, euskarazko harreman-sareetan txertatu eta interaktuatzeko prestatzen du eskolak, dagoeneko, bertako gazte-jendea. Hori da arau berria, gero eta zabaldugoa. Konfigurazio berri hori nekez izan zezaketen gogoan EEN legea prestatu eta onartu zutenek. Ez haiek eta ez inork: geroztikako bilakaera ekonoteknikoa da hori, lautatik hirutan. Hizkuntzen erabilera profesionalean, lan-esparruko harreman-sareen bilakaeran, hizkuntzazko konpartimentazio soziofuntzionalaren aplikazioan eta horrek ezinbestekoa duen eskola-trataeran ondorio garrantzitsuak ditu teknologia berrien eta lan-esparruaren transformazio sakon horrek.

### VIII.3. Bilakaera soziokulturala

*Gemeinschaft*-etik *Gesellschaft*-erako transformazio sozialak aurrera jarraitu du, oro har (233). Lehendik ziztu bizian zetorren joera azeleratu eta orokortu egin da. Ondorio nabarmenak izan ditu transformazio horrek gizajen-

---

(233) Mundu zabaleko fenomeno da hori, EAEko berezitasuna baino gehiago. F. Tönnies-en jatorrizko zatibitze kontzeptualaz gainera ikus, diogunaren lekuko, Fishman (1989, 1991) eta Fishman et al (1985).



dearen eguneroko bizimoduan: sekularizazioa areagotu egin da, besteak beste, eta moda supraetnikoa (jan-edanean, janzkeran eta pop-kultura kontsumoan) indartu; turismoa eta aisialdi antolatua nabarmen zabaldu dira, eta familiaren moldaera bera errotik aldatu da. Bilakaera horrek gogor erasan du 1980 inguruko gizarte-bizitzan indarrean zegoen hainbat iritzi eta uste-sinesmen, jarrera eta balio, lehenetasun eta jokabide: hots, eguneroko bizimoduaren oinarri soziokulturala. Mende-laurdeneko bilakaera hori, eta bilakaera horrek eskola-esparruko normalkuntza-saioan eragindako hainbat ondorio, ez dira hitz bitan azaltzen errazak. Eragingarrienak diruditen elementuak seinalatuko dira hemen, soil-soilik. Has gaitezen moldaera soziokultural tradizionalan birsorkuntza-gune nagusi izandako instituzio ezagunetik: familiatik.

### ***VIII.3.1. Familiak eta ingurumen hurbilak lehen baino babes-indar ahulagoa***

Familiak eta auzoak, lagunarteak eta aurrez aurreko lan-mundu arruntak segurtatu izan du, menderik mende, euskararen belaunez belauneko transmisioa. Ikusia dugu gorago, txosten honen 1. atalean, gogor erasanik iritsi zela transmisio-bide hori 1980 ingurura. Familia gertatu ohi zen ordura arte, erdal erasanari aurre eginez, euskal belaunaldi berrien sorgune eta indargarri nagusi. Erdal eskolak ez zuen, halakoetan, familia euskaldunen hazia erabat hondatzen. Bospasei urterekin eskolara hasi arte etxean, auzoan eta herri-giro hurbilean jardun ohi zuten haur horiek elkarrekin, gurasoekin eta familiarte-koekin. Etxean izaten zen ama, etxeoandrea, goizetik gauera. Orain baino ondotoz haur gehiago jaiotzen zen orduko familietan (234). Familia zabal horietan ikasten zuten haurrek etxeoen eta auzoekin moduan hitz egiten, komunikatzen eta gizarteratzeko lehen urratsak egiten.

Bukatu da, ia erabat, familia-molde zabal eta trinko hura. Behinolako familiaren egitura eta barne-jarduera asko aldatu dira hogeita bost urteotan (235). Familia nuklearrera pasa gara erabat, oro har, eta familia monoparentalak ere ugaritzen hasi dira azken urteotan. Familia-eredu berrian aita-amak biak ari izaten dira etxetik kanpora lanean (236), maiz asko, eta umeak haur-eskolara bidaltzen dira sarri. Etxearen eta familia osoaren euskalduntze-ahalmena ahuldu egin du, oro har, berrikuntza horrek. Lehen baino pisu eta itzal txikiagoa du

---

(234) Baita 1970eko hamarkadan ere (hots, EEN legeak begien aurrean zituen ikasle-multzoen garaian). 1970 ingurutik aurrera gauzak gogor aldatzen ari baziren ere etxean egoten zen, oraindik familia askotako ama (etxeoandrea). Ama bakarrik ez: aitona-amonak edo izeba solteraren bat ere bai, hainbatetan. Familia molde horrek euskararen belaunez belauneko transmisioan izan duen garrantzia eta 1970 ingurutik honako bilakaera xeheago aztertu beharra dago: ez da hau horretarako lekua.

(235) Aldaketa handienak lehenxeago hasiak ziren zabalitzen: haur-sorkuntza eragozteko metodo berriak 1975etik aurrera; beste hainbat ohitura, balio eta jokamolde hori baino hamar-hamabost bat urte lehenago. Ikus horretaz, esate baterako, Mitxelena 1982, 73.

(236) Haurren jaiotza ondoko lehen urte(et)an izan ezik: hobeto aztertzeko kontua da hori ere.

familiak oraingo haurren eta neska-mutilen sozializazio-lanean eta euskararen belaunez belauneko transmisioan. Funtsezko gertaera da hori. Eskola etsai izanik ere euskarazko bizimoduak aurrera egiten zuen lehen, hainbat kasutan, familiak eta familiondoak euskaraz (euskara hutsean edo nagusiki euskaraz) ziharduelako eta euskarazko etxe-giro sendo hori hizkuntzaren transmisiorako behar adina oinarri gertatzen zelako. Orain ez dira horrela kontuak: nahas-eleko ezkontzak ugarituz doaz, ezkontide biak euskaldun izanik ere bietako bat (edo biak) erdal-elebidun d(ir)eneko egoerak indartzen ari dira, eta etxean daudenean erdara nagusitzen da sarri. Etxean ez daudenean, berriz, erdal komunikabideen irrupzioa oso da sarkorra seme-alaben artean, adin batetik aurrera bereziki (237).

Lehen ere familia askotan erdara nagusiturik zegoela esan dezake norbaitek. Deskribatzen ari garen gertaera hori ez dela mende-laurden honetako berritasuna eta, beraz, ez dagoela hor familia-bizitzaren euskalduntasuna ahulduz doala esateko motibo sendorik. Arrazoirik ez zaio falta, hein batean, halakorik dioenari. Ez da egia, ordea, gauzak aldatu ez direnik. Askok aldatu dira mende-laurden honetan, eta aldaketak aurrera darrai, aski ziztu bizian. Euskaldun gehienon eguneroko esperientzia biografikoa dago batetik, gertaera horren egiaz, batez ere joera horren azelerazioaz, zabal eta ozen mintzo dena. Ez dago horri ez-ikusia egiterik. Han-hemengo esperientzia biografikoei irismen zabaleko datu estatistikoak erants dakizkieke, bestetik. Fragmentarioak edo aitormen hutsezkoak izanik ere funtsezkoak dira datu estatistikook, goiko baieztapen hori enpirikoki oinarritu ahal izateko. Demolinguistikazko estatistika ofizialei beste zenbait datu erants dakiok: EGAREN urterik urteko informazio ofizial metatua batetik, eta han-hemen egindako ikersaioak, bestetik. Ikus ditzagun biak, hurrenez hurren.

### *EGAKo datuak*

EGAREN informazioa ez da iturririk makalena, euskaraz ongien-edo moldatzen diren gazteen etxe-giroko bilakaeraz ondorio artezik ateratzeko. Eskueran ditugun datuen artean fidagarrietakoak dira, ene ustez, urtero EGARA aurkezten diren milaka azterketarien ezaugarri horiek (238). Ez ditzagun, beraz, alde batera utzi. Datu horien argitan familia-bizitza (etxe-giro arrunta) eta la-

---

(237) Ikus honetaz, adibidez, P. Jauregi (2003 104). Puntu horri beste jeneralago hau erantsi behar zaio: gero eta sarriago, familiak eta gizarteak bere gain hartu ohi zituen eginbehar ugari eskolari leporatu nahi izaten zaizkio egungo egunean, hezkuntzaren soluzio-ahalmena aski mugatua dela ahaztuz behin baino gehiagotan. Ikus, esate baterako, Eli Alba 1998: 17.

(238) EGARA aurkezten diren azterketarien azalpenak kontuan izanik Euskara Zerbitzuak urtero lantzen eta banatzen duen txostenetik jasoak daude datuok. EGARA aurkezten diren azterketari gehien-gehienak 17 eta 25 urte artekoak dira. Adin-tarte horretako hamar mila gaztetik gora aurkezten dira urtero EGARA. Azterketari horiek, EGARA aurkezterakoan, informazio zehatza (aipagai duguna eta beste zenbait) eskuratzen dute, beren biografia soziolinguistikoa azalduz. Bai kopuruz, bai urterik urteko izaera metatuz eta bai datu-emileen izaera aski uniformeagatik bereziki kontuan hartzeko datuak dira horiek, nahiz eta lanketa zehatzago baten beharrean dauden.

gunarte hurbila erdaldunduz joan da, familia euskaldunetan (ez, ezinbestean, erdal-elebidunetan), azken mende-laurdenean. Zehazkiago esanik, euskara hutsezko jarduna galduz joan da EAeko etxe-giroan eta ele bikoa zabaldu da bere ordainean (239). Ondoko taulek ematen dute gertaera horren berri:

Etxean, umetan	Eskolan nola ikasi?	Etxean, orain	Lagunartean, orain
Euskaraz %34	D ereduan 67	Euskaraz %25	Euskaraz %25
Bietara %20	B ereduan 12	Bietara %26	Bietara %36
Gaztelaniaz %45	A ereduan 16	Gaztelaniaz %49	Gaztelaniaz %39
Besterik (alofonoa) %1	X ereduan 5	Besterik %0	Besterik %0

**22. taula.** EGara aurkezten diren azterketari guztien etxeko eta lagunarteko hizkera. 2007ko datuak.

Jauzi handia dago hor, etxean haurtzaroan ikasi eta egiten zen ama-hizkuntzaren eta orain egiten denaren artean (240). Etxe-giroa erdaldunduz (mintzaldutuz edo elebidunduz) joan den seinale. Hots, diglosia tradizionalaren azken gordelekua bera nabarmen ahuldu den seinale. Ahultze-lan hori ez da, gainera, osorik amaitu: aurrera darrai, aitzitik, gure begien aurrean. Urteik urtera antzematen da joera hori nagusitzen eta gotortzen, EGara datozen milaka gazteen artean. Diagnostiko horren indargarri da, ezer izatekotan, ondoko taula-pareak eskaintzen duen ebidentzia. Euskara hutsezko jarduna gainbehera dator etxe-giroan eta lagunartean, ele bikoa bere horretan-edo mantentzen da eta, bereziki, gaztelaniazkoa ari da indartzen:

	eusk	biak	gazt
2003	28	27	45
2004	27	26	47
2005	27	27	46
2006	26	26	48
2007	25	26	49

**23. taula.** EGako azterketari guztien etxeko hizkera. Urterik urteko datuak

	eusk	biak	gazt
2003	29	37	33
2004	29	36	35
2005	28	37	35
2006	27	36	37
2007	25	36	39

**24. taula.** EGako azterketari guztien lagunarteko hizkera. Urterik urteko datuak

Eginkizun dago azterlan zehatzago hori, oraingoz, eta emaitzak aldatu egin ditzake zertxobait. Ez dut uste, ordea, erabat aldatuko dituenik.

(239) Gurasoen eta aitona-amonen presentzia ahultzeaz gainera bestelako eragin-bideak agertu dira etxe barnean: erdal komunikabideak (telebista etab.) besteak beste.

(240) Kontuz hartzekoak badira ere horrelako aitormenak, ez dira funtsik gabeak. Kontura gaitzen etxetik euskaldunenak direla, sarri, 17 urterekin edo handik gutxira EGara aurkezten diren gehienak. Datu hori bat letorke, besterik agertzen ez den artean, beren aitormen horrekin. Kontuan izatekoak dira gorago aipatu ditugun hedadura handia eta urterik urteko errepikapen aski uniformeak ere.

Norbaitek esan dezake, eta ez arrazoirik gabe, lagin desegokiaren distortsio-efektua izan litekeela hori. EGARA aurkezten diren pertsonen perfil soziolinguistikoa aldatzen ari dela urteen joanean eta justu horrexegatik agertzen direla bilakaera-seinale horiek. EGARA ez dira, hasteko, eskolatik irten berriak bakarrik aurkezten eta ez da arrazoizkoa 25 urte, 30, 35, 40 edo gehiago dituzten azterketariak kontuan hartzea, eskolaren eta eskola-ondoaren eraginaz ari bagara. Ezin da arrasto berean sartu, gainera, etxe euskaldun-euskaldunetako bilakaera eta lehendik erabat edo nagusiki erdaldundurik zeuden familietakoa. Etxe euskaldunetako datuetan zentratu behar dugu, bere joeraz hitz egin ahal izateko. Egia da hori guztia: EGAdun guztien multzoa aukeratu badago arriskua, jeneralizaio okerrik egiteko. Saia gaitzen, hortaz, bi distortsio-iturri potentzial horiek saihesten. Har dezagun, batetik, soil-soilik 17 eta 20 urte arteko azterketari-multzoa, EGARA aurkezten diren gainerako guztiak kanpoan utziz. Zentra gaitzen, bestetik, etxetik euskaldunenak diren gazteen azpimultzoan. Landurik dauden estatistiketan EGAdunek (ez EGARA aurkezten diren guztiak, azterketa hori gaintitzen dutenek baizik) betetzen dituzte ongien bi baldintzok. Ikus dezagun beraz «etxe euskaldunen»etako azterketari gazte horiekin zer gertatzen den. Zer diote datu ofizialek, EGA gaintitzen duten 17 eta 20 urte arteko gazteez? Har dezagun, adibidez, 2006ko EAE osoko informazioa. Ondoko taulak ematen digu gazte-multzo horren azalpena:

Etxean, umetan	Eskolan nola ikasi?	Etxean, orain	Lagunartean, orain
Euskaraz %69	D ereduan 94	Euskaraz %57	Euskaraz %58
Bietara %17	B ereduan 5	Bietara %25	Bietara %28
Gaztelaniaz %14	A ereduan 1	Gaztelaniaz %18	Gaztelaniaz %14

**25. taula.** 2006an EGA gaintitu duten 17 eta 20 urte arteko gazteen ezaugarri soziolinguistikoak

22. taulan esandakoa orpoz orpo kunplitzen da azpimultzo honetan ere: hamarretik 7 inguruk euskaraz (euskara hutsean edo nagusiki euskaraz) egiten zuen etxean, ume-garaian, eta ehunetik 94k D ereduan ikasi du eskolan. Orain, ordea, %57k bakarrik egiten du etxean euskaraz, eta %58k lagunartean. Bietara egiten dutenak, aldiz, nabarmen ugari dira. Hots, diglosiarik gabe gelditzen ari gara (241): menderik mendeko diglosiaren azken gaztelua, etxea eta lagunarte hurbila, begien bistan indargabetzen, ahultzen eta galtzen ari zaigu azken urteotan. Ondorio berbera atera liteke EGAdun berrien urterik urteko estatistika ofizialetatik. Berriro ere 17 eta 20 urte arteko gazteetara mugatuz analisia, hona azken bost urteotako emaitzak.

(241) Badakit, ondo asko, gure artean nagusi dabilen esaeraren guztiz kontrakoa dela esaldi hori. Datuen argitan ez dago ordea besterik esaterik, non eta *trenari hegazkin* eta *hegazkinari tren* esaten segitu nahi ez dugun.

	Etxean umetan zenbatek euskaraz?	Eskolan zenbatek D ereduan ikasi?	Etxean orain zenbatek euskaraz?	Lagunartean orain zenbatek euskaraz?
2003	%68	%93	%56	%57
2004	%67	%94	%54	%53
2005	%65	%94	%53	%52
2006	%64	%93	%51	%51
2007	%62	%93	%51	%49

**26. taula.** 17 eta 20 urte arteko EGAdunen ezaugarri soziolinguistikoen bilakaera

Aski etxe euskalduneko gazteak dira 17 eta 20 urte arteko EGAdun berriok. Gaur egun EAEn sortzen ari den belaunaldi gazte euskaldunena osatzen dute, hor nonbait: umetan euskaraz egin izan dute gehienek (242), eta ia guztiak D ereduan ikasitakoak dira. EAeko gazteriarren segmentu euskaldunena osatzen dute beraz, oro har. Zer gertatzen da segmentu euskaldun horrekin? Etxean euskaraz ikasi eta hizkuntza hori bakarrik (edo nagusiki hori) erabili izan zuten gazteen portzentajea behera doa, batetik: hori da datu deigarria, gutxiegitan aintzakotzat hartzen dena. Horren haritik dator, hainbatean, bigarren ondorioa: familian zein lagunartean *orain* euskaraz egiten duten gazte EGAdunen portzentajea ere behera doa. Lehen ondorioa bezain funtsezkoa da bigarren hau. Aldaketa hori ez da ezinbestean, halere, egungo egunekoa bakarrik. Lehendik, 15 edo 20 urte aurreragotik, dator: oraingo EGAdun berrion ume-garaian joana da etxe-giroa eraldatuntzen; gero berrion behertantz jauzi egin badute ere, hasieratik (orain dela hamabost-hogei urtetik) dator euskarazko jardunaren ahultze-joera hori (243). Daturik ezean ezin esan dezakegu noiz hasia den fenomeno (244). Nolanahi ere, gure begien aurrean gertatzen ari den joera zabala da hori, itxura guztien arabera. Goian (populazio zabalagoari buruz) esandakoa konfirmatu egiten du joera horrek: familia eta hurbileko ingurumen euskaldunenetan atzeraka doa, halako neurri batean, euskarazko (euskara hutsezko) bizi-giroa. Datu garrantzitsua da hori, EEN legearen balioespen linguistiko zentzuzkorik egin nahi bada. Oso kontuan hartzekoa da hori eskolaren euskalduntze-ahalmen osabetezkoa baldin badugu gogoan, ez nolabaiteko «euskal berniza». Etxean eta lagunartean erdaraz jardunaz nekez atera dezake eskolak euskaldun (euskal elebidun edo elebidun orekatu) askorik. Erdal elebidunen eragina, berriz, badakizu zein den euskarazko jardunerako mugatua.

(242) L1 euskara duten gazteen batez besteko portzentajea %20-25ekoa da EAEn, gaur egun.

(243) Horren bermagarri da, ukazio baino areago, Lasarte-Oriako gazteez J. M. Iraolak idatzia (Iraola, 1994).

(244) Uste izatekoa da orain dela 25 urte ere indarrean egongo zela.

*Erdara nagusiturik den kale-giroko datuak: Lasarteko gazteen mintzajarduna*

Aski etxe euskaldunetik (nahiz eta urtetik urtera erdaldunagotik) datozen gazteen mintzajarduna azaldu da goiko taula horietan. EAEko gazte gehienak ez dira ordea hain etxe- eta kale-giro euskaldunekoak. Beste ingurumen batean jaiok eta haziak dira EAEko gazte gehienak: erdara zeharo nagusi den etxe- eta kale-giroan sortu, hazi eta heziak. Zer ari da kale-giro erdal-nagusi horretan gertatzen? Ez dugu eskueran, estatistikoki landurik, ingurumen horri aurrez aurre erantzungo liokeen EGAKo daturik. Bada, ordea, horrelako zenbait hirigunetan berariaz egindako azterketarik: Lasarteko informazioa da, agian, guztietan landuena, sistematizatuena eta fidagarriena. Lasarteko<sup>13</sup> eta 24 urte arteko gazteen azterketa soziolinguistikoa eginik du Pello Jauregik 2002an (Jauregi 2003), hamar bat urte lehenago Joxemiel Iraolak leku eta xede-multzo berean (Iraola 1994) egindakoaren ildotik. Bere ondorio batzuk argigarriak dira oso eta, besterik frogatzen ez den artean, Lasarteren antzeko kontestu soziolinguistikoetara (ez, inola ere, EAEko hirigune guztietara) jeneralizagarriak direla pentsa liteke lehen hipotesi moduan. Horra Lasarteko zenbait ezaugarri:

- a) behera ordeaz gora egin du zerbait (%7,7), Lasarten, euskara hutsezko jardunak; gora gehien egin duena erdara hutsezko jarduna da ordea (%15,8). Tarteko nahas-egoerak, aldiz, bakandu egin dira.
- b) Aldiz segmentazioa beste era batera (EGAren tauletako irizpideekin hurbilago dagoen moduan) egiten bada, ondorioak honako hauek dira: beti edo gehienetan euskaraz egiten duten gazteen portzentajea %6,5 hazi da, eta beti edo gehienetan erdaraz egiten dutenena %4,5.

EGAdunen artean ez bezalako populazioa dugu hor aztergai: EGAdunena baino ondotoz erdaldunagoa. Etxetik erdaldun edo erdal-elebidun dira Lasarteko gazte gehienak. Euskara etxean eta lagunartean lehendik aski ahuldurik zegoen bertan. Ingurumen horretan euskarazko jardunak ez du erabat atzera egin. Izatekotan indartzen ari da, ez ahultzen, beti edo gehienetan euskaraz egiteko jokabidea. Euskararen aldeko fenomenoak gertatu da hortaz, itxuraz, Lasarteko familia erdaldun berri ugartan: umetako lehen hizkuntza ezkontide batek edo biek erdara izana duten gazteez osaturiko bikote berriak seme-alabei euskaraz egiten saiatzen dira hainbat kasutan: beraiek izan zuten baino etxegiro euskaldunagoa eratzen ahalegintzen ari dira. Aski mugatua izanik ere, eta Lasarteko datuak noranahi ezin jeneraliza balitezke ere, funtsezkoa da fenomeno berri hori.

Balantze global gisa zera esan liteke, agian: arnaguneetako eta, oro har, harreman-sare euskaldun sendoenetako bizi-giroa erdaldundu egin da batez bestean. Etxeak eta lagunarteak, belaunaldi gazteen ingurumen hurbilak oro har, gero eta zailtasun-neke handiagoa du euskarari eguneroko mintzajardun aruntean bizirik eusteko. Hori dela medio aurrerabidea egin du erdaraz ingu-

rumen horretan. Lehen baino ahulagoa da gaur eguneko familia euskalduna, bere euskaltasun hori etxean eta familiartean bizirik gordetzeko eta belaunaldi berriei indar betean transmititzeko. Euskarak mendez mende bere baitan izan duen transmisio-bide nagusietako bat ahuldu egin da, indartu ordez, azken mende-laurdenean. Aldiz familia erdaldun edo erdal-elebidun zenbaitetan goranzko joera nabari da: euskarazko edo ele biko jarduna indartzekoa. Eskolak aparteko eragina izan du buru-jasotze horretan. Buru-jasotze partziala da hori, ez erabatekoa: erdara nagusi da Lasarten eta bere antzeko giroetan, etxeko eta lagunarteko harremani dagokienean. Baina gora bideko joera ageri da hor. Agian gertatzen ari dena, EAE betre osoan hartuta da, berdintze modu bat da: eskualde, jardun-esparru eta harreman-sare euskaldunenak erdalduntzen ari dira eta erdaldunenak euskalduntzen. Iguazio modu baten aurrean gaude oro har. Horrela esanik enpate moduko emaitza bat iradoki liteke, agian. Ez dira horrela kontuak, ordea: Lasarteko kale-giroan egin litekeen (itxuraz egiten ari den aurrerakada horrek ezin du berdindu euskararen transmisio-leku ohikoan gertatzen ari den atzerakada: ez du hartarako behar adina indar.

Kontuan hartzekoa da, azkenik, mende-laurden honetan familia-giroan gertatu den batez besteko ohitura soziokultural berria: lehen etxeokak ziren obligazioak instituzio publikoei leporatzekoa. Atzerriko beste hainbat lekutan bezala, familiaren soziokulturazko hainbat erantzukizun-ardura eskolari leporatzen zaizkio orain. Baita hizkuntza kontua ere: eskolak egin behar du, ikuspegi horren arabera, etxeak egiten ez duena. Senar-emazteek erdaraz egin dezakete lasai, beraien artean (eta, adin batetik aurrera, seme-alabekin), eta eskolak konponduko du etxeko defizit hori. Ahaztu egiten da, halakoetan, gurasoen garrantzia zentrala dela hizkuntzaren belaunez belauneko transmisioan eta familia-giroan, auzoan, lagunarte hurbilean eta herri-giroan oro har ezin ordezkatzeko eginkizuna duela: eginkizun hori zentrala dela haurren sozializazio-lanean eta euskaltasunaren transmisioan. Ikusmolde berri horrek joera nabarmena du, egia zentral hori baztertzeko eta, horren ordez, hizkuntza ahula babesteko (are indarberritzeko) saioaren karga osoa eskolaren bizkarre-ra botatzeko. Karga-arduren ikuspegi orekatu eta konpartituagoa ezinbestekoa da, eskola bidezko saioak ondoren onik izango baldin badu: bai haurren eskolaketan eta bai, oro har, gazteen eta helduen euskalduntze-lanean (245).

### ***VIII.3.2. Sekularizazioa indar betean***

Topiko akademiko-popularrak besterik badio ere, eliza eta euskara ez dira eskuz esku ibili sarri. Eliza ez da, hainbat kasutan, euskararen babes-leku irmo eta iraunkorra izan. Are gutxiago eskolatze-esparruan, idatzizko jardunean eta

---

(245) Familiaren, ingurumenaren eta eskola-euskaltegien arteko lotura-bide soziolinguistikoez ikus, besteak beste, V. K. Edwards eta L. Pritchard Newcombe (2003 eta 2005).

goi-mailako jardun-gune eta harreman-sare formaletan (246). Diglosiazko konpartimentazio soziofuntzionala onartu eta indartu izan du erlijio-esparruak, menderik mende. Diglosiaren indargarri eta gordeleku izan den neurrian «bere lekua» aitortu izan dio elizak euskarari, batez ere euskaldun garbiz (zer esanik ez euskaldun elebakar hutsez) osaturiko ingurumenetan. Euskarazko arnasguneetan, bereziki, erlijio-bizipenak eta kristau-fedeak lotura nabarmena izan du euskarazko bizi-moduarekin. Uste-sinesmen eta balio-iritzi sakonenetan txertaturik egon izan da erlijio-bizipen hori. Bere emaria argi islatu izan du eguneroko hizketan: «kristauak hori egin!» edo «kristandadeak ez du halakorik agintzen» modukoak hitzetik hortzera ibili izan dira orain gutxira arte. Euskaldunen pentsamoldean ez ezik gizarte-bizitza osoaren ohiko egikeretan ere presente egon izan da kristautasunaren eta euskarazko bizimoduaren arteko lotura hori: bataio eta ezkontza, komunio eta hileta-elizkizun, gabon-festa eta herriko jai-ospakizun, euskarazko herri-bizitzaren agerleku eta indargarri izan dira maiz. Hots, euskararen aterpe eta babesgarri gertatu izan dira eliza, erlijio-bizitza eta kristau-fedeak euskaldun askoren artean. Gainbehera bizian zetorren lotura hori lehenagotiki (247). Presentzia zabala zuen ordea erlijio-sinesmenak eta kristau-bideak 1970 eta 1980 artean, euskaldun-jendearen artean: batez ere adin batetik gorakoen artean.

Gainbeherako joerak aurrera egin du eta gauzak areagotu egin dira ordu-tik hona. Hirurogeiko hamarkadan hasi eta 1980ra arte sekularizazioak urrats handiak egin zituen gure artean. Orduan hasitako bideari jarraipen snedoa eman zaio gero. Sekularizazioa, hori dela-eta, nabarmenkiro gailendu da azken mende-laurden honetan: bai pentsaeraz, bai hitzez eta bai egitez. Rikardo Arregik goiz asko iragarritako moduan (Torrealdai arg. 1972), *euskaldun=fe-dedun* ekuazioa hautsi eta birrindu egin da nabarmen, gazte-jendearen eta euskaldun eskolatuaren (irakasleen) artean bereziki. Astero elizara joateari utzi egin dio euskal gizarteak, aski neurri ohargarrian. Horrekin batera, elizaren inguruan ospatu ohi ziren ekitaldi zibiko eta jai-ospakizunak (euskarazko jarduera jaso-formalenetatik hasi eta erromerietaraino) moteldu egin dira. Behera egin du alde horretatik, ez gora, bizimodu tradizionalaren euskarazko eliz osaera etnolinguistikoak. Erlijio-gaien kontsumo kultural idatzia ere erori egin da, erabat, gainbehera horrekin batera (248).

Kopuruz eta indarrez 1980tik hona garatu den euskal eskolarentzat ondo-rio nabarmena izan du sekularizazioak: eliz giroan ondu eta zabalduak

---

(246) Apaizgaien prestaera profesionalean, esate baterako, oso leku mugatua izan du euskarak 1950 ingurura arte. Garai zaharragoetara bagoaz, berriz, are defizit linguistiko nabarmenagoen berri ematen zaigu behin eta berriro: herritarrekin (are pulpitutik) euskaraz ezinean ari izaten ziren elizgizonak bitxikeria bakonetik oso urrun dagoen *factum* soziala osatzen zuten.

(247) Apaizgaitegiak eta komentuetao fraide-eskolak garai-inguru hartan hustu ziren nabarmen.

(248) Erlijio- eta teologia-liburuek 1976tik aurrera izandako gainbeheraz ikus Torrealdai (1997: 56-7). Edizioak oro kontuan hartuta, liburu horiek produkzioaren %25,2 osatzen zuten 1936-75 epean. 1976-94 epean, berriz, euskarazko argitalpenen %3,1.



euskara jasoaren gainbehera gertatu da batetik; gizarte sekularizatu horretan euskarazko harreman-sare, interakzio-molde eta situazio komunikatibo berriak eratu eta indartzea zaildu egin da bestetik. Ohiko euskara jasoaren galerarena begien bistan dago: elizako predikua izana da, 1980 ingurura arteko hainbat guraso eta haurrentzat, esparru formaleko euskara «on»aren eredu. Jendarteko eta jendaurreko erabilera zainduaz hizkuntza-errepertorioaren lagungarri gerta zitekeen hizkera-molde jaso hori ezin izan du elizak herri-bizitzan indarrean gorde; ez lehengo neurrian behintzat. Atzera egin da alde horretatik, aurrera ordez, belaunaldi berrien euskal girotze edo euskalduntze-lanean. Eskolako lau hormetatik kanpora nekez bilatzen du oraingo ikasleak, oro har, idatzizko eta ahozko hizkuntza landuaren erreferente zabalik. Lehen baino bakardade handiagoan utzi du atzerapauso horrek eskola. Zaildu egin du bere lana, EEN legeak dioena txukun bete ahal izateko: eskolaren zeregin nagusietako bat ikasleak euskaraz ondo alfabetatzea baldin bada, eskolatik kanpora euskaldun gazteek halako hizkera-molderik (ia) inon entzuteko aukerarik ez izateak (249) ahuldu egiten du eskola-saioaren etekina. Errazegi ahazten dugu atzerantzko fenomeno hori eta bere eskola-eragina.

### *VIII.3.3. Aisialdi antolatua eta turismoaren zabalkundea*

Aisialdi antolatuak (250) eta turismoak zabalkunde handia izan dute mende-laurden honetan. Hitzunen ohituretan eragin bizia dute horiek: lehen ez bezalako ingurumenetan mugitzea eskatzen dute askotan, euskaraz ez dakiten edo erdaraz diharduten solaskideekin jardutea eta etxe-giroan ikasitako kontsumo kulturala bestelakotzea. Erdarazko aisialdi- edo turismo-sareetan osatzen den jardunak esperientzia aberasgarri askotarako ateak zabaltzen ditu sarri. Hori bakarrik ez: euskarazko kontsumo kulturalerako aukerak (denbora, dirua eta baliabide materialak) murriztu egiten ditu bide batez. Filme bat (normalean erdaraz) ikusteko astero Lazkaotik Donostiara jaisten den lagun-taldeak denbora eta diru gutxixeago izan ohi du eskueran, euskarazko eleberriak irakurtzeko edo euskal kantaldietara joateko. Modernitateak berekin dakartzan kultura-kontsumoaren aukera gehienak erdaraz datoz: gaztelaniaz gehienak eta (rock-kontzertuetan adibidez) ingelesez zenbait.

Orain dela hogeita bost urte neska-mutilek eta bereziki gazteek familian eta auzoan, lagunarte hurbilean eta herri-giro arruntean murgildurik pasatzen

---

(249) Telebistako euskara «beste zerbaite» da, hamarretik bederatzietan: euskara jasoaren eredu murrizta jaso dezakete bertatik haurrek eta gazteek. Eredu zuzen-egokia bai, hainbatetan, eta hori ez da gutxi. Baina etxetik eta eskolatik aski murriztua daukaten beren hizkera-sorta hori aldaera landu-formalaz osatzeko modukorik nekez.

(250) Tartean sartzen dira zine- eta bideo-emanaldiak, informatika-ikastaro basiko eta espezializatuak, musika- eta dantza-saioak, aste-bukaeretako txango antolatuak, artearen edo gastronomiaren inguruko bisitaldiak, espezialitate-alor askotako kirol-lanketa eta abar.

zituzten ordu asko. Harreman-sare berrietan (aisialdi antolatuan, turismoan) sartzen dituzte, orain, ordu horietariko asko. Harreman-sare eta jardun-gune horietako hizkera (halaberharrez, konbentzio sozialez edo talde barneko aukeraz) erdara den heinean, euskal eskolaren ahulgarrri da turismoaren eta aisialdi antolatuaren eskaintza berria. EEN legea onartu zenean ez zitzaion gai horri asko erreparatu. Gaur ezinbestekoa da: hori gabe kamutsa da eskolaren ahalmena, euskaldun biziak sortzekoa.

#### ***VIII.3.4. Atzerria etxean: ingelesaren irrupzioa***

Azken mende-laurdeneko bilakaera soziokulturalak osagai asko ditu. Horiatariko bat, ez txikiena, ingelesaren irrupzioa. Atzerri-hizkuntzek aspaldidanik izan dute beren presentzia gure artean: batez ere frantsesa izana da, X. medearen 60ko hamarkadara arte, hemengo atzerri-hizkuntza nagusia. Ordutik hona ingelesak hartu du gidaritzza, eskolan eta gizarte-bizitzan. Bere lekua indartu eta errotu egin da goi-mailako ikasketa alorrean, ikerketa-munduan eta teknologian, komunikabideetan, musikan eta gainerako pop-kultura masiboan, turismoan eta kontsumo-produktu eta moda-zerbitzu anitzetan. *Additional language* edo osagarritzko hizkuntza bihurtzen ari zaigu ingelesa, Europako erdi-iparraldean (Beneluxen eta, batez ere Herbehereetan eta herrialde eskandinabioetan) azken berrogei urtean gertatutako bilakaeraren haritik. Funtzio batzuetan ohiko, eta zenbaitetan ezinbesteko, hizkuntza bihurtzen ari da ingelesa. Bere inpaktua izan du horrek guztiak, ezinbestean, gure arteko euskararderen egoeran: bere lekua irabazten ari da ingelesa, bietako baten edo bien kaltean. Leku-irabazte horrek ordura arteko hizkuntzen (kasu askotan, gaztelaniaren) funtzio-esparrua birmoldatzea dakar. Ez ordea, inola ere, gaztelaniatik ingeleserako *language shift* edo mintzaldaketa luze-zabalekoa.

Kontu horiek direla medio eleaniztasuna indartuz doa EAEn. Motibo sendoak daude, gainera, aurrerantzean joera hori indartu egingo dela uste izateko. Mundu osoko fenomeno baten aurrean gaude, alde batetik, eta gure arteko gertakari sakonagoaren aurrean bestetik. Ahuldutako hiztun-herri txikiok LWCKo hiztun-herri handiek (ingelesak, hispanoek, txinoek, errusiarrek,..) baino behar handiagoa dugu oro har. Gure eskolak kontuan izan behar ditu ezaugari horiek eta hartara egokitzen saiatu behar du. Tove Skutnabb-Kangas-en hitzetan esateko «the fewer speakers a language has, the more necessary it is for the children to become high-level multilinguals, in order to be able to obtain the basic necessities needed for survival. The mother tongue is needed for psychological, cognitive, and spritual survival – cultural rights. All other languages, including an official language of the state in which the children live, are needed for social, economic, political and civil rights. A child must be able to speak to parents, familiy, and relatives, to know who she is, to acquire skills in thinking, analyzing, and evaluating. The mother tongue(s) is (are) vital for this. Further education, job prospects, and the ability to par-

ticipate in the wider society require other languages. Thus high levels of multilingualism must be one of the goals of proper education (Tove Skutnabb-Kangas, 1991: 58 in Robert Phillipson (arg.), 2000:11). Euskara eta gaztelania zaintzeko eta lantzeko mandatua eman zitzaion eskolari, orain mendelaurden: bitik hirura (zenbaitetan laura) pasa da, bien bitartean, zaindu eta landu beharreko hizkuntzen katalogoa.

#### **VIII.4. Bilakaera politiko-operatiboa**

Labur-labur helduko diogu gai honi ere. Hizkuntza-normalkuntzaren eskola-esparrurako oinarrizkoak diruditen elementuak seinalatuko ditugu huts-hutsik. Hots, gizartearen bilakaera politiko-operatiboak eta hizkuntza-normalkuntzak ditzen konexioak azalduko ditugu labur-labur. Hizkuntza-normalkuntza ez da izan ere, zenbaitek nahi lukeen moduan, jarduera ideologikoki neutrala, *value-free* modukoa. Ez zen horrela lehen, EEN legea onartu zenean, eta ez da orain ere. Lotura-bide horietan, berriz, hainbat gauza dira azpimarragarri: bai beren izaera estrukturalgatik eta bai, bereziki, 1982tik hona izan duten bilakaeragatik. Has gaitezen errazenetik: sistema autonomikoaren ezaugarri nagusi bitatik.

##### **VIII.4.1. Sistema autonomiko kontsolidatua, egonezin kronikoaz**

Sistema autonomikoa kontsolidatu egin da EAEko eskola-munduan, mende-laurden honetan. Gasteizko Legebiltzarrak ezartzen eta onartzen ditu urtero, ez Madrilgo Gorte-etxeak, hezkuntzarako aurrekontuak. Eusko Jaurlaritzak ordaintzen ditu, ez Espainiako Gobernu Zentralak, bai sektore publikoan eta bai pribatu-kontzertatuan lanean ari diren irakasleen soldatak. Gasteizko Hezkuntza Sailari egiten zaio kexu, ez Madrilgo *Ministerio de Educación y Ciencia*-ri, eskola kontuan zerbait oker dabilenean edota nahi bezain zerbitzu egokia jasotzen ez denean. Hezkuntza Sailak onartzen ditu eskolarako euskal ikasmaterialak, eta diruz laguntzen. Bera arduratzen da irakasleen kontratazioaz (sektore publikoan) eta hobekuntzaz (GARATU eta IRALE bidez). Curriculumaren zati ohargarri baten definizioa Autonomia Erkidegoaren esku dago. EAEko hezkuntza-politikaren gidaritza hauteskunde autonomikoetan sortutako gehiengo-moldaeraz antolatzen da, eta bere jessio administratiboa Lakuatik bideratzen. Hezkuntza-munduko hizkuntza-politika basikoa, orenen buru, marko konstituzional-autonomikoaren baitan finkaturik dago. Ezin ukatuzko kontsolidazioa erantsi dio horrek guztiak EAEko sistema autonomikoari oro har eta bertako hezkuntza molde elebidunari bereziki.

Egonezin handiko kontsolidazioa da, ordea, goiko hori. Konfrontazio-giro bortitzean murgildurik dago, urtea joan eta urtea etorri, 1978-79an abian jarritako prozesu soziopolitiko. Formulazio antagonikoetarako bide ematen du

mende-laurden osoko eta egungo konfrontazio-giro horrek. Gauzak burubiko poloetara laburtzea sinplifikazio handiegia bada ere, bistan da alde bietako insatisfakzio-zantzuak ageri direla egungo egunean eta zantzu horiek polo bi horietan islatzen direla argien.

Estatuak EAERI 1978-82 epean eskumen gehiegi entregatu ziola uste du bi polo-korronte horietariko batek. Eskumen horiek berreskuratu artean ez dugu onik izango, bere esanean. Euskararen izenean edozein atropello egiten da eskoletan. Haurren garapen kognitibo-akademikoa gogor baldintzatzen da oraingo sistema nagusiaz, irakasleen (batez ere euskaraz ez dakiten maisu-maistren) lan-eskubideak hankapean hartzen dira, bakezko bizikidetzeta eta egia zientifikoa edo objektibotasun historikoa itzulipurdikatu egiten dira ikasmaterialen bidez eta, ororen buru, «garbiketa etnolinguistikoa» egin nahia nagusitzen ari da. Kontuak horrela segitzen badu, gaztelaniak berak desagertzeko arriskua du gure artetik. Labur bilduz: entregatutako eskumen horiek gaizki jestionatzen dira; eskumen edukatibo zabalen jestio molde autonomiko honek ondorio kaltegarriak ditu. Kalte horiek azpimarratzea da ikuspegi honen *modus operandi* nagusietako bat. Bestea, berriz, hezkuntza-hizkuntza kontuan Madrillgo botere zentrala berrindartzea. «Zenbat eta berariazko eskumen gutxiago EAEEK, hobe».

Gatozen beste polora. Euskal herriak eskumen gutxiegi eskuratu zuen, bere esanean, Franco hil ondoan. Euskal herria bera, hasteko, itxuratxarki zokoratu zen bere osotasunezko izaera soziokultural eta historikoan, EAE «artifizial» baten izenean. Orduan jasotako eskumen-apur horiekin ezin da, bestalde, ganorazko esparru politikorik eraiki eta, esparru beregain hori gabe, alferrik da euskararen eta euskal kulturaren defentsan jardutea: erdal munduak jan egingo gaitu nahi eta ez. Sistema autonomikoak ez ditu gutxienezko garapen-garantiak eskaintzen, eta sistema hori defenditzea iruzur egitea da: euskaltzale-jende fina enganiatu nahi izatea, bost koartoren truke. Sistema autonomiko honek (hainbaten ustez, ez honek eta ez bestek) ez du balio: euskarak eta euskal kulturak orain ez bezalako prominentzia izango duten marko politiko berria eskuratu behar da, eta euskara jaun eta jabe (edo nabarmen nagusi) izango den hezkuntza-sistema eratu. Horra, lbur-labur, bigarren pentsa- eta ekin-molde honen arrasto nagusia.

Ez dira bi polo horiek, inondik inora, indarrean dauden bakarrak. Kopuruz nagusi ere ez, ezinbestean. Tarte-bitarteko formulazioak ugari dira aitzitik. Mende-laurdeneko ibiliari eta hauteskunde-emaitzei erreparatzen bazaie, tarte-bitarteko formulek erakarmen-indar handia izan dute eta, orain ere, hala luke-tela pentsa liteke. Isilago egoteak ez du esan nahi, honetan ere, argudioz ahulago edo argudiorik gabe egotea. Batak ez du bestea kentzen, ordea. Tentsio-egoera nabarian murgildurik bizi da EAEEKo hezkuntza-sistema elebiduna. Euskara-erdarek, eta beraiei asoziatu-rikokulturek, izan behar duten leku eta itzala sistema autonomikoaren eztabaidagai gordin bihurturik daude. Ez da hori bakarrik, inondik inora, autonomia-bidearen eztabaida-gune baka-

rra. Bai, ordea, egonezin kroniko horren iturburuetako bat. EEN legeak ez du lortu, oinarritzko eztabaida hori gainditzea.

Ezintasun hori estrukturala edo berezkoa da, hein batean. Beste lekuetan ere, European zein mundu zabalean, aski ezaguna da hizkuntza-plangintza, den modukoa dela ere, istilu-iturri izan litekeela eta maiz aski halaxe izaten dela. Ez istilu-iturri bakarrik (bestela ez luke inork hartara joko), baina hori ere bai. Gauza bitxia da hori, ondo pentsatzen jarrita: hizkuntza-plangintzaren jatorrizko ikuspegia *problem-solving* da. Hizkuntz(ar)en gizarte-arazoren bat konpontzeko aplikatu nahi izaten da hizkuntza-plangintza, bai *corpus* eta bai *status* alorrean. Problema konpontzeko sortu ohi den dispositiboa nolatan bihurtzen da han-hemen, lautatik hirutan, problema-iturri? Halaxe da ordea: «once again, pro-active defense appears to be problem causing in addition to (or rather than only) problem solving» (Fishman in Phillipson 2000: 26). Kenneth McRae-k ere argi azaldua du, behin eta berriro, era bateko zein besteko hizkuntza-politiken istilu-potentzialitatea (McRae 1975, 1983, 1986 eta 1997). Ez gara gu bakarrik, hortaz, gaitz horrek jota gaudenak. *Personality principle* delakoan oinarrituriko hizkuntza-politikak ez dira, bere esanean, istilu-arrisku txikienekoak.

Egonezin hori aldatuz joan da mende-laurden honetan, bai intentsitatez eta bai orientazioz. Intentsitateari dagokionez, egonezina areagotu egin da alor batzuetan, itxuraz, eta besteetan arindu. Zerikusi zuzena izan du horretan EEN legearen garapen-mailak eta erritmoak: une batean oso konfrontazio-iturri handia zen puntu bat (irakaspostuetako hizkuntza-eskakizuna, batez ere HE2, esate baterako) arindu egin da orain, sektore publikoan bereziki, irakasleen %80 inguruk gaitasun-maila hori egiaztatu duelarik. Aitzitik beste bi kontu (eredu-aukera eta ikasleek azkenik lortu beharreko euskara-maila), lehen aski bidenabar tratatu ohi zirenak, egungo tentsio-gune nagusi bihurtu dira. Orientazioari dagokionez, berriz, gogoan izatekoa da gizarteak urte hauen joanean bere aukera ideologiko hobetsietan agertu duen bilakaera. Hizkuntza-normal-kuntza eta hauteskunde emaitzak ez dira korrelazio lineal hutsez juzkatze-koak, baina zeharo lokabeak direnik ere nekez inork baieztatu dezake. Hurrengo puntuan heldu nahi zaio orientazio kontuen bilakaerari, xeheago.

#### **VIII.4.2. Formulazio ideologikoen bilakaera**

Euskarari *bere lekua* ematearen aldeko planteamenduak nagusitu ziren 1977tik 1982ra arteko epean, Konstituzioa, Autonomia Estatutua eta EEN legea onartu eta indarrean jarri zirenean. Biziko bazen hiztun gehiago behar zituen bertako hizkuntza ahulduak, batetik; jardungune eta harreman-sare gehiagotarako sarbidea ziurtatu behar zitzaion, bestetik. Indarberritu egin behar zen euskarazko jarduna, ez neutral-itxurako *laissez-faire* politika aplikatu; are gutxiago ahuldutako hizkuntza baztertu eta debekatu. Bere lekua berreskuratu

behar zitzaion euskarari EAEn (garai hartako azalpenetan, maizago, Hego Euskal herri osoan). Argi zehaztu gabe egon arren, adostasun zabala zegoen berreskuratze-lanaren oinarritzko izaera horretaz. Mitxelenaen 1982ko pasarte hau ez da, ezinbestean, orduko gogo-giro nagusiaren erakuskari okerrera: «la vida de una lengua pequeña sobre aislada, hablada por añadidura por una población que en parte la conoce y en parte la ignora, plantea problemas delicados. Nada se consigue sin entusiasmo y sin esfuerzo, pero nada puede hacer las veces de una prudente previsión. Sobre el papel, y acaso también en la realidad, parece que la clave estaría en encontrar un *locus*, un nicho o hueco al que se consiguiera adaptarla.» (Mitxelena, 1982: 75). Lagundu egin behar zitzaion euskarari, *berekasa moldatzen utzi* ordeaz, zenbait esparru eta hainbat hiztun-multzo irabazten. Zer esparru eta zer hiztun-multzo ordeaz?

Alde handiak zeuden, batzuen eta besteen artean, euskarari «bere lekua» emate horrek izan behar zuen neurriaz eta abiaduraz. Batzuen ustez berehala hartu behar ziren neurriak, eta neurri horiek jeneralak izan behar zuten: EAEn esparru fisiko-geografiko osoan aplikatu behar ziren, ezarpen-eremu soziofuntzional guztietara hedatuz berreskurapen-saioa. Beste batzuentzat, aldiz, aparteko presarik gabe egin behar ziren gauzak, euskararen aldeko eskaria bizi-bizirik zegoen lekuetan aplikatuz, beti ere oso kontuan izanik euskararen kanpo- eta barne-mugak (251). Euskarari «bere lekua» emateko orduan garbi zegoen, nolahi ere, eskolaren garrantzia. Lehentasunezko esparrua zen hezkuntza. Estatu osoan bazegoen halako adostasun bat, ele biko hezkuntza moldearen alde. Bultzatu egin behar zen, ez toleratu edo onartu bakarrik, euskararen lekua eskola-munduan eta, oro har, gizarte-bizitzan. Lehengo okerrera «erreparazio historikoa» egitea ere aipatu zen une batez, estatuaren instantzia gorenetatik. Hizkuntza zen horrelakoetan, dudarik gabe, onbideratu beharreko elementu nagusietako bat. Normaldu egin behar zen gizartean, hemen eta estatuko beste hainbat herrialdetan, bertako hizkuntzen erabilera. Hizkuntza-normalkuntzaren konstruktua, herrialde katalanetan sortua, aukeratu zen onbideratze-lan horretarako oinarri gisa. Hortik sortu ziren euskararen (katalanaren, gailegoaren...) erabilera normaltzeko legeak. Oinarritzko adostasun-giro horretan sortu zen EEN legea: eztabaida handiz detaileko eta ez hain detaileko gauza askotan (252), baina oinarritzko adostasun-giro zabal (ez erabateko) batean (253).

---

(251) Bigarren multzo horren bozemaile kualifikatu gertatu zen Adolfo Suarez presidentea, «no se pueden impartir clases de química nuclear (sic) en euskera» esan zuenean. Euskara eta goi-mailako irakaskuntza bateraezinak zireneko iritzia oso atzetik zetorren, are Unamunoren 1901eko ateraldiaz aurretik.

(252) Alde horien zenbatekoaz eta izaeraz jabetzeko ikus, bereziki, Legebiltzarrean izandako eztabaida guzti-guztien eta legearen tramitazio-bide osoaren berri ematen duen argitalpen hau: Eusko Legebiltzarrak / Parlamento Vasco 1991: *Ley Básica de Normalización del Uso del Euskera*. Gasteiz, Eusko Legebiltzarra.

(253) Erabateko adostasunik ez izate horrek salbuespen bat zuen argia eta gogorra: gaztelaniaren supraordinazio juridikoa ontzat eman ez eta Euskal herri euskaldun (ahal balitz euskara hutsezko) baten paradigmatari eusten zioten hiritar eta iritzi-sortzaileena.

Askotxo aldatu dira iritziak eta formulazio ideologikoak, ordutik hona. Alde guztietatik aldatu ere (254). Has gaitezen euskaltzale-munduarekin. Garai hartan EEN legearen alde (ez, behintzat, nabarmen kontra) zegoen hainbat euskaltzale instituzionalistak ez du orain uste, bide hura zuzena denik. Hizkuntza-normalkuntzaren esparruan jasotako fruituak ez dira orduan esan, adostu edo amets egindakoak, eta desajuste argi horren konponbidea lege hobe batek bakarrik ekar dezakeela uste du. Bidelagun ditu, oraingoan, 1982ko legearen konponbide hartan sinesten ez zuen hainbat euskaltzale. Hauen argudio-bidea ere ez da antzematen zaila: «esaten genuen guk, EENren bide horrek ez zuela balio: denborak arrazoi eman digu. Kostata, baina azkenean onartu duzue oker zenbiltzatela!» Tartean gelditzen da, jakina, ez bat eta ez beste dioen euskaltzale-multzoa: euskararen ajeak lege kontuan baino ondotoz ituri ugariagotan (tartean, indarrean dagoen legeriaz egindako erabilera konkretuan) ikusten duena eta, hortaz, bere irtenbideak ere perspektiba zabalago horretatik planteatzen dituena. Zail da, egungo egunean, hiru multzo horietatik nor gailentzen ari den esatea. Egon hor daude ordea hirurak. Hori da gauza seguru bakarra: bibliografia eta, bereziki, hemerrotekak lekuko.

Euskaltzale mundutik kanpora ere aldakuntza ohargarriak gertatu dira, bai EAEn eta bai Estatu osoan. Gatozen zabaletik konkretura. Garai bateko onarpen soziala, gai honi buruzkoan, nekez esan liteke indartu egin denik hizkuntza propiorik ez duten Espainiako herrialdeetan. Bukatu ziren, aspaldi, hasierako erreparazio-formula haiek. Indartu den ikuspegia argi antzematen da oro har: badugu lege-markoa, Konstituzioak eta Autonomia Estatutuek zedarritzatua, eta marko horrek seinalatzen du joko-esparru zehatza. Hortik aurrera (ikuspegi autonomikotik, ez zentraletik, aurrera) ezin da pausorik txikiena

(254) Aldaketa horiek loturarik balukete, neurritz eta joeraz erraz zehazteko gauza ez bada ere, aukera politikoen orduko eta oraingo indar-banaketarekin. 1982tik hona aldaketa ohargarria izan du Eusko Legebiltzarrak, bere osaceran eta aulki-banaketan. Osaerari dagokionez hirurogei aulki ziren orduan, eta hirurogeita hamabost dira orain. Banaketari dagokionez, berriz, honako bilakaera gertatu da mende-laurdenean:

Legebiltzarreko indar-banaketa 1982an			Legebiltzarreko indar-banaketa 2007an		
taldea	boto %	aulkiak	taldea	boto %	aulkiak
EAJ	38,1	25	EAJ+EA	38,67	29
HB	16,55	11	PSE-EE	22,68	18
PSE	14,21	9	PP	17,4	15
EE	9,82	6	EHAK	12,44	9
UCD	8,52	6	EB	5,37	3
AP	4,77	2	ARALAR	2,33	1
EPK	4,02	1			

27. taula. Indar-banaketaren bilakaera

eman. Harantzago ere iritsi da iritzi-esparru horietariko zenbait, bere formula-zioetan: Konstituzio-garaian urrutiegi joan zen Estaturia, hainbat eskumen (tartean hezkuntza) Autonomia Erkidegoei eskuratzerakoan. Estatura itzuli behar lirateke eskumen horiek, partez edo osoz. Are gehiago dioenik ere bada tartean: instantzia publikoetatik (Autonomia Erkidegoetatik zein Estatuaren agintaritzatik) ez da pausorik eman behar, hizkuntzak (praktikan: gaztelaniaz besteko hizkuntza horiek) babesteko. Horra, hainbat bueltaren ondoan, berriro ere aspaldiko paradigma zaharra zenbaiten gogoan: *laissez faire*, *the survival of the fittest*; azken- azkenean, munduko hainbat lekutako glotopolitika zahar eta berrik hain berea duen *oihaneko legearen* tentazioa (Fishman, 1991).

Ez da hori, itxura guztien arabera, iritzi nagusia; ez estatu guztian eta ez, bereziki, EAEko euskaltzale mundutik kanpora. Badago azken multzo honetan, halere, 1982an nekez antzeman ziteken desadostasun edo atsekabe-giro zabal- la, oso gogan izan beharrekoa: eraman den bideak atentzio, baliabide eta es- fortzu gehiegi eskaini dio euskarari, bere ustean, eta euskaraz ez dakitenak kaltean ateratzen dira. Hezkuntza-mundua izango da, seguru asko, iritzi horren agerleku argiena. Irakasle (edo irakasle-nahi) erdaldunen kontrakoa da EEN legearen aplikazioz egin dena: euskaldunak primatzen ditu eta erdaldunak baztertzen, nahiz eta azken hauen artean irakaskuntzarako doai apartak dituen profesional asko egon. Euskara bultzatu beharraren beharraz, *taliban* lingu- stiko bihurturik dago euskaltzale zenbait. Ez kalean bakarrik: baita herri-diru- peko soldatadunen artean ere. Demasia da oraingo bide hori.

Ohargarria da, alde horretatik, mende-laurden honetan gertatu den aldakun- tza nagusia: hizkuntza-normalkuntzaren kontzeptua bera auzitan dago orain, orduan ez bezala (255). Hitza eta esangura tabu bihurtu da urteen buruan, hainbat iritzi-guneren ahotan. Tabu bihurtu da eta, zenbaitetan, hizkuntza-nor- malkuntzaren 1982ko konstruktua bera auziperatu egin du hainbatek. Auzipe- ratze hori eragin duten faktoreak ez dira, soil-soilik, hizkuntza-plangintzaren alorrekoak. Are gutxiago eskola-esparruko hizkuntza-plangintzari dagozkionak. Eskolaketaz eta eskola bidezko euskalduntze-bidez ari garenean ez gara asko- tan esparru horretako hizkuntza-politikaz bakarrik ari, horren oinarrian dagoen beste zerbaitez baizik. Euskal herriaz (bere osaera etnokulturalaz, lurralde-he- daduraz eta aurrera begirako formulazio operatiboaz) batzuek eta besteok ditu- gun iritzi diferente eta kontrajarrien errainu dira, hainbatean, desadostasun hor- iek. Beste alde batetik, kontsiderazio pragmatikoagoen eragina erantsi behar zaio ikuspegi etnoproiektibo horri: hizkuntza-normalkuntza horrek, aurrera doakeen neurrian, norberaren eta bere ingurukoaren gizarte-status-ea, gorabideko mugikortasun sozialean eta (irakasle edo irakasle-gai erdaldunen kasuan bere- ziki) lan-espektatibetan izan ditzakeen ondorio konkretuak lehen baino begien bistanago agertzen dira orain, eta «agraziatu»en zein «damnifikatu»en zerrendak

---

(255) Nafarroarako ikus, esate baterako, Xabier Erizeren: «El discurso contrario a la “normalización” de la lengua en Navarra» (Erize 2001).



zabalduz eta nabarmenduz doaz ureen harian. Argudio-bide pragmatiko horiek ez dute goragoko kontsiderazio etnoproiektiboek baino eragin txikiagoa, benetan zer-nolako gizarte moldea nahi dugun zehazteko orduan. Motibo batek zein besteak leku berera garamatza hortaz. Batzuek eta besteok buruan dugun etorkizuneko gizartean euskara-erdarek zer leku behar luketen, eta horretarako nolako eskola modua nahi dugun, egungo eztabaidaren muintetako bat bihurturik dago. Mitxelenaren 1982ko esaera, «parece que la clave estaría en encontrar un locus, un nicho o hueco al que se consiguiera adaptarla» hura, ez da zehazten eta, batez ere, adosten asmatu. Ez da asmatu eta orain, hobera orde, okerrera egin du gizarte-bizitzako eztabaida-giro ideologiko horrek.

Argi dago, beraz, hainbat lorpen ohargarri eskuratzeaz gainera insatisfakzio handi samarra sortu duela EEN legeak, alde batetik eta bestetik. Gutxi dira, han-hemen publikatzen eta esaten denari kasu egin nahi bazaio, oraingo egoerarekin asebeterik daudenak. Insatisfakzio-giro horrek gero eta pisu handiagoa hartu du. Bertako mundu akademiko-intelektualak eta zenbait protoelite euskaltzalek zein euskal detraktorek hizkuntza-politikazko formulazio ideologikoetan (formulazio horien bilakaeran) izan duten eragina ez da gutxiestekoa. 1982ko paradigmen defendatzaile sendo, jendaurrekoak urritu egin dira, oro har. Aldiz, paradigma horrekin gustura ez daudenak (gutxiegi delako, gehiegi delako, funtsetik okerra delako edo gaizki aplikatu/aplikatzen delako) ugaritu (256).

#### VIII.4.3. Euskara irabazpide

Lehen ez bezala (lehen baino nabarmenago, behintzat), euskaraz jakitea eta gizarte-eskalan gora egiteko aukerak zabaltzea elkarren eskutik doaz orain,

---

(256) Gutxiegi dela diotenen kasuan handik mende-laurdena ere legea praktikan (eta osorik) bete ez izana, hori da gaur egun, lehen ez bezala, maizenik entzuten edo irakurtzen den abiaburua. Aldeak daude hor ere, batzuen eta besteen artean: baina legea betetzeko gai ez izana, eta horretarako «marko berri» bat behar izatea, hori da lelo nagusia. Gehiegi dela diotenen kasuan ere badira aldeak, beren artean. Horrela,

- a) ezinezko bidean barrena goazela dio pentsaera batek: *contra naturako* saio bat dela EEN legeak berekin dakarrena. Nahi izanda ere, euskarak ez du horrenbestera ematen». Berezko eta ezin gaituzko ezintasun-mugak ditu 1982ko proiektu elebidunak: asmoz eta jakitez zuhur jardun arren, gaituzko ezin izango diren eragozpen-mugak.
- b) eskola bidezko elebitasuna eskuragarria da EAEn, baina desegokia ere bai. Luze-zabaleko gizarte-aldakuntza eskatzen du euskarazko (edota euskarak presentzia zabala izango duen) hezkuntza moldeak, eta aldakuntza hori ez da mesedegarri. Gizartearen etorkizuna eta, batez ere, bertako hiritarren (batez ere erdalduen elebakarren) askatasun indibiduala oztapatzen ari da. Konpartimentazio etniko estu-itogarriak gaituzko dituen elebakartasun zabalean (gizarte bakoitzak historiaren ondorio hutsez «bere» duen ele bakarrean) oinarrituriko eskola da, berez, formulazio normal, egoki eta desiragarria.

Bide bat zein beste hartu, azken helburua asmatzen ez da oso zaila: ahaztu ditzagun hizkuntza txikien kontuak eta bizi gaitzeen lasai, gizartea bere osoan hartuta, guztiona bihurturik dugun hizkuntza handiaren magal erosoan! Gero, hortik aurrera eta maila indibidualean, nahi duenak nahi duena egin beza.

askoren ustean (257). Ikusmolde horrek bere pisua du B eta, batez ere, D ereduaren etengabeko zabalkundean. Seme-alabak eskolatik «ongi horniturik» ateratzea nahi dute gurasoek (baita guraso erdaldunek ere) eta, eredu horiek (batez ere D ereduak) hornikuntza konpletoagoa eskaintzen dutela sentitzen dutenez, hara bidaltzen ere dituzte gero eta neurri zabalagoan. Egia al da euskarak lagundu egiten duela gero, eskola-aldia amaitu ondoan, gizarte-eskalan gora egiten? Zer neurritan laguntzen du, baiezkotan? Zer neurritan da lagungarri huts, eta zer neurritan ezinbesteko baldintza?

Ez dago dudarik administrazioan oro har, eta hezkuntza-sisteman bereziki, irabazpide dela gaur euskara. Batez ere hezkuntza-munduan antzematen da hori nabarmen: gero eta irakasle-plaza gutxiagotara irits liteke orain hiritarra, hitzez eta idatziz euskaraz badakiela frogatu gabe (258). Beste zenbait esparrutan ere (komunikabideetan, kultura munduan, aisialdiko ekimenetan) bere eragina du fenomeno horrek. Ez da harrizkoa, alde horretatik, gurasoen hobespén-formula.

Euskararen beharrian sozialaren ikuspegi nagusi horrek ere kontestazio nabarmena du, ordea, egungo gizartearen. Gaztelania aski dutelarik hazi eta hezitako belaunaldi osoek aski nolabaiteko jarreraz «irensten» dute ikuspegi euskaltzale hori. Beren arrazoibidea ez da asmatzen hain zaila: «erdaraz hain ondo baldin badakigu guztiok edo gehien-gehienok, zergatik bizia konplikatu? Zergatik, batez ere, gure bizia konplikatu?» Beste kontiu bat erantsi behar zaio horri: konplikazio-tasaren bat onartzeko prest daudenek ere errazago onartzen dute euskararen garrantzia eta beharkizun soziala «oro har» ari direnean, «niri edo nire familiari» eragiten dionean baino. Irakasleen hizkuntza-eskakizunen azken hamabost urteko historia ikusi besterik ez dago: euskaratik lan-aukera galtzeko arriskuan dauden profesionalen, eta beren aldekoen, jarrerak ezin esplizituagoak izan ohi dira. Komunikabideen esanean «neurritz kanpoko beharkizuna» eta «inposizioa» dira sarri, halakoan artean, hitzik erabilienak.

Labur bilduz: egia da euskaraz jakitea *plus* bat dela egungo egunean, EAEn. Lanpostu bat eskuratzeko orduan irabazpide osagarria da hainbat kasutan, eta ezinbesteko baldintza zenbaitetan. Analisi xeheagoa behar litzateke halere, berrikuntza horren zenbatekoaz eta abiaduraz jabetzeko. Ikuspegi so-

---

(257) Ikusmolde horrek bere pisua izan du, nire ustez, B eta batez ere D ereduaren etengabeko zabalkundean. Eskolatik «ongi horniturik» atera nahi dituzte gurasoek (baita guraso erdaldunek ere) beren seme-alabak.

(258) Lanera sartu ondoren eskatu zaio irakasle askori, azken 25 urtean, euskaraz jakitea. Aldiz azken urteotan, gisakoa denez, lanera sartu aurretik eskatzen da elebidun trebe izatea. Sentido komunak hala agintzeaz gainera horretara behartzen du EEN legeak berak, irakasle-eskolen alorrean emana daukan aginduaz. Irakasle gehienek partez edo osoz euskaraz jardun behar dute, eta irakasle-eskolek irakasle-gai euskaldunak sorteko agindu legala jasoa badute orain dela 25 urte, zer sentidu du irakasle erdaldun elebakarrak kontratatzen jarraitzea? IRALE programaren ahalmenak eta mugak ongi samar ezagutzen dituenak nekez bide hori betierekotzea gomenda dezake.

ziologikotik argi dagoena zera da, nolana ere: gaztelania ezinbesteko baldintza dela EAEn edozein lanpostutara (zer esanik ez erdi- eta goi-mailako edozein kargutara) iristeko eta postu horretan lan egin ahal izateko; %100eko beharkizuna da hori, *de facto*. Euskararen beharkizuna partziala da, aldiz, eta intentsitatez zein aplikazio-abiaduraz modulatu. Ikuspegi politiko-operatibotik, are argiagoa da hizkuntza bien arteko tartea. Zeinahi eszenario definitzen dela ere begien bistako etorkizunean, beharrezko eta lagungarriko hizkuntza izango da gaztelania. Aldiz, euskararekin gauzak ez dira horrela: mendelaurden honetan eskuratu duen beharrezkotasuna hezkuntza-munduan bakarrik da pisuzkoa, eta horrezaz gainera mundu horretan bertan (eta are argiago administrazioan, komunikabide publikoetan eta abar) duen beharkizuna aldian aldiko bilakaera politikoaren araberakoa izan litekeela sentitzen du jendeak. Bai batzuek eta bai bestiek. Halako prekario-kutsua ematen dio horrek euskararen irabazpide-izaerari: «gaur bai baina bihar ez jakin, segun hauteskondeek zer dioten». Bi aldeetara eragiten du ezegonkortasun horrek: «gehiegi amore eman» dela sentitzen dutenek hor ikusten dute, suerte piska batekin, galdutako esparrua berriz irabazteko aukera; lortu dena gutxiegi dela sentitzen dutenek, berriz, hasitako bidean «aurrera gogor» (orain arte baino gogorrago) egiteko beharra sentitzen dute. Liskar-gatazka giroa du, hori guztia dela medio, euskararen irabazpideak berekin.

### VIII.5. Lurralde-antolamenduaren bilakaera

Aginte-esparru gehienetako elementu nagusi bihurtu da lurralde-antolamendua, mende-laurden honetan: Udal eta Foru Aldundi, Jaurlaritza eta Gobernu Zentral, gero eta lurralde-antolatzaile konszienteago bihurtu dira guztiak. Komunikazio-bide eta lotune berrien konfigurazio espazialak, zabor-hondakinen jectioak eta, oro har, ekologiaren baldintza-eskakizunak, etxegintza masiboak eta turismo-ustiapenak lehen mailako garrantzia eman diote lurralde-antolamenduari. Eskuaratean dugun gaiarekin ere lotura zuzena du: hizkuntza-politikaren lehen-lehen mailako elementu bihurturik dago lurralde-antolamendua. Komeni da, horregatik, ikuspegi hori ere kontuan izatea.

#### VIII.5.1. Bide-sare berritua

Bide berriak zabaldu dira han-hemen, eta lehengoak hobetu. Distantzia fisikoa laburtu egin da sarri. Halakorik gertatu ez denean ere, distantzia «funtzionala» nabarmen murriztu da: kilometroak lehengoak izanik ere lehen baino errazago, eta askoz denbora gutxiagoan, iristen zara orain leku batetik bestera. Baita lekurik izkutuenera ere: errepide nagusietatik, hirietatik eta industrigrune handietatik isolatuena zeuden herriak, herriak eta mendi-zokondoak aski eskueran gelditu dira. Alde handia dago 1982ko errepideetatik

2007koetara. Egunero Donostiatik Gasteiza joan-etorrian gabiltzanok ondo dakigu hori. Kontuak ez dira, bestalde, hor amaitu: aireportuak jende- eta karga-trafiko handiagorako egokitu dira, eta itsasportuak karga-deskarga ero-soagorako egokitu. Ondorio nabarmena izan du horrek guztiak hiritarren mobilitatean, autoen proliferazioan eta garraio-sistema zabal eta malguagoen antolamenduan.

### ***VIII.5.2. Hiriak gainezka egin du eta kanpora irten da***

Gainezka egin du hiriak, lekuz kabitu ezinik eta prezioen igoerak eragirik. Mende-laurden osoko fenomenoa izan bada ere hori (259), azken hamar urteak gertatu dira gogorrenak. Orain gutxira arte baso eta zelai, larre eta baratz zirenak hirigune bihurtzen ari gara: hiri-hiri edo bizigune berezi (zona residencial direlakoak), baina natura hutsaz aparteko lur-sail interbenitu. Hirigintzaren inarrosaldi bizi hori ez da hiri-barnera eta hiri-ingurura mugatu: auzo osoak eta landa-etxe berriak eraiki dira ugari, banaka edo multzoka, ordura arte hiritik urruti zeuden herri-herrixka isolatuenetan ere (ikus Gipeko Olaberri edo Mutiloa, esate baterako). Herri-herrixketako bizimodua urbanizatu egin da ia zeharo. Baserrietakoa ere bai, askotan: orain baserrian bizi den familia asko ez da baserrietik bizi, ez partez eta ez osoz. Txalet isolatuaren alternatiba funtzional bihurtu da baserri asko, azken urteotan: hiriko estandarretan bizi da jendea, hiritik kanpora ere.

### ***VIII.5.3. Industriaren kokaera berria***

Kokagune berriak bilatu zaizkie lantegiei. Hiritik edo herritik kanpora joan da industria edo zerbitzu-enpresa asko. Industrialdeak, merkatalguneak, zentro logistikoak eta teknologia-parkeak sortu dira han-hemen: horiek dira lan-munduaren eta zerbitzu-eskaintza berriaren paradigma. Egunaren zati on bat lanean pasatzen dugunez helduok, lan-gune berriok eta bertgako interakzio moldea gero eta garrantzi handiagokoak dira euskara-erdaren erabilera-eskeman. Normala da orain, lehen ez bezala, egunean zortzi ordu zure alboan dituzun lankideak 100 Kmko tartetik etorriak izatea. Euskarazko lan-taldeen homogeneotasun-aukerak ahuldu egiten ditu horrek sarri. Euskalki berekoen artekoak are nabarmenago erasaten ditu. Lanean euskaraz egin nahi duenak berak ez bezala hitz egiten duen euskaldun-jendearekin jardun behar du gero eta maizago, eta selektiboa izan behar du maiz bere solaskidetzan. Ez da hori oso lan erraza, ezin gaingiduzkoa ez bada ere.

---

(259) Kasu honetan ere atzerago joan behar litzateke, fenomeno horren abiaburuaz hitz egiteko. Ez da hau ordea lekua, zehaztasun horietan sartzeko.

#### **VIII.5.4. Harreman-sare berriak**

Motz geldituko ginateke aurreko aipamen horiek, lurralde-antolamenduaren mende-laurdeneko berrikuntza bere dimentsio fisiko-geografikora mugatuko bagenu soil-soilik. Dimentsio birtuala, ikus-entzunezko komunikabideen leher-etzandak eta IKTen garapen biziak berekin dakartena, oso kon-tuan hartu behar da orobat. Telebista-kate bi ziren erdaraz, 1982an EEN legea onartu zenean (260). Hamarnaka dira orain, eta ingelesezko edo beste atzerri-hizkuntzetako hainbat aukera erantsi behar zaizkio gaztelaniazko kate-eskaintza ugari horri. Internetek eta bestelako lotura-bide informatikoez erabat za-baldu dute gainera, azken mende-laurden honetan, harreman-sare birtualen mundua. Jendeak telefonoz, telegrafoz, eskutitzez eta, pasiboki, irratiz edo liburuz gaindi zezakeen 1982an, normalean, aurrez aurreko harreman-aukera fisikoa. Orain, aldiz, erruz zabaldu da handik harako interkonexio-aukera eta mundu zabaleko lotura moldea. Telefonía mobilak, emailak eta internet-ek sekulako iraultza eragin dute mende-laurden honetan. Aho biko ezpata dira lotura-bide berriok gurea bezalako hizkuntzentzat.

Aurrez aurreko harreman-sare baliagarri zirenak ahuldu egin ditu, alde batetik, lotura-bide berri honek. Euskaraz (euskara hutsean) nekez atera zaitezke gizartera, are gutxiago mundu zabalera, solaskide erdaldunekin honetaz edo hartaz jardutera. Lotura-bide berriok hori dakarte, berriz, hainbatean: zuk zeuk erdal munduarekin jardun beharra, batetik, eta erdal mundua etxekotzea, bestetik. Erdal mundua etxekotzen ari garen heinean, auzolagun euskaldunak selektiboki isolatzen ari gara gutxi-asko: gai honetaz edo hartaz diharduten solaskideekin, ez hurbilen bizi direnekin, jarduteko aukera zabaltzen digute harreman-sare berriek, eta aukera paregabe horretaz gero eta maizago baliatzen gara. Batean sartzen dugun denbora, jakina, bestearen kaltean izaten da. Distantzia fisikoak eta harreman-sare lokalak indarra galdu dute hori dela medio, eta urrunez urrunekoek inoiz ez bezalako lehentasuna eskuratu mende-laurden honetan.

Dena ez da galera izan, ordea, hor ere: euskaldunon dentsitate fisiko-territorialean izandako galera etengabea berdindu edo orekatu egin dute, hainbatean, telefono mobilak, euskarazko irrati-telebistek, egunkari-aldizkariak, emailak eta internetek. Elkarrengandik urruti eta banandurik egon arren euskaraz egiten jarrai dezakegu orain, teknologia berriei esker. Laguntza-bide ohargarria da hori gurea bezain ahuldutako hizkuntzentzat: harreman-sare berriok euskaraz eratzeko eta euskaraz baliatzeko erraztasuna ematen du horrekin guztiak. Baita eskola-giroko neska-mutilen artean ere: txateatzeko orduan balegoke aukera, esate baterako, han-hemengo gazteek beren artean euskaraz jarduteko (261).

(260) Zenbaitek (Donostiatik Iruna bitartean bereziki) Frantziako telebista ikusi ahal izaten zuten horrezaz gainera, aparteko moldaeraz. Gutxiengo nabarmena zen ikusle multzo hori.

(261) Besterik da, jakina, teknologia berri horietaz zer neurritan baliatzen garen euskaldunok, zahar eta gazte, eta zergatik. Badago zehar-daturik, esate baterako, etxetik euskaldun den eta

### VIII.6. Labur bilduz

Bilakaera demografikoak, ekonoteknikoak, soziokulturalak, politiko-operatiboak eta lurralde-antolamenduzkoak eragin bizia izan ohi du hizkuntza kontuan. Gure arteko bibliografia teknikoak aitortu ohi duena baino nabarmenki handiagoa. Aurrez aurreko eta are urruneko harreman-sare tradizionalen birmoldatzaile gertatzen dira, sarri, bilakaera horiek. Eskola bidez mende-laurden osoan lortu nahirik ari garen elebitasun zabal eta funtzionala gogor baldintzatu eta, are, eragotzi egin dezakete. Demagun, esate baterako, bilakaera demografikoa. Har ditzagun Bizkaiko lau herri (262): Bakio, Gamiz-Fika, Gatika eta Loiu. Etxegintzak bultzada gogorra izan du herri horietan, azken hamabost urtean. Hori bakarrik ez: herri horietatik kanpora jaiotako bizkaitar edo ez-bizkaitar erdaldunen erresidentzia-leku bihurtu dira herriok, hainbatean. Herritik haranzko harreman-sare berrien lotura-gune ere bai. Lurralde-antolamenduaren alorrean izandako berrikuntza horiek ondorio ezin argiagoa izan dute lau herrion bilakaera demolinguistikoa. Ikus ondoko taula.

Udalerrria	5 urteko edo hortik gorako biztanleak					Bertako biztanle euskaldunen %				
	1981	1986	1991	1996	2001	1981	1986	1991	1996	2001
Bakio	1.082	1.162	1.194	1.341	1.654	73,57	70,65	74,37	67,04	60,4
Gamiz-Fika	844	835	852	945	1.139	95,62	94,85	91,67	87,83	76,73
Gatika	838	806	901	1.058	1.219	90,93	87,97	89,46	84,03	77,85
Loiu	1.711	1.634	1.654	1.640	2.102	54,76	52,2	53,63	53,54	42,91

**28. taula.** Bizkaiko zenbait udalerrik izandako bilakaera demolinguistikoa: 1981-2001

Bost urteko edo hortik gorako bakiotarrak %74,37 ziren 1991n euskaldun; handik hamar urtera, aldiz, %60,4. Gamiz-Fikan are nabarmenagoa izan da jaitziera, hogeitaz buruan: %95,62tik %76,73rako. 2006ko datu demolinguistikoa argitaratu gabe dauden arren, badago motiborik aski joera horrek aurrera egin duela eta, are, bizkortu egin dela uste izateko. Menderik mendeko *status quo* soziolinguistikoa jakina (euskal arnagune gehienek aski antzekoa) legealdi bakarrean edo bitan erauzi da Gamiz-Fikan eta Gatican. Aldaketa sakon horren ondorioak ez ditu euskal eskolak berehalakoan berdinduko. Mendeetako ibiliak ondutako eramolde soziokulturala erro-errotik itzulipurdikatu delarik, alferrik da eskolari bere esku ez dagoen osabiderik eskatzea: alferrik eskatuko zaio eskolari lehengo *status quo* soziokultural eta linguistikoa

D ereduaren dabilen gazte askok erdaraz txateatzen duela uste izateko. Gaurko gaitik kanpora eramango gintuzke kontuak, eta alde batera utziko dugu. Badago, ordea gaiari aurrez aurre helteko arrazoirik aski.

(262) Ez da Bizkaiko kontua bakarrik. Gipuzkoan ere bada, azken urteotan bereziki, halako adibiderik.

(edo haren jarraipen aktualizatua) berrezar dezan. Eskolak, denik euskaldunak ere, ezin du halakorik egin. Fenomenoa ez da erabat berdina Bakion, eta are diferenteagoa da (erdalduntze-lana lehenagotik aski zabaldua zegoelako) Loium. Horietan ere joera nagusi berberaren aurrean gaude ordea: herritar euskaldunen dentsitatea nabarmen ahuldu da eta, horren ondorioz, beren aurrez aurreko harreman-sareetan solaskide euskalduna izateko aukera murriztu egin da. Hots, eguneroko mintzajardun arruntaren oinarri naturalak murriztapen ohargarria jasan du.

Kontua ez da lau herri horietakoa soilik. Hortik kanpora ere aski ezaguna da fenomeno hori: mende-laurden honetako bilakaera nagusiaren ezaugarri baten aurrean gaude. Erdal auzategiz edo erdal zona erresidentzialez (263) bete(tzen ari) dira zenbait arnagune, orain gutxira arte indarrean zuten euskal giroa nabarmen ahulduz eskolatik kanpora (264). *Language shift* edo luze-zabaleko mintzaldaketaren eszenario bihurtu dira, mende-laurden honetan, arnagune horietariko zenbait. EEN legea onartu zenetik hona eskolan egin eta egiten den indarberritze-saioa eta eskolatik kanpora eragiten dena ez doaz askotan elkarren eskutik: elkarren kontra doaz hainbat kasutan, eskolagintza euskalduna eta lurraldearen berrantolamendu erdalduna. EAEko hizkuntza-politika ez da Kultura eta Hezkuntza Saitetan bakarrik erabakitzen. Funtsezkoak dira, horiezaz gainera, populazioaren hazkunde moldea, lurralde-antolamendua eta lan-esparruaren ordenazio berria hurbilenetik eta sendoenik eragiten duten instantziak. Goiko bi esparru tradizionalok baino funtsezkoago, oro har, ikuspegi demolinguistiko globaletik. Beste hiru instantzia horiek (populazioaren hazkunde moldea, lurralde-antolamendua eta lan-esparruaren ordenazio berria) izan dira, azken mende-laurden honetan, EAEko hizkuntza-politikaren parametro askoren eragile nagusiak. Beren eraginaren nagusitasuna areagotu egingo da, itxuraz, hurrengo mende-laurdenean.

Lurralde-antolamenduak eta lan-esparruaren ordenazio berriak ahuldutako hitzun-taldean autorregulazio soziokulturalean duten garrantzia hain nabarmena izanik ere, ez dago motiborik modernizazioaren aurrez aurreko planteamendurik egiteko. Soluzioa ez dago lehenari iltzaturiko «euskal erreserba» etnolinguistikoetan. Are gutxiago demarkazio eskualdekatu hutsean, Irlandako Gaeltacht-ak ere behar adinako neurrian azaldua duenez. Biziko bada lana eta jana behar du arnaguneetako jendeak, lehenik eta behin. Mundutar zabal sentitzeko komunikabideetarako lotura-aukera eta bizimodua itxura gabe ez oztopatzeke behar besteko zerbitzu-eskaintza (eskola, osasun-atentzioa, erosketa-gunea) eta aisialdi erakargarria ere bai, herrian geldituko bada beste norabait lekualdatu gabe. Gazteak herritik kanpora joaten dira bestela, eta zaharrak bertan hil ahala behe-

(263) Hots, erdaldun-jendea demografikoki nagusi den auzategiz edo zona erresidentzialez.

(264) Auzoan eta herriko plazaren inguruan, aisialdiko ekintzetan eta salerosketa-guneetan, lan-eremuan eta, azkenik, lehengo hainbat bizilagunen etxean eta familiarrean bertan garbi ari da antzematen ahultze hori.

rantz hasten da herria: kanpotikakoen demografia-hazkunderik gabe ere galtzen dira han-hemen, sarri asko, hiztun-taldeak eta hiztun-elkarte osoak.

Emigrazioa immigrazioa bezain galgarri izan liteke, luzera begira. Eragina are nabarmenagoa gerta liteke, bertako populazioaren emigrazioari kanpotarren immigrazioa eranstean zaiotzen. Ondoko adibide pareta, esate baterako, gertaera horien adierazle izan liteke (265).

Udalerrria	5 urteko edo hortik gorako biztanleak					Bertako biztanle euskaldunen %				
	1981	1986	1991	1996	2001	1981	1986	1991	1996	2001
Zeanuri	1.252	1.187	1.121	1.111	1.091	94,89	96,04	93,93	93,52	90,01
Zeberio	1.028	954	931	860	941	93,09	92,03	86,68	86,4	82,25

**29. taula.** Zeanurik eta Zeberio izandako bilakaera demolingüistikoa: 1981-2001

Soluzio majikorik ez dago: faktore asko hartu behar dira kontuan, horrelako ebaluazioa egiterakoan. Kontestu multifaktorial horretan txertatu behar da, ezinbestean, EEN legearen mende-laurdeneko garapenari eta emaitzei buruzko balioespena ere. Azken mende-laurdeneko gizarte-berrikuntza dugu, labor bilduz, eskola esparruan euskara indarberritzeko hartu diren garapen-neurrien ezinbesteko *Hintergrund*. Horiek kontuan hartu gabe eskola alorreko hizkuntza-politika baloratzea alferlana da. Fenomeno soziala da hizkuntza, kontestu elebarkarrean zein elebikoan. Dimentsio soziologiko hori gabe hutsalak dira, hortaz, hizkuntza-politikaren alorreko formulazio sozioedukatioak.

## IX. ORAIN ARTE EGINDAKOAREN BALIOESPEN-SAIOA

Balioespen gutxi egin da txostenean: ahalik eta gutxien. Deskribapena izan da orain artekoan nagusi. Gizartearen eta eskolaren lehengo (1970-80 inguruko) egoera zehaztu nahi izan da, batetik, azalpen-saio horretan. EEN legearen zenbait ezaugarri deskribatu dira ondoren, eta mende-laurden honetan emandako pauso nagusiak zehaztu ditugu gero. Eskola bidez lortutako emaitzen ebaluazioa egin da hurrena eta, azkenik, neurri-emaitza horiek zein gizarte-kontestutan gertatu diren azaldu nahi izan da. Azalpena eta datu-ematea izan da horretan guztian nagusi. Bada beraz ordua, Jagon-sailetik jasotako enkargua kontuan izanik hezkuntza/hizkuntza alorrean urteotan egindako bidez eta lortutako emaitzez balio-irizpenik egiteko. Ondo egin al dira gauzak, EAEko eskola-munduan, azken mende-laurdenean? Zertan huts egin da, eta zertan asmatu? Zertan egin liteke hobekuntzarik, aurrera begira? Hiru galdera horiei, eta horien antzekoei, erantzun nahi zaie hemen.

(265) Ez dut astirik izan, aurrez aurreko konprobaziorik egiteko. Jasone Aldekoaren ohar baliotsuak jaso ahal izan ditut halere. Apeziazio okerrrik egin badut nirea da, nolana ere, errua.



## IX.1. Ondo egin al dira gauzak eskola-munduan?

Ez da batere lan erraza, hemen eta nonahi, honelako lege baten garapenaz luze-zabaleko balioespen objektiboa egitea. Bestek esana da: «il est toujours difficile d'établir le bilan, même sectoriel, de la mise en oeuvre d'une politique publique. Quand il s'agit d'aménagement linguistique, domaine fortement volontariste qui vise à transformer la société et dont les échecs, sur le plan mondial, sont plus fréquents que les succès, on frôle la présomption» (Mc Andrew 2002: 69). Botila «erdi-huts, erdi-bete» dagoela esatea izaten da sarri, horrelakoetan, errazena. Erosotasun merkea badirudi ere, irtenbide hori ez da ezinbestean itxuragabea: baikor eta ezkor izateko motiboak, biak eskaintzen ditu sarri honelako langintzak. Ez gure artean bakarrik: «une logique de verre à moitié vide, moitié plein» bestek ere aipatua dauka lehendik, gurea baino ondotoxoz konpon-errazagoa dirudien kontestu demolinguistikorako (Quebecerako ikus, batetik, Mc Andrew eta Proulx, 2000; bestetik Mc Andrew 2001, 2002: 78). Horrekin bakarrik ezin konformatuko gara ordea. Onetik eta txarretik gauza ugari dagoela esatea ez da aski. Objektiboki froga litekeen edota argudio-bide koherentez azal litekeen zehaztapen konkreturik ere eskaini beharko dugu. Horretan saiatu nahi nuke azken atal honetan.

Zertan asmatu den, eta zertan huts egin, esan aurretik dudamudazko egoerak seinalatzea komeniko da halere. Hona dudamudazko zenbait puntu: betetzen al da legea? nolako hitzunak eta nolako idazleak ari gara sortzen? Gizartearen eskutik al doa eskola, edo aski aparte? Galdera horiek EAeren kontestu soziolinguistikoa txertatzen ahaleginduko gara oraingoan ere.

### IX.1.1. *Betetzen al da legea? Zuzen aplikatzen al da?*

Hezkuntza-esparrura mugatuko gara orain ere. Gorago, idazlanaren VII. atalean, legearen hezkuntza-alorreko agindu jakinak zer neurritan bete diren, eta zer neurritan ez, azaltzen saiatu gara. Agindu konkretu asko, ez denak baina bai gehienak, aski neurri zabalean betetzen direla ikusi da. Erantzun baikorra eman behar zaio beraz, lehenik eta behin, goiko galdera nagusiarri: EEN legea indarrean dago, eta bere xedapen gehienak bete egiten dira.

Hori horrela izanik ere, besterik entzuten da gero eta maizago. EEN legea ez da aplikatzen: hala dio hainbatek. Aplikatzen ez den legea edo, nahiago bada, zuzen aplikatzen ez den legea omen da EEN. Era askotako erreparorak jartzen dira mahai gainean, ondorio horretara iristeko. Erreparorik gogorrena, agian, honako hau da: «todos sabemos que la Ley de Normalización Lingüística es una ley para no ser cumplida: ¿a qué viene, entonces, esta propuesta de aplicación?» (266). Eragozpen larria da abiaburu hori, lege bat arauz gara-

---

(266) Ondo gogoan dut noren ahotik entzuna dudan esaldi hori: ez naiz norbanako hiritar hutsaren iritzi xumeaz ari. Ikuspegi horretatik abiatzen bagara, bistan da ondorio baikor handita-

tu ahal izateko. Aplikatzeoak diren eta aplikatzeoak ez diren legeak indarrean egotea ezin justifika liteke zuzenbidezko aginte-esparruan. Argitara eman eta handik hurrengo egunean, goizeko zortziretan, aplikatzeo modukoak dira lege batzuk (eta aplikatu ere hala egiten-edo dira). Aldiz pausoz pauso, gradualki ezartzeoak izan ohi dira beste zenbait: aldi baterako xedapenek, besteak beste, hartarako eskubide zabala eman ohi diete batzuei (legea bete edo legeaz baliatu behar dugun hiritarroi) eta besteei (legea betearazi edo betetzeo bidea ezarri behar dutenei). Bigarren horietarikoa da, hainbatean, EEN. Gradualtasuna ezin izan liteke, ondo bidez, desaktibazio mugagabearen estalki. Bada ordea gure artean, gainerakoan aski legearen bidetik ibili-zale izanik halakorik esaten edo egin nahi izaten duenik. EEN legeak berekin duen *hancedicap* ohargarria da, nolana ere, hainbaten desaktibazio-ikuspegia.

Ez da hori, halere, egungo egunean maizenik entzuten den balioespen ezkorra. Ondoko bi puntuotan dago, funtsean, egungo gaitzespen-oinarri nagusia: a) Ikasleak ez dira eskolatik, 16 urterekin-edo, benetan elebidun irteten; b) Gurasoek (A eredu nahi duten gurasoek) ez daukate benetako aukerarik, beren seme-alabek gaztelaniz ikasi ahal izateko. Gatozen lehenengo erreparora. Badu arrazoi-parterik, dudarik gabe, EEN legearen 17. artikulua (zuzen) betetzen ez dela dioenak. Esana dago gorago, elebitasun funtzional orekatuaren *desideratum*-helburutik urrun dagoela egungo gazteria: bi hizkuntza ofizialak ez ditu gazte askok, legeak hori agindu arren, benetan erabiltzeko adina menderatzen. Legearen pausoz pausoko aplikazio gradualaren izaerak esplika dezake, partez, gabezia hori. Bere osoan hartuta gradualtasun kontu horrek ez du balio, ordea, erreparatu hori indargabetzeko: oraingo bidetik jarraituz ezin esan liteke, zinez eta benaz ari bagara, elebitasun-egoerak nabarmenki hobera egingo duenik hurrengo bost edo hamar urtean. Hori horrela da: arrazoi du beraz, horrainokoa, argudio-bide ezkor horrek. Gatozen bigarren erreparora: eredu aukeratzeko askatasunik ezaren ke-xura. Badu honek ere, dudarik gabe, bere arrazoi-zatia: eskolako ikasbide-hizkuntza aukeratzeari dagokionez bada-ga, egon, teoria hutsean geratzeko arriskua. *Hemen eta orain ez da erraza guraso eta ikasle guztiek beren nahia bete ahal izatea*. Batez ere A eredu nahi ikasi nahi dutenek dute *orain eta hemen* eragozpen hori (267). Guraso edo ikasle guztien xedea, nahi duten eredu nahi (bereziki, nahi duten herrian edo auzoan) ikastekoa, ez du egungo sistemak beti eta nonahi segurtatzen. Sakoneko erreparoa entzuten da, beraz, alde bietatik. Bai elebitasun orekatuaren

---

ra nekez iritsiko garea: hori edo horren antzekorik diotenen artean arazoa ez da EEN legea ondo betetzen den ala ez, legea bera baizik. EEN Legea ideologia jakin bateko gizarte-sektorearen inposizio unilateraltzat hartzen du zenbaitek, eta ez du uste bere aplikazioa bete-behar demokratikoa denik. Beste lege-aplikazioak bezain demokratikoa eta bete beharrekoa da ordea: pausoka, tentuz eta urratsez urrats, baina osorik bete beharrekoa. Ikuspegi horren ildotik diharduten hiritarren kritika ez da legearen garapen-mailari dagokiona: legearen zilegitasuna dago horrelako juzketan jokoan.

(267) Baina ez horiek bakarrik: ikus Lanbide Heziketako, Helduen Hezkuntza Iraunkorreko edo Musika-kontserbatorioetako D ereduaren aukera-kontua.

xedea eta bai ikasbide-hizkuntzaren aukera-askatasuna ez dira osorik betetzen. Horrezaz gainera beste hau ere badiote gaitzespen horiek: legez agindutakoa ez betetze horren errua Herri Aginteena (kasu honetan bertako Hezkuntza Administrazioarena) da. Administrazioak ez ditu hartzen, beren esanean, helburu hori (batzuen esanean bata, besteen iritziz bestea) ongi bete ahal izateko neurriak: ez neurri guztiak behintzat. Hori da problema: Herri Aginteen edo Administrazioaren erruz, hezkuntza-atalari dagokionez EEN legea ez da betetzen. Horregatik gaude, gauden egoeran.

Horrela al dira kontuak? Nik ez dut uste gauzak, bere osoan hartuta, horrela direnik. Gustatu ala ez hanka biko legea da EEN, ez hanka bakarreakoa. Konpromiso bikoitzeako formula da, beste hitzetan esanik, 1982an EAEko gizarteak (ordura arte ez bezala) demokrazia-arauz bere buruari ezarri ziona. Konpromiso biak, ez bat edo beste, dira kontuan hartu beharrekok. Hori dela-eta, hanka bakarrean oinarritzen diren balioespenek (bi xede nagusietariko bati bakarrik erreparatzen diotenenek) herren egiten dute. Hanka biak kontuan hartzen badira, eta ez hanka bakarra, nekez esan liteke EEN legearen mende-laurdeneko eskola-ibilian porrota izan denik nagusi. Helburu nagusi biok (268) uztartzeko eta aplikatzeko saio handia egin da EAEn: bai irakasleek, bai eskola-arduradunek, bai hezkuntza alorreko aholkulari teknikoek eta bai Administrazioak berak, goi-arduradunak buru direla, gogor ekin diote ele biko hezkuntzaren bidegintza berriari. Gogor ekin diote eta, mila akats xumez eta larriz jositako bide luzea egin dutelarik, goitik beherako transformazioa eragin diote EAEko irakas-sistema osoari. Transformazio hori EEN legeak dioen bideetik, ez kontrako norantzan, joan da nagusiki. Segun nola begiratzen den, batez ere nondik abiatu behar izan genuen kontuan izanik, buruzagi da EAEko irakas-sistema Europako hiztun-herri txikien artean, ele biko hezkuntzaren eta ahuldutako mintzaira eskola bidez indarberritzeko saioen alorrean: nola esan liteke porrota denik hori, helmuga hori baldin badugu helburu? Oso bestelako, hezkuntza-esparru hutsaz haraindiko, asmo-xedeen argitan ez bada nekez ontzat eman liteke han-hemen hain erraz astintzen den erabateko porrotaren gaitzespen-kontu hori.

Ikuspegi orokorretik gatozen, bestalde, erreparoen detaile-kontura. Has gaitzen ikasbide-hizkuntzaren aukera-askatasunaren eskubide faltarekin. Aukera-eskubidea behar bezala zaintzen ez deneko argudioa ez da egia, oro har. Aitzitik: lehen baino aukera zabalagoa dago gaur egun, eredu bateko edo besteko ikasbidea aukeratu ahal izateko (269). Batez bestean aurrera egin da horretan, ez atzera: aukera-eskubidea zabaldu egin da mende-laurdenean, ez murriztu. Aukera-zabaltze hori egiterakoan gogoan izan da, oro har, gurasoen

---

(268) Helburu nagusi biok eta edozein eskola-sistemak bere-bereak dituen beste hainbat: ikasleen garapen kognitibo egokia, lehenik eta behin.

(269) Gogora dezagun orain dela 30 edo 25 urteko egoera zein zen. Orduan ez ziren orain baino hobeto errespetatzen, inondik inora, gurasoen aukera-eskubideak. Orduko nahi eta ezinen berri duen orok argiegi du hori, orain ez ikusia egiten hasteko.

eta (adin batetik aurrera) ikasleen, ikastetxeen eta lekuan lekuko hezkuntza-eragileen gogo. Horrekin batera ez da ahaztu, jakina, eskolak baduela legezko mandatu espresua, norbanako gurasoen aukera-eskubidea bezain aginduzkoa, belaunaldi berrien elebitasun benetakoa lortzen saiatzeko. Langintza hori ez da eskolarena bakarrik, askok hala uste duen arren. Baina berea ere bada: hezkuntza-eremuaren eginkizun zentrala da hori, Autonomia Estatutuak berak hala aginduta. Ez eginkizun zentral bakarra, zenbaitek aldarrikatzen duen moduan, baina bai eginkizun nagusietako bat. Alde horretatik, eredu «uskaldun»agoen promozioa (ez inposizioa, baina bai promozioa) legezkoa da eta, eredu-aukerarekin batera, lege bidez eraman izan da aurrera, oro har. Gatozen bigarren erreparora: ez da egia porrot egin duenik eskolak, erabat, ikasleen elebitasun orekatua bultzatzerakoan. Elebitasun funtzional orekatua ez da luze-zabal eskuratu; urruti daude ikasle gehienak *desideratum* horretatik. Baina pauso asko eta ohargarriak eman dira norabide horretan. Bestea bezain egia da hori, egiago ez bada. Zergatik ahazten da, beraz, hain funtsezko elementua? Ikuspegi globalik eza da ezespren horretan ere nagusi. Elebitasun funtzional orekatua bada, izan, legearen xede: ez, ordea, xede bakar. Seme-alabek euskaraz zein gaztelaniaz ikasteko gurasoek duten aukera-askatasuna elebitasun orekatuaren xede hori bezain xede da.

Labur bilduz, ebaluazio pausatuagoa eta globalagoa zor zaio EEN legearen eskola alorreko garapen-kontuari, bai gaitasun-mailaren gaitzespen-ikuspegitik eta bai aukera-askatasunarenetik. Puntu bakarrera begiratzen duen balioespen negatibo hutsa herrena eta desorekatua da funtsean, mende-laurden luzez lanean ari diren milaka profesionalentzat deskalifikazio mingarria izateaz gainera. Lege nagusi guztien *konpromisozko izaera*, eta bertako *desideratum* nagusien baliagarritasuna, auzitan jartzen du gaitzespen bikoitz horrek (270). *Desideratumak* bere osoan ez betetzea ez da, berez, inolako kalte barkaezin. Horretara bagoaz, berdin-berdin esan liteke munduko (batez ere mundu aurreratuko) konstituzio gehienak ez direla betetzen. Hiritar orok lan egokia, etxebizitza duina, legezko babesa eta behar bezalako osasun-asistentzia izateko eskubidea duela esaten dute konstituzio horiek, nork bere moduan eta neurrian. Europako eta mundu zabaleko estatu aurreratuenetan ere hiritar guzti-guztiek ez dute ordea lan egokia, etxebizitza duina, legezko babes efektiboa (271) eta behar bezalako osasun-asistentzia izaten beti. Okurritzen al zaigu esatea, horregatik, munduko konstituzioak ez direla betetzen eta oro har porrot hutsa direla (272)? Gauza askotan motz gelditzen dira oinarri-legeak, jakina. Zer hobetua asko izaten dute beren baitan. Hori bezain egia da, ordea, han-hemengo konstituzio-

(270) Auzitan jartzen du eta, hori gutxi bailitzan, irteera errazik gabeko kale-zokora darama 1978tik 1982ra bitartean eraikitako lege-markoa.

(271) Kasuan kasuko tradizio juridikoak bere erara moldatua.

(272) Okurritzen al zaio inori lan-aukera egokia, etxebizitza duina eta behar bezalako osasun-asistentzia izateko eskubiderik bermatzen ez duen konstituziorik hobestea? Ez al da egia mundu erdia, eginahalean, *desideratum* horiek dituzten konstituzio-lekuetara bizi izatera etortzen saiatzen dela?

ek eta hainbat oinarri-legek *konpromisozko izaera* horretan dutela beren oinarri sendoena, batetik, eta *desideratum* horietara begira jartzen dutela gizartea, bestetik: lehentasunezko lan-ildoak ezartzen dituzte *desideratum* horiek, pausoz pauso (ez kolpean) lortzeko edo horietara hurbiltzeko, eta alde horretatik aski lan-tresna baliotsuak dira. Horrexegatik dira *desideratum* horiek garrantzitsu: ez %100ean betetzen direlako gauetik goizera, gizarteak bere osoan nora joan nahi eta behar duen seinalatzen dutelako baizik.

Zergatik ez zaio EEN legeari antzeko trataera eskaintzen? Konpromisozko ikuspegi global horren falta, edo bestelako ezadostasun sakona, dago ene ustez jokabide unilateral horietan. Gauzak muturrera eramatea da hori. Oinarri-oinarrizko adostasun-giro baten falta adierazten du horrek. Orain dela ia hiru hamarkada abiatutako autonomia-bide euskaltzale hispano-konformea da, itxura osoz, EEN legearen kritika-modu horien azpian kritikatzeko dena. Batzuentzat motz gelditu zelako da txarra, besteentzat urrutiegi joan zelako. Bientzat da ordea, itxuraz, autonomia-bide hori egonezin nagusiaren iturburu. Autonomia-bide efektiboa gaitzesten den neurrian, EEN legea ere zaku berean sartzen da. Gure gizartearen azken 30 urteko fisura ideologikoen oihartzun da, gehienetan, balioespen ezkor hori. Alferrik da desadostasun hori *eskola-porro-taz* mozorrotzea.

### ***IX.1.2. Nolako hiztunak eta nolako idazleak ari gara sortzen?***

Euskal hiztunak ugaritu egin dira EAEn: batez ere gazteen artean. Eskolari zor zaio, lautatik hirutan-edo, hiztun gazteen ugaritze hori. Euskaraz jarduteko gaitasun-maila mugatua dute, ordea, hiztun horietariko askok. Euskaraz «nolabait» dakiten neska-mutilak eta gazteak ugaritu dira, batez ere, EAEn. Kapaz dira gazte-gaztetxook hizkera-molde bateratuan esaten zaien gehiena entenditzeko. Idatzizko azalpen asko (errazenak eta eskola-kutsukoak bereziki) ulertzeko ere gai dira. Ondotxo gehiago kostatzen zaie, aldiz, txukun idaztea eta garbi hitz egitea. Hitzez eta idatziz ondo, erraz eta zuzen moldatzen diren neska-mutilak eta gazteak ez dira nabarmen ugaritu EAEn, mende-laurden honetan. Ugaritu ez eta, agian, gutxitu egin dira, ahozko jardunari dagokionean: hitz-etorri bizian eta doinuera jatorrean, joskera aberats eta ulerterrazean, hitz-eraketa emankorrean eta itzulika jorien sormenean,.. aurrera ordez atzera egin da hainbat kasutan. Lehen ere baziren, jakina, euskara mordoiloan jardun ohi zutenak. Orain asko dira.

Ikasleez diogun hori irakasleen multzora ere zabal daiteke, halako neurri batean. Lehen erdaldun ziren irakasle gehien-gehienak: orain euskaldun (273). Unibertsitate aurreko mailetan 20.000 irakasletik gora dira orain, EAEn, hezkuntzako HE2, EGA edo baliokidearen jabe. Erregistro formalaren erabi-

---

(273) Zehazkiago elebidun eta zenbaitetan, ez gutxitan, ele-aniztun.

lera jasotik urrun dagoen «nolabaiteko» euskara ari da, halere, milaka irakasle horien artean hedatzen. Ez irakasle guztien artean, inondik inora: milaka profesional dira euskara ederraren jabe, hitzez eta idatziz: inoiz baino gehiago, trebetasun biak barne hartuz. Batak ez du bestea kentzen, ordea: irakasle asko dira gaur egun, beraien ahozko edo idatzizko produkzioari erreparatzen bazaio, euskaraz «nolabait» dakitenak edota, zehazkiago, «nolabait» egiten dutenak. Gutxi idazten da euskaraz, eskola-munduan. Idazten den horrek, berriz, zer pentsatua ematen du sarri: etxeetara iristen diren azalpen-idazkiak har balitez lekuko, edota administraziora bidaltzen diren gutun-eskutitzak, badago motiborik uste izateko hizkera idatziaren aberastasun-maila ertainera ere nekez iristen dela halako asko. «Nolabaiteko euskara» bat zabaltzen ari da eskoletan, ikasleen artean eta are irakasle askoren jardunean.

Jakitearen hedadura-kontuan irabazi egin da, dudarik gabe: lehengo aldean asko dira, orain, ahoz eta idatziz nolabait jarduteko gai diren ikasle-irakasleak. Hiztun-idazle horien ezpain-lumetatik jaulkitzen den hizkuntza moduari dagokionez, aldiz, oso egoera diferenteak ageri dira eguneroko praktikan: hitzez zein idatziz zoragarri egiten dutenetatik hasi eta ezinean ari direnetara arte, gaztelaniaz edo frantsesez nekez aurkituko den aldakortasuna da gurean nagusi. Aldakortasun hori hor egonik ere, ezin da baztertu joera nagusia: ikasle asko dira ahul, ezinean bezala, ari direnak euskaraz. Irakasleen artean ere antzematen da halakorik. Mila bider lasaiago, aberatsago, doiago eta errazago egiten dute ikasle-irakasle horiek, normalean, gaztelaniaz. Ez gara hemen hizkuntzaren preziosismo-kontuez ari, gaitasun linguistikoaren oinarri-oinarrizko falta-gabeziez baizik. Horiek gabe zaildu egiten da komunikaziolana: agortu egiten da, hasteko, eguneroko hizkuntza biziak berekin ekarri ohi duen eta behar-beharrezkoa duen ñabardura-zantzuen, emozio-itzuliken eta naturaltasun-printzen lilura-ahalmena. Ezaugarri horiek bakandu edo agortu ahala, eta erdara hain eskueran egonik, etengabeko tentazioa indartzen da hantzen (baita euskaldun garbien artean ere, halako solaskide «elkor»en konpainian), gaztelaniara salto egiteko. Mintzaldatze-kontu hori ez da tentazio hutsean gelditzen: egin ere erdaraz egiten da sarri, halako situazioetan.

Neke-oztopo eta zailtasun horien ondoan bada bestelako egoera ere. Etxetik, kaleko lagunartetik edo eskolatik euskal elebidun diren gazteak lehen baino euskaldun konpletoago dira orain, oro har: hitz egiten jakiteaz gainera euskaraz irakurtzen eta idazten ere badakite, hainbatean, oraingo gazte horiek. Beren aurrekoek ez bezalako aberastasun bikoitza dute berekin. Lekuan lekuko euskalkia ulertzeaz (eta maiz samar erabiltzeaz) gainera hizkuntza-eredu bateratuaz badakite jarduten: kapaz dira Euskal herriko beste euskaldun (alfa-betatu) gehienekin euskaraz jarduteko, *huntaz eta hartaz* (274). Bestetik, hitzezko trebetasunei idatzizkoak erantsi dizkiete beren hizkera-sortan. Hitzez esaten dutena (edota, maila formalera hegaldatuz, hitzez gutxitan azaldu ohi

(274) Erdaraz egi ohi zen hori lehen, trebezia sozial (ez indibidual huts) horren gabezia.

dena) idatziz azaltzen badakite: letrari beldurra galdu diote, hainbatean. Lehenengo aldiz gertatzen da alfabetatze masibo hori, euskararen historian. Ez da alde batera uzteko kontua, oso gogoan izatekoa baizik. Demolinguistikazko zenbait iturrik besterik iradokitzen badu ere, EEN legea onartu zenetik hona zabaldu da, batez ere, berrikuntza hori EAEko gazteen (gazte multzo mugatu baina ohargarri baten) artean. Gazte horiek osatzen dute, nolabait esan, parez pareko elebidun trebearen *desideratum* betera, %100era, gehien hurbiltzen den hiztun-multzoa. Multzo txikia da hori: gazte gehienak ez daude hor, elebitasun osatuzko *desideratum* bete horren %75ean, %50ean edo, maiz aski, %25ean baizik. Txikia izanik ere multzo garrantzitsua da ordea goiko hori, fundamental, euskarak XXI. mendean etorkizunik izango badu.

Balioespen objektiboa egiterakoan zail da, beraz, egoera horren argitan txuri eta beltz artean zorrotz hautatzea. Irabazi eta galdu, biak egin dira bidean: kopuruz gora egin da oro har, kalitatez ez. Tonika nagusia erdal-elebidunek osatzen dute: euskaraz baino errazago erdaraz egiten duten euskaldunek. Bada ordea inoiz ez bezalako hiztun-multzo (multxo?) osatua, hitzez eta idatziz euskaraz lasai eta ganoraz jarduteko gai dena. Hiztun-masa kritikoa ezinbestekoa du hizkuntzak, bizirik aterako bada: ez dakienarekin ezin da euskaraz egin. Demolinguistikazko masa kontu horrek bakarrik ez du balio ordea: gaitasun-maila egoki bat ere ezinbesteko baldintza da. Euskaraz behar bezala egin ezin duenarekin zail da, berak eta besteok hala nahi izanik ere, luzaroan hizkuntza horretan jardutea. Gaitasun-mailaren kontua ezin da alde batera utzi. Funtsezko elementua da hori, EENren babespean lortutako emaitzen argiztalak baloratzeko orduan.

### ***IX.1.3. Gizartearen eskutik al doa eskola?***

Aurrera egin du euskarak, halako neurri batean, eskolatik kanpora ere. Gizartearen eskutik doa beraz eskola, neurri horretan. Adibideak bilatzea ez da hain zaila. Euskal egunkari-aldizkariak eta irrati-telebistek, hedadura zabaldukoek eta lekuan lekukoek, leiho berri bat zabaldu diote itxaropenari (275). Leiho mugatua, halere, audientzia- eta salmenta-indizeak zuzen badabiltza. Betikora goaz: euskal giro sendorik gabeko ingurumenetan, euskaraz (zerbait) dakiten hiritarrek nekez konektatzen dute euskarazko jardunguneekin, harreman-sareekin eta euskarazko eskaintza kulturalarekin zein aisialdikoarekin. *First things first* irizpidea ulertzen, ikasten, asumitzen eta luze-zabal aplikatzea lortzen ez den arte, nekez lortuko da alor horietan aparteko aldaketarik. Kontsumo-ohitura horiek aldatzen ez badira, berriz, gero eta jigante bakartiaren itxura handiagoa hartuko du euskarazko irakaskuntzak. Galdetu ere egingo dio bere buruari, batek baino gehiagok: zertarako hainbat esfortzu eta hainbat

---

(275) Industria kulturallean ere lehen ez bezalako heldulekuak ditu orain euskalgintzak.

neke, saio osoak gero ondorio praktikorik izan behar ez badu gizarte-bizitzan? Hori ez da konponduko euskarazko klaseei enfasi handiagoa emanaz.

Eskola ez da mundu isolatua, gizartetik horma zurrunez berezia. Aitzitik, gizartearen ur-zurrunbiloan murgildurik dagoen azpisisistema da eskola. Azpisisistema garrantzitsua, baina azpisisistema. Gizartearen aldian aldiko ordainsarien eta zigor-debekuen orbitan mugitzen da eskola. Irakasleak ere, zenbaitek besterik uste izan arren, ordainsari- eta zigor-sistema horren mendeko dira oro har. Orobat ikasleak, une batetik aurrera. Txikiak diren artean posible da eskolak bere ordainsari- eta zigor-sistema berezia ezartzea ikasle-jendeari. Posible da, hainbatean, neska-mutiko horien artean euskal maitezko ordainsari- eta zigor-sistema berezia indarrean mantentzea eta, horrela, euskarazko jarduna indartzea. Adin batetik aurrera jai du, ordea, bide intraeskolarrak hutsak. Ikasleak sozializatu egiten dira, gizarteratu eta gizartekotu: gizartearen nagusi diren balioak eta usteak, sinesmenak eta iritziak, ametsak eta gorrotoak bereganatzen dituzte hein handi batean. Horren gainean, ez hortik kanpora, garatzen dute nork bere askatasun individualaren esparrua. Ondorioa ezaguna da nonahi: gazte-jendeak gizarterari egiten dio kasu, eskolari baino areago, jakintza kontuen transmisio hutsetik haratagoko gauza inportanteenetan: lagun-taldearen eraketan eta barne-jardueran, neska-mutilen hurbilketa-prozesuan, auzoko harreman-sare hurbilen moldaeran, lan-mundurako orientazioan eta abar. Gizartearen pulsio horretatik urruntzen den eskola-plangintzak arrisku handia du, borondaterik onena izanik ere, honetan edo hartan huts egiteko. Baita euskalduntze-saioan ere.

Gizartearen eskutik al doa EAEko eskola, azken mende-laurdenean? Bere kontura al dabil, libre? Gizarte-uren joera nagusiaren kontra ari al da? Gizartearen euskalduntzeaz bat ari al da eskola euskalduntzen? Gizartearen bide-erakusle eta ildo-berritzaile al da eskola, euskalduntze-alarrean? Eskolaren ondotik (eta, hainbaten esanean, eskolari esker) gizartearen ere egin al da, mende-laurden honetan, eskolan egin den normalkuntza-saiorik eta, batez ere, euskara indarberritze aldeko transformazio zabalik? Erantzuna, itsuak ere erraz ikus dezakeena, guztiok dakigu zein den: ez, konparatzeko saiorik ez da egin. Eskola alorrean egin den euskalduntze-ahaleginak ez du parekorik (ez hurbilik eta ez urrunik) beste sektoreetan: komunikabideetan, merkataritzan, kirolean eta asialdian (antzerkia eta zinea barne), administrazioan, kale-bizitzan, lagun-artearen eta abar. Har dezagun adibide bat: ikus-entzunezko komunikabideak; hots, irrati-telebistak. Demagun euskara hutsean edo nagusiki euskaraz ari diren irrati-telebistak D eredukotzat hartzen ditugula, erdizka-edo ari direnak B eredukotzat eta erdara hutsean edo nagusiki erdaraz ari direnak A eredukotzat. Egin nahi al dugu proba, hiritar guztiak edo 25 urtetik beherako gazteria aztergai harturik, eredu bakoitzak zenbat hiritar-ordu bereganatzen dituen? Konparatu nahi al dugu taula hori txosten honetako 7. atalarekin? Non gelditzen da, horrelako emaitzen argitan, eskolaren *motore*-izaera famatu hori?

Gizartearen eskutik joan behar du eskolak, bertako hizkuntza-normalkuntzak probetxurik izango badu. Zertarako nahi ditugu D ereduko eskolak baldin



eta ikasleek etxean eta kalean, lagunartean eta lan-munduan erdara hutsean jardungo badute? «Aprended mucho euskera, Edurne y Eneko, para que así, cuando seáis mayores, hablemos todos en castellano»: ez al da ordua paradigma horren sustraitiko ahuleziaz gogoeta egiteko? Benetan jarraitzen al dugu uste izaten, munduko teoria soziolinguistiko osoaren eta mende-laurden honetan eskuratu dugun ebidentzia enpiriko zabalaren kontra, eskolak belaunaldi berriak «ondo euskalduntzea» dela xedea eta soluzioa? Hezkuntza/hizkuntza politika egoki bat eratzea dela kontua eta, hori egiteaz bat, euskarak berez bere jasoko duela burua gizarte-bizitza osoan? Benetan jarraitzen al dugu uste izaten munduko dokumentazio soziolinguistiko osoa deskuidatua dagoela eta, dokumentaio horrek besterik esan arren, eskola dela benetan gizarte-berrikuntzaren *motore*, luze-zabaleko mintzajardunari dagokionez?

Gogoeta-lan sakon baten beharrean dago gure esparrua, funtsezko puntu honen gainean. Hori egiten ez den artean, gero eta hurbilago egon ordez gero eta gizartearen pulstio jeneraletik urrunago ibiltzeko arriskua du eskolak, hizkuntza-normalkuntzari dagokionez. Gero eta bakartiago gera liteke gizarte-berrikuntzaren espektro jeneralean, gero eta bere baitan kontzentratuago eta «arraro»ago. Ez da hori seinale ona, hizkuntza-normalkuntza osasuntsua baldin badugu amets: arrisku horretaz jabetzen ez bagara bide okerretik gabiltza. Gizarte-berrikuntzaren ahalegin-sorta osoarekin batera joan behar du eskolak, ez ahalegin horren erabat aurretik edo, okerrago, joera jeneralaren kontrako norabidean. Eskolari gero eta helburu zailagoak, ausartagoak, erabatekoagoak ezartzeagatik ez dugu emaitza hobirik eskuratuko. Are gutxiago gizartearen joera nagusietatik aldenduz. Gizartearen molde nagusira makurtuko dira belaunaldi gazteak, eskolan erakutsitakoa gorabehera. Bide laburra izango du hizkuntza-normalkuntzak, eskolan (eskolan bakarrik edo ia eskolan soilik) eragiten badu etengabe. Ondorio nabarmena ateratzen da hortik: eskolan aurrera egin nahi bada normalkuntza kontuan, eskolan baino hagitz sendoago, sakonago eta zabalago gizarte-bizitzan egin behar da lan: hizkuntza-normalkuntzak gizarte osoan jardun behar du buru-belarri, mintzajardunaren gizarte-moldaeran funtsezkoak diren esparruei, jardunguneei eta harreman-sareei orain arte ez bezalako atentzia eskainiz. Hizkuntza-normalkuntzaren jarduna gizarte-perspektiba zabalean txertatu behar da, eskolak bere zatia aportatuz noski baina eskolan zentratu gabe lautatik hirutan edo hamarretik bederatzietan. Gizarte-bizitza osoaren %10ik ez du betetzen eskolak, berez. Zergatik jarraitzen dugu, hortaz, eskola-esparruko interbentzio hutsa proposatuz behin eta berriro? Eritasun larriak jotako gaixoa aspirina batek osatu ez badu, soluzioa ez da aspirina bi edo hiru ematea.

## **IX.2. Defizitak eta hutsuneak: zertan ez da asmatu?**

Kontsiderazio jeneralak izan dira orain artekoak. Gatozen balioespen konkretuetara: zertan ez da asmatu mende-laurden honetan, EEN legearen

aplikazio operatiboari dagokionean? Zertan geratu dira egin beharrekoak erdi-bidean? Alor horretan egindako hutsegite eta moztade guztiak banan-banan azaltzen hasiko bagina, bagenuke puska baterako. Hutsegite edo moztade nagusietan zentratuko gara hortaz. Horiek ere ez dira, gainera, guztiak patroi berekoak: horrelako askotxo ez zaizkie jakinaren gaineko erabaki okerrei zor izan, ezinbestean eraman behar izan den esplorazio-bideari baizik. Aurrez dokumentatu eta ibili gabeko bidean jardun behar izan dute, askotan, hezkuntza alorreko agintariek eta teknikoek, eskola-arduradunek eta banakako irakasleek: bide berrietan barrena ibili beharraren beharrak ekarri ditu, sarri asko, orain erraz antzeman litezkeen baina orduan inork aurreikusten ez zituen moztadeak eta oker-egiteak. *Trial and error* jarduera aplikatu behar izan da sarri eta, espero izatekoa zenez, beste esparruetan bezainbat ustegabeko eta hutsegite sortu ditu jarduera horrek. Ahaztu egin ditugu orain baina, dudarik gabe, *trial and error* horren alorreko *error* batzuk txapela kentzeko modukoak izan ziren bere garaian. Demagun adibide-pare bat: A ereduak 600 bat klase-ordurekin euskaldun beteak sortuko zituela uste izatera iritsi ginen hasiera batean (276); are baikorrago jokatu genuen IRALEn, handik urte gutxira, egunean bospasei orduko ikastaro trinkoen bidez hiruzpalau hilabetean irakasle-sail osoak masiboki euskalduntzea begiz jo genuenean. Atzeak erakutsi digu, horrelakoetan, aurrea nola dantzatu. Ibilian-ibilian zuzendu behar izan ditugu hasierako uste okerrak. Baina zuzendu egin ditugu, hainbat kasutan, eta lehen baino kontuzago jokatzeko ikasi dugu gehienok. Hutsegite haiek aldi batekoak izan ziren hortaz: aurrera egin ahala zuzentzen eta gainditzen ikasi genuen, eta orain nekez kontabiliza litezke hutsegite larrien artean. Garrantzitsuak izanik ere ez dira oker-egite haiek, atal honetan berariaz aztertu nahi ditugunak.

Badira, aldiz, erraz aurreikustekoak izan arren bere garaian behar bezala planteatu ez ziren kontuak. Badira, orobat, hasieran ondo samar planteatu arren gero, urteak aurrera joan ahala, alde batera edo behar bezala garatu gabe utzi ditugun kontuak. Ondotxo egingarriago ziren xede operatibo horiek eta, halere, partez edo osoz eginkizun gelditu dira. Hutsegite konkretu eta estruktural horietan zentratuko gara hemen. Labur-labur, aski balioespen pertsonaleko hautapen-irizpidez, azalduko ditut EEN legearen hezkuntza-atalak mende-laurden honetan izandako eskasia zenbait.

---

(276) Ikus, esate baterako, ikastetxe pribatuetakoa ikasleez ari zelarik Siadecok zer zioen (Siadeco 1978: 119): «la mayoría recibirán a lo largo de la EGB más de 600 horas de euskera, montante de horas que en opinión de los especialistas en la materia es más que suficiente para adquirir el dominio del idioma a nivel de conversación corriente». Errua ez zen Siadecorena, ez berea bakarrik behintzat. Norbaitek esan zion Siadecori, zer zen egingarri eta zer ez. Orduko «especialistas en la materia» horiek nor ziren galdetzen denean, inork ez dugu aitortu nahi geu ginenik «especialista» haiek. Lotsa ematen digu, esatea ere. Baina horrela dira kontuak. Hasiko al gara, bestela, orduko paperak astintzen AEKn, Irakasle-eskoletan eta (geroxeago) HABEn, besteak beste?

### ***IX.2.1. Irakasle berrien prestaera, burutu gabe***

EAEko irakasle-eskoletan EEN legea ez da erabat aplikatu. Baieztapen horren kontraesan hutsa diruditen bi puntuotatik abiatuko gara, ondorio horretara iristeko: a) beste inon baino lehenago ekin zitzaion irakasle-eskoletan (bai publikoetan eta bai pribatu sorberrietan) bertako jarduera hezkuntza-marko elebidunera egokitzeari: «azkenputz» ez baina bidegile izan ziren irakasle-eskolak eginbehar horretan; b) Hainbat irakasle-eskolak urrats handiak egin ditu gainera, ordutik hona, bide horretan barrena. Horri esker, EAEko eskola-munduak behar zuen baino irakasle euskaldun-elebidun gehiago sortu izan dute oro har, laurogeiko hamarkadaren bigarren erdialdetik aurrera eta orain puntura arte, bertako bost irakasle-eskolek (277).

Hori guztia horrela izanik ere, egia da izenburuan azaldutakoa: EAEko irakasle-eskoletan EEN legea (konkretuki, bertako 19. artikulua) ez da erabat aplikatu. Irakasleen prestakuntzarako unibertsitate-eskolek, bere osoan hartuta, ez dituzte «beren ikasketa-planak egokitu, irakasleek euskara eta gaztelania erabat menperatu ditzaten, norik bere espezialitatearen eskakizunen arabera». Irakasle-eskola batzuek bai, zeharo edo aski neurri zabalean egin dute egokitze-lan hori; guztiek ez. Eskoletan irakasle-gai euskaldun berririk falta izan ez den neurrian, irakasle-eskolen egokitze-lan partziala aski izan da. Askiz bai, baina ez EENren arabera: gaurko egoera ez da legeak agintzen duena. Gradualtasuna nekez izan liteke kasu honetan esplikazio bakarra. Mendelaurdena aski epe zabala zen, helburu hori osorik betetzeko. Irakasle-eskolei buruzko lege-xedapena arras konkretua zelarik, uste izatekoa zen dagoeneko lege-agindura bildurik izango zirela irakasle-eskola guztiak. Urruti samar gaude oraindik, erabateko egokitze-egoera horretatik. Gabezia hori nabarmenagoa da orain, Haur Hezkuntzan eta LMHn irakasle-gai berrien beharra areagotu denean eta irakasle-eskolen urterik urteko *outputa* beharrian hori asetzera nekez iristen denean.

Esparruz zertxobait aldatzea bada ere, Bigarren Hezkuntzarako irakasle-gai euskaldunen prestaera-alorrean ere motz gelditu da hasierako birmoldatze-lana: 1979-80an emandako pausoetatik ezer gutxi gehiago egin da aurrera, euskaraz jarduteko irakasle-gai trebatuak berariaz sortzeko. Moztade-muga ohargarria da hori: nahiz eta goi-mailako titulatu euskaldunen aukera begien bistakoa den, irakasle-gai euskaldun trebeen prestaera ez da berariazko atentzio-gune zentral bihurtu. Legearen garapen-bidea nekez esan liteke aurrez aurre planifikatu eta bere osoan burutu denik Bigarren Hezkuntzari begira. Gaur da eguna, hainbat espezialitatetako irakasle-gai euskaldunak falta direna. Dakidan neurrian kontu txikia edo mugatua da hori, estatistikoki: baina aurrez planifika zitekeena, eta konponbidean jarri. Hala egin zitekeen eta, legeak

---

(277) Gehiegizko irakasle-gai euskaldunen desoreka koiuntural horrek ekarri zuen, oker ez banago, Donostiako Elizbarrutiaren irakasle-eskola itxi beharra.

hartara behartzen (edo iradokitzen) gintuelarik, ez da halakorik egin (278). Legearen aplikazio-defizita da hori, hortaz.

### ***IX.2.2. Giza baliabideen epe ertain eta luzerako planifikazioa, ahul***

Gauza bat da irakasle berriak sortzea, eta beste bat lehendik irakaslanean ari direnak artez kudeatzea. Buruhauste handiak ekarri ditu, ongi ezaguna denez, bigarren puntu honek. Haur-jaiotzen gainbehera larriak batetik, eta eskola-munduaren birmoldaketa linguistikoak bestetik, irakasle-beharren eta irakasle-aukeren arteko desoreka kronikoak sortu izan ditu EAEn. Ezinbesteko buruhausteak izan dira horiek, partez. Jaio diren haurrak jaio dira mende-laurden honetan, ez gehiago, eta eskola askok gero eta ikasle gutxiago izan du (279). Ezin pentsa zitekeen, era berean, irakas-sistema elebakarra buruhausterik gabe elebidundu ahal izango zenik, irakaslanean ari ziren profesional gehienak erdaldun elebakar izanik hasieran.

Kontua ez da hori bakarrik, ordea. «Hurrengo iraileko arazoa konpon-tze» izan da urteetan, sektore publikoan zein pribatuan, lehentasun nagusi. Epe ertain eta luzerako aurreikuspen handirik gabe jokatu izan da hainbatetan, jakinaren gainean edo ustez uste gabean, irakasle-jendearen kontratazio- eta ubikazio-esparruko hainbat neurri konkretu hartzerakoan (280). Maisu-mais-tren kontratazio berrietan sarri gertatu izan da, lehen hamar-hamabost urtean bereziki, batez ere uanean uneko beharra kontuan hartzea, EEN legearen ildotik martxa bizian zetorren birmoldaketa sakonaren epe ertain eta luzerako beharrei kasu handirik egin gabe. Erraz da orain horrelako erreparoa jartzea, horren

---

(278) Kasu konkretu batzuetan (haur-eskoletarako langile-trebakuntzan adibidez), badirudi gaiari heldu egin zaiola azkenik eta konponbiderik eskuera izan litekeela berandu baino lehen: ikusi egin beharko. Besteetan, Lanbide Heziketarako hainbat espezialitatetako langile-trebakuntzan, ez dirudi gauzak onbideratzen ari direnik. Nekazaritza-esparruan gertaturikoa bereziki deigarria da, dakidan neurrian: bezeriarik euskaldunena duen sektorea izan da, Fraisoro eta beste kasuren bat alde batera uzten badira, gutxien atenditu dena mende-laurden osoz. Askok uste izan dezakeen baino garrantzi handiagoko moztadea da hori: euskaraz lan egiten duten baserritarrak euskaraz atzitzeko eta beren seme-alabek euskaraz lanean jarrai dezaten formatzeko lana ongi bideratzen ez badugu, zertan ari gara euskarazko tesi doktoralak gora eta euskarazko base terminologikoak behera? *First things first* irizpidea debeku al da gure artean? Egia da atzeraka doan sektorea dela nekazaritza, arrantzarekin batera: ikus, esate baterako, Eusko Jaurlaritzako Ogasun Sailaren 2007ko txosten sozioekonomikoa, arras jakingarria (Viceconsejería de Economía, Presupuestos y Control Económico, 2007). Atzeraka doan sektorea izanik ere zentrala da euskararen indarberitze-lanean: ikuspegia daukagu hor oker, eta ez dut ikuspegi aldatzeko seinale-marka handirik ikusten.

(279) Deskribapen zehatzago batek besterik ere esan beharko luke: sektore batek eta besteak (hasieran, hiru sektoreek) ez dute bilakaera horretan parez pare eboluzionatu. Ez da kontu hori txosten honen aztergai nagusi, ordea, eta bego horretan.

(280) Epe ertain eta luzerako plangintzarik egin izan da Sailean, eragozpen hori leuntze aldera: BOSTAMAR informea eta antzekoak ildo horretatik joan izan dira. Egia da ordea, guztiarekin ere, ez dela hori izan jokabide nagusia: ez sektore publikoan eta ez pribatu-kontzertatuan.

azpian zegoen situazio kritikoa eta irtenbide praktikoaren moztadea behar bezala baloratu gabe. Arriskua hor egonik ere, ezin ukatuzkoa iruditzen zait epe laburreko plangintzak emendiozko eragozpenak sortu dituela luzera begira. Giza baliabideen epe ertain eta luzerako planifikazio ahulak albo-ondorio jakinak izan ditu. Begiz jotako garapen-neurriak, irakas-sistema elebakarra elebiduntzekoak, zaildu eta gogortu egin ditu maiz epe laburreko jokabide horrek. Irakasle erdaldunen egoera ere okertu egin izan du luzera, hobetu ordez: sartzen ziren irakasle berriak euskaldunak izan balira, lehengo erdaldunek segurtatuagoa zuketean beren L1eko irakasbidea.

Gauzak okertu ahala, «zerbait egin beharra zegoela» ikusita IRALeren bizkar gainera bota izan da maiz konponbidearen zati nagusia. Bere egitekoak ez zirenak leporatu izan zaizkio, horrela, IRALeri: irakasle euskaldunak alfabetatzeaz eta erdaldunak euskalduntzeaz gainera *koarto-sokorro* funtzioa bete izan du, sarri, hartarako pentsatua ez zegoen programak. Irakasleen euskalduntze-lana bera, kontestu horretan, aski baldintzatua gertatu izan da: kalitateari eustea lan gogorra bihurtu da maiz, kantitatea eta presa gailen ibili diren giroan. Lan gogorra eta eskergaitzokoa izan da hori guztia, bai irakasleentzat eta bai, bereziki, ikasketariaren gaitasun-maila epaitzen jardun behar izan duten arduradun teknikoentzat. Hori guztia hor dago, eta balioespen serio batek ez luke alde batera utzi behar.

Gero eta maizago entzuten da han-hemen, kontuotan aditu direnen artean bereziki, horrela euskalduntutako hainbat irakasleren euskara-maila ez dela nahi bezain egokia. Ez da espezialista handiegia izan behar, L2ko irakasleez osaturiko irakas-sistema bat zeharo atipikoa dela ikusteko eta, beraz, balioespen kritiko horrek egiaren zati bat berekin duela antzemateko. Arazoa ez da hor amaitzen: irakaskuntzako profesional askoren insatisfakzio-iturri bihurtu da euskalduntze-behar hori. Lana segurtatua izateko euskaldundu-behar zorrotza buru gainean izatea nekez gerta liteke inoren gozagarri, hartarako eman diren aukerak arras esku-zabalak izanik ere. Etekin edukatiboaren aldetik, orobat, aukeratu den bidea ez da ezinbestean hoberena. Euskarazko irakaskuntzaren kalitatea nekez atera da jokabide horrekin irabazian. Ikasle askotxok, euskaldunenek bereziki baina ez haiek bakarrik, nabarmen nozitu behar izan dute epe laburreko beharriaz eragindako konponbide *ad hoc* horien ondorioa. Denborak gozatu egin ditu kontuak, egia da. Baina atsekabezko egonezina hor dago, lau saihetsetarik isuri bizia dariola.

### *IX.2.3. Curriculumaren euskal dimentsioa, landu-arin*

EEN legeak ez du gai hori berariaz aipatzen. Badakit, beraz, hainbatek zer esango duen: «nolatan huts egingo zuen inork, esistitzen ez den lege-xedapen bat garatu ez izanagatik?» Horrela esanik borobila dirudi objektioak. Ez da hain borobila, ordea: baditu bere ertzak, eta ez hain kamutsak. Haste-

ko, euskara eta euskal kultura ez dira arras isolaturiko bi gauza, elkarri loturik dauden gertakari sozialak baizik (281). Euskara indarberritu nahia, EEN legeak esplizituki aitortzen duena, xede zabalago baten altzoan emanik dago: galbidean zetorren euskal kulturari gizarte-bizitzaren eszenario berrian «bere lekua» aitortzeko xedearen altzoan (282). Bestalde, mende-laurdeneko ibiliak oso argi utzi du euskara ezin indarberritu litekeela, eskola-munduaren ere, euskal kultura alde batera utzita: zerbaitetarako balio izan behar die ikasleei kostata ikasten edo lantzen ari diren hizkuntza horrek. «Zerbait» hori, berriz, euskal kulturarekin loturik dago lautatik hirutan: pakete berean doaz biak. Azkenik, irakasleen eta ikasmaterialen kontua dago tartean: euskaraz diharduten irakasleak eta euskarazko ikasmaterialak dira, praktikan, eskola-munduko euskal kulturaren bilgune eta zabalkunde-iturri: horretan ere elkarren eskutik doaz, erabat, euskal hizkuntza eta kultura. Nekez alde batera utz daiteke beraz, EEN legearen balioespen-saioa egiterakoan, soziokulturazko osagai hori.

Alor honetan ere ez da gaizki etorriko, egindako bidearen aitortzatik abiatzea. Euskal Hizkuntza eta Literaturako alorrean askotxo egin da, hasteko, eskola-curriculumari euskal dimentsioa txertatzeko: mende-laurden honetako aurrerapen nagusietakoa da hori. Geografian eta historian, musikan eta artean, antropologian eta soziologian erdi-garaturik daude aldiz egungo egunean ere, eskola-munduan garapen osoagoa behar luketen gaiak. Dimentsio-lanketa hori *Euskal curriculum*arekin nahastu izanak frenatu egin du azken aldian, azele-ratu orde, lanketa-bide hori.

Euskal dimentsioa landu-arin egotearen kontua ez da, askok hala deitoratzen badu ere, curriculum-dokumentu ofizialetara mugatzen. Beteago edo ahulago, esplizituago edo implizituago, aspaldidanik heldu izan zaio gai horri curriculum-dekretuetan eta Sailaren dokumentazio ofizialean. Hortik kanpora dago, nire ustez, defizit nagusia: ikasmaterialetan, irakasleen unibertsitate-garaiko (eta lan-garaiko) formazio-prestakuntzan eta lanbidera sartzeko mekanismoetan. Ikus ditzagun hiru puntuok.

a) *Curriculumaren euskal dimentsioa ikasmaterialetan*. Landu-arin dago euskal dimentsioa, oro har, EAEko Lehen eta Bigarren hezkuntzako testu-liburu eta ikasmaterial gahienetan. Landu-arin eta, berariaz lantzen denean,

---

(281) Ez da hori euskararekin eta euskal kulturarekin gertatzen den fenomeno bitxia, mundu zabaleko lege orokorra baizik. Lokarri sendoz bilduak egon ohi dira, hemen eta nonahi, hizkuntza jakin bat eta hizkuntza horretaz baliatzen den etnokultura: kultura horren zati, adierazpide eta simbolo-ikur izan ohi da, besteak beste, berarekin estuenik asoziatutako hizkuntza. Ez da asoziazio biuniboko hertsia, bien artekoa, ez eta urteen joanean aldaezina. Bai, ordea, hein batean benetakoa eta eragingarria. Lotura horren zernolakoaz ikus, esate baterako, Fishman et al 1985 eta Fishman 1991.

(282) Askok eztabaida liteke «bere lekua» zer den, zenbatekoa eta zer-nolakoa. Dударik ez dago, ordea, asmo horren benetako izaeraz. Ikus bestela, konfigurazio juridiko berriaren hasierahasierako iturrira joaz, 1978ko Konstituzioaren sarrera.

hainbaten ustez desegoki landua. Eztabaida eta kexu askoren jomuga da, aspaldiko urteotan, gai hori. Okerrera egin duela esatea gehiegi bada ere, bistan da normaltasun-girotik urruti dagoela kontua (283). Diagnostiko bi dabilta, alor horretan ere, elkarren lehian. Euskaldunok zer (izan) garen, zenbat garen eta, inplizituki, zer izan nahi dugun: hori dago egon, hainbatean, eztabaida horren oinarrian. Eskola-kontu hutsaz haraindiko eztabaida soziohistorikoa dugu, beraz, eskolaratua. Eztabaida soziohistiroikoa eta, nola ez, egunean eguneko aurkaritza ideologikoa. Ez da gaurkoz, horrexegatik, ikuspegi bi horiek ezkontzen erraza.

Dena ez da ideologia-kontua, halere. Badago irakasleen, liburugileen eta hezkuntza-eragileen esku, nire ustez, gaiari ikuspegi sozioedukatibotik heltzeko modurik. Alde horretatik aski onargarriak iruditzen zaizkit ondoko bi bai-eztapenok: 1. euskal dimentsioa landu-arin dago, oro har, ikasmateriale-tan (284); eskolak bere funtzio soziokulturala osorik beteko badu leku nabariagoa zor zaio curriculumaren euskal dimentsioari. 2. dimentsio hori esparru zabalagoko dimentsioekin batera lantzeak mesede egingo dio EAEko ikasle-jendeari, ez kalte. Adibidez, Azkoitiko zalduntxoen fenomeno eta Bergarako Erret Mintegia ez dago zertan Azkoiti-Bergaretara mugatu, ez eta euskal fenomeno isolatutzat hartu. Espainian eta Europan garrantzi handia izandako korrante kultural, ekonomiko eta edukatibo baten eskutik azaltzeak baiotsuago egiten du euskal ilustrazio hura, ez ahulago. Antzera gerta liteke Erdi Aroko euskal ontzigintzarekin eta Atlantikoan zeharko itsasgintzarekin, batez ere XIII. mendetik XVI.era bitartekoak harturik aztergai eta euskaldunon Ameriketako parte-hartzeaz informazio kontrastatu eta integratua eskainiz. Orobat egin liteke euskal kantugintza Europako korrante nagusietan txertatuz eta euskaldunon ahozko literatura bizia (bertsolaritza eta gainerakoak) mundu zabaleko perspektiban proiektatuz. Labor bilduz, posible da euskaldunon ja-

---

(283) Batzuen esanean, abertzaletasun itsu-muturrekoak du egungo egoeraren kulpaa: itsutasun horrek eragindako adoktrinamendu-gogoak egiaren kontrako transmisio-leku bihurtu ditu, hein handi batean, bertako hainbat ikasmaterial. *Euskal herria* kontzeptuaren erabilera okerrak, bereziki, bere onetik ateratzen ditu gauzak. Oso bestelako diagnostikoa dago, bestetik, plazaratua: euskaltasunaren minimizazio-saioa nabari da, argi asko, EAEko ikasmaterial gehienetan: batez ere argitaletxe batzuek prestatuikoetan. Minimizazio hori ikasmaterial konkretuen eduki soziokulturaletan antzematen da batetik; bestetik, berriz, *Euskal herria* EAEREkin berdinu nahi lukeen fragmentazio-asmo lausorik gabeen.

(284) Kataluniako *Jaume Bofill* fundazioaren informeaz geroztik aski identifikaturik dago eskasia hori (Segura eta abar, 2001). Geroztikako txostenek baieztatu egin dute diagnostiko hura, oro har. Azken ordukoei dagokienez ikus, bereziki, «Irakasle bi» 2005. Datu horien argitan, Autonomia Erkidegoaren kompetentzia, curriculumaren %45 bertan finkatu ahal izatekoa, ez da normalean betetzen: ezta giza eta gizarte-alorrekoetan ere. Beste zenbait perspektibatarako ikus, adibidez, Luis Otano 1998: «Euskal eskolak, euskal ikasleria beraren irakaskuntza-ikaskuntza eduki eta helburuak difinituko dituen curriculumak behar du. Curriculumak herri bezala identifikatzen gaituzten ezaugarri linguistiko eta kulturalen ezagutza erraztu eta bertako partekotasunaren ezaugarrien antzematea ahalbideratu behar dio. Edozein modutan, ulertu behar du identitate hau ez dela inoren aurka definitzen baizik eta beste herri eta pertsonenganako irekitasunaren oinarri dela» (Otano, 1998: 83)

tortasun etnokulturala edo elkartasun soziohistorikoa zaindu eta apreziatzea, alde batetik, eta gizarte-berrikuntzaren aldi eta alde orotako joerak eta gertakariak perspektiba zabalagoetan txertatzea bestetik, kultura eta gizarte-bizitza osoaren dimentsio guztiak atxikiz. Eginkizun dago, hein batean, curriculumaren euskal dimentsioaren zehaztapen eta aplikazio integratu hori. Testu-liburuetan «euskal» gora eta «euskal» behera jardutea, besterik ez bailitzan, jokatibide motza da dudarik gabe. Dimentsio hori ahalik eta gutxien lantzea edota ezer ez erakustea, «folloietan ez sartzeko», nekez izan liteke ordea biderik zuzenena.

b) *Curriculumaren euskal dimentsioa irakasleen formazioan.* Horretan dago bigarren korapiloa: bai unibertsitate alorreko formazioan, eta bai etengabeko prestakuntzan, leku meharra du curriculumaren euskal dimentsioak. Ondorioak ere begien bistakoak dira. Jasotako emaitzen argitan nabaria da, zinez, EAEko irakasle askok euskal kulturaz duen ezagutza-falta (285). Ondorio argiak ditu horrek ikasleen formazioan: ez dakiena nekez erakutsiko du irakasle-jendeak. Norbanakoaren afizio-*hobby* hutsean ezin oinarritu liteke prestaera hori: bere lekua behar du curriculumaren euskal dimentsioak, unibertsitatean eta etengabeko prestaera-programetan, gainerako dimentsioekin itxura batean txertatuz bere lekua eskuratuko badu EAEko eskolagintzan. IRALE (bertako R600 ikastaroa) eta Mondragon unibertsitateak abiatu berria duen ikastaroa dira gaurkoak, oker ez banago, gai horiek osoen eta sistemati-koen lantzen dituzten guneak. Ezagutza hori EAEko irakasmundura zabaltzen ari da apurka-apurka, IRALeren bidez, bereziki. Garrantzitsua izanik ere aski mugatua eta fragmentarioa da ordea, irakas-sistema osoari begira, mende-laurden honetan gai horretaz egin dena: nire ustez unibertsitateak berak heldu behar lioke kontuari, aurrez aurre, irakasle-gaien prestaeraz arduratzen diren ikasbideetan leku egokia emanez.

c) *Curriculumaren euskal dimentsioa irakasletarako sarbide-probetan.* Oso berrikitarara arte ez da, alor horretan, ezer asko egin. Ez ezinbestean aginte zentralak langintza hori espresuki eragotzi duelako, hemen bertan gai horri zor zaion garrantzia aitortu ez zaiolako baizik. Lanerako eskatzen ez dena gutxitan ikasten du inork, berdin du «inor» hori irakasle izan, auto-konpon-tzaile edo notario. Arrazoizkoa da, hortaz, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako sarbide-probetan, bai sare publikoan eta bai kontzertatuan, ezagutza hori eskatzea. Era eta maila neurtuan, ez itxura gabekoan, eskatu behar da ezagutza hori: baina bere pisua izan behar du. Hori da bide normala, gainerako irakas-gaiekin erabiltzen dena, eta hori izan behar luke euskal dimentsioak ere, gaia egungo eztabaida-giro antzutik atera eta arrazoizko parametro akademikoetara eraman nahi bada.

---

(285) EAEko irakasleek dimentsio horretaz zer dakiten jakiteko ebaluazio gutxi egin da, dakidalarik, eta orduan ere aski neurraketa apalak izan dira. Lehen hurbilketatuko emaitzarik badago, ordea, eta ondorio batzuk deigarriak dira.



#### ***IX.2.4. Euskara ikasteko metodologia, atentzio gehiagoren premian***

Kontraesaneko baieztapenez hasiko naiz hemen ere: badira gure artean irakasle eta ikertzaile jakitunak, unibertsitate alorrean bereziki baina ez han bakarrik, metodologiako gai horretan aski goi-mailan dabiltzanak. Ez gara hemen izen propioak azaltzen hasiko: guztiok ditugu gogoan, eta asko zor diogu haien ekarpen saiatuari. Ez dago horretan defizit nabarmenik, hortaz, eta bai aurrerapen ohargarririk. Hori horrela izanik ere, besterik da hemen defizit moduan azpimarratu nahi dudana. EAEko ikasle gehienak, %75 edo %80, etxetik erdaldun (edo erdal elebidun nabarmen) izanik, harrigarria da euskara EAEko haurrei eta neska-mutilei L2 moduan irakasteari zer atentzio mugatua eskaini zaion mende-larden honetan. Metodologiako eta glotodidaktikazko atentzio teknikoaz ari naiz. Hobera ordezkerrera egin du atentzio-kontu horrek, nire ustez, mende-laurden honetan. Defizit moduan hartu beharrekoa da hori ere, hortaz.

Esplikazioa, esplikazio bat behintzat, honako hau dela uste dut: EAEko neska-mutil erdaldunak A ereduaren bidez euskalduntzea oso lan zaila dela ikusirik B eta, bereziki, D ereduaren berezko abantailetan jarri izan da enfasia. Horren aldeko konstruktio teorikoa badakigu nondik abiatzen den: zerbaitetarako balio izan behar die ikasleei euskarak, ganoraz euskaldunduko badira. Zerbait hori, berriz, eskolako beste jakintza-gaiak ikastea izan liteke. Hori da murgiltze-bidea, 60ko hamarkadatik aurrera Kanadatik mundu zabalera hedatua eta mende-laurden honetan esku-zabalik hartu eta indar biziz bultzatu duguna: irakasleek, eskola-arduradunek, hezkuntza-aholkulari teknikoek eta Administrazioak berak gero eta garbiago ikusi uste izan du hori dela benetako konponbidea. Horrekin batera zabaldu izan da gure artean, errazegi nire ustez, «A ereduak ez du ezertarako balio» dioen slogana.

Ez nago murgiltze-bidearen kontra: aurrerago hitz egingo dugu horretaz, argiago. Banago, ordea, L2ren metodologiako ikaste-irakaste kontuei gero eta atentzio txikiagoa eskaintzearen aurka. «A ereduak ez du ezertarako balio» sloganak egiaren erdia adierazten du, onenean ere. Ez da egia L2 (euskara, katalana, alemana, ingelesa edo nahi dena) ezin ikasi litekeenik așignatura moduan, halako neurri batean. Gauzak horrela balira, *per se*, munduko ingeles-akademia guztiak alferrik leudeke. Hizkuntza Eskola Ofizial guztiak ere bai. Baita AEK, HABE eta antzekoak ere. Ez daude alferrik, ordea: funtzionatu egiten dute. Zergatik da, orduan, euskara eskolan (batez ere A eredu) erakustea alfer-lana? Esajerazioa da hori. Zer esan behar dugu bihar edo etzi, B eta D ereduak ere espero genuen emaitza txuri-gorrikerik eskuratzen ez dutela «deskubritzen» dugunean? Hizkuntza bat L2 moduan ikastea ezin disozia liteke eskolaz kanpoko praktikarekin: hor dago koska, ez gela barruan. Gela barruan hobetu egin liteke L2ren ikasbidea, erraztu eta indartu. Leku zoragarria da EAEko irakas-sistema, L2ren ikaste-irakaste bideei buruz metodologiako eta glotodidaktikazko azterlanak egin eta ikasbide horiek etekin han-

diagoz antolatzen saiatzeko. Hobekuntza horien onura ez du, gainera, A ereduak jasoko: B eta D ereduak ere metodologiazko aztergune sendo baten eta hobekuntza eragingarrien beharrean daude: behar gorrian, zenbait kasutan. Hori da, labur esanik, mende-laurden honetan egin gabe edo egin-arin daukaguna.

Bada beste kontu bat, azkenik, metodologiazko eta glotodidaktikazko lanketa ahularen gai horrekin loturik dagoena: A ereduan, Bn zein Dn ez da luzata espezializazio teknikorik eskatu, euskara-irakasle izateko. Hutsetik abiatu behar izan zen euskara-irakasleak bilatzen eta kontratatzen, irakasle idoneoen eta espezifikoen laguntzaz besteak beste, eta luxua zirudien orduan euskara-irakaslearen lanposturako irakasle espezialista bilatzea: EGA (gero HE2) izatea izan da, denbora luzez, eskatu den baldintza bakarra. Gertakari horrek frenatu egin ditu, azeleratu ordez, unibertsitatean sor zitezkeen iniziatibak, euskara-irakasle berrien prestaera berariazkoa indartzeko eta hartarako institutu espezializaturik eratzeko. Euskal Filologiako ikasleen irtenbide profesionala ere murriztu egin izan du horrek, hainbat urtez. Ez da hori unibertsitatearen errua izan, bistan da, administrazioaren beraren muga-baldintzek eragindako moztadea baizik.

### *IX.2.5. Ganorazko euskal girorik gabe, etorri oneko hiztunik ez*

Etorri oneko hiztunak behar ditu edozein hiztun-talde, hizkuntza horretan funtzionatuko badu. Ez, ezinbestean, hiztun garbiak eta jatorrak, «gure aurrekoen pare eta guztiok egiten dugun moduan» hitz egiten dakitenak. Bai, ordea, etorri onekoak: esan behar dutena esateko gai direnak, zenbaiten iritziz «aski euskera xelebrea» jardungo badute ere (286). Hots, eskolan ezezik eskolatik kanpora ere eguneroko bizitza arruntean aparteko lotsarik gabe euskaraz jardungo duten gazteak. Etorri oneko hiztunak sortzea lehentasun argia zen eta da gure artean. EEN legearen «conocimiento práctico suficiente» hura ez dut uste ingelesezko *fluency*-tik eta gure *hitz-etorri*-tik hain urrun dabilenik. Helburua hor dago egon baina, oro har, helburu hori ez da bete. Etxetik erdaldun diren neska-mutil gehienen artean ez da hala izatea lortu, eta etxetik euskaldun direnen artean ere batzuetan bakarrik lortzen da halakorik. Ez da moztade hori hemengo kontua bakarrik. Badugu perspektiba zabalagoko konparazio-aukera ederrik, eskolaren eta eskolaz kanpoko jardunaren arteko konexioaz. Bada European, urruti joan gabe, aski gure antzeko egoera sozio-linguistikoa duen herrialdea: Gales. Saio sendoa egiten ari dira galestarrak, beren hizkuntza ahula indarberritzeko. Aparteko garrantzia ematen diete haiek ere eskola bidezko berreskuratze-lanari. Ebaluazioak eta balioespenak metatzen ari dira, bertako eskola-saioaren emaitzak direla-eta. Berariaz aztertu dute

---

(286) Hiztun garbiak etorri onekoak izan ohi dira normalean, non eta bestelako ezintasun estralinguistikoren bat ez duten. Alderantziz ez da beti horrela: alderantzizko baldintza (hitz-etorri on) hori da, berez, ezinbestekoa.

batzuek, etxetik galesez ez dakiten gazte batzuek zergatik lortzen duten hitz-  
-etorri ona (on samarra) galesez, eta besteek ez. Kontu hori berariaz aztertu  
duen gero eta autore gehiagok zera dio, Galesko emaitza horien argitan: etorri  
oneko hiztunak sortzearen gakoa eskolatik kanpora dagoela hein handi batean.  
Eskolan ikasten dutena eguneroko bizian aplikatu ahal, aplikatu nahi edo  
aplikatu behar izango duten jardunguneak, harreman-sareak eta solaskideak  
behar dituztela hiztun berriok. Solaskide horiekin diharduten neurrian eskura-  
tzen dutela hitz-etorria. Ikasle horien harreman-sare hurbil, arrunt eta eskura-  
garriez inguratu behar dela hortaz eskolako indarberritze-lana, saio osoa alfe-  
rriek galduko ez bada. Haurrek, neska-mutilek eta gazteek ingurumen  
babesgarria behar dutela, erdal erasanaren aurrez aurre beren L2 horretan  
jardungo badute eta, horrela, jardunaren jardunaz hitz-etorria eskuratuko ba-  
dute. Auzoan eta kale-bizitza hurbilean, adin bereko gazte-gaztetxoek lagun-  
taldeetan, hurbileko osasun- eta kirol-zerbitzuetan, astialdi antolatuan eta  
ikasketa-aukera berezietan erabilgarri, eta erakargarri eta baliagarri gertatu  
behar zaiela hizkuntza, hartaz baliatuko badira. Gero eta maizago irakurtzen  
dira horrelakoak han-hemen. Azken-azken orduko lanei dagokienez eta L2  
ikasle helduetan zentratu ikus, esate baterako, Lynda Pritchard Newcombe-  
ren 2007ko *Social Context and Fluency in L2 Learners. The case of Wales*.  
Gazteen eta helduen mundua badu ere aztergai, eskoletako euskara-ikasle as-  
koren situazioa ere oso ondo deskribatzen duela uste dut (287). Ondoko pa-  
sarteok jasotzen dute argi bere iritzia: «Great emphasis is placed on the learner  
as a social being whose processing of the second language (L2) depends to a  
large extent on their ability to negotiate entry into .....social networks of  
target language speakers.(...) .....successful language learners require regular  
interaction in the target language in a setting in which they feel comfortable».  
(L. Pritchard Newcombe, 2007: 1). Baita beste hau ere: «The support of na-  
tive speakers is particularly crucial in the learning of lesser-used languages.  
In the case of Wales, for instance, there are large areas, such as the capital  
Cardiff and its environs where the only contact for many learners with Welsh  
is in a classroom and the rest of life –home, social and work- is conducted  
through the medium of English. In situations of this kind, learners have to  
seek opportunities to meet Welsh-speakers and converse». (L. Pritchard  
Newcombe, 2007: 3). Aukera hori baliatzen ez denean, edo halako aukerarik  
ez dagoenen, oso nolabaiteko gales-hiztunak sortzen dituzte sarri bai eskolak  
eta bai «galestegeiak»: «they only ever speak «classroom Welsh», resort to  
simply reading the language, or give up altogether». (L. Pritchard Newcombe,  
2007: 3).

Ezaguna gertatzen al zaigu Galesko ondorio hori? Bai, oso ezaguna:  
hemen bertan, eta guri begira, idatzia dirudi. Bai etxetik erdaldun diren gaz-  
teen kasuan eta bai, are, etxetik euskaldun (nola-halako euskaldun) direnen

---

(287) Kataluniako Miquel Strubell soziolinguista ezaguna ere ondo ohartua dago horretaz,  
ni baino lehenago. Ikus L. Pritchard Newcombe-ren argitalpen horren sarrerakoa.

artearen bete-betearen kunplitzen dira Galesko muga-eragozpen horiek. EAEko eskola-mundua bere bidetik joan da, sarriegi, haurren euskalduntze- eta alfabetatze-lanean. Belaunaldi berriaren euskalduntze- eta euskarazko alfabetatze-lana osorik berea dela uste izanik, eta langintza horren motore-izaeraz zeharo konbentzitua, gizarte-ingurumenarekin elkarlan handirik osatu gabe jardun du mende-laurden honetan. Errua ez da, inola ere, berea izan. Ez, behintzat, berea bakarrik. Inork baino gehiago egin du eskolak, euskalduntze-alfabetatze-lanean, eta errua inork baino gehiago egin duenari leporatzea ez da gisako. Eskolaz kanpoko jardunguneen, harreman-sareen eta solaskide-multzoen falta sentitu izan da maiz, aitzitik, eskolaren lana osatzeko. Udalak eta bestelako instantziak gogotsu agertu izan dira sarri, euskarazko irakastereduen alde. Ez dira neurri berean ahalegindu izan, aldiz, eskolako euskalduntze-saioari osagarritzko eta ezinbesteko jardungune eta harreman-sareok eskaintzeaz, beren jardun-esparru propioetan: kirolean, astialdi antolatuan, gazteentzako zerbitzu-eskaintzan eta, oro har, neska-mutilek eta gazteek auzoan, kalean eta gizarte-bizitzan hiritar bihurtzen dituen hainbat ekimen kolektibotan. Egia da zenbait udalek eta hainbat instantziak eredugarritzko traiekтория dutela alor horretan, aspaldidanik, eta urtetik urtera zabaltzen ari direla beren jectio-alor hori. Egia da, orobat, gero eta eragile gehiago ari direla gurdi horretara biltzen. Mendelaurdeneko baiospena egin behar bada, ordea, kontuak bestelakoak dira: desoreka handia dago eskolan eta eskolaz kanpoko jardunguneotan egin denaren artean.

Irakasleak, eskolak eta Hezkuntza Saila bera ari dira aspaldidanik saiatzen, beren ikasleek (euskaldun berri eta zahar) horrelako jardunguneak eta harreman-sareak izan ditzaten eskolatik kanpora. ULIBARRI programa bera, partez (ez osoz), eskolaz kanpoko jarduera modu horiez arduratzen da. ULIBARRI egin dezakeena ez da, ordea, aski. Ingurumenaren esparrua mila aldiz zabal-trinkoagoa da berak kontakta eta molda dezakeena baino. Ez da arrazoizkoa konexio- eta aktibazio-ardura ULIBARRIren bizkar gainera botatzea (288). Laguntza handia lukete eskolek eta irakasleek, baita guraso kezkatu askok ere, ingurumeneko laguntza-bideok lekuan lekuko inizatibaz eratuko balira, guztia «goiko»en ardurapean utzi gabe. Etorri oneko hiztunak, ez nolabaiteko elebidunak, sortu nahi baditugu osagarritzko laguntza horien eta beste askoren beharrean da eskola. Berak bakarrik ezin du halakorik egin, ez orain eta ez gero.

Gazteen euskarazko aisialdi- eta atentzio-sarerik eratu ezinik ez legoke berez. Posible da hori, teoriarik eta praktikan. Baita osagarritzko diru-kostu

---

(288) Komeni ere ez, hainbat kasutan. Bi motiborengatik diot hori: a) udalen eta beste instantzien lasaigarri da, askotan, ULIBARRIren parte-hartze hori: HNTak eta gainerakoak «lanean ari direnez, ondo asko», beraiek ez daukate ezer egin beharrik. Horra aitzakia ederra, kontuak bere horretan uzteko. b) eskolatik gehiegi urruntzen diren neurrian, eskola-kontuak (hots, beren lan zentrala) *full time* atentitzeko denbora gutxiago eta baliabide-aukera txikiagoak dituzte HNTek.

handirik gabe ere: nork esan du neguko aste-bukaeretako irteerak (Pirineoan eskiatzera, demagun) eta udako jaialdiak euskaraz antola ezin litezkeenik, autobus, jantoki eta dantza-leku barne? Egon ez dago ordea, praktikan, horrelako eskaintza handirik. Oztopo bi ageri dira hor, besteak beste: dagoen apurra aski markatua dago ideologiazko baldintza estuz, eta beraz «aurrez konbentzituak» bakarrik erakartzen ditu jarduera horrek. Ez da murriztapen ideologiko hori bide egokia, luze-zabaleko gazte-atentzioa indartzeko. Halako mugarik tartean ez denean ere tematikak berak murrizten du, sarri, gazteentzako eskaintza eta beraien parte-hartzea. Ezin aste guztiak bospasei kantari-talderen disko berak entzuten, trikiti-jaialdira joaten eta bertsolari-saioak entzuten pasako dituzte gazteek. Hori baino kultura-eskaintza zabalagoa eta dibertsifikatuagoa eskatzen du, arrazoiz, gazte-jendeak. Hortxe dago bigarren koska: aisialdiaren euskarazko aukeraren murriztak eta dibertsifikazio-faltak nekez gazte-saldo zabalak erakar ditzake. Euskarazko eskaintza horren beharra handia da, bestalde, eskola bidezko saioa gaztaro bete-betean indargabetu edo ezabatuko ez bada. Etekin linguistikoaren aldetik, nolana ere, funtsezkoa da euskaldun alfabetatu gazteok «beren neurriko» harreman-sare euskaldunetan txertatzea eskolatik kanpora, eta beren irakurmen-mintzamenak garatzea. Batez ere mintzamina: ahozotasunean dago behaztopa-harri nagusia (289). Trebetasun-lantze horretan eskolak izan dezakeen eragina ez da gutxietekoa, baina bere neurritik ez da ateratzea komeni. Eskolatik kanpora pasatzen ditu gazteak bere esna-ordu gehienak, eta ordu ugari horietako hizkuntza-*input* bizia gabe kantsa da, oso, eskola-bide hutsez eskura litekeena.

Euskal eskolak ezinbestekoa du ganorazko euskal-girotze saiorik. Hala-ork asko ez da eratu. Eskoletan egin den esfortzuaren ondoan ezer gutxi egin da, diruz eta gizajendez, antolamenduz eta baliabide materialez, baita diseinu teorikoz ere, hain funtsezkoa den alor horretan. Mende-laurden honetako defiziten artean ez da hori, ene ustez, txikiena. Baita perspektiba ekonomikotik ere: zer justifikazio du eskolan egiten den inbertsioak, ondorio material konkreturik ekarriko ez badu? Ondorio konkretuak eskuratzeari dagokionez, berriz, nork esan du aste osoko klase-emankizun errutinarioek, bizi-taupadatik urrun eta lautatik hirutan pasiboek aste-bukaerako berritsuketa alai, bizi, gatz-piperrezkoek baino eragin handiagoa dutenik neska-mutilen hitz-etorri lanke-tan? Nork esan du euskarazko aisialdiaren antolamendua oraingoa baino garestiagoa denik?

Bada, gai honi amaiera emateko, kontuan hartu beharreko beste puntu bat: Euskal-girotze saiorik bultzatu nahi baldin bada aparteko garrantzia dute, bai perspektiba ekonomikotik eta bai, bereziki, lanaren etekinaren ikuspegitik, euskarazko arnaguneez eta, oro har, gune horietatik kanpora kokaturik dauden

---

(289) Behin eta berriro hitz eginez edo irakurri eskuratzeko dira, orobat, ezpain-lumetako trebetasunak: pedalei emanez, ez bestela, ikasten dugu bizikletan ibiltzen. Gero ere hala egin behar izaten dugu (aldapan behera goazenean izan ezik) etxetik helburura iritsiko bagara lurrera erori gabe. Eginez ikasten da hitz egiten eta idazten: ez dago beste biderik.

euskarazko harreman-sare beregain arruntek. Bizirik dagoena eta bere buruari eusten diona, hori da euskalgintza osasuntsuaren ezinbesteko abiaburua. Baños de Ebron saiatzea ez da okerra, are gutxiago debekuzkoa. Baina bizia hemen dago, ez han, eta hemengo bizi-indar beregain honetan oinarritu behar da eskola bidezko indarberritze-saio osasungarria. EAE osorako formulazioa uniforme ondo dago, konstruktua jurilinguistiko moduan. Hori baino hurbilbide xume eta zentzuzkoagoa aplikatu behar genuke, ordea, eskolan ikasten denari ingurumen hurbilean txertagune praktikoa bilatzerakoan. Lekuan lekuko lan-programak behar dira horretarako, ez «café para todos» moduko formula antzuak. Bizirik dagoenari bizirik eutsi, eta zuhaitz-landare berriak harizti bizian aldatu, hori da lehentasunezko bidea. Ez al gaude horren faltan, lehenik eta behin?

### IX.3. Zertan asmatu da?

Kexuen eta moztadeen letania luze samarra azaldu dugu aurreko atalean. Laburregia irudituko zitzaion bati baino gehiagori. Hainbat gai (ez deskuidoz, seguruena) isilpean utzi dudala edo hanka-punttaka pasa naizela esango du beste zenbaitek. Arrazoi izango dute biek, hainbatean. Ez dut uste, halere, gauza gehiegi izkututzen ibili naizenik, ez eta edergailu hutsalez estali dudanik azalpena. Kontuak horrela ateratzen zaizkit niri, moztadeak eta defizit nagusiak aipatzerakoan.

Dena ez da, ordea, moztade eta defizit. Bada lorpen nabarmenik ere tartean. Badakigu *lorpen* hitza erlatiboa dela funtsean: Ipar Euskal herrian lorpentzat emango luketen mila kontu moztade eta defizit moduan definitzen du hemengo zenbaitek. Segun normaltasun-egoera aurretiaz nola definitzen den, halako ondoriotara iristen gara gure balioespenetan. EAEko eskolaketak euskara indarberritzeko orduan eskuratu dituen lorpenak nabarmenagoak dira, oro har, listoi moduan Europako beste hiztun-herri ahulduak hartzen badira kontuan. Lorpen horiek asko apaltzen dira, aldiz, gu baino autorregulazio soziokultural, ekonotekniko eta politiko-operatibo handiagoa duten herrialdeekin konparatuta (290). Inguruko gaixoak zeu baino gaixoago daudela ikustea ez da gainera, ezinbestean, inoren kontsolagarri. Jakitea ez da gaizki etortzen ordea, *ranking* moduko horretan non zauden jakiteko. Inorekin konparatzekoan ez al da arrazoizko, bestalde, zure taldekoekin edo ingurukoekin (goraxeagokoekin eta beheraxeagokoekin) egitea? Ahuldutako hiztun-elkarteak duten Europako beste esperientziak hartzen baldin badira konparazio-gune, zertan

---

(290) Orduan ere kontuz ibili behar da, ordea, jeneralizazioekin. Irlandak guk baino nabarmenki indar handiagoa du dimentsio horietariko gehienetan, baina bertako hizkuntza ahuldua indartzeko orduan nekez esan liteke gure aurretik dabilenik. Guztia ez da botere ekonomiko, mediatiko eta politiko. Hori baino konplexuagoak dira kontuak, ahuldutako hizkuntza indarberritzeko orduan.

moldatu da ongi (ongi samar) EAeko eskola-esperientzia elebiduna? Zer da gure esperientziatik, nagusiki, kanpoko adituei eta hiztun-herri horietako eragile saiatuei gehien atentzioa deitzen diena?

### ***IX.3.1. Euskarak «bere lekua» topatu du eskola-munduan, epe laburrean***

Kopuru-hedaduraz eta intentsitate-mailaz jauzi kualitatiboa egin du, mende-laurden honetan, ele biko hezkuntzak. Tradizio handirik gabeko egoeratik abiatuz egin da jauzi hori, hizkuntzaren beraren izaera sozio-tipologikoa eta barne-lanketa apalak emendiozko zailtasunak zekartzan aski kontestu delikatuak. EAeko eskola-munduan ordura arte oso sarbide mugatua izandako *Abstand*-hizkuntza zaharrak «bere lekua» topatu du eskola-munduan. Beste zenbait *Ausbau*-hizkuntzak ez bezalako erronkei aurre egin behar izan die horretarako: euskaraz irakastea, eta galegoz edo katalanez egitea, ez dira gauza bera. Ahuldutako hizkuntzaren *Abstand/Ausbau* izaerak badu eraginik, eta ez nolana horik, eskolagintzan ere (291). Elearteko distantzia ez da elementu hutsala, xede-hizkuntza L2 gisa ikasi behar denean eta, batez ere, eskolan ikas litekeena ingurumen hurbilean aplikatzeko aukera edo beharra aski murrizta denean. Barne-egiturazko edo corpus-lanketazko baldintza estrukturalak ere kontuan izatekoak dira horrezaz gainera, honelako balioespina egiterakoan. Hizkuntza bera normatibizatzen hasi berria zelarrik, ikasmaterialik ia gabe geundelarrik, irakasle gehienak erdaldun izanik eta etxetik euskaldun ziren irakasle apurrak euskaraz alfabetatu gabeak (formazio guztia edo gehiena erdaraz jasoak) zirelarrik egin behar izan da euskararen eskolaratze masibo hori. Ahaztu egiten zaigu, baina horrela dira kontuak.

Merezimendu handia izan dute ikastetxeek, bertako zuzendaritzek eta irakasleek beraiek euskal eskolak «bere bidea» egite horretan. Gutxitan aitortzen zaien korajea, amaigabeko ilusio-ahalmena, urteetako konpromiso pertsonala eta oker egindakoa zuzentzeko adorea agertu izan dute maiz asko, batzuek eta besteek. Saiatu egin dira eta asmatu egin dute beren langintza horretan, aski neurri zabalean. Gurasoen eragina eta jarrera, gorago esan denez, funtsezkoa izan da orobat: gurasoek nahi izan ez balute, edo halakorik onartzeko prest agertu izan ez balira, euskarazko edo elebiko eskola-sistema ez zen gaur egun hain hedatua egongo. Alferrik izango ziren EEN eta gainerako legeak, interes-falta edo kontrajarrera nagusitu balitz beraien artean. Euskarak «bere lekua» topatu du eskola-munduan, gurasoek hala nahi edo onartu izan dutelako besteak beste. Herri-aginteez eta beraien goi-arduradunek, azkenik, funtsezko protagonismoa izan dute ibilera horretan. Mila oker, hutsegite eta moztaderen artean asmatu egin dute, funtsean, elebikarrek sistema hartatik egungo irakas-sistema elebiduna eraikitzen. Ez al da gizalegezkoa, nori berea aitortzea?

---

(291) *Abstand/Ausbau* dikotomiaz ikus Heinz Kloss-en jatorrizko azalpena (Kloss 1952) eta geroztikako bibliografia.

Aipamen handirik gabe pasatu ohi gara, hanka-punttaka edo ez-ikusia eginez, funtsezko gertaera positibo horretatik. Kanpoko adituek, aldiz, guk baino mila aldiz atentzio handiagoz analizatzen dute kontua, eta aski balioespen baikorrez inguratzen. Gogoan dut, esate baterako, euskararen *Abstand-izaera* dela-eta zer interes berezi jarri ohi zuen Jim Cummins batek, orain dela hogeitun urte pasa, hemengo saioaren bilakaeran eta lehen emaitzetan. Oso gogoan dut, orobat, zer garrantzi eman izan dion beti Bruselako Hugo Baetens-Beardsmore irakasleak hemengo garapen-moduari eta eredu-aukerari. Gogoan ditut, orobat, beste askoren goraiamenezko laudorioak. Bertako eragileen merezimendua izan da, euskara EAeko eskola-agendan txertatu izana. Bada ordua gurasoei, ikastetxei, zuzendaritzei, irakasleei, aditu teknikoei eta jesterre publikoei beren protagonismoa aitortzeko. Geuk aitortzen ez badiegu merezimendu hori, nork aitortuko die?

### ***IX.3.2. Haur euskaldunak alfabetatu egiten ditu eskolak, eta elebidun osatu bihurtzen***

Bere aje-gabezia guztiekin ere funtzionatu egin du euskal eskolak, bai etxetik euskaldun ziren haurrekin eta bai erdaldunekin. Gatozen lehenengo multzora: D ereduan dabilta, EEN legea onartu zenetik, etxetik euskaldun diren neska-mutil gehienak: gutxi dabilta B ereduan, eta are gutxiago A-n. Euskarazko eskola-bide hori ez zaie eragozpen larria gertatzen ari. Mendelaurdeneko ibiliaren buruan ez dago luze-zabaleko datu metatu eta esanguratsurik, eskola-molde hori kaltegarria edo aplikaezina dela ondorioztatzeko. Bai garapen kognitiboari dagokionez, eta bai euskara-erdaren ezagutza mailan, euskarazko eskola-bidea aplikagarri gertatzen ari da, oro har, ikasle euskaldunekin. Aplikagarri gertatzen ari da eta, eskueran ditugun datuen argitan, bere emaitzak kaleratzen hasiak dira. Haur eta Lehen Hezkuntza bezala DBH, Batxilergoa eta unibertsitatea euskaraz egin duten lehen belaunaldi zabalak kalean dira jadanik. Parez pareko elebitasun orekatuaren *desideratum*-etik ikasle horiek ibili ohi dira, ez beti baina bai sarri, hurbilen. Lan-munduan euskaraz txertatzeko prestaturik daude, hartarako aukerarik izanez gero, horietariko asko.

Euskaraz alfabetaturik egoteaz gainera, erdaraz jarduteko gai dira. Ez da D ereduko ikasle-ohi askorik ezagutzen EAEn, erdaraz jarduteko gai ez denik: ez ahoz eta ez idatziz. Erdaraz jarduteko gaitasuna ez die eskolak bakarrik eman, bistan da. Eskola bezainbat (292) kaleko (batez ere hiriko) ingurumen hurbila lehen urteetan, eta handik harako harreman-sare zabalak gero, horiek dituzte erdarazko gaitasun horren iturburu nagusi: bai ahozkoan, eguneroko

---

(292) «Eskolak bezainbat», edo «eskolak baino gehiago»: hori neurtu gabe dago. Hipotesi huts dira, beraz, batzuek eta besteok horretaz esan ditzakegunak. Merezi luke, zinez, gai horretan zentratuturiko azterketarik egitea.



jardunaren erregistro informaletan bereziki, eta bai (beste neurri batean) idatzizkoan. Inor gutxi ukatzen du hori: hain da egia zabala (293).

### *IX.3.3. Murgiltze-bidea funtzionatzen ari da hainbatean*

B ereduko ikasle gehien-gehienak, eta D ereduko asko (behe-mailetan, erdia edo gehiago) erdaldun (edo erdal-elebidun gordin) dira etxetik. Ikasle horiekin ere funtzionatzen ari da, oro har, EEN legez geroztikako eskola-bidea. Hori da eskola-esparruko eragileen eta arduradunen iritzi nagusia, eta aditzera emandako ikerketa edo ebaluazio gehienetatik ezin kontrako epai larriarik atera liteke. Adostasuna ez da ordea, alor honetan, aurrekoan bezain bateratua. Eztabaidarik ez da falta, etxetik erdaldun diren haurrengan D eta B ereduek dituzten ondorioez.

Onuragari dira murgiltze-bide horiek hainbaten ustean: bai B ereduak eta bai D-k elebidun «orekatu»agoak izateko aukera ematen diete ikasleei (horretan ez dago eztabaida handirik), eta beste hainbat alorretan ere (adibidez, atzerri-hizkuntza ikasteko) onurari edo (garapen kognitiboari dagokionez) kalterik gabekoak dira. Beste zenbaitentzat, gauzak ez dira horrela: onurak baino nabarmenago dira, horien ustez, murgiltze-bide partzialaren eta, batez ere, erabateko murgiltze-bidearen kalteak. L2ren ikaskuntzan irabazten denak kontrapartida larria du, beren esanean, ikasleen garapen kognitiboan.

Eztabaida hori mahai gainean dago, ez-ikusia egiten badiogu ere maiz, eta ez dirudi korapiloa egun batetik bestera ebakitzen asmatuko denik: hezkuntza hutsaz haraindiko kontsiderazioak egon ohi dira normalean bi ikuspegi global horien oinarrian, eta ikuspegi horiek ez dira ebidentzia empiriko intraskolar hutsez indargabetuko. Huts egiteko arrisku handirik gabe esan litekeena zera da: Espainiako eta Europako neurketen argitan ez gabiltzala oro har atzeraturik. Murgiltze-bidea funtzionatzen ari da beraz, hainbatean. Horrek ez du esan nahi, ikasketen erdia edo ikasketa gehienak L2 hizkuntza minoritarioan egitea inolako muga-eragozpenik gabea denik ikasle guzti-guztientzat. Defizit edukatiboen iturburu agorrezina ere ez da ordea murgiltze-bidea, inoiz entzutea tokatzen den moduan. Gainditu beharreko erronka bakarra ez zen, bestalde, garapen kognitiboarena. Bestelako arrisku-eragozpenak ere hor zeuden, eta oro har gainditzea (gero eta neurri zabalagoan gainditzea) lortu da orain arte. Antolamenduz, logistikaz eta formulazio didaktikoz garai batean ezinezkoa edo amatezkoa zirudiena egingarri dela erakutsi du mende-laurden honek. Alde horretatik behintzat asmatu egin da murgiltze-bidearekin.

---

(293) Besterik da, jakina, bai euskaraz eta bai erdaraz zenbateko alfabetatze-maila lortzen duten ikasleok. Luze eramango liguke kontu horrek. EEN legearekin zerikusi handirik ez duten elementu didaktikoak eta praktika sozioedukatiboak hartu beharko lirateke horretarako kontuan: EAEko ezaugarri propioak dira horietariko batzuk, eta Espainiako edo Mendebal Europako joera zabalagoen alorrekoak besteak.

### ***IX.3.4. Haurreskolen eta hartzaindegien alorrean aurrera egin da***

Hartzaindegiak eta haur-eskolak ez dira, ahuldutako hizkuntzaren belau-  
nez belauneko transmisio-lanari dagokionez, etxearen ordain betea. Hartzaro  
zabaleko eskolaketa osoa kontuan izanik ikus, adibidez, Pello Jauregik zer  
dioen: «etxea eta eskola dira hartzaroko harreman sozialen bi sare nagusiak.  
Hiztunen erraztasuna, jarrera eta jokaera ikusita baieztatu dezakegu etxeak es-  
kolak baino eragin sakonagoa duela hizkuntzazko kontuetan (Jauregi, 2003:  
104). Etxearen euskarazko babes-endar etnolinguistikoa ahultzen ari da ordea,  
goraxeago (ikus VIII.3.1. puntua) esan dugunez. Bai familiarena eta bai,  
euskal-giroari dagokionez, ingurumen hurbilarena. Hartzaro goiztiar horren  
garrantzia lehen bezain ohargarria da, nolana ere. Hona, esate baterako,  
Fishman-en azalpena (2006a, 4-6): «Early childhood is generally any indivi-  
dual's most crucial period of language acquisition». Badu hartzaindegien eta  
haur-eskolen esparru horrek, hortaz, bere garrantzia. Familiaren ordain betea  
izango ez bada ere, familiaren ordezkoko euskal-giro sortzaile izaten lagun de-  
zake hartzaindegiak eta haur-eskola goiztiarrak.

Alor horretaz ez zegoen EEN legean ezer askorik esana: legeak ez zuen  
maila horren aipamen espresurik egiten. Bai, ordea, inpliziturik. EENk eta  
gainerako lege-markoak ematen duen aukeraz baliaturik, euskarari 0-3 alor-  
rean presentzia sendoa eskaini ahal izateko medio humanoak jartzen asmatu da.  
Haur-eskoletan, oro har, zaintzaileak euskaldunak (elebidunak) dira (294).  
Hori ere normaltasun-seinale da. eta alor horren trataera nekez esan liteke  
euskalduntze-bidearen kontrakoa denik. Askok egongo da hor ere, seguru,  
ikasteko eta hobetzeko. Eraman den bideak hainbat aukera eskaintzen du,  
ordea, zuzendu beharrekoa zuzendu eta hobetu beharrekoa hobetzeko. Aurrera  
egin da hor ere, dudarik gabe.

### ***IX.3.5. Euskarazko irakaskuntza ez da bereziki garestia***

EAEko eskolaketa, oro har, garestia da: Espainiako garestienetakoa.  
Zergatik? Erantzun bat baino gehiago eman izan zaio galdera horri. Erantzun  
horietariko batek badakigu zer dioen: euskara EAEko eskoletaratu izanako,  
bai asgnatura moduan eta bai ikasbide gisa, garestitu egin duela sistema. Askok  
garestitu ere: gain-kostu handiak erantsi dizkio horrek gure eskola-munduari.  
Horrela al dira kontuak? Zer neurritan dira horrela, eta zer neurritan ez?

Has gaitezen errazenetik: orain dela 25 urte baino nabarmenki garestiagoa  
al da EAEko eskola, egungo egunean? Garestiagoa al da kostu hori, ikasleko?  
Erantzuna argia da erabat: bai, herri-diruei dagokionez orduan baino nabar-

---

(294) 830 zaintzaitetik denak, 39 izan ezik, EGAdun edo HE2dun dira. Euskaraz ez dakiten  
39 horiek lehenik zetozenak dira, eta agiria ateratzeko bidean daude hainbat.

menki garestiagoa da eskola, gaur egun (295). Hori horrela dela onartuta, gatozen puntu nagusira: zergatik da garestiago? Zein dira elementu nagusiak, hezkuntzaren kostua nabarmen garestitu dutenak? Bizi-mailaren koste-indizeak eta hezkuntzako profesionalen soldatek (bereziki sektore publikoan) izandako bilakaera hartu ohi dira igoera horren iturburutzat, batetik. Ikastetxe kontzertatuen kopuru zabala eta kontzertazio-maila jasoa dator hurrena, eta inbertsioetan (etxegintzan eta hornikuntzan, informatika barne) izandako hazkunde ondoren. Zerbitzu-esparrua zabaldu egin da bestetik: 0-3 urte arteko haurreskolen sektorea nabarmen hedatu da, eta derrigorrezko irakasmailez gainera ikasketetan ere hazkunde ohargarria gertatu da (296). Hutsaren hurrengoa izan da oro har, goiko hobekuntza horietariko gehienetan, euskararen berriarazko eragina. Euskarazkoa edo erdarazkoa izan zerbitzua, antzeko kostu standard-ak aplikatzen dira normalean.

Gero, jakina, irakas-sistemaren faktore estrukturalak daude tartean. Ikasle/gela ratioak jaitsi egin dira oro har, eta irakasle/gela ratioak igo. Bilakaera estruktural horrek izan du, oker ez banago, hezkuntza-kostuetan eraginik handiena. Bi ratio horien konjuntzioak igoera nabarmena eragin du kostuetan. Lehen baino ondotoz irakasle-gehiago behar da orain, ikasle-kopuru bera atenditzeko. Haur-jaiotzen erabateko jaitsiera (297) izan da, askogatik, bilakaera horren eragile nagusi. 32 ikasleko gela 18 ikasletara jaitsi arren, gela ez da desagertu: lehen bezainbat irakasle dauzka (gutxienez), argi- eta berokuntza-gastuak lehengoak edo handiagoak dira, eta abar. Fenomeno horretan ere hutsaren hurrengoa izan da euskararen eragina. Are gehiago: eredu bateko eta besteko ikasgelek ikasle-ratioetan izan duten eboluzioa kontuan izanik, derrigorrezko irakasmailetan behintzat A ereduko gelak izan dira, hainbat urtez, garestienak: B eta D eredukoek baino ikasle gutxiago zuten oro har, eta irakasle berdintsu edo gehixeago (298). Hori dela medio, erdarazko irakaskuntza euskarazkoa baino garestixeagoa izan da hainbat kasutan. Beste zenbaitetan ez. Oro har, ez da alde handirik izan esparru horretan (eta esparru hori da, jakina denez, hezkuntza alorreko gastu-iturri nagusia). Beste hitzetan esanik, hezkuntza-kostu nagusien alorrean euskara ez da berriarazko gainkostu-faktore. Erdarazko irakaslearen soldata bera irabazten du euskarazkoak, eta klase-orduko kopuru bera ematen du oro har.

---

(295) Hor daude era bateko eta besteko estatistika ofizialak, halako zehaztapenetan sartu nahi duenarentzat. Ez da hori gure gaurko auzigaia, ordea, eta ez gara hortaz bide horretan barrena lerratuko. Kontu hau perspektiba internazionalen aztertu nahi duenak jo beza, abiaburu gisa, *The Economics of Language Planning* alorrera in Kaplan eta Baldauf 1997: 153-92.

(296) Besterik ere bada tartean: Hizkuntza Eskola Ofizialen, etorkin berrientzako harrera-programen eta araubidez haraidiko ikasbideen zabalkundea erantsi behar zaio, besteak beste, goian esandako guztiari. Hori eta, azkenik, laguntza-zerbitzuen hobekuntza nabarmena, gizajendez eta dirubidez aski kontuan hartzekoa.

(297) Gogoratu txosten honetan bertan, VI. atalean eta 4. eranskinean, esandakoa.

(298) Kontu horiek berdindu-edo egin dira geroztik, oker ez banago. Kostu unitarioa ez da berbera, bestetik, sektore publikoan eta kontzertatuan: azken honetan merkeago da, oro har.

Badira, halere, euskarazko irakaskuntzak berarekin ekarri dituen gehigarriko gastuak. Irakasleak euskalduntzen egin den gastua (IRALEkoa) ez zen egin beharrik izango erdara hutsezko irakaskuntzarekin segitu izan balitz. Euskarazko ikasmaterialgintzan (EIMA programan bereziki) eralgitzen den dirua ere ez zegokeen gastatu beharrik, erdara hutsezko eskolarekin jarraitu izan balitz Franco hil ondoren. Berdin gertatzen da NOLEGA programarekin, ULIBARRI proiektuarekin eta EGAn edo Hizkuntza Eskakizunetan egiten diren inbertsioekin. Gastu horiek bai, horiek euskarazko irakaskuntzak ekarri ditu berekin. Zenbatekoak dira berariazko gastu horiek? Hiruzpalau estudio egin dira, dakidala, gai horren gainean. Denak ez dira urte berekoak, eta irizpideetan ere bada batetik bestera alderik. Bi iturri dira nagusi: batetik F. Grin eta F. Vaillancourt irakasleek 1999an argitaratu emandako estudioa: *The Cost Effectiveness Evaluation of Minority Language Policies: Case Studies on Wales, Ireland and the Basque Country*. Bestetik Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (azken aldiotan Siadecoren laguntzaz) egiten dituen estudioak. Bada batzuetatik bestera fluktuaziorik. Fluktuazio eta guzti, antzera dabilta ordea estudio gehienak beren emaitzetan: ezagutzen ditudan zenbakiak %1,6 eta %3,1 artekoak dira (299). Hots, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren urteko aurrekontuen %1,6 eta %3,1 artean dabilen kopurua eralgitzen da berariaz, euskarazko irakaskuntza bultzatzeko. Gehiago ere esan behar da: zifra hori behera doa, oro har, urtetik urtera. Gainkostu handienak IRALEko liberazioek ekarri izan dituzte eta, gorago ikusi dugunez, kostu-atal hori jaisten ari da 2000. urte ingurutik aurrera. Probableena, goazen bidetik goazela, gainkostu hori aurrerantzean %2 baino nabarmen apalagoa izatea da.

Ondorioa argia da: euskarazko irakas-sistema ez da itxuragabeko gastu-hazkuntzaren iturri. EAEko irakas-sistema alderik alde itzulipurdikatu badu ere hizkuntza-faktoreak, gainkostu aldetik ondotoz apalagoa izan da bere eragina. Egia da gastu bat handia, ertaina edo apala den argitzea ez dela kontu tekniko hutsa, erantzun objektibo unibokoa eskura dezakeena: «the notion that some good or service is «too expensive» in the absolute is meaningless. Any price can be considered acceptable or excessive, depending on the importance subjectively given to a commodity, in comparison with the importance given to other (and also costly) commodities... It follows that any judgment about the acceptability or excessiveness of its cost can only be made in the context of democratic political debate». Termino teknikoetan egin litekeen bakarra, funtsean, beste hau da hortaz: hiztun-herri batean eta bestean ahuldutako hizkuntza indarberritzeko eraturik dauden politiken eraginkortasunezko analisi konparatiboa. EAEko irakasmunduaren eraginkortasuna, alde horretatik, begien bistakoa da. F. Grin eta F. Vaillancourt ekonomia-irakasleen hitzetan esanik, «Welsh-medium tele-

---

(299) Datu horiek zertxobait puztuak daude, gainera, orain esplikatzeko konplikatu litzatekeen kontabilizazio-kontu jakin batetatik.

vision and Basque education planning stand out as the two best policies, with the prerequisite nature of language education giving it a clear edge». Berdintsu diote aurreraxeago: «A comparison between the Irish and the Basque system suggests that the latter (..) is more effective than the former. (..) As regards acquisition planning (..) the Basque policy has generally been a successful one». Asmatu egin da beraz horretan, plano konparatiboa hitz eginik. Ohargarria da, funtsezko datu horri zein zabalkunde mugatua ematen zaion gure artean. Berri onak ez dira interesgarri, itxura denez, euskararen alorrean.

### *IX.3.6. Eskolan egin den lana, euskalgintza osoaren mesedegarri*

Lotsa ere eman behar du, hainbatean, halako gauzak esan beharra. Esan beharra dago, ordea, mende-laurden honetan eramandako bidez alde batetik eta bestetik entzuten diren baieztapen batzuen aurrean. Ez da egia EEN aplikatzen ez denik. Ez da egia bere aplikazio-ahalmena agortua dagoenik. Aplikatu egiten da legea, eta bere aplikazio-ahalmena indartuz (ez murriztuz) doa urtetik urtera: zenbat eta irakasle elebidun gehiago izan, zenbat eta ikasmaterial gehiago izan hizkuntza batean eta bestean, zenbat eta normalkuntza-proiektuak garatzeko borondatea duten ikastetxeak eta irakasleak ugariago izan, hainbat eta garapen-ahalmen zabalagoa du legeak. Txostenean zehar analizatu ditugun datu kontrastagarri guztiek hori diote. Ez da egia, bestalde, eskolako saio horrek ezertarako balio ez duenik. Asko balio du, konturatzen ez bagara ere. Hein batean haur euskaldunak alfabetatzeaz eta erdaldunak euskalduntzeaz gainera hona hemen, labur-labur eta besteak beste, eskolaren hainbat ekarpen euskara eta euskal kultura indarberritzeko orduan:

- a) Irakasle euskaldun askoren lantoki eta, beraz, ogibide da EAEko irakas-sistema: 22.000 irakasle inguru dira egungo egunean, unibertsitate arteko irakasmailetan, euskaldun. Gehienek euskaraz irakasten dute. Profesional horien jira-biran eratua dago, burua jasotzen eta aurrera egiten nekerik falta ez badu ere, beste hainbat enpresa soziokultural: argitaletxeak eta ikus-entzunezko edo softwarezko enpresak, aisialdiko dinamizazio-taldeak, ikerketa-guneak eta abar. Ez du euskarak, bere bizian, halako oinarri profesional espezializaturik izan. Hori dela medio euskararen status ekonomikoa, gaztelaniarena baino hagitx mugatuagoa izanik ere gizarte-bizitza zabalean, ohargarria da EAEn, batez ere kultura-esparruan (300).
- b) Euskal kulturaren belaunetaz belaunetara transmisioaren lagungarri da eskola. Gehiago ere egin dezake noski, baina egiten duena hor dago eta ez da gutxietsi behar. Hor sortzen dira egungo kultura biziaren

---

(300) Ahulago dago Nafarroan, estatistikoki bederen, eta nabarmen ahulago Iparraldean.

hainbat ekarpen (eleberrietan eta kantuan, jendaurreko iritzi-emailetzan eta, nola ez, herrigintzari eta gizarte-bizitzaren atzera-aurrera askoren berrikuntzei buruzkoetan (301). Uste al du inork, benetan, era horretako babesgunerik gabe bizibide luze eta oparorik izan dezakeela euskarak eta euskal kulturak?

- c) Buruzagi eta iritzi-sortzaile gazteen mintegi da euskal eskola, azkenik: euskaraz dakiten, gaztelaniaz eta, hainbatean, ingelesez ere moldatzen diren gazteen mintegi. Euskaltasun pluridimentsionala (bertako dimentsiotik abiatuz Espainiako, Europako eta mundu zabaleko hainbat ezaugarri batera biltzen dituen moldaera soziokultural berria) konfiguratzeko ari dira gazteok: aurrera begirako kemenez eta ilusioz jardungo duen Euskal herriaren ernamuin ditugu, onean eta gaitzean, belaunaldi gazteok. Hor sortzen eta trebatzen dira etorkizuneko euskal idazleak, kazetariak, artistak, aztertzaileak, kirolariak, plaza-gizonak eta andreak. Horiak gabe jai du euskarak: etxean eta auzo-bizitzan, lanean eta kaleko lagunartean euskarazko bizibide jator-tradizionala atzeraka ari den heinean eskolak eskaintzen du gaur egun, aski era mugatuan bada ere, erreproduzio soziokulturalaren euskal dimentsiorako aukeragune nagusia. Zenbaitetan bakarra. Ez da moldaerarik osasungarriena, aski ortopedikoa eta behartua baizik. Ezer ez baino hobea da ordea. Dagoenari heldu beharra dago, eta hortik hobera egin: ez dago beste biderik.

Horretan guztian lagungarri izan da eskola, mende-laurden honetan. Bere laguntza hori gabe okerrago zegokeen euskara, gaurko gizarte-bizitzan. Eskueran ditugun datuak oker egon litezke, edo eskasegiak eta marjinalak izan. Halakorik frogatzen ez den bitartean lasai samar esan liteke, ordea, mende-laurden honetan eskolan egin den lana egin izan ez balitz okerrago zegoekela euskara, gaur egun. Errazegi ahazten zaie datu hori «ez al duzue ikusten alferrik ari zaretela?» esaten diguten guztiei. Baita «eskola-modelo horren porrota ageri-agerian dago» diotenei ere. Apalak eta autokritikoak izatea dagokigu euskalgintzan ari garenoi, inori baino gehiago: erabateko joera dugu, geure burua engainatzekoa. Apaltasunak eta autokritikak ez du egia estali behar ordea: onura ugari ekarri dio eskola honek euskarari. Euskalgintza osoaren oinarri bihurturik dago, hainbat aldetatik.

---

(301) Ikusi besterik ez dago, ETB1eko *Kalakan* eta antzeko programetan irakasleek edo irakasletzan ibilitakoek zer multzo nabarmen osatzen duten. Eskola-munduan daude gaur egun, edo handik pasatakoak dira, jendaurrean txukun antzean hitz egiten eta iritzi landu samarra ematen dakiten euskal hiztun asko eta asko. Hori ez da, berez, hizkuntzarentzat inolako zorion: anormaltasun-seinale da hori, alboko hiztun-herri nagusien galga hartzen bada normaltasunaren paradigmaztat. Erabateko hondamendia ere ez da ordea. Hain ahuldurik dagoen hiztun-elkartearen baitan irakaskuntzak konparatiboki zer babes-egoera eskaintzen duen seinalatzen du ugartasun horrek. Hori besterik ez, baina hori behintzat bai: bizi den eta, bere mugatuan ere, bizi-indarra duen seinale.

#### **IX.4. Zertan egin liteke hobekuntza operatiborik?**

Aldatu egin behar al da EEN legea? Aldatu egin behar al da, horren ondorioz, hiru eredu en egungo lege-markoa? Hala dio hainbatek, itxuraz arrazoi tekniko-operatiboak mahaigaineratuz. Alferrik: galdera-pare horrek ez du erantzun teknikorik. Bestelako instantziek eta bestelako kontsiderazioek dute horrelakoetan hitza, eta instantzia zein ikusmira horiei dagokie galdera horri baiezkoa ala ezezkoa ematea. Bestela esanik, gizarteak bere zabalean, eta herri-gogoaren ordezkari demokratikoez bereziki, dute galdera-pare horri erantzuteko ahalmena. Herri-aginteez dute, konkretuki, azken hitza. Herri-ordezkarien erabakian, berriz, nekez izango dira arrazoi «tekniko»-ak huts-hutsik kontuan. Era bateko eta besteko arrazoi teknikoak ere mahai gainean izango dituzte, normalean, baina balantza alde batera edo bestera makurtuko duten motiboak eta irizpideak aginte-ordezkarien ohikoak izango dira: egingarritasuna, komezentzia, interesa, kostea, estrategia eta taktika. Hala izan ohi dira gauzak gizarte-bizitzaren beste esparruetan, eta hala izan behar hizkuntza kontuan ere.

##### ***IX.4.1. Eredu-formulaz aldatzeko aurre-baldintzak***

Plano politikoaren nagusitasun erabateko hori aitorturik, eta plano teknikora mugatuz ikuspegia, zer esan liteke gai horretaz mende-laurden luzea ele biko hezkuntzaren esparruan lanean jardun ondoren? Besteetan esan izan du dana errepikatuko dut oraingoan ere: hiru eredu en markoari bere horretan eutsi behar zaio, hoberik asmatzen eta adosten ez den artean. Horrelako aldatketarik ez da abiatzea komeni, oinarritzko baldintza batzuk aurrez segurtatuak izan arte. Hona, besteak beste, lau baldintza funtsezko:

- a) Marko berriak oraingoak baino emaitza hobekak ekarriko dituela azaltzea komeni da, hasteko (302): bai gurasoen gogoaz errespetatzeari dagokionez eta bai belaunaldi gazte elebidun sendoak lortze aldetik orain baino emaitza hobekak. EEN legeak hain berea duen hanka biko eskakizun horri hezkuntza-sistema ororen puntu zentrala erantsi behar zaio, bide batez: ikasleen garapen kognitiboa egokia zaintzeko garrantzia.
- b) Alternatiba berriak indarrean dagoen lege-markoan kabida egokia duela erakutsi behar da, bestetik: kabida egokia duela eta, ahal delarik, aurrekoa bezala aldiari aldiko eztabaida antzuetatik blindatua dagoela. Atzera egitea da bestela, ez aurrera.
- c) Baliabideen aldetik alternatiba hori egingarri dela erakutsi behar da, ondoren: egin ezin diren proiektu ederrez baterik dago mundua. Dirubi-

---

(302) Oraingoak baino emaitza hobekak izango ez badira ere, okerragoak behintzat ez daitezela izan.

deak muga latza izan ohi dira sarri. Ez dira muga bakarria ordea: giza baliabideen mugak dirubidezkoak bezain sendoak izaten dira sarri.

- d) Hiritarren aldetik erakargarria, ulergarria eta onargarria gertatu behar du formulazio berriak, azkenik. Hori gabe jai dago gure artean. Lehendik badugu eskarmentu argia, gizajendearen gogoz kontrako hizkuntza-politikek zer ekarri izan duten jakin eta kontuak ateratzeko. Bizi garen gizarte pluralean ezinbestean kontuan hartzeko baldintza da azken hau.

Ez dut uste, horra nire iritzia, lau baldintza horiek itxura batean betetzen dituen proiektu alternatiborik mahaigainean dagoenik. Halakorik eratu bitartean ez dirudi arrazoizko, alderik aldeko berrikuntzetan sartzea. Badakit tentazio bizia sortu ohi dela gure artean, euskal irakas-sistemaren ajeak aztertzean gaitzaren sustraia egungo eredu-sistema hirukoitz horri leporatzeko. Egungo arazo askoren konponbidea ere, horrexegatik, egungo markoaren aldaketak ekar dezakeela entzun ohi da han-hemen. Ikusmolde nagusi horrek baditu ordea bere ahuldadeak. Ez da egia, hasteko, «ereduak ken bitez» diotenak iritzi bereko direnik. Aitzitik: itxuraz gauza bera esaten ari direnak (hots, «ereduak ken bitez» diotenak) aski posizio diferenteetan daude sarri. Oraingo eredu-sistemaren kontra dauden batzuentzat, soluzioa *A eredu debekatzea* da: gutxienez B ereduan eta, ahal dela, ikasle guzti-guztiek D ereduan ikas dezaten nahi dute: gurasoak konforme ez badaude, hor konpon gurasoak. Beste zenbaitentzat, aldiz, eredu-aukera gogor murritztea da soluzioa, aukera hori «ama-hizkuntza»ren alorrera mugatuz funtsean: etxetik erdaldun diren ikasleek erdaraz egin ditzatela ikasketak, eta euskaldun direnek euskaraz. Badira, azkenik, guztientzako eredu «bakar, malgua» ezarri nahi luketenak (ingelesak leku zabala lukeen «B eredu modukoren bat» neska-mutil guztientzat). Hirurak daude, bistan denez, oraingo eredu-sistemaren kontra. Ez datoz bat, ordea, minimoetan.

Ni ez naiz, egia esan, soluzio erraz horien zaleegi. Hezkuntza bezain esparru zabal, konplexu eta eragin anitzekoa ez dut uste lege-markoaren atal operatiboa aldatuz (euskara-erdaren eskola-munduko distribuzio funtzionalaren atala birmoldatuz) nabarmenki hobetuko denik. Eredu-markoz aldatzea, hori dela-eta, ez nuke nik hori eta horrenbestez gomendatuko. Ez A eredu «debeekatzea», zenbaitek nahi lukeen moduan; ez ikasle guztientzako eredu-molde «bakarra» ezartzea, han-hemen aldarrikatu ohi denez; eta ez, berrikitan entzuten hasiak garenez, eskola-umeez jarraitu beharreko ikasbidea estu-estu «ama-hizkuntza»ren irizpidera makurtzea, azken mende-laurdeneko murgiltze-bidea mugatuz edo are eragotziz. Irtenbide hirurak dira, besterik frogatzen ez den artean, heziketaren kalitatea hobetzeko eta elebidun orekatuak lortzeko baino arazo berri, korapilotsu eta larriak sortzeko arriskuz beteagoak. Hona, besteak beste, zergatik:

- a) egungo marko juridiko nagusiarekin nekez uztartu litezke goiko alternatiba horiek. Nik, behintzat, ez dut ikusten nola. Hizkuntza ofizial bi



baldin baditugu, eta bertako ofizialtasun-markoa hizkuntza-eskubideen norbanako irizpidean oinarriturik baldin badago nagusiki, nola eragotzi behar zaio norbanakoari (berdin du ikasle izan edo guraso) bere (edo bere seme-alaben) ikasbidea hizkuntza ofizial batean (euskaraz) edo bestean (gaztelaniaz) oinarritzea? Ikasketak hizkuntza ofizial batean zein bestean egitea ezin liteke, egungo lege-markoa aldatu gabe, debekatu. Marko juridikoa bera aldatu egin liteke, jakina: esan beharrik ba ote dago hori? Baina aldatzen ez den artean (303) hobe izango da hobekuntza-bideak indarrean dagoen lege-markotik abiatzea, balizko formula alternatiboak legez besteko irizpide honetan, horretan edo hartan oinarritzea baino.

- b) Gatozen, bestalde, goi-mailako kontsiderazio jeneral horietatik eguneroko praktikara. Pentsatu al da, urrutirago gabe, formula berri horiek (lehenengo biak konkretuki) irakasleen egungo hizkuntza-tipologiarekin nola uztartuko diren? Gogoan izan irakasleen %25 pasatxo ez dela gai euskaraz irakasteko. Kontua bereziki gordina da sektore pribatuan, eta sektore horretan dabilta ikasleen %52 inguru.
- c) Gatozen ama-hizkuntzaren arabera planteamendura. Pentsatu al da hirugarren formula hori, murgiltze-metodoa (ia B eredu osoa eta D ereduaren erdia, hor nonbait) gogor murriztera edo zeharo ezabatzea datorela? Eta ez al da egia mugiltze-biderik gabe, dakigunaren argitan, bihurtziko gizarte elebidunaren asmoa, Autonomia Elkartearen funtsezko ezaugarri den helburua, hankaz gora jartzera goazela erabat, hasieratik beretik? Nola lortuko ditugu belaunaldi elebidunak (are gutxiago elebidun orekatuak), ikasleen hiru laurdenak A eredu-edo bidaliz?
- d) Gatozen, azkenik, eskola barruko jardunaren esparrura. Ikuspegi pedagogikotik, konkretuki, zer hobekuntza dakar eredu-sistema alternatiboak? Emaitza fidagarrien aldetik zer ikerketa eta zer ebaluazio-lan daude eskueran, soluzio alternatibo horiek benetako kalitate-hobekuntza ekarriko dutela esan ahal izateko? Non dago ebidentzia enpiriko zabala, hori horrela dela esan ahal izateko? Are ikuspegi zabalagoari gatzazkiola, azkenik, zer hobekuntza dakarte formulazio berriko atzerriko espezialistek sarri aipatu ohi dituzten lau aldagai nagusietan: *input*, *context*, *process* eta *output variables* direlakoetan? Ahaztu egin al zaigu derrepente murgiltze-metodoa, definizioz, gurasoen erabaki librean oinarriturikoa dela?

Aniztasun nabarmeneko gizarte konplexuan bizi gara EAeko hiritar guztiok, zori onez eta txarrez. Era askotara da gure gizartea konplexu: baita

---

(303) Konstituzioa, Autonomia Estatutua eta Euskararen Legea, duten goren-mailagatik besteak beste, ez dira sarri-sarri aldatzen diren horietarikoak. Edozein unetan alda litezke, teorian: historiari argi dio legeak aldatu egiten direla, lehenxego edo beranduxego. Orduan ere ez ordea, ezinbestean, nahi litzatekeen norabidean.

bere egungo osaera soziokulturalean eta aurrera begirako nortasun-formulazio-etan ere. Konplexutasun hori aintzakotzat hartuko duten formulak behar ditugu, soluzio errazak baino areago. Besterik frogatzen ez den artean, aniztasun horretatik abiatuz elebitasun-eredu zabalera iristeko hobe da egungo aukera-markoa (bere aje-gabezia guztiekin), aukera bakarreko bideak baino. Aurrera ere eredu-aukera anitzen formulaziotik, ez aukera-bide horietatik at, saiatzea hobe dela uste dut.

#### ***IX.4.2. Egungo formularen hobekuntza-bide posibleak***

Egungo eredu-sistemari bere horretan eutsiz ere, egon badago zer hobetu. Hobekuntza-saio horietan lehenbailehen abiatzea komeni da. Ereduak (eredu guztiak) hobetzea da, ene ustez, benetako kontua: eredu-markoz aldatzea baino egingarriago da hori eta, ondo asmatuz gero, luzaro gabe ondorio onik ekar dezakeela uste dut.

- a) Irakasleen goi-mailako prestakuntza sendotu beharra dago, euskal hizkuntzaren (eta, oro har, euskal kulturaren) alorrean. Hezkuntzaren kalitatea hobetzeaz ari bagara, eta horretaz ari gara noski, irakasleen hizkuntza-kalitatea hobetzeko bideak berariaz zaindu eta zabaldu behar dira. Euskaraz irakatsi behar duen irakasle-jendeak baditu, alde batetik, beste edozein irakas-sistematako profesionalek dituzten hobekuntza-beharrak. Beharizan berberak edo antzekoak: hots, orotariko hobekuntza-beharrak. Gurean euskaraz irakasten duten profesionalek badituzte ordea, orotariko beharizan horiezaz gainera, berariazkoak ere: behar espezifikoak, gure irakas-sistema elebidun honen nondik norakoak eragindako beharizan bereziak (ikus, adibidez, Rodriguez 1998: 106).
- b) Hizkuntzaz esandakoaren pare, curriculumaren euskal dimentsioaz ere hainbat gauza esan liteke: Azkoitiko zalduntxoetz ezer gutxi dakienak nekez, borondaterik onenaz ere, XVIII. mendearen azalpen historiko osoa (bertatik kanporako perspektiba eta kanpotik barrurako eragina itxura batean uztartzen asmatuko duen azalpena) eskainiko die gure ikasleei. Kultura-edukien eta perspektiba pluridimentsionalaren kontu horiek ere hor daude eta ez dira albora uztekoak. Are gutxiago bertako dimentsioa, alde aurretiko lanketaren faltaz, hain azaldu-arina dagoenean ikasmaterial gehienetan. Elebitasunaren erronka, arrazoizko aurrerabiderik izango badu gure artean, euskal perspektiba soziokulturala bere osoan hartuz planteatu eta gainditzekoa da.
- c) Murgiltze-bideko D eredu eta osaerazkoa atentzio handiagoz bereizi behar genituzke. Ikasle gehienak (zenbaitetan guztiak) etxetik erdaldun izaten dira; beste zenbaitetan, aldiz, etxetik euskaldun. Batzuek eta

besteek aski itinerario diferentea daramate beren eskolaketan, L1en eta L2ren eskuratze- edo osatze-prozedurei dagokienez. Atentzio handiagoa zor zaie berezitasun horiei. Guztiak D eredura eramatea ez da aski: bai ikasleen garapen kognitiboaren aldetik, bai ikasle erdaldunak euskalduntzearen aldetik eta bai euskaldunak alfabetatzearen aldetik aparteko atentzioa zor zaie guztiei. Guztiei, ez erdaldunei bakarrik.

- d) Eleaniztasun-kontuei berariazko atentzioa eskaini bihar zaie eskolan: goazen mundura goazelarik, ingelesa edota beste atzerri-hizkuntzaren bat beharrezko osagaia izango dute ikasleek beren horniduran. Horrek ez du esan nahi, gure artean emandakotzat ematen bada ere sarri, soluzioa *content-based teaching* goiztiarra denik. Baliteke hala izatea, baina bakarretakoak gara European, bide horretan abiatu garenak. Lortu diren (ez teoriarik lor zitezkeen eta lor litezkeen) emaitzak analizatzeko ordua ere badugu. Ele anitzeko hezkuntza izango da gurea, begien bistako etorkizunean. Hartarako bide egokienak prestatzen eta zabaltzen hasi behar genuke. Orain arte egindako bidea oso interesgarria da: ez aparteko emaitza liluragarririk eman duelako, eskola bidez alor horretan egingarria zer den eta zer ez den erakutsi duelako baizik eta, horrekin batean, atzerri-hizkuntzen eskola bidezko ikaskuntza formala beste bide informalekin txertatzen hasteko aukera eskaintzen duelako. Eredu diferenteen aukerak mesede egiten dio, ez kalte, bilaketa-lan horri.
- e) Immigrazioa etxean dugu jadanik. Ez dago motibo sendorik, fenomeno hori hurrengo urteetan ahuldu egingo dela uste izateko. Beste zenbait lekutan baino eragin txikiagoa badu ere gurean, oraingoz, bere pisua nabaria da eta erantzun zentzuzkoa zor zaio. Hor ere asko dago egiteko, orain arteko saioak oinarri hartuz. Amezketako neska-mutilen hezkuntza elebiduna eta Colombiatik, Txinatik edo Nigeriatik etorri berriena ezin dira gela berera sartuz bakarrik konpondu. Osagarritzko neurri-sorta eskatzen du atzerriko etorkinen edo beren seme-alaben trataerak, sorta horren atal bat baizik ez delarik eskola. Berrito ere putzu-zulo berean sartzeko arriskuan gaude: eskola (edota euskaltegia) gizarte-berrikuntza soziokulturalaren motore eta konpentsatzaile aski den adinakoa izan litekeela uste izatekoa. Badugu motiborik aski, bigarren aldiz harri berean behaztopa ez egiteko.

## X. AZKEN GOGOETA-SAIOA

EEN legeak eskola alorrean izan duen bilakaera, eta mende-laurdeneko bilakaera horri buruzko balioespen-saioa, eskatu zitzaidan egitea. Horretan saiatu naiz. Ba ote dute azalpen horiek zer iradokirik? Baietz uste dut. Labur-labur izango bada ere, txostenari amaiera emanaz horretan saiaturiko naiz atal

honetan. Gizarte alorreko kontuak azalduko dira batetik, eta eskola mundukoak azkenik. Berriazko zazpi baieztapen eskainiko dira horretarako. Badakit aski eztabaidagarri irudituko zaizkiola baieztapen horietariko zenbait gure arteko hainbati. Arrazoi argiz azaltzen saiatuko naiz, dena den, eta prest nago halakoen kritika arrazoitua jasotzeko: ez dago beste biderik, aurrera egingo badugu.

### X.1. Euskara ez doa, oro har, berehala galtzera

Bere osoan hartuta, euskara ez doa berehala galtzera: ez gure bizi-denboran eta ez, itxuraz, gure seme-alaben aldirian. *Endangered language* direlakoetan alde handiak daude batzuetatik besteetara, eta euskara ez dago urrundik ere azken-azkeneko fasean, espezialistek *moribund language* esan ohi duten horretan. Motibo objektiborik badago, egon, baieztapen hori egiteko. Euskaraz dakitenen kopurua ez doa, batetik, atzera. Hainbat kasutan, are, aurrera egiten ari dela esan liteke. Mende bi t'erdiko atzera-martxari kontrako irabazpidea erantsi berri zaio (EAEn), eskolaren laguntzaz bereziki. Zenbait eskualdetan eta ingurumenetan, bestetik, ugari egiten da euskaraz, orain ere: bere pisua du halako ingurumenetan euskarazko jardunak etxean eta kalean, lagunartean eta lan-giroan. Arnasgune horiek bizirik daudeino bizirik iraungo du euskarak, gainerako eskualdeetan erabat desagertuko balitz ere. Herri-agintea eta lege-markoa euskararen aldeko dira, hurrenik. Hala dira, hainbatean, EAEn eta, beste neurrian, Nafarroan. Aldeko izaera horrek bere korolarrioak ditu egungo egunean, euskararen aldeko *reward-system* edo ordain-sarrietan (304). Euskaldungoak eta bertako hainbat erdaldunek, azkenik, aldeko jarreraz gainera konpromisozko jarduera ageri dute zenbait esparrutan: batez ere eskola-munduan, baina ez horretan bakarrik. Indargune ohargarria da hori guztia: Europako hiztun-herri txiki gutxi du, dakigun neurrian, maila horretako babes-indarrik egungo egunean. Euskara ez doa, beraz, berehala galtzera.

Ez dezagun ahaztu, ordea, gauza bat dela jakitea eta bestea egitea. Hizkuntza jakitetik ondo jakitera eta, batez ere, eguneroko jarduera arruntean barru-barruan eraman eta etengabe erabiltzera alde handia egon ohi da. Hala egon ohi da han-hemen, ahuldutako hizkuntzen artean, eta halaxe dago gure kasuan ere: mintzajardunaren gizarte-moldaerak bilakaera negatiboa ageri du hiztun-kopuruz eta harreman-sarek, belanez belaan, euskal herrietako eskual-

---

(304) Euskal Autonomia Erkidegoa (Jaurlaritza eta Foru Aldundiak) eta, horren ildotik, hainbat erakunde (Hezkuntza Saila, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, EHU, HABE, ETB, IVAP) sortu edo (Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza) indarberritu izanak etnolinguistikazko gain-behera hori frenatzen (eta, puntu jakin-konkretuetan, galdutako edo inoiz eskura izan gabeko jardun-esparruak bereganatzen) lagundu egin du, berreskuratze horren zabalera eta sakona ondo zehaztu gabe badago ere.

de eta herrialde osoetan. Iritzi kontuei dagokienez, bestalde, aski patroi difereenteak antzematen dira jarrera jenerikoetatik konpromiso konkretuetara. Euskara ez dago hiltzeko zorian, baina gogor ahulduta dago eta belaunez belaunez jarraipena segurtatu gabe dauka hainbat eskualde, jardungune eta harreman-saretan.

## X.2. Elebitasuna, euskaldunon bizi-aukera bakarra

Ele biko hiztun-elkartea (*bilingual speech community*) osatzen du euskaldun-jendeak. Euskaldun hutsik, euskaraz besterik ez dakienik, apenas gelditzen da inor gure artean, hiruzpalau urtetik gorakoetan. Erdaldun hutsak eta (mintzagai jasoetan edo idatzizko zereginetan batik bat) erdaraz erosoago moldatzen diren vasco-euskaldunak, aldiz, asko dira: multzo biak batuz, gehiengo zabal-zabala. Euskaraz dakien eta hala egin nahi lukeen hainbatek, goiko motibo horiek direla medio, erdaraz egin behar izaten du maiz. Salbuespen bakanak alde batera uzten badira, gauza bat dago argi: ele biko herrialdean (*bilingual setting* delakoan) bizi dela, egungo egunean, euskaraz dakien eta hala egiten duen gizajendea. Elebakarrez inguratua bizi da, gainera: harreman-sare berrien indarra eta dibertsifikazioa kontuan hartzen bada, inoiz baino erdaldunaz inguratuago bizi gara euskaldunok.

Ele biko hiztun-elkartea osatzen dugu gaurko euskaldunok eta, euskara zeharo ahultzen eta galtzen ez bada bidean, ele biko hiztun-elkartea osatzen jarraituko dugu gure (eta gure seme-alaben) bizi-denbora guztian. Horretan ez dago dudarik: hasi berria dugun XXI. mende honetan, euskara hutsezko hiztun-herriaren (nolabait esatearren, XIX. mendeko *Zazpi Probintzien*) behin-lako konfigurazio etnoterritorial osabetezko hura ez da, arrazoibidez eta gizarte-moldaera berrien jakinaren gainean ari bagara, begin bistako etorkizunean egingarri. Egia da etorkizuna ez dagoela, ehuneko ehun, aurrez erabakia. Hori bezain egia da, ordea, gizatalde zabalak hizkera molde nagusia, mintzajardunaren gizarte-moldaera alegia, norbanakoaz haraindiko baldintza jakinez gogor eta herstuki mugatua egon ohi dela nonahi eta noiznahi. Hizkuntza-soziologiak ezer erakutsi badu azken mende-erdian horixe da, hain zuzen: norbanakook hizkuntza jakin bat egitea (edo beste bat, edo biak) ez da zori itsuaren ondorio, hiztun-talde jakinak hizkuntza horretaz/horietaz baliatzeko duen beharraren eta egokieraren emaitza baizik. Jatorrizko hitzetan esateko, «the vast majority of any speech community comes to speak (read, write) in the ways it does –monolingually or bilingually- because of its long and intricate involvement in reward systems requiring such speech» (Fishman, 1985). Bizi garen aldian eta aldean bizi izanik, bertako «reward system» nagusiaz jabeturik eta «long involvement» hori kontuan hartuz euskara hutsezko hiztun-herri osabetezkoaren formulazioa ez da, hortaz, begien bistako etorkizunean eskuragai.

### X.3. Euskarak «bere lekua» behar du, galduko ez bada

Ikuskizun dagoena, zinez ari bagara, ez da alderik aldeko euskal elebakartasun hori (hemendik 10 urtera, 25era edo 50era) lortzerik izango den ala ez, beste kontu hau baizik: euskarak behar adinbateko indar izango ote duen (hiztun-kopuruz, harreman-sareen zabal-iraunkorraz eta eguneroko jardungune nagusien sendoaz), bere buruari eutsi eta, belaunez belaun transmitituz, espazio fisiko zein soziofuntzional jakinetan hiztun-elkarte osasuntsu baten eguneroko adierazpide izaten jarraitzeko. Hori da galdera nagusia, hizkuntzen gizarte-dimentsioaren gainean zientzi arauz informaturik dagoen aditu- eta arduradun-jendeak bere buruari lehenik eta behin egin ohi diona. Aldian behingo zentso-emaitez gora-behera, euskaltzaleen ekimen ohargarriak eta egungo lege-marcoak (EAEkoak bereziki) eskaintzen duen babes-laguntza instituzionala kontuan izanik ere, gure hizkuntza zaharraren iraupena da benetan ikuskizun dagoena: batez ere bere *habitat* historiko jarraia izandako hainbat herrialdetan (iparralde gehienez, adibidez) eta euskarazko mintzamoldeari belaunez belauneko jarraibidea eman izan dioten bizi-esparru hurbil-arruntenetan. Goazen bidetik goazelarik gaztelania (edo, iparraldean, frantsetsa) hemendik 10, 25 edo 50 urtera desagertuko ote den galdezka (zer esanik ez, beldur-itxuran) jardutea lekuz kanpora dago erabat. Elebitasunaren alternatiba probableena ez da euskara hutsezko elebakartasuna, erdarazko (hemen: gaztelaniazko) elebakartasun gero eta zabalduagoa baizik.

«Bere lekua» behar du euskarak, begien bistako etorkizunean bizirik aterako bada gaztelaniaren eta beste erdaren ondoan. Zein da, ordea, «bere lekua»? Erantzuna aski etsigarria da: ez dakigu (305). Zientziak ez du, oraingoz, galdera horrentzako erantzun baliagarri unibokorik. Historian zehar aski konpartimentazio territorial edota soziofuntzional diferenteak gertatu izan dira bizi-oinarri. Egungo egunean ere aski formulazio diferenteak dituzte hiztun-herri txikiek. Luze-zabaleko eztabaidaren ondoriozko adostasuna izan liteke, zientzi arauzko erantzun uniboko horren ezean, irtenbide erosoena. Zer eztabaidatu eta zer adostu behar da, hizkuntza kontuan? Mila kontu eta mila ikuspegi daude gure artean, honetaz eta hartaz, eztabaidagai izan litezkeenak. Guztiak izan litezke interesgarri: ez dago *a priori* inoren analisi- eta diskusio-biderik gaitzesterik.

Interesgarri izanik ere ez dira eztabaida guztiak, ordea, probetxu handiko. Zertan zentratu beharko luke eztabaidak, hortaz, euskara-erdaren elkarbizitzan aurrera egin nahi bada? Benetako helburua elkarbizitza hori baldin bada, eta irtenbiderik gabeko zuloan erori nahi ez badugu, garbi dago galdera nagusiak

---

(305) Gehiegizko flagelaziorik ez da, noski, bidezko: beste lekuetan ere gordin samarrak dago, aukeran, jakintza-alor hori. Besteren hutsarteak nekez indartuko gaitu ordea. Besteak beste direla gurea da, partez, ez jakite horren errua: saio handirik ez dugu egin, galdera horri zientzi arauzko erantzunik emateko. Hartarako proposamenik egin denean ere, bestalde, ugariagoak izan dira traba-eragozpenak lagungarriko pausoak baino.

zein izan behar duen: zein leku dagokio euskarari, eta zein gaztelaniari, begien bistako etorkizunean iritsi nahi genukeen gizarte-bizitzan? Hizkuntza bi izango badira gure adierazpide eta gure ezaugarri, bistan da biek ezingo dutela espazio fisiko eta soziofuntzional berbera okupatu: ez dago munduan adibide praktiko bakar bat, konpartimentaziorik gabeko funtzionamendu hori belaunez belaur bizerik mantentzen duenik. Kontua ez da enpirismo hutsekoa: hizkuntza-soziologiaren oinarri teoriko seguruenetarikoa da, belaunez belaurneko perspektiban ezinezkoa dela horrelako moldaerarik. Erreduantzia hutsa litzateke hori. Zer leku opa diogu hortaz euskarari, eta zer leku gaztelaniari? Zer leku opa diogu bakoitzari espazio fisikoan, eta zer leku espazio soziofuntzionalan? Eztabaida eta adostasun-bilaketa hori ez da batere erraza. Hizkuntza ahula bizerik aterako bada behar-beharrezko bilaketa da hori, ordea: hil ala biziko egitekoa da hori euskararentzat. Ez, aldiz, gaztelaniarentzat: pasatzen den egun bakoitza bere (gaztelaniaren) aldeko eguna izaten da maizago, kontrakoa baino. Euskaldunok eta euskaltzaleok izan behar genuke egia horren inor baino jakitunago. Ez dirudi hala denik, ordea: beldurra diogu, zorabioa ez bada, konpartimentaziozko formula bat bilatzeari. Beldurra diogu horri eta, beldur horren barruan, ele biko hezkuntza-molde egokiena adosteari: hori da nire ustea, mende-laurden honetako ibiliak erakutsia (306).

Bistan da, bestalde, irtenbide hori bezain elkorra dela kontrako puntamuturreko filosofia tradizionala, inplizituki bederen EEN legeak bere egiten duena: denok denokin era inkonpartimentatua, gogoak hala emate hutsaz, ele batean egin ordez ele bitan egingo dugu, gaur ez bada bihar. Ez dago munduan halako adibide ezagun bakarrik, eta hizkuntzen atzera-aurrerak arakatu dituen aditu-jendeak aho batez dio erreduantzia funtzionalako elebitasun sozial hori bidera ezina dela belaunez belaurneko perspektiban.

#### X.4. Perspektiba horretan txertatu behar da eskolako jarduna

EEN legearen hezkuntza atalak ez du etorkizun handirik, perspektiba zabalgago horretan txertatu gabe. Eskolak neska-mutulei eransten dien *plus*-a (etxetik euskaldun direnak alfabetatzea; gehiengo erdalduna euskalduntzea) galdu egingo da eskola ondoko gaztaroan eta heldu-aldian euskarazko harreman-sareetatik deskonektaturik bizi badira. Erdal familia eratzen badute gazteok, esate baterako,

---

(306) Konpartimentazioaren soluzioa, hemen eta orain, ez da *apartheid* printzipioa aplikatzea. Ezin da halakorik egin, nahita ere, batetik. Eta, ahal izanik ere, ez nuke halakorik aholkatuko: gizajendearan eta giza-taldeen askatasun-esparruan izango lukeen erabateko galera ezin onartuzkoa litzateke bizi garen gizarte moderno-mendebaleko honetan. Ez dago beraz inolako motiborik, konpartimentazio fisiko, demografiko eta laboral hertsiko *Apartheid*-bideak *hemen eta orain* emaitza onik emango lukeela uste izateko. Babes-oinarri juridikorik are gutxiago izango luke, euskararen aldeko neurrietan. Eta ez dago, batez ere, hartarako gogo-girorik txikiena gizartean. Bide horrek ez du beraz irtenbide onik. Konpartimentazioa eta *Apartheid* ez dira ordea sinonimo. Posible da lehen bidea, bigarrena gabe.

berriro ere hutsetik hasi beharko da euskalduntze-lanean. Erdarazko irakurketa-idazketak baldin badira nagusi, eskola-urteak amaitu ondoan, etxetik euskaldun ziren gazteen artean, eskolako irakurmen-idazmen haiek galdu egingo dira: kasu batean zein bestean probetxu eskasekoa gertatuko da hainbat urtetako hezkuntza-saioa. Eskolaren hizkuntza-garaipena edo porrota ez dago eskolan bertan: eskolatik kanpora dago hori, nagusiki. Hori da inor gutxik entzun nahi duena eta are gutxiagok onartzen eta kontuan hartzen duena. Noiz arte segitu behar du ez-ikusiarena egin nahi horrek? G. H. Jenkins-ek (2000) galesarentzat aurreikusia duen *terminal decline* hori azken hitzun-talde euskaldunoi zeharo gaineratu eta guztioz erabat jabetu arte? Lagunarte eta familia euskaldunak sortzea, euskaldun-jende horrek lan-esparruan (partez bederen) euskarazko harreman-sareak eratu eta haietan txertatzea, mila aldiz garrantzi handiagokoa da, Errioxako edo ez dakit nongo A ereduko ikasleak (are Bko askotxo) itsu-itsuan Dra eramatea baino. Hori ez da D ereduaren kontrako alegatua, D eredia bere neurrian eta bere kontestuan kokatu beharraren argudio-bide sotila baizik. Behar-beharrezkoa du euskaldungoak, mende berrian bizirik aterako bada, euskarazko eskola. Ingurumen-baldintza batzuen barruan bakarrik emango du, ordea, eskola horrek bere fruitua. Hain zaila al da hori entenditzea?

Errazegi ahaztu dugu guraso euskaldunen garrantziaren kontua: egindakotzat ematen dugu sarri, guraso euskaldunek etxegiro euskalduna osatuko dutela, lagunarte euskalduna eratuko ere dutela oro har eta auzo-bizitza arruntean bertan euskarazko harreman-sareak indartzen ahaleginduko direla. Badakit bertsio ofizialak zer dioen: guraso euskaldunen belaunez belauneko hizkuntza-transmisioa altua edo oso altua dela eta, beraz, familia-bizitzaren (eta, horri gehi eskolari eskerrak) gazte-gaztetxoek euskal-elebitasuna segurtaturik dagoela. Dakigun neurri mugatuan, ez dago batere garbi hori horrela denik: ezagunenetik hasita, eskola da gaur egun, haur horiek hiruzpau urte dutenean, erdalduntze-gune masiboetako bat. Behin eta berriro frogatutako datua da hori: begiak erne izan nahi dituenak ahaztu behar ez lukeen datua. Handik hasita, erdal lagunarteak eratzen dituzte sarri hurrek, adinean gora egin ahala. Bertsio ofizialaren oso bestelako ikauspegia ematen du gertaera horrek, eskola-mundutik bertatik atera gabe. Hurbileko gizarte-bizitzan euskarazko jardunguneak eta harreman-sareak eratu gabe alferrik dira, ordea, eskolaren ahaleginik handienak. Konparaziorako ikus Galesko *Twf* proiektua (V. K. Edwards, eta L. Pritchard Newcombe 2003, 2005 eta 2006).

Errazegi ahaztu ditugu, orobat, garai batean garrantzi handia aitortzen genien jarrera eta motibazio kontuak. Motibazio integratiboa eta instrumentala bereizten ahaztu egin zaigu, antza (307). Funtsezkoa da orain ere bereizketa hori, hiritarren herri-gogoia eta euskaltzaletasuna bere neurrian baloratu nahi badira eta onarpen zabaleko formulazioak hobetsi. Funtsezkoa da hiritarren gogo-giro eta babes hori, bereziki, eskola-esparruko hizkuntza-politika definitzerakoan.

---

(307) Motibazio integratiboaren azken berrikustapen-saioaz ikus R. C. Gardner 2001.



### X.5. Legearen baitan gehiegizko konfiantza jartzeko arriskua

Legearen mende-laurdeneko ospakizunaren kariatz egin ditugu gure gogotak. Bidezko da, hortaz, legezko ikuspegiari leku nagusia aitortzea. Ez genuke geure burua engainatu behar ordea: eztabaidan dagoena ez da legezko formula perfektua bilatzea, gizarte-giroan gehiengo zabal batentzat gogozkoa edota, gutxienez, onargarria izango den euskara-erdaren elkar hartuzko bizibide-formula asmatzea baizik. Elkar-hartuzko bizibide-formula da, askogatik, eskuratzeko zailena. Oso da zaila, handia eta txikia harmonia oneko elkarbizitzan mantentzea. Arrain handiak txikia jatea, *the survival of the fittest* edo, gordinago esanik, *oihaneko legea* ondo ezagunak ditugu hemen eta nonahi, hizkuntza bik espazio fisiko bera okupatzen dutenean. 1982ko EEN legea ondorio lazgarri hori *ez gertatzeko* asmo zabalaren oihartzun juridikoa izan zen. Gizarte-sail zabalen eta elite zahar-berrien konpromisozko asmoa eta jarduera. Asmoa (zeinahi asmo dela ere) eta gizartearen jarduera izango da, gero ere, funtsezko. Arriskua dago, alde horretatik, hizkuntza kontuan dauzkagun gizarte mailako arazoak lege bidez konpondu nahi izateko. Bistan da une batean, lehenxeago edo geroxeago, batek ez bada besteak legez askatuko duela korapiloa. Gauzak iraungo badu asmo adostuak, onargarriko adostasun sozialak, eutsi beharko dio ordea lege berri horri: «Leges sine moribus vanae». Behar-beharrezko elementua da legea. Dena ez da legea, ordea: ikus anglosaxoien tradizioa, frantses-espainolen aurrez aurrekoa (308). Legea idatzi aurretik, ez horren ondoren, iritsi behar da ahal delarik eztabaida eta onarpen sozial sendora (309).

### X.6. Ofizialtasunaren kontzeptua argitasun eske

Mende-laurden honen ibiliak gauza bat erakutsi du, besteak beste: konstruktuko juridikoei dagokienez ofizialtasuna (bakarra eta, batez ere, bikoitza) emendiozko klarifikazio kontzeptualaren beharrea dagoela. Nola ulertu behar da, preseski, EAEko hizkuntza-ofizialtasun bikoitza? Zer ondorio praktikoko dituzte hizkuntza bat (euskara zein gaztelania) ofizial izateak? Itxuraz Kanadatik etorritako definizio-bide pragmatiko (jadanik klasiko)ari heltzen bazaio, A hizkuntza ofiziala da baldin eta soilik baldin:

---

(308) Estatu Batuen hizkuntza-politikazko tradizioa (azken hamabost urteko *English Only*-k besterik iradoki badezake ere) ez da itxura denez oso interbentzio-zalea (cf. Heinz Kloss 1965, Joshua A. Fishman 1965, 2006b, Shirley Brice Heath eta Frederick Mandabach 1983). Australiakoaz ikus Joe Lo Bianco 1997 eta Uldis Ozolins 2002. Legearen presentzia glotopolitikoa aski zabala izana da aldiz Frantzia eta Espainia, Hizkuntza Akademien eta XVIII. mendeaz geroztik status-plangintzaren legeztatze-saioen ildotik besteak beste. Belgika, Kanada (berezi Québec) eta herrialde baltikoak (Estonia,...), azkenik, jurilinguistikazko ekintza-bidearen erakusleku argiak dira.

(309) Hala gertatu zen, funtsean, 1982an: aurreko hamar urteetako bibliografia beterik dago, EEN legearen oinarriko paradigma osatzen duten irizpide nagusiez.

- a) ofizialtasun-esparruan (esparru fisiko-geografikoan) bertako herritarrek beren artean A hizkuntzaz jarduteko eskubidea izateaz gainera funtsezko hainbat zerbitzu (hezkuntza, justizia, osasungintza, irratitelebistak eta, oro har, komunikazio publikoa,...) A hizkuntza horretan jasotzeko eskubidea baldin badute, eta
- b) Hala aukeratzen duten herritarrei zerbitzu hori A hizkuntzan eskaintzeko eta emateko obligazioa baldin badute Herri-aginteek.

Egia al da EAEko (eta itxuraz, implizituki bederen, Espainia osoko ofizialtasun bikoitzeko formulazio globala) marko kontzeptual horretan oinarritzen dela? Horretan ez bada, zertan oinarritzen da? Harrigarria da, nolana ere, mende-laurden luzea pasa ondoren oinarri-oinarrizko kontzeptua (bertako hizkuntza-marko osoa zurkaizten duena) klarifikatu gabe edukitzea. Norbaitek esan dezake, jakina, zientzia-esparru gehienetan gertatzen dela hori eta, beraz, ez dagoela horretaz zertan harritu. Ez dut uste gauzak horrela direnik. Har dezagun, konparazioz, hizkuntzalaritzaren esparruko «trantsitibo» kontzeptua, aditzak tipifikatzeko orduan erabiltzen dena. «Aditz *trantsitibo*»-ak aski ezagunak dira gure artean: ondo zehazturik dago, espezialistarentzat, *trantsitibo* hitza (310). Funtsezko kontzeptu dikotomiko baten bi izendapen polarretako bat da hori: aditz batzuk *trantsitiboak* dira, eta besteak (*intrantsitiboak*) ez. Morfosintaxiazko azalpenetan milaka matiz eta ñabardura ematen zaizkio, eta gehiago emango zaizkio aurrerantzean, dikotomia horri. Bereizketa ez da hizkuntza guztietan berdina, eta hizkuntzalaritzaren enfoke diferenteez ere beren marka-seinalea eransten diote *trantsitibo/intrantsitibo* terminoen kontzeptualizazio horri. Mendeetako erabilerak ezinbesteko erreferente bihurtu ditu biak, ordea, hizkuntza askoren analisisan edo trataera formalean. Aditz *trantsitiboak* eta *intrantsitiboak* ez dira gauza bera.

Antzeko neurrian kontzeptualizaturik eta semantikoki definiturik al dago *ofizial* hitza, hizkuntza *ofizialez* eta *ez ofizialez* ari garelarik? Legelariarentzat, jurilinguistikan aditua den legelariarentzat batez ere, «euskara eta gaztelania EAEn *ofizialak* dira» esaten duenean *ofizial* terminoa ez da edergarri soila. Ezin da ornamentu hutsa izan, inolako ondorio praktikorik gabea. Zerbait esan nahi da hitz horrekin: bestela ez litzateke hor egongo, hain leku gailen eta agirian. Konstituziotik hasi eta Autonomia Estatutuetan barrena, lekuan lekuko hizkuntzen erabilera normaltzeko lege gehienen bizkarrezurra osatzerantz iritsia dago *ofizial* izate hori. Jurilinguistikazko kontzeptu klabe edo giltzarria da hori. Horrela eratu zen *ofizial* kontzeptua orain dela mende-laurden inguru, eta horrelaxe tratatua dago egungo egunean. Non dago ordea esplizituki definitua, hizkuntza bat *ofizial* izateak zer esan nahi duen? Hiritarren eskubideei eta

---

(310) Ez naiz kontu horietan aditua eta ez dakit, beraz, munduko hizkuntza guztien unibertsal baten aurrean gauden, edota bere eragin-esparrua ondotoz mugatuagoa den. Azalpen jantzietarako ikus, adibidez, Lyons 1968 (1977ko gaztelaniazko itzulpena) 362-4, 371-2 eta 393-401 orr.

herri-aginteen eginbeharrei dagokienez nola bereizten dira, praktikan, hizkuntza *ofizialak* eta *ez-ofizialak*? Zer-nolako ezaugarri juridiko-formal eta operatibo datzekio hizkuntza *ofizial* bati? Zer ezaugarri dagozkio *ofizialtasunari* oro har, gizarte-bizitzan? Zer ondorio praktiko dagozkio, bereziki, eskola-alarrean?

Harrigarria bada ere, hizkuntza biren *ofizialtasuna* oinarri duen marko instituzional honetan *ofizial* terminoaren esanahiaz ez dago zehaztasun kontzeptual handirik: ez formulazio teorikoaren aldetik eta ez, bereziki, bere inplikazio praktikoaren ikuspegitik. Dauden definizioak aski inplizituak eta jenerikoak dira oro har, eta administrazio-esparruko jardunari begira emanak daude gehienetan (311). Ezer gutxi dago esplizituki zehaztua, aldiz, eskola-munduko *ofizialtasunaren* izaeraz eta irispideaz. Zer ondorio praktiko ditu, eskola-munduaren eguneroko praktikan, hizkuntza bat *ofizial* izateak. Gaztelania eta euskara hizkuntza *ofizialak* dira EAEn; italiera eta ingelesa, aldiz, ez. Gaztelaniari eta italierari trataera bera zor al zaie EAeko eskoletan? Euskara eta ingelesa berdin trata al daitezke gure irakaskuntzan? Posible al da seme-alabek hizkuntza batean (euskaraz, gaztelaniaz) ikas dezaten nahi duten gurasoei hartarako eskubidea ukatzea? Ukatu ezin bazaie, nolatan pentsatzen da A edo D ereduak debekatzea?

Behar den bezala klarifikatu gabe dago, ene ustez, hizkuntza-politika instituzionalaren esparruan *ofizialtasuna* zer den. Klarifikazio kontzeptual hori garrantzi handiko eginkizuna da. Argitze-lanaren beharra bereziki da handia eskola-esparruan. Jurilinguistikan adituak direnek egin beharreko lana da hori, batez ere. Ez beraiek bakarrik, ordea: hizkuntza-soziologiak (hizkuntza-plan-gintzak edota glotopolitikak konkretuki) eta beste zenbait jakintza-eremuk ere baditu gai horretaz bere ekarpenak eginik, atzerrian bereziki: Heinz Kloss-en 1969koa paradigmaticoa da alde askotatik. Ekarpen horiek guztiak aintzakotzat hartzea komeni da (312). Hizkuntza-politikaren sailean *ofizial* hitzak

---

(311) Adierazgarria da, alde horretatik, Konstituzio Epaitegiak bere garaian esana (Tribunal Constitucional, 1986): «Aunque la Constitución Española no define, sino que da por supuesto lo que sea una lengua oficial, la regulación que hace de la materia permite afirmar que es oficial una lengua, independientemente de su realidad y peso como fenómeno social, cuando es reconocida por los poderes públicos como medio normal de comunicación en y entre ellos y en su relación con los sujetos privados, con plena validez y efectos jurídicos». Orobat beste hau « En los territorios dotados de un estatuto de cooficialidad lingüística (..) el derecho de las personas al uso de una lengua oficial (es) un derecho fundado en la Constitución y el respectivo Estatuto de Autonomía». Azalpen osorako ikus Eusko Legebiltzarra 1991: 475. Bistan da Konstituzio Epaitegiak 1986an egindakoa «bide batez»ko definizio-saioa dela, ez aurrez aurrekoa eta luzera begira moldatua.

(312) Erreferentzia moduan ikus, Heinz Kloss-en 1969koaz gainera, Kanadako William F. Mackey-ren 1983koa. Kataluniako ikuspegitik Branchadell-ek 2005ean esandakoak ere garrantzizkoak dira oso. Ikus McRaeren definizio seminalaz gainera Poolen 1990 inguruko zehaztapenak, Albert Branchadellek ongi jasoak. Konparatu definizio-bide horiek eta beste zenbait (Stewart 1970, Cooper 1989) EEN legearen argudio-oinarriarekin. Ikus, orobat, Kymlika-ren eta Lijkhart-en azalpenak.

mundu zabaleko bibliografian (batez ere jurilinguistikoan eta glotopolitikoan) dituen esanahiak aztertu beharra dago. Hitz horrek gure artean (EAEn eta estatuko herrialde elebidun gehienetan) izan duen aplikazio konkretuan terminoari eman zaizkion definizio operatiboak ere bildu eta mundu zabaleko formulazio nagusien argitan kontrastatu beharra dago bestetik (313). Besterik uste badu ere gure arteko hainbatek, premia larriko eginkizuna da hori. Eztabaida askok baino gehiago lagundu dezake horrek, lana ondo eta garaiz egiten bada noski, hezkuntza-alorreko hizkuntza-normalkuntzaren hainbat buruhauste bere onera ekartzen. Ondo eta garaiz egin behar: gaizki egiten bada, aurrera ordez atzera joan gaitezke. Presa du kontuak, bestalde: beranduegi izan liteke argitze-saio hori, une batetik aurrera.

## X.7. Azken hitz

Nahi adinbat datu dago eskueran, hemen eta hemendik kanpora, L2 (eta are L1) alorreko eskola-lorpenak nahi eta nahi ez gizarte-bizitzaren kontestuan txertatu behar direla dioenik. Hori gabeko programazioak hutsalak direla gogorarazten digute, oro har, azalpen horiek. Joshua A. Fishman-en idazlan ezagun batzuk baizik ez aipatzearren, hor daude 1976ko *Bilingual Education: An International Sociological Perspective*, John Lovasekin 1970ean (gero 1972an) argitara emaniko *Bilingual education in sociolinguistic perspective*, 1985eko *The Rise and Fall of the Ethnic Revival*, 1989ko *Language and Ethnicity in minority sociolinguistic perspective*, 1990eko *Eskolaren Mugak Hizkuntzak Biziberritzeko Saioan* eta 1991ko *Reversing Language Shift: Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages*. Hor daude Bernard Spolsky-ren lanak (1972, 1995), Nancy Hornberger-en eta Kendall A. King-enak (lehenengoarena, 1988; bigarrena, 1995) eta, azken ordukoetara bilduz, Edwards eta Newcombe-renak (2005).

Guztiak bat datoz puntu zentrolean. Besterik gustatuko balitzaigu ere eskola ez da, gurea bezain ahuldurik dauden hizkuntzak indarberritzeko orduan, benetako motore ahalguztidun. Eskolak ezin du, bere baitarik eta bere kabuz, belaunaldi berrien erabateko elebitasuna (are nekezago gizartearen luze-zabaleko mintzaldaketa) lortu. Ezinbesteko (gurea bezalako kontestu modernizatueta ezinbesteko) lagungarria da eskola. Ezinbesteko lagungarria bai, baina hizkuntza ahula indarberritzeko prozesu osoaren *primum mobile* ez

---

(313) Garrantzi handia du klarifikazio kontu honek, ez baitirudi oinarri-oinarrizko irizpideetan ere beharrezko bateratze-maila eskuratzea lortu denik mende-laurden honetan. Aplikazio mailako ondorio sakonak ditu, edo izan ditzake, zehaztopen kontzeptual horrek. Zehaztopen horren eskasiaz Konstituzio Epaitegiaren beraren sententziak ez dira beti, itxuraz, bide beretik joan (Urrutia, 2005: 375): horrela, 1981eko otsailaren 22ko 6/1982 sententzia, Estatuaren hezkuntza-alorreko goi-ikuskaritza dela-eta emandakoa, norabide batean doala dirudi eta, aitzitik, 337/1994 sententzia beste norabide batean. Tartean dago, gainera, 1986koa, ofizialtasunaren zenbait ezauzgarri zirriborrazten dituen.

da eskola. Hori da entenditu eta onartzea izugarri kostatzen zaiguna. Baina hala dira kontuak, bai hemen eta bai munduko lau hegaletan, gurea bezalako kontestuetan.

Status-plangintzan bezala corpus- eta acquisition-plangintzan ere gogoan izatekoa da hori guztia. Corpus-plangintzari dagokionez ikus, adibidez, Fishman-ek aspaldi esana: «Dans l'ensemble (...) il semble qu'il serait préférable de considérer l'école comme un facteur important à la disposition des planificateurs-linguistes, plutôt que come une force indépendante décisive devant garantir l'implantation de l'aménagement linguistique. On charge souvent de donner suite aux efforts de normalisation, mais elle est sans doute beaucoup trop faible pour y parvenir. Si, dans le milieu populaire, cette distinction n'est pas évidente, elle doit l'être pour les spécialistes de la politique linguistique. Peut-être, en effet, vaudrait-il mieux considérer l'école comme un instrument secondaire de valorisation au service de systèmes sociaux plus fondamentaux et plus puissants».

Euskaldunek euskaldunekin euskaraz (euskara hutsean edo batez ere euskaraz) jarduteko esparruak, harrreman-sareak eta situazio komunikatiboak ez dira azken mende-laurdenean nabarmenki indartu. Izatekotan, ahuldu egin dira. Galdu-irabaziak gertatu dira hor, dudarik gabe. Horrela, eta irabaziei gagozkiela, lehenagoko konpartimentazio funtzionala birrindu ahala dibertsifikatu egin dira euskarak sarbiderik duen jardun-gune horiek: lehen erdaraz bakarrik egiten zen hainbat esparrutan ele bietan, gaztelaniaz zein euskaraz, egiten da orain. Hori dela medio inor gutxi harritzen da gaur egun udal-bulego batean norbaitek bere eskabide-orria euskaraz betetzen duelako, aurrezkitxako diru-makina automatikoarekin hainbatek euskaraz dihardugulako edo, are, zenbait unibertsitarik bere tesi doktorala euskaraz egiten duelako. Zabaldu egin du euskarak bere presentzia, lehen debeku (agintearen erabakiz edo konbentzio sozialez debeku) zituen H esparruetara. Baina zer preziotan? Hasteko, dibertsifikazio soziofuntzional (hots diglosia-galtze) hori partziala izan da oro har: nagusitasun argia du gaztelaniak gaur egun ere, lehen jaun eta jabe zen esparruetan; eta, bereziki, esparru-irabazte mugatu horren trukean, lehen euskararenak ziren esparru informal-arruntetan ere berdin-berdin gertatu da dibertsifikazioa. Berdin-berdin ez, justu alderantziz baizik: lehen euskara zegoen lekuan (etxean eta familian, auzo-bizitzan eta lagunarte hurbilean) euskara eta gaztelania daude orain. Diferentzia batekin, gainera: erdarak L esferan egin duen irrupzio hori euskarak H esferan egindakoa baino sendoagoa izan dela. Eta ez dezagun ahaztu, L esferako mintzajardun arrunt-egunerokoa dela, hamarretik bederatzietan, hizkuntzen belaunez belauneko transmisioa (eta, beraz, gurea bezalako hizkuntza ahul-txikien biziiraupena) segurtatzen duena.

Eskuartean zer dugun, eta nola jardun nahi den, argitu beharko da lehenik eta behin. «Lehendabizi ikasi, gero erabili» paradigmaren mende gauden artean jai dugu. Erabiliz ikasten da, hemen eta nonahi. Hori baino ikuspegi inte-

gratuagoa behar da, ezer lortuko bada euskalduntze-alorrean: bai azken orduko etorkinekin eta bai, nola ez, hasieratiko vasco-erdaldunekin. Etorkinen eskola bidezko euskalduntze-saioen eragimena mugatua da oso, eta hala izango da gero ere, saio horrek beren bizi- eta lan-ingurumenetik deskonektaturik jarduten duen artean. Euskaldunek euskaldunekin euskaraz egiten duten jardunguneak, harreman-sareak eta mintzagaiak indartzen ez diren artean, eta erdaldunek (tartean etorkinek) euskararen beharra edo mesedea nabaritzen ez duten artean, nekez (estatistikoki, ez kasu bakanetan, nekez) egingo dute aparteko saio gogorrik euskara ondo ikasi eta jardungune zein harreman-sare horietan euskaraz jarduteko. Nahikoa lan dute bestela ere bertako pauta nagusietan integratzen, beren ingurumen hurbilean eragin efektiborik ez duten jakite-kontu hutsei aparteko esfortzua dedikatzeko: behar ez dena ez da behar. Aldiz etorkinen potentzial humanoa, kulturala eta ekonomikoa eguneroko euskalgintza biziaren gurpilean txertaten bada, bistan da lagungarri sendo gerta litekeela uhin berri hori hizkuntza-normalkuntza kopuruz eta barne-komplexutasunez osatzeko. Betikora goaz: euskarazko jardungune, harreman-sare eta solasgai arruntak bizirik mantendu eta, ahal delarik, indartu behar dira horretarako. Errazago da hori esaten, halere, egiten baino.

**ERANSKINAK****Lehenengo eranskina*****EEN legearen bigarren kapitulua, hezkuntzari buruzkoa,  
eta beste zenbait atal***

CAPITULO SEGUNDO	BIGARREN KAPITULUA
Del uso del euskera en la enseñanza	Euskararen erabilera irakaskuntzan
Artículo 15	15. artikulua
Se reconoce a todo alumno el derecho de recibir la enseñanza tanto en euskera como en castellano en los diversos niveles educativos.	Ikasle guztiei aitortzen zaie irakaskuntza euskaraz zein gaztelaniaz jasotzeko eskubidea irakasmaila guztietan.
A tal efecto, el Parlamento y el Gobierno adoptarán las medidas oportunas tendentes a la generalización progresiva del bilingüismo en el sistema educativo de la Comunidad Autónoma del País Vasco.	Horretarako, Legebiltzarrak eta Jaurlaritzak neurri aproposak hartuko dituzte Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko irakaskuntzan elebitasuna gero eta orokorragoa izan dadin.
Artículo 16	16. artikulua
1. En las enseñanzas que se desarrollen hasta el inicio de los estudios universitarios, será obligatoria la enseñanza de la lengua oficial que no haya sido elegida por el padre o tutor, o, en su caso, el alumno, para recibir sus enseñanzas.	1. Unibertsitate-hezkuntza hasteraino egiten diren ikasketetan derrigorrezkoa izango da ikasketok hartzeko guraso edo kuradoreak edota, hala denean, ikasleak berak, aukeratu ez duen hizkuntza ofiziala irakastea.
2. No obstante, el Gobierno regulará los modelos lingüísticos a impartir en cada centro teniendo en cuenta la voluntad de los padres o tutores y la situación sociolingüística de la zona.	2. Dena den, Jaurlaritzak ikastetxe bakoitzean irakatsi beharreko hizkuntza-ereduak finkatuko ditu, guraso-kuradoreen nahia eta tokian tokiko egoera soziolinguistikoa kontutan.
3. Los centros privados subvencionados con fondos públicos que impartan enseñanzas regladas tomando como base una lengua no oficial en la Comunidad, impartirán como asignaturas obligatorias el euskera y el castellano.	3. Ikasketa arautuak Erkidegoan ofiziala ez den hizkuntza batean irakasten duten diru publikoz lagundutako ikastetxe pribatuek euskara eta gaztelania irakatsiko dituzte derrigorrezko ikasgai gisa.
Artículo 17	17. artikulua
El Gobierno adoptará aquellas medidas encaminadas a garantizar al alumnado la posibilidad real, en igualdad de condiciones, de poseer un conocimiento práctico suficiente de ambas lenguas	Jaurlaritzak, derrigorrezko ikastaldia bukatzerakoan ikasleek, aukera berdinetan, bi hizkuntza ofizialak benetan erabiltzeko adina menperatuko dituztela ziurtatzera bideratutako neurri

oficiales al finalizar los estudios de enseñanza obligatoria y asegurará el uso ambiental del euskera, haciendo del mismo un vehículo de expresión normal, tanto en las actividades internas como externas y en las actuaciones y documentos administrativos.	guztiak hartuko ditu; halaber, euskal giroa ziurtatuko du, euskara [ikastetxeetako] barne- nahiz kanpo-jardueretan eta administrazio-ekintza eta -dokumentuetan ohiko tresna bihurtuz.
Artículo 18	18. artikulua
Los planes de estudio se adecuarán a los objetivos propuestos en los artículos 15, 16 y 17.	Ikasketa-planak 15, 16 eta 17. artikuluetan finkatutako henburuei egokituiko zaizkie.
Artículo 19	19. artikulua
Las Escuelas Universitarias de Formación del Profesorado, adaptarán sus planes de estudio para conseguir la total capacitación en euskera y castellano de los docentes, de acuerdo con las exigencias de su especialidad.	Irakasleen prestakuntzarako unibertsitate-eskolek beren ikasketa-planak egokituiko dituzte, irakasleek euskara eta gaztelania erabat menperatu ditzaten, norik bere espezialitatearen eskakizunen arabera.
Artículo 20	20. artikulua
1. El Gobierno, a fin de hacer efectivo el derecho a la enseñanza en euskera, establecerá los medios tendentes a una progresiva euskaldunización del profesorado.	1. Jaurlarizak, euskarazko irakaskuntzarako eskubidea gauzatzeko, irakasleria gero eta euskaldunagoa lortzeko bitartekoak jarriko ditu.
2. Asimismo determinará las plazas o unidades docentes para las que será preceptivo el conocimiento del euskera, a fin de dar cumplimiento a lo previsto en los artículos 15 y 16 de la presente Ley.	2. Halaber, Lege honen 15. eta 16. artikuluetan aurrikusitakoa betetze aldera, euskara jakitea zein irakaspostu edo ikasgelatarako izango den derrigorrezko zehaztuko du.
<b>CAPITULO CUARTO</b>	<b>LAUGARREN KAPITULUA</b>
Del uso social y otros aspectos institucionales del euskera	Euskararen gizarte-erabilera eta erakundeen alorreko beste zenbait alderdi
Artículo 26	26. artikulua
Los poderes públicos vascos tomarán las medidas oportunas y los medios necesarios tendentes a fomentar el uso del euskera en todos los ámbitos de la vida social, a fin de posibilitar a los ciudadanos el desenvolvimiento en dicha lengua en las diversas actividades mercantiles, culturales, asociativas, deportivas, religiosas y cualesquiera otras.	Euskal herri-aginteez neurri egokiak hartuko dituzte eta beharrezko bitartekoak jarriko gizarte-bizitzako alor guztietan euskararen erabilera sustatzeko, herritarrek salerosketako, kulturako, elkarteetako, kiroletako, erlijiozko edota beste edozein motatako jarduera guztiak euskaraz garatu ahal izan ditzaten.



Artículo 27	27. artikulua
1. Los poderes públicos vascos fomentarán el uso del euskera en la publicidad.	1. Euskal herri-agintek euskararen erabilera sustatuko dute publizitatean.
2. Asimismo, impulsarán el uso ambiental del euskera y su empleo en la rotulación de todo tipo de entidades mercantiles, recreativas, culturales y asociativas de carácter no oficial.	2. Halaber, euskal giroa eta euskara errotulazioan erabiltzea bultzatuko dute, era guztietako entitate komertzial, atsedenarako, kulturarako zein ofizialtasunik gabeko elkarteetan.
<b>CAPITULO QUINTO</b>	<b>BOSTGARREN KAPITULUA</b>
Del uso del euskera como lengua escrita oficial	Euskararen erabilera hizkuntza idatzi ofizial gisa
Artículo 30	30. artikulua
El Gobierno velará por la unificación y normalización del euskera en su condición de lengua escrita oficial común en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, sin perjuicio del respeto a los diversos dialectos, parte esencial del patrimonio cultural del País Vasco, en las zonas en que son hablados.	Jaurlaritzak euskararen batasuna eta normalizazioa begiratuko du, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan idatzizko hizkuntza ofizial komun denez, Euskal Herriaren kultura-ondarearen funtsezko zati diren euskalkiei bizirik diren tokietan zor zaien begirunea gora behera.
<b>DISPOSICIONES ADICIONALES</b>	<b>XEDAPEN GEHIGARRIAK</b>
Primera.-El Gobierno, en el ámbito de sus competencias, establecerá vínculos culturales con aquellas instituciones o poderes que, actuando fuera del ámbito territorial de la Comunidad Autónoma, realicen actividades de investigación, protección y fomento del euskera.	Lehenengoa.- Jaurlaritzak, bere eskumenen esparruan, Autonomia Erkidegoaren lurraldetik kanpo jardunik, euskararen ikerketan, babesean eta sustapenean lan egiten duten erakunde edo aginteezikiko kultura harremanak bideratuko ditu.

## Bigarren eranskina

### A, B eta D ereduaren hedadura: 2007-08 ikasturteko matrikula-datuak

2007/08 ikasturteko iraileko matrikula					
<i>Araubide orokorreko irakaskuntza, hezkuntza berezia sartzen da baina helduen hezkuntza ez.</i>					
Guztira				319.587	
Publikoa				157.553	
Pribatua				162.034	
Ereduak	A			65.563	20,51%
	B			73.666	23,05%
	D			178.408	55,82%
	X			1.950	0,61%
<b>Haur eta Lehen Mailako Hezkuntza</b>					
Ereduak	A			15.665	8,05%
	B			54.440	27,98%
	D			123.234	63,33%
	X			1.252	0,64%
Publikoa	Ereduak	A		4.522	4,65%
		B		13.714	14,11%
		D		78.946	81,24%
		X		0	0,00%
Pribatua	Ereduak	A		11.143	11,44%
		B		40.726	41,81%
		D		44.288	45,47%
		X		1.252	1,29%
<b>Bigarren Hezkuntza (DBH, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Zereginen Ikaskuntza)</b>					
Ereduak	A			49.898	39,92%
	B			19.226	15,38%
	D			55.174	44,14%
	X			698	0,56%
Ereduak		DBH	Batxilergoa	Lanbide Heziketa (*)	Bigarren Hezkuntza
	A	14.947	14.949	20.002	49.898
	B	18.139	390	697	19.226
	D	35.566	14.275	5.333	55.174
	X	504	194	0	698
Guztira	69.156	29.808	26.032	124.996	
<i>Lanbide Heziketan Zereginen Ikaskuntzako ikasleak sartu dira.</i>					
Publikoa	Ereduak	A		21.617	35,81%
		B		4.201	6,96%
		D		34.553	57,23%
		X		0	0,00%
Pribatua	Ereduak	A		28.281	43,76%
		B		15.025	23,25%
		D		20.621	31,91%
		X		698	1,08%

**Hirugarren eranskina*****Ereduen diseinu-fasea: zenbait ezaugarri eta eragile***

Lau eredu diseinatu ziren hasieran, 1978-79 inguruan. Orduko diseinua-  
ren zenbait ezaugarri ondoko tauletan emanik dago (314):

**A EREDUA**

Norentzat: 3 (5) urteko haur erdaldunak. Ingurune soziolinguistiko erdal-  
duna. Ikasketa guztiak erdaraz. Euskara 2. hizkuntza

Prozesua eta begiz jotako emaitza: ikus ondoko taula:

<b>Ikasmaila</b>	<b>Hizkuntza-trataera</b>	<b>Helburua: euskara-maila</b>
ESKOLAURREA	Hizkuntzara jolas bidez hurbil- tzea	
EGB I	Euskara hasiera-mailan lantzea	Hasierako maila
EGB II	Euskara: oinarrizko maila Euskal kultura: erdaraz	Oinarrizko maila
BUP-FP	A taldeak: Hobekuntza-maila. B taldeak: Oinarrizko maila	A taldeak hobekuntza-maila. B taldeak oinarrizko maila

**B EREDUA**

Norentzat: Erdara nagusi den taldeetan, orobat inguru soziolinguistikoa  
erdalduna denean eta C tipologia aplikatzeko modurik ez dago-  
enean. 3 urteko haur erdaldunak (5 urteko haur erdaldunak).

Prozesua eta begiz jotako emaitza: Ikus ondoko taula:

<b>Ikasmaila</b>	<b>Hizkuntza-trataera</b>	<b>Helburua: euskara-maila</b>
ESKOLAURREA	Erdara nagusiki. Kanta eta jo- las bidez euskara ezagutzea.	Hasierako maila.
EGB I	Ikasgaiak erdaraz. Eduki nagu- siak erdaraz. Eduki praktikoak euskaraz.	Euskara: oinarrizko maila

(314) Taula hauek orduko dokumentu (agian probisional)etatik jasoak eta txukunduak  
daude, eta bidean okerren bat itzuriko zitzaidan agian. Hala baldin bada nirea da errua. Ez dut  
uste, halere, taula-laburpena oso oker jaso denik.

<b>Ikasmaila</b>	<b>Hizkuntza-trataera</b>	<b>Helburua: euskara-maila</b>
EGB II	Ikasgai gehienak (eduki nagusiak) erdaraz. Batzuk euskaraz (euskal kultura; gai praktikoak).	Euskara: hobekuntza-maila Terminologia zientifikoa
BUP-FP	1. taldea: C-D tipologietara aldatzeko aukera 2. taldea: C-Drako aldaketa lortu ez dutenek EGB II-ko plana jarraitzea	

### C EREDUA

Norentzat: 3 (2) urtetako haur erdaldunak. Haur elebidunak, baina erdara nagusi dutenak.

Prozesua eta begiz jotako emaitza: Ikus ondoko taula:

<b>Ikasmaila</b>	<b>Hizkuntza-trataera</b>	<b>Helburua: euskara-maila</b>
ESKOLAURREA	Euskara-erdaren erabilera orekatua: erdi eta erdi gai guztietan. Erdara nagusi.	Hasiera-maila eta oinarrizko maila
EGB I	Irakurketa-idazketa euskaraz egiteko gai direnek lehen aldaketa D eredura. Irakurketa-idazketa erdaraz. Ikasgaiak euskaraz eta erdaraz, erdi eta erdi. 3. urtean, irakurketa-idazketa euskaraz.	Oinarrizko euskara eta hobekuntzako euskara guztiek menderatzea.
EGB II	D ereduan bezala	
BUP-FP	D ereduan bezala	

### D EREDUA

Norentzat: a) 3 urteko haur euskaldunak; b) Haur elebidun orekatuak

Prozesua eta begiz jotako emaitza: Ikus ondoko taula:

<b>Ikasmaila</b>	<b>Hizkuntza-trataera</b>	<b>Helburua: euskara-maila</b>
ESKOLAURREA	Euskara hutsez. Euskalkitik euskara batu mintzatura, mailaka	

Ikasmaila	Hizkuntza-trataera	Helburua: euskara-maila
EGB I	Irakurketa-idazketa euskaraz. Ikasgai guztiak euskaraz. Erdara mintzatuaren sarrera mailakatu. Irakurketa-idazketa, 3. urtetik	
EGB II	Ikasgai guztiak euskaraz. Euskal kultura (geografia, historia, literatura). Erdara sakontzea. Gramatikalizazioa/Literatura Terminologia zientifikoa	
BUP-FP	Ikasgaiak euskaraz eta erdaraz, erdiz erdi	

Argi antzematen denez, irakastereduen tipologia laukoitz hura definitzerakoan honako faktore eta berezitasunok hartu nahi izan ziren, besteak beste, kontuan: haurra etxetik euskaldun ala erdaldun den (hots, ikaslearen ama-hizkuntza); ikaslearen eta ikastetxearen ingurumena, euskara-erdarek etxean eta auzoan, herrian eta bailaran duten pisuaren arabera (hots, zonalde soziolinguistikoa); eskolara hasteko adina; eredu bakoitzarentzat begiz jotako hizkuntza-gaitasunezko lorpen-mailak; bigarren hizkuntza irakasteko metodologia (gaztelania edo euskarara, kasuan kasuko ama-hizkuntzaren arabera); orientabide didaktiko orokorrak; irakurketa-idazketak lehenik zein hizkuntzatan landu eta, azkenik, urterik urteko programazioan zehar bi hizkuntzak irakaspide gisa nola erabili. Legez 1983koak badira ere, 1978-79raino eraman liteke, gutxienez, egungo A, B eta D irakasteredu elebidunen jatorria.

Eredu-prestaera horretan, diseinu teknikoari dagokionez funtsezko eragile izanak dira honako pertsona hauek: Mikel Lasa, Pakita Etxeberria, Karmele Atutxa, Tomas Uribe-etxebarria, Mari Carmen Garmendia, Lontxo Oihartzabal eta Xabier Mendiguren. Beste zenbaitek ere parte hartu zuen langintza horretan: Itziar Idiazabalen parte-hartzea, esate baterako, garrantzi handikoa izan zen 1983 ingurutik aurrera: hasiera-hasierako diseinatzaile eragileak zazpi horiek izan zirelakoan nago ordea. Zazpiak izanik ere garrantzi handiko, aparteko erantzukizuna izan zuen hasierako diseinu-lanean, 1977tik 1980 ingurura, Mikel Lasak: bereak dira hasierako hainbat diseinulan. Lontxo Oihartzabal izan zen horren ondoren, ordura arteko diseinuari aplikazio praktikoa erantsiz, ereduen gaiari Hezkuntza Sail sortu berriatik indartsuen heldu ziona. Mari Carmen Garmendiak, azkenik, lan ohargarria egin zuen aginte-esparrutik, ereduen berrazterketa nazioarteko kontestuan txertatuz (Jim Cummins eta beste zenbait aditu Euskal herriratuz horretarako, besteak beste).


Nola definitu ziren ereduok? Zertan oinarritu ziren erabaki-hartzaile nagusiak? Zer konstruktuko teorikoz baliatu ziren horretarako, batzuek eta besteak? Has gaitzen teoriarako iturburuetatik. Kanadako jakitun handi batek, William Francis Mackey irakasleak, eragin bizia izan zuen irakasteredu elebidun horien definizio kontzeptualean. Aski litzateke, horretaz jabetzeko, 1976ko bere *Bilinguisme et contact des langues* arakatzea. Bai liburu horretan, eta bai Euskal herrira etorri eta aurrez aurre emandako azalpenetan, argitasun ugari eskaini zuen Mackeyk. Ereduen aukera-molde diferenteak diseinatzeko irizpide posibleen sailkapen-saioak, bereziki, ezin ukatzeko eragina izan zuen gure artean. Badakigu gero, eguneroko ibiliak eta bertako gizarte-moldearen hainbat ezaugarri aski bide jakinera eramanez dituela hasierako kontsiderazio jeneral haiek. Dokumentazio tekniko-administratiborik ez da falta, ordea, diodan horren bermagarri. Mackeyren aukera-aniztasunaren aldeko formulazio global hori garrantzitsua da hortaz, orain ere, egungo ereduaren moldaera eta urterik urteko bilakaera entenditzeko.

Mackey-rena ez zen gainera, ele biko hezkuntza-sistema eratzerakoan, kanpoko adituaren ekarpen bakarra izan. Renzo Titone italo-amerikarrak ere oihartzun zabala izan zuen gure artean, hasierako urte haietan. Mackey-k bezainbatekoa ere bai, glotodidaktikazko aplikazio konkretuen eremu liskartsuan lan egin beharra izan zutenen artean bereziki. Psikolinguistika aplikatuaren ildotik, eta linguistika kontrastiboaren laguntzaz, Titonek formulatutako zenbait irizpide operatibo (L1en eta L2ren eskuratze-prozesuaz azaldutakoak, bereziki) aski ezagun eta erabakigarri gertatu ziren hemen, ereduaren diseinua Eskolaurrean eta OHOkoko hasiera-zikloan aplikatzerakoan batez ere. Begiak hain urrutira eramanez gabe, azkenik, bide-erakusle katalanak ere gogoan izan behar genituzke hasiera-aldiko eramolde hura azaltzerakoan. Gainerakoak gutxietsi gabe Miquel Siguan irakaslearen eragina azpimarratu beharra dago, lehenik eta behin. Azken mende-laurdeneko hezkuntza elebidunak gure artean izan duen bilakaera nekez esplika liteke Miquel Siguanen (eta, bereziki, Sitgesko bere jardunaldien) aipamen espresua egin gabe. Eragin horiek guztiak bereziki erabakigarriak izan ziren.

### Laugarren eranskina

#### *Ikasle-kopuruen bilakaera, sareka*


Aski berezia da Euskal Autonomia Erkidegoa, ikastetxe publikoek eta pribatuek bertan duten hedadurari dagokionez. Sare bien arteko zatibitze tradizionalak berariazko osagarria izan du gurean, ikastolak direla medio. Legezko trataerari eta azalpen estatistikoari dagokionez hiru multzo berezi izan dira 1993ra arte, eta bi multzo handik aurrera. Horra ikasle-kopuruen bilakaera, guztira eta sareka:



**35. irudia.** Ikasle-kopuruak 1982-83tik 2007-08ra, EAEko ikastetxe publiko, pribatu eta, 1993ra arte, ikastoletan.

*Iturria:* HUISEko Informazio Sistemen Zerbitzua

Goiko informazio hori portzentajeetara itzuliz, honako emaitzok ditugu eskueran:




**36. irudia.** Ikasle-kopuruen portzentajeak, 1982-83tik 2007-08ra, EAEko ikastetxe publiko, pribatu eta, 1993ra arte, ikastoletan.

*Iturria:* HUISEko Informazio Sistemen Zerbitzua

Ikastetxe pribatuek herri-ikastetxeek baino sendoxeago eutsi izan diote, hainbat urtez, hasierako ikasle-kopuruari. Gauzak berdinduz-edo joan dira ordea. Gaur egun, ikuspegi globaletik begiratuta, ikasle-kopuruei dagokienez bi sareak parean daudela esan liteke.

Ikastoletako ikasleek, irudian agertzen den bezala, proportzioz gorantz egin zuten 1982tik 1993ra artean. Publiko- edo pribatu-bidea aukeratu behar izan zuten urte horretan, eta handik aurrerako datu beregainik ez dago. Aukera egiterakoan, bistan da ikasle gehien berekin zuten ikastolek hitzarmenezko pribatu-bidea hautatu zutela.

	1982-83		1987-88		1992-93	
	kopur	%	kopur	%	kopur	%
A	7.313	11,79	1.013	1,43	457	0,69
B	10.914	17,60	11.269	15,95	10.386	15,78
D	43.785	70,61	58.380	82,62	54.965	83,52
<b>Guztira</b>	<b>62.012</b>	<b>100,00</b>	<b>70.662</b>	<b>100,00</b>	<b>65.808</b>	<b>100,00</b>





**Bosgarren eranskina*****Hasierako eta azken aldiko zenbait datu demolinguistikoko****1. Hasierako egoera*

<b>Probintzia</b>	<b>biztanleak</b>	<b>euskaldun</b>	<b>%</b>
Araba	238.262	18.863	7,9
Bizkaia	1.152.394	174.366	15,1
Gipuzkoa	682.517	307.279	45,0
EAE	2.073.173	500.508	24,1
Nafarroa	483.867	53.340	11,0
Hegoaldea	2.557.040	553.848	21,7
Iparraldea	227.280	78.453	34,5
Guztira	2.784.320	632.301	22,7

Siadecoren 1975eko datuak

	<b>Euskaraz badakite</b>		
	<b>hitx egiten</b>	<b>irakurtzen</b>	<b>idazten</b>
Araban	11,46	10,31	9,34
Bizkaian	25,25	21,37	18,99
Gipuzkoan	53,33	43,58	39,38
EAE	32,71	27,25	24,45

1981eko biztanle-zentsuaren datuak

Alde handia dago, iturri batetik bestera. Motibo asko dago, bigarren iturriko emaitzak puztuak daudela uste izateko. Hiritarrak ez zeuden ohituak, itxuraz, horrelako galderei erantzuten: hori izan liteke gain-balorazio horren motibo bat. Beste aldetik, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Azterketarako Lantaldeak egindako estudioak (GAL, 1983: 43) beste taula hau ere eskaintzen zuen:

	<b>EAE</b>	<b>Arab</b>	<b>Bizk</b>	<b>Gip</b>
Euskaldun alfabetat	24,45	9,34	18,99	39,38
Euskaldun erdialfabet	2,80	0,97	2,38	4,21
Euskaldun ez-alfabet	5,46	1,16	3,89	9,74
Euskara ulertzen dutenak	2,62	1,60	2,49	3,21
Erdaldunak	64,67	86,93	72,26	43,46

Bigarren taula horretan, euskaldunen atala hiru zatitan banaturik dago eta horko lehen lerroa, «euskaldun alfabetatuen»a, hurbilxeago dabil Siadecoren euskaldun-portzentajetik. Ez dirudi, ordea, konparagarri direnik. Horra nire ondorioa: aski ilunak dira orain dela 30 urte inguruko datu haiek, konparazio eta hipotesi sendoegirik egin ahal izateko. Ez dira alde batera uztekoak halere, beren muga-baldintza guztiekin ere.

2. *Azken aldiko egoera: 2001eko zentsuaren arabera datuak*

EAEko hiztunak hiru kategoriatan banaturik datoz:

- a) Elebidunak: beren esanean ondo edo nahiko ondo hitz egiten dute euskaraz;
- b) Elebidun hartzaileak: nekez egiten dute euskaraz, baina ondo ulertzen dute beren ustean, eta
- c) Erdaldunak: ez dakite euskaraz hitz egiten.

Kategoria horien arabera, hau da EAEko biztanleen 2001eko egoera:

Biztanleen %49,6 erdalduna da. Elebidun hartzaileak % 18,2 dira. Elebidunak, biztanleen %32,2 dira.
---

**Seigarren eranskina*****EGara aurkezten diren azterketarien zenbait ezaugarri soziolinguistiko***

Umetan, etxean, zer hizkuntza ikasi zenuen lehenik?

	eusk.	biak	gazt.	beste.
2003	38	18	46	0
2004	37	19	43	1
2005	38	20	42	0
2006	36	18	45	1
2007	36	21	42	1
B. b.	37	19,2	43,6	0,6

Eskolan zer eredutan ikasi zenuen?

	D	B	A	X
2003	62	13	20	5
2004	64	13	19	4
2005	66	13	17	4
2006	66	12	17	5
2007				
B. b.				

Etxean zer hizkuntzatan egiten duzue?

	eusk.	bietan	gazt.	beste.
2003	28	27	45	0
2004	27	26	47	0
2005	27	27	46	0
2006	26	26	48	0
2007				
B. b.				

Lagun artean zer hizkuntzatan egiten duzue?

	eusk.	bietan	gazt.	beste.
2003	29	37	33	0
2004	29	36	35	0
2005	28	37	35	0
2006	27	36	37	0
2007				
B. b.				

## **Zazpigarren eranskina**

### ***Gaiarekin harreman zuzena duten legeak, sententziak eta arauzko xedapenak***

Espainiako, EAEko eta, konparazio- edo harreman-bideei dagokienez, Nafarroako herri-aginteen esparruko legeak eta arauzko xedapen nagusiak aipatuko dira hemen, hurrenez hurren.

#### **1. Espainia osoko aginte-organismoak**

##### ***1.1. Espainiako Gorteak***

Espainiako Konstituzioa, 1978ko abenduaren 27koa (B.O.E., 1978-XII-29)

Euskal Herriko Autonomia Estatutua: 3/1979 Lege Organikoa, 1979ko abenduaren 18koa (B.O.E., 1979-XII-22)

Nafarroako foru-aginpidearen Berreskuratzea eta Amejoramendua: 13/82 Lege Organikoa, 1982ko abuztuaren 10ekoa.

##### ***1.2. Espainiako Gobernua***

*Decreto 1433/1975, de 30 de mayo, por el que se regula la incorporación de las lenguas nativas en los programas* (de los centros de Educación Preescolar y General Básica (B.O.E., 1975-VII-1)

*Real Decreto 1049/1979 de 20 de abril* (B.O.E., 1979-V-10), *que regula la incorporación de la lengua vasca al sistema de enseñanza en el País Vasco.*

*Real Decreto 955/1988, de 2 de septiembre, del Ministerio de Educación y Ciencia, que introduce el euskera en las pruebas de aptitud para acceso a la Universidad del País Vasco* (BOE, 1988-IX-8)

##### ***1.3. Ministerio de Educación y Ciencia***

Orden del Ministerio de Educación, de 3 de agosto de 1979, de desarrollo del Real Decreto 1049/1979, de 20 de abril, de incorporación de la lengua vasca al sistema de enseñanza (B.O.E. de 22 de agosto) 1987ko irailaren 10eko Agindua: ikus Petchen 466

##### ***1.4. Espainiako Konstituzio Epaitegia***

Sentencia 82/1986, de 26 de junio, en relación con el recurso de inconstitucionalidad nº 169/83, promovido por el Presidente del Gobierno contra la Ley 10/1982, básica de normalización del uso del euskera. In B.O.E., 159. zkia., 1986ko uztailaren 4koa.

## 2. Euskal Autonomia Erkidegoaren aginte-organoak

Eskuartearen dugun gaiarekin, batez ere lehen hamarkadako antolamenduneurriekin, harreman argiena duten legeak, dekretuak eta aginduak aipatzen dira hemen. Bistan da horiezaz gainera multzo zabala osatzen dutela beste hainbatek. Arauzko erabakia nork emana duen kontuan hartuz prestatu da, hemen ere, zerrenda. Horrela,

### 2.1. Eusko Legebiltzarra

Euskararen Erabilera Arauzkotezko 10/1982 Oinarri Legea, 1982ko azaroaren 24koa. (E.H.A.A., 1982-XII-16)

Euskal Eskola Publikoaren 1/1993 Legea.

Irakaskuntza ez unibertsitarioko irakasle-kidegoen 2/1993 Legea.

### 2.2. Eusko Jaurlaritza

(Jaurlaritzaren aurrekoa, Eusko Kontseilu Nagusikoa) Normativa de titularidad oficial de las ikastolas, aprobada por el Consejo General del País Vasco (B.O.C.G.P.V., 1980-I-24)

Decreto 138/1983, de 11 de julio, del Departamento de Educación y Cultura, por el que se regula el uso de las lenguas oficiales en la enseñanza no universitaria en el País Vasco (B.O.P.V., 1983-VII-19)

### 2.3. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

*Orden de 25 de mayo de 1981 sobre la regulación de la enseñanza en el nivel preescolar y ciclo inicial de EGB y fijación de sus objetivos* (BOPV, 1981-VI-25)

*Orden de 8 de marzo de 1982, del Departamento de Educación, por la que se convocan oposiciones para proveer plazas de profesores de EGB* (BOPV, 1982-III-25)

*Orden de 9 de marzo de 1982, del Departamento de Educación, por la que se convocan oposiciones para proveer plazas de profesores agregados de Bachillerato* (BOPV, 1982-III-27)

*Orden del Departamento de Educación, de 22 de Abril de 1982, por la que se crea el Certificado de Aptitud del Conocimiento del Euskera* (BOPV, 1982-V-4)

*Orden de 11 de mayo de 1982 sobre la regulación de la enseñanza en el ciclo medio de la EGB y fijación de sus objetivos* (BOPV, 1982-VII-1)

*Orden de 7 de junio de 1982, del Departamento de Educación, de convocatoria de ayudas a los centros que imparten enseñanzas en el euskera* (BOPV, 1982-VI-26)

*Orden de 10 de agosto de 1982 sobre la regulación de la enseñanza de la lengua y literatura vasca en BUP (BOPV, 1982-IX-10)*

*Orden de 20 de septiembre de 1982, del Departamento de Educación, regulando el Certificado de Aptitud de Conocimiento del Euskera (BOPV, 1982-XI-8)*

*Orden del Departamento de Educación y Cultura, de 1 de agosto de 1983 que desarrolla el decreto 138/1983, de 11 de julio, del Departamento de Educación y Cultura por el que se regula el uso de las Lenguas Oficiales en la enseñanza no universitaria del País Vasco (BOPV, 1983-VIII-19)*

*Orden de 13 de octubre de 1983, del Departamento de Educación, de convocatoria de ayudas a los centros que imparten enseñanzas en/del euskera (BOPV, 1983-x-y)*

*Orden de 26 de diciembre de 1983, del Departamento de Educación y Cultura, regulando el programa de capacitación idiomática del profesorado (IRALE) (BOPV, 1984-I-27)*

Orden de 10 de mayo de 1985, por la que se convocan ayudas a libros universitarios publicados en euskera

*Orden de 4 de julio de 1986, del Departamento de Educación, Universidades e Investigación sobre requisitos de implantación de modelos de enseñanza «B» de euskera (BOPV, 1986-VII-9).*

***Hizkuntza Eskakizunen arauzko erabaki nagusiak ondoko hauek dira:***

- Martxoaren 9ko 47/1993 Dekretua, 1993ko apirilaren 2ko EHAAn: sorrera
- Urriaren 6ko 263/1998 Dekretua, 1998ko urriaren 23ko EHAAn: baliokidetzak
- 1994ko urtarrilaren 10eko Agindua, 1994ko urtarrilaren 26ko EHAAn: irizpideak etab.
- 1995eko apirilaren 10eko Agindua, 1995eko maiatzaren 11ko EHAAn: kalifikazio-sistema deialdi itxietan
- 1996ko azaroaren 14ko Agindua, 1996ko abenduaren 5eko EHAAn: HBLEMen sorrera
- 1998ko urriaren 22ko Agindua, 1998ko azaroaren 5eko EHAAn: kalifikazio-sistema irekietan

#### **2.4. Euskararen Aholku Batzordea**

Euskararen Aholku Batzordea, 1983: *Euskararen politikarako oinarriak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza

**BIBLIOGRAFIA**

- ADURIZ, JOSE ANTONIO ET AL 1972: *Gure ikastola*. Oñati: Jakin.
- AGIRRE, J. M., I. EGUZKITZA, I. IDIAZABAL eta L. M. LARRINGAN, 1985: Euskarazko irakaskuntza Bizkaian. Arazoak eta zenbait proposamen. Bilbo: Desclée de Brouwer.
- AGUIRRE ELUSTONDO, JOSÉ ANTONIO 1969: *Así está la enseñanza primaria. Hablan los maestros*. Donostia: GAUR.
- AGIRREAZKUENAGA, IÑAKI 2001: «Educación y lengua: reflexiones jurídicas sobre el modelo vasco», in *Revista Vasca de Administración Pública*, 61. zkia. (II).
- 2003: *Diversidad y Convivencia Lingüística. Dimensión europea, nacional y claves jurídicas para la normalización del euskara*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- ALBA, ELI, 1990: «Irakaskuntza aldatzea posible al da?», in *Hik Hasi* aldizkariaren 1998ko abenduko ale berezia, 13-7 or.
- ALDEKOA, J. eta GARDNER, N. 2002: «Turning Knowledge of Basque into Use: Normalization Plans for Schools.» In the *International Journal for Bilingual Education and Bilingualism*, 5, 6, 339-354.
- ALONSO ZAMORA, VICENTE 1966: *Lengua, literatura, intimidad* in *Ninyoles* 1977, 181
- ARACIL, L. V. 1982: *Papers de sociolingüística*. Barcelona: La Magrana.
- ARGENTE, J. D. 1988: Language Contact, Language Conflict and Generalized Bilingualism Policies, in *II. Euskal Mundu Biltzarra. II. Atala: euskara eta gizartea*, 131-44 or. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- ARGENTER, JOAN A. 2000: «Kodifikations- und Normalisierungsprozesse: Wechselverhältnisse und Widersprüche», in *Grenzgänge* 14 (Thema: Neue Herausforderungen für die Katalanische Soziolinguistik), 96-115.
- ARNOLD, J. (arg.) 1999: *Affect in language learning*. Cambridge: Cambridge University Press.
- ARPAL, JESÚS, BEGOÑA ASUA eta PAULÍ DAVILA 1982: *Educación y Sociedad en el País Vasco. Historia y sociología de un proceso*. Donostia: Txertoa.
- 1983: «Ikastolas: un fenómeno social, un problema educativo, una cuestión política», in *Cuadernos de Pedagogía*, 101?, 53-7.
- ARZAMENDI, J. and GENESEE, F. 1997: «Reflections on Immersion Education in the Basque Country». In K. Johnson and M. Swain (eds) *Immersion*

- Education: International Perspectives* (pp. 151-166). Cambridge: Cambridge University Press.
- AZPEITIALDEKO APAIZAK. 1967-II-22: «Documento dirigido al Ministerio de Educación por un grupo de sacerdotes del Arciprestazgo de Azpeitia», in Aguirre Elustondo, 1969, 195-6.
- AZURMENDI, JOXE 1972: «Sarrera politikoa», in J. Torrealday (arg.) *Rikardo Arregi, Herriaren lekuko*, 15-75.
- AZURMENDI, MARIA JOSE, 1976: «Algunos aspectos sociolingüísticos del bilingüismo», in *Mundaiz*, 5. zkia (ekaina).
- BAETENS BEARDSMORE, HUGO (arg) 1993: *European models of education*. Clevedon, Multilingual Matters.
- BAETENS-BEARDSMORE, 2007: «Report on the Revision of the Bilingual Education Models in the Basque Autonomous Community», in *Euskal Irakaskuntza Aztergai* (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila biltzaile eta prestatzaile). Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- BAUER, L. eta P. TRUDGILL (arg.) 1998: *Language Myths* eta bertako R. Harlow «Some languages are just not good enough». London: Penguin.
- BERGARA, A. 1996: *Hezkuntza eta hizkuntza-eskubideak indarreango lege-araubidean*. Gasteiz: Arartekoa.
- BOUCHARD, PIERRE eta RICHARD Y. BOURHIS 2002: «L'aménagement linguistique au Québec: 25 ans d'application de la Charte de la langue française», in *Revue d'Aménagement Linguistique*, hors serie, automne 2002.
- BRANCHADELL, ALBERT, 2000: «La oposición a las políticas de catalanización y los límites de la intervención pública en materia lingüística», in *Grenzgänge* 14 (Thema: Neue Herausforderungen für die Katalanische Soziolinguistik), 65-79.
- CASTELLS ARTECHE, J. MANUEL 1985: «Análisis de la educación en el Estatuto de Autonomía del País Vasco», in *Revista Vasca de Administración Pública*, 11. zkia.
- 1990: «Administración pública y doble oficialidad lingüística en la Comunidad Autónoma Vasca», in Edorta Cobrerros (arg.): *Euskararen lege araubideari buruzko jardunaldiak. Jornadas sobre el régimen jurídico del euskera*. Oñati: HAEE-IVAP.
- CENOS, J. (1998: «Multilingual Education in the Basque Country». In *Beyond Bilingualism: Multilingualism and Multilingual Education* (J. Cenoz and F. Genesee eds.) (1998: 175-191). Clevedon: Multilingual Matters.
- CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLOGICAS 1994 «Conocimiento y uso de las lenguas en España (investigación sobre el conocimiento y uso de las



- lenguas cooficiales en las Comunidades Autónomas bilingües)» *Opiniones y Actitudes*. Madrid: CIS
- COBARRUBIAS, JUAN 1983: «Ethical Issues in Status Planning», in Juan Cobarrubias eta Joshua A. Fishman (argk.) *Progress in language planning. International perspectives*. Berlin: Mouton.
- 1988: Normalización y Planificación Lingüística en el País Vasco, in *II. Euskal Mundu Biltzarra. II. Atala: hizkuntza eta gizartea*, 145-72 or. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- COBREROS, EDORTA 1989: *El régimen jurídico de la oficialidad del euskera*. Oñati: HAEE-IVAP.
- 1998: «Algunas reflexiones sobre la Ley de Normalización del euskera» in *Revista Internacional de Estudios Vascos*, 43,2 zkia. Dossier 15 años de la Ley del Euskera en la Educación, Administración y Medios de Comunicación».
- COBREROS, EDORTA (arg.) 1990: *Euskararen lege araubideari buruzko jardunaldiak. Jornadas sobre el régimen jurídico del euskera*. Oñati: HAEE-IVAP.
- COOPER, R. L. 1989, *Language Planning and Social Change*. Cambridge: Cambridge University Press.
- DAVIES, D. (2005) Spread Welsh – persuade the children to use it. In *Western Mail*, 2 August, 14
- DRUVIETE, INA 2000: «The Latvian Language Law Debate: Some Aspects of Linguistic Human Rights in Education», in Robert Phillipson (arg.) *Rights to Language. Equity, Power and Education*, 83-6.
- 2002: «La Charte de la Langue française et les lois linguistiques dans les Pays Baltes», in Pierre Bouchard eta Richard Y. Bourhis: «L'aménagement linguistique au Québec: 25 ans d'application de la Charte de la langue française», in *Revue d'Amenagement Linguistique*, hors serie, automne 2002, 217-21.
- EDWARDS, J. 1993: «Language revival: Specifics and generalities». *Studies in Second Language Acquisition* 15,
- 1994: «Ethnolinguistic pluralism and its discontents: A Canadian study and some general observations». *International Journal of the Sociology of Language* 110, 5-82 or.
- EDWARDS, V. K. eta L. PRITCHARD NEWCOMBE 2003: *Evaluation of the Efficiency and Effectiveness of the Twf Project, which encourages Parents to Transmit the Language to their Children*. Cardiff: Welsh Language Board.

- 2005a: «When school is not enough: New initiatives in intergenerational language transmission in Wales. In *International Journal of Bilingualism and Bilingual Education*, 8 (4), 298-312.
- 2005b: «Language transmission in the family in Wales: an example of innovative language planning». In *Language Planning and Language Problems* 29(2), 135-50
- EIZMENDI ET AL. 2007): Hezitzaileek asko egin dezakete euskararen erabilera sustatzeko. *Bat soziolinguistika aldizkaria*. 63, 117-129.
- ELEXPURU, JUAN MARTIN, 1996: «Herri-euskararen eremua», in *Euskera* 41. zkia, 523-9.
- ELORDUI, AGURTZANE, 2006: «Eskolaren hizkuntza-eredua harreman-sareen trinkotzearen ikuspegitik», in *BAT soziolinguistika aldizkaria*, 60. zkia, 141-60
- ERIZE, XABIER 2001: «El discurso contrario a la «normalización» de la lengua en Navarra», in *Revista Internacional de Estudios Vascos*, 46-2.
- ERRIONDO, LORE, XABIER ISASI eta FITO RODRIGUEZ, 1993: *Hizkuntza, Hezkuntza eta Elebitasuna*. Bilbo. UEU.
- ERRIONDO, LORE, XABIER GARAGORRI eta XABIER ISASI 1998: *Hezkuntzaren normalkuntza*. Donostia: UEU.
- ESNAOLA, A. eta EGIBAR, M. 2007: «Euskal ludikotasuna erabiliz, euskara indartu», in *Bat soziolinguistika aldizkaria*. 63, 67-72.
- ETXEBERRIA BALERDI, F. 1999: *Bilingüismo y Educación en el País del Euskara*. Donostia: Erein.
- ETXEZARRETA, IÑAKI, 1998: «ikastola, Euskal Eskolaren iturri», in *Hik Hasi* aldizkariaren 1998ko abenduko ale berezia, 63-73 or.
- EUSKAL BATZAR OROKORRA/CONGRESO MUNDIAL VASCO DE 1956: batzarrreko dokumentuak. Dokumentuen liburu moduko argitalpena 1981ean, Gasteizen, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusian.
- EUSKALTZAINDIA 1977: *El Libro Blanco del Euskara*. Bilbo: Euskaltzaindia
- 1979: «Euskara batua eta euskalkiak irakaskuntzan», *Euskera* 24, 1979-2, 103-6.
- EUSKARA ZERBITZUA, 2007: *Nondik gatoz? EAeko irakaskuntzaren ibilbidea: zenbait datu eta azalpen*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA, 1998 *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia*. Gasteiz: Kultura Saila. Eusko Jaurlaritza.

- EUSKO JAURLARITZAKO LEHENDAKARITZAREN GIZARTE AZTERKETARAKO LANTALDEA (GAL) 1983: *Euskararen borroka*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- EUSKO LEGEBILTZARRA / PARLAMENTO VASCO 1991: *Ley Básica de Normalización del Uso del Euskera*. Gasteiz, Eusko Legebiltzarra.
- EUSKO JAURLARITZA, NAFARROAKO GOBERNUA eta EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA 2003: *Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesta 2001/Euskararen Jarraipena III*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. [http:// www.euskadi.net/euskara](http://www.euskadi.net/euskara)
- FERGUSON, CHARLES A. 1959: «Diglossia» in *Word* 15.
- FERNANDEZ, ITZIAR 1994: *Oroimenaren hitza. Ikastolen historia 1960-75*. Bilbo: UEU/Bizkaiko Foru Aldundia.
- FISHMAN, JOSHUA A. 1968: «Nationality-Nationalism and Nation-Nationism», in Joshua A. Fishman, Charles A. Ferguson eta Jyotirindra Das Gupta (arg.) *Language Problems of Developing Nations*. New York: Wiley.
- 1976: *Bilingual Education: An International Sociological Perspective*. Rowley: Newbury House.
- 1982: *Sociología del Lenguaje*. Madrid, Cátedra.
- 1983: «Aménagement et norme linguistiques en milieux linguistiques récemment conscientisés», in Édith Bédard et Jaques Maurais (argk.) *La norme linguistique*. Québec: Gouvernement du Québec.
- 1984: «On the peculiar problems of smaller national languages». In González (ed.) *Panagani: Essays in Honor of Bonifacio Sibayan on his sixty-seventh Birthday*. Manila: Linguistic Society of the Philippines, 40-5. or. Erabilitako iturria Fishman 1989: 368-75 or.
- 1985: «Mother-tongue claiming in the United States since 1960: Trends and Correlates» in Fishman et al. 1985, 107-94.
- 1989: *Language and Ethnicity in minority sociolinguistic perspective*. Clevedon: Multilingual Matters.
- 1990: «Eskolaren Mugak Hizkuntzak Biziberritzeko Saioan». In *Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua* (1, 181-188).
- 1991: *Reversing Language Shift: Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages*. Clevedon: Multilingual Matters.
- 1995: «on the limits of the ethnolinguistic democracy», in Skutnabb-Kangas eta R. Phillipson (argk.) *Linguistic human rights. Overcoming linguistic discrimination*. Berlin: Mouton de Gruyter.

- 2001: *Can threatened language be saved? Reversing Language Shift revisited: a 21<sup>st</sup> century perspective*. Clevedon: Multilingual Matters.
- 2006a: «Acquisition, Maintenance and Recovery of Heritage Languages», in Guadalupe Valdés, Joshua A. Fishman, Rebecca Chávez and William Pérez *Developing Minority Language Resources. The Case of Spanish in California*, 1-11.
- 2006b: «Imagining Linguistic Pluralism in the United States», in Guadalupe Valdés, Joshua A. Fishman, Rebecca Chávez and William Pérez *Developing Minority Language Resources. The Case of Spanish in California*, 273-88.
- FISHMAN, JOSHUA A., CHARLES A. FERGUSON eta JYOTIRINDRA DAS GUPTA (arg.) 1968: *Language Problems of Developing Nations*. New York: Wiley.
- FISHMAN, JOSHUA A., R. L. COOPER, R. MA ET AL 1971: *Bilingualism in the Barrio*. Bloomington: Indiana University Press.
- FISHMAN, JOSHUA A. eta JOHN LOVAS 1970: «Bilingual education in sociolinguistic perspective», in *TESOL Quarterly*, 4. zkia. Erabilitako iturria B. Spolsky (arg) 1972: *The Language Education of Minority Children*, 83-93.
- FISHMAN ET AL, 1965: *Language Loyalty in the United States*. The Hague: Mouton.
- 1985: *The Rise and Fall of the Ethnic Revival*. Berlin: Mouton.
- FISHMAN, JOSHUA A. eta GELLA SCHWEID FISHMAN, 2000: «Rethinking Language Defense» in Robert Phillipson (arg.), *Rights to Language. Equity, Power and Education*, 23-7.
- FLEINER, T., PETER NELDE eta J. G. TURI (argk.) 2001: *Droit et langue(s) d'enseignement/law and language(s) of education*. Fribourg: Helbing eta Lichtenhan.
- FRIEDRICH, CARL, 1971: *Corporate federalism and Linguistic politics*. Quebec, Laval-go unibertsitatearen *International Round Table*.
- FUNDACIÓN FOESSA 1970: *Informe sociológico sobre la situación social de España*. Madrid: Euramérica.
- GABIÑA, J. J., GOROSTIDI, R., IRURETAGOIANA, R., OLAZIREGI, I. and SIERRA, J. 1986: *EIFE: Influence of Factors on the Learning of Basque*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- GARCÍA, OFELIA, RAKHMIEL PELTZ eta HAROLD SCHIFFMAN 2006: *Language Loyalty, Continuity and Change*. Clevedon: Multilingual Matters.

- GARCÍA, OFELIA eta HAROLD SCHIFFMAN 2006: «Fishmanian Sociolinguistics (1949 to the Present)» in Ofelia García, Rakhmiel Peltz eta Harold Schiffman 2006: *Language Loyalty, Continuity and Change*, 3-68.
- GARDNER, N. 2000b: *Basque in Education in the Basque Autonomous Community*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
- GARDNER, NICK eta MIKEL ZALBIDE, 2005: «Basque acquisition planning», in *IJSL*, 55-72.
- GARDNER R. C 2001: *Integrative motivation: Past, Present and Future*. Ikus [www http://publish.uwo.ca/~gardner/Gardner PublicLecture1.pdf](http://publish.uwo.ca/~gardner/GardnerPublicLecture1.pdf)
- GAUR S.C.I., 1971: *Euskara gaur*. Donostia, Lur editoriala.
- GENERALITAT DE CATALUNYA. DEPARTAMENT D'ENSENYAMENT, 1998: *Servei d'Ensenyament del Catalá: 20 Anys*. Bartzelona, Servei de Difusió i Publicacions.
- H. GILES (arg.), 1977: *Language, Ethnicity and Intergroup Relations*. Londres: Academic Press
- GILES, H., RICHARD BOURHIS eta D. TAYLOR, 1977: «Towards a Theory of Language in Ethnic Group Relations» in H. Giles (arg.) *Language, Ethnicity and Intergroup Relations*.
- GIZARTE AZTERKETARAKO LANTALDEA (J. I. RUIZ OLABUENAGA, J. M. FERNÁNDEZ CANELO, M. MARAÑÓN eta J. YARZA), 1983: *Euskararen Borroka*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- GOIKOETXEA, JUAN LUIS, 2003: *Euskalkia eta hezkuntza. Dakigunetik ez dakigunera euskal diglosia irazian*. Iker 13. Bilbo: Euskaltzaindia.
- GÓMEZ-FERRER, R. 1990: «La doble oficialidad y su interpretación por el Tribunal Constitucional», in Edorta Cobreros (arg.): *Euskararen lege araubideari buruzko jardunaldiak. Jornadas sobre el régimen jurídico del euskera*. Oñati: HAEE-IVAP.
- GONZÁLEZ CASANOVA, J. A. 1982: «Derecho a la educación y plurilingüismo», in *Revista de Occidente*, ale berezia II, 10-11 zkia.
- GRENZGÄNGE, 14. zkia. 2000: Kataluniako egoera soziolinguistikoari eta soziolinguistikari buruzko ale berezia: *Neue Herausforderungen für die Katalanische Soziolinguistik*. Leipzig: Leipziger Universitätsverlag.
- GRIN, F. and VAILLANCOURT, F. 1999: *The Cost Effectiveness Evaluation of Minority Language Policies: Case Studies on Wales, Ireland and the Basque Country*. ECMI monograph 2. Flensburg: European Centre for Minority Issues.

- HAMERS, J. F. eta BLANC, M., 1983: *Bilingualité et bilinguisme*. Bruxelles: Pierre Mardaga, éditeur.
- HARLOW, R. 1998: «Some languages are just not good enough», in L. eta P. Trudgill (arg.) *Language Myths* Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila 1990: *Euskal Irakaskuntza: 10 urte*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- HEATH, SHIRLEY BRICE eta FREDERICK MANDABACH 1983: «Language Status decisions and the Law in the Unites States», in Juan Cobarrubias eta Joshua A. Fishman (argk.) *Progress in language planning. International perspectives*. Berlin: Mouton.
- HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA 1982: *Euskararen Erabilera Bizkaiko Irakaskuntzan*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- 2007: *Euskal Irakaskuntza Aztergai*. Sailak 2006ko abenduaren 20an eta 21ean Miñeon egindako Jardunaldietan aztertutako agiria eta ondorenak. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- HIK HASI, 1998: *Euskal eskolaren azken 20 urteak*. Ipar-Hegoa topaketetan aurkeztutako komunikazioen akta-bilduma moduko ale berezia, 1998ko abendukoa.
- HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA 2003: *Euskararen jarraipena III (2001eko III. inkesta soziolinguistikoaren emaitzak)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- HOHL, J. 1996: «Résistance à la diversité culturelle au sein des institutions scolaires», in M. Pagé, M. Mc Andrew eta F. Gagnon (arg) *Pluralism, citoyenneté et éducation*, Montréal/Paris: L'Harmattan, 337-47.
- HORNBERGER, N. H. 1988: *Bilingual Education and Language Maintenance*. Providence, RI: Foris Publications.
- 2003. *Continua of Biliteracy. An Ecological Framework for Educational Policy, Research and Practice in Multilingual Settings*. Clevedon: Multilingual Matters Ltd. Hornberger, N, (2003).
- HORNBERGER, N. H. and KING, K. A. 1996: **Language Revitalization in the Andes: Can the schools reverse language shift?** In *Journal of Multilingual and Multicultural Development* 17 (6), 427-41 or.
- HUIS, 2007: Hizkuntzak ikasi eta irakasteko marko berria. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak 2007ko martxoaren 8an Eusko Legebiltzarrean aurkezturiko proposamena.
- IRAKASLE BI, 2005: *euskal dimentsioaren trataera Euskal Erkidegoan argitaratzen diren giza zientzietako hainbat ikasliburutan. 2004-2005 ikasturtean egindako azterketaren laburpena*. Gasteiz: HUIS. Lan-dokumentua.

- IRAOLA, JOXEMARI, 1994: *Euskara eta Gazteak Lasarte-Orian. Hizkuntz jokoerak*. Lasarte-Oria: Lasarte-Oriako udala.
- ISEI-IVEI 2005: *Euskararen B2 maila derrigorrezko irakaskuntzaren amaieran (DBH 4)*. Bilbo: ISEI-IVEI.
- JAUREGI, PELLO 2003: *Euskara eta gazteak Lasarte-Orian (II). Hizkuntzazko jokoerak*. Lasarte-Oriako udala.
- JENKINS, G. H. 2000: *Terminal decline? The Welsh language in the twentieth century*. Keynote address at the 2000 Conference North American Association for the study of Welsh Culture and History at Brynmawr College, Pennsylvania.
- IDIAZABAL, ITZIAR eta ANTON KAIFER 1994: *Eficacia educativa y enseñanza bilingüe en el País Vasco*. Gasteiz: IVAP.
- KAPLAN, R. B. eta BALDAUF, R. B. 1997: *Language Planning from Practice to Theory*. Clevedon: Multilingual
- KINTANA, XABIER eta JOSEBA TOBAR (arg.) 1975: *Euskaldun berriekin euskaraz*. Bilbo: Ekin)
- KLOSS, HEINZ, 1952: *Die Entwicklung neuer germanischer Kultursprachen*. München, Pohl.
- 1965: «German-American language maintenance efforts», in Fishman arg. 1965: 206-52.
- 1969: *Research possibilities on Group Bilingualism*. Quebec: CIRB. Univ. De Laval.
- KULTURA SAILA 2003: *Euskararen Jarraipena III. Euskal Herriko Soziolinguistikako Inkesta*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
- 2005: *III. Mapa soziolinguistikoa (2001eko zentsuaren argitan egina)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
- LAÍN ENTRALGO, PEDRO 1955: *las cuerdas de la lira*, in Ninyoles, 1977: 180.
- 1972: *A qué llamamos España*. 2. argitaraldia. Madrid: Espasa-Calpe
- LAMBERT, W. E. eta TUCKER, G. R. 1972: *Bilingual education of Children: the St. Lambert experiment*. Rowley: Newbury House.
- LARRESORO 1974: *Euskara batua zertan den*. Oñati: Jakin-Editorial Franciscana Aránzazu.
- LASA, MIKEL 1978: «Euskal Herriko irakaskuntza elebiduna antolatzeko oin-harrizko ideia batzu», in JAKIN 7: 47-60.

- 1980: «Objetivos lingüísticos de las escuelas bilingües» in *La Problemática del bilingüismo en el Estado español*, 103-11. Leioa: ICE de la Universidad del País Vasco.
- LASAGABASTER, IÑAKI 1995: «Irakaskuntza ez unibertsitariko hizkuntz plangintza Euskal Autonomi Erkidegoan», in *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 17 zkia.
- LASAGABASTER, DAVID 2001: «Bilingualism, Immersion Programmes and Language Learning in the Basque Country». In *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 22, 5, 401-425.
- LEGARDA, ANSELMO, 1953: *Lo vizcaíno en la literatura castellana*. Donostia. Biblioteca vascongada de los Amigos del País
- LINZ, JUAN, 1973: «Early-Building and Late Peripheral Nationalism against the State: the case of Spain», in S. N. Eisenstadt, S. Rokkan (arg.) *Building States and Nations*. London: Sage Publications.
- 1986: *Conflicto en Euskadi*. Madrid: Espasa-Calpe.
- LO BIANCO, JOE 1997: «English and pluralistic policies: the case of Australia», in William Egginton eta Helen Wren (argk.) *Language Policy: Dominant English, Pluralist Challenges*. Amsterdam: John Benjamins.
- LUKAS, J. 1908: «Territorialitäts- und Personalitätsprizip im österreichischen Nationalitätenrecht» in *Jahrbuch des öffentlichen Rechts der Gegenwart* 2, 333-405 orr.
- LYONS 1968: *Introduction to Theoretical Linguistics*. Londres: Cambridge University Press. 1977ko gaztelaniazko itzulpena: *Introducción en la Lingüística Teórica*. Barcelona: Teide.
- MACKEY, WILLIAM F. 1979: «L'irredentisme linguistique: une enquete temoin» in G. Manessy y P. Wald (argk.) *Plurilinguisme: Normes, situations, stratégies*. Paris: L'Harmattan.
- 1976: *Bilinguisme et contact des langues*. Paris: Klincksieck.
- 1983: «U.S. Language Status Policy and the Canadian Experience», in Juan Cobarrubias eta Joshua A. Fishman (argk.) *Progress in language planning. International perspectives*, 173-206. Berlin: Mouton.
- MACKEY, WILLIAM F. eta JACOB ORNSTEIN 1977: *The Bilingual Education Movement. Essays on its Progress*. El Paso: The University of Texas at El Paso.
- MACNAMARA, J. 1971: «Successes and failures in the movement for the restoration of Irish». In J. Rubin and B. H. Jernudd (eds.) *Can Language be Planned? Sociolinguistics Theory and Practice for Developing Nations*



- (65-94 or.) Honolulu, HI: East-West Center, University of Hawaii Press.
- MAIA, JULIAN 2000: *Eskolako hizkera ereduaz, euskara batuaren eta euskalkiaren arteko harremanen testuinguruan*. EHU. Doktore-tesi argitaragabera.
- 2001a: «Euskara batua, euskalkia eta eskolako hizkera eredu», in *Tantak* 126, 79-101.
- 2001b: «Estandarra eta dialektoak nola ulertu eta tratatu irfakaskuntzan», in *Revista de Psicodidáctica*, 11-12, 239-54.
- MALLEA, JOHN R. 1984: «Minority language education in Quebec and anglophone Canada», in Richard Y. Bourhis *Confict and Language Planning in Quebec*, 222-60. Clevedon: Multilingual Matters.
- MARTÍ I CASTELL 2003: ¿Es necesaria la lengua catalana?, in *La Vanguardia*, 2003-VI-4, 27. or.
- MARTÍN SANZ, V. 1998: «El empleo del idioma autonómico en el sistema educativo», in *Revista de Administración Pública*, 146 zkia.
- MARTÍNEZ DE LUNA, IÑAKI 2001: «Euskal Herriko gaztetxoek hizkuntz egoera aztertzeke eredu orokorraren proposamena», in *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 40. zkia.
- MAURAS, JACQUES (arg.) 1985: *La crise des langues*. Québec: Gouvernement du Québec.
- 1986: *Politique eta Aménagement linguistiques*. Québec: Gouvernement du Québec.
- MC ANDREW, MARIE, 2001: *Intégration des immigrants et diversité ethnoculturelle à l'école: le débat québécois dans une perspective comparative*. Montréal: Presses de l'Université de Montréal.
- 2002: «La loi 101 en milieu scolaire: impacts et résultats, in Bouchard, Pierre eta Richard Y. Bourhis 2002: «L'aménagement linguistique au Québec: 25 ans d'application de la Charte de la langue française», in *Revue d'Aménagement Linguistique*, hors serie, automne 2002, 69-83.
- MC ANDREW, MARIE, M. PAGÉ eta M. JODOIN 1999: «Les enfants de la loi 101: identité(s), valeurs et comportements linguistiques», in P. Bouchard (arg) *Langues et mutations identitaires et sociales*. Actes du colloque des 12 et 13 mai 1998, Université laval, 66<sup>e</sup> Congrès de l'ACFAS, «langues et sociétés», n<sup>o</sup> 38, 179-94.
- MC ANDREW, MARIE eta J.-P. PROULX «Éducation et ethnicité au Québec: un portrait d'ensemble», in M. Mc Andrew eta F. Gagnon (argk) *Relations*

*ethniques et éducation dans les sociétés divisées, Québec, Irlande du Nord, Catalogne et Belgique.* Montréal/Paris: L'Harmattan, 85-110.

- MC ANDREW, MARIE, C. VELTMAN, F. LEMIRE eta J. ROSSELL 1999: *Concentration ethnique et usages linguistiques en milieu scolaire.* Université de Montréal, Immigration et métropoles.
- MCRAE, KENNETH 1975: «The principle of territoriality and the principle of personality in Multilingual States», in *International Journal of the Sociology of Language*, n°4, págs. 33-54.
- 1983: *Conflict and Compromise in Multilingual Societies: Switzerland.* Waterloo, Ontario: Wilfrid Laurier University Press.
- 1986: *Conflict and Compromise in Multilingual Societies: Belgium.* Waterloo, Ontario: Wilfrid Laurier University Press.
- 1992: *Drets lingüístics y dret fonamental a l'Educació.* Barcelona: Generalitat de Catalunya. Institut d'Estudis Autònòmics.
- 1997: *Conflict and Compromise in Multilingual Societies: Finland.* Waterloo, Ontario: Wilfrid Laurier University Press.
- MEZO, JOSU 1996: *Políticas de recuperación lingüística en Irlanda (1922-39) y el País Vasco (1980-92).* Madrid: Instituto Juan March de Estudios e Investigaciones.
- MIGUEL, AMANDO DE, 1970: *Informe sociológico sobre la situación social de España* Fundación FOESSA. Eds. Euramérica.
- 1975: *Manual de estructura social de España.* Madrid, Edit. Tecnos.
- MILIAN I MASSANA, ANTONI 1983: «Los derechos lingüísticos en la Enseñanza, de acuerdo con la Constitución» in *Revista Española de Derecho Constitucional*, n° 7, 357-372 or.
- 1984: «De la separació a la conjunció lingüística a l'ensenyament: el títol II de la Lley 7/1983, de 18 d'abril», in *Llengua i Dret*, 3. zkia.
- 1988: «La funció pública docent a Catalunya al cap de deu anys de catalá a l'escola», in *Revista de Llengua i Dret*, 11. zkia.
- 1994: *Derechos lingüísticos y derecho fundamental a la educación. Un estudio comparado: Italia, Bélgica, Suiza, Canadá y España.* Madrid: Civitas-Generalitat de Catalunya.
- 1995: «La intervención de los poderes públicos en las determinaciones lingüísticas relativas a la enseñanza: modelos y límites», in *Revista Vasca de Administración Pública*, 42. zkia.
- 2007: «Los límites jurídicos existentes para la configuración del sistema lingüístico escolar del País Vasco y vías para la reforma del sistema vi-

- gente, in *Euskal Irakaskuntza Aztergai*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- MINISTERIO DE EDUCACIÓN 1979: *El lenguaje en la educación preescolar y ciclo preparatorio. Vasco-castellano*. Madrid: Ministerio de Educación.
- MITXELENA 1968: Arantzazuko batasun-txostena. Erabilitako iturria Larresoro 1974.
- 1982: Normalización de la forma escrita de de una lengua: el caso vasco, in *Revista de Occidente*, 10-11. zkia., 55-75.
- MONTEAGUDO, HENRIQUE eta XAN BOUZADA FERNÁNDEZ (argk.) 2002: *O procesos de normalización do idioma galego (1980-2000). Volumen II: Educación*. Santiago de Compostela: Consello da Cultura Galega.
- NELDE, P., M. STRUBELL eta G. WILLIAMS (1996: *Euromosaic: Production and reproduction of minority language communities in the European Union*. Luxembourg: Commission of the European Communities.
- NINYOLES, R. Ll. 1972 (erabilitako argitaraldia: 1980: *Idioma y poder social*. Madrid: Tecnos.
- 1977: *Cuatro Idiomas para un Estado*. Madrid: Editorial Cambio 16.
- 1981: «Tendencias fundamentales de la política lingüística. Opciones contextuales en el ámbito de la educación bilingüe» in *Revista de Educación*, nº 268, pp. 15-30.
- Ó RIAGÁIN, DÓNALL (arg) 2006: *Voces Diversae: Lesser-Used Language Education in Europe*. Belfast: Cló Ollscoil na Banríona, Queen's University Belfast.
- OBIETA, JOSÉ A. 1976: *Las lenguas minoritarias y el derecho*. Bilbao: Mensajero.
- OIHARTZABAL, LONTXO 1987: «Euskara eta Eskola: euskararen bir-hedapenean hainbat arazo» in *JAKIN* 42/43: 73-83.
- OLAZIREGI, IBON, 2006: «Irakastereduak aldatzeko ordua ote?», in *BAT Sozio-linguistika aldizkaria*, 60. zkia, 31-41or.
- OTANO, LUIS 1978: *La escuela pública vasca. Una alternativa a la enseñanza en Euskadi*. Bilbao: Cuadernos de Educación Adarra.
- 1998: «Euskal Eskolaren inguruko zenbait hausnarketa», in *Hik Hasi aldizkariaren* 1998ko abenduko ale berezia, 79-85 or.
- OZOLINS, ULDIS 2002: «La politique linguistique en Australie. Un modèle non législatif», in Pierre Bouchard eta Richard Y. Bourhis: «L'aménagement linguistique au Québec: 25 ans d'application de la Charte de la langue

française», in *Revue d'Aménagement Linguistique*, hors serie, automne 2002, 209-15.

- PAILLÉ, MICHEL 2002: «L'enseignement en français au primaire et au secondaire pour les enfants d'immigrants: un dénombrement démographique», in Pierre Bouchard eta Richard Y. Bourhis: *L'aménagement linguistique au Québec: 25 ans d'application de la Charte de la langue française*, in *Revue d'Aménagement Linguistique*, hors serie, automne 2002, 51-67.
- PETCHEN VERDAGUER, SANTIAGO 1990: *las Minorías Lingüísticas de Europa Occidental: documentos (1492-1989)* (bi liburuki). Gasteiz: Eusko Legebiltzarra
- PHILLIPSON, ROBERT (arg.) 2000: *Rights to Language. Equity, Power and Education*. Mahwah: Lawrence Erlbaum
- PLOURD, GASTON, 1970: *Options Politiques Fondamentales de l'Etat Plurilingue*. Quebec: CIRB, Univers. de Laval
- PRITCHARD NEWCOMBE, LYNDA 2007: *Social Context and Fluency in L2 Learners. The case of Wales*. Clevedon, Multilingual Matters.
- RODRIGUEZ, FITO, 1998: «Eskolaren ekarpena hizkuntza gutxituen normalizazio prozesuetan», in *Hik Hasi* aldizkariaren 1998ko abenduko ale berezia, 99106 or.
- ROLLNERT LIERN, G. 1995: «¿Existe un derecho constitucional a recibir la totalidad de la enseñanza en la lengua española oficial del estado? A propósito de la Sentencia del Tribunal Constitucional 337/1994», in *Revista General de Derecho*, 607. zkia.
- ROTAETXE, KARMELE 1986: «L'aménagement linguistique en Euskadi», in Jacques Maurais (arg.) *Politique eta Aménagement linguistiques*, 159-210.
- ROTAETXE, KARMELE eta XABIER ALBERDI 1985: «La crise del la langue basque», in Jacques Maurais (arg.) *La crise des langues*, 371-81.
- SÁNCHEZ CARRIÓN, J. M. «Txepetx» 1972: *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra (1970)*. Iruñea: Institución Príncipe de Viana.
- 1974: «Bilingüismo, Disglosia, Contacto de Lenguas», in *ASFVJU VIII*, 3-79 or.
- 1987: *Un futuro para nuestro pasado. Claves para la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*. Donostia
- SEGURA, ANTONI (koord.), Pilar Comes, Santiago Cucurella, Andreu Mayayo eta Francesc Roca 2001: *Els llibres d'història, l'ensenyament de l'història y altres històries*. 22. txostena. Barcelona: Fundació Jaume Bófill.

- SIADeco 1978a: *Bases para un futuro plan de actuación a favor de la normalización del euskara*. (Euskaltzaindiaren eta Lankide Aurrezkiaren babespean eginiko lana).
- 1978b: *Estudio sociolingüístico del euskara* (Euskaltzaindiaren eta Lankide Aurrezkiaren babespean eginiko lana).
- SIADeco-EUSKALTZAINDIA, 1979: Hizkuntza borroka Euskal Herrian. Bilbo: Euskaltzaindia.
- SIERRA, J. eta I. OLAZIREGI, 1989: *EIFE 2: Influence of Factors on the Learning of Basque*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia (available on request free of charge from huiseus2@ej-gv.es).
- 1991a: *EIFE 3: Influence of Factors on the Learning of Basque*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia (available on request free of charge from huiseus2@ej-gv.es).
- 1991b: *HINE*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia [also in Spanish].
- SIGUAN, MIQUEL 1982: «Educación y pluralidad de lenguas en España» in *Revista de Occidente*, nº 10-11, 35-53.
- 1985: «Enseñanza en dos lenguas y resultados escolares: una interpretación sociocultural» in Miquel Siguan (arg.), 211-35.
- 1990: «Lenguas y educación en el ámbito del Estado español» in *Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua. Ponentziak eta Komunikazioak*, 197-210. Vitoria: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- 1992: *España plurilingüe*. Madrid: Alianza.
- 1998: «Significat i perspectives de la immersió» in Joaquim Arnau y Josep M. Artigal (eds.) (1998), 21-32.
- SIGUAN, MIQUEL (arg.) 1983: *Lenguas y educación en el ámbito del Estado Español*. Barcelona: Ediciones de la Universidad de Barcelona.
- 1985: *Enseñanza en dos lenguas y resultados escolares*. Barcelona: Publicacions de la Universitat de Barcelona.
- SKUTNABB-KANGAS, 2004: *Linguistic Rights in Education*. In International Symposium, 3-4 November, Donostia: Hizkuntza Eskubideen Behatokia.
- SKUTNABB-KANGAS eta R. PHILLIPSON (argk.) 1995: *Linguistic human rights. Overcoming linguistic discrimination*. Berlin: Mouton de Gruyter
- SPOLSKY, B. 1995: Conditions for language revitalization: A comparison of the cases of Hebrew and Maori. *Current Issues in Language and Society* 2 (3), 177-201.

- SPOLSKY, B. (arg) 1972: *The Language Education of Minority Children*. Rowley: Newbury House.
- TORREALDAY, JOAN MARI (arg.) 1972: *Rikardo Arregi, Herriaren lekuko*. Oiñati: Jakin-Ed. Franciscana Aranzazu.
- 1997: *Euskal kultura gaur: liburuaren mundua*. Donostia: Jakin.
- TOVAR, ANTONIO 1980: *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*. Madrid: Alianza Editorial.
- TÖNNIES, F. 1887: *Gemeinschaft und Gesellschaft*. Gaztelaniazko itzulpena in 1979 *Comunidad y asociación*. Bartzelona: Península
- TRAVAUX DE LA CONFÉRENCE INTERNATIONALE. Luxembourg 1928: *Le bilinguisme et l'éducation*. Geneve: Bureau Internationale d'Education.
- UNESCO 1953: *L'emploi des langues vernaculaires dans l'enseignement*. Paris: UNESCO.
- URRUTIA, IÑIGO 2001: «El sistema de perfiles docentes y su técnica de aplicación», in *Revista Vasca de Administración Pública*, 61-II zkia.
- 2005: *Derechos lingüísticos y Euskera en el sistema educativo*. Iruñea: Lete argitaletxea.
- VALDÉS, GUADALUPE, JOSHUA A. FISHMAN, REBECCA CHÁVEZ eta WILLIAM PÉREZ 2006: *Developing Minority Language Resources. The Case of Spanish in California*. Clevedon: Multilingual Matters
- VALLVERDÚ, F. 1972): *Ensayos sobre bilingüismo*. Barcelona: Ediciones Ariel.
- VEGA, LUIS ANTONIO DE, 1937: «Claro idioma, dialecto y jergonza», in Donostiako *Domingo*, 1937-VIII-15.
- VICECONSEJERÍA DE ECONOMÍA, PRESUPUESTOS Y CONTROL ECONÓMICO 2007: *Programa de Contexto Económico y Reformas para el Crecimiento y el Progreso Social de Euskadi 2006-2009*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- WEINREICH, U. 1953: *Languages in contact. Findings and problems*. New York: The Linguistic Circle of New York.
- ZALBIDE, MIKEL, 1990: «Euskal Eskola, Asmo Zahar Bide Berri», in *Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua* (1. lib., 211-271). Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- 1991: «Hasi-masiak: eskola-giroko hizkuntza-erabileran eragiten duten faktoreen lehen azalpen-saioa». In Artola, I., Basterretxea, B., Berasategi, J. M., Olaziregi, I., Sierra, J. eta Zalbide, M., *Eskola Hiztun Bila* (17-35). Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

- 1993: «Zientzi hizkuntza irakaskuntzan: euskara teknikoaren izaeraz, iturburuaz eta egungo erabilmoduaz», in *Euskal Ikaskuntzak Hezkuntza Sarean. XII Congreso de Estudios Vascos*, 281-90. Gasteiz: Eusko Ikaskuntza.
- 1994: Eskola-munduan erabiltzen den euskara: «egungo egoera eta zenbait hobekuntza-bide», in *EUSKERA*, 1994,
- 1999: «Normalización Lingüística y Escolaridad: un Informe desde la Sala de Máquinas». In *Revista Internacional de los Estudios Vascos* 43, 2, 1998, 355-424.
- 2000. «Irakas-sistemaren Hizkuntz Normalkuntza: Nondik Norakoaren Ebaluazio-saio bat», in *Eleria* 5, 45-61
- 2001: «Fishman-en HINBE edo RLS. Donostia, graduondoko HIZNET ikastaroaren baitako materiala, orain *erabili.com*-en ere eskuragai.
- 2002a: «Ahuldutako hizkuntza indarberritzea: teoriak zer dio?», in *Ikastolen IX. zdualdi Pedagogikoak. Donostia*.
- 2002b: «*Ikasleek ba al dakite euskaraz? Erabiltzen al dute?*», In *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 42. zkia., 43-51.
- 2004: «Hitzaldia», in *Ikastetxea, kalitatearen gune*, 196-212. Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- ZALBIDE, MIKEL, NICHOLAS GARDNER, XABIER ERIZE eta MARIA-JOSE AZURMENDI, 2006: «The Future of Basque in RLS Perspective», in Maria-Jose Azurmendi eta Iñaki Martínez de Luna (arg.) *The Case of Basque: Past, Present and Future*. Donostia: Soziolinguistika Klusterra.
- ZUAZO, KOLDO, 1988: *Euskararen batasuna*. Iker-5. Bilbo: Euskaltzaindia.
- 2000: *Euskararen sendabelarrak*. Irun: Alberdania
- 2001: «Ohar zenbait euskara normaltze aldera», in *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 40. zkia.





## EUSKARAREN LEGEA ETA HEDABIDEAK

### 25 urteotako gorabehera batzuk

*Julian Beloki Guerra,  
Eusko Irratia S.A.ko zuzendaria [EITB]*

Orduko gorabeherak oroimenaren kutxatik berreskuratzen hasita, irudi baten inguruan lotzen ditut euskarazko hedabideei buruzkoak: **24 orduak euskaraz** eguneko enbor margotuaren inguruan, alegia. Jose Luis Zumetaren artelanak zabaldu zuen euskarazko hedabideen aldeko aldarria, Herri Irratien ekimen hartan: **1976ko martxoaren 27an** izan zen. Euskaltzaindiak berak ere ordura arte inoiz egin gabeko ekimen bat bideratu zuen: Herri Irratiko uhinei atea ireki, Gipuzkoako Foru Aldundian egin zuen osoko bilkuraren zuzeneko emanaldia lau haizetara zabal zezaten.

Euskarazko hedabideen aldeko eskaria lehenagotik zetorren noski, ez zen egun bakan hartako kontua. Bazituen bere aurrekariak. Ordurako ere bazen euskarazko adierazpiderik hainbat hedabidetan. Behar bada, –eta hala zen orohar– bakan, ahul, aldikako, ezkutuko, borondatezko, jarraikortasun gutxiko, zabalkunde murrizteko..., baina, euskarak izan bazituen bere agerraldiak hedabideetan, nola idatzizkoetan [*Zeruko Argia-Argia / Herria / Anaitasuna / Jakin...*], hala irratiren batzutan [Loiolako eta Donostiako Herri Irratiak, Arrate...] eta, gaurtik begira jarrita gezurra dirudien arren, baita Hegoaldean geneukan orduko telebista-aukera bakarrean ere [RTVE-Telenorte: Euskal Herria, J.M. Iriondoren eskutik].

1975ko azaroan Espainiako diktatorea hil ostean nabarmen hazi zen euskarazko hedabideen aldeko gizarte-eskaria, era zabalago batean indartzen joan zen informazio-askatasunaren aldeko eskakizunen zurrunbiloari lotua. Gogoan izan, gerotxora arte [1977] irauñ zuela irratia guztietan **RNEko** «el parte» derrigorrez eman beharrak. Euskarazko hedabideen aldeko aldarrikapen berri hura, ordea, ordurarteko ekimen eta esperientzien aldekoa baino areago, euskarazko esparru komunikatiko berri baten aldekoa zen. Hedabide berri eta indartsuak nahi genituen, transizio politiko hartan gazteleraren munduan sortzen ari ziren, eta epe laburrera aurreikus zitezkeen beste ekimen eta erronka batzuren antzeko eta neurrikoak, alegia.

**24 orduak euskaraz**, Euskararen Legea onartua izan baino doenerdi bat urte lehenagoko gertakaria izan zen. 1979an **Gernikako Estatutua** onartu baino hiru

urte eta erdi lehenagokoa. 1982an **EiTB**, Euskal Irrati Telebista Erakunde Publikoa, eta honen babeseko **Euskadi Irratia** [1982ko azaroaren 23an] eta **Euskal Telebista** [1982ko Gabon Zahar gauean] sortu baino sei urte lehenagokoa. Gaur gogoetagai dugun **Euskararen Erabilera Normaltzeko Legea** ere berdin.

Donostiako Belodromoko jaialdi erraldoi batez amaitu zen egun hartakoa eta handik aurrerako hilabeteetan, euskarak irabazi zituen esparru berriak idatzizko hedabideetan, hedabide abertzale sortu berrietan batipat (**DEIA** eta **EGIN**, agian, adierazgarrienak), baina, behin ere ez erabat euskaraz idatzitako hedabide modura. Onenean ere euskarazko gehigarri bereziak idaztera iritsi ziren eta oso luzerako biziraupenik gabe.

Alde horretatik, **Gernikako Estatutuaren** onarpenak mugari berriak ezarri zituen euskarazko hedabideen garapen-ahalmenari zegokionez. Estatutuaren 19. atalari erreparatu behar zaio (1). Lege-mandatu hartan oinarrituta onartu zuen Eusko Legebiltzarrak **EITB**, Euskal Irrati-Telebista Erakunde Publikoa sortzeko legea. 1982ko maiatzaren 20an izan zen. Hala hasi ziren, 1982ko udaberri-uda garai hartan, gero **Euskadi Irratia** eta **Euskal Telebista** modura zertuko ziren hedabideen antolakuntza-lanak.

Kontuak hala, 1982ko azaroaren 23an, eguerdiko 12:00etan egin zuen **Euskadi Irratiak** bere estreñeko emanaldi ofiziala eta hogeitalau ordu eskaseko aldearekin onartu zuen Eusko Legebiltzarrak **Euskal Autonomia Erki-degoko Euskararen Legea**. Ahobatez onartu ere; ez zen kontu erraza izango, orduko alderdi politiko guztiak lege-ekimenaren alde bategite hura. Orain baino zabalkunde gutxiago izaten zuten orduan Legebiltzarreko erabakiek eta, hala, gertakariaren garrantziaz oharturik, atalez-atal legearen berri iragartzeari ekin genion **Euskadi Irratian**. Sustapen-iragarki modura, banan-banan joan ginen aletzen Legearen atal bakoitzeko ekarpenik nagusienak. Tarteko, noski, hedabideei buruz esaten zuena ere (2).

---

(1) **1979 – Gernikako Estatutua:**

**19. art.**

1. Euskal Herriari dagokio giza komunikabideei dagozkienetan Estatuko oinarritzko arauen legeria aurrera eramatea, Konstituzioaren 20. artikuluan agintzen dena beti ere errespetatuko delarik.
2. Titulartasun estatala duten komunikabideei aplikatu behar zaien arautegi bereziari dago-kionez, goiko parrafoan aipatu diren gaien bururapena Estatuarenakin koordinatuko da.
3. Artikulu honetako lehen parrafoan esaten den bezala, Euskal Herriak erregula, sor eta atxiki ditzake bere telebista, irrati eta prentsa propioa, eta, oro har, bere helburuak lortzeko behar dituen giza komunikabide guztiak.

(2) **Euskararen Legea – 1982 – Azaroak 24**

**HIRUGARREN KAPITULUA**

**Euskararen erabilera hedabideetan**

**– 22. artikulua**

Herritar guztiei aitortzen zaie gizarte-hedabideen aldetik euskaraz zein gaztelaniaz informatuak izateko eskubidea.

Horretarako, hedabideetan euskararen presentzia areagotzera bideratutako neurriak hartuko ditu Jaurilaritzak, hizkuntza ofizial bien erabilera arian-arian berdintzeraino.

**Pedro Migel Etxenik**ek –orduko Hezkuntza Sailburuak, alegia– Legearen onarpen-ekitaldian Legebiltzarkideei esandako hitz hauek ekarri nahi izan ditut gogora. Orduan oraindik ere bizi zen **Heinz Kloss** hizkuntzalariaren oinarizko ideia batzuk gogorarazi zizkien orduko legebiltzarkideei. Hau da, agintzaritza publikoak, agintariek alegia, hiru jarrera-modu har ditzakete euren komunitateetako hizkuntza-azaroen aurrean: errepresio-jarrera, tolerantziarena eta sustapen-jarrera (3).

Errepresio zital batetik behin betirako atera nahiaren adierazpen izan zen 1976ko **24 orduak euskaraz** ekimena. 1979ko **Gernikako Estatutuaren** ekarpena erabakiorra izan zen Euskal Autonomia Erkidegoa komunikazio-esparru gisa ere definitzeko orduan. Sustapen-politika eraginkorren ildoan kokatzen dira 1982ko **EITB sortzeko Legea** eta gaur hizpide dugun **Euskararen Legea** bera ere. Hogeitabost urteon buruan, ibilbidean, sustapenaren aldeko ekimen eta baliapideak nabarmendu dira, inolako zalantzarik gabe. Publikoak hein handi batean, baina baita pribatuak ere. Nolanahi ere, ez da dena aurre-rapauso izan, utzikerien, ezintasunen eta betegabeko eginkizunen zakuak ere badu bere karga.

Lorpen haundien eta akats nabarmenen artean, hogeitabost urteotan eraiki dugun hedabideetako komunikazioaren arkupeko gorabeheraz dauzkadan ezaupide, uste eta iritziak aletzen saiatu nintzen, 2008ko abenduaren 23ko arratsaldean Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan eta, hemen, ahoz esanak idatzira biltzen eta

---

– **23. artikulua**

Jaurlaritzak, aurreko artikuluan agindutako bi hizkuntzen arteko berdintasuna ziurtatze alde-  
ra, Autonomia Erkidegoko hedabideetan euskara lehentasunez erabili dadin bultzatuko du.

– **24. artikulua**

Jaurlaritzak hizkuntza-normalizazioa bultzatuko du Espainiako Irrati-Telebistaren emanaldi-  
zentroetan, euskarak, Euskal Herriko hizkuntza propioa denez, behar duen presentzia  
izan dezan.

– **25. artikulua**

Jaurlaritzak, 22. artikuluan aitortutako eskubidea arian-arian bermatzeko, euskararen  
erabilera bultzatu eta babesteko neurriak hartuko ditu eta, nolanahi ere, honako hauetan  
hedatu eta benetan erabiltzea ahalbidetuz:

- irratian,
- egunkari eta aldizkarietan,
- zineman,
- antzerki eta ikuskizunetan,
- irudiaren eta soinuaren grabaziotan.

Horretarako, gaiok ukitu eta arautu ditzaten legeetan titulu apropos bana garatuko da.

(3) **Ondoren, Koldo Mitxelena**ren hitzok erabili zituen bere hitzaldian **Pedro Migel Etxenike Hezkuntza Sailburuak**:

«La tolerancia, el “laissez faire, laissez passer” en materia de lengua, ha sido siempre y es todavía hoy probablemente la política más practicada. Esta política, como el liberalismo económico, es una manera tan eficaz como cualquier otra –más eficaz en realidad, puesto que supone omisión, no una acción con cuya responsabilidad alguien tiene que cargar– de favorecer a unas lenguas y de postergar a otras; es, por lo tanto, una política, no una falta de política».

**Discurso de defensa del Proyecto de Ley Básica de Normalización del uso del euskara. Eusko Legebiltzarrean irakurria – 1982 – Azaroak 24**

laburbiltzen saiatuko naiz. Horretarako, hitzaldian bezalaxe idatzi honetan ere, Eduard de Bono pentsalari eta aholkulariaren sormenerako metodolgiak erabiltzen dituen sei koloreen analogiaz baliatu nahi izan dut, idatzi honen atalburuan aitatzen nuen **24 Orduak Euskaraz** egunerako irudian ere Jose Luis Zumetak margotu zuen zuhaitz-enborrean erabilitako oinarritzko koloreez baliatuz.

## SENTIPENEN KOLORE GORRIA

Honetan, iraganeko oroitzapenak gaurko plazara ekartzerakoan, ezinbestean gertatu ohi zaigunez, norberak bere sentipenak adieraz ditzazke, oroitzapen hioen gaurko esanaiaz jabetu eta arduratuz. Zentzu horretan, nik neureak adierazten ditut neure ditudan moduan, duela 25 urte abian jarritako ekimenei esanahi gaurkotua emanez.

Eskerrak EITB sortzeko legearekin, Euskararen Normalkuntzarako Legea onartzearekin, Euskararen Liburu Zuria argitaratzearekin eta abar..., azken finean, herritar askoren eskakizunei erantzun zehatzak emanez, erakunde-arduradun, politikari eta agintariek abiarazitako hainbat ekimenen bitartez gure hizkuntzaren egoerari halako *eguzkittu* bat eman genion; diktaduraldi luzearen laiotzean ozta-oztako biziraupenaren leihatik generaren hizkuntza-egoerari auspaldi berriak emateko abaguneaz baliatu ginen. Emaitza eraginkor askoren sorburu izan ziren orduko ekimen haiek.

Esandakoa bete-betea kunplitzen da gaur hizpide dugun hedabideen esparruari dagokionean ere. Egunkari eta aldizkarigintzan, irrati eta telebistagintzan, aurkezletzan, aktoretzan, gidoigintzan eta, orohar, jarduera komunikatiboen esparru zabal eta alderditsuan ehundaka profesional ari dira lanean, hizkuntza etengabe biziberritzen, egunean eguneko beharrian komunikatibotara egokitzen. Eta, noski, Unibertsitateetako Giza Komunikaziorako Zientzien Fakultateetan ere, inoiz ez bezalako lekua eman eta ardura eskaini zaizkio profesional berrien prestakuntza eskakizun berrietara egokitzeari. Agian, berez eramangarria izan litekeena baino abiada biziagoan ere bai maiz, baina, emankor, lehen pentsaezinak ziren erronkei aurre eginez.

Gizarte prestigioa ere irabazi du euskarak komunikazio produktuen kontsumoari dagokionean. «Egunkaria» itsi ostean sortu ziren salaketa aldarriak eta elkartasun ekintzak, goizero «Berria» erosi eta besapean eramateak, Wazemank-ek pil-pilean jarri zuen «Eongo gatzik» haren gisako esamoldeak ahoz-ahoko erabiltzen zirela entzuteak, «Sautrela»-ren itzalak, «Ama begira zazu» eta «Aupa Etxebeste» bezalako antzerki eta zine produktuen arrakastak, horrek guziak ekarri du hogeitabost urteon buruan euskarazko komunikazio-gintza publikoak euskaldungoaren baitan komunitate zentzua nabarmenagotzea. Adibide batzuk baino ez ditut aipatu, baina asko ekar litezke gogora, ehundaka, hogeitabost urteotako ekimen komunikatiboen emaitza, nola idatziz-

koan hala entzunikusizkoetan, eta euskarri berriagoetan ere, euskaldungoaren ahotan eta gogotan bizi izan diren komunikazio produktuak.

Nolanahi ere, ez gara beti eroso bizi, sentipen horrekin bizi naiz ni neu behintzat. Duela hogeitabost urte ez bezala, ikaragarri ugaldtu da gure egunerokotasunaren paisaia komunikaziorako bitarteko eta produktuen merkatua eta, hazkunde bidean egon arren, gero eta ttipituago ikusten du norberak bere komunikazio-mundu erreferentzial hori. Beraz, ez gara –nik neu bederen ez– eroso bizi eta deserosotasun hori nola kudeatu eta erabili ikasteak nahikoa lan ematen digu. Ez dugu beraz hogeitabost urteotako ibilbidearen ebaluazioa egiterakoan harrotasunetik harrokeria antzura jausteko arriskua gutxietsi behar.

## TXURIA, INFORMAZIOAREN KOLOREA (4)

Ahozko eta idatzizko komunikaziogintzan urteotan guztietan sortutako korpusa da lehenbiziko nabarmenduko nukleen kontua. Eta iruditzen zait euri lanbroak bezala busti duela jardun horrek hizkuntzaren erabilera soziala. Kaze-talginzari zegozkion gai guztietaz mintzatu gara egunerokotasunak eskatu ahala, hizkuntza moldatuz eta bermoldatuz, ahalegin pertsonal eta kolektibo haundiak eginez maiz eta elkar ezin ulertuak ere sortuz nahi baino gehiagotan. Horren lekuko da, nire ustez, gaurregun ere pilpilean, sutako eltzeari eragin eta eragin, hitzetik hortzera darabilkigun kontua: hizkuntza komunikatiboaren zuzentasunaren eta egokitasunaren arteko oreka premia derrigorrezkoarena alegia.

Izan ere, Euskararen Legeak hirugarren kapituloan finkututakoak garapen bidean jarri zirenez geroztik, euskaldungoarentzako aukerak etengabe joan dira sortzen, nola irratiko dialean, hala telebista kateen esparruan [gutxiago, noski] eta, aparteko oparotasunarekin, idatzizko hedabideetan, egunerokoetatik hasi eta era guztietako maiztasunean argitaratzen diren aldizkarietaraino. Lekuan lekukoak batipat. Eta azkeneko hamarkada honetan, bestalde, etengabe bidekartu baino ez da egin komunikazio produktuen kontsumorako aukera zabal-tasun hori, Internet sarearen unibertsalizazio bizkorrak eraginda.

Estudios de Opinión y Mercado, CIES-ek 2007ko hedabide kontsumoari buruz emandako datuek zera adierazten dute euskaldunok euskarazko hedabideez egiten dugun kontsumoaz. Datuok Euskadiko Autonomia Erkidegoko komunikabideetako entzulegoaz ematen dizkigute argibideak, irratia, telebista, prentsa nahiz Interneten erabileraz (5).

(4) **Eduard de Bono pentsalari eta aholkulariaren** «Sei koloretako txapelaren» sorkuntza-metodologiaren egituraz baliatu nahi izan dut nire gogoetaok, urratsez-urrats, ahalik eta modurik egituratuenean aletzen joateko.

(5) **Estudio Sociolingüístico sobre el vascuence en Navarra - 2003.**

Euskarazko hedabideen erabileraz zetozen datuak (EI %10,1 / EHI %4,2 / Gaztea %1,6 / Xorroxin %1,2 / Euskarazko beste irratia %0,5) %18 batek, alegia. Eta ETB-1, %20,2-ak) Na-

## Irratia

- Irratiari dagokionez, EAEan 14 urtez gorako biztanleen artean ia %58ak entzuten du irratia egunero, hogeiren bat minutuz gutxienez. Miloia eta ehun mila entzule, gutxi gora behera.
- Irrati entzule guztien artean berriz, bostehun mila dira euskaldunak eta beste ehun eta hirurogeitamabost mila euskara ulertzen dutela diotenak.
- Milioi erdia, ohiko irratia-entzule euskaldunen kopurua guztira eta hoietatik %ko 40ak egiten du egunero euskarazko irratia baten aldeko hautua. 220.000 entzule inguru, egunero, euskaraz mintzo diren irratien sintonian.

## Telebista

- Ia mundu guztiak ikusten du egunero telebista. EAEan, 14 urtez gorako artean, kasik %ko 85ak. Ikusle goaren %-ko 45a da euskaldun. 1.600.000 ikusletik gora guztira eta 700.000 inguru euskaldun
- Telebista ikusle euskaldunen artean berriz, hirutik batek egiten du egunero euskarazko telebista-emankizunen aldeko hautua. 200.000 ikusletik gora.
- Kirol gertakari haundietan –pelota txapelketa nagusienetako finalak kasu– 300.000tik gora izan ohi dira ETB-1k biltzen dituen ikusleak.

## Idatzizkoak

- 64.000 irakurle dauzka BERRIAK egunero [galdeketa egindako egunetan, bezperan irakurri zutela aitortu zutenak, alegia] eta kopuru hori 161.800 irakurletara igotzen da aldikakoak ere kontuan hartuz gero. Aldi berean, 116.100 irakurlek aitortu zuten 2006ko maiatzean, Hizkuntza Politikako Sailburuordetzaren aginduz egindako galdeketa batean, HITZA egunkaria irakurtzen zutela, 93.900 ohiko irakurle izaki (6). Honi guztiari, bestalde, tokian tokiko aldizkari kopuru inportante baten irakurle goa gehitu beharko litzaioke.

---

farren ehuneko 4,2ak orduko Egunkaria irakurtzen zuten. Eta GARAKo irakurleen %65 ak euskarazko berriak irakurtzen zituzten. DIARIO VASCOKo irakurleen ehuneko 50ak ere bai eta Diario de Noticias-ko %ko 25ak.

**Ipar Euskal Herria: Euskararen Erakunde Publikoak / IPSOS-ek** egin berri duten inkesta ere interesgarriak Iparraldeko datuak euskarazko hedabideen kontsumoari dagokionean: Euskal Irratiak (%11-22), Euskadi Irratia (%10 Lapurdin / %17 Nafarroa Beherean), Gaztea eta ETB-1 (%ko 11). Gora egin du azkeneko 10 urteotan entzule eta ikusleen kopuruak Iparraldean euskarazko hedabideen kontsumoari dagokionean.

(6) Lehenbiziko datua 2007ko CIES azterketarena den bezala, gainerakoak, nola BERRIARI hala HITZARI dagozkionak, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2006ko maiatzean euskarazko hedabideei buruz egindako azterketatik jasoak dira.

Hogeita bost urteotako ibilbidearen emaitza dira eta, orain, Internet bidez sortu diren komunikazio eta informazio produktu berriekin, kontsumo aukeren ugalketa-garai emankorra bizi dugu. BERRIAK berak, batz bestea, 12.000 bisitari izan zituen egunero bere web-orrian 2007an. Internet-en ohiko erabiltzaile direnen artean, berriz, hirutik bi (3/2) euskaldunak dira, CIES Ikerkuntzaren 2007ko datuen arabera, eta hortik ere itxaron liteke euskarazko komunikazio eta informazio produktuen kontsumoan gero eta erabiltzaile gehiago mugitzea.

EiTB24ren, GAZTEAREN nahiz BETIZU Klub-a bezalako produktuen web-orrietako bisitari kopuruak behintzat egunetik egunera ari dira gehitzen eta gero eta datu interesgarriagoak eskaintzen dituzte. Berdin, Euskadi Irratien eta Gaztearen streaming kontsumoari dagokionean ere. Hau da, gero eta jende gehiagok entzuten du irratia ere Internet bidez. Batez ere gazteengan somatzen den joera honek, etengabe egingo du gora, Internet-en erabilerari berari dagokionean bezalaxe, euskarazko hedabide elektronikoen erabilerari dagokionean ere.

## **URDINA: KUDEAKETA ERAGINKORRA**

Gorago ere idatzia dudanez, Heinz Kloss hizkuntzalariaren hitz batzuk ekarri zituen gogora Pedro Migel Etxenikek, orduko Hezkuntza eta Kultura Sailburuak, Euskararen Legea onartu aurreko eztabaida-hitzaldian Eusko Legebiltzarrean, agintariak euren komunitateetako hizkuntza-arazoaren aurrean har zitezaketan jarrerak aipatuz. Errepresioa, tolerantzia eta sustapena dira agintariak har ditezaketan hiru jarrera-modu nagusiak Heinz Kloss-en esanetan.

Esan gabe doa, hogeitabost urteotako ibilbidean, hedabideei dagokionean ere, sustapenaren iturriak etengabeko jarria izan duela. Orduetik hona, Hizkuntza Politikarako Erakundeetatik eta Administrazioa ezberdinetako hainbat sail edo departamentuetatik ez ezik, gizarte-eragile diren beste erakunde batzuetatik ere, bai sustapen edo babes gisa, bai publizitate-inbertsio modura ere, diru-kopuru handiak mugitu dira euskarazko hedabideen kudeaketan.

Sustapenak, ordea, ez ditu beti biderik eraginkorrenak ibili ohi. Zenbaitetan bitartekoak eta euskarriak edukitze hutsaren aldeko jarrera nagusitu izan da, beste ñabardura handiegirik gabe. Eraginkortasunak ordea, neurgarri diren, beraz aldagarri ere badiren adierazletan oinarritu behar du. Iraganetik ikasi dezakegun neurrian, horixe da, behar bada, hogeitabost urteon buruan kontuan izan beharreko irakaspidetik eraginkorrenetako bat. Euskarazko komunikabideen gizarte zabalkunde eta onarpena egoki kudeatu beharreko kontuak dira, gizarteak berak aditzera ematen dituen eskakizunei modu aproposan erantzun ahal izateko. Haseran, agian, bestela izan zitekeen, baina, gaurregun, ezinbestekoa da benetako eraginkortasunaren parametroak profesionalki zehaztea eta kudeatzea, hizkuntzaren biziraupenerako egokitzat daukaguna gizartearen onurarako ere izango delako.

	Zein baliapide teknologiko eta ekonomiko beharko ditut?	
Zein antolakuntza-modu beharko dugu bide hori eraginkortasunez egiteko?	ERRENDIMENDUA: zer lortu behar dut gero eta eraginkorrago izateko?	Zein da nire merkatua? Norengana iritsi nahi dut?
	Nola egin behar ditut gauzak helburutzat dauzkadan hoiengana iristeko?	

Lehen, orain eta gero, ezingo diogu ihes egin kudeaketa-modu eraginkor baten aldeko apustuari, are eta gehiago etengabeko hazkundera, zabalkundera eta aldakortasuna errazten duten teknologia digital berrien garai zurrubilotsuotan. Norberak bere ikuspegi bakar eta isolatuari uko egin eta lorpen-asmu bertsuak dituztenen arteko elkartasuna eta osagarritasuna inoiz baino premiazkoago diren garaiotan. Euskarazko hedabideon kudeaketari ere badagokion zerbait, hogeitabost urteotako urrats erakinkorrak aintzakotzat hartu eta ezintasun egoera antzu bihur ditezkeenei ihes egiteko. Berdin uhin elektromagnetikoen espektroaren erabilera edo-ta harpidetza eta kiosko bidezko zabalkundera oinarritzen diren hedabideekiko, berdin garapen multimediatikoago eta interaktiboago batetik abiatuta Internet-sarearen zabalkunde eta harreman-bide berriez baliatzen direnekiko.

## AUKERA ETA ABAGUNE BERRIEN KOLOREA DA HORIA

Hiru alderdi azpimarratu nahi nituzke atal honetan. Izan ere, asko aldatu dira kontu batzuk hogeita bost urteotan. Aukera berriak sortzen dituzten aldaketak dira, gainera. Baita hedabideon garapenerako ere.

Batetik, euskaldungoarengan eman diren aldakuntza sakonak daude. Orain hogeita bost urte ez bezala, euskaldun gehiago izatea ez ezik, hau da, euskaraz mintzatzeko gai den jende gehiago izateaz gain, euskaldun alfabetatu eta eskolatu gehiago ere badago. Eskolatze horrek, bestalde, gaurko euskaldunen portzentaia esanguratsu batengan unibertsitaterainoko eskolatzea ekarri du. Eta hizkuntza bera ere, ezinbestean, ñabardura berriz jantzi eta osatu da, hedabieetako gaurkotasunak eta hartzileen hizkuntza-gaitasun eta eskakizunek hartaratua. Hurbilenetik ezagutzen dudana hedabidearen kasuan, irriatiarenean alegia, egunero entzutea besterik ez, nola gaien trataeran hala hitzunen gaitasunean, zenbateko aurrerapidea egin den ohartzeko.



Bigarrenik, teknologia berrien eraginaz ohartarazi nahi nuke irakurlea, komunikazio-dukien digitalizazioaz alegia. Gaur egun, hedabideetan euskaraz sortzen eta ekoizten den guztia jaso, itxuratu, gorde, berregokitu eta berrerabili, eskura eta zabal liteke behin berritan, jatorrian bete izandako zereginari esanahi eta eginkizun berriak aurkituz. Horrela, entzule-ikusle-irakurlearekiko hizkuntza eta komunikazio harremanetan ere aukera berriak etengabe sortzen dira. Oraindik modu xumean bada ere, garapen bide oparoen atari baino ez da dagoneko ikusten eta entzuten hasiak garena [Telefonoetako erantzungailuetan, gasolindegietako surtidoretan, tabako makinetan, kutxazain automatikoetan eta beste hainbat zerbitzu publiko automatizatutan...], inguratzen gaituen hizkuntza-paisaia erabat itxuraldatuko duten bitarteko teknologiko digitalizatueta gertatzen ari den iraultzarena. Hogeitabost urteotako azken hamarkada etengabe aldakuntza/aurrerapen garaia izan da eta datorkeenaren atari baino ez.

Ildo beretik, Internet sarearen unibertsalizazioak ekarri duen eragina ere azpimarratu nahiko nuke. Hizkuntzen Babel dorrea hortxe dago, atea zabal zabalik, komunikabideontzat ere. Euskarazko irrati, telebista, egunkari, aldizkari eta gainerako dukiak, hor eskaintzen ditugu sarean noranahiraino zabaldu eta nonahiko euskaldunen arteko harramanak bideratzeko bitarteko eta erraztasunak sortuz. Euskarazko hedabideok ere, aukera on gisa kudeatu beharreko bitartekoak dira, ia oraintsu arte ez geneuzkanak eta ongi baliatu beharrekoak.

Hedabideen, erakundeen eta era guztiteako elkarte eta enpresen web-orriak, norbanakoen nahiz taldeen ekimenez sortutako blog-ek, euskarazko dukien bilaketa eta kudeaketarako lanabes diren software bereziak (Aurki, Kaixo, Euroseek, Jalgi, Euskonet, Eleka eta abar luzea)..., mundu berri oso bat garatu da euskaraz ere, euskaldun jendeon arteko harreman-bide oparoak aukeran jarritz. Orohar, duela hogeitabost urte ametsetan ere aurreikus ezin genezakeen panorama interesgarria.

## **ZALANTZA ETA KEZKEN KOLORE, BELTZA**

Lehen ere aitatuia dudana bezala, **24 orduak euskaraz** Donostiako Belodromoan burutu zen jaialdi edo kantaldi erraldoi batez bukatu zen. Jaialdiko une batean JO TA KE IRABAZI ARTE leloa eskutan, han agertu ziren kaputxadun batzuk bertan bildutako jendetzaren txalo eta oihuak tarteko, ia ulergaitz egin ziren hainbat lelo aldarrikatuz. Borondatetsua da beti JO TA KE IRABAZI ARTE hori, zernahi delarik ere irabazi nahi den hura. Eraginkortasunaren alderditik ordea, mesede handirik ez dakarren jarrera, talka jokabide guztien antzera, antzu. Hedabide euskaldunen gizarte onespeneren ikuspegitik eta ikusmolde ezberdinen arteko elkar osatze eta bategite posibleen ikuspegitik ere, kaltea gehiago sortu du indarraren poderioz gauzak lorgarriago izan zitezkeela ulertarazi nahi horrek. Energia xahutzaile, gehiago, ilusio sortzaile baino.

Berdintsu beste jite bateko jarrera erasokor eta kaltegarrirentzat eman dezakedan eritzia ere. Maiz entzun izan ditugu zipozkeria galantak euskarazko komunikabideek eragin izan ditugun ekimenen kontra. Ez da hogeitabost urteotako ibilbidean, euskarazko hedabideen zeregin soziala, jazarpen ideologiko eta politiko zenbaiten zurrunbiloan nahasi nahi izan duenik falta izan. Hor daukagu, oraindik ere, EGUNKARIAren auzia, edozein eskubide-estatutan ontzat emango ez litzatekeen egoera judizial baten korapilo nahasietan tratatua eta ilunperatua.

Kolore beltzaren kezka eta zalantza-eremu horretan aitatu behar da Euskararen Normalkuntzarako legeak (7) orain hogeitabost urte finkatutako helburu eta zereginetan, RTVEko lurralde ordezkarietzan euskararen erabilera egokitzeko egin beharrekoetan gertatu den erabateko hutsegitea. Hutsaren hurrengo baino izan ez diren ahalegintxo batzuk baino ez ditu egin izan RTVEk Euskadiko Autonomia Erkidegoan dituen hedabideetan euskararen erabilera finkatu eta areagotzeko. Zerikusirik txikiena ere ez Kataluniako RNE-4rekin egindakoarekin eta atzerapausoak ere bai zenbait kasutan, aldi batean egindako zenbait urrats txikirekiko (Telenorteko emanaldi batzuk euskaraz, RNEn Euskadiko albiste emankizunen akaberan euskaraz egin ohi ziztuzten laburpenei zegokionean eta abar...).

Norbera beti da, komunikazioaren sokasaltoan, batzutan sokari eragiten diona eta besteetan sakasaltoan dabilena. Eta jolas hortan, hartzaile eta emaile, euskarazko hedabideen sokasaltoan lehial xamar bizi garen euskaldunon kopurua, hor-nonbait dabil beti, izan telebista, izan irratia ala prentsa, 170.000ren inguruan. Izango da neurketa baikorragorik egingo duenik ere, baina, egin esan, gaur bai eta bihar ere bai, euskarazko hedabideen ohiko erabiltzaile eta kontsumitzaile gisa, oso aintzakotzat hartzeko kopurua da.

Halere, badirudi ez direla beti denak eroso-eroso sentitzen euskarazko hedabideen erabilpen horretan. BERRIA eta HITZA aldizkarien irakurlegoarena da nabarmena: BERRIAren irakurleen %ko 46ak dio erraztasun haundia duela gazteleraz irakurtzeko. HITZAren irakurleen %ko 55ak dio gauza bera. ARGIA eta beste aldizkari espezialduen kasua kenduz gero, euskaldun askok egiten du aitormen hori: euskaraz baino erosoago irakurtzen duela gazteleraz. Zer izango ote litzake EAEn buletin ofizialaren irakurketaz galdegingo bagenu? Eta ez da idatzizko hedabideei bakarrik eragiten dien gaitza, maiz entzuten baitugu entzunikusizko komunikabideei dagokionean ere, euskaldun askori egiten zaiola aldatz gora telebistako filme zenbait eta bestelako albiste saio batzuk behar hainako erosotasunez entzun eta jarraitzea.

---

(7) Euskararen Legea – 1982 – Azaroak 24

24. artikulua

Jauriaritzak hizkuntza-normalizazioa bultzatuko du Espainiako Irrati-Telebistaren emanaldi-zentroetan, euskarak, Euskal Herriko hizkuntza propioa denez, behar duen presentzia izan dezan.

Badirudi, oraindik ere badaukagula zertan saiaturia eta ahalegindua emozioen eta sentipenen mundua hedabideen egikera eta adierazpen-moduetara euskaraz ere behar adina egokitzeari dagokionean. Alde horretatik, nolana ere, oso aipagarriak eta txalagarriak iruditzen zaizkit Goenkale, Kutxidazu Isabel, Gaztea, Aupa Etxebeste, Sorginen Laratza, Wazemank, Balbemendi, filme eta erreportaiak zerrenda luze baten bikoizketan eta abar luze bateko gidogintzaren ildotik jorratzen joan diren hizkuntza-molde, erregistro eta adierazkortasun-bide berriak. Hori bai, etengabeko lan itzela hedabideoi oraindik ere eginkizun gelditzen zaiguna, emozioen eta sentipenen adierazpideak euskaraz nola gizarteratu sortzen eta asmatzen.

## **SORMENAREN KOLOREA: BERDEA**

Azkenaldi honetan, zalantzarik sortu izan da, euskarazko hedabideetan lan egiten dugunon artean, euskarazko produktuen kontsumoaz. Euskarazko hedabideoi dagokionez, ez al da eskakizuna, kontsumoa urritu? Litekeena. Egia da, orain arte aipatu ditudan hainbat datutan nabarmentzen den bezala, inoiz ez bezalako aukera eta kontsumoa daukagula euskarazko hedabideen esparruan. Hogeitabost urteon ekarpenaz baikor naizela, alegia. Halere, ezin ezkuta dezakegu gure kezka, beste jarduera ekonomiko eta industrial askotan bezala, hedabideon munduan ere, aldarkortasuna delako gaurko egoeraren ezaugarri nagusi. Aldatzen ari da komunikazio produktuak ekoizteko modua, aldatzen zabalkunde bideak, aldatzen irakurle-entzule-ikusle-nabigatzaileen kontsumo usadioak ere. Aldagarritasun egoeraok nola kudeatu; aldagarritasuna, mehatxu eta arrisku gordin huts izan ez dadin, zertan eta nola hazkundetarako aukera eta indar bihurtu Kinka horretan bizi dugu gaurregun gure hedabideon kudeaketa-ardura, eta hala izango da honez gero gerora ere, beste giza-jarduera askotan bezalaxe.

Apenas daukagun sormen ahalegin etengabeko, iraunkor eta eraginkor baten aldeko apustua egin beste irtenbiderik. Eta, sormena, ezer bada, jarrera da. Lehenik eta behin, gure inguru hurbil eta ez hain hurbilaren behatzaile, obserbatzaile fin izateko eta etengabe ikasten aritzeko jarrera. Betikoan irauteak dituen arriskuak aurreikusteko metodologia eguneroko eginkizunen gurrupilari ongi egokitzea. Aldagarritasunaren eta egokitzapenaren eskolak lehenbiziko eragina norberarengan izan behar duela sinestea eta geure gogoan sendo xtertatea.

Esanak esan, ez da erraza euskarazko hedabideon kudeaketan esku artean dauzkagun eginkizunak burubidez zehaztea eta, gainera, ez naiz ni nor inoren eginkizunak izendatzen eta aholkuak ematen hasteko, merkekeria hutsean erortzeko harriskurik gabe. Nolanahi ere, idatzi honen azken txanpan, gure artean hizpide izan ohi ditugun eta idatzian zehar ere moduren batean aipatu-

ta utzi ditudan hainbat gogoeta eta eritzi adieraziko ditut hitz bitan, sormenaren aldeko apustuaren harian:

- Portaera ekologikoagoa hedabideotako eduki-produkzioaren erabileran. Digitalizazioak eskaintzen dituen moldagaritasunak ongi erabiliz, ahalik eta eduki gehienen berrerabilpen eraginkorra lortu. Sormenaren iturri guztietatik erabilpenaren ibai zabala hedatuz eta etengabe ormituz. Mundu zabaleko euskaldun guztien eskura, euskaraz sortzen den guztia.
- Sormenaren indarrak mundu atseginago baten zerbitzutan jarri, elkar bizi erosoago egin eta elkartasuna indartzeko; baita hedabideon gizarte erantzunkizunetik ere. Besteak beste, hedabideotako edukien gaineko ardura nolakotasunaren, etikaren, estetikaren eta estiloaren gogotara gehiago eramanez.
- Euskara ohiko komunikazio-hizkuntza dugunon arteko sarea zabaldu eta harremanak estutu; hedabideon jarduna ere gizarteko informazio, entretenimendu eta harreman usadio berrietara egokituz.
- Hizkuntza-komunikatiboaren bikaintasunaren aldeko jarrera eta apustua. Umorea, emozioen mundua, eguneroko gauza praktikoen erabilera, gizarte harreman ludikoen mundua..., euskaraz atsegin adierazteko eta adierazpen hori gizarteratzeko eskola izan. Guraso, haur, eskolaume eta gazteen arteko katebegietan hizkuntzaren bikanitasunaren alde egin dezakegun ekarpena arduratsu betez.
- Euskararen gizarte-garapen eraginkorrena lortzen lagunduko duten aliantzak eragin eta gauzatu, nola euskal munduaren baitan, hala beste hizkuntza batzuetako komunikazio esparruetan ere.

Euskararen Normalkuntzarako Legeak 25 urte beteko zituen egunaren bezperan, 2007ko abenduaren 3ko arratsaldean, Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan hitzez esandakoak bildu eta osatu nahi izan ditut idatzi labur honetan. Irakurle, har ezazu aintzakotzat ezertan baliagarri gerta lekizuken hura eta, nolnahi ere, ez energiari alperrik xahutu, oker esanak edo-ta egokituz juzgatu ez dituzunak ausnarrean luze hartuz. Honez gero, jakin badakizu gure auzo txiki honetan non topa nazakezun eta, beti ere, probetxurako izan leki-guke aurrez aurreko hitzaspertua. Hona, badaezpada ere, nireganako harreman bide erraz eta azkarra: [beloki\\_julian@eitb.com](mailto:beloki_julian@eitb.com)

## **EUSKARAREN LEGEA ETA EUSKARA INFORMAZIO- ETA KOMUNIKAZIO-TEKNOLOGIETAN**

*Andoni Sagarna*

Euskararen Legeak 25 urte bete dituen une honetan, bidezkoa da galde-tzea euskarak IKTetan gaur egun duen egoeran zer nolako eragina izan duen lege horrek. Badira, ordea, eragozpen batzuk galdera horri behar bezala erantzuteko. Lehenik eta behin, jakin behar dugu zein den euskararen egoera IKTetan eta gero legeak egoera horretan zer eragin izan duen.

Bi gauzak dira jakiten zailak: egoera konplexuegia da, ikerketa egokia egin gabe ezagutzeko, eta, aldi berean, egoera horretan eragina izateko espresuki sortua ez den lege batek zer nolako eragina izan duen jakitea ere ez da oso erraza.

Hortaz, galderari zuzenean erantzungo dioten datuen faltan, zeharka erantzuten diotenei erreparatu beharko diegu.

Mende-laurden horretan IKTek sekulako garapena izan dute gure artean, bizitzaren esparru guztietan gainera. Eztanda hori nekez aurreikus zezaketen legegileek garai hartan. Ez da harritzekoa bada arlo hori ez aipatzea legeak.

Beste esparru batzuk bai, aipatzen dira. Horrela, Euskal Herriko herritarrei aitortzen zaizkien funtsezko hizkuntza-eskubideen artean hauxe dago:

*c) Aldizkariak eta irratitelebistetak eta beste hedabideetako emanaldiak euskaraz jasotzeko eskubidea.*

Legea onartu zenean dozena bat urte falta ziren oraindik Internet guregan iristeko, beraz, *beste hedabideetako emanaldiak* irakurtzen dugunean uler dezakegu agian legegileek gerora etor zitezkeen hedabideak legearen aplikazio-eremuan sartzeko zirrikitu bat irekita utziko zutela, nahiz eta hedabide berri posible horiek zein izan zitezkeen ez jakin.

### **IKTen garapena gure artean**

Informatika 1960ko hamarkadan hasi zen hedatzen mundu-mailan. Hasi-eran, espezialista gutxi batzuek bakarrik erabiltzen zituzten ordenagailuak,

inkertan eta kalkulu zientifikoetan batez ere. Pixkanaka enpresa eta erakunde handitan erabiltzen hasi ziren eta 1982an, Euskararen Legea jaino zen urte berean, hasi ziren lehenbiziko ordenagailu pertsonalak guregana iristen. Lehenbizikoak batik bat jostailu gisa erabiltzen ziren Commodore 64 eta ZX Spectrum izan ziren.

Geroxeago IBM PC eta Apple Macintosh 128K etorri ziren. Oso sistema traketsak ziren haiek orain ditugun aldean. Macintoshek pantaila grafikoak bazuten ordurako, baina PCek karaktereak baizik ez zituzten erakusten beren pantaila monokromoetan.

Software aldetik, berriz, testu-prozesadoreak agertzen hasi ziren, haiek ere oraingoak baino askoz baldarragoak. Testu-prozesadoreen artean aurreratuena Wang zen, baina ez zitekeen ordenagailu pertsonaletan erabil, ordenagailu handiei konektaturiko terminalen bidez baizik. Ordenagailu pertsonaletan erabiltzeko testu-prozesadorerik hedatuena WordStar zen, testuei formatua emateko hainbat tekla-konbinazio erabiltzea eskatzen zuena.

1990 arte itxoin behar izan genuen Windows 3.0 ager zedin eta horrekin PC bateragarrietara pantaila grafikoak irits zitezten. 1989an sortu zen MacOSErako Microsoft Office eta hurrengo urtean Windowserako bertsioa.

Geroztik, IKTen bilakaera izugarria eta izugarri lasterra izan da: bulego-tikako paketeak hedatu dira, disketeak, disko gogorrak, CD-ROMak, DVDak agertu dira, sare lokalak eta Internet, posta elektronikoa, sakelako telefonoak, SMSak eta MMSak, web orriak, blogak, wikiak, denak arrapaladan etorri zaizkigu, arnasa hartzeko betarik eman gabe.

Iraultza horren aurretik, film batean erakutsi izan baligute zer zetorren, eta galdetu izan baligute ea euskarak hor zer leku izango zuen 25 urte geroago, seguru asko etsipenak jota geratuko ginatkeen. Denbora hori iragan ostean, benetan gertatu dena ikusita, esan dezakegu hain gaizki ere ez garela moldatu. Ehunka produktu sortu dira euskaraz, bereziki irakas-mundurako, eta gutxiestekoa ez den presentzia hartzen joan da euskara Interneten. Hala ere, gauza bat da zer egin den eta horrek zer meritu duen eta beste bat zer neurritan erantzun diegun trumilka etorri zaizkigun behar horiei.

Ikus dezagun hori datu zehatzagoak erabiliz.

## **Euskarak IKTetan hartu duen lekua**

Hainbat ikuspegitatik begira diezaiokegu gai honi (Artola, 1997). Kontuan izatekoak lirateke, besteak beste:

– Arlo horretako euskarazko terminologia

- IKTen irakaskuntzarako materiala
- Euskarazko softwarea
- Euskaratutako softwarea
- Euskarazko erabilera-eskuliburuak
- Hizkuntza erabiltzeko eta ikertzeko tresnak
- Euskararen presentzia Interneten
- Euskara sakelako telefonoetan

Terminologia aldetik hainbat lan egin dira (Alegria 1985, Elhuyar Fundazioa-Euskaltel 2003, UZEI 2001a, 2001b, 2005a, 2005b), baina huts egiteko arrisku handirik gabe esan daiteke arlo horretako terminologiaren garapenak duen abiadura eta gurea oso desberdinak direla.


IKTen irakaskuntzarako material idatzien ekoizpena, beheko bibliografian ikus daiteke. Horren barruan zer dagoen aztertzen badugu, zenbait ondorio atera dezakegu. Esate baterako, liburuen tipologiari begiratzen badiogu, 1984-2006 bitartean, batez beste, unibertsitateko edo lanbide-hezkuntzarako 1,3 titulu argitaratu dira euskaraz urteko. Miseria hutsa da hori noski.

Zerrendatu ditugun liburuen eta artikuluen orokorren 54 tituluen egileen artean, badira batzuk askotan errepikatzen direnak eta jakin badakigu erakundeen izenean argitaratutako lanen egileak banan bana zerrendatuko balira gehiagotan agertuko lirakeela eta ikerketa-lanen egileak aztertuko bagenu ere hor leudekeela berriz. Horrek zeharka adierazten digu lan asko talde txiki baten euskaltzaletasunak eragindakoak direla.

Euskarazko softwarearen garapena ezin dugu lan honetan xeheki deskribatu, baina estatistika batzuk behintzat azter ditzakegu.

Bi arlo desberdin izan behar ditugu kontuan: alde batetik irakaskuntzarako softwarea eta bestetik bestelako softwarea.

Lehenbiziko sailean, 1982tik 1996ra bitartean gauza handirik ez zen sortu, baina 1997an Eusko Jaurlaritza, EIMA III programaren bidez, irakaskuntzarako produktu digitalak ekoizteko dirulaguntzak ematen hasi zenetik 2006. urtera arte 560 produktu kaleratu dira. Hona hemen urtez urte kaleratutako produktu kopurua erakusten duen grafikoa:



Produktu horien guztien nondik norako guztiak xeheki ezagutu nahi dituenak Euskal Ikasmaterialen EIMA katalogoa kontsulta dezake honako helbide honetan: [http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/eu/contenidos/informacion/dih6/eu\\_15733/dih6.html](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/eu/contenidos/informacion/dih6/eu_15733/dih6.html)

Bestelako aplikazioen ekoizpena nola joan den arloz arlo eta urtez urte honako taula honek erakusten digu:

Urtea	Bulego aplikazioak	Hizkuntza	Aisialdia	Tresna orokorrak	Internetekoak	Dokumentazioa	Beste zenbait
1992	0	1	0	0	0	0	0
1993	0	0	0	0	0	0	0
1994	0	1	1	0	0	0	1
1995	0	1	0	1	0	0	1
1996	0	2	2	0	1	0	1
1997	0	4	1	0	1	0	0
1998	0	5	2	3	0	0	1
1999	0	3	0	3	2	0	1
2000	1	5	4	1	0	0	3
2001	0	4	3	2	3	0	0
2002	0	5	9	0	0	0	0
2003	7	5	1	1	8	4	0
2004	7	0	1	5	4	1	0
2005	2	2	1	1	4	1	0
2006	8	4	4	7	16	15	1
	25	42	29	24	39	21	9

Produktuak guztira: 189



Produktu horien artean era askotakoak daude. Ikus ondoko taulan aniztasun hori erakusten duten adibide batzuk:

<b>Software-mota</b>	<b>Zenbait adibide</b>
Bulegoko aplikazioak	Open Office, Scribus, Microsoft Office 2003, OmniPage
Hizkuntza lantzekoak	Xuxen, Euskalbar, Atariko proben jolasak, Bizkaifon, XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa, Euskal-term, Elhuyar Hiztegia, Morris Hiztegia, Sinonimoen Hiztegiak, ZT corpora, Ereduzko prosa gaur, Corpeus, Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa, etab.
Irakaskuntzarakoak	CDak, DVDak, disketeak, jaisteko aplikazioak eta Interneteko zerbitzuak
Aisialdirakoak	Euskal Jolasen Bilduma, Estropadak, Olentzeroren basoa
Sistemak eta baliabideak	Linux Debian, Linux Mandrake, Windows XPren interfacea, Panda Titanium

Udako Euskal Unibertsitateak mantentzen duen software-katalogoan aurki daitezke xehetasunak, honako helbide honetan: <http://softkat.ueu.org>

Hizkuntza-ingeniaritzan egin diren aurrerapenak ere balio handikoak izan dira. Sail honetan bereziki aipatzekoa da EHUko Informatika Fakultateko IXA taldeak egindako lana. Lan bikain hori ezagutzen ez duenari helbide hau bisita dezan gomendatuko nioke biziki: <http://ixa.si.ehu.es/Ixa>

Alabaina, ikerketa-mailatik esparru komertzialerako bidean oraindik urrats askorik ez da egin.

Hori guztia egin ahal izateko, Hezkuntza eta Kultura sailetatik emandako dirulaguntzak erabakiorrak izan dira, zalantzarik gabe, baina jende saiatu asko lanean jardun izan ez balitz, dirulaguntzek bakarrik ez zuten emaitza hori ekarriko.

Erabilera-eskuliburuen kasuan, gure artean erabiliena den Windows sistema eragileari buruzko azkenekoa Windows 98arena izan zen. Bertsio horren ondoko Windows 2000, Me, XP edo Vistak ez dute eskulibururik izan.

Microsoft Office bulegotika-paketearen azkeneko eskuliburuak Word 6.0, Excel 5.0 eta Access 2.0 hartu zituen. Geroztik Office 4.2, Office 98, Office 2001 eta Office 2004 pasa zaizkigu eskulibururik gabe.

Open Office-ren kasuan 1.0.2 bertsioaren eskuliburuak argitaratu zen, baina dagoeneko 2.3.1ean gaude. Bistan da softwarearen berrikuntzari ez diogula inola ere erantzuten eskuliburuen aldetik.

## Euskararen presentzia Interneten

Arreta berezia merezi du atal honek, IKTen arloan gizarteko sektore guztiek euskararekiko dituzten jarrerak islatzen dituelako. Horregatik, orain baino lehen izan nuen interesa gai hori jorrazteko, 2003an hain zuzen. Orduan egin nuen azterketan erabilitako metodologia eta handik ateratako ondorioak ondoko lerroetan laburbiltzen saiatu naiz. Garai hartan idatzi nuen txostena osorik ikusi nahi duenak honako helbide honetan du:

[http://www.erabili.com/zer\\_berri/muinetik/1057751702](http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1057751702)

Euskarazko edukiak zituzten ahalik eta web orri gehienak biltzen saiatu ondoren, haien artetik lagin bat aztertuz ateratako ondorio batzuk atera nituen 2003an.

Honela labur zitezkeen euskarazko edukiak zituzten web orriei buruzko ondorioak:

- Erdiak baino gehiago herri-erakundeenak, irabazasmorik gabeko elkar-te pribatuenak edo ikastetxeenak ziren. Oso gutxi ziren enpresa-mundukoak
- Irabazasmorik gabeko elkarte horien heren bat euskara-elkarteak ziren
- Euskarazko edukiak zituzten herri-erakundeen web orrien erdiak baino gehiago Eusko Jaurilaritzarenak edo Hego Euskal Herriko udalenak ziren.
- Ipar Euskal Herriko herri-erakundeen euskarazko web orririk ez zen ageri.
- Nafarroako herri-erakundeen web orriak oso urriak ziren (sail horretako %6)
- Herri-erakundeen web orrien heren batek erakundeari buruzko informazio orokorra ematen zuen eta beste hainbeste hezkuntza-arlokoak ziren.
- Euskarazko edukiak zituzten web guneen hasierako orrien %25ek espainieraz zituzten edukiak
- Irabazasmorik gabeko elkarten kasuan, orri nagusietan euskara soilik edo nagusiki ageri zen erdietan baino gehiagotan
- Ikastetxeen web guneetan orri nagusia espainieraz zegoen lautatik batean eta eleaniztuna zen beste hainbestetan. Unibertsitateen kasuan erdiak ziren espainierazkoak soilik.
- Gutxi ziren Internetek ahalbidetzen dituen eduki multimedia, interaktibo eta transakziozkoak eskaintzen zituztenak. Erdiak baino gehiagok eduki estatikoak bakarrik zeuzkaten.

Geroztik ez dut azterketa osoa berriz egin, baina web guneen jabeen banaketa berriz aztertu dudanean argi eta garbi ikusi dut lehen ez zeuden

euskarazko wikiak eta blogak ondoak basoan bezala hazi direla lau urteotan. Erabiltzaileak egile bihurtzeko eta lankidetzan jarduteko joera hori fenomeno orokorra da.

## Ondorioak

Esan dezakegu teknologiaren uholdeari erantzun egin diogula eta alde zurretik espero genezakeen baina hobeto seguru asko. Horrek ez du esan nahi, ordea, hainbat arlotan hutsune handiak ez ditugunik. Enpresa-munduan, esate baterako, informatika ez da oro har euskaraz erabiltzen. Sakelako telefonoek ez dute orain arte euskaraz jakin. Uholdeak ez gaitu erabat ito, baina arlo batzuetan higadura-marka nabarmenak utzi dizkigu.

Zein izan da Euskararen Legearen eragina? Zalantzarik gabe euskararen aldeko laguntzen bultzatzailea izan da lege hori IKTetan ere. Baina euskara zer arlotan ageri den ahulago eta zer arlotan ez hain ahul begiratzen badugu, garbi ikusten dugu kultura eta hezkuntza munduak hor nonbait salbatu direla, baina hortik kanpo ez dela ezer askorik aurreratu.

Aurrera begira, aztertu beharra dago eredia. IKTetan euskarak duen lekua ez da Hezkuntza eta Kultura sailtako kontua soilik eta ezta dirulaguntza bidez soilik konpon daitekeena ere. Azpiegitura-kontua da. Sail guztiek parte hartu beharreko gaia da, bereziki Industriak.

Zenbait arlotan oso erronka gogorak datoz, esate baterako Osasun arloan, osasun-txartel digitalarekin eta historia kliniko digitalekin.

Herritar bakoitzak bere historia kliniko digitala euskaraz kontsultatzeko eskubidea izan beharko luke, eta euskaraz lan egin nahi duten osasun-arloko profesionalek aukera izan beharko lukete hala jarduteko.

Printzipioz hain arrazoizkoak diruditen helburu horiek konplikazio tekniko eta ekonomiko handiak dituzte. Terminologia tekniko estandarizatuak (SNOMED CT, adibidez) prestatu behar dira, besteak beste hizkuntza desberdinetan lan egiten duten Osasun-Zerbitzuen artean bateragarritasuna (interoperatibitatea esaten diote) lortzeko, maila teknologikoan ez ezik, baita semantikoan ere. Terminologia estandarizatuari eta dokumentuak kudeatzeko aplikazio informatiko aurreratuei esker, diagnostiko baten edo tratamendu baten deskribapena hizkuntza batean egina badago ere, beste hizkuntza batean irakur daiteke.

Galdera hauxe da: benetan nahi dugu euskara erabili ahal izatea Osakidetzan? Erantzuna baiezkoa baldin bada, orain arte izan ditugun erronkak baino askoz handiagoak datozkigu.

Beste arlo batzuetan ere panorama oso antzekoa da.

Arestian uholdea aipatu dut, baina agian metafora egokiagoa litzateke maldan behera datorren elur-bolarena: teknologiaren garapenak dakarren arriskua gero eta handiagoa da eta gero eta lasterrago dator.

Nire ustez erabaki estrategikoak hartu behar dira, gaur egun ditugun mugak gainditzeko. Adibidez, hizkuntza-politika Kultura Sailaren ardura izatetik Sail guztiak inplikaturako dituen eredu batera joatea ez ote den komeni galdetuko nuke.

Dirulaguntzak izan behar dute arazoari erantzuteko tresna ala beste zer-bait behar da? EITB ez zen sortuko dirulaguntzak eskaini eta ekimen pribatuaren zain geratuta.

## **BIBLIOGRAFIA**

### **IKTei buruzko liburuak**

ELHUYAR INFORMATIKA TALDEA 1984

**Informatika. Oinarrizko kontzeptuak. LH 1-2**

Elkar

SARASOLA, Kepa 1984

**Programatzeko algoritmoak**

UEU

ALEGRIA, Iñaki eta beste 1985

**Informatika hiztegia**

Elhuyar

ELHUYAR INFORMATIKA TALDEA; ALEGRIA, Iñaki 1985

**Konputagailuaren oinarrizko egitura**

Zubize

NOVELLI, Luca 1985

**Ordenadore nere lehen liburua**

Anaya

ELHUYAR INFORMATIKA TALDEA 1986a

**BASIC lengoia lantzeko ariketak**

Elkar

ELHUYAR INFORMATIKA TALDEA 1986b

**Basic. Programatzeko ariketak**

Elkar

NOMAN 1987

**Z-140 ordenadore pertsonalaren eskuliburua**

Zubize

SAGARNA, Andoni; ELHUYAR KULTUR ELKARTEA 1987

**Mikroordenadoreentzako sistema eragileak**

Elkar

VON NEUMANN, John 1990

**Ordenadorea eta garuna**

Elkar

SARASOLA, Kepa; BASTARRIKA, Juan Ramon 1991

**LISP programazio lengoia**

UEU

ARREGI, Xabier; DIAZ DE ILARRAZA, Arantxa; LUCIO, Paqui 1993

**Programen egiaztapena eta eratorpena**

UEU

ORBEA, Roberto eta beste 1993

**Oinarrizko informatika**

Elhuyar

EGUREN, Ino eta beste 1994

**Informatika I. Ordenadorea Ezagutuz**

Elhuyar

ALEGRIA, Iñaki; GARAI, Nestor 1995

**C Programazio-Lengoia**

Elhuyar

ELORRIETA, Orlando eta beste 1995

**Informatika 2. Nire Lehen Urratsak**

Elhuyar

RODRIGUEZ, Clemente; ALEGRIA, Iñaki; GONZALEZ, Julio; LAFUENTE, A.; LAZKANO, E.LAFUENTE ROJO, Alberto; LAZKANO ORTEGA, Elena 1995

**Sistema eragileen deskribapen funtzionala**

EHU. Argitarapen Zerbitzua

BALERDI, Iñigo eta beste 1996a

**Informatika III. DOS inguruneko aplikazioak**

Elhuyar

BALERDI, Iñigo eta beste 1996b

**Informatika IV: Word 6.0 euskaraz: Windows 3.1 eta Excelerako sarrera**

Elhuyar

BALERDI, Iñigo eta beste 1997a

**Microsoft Office: Word 6.0, Excel 5.0, Access 2.0**

Elhuyar

BALERDI, Iñigo eta beste 1997b

**Windows 95. Euskaraz: nekerik gabe erabiltzeko eskuliburua**

Elhuyar

JASTROW, Robert; TURING, Alan M.; SEARLE, John 1997

**Giza garuna eta ordenadorea (Garunaren eboluzioaz)**

Gaiak

WATT, David A.; WICHMANN, Brian A.; FINDLAY, William 1997

**ADA lengoaia eta metodologia**

EHU. Argitalpen Zerbitzua

MAKAZAGA, Joseba; LASA, Asier 1998

**Ordenadore bidezko irudigintza**

UEU

ARGARATE MAIZTEGI, Ramón; MORILLO URIONABARRE, Nikolas 1999

**Informatika-sistemak eta ingurugiroa: unitate didaktikoa**

E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia

DIAZ DE ILARRAZA, Arantza; SARASOLA, Kepa 1999

**Oinarrizko Programazioa. Ariketa bilduma**

UEU

GOIRIZELAIA ORDORIKA, Iñaki 1999

**Programazioaren oinarriak**

EHU. Argitalpen Zerbitzua

GONZALEZ, Jorge; GIL, M<sup>a</sup> Jose; FERNANDEZ, Verónica 1999

**Sistema eragileen diseinua**

Deustuko Unibertsitatea

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA (E.J.) 1999

**Orixeko Proiektua: hezkuntzarako informatika**

E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia

NELSON, Stephen L. 1999

**Microsoft Windows 98. Erantzuna berehala!**

Eraz-DHK; Euskaldunon Egunkaria

RINCON, José Miguel; AREITIO, Gloria; AREITIO, Ana; ALDAZ, Leire 2000

**Groupware-ra hurbilketa intranet inguruan**

EHU. Argitalpen Zerbitzua

IBABE EROSTARBE, Izaskun; ETXEBERRIA, Juan 2001

**Datu-analisia eta SPSS: praktikak**

Elhuyar

UZEI 2001a

**Informatika eta Internet Hiztegia**

<http://www.uzei.com/antbuspre.asp?Cod=1755&nombre=1755&orden=Verdadero&sesion=14>

UZEI 2001b

**Windows Ingurunea Hiztegia**

<http://www.uzei.com/antbuspre.asp?Cod=2124&nombre=2124&orden=Verdadero&sesion=14>

ZUBIZARRETA, Iñaki eta beste 2001a

**Oinarrizko informatika. Gidaliburua (DBH)**

Elkarlanean; Ikastolen Elkartea

ZUBIZARRETA, Iñaki eta beste 2001b

**Oinarrizko informatika. Karpeta (DBH)**

Elkarlanean; Ikastolen Elkartea

GUENAGA GOMEZ, Maria Luz; EGUILUZ MORAN, Andoni; DIAZ LABRADOR, Josu 2002

**Epi konpiladorea. Gida didaktikoa**

Edex

ROGERS, David F.; ADAMS, J. Alan 2002

**Infografiako matematikaren oinarriak**

EHU. Argitalpen Zerbitzua

TANENBAUM, Andrew S. 2002

**Konputagailu-sareak**

EHU. Argitalpen Zerbitzua

ACERO MARTIN, Fernando 2003

**Erreferentzia-eskuliburua: OpenOffice 1.0.2. StarOffice 6.0**

Lin Editorial

ALEGRIA LOINAZ, Iñaki 2003

**Linux: Sistemaren eta sarearen administrazioa**

Udako Euskal Unibertsitatea

ELHUYAR FUNDAZIOA-EUSKALTEL 2003

**Telekomunikazio Hiztegia**

<http://www.telekomunikaziohiztegia.org/>

RIVADENEYRA SICILIA, Jose Maria 2003

**TCP/IP sareak**

Egile editore

ALDEZABAL, IZASKUN / ARRIOLA, JOSE MARI / DIAZ DE ILARRAZA, ARANTZA / SARASOLA, KEPA 2005

**Hizkuntzalaritza konputazionala**

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

UZEI 2005a

**Bulegotikako Hiztegia**

<http://www.uzei.com/antbuspre.asp?Cod=2129&nombre=2129&orden=Verdadero&sesion=14>

ZUBIZARRETA AIZPURU, J. Ramon

**Softwarearen ingeniari-tza 2006**

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

ZULUETA GUERRERO, Ekaitz 2006

**Ordenagailu bidezko sistemen kontrola**

ELHUYAR FUNDAZIOA

UZEI 2005b

**Hizkuntza Teknologien Hiztegia**

<http://www.uzei.com/antbuspre.asp?Cod=2139&nombre=2139&orden=Verdadero&sesion=14>

**Euskara eta IKTak gaitzat duten artikulu orokorrak**

ARTOLA X. 1997

**Informatika eta euskara: gaur egungo arazoak eta aurrera jotzeko bideak**

*Uztaro, 20. zk. 77-92 orr. 1997.*

<http://ixa.si.ehu.es/Ixa/Argitalpenak/Artikuluak/1000911722/publikoak/97>

UZTARO.ps

SARASOLA K. 1997

**Euskarazko softwarearen katalogoa**

*Elhuyar, Zientzia eta Teknika, 117. zk. 60-62 orr. 1997.*

[http://www.zientzianet.com/artikuluak.asp?Artik\\_kod=3617](http://www.zientzianet.com/artikuluak.asp?Artik_kod=3617)

AIESTARAN, I.; ARZOZ, I.; ALONSO, A.; ECHEVERRIA, J.; LAMIKIZ, A.; AGIRRE, I.; SAGARNA, A.; CABO, T.; IDOATE, X.; BENGOTXEA, J.B.; CUEVA, Z. de la 1999

**Euskal Herri digitala 1.0**

Gaiak

ALEGRIA I., RODRIGUEZ M. Jesus 2003

**Euskararen presentzia Interneten neurtu nahian**

*BAT soziolinguistika aldizkaria, 48, 89-100*

<http://ixa.si.ehu.es/Ixa/Argitalpenak/Artikuluak/1070449758/publikoak/BAT.pdf>



SAGARNA A. 2003

**Euskarazko edukiak dituzten web guneen azterketa**

[http://www.erabili.com/zer\\_berri/muinetik/1057751702](http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1057751702)

ALEGRIA I. 2004

**Euskarazko softwarea: errepide-mapa**

*2004ko ikastearen nazioarteko egunean EHUko Informatika Fakultatean emandako hitzaldia*

[http://ixa.si.ehu.es/Ixa/Argitalpenak/Artikuluak/1100709406/publikoak/eu\\_soft](http://ixa.si.ehu.es/Ixa/Argitalpenak/Artikuluak/1100709406/publikoak/eu_soft)



## **EAEko EUSKARAREN LEGEAREN GARAPENAZ NAFARROAREN IKUSPEGIA**

### **Nire sentimendua**

*Sagrario Aleman*

Euskal Autonomia Elkarteko Euskararen Legeaz eta beronen garapenaz aritzeko aitzakia ederra da Legearen 25. urteurrena. Urte hauetan hizkuntza normalizazioa dela eta, ikusi, irakurri eta entzun ditugunak eta sentitu eta bizi izan dudana datorkit burura. Ez dut naski, Nafarroaren ikuspegia azalduko, nirea, neronena, baizik.

Hemen ere, toki guztietan bezala, zenbat buru, hainbat aburu. Hortaz, beharbada ikuspegiak, nire ikuspegiak neurri batean, beste toki batzuetan, Nafarroatik kanpo, ematen den askorenarekin izanen du antzekotasunik, eta Nafarroan izanen da nik ematen dudana ikuspegitik arras beste bat duenik ere.

EAEko Euskararen Legearen garapenaz pentsatzen hasi eta nahitaez Nafarroako Euskararen –edo vascuence-ren esan beharko ote nuke?– Legearekin eta bere garapenarekin alderatu dut. Horregatik hemen, maiz, Nafarroakoa izango dut hizpide. Hau hobeki ezagutzen dudalakoz eta Nafarroako Euskararen Legearen garapenaz arduratu behar zutenek ezarritako bidean borrokatu eta sufritu behar izan dugulakoz.

Horregatik esan nezake miraz, inbidiaz, ikusten dudala Euskal Autonomia Elkarteko Euskararen Legea bera; etsipenez ere ikusi izan dut ordea, eta zer esanik ez, amorruez, haserre ere bai, zenbaitetan, harriturik, ez gutxitan Legearen garapena.

### **EREDUGARRI**

Mundu zabalean hizkuntza normalizaziorako hainbat lege izanik ere, euskararen normalizaziorako hau zen lehenengoa. Alde horretatik, Nafarroako euskararen legea egiteko, –gure nahia lege bakarra Euskal Herri guztirako izatea baldin bazen ere–, EAEko 82ko Lege hau eredutzat edo, nahi bada, abiapuntutzat har genezakeen. Beti ere, aurreko bat eredutzat hartzen denean hura hobetzeko asmoz egiten da. Zoritxarrez, ordea, Nafarroan, euskararen

normalizaziorako lehenengo legea, EAEkoa, hobetu ez, baina, txartu egin genuen, eredu izan zitekeen lege honetatik urrundu. Hori ez da harritzekoa, bestalde, Nafarroan ikusi dugun ibilbidea kontuan izanik. 1980an Nafarroako Parlamentuak euskararen ofizialtasunaren Ebazpen bat onartu zuen. Bi urte geroago, 82an, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan, zonifikazioaz hitz egiten zen, beraz, euskara gaztelaniarekin batean Nafarroa guztiko hizkuntza ofiziala izatetik, ofiziala Nafarroako eskualde euskaldunetan bakarrik izatera pasatu zen, Parlamentuan onartutakoa baztertua. Lege Organiko honek euskara ofiziala zein udalerritan izanen zen geroko legearen baitan utzi zuen. Horregatik, aurrerari hauekin, ezin zitekeen espero, 1986an, Euskarari buruzko Foru Legea EAEkoa baino hobea egitea, Madrila *hobetzera edo amejoratzera* joan eta txartu zutenengandik.

Hala ere, esan behar dugu Lege honek aipatzen dituen puntu beretsuak dituela Nafarrokoak ere: erabilpen ofiziala, hezkuntza eta komunikabideak. Haratz, bada, EAEko Legea oinarritzat hartua.

Nafarroan, Legea onartu aurretik, ikerketa soziolinguistikoa egiteko deialdi bi egin ziren, lehenengoan Hortensia Viñes andereari esleitu zioten baina, honek ez zuen inolako ikerketarik egin. Bigarren deialdian, Jesus Azkonari esleitu zioten ikerketa. Legea egin zutenek, ordea, ikerketa honi eta Azkonak zonifikaziorik ez egiteko aipatu zuen gomendioari kasu gutxi eginik, Nafarroako zati batean besterik ez zuten onartu ofizialtasuna Hobekuntza Legeak eskatzen zuen edo zioen bezala. Ere mu euskaldunean Nafarroako populazioaren %11 inguru besterik ez zen bizi, eta zerbitzu gehienak eremu horretatik kanpo dituzte horko bizilagunek. Zonifikazioa egiteko erabilitako irizpidea inork ez dugu ezagutzen, Legea egin zutenek beraiek ere ba ote dakiten zalantzarria da.

Azkonaren iritziz, zonifikazioak herri euskaldunetako biztanleen konplexua sorraraziko zuen eta euskararen inguruan zegoen identifikazio kolektiboa hautsiko zuen. Gainera, bere ustez, euskara ofiziala Nafarroako eremu osorako egin zitekeen inolako problema tekniko edota soziologikorik gabe. Gaur, Nafarroako Gobernuaren diskurtsoak, Legearen garapen ezak eta Legea beti era murriztanean interpretatzeak Azkonak aipatzen zuen euskararen inguruko identifikazio kolektibo hori hautsi du, neurri handi batean. Lege egileak zatikako ofizialtasun horren aitortzaren benetako helburua betetzen ari dira horrela.

Horregatik **miraz eta bekaizti** ere ikusten dut 1982ko Legea bera, gurea baino askoz hobea delako, ofiziala erkidego guztian.

Ondokoarekin alderatzeko joera izaten dugu beti, ni ere horretan ari naiz, ez nuke hala ere, bata bestea baino hobea edo garapen hobea izan duela esateagatik, bata ona eta bestea txarra direnik esanahi, batak ez baitu bestea onzen. Direnak dira.

Miraz begirutzen diot 82ko Lege honi, zonifikaziorik egiten ez duelako eta gureak zonifikazioaz hitz egiten duelako, inon, guk dakigula, inongo legetan egin ez den gauza. Hizkuntzaren normalizazioaz ari diren legeak lurralde-tasunean edo norbanakoen eskubideetan oinarritzen dira, baina, Nafarroakoa ez batean eta ez bestean ez da oinarritzen.

Bekaizti, bekaizti naiz, Administrazioetik, edo nahi bada agintetik, egiten den diskurtsoarekin, azken hamar edo hamabost urtean Nafarroan egin den diskurtsoarekin zer ikustekorik ez duena. Nafarroan euskara gutxietsi egiten da agintearen aldetik, eta beste hizkuntza batzuen balioa euskararen gainetik jarzen da. Nafarroako Lehendakariaren eta zenbait alderditako buruen adierazpenak, Gobernuak hartzen dituen hainbat neurri edota epaile askok beren epaietan esaten eta idazten dituztenak begiratzea aski dugu horretaz jabetzeko.

Sentiberatze kanpainak egiten direla- eta inbidia dut.

EAEn, hainbat arlotan, erdietsi diren aurrerapenez ere bai. Administrazioan, arlo sozio-ekonomikoan, hezkuntzan, hedabideetan, teknologia berrietan... Nahi nuke horrelakorik Nafarroan.

Helduen Euskalduntze Alfabetatzekoekin harreman normalizatuak badirela ikustean, arloa gero eta gehiago laguntzen dela ikustean, nola ez dut, bada, horrelako sentipenik izanen. Nafarroan sortu berri den Euskararen Institutuarekin gauzak aldatzen hasiko ote diren itxaropena badugu. Itxaropena gauzak aldatzea nahi dugulako, ez, benetan, deus berririk ikusi dugulako

Inbidia, Euskararen Aholku Batzordeak funtzionatzen duela ikustean, Nafarroakoak ez bezala, lanak egiten direla ohartzean. Ikastetxeetan euskararen erabilera indartzeko planak EBPN udal-ereduekin uztartzeko txostena; Euskalduntze-alfabetatzea hobetzeari begirakoa; euskararen kalitatearen ingurukoa; esparru sozioekonomikoan euskara biziberritzeko estrategiak biltzen dituen...

**Etsipena**, etsipena ere, izan dut. Etsipenez begiratu dut, irakaskuntzako eredu guztiak euskalduntzeko balio ez izan arren, 25 urtez eutsi zaielako. Derrigorrezko hezkuntzaren bidez bermatua beharko zukeen euskararen jakitea. Pentsatzekoa litzateke 25 urtetik beherako gazte guziek jakin beharko luketela, ez badira, behintzat, azken urte hauetan iritsi hona.

Noiz aldatuko da ereduena? Hori askotan pentsatu izan dut. Etsipena horregatik esaten dut. Badakit zaila dela aldatzea, jende asko kontra dagoela, ez duela deus jakin nahi euskara ikasi behar horretaz, hezkuntzan tentuz, poliki eman behar direla pausoak, baina etsipena izan dut, politikiegi eman baitira pauso horiek. Nire ustez, hasiera-hasieratik behar zuen eredu bakarra, euskara haur guztiak ikastea bermatuko zuena. Nafarroako Legea, Vasuence-ren Legea, onartu aurrettoan, 1986ko urri-azaroan, EAB edo Euskararen Aldeko Batzordean, bertako legea zela-eta antolatatu ziren batzorde horietan, pentsatu zen interesgarria izan zitekeela Nafarroako Legea izanen zen horren

inguruan, nolabaiteko hausnarketa egitea. Horretarako, sozioliguista zenbait gonbidatu genituen, Arazil, Pitarch, Txillardegia eta Larrañaga oker ez banago. Pitarchek, jardunaldiaren ondoren esan zuen, lege batek, minimoki onargarria izan dadin, ziurtatu beharko lukeela lehen hezkuntzaren bukaeran guztiek euskara jakitea. Eta 25 urte eta gero, oraindik, ezin esan dugu hori.

Hala ere, oraintxe Miquel Gros i Lladósek *Recuperacion del euskara en Navarra* liburuan idazten duenez, eskolari esker euskara dakitenen ehunekoa asko handitu omen da Nafarroan. Lurralde honetan ere, D ereduak zabaltzeko dituen zailtasunak zailtasun, euskara jakitean aurreratzen ari gara nonbait. Liburu horretan jasotzen diren azken datuak 2001ekoak dira, geroztik, atzerri-tik etorritako haur eta gazte asko bizi da gure lurraldean eta hauetako gehien-tsuenak, A eta G ereduak indartzeko *erabili* dituzte eta, bitarte honetan, beste eredu bat ere, ingelesez, ezarri digute.

Haur eskolatik Unibertsitatera, irakaskuntza guztian, euskara ikasteko eskaera eskaintza baina askoz ere handiagoa da Nafarroan. Iruñean 11 haur eskola publikoetatik bi baizik ez dira euskaraz. Eskaintzaren %65 da gaztelaniaz, ingelesez %24 eta euskaraz, berriz, %11 besterik ez.

\* \* \*

**Amorrua** ere izan dut. Amorrua Biziberritzeko Plana abian jarri dutenean, aurretik zegoen *Bai Euskarari* egitasmoarekin uztartzeko gauza izan gabe, Bai Euskarari Euskal Herri guztiko udalerrietan martxan jartzeko baliagarri izanik. Nafarroan, Bai Euskarari Baztan, Barañain eta Sakanan abian da dagoeneko. Ez ote zen hobe elkarrekin adostea eta izatez ere osagarritasuna bilatzea?

Eusko Jaurlaritzak, lege honen garapenean-edo, *Euskaldunon Egunkaria* sortzekotan zegoenean, euskarazko beste egunkari bat sortuko ote zuen zebilenean, zer esanik ez. Eta ez bi egunkari nahi ez ditugulako, baizik eta une hartan zaila zelako bi egunkari bizi ahal izatea, oraindik batekin hasi gabe eta bigarrena egin nahi izatea.

Elebide sortzean ere, aurretik beste ekimen bat antzeko funtzioekin bazelarrik, sentimendu bera izan dut. Nolabait, herri ekimenetik hainbeste lan, ilusio, diru eta ahalegin jarrita egin diren edo erdietsi diren ekimen horien paralelo bat antolatzea da amorrarazten nauena.

\* \* \*

**HABE** eta helduen euskalduntzearen artean ere antzeko zerbait gertatu zen, hasiera hartan.

Lan horietan edo ekimen horiek aurrera eramaten aritu direnak aintzakotzat ez direla hartzen dirudi, eta administrazioaren ekimena normalizazioarako, ez, baizik eta aurretik dagoenaren gainetik egindako neurritzat ikusi izan dugu.

Galdera egiten dut, ez ote da posible denak elkar harturik ahalik eta proposamen, plan, plangintza edo eredu egokiena egitea? Gogo eta indar guztiak bat egitea?

\* \* \*

**Onuragarria.** Bai, zuzenean edo zeharka, onura ekarri digu. Nafarroan ere eragina izan baitu Euskararen Lege honek.

EGA titulua emateko eskumena Nafarroan bertako Gobernuaren menpe egotea ere, nolabait, lege honekin, edo bederen, EAEn euskara ofiziala aitortzearekin loturik dagoela uste dut.

Lege honi esker Nafarroako hainbat ikaslek beren ikasketak euskaraz egin ahal izan dituzte EAeko unibertsitateetan, bestela beste inon ezin izanen ziztuzten euskaraz egin goi mailako ikasketak. Honelako edo bestelako ikerketak egiterik ere izan dute, Jaurlaritzaren laguntzei esker.

Hizkuntzaren erabilera sustatzeko hain beharrezkoa den telebista ere lege honi zor diogu. Nafarroako Udal eta pertsona askoren ahalegin franko ere behar izan da, Nafarroako Gobernuaren oztupoak gaintuz, telebista euskaraz ikusi ahal izateko. Euskadi Irratia entzuteko ere aukera paregabea dugu, euskarazko irrati bati, Euskalerria Irratiari, lizentziarik ematen ez ditoten hirian.

Modu batez edo bestez, legearen babesean laguntza handiagoa edo txikiago jasotzen duten Berria eta aldizkari hau eta beste ere irakurtzen ahal dugu. Gauza bera esan dezakegu beste zenbait argitalpenez, aisia eta eskolarako material eta testuez,...

Nafarroan bada elkarterik, komunikabiderik, barnetegirik, eta abarrik lege honen bidez diru laguntza jaso duenik, zuzenean edota Euskara Elkargoaren bidez.

Ikerketa eta inkesta soziolinguistikoak egitea ere ahalbidetu du. EAEn egiten diren erabileraren inguruko sentiberatze kanpainak ere, bertarako ez ezik, Nafarroa eta beste lurraldeetarako ere ziur baliagarriak direla.

Zer esanik ez, Euskal Autonomia Erkidegoko Euskararen Lege hau dela eta hartu diren hainbat neurrik, Nafarroan ere, ekarri duela motibazioa handitzea eta euskara prestigioatzea eta baloratzea.

Polita da, CANek edo Nafarroako hainbat enpresek, beren publizitate eta lo-goetan euskara darabiltela ikustea, segur aski, neurri batean bederen, Eusko Jaur-laritzako 6/2003 Legeari, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutoari, esker.

\* \* \*

**Larriturik eta harriturik** ere hartu izan ditut zenbait gauza. Harritu ninduen ikaragarri Osakidetzako oposizioetan aurkezteko euskara jakin beha-

rrik ez izatea, izugarri larria iruditu zait hori. Behin eta berriz, agertu da egunkarietan horren aurkako salaketa. Harritu egin nau, euskara jakitea ez eskatzea, azken batean gaur egun sartuko diren langile horiek, langile erdaldun horiek, hor izanen ditugu luzerako, edo administrazioak horiek euskalduntzeko inbertsioa egin beharko du, gainerakoan beste 25 urtez Osakidetzak oraindik erdaraz funtzionatuko du.

Harrigarria, benetan zerbitzu guztiak euskaraz eskaini nahi baditugu.

2006an, 4300 lanpostutik gora eskaini ziren eta horietatik % 23ri besterik ez zitzaien eskatu euskara derrigor jakitea, hala ere, aurrera pausoa izan zen, lehenengo eskatu baitzen euskararen derrigorrezko ezagutza.

Herrizaingoari buruzko kexak ere maiz jaso izan dira Behatokian. Egunkarian, euskarazko bakarrean, salaketa eskutitzak frankotan argitaratzen dituzte, euskaraz ez dakitelako ertzain askok, edo jakinik ere, erdaraz erantzuten diotelako askotan hiritar euskaldunari, eta modu txarrean, gainera.

Administrazioan euskararen normalizazioa zein mantso ari den ohartzea ere ez da batere lasaigarria. Orain arte egin diren hiru Plangintzaldiek EAEn ez dute erdietsi ezarritako helburua bera ere. Jakina, Nafarroan arlo honetan egin dena hutsaren hurrengoa da.

Oraindik ere, euskararen herrian euskaraz jakin gabe lasai, inolako kezka eta ardurarik gabe, bizi daitekeela ikustean larritzen naiz. Eta alderantziz, euskaraz bizi nahi izatea edo euskaraz bizitzen saiatzea eragotzia dago, eta zigortua ere bai zenbaitetan.

\* \* \*

**Kezkagarria** oso, batzuetan, maizegi, legearen garapenak zenbait jenderengan sortu duen ezinegona. Oraindik, hizkuntzaren inguruko zenbait topikok bizirik dirautela ohartzea, askoren diskurtsoa entzutea. Funtzionario askoren jarrera ezin kezkagarriago eta lotsagarriago iruditzen zait, euskara ez ikasteko beren ahaleginetan. Sindikatu zenbait ere gogor aritu da, langileen eskubideen defentsan haien esanetan, baina, benetan, hiritarrok euskaraz atentidituak izateko dugun eskubidea urratuz. Bertendonakoa gogoratu behar ote dugu?. Horrelako jarrerak, EAEn ezezik, Nafarroan ere behin baino gehiagotan izan dituzte sindikatu horiek berek. Euskara jakitea eskatzea edota ikasteko aukera eta baliabideak ematea, bortxaketa eta jarrera diskriminatzailetzat jo dute.

Kezka, Nafarroako Gobernuak eta hemengoak elkarrekin izan dituzten edo izan ez dituzten harremanak, gaizki ulertzeak, ikustean. Kezka, azken batean, Euskal Herri osorako hizkuntza politika bat ez dugula ikustean. Pena, garai batean genituen helburuak oraindik ez ditugula erdietsi ikustean, garai batean genituen esperantza horiek ez direla bete dakusagunean.



Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiet Euskaltzaindiari eta Sabino Arana Fundazioari, Euskal Autonomia Erkidegoko Euskararen Legearen garapenaz aritzeko, Jardunaldi honetara gonbidatu izanagatik.

25. urteurrena azken helmuga ez denez gero, hausnarketarako parada baizik, **itxaropena** erantsi nahi diot hemendik aitzina egiten ahal denari begiraturaz.



## **EUSKARAREN LEGEA**

### **1982ko oinarrizko legea, euskeraren erabilpena araukotzekoa**

#### **Ipar Euskal Herriko ikuspegi bat**

*Erramun Baxok*

1982ko azaroaren 24ean, Carlos Garaikoetxea lehendakariak Euskadiko herritar guztiei agindu zeien euskararen erabilpena normalizatzeko oinarrizko legea bete dezaten. Legearen bi erreferentziak Espainiako Konstituzioa eta Autonomia Estatutua dira.

1978ko Espainiako konstituzioak dio «Gaztelania da Espainiako Estatuaren hizkuntza ofiziala. Espainiar guztiek dute gaztelania jakiteko egin-beharrak eta erabiltzeko eskubidea. Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien autonomia-erkidegoetan, beraietako estatutuekin bat etorririk». Hona zer dioen 1979ko Euskal Herriko Autonomia Estatutuak:

Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera, eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea (6. artikulua).

1982ko oinarrizko legearen ekarpen onak ezagun dira Ipar Euskal Herri-raino bederen hiru moldez:

- euskararen ofizialtasuna adieraziz,
- mugaz-gaineko lankidetzak bermatuz eta
- soziolinguistikazko plangintza eskatuz.

### **I. KOOFIZIALTASUNA JARRAIBIDE**

1982ko euskararen legeak, maiz bi hizkuntzen ofizialtasuna adierazten du: «Euskal Herriak euskara du berenezko hizkuntza (2. atala). Euskal Herriko Autonomia-Elkartearen hizkuntza ofizialak euskera eta gaztelania dira (3. atala). Nolazbait koofizialtasun hau jarraibide bilakatu da Iparraldean.

Euskaltzaindiak, 1994ko ekainaren 30ean Miarritzen egin zuen bilkuran aho batez onartu zuten Jean Haritschelhar euskaltzainburuak aurkeztu zuen

gutun bat Frantziako gobernuari eskatuz «euskararen ofizialkidetasuna eta euskaltzaindiaren aitorten ofiziala». Euskaltzaindiak aitorten ofiziala erdietsi zuen 1995ean onura publikoaren onespeneren bidez, dakigularik 1901eko legea onepen minimala dela.

Ofizialtasunari buruz gure itxaropenaren oinarria zen Eskualdeetako eta eremu urriko hizkuntzen Europako gutuna. Alabaina Frantziako gobernuak 1999ko ekainean izenpetu zuen Europako gutuna. Baina Errepublikaren presidentek eskaturik, Konstituzio Kontseiluak bere iritzia eman zuen eta 1999ko ekainaren 15ean erabaki hau hartu zuen:

Europako gutunak baditu Konstituzioaren aurkako klausulak.

Irabaki honek legearen indarra baitu, legebiltzarrak ezin du berretsi Europako gutuna bere osotasunean. Alabaina hiru printzipio badira onartezinak Konstituzioko 1. eta 2. artikuluen arabera, hiztunen eskubide kolektiboak, hizkuntza eskubidearen lurraldetasuna eta herri hizkuntzen erabilera publikoa. Hain zuzen ofizialkidetasun baten oinarriak lirakekeenak.

Halere, idazki berean, Konstituzio Kontseiluak onartzen du eskualdeetako hizkuntzek badutela toki bat eremu publikoan, adierazpen askatasunaren ize-nean. Aterabidea aurkituko da bi mugaren artean: alde batetik 1789ko Gizakiaren eta herritarraren eskubideen adierazpeneko 11. artikulua:

«herritar orok hitz egin dezake, idatz eta inprima askatasunez»; eta bestalde Konstituzioaren 2. artikulua «Errepublikaren hizkuntza frantsesa da». «Konstituziaren 2. artikulua ez du debekatzen itzulpenen erabilera, eta atal horren ondorioz ezin da baztertu adierazpen eta komunikazio askatasunak duen garrantzia irakaskuntzan, ikerketan, eta entzun-ikusizko komunikazioan».

Erran dezakegu Europaren eraginez, Euskadiko adibidea bame, Frantziako jokamoldea nolazbait aldatu dela eskualdeetako hizkuntzen onerako eta gaurregun «hizkuntza frantsesa eta Frantziako hizkuntzak» parekatzen direla ondare nazionalaren edukian. Adibidez garapen iraunkorraren eremuan 1999ko Voynet legeak definitzen du hizkuntza politika orokor bat:

ekintzak jarri behar dira abian frantsesaren sustapena eta hedapena bermatzeko, eta, orobat, erregioen nahiz gutxiengoaren kultura eta hizkuntzen babesa eta transmisioa ziurtatzeko.

Ondorioz Ipar Euskal Herrian euskararak ofizialtasuna erdiesteko baldintza *sine qua non* Frantziako Konstituzioaren aldaketa da, federazioaren eta kultura aniztasunaren norabidera. Aspaldidanik adierazpen askatasuna Konstituzioan dago eta berrikitan deszentralizazioaren printzipioa. Baina oraino herrikideen asimilazioa berdintasunaren aitzakian, aginte politikoaren batasun ezin zatitua eta Errepublikaren «monoglosia» printzipio indartsuagoak dira. Noiz arte? Anartean, Frantziako beste hizkuntzak bezala, euskara eremu publikoan sartua da, nola irakaskuntzan hala hedabideetan eta garapen egitarauetan, bai eta ere tokiko administrazio publikoan itzulpenen bidez eta frantsesa

baztertu gabe. Hots euskararen ofizialtasuna oraindik ez daukagu, baina publikotasuna hor dago, neurri batean bederen.

Lekuko Paueko Prefetak eta Euskararen rankunde publikoko (EEP) presidentek auzapezei igorri dieten gutuna:

bizitza publikoan euskararen erabilpenari doakion arau eta legezko esparruari dagokionez, argitu nahi dugu euskara erabil daitekeela frantsesaren parean, dokumentu, zigilu eta komunikazio euskarri ofizial ezberdinetan, balio juridikoa frantsesezko bertsioek bakarrik daukatelarik. Hau dela eta, euskararen presentzia sustatu nahi lukeen herriko etxe bakoitzari doakio bere jarduerak eta erabakiak libreki definitzea. Sustapen lan hori, euskararen behin behineko erabilpen batenzat edo elebitasun osora heltzeko helburuarekin eraman daiteke, gisa guztiz nahitezkoa delarik frantsesezko idazketa oso bat gitea.

Nabari da 1982ko euskararen legea Ipar Euskal Herrian jarraibide dagoela, botere publikoentzat ere. Ezin dute koofizialtasuna onartu. Baina euskararen aldeko antolaketan parte hartzen dute eta hizkuntza politika bat deramate eremu publikoan. Hau jarrera berria baita. Gainera Euskal Herria jarraibide bilakatu da Frantziako beste eskualdeentzat eta itsas-haindiko ugarteentzat. Frogatzat 2007ko azaroan Kanbon bildu den «Herri-hizkuntzen topaketa».

## II. MUGAZ GAINEKO LANKIDETZA

### Molde askotako lankidetzak

Idazki ofizialetan euskararen alorrean mugaz gaineko lankidetzak gutienez lau aldiz aipatua da. Bi aldiz euskararen legean, aitzin-solasean eta erabaki gehigarrietan, bi lekuetan kasik molde berean. Hona lehenengo erabaki gehigarria:

Jaurlaritza, bere agintepideen hesparruan, Autonomia Elkartearen mugartetik kanpo ihardun eta euskararekiko ikerlan, babes eta sustapen-ekintzapidetan ihardun dezaten, iraskundeen edo agintaritzen lankide izango da, horretarako kultura-atxikipenak antolatuz.

Baina jadanik 1976ko Gernikako Autonomia Estatutuak elkarlan hori ahalbidetzen du:

euskara beste euskal lurralde eta komunitate batzuetako ondarea ere izanik, erakunde akademiko (Euskaltzaindia) eta kulturazkoek beroriekin izan ditzaketan harreman eta loturez kanpo, Euskal Herriko Komunitate Autonomoak eskatu ahalko dio espainol Gobernuari lurralde eta komunitate horiek kokaturik daudeneko Estatuekin itunak eta komenioak egin ditzala (...) horretara euskara zaindu eta bultzatzen (6, 5. artikulua).

Denbora haietan mugaz gaineko harremanak Estatuetakoa gobernu zentralen artean lotzen ziren. Geroztik Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Ipar Euskal Herriaren arteko lankidetzak antola daitezke zuzenean. Zeren-eta Euro-

pako Kontseiluaren eraginez, lurralde-agintaritzen arteko mugaz-gaineko lankideratzako bi hitzarmen izenpetu ziren: Madrileko hitzarmen-markoa 1980ean eta Espainiako Erresumaren eta Frantziako Errepublikaren arteko Tratatu Baionan 1995eko martxoaren 15ean.

Bestalde Eusko Legebiltzarrak 1999an Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia berretsi zuelarik ebazpen gehigarri hau egin zuen:

Legegintzaldi honetarako koalizio-akordioak dioenez, «Nafarroako eta Iparraldeko erakunde pribatuekin eta publikoekin lankidetzan euskararen sustapena bultzatzea» eskatu nahi dio Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari. Hain zuzen ere, horretarako zeintzuk urrats eman dituen eta eman asmo dituen urtebeteko epean Legebiltzar honi adieraztea eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari (3. ebazpen gehigarria)

1979ko Gernikako Estatutua, 1982ko Euskararen Legea, 1999ko Hirugarren Ebazpena, euskarari buruzko lankidetzaz zabala aspaldidanik EAEko legediaren marmorean idatzia da. Iparraldearekin eraman den lankidetzak molde asko erakutsi ditu urteetan zehar. Hasieran eta bereziki Eusko Jaurlaritzan alderdi ez-abertzaleak ere zeudelarik, laguntzak puntualak ziren. Elkarrekin beren beharrak adierazten zituzten eta maizenik zerbait erdiesten zuten.

Geroxago, eta Mari-Karmen Garmendia Kultura Sailburu zelarik, diru laguntzak normalizatu ziren. Urtero deialdi bat egiten da, euskalgintza eta kultura-elkarrekin beren eskaera dozierra presta eta igor ditzaten. Iparraldeko elkarrekin beren eskaerak adierazten dituzte eta diru laguntzak lortzen Hegoaldeko elkarrekin baldintza berdinetan. Laguntza horretaz gehienik baliatzen diren egiturak dira hedabideak (Euskal Irratiak), aldizkariak (Herria, Maiatz) eta liburugintza, pedagogia tresnak (Ikas, AEK, Seaska), kultura elkarrekin (bertularitza, dantza) besteak beste.

Gaurregun laguntza normalizatuak jarraitzen du eta gainera Miren Azkarrate Kultura Sailburuarekin mugaz-gaineko hitzarmenen aroan sartuak gara. Garrantzizko aldaketa da, diru-laguntzatik elkarlanera iragaiten baikara eta elkarrekin harremanetarik erakunde harremanetara. Lehenago ere gertatu dira harreman instituzionalak, baina lehen salbuespena zena orain norma bilakatu da.

## **Lankidetzaz hitzartuaren historia**

1990ean bi erakunde sortu ziren Iparraldeko euskal kulturaren garapena baldintzatu dutenak: Euskal kultur erakundea (EKE) eta Euskal kultura sustengatzen duen herriarteko sindikatua (Herriarteko euskal sindikatua). Euskal kultur erakundearen administrazio kontseiluan daude Pizkundea federaziotik zetorren kultura elkarrekin 8 ordezkari bai eta 8 «zuzenbidezko kide», prefeta eta hautetsi batzu, botere publikoaren 4 mailak ordezkatzeko Estatua, Akitaniako eskualdea, Departamendua eta Herriarteko euskal sindikatua. Eta 16 admi-

nistratzaile horiek 3 urtetarik, 4 pertsona kalifikatu izendatzen dituzte, nolazbait oreka baketsu bat segurtatzeko. Hastetik eta orain arte Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako ordezkaria, Jose Mari Muñoa, aldi oroz eta aho batez hautatua izan da pertsona kalifikatu bezala. Aurrekontu eztabaidetan zailtasunak zirelarik Eusko Jaurlaritzaren laguntza eskaintzen zuen «Frantziak ezin badu»; ondorioz Errepublikak ere eskuzabaltasun gehixago erakusten zuen.

Euskal Sindikatuak, Eusko Jaurlaritzarekin eta TDF Frantziako hedabide-etarako erakunde publikoarekin hitzarmena izenpetu zuten igorgailuak eraikitzeko Euskal Telebista Ipar Euskal Herri osora heltzeko moldean. Lehen igorgailua Kanbon antolatu zen eta geroztik igorgailu sareak Iparralde osoa estaltzen du.

Kultura Sailaren beste ekimen bat aipatzekoa da: Literatura alorreko liburu-eruen banaketa. 1996an Kultura Sailak 6.500 bat liburu igorri zituen Iparraldera eta geroztik ere urtero hein bereko kopurua. Lehen urtean Euskal kultur erakundeak banatu zituen eta gero Herriarteko euskal sindikatua izan zen hartzaile ofiziala eta Ikas pedagogi zerbitzua banatzaile. Aurten Ikasek, 10. urtekari, bilan bat egin du. Banatu ditu 3.060 izenburu ezberdin, 59.000 ale. Aurtengo hartzaileak dira 20 herri liburutegi, 120 ikastetxe, 14 gau-eskola, 5 haurtzaindegi.

Lankidetzeta zabalago bat eratu zen Akitania-Euskadi-Nafarroa fondoaren hitzarmena izenpetu zelarik, geroztik bi hitzarmenetan zatitu zena. Akitania-Euskadi lankidetzarako fondoa 1991ko uztailaren 9an erabaki zen: «Ezin ahaztu Euskal Autonomi Elkarteareko herriarekin hizkuntza eta kulturako lotura bereziak dituen giza-talde bat kokatzen dela Akitaniako hegomendebaldean, berariz zaindu eta jardutea eskatzen dutenak». Lankidetzaren helburu nagusia ekonomia da, baina gai kulturalak tartean sartzen dira eta bereziki euskararen alorrekoak. Adibidez haur kantu xapelketa, irrati emankizunak, Seaskaren «euskaraz bizi kanpaina» eta soziolinguistikazko inkestak. Baldintza zorrotza hau da: fondoak laguntzen ditu Akitaniako egitura batek proiektu bat eramaten duelarik EAEko egitura batekin.

Ildo beretik doaz 4 soziolinguistikazko inkestak eta 3 hitzarmen nagusiak geroxago aztertuko ditugunak.

### III. SOZIOLINGUISTIKAZKO PLANGINTZA

Euskararen legeko 2. erabaki gehigarriak dio:

Jaurlaritzak, Euskal Herriko gizarte-hizkuntzazko egitamuketarako mapa egingo du, hori aldian-aldian Eusko Legebiltzarrari jakin erazi ondoren birrikuskatuz.

IVAPen bertsioak Euskal-Herriko plangintza soziolinguistikarako karta» aipatzen du. «Aldian-aldi» beraz molde jarraikian. Ohargarri da 2. erabaki gehigarri hau Euskal-Herriaz ari dela, 3.a Euskal Autonomia Erkidegoan mugatua delarik.

Atal honetan aztertuko ditut 3 gertakari andana, elkarrekin lotuak baitira:

- soziolinguistikazko inkestak,
- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia eta
- mugaz-gaineko hitzarmenak.

### **Soziolinguistikazko inkestak**

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 1986ko erroldaren bidez, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritzak Ikerlan bat agertu zuen: Soziolinguistikazko Mapa. 1986.urteko erroldaren araberrako Euskal Autonomi Elkarteko azterketa demolinguistikoa. Jarraian Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak lau soziolinguistikazko inkesta antolatu zituen 1991, 1996, 2001, 2006ko urteetan, hain zuzen «Euskararen jarraipena» aztertzeko Euskal Herri osoan. Odorioz bost urtetarik hizkuntza egoeraren argazki zehatza badugu: aldagai soziodemografikoak baliatuz badakigu zein den hiztunen hizkuntza gaitasuna eta euskararen transmisioa, euskara nola erabiltzen duten etxean, igurumen hurbilean, gizarte bizitzan, herritarrek zer iritzi eta jarrera duten euskarari buruz. Gainera aldi oroz galdetegia berdintsua baita, euskararen diakronia egin dezakegu inkesta batetik bestera.

Ipar Euskal Herri barnealdean ere ikerketa orokor bat egin zen 1987an Sü Haziak antolaturik eta SIADECO bulegoaren laguntzarekin. Euskara bizkortzeko proposamenak egin ziren, erreferentziatzat hartuz 1987-10-30ean Europako Parlamentuak onetsi zuen Kojpers erabakia. Jarraian Eusko Jaurlaritzarekin egin genituen 4 soziolinguistikazko inkestak, 4 gertakari nagusirekin pareka daitezkeenak.

1. Ikusi dugu nola 1990ean bi erakunde sortu ziren euskara eta euskal kultura sustengatzeko: Euskal Kultur Erakundea (EKE) eta Herriarteko Sindikatua. Hain uzen 1991ean egin zen lehen Soziolinguistikazko Inkesta eta ondorioak zabaldu ziren EKEk 1992ko urriaren 2an Irisarrin antolatu zuen ondarearen egunean. François BAYROU, Kontseilu Nagusiko buruzagiaren aitzinean erakutsi zen, Ipar Euskal Herria Lurralde euskaldunena zela baina euskara galtzen ari zela gazteetan. Hegoaldean hiztunak gazteago eta euskaldunago izanki euskal irakaskuntzari esker, Iparraldean hiztunak gazteago eta erdaldunago, euskararen aldeko egitarau baten faltaz. Orduan aipatu zen lehen aldikotz Hizkuntza Kontseiluaren beharra, euskararen aldeko antolaketa indartsu bat eramateko.
2. 1995ean bi erakunde sortu ziren Euskal Herri 2010 prospektibaren ildotik: Garapen Kontseilua eta Hautetsien Kontseilua. Bi urtez gogeatu ondoren, besteak beste, onartua izan zen Hizkuntz Antolaketa atala lau ardatz finkatuz: euskazko eta euskararen irakaskuntza, euskal toponimia, euskal komunikabideak eta euskararen erabilera zerbitzu publikoetan. (*Ikus eranskineko 2. lerroaldea*).



1996ko Soziolinguistikazko Inkesta egin zen INSEE estatistika erakunde ofizialaren laguntzarekin eta erakutsi zuen Iparraldean euskaltasuna gain behera zoala abiadura handian. Zenbakien arabera bost urtez 13.000 euskaldun gutiago kondatzen zirela. Orain badakigu katastrofe hori metodologikoa zela eta ez demolinguistikoa. Bainan orduan ezin ukatuzko argumentua izan zen hizkuntza antolaketaaren alde:

ikus zer aitzinamendua gertatzen den Hegoaldean hizkuntza politikari esker, Iparraldean euskaltasuna lurrera doalarik hizkuntza politika baten faltaz.

Hegoaldean ere, inkestaren eraginez, hizkuntza politikak itxura berri bat hartu zuen, Euskara biziberritzeko Plan Nagusiarekin. Txosten hori prestatzean, lehen ariketa izan zen inkestaren azterketa, diagnosis konparagarri bat eginez Iparraldea eta Hegoaldearen artean.

3. 2001ko inkesta ere momentu estrategiko batean egin zen, aldi honetan ere INSEE erakundearen laguntzarekin, elkarlan honek ikerketari ofizialtasun zerbait ekartzen baitzion. Hain zuzen 2000. urteko abenduaren 22an, Estatuak eskaini zigun «Hitzarmen berezia Euskal Herri 2001-2006» hamar ataletan. Eta lehen atalburua zen «Hizkuntza politika», esamolde hau lehen aldiz erabilia baitzen idazki ofizial batean. Hamar ekintza zerrendatuak dira lehena Hizkuntza Kontseilua» izanki. Euskalgintzako eremu asko programatuak ziren, Euskaltzaindia, pedagogia, euskal iratiak, ikerketa, besteak beste. Baina ez euskal irakaskuntza (*Ikus eranskineko 4. lerroaldea*). Eta inkestak erakutsi zuen euskararen gain behera gelditua zela adin multzo gazteenean, bereziki eskolaren bitartez. Beraz indar berri bat egin behar zela irakaskuntzaren alorrean.
4. 2004ko abenduan Euskararen Erakunde Publikoa (EEP) sortu zen tokiko hautetsien eraginez, eta 2006an Hizkuntza politika proiektua onartua izan zen, 4. Soziolinguistikazko Inkesta barne. Berrikuntza handia izan da Hezkuntza ministeritzak Kontseilu nagusiarekin sinatu duen hitzarmena euskal irakaskuntza antolatzeko. Ondorioz euskararen eta euskarazko irakaskuntza da hizkuntza politikaren helburu nagusi bat. EEPk bere gain hartu zuen 4. inkesta eramatea INSEEn lagina erabiliz eta SIADECoren laguntzarekin. Ondorioak hurbilagotik aztertuko ditugularik, hobeki ikusiko dugu hizkuntza politikaren eta «Euskararen jarraipena IV» inkestaren arteko parekotasuna. Anartean inkestak frogatzen du lankidetzaren eraginkortasuna.

### **Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia**

Plangintza idazki hau da inkesta soziolinguistikoen ondorio baliosenetako bat da. Txosten hori prestatzean, lehen ariketa izan zen inkestaren azterketa,

diagnosia konparagarri bat eginez Iparraldea eta Hegoaldearen artean. Plan Nagusia idatzi zelarik, bai Nafarroak, bai Ipar Euskal Herriak parte hartu genuen Kultur Sailako Hizkuntza Plitikarako Sailburuordetzak eraman zuen lanetan.

Hiru lurraldeetako hizkuntza egoerak aztertu dira, lurralde bakoitzeko indarguneak eta ahulguneak neurtuz. Agintaritza bakoitzaren gain utziz hartu behar diren neurriak hiru ardatz estragikoren inguruan:

- familia eta eskola bidezko euskararen transmisioa,
- gizarte erabilera eremu publikoan eta pribatuan eta
- hizkuntzaren kalitatea hobetzeko baliabideak.

Eusko Jaurlaritzak 1998ko uztailaren 28an onartu zuen Plan Nagusia, gero Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak, 1999ko abenduaren 10ean berretsi zuen (*Ikus Eranskineko 3. lerroaldea*).

#### **IV. HIRU HITZARMEN NAGUSIAK**

Gaurregun hiru hitzarmen nagusi badira Ipar Euskal Herria eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean, euskararen eta euskal kulturaren alorretan:

- Euskal kultur erakundea eta Kultura Sailaren arteko hitzarmena,
- Baionako Protokoloa eta
- Euskararen erakunde publikoa eta Hizkuntza Politika Sailburuordetzaren arteko lankidetzahitzarmena.

##### **1. Euskal kultur erakundea eta Kultura Sailaren arteko hitzarmena (2003)**

Atal burua: Eusko Jaurlaritzako kultura sailaren eta Euskal Kultur Erakundearen arteko elkarlan hitzarmena. Hitzarmena 2003ko, urriaren 18an izenpetu zen. Sinatzaileak Miren Azkarate, Kultura Sailburua Eusko Jaurlaritzaren izenean eta ordeztuz, eta Erramun Bachoc elkarteburua, Euskal kultur erakundearen izenean eta ordeztuz. Erreferentziazko idazkia da EKEren araudia-ren 4. artikulua helburuak finkatzen dituena: animazioa, ikerketak, harremanak euskara eta euskal kulturaren alde; sustengu eraginkorra eta sortzailea euskal kulturaren alor guztietan; elkar-teekilako lankidetzak.

Hitzarmenaren helburua da Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal kultur erakundearen arteko lankidetzarako esparrua zehaztea eta Kultura sailaren bitartez EKEren ekintzak garatzea: aktoreen formakuntza, sorkuntzaren sustapena, kulturaren hedapena eta ondarearen balorapena; elkartearen eta aktoreen trukaketak Euskal Herri osoan, hizkuntza zerbitzuen arteko harremanak. Jaurlaritzaren ekarpena, 30.000 eurokoa zen 2003an, urtero erreberri ere emenda daitekeena.

Hitzarmenak ekarri duen aitzinamendua da, laankidetza publiko bat antolatzea, Hegoaldeko egitura politiko baten eta Frantziako botere publikoaren lau mailetakordezkariek osatzen duten erakunde baten artean. Ikerketa juridiko zehaz baten ondotik gauza egingarria zela agertu zen, eta beste hitzarmen hau beste batzuren eredu bilakatu zen.

## **2. Baionako Protokoloa (2003)**

Izenburua: Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Obragintza Publikoko Herrialdeko Frantses Erakundearen Protokoloa, hizkuntz-politikako gaietan lankidetzan jarduteko, Baionan 2003ko irailaren 3an.

Erreferentziatzko idazkiak egitarauen eranskinean zehaztuko ditugu.

### ***Zein zen hizkuntza politikaren egoera?***

Euskal Autonomia Erkidegoan 1999an Eusko Legebiltzarrak berretsi zuen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, eta denbora berean, 3. ebazpen gehigarrian euskara sustatzeko lankidetzan abian jarri zen Nafarroarekin eta Iparraldearekin.

Ipar Euskal Herrian ere euskararen aldeko mugimendua aitzina doa: 1997an Garapen Kontseiluak proposaturik, Hautetsien Kontseiluak onartu zuen Euskal Herriko antolaketa eta garapenaren eskema, bereziki 4. kapitulua «Hizkuntza Antolaketa». 2000.urteko abenduaren 22an Euskal Herriko 2001-2006 Hitzarmen Berezia izenpetu zen, 1. kapitulua «Hizkuntza politika», hamar lan-lerroekin. Sinatzaileak ziren Estatuak, Eskualdea, Departamendua, Hautetsien Kontseilua, Baiona-Angelu-Miarritze hiri elkargoa.

Egitarau guztia eramateko, Obragintza publikoa sortu zuten sinatzaileek gehi Herriarteko Euskal Sindikatuak. Obragintza publikoak erabaki zuen elkarlan hitzarmen bat izenpetzea Eusko Jaurlaritzarekin. Baina Obragintzak ez baitzuen egitura juridikorik, bazkide bakoitzak izenpetu behar zuen eta izenpetu dute, salbu Frantziako Estatuak «goragoko maila batean zegoelako».

### ***Zein ziren hitzarmenaren adierazpenak?***

1. Hitzarmenaren helburu nagusia da mugazgaineko lankidetzan euskarari onerako hizkuntza politika «herri-erakunde bakoitzaren erabaki-autonomia eta funtzionamendu-arauak errespetatuz».

2. Lankidetzeta-lerroak dira Plan Nagusiaren eta Hitzarmen Bereziaren artean dauden helburu berdinak: euskararen transmisioa, erabilera, hedapena eta kalitatea.
3. Harreman jarraikia beharrezkoa da informazioak trukatzeko Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta Ipar Euskal Herriko Obragintza Publikoaren artean, hitzarmenaren gaietan bai eta ere «beste arlo jakin batzuetan».
4. Gainera sinatzaileak ados dira elkar ezagutzeko eta «elkarren arteko adiskidetasuna» garatzeko daukaten nahia adierazteko.
5. Elkarren artean lan talde bat izendatuko dute, hitzartu denaren jarraipena segurtatzeko, arduradunak direlarik HPSko Koordinazio Zuzendaria eta Hitzarmen Bereziko Hizkuntza Politikaren batzordea.

### ***Hiru urteren bilana***

Protokoloaren bilana biziki baikorra da. Alde batetik partaideen artean konfiantzazko harremanak lotu dira, bai hautetsien artean, bai eta ere lantaldeen artean. Jarraipen Batzordeak hitzartu arauak eta irizpideak errespetatu ditu. Oro har «Nafarroa-Iparalde» proiektu deiak eta Hitzarmen bereziko laguntzak gehituz, hiru urteetan 4 milioi euro baino gehiago mobilizatu dira, kopuru horren %19 EAetik etorri direlarik, hitzarmenetik kanpoko laguntzak bestalde.

Halere beste akordio bat eraikitzeko beharra agertu zen. Iparraldeko antolaketa, egitura juridikorik gabeko Obragintza Publiko batetik legezko izatea daukan Euskararen Erakunde Publikora iragan da, hizkuntza politika osoa bere gain hartzen duena, agintetza guztien partaidetzareki, (estatua barne) eta euskalgintzako eragileak biltzen dituen Aholku Batzordearen laguntzarekin. Orain bi partaideak ongi identifikatuak dira.

Bestalde 1983ko Protokoloa Hitzarmen Bereziko egitarauan mugatua zen. Erakunde Publikoaren helburuak zabalagoak dira hizkuntza politika orokor bat definitzeko eta obratzeko ahala duen neurrian. Baldintza egokia zen mugaz bi aldeko erakunde publikoentzat hizkuntza politika indartsuago bat hitzartzeko.

### **3. Euskararen Erakunde Publikoa (EEP) eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren (HPS) arteko hitzarmena (2007)**

2007ko otsailaren 7an Baionan izenpetu den hitzarmenaren izenburua da. 2003ko protokoloaren antzekoa da, baina orain Iparraldeko erakundeak badu

egitura juridiko bat Onura Publikorako Batzorde (GIP) moldean. Helburua berdina da, «hizkuntza-politikarako gaitan lankidetzan jarduteko».

Atariko luze batean oinarri juridikoak finkatuak dira:

- Madrileko Hitzarmen-Markoa (1980) eta Baionako Tratatuak (1995)
- 1999 - 12 - 10ean Eusko Legebiltzarrak egin zuen 3. ebazpena.
- Ipar Euskal Herriko Hitzarmen Berezia (2000).
- Hizkuntza politikarako obragintza publikoa biltzeko erabakia(2001).
- Euskararen Erakunde Publikoa sortzeko erabakia (2004).
- Baionako Protokoloa (2003).

Bi aldeen xedea da lankidetzaren instituzional baten norabideak finkatzea, onartuz bien arteko lankidetzaren honek eskatzen duela kudeaketa «bakarra baina koordinatua» eta hitzartua, bakoitzak bere eremuetan gauzatuko duena. Beste harremanetan ere Europako Legebiltzarrak 1992an definitu zuen «auzokide onen arteko jokatubidea» izanen dela elkarrekilako izpiritua.

Izenpetzaileak dira Miren Azkarate Kultura Sailburua eta Max Brisson Euskararen Erakunde Publikoaren presidentea. Aitzin-solas juridikoaren luzetasunak erakusten du izenpetzaileek hitzarmenari ematen dioten garrantzia.

### ***Zein dira hitzarmenaren adierazpenak?***

1. Xede nagusia, Baionako Protokoloan bezelakoa da: lankidetzaren euskararen onerako hizkuntza politikan «herri-erakunde bakoitzaren erabaki-autonomia eta funtzionamendu-arauak errespetatuz».
2. Elkarlanaren irizpideak bi alderdiek adierazten dute:
  - mugaz bi aldeetako ezaugarri juridikoen errespetua;
  - hizkuntza politika publikoa bultzatzeko tresna izatea;
  - euskara, elkarrekin daukagun hizkuntza, atxik eta aitzinaraz;
  - elkarren arteko ezagutza hobea eta adiskidetasuna;
  - harreman jarraikiak oraingo eta geroko ekimenak bermatzeko.
3. Bi erakunde publikoek eraman ditzaketen jarduerak, lankidetzaren eremuak eta lan-lerroak zehazterakoan EEPren hizkuntza politika proiektuan agertzen diren 4 erronka nagusiak hartu dituzte erreferentziatzat: Euskararen transmisioa, erabilera, kalitatea eta euskararen aldeko motibazioa (*Ikus eranskinen 6. lerroaldea*).
4. Urteko Eranskina, elkarlana zehazteko tresna da. Hitzarmenak diraueno, urte bakoitz eranskin bat gehituko da bi atal nagusirekin: elkarlanerako ekimenak eta Iparraldeko eragileei buruzko sustapen lerroak. Elkarlanerako ekimenak egitarau zehatz batean sartuko dira, alderdi bakoitzak zehazten dituela bere ekimenak, baliabideak, eginbeharrak.

Ipar Euskal Herrian euskalgintzan diharduten eragile pribatuei buruzko diru-laguntza banatzeko moldea ere zehaztuko da Urteko Eranskinean. Molde bateratua. Lehenik bi alderdiek dirulaguntzaren fondoa eratuko dute bien ekarpenak definituz. Gero deialdi bakarra egingen da Iparraldeko eragileentzat eta Euskararen Erakunde Publikoak segurtatuko du dirulaguntza deialdiaren kudeaketa. «Leihatila Bakarraren» printzipioa erabiliko da. Erran nahi baita orain arteko hitzarmen bereziak, Seaskarekin, Ikasekin, Ikas-Birekin eta besteak beste, denbora berean eta molde berdinean tratatuko direla. Eusko Jaurlaritzaren presentzia agertuko da deialdiaren urras guztietan, egitasmoen balorazioan, hautatzeko epaimahian, komunikabideetan.

5. Hitzarmenak balio du 2007tik 2010arte, eta gero ere jarrai daiteke. Jarraipenerako Batzordeak bi maila dauzka, politikoa eta teknikoa.

Gidaritza Batzordean daude bi erakunde publikoen buru diren administratzaileak eta zuzendariak, bai eta ere alde batetik Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Ordezkaria eta Bestaldetik Baionako Suprefeta. Batzorde politiko hau, gutxienez urtean behin bilduko da, hitzarmenaren jarraipena segurtatzeko, iragan urteko balantzea aztertzeko, aurtengo egitasmoa onartzeko.

Batzorde teknikoan bi erakundeetako teknikariak, HPSko koordinazio zuzendaria eta EEPko zuzendariaren agindupean. Lan-bilkurak antolatuko dira hitzarmenaren jarraipen egokiak eskatzen duen aldi oroz.

6. Bi alderdiek errespetatuko dituzte bakoitza bere lurraldean indarrean dagon diru publikoa erabiltzeko araubideak. Eta hitzarmena izenpetu dute frantsesez eta euskaraz «biak ere balio berekoak izanik».

### ***Oraindik bilan bat?***

Urte bat laburregi da bilan bat egiteko. Halere erran dezakegu hitzarmen hau 1982 legeak lehenengo erabaki gehigarrian aipatzen duen lankidetzaren tresna bikaina dela. Nazioarteko zuzenbidea eta estatuetao legediak errespetatzen ditu. Mugaz gaineko bi erakunde publikok euskararen aldeko hizkuntza politika indartsu bat deramate, behar diren baliabideak mobilizatuz. Oraino ez aski, baina inoiz baino gehiago.

«2003ko protokoloa eta 2007ko hitzarmena konparatzen direlarik, bien arteko ozka kalitatiboaz azpimarragarria da: protokoloan informazioak elkar trukatzeko genituen et gure abisua hartzen zuten diru laguntzak banatu aitzin, baina erabakitzeo prozedurak bereiz egoiten ziren da. Aldiz hitzarmenean lan ardatz amankomunak finkatzen dira, eta proiektuak elkarrekin obratzen dira. Bestalde fondo bat eraiki da eta fondo horren kudeantza batek du egiten bien

izenean. Mugaz bi aldeetako partaidetza instituzionaletan bekan ikusi dugu horrelako dispositiborik» dio Jean-Claude Iriart, EEPko zuzendariak. Bi hitzarmenen arteko berdintasuna da elkarlanak sortzen duen adiskidetasuna. Beraz lankidetzaren honek irauteko baldintza guztiak betetzen ditu.

## V. BIDENABARREKO GOGOETA

Euskararen legearen ekarpen onak ezagun dira Ipar Euskal Herriraino:

- ofizialtasunaren zeharkako eragina,
- mugaz-gaineko lankidetzaren antolaketa,
- euskara biziberritzeko plangintza hitzartua.

1. Ofizialtasunaren adierazpenak oihartzun handia dauka Iparraldean, ez bakarrik euskalgintzaren deiarretan, bai eta ere Pariseko gobernuraino adibidez Euskaltzaindiaren bitartez. Denbora berean Europako gutunak ere eztabaida aitzinarazi zuen. Hainbestetaraino non, eremu publikoan toki bat onartzen baitzaie Frantziako herri-hizkuntzei eta parekotasun bat hizkuntza frantsesarekin «ondare nazionalean». Iparraldean irakaskuntza eta administrazio elebidunak aitzina doaz, Hegoaldeko adibidea begi bistan baitago.
2. Mugaz-gaineko lankidetzaren 25 urtez gero eta indartsuago izan da: Eusko Jaurlaritzaren diru languntzak, inkesta soziolinguistikoak, liburu banaketak, ETBren igorgailuak, Akitania-Euskadi fondoak. Lankidetzaren horrek, beste elkarlan asko sustatu ditu, irratien artean, aldundiekin, udaletxeekin, elkarleen artean. Baionako Tratatu dela-ta, Baionako Protokoloa dela-ta, gaur egun badugu erakunde publikoen artean, mugaz-gaineko hizkuntza politika bateratua. Gainera herri-hizkuntza beraren maitasunez, «kultura-atxikimenak» lotu dira, «auzo onen arteko adiskidetasuna» adieraziz.
3. Eranskinean euskara bizkortzeko egitarauak konparatu ditut. 1982ko legearen 2. erabaki gehigarriaren arabera «Jaurlaritzak, Euskal Herriko plangintza soziolinguistikorako karta egingo du». Legearen aurkibidea abiapuntutzat hartuz beste bost egitarau zerrendatu ditut. Euskara Biziberritzeko Plan nagusia eta Iparraldeko hiru egitarau. Elkarren artean badute antzekotasun handia, eta nolazpaiteko ahaidetasuna. Egia da bi aldeetan diharduten hizkuntza politikak, 25 urteren buruan, uztartu direla 2007ko mugaz-gaineko egitarau hitzartuan.

Kritikak ere sortu ditu, ez baitira beti baikorrak. Eten gabeko eztabaida hor dago legalisten eta boluntaristen artean. Legalistek diote Estatuaren gain dela arriskuan den hizkuntza zaintzea eta ofizialtasuna beharrezkoa dela. Legeak ez badu euskalduntzen, egin beste lege bat eta ofizialtasunik ez bada beste guztia iruzurra da. Erreferentziak dira Quebec, Katalunia, Israel.

Boluntaristek diote euskarak milaka urte iraun du legerik gabe. Legea zertarako? Ikus zer gertatu den Irlandan: 85 urtez hizkuntza lege hobereana, 85 urtez independentzia eta denbora berean jatorrizko gaeldunen kopurua 400.000tik 40.000ra jautsi da. Hiztunen gain da hizkuntza zaintzea. Suisarrek diote: «Hizkuntza legerik hobereana legerik eza da».

Legalisten eta boluntaristen artean bide zuzena bien artekoa da. Legeari eskatu behar zaio eman dezakena: eskola bidezko transmisioa, erabilera publikoaren eskaintza zabala eta hizkuntzaren kalitatea hobetzeko baliabideak. Euskararen legeak guzti hau egiten du. Eta elebidunak sortzen ditu, beraz hizkuntza bat edo bestea erabiltzeko ahalmena eta askatasuna. Zein hizkuntza erabil, hori hiztunen motibazioaren gain da.

Ipar Euskal Herrian hizkuntza lege baten behar gorria ikusten dugu eta ofizialtasunaren falta pairatzen dugu. Alor juridikoan ere borrokatzen gara. Anartean euskararen legeaz baliatzen gara, bereziki guretzat eginak diren bi erabaki gehigarrietaz. Eta Hegoaldearekin mugazgaineko lankidetzara eraginkorra jarraitzeko xedea dugu. Egungo ospakizunaz baliatzen gara gure esker hoberenak adierazteko Hegoaldean dauzkagun lankideei eta laguntzaileei.

Prospektiba bat asmatzea arriskutsua da. Ondorioak ez dira berehala agertzen. «Denborari denbora eman behar zaio». Dena dela, euskara biziberri-zeko urraspidean, uste dut, eta azken inkesta soziolinguistikoak holako zerbait erakusten omen du, euskararen legeak bermatzen duen lankidetzari esker, irabazten ari garela Euskal Herri Kontinentalean ere.

\* \* \*

## ERANSKINA

### Egitarauak urratsez urrats

Eranskin honetan agertzen dira, ordena kronologikoan, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Ipar Euskal Herrian eragin handia daukaten idazkiak. Ahaidetasun nabaria dute elkarren artean, euskara bizkortzeko borondate beraren eta elkarlanaren lekukoak baitira. Abiapuntuan dago 1982 legearen 2. ebazpen gehigarria «Jaurlaritzak, Euskal Herriko plangintza soziolinguistikorako mapa egingo du eta aldiari berraztertuko, Eusko Legebiltzarrari jakinarazi ondoren».

#### *I. 1982ko euskararen legea (aurkibidea)*

1982ko legeak, aitzin solasean, erakusten digu euskaren aldeko hizkuntza politikaren urraspidea.

1. tituluak hizkuntzen ofizialtasuna finkatu ondoren, herritarren hizkuntza eskubideak eta botere publikoen eginbideak zerrendatzen ditu.
2. tituluaren botere publikoaren jarduerak aipatzen dira alorrez alor.



1. kapitulua: euskararen erabilera administrazio publikoan:
    - dokumentu publikoen idazkera bi hizkuntzetan;
    - justizia administrazioan hizkuntza aukeratzeko ahalmena;
    - toki-izen ofizialak, Euskaltzaindiaren aholkuarekin;
    - garaioetako komunikazioak bi hizkuntzetan;
    - itzultzaile zerbitzu ofiziala;
    - administrarien euskalduntzeko neurriak;
  2. kapitulua: euskararen erabilera irakaskuntzan:
    - ikasle guztiek bi hizkuntzetan ikasiko dute;
    - ikastegietan erabili beharreko hizkuntz ereduak;
    - bi hizkuntzak erabiltzeko gaitasuna, nahitezko ikasketen bukaeran;
    - irakasleen formakuntza;
  3. kapitulua: euskararen erabilera komunikabideetan:
    - albisteak bi hizkuntzetan;
    - euskararen lehentasuna Autonomia Elkarteko hedabideetan;
    - EITB;
    - Euskararen zabalera irratian, aldizkarietan, zineman, entzun-ikusgaietan;
  4. kapitulua: euskararen gizarte-erabilpena:
    - gizarte-bizitza alor guztietan erabiltzeko sustapena;
    - merkataritza, kultura, kirolak, erlijioa, publizitatea, elkarteak;
    - helduen euskalduntzea eta alfabetatzea;
    - erabileraren erabilpena normaltzeko harreman-saila.
- Erabaki gehigarriak:
- lurraldez kanpoko lankidetzak eta kultura-atxikipean;
  - Euskal Herriko plangintza soziolinguistikorako mapa;
  - Autonomi Elkarteko administrazioan euskara normalizatzeko neurriak.

## ***II. 1996ko hizkuntz antolaketa (laburpena, 58. orrialdean)***

Euskal Herria 2010 eta Lurraldea egitasmoek nabarmendu dituzte euskal kulturaren nortasunari loturik diren erronkak, hots, modernitate vs ohitura bikoiztasunaren aterabideari buruzkoak. Iluspegi honetan, Euskal Herriko Hizkuntz Antolaketa oinarritzko euskarri gisa agertzen da, kultur antolaketarekin osatuz.

Honek guztiak hizkuntz antolaketa orokor bat asmatzera eraman gaitu. Lanerako lau ardatz finka daitezke:

- euskarazko eta euskararen irakaskuntza, eta helduen alfabetatzea;
- seinaleak eta euskal toponimia;
- euskal komunikabideak;
- euskararen erabilera zerbitzu publikoetan.

Lehentasuna duten norabide hauei esker, euskararen aldeko zutabeak eraik daitezke, ofizialki onartuz nortasun hizkuntzak hartze duen oinarritzko estatutua: «Euskal Herriaren hizkuntza euskara da».

### ***III. 1999ko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (49. orrialdean)***

#### *Helburu nagusia*

Euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza politikarako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.

#### *Hiru helburu estrategiko*

1. Euskararen ondorengoetaratzea, belaunez belaun eta etenik gabe.
  - Irakaskuntza, ikas-ereduak eta irakasleen formakuntza.
  - Euskalduntze-alfabetatzea.
  - Familia bidezko jarraipena.
2. Euskararen erabilera, euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza.

Datozen hamar urteotako erronkarik nagusiena, belaunaldi berrietako euskaldunentzat heldu-aroko erabilera-eremuetarako atsegin eta gaztelania bezain baliozko egitean datza. Horretarako euskarazko zerbitzuen eskaintza eskolatik haruntzago eraman eta beste erabilera-eremu berezi eta garrantzizkoetara zabaldu behar da:

- Administrazioa.
  - Gune euskaldunenak.
  - Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak.
  - Enpresa mundua.
  - Aisia, kirola.
  - Erljioa.
3. Euskararen elikadura.

Hizkuntza eroso eta erraz hitz-egiteko elikatu egin behar da, liburu, irrati, aldizkari, egunkari, telebista eta abarren bidez.

- *Corpus*-plangintza eta euskaren kalitatea.
- Liburugintza.
- Irratia, telebista.
- Publizitatea.
- Kulturgintza.

### ***IV. 2000ko hitzarmen berezia (12. orrialdean)***

2000ko abenduren 22a, frantses estatuak, Akitania eskualdeko Kontseiluak, Pirinio Atlantiketako Kontseilu Nagusiak, Baiona-Angelu-Miarritze hiri

elkargoak eta Euskal Herriko Hautetsien Biltzarrak, Euskal Herriko Hitzarmen Berezia 2001-2006 izenpetu zuten eta bereziki hizkuntz atalari buruz engaiamenduak hartu zituzten hamar lan-lerro obratzeko:

1. Hizkuntza Kontseilua eratzea;
2. eskola bidezko euskararen transmisioari buruzko sentiberatzea;
3. euskararen erabilera aisialdian eta eskolaz kanpoko ekintzetan;
4. eragileen profesionalizazioa, formakuntza jarraikiaren bidez;
5. Euskaltzaindiaren ikerketa egitaraua languntzea;
6. Iker, euskarari buruzko ikerketa-zentroa Baionan kokatzea;
7. Euskarazko ikas-materialgintza segurtatzea;
8. Euskaraz diharduten hiru irratiak proiektu batean biltzea eta irrati-telebista publikoan euskararen erabilera sustatzea;
9. ETB lurralde osoan baldintza egokian hartuko dela segurtatzea;
10. Euskararen erabilera bultzatzea Interneten.

2001ean Hizkuntza Politikarako Oragintza Publikoa sortu zen (aipatu aginteekin) Herriarteko Euskal Sindikatua barne. Egitura honek hizkuntza-politikaren norabideak definitzen ditu, baliabideak eskaintzen, bideratu eta sustatu behar diren proiektuak finkatzen, Hizkuntza Kontseiluaren aholkuarekin.

Hitzarmenak egiten ditu eragile pribatuekin eta publikoekin zerrendan dauden lan-lerroak obratzeko. Obragintza Publikoaren gidaritza batzordeak mugaz-gaineko lankidetzaz Eusko Jaurlaritzarekin hitzartzea erabaki zuen 2003ko martxoaren 18an.

#### ***V. 2006ko hizkuntza politika proiektua (laburpena, 15. orrialdean)***

Testuinguru soziolinguistikoa kontuan hartzearen ondorioa da lema hau, egitasmo osoaren egiazko iparrorratza dena, eraikuntza eta obratzea gidatuz:

- Helburu nagusia: hiztun osoen kopurua emendatzea.
- Lehentasuna: belaunaldi gazteengan apostu egitea.

Egitarauaren hiru zati nagusitan, 12 erronka banatuak dira, bakoitzak dauzkala bere norabide estrategikoak, lan ardatzak eta adierazleak.

#### *Hizkuntzaren transmisioari lotuak diren 3 erronka:*

1. Familia euskararen transmititzeko tresna estrategiko gisa mobiliza.
2. Lehen haurtzaroko egiturekin eta profesionalekin, hizkuntzaren transmisioaren zurrakaitz izanen den euskarazko zerbitzu eskaintza plantan jar.

3. Irakaskuntza: euskararen transmisioan baitezpadako tresna bilakatu den eskolan, hizkuntzaren irakaskuntza garatu eta egituratu, euskara aldi berean hizkuntza irakatsia eta irakaskuntzarako hizkuntza izanki.

*Hizkuntzaren gizarte-erabilerari lotuak diren 5 erronka:*

4. Hedabideak euskara gizartean biziartzeko eta hizkuntzaren maila hobetzeko tresna bilakarak.
5. Aisialdi uneetan euskararen erabilpena sustatuz, hizkuntza eta gozamenaren uztar.
6. Euskarazko argitalpen kate eraginkorra egituratu, argitalpen eskaintza erakargarria eta eskura erraza jendetaratzeko gisan.
7. Toponimia, euskara agerian jartzeko eta publiko berri bat euskarara erakartzeko aukera gisa balia.
8. Gizarte euskaldundu, euskal hitzunik hizkuntza bizi sozialean baliatzeko, entzuteko eta ikusteko aukera ukan dezaten.

*Hizkuntzaren bizkortasunari lotuak diren 4 zeharkako erronka*

9. Helduei, euskara ikasteko eta hobetzeko aukerak eskainiz, euskararen erabilpen pribatua zein profesionala susta.
10. Hizkuntzaren kalitatearen alde etengabeko indarrak egin, euskara irakastea, baliatzea edo zabaltzea.
11. Ikerkuntzaz balia hizkuntzaren kalitate maila goratzeko, hizkuntza politikaren egokitasuna indartzeko eta hizkuntzaren zabalkuntza emendatzeko.
12. Motibazioa piztu, indartu eta egonkortu, euskara ikasteko, baliatzeko eta jarraitzeko dinamika iraunkor bat jendartean sartzeko gisan.

**VI. 2007ko mugaz-gaineko egitarau hitzartua (8. orrialdean)**

Mugaz bi aldeetako erakunde publikoek elkarrekin gara ditzaketen jarduerak. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoaren egitekoak eta lan-lerroak kontuan izanik, ondoko arloetan elkarlanean jarduteko borondatea adierazten dute hitzarmenaren sinatzaileek.

Bi partaideek lau erronka horiei lotutako jarduerak elkarrekin antolatzeke edo sustatzeko konpromisioa hartzen dute.

1. Euskararen transmisioa: adin guztietako hitzunen kopurua emendatu nahi dugu, eta ondorioz aitzineko urteetan inkesta soziolinguistikoek agerian jarri duten bilakaera aldatu.

2. Hizkuntzaren presentzia eta erabilera garatu nahi dugu bizitza sozial zein pribatuaren alor guztietan:
  - hizkuntza gehiago ikusia eta entzuna izan dadin, gisa horretan, dinamika berri bat sortzeko, hitzunek euskara gehiago balia dezaten;
  - hizkuntzak urratsez urrats komunikazio funtzioa berriz eskura dezan edo irabaz dezan.
3. Hizkuntzaren kalitatea zaindu eta areagotu nahi dugu, ahoz eta idatziz, erabilera publiko zein pribatuko esparru ezberdinetan.
4. Euskal gogo motibazioaren zeharkako erronka da. Helburua da aldeko jarrera bultzatzea, gizartearen atxikimendua indartzea, aipatu beste lan sail guztietan eraginkorrakoak izateko gisan.

### **Oharrak**

1. Ahaidetasuna nabari da Euskal Autonomia Erkodegoko egitarauetan, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (III) 1982ko oinarritzko legearen (I) zehaztapena baita.
2. Ipar Euskal Herriko idazkiak, hizkuntz antolaketa (II), hitzarmen berezia (IV) eta hizkuntza politika (V), gero eta zehatzagoak dira, bereziki elkarrekin landu genuen Euskara biziberritzeko Plan Nagusiaren eraginez.
3. Mugaz-gaineko egitarau hitzartua (VI) bi egitarau nagusien bilduma da (III+V). Egitarau hauek antzekoak dira, denen iturburuan baitago Joshua Fishman soziolinguistaren hizkuntza biziberritzeko urraspide ezaguna (RLS).
4. Egitarauen artean antzekotasuna badago, ahaidetasuna ere bai, hain segur. Baina ezberdintasun ezin gainditua hau da, Hegoaldean euskara ofiziala dela, Iparraldean ez.



**EUSKARAREN LEGEA: 25 URTE EUSKAL AUTONOMIA  
ERKIDEGOAN  
XI. JAGON JARDUNALDIAK:  
ONDORIOAK**

Hizkuntzen ofizialtasuna hizpide izan dugu XI. *Jagon* Jardunaldien hasieran. Testuinguru horretan, euskararen lurralde eremuan euskararen ofizialtasunak izan duen bilakaera aztertu da. Era berean, hizkuntzen ofizialtasunak munduan gaurkotasuna duela azpimarratu da, Europan bezala Afrikan, Asian bezala Amerikan, Amerikako Estatu Batuetan bezalatsu Txinan, frantsesez edo ingelesez jarduten duten lurraldeetan. Horiek horrela, kasuan kasuko lehenengo ofizialtasunak eta ondoko egokitzapen berriak eten gabe ari direla gertatzen aipatu da. Inoiz ofizialtasun zurrun batetik hasita malgutasun eta eleaniztasun berrietara pasatzen ari dira lege-politika hauek (Brasil-en, adibidez). Eta bada kasurik, garai batean legezko ofizialtasunik ezagutu gabeko herrietan, hain zuzen, oraintxe bertan legezko ofizialtasunaren bandera hartu dutenak edo hartzen ari direnak (Frantzia, AEB).

Aurreko gogoeta horien ostean, 82ko Euskararen Legearen sorrera, negoziazio prozesua, Legearen atal nagusiak eta 1981-82 urteetako giroa politikoa aztergai izan dira, orduko giro politikoak alderdien arteko akordio zabal baterako aukera eskaini zuela azpimarratuz.

Aurrekari horien ostean, hainbat eremu aztertu dira. Lehena administrazioaren esparrua izan da. Azaldu denaren arabera, Euskararen Legeak ez du garapen xeherik izan herri administrazioen inguruan. Hala ere xedapenen garapen urriak gorabehera administrazioetan plangintza lanik ez dela egin ez duela esan nahi azpimarratu eta plangintza lan horren ebaluazio antzeko bat aurreratzeko ahalegina egin da.

Esparru sozio ekonomikoari erreparatuta, ostera, euskararen presentzia urria, euskararen indarberritze ahalegina indartzeko zailtasuna objektiboak, askotariko eragileen inplikazioa-eta falta, Euskararen Legea garatzeko zailtasunak eta abar aipagai izan dira. Eremu hori, aldiz, euskararen berreskuratze prozesuak etorkizunean irauteko eta garatzeko erabakigarria da; beraz, eremu honetara bideratutako ahaleginak indartu behar direla azpimarratu da.

Hezkuntzari dagokionez, bestalde, euskarari lehen ez bezalako lekua eta garrantzia eskuratua dio Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legeak Euskal Autonomia Erkidegoan. Gainerako euskal herrietan ere hartu dira legezko

babes neurri zenbait, baina haietan ez du euskarak horren pareko babes instituzionalik eta garapen-mailarik. Babes horren haritik hainbat eskubide bermatzen dira, eskola-hizkuntza aukeratzekoa besteak beste, eta hainbat programa babesten. Urrun dago legea, ordea, begiz joa zuen elebitasun funtzionaletik. Horrek ez du esan nahi legea agortuta dagoenik. Are gutxiago, euskararen aldeko emaitza hobeak ekartzeko formula adosturik eskueran dagoenik.

Hedabideei eskainitako tartean, Euskararen Legearen aurrekoetz, hala nola, 1976ko 24 orduak euskaraz ekimena mintzagai izan da. Hori hala, 1979ko Gernikako Estatutuaren ekarpena erabakigarria izan zela Euskal Autonomia Erkidegoa komunikazio-esparru gisa ere definitzeko orduan azpimarratu da. Hari berari tiraka, sustapen-politika eragingarrien multzoan kokatu behar dira 82ko EITB sortzeko Legea eta gaur hizpide dugun Euskararen Legea bera ere. Izan ere, 1982ko azaroaren 23an, eguerdiko 12etan egin zuen Euskadi Irratiak bere estreinako emanaldi ofiziala eta hogeita lau ordu eskaseko aldearekin onartu zuen Eusko Legebiltzarrak Euskal Autonomia Erkidegoko Euskararen Legea.

Euskal Autonomia Erkidegoaz landa, Nafarroatik begiratuta, Legea bera eredugarri ikusi izan dute hainbatek Nafarroakoa egiteko. Nafarroan, aldiz, bere sasoian euskararen normalizaziorako oztopo eta zailtasunik handiena bihurtu den eremuen arabera lurralde-zatiketa ezarri zen. EAEko Euskararen Legeak Nafarroan izan duen eraginaz mintzatuta, onuragarria iruditu zaio askori, bai hizkuntzaren prestigioa eta balioa handitzean, bai euskarazko komunikabideak ikusi eta entzun ahal izateko aukeran, eta baita ikasketak euskaraz egin ahal izateko erraztasunean ere.

1982ko oinarrizko legea Ipar Euskal Herrian jarraibide dagoela, botere publikoentzat ere esan da. Honek, besteak beste, euskararen aldeko lurralde antolaketan esku hartzea gertatzen eta Iparraldeko erakunde publikoek euskararen aldeko hizkuntza politika eremu publikoan garatzen ari dira lehenbiziko aldiz. Ipar Euskal Herrian irakaskuntza eta administrazio elebidunak aitzina doaz. Era berean, euskararen alorrean mugaz gaineko lankidetzak, 25 urte igaro ostean, gero eta indartsuagoa da: Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzak, inkesta soziolinguistikoak, liburu banaketak, ETBren igorgailuak edota Akitania-Euskadi fondoak. Halaber, bestelako lankidetzak eremuak ere sustatu ditu, irratien artean, aldundiekin, udaletxeekin, elkarteetan artean, eta abar.

Euskararen Legeak galbidean zihoan euskara berreskuratzeko garrantzi handiko zimentarria da. Garapena izan du, garatzeko aukerak baditu eta, beraz, iraungita ez da geratu.

*Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan 2007ko azaroaren 23an*

*Erramun Osa, Sustapen Batzordeko idazkaria*



## **JAGONET: 2007. URTEAN EGINDAKO LANEN BERRI**

*Joxe Ramon Zubimendi,  
JAGONETen arduraduna.  
Euskaltzaindia*

Hona hemen, labur-labur, JAGONETeko 2007ko datuak, urte guztikoak:

1. Galdelekuan jasotako galderak: 1.554 (iaz baino %17 gehiago)
2. Banan-banan emandako erantzunak: 1.509 (iaz baino %18 gehiago)
3. Datu-basea osatzen duten galde-erantzunak: 523 (iaz bezainbat)
4. JAGONETeko orri nagusia zenbat aldiz bistaratua: 140.273\* (iaz baino %21 gehiago)
5. JAGONETeko datu-basean egindako bilaketak: 52.158\* (iaz baino %23 gehiago)
6. JAGONETen bistaratutako galde-erantzunak: 62.853\* (iaz baino %37 gehiago)

---

\* Izarñoa duten kopuruen berri-emailea Euskaltzaindiaren *Albiste orria* da.



**EUSKALTZAINDIAREN  
AGIRIAK**



## **BATZAR-AGIRIAK**



## Bilbon, 2007ko uztailaren 20an

Andres Urrutia, euskaltzainburua,  
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea,  
Xabier Kintana, idazkaria,  
Jose Luis Lizundia, diruzaina,  
Henrike Knörr, *Iker* sailburua,  
Andres Iñigo, *Jagon* sailburua,  
Sagrario Aleman,  
Adolfo Arejita,  
Aurelia Arkotxa,  
Jean-Louis Davant,  
Patxi Goenaga,  
Jean Haritschelhar,  
Joseba Lakarra,  
Emile Larre,  
Txomin Peillen,  
Andoni Sagarna,  
Patxi Salaberri,  
Pello Salaburu,  
Ana Toledo,  
Piarres Xarriton,  
Patxi Zabaleta  
eta Mikel Zalbide euskaltzainak.

Pello Telleria idazkariordea, Juan Jose Zearreta kudeatzailea, Jose Antonio Adu-  
riz, Mikel Gorrotxategi eta Iñaki Kareaga  
informatikaria zegozkien gaitan.

rrenda hori aurkeztu eta hor ageri diren aldaketak, berrikuntzak, zuzenketak eta gehitzeak azaldu ditu, batez ere *Berrotza*, *mendazar*, *Mirafuentes*, *Piedramillera*, *sor-ladar*, *zuñigar*, *Ega*, *Egaibar*, *morentindar*, *villatuertar*, *Girgillao(tar)*, *Iguzkitza*, *Iguzkitzaibar* izenei buruzkoak. Oharrak egiteko epea irailaren 14ra artekoa izanen da.

**3. Hiztegi Batua. «E» letrako zerrendari egindako oharrak aztertu eta erabakitzea.** P. Salaburu batzordeburuaren zuzendaritzapean, *entitate*-tik *entzierro*-rainoko hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu egin dira.

**4. 2008ko Aurrekontuak onartzea.** Juan Jose Zearretak aurkeztu eta xeheki eta atalez atal azaldu ditu, paperez emandakoa pantailan ere agertuz. M. Zalbide euskaltzainak «Joanes Etxeberri» Euskararen Historia Soziala Ikertzeko proiektuaren azalpen xheagoa eman du. J. J. Zearretak, Euskaltzaindiaren aurrekontua, datorren urterako 4.110.939,57 eurokoa dela esan ondoren, konparazioa egiteko, lehen mailako futbolari kaxkar baten

Ezin etorriak eta ahalak: Adolfo Arejitak, heldu bitartean, ahala J. L. Lizundiari; P. Zabaletak ere etorri bitartean, ahala, Andres Iñigori.

Batzarra goizeko 10etan hasi da Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzako batzar gelan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

**1. Aurreko akta onartzea.** Aurreko batzarraren akta ontzat eman da.

### 2. Hizkuntza-gaiak

**2.1. Onomastika. Nafarroako izendegiko 6. zerrenda (Lizarra Merindadeko iparraldea) onartzea.** A. Iñigok ohar bakarra jaso dela esan du, *Ameskoa* izenaz X. Kintanak egindakoa. Irakurri egin du, bai eta horri buruzko erantzuna ere. Argudioak entzunda, *Ameskoa* uztea erabaki da. Gainerako izen guztiak ere ontzat eman dira.

**2.2. Onomastika. Nafarroako izendegiko 7. zerrenda (Lizarra Merindadeko erdialdea) aurkeztea:** A. Iñigok ze-

fitxaketaren parekoa dela seinatu du. Amaitzean, J. L. Lizundia diruzainak argitasun batzuk gehitu ditu, horien artean Herri Aginteei aurrekontuak irailaren hasieran igorri beharko zaizkiela, eta XVI. Biltzarrerako kontua oraindik hobeki landu beharra dagoela. Aurkezturiko aurrekontuei oharrak irailaren 4rako egin beharko zaizkiela eta, ondoren, horiek aztertu eta finkatzea Zuzendaritzaren esku uztea proposatu da. Ontzat eman da.

**5. IKT (Informazio eta Komunikazioaren Teknologia): Euskaltzaindiaren informatika arloko segurtasun plana aurkeztea.** Gai honi buruz euskaltzainen artean idatzirik banatu den txostena A. Sagarna euskaltzainak azaldu du, segurtasun plana eta horren helburuak zertan datzaten zehaztuz. Ondoren, A. Urrutiak euskaltzainei testua arretaz irakurri eta, hala baleritzote, oharrak irailaren 14rako egin behar dituzte-la jakinarazi die. Oharrak jaso eta gero, gaur aurkezturiko dokumentua garatu eta zehaztu beharko da. Tx. Peillenek argitasun batzuk eskatu ditu eta eman zaizkio. J. L. Lizundiak ere azalpen batzuk eman ditu.

## 6. Eskuartekoak

### 6.1. Literatura Sariak

2007ko Lau Literatura Sari Nagusien oinarriak karpetan banatu dira.

### 6.2. 29 eta 30. hautagaien aldarrikapena

Uxuen 2006an egindako batzarrean onartu zen egutegiaren arabera (karpetan banatua), 2007ko uztailean iragarri behar dira 29 eta 30. dominetarako euskaltzain biren hutsarteak. Beraz, hautagaiak irail eta urriko batzarretan aurkeztu ahal izango dira, bozketak azaroan egiteko. Aldarrikaturik gelditu dira, hortaz, 29 eta 30. dominetarako hutsarteak.

## 7. Azken ordukoak

J. Haritschelharrek, *Leturiaren egunkari ezkutua*ren inguruan Donostian joan den astean egindako literatura bilera eta Txillardegiri bertan eskainiriko omenaldiaren berri eman du.

P. Xarritonek aita Ondarraren azken liburua (*Lapurren eskuetan* deritzona) argitaratzeko komenientziak galdetu du. A. Urrutiak, ideia ontzat emanik ere, liburu horrek eskubide aldetik dituen problemak aurretik argitu behar direla azaldu dio.

Bukatzeko, Euskaltzainburuak irteeran ondoko liburuak banatuko direla iragarri du:

1. *Euskera* 2006, 2.
2. 2006ko Lau Literatura Sari Nagusien irabazleen lau lan argitaratuak.
3. Mendaurren 3. *Luzaidako Euskararen Hiztegia*, Pello Kamino eta Patxi Salaberrik prestatua.
4. Mendaurren 4. *Erroibarko eta Esteribarko Hiztegia*, Orreaga Ibarrek egina.
5. Labayruren berrargitalpena: Jose Basterretxearen *Kurloiak*.

Batzarra eguerdiko 14:15ean amaitu da.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria



## AGERIKO BILKURA

Viana, 2007-IX-21

Irailaren 21ean, Vianan, Kultura Etxean, ageriko bilkura egin du Akademiak, arratsaldeko 18:30etan, *Nafarroa Oinez* dela eta.

Bildu dira:

- Andres Urrutia, euskaltzainburua; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Andres Iñigo, *Jagon* sailburua eta Sagrario Aleman, Patxi Salaberri, Ana Toledo eta Patxi Zabaleta euskaltzain osoak.
- Euskaltzain urgazleak: Jose Agustin Arrieta, Mikel Bujanda, Paula Casares, Manuel Ruiz Urrestarazu, Pello Telleria, eta Juan Jose Zearreta. Ezin etorria adierazi dute Jose Ramon Etxebarriak eta Jon Aurre euskaltzain urgazleek.
- Gema Insausti eta Amaia Okariz Euskaltzaindiko langileak.
- Patxi Juaristi, Santiago Larrazabal eta Erramun Osa batzordekideak.

Ekitaldiari hasiera Gregorio Galilea Vianako alkateak eman dio, eta ondoren Ventura Gonzalez Vianako *Erentzun* Ikastolako lehendakariak eta Aritz Lizarraga Ikastolako zuzendariak hitz egin dute.

*Recuperación del Euskera en Navarra* liburuaren aurkezpena,

ondoren, ekitaldiaren muina izan den *Recuperación del Euskera en Navarra* liburuaren aurkezpena egin da. Lehen hitzak Andres Iñigo, *Jagon* sailburu eta Nafarroako ordezkariak esan ditu, argitalpenaren nondik-norakoa azalduz eta *Jagon* bildumako 4. liburukiaren egilea den Miquel Gros i Lladós jauna aurkeztuz. Miquel Gros i Lladós katalana da eta gaztaroan Iruñean bizi izan zen hamar urtez. Abokatua da lanbidez, baina benetako bokazioa soziolinguistika du. Hizkuntza gutxituak ditu kezka nagusi eta urteak dira Nafarroako euskararen egoera ikasten hasi zela, ikuspuntu diakroniko zein soziologikotik abiatuta.

Andres Iñigok adierazi duenez, euskarak Nafarroan azkeneko hogeitau urteotan, irakaskuntzaren bitartez batik bat, izan duen bilakaeraren erakusleihoa da liburu hau eta bertan ikus daitezke emandako urratsak, oro har, handiak izan direla, euskararen lege murriztailetik espero zitekeen baino anitzez hobeak. Biziki interesgarria da –gaineratu du euskaltzainak– egileak 2001eko erroldako datuekin egin duen 25 urtetik beherakoen azpi-sailkapena, eta interesgarriagoa oraindik egiaztatu ahal izatea zein den leku bakoitzean 15 urtetik beherakoen artean euskara dakitenen ehuneko kopurua.

Ondoren, Miquel Gros i Lladósek aurkezpen zabala egin du *Recuperación del Euskera en Navarra* izeneko liburuaz. Argitalpen hori Euskaltzaindiaren *Jagon* bildumaren 4. liburukia da.

Miquel Grosek azaldu bezala, liburuak xede bi ditu: batetik, Nafarroako Foru Erkidego osoan euskararen erretratu egitea eta, bestetik, euskal hizkuntzaren etorkizunari buruz hausnartzea.

Liburuan, nafarrek udal erroldetan (1986tik 2001era) euskararen ezagueraz ematen dituzten erantzunak aztertzen dira. Metodologia zehatza da: errolda horiek udalez udal eta banan-banan aztertu ditu Grosek; horrela, Nafarroako biztanle guztien datuak –ehuneko ehunenak– jaso eta aztertu ditu. Emaitzak eskualdeka, azpi-eskualdeka eta udalez udal aurkeztu ditu, bai eta Nafarroa osokoak ere.

Gros i Lladós-en aburuz, fenomeno harrigarria gertatu da tarte horretan. Euskarak 50.000 hiztun baino gutxiago zituelarik, bazirudien desagertzeko arriskuan zegoela, gehienez ere belaunaldi batez iraungo zuela. 1986tik 2001era 2 puntu gora egin du ezagutzak, ehuneko 10etik 12ra. 15 urtetik beherakoen artean, gainera, ehuneko 21era iritsi da; euskara ohiko komunikazio-tresna zen eremuetan indartu da eta ahulago zegoen eskualdeetan ere hobekuntza antzeman da.

Oro har, *Recuperación del euskera en Navarra* liburuak euskararen egoera berri eta itxaropentsu baten aitzinean gaudela baieztatzen du. Liburuarekin, Nafarroan euskararen alde lan egin eta egiten duten guztiak omendu nahi ditu Grosek. Bestalde, Nafarroako euskararen etorkizunari buruzko zentzuzko eztabaida proposatu nahi du egileak.

Liburuaren aurkezpena amaitu denean, Vianako *Erentzun* Ikastolako haurrek *Giltza daukagu* kanta abestu dute, 2007ko *Nafarroa Oinez*-ena.

Ekitaldiari amaiera eman dio Andres Urrutia euskaltzainburuak. Batetik, eskerrak eman dizkie Vianako Udalarari, Vianako *Erentzun* Ikastolari eta Miquel Gros i Lladós liburuaren egileari. Bestetik, Euskaltzaindia Nafarroakoa ere badela gogorarazi eta hizkuntzaren sustapenean orain arte bezala lanean jardungo duela.

Ekitaldia gaueko 20:00etan bukatu da.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria

## Bilbon, 2007ko irailaren 28an

Andres Urrutia euskaltzainburua,  
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea,  
Xabier Kintana, idazkaria,  
Jose Luis Lizundia, diruzaina,  
Henrike Knörr, *Iker* sailburua,  
Andres Iñigo, *Jagon* sailburua,  
Jose Arana Martija,  
Sagrario Aleman,  
Adolfo Arejita,  
Aurelia Arkotxa,  
Jean-Louis Davant,  
Patxi Goenaga,  
Jean Haritschelhar,  
Joseba Lakarra,  
Emile Larre,  
Txomin Peillen,  
Andoni Sagarna,  
Patxi Salaberri,  
Pello Salaburu,  
Ana Toledo,  
eta Mikel Zalbide euskaltzainak

Pello Telleria idazkariordea, Mikel Gorrotxategi eta Jose Antonio Aduriz zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Miren Azkaratek, ahala P. Goenagari; Joseba Irazuk,

ahala A. Urrutiari; P. Zabaletak, ahala A. Iñigori.

Batzarra goizeko 10etan hasi da Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzako batzar gelan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

**Aurretiko oharrrak.** Hasieran, bildurikokak agurtu ondoren Euskaltzainburuak batzarra soilik goizean izanen dela azaldu du. Hamabietan erretzaileentzako etena eginen da eta, aurretik, Jose Antonio Arana Martixaren liburu-dohaintzaren dokumentua sinatuko.

**1. Aurreko akta onartzea.** Aurreko batzarren akta onartat eman da.

### 2. Hizkuntza-gaiak

**2.1. Onomastika. Nafarroako izendegia: 7. zerrenda (Lizarra Merindadeko erdialdea)** aurkeztea. A. Iñigok oharrik ez dela jaso adierazi du. Besterik gabe ontzat eman da.

**2.2. Onomastika. Nafarroako izendegia: 8. zerrenda (Lizarra Merindadeko**

**hego-mendebaldea)** aurkeztea. A. Iñigok zerrenda hori aurkeztu eta hor ageri diren aldaketak, berrikuntzak, zuzenketak eta gehitzeak azaldu ditu, batez ere *Aguilar ibarra*, *Los Arcos*, *Marañón*, *San Adrián*, *Lapoblación* bezalako erdal etorkiko izenei buruzkoak. Oharrak egiteko epea urriaren 17ra artekoa izanen da.

**2.3. Exonomastika. Espainia-Frantzietako eskualdeen izenak** aurkeztea. J. L. Lizundiak aurkeztu eta azaldu du. Bereziki kontuan hartu izan dira Euskal Herriaren ingurukoak edota gurekin harreman handiak izandako eskualdeak. Oharrak egiteko epea: urriaren 17a.

**2.4. Hiztegi Batua. «E» letrako zerrendari egindako oharrrak** aztertu eta erabakitzea. P. Salaburu batzordeburuaren zuzendaritzapean, *entzueran*-etik *epipaleolito*-rainoko hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu egin dira.

**3. IKT. Euskaltzaindiaren Informatika arloko segurtasun plana: segurtasunaren gaineko barne politika eta segurtasun helburuak.** Ez da oharrik jaso eta, beraz, proposamen biak onartu dira.

**4. Jose Antonio Arana Martixaren liburutegiaren dohaintza-agiria sinatzea.** Jose Antonio Arana Martixa euskaltzainak bere bibliotekako liburu gehienak (sei mila inguru) Euskaltzaindiari ematea erabaki duela eta, dohaintza horren agiria sinatu dute berak eta euskaltzainburuak. Opari baliotsu horregatik Andres Urrutiak, Akademia osoaren izenean, eskerrak eman dizkio.

### 5. Eskuartekoak

Euskaltzainburuak ondokoak adierazi ditu:

- **Aholku Batzordea.** Eusko Jaurlaritzak Euskararen Aholku Batzordea osatzeko, Euskaltzaindiari eskatu dizkion ordezkariak direla eta, Zuzendaritzaren bilera erabakiaren arabera, A. Urrutiak ondokoak proposatu ditu, eta berretsi egin dira:
  - **Aholku Batzordea:** berezko eskubideaz, Euskaltzainburua eta, Idazkaria, ordezko bezala.
  - **Toponimia Batzorde-atal Berezirako:** Mikel Gorrotxategi
  - **Terminologiako Batzorde Atal berezirako:** Andoni Sagarna
- **Hurrengo osoko batzarra.** Urriaren 26an Gipuzkoako Foru Aldundian izanen dela iragarri du eta, egun berean, arratsaldeko 6etan, Miramongo Teknologi Elkartegian, A. Sagarnaren sarrera-hitzaldia.
- **Azaroko biltzarra.** Euskaltzaindiaren azaroko osoko batzarra 30era atzeratzen dela ere adierazi du, azaroaren 23an, egun osoz, XI. *Jagon* Jardunaldiak egingo baitira.

### 6. Azken ordukoak

- P. Xarritonen eskariz, Baionako eliztar batzuek aurkezturiko eskari bat banatu da, hala nahi duten euskaltzainek atxikimendua eman diezaioten.
- Miquel Gros i Lladós-en *Recuperación del euskara en Navarra* liburua banatu da.
- Era berean Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarraren programako ekitaldien berri eman da.

Batzarra eguerdiko 14:30etan amaitu da.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria

## Donostian, 2007ko urriaren 26an

Andres Urrutia euskaltzainburua  
Beñat Oihartzabal, buruordea,  
Xabier Kintana, idazkaria,  
Jose Luis Lizundia, diruzaina,  
Henrike Knörr, *Iker* sailburua,  
Andres Iñigo, *Jagon* sailburua,  
Sagrario Aleman,  
Adolfo Arejita,  
Aurelia Arkotxa,  
Jean-Louis Davant,  
Patxi Goenaga,  
Jean Haritschelhar,  
Emile Larre,  
Txomin Peillen,  
Andoni Sagarna,  
Patxi Salaberri,  
Pello Salaburu,  
Ana Toledo eta  
Pierre Xarritton euskaltzainak.

Pello Telleria, idazkariordea, Mikel Gorrotxategi eta Jose Antonio Aduriz zegozkien gaitan.

Ezin etorriak eta ahalak: Miren Azkaratek, ahala Pello Salabururi; Patxi Goenagak, etorri bitartean, ahala Beñat Oihartzabalali; Joseba Irazuk, ahala Andres

Urrutiarri; Joseba Lakarrak, ahala euskaltzainburuari; Andoni Sagarnak, joan eta gero, ahala euskaltzainburuari; Patxi Zabaletak, ahala Andres Iñigori; Mikel Zalbidek ahala euskaltzainburuari.

Batzarra goizeko 10etan hasi da Donostian, Foru Diputazioaren batzar areto nagusian, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

**Euskaltzainburuari doluminak.** Ekitaldiaren hasieran idazkariak, gainerako euskaltzain guztien izenean, Andres Urrutia euskaltzainburuari doluminak eman dizkio, galdu berri duen alaba gaztearen heriotzagatik.

### **Aurretiko oharra.**

Bildurikoek agerturiko dolu-erakutsia eskertu ondoren, euskaltzainburuak batzarra soilik goizean eta 14,30 arte izanen dela azaldu du. Hamabietan etena egingen da, kafea hartu ahal izateko. Bazkaria Miramonen izanen dela jakinarazi du. Arratsaldeko 6etan, leku berean, A. Sagarnaren sarrera-hitzaldia izanen da.

**1. Aurreko akta onartzea.** Aurreko batzarraren akta, J. Haritschelharrek adierazirikoa lapsus bat kendurik, ontzat eman da.

### **2. Hizkuntza-gaiak**

**2.1.1. Onomastika. Nafarroako izendegia: 8. zerrenda (Lizarrako merindadeko hego-mendebaldea) onartzea.** A. Iñigok zerrendari egindako bi oharren berri eman du, eta *Los Arcos* eta *Allo* toponimoei erantzea onartu diren oharra irakurri ditu. X. Kintanak *San Adrián* toponimoaren azentu grafikoa euskaraz kentzeaz egindako oharra ez da onartu. Dena den, azentu grafikoak euskaraz erabiltzeari buruz orain arte erabakia berriz ikusteko gelditu da batzordea.

**2.1.2. Onomastika. Nafarroako izendegia: 9. zerrenda (Erriberriko merindadea) aurkeztea.** A. Iñigok aurkeztu eta azken erabakietatik egindako aldaketak azaldu ditu. Oharrak egiteko epea azaroaren 15erako jarri da.

**2.1.3. Exonomastika: Espainia-Frantzietako eskualdeen izenak onartzea.** J. L. Lizundiak esan duenez, Andres Iñigok Euskal toponimo batzuen letra larri/xehearen erabileran kontraesan batzuk aurkitu dituela eta, ohar bat egin du, eta zerrenda hori onartzea hilabete atzeratzea proposatzen du, batzordeak horiek konpontzeko proposamena ekartzeko. Ontzat eman da.

**2.1.4. Exonomastika. Europako eskualde historiko-politiko nagusiak: sarre-  
ra eta 1. zerrenda aurkeztea.** J. L. Lizundiak aurkeztu du, eta egindako galderei erantzun ere bai. Oharrak azaroaren 15erako ere egin beharko dira.

**3. Hiztegi Batua. «E» letrako zerrendari egindako oharrak aztertu eta erabakitzea.** P. Salaburu batzordeburuaren zuzendaritzapean, *epoka*-etik *eraio*-rainoko hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu egin dira.

**4. Jakiunde-ren sorrera dela eta.** Eusko Ikaskuntzak oraintsu sorturiko Akademia dela eta, Euskaltzainburuak arazoaren berri eman du, «Akademia» berri horrek Euskaltzaindiaren zereginetan eskua zertan sartzen duen azalduz. Erantzuera moduan Zuzendaritzak prestatu duen gutuna banatu da. J. Haritschelharrek historia horren aurretiko batzuk kontatu ditu, eta bere egunean Eusko Ikaskuntzaren lehendakaria zen Gregorio Monreal jaunari esan zionaren berri eman du, hots, literaturaz jardutekotan, erdal literaturaz jardun zezatela, euskal literatura Euskaltzaindiaren arloa baita. J. L. Lizundiak gogorarazi duenez, gerra aurrean Euskaltzaindiak Eusko Ikaskuntzaren bile-retan bi ordezkari zituen, baina gerra ondoan bakar batekin gelditu zen, geroago, aurkako jarrera ikusita, joateari utzi bazion ere.

H. Knörrek Zuzendaritzak prestatutako gutuna irakurri du. Ondoren, J. Haritschelhar, X. Kintana, B. Oihartzabal, P. Salaburu, A. Arejita, P. Xarritton, H. Knörr eta P. Goenaga mintzatu ondoren, horren oinarrian testu bat adostu da, Eusko Irakaskuntzaren buruari igortzeko.

## 5. Euskaltzain-kandidatu berriak

Euskaltzaindiaren arautegiaren azken aldaketaren arabera, 75 urtetik gorako euskaltzainak emeritu egoera iragaten direla eta, 29 eta 30. dominetarako kandidatuak proposatu dira:

- 29. dominarako: **Johan Mari Torrealdai** jauna proposatu dute J. A. Arana Martija, M. Azkarate eta A. Urrutia euskaltzainek.
- 30. dominarako: **Miren Lourdes Oñederra** andrea, proposatzaileak X. Kintana, H. Knörr eta P. Salaburu euskaltzainak izanik.

## 5. Eskuarteoak. Euskaltzainburuak ondokoak adierazi ditu:

**5.1. Lau literatura sari-nagusien epaimahaiak.** Ohi bezala aurtan ere literatura sariketarako epaimahaiak antolatu eta honela osaturik gelditu dira:

<i>Txomin Agirre</i> eleberria:	Sebastian Garcia Trujillo, Ur Apalategi, Iratxe Retolaza
<i>Toribio Alzaga</i> antzerkia:	Patri Urkizu, Daniel Landart, Eugenio Arozena
<i>Felipe Arrese Beitia</i> olerkia:	Mikel Lasa, Lourdes Otaegi, Jon Kortazar
<i>Mikel Zarate</i> saiakera:	Adolfo Arejita, Antton Aranburu, Iñaki Aldekoa

**5.2. J. M. Lekuonaren omenaldi liburua.** Idazkariari hitza emanda, berorrek, euskaltzain guztiei bidaliko zaien gutun baten berri eman du. Hor, Juan Mari Lekuonaren omenaldi-liburuan esku hartu nahi dutenek izena 2007ko abenduaren 30erako adierazi beharko dutela adierazten da. Lan burutua, aldiz, 2008ko ekainaren 30erako helarazi beharko da.

**5.3. Nafarroako Gobernuaren eskaria.** Nafar Gobernuak, oraintsu eraturiko Euskararen Nafar Kontseilurako Euskaltzaindiak ordezkari bat izenda dezala eskatu du. Horretarako, A. Iñigo nafar euskaltzaina izendatzea erabaki da.

**5.4. Nafar Gobernura bisita.** Euskaltzainburuak, Akademiaren ordezkari batekin urriaren 24an Nafarroako Gobernu berriari Iruñean kortesia-egintza egin zaiola jakinarazi du. Bertan Miguel Sanz lehendakari jauna eta Carlos Pérez Nieves kontseilaria agurtu eta horiekin solasaldia ukan zuten. Egun berean *Mendaur* bildumako 3. eta 4. zenbakiak aurkeztu zituzten bi erakundeek, hurrenez hurren, *Luzaideko euskaren hiztegia* eta *Erroibarko eta Esteribarko hiztegia*, hain zuzen.

**5.5. Jesus Atxa euskaltzain ohorezkoaren heriotza.** Aretxabaletako seme zen eta Nafarroan ikastolen alde hainbeste lan egindako Jesus Atxa euskaltzain ohorezkoa urriaren 23an Iruñean hil zela adierazi da. Hurrengo egunean, Iruñera egindako bisitan, euskaltzainburuak eta alargunari eta senideei doluminak adierazi zizkieten. Horren hilberri txostena egitea J. L. Lizundiak hartu du bere gain.

**5.6. EHUko Euskara Institutuaren biltzarra.** Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuak 2008ko urtarrilean terminologia zientifikoari buruz antolatuko duen biltzarraren programa jaso da eta euskaltzainen artean banatu.

**5.7. Euskaltzaindiaren hurrengo osoko bilkura.** Azaroko batzarra hilaren 30ean eta Bilbon izango dela gogoratu da.

## 6. Azken ordukoak

Kudeatzaileak emandako informazioa kontuan izanik, euskaltzainek irailera arteko batzar-dietak laster jasoko dituztela adierazi du J. L. Lizundia diruzainak.

Batzarra eguerdiko 15:00etan amaitu da.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria

## Bilbon, 2007ko azaroaren 30ean

Andres Urrutia, euskaltzainburua,  
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea,  
Xabier Kintana, idazkaria,  
Jose Luis Lizundia, diruzaina,  
Henrike Knörr, *Iker* sailburua,  
Andres Iñigo, *Jagon* sailburua,  
Sagrario Aleman,  
Jose Antonio Arana Martija,  
Adolfo Arejita,  
Aurelia Arkotxa,  
Patxi Goenaga,  
Jean Haritschelhar,  
Lakarra, Joseba,  
Emile Larre,  
Txomin Peillen,  
Andoni Sagarna,  
Patxi Salaberri,  
Pello Salaburu,  
Ana Toledo eta  
Pierre Xarritton, euskaltzainak.

Pello Telleria, idazkariordea, Mikel Gorrotxategi, Jose Antonio Aduriz, eta Pruden Gartzia zegozkien gaietan.

**dadea) onartzea.** A. Iñigok azaldu duenez, oharrik ez da heldu eta, besterik gabe, proposaturiko zerrenda ontzat eman da.

**2.1.2. Onomastika. Nafarroako izendegia: 10. zerrenda (Tuterako Merinda-dea) aurkeztea.** A. Iñigok aurkeztu eta aurreko zerrendatik egindako aldaketak azaldu ditu. Oharrak egiteko epea abenduaren 17 eguerdirako jarri da.

**2.1.3. Exonomatika. Espainia-Frantzietako eskualdeen izenak onartzea.** Tx. Peillenek azaldueriko hutsa (*Seignautze* barik, *Seinautze*) ontzat eman eta zuzendu ondoren, zerrendako gainerako izen guztiak ere ontzat eman dira. P. Xarrittonek *Espainia-Frantzietako* gisako elkarketak gaitzestea eskatu du, baina X. Kintanak, J. L. Lizundiak eta A. Sagarnak horiek ondo daudelako arrazoiak eman dizkiote. Halere, izenburu horren aurkako botoa eman du P. Xarritton jaunak.

**2.1.4. Exonomatika. Europako eskualde historiko-politiko nagusiak: sarrera eta 1. zerrenda (Italia, Belgika, Herbehereak) onartzea.** J. L. Lizundiak ohar idatzirik ez dela jaso esan du eta, beraz, ontzat eman da zerrenda.

Ezin etorriak eta ahalak: A. Arejitak (etorri artean), ahala J. L. Lizundiari; Miren Azkaratek, ahala P. Salabururi; Jean-Louis Davantek, ahala, Tx. Peilleni; P. Goenagak (etorri artean), ahala B. Oihartzabali; Joseba Irazuk, ahala A. Urrutiarri; P. Salaburuk (etorri artean), ahala J. Haritschelharri; Ibon Sarasolak, ahala P. Salabururi; P. Zabaletak, ahala A. Iñigori; Mikel Zalbidek ahala euskaltzainburuari.

Batzarra goizeko 10,15ean hasi da Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

**1. Aurreko akta onartzea.** Aurreko batzarraren akta, J. L. Lizundiak adieraziriko lapsus bat kendurik, ontzat eman da.

### 2. Hizkuntza-gaiak

**2.1.1. Onomastika. Nafarroako izendegia: 9. zerrenda (Erriberriko Merin-**



**2.1.5. Exonomastika. Europako eskualde historiko-politiko nagusiak: 2. zerrenda (Alemania, Austria, Suitza) aurkeztea.** J. L. Lizundiak aurkeztu du, zerrenda horren garrantzia eta iturriak aipatuz. Oharrak idatziz aurkezteko epea abenduaren 17ra artekoa izango dela jakinarazi da.

### **3. 29. eta 30. domina-hutsarteetarako hautagaiak bozkatzea:**

29. dominarako hautagaia: **Joan Mari Torreal dai Nabea**. Bozketaren emaitza: 23 baiezko, eta zuri bat. Euskaltzain oso hautaturik gelditu da.

30. dominarako hautagaia: **Lourdes Oñederra Olaizola**. Bozketaren emaitza: 22 baiezko eta zuri bi. Euskaltzain oso hautaturik gelditu da.

**4. Hiztegi Batua. «E» letrako zerrendari egindako oharrak aztertu eta erabakitzea.** Pello Salaburu batzordeburuaren zuzendaritzapean, *eraitsi*-tik *erdi-maila*-rainoko hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu egin dira.

### **5. Esku artekoak**

**5.1. Txomin Peillen emeritu egoerara.** Txomin Peillen zuberotar euskaltzainak 75 urte egin berri dituela eta, gaurdanik emeritu egoerara iragaten dela aldarrikatu du A. Urrutiak. Ondoren, J. L. Lizundiak egoera berria azaldu du, eta, estatutuen arabera, urte berean 4 euskaltzain berri baino gehiago ezin dela izendatu gogoratu du. Beraz, 2008ko uztailean arte, ezingo da 31. aulkirako hautagairik hautatu, banatu den «31. aulkiaz» deritzon idazkian azaltzen denez. Hori dela eta, datorren urtean egin behar diren sarrera-hitzaldien ospakizun eta antolaketa kontuan izanik, zuzendaritzak, hurrengo batean, proposamen bat eginen du, hautapen berria noiz egitea komeni den azalduz.

**5.2. Batzar gela gaurkotu beharraz.** Euskaltzainen kopurua handitu dela eta, batzar gela ere egokitu beharra dagoela azaldu du J. L. Lizundia diruzainak. Ondoren, J. J. Zearreta kudeatzaileak egiteko diren lanak, hobekuntzak eta horien kostuak azaldu ditu. J.A. Aranak eta P. Goenagak, P. Salaburuk, B. Oihartzabalek ohar-galderak egin dituzte, J. J. Zearretak erantzun dituenak.

**5.3. Euskaltzaindiaren iragarkia irratiz.** Euskaltzainburuak Euskaltzaindiaren zerbitzu berria dela eta (e-AEB zerbitzua: Euskaltzaindiak arau-erabakiak libre esku-ratzeko sistema), hori iragartzeko, irratiz zabaltzen ari den spotaren berri eman du, guztira lau irratitan eskaintzen direla azalduz.

### **6. Banatzekoak eta azken ordukoak**

**6.1. Abenduko egutegia.** Euskaltzainburuak hurrengo batzarra -agerikoa- abenduaren 20an Senperen izanen direla jakinarazi du. Bertan *Zaldubiren mendeurrena* ospatuko da ageriko bilkura horretan. Batzar-deia egitarauarekin bidaliko da.

Osoko batzarra, aldiz, biharamunean, abenduak 21, izanen da, Senpereko Udaltxean, goizean baino ez, 9:00etatik 13:00etara artean.

**6.2. Leizarragaren Testamentu berriaz.** Londresko Sotheby's enkante-etxeak Joanes Leizarragaren 1571ko *Testamentu Berriaren* ale bat salgai jarri duela eta, A. Urrutiak Euskaltzaindia harekin harremanetan jarri dela adierazi du, eta litekeena da hori irteera-prezioan eskuratu ahal izatea. J. L. Lizundia diruzainak horretarako egin diren gestioak azaldu ditu. Pruden Gartziak, Azkue Bibliotekaren zuzendariak, ale horren egoera fisiko eta kalitateari buruzko argitasunak eman ditu. Azkenik, J. J. Zea-

rreta kudeatzaileak Euskaltzaindiaren diru egoeraren berri eman du, eta, ekonomiaren arabera, liburua erosteko ahalmena badagoela. Edonola ere, erosketa burutzeko behar diren dokumentuak sinatu eta gestio guztiak amaitu arte, euskaltzainei kontu honetaz diskrezioa eskatu zaie.

### **6.3. Banaturiko argitalpenak**

- Azkue Saria: 2006an sarituriko lanen liburuxka.
- Jagon bildumako 5. liburukia: *Hizkuntza-zuzenbidea. Testu-bilduma euskaraz* deritzona.
- Gabonetako zorion-txartela.

Batzarra eguerdiko 14,55ean amaitu da.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria

## Senperen, 2007ko abenduaren 21ean

Benaat Oihartzabal, euskaltzainburuordea,  
Xabier Kintana, idazkaria,  
Jose Luis Lizundia, diruzaina,  
Henrike Knörr, *Iker* sailburua,  
Andres Iñigo, *Jagon* sailburua,  
Sagrario Aleman,  
Adolfo Arejita,  
Aurelia Arkotxa,  
Jean-Louis Davant,  
Jean Haritschelhar,  
Joseba Lakarra,  
Emile Larre,  
Txomin Peillen,  
Andoni Sagarna,  
Patxi Salaberri,  
Ana Toledo eta  
Pierre Xarritton euskaltzainak

Juanjo Zearreta kudeatzailea, Mikel Gorrotxategi eta Jose Antonio Aduriz, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Ibon Sarasolak ahala Pello Salabururi; Miren Azkaratek, ahala J. Haritschelharri; P. Goenagak

ahala B. Oihartzabali; Joseba Irazuk, ahala A. Urrutiari; L. Oñederrak, ahala A. Arkotxari; J. M. Torrealdaik, ahala A. Sagarnari; A. Urrutiak, ahala X. Kintanari; Patxi Zabaletak, ahala A. Iñigori; Mikel Zalbidek ahala A. Sagarnariri.

Batzarra goizeko 9:15ean hasi da Senperen, Herriko Etxearen egoitzan, ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak bertan direla.

**1. Aurreko akta onartzea.** Aurreko batzarren akta, J. L. Lizundiak adierazirik ko lapsus bat kendurik, ontzat eman da.

### **2. Hizkuntza-gaiak:**

**2.1. Onomastika. Nafarroako izendegia: 10. zerrenda (Tuterako Merinda-dea) onartzea.** A. Iñigok azaldu duenez, oharrik ez da heldu eta, besterik gabe, proposaturiko zerrenda ontzat eman da. Horrekin Euskal Herriko udalen zerrenda amaitu dela adierazi du.

Bi ohar egin ditu 3. zerrendaz: Iruñeko *ibar* kentzeaz eta *Etxarri-etxauribar* zuzentzea. Biak onartu dira.

Argitaratzeari buruz, udalerrri batzuetako herri-izenak ere (Araba eta Nafarroaren kasuan oso beharrezkoak) erantsi behar direla uste du. Hortaz, lehen onartu zirenak aztertu ondoren, zalantzazko kasuak osoko bilkurara ekarriko dituzte, onartu eta, guztiak batera argitaratzeko. J. L. Lizundiak ondo iritzi dio, zerrenda herren gera ez dadin. Ontzat eman da.

**2.2. Exonomastika. Europako eskualde historiko-politiko nagusiak: 2. zerrenda (Alemania, Austria eta Suitzako eskualdeen izenak) onartzea.** J. L. Lizundiak ohar idatzirik ez dela jaso esan du. Zerrenda ontzat eman da.

**2.3. Exonomastika. Europako eskualde historiko-politiko nagusiak: 3. zerrenda (Britainiar uharteak eta Eskandinavia) aurkeztea.** J. L. Lizundiak aurkeztu du, zerrenda horren berezitasunak eta iturriak aipatuz. Oharrak idatziz aurkezteko epea urtarilaren 18ra artekoa izango dela jakinarazi da.

**2.4. Hiztegi Batua: «E» letrako zerrendari egindako oharra aztertu eta erabakitzea.** P. Salabururen ezin etorriaz, J. A. Adurizen gidaritzapean *erdipuntuko-tik erlastar*-erainoko hitzak aztertu eta erabaki dira.

**3. IKT: Informazio eta Komunikazioaren Teknologiak.** Andoni Sagarnak bi txosten hauek banatu ditu:

– «Bereziki babestu beharreko edukien erabilerari buruzko araudia».

– «Baliabide informatikoen erabilerari buruzko araudia».

Bi proposamen horiei ohar idatziak egiteko epea urtarrilaren 18ra artekoa izanen da.

#### 4. Esku artekoak

**4.1. J. L. Davanti** aurtengo *Agosti Xaho Saria* eman zaio abenduaren 15ean. Zorionak adierazi dizkio.

**4.2. Miren Lourdes Oñederrari** Donostiako Udalak hiritar merezimendu-domina (2008) deritzon saria ematea erabaki du. Urtarrilaren 19an egingo da emate-zeremonia. Zorionak ematea erabaki da.

**4.3. Xarles Videgaini** Baionako Hiriaren domina eman zaiola jakinarazi da eta zorionak helaraztea erabaki.

**4.4. J. Haritschelharri omenaldia.** Beñat Oihartzabalek eta Jose Luis Lizundiak urtarrilaren 24an egoitzan egingo den ekitaldiaren xehetasunak eman dituzte. Omenaldi liburua ere aurkeztuko dela iragarri dute.

**4.5. 2008ko bilkura egutegia.** Juanjo Zearretak 2008ko bilkura egutegia aurkeztu eta azaldu du. Unibertsitateko irakasleekin adosturik, martxoko bilera apirilaren 4ean egingen da.

**4.6. Azkue Sarirako Epaimahaikideen izendapena.** Azkue Literatura Sarirako epaimahairako proposatu diren ondoko kideak onartu dira:

– **A mailan:** Antton Irusta Zamalloa, Manu Lopez Gaseni eta Kirmen Uribe.

– **B mailan:** Yolanda Arrieta, Joseba Butron eta Jabier Kaltzakorta.

#### 5. Banatzekoak eta azken ordukoak

Ondoko liburuak banatu dira:

– *Gratien Adema «Zaldubi», sainduen bizitza*, Henri Duhauk paratua, eta Euskaltzaindiaren «Euskaltzainak» bildumako lehen zenbakia.

– *Gracian Adema «Zaldubi» (1828-1907)*, Elena Touyrou-Phagaburuk paratua, eta Eusko Jaurilaritzaren «Bidegileak» Bilduman argitaratua.

– *Danzak eta koplak zaharrak*, Jabier Kaltzakortak paratua eta Labayruk oparitua.

Batzarra eguerdiko 13:00etan amaitu da.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria

## AGERIKO BILKURA

*Senperen, 2007ko abenduaren 20an.*

Abenduaren 20an, arratsaldeko 17:00etan, Senpereko Udalarekin batera, Euskaltzaindiak ageriko bilkura egin du Senpereko Elkartetxean, Gratien Adema «Zaldubi»ren heriotzaren mendeurrenean.

Bilkura hasi baino lehen, herriko elizaren ondoan, Zaldubiren omenezko bronzeko irudia agerian jarri da, Euskaltzaleen Biltzarrak antolatu duen ekitaldian.

Ageriko bilkuran bildu dira:

- Andres Urrutia, euskaltzainburua; Beñat Oihartzabal, buruordea; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Henrike Knörr, *Iker* sailburua, Andres Iñigo, *Jagon* sailburua; Jean Haritschelhar, euskaltzainburu ohia; Sagarrio Aleman, Adolfo Arejita, Aurelia Arkotxa, Pierre Charritton, Jean-Louis Davant, Joseba Lakarra, Emile Larre, Txomin Peillen eta Ana Toledo euskaltzain osoak. Ezinetorria adierazi du Mikel Zalbidek eta Joan Mari Torreldaik.
- Piarres Andiazabal, Koldo Artola, Joseph Camino eta Jean Baptiste Dirassar ohorezko euskaltzainak.
- Dorleta Alberdi, Gexan Alfaro, Kepa Altonaga, Xabier Altzibar, Mikel Atxaga, Xipri Arbelbide, Erramun Baxok, Luzien Etchezarreta, Pruden Gartzia, Mixel Itzaina, Peio Jorajuria, Daniel Landart, Manex Pagola, Patri Urkizu eta Juan Jose Zearreta euskaltzain urgazleak. Ezinetorria adierazi dute Ricardo Gomez eta Pello Telleriak.
- Amaia Okariz Euskaltzaindiko Prentsa arduraduna eta eta Annie Etxeberri Baionako ordezkartzako langilea.

Christine Bessonart Senpereko auzapezak ongietorria eman die euskaltzainei eta bertaratu diren herritarrei eta, ondoren, Andres Urrutia euskaltzainburuak agur-hitzak esan ditu.

### **Mikel Zalbide: «Euskalgintza XIX. mendearen bigarren erdian: Zaldubi eta bere garaia»**

Mikel Zalbide gaixo egonik ezin etorri izanenez, Ana Toledok irakurri du haren txostena. Euskalgintza esaten denean zer ulertzen den argituz hasi da egilea eta, atal hauetan banatu du hitzaldia: Adema-Zaldubi eta bere gizate-giroa (transformazio demografiko, politiko eta sozio-kultural handikoa); Zaldubiren garaiko euskalgintzaren zenbait ezaugarri (euskaldun jendea iratzartzea, hizkuntzaren corpus-plangintza, hizkuntzaren

status-plangintza, eskolako euskara frantseserako pasabide, euskalgintza jatortasun etno-kulturalean oinarritua eta mundu-ikuskeraz bezala ulertua). Iparraldeko euskalgintzaren bidegile nagusiak, hiru belaunalditan banatuz: 1810 eta 1820 bitartean jaioak, 1840 eta 1850 artean jaioak eta 1860 eta 1870 artean jaioak, baina lehen belaunaldiari aitortzen dio XIX. mendearen bigarren erdiko euskalgintzaren gidaritzaren intelektuala.

### **Patri Urkizu: «Gratien Adema «Zaldubi»ren JEUS poemaz iruzkinak»**

Gratien Ademaren lanen laburpena eginez hasi du Patri Urkizuk hitzaldia, eta zazpi bertsotan biltzen den *Jeus* izeneko poema aurkeztu du. Anton Abadiak antolatzen zituen literatura-lehiaketetara Zaldubik aurkeztu zituen lan ugarien berri eman du Urkizuk, eta 1871ko lehiaketara *Jeus* poema aurkeztu bazuen ere, ez zioten saria eman.

Poesia honetan, bertsoak egiteko modu tradizioaletik alden du Zaldubi. Poema honen gaia ez da gesta, erlijiozkoa, gerra, maitasuna, ez eta jendea ere, eta ez zen egin izan kantatzeko. Hitz-joko bat da gaia, *jeus* hitzaren inguruan etengabe egiten duena, sarritan deklinatuz, eta hitz horren esanahiaren alderdi baikorrak eta ezkorrak kontrajarrit. Beraz, originala izan zen poema hori, nahiz eta ez zuen jarraibiderik izan estilo horrek.

### **Xabier Altzibar: «Adema Zaldubiaren (1828-1907) prosa idazlanak»**

Zaldubik idatzitako lanen banaketarekin eman dio hasiera Altzibarrek hitzaldiari: Erliño edo debozio liburuak; mintzaldi eta artikulua ideologikoak, tradizioak, euskaraz eta euskalduntasunaz dihardutenak; eliza besta, pilota eta bereziki erreboteko jokoak idatzi zituen kronikak, eta bestelakoak. Altzibarrek berak dioenez, Zaldubiaren idazteko estiloak baino gehiago erabili zituen gaiez eta horien testuinguruak dihardu lanean.

Euskaldunen artean euskara erabiltzearen aldekoa izan arren, frantsesez idatzi zituen idazlan batzuk. Esan daiteke prosa-idazlanetako gaiak bertsoetan ageri direnen paretsukoak direla. Mintzaldi eta artikulua franko ideologikoak dira, egileak hor bere ideiak azaltzen edo garatzen baititu. Zaldubik bere ideien ondorio praktikoa bilatzen zituen. Euskara gizartearen erabili behar zela predikatu zuen bere mintzaldi eta artikuluetan. Bere pentsamoldea labur eta biribil formulatu zuen koblakaria ez ezik, euskal bertso-neurkeraren teorikoa ere izan zen. Idazle oso landua izan zen, hitz neurtuz ez ezik lañoz ere. Lapurteraz idatzi zuen eta idaztanka bere-berea du. Euskal literaturak haren prosa-idazlanak aintzat hartu beharko dituela uste du hizlariak.

### **Jean Haritschelhar: «Zaldubi. Bere mendeko apez eta gizona»**

Zaldubi, haren garaian kokatu du Jean Haritschelharrek bere hitzaldian. Oso nahasia izan zen XIX. mendea Frantzia iraultzaren ondotik: Inperioa, hiru errege, II. Errepublikak, II. Inperioa eta III. Errepublika.

Apez gisa bere eginbidea bete zuen osoki Zaldubik, predikua eginez, elizako kantikak idatziz, haien artean lau bederen gaur egun ere kantatzen direnak. Haren ikuspegia da *euskaldun fededun* batasuna aldarrikatzen duena.

Herritar gisa, XIX. mendeak zuen ideologia berezian sartu zen, hots, paradisu galduarenean: «lehen dena zen eder, orain, aldiz, dena ilun eta nahasia».

Pilotan lehentasuna ematen zion erreboteari, pleka bigarren mailan utziz.

Errepublikaren kontra idatzi zituen olerki batzuk, frantses eskuindarrei segituz, bere ustez framazonek eta juduek agintzen baitzuten Frantzian.

Euskaltzalea zen, euskararen alde jokatu zuen eta *zazpiak bat* aldarrikatu zuen 1890eko hamarkadan. Hots, bere mendeko apez eta gizona izan zen.

### **Henri Duhau: *Gratien Adema «Zaldubi» saindu batzuen biziaz* liburuaren aurkezpena**

Adema «Zaldubi»ren lanik gehienak argitaratuak izan ziren bera bizi zelarik, baina lan horiek guztiak ez daude gaur egun eskumenean, batzuk aspaldian agortuak dira. Bestetik, badira argitaratu gabeak ere, eta horiek argitaratzeari ekin zaio, *Saindu batzuen biziaz* deituriko liburuarekin. Liburu honekin, bestetik, «*Euskaltzainak*» izeneko bilduma berri bati hasiera ematen dio Euskaltzaindiak.

Henri Duhauk, liburua prestatzeko aurrekariak aipatu ditu, Elena Touyarou-Phagaburu andrearen eta Pierrette Dourisboure jaunaren partaidetza azpimarratuz. Argitaratu gabeko material asko dagoela adierazi du Duhauk, sei edo zazpi liburu egiteko adina.

Lehen liburuki honetan predikuak ageri dira, Adema «Zaldubi»k herrietako jaietan egin zituen hamar mintzaldi: *Jondoni Bixintxo*, *Jondoni Joanes Batista*, *Jondoni Petri*, *Jondoni Juliano*, *Andredena Maria*, *Jondoni Zipriano*, *Jondoni Martine*, *Que soy era Immaculada Counceptiou*, *Santa Luzia*, *Jondoni Eztebe*. Ademaren prosa ezagutarazteko parada ezin hobea eskainiko dute lan hauek.

### **Andres Urrutia: «Liburuaren aurkezpenean»**

Zaldubiren klasikotasuna aipatzearekin batera, haren modernotasuna azpimarratu du Andes Urrutiak. Belaunaldi baten maisutasuna ageri da Zaldubirengan, sustraiak eta erroak sendo ezarri eta gibelera behatu gabe, aitzina doanaren lekukotasuna.

Orduko hizkuntza eta esamoldeak bete-betean datoz, hizlariaren esanetan, horien premian baitago gaurko euskara. Prosa-molde indartsuak osatu behar dira, euskara izan dadin, erlijioaren eramaile ez ezik, literatura, zientzia, lege, ekonomiari eta gainerako giza bizitzari dagokion ororen eramaile. Horretan lagungarri eta erakusgarri da Zaldubiren ekarria, horretan ere ohargarri gaurko euskaldunentzat.

Bukatzeko, *Euskaltzainak* izeneko bilduma aipatu du, liburu honekin hasiera eman zaiona hain zuzen, eta bilduma horretan Akademiaren historiaren barruan jokatibide esanguratsua eta pisuzkoa izan duten kideen obrak nahiz ikerketak argitaratzeko asmoa azaldu du, haiei buruzko azterketak eta hizkuntzaren historia alboratu gabe.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria





**EUSKALTZAINDIAREN 2008ko  
BATZAR-EGUTEGIA**



## EUSKALTZAINDIAREN 2008ko BATZAR-EGUTEGIA

<b>OSOKO BATZARRAK ETA AGERIKO BILKURAK</b>			
<b>Hila</b>	<b>Eguna</b>	<b>Tokia</b>	<b>Zer</b>
Urtarrila	24	Bilbo	– Euskararen Erakunde Publikoarekin hitzarmena sinatzea – Jean Haritschelhar euskaltzainburu ohiaren omenaldia
Urtarrila	25	Bilbo	– Batzar arrunta – <i>Recuperación del Euskera en Navarra</i> -ren aurkezpena egileak
Otsaila	29	Bilbo	– Batzar arrunta – Hilberri-txostenak (1) – Bestelako txostenak (2)
Apirila	4	Bilbo	Batzar arrunta
Apirila	25	Donostia	Batzar arrunta
Maiatza	30	Iruñea	Batzar arrunta
Maiatza	31	Etxaleku	Sarrera-hitzaldia (S. Aleman)
Ekaina	27	Bilbo	Batzar arrunta
Uztaila	18	Hendaia	Batzar arrunta
Uztaila	19	Hendaia	Sarrera-hitzaldia (A. Arkotxa)
Iraila	26	Bilbo	Batzar arrunta
Urria	6	Iruñea	Batzar Berezia
Urria	6-10	Iruñea	XVI. Biltzarra
Urria	31	Donostia	Batzar arrunta
Azaroa	28	Bilbo	Batzar arrunta
Abendua	19	Donostia	Batzar arrunta

(1) Jose Manuel Lasarte eta Jesus Atxaren hilberri-txostenak.

(2) Angel Ibisate euskaltzain urgazleak *Ergoien-ez* egindako txostena irakurtzea.



**EUSKALTZAINDIAREN**  
***ARAUAK***



## LXII. ARAUEN TESTU OSOA

151

### ESPAINIA-FRANTZIETAKO ESKUALDEEN IZENAK

Espainiako eta Frantziako gaur egungo eskualde geografiko, historiko, ekonomiko edo administratiboak, oro har, jatorrizko hizkuntzan bezala idaztekoak dira euskaraz (gaztelaniaz, frantsesez, katalanez, galegoz, okzitanieraz...), hau da, ez dira euskal exonimoak. Beraz, leku-izen horiek euskaraz aipatzean, ez da grafia-egokitzapenik egiten. Adibideak: *Beaujolais*, *Cognac*, *Sobrarbe*, *Ribagorza*.

Hauk dira salbuespenak, hau da, euskarazko berezko izena dute:

- *Jazetania* (gaztelaniaz, *Jacetania*), erromatarren garaiko toponimoa baita.
- *Bearno/Biarno* (frantsesez, *Béarn*; okzitanieraz, *Bearn* edo *Biarn*), 149. arauan (*Euskal Herri inguruko exonimoak*) arautua.
- *Bigorra* (frantsesez *Bigorre*, okzitanieraz *Bigòrra*, katalanez *Bigorra*, aragoieraz *Bigorra*; gaztelaniaz *Bigorra*; latinez, bada *Civitas Bigorra* toponimoa ere; eta *Bigorra* erabiltzen da gaur egun euskarazko zenbait komunikabide, entziklopedia eta liburutan ere).

Badira, halaber, lehendik araututa dauden zenbait eskualde-izen, hau da, Espainiako edo Frantziako estatuetako gaur egungo banaketa administratibo nagusiaren parte ere badirenak eta, ondorioz, 32. arauan (*Espainiako Erresumako autonomia-erkidegoen, probintzien eta probintzia-heriburuen izenak*) eta 36. arauan (*Frantziako Errepublikako eskualde-, departamendu- eta hiriburu-izenak*) euskal exonimo gisa ageri direnak. Hona hemen:

- *Andaluzia*, *Asturietako Printzerria* (izen historiko gisa erabil daiteke), *Aragoi*, *Errioxa*, *Extremadura*, *Galizia*, *Gaztela*, *Katalunia*, *Mantxa*, *Valentzia*.
- *Alsazia*, *Akitania*, *Ardenak*, *Auvernia*, *Normandia*, *Borgoina / Burgundia* (izen historiko gisa erabil daiteke), *Bretainia*, *Dordoina*, *Girona*, *Landak/Landes*, *Lorrena*, *Okzitanian*, *Pikardia*, *Proventza* (izen historiko gisa erabil daiteke), *Rossello* (izen historiko gisa erabil daiteke), *Savoia*.

Euskal Herriko mugetan edo mugetatik hurbil kokaturik daudela eta (hala nola *Bureba* edo *Bigorra*) edo sozioekonomian, turismoan, gastronomian, kirolean edo beste arloren batean duten garrantzia dela eta, nahiz eta batzuek gaur egun izaera administratiborik ere ez izan, maiz agertzen dira horrelako eskualde-izenak komunikabideetan, merkataritza- eta turismo-arloetako idazkietan, baita eskola-liburuetan ere. Horregatik, komeni da irizpide orokor batzuk ematea, euskaraz eskualde horien izenak idaztean kontuan hartu beharrekoak. Irizpide horiek finkatzeko eta euskal exonimoa duten Espainiako eta Frantziako gaur egungo eskualdeen izenak emateko atundu da arau hau.

\* \* \*

#### Eskualdeen izenak idazteko irizpideak

1. Askotan, eskualdearen jatorrizko izena artikuluz idazten da erdaretan, singularrean nahiz pluralen. Euskaraz, artikulua ez aipatzea izan da joera nagusia, eta hala da gaur egun ere. Horregatik, adibidez, *Errioxa* edo *Mantxa* grafiak arautu dira euskaraz gaztelaniazko *La Rioja* eta *La Mancha* toponimoetarako. Edo, hirietan, *Coruña* eta *Arroxela* (erdaraz, *A Coruña* eta *La Rochelle*). Beraz, euskarazko testuetan erabiltzean, ez da artikulurik behar (besterik da atlas, entziklopedia eta antzekoetan, non gerta baitaiteke komenigarri zatea jatorrizko forma osorik ematea). Adibideak:

<b>Erdaraz</b>	<b>Euskaraz</b>
(la) Alcarria <sup>1</sup>	Alcarria
(el) Bierzo /(o) B(i)erzo <sup>2</sup>	Bierzo
(la) Garrotxa <sup>3</sup>	Garrotxa
(el) Maestrazgo/ (el) Maestrat <sup>4</sup>	Maestrazgo/Maestrat
(la) Bureba <sup>5</sup>	Bureba
(la) Alpujarra <sup>6</sup>	Alpujarra
(l')Empordà <sup>7</sup>	Empordà
(la) Cerdanya <sup>8</sup>	Cerdanya
(a) Limia <sup>9</sup>	Limia
(el) Priorat <sup>10</sup>	Priorat
(l') Artois <sup>11</sup>	Artois
(le) Beaujolais <sup>12</sup>	Beaujolais
(la) Champagne <sup>13</sup>	Champagne
(le) Médoc <sup>14</sup>	Médoc
(le) Bazadais <sup>15</sup>	Bazadais
(la) Camargue (frantsesa) / Camarga (okzitaniera) <sup>16</sup>	Camargue/Camarga
(le) Charolais <sup>17</sup>	Charolais
(le) Périgord <sup>18</sup>	Périgord
(le) Seignaux (frantsesa) / Seinautze (okzitaniera) <sup>19</sup>	Seignautze <sup>19</sup>
(le) Maremne / Maremna (okzitaniera) <sup>20</sup>	Maremne/Maremna

2. Eskualdearen izena pluralezkoa denean ere, ez da artikulua idatziko, eta pluraltasuna ez da eskaratuko (*Hurdes eskualdea*, eta ez *\*las Hurdes eskualdea* edo *\*Hurdeak eskualdea*), deklinabide-kasua edozein dela ere (*Hurdesen ibili gara* eta ez *Hurdesetan ibili gara*; *Hurdesa/Hurdesera noa*, eta ez *\*Hurdesetara noa*). Adibideak:

<sup>1</sup> Ezti-eskualde ospetsua, Guadalajara, Cuenca eta Madril probintzietan.

<sup>2</sup> Leongo eskualdea, meztaritzagatik eta abeltzaintzagatik ezaguna. Eskualdearen mendebaldean, galegoz mintzo dira.

<sup>3</sup> Gironako eskualdea.

<sup>4</sup> Teruel eta Castello probintzietako eskualdea, 2. Karlistaldiagatik ezaguna.

<sup>5</sup> Burgosko eskualdea, Arabako mugan, Nafarroako Erresumakoa izana; hango hiri batean datza Antso III. erregea.

<sup>6</sup> Granada eta Almeriako eskualde menditsua.

<sup>7</sup> Gironako eskualdea.

<sup>8</sup> Kataluniako lurralde historikoa, Ipar Katalunian eta Hego Katalunian.

<sup>9</sup> Ourenseko eskualdea eta ibaia. Erdi Aroan, gaur egungo Portugalgo iparraldea ere hartzen zuen.

<sup>10</sup> Tarragonako ardo-eskualde ezaguna.

<sup>11</sup> Frantziako iparraldeko antzinako probintzia, Pas-de-Calais departamenduan.

<sup>12</sup> Saône-et-Loire eta Rhône departamenduetako ardo-eskualdea.

<sup>13</sup> Champagne-Ardenne eskualdeko eskualde historikoa eta ardo-lurralde ospetsua (xanpaina).

<sup>14</sup> Gironde departamenduko eskualdea.

<sup>15</sup> Gironde departamenduko eskualdea.

<sup>16</sup> Rodano ibaiaren deltaxo eskualdea.

<sup>17</sup> Borgoinako eskualdea, Saône-et-Loire departamenduan; haragitarako behi-arraza ospetsu baten jatorria.

<sup>18</sup> Dordoina departamenduko eskualde historikoa.

<sup>19</sup> Landak departamenduko eskualdea, Lapurdiren mugakidea. Euskaraz *Seinautze* derituz, Louis Dassanceren arabera.

<sup>20</sup> Landak departamenduko eskualdea, Lapurditik gertu.



<b>Erdaraz</b>	<b>Euskaraz</b>
las Hurdes <sup>21</sup>	Hurdes
los Monegros <sup>22</sup>	Monegros
os Ancares <sup>23</sup>	Ancares
los Pedroches <sup>24</sup>	Pedroches
las Villuercas <sup>25</sup>	Villuercas
les Mauges <sup>26</sup>	Mauges
les Baronnies <sup>27</sup>	Baronnies
les Combrailles <sup>28</sup>	Combrailles

Salbuespen dira euskal exonimoak: *Ardenak, Landak*.

3. Batzuetan, eskualdearen izendapena izen espezifiko batez (hidronimoak eta oronimoak, askotan) eta osagai generiko batez osatzen da. Horrelako izen deskriptiboak direnean, onargarria edo zilegia da osagai generikoa euskaratzea, baina jatorrizko grafia hartzea da ohikoa, batez ere eskualdea sor-marka denean (*Ribera del Duero* eskualdea da ardo baten sor-marka ezaguna, *Dueroko Erribera* ez da erabiltzen). Nolanahi ere, eskualde administratiboak eremu fisikoa besterik adierazten ez badu, ohikoa da osagai generikoa euskaratzea (*Sierra de la Demanda* eskualdea, berez, *Demanda mendilerroa* da), batez ere osagai generikoa hain orokorra denean (beste batzuetan, euskaratzeak eskualdearen identifikazioa zailduko luke; horregatik, hobestekoa da jatorrizkoa uztea eta aposizioan erabiltzea. Adibidez, *Huerta de Murcia eskualdea* edo *Camp de Morvedre eskualdea*). Adibideak:

<b>Erdaraz</b>	<b>Euskaraz</b>
Baix/Bajo Cinca <sup>29</sup>	Baix Cinca / Bajo Cinca / Cinca Beherea
Alto Gállego <sup>30</sup>	Alto Gállego / Gallego Garaia
Cinca Medio <sup>31</sup>	Cinca Medio / Cinca Erdialdea
Baix Ebre <sup>32</sup>	Baix Ebre / Ebro Beherea <sup>(1)</sup>
Ribera del Duero <sup>33</sup>	Ribera del Duero / Dueroko Erribera
Valle del Jerte <sup>34</sup>	Valle del Jerte / Jerte ibarra

<sup>21</sup> Cáceres probintziako eskualdea.

<sup>22</sup> Aragoiko eskualdea, Huesca eta Zaragoza probintzietan.

<sup>23</sup> Lugoko eskualdea.

<sup>24</sup> Kordobako eskualdea.

<sup>25</sup> Cáceresko eskualdea.

<sup>26</sup> Maine-et-Loire departamenduko eskualdea.

<sup>27</sup> Pirinio Garaiak departamenduko eskualdea.

<sup>28</sup> Puy-de-Dôme, Allier eta Creuse departamenduetan banatutako eskualdea.

<sup>29</sup> Huescako eskualdea. Katalanez mintzo dira.

<sup>30</sup> Huescako eskualdea, turismoa dela-eta ezaguna.

<sup>31</sup> Huescako eskualdea.

<sup>32</sup> Tarragonako eskualdea. Han itsasoratzen da Ebro ibaia.

<sup>33</sup> Burgos eta Valladolideko ardo-eskualde ezaguna.

<sup>34</sup> Extremadurako nekazaritza-eskualdea.

<b>Erdaraz</b>	<b>Euskaraz</b>
Montaña Palentina <sup>35</sup>	Palentziako Mendialdea / Montaña Palentina
Haut-Adour <sup>36</sup>	Haut-Adour / Aturri Garaia <sup>(2)</sup>
las Arribes del Duero <sup>37</sup>	Arribes del Duero / Dueroako Arribes

(1) Kasu honetan, *Ebro* euskal toponimoa erabiltzen da, eta ez *\*Ebre Beherea*.

(2) Kasu honetan, *Aturri* euskal toponimoa erabiltzen da, eta ez *\*Adour Garaia*. Antzeko kasua da frantsesezko *Haute-Garonne* departamendu-izena, euskaraz *Garona Garaia* arautua 36. arauan.

### Oharrak

1. Leku-izena geografia fisikoa eremuari dagokionean, leku-izenaren osagai generikoa letra xehez idazten da; hala ere, leku-izena geografia politikoaren eremuko denean, leku-izenaren osagai generikoa letra larriz idazten da. Adibidez, *Bajo Aragón* edo *Aragoi Beherea* eskualde historikoa da, eta letra larriz idazten dira izendapena osatzen duten bi hitzak. Alabaina, Nafarroako *Aragoi* ibaiaren azken zatia izendatzeko, *Aragoi beherea* idatz daiteke, *behere* hitza letra xehez jarrita, ez baitu eskualde administratiboa adierazten.
2. Benetako eskualde-izendapen ez direnak euskaratzekoak dira. Adibidez, *la Mancha conquense*, *el Pirineo aragonés*, *el Pirineo catalán*, *les Pyrénées ariégeoises* edo *les Alpes méridionales*, hurrenez hurren, honela izendatu behar dira euskaraz: *Cuencako Mantxa*, *Aragoiko Pirinioak*, *Kataluniako Pirinioak*, *Ariégoiko Pirinioak*, *hegoaldeko Alpeak*.

Salbuespena da *Errioxa* autonomia-erkidegoaren banaketa. *Errioxa* euskal toponimoa denez, eskualdearen banaketa euskaraz ematekoa da:

<b>Erdaraz</b>	<b>Euskaraz</b>
Rioja Alta	Errioxa Garaia
Rioja Media	Errioxa Erdialdea
Rioja Baja	Errioxa Beherea

Oharra: autonomia-erkidegoaren barneko banaketaz gainera, ardo-azpieskualdeetarako ere erabiltzen dira. Euskal Herrian bada *Arabako Errioxa* eskualdea ere.

4. Nolanahi ere, eskualdearen izena osatzen duten izen generiko bereziak ez dira euskaratzekoak. Adibideak:

<b>Erdaraz</b>	<b>Euskaraz</b>
Campo de Gibraltar <sup>38</sup>	Campo de Gibraltar
Campaña de Jerez <sup>39</sup>	Campaña de Jerez

<sup>35</sup> Palentziako iparraldeko eskualdea, Bilbo-León meatze-trenbide ezagunak zeharkatua.

<sup>36</sup> Midi-Pyrénées eskualdearen barneko eskualde naturala.

<sup>37</sup> Salamancako eskualdea.

<sup>38</sup> Cádizko eskualde estrategikoa.

<sup>39</sup> Cádizko ardo-eskualde ezaguna.

<b>Erdaraz</b>	<b>Euskaraz</b>
Tierra del Pan <sup>40</sup>	Tierra del Pan
Tierra del Vino <sup>41</sup>	Tierra del Vino
Páramos del Esgueva <sup>42</sup>	Páramos del Esgueva
Llanos de Olivenza <sup>43</sup>	Llanos de Olivenza
Pla de l'Estany <sup>44</sup>	Pla de l'Estany
Terra Chá <sup>45</sup>	Terra Chá
Horta Sud <sup>46</sup>	Horta Sud

Oharra: euskarazko testuetan aukerakoa da erdal azentu grafikoaren erabilera.

(Euskaltzaindiak, 2007ko azaroaren 30ean, Bilbon, onartua)

<sup>40</sup> Zamorako nekazaritza-eskualdea.

<sup>41</sup> Zamorako nekazaritza-eskualdea.

<sup>42</sup> Valladolideko nekazaritza-eskualdea.

<sup>43</sup> Extremadurako nekazaritza-eskualdea.

<sup>44</sup> Kataluniako eskualdea.

<sup>45</sup> Lugoko abeltzaintza-eskualdea.

<sup>46</sup> Valenziako eskualdea.



## HIZTEGI BATUA

*f - fuxina*

**f (efe)** iz. 'euskal alfabetoaren seigarren letra'.

**fa** iz. 'musika nota'.

**faboragarri** izond. *g. er. h. aldeko; mesedegarri, onuragarri*, etab.

**laboratu**, labora, laboratzen. *du ad. Zah. h. fabore egin, mesede egin.*

**fabore**

-en fabore

-en faboretan

fabore egin

faborez

**faborito** iz. *Hist., Kirol.*

**fabrika**

**fabrikatu**, fabrika(tu), fabrikatzen. *du ad.*

**fabrikatzaile**

**fabrikazio**

**facsimile** edo **faksimile**.

fadura\* e. **padura**.

fago\* e. **pago**.

fagoratu\* e. **fabore egin**.

fagore\* e. **fabore**.

**fagot** iz. *Mus.*

**failla** iz. *Geol.*

**faisai** iz. *Phasianus colchicus*.

faja\* e. **paxa**.

**fakir**

**faksimile** edo **facsimile**.

**faktitibo** izond. *Hizkl.*

**faktore** iz.: *Rh faktorea*.

**faktorial** 1 iz. *Mat. 2* izond. *Mat.*

**faktorizazio** iz. *Mat.*

faktorketa\* e. **faktorizazio**.

faktur\* e. **postari**.

**faktura**

**fakturatu**, faktura(tu), fakturatzen. *du ad.*

**fakturazio**

**fakultate**

**fakzio**

**falangeta** iz. *Anat.*

**falangina** iz. *Anat.*

**falangista** iz. *Pol.*

**falazia** iz.

falda\* e. **gona**.

**faliko** izond.

falkoin\* e. **belatz**.

**falokrata** iz.

**falokrazia** iz.

**falta**

**falta egin**

**falta gabe**

**faltan**

**falta nabaritu**

**faltaz**

**faltadun**

**faltaduri** izond. *g. er.* ‘faltaduna, erruduna’.

**falta izan**, faltako. *da* eta *du* ad.

**faltarazi**, faltaraz, faltarazten. *du* ad.

**faltatu**, falta(tu), faltatzen. 1 *du* ad. ‘huts egin’. 2 *da* ad. ‘falta izan’.

**faltatze**

**faltrikera** iz. *Bizk.* ‘sakela, patrika’.

**faltsazionismo** iz. *Fil.*

**faltsia** iz. *g. er.* ‘faltsukeria’.

**faltsifikatu**, faltsifika, faltsifikatzen. *du* ad.

**faltsifikazio**

**faltsu**

**faltsukeria**

**faltsuki**

**faltsutasun**

**faltsutu**, faltsu(tu), faltsutzen. *du* ad.

**fama**

**famatu 1**, fama(tu), famatzen. *du* ad. ‘goraipatu’.

**famatu 2** izond. ‘ospetsua’.

**familia**

**familiako** izlag. eta iz.

**familiarte**

**familiarteko**

**familiatu**, familia(tu), familiatzen. *da* ad. *Ipar.*

**fan** iz. ‘zalea, jarraitzailea’.

**fanatiko**

**fanatismo**

**fandango**

**fandangolari**

faneka\* e. **paneka**.

**fanerogamo** iz. eta izond. *Bot.*

**fanfarre**

**fanfarroi** izond. *Beh.* ‘harroa, harroputza’.

**fantasia**

**fantasma**

**fantasmagoria** iz.

**fantastiko**

**fanzine**

**faraoi**

faraon\* e. **faraoi**.

**fardel**

**fardeleria**

**fardelkeria**

**fardeltoki**

**fardo 1** izond. *Ipar. g. er.* ‘harroa’.

**fardo 2** iz. *Heg.*

**farfailya 1** izond. ‘harroa’.

farfailya 2\* e. **parpaila**.

**faringe**

**faringitis** iz. *Med.*  
 farisau\* e. **fariseu**.  
 farisear\* e. **fariseu**.  
**fariseu**  
**farmakologia** iz. *Med.*  
**farmakologiko** izond. *Med.*  
**farmazia**  
**farmazialari** iz. *Sin. botikari*.  
**faro**  
**faroera** (hizkuntza).  
**farol** iz. *Heg.* 1 'argiontzia'. 2 'kale-argia'.  
 farola\* e. **farol**.  
**farozaín**  
 farra\* e. **barre**.  
 farrasta\* e. **parrasta**.  
 farre\* e. **barre**.  
**fartsa**  
 faruxa\* e. **pagotxa**.  
**fase**  
**faszikulatu** izond. *Biol.* 'sortakatu'.  
**faszikulu** iz.  
 faszismo\* e. **faxismo**.  
 faszista\* e. **faxista**.  
**fatalismo**  
**fatalista**  
**fatiko** izond. *Hizkl.*  
 fatur\* e. **postari**.  
**faun** izond. *Ipar.* 'hutsala'.  
**fauna**  
**faundu**, faun(du), fauntzen. *da/du ad. Ipar. g. er.*  
**faunkeria** iz. *g. er.* 'harrokeria'.  
**fauno**  
**fauvismo**  
**fax**  
**faxismo**  
**faxista**  
**fazies** iz. *Geol.*  
**fedatu**, feda, fedatzen. *du ad. g. er.* 'ezkontzeko hitza eman'.  
**fedede**

- ene fedea**
- fedede eman**
- fedede-hausle** iz. *g. er.* 'heretiko'.  
**fedede on**
- fedezko**

**fededun**  
**fedegabe** izond.

- fedegabeko**

**fedegabetasun**  
**fedegabetu**, fedegabe(tu), fedegabetzen. *da/du ad.*  
 fedegabezia\* e. **fedegabetasun**.  
**fedekide**  
**federal** izond.: *Alemaniko Errepublika Federala*.  
**federalismo**  
**federalista**  
**federatu**, federa, federatzen. *da ad.: Mikronesiako Estatu Federatuak*.  
**federazio**  
**fedetsu** izond. *g. er.*

**feiros** izond. *Ipar.* ‘hauskorra’; ‘sentibera’.

**feit** iz. *Batez ere Zub.* ‘gertakaria’.

**fekula**

**feldespato**

feldro\* e. **feltro**.

**felpa** iz. *Heg.*

**feltro**

**feminismo**

**feminista**

**feminitate** iz. *g. er.*

**femur** iz. *Anat.* ‘izter-hezurra’.

**fenix**

**feniziera** (hizkuntza).

**fenol** iz. *Kim.*

**fenomeno**

**fenomenologia** iz.

**fenomenologiko** izond.

**fenotipo** iz.

feodal\* e. **feudal**.

ferde\* e. **berde**.

**fereka**

**ferekaka**

**ferekaldi**

**ferekatu**, fereka(tu), ferekatzen. *du ad.*

**ferekatzaile**

fereku\* e. **fereka**.

**feria**

**fermu** izond. *Ipar.* ‘irmoa’.

**fermuki** adlag. *Ipar.*

**fermutasun** iz. *Ipar.*

**ferra**

**ferratoki**

**ferratu**, ferra(tu), ferratzen. *du ad.*

**ferratzaile**

**ferreta** iz. *Ipar.* ‘edarra, suila’.

ferreteria\* e. **burdindeg**.

**ferriko** izond. *Metal.*

**ferrita** iz. *Metal.*

**ferritiko** izond. *Metal.*

ferrokarril\* e. **burdinbide**.

**ferromagnetiko** izond. *Fis.*

**ferry**

**festa**

**festa egin**

**festa-egun**

festa-berri\* e. **Bestaberri**.

**festazale**

**festibal** iz. ‘jaialdia’.

**fetu** iz. ‘umekia’.

fetxa\* e. **data**.

fetxatu\* e. **datatu**.

**fetxo** izond. *Ipar.*

**fetxoki** adlag. *Ipar.*

**fetxotasun** iz. *Ipar.*

**feudal** izond.: *gizarte feudala*.

**feudalismo**

**feudo** iz. *Heg.*



fibra\* e. **zuntz**.

**fibrinogeno** iz. *Biokim.*

**ficus** iz. *Ficus elastica.*

**fidagaitz**

**fidagaizkeria**

**fidagaiztasun**

**fidagaiztu**, fidagaitz/fidagaiztu, fidagaizten. *da/du ad.*

**fidagarri**

**fidagarritasun**

**fida izan**. *du ad. Ipar.* 'fidatu'.

fidakaitz\* e. **fidagaitz**.

fidakaiztu\* e. **fidagaiztu**.

**fidakor**

**fidantzia** iz. 'uste ona'.

**fidatu**, fida, fidatzen. 1 *da ad.:* *zeure indarretan soilik fidatzen zara.* 2 *du ad.:* *ez diozu berritsuari sekreturik fidatzen.*

**fidel**

**fidelitate**

**fidelki**

**fideltasun**

**fideo** iz. *Heg.*

fieltro\* e. **feltro**.

**fier** izond. *Ipar.* eta *Naf.*

**fierki** adlag. *Ipar.*

**fier**tu, fier(tu), fiertzen. *da/du ad. Ipar. g. er.*

**figura**

**figuratibo** izond. (arte mota bati dagokiona).

**figurazio** iz.

**figurin**

fijatu\* e. **erreparatu**, **ohartu**; **finkatu**.

**fijiar** (herritarra).

fiko\* e. **piku**.

fikotze\* e. **pikondo**.

fiktizio\* e. **gezurrezko**; **fikziozko**.

**fikzio** iz. *Liter.*

**fikziozko** izlag.

**filantropia**

**filantropiko**

**filantropo**

**filarmoniko** izond.: *orquestra filarmonikoa.*

**filatelia**

**filateliko**

**filatelista**

fildeferra\* e. **burdinari**, **alanbre**.

**filial** iz.

filibustari\* e. **filibustero**.

**filibustero**

**filigrana**

**filipinar** (herritarra).

**film**

**film ertain**

**film labur**

**film luze**

**filmatu**, filma, filmatzen. *du ad.*

**filmatze**

filmina\* e. **diapositiba**.

**filmografia**

**filmoteka** iz. 1 ‘mikrofilmen biltegia’. 2\* e. **zinemateka**.

**filogenetiko**

**filogenia**

**filologia**

**filologiko**

**filologo**

filosofari\* e. **filosofo**.

**filosofatu**, filosofoa, filosofatzen. *du ad.*

**filosofia** iz.: *filosofia sistemak*.

**filosofiko**

filosofilari\* e. **filosofo**.

**filosofo**

**filoxera** iz. *Viteus vitifolii*.

filtratu\* e. **iragazi**, **irazi**.

**filum** iz. *Biol.*

**filus** izond. *Ipar. g. er.*

**filuseria** iz. *Ipar. g. er.*

**fin** 1 iz.

**azken finean**

**fin gaitz egin**

**fin gaizto egin**

**fin** 2 izond.: *langile fina; fin jokatu, ibili*.

**final** iz. *Kirol.*

**final-laurden**

**final-zortziren**

**finalurreko** iz. *Sin. finalerdi*.

**finalerdi** iz. *Sin. finalaurreko*.

**finalis** iz. *Mus.*

**finalista**

**finantza** iz.: *finantza arazoak*.

**finantzabide**

**finantzari** iz.

**finantzario** izond.: *arazo tekniko eta finantzarioak*.

**finantzatu**, finantza(tu), finantzatzen. *du ad.*

**finantzatzaile**

**findu**, fin(du), fintzen. *da/du ad.: petrolio findu*.

**fineza** iz. *Heg. h. fintasun*.

**finezia** iz. *Ipar. ‘amarrua’*.

**fini izan**. *da/du ad. Ipar. ‘amaitu, bukatu’*.

**finitu 1**, fini, finitzen. *da/du ad. Ipar. ‘amaitu, bukatu’*.

**finitu 2** izond. *Fil., Mat.*

**finitze**

**finkagarri** iz. ‘finkatzen duena’.

**finkapen**

**finkarazi**, finkaraz, finkarazten. *dio ad.*

**finkatu**, finka, finkatzen. *du ad.: Saulek bere erregetza finkatu zuenean; zangoak non finkatzen zituen ikusi ere gabe; bere egoitza Bilbon finkatzeko; \*Donostian finkatu dira e. Donostian kokatu dira*.

**finkatzaile**

**finkatze**

**finketa**

**finki** adlag. *Ipar. ‘fermuki, irmoki’*.

**finko** izond.

**finkotasun**

**finlandiar** (herritarra).

**finlandiera** (hizkuntza). *Sin. suomiera*.

**fintasun**

**fio izan.** *da ad. Gip. Lgart.* ‘fidatu’.

**fiordo**

**firfira** iz.

**firi-fara**

**firi-firi**

**firin-faran**

**firma** iz. 1 *Heg.* ‘sinadura’. 2 ‘enpresa’.

firramentu\* e. **ortzi**.

firmatu\* e. **sinatu**.

**firme** izond. *Zah.* ‘irmoa’.

**firrila** iz. *g. er.* 1 ‘gurpila’. 2 ‘maratila’.

**firrinda** iz. *Ipar.*

**firrindan**

**firrindaka** adlag. ‘firrindan’.

firu\* e. **piru**.

**firurika** *Ipar.*

**firurikan**

**firurikatu**, firurika(tu), firurikatzen. *da/du ad. Ipar.* ‘birarazi’.

**fisika**

**fisikari** iz.

**fisiko** izond.

**fisikoki**

**fisio** iz. *Fis.*

**fisiologia**

**fisiologiko**

**fisionomia** iz.

**fisioterapeuta**

**fisioterapia**

fisonomia\* e. **fisionomia**.

**fisura** iz. *Anat., Med.*

**fite** adlag. *Ipar. eta Naf.*

**fitofago**

**fitopatologia**

**fitoplankton**

**fitosanitario**

**fits**

**fitsik**

**fitxa**

**fitxaketa**

**fitxategi**

**fitxatu**, fitxa(tu), fitxatzen. *du ad.*

fitxero\* e. **fitxategi**.

**fiu**

**flagelo** iz. *Biol.*

**flagelodun** izond. *Biol.*

**flakarazi**, flakaraz, flakarazten. *du ad. Ipar.* ‘ahularazi’.

**flakatu**, flaka, flakutzen. *da/du ad.* 1 *Batez ere Ipar.* ‘ahuldu’. 2 *Heg.* ‘argaldu’.

**flakezia**

**flakia** iz. *Batez ere Gip. Herr.*

**flako** izond. *Batez ere Ipar.* ‘ahula’.

flakoin\* e. **flasko**.

**flakotasun**

flamenco\* e. **flamenko**.

**flamenko 1** iz. *Phoenixopterus ruber*.

**flamenko 2** iz. (Andaluziako musika eta dantza).

**flanela**

**flanelografo**

**flanelograma**

**flasko**

**flauta**

**flautista**

**flebitis**

**fleitean izan.** *da ad. Ipar.* ‘sasoian izan’: *pilotari hori fleitean da egun.*

**flemoi**

fletxa\* e. **gezi.**

**flexio** iz. *Gram.*

**flogisto** iz. *Kim.*

**floka** iz. *Ipar.*

**flora** iz. *Sin.* **landaredi.**

florikultura\* e. **loregintza, lorezaintza.**

**florin** iz. (dirua).

**flota** iz. ‘ontzidia’.

**flotagailu**

**flotagarri**

**flotatu,** flota, flotatzen. *du ad. (nor kasurik gabea).*

**flotazio**

**fluido** iz.

fluktuaizio\* e. **gorabehera.**

**fluor**

**fluoreszente**

**fluoreszentzia**

**fluxu** iz. *Mat., Fis.:* *fluxu magnetikoa.* (Bestetan, erabil *isuri, jario; joan-etorri, mugimendu).*

foagras\* e. **foie gras.**

**fobia**

**foie gras**

**foka** iz. *Fam. Phocidae. Sin.* **itsas txakur.**

fokatu\* e. **fokuratu.**

**foku**

**fokuratu,** fokura(tu), fokuratzen. *du ad.*

**folikulu** iz. *Anat., Bot.*

**folio**

**foliolo** iz. *Bot.*

**folk** iz. (musika mota): *folk musika.*

**folklore**

**folklorekeria**

**folkloriko**

**folklorista** iz. ‘folklore-gaietan aditua’.

**fonazio** iz. *Hizkl.*

**fondo** iz. h. funts.

**fonema**

**fonetika**

**fonetiko**

**fonetismo** iz. *Hizkl.*

**fontafaletar** (herritarra).

**foniko** izond. *Hizkl.*

**fonografo**

**fonologia**

**fonologiko**

**fonoteka**

**fontanela** iz. *Anat.*

fontanero\* e. **iturgin.**

football\* e. **futbol.**

**foral**

**foraminifero** iz. eta izond. *Zool.*

**forja****forjagarri** izond. *Teknol.***forjaketa** iz. *Teknol.***forjari****forjatu**, forja(tu), forjatzen. *du ad. Teknol.***forma****formakuntza** iz. 'hezkuntza, heziketa'.**formal** izond. 1 'formazkoa, formari dagokiona'. 2 *Heg. Herr.* 'zintzoa'.**formaldatu**, formalda, formaldatzen. *da/du ad.***formaldehido** iz. *Kim.***formaldu**, formal(du), formaltzen. *da/du ad. Heg. Herr.* 'formal, zintzo bihurtu'.**formalismo****formalista****formalizatu**, formaliza, formalizatzen. *du ad.***formalizatze****formalizazio****formalki****formaltasun** iz. *g. er.*forman egon\* e. **sasoian egon, trenpuan izan, fleitean izan.****formante** iz.**formatu 1**, forma(tu), formatzen. *da/du ad.***formatu 2** iz.**formazio****formol** iz. *Kim.***formula****formulatu**, formula(tu), formulatzen. *du ad.*fornitu\* e. **hornitu.****forradura****forratu**, forra, forratzen. *du ad.***fortu**fortaleza\* e. **gotorleku.****forte** iz. *Mus.***fortuna** iz. 'zoria'.**fortuna egin** *Ipar.* 'aberastu'.**fortunatu**, fortuna(tu), fortunatzen. *da ad. Lgart.* 'gertatu, suertatu': *fortunatu da horien etxetik dama gazte bat joatea.***foru****Foru Aldundi****Foru Diputazio****Foru Erkidego**: *Nafarroako Foru Erkidegoa.***forulari****foruzale****foruzaletasun****fosfato****fosforeszentzia****fosforiko****fosforo****fosil****fosildu**, fosil(du), fosiltzen. *da/du ad.***fosiltze****foto****fotoelektriko****fotoelektrizitate****fotogeniko** izond.**fotografatu****fotografia****fotografiatu**, fotografia(tu), fotografiatzen. *du ad.*

**fotografiko****fotografo**

**fotograma** iz. (filmekoa).

**fotoi** iz. *Fis.*

fotokonposaketa\* e. **fotokonposizio**.

**fotokonposizio****fotokopia**

fotokopiadora\* e. **fotokopiagailu**.

**fotokopiagailu**

**fotokopiatu**, fotokopia(tu), fotokopiatzen. *du* ad.

**fotolito****fotometro****fotosintesi**

**fotovoltaiko** izond. *Fis.*

foular\* e. **fular**.

frac\* e. **frak**.

**fragata****fraide****fraidegai**

**fraidego** iz. *Ipar.*

**fraidetegi**

**fraidetu**, fraide(tu), fraidetzen. *da* ad.

**fraidetza**

fraile\* e. **fraide**.

**frak**

fraka\* e. **praka**.

frakadun\* e. **prakadun**.

frakasatu\* e. **porrot egin**.

frakaso\* e. **porrot**.

**frakzio****frakzionario**

**framazon** iz. *Ipar.* ‘masoia’.

**framazoneria** iz. *Ipar. Sin.* **masoneria**.

franela\* e. **flanela**.

franelografo\* e. **flanelografo**.

franelograma\* e. **flanelograma**.

frango\* e. **franko**.

**frankezia** iz. *Beh. g. er.* ‘tolesgabetasuna’.

**frankia** iz. *Ipar.* ‘ugaritasuna’.

**frankian****frankismo****frankista**

**frankizia** iz. *Ekon., Zuz.*

**franko 1** zenbtz.: *duela franko urte; etxe frankotan ikusten den gauza; isurarazi diote negarra franko.*

**frankotan** adlag.: *frankotan esana*.

**franko 2** iz. ‘antzinako Frantziako herritarra’.

**frankofonia****frankofono**

**frankoki** adalg. *Ipar.* ‘ugaritasunez’.

**frankotasun**

frankotiradore\* e. **frankotiratzaile**.

**frankotiratzaile**

**frantses 1** (herritarra) *Sin.* **frantziar**. 2 (hizkuntza).

**frantses(-)belar** ‘alpapa, luzerna’.

**frantses-euskaldun**

**frantses(-)porru** ‘zainzuria’.

frantsesera\* e. **frantses**.

- frantseste 1** iz. (gerrate baten izena).
- frantseste 2**
- frantsestu**, frantses(tu), frantsesten. *da/du* ad.
- frantximankeria** iz. *Ipar.*
- frantximant** iz. eta izond. *Ipar. Pei.*
- frantziar** (herritarra). *Sin. frantses.*
- frantzman\* e. **frantximant**.
- frantziskano** izond. eta iz. *Ipar.* 'frantziskotarra'.
- frantziskotar**
- fraseologia** iz. *Hizkl.*
- frasko\* e. **flasko**.
- fraude\* e. **iruzur**.
- freatiko**
- freelance**
- freetowndar** (herritarra).
- fregadera\* e. **harraska**.
- frejitu\* e. **frijitu**.
- frenatu**, frena, frenatzen. *du* ad. 'balaztatu, galga eman'.
- frenesi** iz. *g. er.*
- frenetiko** izond. *g. er.*
- freno**
- frente\* e. **fronte**.
- frera** iz. *Ipar.* 'fraidea'.
- fresa**
- fresadore\* e. **fresatzaile**.
- fresaketa**
- fresatu**, fresa(tu), fresatzen. *du* ad.
- fresatzaile**
- freskagarri**
- freskatu**, freska, freskatzen. *da/du* ad.
- fresko**
- freskotasun**
- freskura** iz.: *goizeko freskuran.*
- frigorifiko\* e. **hozkailu**.
- frijiarazi**, frijiaraz, frijiarazten. *dio* ad.
- frijitu**, friji, frijitzen. *du* ad.
- frikari** izond. eta iz. *Hizkl.*
- frikun** izond. *Ipar.*
- frikunkeria** iz. *Ipar.*
- frikzio\* e. **tirabira**, **liskar**, etab.; mekanikan, **marruskadura**.
- frintz\* e. **mintz** (eta **printza**).
- friso**
- fritatu\* e. **frijitu**.
- frito\* e. **frijitu**.
- frits\* e. **fits**.
- frix\* e. **brixt**.
- frixtan** adlag. *Ipar.* 'bat-batean'.
- froga** iz. 'zerbait egia dela finkatzeko edo egiaztatzeko balio duena': *euskararen antzinatasunaren frogarik ez dute aurkitu han; \*liburuaren lehen frogak e. liburuaren lehen probak.*
- frogabide**
- frogaezin** izond. 'ezin frogatuzkoa'.
- frogagaitz**
- frogagarri**
- frogagiri**
- frogantza**
- frogarazi**, frogaraz, frogarazten. *dio* ad.
- frogarri\* e. **frogagarri**.

**frogatu**, froga(tu), frogatzen. *du ad.*: *argudio egokiak erabili zituen haurraren aita zela frogatzeko; \*lagunak frogatzeko esan zuen hori e. lagunak probatzeko esan zuen hori.*

frogeta\* e. **probeta**.

frogu\* e. **progu**.

**frontal** 1 iz. *Eraik.* 2 izond.

**fronte**

frontera\* e. **muga**.

**frontis**

**frontoi** iz. 1 *Eraik.* 2 h. **pilotaleku**.

frotatu\* e. **igurtzi**. etab.

**fruitu**

**fruitudun**

**fruitugabe**

**fruitutsu**

**fruktosa** iz. *Kim.*

**frustratu**, frustra, frustratzen. *da ad. Psikol.* (hots: pertsonak frustratzen dira; ez, ordea, asmoak, ilusioak eta gisakoak: horiek *huts egin* dezakete, eta/edo *zapuztu* egin litezte).

**frustrazio** iz. *Psikol.*

**fruta** iz. *Heg.*

**fruta-saltzaile**

**frutagintza**

frutu\* e. **fruitu**.

**fu** (putz egitearen, ufakoaren onomatopeia).

**fuel** iz. (*fuel-olio*-ren forma laburra).

fuel-oil\* e. **fuel(-)olio**.

**fuel(-)olio**

fuate\* e. **erretilu**.

**fuera** *Herr.* 'alde!', kanpora!'

**fuera**ka adlag.

**fuga** iz. 'musika-mota'.

fuin\* e. **muin**.

**fuksia** 1 iz. *Fuchsia sp.* 2 iz. eta izond. (kolorea).

**fula** (hizkuntza).

**fular** iz.

**fumigatu**, fumiga, fumigatzen. *du ad. Med.* eta *Nekaz.*

**fumigatzaile** iz. *Med.* eta *Nekaz.*

**fumigazio** iz. *Med.* eta *Nekaz.*

**fundamentalismo**

**fundamentalista**

**fundamentu**

**fundamentuzko** izlag.

**fundatu**, funda, fundatzen. *du ad.*

**fundatzaile**

**fundazio**

**fundiarazi**, fundiaraz, fundiarazten. *du ad.* 'suntsiarazi'.

**funditu**, fundi, funditzen. *da/du ad.* 1: *bonbilla funditu* h. *bonbilla erre*. 2 *Ipar.* 'hondatu, desegin, suntsitu'.

**funditzaile** izond.: *Aingeru funditzailea*.

**fundizio** iz. *Heg.* h. **galdategi**; **burdinurtu**.

**fungizida**

**funikular**

**funsgabe** izond.

**funsgabeko** izlag.

**funsgabekeria**

**funsgabeki**

**funsgabetasun**

**funski** adlag. *Ipar.* 'benetan'.



**funts** iz. 1 ‘zerbaiten muina, oinarria’. 2 ‘pertsonen ganora’. 3 (finantzeta-eta erabiltzen dena): *maileguaren funtsa eta korrituak*. 4 ‘lur ondasuna’.

**funtsean**

**funtsez** adlag.

**funtsezko**

**funtsatu**, funtsa(tu), funtsatzen. *da/du* ad.

**funtsezkotasun**

**funtzio**

**funtzional**

**funtzionalismo** iz. *Hizkl., Psikol.*

**funtzionalista** iz. eta izond. *Hizkl., Psikol.*

**funtzionaltasun**

**funtzionamendu**

**funtzionarazi**, funtzionaraz, funtzionarazten. *du* ad.

**funtzionario**

**funtzionariotza**

**funtzionatu**, funtziona, funtzionatzen. *du* ad. (*nor* kasurik gabea): *makina horrek ez du funtzionatzen = makina horrek ez du lan egiten, makina hori ez dabil.*

**furfuria** iz. *Ipar.* ‘haserre’: *nahi bezainbat furfuria eta zalaparta.*

**furfurian** adlag.: *badoaz furfurian.*

**furgoi** iz.

**furgoneta** iz.

**furia**

furnitu\* e. **hornitu**.

**furrier** iz.: *kaporal furriera.*

**furrunda** iz. h. **burrunba**.

furtxa\* e. **sarde**.

fuselaia\* e. **fuselaje**.

**fuselaje**

**fusible**

**fusil**

**fusilamendu**

**fusilarazi**, fusilaraz, fusilarazten. *du* ad.

**fusilatu**, fusila, fusilatzen. *du* ad.

**fusilatze**

**fusio** iz. *Fis.*

futbito\* e. **areto(-)futbol**.

**futbol**

**areto(-)futbol** (lagunartean *futbito* deitzen zaio).

**futbol(-)zelai**

**futbolari**

futbolin\* e. **mahai(-)futbol**.

futbolista\* e. **futbolari**.

**futbolzale**

**futitu**, futi, futitzen. *da* ad. *Ipar. Beh.*

**futurismo**

**futurista**

**futxo** *Ipar.* (harridura adierazteko).

**fuxina** iz. *Ipar.* ‘hiru hortzeko sardea’.



**D-MAILAKO HIZKUNTZA  
GAITASUN AGIRIA**



## **D-MAILAKO HIZKUNTZA GAITASUN AGIRIA**

Euskal Gaitasun Agiria (EGA) hasieran Euskaltzaindiak berak 7 Euskal Herrietan eskaintzen zuen. Gero Gasteizko Jaurlaritzak eta Nafarroako Foru Diputazioak hartu zuten bere gain bakoitzak bere euskualdean.

Iparaldean ordea Euskaltzaindiak ez dio uko egin bere eginkizunari eta urtero bi aldiz Baionako bulegoan antolatzen da udan eta udazkenean ohiko azterketa, hemen doazen emaitzekin.

Azterketa horretaz bi ohar egin genitzake:

- 1) «Irakasle titulua» marka izan bazuen ere EGAK lehen, gaurregun ez darama berak horrelako aipamenik. «Irakasle titulua»-k gaurregun, bestalde, antolatzen direlakotz Iparaldean ere.
- 2) Iparaldeko herritarrentzat da antolatzen Euskaltzaindiaren azterketa.

Salbuespenak onartu ditugu bakarrik, Nafarroako edo beste hiru euskal probintzi-  
etako seme-alabentzat, Iparaldean jaioak, edo ikasle, langile etxekotuak, edo espetxe-  
ratuak direlarik aurkezten direnak.

*Piarres Xarriton*



## **D-MAILAKO HIZKUNTZA GAITASUN AGIRIA**

*Emate-eguna: Bilbo, 2007-VII-20*

- 6.995 – Anaiz AGUIRRE OLHAGARAY
- 6.996 – Joana ALBISTUR
- 6.997 – Amaia ANDUEZA GOYETCHE
- 6.998 – Gilen ANETAS LANDABURU
- 6.999 – Katixa AROZTEGUI IPHUTCHA
- 7.000 – Maddalen ARZALLUS ANTIA
- 7.001 – Camille BAQUÉ
- 7.002 – Marga BERRA ZUBIETA
- 7.003 – Amaia BIDART
- 7.004 – Ramuntxo BIDART
- 7.005 – Kilmen BORTAYROU DAGUERRE
- 7.006 – Amaieur CAJARAVILLE GARMENDIA
- 7.007 – Kattalin CHERBERO ETXEBERRI
- 7.008 – Kristiñe CHOPERENA IRIBARREN
- 7.009 – Nina DUMONT CASSOU
- 7.010 – Gurutze EGILUZ ZUBIA
- 7.011 – Bixente ELISSALDE DIRIBARNE
- 7.012 – José Luis EREÑAGA BARREÑA
- 7.013 – Amaia ERRAZKIN BASURKO
- 7.014 – Pierres ESQUIROL
- 7.015 – Argitxu ETXANDY GOIHENETXE
- 7.016 – Amaia ETXEBER
- 7.017 – Karine ETXEBERRI GOIHENETXE
- 7.018 – Juan Ibon FERNANDEZ IRADI
- 7.019 – Argitxu GARAT
- 7.020 – Goizeder GIL ETCHEVERRY
- 7.021 – Joana GOYHENECHE CEDARRY
- 7.022 – Lore GOYHENETCHE ACHERITEGUY
- 7.023 – Eztitxu HARIGNORDOQUY ITURBURUA
- 7.024 – Maixol IPARRAGIRRE GOENETXEA
- 7.025 – Graxi IRIGARAY
- 7.026 – Alexia IRIQUIN
- 7.027 – Haizea ISASA MENDEZ
- 7.028 – Maiena JORAJURIA ETCHEVERRY

- 7.029 – Pablo LANDA AGIRRETXE
- 7.030 – Clarisse LOUVARD LAXAGUE
- 7.031 – Mikel NEGUELOUA MIGELGORRI
- 7.032 – Oihana OTEGI TAPIA
- 7.033 – Milagros PEÑA OTHAITZ
- 7.034 – Alberto SAAVEDRA MARTINEZ
- 7.035 – Nahara SARALEGI GOENA
- 7.036 – Ihintza URCHEGUI



## **D-MAILAKO HIZKUNTZA GAITASUN AGIRIA**

*Emate-eguna: Bilbo, 2007-XI-30*

- 7.037 – Harriet AGIRRE GARTZIA
- 7.038 – Eztitxu AGUERRE GONGORA
- 7.039 – Asier ARANGUREN URROTZ
- 7.040 – Orkatz ARANO
- 7.041 – Eneko ASTIZ
- 7.042 – Lili BERTHOIRIGOIN ERRANDONEA
- 7.043 – Haizea BILLIOTTE JABIOL
- 7.044 – Joan BLANCO DUPONT
- 7.045 – Sabina DIAZ DE CERIO BORDA
- 7.046 – Anna EYHARABIDE CORDOBES
- 7.047 – Sébastien GRACY
- 7.048 – Maddi GUILLEMOTONIA HIGOA
- 7.049 – Corinne HARISTOY
- 7.050 – Elorri HARITSCHELHAR IPUTCHA
- 7.051 – Jon HIRIBARREN ERDOZAINTEZI-ETXART
- 7.052 – Aitor IRIONDO ISASI
- 7.053 – Jokin IRIONDO ISASI
- 7.054 – Patxi JUILLO ARDOHAIN
- 7.055 – Aihena LABEGUERIE
- 7.056 – Katixa LAJAUNIE SALLA
- 7.057 – Jenofa Marie LAMARQUE
- 7.058 – Igor LETONA BITERI
- 7.059 – Iñaki RUIZ MANZANAL
- 7.060 – Gexine THICOIPE
- 7.061 – Ainhoa ZESTAU ARANIBAR



**BERRIAK**



### III. BARTZELONAKO LIBURU AZOKAREN (SALO DEL LLIBRE) ERRENDAPEN-TXOSTENA

*Bartzelona, 2007-XI-21-25*

*Ricardo Badiola, argitalpen eragilea  
Jon Artza, salmenta arduraduna*

2007ko azaroaren 21etik 25era, *III. Salo del Llibre de Barcelona* ospatu da bertako erakustazokan. Antolatzaileak Kataluniako Editoreen Elkarte, Bartzelona eta Katalunia Liburutegien Elkarte eta *Fundación del Llibre* izan dira.

*Institut d'Estudis Catalans*-ek gonbita luzatu zion bai Euskaltzaindiari, eta bai *Consello de Cultura Galega*-ri ere, Liburu Azoka honetan parte harrezaten. Gonbitea ontzat hartu, eta bertan izan dira Euskaltzaindiko argitalpenak salgai eta webgunea ikusgai. Horretaz gain, Euskaltzaindiko argitalpen zerbitzuko kide diren Ricardo Badiola eta Jon Artza bertan izan dira azaroaren 21 eta 22an. Galiziako kultur erakundeak oster, argitalpenak bai baina ordezkariarik ez du bidaltzen.

Euskaltzaindiak bertan aurkeztu dituen argitalpen berriak jarraikook dira, hots:

- *Recuperación del euskera en Navarra*, Jagon IV
- *Zirrikituak*. Felipe Arrese Beitia Olerki Saria 2006
- *Joanes, itxaropenaren semea*. Toribio Alzaga Antzerki Saria 2006
- *Herri maitea, Herri dorpea*. Mikel Zarate Saiakera Saria 2006
- *Arkitektoa*. Txomin Agirre Eleberri Saria 2006
- *Narrazioak eta Olerkiak*, 2006
- *Luzaideko Euskeraren Hiztegia*, Mendaur III
- *Erroibar eta Esteribarko Hiztegia*, Mendaur IV
- *Etxepare, Aldudeko medikua*

Salmentak ohi bezala urriak izan dira. Hala ere, iaz baino zertxobait gehiago saldu da. Argitalpenez landa, Euskaltzaindiaren, sorrera, bilakaera eta egungo egoera azaltzen duen diptikoa (katalanez idatzia) eta gure argitalpen katalogo ugari banatu dira Erakustazokara hurbildu diren bisitarien artean.

Orotara, 325 argitaletxe inguruk hartu dute parte aipatu Liburu Azokan. Euskal Herritik ere baziren zenbaitzuk, hots, Alberdania, Euskal Herriko

Editoreen Elkartea, Euskal Herriko Unibertsitatea, Mensajero... Astean zehar jende asko ibili ez bada ere, aitzitik asteburuan bisitari gehiago izan dira. Liburuak begiratzeaz gain hara jo dutenek Azokan bertan izan diren hainbat aurkezpen, mahainguru eta ekitaldiz gozatzeko aukera izan dute.

Honetaz aparte, Azoka honek IEC eta Euskaltzaindiaren artean diren harreman bikainekin jarraitzeko parada eman du. Francesc Albar *Institut*-eko argitalpenen buruak eta Manuel Pascual argitalpenen banaketa arduradunak harrera ezin hobea eskaini digute. Bi hauek eta idatzi hau sinatzen dugunok gure lanen gorabehera eta ezaugarriez luze hitz egiteko aukera izan dugu. Baditugu antzekotasun eta desberdintasunak eta esan gabe doa badagoela elkarrengandik zerikasi. Aipatu kide hauek gain, Joan Marti IEC-ko Filologia saileko buruaren eta Ramon Corbella kudeatzailearen bisitak izan genituen. Bukatzeko esan, aurten ere IEC-en informazioa eskainiko dugula Durangoko Azokaren 42. edizioan.

## **DURANGOKO 42. EUSKAL AZOKAREKIKO KONTU ERRENDAPENA**

*Durangon, 2007ko abenduaren 5, 6, 7, 8 eta 9an*

*Ricardo Badiola Uriarte, argitalpen eragilea  
Jon Artza Bikandi, argitalpen banaketa arduraduna*

Durango Liburu eta Disko Azoka, 2007. urteko Abenduaren 5etik 9ra bitartean egin da *Landakosolo* lur eremuan kokaturiko erabilera anitzeko Erakustazokan.

Euskaltzaindiak argitalpen-salmentarako stand bi alokatu zituen irailaren 17an.

Bestalde *Gerediaga Elkarteak*, duela urte batzuk hasitako digitalizazio prozesuarekin jarraikiz, bere webgunean argitaletxe desberdinetako produktuak izan ditu ikusgai. Euron artean, Euskaltzaindikoak.

Argitaletxeek, Azoka aurreko egunak aprobeztatzen dituzte, euren nobedadeak, liburudenda zein areto desberdinetan aurkezteko. Horretaz gain, hainbat idazle eta musikaririk, Erakustazoka ondoan dauden *Plateruena* Kafe Antzokian eta Elkartegian aurkeztu dituzte euren argitalpen berriak.

Euskaltzaindiak, arrunki, argitalpena kaleratu ahala egiten du aurkezpena, Durango Azokari itxaron gabe. Dena den, argitalpen batzuk promozionatu nahian eta egoera ekonomikoak uzten duen neurrian, *Gerediaga Elkarteko* agerkarian publizitatea jarri da.

Euskaltzaindiko Prentsa Zerbitzuak, Erakundeak Durango Azokan aurkeztu duenaren informazioa helarazi die komunikabide desberdinei. Horretaz gain eta zabalkunde asmoarekin Euskaltzaindiaren azken argitalpenen berri ematen duten triptikoa eta 2008rako egutegiak banatu dira standean.

Euskaltzaindiak *Institut d'Estudis Catalans*-ekin (IEC) daukan elkarkidetzaren harremana dela eta, Erakunde honek presentzia izan du Durango Azokan. Euskaltzaindiaren standean, IEC-k bere espazio propioa izan du: haren Adierazpen Ofizialen liburukia eta IECren berri eskaintzen duen diptikoa ikusgai izan dira. Eta interesa azaldu duten bisitariei Erakunde horren Argitalpen Banaketa Arduraduna den Manuel Pascual jaunaren bisita-txartela ere eskaini eta banatu zaie.

Beraz, 2007ko edizioan, Euskaltzaindiak aurkeztu dituen argitalpen berriak jarraikook dira, hots:

- *Euskera Agerkaria ofiziala, 2007,1*
- *Recuperación del euskera en Navarra, Jagon IV*
- *Hizkuntza-zuzenbidea. Testu-bilduma euskaraz, Jagon V*
- *Zirrikituak*. Felipe Arrese Beitia Olerki Saria 2006
- *Joanes, itxaropenaren semea*. Toribio Altzaga Antzerki Saria 2006
- *Herri maitea, Herri dorpea*. Mikel Zarate Saiakera Saria 2006
- *Arkitektoa*. Txomin Agirre Eleberri Saria 2006
- *Narrazioak eta Olerkiak, 2006*
- *Luzaideko Euskeraren Hiztegia, Mendaur III*
- *Erroibar eta Esteribarko Hiztegia, Mendaur IV*
- *Etxepare, Aldudeko medikua*

Guztira Euskaltzaindiko 60 argitalpen desberdin eraman dira Azokara. Argitalpenen hautaketa eta kopurua, aurreko urteetako salmentak kontuan hartuz egin da.

\* \* \*

Azokako balorazio ofiziala nahiko baikorra izan da. Euskaltzaindiak ostera, salmenta aldetik gorakada apala izan du. Aurtengo nobedadeen salmenta nahiko urria izan bada ere, eta aintzat harturik aurreko urteetan ondo saldu diren argitalpenak ahituak direla (*Euskal Izendegia* eta *Linguae Vasconum Primitiiae 1545-1995* kasuko) balorazioa baikorra da. Joera orokorrari atxikiz, ez dira argitalpen gutxi batzuk asko saltzen, baizik eta argitalpen askotariko ale gutxi batzuk. Egun, teknologia berriek, argitalpen eta produktu askotara heltzeko aukera ematen dute. Beraz, autore konkretu batzuetatik landa, aniztasunean bilatu behar da salmentetarako gakoa. Titulu batzuk aipatzearren, esan *Euskera 2000,2 (Hiztegi Batua)*, *Agosti Chaoren bizitza eta idazlanak* eta *Hitz Egin* Metodoko irakurgaiak izan direla argitalpenik salduenak. Gainontzekoetatik, denetatik apur bat. Arestian aipatutakoa nabarmentzeko datua; eraman ditugun argitalpen ia guztietarik saldu dugun aleren bat.

Ahiturik dauden argitalpenak ez ditugu ausaz aipatu. Irakurle askok galdegin dute haietaz, batik bat *Ponte Izendegiaz*. Badirudi eta hurbiltzen zaizkigun bisitarien galderek tesia indartzen dute, jendeak nahiko argi daukala Euskaltzaindiak zer eskain diezaiokeen!

\* \* \*

Oro har jende ugari hurbildu da Azokara, gainera ez da izan desoreka handiegirik. Lehenengo eguna, laneguna izanik, nahiko motela izan bazen ere, jarraiko egunetan jende andana bildu da Azokan, baina *uholde* handirik gabe. Gerediaga Elkartek Azokan zehar antolatu dituen ekitaldi, mahainguru eta



abarretan, besteak beste, Piarres Charritton, Jose Luis Lizundia euskaltzain osoek eta Miren Agur Meabe irakasle-idazleak parte hartu dute.

Bestalde, aurtengo Argizaiola *Maiatz* olerkigintza sustatzen duen Iparraldeko elkarteari eman zaio. Elkarte honen ordezkari ezagunetarikoa bat Luzien Etxezaharreta euskaltzain urgazleak jaso izan du saria.



## LITERATURA SARIAK 2007

Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak urtero antolatzen dituzte elkarrekin eleberri, antzerki, olerki eta saiakera sariak. 2007. urteari dagozkion irabazleen izenak jakinarazi dira gaur, abenduaren 17an, egin den prentsaurrekoan. Sari-ematea Euskaltzaindiaren egoitzan, Bilbon, egin da.

Honako hauek dira aurtengo deialdiko irabazleak, eta epaimahaikideak:

Txomin Agirre eleberri-saria: eman gabe geratu da

Epaimahaikideak: Sebastian Gartzia Trujillo, Ur Apalategi eta Iratxe Retolaza.

Toribio Altzaga Antzerki-Saria: Pablo Barrio Ramirez. Lana: *Kontrako bidean*

Epaimahaikideak: Eugenio Arozena, Daniel Landart eta Patri Urkizu.

Felipe Arrese Beitia Olerki-Saria: Karmele Igartua Bengoa. Lana: *Hitzak orbainetan*

Epaimahaikideak: Jon Kortazar, Mikel Lasa eta Lourdes Otaegi.

Mikel Zarate Saio-Saria: Julen Arriolabengoa Unzueta. Lana: *Euskara Ibarguen-Cachopin kronikan*

Epaimahaikideak: Adolfo Arejita, Antton Aranburu eta Iñaki Aldekoa.

**PABLO BARRIO RAMIREZ**  
**TORIBIO ALTZAGA SARIA. ANTZERKIA**

**KONTRAKO BIDEAN**

Laurogei urteren bueltan dagoen Juli eta Ramon senar-emazteek zahar etxea aukeratu dute azken urteak bertan emateko. Gero eta nabariagoak diren hutsuneek salatzen duten moduan, kontrako bidean dauka burua Julik, Alzheimer gaixotasunak jota. Burua argi, gorputza du kontrako bidean Ramonek, «karramarroak» barrua hartuta baitauka, senarra ez beldurtzearren Julik esaten duen moduan.

Halako batean, greban hasiko dira zahar etxeko zerbitzuetako langileak. Txaro da horietako bat. Kontrako bidea hartu du Txaroren bizitzak ere; berrogei urteak dezente pasatuta eta senarrarekin banandu berria, arrazoi ekonomikoak direla eta, harekin bizitzen jarraitu behar du, etxe berean. Pertsonaia hauek lehen planoan, zerbitzu publikoen kudeaketa pribatizatzeke joera dago atzetik, karri-marroarena nagusi hor ere, aurrera itxuran, baina kontrako bidean.

\* \* \*

**Pablo Barrio**

Agurainen (Araba) sortua da, 1958an. Txikitatik Gipuzkoan bizi da, Lasperte-Orian. Enpresa Zientzian lizentziaduna, ez da inoiz enpresa munduan aritu. Irakasle moduan ibilia urte askotan, eta halako batean «orain ausartu edo betirako ahaztu» bere buruari esan eta orduan hasi zen idazten. Horretan ari da ordudanik, antzerkia idazteari emana gehienbat.

Honako sariak jaso ditu:

- 2003. urtean Toribio Alzaga Saria Euskaltzaindiak eta BBKF-k emana *Ama, hor al zaude?* antzerki lanarekin. 2004. urtean argitaratua.
- 2006. urtean Nafarroako Antzerki Eskolak eta Iruñeko Udalak antolatutako Haurrentzako Antzerki Testuen Lehiaketan lehenengo saria *–Abere hatsak eta beste animalia batzuk–* Antzerki lanarekin. 2007. urtean argitaratua eta taularatua.
- 2007. urtean Nafarroako Antzerki Eskolak eta Iruñeko Udalak antolatutako Haurrentzako Antzerki Testuen Lehiaketan lehenengo saria *–Herio azeri hori–* Antzerki lanarekin. 2008. urtean argitaratu eta taularatua izango dena.

## **KARMELE IGARTUA BENGOA FELIPE ARRESE BEITIA SARIA. *OLERKIA***

### ***HITZAK ORBAINETAN***

Orbainei eta bizitzak utzitako arrastoei arretaz begiratzuz eta mintzaturik idatzitako poema liburua da.

Geratu eta izatearen kontzientzia hitzetara ekartzeko behar baten ondorioa ere bada. Zer izan, nola maite gura... eta sentituz idatzi ahala, hitzaren sena igarrarazi nahi duena.

Zazpi atal dauzka liburukiak eta atal bakoitzaren atarian definizio bat jarri eta esanahi bat aletzen da, poemen arteko lotura bat ehunduz.

Hitzek orbainetan duten senda indarraren beste aldean, orbainek hitzetan utz dezaketen memoria agerian uzten dute liburu honetan.

Iragana orbainetan bizi delakoan, garena berritzearen kontzientzian ere badagoelakoan, eta esku ahurrean izan nahi duguna irudika daitekeelakoan idatzitako poema liburua da.

\* \* \*

### **Karmele Igartua**

Aretxabaletan jaioa, 1959an. Irakaslea herriko Eskolan.

Poesia beti lagun, irakasle jardunean izan du aukera, gainera, sortutako antzezlanak ikasleekin edo irakasleekin taularatzeko, baita deklamazioan trebatzeko (bera, eta berarekin batera ikasleak).

2005. urtean Bergarako Idazle Eskolan izena ematea iturri bat zabaltzea izan zen. Harrez gero irakurri eta idatzi ditu denboretan gura izandakoak. Lehenengo ikasturte bukaeran Idazle Eskolako beka jaso zuen narrazioa alorrean. Ordutik hona artikulu batzuk argitaratu ditu *Mugalari*, *Nabarra* edo *Administrazioa euskaraz* aldizkarian. [www.idazten.com](http://www.idazten.com) webgunean irakur daitezke beronen testu batzuk.

Marina Tsvietáieva poeta errusiarraren 12 gutun itzuli ditu gaztelaniatik.

**JULEN ARRIOLABENGOA UNZUETA  
MIKEL ZARATE SARIA. SAIAKERA**

***EUSKARA IBARGUEN-CACHOPIN KRONIKAN***

XVI. mendearen bigarren erdian zehar, fase ezberdinetan idatzitakoa da *Ibarguen-Cachopin Kronika* izenaz ezaguna den lana, egileek, Juan Iñiguez de Ibarguen eskribauak eta Cachopin doktorearen semeak, *Corónica General Española y Sumaria de la Casa Vizcaína* izenaz bataiatua. Behin baino gehiagotan azpimarratu zuten lan honen garrantzia, besteak beste, Koldo Mitxelelak, Julio Caro Barojak eta Julio de Urquijok. Ospetsu ere bilakatu zen «munduan» Leloren Kantua izeneko poema zela eta XX. mendearen hasieran. Baina argitaratu gabe dago eta egoera kezkarriaren dirauen eskuizkribua da. Bere 184 koadernoetatik 71 kontserbatzen dira soilik. Arriolabengoak kronika hau aukeratu zuen bere tesia egiteko.

Sariketa honetara aurkeztu duen lanean, gaztelaniaz idatzitako kronika honetan aurkitu dituen euskarazko testu eta hitz guztiak aurkeztea eta eza-gutzera ematea izan du helburu Julen Agirrebengoak. Berak azaltzen duenez, «euskal hizkuntza eta literaturaren ikuspegitik *Kronikak* utzitako ondarea txikia da kantitatean, baina handia garrantzian, euskara zaharrak idatzirik utzitako lekukotasunetan lehenetakoak baitira». Hizkuntza ondare honen azterketan «Canto de Lelo» gaztelaniazko izenaz ezagun egin zen Kantabriarren Kantuaren azterketan murgildu da. Ondoren, *Kronikako* eresi eta kantuak, ahozko tradiziotik jasoak, atal berri batean berreditatzea izan da bere lehentasunetako bat, Errodrigo Zaratekoren eresiari eta Butroeko Andrearen Eresiaren bertsio ezezagunari, biok argitaragabeak, toki berezia emanaz. Andramendiko eskriturak deritzen prosazko bi testuei ere tarte zabala eskaini die.

*Crónica General* honetan aurki litezkeen euskarazko materialen bilketa eta azterketan aurrera eginez, atal banatan sailkatu ditu esaerak, esaldiak, etimologiak eta gaztelaniazko prosan emandako euskal hitz solteak. Eta lan zabal honi amaiera emateko *Ibarguen-Cachopin Kronikak* lanaren euskarazko materialen hizkera aztertu nahi izan du, ikuspegi dialektologikotik zein historikotik.

\* \* \*

**Julen Arriolabengoa**

Aramaion jaioa, 1960an. Euskal Filologian doktore, EHU, Joseba Lakararren zuzendaritzapean. Tesiaren izenburua: *Ibarguen-Cachopin Kronika, edizioa eta azterketa* (Gasteiz, 2006ko abenduan). Gaur egun euskara irakasle da, Irungo Hizkuntza Eskola Ofizialean.

Honako liburuak argitaratu ditu: literatur arloan, *Julia dinotsut* (Labayru, 1985); *Euskal letren dantza* (Hordago, 1984); (*Kandela* literatura taldean); *Kandela baten argitan* (Idatz&Mintz 8. 1984); *Kandela* aldizkarian kolaborazioak. Ondoko iker lanak ere kaleratu ditu: *Erdi Aroko kanta ezezagunak Ibarguen-Cachopin kronikan* (1996, ASJU); *Lope Agirreren biografiarako datu berriak* (Karmel, 2001).





# **HIL BERRIAK**



# JOSE MANUEL LASARTE

## (1927-2007)

### 1. BIZITZAKO ZEHAZTASUN BATZUK

1.1. JAIOTERRIA ETA FAMILIA.–DON JOSE MANUEL LASARTE MUGUIRO –JM Lasarte– Larraun ibarre-ko Etxarri izeneko herrian jaio zen 1927ko ekainaren 20an. Gurasoak Juan Migel eta Juliana izan zituen eta jaiotetxeak *APEZENE* izena du. Nekazari etxea izandakoa da eta orain JM Lasarteren senide bat –Migel– bizi da bertan bere sendiarekin.

JM Lasartek zazpi senide izan zuen eta zazpiak bizi dira: Mikaela, Jose Joakin, Antonio, Migel, Maria Josefa, Joakin eta Francisco; bi azkenekoak bixkiak dira eta USAko Kalifornian bizi dira gaur egun.

\* \* \*

1.2. HERIOTZA.–JM Lasarte 2007ko apirilaren 17an hil zen Iruñean, gaitzaldi motz baten ondoren. Beraz, 80 urte betetzeko hilabete bi gelditzen zitzaioz hil zen. Urte pare bat lehenago bihotzekoak eman zion eta lan gehienak utzi behar izan zituen, nahiz eta ahal izan zuen arte, Ziaurrizko zaharretxean apaiz lanetan laguntzen edo esku bat botatzen jarraitu zuen.

Jaioterrian, Larraungo Etxarrin egin zitzaizkion hiletak. Guztiz jendetsuak gertatu ziren eta Don Florentino Ezkurra apaiz adiskideak egin zuen oroimenezko sermoia. Izan ere, Don Florentino Ezkurra Nafarroako Artzapezpikutzako *Caritas* erakunde arduraduna izan zen urte askotan eta erakunde horren kudeaketako arduetan alboko eta lagun bezala aritu zen JM Lasarte. Don Florentino Ezkurrak berak izenpetzen du *Diario de Navarra* egunkarian 2007-IV-22an argitaratutako oroimenezko artikulua, guztiz izenburu esanguratsuekin:

«OBITUARIO: JOSE MANUEL LASARTE MUGUIRO, Sacerdote, ex párroco de Huarte Araquil y miembro del Consejo del Presbiterio Diocesano».

\* \* \*

### 2. IKASKETAK

2.1. IRUÑEKO SEMINARIOAN.–JM Lasartek 1.939an Iruñeko seminarioan hasi zituen apaiz ikasketak; beraz hamahiru urterekin. 1951an bukatu zituen apaiz ikasketak eta urte horretako uztailaren 22an, apaiz ordenatua izan zen Iruñeko Katedralean.

1939 eta 1951 artean Iruñean apaiz ikasketak burututakoen apaiz kopurua inoiz baino handiagoa gertatu zen, 42 izan baitziren apaiz egindakoak. Horregatik ikastalde horri «El Histórico» deitu izan zaio Nafarroako apaizen arteko giroan. Gerra ondoreko lehen ikastaldea izan zen egia da eta beste alde batetik Iruñeko seminario berriko lehena ere.

Izan ere, Iruñeko *Argarai* auzoan dagoen seminarioa II. Errepublikako garaian egindako eraikuntza da *Eusa* arkitekto ezagunaren egistasmoaren arabera, orubea Iruñeko Udalak pezeta baten trukeko salneurri sinbolikoan oparitua izan zelarik. Eraikuntza bukatu berri-berria zelarik ordea, 1936an alegia, gerrak eztanda egin zuen. Iruñean, hain zuzen ere, 1936-ko uztailearen 17an, beste tokietan baino egun bat lehenago *Mola* gudalburua eta altxamenduko zuzendariak, *Beorlegi* eta *Soltxaga* garaiko koronelen laguntzaz Iruñea hiria eta Nafarroa herrialde osoa menpean ezarri zituen eta beste eraikuntza batzuetaz gainera, seminario berria, oraindik estreinatua gabea zegoena bere esku hartu zuen. Berehala *Alfontso-Karlos* Kanpaina ospitalea bihurtu zuten eta karlisten buruzagitzako kidea izandako Maria *Isabel Baleztena Azkarate* andreairen ardura-pean ezarri.

Gerratea bukatu zenean ordea, 1939an alegia, eraikuntza hura berriro *Martzelino Olaechea* Iruñeko gotzaiaren eskutara itzuli zuten, seminario berria antola ahal izan zezan. Antolaketa eta inauguraketa hori JM Lasarteren ikaskide eta ikastaldearekin hasi zen, «El Historiko» deitutako kurtsoarekin alegia.

2.2. IRUÑEKO SEMINARIOKO URTEAK.—Inori iduri lekiok Nafarroak 1936-39-ko gerratean jokatutako papera gogoan izanik eta kanpainako ospitale militarra izandako eraikuntza hartan ez zitekeela inolako euskal girorik sortu; baina Iruñeko seminarioan ez zen hori gertatu. Aitzitik, gerrate ondoreko urte garratz haietan, gose-tearen eta ankertasunaren XX. mendeko berrogeikadako urte gogor haietan hain zuzen ere, euskal giroa berpizten hasi zen eta poliki-poliki suspertzen Iruñeko Seminario berrian.

Agian kontuan izan behar da, gertuko beste toki batzuetan ez bezala Seminarioko liburategiko euskarazko eta euskal gaietako liburuak ongi zainduak egon zirela gerrate garaian. Esate baterako, Iruñeko eskola eta ikastetxe frankotako euskarazko liburuak *Gaztelu* Enparantzako erdi-erdian pilatu, su eman eta erre zituzten bitartean, seminarioko bibliotekakoak errespetatuak gertatu ziren.

JM Lasarte apaizgai izan zen bitartean, murgildu egin zen Seminarioko euskal mugimendu eta giro xumean. Horregatik ezagutzen eta gogoratzen dute ikaskideek. Euskaraz ederki zekien eta euskal kultura eta folklorea ikasi eta bultzatzeari ekin zion. Txistua, dantzak, abestiak, musika, bertso zaharrak eta batez ere, hizketa. Arlo edo kutsu horretako ekimenak zeudelarik Seminarioan, tartean omen zebilen beti JM Lasarte.

Izan ere, gerrate ondoreko Iruñeko Seminarioan baziren hainbat irakasle eta arduradun, euskararen munduari ekarpen garrantzitsuak egindakoak. Don Blas Fagoaga, sortzez Baztango Erratzukoa, ia berrogeita hamar urtez Iruñeko Seminarioko filosofia irakaslea izandu zena eta beste horrenbeste urtez euskara irakaslea. *Don Nestor Zubeldia*, jatorriz Lizarrako sendi euskaltzale ezaguneko; goi mailako jakituna zen, etikako zenbait liburu sakonen egilea eta Katedraleko eta Nafarroako elizako artxibategiko arduraduna; gerrate garaian epaile militarrek kondenatu eta zigortua izan bazen ere,

pean izandakoa. *Don Jose Goñi Gaztanbide*, historialari oparo eta sakonak hartu zuen Artzapezpikuko artxibategiko ardura *Nestor Zubeldiaren* ondoren eta Seminarioko historia irakaslea izan zen hainbeste hamarkadaz. *Don Jesus Goiburua*, *Don Luis Gomez Ullate*, *Don Martin Lipuzkoa*, Don Martin Larraiotz, *Don Javier Zarranz* eta abar izan ziren garai garratz haietan, eta abar.

Beraz, urte zail haietan, euskal kultura eta folkloarentzat babeslekua bilakatu zen Iruñeko Seminarioa. Betiere, Nafarroan euskal kulturaren folkloarearen garapenak eduki zezakeen maila apalean. Txistua, dantzak, bertsoak, euskararen ikasketa eta erabilera, denetan saiatu zen JM Lasarte. Orduan ikasitakoa zabaltzea izanen zuen xedea gero, bere bizitzan zehar.

JM Lasarteren ikaskideak izan ziren *Don Fermin Ixurko Astitz*, euskaltzain urgazlea eta *Don Andres Petrarena*, Itxasoko erretorea dena. Hauen lekukotasunaren arabera Seminarioko urte haietan adoretu ibiltzen omen zen JM Lasarte euskal kultura eta bereziki folklorea bultzatzen. Dantza, musika, txistua, abestiak eta bertsoak. Ikasten ez-ezik, gazteagoei erakusten hasi omen zen Seminarioan bertan. Jatorrizko euskara aberatsa omen zuen, *Ixurko* jaunak berak gogoratzen duenez.

Ez dugu aurkitu ordea, apaizgai garaieko JM Lasarteren euskaraz egindako idatzirik. Euskaraz idazteko ohitura ttipia zen oraindik, egia da. Sermoiaren baten prestaketa edo *Don Blas Fagoagarekin* emandako eskoletaz at, berrogeiko hamarkada ilun hartan oso gutxitan erabiltzen zen euskara idatzia Nafarroan.

Nafarroan, garai hartan argitaratutakoen artean, *Jose Agerrek El Pensamiento Navarro* egunkarian asteen behin idatzitakoa besterik ez da ageri. Hurrengo hamarkadetaraino itxaro behar da Diario de Navarra-ko euskarazko orria, «Nafar izkuntzan orria» deitutakoa ikusi arte edo *Zeruko Argia* astekaria *Aita Damasoi Intzak*, atzerritik itzuli ondoren, Iruñeko *Extramuros*-ko Kaputxinoen fraidetezan atera zuen arte.

Ez da bada, hain harritzekoa garai hartako JM Lasarteren euskal idatzirik ez ezagutzea, nahiz eta euskal kulturaren eta folklorea hain mugildurik ibili zelako lekukotasunak eduki.

\* \* \*

### 3. APAIZA EGIN ONDOREKO LANAK

#### 3.1. Luzaide

Apaiz ordenatu ondoren, *Luzaide/Valcarlos* izan zen JM Lasarte lehenik bidali zuten herria. Bertan, Luzaiden, apaiz-mutil edo koadjutore, 1951ko irailaren 25etik 1955eko urria arte eman zuen. Beraz, lau urte eta hilabete gehiago.

Luzaidarako izendatu zutenean, bertako abade edo parrokoa *Tomas Urriza* zen. Apaiz laguntzaile edo koadjutore lanbidean berriz, JM Lasartek *Esteban Irigoyen* ordezkatu zuen, azken hau Erromara ikasketak egitera joan zenean.

JM Lasartek Luzaiden izandako bigarren abade edo parrokoa *Jose Maria Azpirotz* izan zen. Jatorriz Leitzakoa, gero urte askoz Lesakako abade izanen zena eta

ondoren Iruñeko Katedraleko kanonigo. Jose Mari Azpirotz euskaltzin urgazle ohiak eragin sakona izan zuela dirudi, euskararen arloan, ez bakarrik JM Lasarterengan baizik eta baita Luzaideko koadjutore bezala ordezkatzuko zuen *Jose Maria Satrustegirengan* ere.

*Jose Maria Azpirotzek*, bere jaioterrikoa zuen Leitzako harranditsu kutsuarekin, horrela esaten omen zuen:

«Luzaiden izan nituen bi apez-mutiletatik, bat euskaltzaina da (Satrustegirengatik) eta besteak berriz, (Lasarterengatik) euskaltzain batek baino hobeki hitz egiten du».

Izan ere, XX.mendeko 50ko eta 60ko hamarkadetan Luzaideko inguru hartan, eta batez ere eliza laneko esparruetan, elkarrekin topo egin zuten euskal kulturako eragile askok. Horra batzuen batzuk:

*JM Lasarte, J. M<sup>a</sup> Satrustegi, J. M<sup>a</sup> Azpirotz, Esteban Irigoien, Inozentzio Aierbe, Juan Makaia, Jose M<sup>a</sup> Aleman, Bernardo Sokobehere Bidondo, Miguel Sagaseta, Pier Narbaitz* eta abar.

Gaur egun oraindik badira luzaidarrak Jose Manuel Lasartek bertan egindakoa gogoan dutenak. Besteak beste, hango dantzariari, «Bolanteei» alegia, «Ezpatandantza» irakatsi ziela gogoan izaten dute. Musika, abestiak, txistua eta danbolina jotzen erakusten omen zien edo ikas zezaten bultzatu. Abeslari taldea sortu zuen. Ezpata dantzari talde bi eratu zituen; gazteena eta adinekoena; *Eugenio Doray* gazte taldekoak eta Karrikaburuko *Juan Pedro Lorda* adinekoen taldekoak eskaini diote esandakoaz beren lekukotasuna, zehaztasun hauek bildu dituen *Joxe Mari Alemani*. Karrikaburuko Juan Pedrok dantzatzeko jaxten zuten atorra altxatua omen dauka oraindik eta zapizko eskudoa dauka josita *PX – LKG* hizkiekin. Hizki horiek esan nahi dutena da Luzaideko Kristau Gazteria. Dantzari taldeko saioak *Ahotzainia* izeneko etxean egiten omen zizuten, bertan herriko gazteentzat gazte-bilgunea edo zentroa ireki zutelarik. Txistua eta danbolina jotzen *Jose Luis Etxeberrik* eta *Bernardo Lapeirek* JM Lasarteren bul-tzadari esker ikasi zutela aitortzen dute.

Luzaideko ezpatadantzarien lehenengo arialdia *Don Jose Maria Azpirotz* abadea-ri ongi etorria emateko egin omen zuten, hain zuzen ere. Garai hartako ezpatadantza-riak, bolante taldeak eta abeslariak Iparraldean eta Frantzian arialdi ugari egiten hasi ziren, JM Lasarte zuzendari eta txistulari zutelarik. Gero ordea, bertako txistulari eta danbolineroari egin zien tokia.

Luzaideko dantza eta musika bilketa eta argitalpena JM Lasarteren ondoren ko-adjutore izandako *Don Migel Sagaseta* iturendarrak burutu zuen, baina JM Lasarte bilketa lan horretan ere saiatzen hasi zen.

JM Lasarteren Luzaideko lau urteetan euskara idatziaren erabilerak hartu zuen aipatzea merezi duen halako ukitu apal bat. Egia da, lehen esan bezala, ez zegoela euskaraz idatzia harreman arruntetan erabiltzeko ohitura handirik.

Baina urte haietan Nafarroako mendialdeko herrietan fenomeno berezi bat gerta-tu zen, artzain eta basolari urte baterako joaten ziren gazte multzoena. Horri erantsi beharko litzaioke jakina, Luzaidek Iparraldearekin duen berezko harremana. Zer ikusteko izan zezaketen ordea, artzain eta basolari taldeek euskara idatziaren erabile- rarekin?



Erantzuna ez batere erraza. Agian premia berriak sortu zirela dirudi. Ordurarte, 1950ko hamarkada arte alegia, eukarak baserri giroan eta arrantzale giroan iraun behar zuela uste izaten zen, Txomin Agirreren *Garoa* eta *Kresala* eleberriek irudikatzen duten bezala; baina pentsakera hura euskararen erabilera ohikoaz edo tradizionalaz ari zen, beraz hizkera mintzatuaz batik bat.

Baina Ameriketara artzain eta batez ere, Frantziara edo Europako beste herrialde batzuetara basolari joaten ziren mutil euskaldun talde haiek berezitasun batzuk zeuzkaten: alde batetik, ez ziren banaka joaten, baizik taldeka; horregatik beren arteko hizkuntza, hau da euskara mantentzen zuten. Bestetik, denbora zehatz eta mugatu baterako joaten ziren; gehienetan urte baterako. Eta gainera hirugarrenik, ez ziren beste inon bizitzeko edo gelditzeko asmoarekin joaten, baizik herrira itzultzeko xedea zen beraiena. Horregatik ez zuten herriarekiko eta herritarrekiko harremana hautsi nahi izaten. Aitzitik, harreman hori eutsi eta suspertu egin nahi izaten zuten.

Atzerrira joandako basolari taldeak urtean behin itzuli ohi ziren herrira, *Olentzero* bezala, Eguberri inguruan. Horregatik herriko gertakizunez jakitun izan nahi zuten. Esaera zaharrak dioenez, «mendian dabilenak kaleko kontuak herrian dabilenak baino hobeki jakiten omen ditu askotan».

Leitzako herritik, esate baterako, ehunen bat mutil joaten zen urtero Frantziara eta Suitzara basolari. Basoan urte osoa ematen zuten eta Eguberri aurrean itzultzen ziren. Jaialdiak egin izan zitzaizkien, *ongi etorria* emateko; kirolari eta bertsolarien arialdiak eta lagun arteko otorduak. Basolari eta artzain talde haiek ez zuten euskara baztertzen, baizik eta elkarren arteko hizketa arrunta bilakatzen zitzairen. Talde haieta-

ko mutilentzat beren herrietako berriak jakitea premia bilakatu zen eta horregatik berripaperak jasotzea oso gogokoa. Eta horra, gero berripaper horietakoren batzuk aldizkaritxo izatera iritxi ziren.

Orri edo berri paper horien artean bazen bat, *Mendiz* izena zeukana. Aldizkaritxo bat bezalakoa zen eta *Beruete*, *Leitza*, *Goizueta* eta inguru herrietako basolariei bidaltzen zitzairen. *Mendiz* bezalako orri haien ondorioz eta ordeztatu zuten, besteak beste, Nafarroako Diputazioko *Principe de Viana* aldizkariaren euskarazko gehigarria. Gehigarri hartan bazegoen *Mendiz* izeneko atal bat, basolariei zuzendua eta, zalantzarik gabe, aurrekari haren oroitzapenez egindakoa.

\* \* \*

*Don Bernardo Sokobehere Bidondo*, Luzaideko semea, Baztango Arizkunen apaiz aspaldiko urteetan dagoenak lekukotasun berezi eta garrantzitsua eskaini digu *Don Joxe Mari Aleman Zabaleta* apaizaren bitartez. Alde batetik, Sokobehera jaunaren arabera, JM Lasarte izan zen Luzaiden atzerrira joaten ziren basolariendako berri papera edo aldizkaritxoa egiten hasi zena. Izan ere, Don Bernardo Sokobehere bera, 1956an urtean bertan *Elkartasuna* izeneko aldizkaria egiten hasi baitzen eta oraindik gaur egun jarraitzen du. Urtean 4 zenbaki ateratzen ditu; beraz, hiru hilabetero. Orain arteko gehien-gehienak, urte bateko hutsartearekin edo, dotore enkuadernaturik dauzka etxean.

Bazen ziklostil bat Luzaideko elizetxean. Ziklostil hura, dirudienez JM Lasartek erosi omen zuen *Don Migel Javier Urmenetaren* laguntzarekin nonbait. Eta dirudienez, ziklostil huraxe omen da *Gestetner* etxearen Iruñeko dendako erakustokian daukatena ikusgai aintzinako bitxikeria moduan.

*Don Esteban Irigoien*, apaiza, Baztango Berroetan jaioa eta gaur egun Iruñean bizi dena dugu beste lekuko bat aztertzen ari garen arlo honetan. Luzaiden apaiz-mutil edo koadjutore izan zen JM Lasarteren aurretik eta Erromara joan zen JM Lasarte Luzaidera etorri zenean. Esan digunez berari Erromara bidali izan omen zizkioten basolariantzat eta artzaintzat egindako «orriak» edo berripaperak. Tamalez ordea, Irigoien jaunak ere ez du orri haietakorik gorde. D. Estebanen lekukotasunaren arabera «eskutitz modukoak edo horrela» omen ziren berari Erromara bidaltzen zizkioten berripaperak.

*Don Jose M<sup>a</sup> Satrustegi* Luzaidera etorri eta handik hiru hilabetera argitaratu zen *Luzaide* izeneko aldizkariaren lehen zenbakia, 1956ko otsailean zahazki. Beraz, JM Lasarte Luzaidetik joan eta handik hiru hilabetera. Baliteke atzerrian lanean ari ziren basolari luzaidarren izenak, helbideak eta abar eskuratzeko denbora behar izango zenez gero, *Don JM<sup>a</sup> Satrustegik* abian zegoen ekimenari hobekuntzak egin, izena ipini, zenbaketa berria hasi eta bilakaera bat eman izana... Agian, lehendik ereindakoa indarberrituz.

*JM<sup>a</sup> Satrustegik*, artikulua baten dioenez (ikus: *JM Satrustegi, ereile eta lekuko*, MENDAUR Bilduma I, 2005, 28. orrialdea; Andres Iñigo) 1956an *Luzaide* aldizkaria egiten bi apaiz hasi omen ziren Luzaiden. Bestea, *Don Jose M<sup>a</sup> Azpiroz* garaiko Luzaideko abade edo erretorea izan zitekeen. Baina badirudi eta baliteke *Luzaide* hutsetik edo ezer ezetik abiatua ez izatea eta lehen zenbakiak ikusi beharko lirarteke, ea JM Lasarteri buruzko argibiderik ba ote dakarten.



Gertatzen dena da *Luzaide* aldizkariaren 32 zenbaki atera zirela eta JM<sup>a</sup> Satrustegiren artxiobotan 24 agertzen direla. Falta direnen artean -1, 2, 7, 10, 13, 24, 28, 32- daude zoritxarrez bi lehenengo zenbakiak, gako honi dagokionez esanguratsuenak izan litezkeenak, alegia. *Norbert Tawer* omen zen *Luzaide* aldizkariaren bilduma osoa zeukanetako bat eta hark Euskaltzaindiari utzi zizkion bere artxiboko euskarazko ondareak. Agian *Principa de Vianaren* euskarazko gehigarria egiten zuen *D. Pedro Diez de Ultzurrunen* paperen artean ere egon liteke. Behar bada Iruñeko Seminarioan edo agian Ameriketako Euskaletxeren batean ager litezke noizbait *Luzaide* aldizkariaren lehen bi zenbaki haiek...

*JM<sup>a</sup> Satrustegiri* buruz berriz, zera esaten dute Luzaideko batzuek, bertara iritxi zenean ez zeukala euskaraz hitzegiteko ohitura handiegirik. Alde batetik, *Don J M<sup>a</sup> Azpirotz* erretorearen eraginak bultzatu eta lagundu egin ziola. Eta bestetik berriz, gertakizun zehatz eta bitxia esan digute, hain zuzen ere, *Don Jose Goñi Gaztanbide*, Seminarioko irakasle, historiagile ezaguna eta Iruñeko Artzapezpikutzako artxibategiko arduradunaren eskari baten ondorioz itzulpen bat egin zuela eta Orixe idazle ospetsuak itzulpen hura bikaina zela ziurtatzeak izugarritzko akuilakada eta ziurtasuna eman ziola. Dena dela, Luzaidera iritxi eta handik hiru hilabetera hasia zen *Luzaide* izeneko aldizkariarekin, gero hainbeste lan egitekoa zen Arruazuko semea.

Laburbilduz, Europako hainbat herrialdeetara basolari eta Ameriketara artzain joaten ziren mutil mordo haiei orriak edo berripaperak bidaltzea premia bilakatu zen XX. mendeko berrogeita hamarreko hamarkadan eta baliteke *JM<sup>a</sup> Satrustegiren* eskutik egindako *Luzaide* aldizkaria hutsetik hasia ez izatea eta aurrekariren izatekotan *JM Lasarte eta JM<sup>a</sup> Azpirotz*, Luzaideko apaiz-mutila eta erretorea edo abadea aipatu beharko genituzke.

Ezin da ahaztu halere, Luzaidek Iparraldearekin betidanik izan duen harreman erraza eta Iparraldean dagoneko *Herria* aldizkaria egiten zela.

Bestalde ezin aipatu gabe utzi *Principe de Viana* aldizkariaren euskarazko gehigarria. Gehigarri hau Nafarroako Diputazioaren «Institución Principe de Viana» Erakundeak argitaratu eta eta dohainik banatzen zuen. Basolariei eta artzainei ez-ezik, baserri, nekazari etxe eta sendi askotara bidaltzen zuten. Bertan erabilitako gaiak anitzagoak bilakutzen joan ziren. Baserri giroko berriak, ohiturak, gizarte mailakoak, elizako gora-beherak eta herrietako bitxikeriak eta zertzeladak han izaten ziren, baina baita euskarari eta euskal kulturari edo Euskal Herriari berari zegozkionak ere. Politika gairik ez zitekeen zuzenean eta argi eta garbi erabili garai hartan, jakina; gizarte mailako gaiak beren tokia hartzen joan ziren eta JM Lasartek berak bertan argituratu zituen, urteak geroago, artikulua eta erreportai mordoska. Zazpi urte eta erdiz hilabetero argitaratu zen *Principa de Vianaren* euskarazko gehigarria, *Don Pedro Diez de Ultzurrun* Iruñeko mediku jaunaren lanari esker batik bat. Hamaika mila ale banatzera iritxi zen. Halako batean ordea, *El Pensamiento Navarro* egunkariaren eraso politikoa bortitzaren ondorioz *Diez de Ultzurrun* kendu egin zuten eta *Haren* ordez *Don Martzelino Garde* ipini arduradun eta handik urte pare baten burura itxi. *Principe de Viana* aldizkariaren euskal gehigarria halere, araketa sakona eta zabala merezi lukeen egitasmo, garapen era eragineko eginkizuna izan zen.

### 3.2. Berueteko urteak: «Berueteko euskal irradia»

1955eko urrian joan zen JM Lasarte Luzaidetik *Beruetera*. Haren izendapena, abade edo erretore kargurakoa zen; halere, «errejentea» dio zehazki bere artzapezpikuko zerbitzu orriak. Berueten 1964ko urrirarte izan zen. Beraz, bederatzirte egin zuen JM Lasartek Berueten.

*Don Andres Petrirena*, Itxasoko apaizak esanaren arabera, JM Lasartek, Beruetera etorri eta berehala ekin omen zion euskal kultura bultzatzeari, musika, folklorea eta abar. Berueteko Abesbatza edo Korua sortu zuen, ezpata dantza taldea eratu, berak txistulariarena egiten zuelarik. Inguruko herritara ateratzen hasi ziren eta, esate baterako, *Etxalekun* euskal jaia antolatu zenean, JM Lasarte aritu omen zen dantzak eta abestiak antolatzen, txistua jotzen, jaiaren garapena gidatzen eta, jendea asper ez zedin, txisteak kontatzen. Don Andres Petrirena gogoratzen duenez, *Agur Xuberoa* zuen txixtuarekin gustukoena eta askotan jotzen omen zuen.

1959-V-20-ko *El Pensamiento Navarro* egunkarian azaltzen da JM Lasarte Etxalekun egindako euskal jai batean. Antolatzailea: *Principe de Viana* institutuko Euskararen Garapenerako Atala. Hizlariak berriz, *Arrue* eta *Irigaray* euskaltzain jaunak. Bertsolariak, *Uztapide* eta *Mitxelena*. Jaialdiaren gidatzailea JM Lasarte, mikrofonoa eskuan zuelarik.

Etxalekuko 1959ko euskal jaialdi hartan izandako beste bi pertsonen lekukotasuna ere jaso dugu, biak apaizak: *Don Emilio Linzoain*, orain Iruñeko apaizen erretiroan bizi denak esan digunez den-dena euskara hutsean eta JM Lasarteren ardurapean egin omen zen. Linzoain apaiz jauna oroitzen da JM Lasartek erraztasuna handia zeukala euskaraz mintzatzeko, hizkuntza aberatsa zuela eta hutsegiterik gabe erabiltzen zuela. Bigarren lekukoa *Don Manuel* Rekalde Etxarri da, beteluarra, Ultzamako *Oskotzeko* apaiza dena azken hamarkadatan. Rekalde jauna izan zen *El Pensamiento Navarro* egunkarian Etxalekuko euskal jaialdiari buruz kronika egin zuena. JM Lasarteren hizketa erraztasuna goraiatzeko eta miresteen du: «kopetazala ongi eginik zeukan hark!», esan digu.

Halere *Berueteko irratia* izan zen euskararen inguruan JM Lasartek Berueten izan zen bitarteko urte haietan egindako ekarpenik garrantzitsu eta aldi berean harrigarriena. Bene-benetan aipamen berezia merezi duen ekimena. Sei urtez eduki zuen arian edo martxan JM Lasartek *Berueteko Irratia* deitutako emisora apal hura: 1958-tik 1964-ra.

Euskaraz egiten zen irratia saio gehien-gehiena; ia-ia osoa. Mintzatokia, tresneria, liburuak, paperak, diskoak eta abar, dena, Berueteko Elizako sakristian zegoen. Emisorearen antena berriz, elizako ezkil dorreko goiko puntan. Gehienetan JM Lasartek berak hitzegiten bazuen ere, eduki zuen laguntzailerik. Ordutegia behin baino gehiagotan aldatu behar izan zuten, baina urteko egun guztietan aideratzen zuten beren mezua.

Berueteko Irratian erabiltzen ziren gaiak jakina, nekazaritza eta basolaritza eta herriko bizimodua ziren. Garaiko gizarteko bizimodua oinarrituta zegoen gora-beherak, alegia. Kirol apustuak, elizako gora-beherak, inguru herrietako berriak, euskal kultura eta folklorea eta abar. Urteak geroago, Leitzan lankide eta lagun izanen zuen *Florenzio Iruñia Lizarragak* esan digunez, etorri izan omen zen JM Lasarte Leitzako festa edo jaietara, magnetofonia hartuta, Tolosako musikariaren bandako grabaketak egitera, ondo-

ren Berueteke irratitik eman ahal izateko. Urteak pasa ahala jakina, Berueteke Irratia bere grabaketa altxorra egiten eta osatzen joan zen.

Bestalde, JM Lasarte Berueten zegoen bitartean, –1955tik 1964ra–, basoetako zura eta egurra izugarri garestitu zen eta Beruetek, mendi asko duten beste herriek bezala, dirutza handiak jaso zituen. Basoa kandelan edo enkantean ateratzen zuten aldioro izugarri igotzen baitzuten jotzaile edo erosleek.

Herriko diru amankomunarekin etxe bakoitzeko zergak, sisak eta beste sariak ordaintzeaz gain, –kontribuzioak, sisak, mediku-saria, albaitari-saria eta abar– urtero dirua banatzen zuten. Batzuetan gainera, sukalde tresneria eta horrelakoak oparitzen zizkioeten «sutondo» edo familia bakoitzari. Urte haietako batean erabaki zuten etxe bakoitzari irriti tresna bana oparitzea, horrela JM Lasarteren irratiko ekimena bultzatuz.

Izan ere, irratia 1950ko hamarkada hartako gizartean aurrerapenaren ikurra bilakatu zen, lehenago trenea izan zen bezala. Horregatik behin Leitzatik mutiko taldea joan ginen Beruetera irriti hartatik hitzegiteko ilusioagatik. 1957ko uda zen noski, opor garaia. Bizipen arras berria izan zen orduan nerabe ginenontzat irratitik mintzatu ahal izatea. Bidaia onez egin genuen, JM Lasarteren osaba eta Leitzako erretorea zen *Nicolas Buldain* gidari zela. Leitza eta Beruete arteko muga *Kornieta* izeneko mendian igaro, *Ahatako* mendia eta *Iontza* izeneko alderdia igaro eta Beruetera iritxi ginen. Han elizara joan, sakristiara sartu eta JM Lasartek hartu gintuen. Sakristiako armairuaren gainean zeukan mikrofonoa eta emisorako tresneria. Zutik aritu zen hitzegiten. Aerialdi batetik bestera igarotzeko txirrin bat zeukan lizta batetik zintzilik eta hatzarekin jotzen zuten, ttin! Egun hartan, aurkezpen labur baten ondoren galdera bana egin zigun JM Lasartek eta guk, Leitzako mutikook, banaka-banaka erantzunez bete genuen geure ametsa.

Berueteke Irratiko gaiak jakina, herriko gora-beherak, baserri eta nekazaritza girokoak gehienetan izaten omen ziren; auzolanak, ohiturak, basolarien berriak eta abar barne. Baita ere ordea, euskara, euskal kultura, euskal folklorea, bertsolariak eta horrelakoak. Izan ere, garai haietan maiz erabiltzen zen leloa zen, euskarak baserrian baiziki ez zezakeela iraun...

1962.urtean JM Lasartek emisora indartsuago baten tresneria erosi zuen eta ordurarte erabilitakoa salgai jarri 60.000 pezetatan. Zeinek erosiko eta *Don Esteban Irigoyen* azaldu zen berritoki alajaina. Luzaiden JM Lasarteren aurretik apaiz-mutil edo koajutore izandakoa eta Erroman bi urte eman ondoren itzuli eta *Arantzako* abade edo erretore izendatu zuten. Apaiz laguntzaile edo alboko *Don Javier Arburua*, etxalartarra, zuelarik. Arantzako apaiz bi haiek bertan euskal irratia jartzeko asmoa hartu zuten, baina erosketa xume hura bera egiteko laguntza behar ordea. *Don Esteban Irigoyenek* esan digunez, *Migel-Javier Urmenetarengana* jo omen zuten laguntza eske eta Urmenetak *Amadeo Marko Ilintxetarekin* hitzegin. Azken honek begi onez ikusten omen zuten *Esteban Nabaskoitzeko* apaiz ezagutua zuenetikan:

– «Don Esteban Irigoyenek eskatzen duena, nire amak eskatuko balu bezalaxe da eta eman bekio beraz behar duen guztia!» –ebatzi omen zuten Nabaskoitzeko foru diputatu zaharrak, Markok, ohiko tinkotasunarekin.

JM Lasarteren bitartez eta ondoren eta Nafarroako Diputazio Foraleko diru-laguntzarekin eraikitako irratik honen zertzelada labur batzuk ematea beharrezkoa deritzaigu ekimen eta ahalegin haien neurria eta maila irudikatzeko. Arantzako elizetxean jarri

zuten irratiko tresneria eta mintzalekua edo lokutorioa. Antena ezkil dorrean zuelarik Berueteko irratia bezala, jakina. *Arantzako Irratia* izena ipini zioten eta bost urtez iraun zuen jardunean, hain zuzen ere, 1967ko udan guardia zibilak errekisatu, tresneraia kendu eta eraman zuen arte.

Lehenago ordea, 1965an hain zuzen ere, berebiziko arazoak izan zituen irradi honek. Izan ere, urte hartako udan, salaketaren bat izan zen eta Arantzako elizetxean guardia zibilak agertu ziren. Baina ez zetozen bakarrik, zeren eta salaketa haren kudeaketa «Información y Turismo» zelako Ministerioko ordezkariari baitzegokion. Nafarroan ordezkari hura Lesakako semea zen *Eradio Espartzaren* eskuetan suertatu eta hura izan omen zen Arantzako elizetxean guardia zibilekin agertu zena. Espartzak honela galdetu omen zion Esteban Irigoieni, beronek esan digunez:

– Euskaraz soilik eta bakarrik hitz egiten al duzue apaizok? Zertaz mintzatzen zarete? Arantzako gauzetatik at aritzen al zarete?

Irigoien jaunak ahal zuen leunenik eta goxoenik erantzun omen zion. Halaxe esan digu berak. Espartzak orduan agindu omen zion ahal zuen guztia eginen zuela Arantzako irratia aurrera ere irekirik jarrai zezan. Baina jakinarazi zion irrati mordoa zegoela baimenik gabe martxan jarria eta salaketak hor zeudenez gero, moztu beharra zekukala berak joera hura, uholde bilakatu baino lehen.

Arantzako Irratiak bi urteko luzapena izan zuen bitxikeria horren ondorioz, baina beste batzuk ez zuten horrelako zoria eduki. 1965an itxitako irratien artean bat, Iruritako Irratia izan zen, *Don Jaime Andonegi* apaizak sortua. Jaime Andonegi, JM Lasarte bezala, Etxarri-Larraungoa zen eta hark sortu eta kudeatutako *Iruritako Irratiak* alegia, lauren bat urte iraun zuen.

Berueteko Irratian euskararen alde egindako lanarengatik, batik bat, izendatu zuen Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle JM Lasarte. Hala dirudi 1964-X-30-ko *Euskera* Agerkarian egiten den aipamen laburretik eta hala ondoriozta liteke izendapenaren datarengatik berarengatik.

Azterketa labur honek gainera, aitzakia ematen digu, 1950-60-ko bi harmakada zail haietan Nafarroako mendialdean euskararen aldeko ahalegin batzuetan zertzeladak emateko. Besteak beste, euskarazko irratiekin egindako saio xume bezain interegarriak aztertzeo aukera. Bederatzi urte iraun baitzuen Berueten hasi eta Arantzan debeku politikoaren zama pean ezabatua izan zen arte euskarazko irratia hots apalak, tartean Iruritakoa ahaztu gabe.

Ekimen guzti hauetan tartean ibili zen beti JM Lasarte; batzuetan egile edo bultzagile bezala eta beste batzuetan, lagun eta aholkulari moduan. Ondoren ere saiaturik zen gehiago, nahiz eta lorpenik ez eskuratu.

JM Lasartek izan ere, gehiago zuen ekintzale eta bultzagiletik, aztertzaile edo ikerlaritik baino. Atseginago zuen egitasmoak bultzatzea edo kudeatzea, ikerketetan murgiltzea baino. Nahiago izaten zuen ekintza, oldozpena baino. Zerbait ikasi orduko, erakusten hasi nahi izaten duten horietakoa zen. Hizlari eta sermoilari ontzat izena zuen eta toki askotatik deitzen zuten misioak eta gogo gurenak edo erretiroak ematera; *Buenos Airesen* bertan ibili izan zen eginkizun horietan.

### 3.3. Leitzan igarotako urteak. Izendapen berezia eta irakaskuntzan bide berriak urratzen

Iruñeko Artzapezpikutzako izendapen orrian JM Lasarte Leitzara bidali zutenean bi eginkizun aipatzen dira eta bien ala biak, eginkizun zibilak: Nekazari Eskola Profesionaleko Zuzendari alde batetik, *Amazabal* Patronatuaren kudeatzaile bestetik. Ez da besterik esaten. Leitzan 1964ko bukaeratik 1979. arte izan zen. Beraz 14 urte.

Izendapen ofizialeko bi aipamen soil horiek ez dute halere, JM Lasarteren Leitzako jokabide guztia azaltzen. Izan ere, eginkizun asko hasi eta burutu baitzuen Leitzan izan zen bitartean. Beste ekimen edo asmo batzuk berriz, ez zuen lortzerik izan.

1964ko urtean Leitzan eta inguruko herrietan gizarte aldaketa sakon bat ari zen garatzen. Industria garrantzitsu bat, Leitzako *Papelera* alegia, paper fabrika handia jarri berria zen. Ordurarte nekazari girokoa izandako eskualdea industria giroko lurraldea bihurtzen ari zen. Paper fabrika horren sortzaile eta lehen urtetako kudeatzailea *Don Patxi Arrazola* izan zen; gipuzkoarra, euskaltzalea, inguru herritan langileak bilatzearen aldekoa ez-ezik, eskualdeari gizarte mailako garapena edo aurrerapena eman nahi ziona. JM Lasartek bat egiten zuen helburu eta xede horiekin eta ongi moldatu zen beti Arrazola jaunarekin, fabrikako kudeatzaile eta *Amazabal* Patronatuko kide izan zen bitartean. Beraz, Leitzako eskualdean gauzatzen ari zen gizarte aldaketa sakonaren ikuspegi soziala eta kulturala beharrezkotzat emanik sortu zuten *Amazabal* Patronatua eta xede hori garatzera eta kudeatzera etorri zen Leitzara JM Lasarte

*Amazabal* Patronatua izeneko erakundea sortu zuten eta haren kudeaketa izan zen JM Lasarteren oinarritzko zeregina Leitzan, bere izendapenak adierazten duen bezala. Fundazio izaera zeukan erakunde horrek. Eliza edo parrokia, Fabrikako jabetza edo elkarte anonimoa eta Leitzako Udala ziren sortzaileak eta beraien bilgune ez-ezik, garaioko agintari politikoak ere sartuak zeuden zuzendaritzan. Halere, ezin ahaztu *Amazabal* Patronatuaren diru iturri nagusia Leitzako Paper Fabrikak langile bakoitzari egindako soldatuen kenketa batetik zetorrela eta horrek zekarkion baldintzapena. Horretaz gain, diru-laguntza ofizialak, emaitzak eta laguntza partikularrak jasotzen zituen.

*Amazabal* Patronatuaren ekimenaren eta eraginaren ondorioz edo behintzat zerikusiarekin sortutako egiturak asko izan ziren: Eskola Tekniko Profesionala, Nekazari Eskola Profesionala, ikasleentzako erresidentziak; frontoia, etxebizitzak, eskola konzentrazioa edo eskola publikoen berregituraketa, herriko liburutegia, jubilatuen elkargoa, guraso katolikoek elkarrekin eta bere egoitza, ikastola eta abar. Baina eskuratu gabe geldituak ere izan zituen, adibidez irratia edo ikastola jartzeko lehen ahalegina.

Eskola Tekniko Profesionala Nafarroako Diputazioaren Lanbide eskoletako sarean sartu zuten eta euskarak ez du bertan behar hainako tokirik lortu inoiz.

Nekazari Eskolan ordea, euskarari toki gehiago egin citación hasiera-hasieratik. Nekazari Eskolak ordea, ez zuen asko iraun, 1965tik 1974 arte hain zuzen ere. Nekazari Eskolako irakasleak, JM Lasartez gainera, *Joxe Larrea* zegamarra, *Jose Migel Orea* uitziarra, *Florenzio Irurtia Lizarraga* eta *Santi Larraz Zabaleta* leitzarrak izan ziren, besteak beste.

JM Lasarte izan zen bai Lanbide Eskola Profesionaleko nola Nekazari Eskolako zuzendari eta arduradun nagusi *Amazabal* Patronatuko kudeatzaile eta idazkaria zen heinean.

Leitzako Nekazari Eskolak izan zuen jarraipen bat, zuzen-zuzenekoa ez bazen ere, zeharkakoa bederen horrela gertatu zena. Izan ere, Leitzako Nekazari Eskola 1974an itxi eta hurrengo urtean, 1975an, Oronotz-Mugairiko Nekazari Eskola ireki baitzen. Elizaren eta *Urrutia* Fundazioaren babesarekin irekia, *Juan-Bautista Irazoki* eta *Erramun Apezetxea* apaiz jaunak izan zituen arduradun eta 2003.urte arte iraun zuen. Nafarroan lanbide heziketan izan den ahaleginik edo esperientziarik euskaldunena izan da. Frantziako Nekazari Familiako Eskolak deitutakoaren eredia adibide harturik antolatu zen Oronoz-Mugairiko Nekazari Eskola. Ikasleek 8 egun eskolan eta 15 egun etxean igarotzen zuten. Gehien-gehiena euskaraz ematen zen; zortzi irakasletik, sei euskaraz aritzen ziren eta erdaraz aritzen zirenak berriz bi irakasle ziren. Xehetasun hauek *Juan-Bautista Irazokiri* zor zaizkio eta *Principe de Viana* aldizkariaren euskal gehigarriaz esan bezala, atal honek ere mereziko luke araketa berezia.

Leitzan JM Lasartek igarotako urteak eta egindako lanak laburbilduz azpimarratu beharrekoa zera da, eduki zituen karguak eta zereginak izaera zibilekoak izan zirela batik bat. Garai hartan ezohikoak apaiz batentzat. Gainera fabrikako zuzendari nagusiekin *Amazabal* Patronatuaren kudeaketa elkarlanean egiteak beraien alboko edo gertuko irudia ematen zion. Elkarlan eta fabrikako nagusiekiko gertuko irudi horrek ondorioak izan zituen, batez ere gaizki ulertuak edo ezin ulertuak. Kontuan hartu behar da zeinek osatzen zuen *Amazabal* Patronatuko zuzendaritza: Lehendakaria: Nafarroako *Gobernadore Zibila* zen; idazkaria eta kudeatzailea, *Don Jose Manuel Lasarte*; eta zuzendaritzako partaide edo bokalak: Leitzako Udaleko *Alkatea*, Parrokiako *Abade* edo *Erretorea* eta Fabrikatik lau ordezkari; bi, zuzendaritzak izendatuak eta beste biak langileek aukeratuak. Fabrikako zuzendaritzako ordezkariak izan ziren *Arrazola jauna* lehenik eta gero, *Salbador Sarrió jauna* eta *Lorenzo Marco Sarrió* zuzendari goren gorenak izandakoak.

JM Lasarteren izendapena nola gauzatu zen azaltzea ere guztiz esanguratsua da. Leitzako erretorea, *Don Nikolas Buldain* osaba zuen eta *Don Patxi Arrazolak* ezagutzen zuen eta aintzat hartzen Berueten egindako lana. Eta *Amazabal* Patronatuari eman nahi zioten helburu edo xede sozial eta kulturalarengatik bere izendapenaren iradokizuna egitea erabaki zuten.

Ezohiko asmo hura, apaiz bat eginkizun zibiletarako izendatzea alegia, aurrera eramateko *Bertizko* jauregira joan ziren, Iruñeko Artzapezpikua zen *Mons. Enrique Delgado Gomez* jauna ikustera. Bertitzen igarotzen zituen oporrak Iruñeko Artzapezpikuak, garai hartako Erromako nuntzio jauna zen *Mons. Antoniutti* jaunarekin. Gortziak zailtasun bakartzat diru arazoa baizik ez omen zuen mahai gainean jarri:

– «Nork ordainduko dio soldata JM Lasarteri zuek diozuen izendapen hori eginez gero?» –galdetu omen zien.

Berehala erantzun zioten arazo hori aise konponduko zutela eta gogoan du oraindik bilera hartan izandako batek *Patxi Arrazolak* atera orduko esandakoa:

– Ez da gizon handi bati dagokiona diru arazoak lehen mailan jartzea, horiek izaten baitira beti konpontzeko errazena.

Edonola ere, izendapen hura ez zen ohikoa eta nahiz eta bere arazoia eta xedea gizarte mailako helburu eta eginkizunak izan, ez zuten guztiek ulertu eta ezta onartu ere. Garaiak ere ziren bezalakoak ziren eta, behar bada, Ilustrazioko esatera ezagunaren arabera, batzuetan bazirudien jokatu zutela: herriarentzat, baina herririk gabe! Nahiz

eta garai haietan, frankismoaren azken garai gordin haietan alegia, ahalbidezkoa eta zen beste nolabaiteko jokabiderik?

Izan ere, aipatu dugun bezala, JM Lasartek ez zituen bere nahi eta ahalegin guztiak burutu Leitzan. Lortu gabe gelditu zitzaionetakoa izan zen, esan bezala, euskarazko irratia martxan jartzea. 1964ko bukaeran, Beruetetik Leitzara etorri zenean irratiko tresneria berria ekarri zuen bertara. Leitzako elizako elizganbarako erdiko gelan ipini zuen tresneria osoa eta mintzagela; antena berriz, eliz-dorrera igotzeko prest zegoen. Ahalegin guztiak egin zituen baimena eman ziezaioten, baina alferrik. Saiatu zen *Urmeneta* eta beste lagun batzuen bitartez, baina alferrik. Saiatu zen ez ikusiarena egin eta baimenik gabe utz ziezaioten, baina bide hori era moztu egin zioten. Gipuzkoako *Segura* herrian garai hartan ireki zuten Elizako Irratia eta agian berak ere horrelakoren bat lortuko zuela uste zuen, baina debeku zuzena idatzi etorri zitzaion, zantzarik eduki ez zezan. Irratiko tresneria elizganbarako gelan zaharkitu zen.

Beste ahalegin bat lortu gabe gelditua, ikastola martxan jartzeko lehen saioa izan zen. 1965an egin zena. Guardia zibilak bidali zituen etxera hiru urteko umeak beren guraso eta andereñoarekin eta atea prezintatu.

Leitzako 1965-ko Ikastola ez zen izan guardia zibilak Nafarroan itxitako ikastola bakarra. Iruñean ere, urte berean, 1965an alegia, berdin gertatu zen. *Amigos del País* erakundeko gazteriak, *-Eusko Gaztedi-* bultzaturik martxan jarritako ikastola guardia zibilaren eraginez eta aginduz itxia izan zen.

Bai Iruñean eta bai Leitzan ikastolak irekitzea lortu zen urteren bat geroago... agian, eta noski, debeku hark zerikusia zeukan. Urteak geroago eskola publikoetan lerro euskaldunak jarri izanak alde aurretik eraikitako ikastolekin zerikusia duen bezala agian, eta noski. Nafarroako ikastolen hasiera-hasieratako gora-behera apal eta xume haiek merezi lezakete araketa duin baten orrazkura.

Segurtasun indarren edo poliziaren aldetik ordea, JM Lasartek jasan izan zuen esandako bi horietatik at, ikastolaren eta irratiaeren debekuetatik at alegia, beste jazarpenik. Hurbil-hurbiletik jarraitu zuten aldi batzuetan eta pasaporterik gabe eduki izan zuten. Egia esan, jazarpen hark bazuen garaiko nabaritasunik eta hara, adibidez, behin, Leitzako Lanbide Eskolan lagun talde bat bildu omen zen afal ondoren patxaran kopa bana hartzera. Biharamunean JM Lasarteri Franco-ren Gobernazioko ministroa zen *Garicano Goñik* deitu omen zion pertsonalki galdezka, ea Leitzako Lanbide Eskolan gauzez, bileraren bat egin ote zuten edo. JM Lasartek ez izaki lagun taldeak afal ondorean egindako tertuliaren berririk eta ezeztatu egin omen zion. Hartan gelditu zen dena, anartean Lanbide Eskolako irakasle eta lagun talde hartako kide izandak *Florenzio Iruñtiaren* lekukotasunaren arabera.

1971an Leitzako paper fabrikako zuzendaritzan aldaketa izan zen, *Patxi Arrazola* kendu egin zuten eta biharamunean bihotzekoak emanda hil zen. 1974an Nekazari Eskola itxi zen. *Amazabal* Patronatoak sortutako egitura bakoitzak bere bidea hartu zuen: Lanbide Eskolak, ikastolak, guraso katolikoek elkarteak, jubilatuen biltokiak, liburutegiak, eskolak eta abar. Denbora berriak hurbiltzen ari ziren eta *Amazabal* Patronatoaren egitura zaharkituta gelditu zen. JM Lasartek, askorentzat ustekabean Leitzatik joatea erabaki zuen eta 1978an joan egin zen.

JM Lasarte Leitzan bizitutako lehendabiziko bost edo sei urtetan bere osabarekin bizitu zen, abadetxean. Gero aita zaharra ekarri eta izeba batek, *Mariak*, etxeko ardurak

hartu eta elizaren beste etxebizitza batera joan ziren. 1978an aita eta izeba hilik ziren eta osaba berriz, erretioa hartuta.

*Amazabal* Patronatoak ez zuen Jose Manuel joan ondoren asko iraun. Ezabatu egin zuten laster eta bere ondasunak Nafarroako Gobernuaren eskuetara edo jabetzara igaro ziren, *Maxurrenea* izeneko etxea barne.

### 3.4. Gasteizko Teologiako Fakultatean urtebete

JM Lasartek, Leitzako bere lan anitzen eta kudeaketa ekonomikoen zurrunbiloa eta abailak utzi eta 51 urterekin pastoraleko ikasketei ekin zien Gasteizko Teologiako Fakultatean. Urtebete egin zuen bertan. Zehazki 1978-VI-25tik 1979-VI-29 arte.

### 3.5. Uharte Arakilen erretore. Artzizpreste eta bikario Nafarroako euskal eremuan

Sakanako *Uharte Arakilko* herriko abade edo parrokoa izendatu zuten ondoren JM Lasarte. Baita Nafarroako Artzapezpikutzako euskal eremuko arduradun pastorala.

Uharte Arakilen 1979-V-7tik 1991-VI-1ra izan zen. Beraz 12 urte. JM Lasartek Uharte Arakilen bere jatorrizko joeretara egin zuen berritara, bere aztarnetara alegia.

Gezurra badirudi ere, Uharte Arakilgo elizan ez zen hitzik euskaraz egiten 1979an. Zehazkiago esatearren, 1941etik 1978ra bertako abadea edo erretorea izandako *Don Valeriano San Juan*, Irañetako semeak urtean bi Agur Maria egiten omen zituen euskaraz. Soilik bi Agur Maria, garai zehatz eta jakinetan. Urteko beste elizkizun guzti-guztiak espainolez egiten omen zituen, nahiz eta herri euskalduna izan. Uharte Arakilen, *Don Inozentzio Aierberen* jaioterrian alegia, gaur egun bertan aiton-amonek eta bilobek badakite euskaraz... eta zorionez bilobek ere bai. JM Lasartek berehala elizkizunak elebidunak egiteari ekin zion. Hori izan zen haren lehen ardura.

Gero abesbatza eta dantzari taldea sortu zituen. Berak zuzentzen zuen abesbatza eta berak dantzak erakutsi eta txistua jo. Gaztea zenean Luzaiden eta gero, Berueten bezala eta alde batera eta bestera ateraldiak egin zituzten. Aralarko San Migelen eliza Uharte Arakilko Udalerrian kokaturik dago eta *Zamartzeko* monasterioa bertan aurkitzen da. *Ara Aquilis* eta *Ara Larre* izenek esanahi berdina izaki noski!

JM Lasarte Uharte Arakilen zegoelarik hasi ziren *Zamartzeko* indusketak egiten eta ondoren zaharretxea jartzeko lehen urratsak eman ziren.

Uharte Arakilen izandako 12 urteetan kargu edo ardura handia eman zioten Artzapezpikutzako zeregin pastoraletan diozesi delakoaren arduetan: Artzizprestea eta Presbiterioko Kontseiluko kidea izan baitzen bi edo hiru aldiz. *Mons. Zirarda* artzapezpikuarekin harreman estua izan zuen beti.

Halere Uharte Arakilen zegoelarik ere ez zitzaion atsekaberik falta izan. Bat, Altsasuko eta Etxarri-Aranazko ikastoletan jarrera laikoa aitortu eta erabaki izanak eman zion. Haserrea sortu arterainoko atsekabe gogorra.



### 3.6. Iruñean. Caritas Erakundeko kudeaketa laguntzaile

1991an *Don Jose Manuelek* jubilazioa edo erretreta hartu zuen, 64 urte zeukalarik. Iruñera etorri zen bizitzera, baina ez inolaz ere geldirik egoteko asmoarekin.

Harreman estua zeukan, esan bezala Mons. Jose M<sup>a</sup> Zirarda Iruñeko artzapezpi-kuarekin. Mons. Zirardak berak aitortu izan zuen behin, Iruñeko Udaleko udalbatzan eta zinegotzi guztien aurrean JM Lasarterekiko zuen miresmena. Diozesiko *Caritas* Erakundean kudeatzaile behar zuten *Don Florentino Ezkurra* arduradunari kontuak egokitzen lagun ziezaion. Arduradunaren albokoa izendatu zuten JM Lasarte, nahiz eta jubilatutik izan ordurako.

Nafarroako *Caritaseko* kontuak egokitzea eta tajutzea izan zen beraz JM Lasarteren urte batzuetako zeregina. Bidenabarrean Nafarroako *Caritaseko* izenburuetan, iragarkietan eta lelo nagusietan nabaritu egin zen euskararen sarrera eta presentzia nabarmena. Agian JM Lasarteren eskua zebilen tartean.

Zenbat urte egin zuen *Caritaseko* lan eta arduetan? Ez dago garbi. Hitzez emandako zeregina zen eta neurri handi batean bere borondatez egiten zuena. Zortzi edo hamar urte aritu zen eta gero apaizen erresidentziara sartu zenean, *Iruñe* inguruko zaharretxe batzuetako elizkizun arduetan saiatu zen gaizkitu eta hil arte. Azkeneko *Ziaurritzko* zaharretxea, bertatik euskaldun asko izaten delako deitu omen zioten eta.

## 4. EUSKARA IDATZIAREN ERABILERA URRIA

Esan bezala euskaraz hizlari eta sermoilari bikaina zen JM Lasarte, baina ez zeukan euskaraz idazteko, eta agian ezta irakurtzeko ere ohiturarik. Ahalegin gutxi samar egin izan zuen euskara idatziaren arloan. Atseginago zitzaizkion ekimenak, kudeaketa eta antolaketak edo egitasmoen garapenak. Azterketa eta ikerketan murgiltzea ez zuen oso gogoko. Ezta euskaraz idaztea ere.

Alde batera utziz gero *Luzaideko* hasiera haietan idatzi ahal izan zituenak, ezin izan dira aurkitu, azken-azken urteetako lan labur batzuk baizik. Harritzekoa ez-ezik, esanguratsua ere bada, erretiratu eta ondoren egin izana JM Lasartek euskaraz liburutxo bat argitaratzeko bere lehen ahalegina. Baina horrelaxe gertatu zen.

Liburuxka moduan bi argitalditan azaldu zuen *Gurutze bidea/ Via Crucis* euskaraz eta erdaraz dagoena. *Etxarri-Larraun*, JM Lasartek bere jaioterriko elizarentzat egin dakoa da. 2004an eta 2005ean atera zuen. Bigarren argitaraldian akats eta hutsegite batzuk zuzentzeaz gain, paragraforen bat gehiago erantsi zion.

Elizkizunetarako ez da aurkitu hileta elizkizun bateko Mezaren sarrera eta homi-liaren hasiera labur bat baizik.

Euskaraz oharrak idazteko ohitura bazeukan, baina ez zen zuzenketak eta orrazkurak egitearen zale. Ez zuen euskara batuan alfabetatzeko saiakerarik egin. Behar bada horrexegatik hautsi egiten izanen zituen bere idatziak edo ohartxoak, erabili eta gero. Berentzat baizik ez baitzuen egiten nonbait.

Nafarroako Elizbarrutiko euskal eremuko arduraduna izan zen hamabi urtetan eta erabili beharreko testuetaz arduratzen zen. Baina ez da gelditu haren ahaleginaren azarnarik; behintzat ez JM Lasartek bere eskuz egindakorik.

JM Lasarteren euskara idatziaren erabilerari dagokionez hiru gune aipa litezke: bat, *Luzaidekoa*, bestea, *Leitzan* egondako lehen urteetan, beraz 1964-tik aurrera *Principe de Viana* aldizkariko euskal gehigarrian idatzitako artikulua: ez dira asko eta batzuetan *Joseba Imanol* sinatzen du eta besteren batean *Oialde*. Hirugarren gunea, azken urteetakoa da.

## 5. EUSKAL ZALETASUNA. GORA-BEHERA IDEOLOGIKOAK

*Florenzio Irurtia Lizarraga* jaunak esana da JM Lasarte gurutziltzatu egin zutela Leitzan, bai eskuinekoek nola ezkerrekoek. Horixe zen zehazki berak pentsatzen zuena. Agian ez batzuek eta ez bestek ez zuten guztiz beren artekotzat hartu eta arrotza izan zen gehientzat. Hark bere gora-beherak, zalantzak eta aldaketak edo bilakaerak eduki zituen. Halere lagun, adiskide eta harreman tinko-tinkoak mantendu zituen beti pertsona jakin batzuekin.

Baina izan zituen ardurek izan zituen garaietan ez zioten bere pentsakera azaltzen utzi maiz. Egoera zailetan ikusi zuen bere burua. Alde batetik jazarpena jasaten eta bestetik, ontzat ez hartua eta ezin ikusia.

Bada gertakizun gogor bat haren izaera eta jokabidea adierazten duena. Frakis-moaren garai gogorrenetan euskal apaizek sinatutako eskutitzaren istorioa da. Hego Euskal Herri osoan 339 apaizek sinatu zuten. Nafarroan soil-soilik 12 izan ziren eta haietako bat, ezagunena, JM Lasarte zen. Berehala hasi zitzaizkion izugarritzko jazarpena eta presioa egiten sinadura hura ken zezan. Iruñeko Artzapezpikuak berak, *Mons. Enrique Delgado Gomez*-ek alegia, deitu omen zion eta sinadura urratzeko agindu, desobediendiaren mehatxupean. Pasaporteak kendu zioten, beste sinatzaile guztiei bezala. *Endaiara* abesbatza batekin joatea galerazi zioten behin. Bere ardura zibil eta harremanengatik JM Lasarte bereziki salatu zuten. Nafarroan apaizen sinadurak biltzen ibilitako biak, *Don Martzelino Garde* eta *Don Juan Martin Arrizibita* zigortu egin zituzten. Zama horren azpian sinadura urratu egin zuten bakarren batzuk, JM Lasarte, barne. Beraz, egia da sinadura urratu egin zuela, baina baita ere egia da Nafarroako 1000 apaiz eta 500 fraideetatik izandako 12 sinatzaile bakar haietako bat JM Lasarte izan zela.

Euskal zaletasuna eta lanak agerian daude. Bere garaiko eta giroko mugimendu gutzietan murgildua ibili zela, batzuetan asmatuz ata agian besteren batean hutsgeginez agerian dago. Bide urratzailea izan zela ezin da ukatu. *Berueteko* eta *Arantzako* irratiaren kondaira iradokizunetz beterik dagoela ezin ahaztu. Nafarroan lanbide eta nekazaritza arloko eskoletan euskarazko ahaleginetan aintzindaria izan zela aitortu beharra dago. Ikastolen mugimenduko lehen urratsetan han ibili zen.

Laburbilduz, Etxarri-Larraungo *Apezzeneko* semea, JM Lasarte, pertsonaia konplexua eta kontraesanak zituena izan zen. Ekimen askotakoa eta gauzak egitea edo kudeatzea atsegina zuena ikertzea edo aztertzea baino.

## **6. ESKER ONAREN AITORPENA**

JM Lasarteren bizitzako datu askoren bilketa eta alboko eranskinen eskuratzea *Joxe M<sup>a</sup> Aleman Zabaleta* jaunari zor zaio. Berak lortu baititu JM Lasarteren izendapen eta lanbideen daturik gehienak eta beste zenbait zehaztasun.

Lekukotasuna eman dute, besteak-beste, *Don Esteban Irigoyenek, Don Florentino Ezkurrak, Don Fermin Ixurkok, Don Bernardo Sokobeherek, Don Juan Bautista Irazo-kik, Don Florenzio Irurtia Lizarragak* eta abar.

Don JM Lasarteren senide eta familiakoek berriz.

Opari bezala Euskaltzaindiko *R. M. Azkue* Bibliotekan utzi dira Don Jose Manuel Lasarte Mugiroren euskal idatzi eta liburuxkak.

*Patxi Zabaleta*



## JESUS ATXA AGIRRE

(1920-2007)

Jesus Atxa Aretxabaletan jaio zen, 1920ko maiatzaren 28an. 2007ko urriaren 23an hil zen Nafarroako hiriburuan, 87 urte zituela. Hiru herriri atxikia izan zela Atxa esango nuke: Gipuzkoako Aretxabaleta, Bizkaiko Elorrio eta Nafarroako Iruñea.

Hamalau urte bete arte herriko eskolan ikasi zuen. 14 urterekin Durangoko jesuiten ikastetxera joan zen estudiatzera, eta han egon zen bi urtez. Gero, 1936an, gerra garaian, Belgikara joan zen. Konpainiakoen artean egin zituen hurrengo zazpi urteak: zazpi hilabete Belgikan nobizio eta beste hamasei hilabete Caracasko nobiziduan, bi urte Kolonbiako Santa Rosa Seminarioan eta beste hiru urte Bogotako jesuiten Unibertsitatean, Filosofia eta Letrak ikasketak egiten. Pedagogia ikasketak ere eginak zituen. 1942. urtean, 23 urte zituela, Jesuitak utzi zituen eta Caracasera itzuli zen. Aldi batean, bere kabuz aritu izan zen lanean.

Caracasko Eusko Etxean. Jon Oñatibia ezagutu zuen eta bere laguntzaile izan zen *Argia* aldizkarian. Caracasen izan zen bitartean, Eusko Etxearen abesbatzako partaidea izan zen.

1945ean, Euskal Herrira itzuli zen. Ordurako, gurasoak eta neba-arrebak Elorriora bizitzera aldatuak ziren. Hain zuzen, aita, eskola gutxikoa omen zen, baina oso azkarra eta Aretxabaletan «Eizaguirre, Acha y Cía» lantegiko sozioa izan zen, Errepublika amaiera inguruan porrot egin arte. Gerra ostean Elorrioko fabrikarik handiena zen LINCEn (La Industrial Cerrajera de Elorrio)k koadro teknikorik gabe gelditu omen zen, espetxean edo atzerrian zeudelako eta bertara deitu zioten Jose Maria Atxa Zubia aitari, tekniko ona zelako, lantegi buru legez. Ameriketatik itzuli zenean, LINCEn sartu zen Jesus ere, fundizio saileko bulegoan eta pare bat urte egin zituen. Beste hainbeste Bizkaiko Aurrezki Kutxan eta, handik, FUNCOR enpresaren inguruan sortutako Erreka kaleko Kontsumo Kooperatiban, honek ekonomia arazoak izan zituenean, lanik gabe gelditu eta Araban pentsu saltzen hasi beharra izan zuen, baina Elorrioren bizitzan jarraitu zuen zatitxo baten, harik eta Gasteizen etxea erosi arte. Urte bete bakarrik bizi izan ziren Atxatarrak Arabako hiriburuan. Jesus ekintza gizona zen eta, batez ere, «Jesusen bizia euskara munduan» omen zegoen, Elorrioren kontatu didatenez. Horretara lotua egon zen, Elorrioren bizi izan zen tartean ere jarraitu arren, Bilboko EDILIn lanean izan zenean ere. Elorriartu zen osorik, hain zuzen, Bernardino Igartzaren alabarekin, Julirekin maitemindu eta ezkondu baitzen. Elorrioko Udaletxearen ondoan dagoen tabernarik herrikoiena – gaur egun, *La Parra* izenarekin bataiatua – adin pixkat dugunok «Bernardiñoa» deitu diogu beti (bidenabar, Jean Haritschelharren omenezko *Iker* lanean: «-ena atzizkia mendeal oikonimoetan» agertzen da *Bernardiñoa* (ikus 424. orrialdea). Bernardiñoneko Juli, hemen dugu, gaur ere, gure artean.

1960ko hamarkadan erabat murgildu zen euskalgintzan eta ikastolen munduan. EDILI, S. A. (Edición de Libros) enpresa euskaltzalearen zuzendari izan zen. EDILI argitaletxea, Bilboko Viuda de Epalza kalean zegoen, Areatza pasealekuaren aurrez aurre, baita ere Mazarredo zumardian eta ezinbestekoa izan zen aipatu hamarkadan, ez bakarrik Bizkaiko hiriburuan, baita ere, garai hartan euskal kulturaren genbiltzan edonorentzat. Hain zuzen, garai horretan ezagutu nuen Atxa, oker ez banago, Jon Oñatibia bion adiskideen bidez. Baliteke, 1963. urtean izatea.

\* \* \*


Beste eremu asko bezalaxe, EDILiren historia egiteko dago eta, zehazki, zer suposatu zuen, euskal liburu batzuen argitaldaria, beste batzuen banatzaile, konfidantzazkoentzat klandestinoak barne (Anton Kortazar elorriar adiskideak, oraintsu kontatu zidan, nola bere autoan joan ziren Itziarrera hemen galerazitako Iturraldearen *El catolicismo y la Cruzada de Franco* liburuaren lau-bost kutxa ekartzera eta, han, Itziarren, abade gazte batek –Jose Mari Aranalde ez ote zen?– baserri batera eramanean, kargatu eta Elorriora, tartean goardazibilak alto eman, baina ia Eibarreraino eramango zituzten, baietz, «pareja» liburu klandestinoen gainean eserita). Editorial enpresatxoaren bidez ekintza askoren animatzaile, beste askoren artean, bat aipatzearen *Ama Lur* filmaren inguruan. *Haritzaren negua «Ama lur» y el País Vasco de los años 60* liburu kolekti-boan, Euskadiko Filmatagia/Filmoteca Vasca, Donostia, 1993, beste egile askoren artean: «67-68 urteak eta euskal kultur testu ingurua» lana idatzi nuen; azken aurreko lerrokada honela bukatzen nuelarik:

ez bakarrik laguntzarik eza, oztupoak asko gehiago ziren, administrazioeikiko portaera zitala barne eta hala eta guttiz ere saiatu ginen batzuk bustitzen, geure fitxen kaltetan bazen ere. Oroimen bat eskainiko nieke Jose Luis Etxegarairi eta Jesus bie, Idoeta eta **Atxari**

EDILIn buru eta arima Atxa nabarmendu zen, agian, lar, ostetik, ostenduta, zeuden bere orduko alderdiko «komisarioentzat», zeren eta, besteak beste, gazteok euskara batuaren alde egin genuen apustu berbera egin bai zuen Jesusek eta hori ez zioten barkatu. Dirudenez, «desgrazian» erori zen. Euskara batuaren alde egiteak, jende askori, bereziki, 60ko hamarkadaren amaieran eta 70. garrenaren hasieran, arazo ugari sorrarazi zion. Adibidez, 1968ko ekainean, gerra osteko Euskal Idazleen lehen Jardunaldiak antolatu zituen Gerediaga Elkartek, Juan San Martinen eraginez, Ermuko Eskola Profesionalean. Hara hor hortaz zer esaten nuen nire sarrera hitzaldian:

aurretiaz, urte honen erdian, eskualde honen lau urietarik baten, Ermuan, hain zuzen, gertakizun garrantzitsua antolatu zuen Gerediaga Elkartek, gerra osteko euskal idazleen lehen Biltzarra. Ideia Juan San Martin eibartar, Euskaltzaindiaren idazkari eta elkartearen bazkide-arena izan zen, helburu argi batekin, hots, udazkenean Arantzazu-Oñatin egiteko zen Biltzarra girotzeko eta idazleen iritziak entzuteko. Oso arrakastatsua atera zen Eskola Profesionalean antolatu zena, azpiegituran primeran portatu zirelarik ermuar bazkideak eta, aurrenengo, Agustín Aranberria, ordezkaria. Ekainaren 28, 29 eta 30ean izan ziren biltzar-jardunaldiok, hizlari eta txostengileen artean, Juan San Martínez landa, Aingeru Irigarai, Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardeggi» (exiliotik bidali zuen lana), Gabriel Aresti, Juan Antonio Letamendia, Salvador Garmendia eta Pierre Lafitte. Prentsa oharrak hau zioen, euskarazko egunkaririk ez baitzen orduan:

*al final cerró dando realce a las reuniones, uno de los miembros más destacados de la Academia, el canónigo de Bayona y director-fundador de la revista Herria de Bayona, Pierre Lafitte. Se tomaron nueve acuerdos relacionados con la unificación literaria del idioma* (Euskera, 2004,2, 627. or.).



Antolakuntzako arduraduna Agustin Aranberria, Gerediagako Ermuko ordezkaria, euskaltzale eta jeltzale sutsua, Jesus Atxaren adiskidea eta klandestinitate lanetan eskualde mailako lagun. Aranberriak, geroago kontatu zidan, nolako kritika jasan zuen Bizkaiko bere burukideengatik, gipuzkoar bat barne, idazleen biltzar hori eratzeagatik. Atxa ere han zen, Ermuan, EDILirekin.

Bestetik, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaren lehen urtetik, hots, 1965etik, EDILiren zuzendaria, Atxa jauna alegia, bere standarekin partaide izan zen. Ez hori bakarrik, elkartearen sorreratik lasterrera, Gerediaga Durango Merinaldeko Adiskideen Elkarteko bazkide ere egin zen eta, eskualde mailan, baita Elorrioko Ordezkaritza mailan ere, lankide izan genuen.

Hain zuzen ere, *Gerediaga* aldizkariaren 15. zenbakian, hots, 1967ko iraila-urria-azarokoan honako artikulua aurkitzen da:

EUSKEREAREN ZORIA... Hiru zutabe luzetan bere hausnarketa sakona garatzen du eta honela amaitzen: «GOGOR EGIN... euskeraz kalean, euskeraz batzarretan, euskeraz edantokietan, euskeraz lantegietan, ... ZER BA?... gure izkuntza atzenetan eta oindiño begira egon bear ete gara ba? ...arin min emongo ete deutson, txarto ikusiak izango ete garan?... GOGOR?.. gaitz aundiari erremedio aundiak eta alan da be gure edukazino eza...gure lotsabakokeri guztia, gure fanatismoa, gure ikusi eziña. Guztia ez da naikoa izango euskerara, bere zoritxarretik ateratzeko, gure fanatismoaren gaiñetik eta azpitik eta azpitik fanatismo indatsuagoak dabilzalako, izen dotoreakaz, kristiñautasun aundienagaz, baña, ez gu bezela, ESKU GARBIZ. **Leintzarra.**

Bistan da nor zen Elorrioren leintzarra, hots, Leintz haranekoa : Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasatekoa; Jesus Atxa Agirre aretxabaletarra. Duela berrogei urteko fran-

kismo garaian situatu behar gara artikulu hau ulertzeko eta, izengoiti batekin, badaezpada. Bestalde, Jesusen euskara, Mendebaldekoa bazen ere, ez zen elorriarra, leintzarra baizik.

\* \* \*

Durangoko Euskal Liburu eta Disko gaira itzulita, Atxaren laguntza ezinbestekoa suertatu zen eta, horretaz mintzatu ginen Leopoldo Zugaza eta biok hil honen 15ean, Donostiako ordezkartizan. Leopoldo lehen Azoken idazkari, *versus* zuzendari eta ni diruzain, luze zabal horretaz hitz egiteko gelditu ginen eta, berari, Atxaren partaidetzaz zerbait idazteko eskatu nion. Garaiz egingo balu, *Euskera* Agerkarian pozik jarriko nuke. Jesusekin nire harremanak, ez ziren Azokarekikoak soilik, hortaz ere bai. Askotan biltzen ginen, edota Matienako Taberna Zaharra jatetxean, edo Abadiñoako Soloeanean. Jatetxe honetan, Jesusen alaba edo ilobak oroitarazi zidan, Iruñeko Beilategian, bildu omen ginen Jesus eta biok, bion lankidetzako zerbait konpontzeko, bera Bilbotik Elorrioko etxera eta afal ostean berba eta berba gau erdi arte eta emaztea eta neskatoa alboko mahaian lo... Segururik Jesusek eta biok euskal gatazka ez genuela konponduko, baina euskalgintzari erreposo on bat eman bai.

\* \* \*

Beste hiri batzuetako kultur asteak eta egunak zirela medio, «Euskal Jaien» inguruan eratzen ziren tokiko liburu eta disko azoken antolatzailean izan zen, hala nola Eibarren, Arrasaten, Bergaran, Gasteizen, Iruñean eta Zarautzen. EDILI horretarako erraminta a proposa zuen.

Nahiz eta Elorrión aspalditxo bizi, Aretxabaleta bere jaioterriko ikastolaren sortzaile-etariko izan zen, Sarasua eta Angel Gabilondorekin batera. Bizkaiko lehendabiziko ikastolen bultzatzaile sutsua izan zen Jesus Atxa: Ondarroa, Ermua, Berriz, Zornotza, Galdakao, Durango eta Bilbo. Gipuzkoako herri batzuetan ere lan bera egin zuen eta Gipuzkoako Ikastolen Elkartea sortu aurretiko bileretan eta ekimenetan ere parte hartu zuen.

Gasteizen bizitzen zegoela, pentsu saltzaile lana hartu beharra izan zuelako, ogibide hori ez zen bere bokaziozkoa, deitu omen zion Jorge Cortes Izal euskaltzain urgazle eta zaraitzuar ekintzaile purukatuak, Iruñeko San Fermin ikastolan lana egiteko aukera eskainiz. Orduantxe bai, bateratu ahal izan zituen ogibidea eta euskalgintza bokazioa. Lehendik Bizkaian izan zen bezala, gero ere Nafarroan, ikastolen munduan sortzaile, bultzatzaile eta irakasle izan zen Jesus Atxa: 1970. urtean Iruñeko *San Fermin* Ikastolako zuzendari izendatu zuten eta bertan ihardun zuen 1984. arte, alegia, jubilatutako arte:

suertea eta ohorea niretzat –horrela esan zuen berak– euskararen alde lan egin ahal izatea.

Bitarte horretan, gainera, herrietan sortzen ari ziren ikastolen suspertzaile izan zen: Etxarri Aranatzen, Altsasun, Tafallan, Lizarran, Beran, Lesakan... Gurasoekin bilerak egitea eta irakasleak bilatzea, besteak beste, egiten zuen Atxak.

1977an Nafarroako Ikastolen Elkarteko sorreran parte hartu zuen.

1978an, Carlos Santamariaren gidaritzapean, Euskal Kontseilu Orokorrean, Hezkuntza Sailean, hartu zuen parte.

1990ean Nafarroako Ikastolen Historiarako Artxiboetako arduradun aukeratu zuten, Ikastolen Elkartearen babesean. Hain zuzen, gaixotu baino lehentxoago arte, ikastolen sorrera eta garapeneko paper artean buru-belarri ihardun zuen, ikastola bakoitzaren his-



toria llaburrak idatziz. Aipagarriena, dudarik gabe, *25 Urteurrena 1970-1995. San Fermin Ikastola* liburua da, zeinetan Aingeru Epaltzak eta biak, bera zuzendari izan zen Nafarroako ikastolarik handienaren historia bederlatzi kapitulutan kontatzen diguten. Bere burua oso gutxi agertzen du Jesussek liburu horretan, bakarrik bi aipamen dakarkizuet:

hasta comenzar el curso 1970-71 no hubo ocasión de reforzar el profesorado con la llegada, entre otros, de Jesús Atxa, primer director de San Fermín (25. orr.) .... 1970-71 ikasturtearen hasieran, irakasle berriak agertu ziren: Nekane Lasarte, Ernesto Fernandez, Lourdes Artieda, Maria Jesus Satrustegi eta Jesus Atxa. Azken hau, Aretxabaletako semea eta Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastola sailean aspaldian aritua, ez zen erabat arrotza hemen, joan-etorriren batzuk egina baitzen lehenago Iruñera, bai San Jose plazara, bai Baiona etorbidera. Ikastolak gidari berria behar zuela eta, Donostiako ikastola batean ari zen Karmele Eснаlekin zeuden lehenago hitz-emanak, baina horrek ezezkoa eman azken orduan eta Jesus Atxa hautatu zuten zuzendari (26. orr.).

Lerro artean irakurri behar da ikastola honetan egileak berak hogeita bost urtetan egindako lan oparoa ikusteko. Nafarroako norbaiti dagokio Atxak herrialde horretan euskalgintza alorrean, bereziki ikastola munduan, egindakoa ondo historiatzea.

1993-4an, Nafarroan saio interesgarri bat izan zen, Euskararen Foru Legea aldatzeko. Batzuen eta besteen alderdikeriengatik, ez zen posible izan Legea hobera aldatzea eta, hortaz, Euskaltzaindiak «Adierazpena» onartu eta zabaldu zuen, 1994ko uztailaren 4ean (Ikus *Euskerak*, 1995, 1, 557. or.). Eusko Alkartasuneko kide legez, baina batez ere bere euskaltzaletasunarengatik, saio horren barruko lanetan ihardun zuela zin dagit, zeren eta hizkuntzen legeriez, bai Euskal Autonomia Erkidegokoaz, Valentziakoaz eta beste batzuetakoez ohar ugari eman bainizkion, Nafarroarako aplikagarri izan zitezkenak, batez ere, Iruñera joan nintzen batean.

\* \* \*

Zenbait ipuin liburu euskaratu eta argitaratu zituen, Jon Oñatibiarekin. Bartzelonako Ediciones Galera delakoan, honako hauek 1966. urtean: *Segalaien askara*, Maria Gasch egilerarena; *Jostalluen Uria* eta *Altxor billa*, Eulalia Valerirenak.

*Zeruko Argia* aldizkariak idazteaz gain, zeinetan garai baten, EDILIn zegoela astekariaren Bizkaiko ordezkari izan zen; *Txistulari* eta *Anaitasuna* aldizkarietan ere kolaborazioak argitaratu zituen. Baita arestian aipaturiko Durangaldeko *Gerediagan* ere. Iruñera joan baino lehen, haurrentzako hainbat filme euskarara bikoizten ere aritu zen, askotan Xabier Kintana euskaltzainarekin batera.

Euskaltzaindiak 1977ko abuztuaren 25ean euskaltzain urgazle izendatu zuen. Euskaltzain ohorezko, berriz, 1998ko apirilaren 24an, «Euskaltzaindiaren ustetan euskarari mesede bikainak» egina zelako gure Arautegiak adierazten duen legez, hain zuzen, hizkuntzaren *Jagon* sailean.

Eusko Ikaskuntzaren 2003ko «Manuel Lekuona» Saria, Jesus Atxak irabazi zuen. 21.sarritua izan zen. Aurretiaz: M. Lekuona, O. Apraiz, J. Riezu, A. Mañarikua, M. Laborde, J. Garate, E. Goienetxe, G. Lz. Gereñukoa, C. Santamaria, B. Estornes, Fco. Salinas, X. Diharce «Iratzeder», A. Zelaia, J. Oteiza, M. Portilla, J. M. Jimeno Jurio, P. Xarriton, J. M. Azaola, J. I. Telletxea eta A. Llanosen ondoren, hurrengo urtean, 2003an, euskal kultura munduko goi konstelazioan izar.

*Jose Luis Lizundia Askondo*



**AURKIBIDEA / ÍNDICE / INDEX**  
**2007**



## AURKIBIDEA / ÍNDICE / INDEX

2007

AINTZIART, Piarres:	
– Gratien Adema «Zaldubi»-ri omenaldia . . . . .	875
ALDEKOA, Iñaki:	
– Txillardegí: <i>Leturiaren egunkari ezkutua</i> . . . . .	627
ALEMAN, Sagrario:	
– EAEko euskararen Legearen garapenaz Nafarroaren ikuspegia. Nire sentimendua . . . . .	1545
ALTZIBAR, Xabier:	
– Adema <i>Zaldubiren</i> (1828-1907) prosa idazlanak . . . . .	1033
AMENABAR, Iñaki:	
– Bernardo Atxaga, Euskaltzaindian sartzea, . . . . .	9
APALATEGI, Ur:	
– Antton eta Leturia (edo literaturtasunarekin kuku-gordeka denbora historikoaren oihanean) . . . . .	559
APEZETXEA ZUBIRI, Pello:	
– Bi etxalartar Euskaltzaindiaren sorreran: Teodoro Arburua - Eusebio de Etxalar. . . . .	283
– Euskara Batua eta euskalkiak . . . . .	359
AREJITA, Adolfo:	
– Ahozko ondarea biltzeko egitasmoa. Euskaltzaindia: Dialektologia Batzordea . . . . .	269
ARTZA BIKANDI, Jon:	
– III. Bartzelonako Liburu Azokaren (Salo del Llibre) errendapen- -txostena . . . . .	1635
– Durangoko 42. Euskal Azokarekiko kontu errendapena . . . . .	1637
ARZUAGA, Esti:	
– Euskalkien trataera ikus-entzunezko hedabideetan. . . . .	319

ATUTXA MENDIOLA, Juan M <sup>a</sup> :	
– Euskararen Legeak 25 urte Euskal Autonomia Erkidegoan . . . . .	1231
BADIOLA URIARTE, Ricardo	
– III. Bartzelonako Liburu Azokaren (Salo del Llibre) errendapen- txostena. . . . .	1635
– Durangoko 42. Euskal Azokarekiko kontu errendapena, . . . . .	1637
BAXOK, Erramun:	
– Euskaltzaindiaren eragina euskararen erakunde publikoaren hiz- kuntza politika proiektuan. . . . .	403
– Euskararen Legea. 1982ko oinarrizko legea, euskararen erabilpena araukotzezkoa. Ipar Euskal Herriko ikuspegi bat. . . . .	1553
BELOKI GUERRA, Julian:	
– Euskararen Legea eta hedabideak. 25 urteotako gorabehera batzuk . .	1519
BESSONART, Christine:	
– Zaldubiren oroit-harria. . . . .	873
BRETON, André:	
– À mon ami Txillardegi . . . . .	767
BRISSON, Max:	
– L'Euskaltzaindia et l'Office de la Langue Basque: un nouveau cadre de relations. . . . .	1101
CASENAVE, Jon:	
– <i>Leturiaren egunkari ezkutua</i> (1957) haustura bat euskal narrati- ban? . . . . .	617
CILLERO, Javi:	
– <i>Amabost egun Urgain</i> 'en (1955) eta eleberrigintza poliziakoaren hastapenak, . . . . .	599
DAVANT, Jean-Louis:	
– Aizkolariak eta zizelkariak. Andoni Sagarna Izagirre Euskaltzain- dian sartzeko hitzaldiari erantzuna . . . . .	859
– Apphatia. Lhande. . . . .	1181
– Aita Pierre Lhande-ren lanak . . . . .	1191
DUHAU, Henri:	
– Gratien Adema «Zaldubi»ri omenaldia. . . . .	1077
EGIA, Gotzon:	
– Euskararen Legea onartu zenetik hona, euskarak herri administra- zioan izan duen garapenez . . . . .	1265

ETXEBERRIA, Pilartxo:	
– Txillardegiri omenaldi-liburua . . . . .	765
EUSKALTZAINDIA / Real Academia de la Lengua Vasca:	
– Donostian, 2007ko otsailaren 2an . . . . .	415
– Bilbon, 2007ko otsailaren 23an . . . . .	418
– Ageriko bilkura . . . . .	421
– Ageriko bilkura (Asteasu, 2007-III-17), . . . . .	424
– Donostian, 2007ko martxoaren 30ean . . . . .	427
– Etxalarren, 2007ko apirilaren 19an eta 20an . . . . .	429
– Etxalarren, 2007ko apirilaren 20an eta 21ean . . . . .	434
– Ageriko bilkura . . . . .	437
– Bilbon, 2007ko maiatzaren 31n eta ekainaren 1ean . . . . .	448
– Ageriko bilkura (Donostia, 2007-VI-2an). . . . .	451
– Donostian, 2007ko ekainaren 29an . . . . .	455
– Euskaltzaindiaren ARAUAK: . . . . .	455
• 38. <i>Araua</i> : Munduko estatu-izenak, herritarren izenak, hizkuntza ofizialak eta hiriburuak. ( <i>Arau</i> zuzendua eta eguneratua) . . .	459
• 151. Espainia-Frantzietako eskualdeen izenak . . . . .	1605
• 152. Hiztegi batua: <i>f - fuxina</i> . . . . .	1611
– Bilbon, 2007ko uztailaren 20an . . . . .	1581
– Vianan, Ageriko bilkura, 2007ko irailaren 21 . . . . .	1583
– Bilbon, 2007ko irailaren 28an . . . . .	1585
– Donostian, 2007ko urriaren 26an . . . . .	1587
– Bilbon, 2007ko azaroaren 30ean . . . . .	1590
– Senperen, 2007ko abenduaren 21ean . . . . .	1593
– Ageriko bilkura . . . . .	1595
EXONOMASTIKA BATZORDEA:	
– Kosten izenak. Exonomastika Batzordearen gomendioa, . . . . .	1157
GALÉ GARCÍA, Patxi:	
– Euskal corpus onomastikoa. Euskaltzaindiaren XV. Barne Jardu- naldiak . . . . .	197
GARTZIA TRUJILLO, Sebastian:	
– Txillardegiri eta (kristau?) erlijioa . . . . .	691
GONZALEZ DE TXABARRI MIRANDA, Joxe Joan:	
– Mikel Zalbide, Euskaltzaindian sartzea . . . . .	51
GONZÁLEZ DE VIÑASPRE, Roberto:	
– El entorno de la Puebla de Arganzón: notas históricas y lingüís- ticas. . . . .	1143

GONZALEZ, Ventura:	
– <i>Nafarroa Oinez 2007</i> . . . . .	1121
GORROTXATEGI, Mikel:	
– <i>Tolosako leku-izenak</i> liburuaren aurkezpena . . . . .	383
– Irizpenak . . . . .	1141
GROS I LLADÓS, Miquel	
– Presentación de: <i>Recuperación del euskera en Navarra</i> . . . . .	1127
HARITSCHELHAR, Jean:	
– Euskalkiak eta komunikabideak . . . . .	367
– Aitzin solas . . . . .	545
– Gratien Adema «Zaldubi». Bere mendeko apez eta gizona . . . . .	1061
– Esker hitzak . . . . .	1091
IGARABIDE HUARTE, Joseba:	
– Euskalkiak eta komunikabideak . . . . .	365
INTXAUSTI REKONDO, Joseba:	
– <i>Joanes Etxeberri</i> egitasmoa (2007-2008) . . . . .	239
– Euskararen ofizialtasuna: zenbait aurrekari historiko . . . . .	1235
IÑIGO ARIZTEGI, Andres:	
– Euskal corpus onomastikoa. Euskaltzaindiaren XV. Barne Jardunaldiak . . . . .	197
– <i>Recuperación del Euskera en Navarra</i> : euskararen berreskuratze itxaropentsua Nafarroan . . . . .	813
– <i>Recuperación del euskera en Navarra</i> . Liburuaren aurkezpena . . . . .	1117
– Euskararen Legea. 25 urte Euskal Autonomia Erkidegoan. Euskaltzaindiaren XI. <i>Jagon</i> Jardunaldiak . . . . .	1233
– Hizkuntza-Zuzenbidea. Testu bilduma euskaraz. <i>Jagon</i> Bilduma 5. . . . .	1259
IÑIGO, Patxi:	
– Bortzirietako hizkeraren zenbait berezitasun gaurko gazteen mintzairan . . . . .	291
– Nafarroako euskal komunikabideak . . . . .	353
IPARRAGIRRE, Arantxa:	
– <i>Karrape</i> Irratian euskalkien erabilera . . . . .	351
IRAZU, Jose, «Bernardo Atxaga»:	
– Antzarak, zenbakiak eta letrak . . . . .	15
IRIONDO, Joxemari:	
– «Ez dok amairu» erakusketa, 1966-03-06 – 1972ko abendua . . . . .	509



JUARISTI, Patxi:	
– Euskararen berreskuratzea Nafarroan . . . . .	817
KINTANA URTIAGA, Xabier:	
– Ekintzailearen laudorioa . . . . .	29
– Zientzia, teknologia eta kultura hitzak Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuaren bigarren itzulian . . . . .	275
KNÖRR, Henrike:	
– Zerbitzari eta eragile zabala . . . . .	159
– Pirinioak: hizkuntzak eta literaturak . . . . .	223
– <i>Nerekin yaió nun. Txillardegiri omenaldia</i> . Liburuaren aurkezpe- nean . . . . .	761
KORTAZAR, Jon:	
– Ekaitzpean: Jose Eizagirre (1881-1949) . . . . .	567
LIZARRAGA, Aritz:	
– Ikastola <i>Erentzun</i> Ikastola . . . . .	1123
LIZUNDIA ASKONDO, Jose Luis:	
– XVI. Biltzarraren antolakizunaz . . . . .	227
– Euskarararen Legearen sorrera. Giro politikoa, koiuntura eta ne- goziaketa . . . . .	1251
– Jean Haritschelharren omenezko <i>Iker</i> liburukiaren aurkezpenean . .	1099
– Jesus Atxa Agirre (1920-2007) . . . . .	1667
MUNDIÑANO LARRAZA, Iñaki	
– Euskalkiak eta herri komunikabideak . . . . .	323
NARBAIZA, Anaje:	
– Euskararen Legeak esparru sozio-ekonomikoan izan duen eragina . .	1279
OIHARTZABAL, Beñat:	
– Jean Haritschelharren omenaldia . . . . .	1095
ONOMASTIKA BATZORDEA:	
– <b>Undio</b> . . . . .	373
– <b>Lukiano</b> . . . . .	375
– <b>Erretes</b> . . . . .	379
– <b>Gereñu</b> . . . . .	381
– « <i>Erice de Iza / Eritzbeiti</i> » . . . . .	1163
– « <i>Irumberri / Lumbier</i> » . . . . .	1165
– <b>Lukiano</b> . . . . .	1173
– <b>Urduña/Orduña</b> . . . . .	1177

OSA, Erramun:	
– Euskararen Legea: 25 urte Euskal Autonomia Erkidegoan. XI. <i>Jagon</i> Jardunaldiak: <i>ondorioak</i> . . . . .	1573
OTEGI, Karlos:	
– <i>Leturiaren</i> uda ezkutua. «Uda» atalari buruzko iruzkinak. . . . .	731
RETOLAZA, Iratxe:	
– <i>Leturiaren egunkari ezkutua</i> : gizon eta emakume irudiak . . . . .	671
ROJO, Javier:	
– Yon Etxaideren Eleberri historikoak: <i>Alos-torrea</i> (1950) eta <i>Joa-nak joan</i> (1955) . . . . .	579
SAGARNA IZAGIRRE, Andoni:	
– Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eta Euskaltzain-diaren edukiak . . . . .	229
– Euskara eta informazioaren teknologiak. Egungo egoeratik etor-kizunera begira. . . . .	843
– Euskararen Legea eta euskara informazio- eta komunikazio-tek-nologietan, . . . . .	1531
SALABERRI MUÑOZA, Patxi:	
– Materreren 1623ko <i>Dotrina Christiana</i> . . . . .	773
SALABERRI ZARATIEGI, Patxi:	
– <i>Hondarribia/Fuenterrabía</i> . Toponimo(ar)en gainean. . . . .	387
– Nafarroako herri izenen bukaerako txistukaria eta toponimoen arautzea. . . . .	391
– En torno a la forma vasca del topónimo mayor <i>larraona</i> (Ameskoa). . . . .	395
– Acerca del nombre eusquérico de <i>Lumbier</i> . . . . .	1167
SALABURU, Pello:	
– <i>EGO</i> proiektua zertan den. . . . .	189
SARASOLA, Ibon:	
– Euskaltzaindiaren XV. Barne Jardunaldiak . . . . .	177
TELLERIA, Pello:	
– Euskaltzaindiaren 2008ko batzar-egutegia . . . . .	1601
TOLEDO, Ana:	
– <i>Leturiak</i> berrogei eta hamar urte bete dituela eta . . . . .	547
URKIZU, Patri:	
– <i>Leturiaren egunkari ezkutua</i> . Liburuaren harrera garaikideen artean . . . . .	635
– Gratien Adema «Zalduby»ren <i>Jeus</i> poemaz iruzkinak . . . . .	1009

## URRUTIA BADIOLA, Andres:

- Bernardo Atxaga, Euskaltzaindian sartzea . . . . . 13
- Mikel Zalbide, Euskaltzaindian sartzea . . . . . 59
- Euskaltzaindiaren XV. Barne Jardunaldiak . . . . . 169
- Teodoro Arburua eta Eusebio de Etxalar . . . . . 281
- Euskaltzaindiaren Baionako ordezkari-tza berriaren inaugurazioa . . . . . 485
- «Ez dok amairu» erakusketa . . . . . 507
- Agurra (Andoni Sagarna: sarrera-hitzaldia) . . . . . 841
- Liburuaren aurkezpenean (Gratien Adema «Zaldubi»: *Saindu batzuen biziaz*. «Euskaltzainak» bilduma: 1. zenbakia. Aurkezpena) . . . . . 1085
- Jean Haritschelharren omenaldian . . . . . 1089
- Euskaltzaindia eta Euskararen Erakunde Publikoa: hitzarmen baten atarian . . . . . 1105
- Euskaltzaindia y la *Office Public de la Langue Basque*: un nuevo marco de relaciones . . . . . 1107
- L'Euskaltzaindia et l'Office Public de la Langue Basque: un nouveau cadre de relations . . . . . 1109
- Agurra (*Nafarroa Oinez* 2007) . . . . . 1113
- Atariko (Euskararen Legea. 25 urte Euskal Autonomia Erkidegoan. Euskaltzaindiaren XI. *Jagon* Jardunaldiak) . . . . . 1261

## XARRITON, Piarres:

- D-mailako hizkuntza gaitasun agiria . . . . . 1627

## ZABALETA URKIOLA Iñaki:

- Euskalkiak eta komunikabideak . . . . . 335

## ZABALETA, Patxi:

- Jose Manuel Lasarte (1927-2007) . . . . . 1649

## ZALBIDE, Mikel:

- Pedagogoa Batzar Nagusietan. Hizkuntzen azterbideak, Iturriagaren argitan. Euskaltzaindiko sarrera-hitzaldia . . . . . 61
- *Sprachpolitik und gesellschaftliche alphabetisierung*, Jakin-iturri eta bide-erakusle . . . . . 789
- Iparraldeko euskalgintza, XIX. mendearen bigarren erdian: Zaldubi eta bere garaia . . . . . 877
- Euskararen Legeak hogeita bost urte eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa . . . . . 1283

## ZUBIMENDI, Joxe Ramon:

- Jagonet: 2007. urtean egindako lanen berri . . . . . 1575